


# Militantzia eta errepresio politikoaren azterketa feminista bat 90eko Ezker Abertzaleko emakumeen kasua

Olatz Dañobeitia Ceballos

Tesi-zuzendariak:

Mari Luz Esteban Galarza eta Marta Lúxan Serrano



**Doktorego tesia 2024**

**Ikasketa Feministak eta Generokoak Doktorego Programa**

**Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saila**



# **Militantzia eta errepresio politikoaren azterketa feminista bat**

## **90eko Ezker Abertzaleko emakumeen kasua**

Olatz Dañobeitia Ceballos

Tesi-zuzendariak: Mari Luz Esteban Galarza eta Marta Lúxan Serrano

Ikasketa Feministak eta Generokoak Doktorego Programa  
Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saila

Doktorego tesia

2024

eman ta zabal zazu



Universidad  
del País Vasco

Euskal Herriko  
Unibertsitatea

**Egilea: Olatz Dañobeitia Ceballos**

**Tesi-zuzendariak: Mari Luz Esteban Galarza eta Marta Luxan Serrano**

Donostian, 2024ko urtarrilean

**Doktorego tesi honek Euskal Herriko Unibertsitateak euskaraz egiten diren  
doktore tesiak bultzatzeko laguntza jaso du. 2016-2017**

**Ikasketa Feministak eta Generokoak Doktorego Programa**

**Balioen Filosofia eta Gizarte Antropologia Saila**



# **Esker onak**

Doktorego tesietako eskerren atala, ikerketako sukaldea argitara ekartzeko lekua izaten da, eta ikerlari feministok epistemología kritikoein koherenteki jarduteko asmoz, tesia posible egin duten prozesuak agertzen saiatzen gara; prozesu ekonomikoak, politikoak, akademikoak eta pertsonalak. Geroz eta gehiago, horietariko asko, metodologiaren atalean sartzen ditugu, preseski ezagutza sortzeko prozesuan eragiten dutelako. Beste batzuk, han aipatzea lekuz kanpo daudela sentitzen dugu, baina etnografia batetako tresna behinena den ikerlariarengan eta bere testuinguruarengan eragiten dute. Bada, horiek guztiak zerrendatuko ditut, ordenatzeko orduan garrantziaren araberrako iherarkiarik egin gabe.

Erabat eskertuta nago, ezagutza formalera eta ikerketara hurbiltzea posible egin duten baliabide guztiei; gehienetan publikoak, baina baita auzolan eta elkartasunez osatutako proiektu komunitarioak ere. Ordena kronologikoan doaz ekonomikoki eta materialki nire ikasketa prozesu formala posible egin dutenak: Lekeitioko Azkue Ikastola, Bizkaiko Aldundiko Gizarte Zerbitzuak, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza saileko bekak, UNED-eko Piliren kudeaketak, Izeko Arantziren etxea, Eusko Jaurlaritzako Gizarte Zerbitzuak, Nereren elkartasun-kotxea, Letraukuako elkartasun-logela, Soniaren sofa-kama solidarioa, Izeko Arantziren sofa-kama eskuzabala, Harrera Elkartea, EHUko aurre-dokotretza beka. Ezin aipatu gabe utzi ekonomikoki aurrera egiteko lantxuak eskaini dizkidazuen guztiak. Baita, goxo hartu nauten liburutegi eta artxiboak: La Bolsako emakumeen dokumentazio zentroa; EHUko liburutegiak; Bilboko Bidebarrietako, Alhondegiko, Aldundiko eta Karmelako liburutegiak; Lekeitioko udal liburutegia, eta nola ez, Donostiako Carlos Santamaria eta Koldo Mitxelenakoak. Zer esanik ez, ondoko fundazioko artxiboak: Lazkaoko Benediktarrak, Euskal Memoria, Ipar Hegoa eta Iratzar Fundazioa.

Esker mila Herri Mugimenduei. Horren baitan ulertzen ditut mugimendu sozio-politiko batzuk, sindikatuak eta mugimendu feminista bera ere. Eskerrak pentsatzen eta hausnartzen erakusteagatik, eta aldiro aldiro horretarako aukera eskaintzeagatik. Batez ere, euskal gatazkarekiko begirada kritikoa eta feminista uztartuz, mintegi, jardunaldi, topaketa eta irakurgaiak sortzen animatu zareten kide eta elkarte guztiei. Batzuk aipatzearren, Bilgune Feminista, Egiari Zor, Ipes-Bilbo, Foro Soziala, Emakumeen etxeak, Bilboko Bira, Emagin, Iraulza txikien akanpada, torturaren aurkako herri ekimenak eta Ezker Abertzalea. Modu berezian eskertu nahi dut, doktorego tesi honetako gogoetak partekatzeraz gonbidatu nauzuenak; ikerketako kezkek, intuizioak eta aurkikuntzak zuekin eztabaidatu eta harilkatzea funtsezkoa izan da. Baita zuen babes politiko eta morala ere. Zorionekoa ni, zuen bidaide izateagatik. Ana eta Ali, zain naukazue, Zuentzat!

Maila akademikoan kokatzen, aurrera egiten eta ezagutzak trukatzeko aukera eskaini didaten espazioak ere eskertu nahi ditut. Batez ere aztergai dudan gaira hurbildu direnak azpimarratu nahi ditut: 2017an Donostian bake eta gatazka ikerketa feministen ekoizpena ikustarasteko egindako HEGOAKo jardunaldiak. 2018ko maiatzean Bilbon Hegoa eta Simrefek antolatutako jardunaldiak biolentzia erresistentzia eta dekolonialitate aroan ikerketak feministak egiteari buruz. 2021ko maiatzean EHU eta UEUK elkarlanean Iruñean antolatutako *Gatazkaren irakurketa feministak* jardunaldiak. Horrelako espazio eta ekimen gehiago behar ditugu. Logika neoliberalak egituratzen duten egungo akademiari, botere hierarkiak, lehia, konfrontazioa eta eskusioa darion arren, bertan beste printzipio batzuekin egoteko saiakeran dabilzane nire esker onak eta aitortza osoa. Elkartasuna, horizontaltasun handiagoa, ondasun komunen aldeko borroka eta egia bakarraren aurka ari direnei: Doktoregaien asanbladatik hasi, ordezkoen borrokaldi eta sindikatuetatik pasa, eta beste praktika txikiagoetara: bibliografía proposatu, ingeleseko testuak itzultzen lagundu, publikazioak eskaini, kontaktuak erraztu edo liburuak oparitu dizkidazuen guztioi mila esker. Andrea, Moha, Txefi, Maisa, Maria, Ana Laura, Laura, Hernan, Jokin, Arantxa, Claudia, David, Alvaro, Zesar, Irantzu, Aida. Esker mila, ikerketa hau baino lehenago, bidea zabaldu eta ikergai honetako fenomenoak aztertu dituzuen guztiei, modu berezian Eva Forest-i.

Ikerlan honetako edukiak gizarteratzeko beharrezkoak diren publikazio kolektiboetan parte hartzeko aukera eskaini didazuen guztiok, lan honen itzulera etengabekoa posible egin duzuelako, erabat eskertuta naukazue. Gertu izan ditudan irakasleei, Elixabete, Marta, Matxalen, Yolanda, Mila eta Maggiri. *Etnografikak*, *Ez donk* eta *Las que Zarandean* moduko sare eta saiakerei esker; doktoregaien arteko laguntza morala eta materiala antolatzeko ahalegina errealitate bihurtzen da, eskarmentu akademiko eta askotariko aitortza duten kideak, hasiberri edo aitortu gabekoekin elkarlanean aritzea posible egiten dutelako.

Argentinako egonaldia emankorra posible egin zuten guztiei, neure eskerrik beroenak. Are gehiago, bertako eskubiko gobernu berriarekin kriminalizatuak izaten ari diren entitate akademiko eta proiektu guztiei: Conicet, IEALC, UBA, IDES eta Memoria Abierta proiektuari. EHUko egonaldian zientzia eta Unibertsitateko erakundea bera borrokagai dela agerian utzi didan Antropologia Feminista Ikerketa Taldeari eta bidaide izan ditudan bertako kideei.

Zuen etxeetan idazketa egonaldiak eskaini eta egunerokoa goxotuz, tesi honetako gela propioa osatu duzuenoi, bihotz -bihotzez eskerrik asko.: Mutrikuko Udaneri, Madridedeko Sierrako Andreari, Buenos Aireseko Luri, Donostizarreko Gorkari, Bertaren herrialdeko Cormeri, Gizaburuko hirukoteari, Lekeitioko Saninazio eta Zumatzetako Agurtzane, Lur eta Arhaneri, Eskolapeko Suni eta Josuri, Gatikako Iurgiri, eta, amaitzeko Mallorkako bandido maiteei. Denbora edukitzeko aukera erreztu didatenei; Itziar eta Mikeli lizentzia errezteagatik, lankideei haien ulermen eta elkartasunagatik. Eta niretzat sukaldean egin duzuen guztiei.



Nigan konfiantza egin eta tesi hau egitera animatu ninduzuen guztiei; Belen, Marta, Agurtzane. Irakurri nauzuenoi: Berta, Txefi, Asier, Marina, Suni, Ibai, Iratxe, Idoia, Agurtzane, Unai, Maria. Beti hor egoten asmatu duzuen Miriam, Uzuri, Jaime eta Igorri. Konplize, konspiratzaile eta aliatu zoragarriak zarete; kritiko, umil eta kide. Tesi honetako azken txanpa izan zaretenontzako esker mila. Igor, Miriam, Iratxe, Jaime, Eli, Karpanta eta Ignacio.

Tesia zuzendu didan M bikoteari, Marta eta Mari Luz, Mari Luz eta Marta. Mila esker tesi hau zuzentzera animatzeagatik eta babesteagatik, Erakunderako bideak errazteagatik eta nola ez, tesiak behar duen lurra eskaintzeagatik. Egin dugu!

Tesi hau zuen bizitzetatik irtetzeko irrikitan zaudeten guztioi, zer esan? neure bizipozak zarie. Gari eta Lea, ez, Olentzerok ez eustan tesia idatzi atzanean. Maru, por fin ama. Iurgi, lortu dut, zeurea ere izan dan prozesu zaila eta gero. Tesi defentsara heldu ez zareten Belentxu, Joseba eta Sabin aitari; Ron apur bat, eta zero-zero bat lurrera! Mika eta Hodei, urte askotarako!

Haien bizitzaren zati handi, esanguratsu, mingarri eta ederreko kontakizuna, eskaini didaten Sua, Xune, Mari, Lur, Lola, Maitane, Alazne, Maddi, Sara, Irene, Alba Lili, Lua eta Ekiñeri. Baita Itsaso eta Loreari ere. Zuei, Bourdieuren berba hauen bidez mintzo natzaizue:

*Nola ez sentitu, bada, kezka-sentimendurik hitz pribatu batzuk publiko egiteko unean?, bi pertsonaren arteko harremanean soilik ezar daitekeen konfiantzazko lotura batean bildutako konfidentzialtasunetik sortutako hitza, hain zuzen ere. Zalantzarik gabe, solaskide guztiek onartu zenuten nire esku uztea zuen esanak nola erabiltzen ziren. Baina ez dago isileko eskakizunez kargatutako kontratu pisuagorik, konfiantzazko kontratu bat baino.*

Saiatu naiz, emaitzak zer ekarriko duen jakin gabe, baina inoiz ez, hausnartu eta neurtu gabe. Zorionez, datorrena zer izango den jakiterik ez dugu, onerako eta txarrerako. Nik hala ere, ahalegina egiten dutenen ondoan egon eta ekin nahi dut. Itxaropena zuekin kolektiboki antolatzen. Bizitzaren alde eta bizirik ekiten dutenen aldean egotea hautatuz.



# Aurkibidea

I. ATALA: Ikerketaren oinarriak .....	1
<b>I. KAPITULUA.....</b>	<b>3</b>
<b>Sarrera: Euskal Gatazkako genero-azterketara hurbiltzeko ibilbidea .....</b>	<b>3</b>
1. Kokapen teoriko eta metodologikoak .....	3
1.1 Ikergaia eta ikerketa-objektua eraikitzeko prozesua .....	3
1.1.1. Ez-lekuan bizitzen: hutsune baten kontakizuna .....	4
1.1.2. Ezker Abertzaleko emakumeen* ibilbide militante eta errepresiboak aztergai. 90etik gaurdaino .....	8
1.1.3. Ikerketa-galderak.....	11
1.1.4. Ikerketa-helburuak .....	13
1.1.5. Esploratzeko nahia duen ikerketa bateko behaketa unitateak nola definitu .	15
1.2 Abiapuntu metodologikoa .....	16
1.2.1 Etikaz bi hitz.....	16
1.2.2 Nork-nondik-zergatik-zertarako .....	18
1.2.3 Norentzat .....	19
1.2.4. Non, noiz .....	20
1.2.5 Nola. Oztopo eta zailtasun metodologikoetatik abantailetara.....	22
1.3 Etnografiaren dimentsio hirukoitza.....	29
1.3.1. Datuak sortzeko estrategia metodologikoa .....	31
a) Berrikuspen bibliografikoa eta datuen jasoketa.....	31
b) Behaketak.....	32
c) Idatzizko eta ikus-entzunezko materialaren azterketa. Landa-eremuan egon.	33
d) Biografia moduko elkarrizketa sakonak.....	34
e) Beste elkarrizketak .....	39
f) Autobiografia .....	40
g) Protagonista nagusien aurkezpena .....	41
1.3.2 Analisia.....	46

1.3.3 Idazketa .....	47
1.4. Tesiaren egitura .....	49
<b>2. KAPITULUA</b>	
<b>Oinarri teoriko-kontzeptualak.....</b>	<b>53</b>
2.1. Biolentziari antropologiatik beha.....	54
2.2. Memoria sozio-politikoari memoria-ikasketetatik eta feminismotik begira .....	58
2.3. Feminismotik generoari begira .....	61
2.4. Feminismotik gatazka politiko-armatuei eta konponbide prozesuei begira.....	63
2.5. Sistema punitiboaz, biolentzia, boterea, politika, etika.....	74
<b>3. KAPITULUA</b>	
<b>Testuinguru historiko eta etnografikoa .....</b>	<b>81</b>
3.1. 90eko hamarkada: Ezker Abertzalea edo Euskal Nazio Askapen Mugimendua	81
3.2. 90eko hamarkada: gatazka politiko armatuaren bilakaera .....	84
3.3. 90eko hamarkada: Mugimendu feministaren bilakaera eta lorpenak .....	93
3.4. 90eko hamarkada: Euskal Herriko genero-ordena kokatzeko zenbait datu:.....	94
3.5. 90eko hamarkada: Ezker Abertzalea eta feminismoaren arteko harremanaren bilakaera... ..	95
3.6. Testuinguru etnografikoa.....	100
3.6.1. Errepresioaren lurraldea .....	100
a) Hildakoak .....	101
b) Espetxe politikoa:.....	102
c) Ihesaldi politikoa: .....	103
d) Tortura politikoa:.....	104
3.6.2. Partaidetza sozio-politikoaren eta gatazkaren ondorioen konponketaren lurraldea.....	108
3.6.3. Lurralde feminista .....	110
<b>II. ATALA: Etnografian murgilduz.....</b>	<b>113</b>
<b>4. KAPITULUA</b>	
<b>Partaidetza sozio-politikoaren hastapenak.</b>	
4.1. Sarrera.....	115

4.2. Euskal Herrian emakumeek* mende bat baino gehiago daramate ekintza politiko eta biolentoetan murgilduta .....	115
4.3. Mundu mailako erreferentziak direla eta .....	116
4.4. Mugitzen hasi. Agentziadun emakumeak* .....	118
4.4.1... 78ko erregimenean kabitu ezinik bizi zen eta mundu berria oraindik egiteke zeukan belaunaldia.....	120
4.4.2. Errepresioa engaiamendurako mugarri .....	124
4.4.3. Emozioak haiek eta gu marrazten .....	126
4.5. 90eko hamarkada eta Euskal Gatazka haien begi-bihotzetatik .....	127
4.5.1. Gerra bat zen .....	128
4.5.2. Kalea gurea da.....	130
4.5.3. Denak mugitzen ziren.....	132
4.6. Noiz eta zein espektatibarekin hasi ziren mugitzen .....	133
4.6.1. Gazte-gaztetatik eta ikastetxeetan .....	134
4.6.2. Ezker Abertzalearen erreferentzia-ikur .....	137
4.6.3. Emakumeen* ikur ahula eta feminismoaren ipar lausoa.....	140
4.6.4. Etxekoak bidelagun ala etxekoekiko etxekalte .....	142
«Ez dut ezagutzen beste bizimodurik» .....	142
«Ez sartu lioetan» .....	144
4.7. Azken ideiak.....	148

## 5. KAPITULUA

<b>Ezker Abertzaleko kultura politikoaren ezaugarriak emakume* militanteen esperientzietan.....</b>	<b>151</b>
5.1. Sarrera .....	151
5.2. Kultura politikoari buruzko zenbait ohar .....	153
5.3. Ezker abertzalea militantziaren eredu- eta paradigma-aldaketan.....	155
5.3.1. Iraultzatik eta abanguardiatik dinamizazio sozio-politikora eta aniztasunera..	158
5.3.2. Hogeitalau orduko militantzia koherente eta integrala ipar .....	161
5.4. Borroka-mandatu eta eredu idealak.....	144
5.4.1. Naturalizatutako bideak: militatzea patua balitz bezala.....	166

Mari: «Ni jada hori nintzen» .....	166
Lur: «Hau tokatzen zaigu» .....	166
Sara: «Harriduraz, baina ¡de cabeza!».....	167
5.4.2. Mandatua erabat bete ez zutenak .....	170
Xune: «Era una pringada» .....	170
Alazne: «Hau ere bada, militantzia da».....	171
Maddi: «Bikinian ez, neoprenozko trajearekin bai».....	173
5.4.3. Militante prestigiatura: intentsiboa eta eskusiboa .....	175
5.5. Militante sentitu.....	177
5.5.1. Subjektu politiko gisa jaio eta sozio-politikoki garatu.....	178
5.5.2. Pertinentzia: munduari nondik begiratu eta munduan non kokatua baduzunean. ....	179
5.5.3. Elkarrekin egon, aritu eta erresistitu .....	180
5.5.4. Utopiak bizi.....	181
5.6. Militantzia politikoaren bidegurutzeak: hiru emakume*, hiru inflexio-puntu eta kontakizun bakarra .....	183
Irene: «gure seme-alabei mundu hobea uztea» .....	183
Maitane: «oraindik ez dugu maskorra kendu» .....	184
Lili: «Askapenaren eta umezurztasunaren artean».....	185
5.7. Azken ideiak.....	188
<b>6. KAPITULUA</b>	
<b>Torturaren zauri irekitik torturaren memoria feminista eraikitzen.....</b>	
6.1. Sarrera .....	191
6.2. Torturaren definizioaz .....	195
6.3. Tortura zeharkatzen duten logikak .....	196
6.4. Tortura historizatuz .....	197
6.5. Torturaren iruditeriak .....	198
6.6. Torturaren mugak .....	199
6.7. Torturaren azterketara hurbilpena .....	200
6.7.1. Tortura estatuen <i>backstage</i> da (baita demokratikoena ere) .....	200

6.7.2. Estatu Espainola: ez da salbuespena, ezta iraganeko gauza ere.....	201
6.7.3. Tortura, suntsitzeko ezagutza gisa.....	202
6.7.4. Sexu-tortura, praktika politiko gisa.....	203
6.8. Emakumeak* ahots propioz: indarkeria eta mina izendatuz.....	205
6.8.1. Isiltasunaren horma bikoitza hausten: eszena etnografikoa .....	205
6.8.2. Sexu-indarkeria politikoa tortura gisa: mezuak eta irakurketak.....	209
6.8.3. Lekukotzetatik abiatuta hausnartzea .....	213
a) Gorputza jarriz: testigantza garrantzia .....	213
b) Isiluneak .....	214
c) Lotsa eta errua: zure gorputza etsai .....	215
d) Torturaren tekniken, aktoreen, objektuen eta jakintzen mapa.....	216
e) <i>Kiebre</i> edo haustura: apurtu egin naiz .....	217
f) Subjektibotasun militanteak torturan.....	218
6.9. Azken ideiak.....	221

## 7. KAPITULUA

<b>Tortura-politikoaren isilpeko kartografia.....</b>	<b>225</b>
7.1. Sarrera .....	225
7.2. Torturaren oihartzunen kartografia.....	226
7.3. Itxaropenaren kartografiak .....	233
7.3.1. Espazio seguruak.....	236
a) Berdinen artean.....	237
b) Euskara erabiltzea .....	238
c) Terapia .....	239
7.3.2. Tresnak, moduak .....	240
a) Aitortza: askotariko <i>Nik sinesten dizut</i> isilak .....	241
b) Umorea.....	242
c) Kontatu, salatu, militatu .....	243
d) Formazioa, jakintza, ulermena .....	245
7.3.3. Mugarriak.....	246
7.4. Justizia eraikitzeko prozesuak: <i>Nik sinesten dizut</i> , emakumeen* egia aitortzea.....	250

7.5. Azken ideiak.....	256
------------------------	-----

## 8. KAPITULUA

### **Euskal emakume\* militanteen espetxe politikoa aletzeko ariketa .....259**

8.1. Sarrera .....	259
8.2. Emakumeen* beste historia idatzigabe bat gehiago.....	261
8.3. Deshumanizazioaren biolentzia eta biolentziaren deshumanizazioa.....	268
8.4. Lehen teila - Espetxea: urrunekoa eta kuestionaezina.....	271
8.5. Bigarren teila - Emakumeen* itxialdia modernitatearen aurrekoa da.....	273
8.6. Hirugarren teila - Emakume* presoak: diziplinatu, etxekotu, zuzendu .....	273
8.7. Laugarren teila - Gizarte barruko gizartea .....	274
8.8. Bosgarren teila - Frankismoko preso politikoak: zigortu, makurtu, damutu, eraldatu.....	277
8.9. Seigarren teila - Kartzela barruko kartzelen eraikuntza-prozesua, bost urratsetan.	278
8.10. Zazpigarren teila: Espetxe Erakundearen irakurketa feministen ekarpena ...	281
8.11. Zortzigarren teila - EPPKren aurkako oldarraldi berria (1995-2015).....	283
8.11.1. Espetxe-erregimen politikoa.....	284
8.11.2. Salbuespeneko legedi eta arkitektura judiziala .....	287
8.12. Azken ideiak.....	288

## 9. KAPITULUA

### **Estatu Espainolaren espetxe-ereduari begira .....289**

9.1. Sarrera .....	289
9.2. Estatu Espainoleko espetxe-sarea.....	291
9.3. Sistema progresiboa eta bizi-erregimenak: etengabeko xantaia .....	292
9.3.1. Erregimen bereziko moduluak .....	294
9.3.2. 1. graduako bizi-erregimena .....	295
9.3.3. 2. graduan .....	296
9.4. Zigorraren kronotopoa: etengabeko denbora programatua eta etengabe zatikatutako espazioa.....	298
9.5. Espetxe-arautegia .....	304
9.6. Espetxe-eredu modularra.....	306



9.6.1. Sarrera-irteera gunea .....	308
9.6.2. Erietxea-eroetxea-herioetxea-gune pribilegiatua .....	311
9.6.3. Betatutako eremuak.....	312
9.6.4. Espetxe mistoen mitoa .....	313
9.6.5. Txopanoak.....	315
9.6.6. Bizitza familiar, intimo eta sozialerako, 340 minutu hilean.....	319
9.6.7. Burokrazia geldo eta axolagabeen galtzen diren eskubideak.....	320
9.6.8. Segurtasuna, ooren gainetik.....	320
9.7. Azken ideiak.....	321

## 10. KAPITULUA

### **Espetxea askotariko harreman-eremu eta espetxea bizitzeko denbora gisa...**

.....	<b>323</b>
10.1. Sarrera.....	323
10.2. Bizi-harremanak: sailkapenak, errepresentazioak eta identitateak.....	324
10.2.1. Patioa: presoan arteko harremanak .....	324
10.2.2. Etxea: kideen arteko harremanak .....	331
10.2.3. Etsaitasuna: espetxearekiko eta bere langileekiko harremana .....	335
10.2.4. Gutunak: kalekoekiko harremana.....	338
10.2.5. Ziega: presoaren buruarekin.....	340
10.3. Espetxea bizi-denboran.....	343
10.3.1. Kartzelaldi-hasiera askotariko esanguraz beteta .....	345
10.3.2. Gela propioa andre-etxeetan.....	347
10.3.3. (Ez)-amatasunen sasoia .....	348
10.3.4. Esperientzia eta modu berriei irekitzeko sasoia .....	349
10.3.5. Borrokarako eta hazkuntza militanterako etengabeko aroa .....	351
10.3.6. Balantze kritikoetarako sasoia.....	353
10.4. Espetxe-zigor baten ibilbidea .....	354
10.4.1. Espetxera sartzea: «Orain hemen zaude».....	355
10.4.2. Espetxe aldaketak. «Recoja sus cosas que se va de conducción».....	356
10.4.3. Erditu naiz, erdibitu naute. «Tu no los conoces». .....	358

10.4.4. Muturreko egoerak. «Pensar que tu vida estaba en manos de esa gente»	359
10.4.5. Bakartzeak. «Kontentzio handia».	360
10.4.6. Kaleratzea. «Hemengoak gara. Ez giñen inoiz joan».	363
10.5. Azken ideiak	365

## 11. KAPITULUA

### **Erresistentziak, frikzioak eta arrastoak.....367**

11.1. Sarrera: Espetxeko hormetako eta espetxe-egituraren arrakalak	367
11.2. Zapalkuntza eta erresistentziaren arteko solasaldia	369
11.3. Erresistentziak	375
11.3.1. Espetxe sistemaren zutabeekin zerikusia dutenak: Ez kolaboratzea	375
11.3.2. Adierazpen askatasuna eta beste eskubide zibil eta politikoekin zerikusia dutenak.	376
11.3.3. Espetxeko eguneroko bizimoduarekin zerikusia dutenak	378
11.3.4. Bizi-baldintzen kaskartze eta gehiegikeriekin zerikusia dutenak.	378
11.3.5. Presoaren oinarritzko eskubideekin zerikusia dutenak.	379
11.3.6. Gorputza eta osasunarekin zerikusia dutenak	380
11.3.7. Generoari lotutako erresistentziak	380
11.4. Frikzioak	384
11.4.1. Jakintza, jolasa eta ekintza kolektibizatzearekin zerikusia dutenak.	385
11.4.2. Espazio eta denboren ezaugarritzea aldatzearekin lotura dutenak	386
11.4.3. Komunikazioarekin zerikusia dutenak	387
11.4.4. Gozamina sortzeko	388
11.4.5. Preso identitate orokorrarekin bat egiten duten praktikak.	389
11.4.6. Generoari propio lotutakoak.	390
11.5. Arrastoak: identitateak, ondoezak, komunitate emozionalak	393
11.5.1. Muturreko egoeretako lotura estuak. Elkar zaintza.	394
11.5.2. Kideak. Birhumanizazio prozesuak eta komunitate emozionalak.	397
11.5.3. Ondoezak. Genero zaurietatik feminisimora oinez.	420
11.6. Azken ideiak	401

## 12. KAPITULUA

<b>Ezker Abertzaleko emakume* militanteak genero-erregimenen arteko dantzan.....</b>	<b>405</b>
12.1. Sarrera.....	405
12.2. Ezker Abertzaleko genero-erregimena: borrokarako etxeko andre eta amatxuetatik Itziarren alabetara.....	406
12.2.1. Hori gizonentzat, agintzen dutenak dira eta.....	406
12.2.2. Politikoki garrantzitsua(k) eta politikoki ez horren garrantzitsua(k).....	408
12.2.3. Zainduak izateko eskubiderik ez duten zaintzaileak.....	411
12.2.4. Ezker Abertzalean egoteko bi ideal tipo: Itziar eta Itziarren alaba.....	413
a) Itziar ereduko emakumeak.....	414
b) Itziarren alaba gudariak.....	415
12.3. Estatuko dispositibo errepresiboetako genero-erregimena.....	417
12.3.1. Duintasunaren/integritatearen mutilazioa: zikina.....	419
12.3.2. Mutilazio politikoa: ez militantea.....	419
12.3.3. Autonomiaren mutilazioa: neskalaguna, tuntuna, komandoko puta.....	420
12.3.4. Amatasunaren mutilazioa: ez-ama.....	421
12.3.5. Mutilazio sexuala: zikina ezin garbitu.....	422
12.4. Genero-erregimen ezberdinen arteko dantza.....	423
12.4.1. Militante errebelde eta burujabea.....	424
12.4.2. Burujabetza galduz doan emakume militantea.....	425
12.4.3. Itziarren semea izan nahi duen emakume militantea.....	425
12.4.4. Militante pinpirina eta militante ez-pinpirina.....	426
12.4.5. Emakume militante floreroa.....	427
12.4.6. Emakume militantea; bikote leiala eta bide propioak ibiltzen.....	428
12.4.7. Militante ama.....	428
12.4.8. Emakume militantea generoa antzezten.....	428
12.5. Azken ideiak.....	431

<b>III. ATALA: Azken atala.....</b>	<b>433</b>
<b>ONDORIOAK .....</b>	<b>435</b>
1. Generoak euskal gatazkan eragin du eta euskal gatazkak generoan .....	435
2. Aldaketarako eta jarraipenerako sozializazioak ezbaian .....	436
3. Identitate nazionala eta antolaketa politikoa, boteretze feministak hauspotuz.....	437
4. Ahalduntze anbigualentza emaitza gisa.....	439
5. Kultura politikoa askabide bezain gordin.....	439
6. Biktimizazio prozesuen aurka ekiten.....	440
7. Espetxea feministago egiteko eta egoteko (g)une .....	441
8. Zentzu eta esanahi feministen bila.....	441
9. Ibilbide horiek aztertze funtsezko begiradak.....	442
10. Ikerketaren mugak eta ikerketa berrientzako ateak .....	443
a. Errepresioaren minetik haien buruak berregiteko prozesuak .....	443
b. Ekarpn feministak: errepresioa eta ahaidetasunak.....	443
c. Sare informalak partaidetza eta ekintza sozio-politiko kolektibo gisa. ....	444
d. Testimonio osoagoetarako behar diren baldintzak aztertu: .....	444
e. Biolentzia politiko sexuala posible egin zuten baldintzak eta horien egungo egoeran aztertu, zehazki jarraipen eta hausturak. ....	444
f. Espetxeko feminista egiteko prozesuak sakonago aztertu.....	444
<b>Bibliografia.....</b>	<b>447</b>
<b>Irudien aurkibidea.....</b>	<b>477</b>
<b>Taulen aurkibidea.....</b>	<b>478</b>
<b>Eraskinak.....</b>	<b>479</b>

# Irakurleari

**Zergatik likenak?** Iñaki Gezuraga Ozkortak Lea Artibaiko liken ederron erretratuak eskaini dizkit. Unai Txurruka Maiztegik ideia eman. Horra bere Telegram mezua, hitzez hitz, irakurleak tesia amaitu ostean, akaso, Unaik niri egiten zizkidan galderen inguruan gogoeta egiten jarraitu nahiko balu:

“Zure tesiko sujetuak Likenen antza izan dezakete. Hau da, gai dira egoera arrotz eta zailenetan ere aurrera egiteko beharrezkoak diren moldaerak (adaptazioak, estrategiak....) garatzeko. Eta horri esker, bidea zabaltzen diete beste izaki bizidun batzuei (beste emakume-militante batzuei). Gainera Likenez hitz egin behar bada lankidetzaz eta talde-lanaz hitz egin behar da. Izan ere, sinbiosia da likenen ezaugarri berezietariko bat. Grekeraz: σύν, syn, “batera”; eta βίωσις, biosis, “bizi. Neoliberal anglosaxoiek gaur egun win-win erlazio gisa definituko lukete harreman hau. Baina hori baino gehiago da. Likenak berez, izaki bizidunen elkarlanen emaitza dira (elkarlan ez merkantilizatua, noski). Bi aurpegidun izakiak. Bi arimadun (zapalkuntzadun?) izakiak. (Zapalkuntza anitzak? ). Onddo eta alga baten arteko elkarlanaren emaitza hain zuzen ere. Onddoak algari arroka higatuz askatzen diren gatz mineralak eta bizitzeko “etxe” bat eskaintzen dizkio eta algak onddoari, berriz, fotosintesiari esker, sortzen/fabrikatzen dituen elikagaiak. Hau da, onddoak etxea jartzen du eta likenek afaria. Zure subjektuak, badute dualitate hori? Zer litzateke onddoa eta zer alga? Zer etxea? Eta zer afaria?

Gainera likenik gabe lurlean ekosistema aberats eta konplexuak sortzea zailagoa izango litzateke...Beraiek dira sortu berriak diren ingurune natural ugari kolonizatzen duten lehen izakiak. Besteak bizi daitezen lurra lantzen duten lehen izakiak. Aitzindariak. Baina normalean ekosistema aberats horietako izaki ikusgarri ederrak dira dokumentaletan agertzen direnak (zuhaitz handiak, lehoiak...). Baina likenik gabe, bakerik ez. Hori bai, likenek nekez bizirauten dute kutsatutako inguruneetan; hirietan, fabriketako kea, leku antropizatu toxikoetan...kartzelan, komisaldegian...bizitzea ez zaie batere erraza egiten. Dena den, ingurune industrial degradatuetako burdin edo altzairu zati zaharren gainean ere bizitzari atea zabaltzeko gai diren likenak ezagutzen dira jada...”

**1. Genero-ikuspegiak aztertzeak,** emakume eta gizonei erreparatuz aritzea esan nahi du. Besteak beste, horien arteko harremani edo generoa berregiteko prozesuei. Begirada androzentrikoak gizonak hartzen ditu ardatz, eta haien begirada eta neurritik eraikitzen du kontakizuna. Kasu honetan, emakumeak jarri nahi izan ditut hitz egiten, eta litekeena da, aipatzen

dituzten prozesu batzuk gizonezkoekiko oso desberdinak ez izatea. Alegia, agertuko diren gauza asko gizonen kasuan ere gertatuko ziren, akaso. Hala ere, androzentrismoa txikitzeko emakumeek mahai gainean jartzen dituzten gaiak, prozesuak, premiak eta ekarpenak agerian jarri nahi izan ditut. Emakumeak beste gai batzuez hitz egiten digutelako (Jelin,2002, Santesteban, 2017), eta Mari Luz Estebanen ( 2018 ) arabera baita modu ezberdinean ere. Bada, ikerlan honetan modu horiek balioan jarri nahi ditut.

**2. Idazketa-prozesua** buruhauste bihurtu zait, prejuiziotik eta posizio politiko jakinetatik irakurriko zaidalako. Eta horrek jada, irakurketaren zati handi bat dakar berekin, nire ahaleginak ahalegin. Zentzu horretan funambulista sentitzen naiz, oreka asko mantendu nahian., deserosotasuna habitatzen (Gandarias, 2014). Tesiko ariketa zailena oreka horiek mantentzea izan da, zalantzarik gabe. Satanizatu, totalizatu edo idealizatu, guzti horiek gatazken posizio eta deshumanizazio eta biolentzien emaitza dira askotan. Eta, ikerlan honek argia ikusiko duen une eta abagunean hori gaintu gabe daukagu. Bide horretan lagundu nahiko nuke, baina horiek asmo handiegiak dira; ekarpen txiki eta partziala baino izango ez den tesi honentzako.

**3.** Doktore-tesiaren idazketan ari nintzela, euskal gatazka eta feminismoak elkarrekin osatzen duten unibertsoarekin lotutako **lan berri** batzuk argia ikusi dute; batzuk aipatzearen Samara Velteren doktore-tesia gazteekiko memoria prozesuak aztertuz, edo Ane Larrinagarena, genero-erregimena landuz. Pena handiz, ezin izan ditut testuan integratu, akaso izan zezaketen garrantziaz.

# I. ATALA

## Ikerketaren oinarriak







# I. KAPITULUA

## Sarrera: Euskal Gatazkako genero-azterketara hurbiltzeko ibilbidea

### 1. Kokapen teoriko eta metodologikoak

Esku artean duzun ikerketa honek 90ko hamarkadan Ezker Abertzalea osatzen zuten antolakundeetako batean —edo gehiagotan— parte-hartzen hasi ziren emakumeen\* ibilbideak ditu aztergai. Bide horrek haien partaidetza sozio-politikoak, Estatu Frantses<sup>1</sup> eta Espainolaren aldetik partaidetza hori dela-eta haien aurka hartutako neurri errepresiboak, eta gaur egun atzera begiratuta hori nola gogoratu eta baloratzen duten hartzen du kontutan.

Atal honetan, ibilbide hori aztertzeke premia eta ibilbide horri egindako galderak eta horiek nola sortu ziren azaldu gura dut.

Horrekin batera, ikerketa-helburuak eta horiek betetzeko bidean erabilitako printzipio metodologiko eta oinarri teorikoen berri emango dut. Azken batean, ikerketa honen oinarritzko hezurdura zein den eta zergatik hautatu dudan azalduko dut.

#### 1.1 Ikergaia eta ikerketa-objektua eraikitzeke prozesua

Azterlan honek Euskal Gatazkaren eta feminismoaren unibertsoak jartzen ditu harremanetan. Euskal Gatazkaren baitan, Ezker Abertzaleari eta estatu-errepresioari egiten dio leku. Ez baitik gabe, biak ala biak nazionalismoarekin lotura estuan daude. Batek euskal nazioa eraikitzea du helmuga, eta besteak, Espainiakoa. Lehena, Ezker Abertzaleko kasuan, nazio-askapeneko egitasmo eta paradigmei lotuta garatu da, eta bigarrena estatu-nazioen eraikuntza modernoaren parametroetan.

Onintza Odriozolak, bere doktore tesian, Mila Amurrioren 2003ko *Generoa, nazio eta nazio hezkuntza: ikastoletako irakasleria* doktore-tesitik ondoko ustea jaso zuen, eta oso ondo laburtzen du ikergaia eraikitzeke motibazio nagusienetako bat:

---

1 Partaideen esperientzia dela eta, Estatu Espainoleko errepresio-sisteman jarri dut fokua. Hala ere, Estatu Frantsesa ere aipatzen dut, zenbait kasutan agertu delako, edota haien erabaki eta ibilbideetan eragina izan duelako. Hala ere, aurrerantzean, Estatu Espainola baino ez dut aipatuko, eta Estatu Frantsesari erreferentzia zehatza egingo diot, hari dagokion espezifikotasunen bat agertuz gero.

Feminismoa eta nazionalismoa uztartu dituzten ikerketa feministei esker, gaur egun badakigula nazionalismoek nazioen eraikitze-prozesuetan objektu bihurtu dituztela emakumeak\*. Baita hori nola egin duten ere: besteak beste, sinboloen eta tradizioen bidez. Baina Amurriok gaztigatzen du ikerketa feministek ez dutela inondik inola ere maila berean ikertu nazioen eraikitze-prozesuetan emakumeek\*, subjektu gisa, beren partaidetzaz diotena. Eta, ondorioz, oso gutxi dakigula egun nazioen eraikitze-prozesuetan zenbateraino izan litekeen bideragarria emakumeen\* liberazioa. **Odriozola**, 2016:50.

Kasu honetan, nazioen eraikitze-prozesuetan emakumeen\* askapena posible den ala ez, horretan baino (baita ere) emakumeek\* haien partaidetzaz diotena erdigunean ipintzeko erabakia zen gehien nagusitu zena. Jarraian datorrena prozesu horren xehetasunak dira.

### 1.1.1. Ez-lekuan bizitzen: hutsune baten kontakizuna

Esku artean duzun ikerketa esperimentazio, hiperaktibitate, ikaspen-prozesu eta, batez ere, bizi-gose galantaz nengoen garai batean mamitu zen nire baitan. Ordurako, bost urte ziren espetxetik irtenda nintzena —eta ez espetxea atzean utzi nuela, ez baita gauza berbera—. Kartzelara nire partaidetza sozio-politiko ezkertiar eta abertzaleak eraman ninduen, eta Espainiako kartzelak preso politiko gisa lekutu nituen. 24 urterekin, neure burua ziega batean ikusi nuen, soziologia-ikasketak jarraitzeko oztopoz inguratuta, ezinezkoa bilakatu arte<sup>2</sup>. Artean, askotariko emakumeekin\* neukan elkarbizitza behartu hark, feminismora gehiago gerturatu ninduen, eta erantzun gabe nituen galdera batzuen erantzunak han bilatzen hasia nintzen, eta horretan jarraitu nahi nuen.

Bada, 90eko hamarkadan hasi nituen soziologia-ikasketak amaitzeko ametsa bete berria neukan 2014an. Kostata, baina, azkenean, EHUko ikasgela batean eseriz eta euskaraz lizentziatu nintzen. Familiako lehen —eta, oraingoz, azken— lizentziatua naizen honek, ikastea oso gustuko izan arren, militantzia sozio-politikoaren lehenetsi eta hezkuntza formala alde batera utzi nuenetik, neure gogoko proiektuen artean zegoen soziologiako ikasketak amaitzea. Hamabost urte beranduago itzuli nintzen Leioako fakultatean, jada ez zegoen ikasleen topagune zen kafetegi erraldoirik, ez zeuden Protecsa segurtasun pribatuko langileekin eta campusean sartzen zen Ertzaintzarekin eguneroko talkak, kapitalismoa irakasle askok ikasgelan ere ezbaian jartzen zuten, eta feminismoa jada ez zen Managaitz-en<sup>3</sup> afera soilik, lerro akademiko ere bilakatua baitzen. Pentsamendu bakarra<sup>4</sup> inposatu zen garaitik eta feminismoa gaizki ikusita zegoen arotik nentorrenez, erabat harrituta utzi ninduen errealitate berri horrek.

---

2 Oztopoak hamaika dira: ikasmaterialak azterketak baino egun batzuk lehenago iritsi daitezkeen horretatik hasi eta espetxeko baldintzek dakarten konzentrazio-arazoetaraino, esate baterako. Hala ere, 2003an euskal preso politikoek EHU ikasketak burutzeko zeukaten aukera bertan behera geratu izana nabarmendu nahi dut. Kanporatuta geratu ziren 315 preso politiko horien artean nengoen neu ere. Aurrerantzean, eta ia 20 urtez, ikasketak UNEDen bidez egitea bilakatu zen aukera bakarra.

3 90eko hamarkadan Leioako kanpusean lan egiten zuen talde feministaren izena.

4 90eko hamarkadan Europako ezker mugimenduetan oso erabilia izan zen kontzeptua dugu. Ekonomiaren politikaren eta beste zernahi dimentsioen gainetik ezartzeko prozesua izendatu nahi zen horrekin, Globalizazio ekonomikoa ezaugarritu zuten gakoak.

Ikasten ari nintzela sinatu zen Aieteko adierazpena<sup>5</sup>, iragarri zuen ETAk bere jardunaren behin betiko amaiera<sup>6</sup>, atxilotu zituzten nazioarteko bitartekariak<sup>7</sup> eta ETako negoziatzaileak<sup>8</sup>. Ikasten ari nintzela, ehunka kilometro egiten nituen kartzelan utzitako lagunak ikusteko, sakabanaketa eta isolamendu politikak bere onenean zihardutelako. Ikasten ari nintzela, polizia-sarekadek ohikoak izaten jarraitzen zuten.

Tartean, mingarria eta inoiz jasanezina egiten zitzaidan mundu hurbil eta urruna aldatzeko neure militantzia birkokatzen ari nintzen. Azkenerako, herri-mugimenduen eta unibertsitatearen artean kokatzen zen Joxemi Zumalabe Fundazioan<sup>9</sup> asetu nituen nire gogoak. Paradigma berriak, teoria eraberrituak, egiteko beste era batzuk, eta askotariko familia politikoetako<sup>10</sup> kideak bidelagun nituela, eferbeszentzia hutsa izan zen aroan murgildu nintzen.

Hala ere, neure izate sakon eta intimoenean, zauri baten mina igartzen nuen. Non geunden Ezker Abertzaleko emakume\* militante errepresaliatuak? Ezabatuak, ezkutatuak, geure lekuaren bila, isilik, pentsakor, nekatuta, kezkatuta, baztertuta, bide berriak egiten. Denetariko toki eta egoeretan, baina, oro har, ausente, giro-une-gai nabarmenetatik at edo leku propiorik gabe. Gure jakintza, ekarpena, eskarmentua eta zauriak zuritik beltzera eramane gabe, eta lausotik argira ezin ekarrita geundela sentitzen nuen. Ez-lekuak habitatzen ari ginen hortaz: kaleko bizimodura egin nahirik, gure etxean geure burua birtopatu nahirik, etxekoen artean lekua egiten eta gure mugimendu politikoaren egoera nahaskorra identifikatu nahirik.

Ez-lekuaren sentsazioa eta hutsunea nire baitan deserosotasun- eta haserre-sentimendua eraginez joan ziren. Pixkanaka, aldiz, nire hausnarketa-prozesu intimoak baino ez ziren batzuk, normal eta jakintzat ematen nituen prozesu eta ikuskerak, interes politikoaz gaindi zientifikoa ere bazutela ohartu nintzen. Su txikian berotutako bidea izan zen arren, astindu eta beste egoera batean kokatu ninduten uneak eta pertsonak ere egon ziren; zehazki, ikerketa eta bere objektua zehazteko bultzada suposatu zuten bulkadak.

---

5 2011ko urriaren 17an, Donostiako Aiete Jauregian *Gatazkaren konponbidea sustatzeko nazioarteko konferentzia* ospatu zen. Bertan, itzal handiko nazioarteko gonbidatu gizonen parte hartu zuten, baita emakume\* bakan batzuk ere Kofi Annan eta Jonathan Powell bezalako figuren laguntzaz, Euskal Gatazka konpontze-bidean ezartzeko bost eskakizunez osatutako adierazpena egin zuten, bereziki Ezker Abertzalea eta Frantziako eta Espainiako gobernuei zuzenduta.

6 2011ko urriaren 20an, Aieteko Adierazpena eta egun batzuetara, bere jarduera armatua betirako utziko zuela adierazi zuen. Gehiago jakiteko: <https://www.berria.eus/dokumentuak/dokumentua1795.pdf>

7 Gehiago jakiteko: [https://www.berria.eus/euskal-herria/agiri-historikoaren-inguruabarrak\\_1302796\\_102.html](https://www.berria.eus/euskal-herria/agiri-historikoaren-inguruabarrak_1302796_102.html)

8 Gehiago jakiteko: [https://www.berria.eus/euskal-herria/agiri-historikoaren-inguruabarrak\\_1302796\\_102.html](https://www.berria.eus/euskal-herria/agiri-historikoaren-inguruabarrak_1302796_102.html)

9 Joxemi Zumalabe Fundazioa 1996an sortu zen, eta gaur egun ere lanean dihardu, herri-mugimenduekin, herri-mugimenduentzat eta herri-mugimenduetatik dinamizazio-, formazio- eta gogoeta-lanetan aritzen den taldea da. Ikusi gehiago: <https://joxemizumalabe.eus/nor-gara/>

10 Ezker mugimenduen barruan dauden tradizio ideologikoak izendatzeko moduari deritzo. Besteak beste, mugimendu autonomokoak, marxistak, troskistak, maoistak eta abar.

Lehen bultzada-bulkada: 2013. urteko Ankulegi Gizarte Antropologiako Elkartearen Jardunaldietan Susana Atxaerandio Alesancoren *Testimonios de tortura en democracia: reflexiones para el debate* hitz-hartzeak esan gabe eta egin gabe geneukan bidea erakutsi zidan. Zer da torturaz kontatu dena eta zer ez? Zer dakigu torturaz bere dimentsio juridiko eta psikologikoaz gain? Zelan eragin du generoak torturan? Eta torturak generoan? *Resisters* deitu ginen boskote bat geure artean bilduz eta geure esperientziatik abiatuz, horri erantzun nahirik ibili ginen urtebetez. Aurrerago, Argentinako UBAn egindako neure egonaldiak, zehazki Marisella Peller, Alejandra Oberti, Isabel Jelin eta Claudia Bacciren altzoan egindakoak, bertako aurkikuntzak ezagutzearekin batera euskal kasuan jasotako tortura pentsatzen lagundu zidan. Unibertsitateko diziplina ugari errepresio politikoaren azterketa lerro indartsua osatu dute han; memoria-ikasketak eta genero-ikasketen arteko ezkontza bultzatuz, baita ekarpen akademiko eta herri-mugimenduen ekarpenak osagarrituz zein elkarren arteko solasaldiak bultzatuz ere. Uruguayko Ana Laura de Giogiren bidez, eta Argentinako Claudia Corolen bidez, hango emakume\* errepresaliatu politikoaren prozesuen bideak eta zailtasunak ezagutu nituen. Eta hori ere Euskal Herrian egiten ari ziren urratsak pentsatzeko lagungarria izan zen.

Bigarren bultzada-bulkada: Biolentzia politikoa ardatz zuten 2013ko Ankulegiko Jardunaldi berean, *Mariposas en el Hierro* Bertha Gazlumendik zuzendutako dokumentalaren aurkezpen eta osteko gogoetan, emakumezkoak\* gatazkan biolentziaren jasole soil irudikatzeke joerak durundi egin zidan. Zergatik kostatzen zaigu horrenbeste emakumezkoak\* biolentzia politikoa egiten irudikatzea? Zergatik ez da inoiz emakume\* horietaz hitz egiten? Gerora, Foro Sozial Iraunkorreko lantalde feministako kideekin egindako bidea eta lana inspirazio-iturri etengabea izan da, zentzu horretan ere. Eskerrik asko, Arantza Urkaregi, Maite Barreña, Saioa Iraola, Mari Luz Esteban, Amaia Zufia, Irantzu Mendia, Jone Goirizelaia, eta egonaldi laburragoa egin badute ere, Joana Etxano, Nagore Larrazabal, Naia Torrealdei eta Zuriñe Rodriguezi.

Hirugarren bultzada-bulkada: 2015eko Ankulegiko Jardunaldietan, Mari Luz Estebanek emandako *Gorputzaren eta emozioen teoriaren egokitasuna politika eta ekintza kolektiboaren eraldaketa aztertzeke* hitzaldian (Esteban, 2015), 60 urteko gatazka politiko-armatuak eta bere amaierak, Ezker Abertzalearen kultura politikoan eta paisaia emozionalean eragindakoari erreparatzeak zeukan garrantzia berretsi zidan. Zer ari zen adierazten aldaketa eta krisi garai hori? Gerora, tesian zehar, hausnarketa etengabean aritu naiz, Ezker Abertzaleko emakume\* militante errepresaliatuekin, barruak hustu zein mina eta barrea findu gabe eskaini al didan lagun horiekin. Eskerrak espazio informal horiei: bilera osteko egonaldiak, kotxe-bidaiak, bisita-lokutorioak, bilera aurreko bazkariak, manifestazioetako ibilbide partekatuak... Eta eskerrak, konplizitate horiei.

Laugarren bultzada-bulkada: 2015. urteko UEUko *Euskal Herriko gatazkaren irakurketa etorkizuneko bake feministaren bidean* ikastaroan sentitutako larritasuna eta deserosotasuna izan zen. Literatura, zinema eta mugimendu politikoetatik sortutako iruditeria androzentrikoen

pisuak, emakume\* militanteen ekarpena eta haien egoeraren bilakaera noraino lausotzen ari ziren arakatzeko premia kolektiboa zegoela sentitu nuen. Halaber, Ezker Abertzalekoak izan ez diren feminista batzuek gatazkan bete-betean militatzen egon diren/garen emakumeak\* ikusteko zuten moduarekiko deseroso sentitzen nintzen. Bazter uzten gintuen kontakizun androzentrikoan ez nuen geratu nahi, baina Ezker Abertzalearen eta askapen-borrokaaren parte izateak emakume\* eta feminista gisa ekarri didana aintzat hartuko ez duen feminismoak ere ez zidan balio. Nazio-pertenentzia ukatua, ideologia- eta klase-kokapen ezkertiar-iraultzailea, eta biolentzia politikoaren testuinguruan politikoki engaiatu ginen emakumeon\* motibazio, bide, iritzi eta ekarpenak ulertzeko azterketa-marko osoagoa osatzear zegoela sentitu nuen. Gerora, *Indarkeriak dantzatzen behartzen gaituzte* (Atutxa eta Retolaza ed., 2021) liburuan itsasoratu zen ikuspegi kritiko bikoitz hura fintzea lortu nuen, Ibai Atutxa, Lorea Azpeitia, Onintza Odriozola, Iratxe Retolaza, Eider Rodriguez eta Ane Villagranekin batera. Liburu horren aurkezpenaren harira elkarrekin bizitako uneek eta izandako elkarrizketek tesi honetan eta neure kokapenean berresten lagundu zidaten. Elkartruke zoragarri eta aberatsa izan da.

Bosgarren bultzada-bulkada; 2016ko udazkenean, *Biolentzia politikoa eta generoa Euskal Herrian, 90. hamarkadan. Ezker Abertzaleko emakumeen kasua* izenburua zeraman Master Amaierako Lanari lotuta etorri zen. Berau publiko ez egin arren, lagun eta kide nituen emakume\* errepresaliatu batzuei irakurtzeko eman nien, eta irakurri ostean aipatutakoak azken bultzada suposatu zuen. «Orain neure burua hobeto ulertzen dut» batetik, «bide hau kolektiboki eta guk geuk egitea beharrezkoa da» horretaraino. Arakatzeko lan horrek doktorego-tesia, ikerketa-mundua eta akademia gainditzeko prozesu baten parte izan behar zuela ikusi nuen, elkar elikatuko zuten eta paraleloki garatuko ziren bi bide. 2016an, emakume\* preso ohiekin batera Usurbilen aurkeztutako *Hemen Gaude* manifestuak<sup>11</sup> eta bi egun horietako trukeek horretarako mamia eta beharra ageriko egin zuten nire/gure begietara. Segidan, Euskal Herriko Bilgune Feministak antolatu zuen Valladolideko espetxerako martxa feministak jarraitu zion, eta, orduan, garbi ikusi nuen emakumeen\* espetxe politikoaz jasotzeko, aztertzeko eta esateko den-dena zegoela. Gure esperientziak ez ziren preso politiko gizonen berberak, baina ez ziren emakume\* preso sozialen berdinak ere. Horretan ere, bi bideen arteko bidegurutzean geunden, eta hortik aritzeko gogoari antzematen hasia nintzen giroan. Espetxe politikoak ezagutu zutenen grina haien bizipena balioan ipintzea zela sumatzen nuen; ezagutu ez zuten feministena, berriz, erabat ezezaguna zitzaiena ezagutzea.

Laburrera ekarrita, nire kezkek, ezinegonak, pasioak eta grinak gidatu dute esku artean duzun ikerketa hastapenetik, baina ukazina da iragan hurbilari feminismotik begiratzeko agenzia kolektibo baten baitan mamitu dela. Horiek horrela, bulkada eta bultzada kolektibo artean, ikerketaren oinarritzko abiapuntua geroz eta garbiagoa nekusan. Ezker Abertzaleko emakumeen\*

11 Ikusi: <https://www.youtube.com/watch?v=Ch2-rE1tGCE>

esperientzia ikusezin bihurtu da, eta gizonezkoen partaidetzak protagonismo osoa izan du —eta aitortu zaio—, bai beraien antolakundeetan, baita gizarte osoan ere. Horretarako, bi arrazoi nagusi egon dira: batetik, Ezker Abertzalean —eta euskal gizartean orokorrean— egon den genero-ideologia, eta, bestetik, begirada feministaren presentzia ahula. Gauzak horrela, bikoitza<sup>12</sup> izan da emakume\* horiekiko ikusezintasuna: beraien mugimenduaren aldetik, eta jendarte osoarena. Ikusezintasun horrek mugatu egin du emakume\* horien jardun politikoaren eta bizipenen analisia, eta, oro har, euskal gizartean bizi izan den prozesu orokorrarena ere bai.

Horren guztiaren gainean eraiki nuen ikerketa-objektua, galderak eta helburua. Horixe duzu hurrengo atalen mamia.

### 1.1.2. Ezker Abertzaleko emakumeen\* ibilbide militante eta errepresiboak aztergai. 90etik gaurdaino

Ikerketa honen aztergai dira Euskal Herrian, azken hamarkadetan izandako biolentzia politikoaren testuinguruaz egiten ari den analisia genero-ikuspegitik osatze aldera, 90. hamarkadan zehar Ezker Abertzalean aritu ziren emakumeen\* bizipenak, planteamenduak eta horien ondorioak. Segidan, argipen kontzeptualari ekingo diot. Izendatzeko moduak, ulerkera eta kokapena adierazten baitute, zeresanik ez Euskal Gatazkan.

Errepresio politikoa ezaugarrituz: Clara Camps eta Nuria Vergesek (2015) *errepresioaren* ulerkera zabala darabilte, eta horixe da neure egingo dudana. Haien adierak «zigor-sistemak poliziaren, botere judizialaren, espetxearen eta beste zigor batzuen bidez garatzen dituen ekintzak biltzen ditu, baita botere legegilearen bidezkoak ere. Eta are, herrialde eta/edo une historiko batzuetan, eragile paraestatalak ere sar daitezke. (2015:132)». Gaurdaino ezagutzen denagatik, Estatu Espainoleko kasua azken hori dugu. Autoritate ofizialen aldetik, militante eta mugimendu sozio-politikoaren xaxatzea, jarraipen eta kontrola, debekuak, intimidazioa, atxiloketa, tortura, espetxeratzea eta heriotza ere eragin direlako, Christian Daveportek (2007) errepresioa ulertzeko duen moduari ohore eginez. Funtsean, Eduardo Gonzalezek (2012) adierazi bezala, errepresioa sozialki, politikoki eta ideologikoki ezarritako ordenarekiko desbideratuak irizten diren jarrerak kontrolatu eta horien eskubide-murrizketara lotuta agertzen den kasuetan, biolentzia politikoaren kontzeptutik gertu gaude.

Biolentzia Politikoaz eta Euskal Gatazkaz bi hitz. Euskal gizartean, beste edozein gizartetan bezala, gatazka soziopolitiko asko daude. Alabaina, gatazka politiko baten izaera armatuak arreta handia erakarri du, eta, ondorioz, Euskal Gatazka izendatu izan da. Gatazka horrek gure bizitza

---

12 Master Amaierako Lanaren bidez, ikerketa honi ekin nionean duela ia zortzi urte, ikusezintasuna hirukoitza zela izan nuen abiapuntu. Gizarte eta Ezker Abertzalearekin batera, Mugimendu Feminista aipatuz. Igaro diren urteetan, ikerketa honetan zehar agertuko diren ekimenei eta beste hainbati esker, ikusezintasun hori gainditzeko bidean dago. Hala ere, azpimarratu nahi dut, gaur egun ere, mugimendu feministan emakume komunitate honen errealitatea erabat periferikoa edo bazterrekoa izaten jarraitzen duela.

eta gizartean izan duen eragina gutxieteko inolako asmorik gabe, beste gatazka eta egoerei itzal egin diela deritzot. Gainera beste gatazka eta biolentzia horiek gatazka armatuaren aurretik, bitartean eta ondoren hor diraute. Horren inguruko gogoeta egin dute zenbait eragile eta prozesu feministek. Besteak beste, 2014an, UPV/EHUko ehuGune ekimenaren baitan sorturiko Emagune topaleku eta gogoeta gunean<sup>13</sup>, eta Euskal Herriko Bilgune Feministak eta Emaginek antolatutako *Hau ez da gure bakea* formakuntza-saioetan (2016ko abenduan eta 2017ko otsailean). Hala ere, ulergarritasunari eta hizkuntza-ekonomiari zor, ikerketa honetan, «Gatazka», «Euskal Gatazka», «Gatazka politiko-armatua» eta «Euskal Gatazka armatua» bezala izendatuko dut; betiere, autodeterminazio-eskubideari, erabakitzeko eskubideari, burujabetza-auziari lotutako gatazka politikoaren dimentsio armatu eta bortitzaz aritzeko. Zentzu horretan, Euskal Gatazka armatua denbora- eta espazio-marko gisa erabiliko dut, salbuespen-logika propioak eraiki dituen egoera eta biolentzia politikoaren agertoki gisa. Ikerlan honetan aintzat hartuko dudana biolentzia politikoak, Philippe Bourgois-en (2001) biolentzien sailkapen eta definizioak jarraituz, autoritate ofizialen eskutik edota beraien aurka ari diren mugimendu edo ideologiaren aldetik eragiten diren askotariko eraso fisiko eta beldur formak barnebilduko lituzke: poliziak eragindako errepresio eta torturatik, estatuaren aurkako erresistentzia armatuetara. Beste modu batera esanda, Euskal Gatazka joan den 60 urteotan estatuaren aurka bizi izandako borroka-zikloari deituko diot, zeinaren ondorioz eskubide indibidual eta kolektiboak, zibil eta politikoak zanpatuak izan diren. Horien artean, 1500etik gora pertsonak galdu dute bizitza<sup>14</sup>, 20.000 izan dira atxilotuak eta 5000tik gora torturatuak. Era berean, Bourgoisen biolentzia politikoaren ulerkera erabiltzeak ez du esan gura biolentzia politiko guztiak parekatzen ditudunik<sup>15</sup>. Isabel Piperrek eta Tamara Jorquera-Alvarezek (2018) adierazi bezala, estatu batek lurralde bateko gizartearekiko duen ardura, erantzukizuna eta eragin ahalmena, eta estatu horren aurka, edo alde, baina marko legetatik kanpo ari direnena, ezin parekatu daitezke. Baina kasu bietan biolentzia politikotzat joko dut, motibazio politikoak dituen biolentziazat jotzen ditudalako.

Horrela bada, gatazka armatua gatazka politikotik ezberdindu dut, eta, beraz, egungo abagune berriaz aritzean, gatazka politikoa bera eta gatazka armatuaren ondorioak konponbidean jartzeko ibili beharreko bidea jorratu gabe dagoen testuingurutzat joko dut; baina, halaber, ETaren jarduera-amaiera elkarrizketa politikorako, gatazka armatuaren ondorioak konpontzeko eta neurri errepresiboak gaitzetzeko baldintza berriak sortu dituen markoa ere badela aitortuz.

13 Ikus 2016ko irailean plazaraturiko dokumentua: <https://www.ehu.es/es/web/ehugune/emagune>.

14 Talde armatu iraultzaile ezberdinen ekintzen ondorioz —ETApm, ETAm, IK, Iraultza, CCAA—, eskuin muturreko talde armatu edo multzoen eskutik —GAL, BVE, AAA, GAL, inkontrolatuak— eta poliziaren indarraren ondorioz.

15 Planteamendu faltsuenetako bat indarkeria «datorren lekutik datorrela» gaitzestea da, indarkeria horren sorrera, esanahia eta ondorioak aintzat hartu gabe. Ez da harriztekoa horrelako planteamenduak, nahiz eta boterean dauden indarrei lotuta egon, gatazken gainetik kokatu nahi duten gizarte-instantzietatik etortzea (...) Gertaera batzuk eta besteak zaku kontzeptual eta baloratibo berebean jartzea, indarkeria-ekintzen sustraitzea eta izaera historikoa ukatzen dituen mekanismo ideologikoa da (Martín-Baró, 1990, 371. or.)

Ezker Abertzalea non hasi eta non amaitzen den argi ez dagoen subjektua da. Ikerketa gehienek ez dute fokua emakumetan ipini, eta ipini dutenean ETAko emakumeetan\* jarri dute arreta. Bat nator Carrie Hamiltonekin (2007) ikerketa-objektua ETAz harago Ezker Abertzale osoko emakumeetara\* zabaldu behar dela dionean. Nire ustez, ETAko emakumeen\* partaidetza bakarrik aztertuz beste partaidetza politiko batzuk itzalean uzteko arriskua dago, baita ETAko emakumeen\* esperientzia Ezker Abertzale osora zabaltzekoa ere. Baina, zer da Ezker Abertzalea? Mugimendu sozio-politiko ala sigla batzuen batura? Eta zeintzuk dira sigla horiek? Nork definitzen ditu? Ikerketa-objektuaren dimentsio hori zehazteko garaian, Arkaitz Letamendiari eta Pedro Ibarrari jarraituz, Ezker Abertzalea mugimendu-komunitatetzat hartuko dut. Haien ustez, lehen Euskal Nazio Askapen Mugimendua (ENAM) zena eta egun Ezker Abertzaletzat jotzen duguna mugimendu konplexua da, eta, gainera, ugariak dira batzen dituen antolakundeen izaera eta ekintza motak.

«Antolaketa-modu guztiak bil ditzake: ez-instituzionala —gizarte-mugimenduak—, instituzionala —alderdiak, sindikatuak, presio-taldeak—, klandestinoak —talde armatuak—; eta ekintza kolektiboko modu guztiak: konbentzionala, ez-konbentzionala, eta horren barruan, konfrontazioa: desobediencia zibila, manifestazioak, indarkeria politikoak» (Ibarra eta Letamendia, 2006:405)<sup>16</sup>.

Beraz, ikerketa honetan Ezker Abertzalea antolakunde ezberdinak eta bere batura baino zerbait gehiago dela dioten baieztapenekin bat etorri arren, objektua mugatze aldera, 90eko hamarkadan zeuden antolakundeetako kideak baino ez ditut kontuan hartuko. Hala ere, kide izate hori adiera malgu eta irekian ulertuko dut: partaide, laguntzaile ala ingurukoa izan. Zehazki Herri Batasuna, Jarrai-Haika, LAB, Egizan, ETA, KAS eta gerora Ekin<sup>17</sup> dira kontuan hartuko ditudan erakundeak. Badira komunitate horretako beste antolakunde batzuk, presoan amnistiaren aldeko mugimendua edo Ikasle Abertzaleak, baina independentzia eta sozialismoaren aterkipean geriza hartzen ez zutenez gero, zuzenean aintzat hartuko ez ditudanak.

Zer dela eta 90eko hamarkada? Gatazka politiko-armatuaren eta mugimendu feministaren bilakaeran esanguratsua den eta kualitatiboki mugarriz osatuta dagoen hamarkadatzat daukat; gatazka politiko-armatuari dagokionean, modu arrakastatsuan amaitu ez ziren Argelia eta

---

16 Itzulpena neurea da.

17 Jarrai 1979an sortutako gazte antolakunde independentista eta sozialista zen. 2000. urtean gazteriak Ipar Euskal Herriko elkartarekin batera egindako prozesu baten ondorioz, Haika gazte erakunde nazional independentista eta sozialista sortu zuten. Ilegalizazioek bertan behera utzi zituzten talde horiek. Gaur egun gazte sektore hori Ernai antolakundeak batzen du.

LAB sindikatua 1974an sortu zen, langile abertzale iraultzaileak elkartzeko, eta gaur egun ere martxan dago.

EGIZAN 1987an sortu eta 2000an desegin zen talde feminista sozialista-independentista zen. Gaur egun zapalkuntza hirukoitzaren ordezkatzen duen feminismo mota Bilgune Feminista inguruan aritzen da lanean.

ETA 1958an sortu eta 2018an desegin zen talde armatu independentista eta sozialista zen. KAS, berriz, talde ezberdinen koordinadora bezala jaio zen 1975an, eta 1998an desegin. Besteak beste Jarrai, Egizan, LAB, ETA biltzen zituen. Gaur egun ez dago antzerako koordinadora edo egiturarik.

Ekin 1998an sortu zen, Ezker Abertzaleak *Oldartzen* prozesuan proposatutako nazio-erakuntzako estrategia hauspotzeko asmoz. Urte gutxi iraun zituen, ilegalizazio-estrategia dela eta. Antolakunde horien berri modu sakonagoan izateko, begiratu testuinguru historikoaren atala.



Lizarra-Garaziko bi negoziazio<sup>18</sup> prozesuen arteko hamarkada izan zelako, ETA erakundearen jardun armatuak arduradun eta ordezkari politikoak jomugatzat hartu zituelako, erakunde horren historiako bahiketa luzeenak gauzatu zirelako, eta beronen aurkako herri-mobilizazioak areagotu eta indartu zirelako.

Hamarkada horretan ere *kale borroka* bezala izendatutako fenomenoaren errotzea eta moldearen gorakada gertatu zen. 1988an sinatutako Ajuria Eneako Ituna gauzatzearekin batera Ezker Abertzalea eta euskal preso politikoek aurkako jarduerak jauziak bizi izan zituen. Hamarkada presoen sakabanaketa eta isolamendu politikarekin hasi zen, eta «Dena da ETA» ildoaren hasierarekin amaitu. Labur esateko, konfrontazioa modu armatuan ari ziren multzoetatik —ETA, polizia eta militarrek— askoz harago zabaldu zen hamarkada izan zen, bi norabideetan eta bi aktoreen ekimenez.

Mugimendu Feministari dagokionez, hamarkadari 1988an sortutako Emakunderen jaiotza berriarekin ekin zitzaion, eta ordutik aurrera lan handia egin zen administrazio publikoetan berdintasunaren aldeko egiturak sortzen eta askotariko administrazioen arteko sareak eraikitzen. Berdintasun-politikak aurrera eramango zituzten pertsonak trebatzeko ahalegina egin zen, modu horretan feminismoa formaziorako gai ere bilakatuz. Alegia, berdintasun-teknikarien figurak jaio eta berdintasun-sailak ugarituz joan ziren hamarkada izan zen. Mugimendu feministak ordura arte egindako lana agerikoa zen, berdintasunaren eraikuntzaren gaiak komunikabide eta gizartean zuen presentziari begiratuz gero.

Askotariko eragile feministek aitortzen dutenez, 90. hamarkadan, feminismoak herri-mugimendu autonomo gisa indarra galdu zuen, kale-presentzian eta autoantolaketan, eta barne-mailan aliantzak osatzeko gaitasunean. Ondorioz, sakabanaketa eta noraeza gailendu zen (Aranguren, Epelde, Retolaza, 2015). Bi egoera horiei berdintasunaren ideologiaren hedapena gehitu behar zaio, zeinaren bidez emakumeen\* zapalkuntza egiturazko izaeraz hustu eta oro har fikziozko berdintasuna<sup>19</sup> hauspotu zen. Bi hitzetan, feminismoaren instituzionalizazioaren hastapen-hamarkada izan zen, baita desideologizazioarena ere.

### 1.1.3. Ikerketa-galderak

2011ko urrian ETAK jardun armatuaren etena iragarri zuen, 2017ko apirilean armagabetu, eta 2018ko maiatzean desegin egin zen. Horrela, euskal gizartean askorentzat «iragana» eta «oraina» banatzen dituen lerro garrantzitsua sortu zen. Ezin uka Euskal Gatazka armatuak, mugarri horren

18 Geroago testuinguru historikoaren atalean sakonduko dut bi negoziazio-prozesu horietan. Oraingoz, esan, lehena 1989an izan zela, ETA eta PSOEko gobernuaren artean. Bigarrena, 1998an euskal eragile-politiko-sozial ezberdinen arteko akordio baten ostean, ETAK haiekin eta gerora estatuko gobernuarekin abiatutako elkarrizketa eta akordio saiakera izan zen.

19 Adierazpen horrekin, berdintasuna lortuta zegoen uste soziala izendatu nahi dut. Zehazki, datuen arabera berdintasunetik urrun egon arren, eskubide formal batzuen lorpenak ekarri zuen iruditegiak ari naiz.

aurretik zein ostean, prentsako, liburuetako eta askotariko ikerketako paper zuria belztu duenik. Hala ere, biolentzia politikoen eraginaren azterketa guztiz osatu gabe dago oraindik<sup>20</sup>. Hutsuneen artean, genero-harremanek Euskal Gatazkan (eta alderantziz) izan duten esku-hartzearen inguruko ezagupen eza azpimarratu nahi dut.

Zer dakigu genero-desberdinkeriek gatazkaren bilakaeran izan duten eraginez, eta zer gatazkak genero-harreman horietan izan duen oihartzunez? Oso gutxi da ezagutzen duguna, eta nago ezjakintasun horrek zerikusia duela klase politiko, akademia, kultur gile eta komunikabideetan nagusi den genero-ideologiarekin, horrek kontakizun androzentrikoetan iltzatu gaituela. Ekarpene gehienak gizonen esperientzian oinarritu dira, baina ez estatuko indar armatuetan edota Ezker Abertzalean parte hartu dutenen maskulinitateen azterketan. Emakumeen\* bizipen eta ekarpenak, aldiz, ikusgarritasunik gabe geratu dira, eta, nabarmendu direnean, estereotipatu eta homogeneizatu egin dira (hipersexualizatzea eta biktimizatzea kasu).

Esku artean duzun ikerketaren interesa hauxe duzu: genero-sistemak Euskal Gatazka nola antolatu duen ezagutzeko bidean urratsak egitea, baita Euskal Gatazkak genero-sisteman nola eragin duen ezagutzekoan ere. Horretarako, gatazkan nagusi —baina ez bakarrak<sup>21</sup>— izan diren eta etengabeko elkarreraginean egon diren bi aktoreri erreparatu diet: Ezker Abertzalea eta Estatu Espainoleko dispositibo errepresiboak<sup>22</sup>.

Isiltasun akademiko eta hutsune bibliografiko nabarmena diren tortura eta espetxe politikoaren esperientziak emakumeen\* begiradatik eta ikuspegi feministatik aztertzeko abiapuntua ezarri nahi du lan honek. Zentzu horretan, ikergaldera sinplea bezain funtsezkoa izan da honako hau: zein dira hamarkada horretako emakumeei\* ezarri zitzaizkien tortura eta espetxe politikoaren oinarritzko ezaugarriak? Emakumeok\* nola kokatu ziren horren aurrean? Eta nola baloratzen dute hori guztia gaur egun? Nolako bideak egiten ari dira egun esperientzia horiei dagokienez?

Horrekin batera, mugimendu feministak, mundu zabalean zein euskal testuinguruan eskainitako ulermenerako, boteretzerako eta praktika feministarako tresna teorikoek eta praktikoez emakume\* multzo horrengan izan zuten eragina ezagutu nahi izan ditut.

Beste modu batera esanda, Ezker Abertzaleko emakumeen\* militantzia- eta errepresio-bizipenak jaso eta aztertu ditut, genero-harremanetan eta erresistentzian arreta berezia ezarriz, partaidetza politikoari ekin zioten 90eko hamarkadatik gaurdaino; zehazki, ibilbide horretan

---

20 Horrekin ez dut esan nahi biolentziak direnik Euskal Gatazka armatuari lotutako ikergai posible bakarrak.

21 Euskal Gatazka bi aldean arteko enfrontamendu gisa ulertzen duen begiradatik urrundu nahi dut, begirada horrek euskal gizarteko beste hainbat aktore eta sentsibilitate albo batera uzten dituelako. ETA osteko abagune politikoa garai aproposa dela deritzot erdiko askotariko espazioak bete dituzten herritar, aktore eta posizioak aditzen hasteko.

22 Horien baitan ulertzen ditut polizia, espetxea, epaitegi eta komunikabideak. Beste batzuek «borroka antiterrorista» izendatu duten horren baitan bildutako askotariko jardunak.

interpretazio- eta ekintza-marko feminista bidelagun izan duten ala ez jakin guran. Eta hori guztia, Amurriok (2003) azpimarratutako hutsunean argi apur bat egin guran.

#### 1.1.4. Ikerketa-helburuak

1. Ezker Abertzale barruan, 90. hamarkadan, askotariko partaidetzak izan dituzten emakumeek\* bizi izan dituzten genero-esperientziek gatazkaren bilakaeran eta haiengan izan duten eragina aztertzea.

2. 90. hamarkadan, Ezker Abertzaleko partaide ziren emakumeek\* jasandako genero-desberdinkeriekiko garatu dituzten estrategiak eta erresistentziak aztertzea.

3. Gaur egun bizitako esperientzia horien inguruan egiten duten balorazioa, eta balorazio horretan antzematen diren mugarrak, osagaiak eta kontakizunak, norbanako edo kolektibo gisa, etorkizunera begira egiten dituzten proposamen eta askotariko ekarpenak ezagutzea.

#### 1.1.5. Esploratzeko nahia duen ikerketa bateko behaketa unitateak nola definitu

Oso gutxi aztertua izan den ikergaia hautatzeak egiten den ekarpen oro garrantzitsua izatea dakar. Horrekin batera, esploratzeko gogoia duen ikerketatzat jo izan dut hastapenetik; alegia, lehenago egindako ikerketa partzialetan oinarritua, etorkizuneko ikerketen abiapuntu izango den ikerlantzat. Zehazki zientifikoki ezezaguna zaigun komunitate, prozesu edo fenomenoaren atzean egon daitezkeen ikergai espezifikokoak identifikatzeko erronka duena.

Hala ere, ikerketa orok mugatua izan behar du, ondo zedarritu behar ditu aztergaiaren nondik eta norakoak. Eta, horretarako, funtsezkoa zitzaidan, helburu orokorra finkatzearekin batera, azterketa-unitateak definitzea.

Hori guztia ez zitzaidan horren erraza suertatu; besteak beste, informazio gehiegi neukalako eta gauza gehiegi aztertu nahi nituelako, baldintza emozional eta materialetan uste baino ahulago nembilelako, emakume\* protagonistak erdian egoteak erritmoa moteltzen zuelako eta EHUn ikerlari aritzeak zilegitasun-arazoak eragiten zizkidalako. Gainera, ikerketa-objektua mugimenduan zegoen eta ni-neu ere bai. Politikoki zein pertsonalki nahaskor eta zailak izan ziren tesiaren lehen bi urteak. Hori dela eta, esku artean duzun ikerketa hau egiteko beharra eta tesiarekin nituen helburuak zalantzan jarri nituen. Egoera horretan, hiru dimentsioko denbora-lerro bat osatu nuen: testuinguru politikoa, neure eremu pertsonala eta tesia-akademiaren dimentsioa (ikus 1. irudia).


Hiru horien arteko harremana nolakoa izaten ari zen ondo identifikatu nahi nuen; batez ere, jakin nahi nuen testuinguru sozio-politikoak eta horrekiko neure egoera eta zauriak tesian nola ari ziren eragiten. Hiru dimentsioen arteko elkarreragina destilatzeke garrantzitsua izan bazen ere, ez zidan batere lagundu azterketa-unitateen definizioarekin.

## I. ATALA: Ikerketaren oinarriak

Azkenerako, ikerketa-prozesuarekin modu paraleloan, emakume\* errepresaliatuak lantzen ari ginen prozesua baliatu nuen fokua non jarri erabakitzeko (azterketa-unitateak definitzeko). Erabakiak indibidualak izaterik ez nuen nahi, iker-fokua partekatua eta sentitua izan zedin nahi nuen. Neure burutazio indibidualak gainditu nahi nituen, neure-neureak baino ez diren galderetan galtzeko arriskuari langa jarriz. Horregatik, egin genituen tailer eta bileren edukia landa-laneko informazio-iturrietatik kanpo utzi nuen arren, bertako kezkak, jakin beharrak eta gogoak, eta argitu beharreko iluntasunak zein ziren erabakitzeko funtsezkoak izan ziren niretzat. Hala, erabaki nuen arreta 1. taulako gaietan jartzea.

### 1. irudia

*Denbora-lerro hirukoitza*



*Iturria: norberak egina.*

## *1. taula*

### *Azterketa-unitateak*

1. Biktima izatearen definizioan/bizipenean gertatzen diren disputa-, diskurtso- eta bizipen-aniztasuna.
  - Biktimaren erreferentzia-eredua eta horrekiko jarrerak.
2. Ezker Abertzaleko (EA) emakumeen\* egiaren definizio eta eraikuntza-prozesuko disputa- (eduki eta forman), diskurtso- eta bizipen-aniztasuna.
  - EAko emakumeen\* ekarpena zein izan den, zelan baloratzen duten eta zelan jarri nahi duten balioan.
  - EAko emakumeek\* azpimarratu dituzten bazterketak.
  - Prozesu horretako aurrerapauso eta zailtasunak zein indargune eta ahulguneak.
3. Tortura eta sexu-torturaren definizio/bizipenean gertatzen diren disputa-, diskurtso- eta bizipen-aniztasuna.
  - Torturaren erreferentzia-eredua (eta bilakaera) eta horrekiko jarrerak.
  - Sexu-torturaren erreferentzia-eredua (eta bilakaera) eta horrekiko jarrerak.
4. EAko emakumeen\* subjektibitate militantea osatzen zuten esanahiak eta emozioak, zein egun osatzen duten esanahi eta emozioak.
  - **Emakume\* horien** subjektibitate militantearen eraikuntzan borroka armatuak izan duen eragina eta egiten duten balorazioa.
  - Abagune berriak **emakume\* horien** subjektibitatean aldaketarik eragin duen ala ez, eta zein den; halaber, zein den beraien bizipenari egun ematen dioten esanahia eta zein den egun parte-hartze politikoari egotzitako leku eta pisua.
  - Genero arteko harremanen eragina subjektibitatean eta bere eraldaketan. Subjektibitate berrien eraikuntza bereziki generizatua den ala ez, eta nola.
  - Egungo subjektibitate-aldaketak, eraldaketa feministari lagundu edo, aitzitik, oztopatzen duen.
  - Beraien esperientzia errepresiboari egotzitako leku eta pisua beraien egungo bizi-proiektuan.
5. Garatutako erresistentzia/biziraupen-estrategia indibidual eta kolektiboak, beraien esperientzia prozesu osoan.

*Iturria: norberak egina.*

### 1.2 Abiapuntu metodologikoa

Ikergeria, ikerketa-objektua eta helburuak zein azterketa-unitateak behin argituta, estrategia metodologikoa ontzeko moduan nengoen. Epistemologia feministen marko teoriko-metodologikoa kokatzen naizenez eta herri-hezkuntzako dinamizatzailerak ere banaizenez, jakin banekien datuak sortzeko prozesuak datuen nolakotasunean ere eragina zuela. Prozesuak produktuan eragina zuela, alegia; beraz, biak ala biak politikoak zirela. Gainera, neure-geure biografiak, testuinguru politikoa baikor bezain gaiztotuan iltzatutako afera izanik, tentuz ibili nahi nuen. Hori dela eta, ikerketen dimentsio etiko-politiko-epistemologikoari lotutako oinarriko galderak egiten hasi nintzaion neure buruari, eta egundo ez naiz gelditu. Jarraian horiek aletuko ditut:

#### 1.2.1 Etikaz bi hitz

Ikertzailearen kokapen etniko, ideologiko, generizatu, arrazializatu eta sexuala den horrek ezaugarritzen du ikerketa prozesu oro; hau da, zergatik eta zertarako ikertzen dugun, datuak non eta nola ekoizten ditugun, norentzat eta norekin ari garen horrek. Ikerketaren emaitzak galdegai horiei ematen dizkiogun erantzunaren arabekoak izango dira. Beraz, ez da bigarren mailako auzia. Hori dela eta, ezagutza ekoizteko prozesuaren nolakotasunari garrantzi handia eman izan diot hasiera-hasieratik. Epistemologia kritiko eta feministetara hurbildu nintzen lehenengo, eta diziplina antropologikoaren eta ikerketaren oinarri etikoetara ondoren. Bide horretan, EHUko *Ikasketa Feministak eta Generokoak* doktorego-programako Jaime Altuna eta Mirian Del Pino izan ditut aliatu nagusiak. Kide horiek gogoeta, esperientzia eta irakurgai berrietarako bidea ireki zidaten, Enara Eizaguirrek eta bere lanak (2019) etikaren auzian dauden eztabaidak eta egon den bilakaeran ordena ipintzen lagundu zidan bezala. Begirada erreflexibo eta kritikoa zorrozteko konplizitate hori ikerketan eta ikerketarekin aurrera egiteko ezinbestekoa izan zait. Azken batean, unibertsitatean eta ikerketa-munduan non kokatu eta nondik aritu horretan, leku propioa eraikitzen lagundu didatelako.

Ikerketarekiko eta jakintza zein praktika akademikoarekiko neukan aurre-esperientziak mesfidantza eskaini dit azterketarako eta ikerketarako tresna gisa, feminismoan *sospechometro* deitzen zaion egote kritiko berberarekin kokatu bainaiz hasiera-hasieratik akademiatik egiten diren ikerketekiko. Horrek ez du esan nahi herri-mugimenduetatik abiatu diren azterlanekiko modu kritikoa kokatu ez naizenik; ezta unibertsitateen artean ezberdintasunik ikusten ez dudanik (publiko eta pribatuaren artean esate baterako), edo unibertsitate baten baitan begirada ezberdin eta batzuetan aurkakoak dituzten ikerketa-taldeak daudela ukatzen dudanik.

*Titular guztiak guri buruz dira, baina inork ez digu ezer ere galdetu* dio Berri Txarrak musika-taldeko abesti batek, eta oso ondo azaltzen du ikerketa akademikoan murgildu aurreko neure esperientzia, preseski ikerketa eta jakintza akademikoaren erabilpen batzuekiko izandakoa.

Kide izan nintzen eta zortzi urtez ezagutu nuen Jarrai gazte-antolakundearen eta Gazte Mugimenduaren inguruan egindako zenbait ikerketa ezagutu ditut prentsa, telebista edo Auzitegi Nazionalean; besteak beste, Gazte Asanbladak eta Gaztetxeak eta *Rock Radical Vasco* delakoa Jarrai edo independentzia eta sozialismoaren aldeko Gazte Mugimenduaren adierazpideak zirela dioten ikerketak egin dira, ustez prestigio akademiko handiko unibertsitate batetik<sup>23</sup>. Halaber, Ezker Abertzaleko gazteak alkohol- eta droga-kontsumo handiagoa genuela adierazten duten lanak<sup>24</sup> ezagun egin ziren gazteen artean, akademiaren sektore batzuen ezjakintasuna, partzialtasuna eta instrumentalizazioa dela eta. Bi baieztapenek oinarri enpiriko zalantzarriak dituzte, eta Euskal Herriko elkartegintza eta herri-mugimenduak zertxobait ezagutzen dituen oro harrিতa uzteko modukoak ere badira. Ikerketa feministek eta kritikoek agerian utzi duten moduan, ez da berria botere-harremanen arteko asimetria edo menderatze-prozesuetako urrats berriak jakintza zientifikoa erabiliz zilegiztatzea.

Beraz, ikerketa akademikora hurbildu aurretik, banuen neutral eta egia bakar gisa nagusitu diren jakintza partzialen berri, praxi txarraren berri, funtsean. Horrekin batera, ikertzerak nindoan komunitateak esperientzia antzekoa zeukan heinean, jakin banekien unibertsitatetik aritzeak zailtasun metodologikoa suposatuko zuela.

Horren guztiaren ondorioz, arreta berezia eskaini diot ikerketa-prozesu osoari, ez soilik datuak sortzeko unean, baizik eta bidaia osoko neure praktikari. Horrekin batera, etikaren itsaso handietan murgiltzeak hasierako neure abiapuntu berberera itzularazi ninduen. Susana Narotzkyk (2004) garbi adierazten duen moduan, ez dago etika apolitiko, atemporal eta ahistorikotik. Ona eta txarra dena, gizartea, aro historikoa, ideologia, klasea, generoa eta beste hainbat ezaugarriren menpe dago. Beraz, antropologiaren etika bat erditzea nekeza izango da, ikerlari guztiok gure portaera norabide ezberdinetan gidatuko duten proiektu politikoetan kokatzen baikara. Narotzkyren hitzetan, «antropologiaren diziplinako etika posible bakarra gure etika politikoa publikoki onartzeari lotuta dago» (2004:141). Horixe da hurrengo lerroetan egingo dudana.

---

23 Deustuko Unibertsitateaz ari naiz. Zehazki, Jon Diaz Egurbidek zuzendutako *Hego Euskal Herriko eliteak. Boterearen azterketa* (Diaz, 2021) lanean adierazten den moduan, elite sozio-ekonomiko eta politikoan dauden kide asko eta asko unibertsitate pribatuetatik datoz, eta halaber eliteek unibertsitate pribatua darabilte. EHUko ikerlari multzo zabalak egindako ikerketa prozesuan eta finantzaketan izandako zailtasunak horren erakusgarri ere badira.

24 Ikus, adibidez, Felix Arrieta eta Javier Elzoren (2005) *Historia y Sociología de los movimientos juveniles encuadrados en el MNLV*.

### 1.2.2 Nork-nondik-zergatik-zertarako

Ikergaiarekin lotura zuzena duen eta, nire ustez, beraz, ikerketan erabateko eragina izan duen neure kokapenari helduz<sup>25</sup>, proiektu independentistaren defentsa egiteagatik neure burua Estatu Espainoleko sistema punitiboak jazarria ikusi izana da. Poliziaren jarraipen eta gauetako telefono deiak, lege antiterrorista eta bere inkomunikazioak dakarren torturarako hauspoa, lau urtez behin-behineko espetxean baina betirako sentitzen den zigorra betez, beste espetxe-urte bi Auzitegi Gorenak balekotzat jotako terrorista-etiketapean. Beste sei urte lan publikoetarako ezgaitua, bidaiatzea oztopatua eta tarteka ukatua. Etengabe identitate digital difamatzailea aldean eramanez, sei urtez dispertsio politika barrutik pairatuz, eta hogeitertetik gora ahaide gisa kanpotik, hara eta hona bidaiatuz. Hiru urtez atxilotua izango nintzen mamuarekin bizitzen, azkenik hiru aldiz atxilotua izateko, eta bi aldiz epaitua. Nola ahaztu, hogeita hamar urtez hamaika manifestaldiren aurka poliziak zerabilen biolentziak dakarren zauri eta beldurra; edo errepede-kontrolerako poliziaren galdeketa eta mehatxuak? Horrek guztiak militante errepresaliatu egiten nau, milaka batzuen arteko beste bat, eta bizipen horrek ezarri du ikerketaren zergatik eta zertarakoa:

Djadmila Ribeirok dio: «Historiak erakutsi digu ikusezintasunak hil egiten duela. Foucaltek bizitzen uztea edo hiltzen uztea deitzen duen hori. Funtsezko hausnarketan artean dago ulertzea, pertsonak ahotsa dutela adierazten ari direnean, norberaren bizitzarako eskubidea aldarrikatzen ari direla»<sup>26</sup> (2017, 57). Bat nator. Ikusgai egitea jazarpena dagoen tokian gatazka sortzea da. Zapalkuntzak izendatzea eta ikusgarri bilakatzeak menpeko egin duten komunitateari (haien iritzi, izate eta gorpuzte) izateko eta egiteko aukera eskaintzen die-digu; boterea, funtsean. Azken batean, memoria-ariketa egiteak horretan datza, ezabatu eta ahaztu nahi dena argitara ekartzea, bazterrekoa erdira ekartzea. Horixe izan nahi du ikerketa honek ere, emakume\* militante errepresaliatuok hitza hartzeko ariketa bat, beste ikerketa eta ekimenen artean, eta beste horiekin batera pentsatua izan dena. Grada Kilombaren arabera, batzuetan azterlan edo liburuak «subjektu bihurtzeko» modu bat bezala pentsa daitezke. Kilombak bere liburuarekin «emakume\* beltzek, beren subjektibotasunetan eta pertzepzioetan oinarritutako eguneroko arrazakeriaren errealitatea azalartzea» (2012:12)

---

25 Zalantzak ditut nire kokapena definitu dezaketene beste ardatzek ikerketa honetan izan duten eraginaren inguruan; horrexegatik ez ditut testura ekarri. Epistemologia feministetan sakondu duten kideek diotenaren arabera; eta Marta Luxan eta Barbara Bigliari behin baino gehiagotan aditu didan bezala, norberaren ezagutza kokatzeko garaian, kokapen horrek ikerketa prozesu eta ondorioetan izan duen eragina ikusaraztean datza erronka; ostantzean, norberaren biluzte nartzisista eta hutsala bihurtu daiteke. Hala ere, ikerketa prozesu batean, bederen ia zortzi urtetako honetan bai, ikerlariaren baldintza material, erlazional, emozional eta partikularrek garrantzi handia hartzen dute, batez ere, ikerketa burura eraman ala ez markatzen dutelako. Biluzte ariketan sartu gabe bada ere, azpimarratu nahi dut, nire baldintzak zinez zailak izan direla edo horrela sentitu ditudala nik, Klasea, generoa, pertenezia eta militantzia politiko disidentea, egunero-egunero, etengabe, atsedenek gabe, sentitzen dira horrelakoetan. Eta horiek sortzen dituzten arazoak eta egoera partikularrak, beherantza tenkatzen dute bat. Honekin adierazi nahi dut, jakina denez gero, beste egoera eta baldintza batzuetan, oso bestelako prozesua eta emaitza sortuko zirela. Hori, etengabe presente izan dudana gauza da, amorrutik eta minez ere bizi izan dudana askotan, horregatik lerrootara ekartzea erabaki dut.

26 Itzulpena neurea da.



bilatzen zuen. Bada, beste horrenbeste esan nezake doktorego tesi honetaz, eta euskal emakume\* militante errepresaliatuez eta haien bizipenez. Hurrengo atalean sakonduko dudan moduan, subjektu hori ikusgai egiten lagundu nahi dut, euskal gizartea eta bere askotariko erakundeentzako, baina bereziki mugimendu feministarentzako, herri mugimenduentzako eta Ezker Abertzalearentzako. Emakume\* horien guztien arokide, zapalkuntzakide edo borrokakide izanagatik ikusezin egin zaizkien horiei zuzendu nahi diet batez ere tesiaren emaitza; dela ideologiagatik, dela gatazka armatuak eragindako polarizazioagatik, dela matxismoagatik, ezjakintasunean murgilduta egon daitezkeen horiei guztiei.

Laburbilduz, azterlan hau memoria-ariketa izatea bilatzen dut. Atzean, isilean eta iluntasunean geratu beharrean, iragan horretan arakatzek egungo oraina modu osatuagoan ulertu eta etorkizun justuagoak eraikitzeko halabeharrezkoa zaigula iruditzen zait. Zentzu horretan, honako asmo hauek dira ikerketa hauspotu dutenak: gatazka armatuaren kontakizunari Ezker Abertzaleko emakume\* militanteen aniztasuna gehitzeko motibazio politikoa; nazio-askapen mugimenduan feminismoa erdigunerago eramateko nahi politikoa; eta mugimendu feministari horren ikusgarri ez zaion emakume\* multzo baten esperientzia eta ekarpena jasotzeko grina. Eta horrek guztiak lotura du ikerketa nori zuzenduta egiten dudan horrekin.

### 1.2.3 Norentzat

Doktorego tesiek, berau aztertuko duten tribunalaz gaindi, beste ikerketek bezala, beste hartzaile batzuk ere badituzte buruan. Funtsean, tesiaren aurkikuntza eta ondorioak talde akademiko ezberdinekin partekatzeaz gain eta, beraz, eztabaida zientifikoa sustatzeaz gain, izaten ditu beste hartzaile kuttun batzuk. Jarraian, eremu zientifikoan, politikoan eta humanoan nori zuzentzen natzaion argituko dut.

Akademikoki, zehazki Euskal Gatazka ikuspegi feministatik edo ikuspegi kritikotik aztertu ez duen komunitate zientifikoari. Hau da, ikuspegi feminista izan bai, baina Euskal Gatazka aztertzeari langa jarri dion komunitateari edo nazioarteko gatazka politiko-armatuen zerrendan Euskal Gatazka sartzeko zailtasunak dituzten guneei. Generoa kontuan ez hartzeak ikerketa-emaitza beretsuak emango dituela uste duen komunitate zientifikoari. Edota, haien ikerketetan kokatu eta darabilten kontzeptualizazioa problematizatze beharrik ez dutela uste dutenei. Amaitzeko, ikerlari gazteei eta etorkizunekoei, Euskal Gatazka armatua eta bere ondorioak beste ertz batzuetatik, beste baldintza egokiagoetan eta saretuta aztertze aukera izan dezaten.

Politikoki, Ezker Abertzalea zen eta den mugimendu sozio-politiko eta komunitate politiko afektiboari; bereziki, iraganaren irakurketa feminista kritikoa egin gabe duten emakume\* eta, batez ere, gizonen; zer esanik ez, errepresaliatuei. Baita mugimendu feministari eta herri-mugimenduen ere, periferian geratu zaien gai hau erdigunerago kokatu dezaten. Memoria lantzeak dakarren aberastasun eta eraginkortasun politikoaz jabetu daitezzen, eta haien burua Madril, Paris

## I. ATALA: Ikerketaren oinarriak

---

edo Washingtingo begiradatik irakurtzeari uko egiteko tresna bat gehiago izan dezaten. Nola ez, hurrengo belaunaldiei, bihar eta etzi, aztergai dugun emakume\* komunitate hori, gure gizarteak *gogoratuko dituen* ala *ahaztuko dituen* definituko duen balantzan eragingo duten horiei. Funtsean, horixe baita errepresaliatuaren zio eta obsesio, testigantza uztea, alegia, ahaztu ezinezkoa ahaztu ez dadin. Gatazka armatuan ez, baina haien burua gatazka politiko anitzetan murgilduta ikusten duten —eta ikusiko duten— belaunaldi gazteagoek, aurkituko dituzten baldintza sozio-politikoaren erroak arakatu nahi izanez gero, nora jo izan dezaten; utzi diegun gizartea hobeto uler dezaten.

Humanoki, ikerketa honetan agertu diren eta agertu ez diren emakume\* militante errepresaliatu guztiei, haien buruak ulertzeko bidelagun izan dezaten. Haien ekarpena aitortua senti dezaten. Haien esperientzia jasoa izan dadin.

### 1.2.4. Non, noiz

Ikerketa 2016 eta 2023 urteen artean garatu dut, eta aurrerago testuinguru etnografikoan sakonduko dudan moduan, aro historiko hau ETAREN behin betiko su etena, armagabetzea eta desegiteak ezaugarritu du. Ez ditut ahazten Covid-19 pandemia eta bere kudeaketa, guda-errefuxiatu eta migratzaile mugimendu masiboen tragedia, greba eta oldarraldi feminista eta mundu mailako eskuin ez-demokratikoaren gorakadaren altzora ultraeskuin espainolistaren mehatxua. ETAREN amaierari dagokionez, ikergaiarekin lotura zuzena duen heinean, 2016an Master Amaierako Lanean idatzitako hau ekarriko dut orriotara:

Aldaketa, trantsizioa, gogoeta, iragana, oraina, bizikidetzak, etorkizuna, kontakizuna, bakea, gatazka, biolentzia, entzuketa, ahotsa, testigantza, justizia, ulermena, biktima, erreparazioa, egia, memoria. Berba hauek ohikoak bihurtu zaizkigu Euskal Herriko egungo abagunean. Oraindik orain, Estatu Espainoleko 36ko estatu kolpean abiatu eta 78ra arte doan aro historikoari lotuta testigantzak, gorputzen exhumazioak, ikerketak eta peritaiak biltzen dihardugun honetan, badirudi hirugarren aro historiko bat begiratu baten eske deiadarka datorkigula.

2011ko urriaren 20an, ETA erakundeak bere jardunaren amaieraren berri eman zuen geroztik, ukazina da Euskal Herriko eszenatoki politikoak nabarmen aldatu dela. Gatazka politikoak bere horretan dirauen arren, gatazka armatuaren amaierak oraindik neurtzeko eta baloratzeko zailtasunak ditugun testuinguruan ipini gaitu. Izan ere baliteke eszenatoki politikoaren aldaketak, beste aldaketa batzuk ekarri izana, besteak beste eguneroko bizitzarena, harremantzeko eta egoteko moduen. Baina bereziki denboraren bizipen subjektiboarena da nire interesekoa.

Hain zuzen ere bost urtetan, gatazka armatua zen horrekiko distantzia kronologikoa gaintzen duen beste denbora subjektiboa ireki da. Atzora arte oraina zena, bat-batean iragan bilakatu zaigu. Bapatean gatazka armatua *atzo* bihurtu da, eta edozein espresio biolento «atzokotzat», «zahartzat», «iraganekotzat» jotzen hasi gara. Kontakizunaren inguruan sortutako lehiak zein duela urte gutxira arte ezinezkoak ziruditen diskurtso, ekintza material eta sinbolikoak horren lekuko dira.

Gatazka armatuaren ondorioen kudeaketa eta ETA beraren armagabetzea gauzatu gabe dauden honetan ere hala gertatzea bereziki esanguratsua da. Pauso horiek eman gabe egoteak

zenbait ondoriok bere horretan mantentzea ekarri du, esate baterako laguna, auzoa edo senidea 1000 kilometrotara dagoen espetxean duenaren egunerokoa. Aldiz, kasu horietan, iraganak orainean diharduen arren, iragan denboran bizi dugula dirudi. Hainbat diskurtso mediatikoetan agerian geratzen den moduan, egoera horiek iragan denborari erantzuten diotela esaten digute, eta egunerokoak osatzen duen orainean jazo arren, lehengo koordenadei erantzuten dieten afera gisa bizi dira. Eta horrek egoera material berbera modu ezberdinean bizitzea ekarri du, bat-batean esanahiak eta beharrak aldatu bailiran. Komunitate errepresaliatua, iheslariak eta iheslari ohiak, presoak eta preso ohiak, hildakoen senideak, tortura pairatu dutenak eta haien inguruko lagun-ahaide eta kideak egoera anakronikoan harrapatua ikusi dute haien burua; aurrera egitea eskatzen zaie materialki iraganera iltzatu dituzten bitartean. Zein arotan bizi diren oso ondo ez dakitela dabilta asko eta asko, guda eta bake aroak antza handia baitute haientzat, eta bat eta bestearen arteko trantsiziorako urratsak ikustea kostatzen zaie. Horrek mina ikusezinagoa bilakatu du, eta haien ahotsa isilagoa. Zer esan oso ondo jakin gabe, eta batez ere, esaten dutena nola erabilia izango denaren beldur, aro berezi horretako urratsak, diskrezio eta sortu den isiltasun berri batetan murgilduta bizitzen ari dira.

Testuinguru honetan, badirudi modu ez lineal eta homogeenoa bada ere, iraganarekiko begiradaren eztanda txikia bizitzen ari garela. Iragana eta oraina elkar bizi diren abagune bitxi honetan, tarteka etorkizunekoak diruditen irudi eta diskurtsoak ere ageri zaizkigu. Funtsean honek trantsizio prozesu aitortu gabekoaren neurria islatzen du; iragana, oraina eta geroaren arteko harremana aldatuz ari delarik egunero-egunero (Dañobeitia, 2016:6).

Zazpi urte igaro dira lerro horiek idatzi nituenetik, eta gatazkaren ondorioen konponbideari dagokionez, esan dezakegu urrats garrantzitsuenak honakoak izan direla:

- a. ETaren armagabetzea 2017an eta desegitea 2018an.
- b. EHUko kriminologiako ikerketa-taldeak Eusko Jaurlaritzarentzat osatutako torturaren inguruko txostena eta horrek eragindako isiltasun eta akzio-eza (Etxeberria, Pego eta Beristain, 2018).
- c. Nafarroako gobernuak antzeko txostena egin gura izateko aldarria. Gaurdaino indarrean.
- d. Preso politikoen aurkako dispersio politikaren amaiera, 2023an. Urruntzea, sakabanaketa, lehenengo. graduaren aplikazio orokortua eta zigor-isolamendu moduluetatik ateratzea.
- e. EAEko abusu polizialen aurkako legea, 2019an.
- f. Bizikidetzaren demokratikoa eta gatazka armatuaren ondorioen konponbidearen kontrako norabidean doazen urratsak: eskubide zibil eta politikoen ukapena.
- g. Ezker Abertzaleak eragindako minaren aitortzan egindako urratsak.

Horiek horrela, Miguel Castellesek *Gara* egunkariari Burgosko epaiketaren 50. urteurrenaren harira eskainitako elkarrizketan deskribatutako egoera izan da ikerketa-prozesuan eragin handiena izan duena, nigan zein iker-eremuan.

ETari buruz esaten ez diren hainbat gauza argitzea litzateke. Baina gauden egoeran ezinezkoa da. Auzitegi Nazionala eta berak aplikatzen duen salbuespeneko legedi antiterrorista dagoen

bitartean, ez dugu adierazpen-askatasunik izango ETAr buruz egiazkotasunez informatzeko. Une honetan ez dago askatasunik azaltzeko ETA nola eta zergatik sortu zen, ezta ere azaltzeko nola biziraun zuen urte horietan guztietan, Euskal Herria bezalako lurralde txiki batean, Espainiakoa den bezalako armada boteretsu eta moderno baten aurrean, Ameriketako Estatu Batuetako eta beste herrialde batzuetako gobernuen babesa izan duten diktadura frankistaren eta post diktaduraren baliabide guztiei aurre eginez. Uste dut kasu bakarra dela, Europan zalantzarik gabe, baina baita Mendebaldeko munduan, Latinoamerika barne. Egia esaten badugu, elkarrizketatua Auzitegi Nazionalera joango litzateke, baina baita elkarrizketatzailea eta GARAko zuzendaria ere. Egunen batean, galdera honi eta beste batzuei erantzun ahal izango zaie, adierazpen-askatasuna egongo delako, sinetsita bainago, goiz ala berandu, Auzitegi Nazionala desegin egingo dela. Harritzen nauena da, gaur egun, alderdiek eskatuta Franco Erorien Haranetik atera duten bezala, nola ez duen inork eskatzen Francoren semebitxi den eta 1974ko Justiziaren Oinarrizko Legeak aurreikusten zuen Auzitegi Nazionala ixteko. NAIZ. 2020/12/09<sup>27</sup>

Labur-labur esanda, gatazkaren ondorioen konponketa lantzeko zailtasun handidun egoeran garatu da tesia; besteak beste, aitortzarik gabeko testuinguruan, zigorgabetasun-giroan, errelatoaren gudaren erdian, eta Euskal Gatazka zentralitate soziala galtzen joan den eszenatokian.

### 1.2.5 Nola. Oztopo eta zailtasun metodologikoetatik abantailatara

Nolakotasunak darabilgun metodologiari egiten dio erreferentzia; ditugun baldintzek eta helburuek, eta osatu ditugun printzipio multzoek gure hautu metodologikoa bideratuko dute.

Ikastaro batean, ETA zenekoan parte-hartzeagatik espetxean hogeitun urte egin zituen emakume\* bati «kontuz zer esaten duzuen, neure bizitzaz ari zarete eta» esaten aditu nion. Alegia, ikerketa-objektuen atzean pertsona asko daude-gaude, baita biografia asko markatu dituzten bizipen sakonak ere. Horrek, arestian azaldu testuinguru sozio-politikoari buruz esandakoak aintzat hartuta, ikerketa-objektu-subjektuarekiko harremana, datuen sorrera, azterketa eta idazketa-prozesuak bereziki zainduak eta kontsentsuatuak izatea eskatzen zuen.

Francisco Ferrandizen (2008:94) iritziz, «errealitate sozialaren ikerlari garen aldetik, eremu etnografikoa minatutako eremu bezala ulertzeak zuhurtzia muturreraino eramatera, gure lanean zehaztasuna areagotzera, arrisku eta zailtasunak aurreikusten dituzten bide-orriak diseinatuzera, ikerketa eta analisiaren arteko distantziak orekatuzera, eta oztopoak aurreikusi eta desaktibatuzeko estrategiak planteatuzera garamatza»<sup>28</sup>.

Bat nator Ferrandizekin, batez ere biolentziaz ari garenean, eta horixe da kasua. Biolentziaz diharduen ikerlana da hau, biolentziaren testuinguruak erabateko etenik izan ez duen testuinguruan gauzatu da, biolentatuak izan diren pertsona batzuk ditu ardatz, biolentatua izan den ikerlariaren

---

27 <https://www.naiz.eus/eu/info/especial/20201209/miguel-castelles-burgosko-prozesuan-abokatua-ez-dago-askatasunik-etari-buruz-hitz-egiteko>

28 Neuk itzulia. Tesi honetako aipu guztiak neuk itzuli ditut Elhuyar eta Eusko Jaurlaritzako itzultzaile neuronalen laguntzaz.

esku gauzatu da. Eta biolentatua izan den herritar frankok irakurriko dute eta nahi moduan erabiliko dute. Beraz, halabeharrez, kudeatzeko zailak diren egoerak ekartzeak ez luke harritzekoa izan behar.

**a. Ikerketari geriza egin dioten lau laino beltzak**

Behin hori esanda, ikerketa-esperientzian izandako zailtasun nagusiak lau multzotan banatu ditut: **afektazioari, beldurrari, akademizismoari eta mesfidantzari** dagokienak.

**Afektazioa, egin/ez egin.** Aldez aurretik banekien indarkeriek elkarrizketatuen bizitzak zeharkatu zituztela eta, nahiz eta horrela izan, ez zela horien inguruan elaborazio kolektiborik egin. Alegia, egun euskal gizarteak ez du emakume\* horiek bizitako indarkerien aitortza-ariketarik egin, ezta justizia- eta erreparazio-bitartekorik ezarri ere. Beraz, herri gisa ez dugu zauriak osatzeko prozedurarik. Inongo eragile sozialek, ezta Ezker Abertzaleak<sup>29</sup> ere, ez du zauri horien elaboraziorako bitartekorik ipini. Hori dela eta, kasu batzuetan terapia indibidualak egin diren arren, oro har esan dezakegu biolentzia horien zauriak ez dizkietela bere osotasunean beste batzuei kontatu, beste zauriekin harremanetan ipini, prozesatu, eta ikaspenak atera; bizipena esperientzia bihurtu, alegia. Hortaz, *trauma sozial* (Iglesias, 2005)<sup>30</sup>, *trauma historiko*<sup>31</sup> (Borda et al., 2014) eta indibidual egoeran egon gaitezkeela erratea ez da gehiegi esatea (Iglesias, 2004). Bada, aldez aurretik hori guztia jakin banekien arren, ez nituen aurreikusi horrek izan zitzakeen ondorioak, ikerketak nola afektatuko gintuen, beste partaideei zein niri. Master Amaierako Laneko landa-lanean askotariko elkarrizketak egin nituen, eta solasaldi horietan elkarrizketatuak pairatutako biolentzian murgildu ziren berriz ere. Horren ondorioz, ikerketan zehar bi partaide bereziki afektatuak suertatu ginen. Profilak hautatzerakoan zein neure gaitasuna neurtzerakoan, indarkeriak eragindako balizko trauma terapia bidez landuta izatea kontuan hartu ez izana erabaki desegokia dela deritzot. Hurrengo urratsetan aintzat hartzen saiatu nintzen, eta nik neuk ere ikerketarekin birsortutako zauriak sendatzeko prozesuari ekin nion, terapia bidez.

---

29 Ezker Abertzalea aipatzen dut, ez tortura eta espetxe politikoaren ondorioen berregite-lanetan beste eragileek baino erantzukizun gehiago duelako, baizik eta, errepresio politikoa jaso duten asko eta asko —baina ez guztiak— Ezker Abertzaleko komunitate sozio-politikokoak direlako. Beraz, interes berezia edo zuzena izan dezake lanketa horretan.

30 «Trauma soziala gizarte bat eta garai bat markatzen duten gertakarien multzo gisa definienezake, bai espazio komun eta publikoetatik abiatuz, eta pertsonengan eragin eta ondorio traumatikoak izango dituen» (Iglesias, 2005:169).

31 «Trauma historikoa (TH) nortasuna edo afiliazioa partekatzen duen pertsona-talde bati eragindako trauma kolektibo bat da. Gertaera traumatikoen belaunaldiz belaunaldiko ondarea du ezaugarri, eta hainbat erantzun psikologiko eta sozialen bidez adierazten da. Eraikuntza hori Trauma Osteko Estresaren Nahasmenduari (TOEN) kontrajarrita proposatu zen, diagnostiko-kategoria horretatik indarkeria politiko eta sozialeko egoeretan trauma kolektiboek aurre egiteko identifikatutako mugak direla eta. TOENak eremu kolektibo batean traumari aurre egiteko zailtasunak ditu ikuspegi indibiduala duelako, ez dituelako aztertzen ez ondorio kolektiboak ez belaunaldikoak, eta ez duelako kontuan hartzen trauma gertatzen den testuinguru historiko eta kulturala» (Borda et al, 2014: 42).

**Beldurra, babesa eta zaintza.** Beldurra eta horren aurrean babesteko eta besteak zaintzeko *continuuma* osatzen du bigarren multzoak. Beldurraren presentzia nabaria izan da ikerketa-prozesu osoan zehar (datuak sortzeko orduan, analisisian, idazketan eta itzulera) zein partaide guztion aldetik —ni barne—. Beldurrak askotarikoak izan dira, baina denek zertaz hitz egin daitekeen eta zertaz ez adierazten digute, nork hitz egin dezakeen eta nork ez. Horrek lotura estua du hitzaren subjektua eta hitzaren edukia arautzen duten botere harremanekin; funtsean, indarkeriez dihardugunean, botere-harremanez ari baikara. Kasu honetan, mugimendu politiko horrekiko ezarritako indarkeria-dispositiboez, genero arteko botere-harremanez zein biolentzia-testuinguruek eragindako polarizazio-prozesuez ari naiz. Hauexek dira beldurretako batzuk: datuak biltzeko garaian zein idazketa prozesuan, polizia eta prentsak egin dezaketen erabileraren mamua presente egon da, inplizituki eta esplizituki. Beste maila batean bada ere, partaide diren/garen komunitatearekiko beldurrak ere izan dira; ikerketak orain arte esan gabekoak azaleratu asmo zituen, eta horrek bertigoa eragin zien/zigun. Errepresio handia jasan duen komunitatea —diskurtsiboki zein erlazionalki— bere baitan zarratzen dela sobera ikertua izan da. Hori da biolentzia-testuinguruek dakarten polarizazioak eragiten duen askatasun-defizita. Jazarpen handiaren pean dauden mugimenduak kritikatzeko nekezagoa egiten da, ‘kritika oro traizioa da’ logikak indarra hartzen duelako. Eta horrek badu generoarekin zerikusirik ere. Esan gabekoak esaten hastekotan, botere handiagoa dutenei egozten baitzaie zilegitasun hori eta, ondorioz, genero-ardatzak pisua hartuko du —ezkerreko mugimendu politikoak ere bereizkerian oinarritutako genero arteko harremanetatik salbu ez daudelako—. Aipatutako beldur horiek guztiak zer azalarazi eta zer ez dilemara eraman ninduten, baita erabilpen politiko askotarikoak aurreikusteko ariketa arduratsura ere, edota neure konpromisoak berrikustera, hurrengo lerroetan ikusiko den moduan.

**Akademisizmoa. Nikeria eta abstrakzioa.** Neure interes partikular indibidual hutsetatik aritzeak kezkatu izan nau. Burua galderez bete izan zait, ia prozesu osoan zehar: zer da ulertu edo jakin nahi dudana? Neure esperientzia ulertzeko premia soiletik ari al naiz? Ikerketa bertako parte-hartzaileen bizipenari bide egin nahi diet, baina haiek behar edo nahi duten hausnartu al dut? Nire ikerketaren ondorioak nireganatzeko prest al nago? Zein da gailentzen zaidan konpromiso edo ardura: akademikoa, politikoa ala neure kide edo lagunekikoa? Hausnartu dut gatazka politiko-armatua / feminismoa binomioari lotutako ikerketetan ari garenok saretzen ari ote garen, edota galdegin ote diegun emakume\* militante errepresaliatuei zer den behar dutena? Laburbilduz, akademiaren egiturak eta funtzioak berekin dakartzan arrisku eta joerekiko erne egoteko premia piztu zitzaidan. Egungo gizarteak zein eredu akademikoak hauspotzen dituen nartzisismoak, egozentrismoak eta gehiegizko abstrakzioak interes sozial eta kolektiboen leuntzea eta lausotzea dakarrenez gero, neure burua joera horietatik salbu nola mantendu eta zein neurri hartu pentsatu beharrean ikusi nuen.

**Konfiantza-mesfidantza.** Ohikoa da ikerketako partaideen arteko botere-harremanei eta horien behaketari erreparatzea. Nire kasuan, partaideon artean egon bazeuden botere-harremanak —nirekiko, ni beraiekiko eta baita beraien artean ere—. Hala ere, nago horrek ez duela gehiegi eragin, zentzu horretan gure arteko gehiegizko botere-harremanen desoreka eragin dezaketen partaideak ekiditen saiatu nintzen profilak hautatzean. Ikerketaren partaide guztion arteko botere-harremanen marasmaz gain, ez nituen beste batzuk aurreikusi. Zehazki, unibertsitatearekiko zegoen mesfidantzaz ari naiz. EHU ez da homogenea, eta bertan egun askotariko kideak gaude. Baina Euskal Gatazkarekiko erakunde gisa bete izan duen papera ez da neutroa izan, eta posizio-hartze horretatik eratorritako mesfidantzekin topo egin nuen landa-lanean. Gainera, urte luzeetan zehar Ezker Abertzaleko partaideek kazetaritza, soziologia eta beste diziplina batzuetatik hurbildutako zenbait kiderekin izandako esperientzia ez da gozoa izan, manipulatuak eta erabiliak sentitu izan direlako jada lehen aipatu dudak gisara. Beraz, beraien esperientzian ‘beste aldearen’ parte izan den erakunde batean ‘askatasunez’ hitz egin eta errespetatuak izango direnarekiko zalantza eragin zuen. Horrelako galderak egin zizkidaten: «Baina, gaur egun unibertsitatean hau ikertu daiteke?», «Baina gero ikerketa beraientzat da ala zeuretzat da?», «Nork du berau erabiltzeko eskubidea?», «Utziko dizute?»

#### **b. Ikertzailea aztoratu duten mamuak, ezinak eta mugak**

Jada aipatu izan dudak moduan, testuinguruak nork, zer eta nola kontatu hori baldintzatzen du. Kasu honetan, aztergai dugun komunitatearentzat ezin esan hitza hartzeko eta entzunak izateko baldintza oparoenak direnik. Alde batetik, denbora-gertutasun erlatiboa dugu, baita esperientzia lantzeko hauspo eta prozesu politiko eza, eta, amaitzeko, erakundeen aitortza falta eta inpuniate politiko-mediatiko-judiziala.

Horrekin batera, estatu-nazio modernoetan estatukoa ez den biolentzia politikoarekiko gaitzespen judizial, politiko eta morala nagusi den heinean (Elias, 2001), berau erabili duten lagun eta komunitateengan isiltasun eta tabu modukoak sortzen dira haien esperientziaren berri emateko garaian. Aurrekoarekin lotuta, errepresioaren jomugan egon den edo legez kanpoko jardura izan duten mugimenduetan sortzen den moralitateakez auzgarri propioak ditu; besteak beste, fidagarritasuna ezinbesteko baldintza bihurtzen da, eta, horretarako, oinarritzkoa da elkarrizketatzailea ezagutzea eta harengan konfiantza izatea. Are gehiago, litekeena da ez irekitzea bestea ondo identifikatu arte; ordura arte esan gabekoak esateko lain ez, bederen. Izan ere, jazarritako pertsona eta mugimenduek ez dute asko galdetzen, sekretuak gordetzen dakite, gauzak esplizitatu gabe hitz egin ohi dute; eta litekeena da aurrean aurkituko duten interlokutoreari antzeko baldintzak eskatzea. Ikerketako baldintzen artean, ikerlariarenak ere aintzat hartu behar dira, beraz, Mariana Tellok (2013) gogoetatu moduan.

Arestian aipatu dudanez, ikerketa-subjektuaren barruan kokatzen da neure esperientzia ere. Hori dela eta, ikerketako protagonistak kide ditut edo sentitzen ditut, eta ikerketa zeharkatzen

## I. ATALA: Ikerketaren oinarriak

---

duten gaiak, neure bizitzako mugarri, arnagune ala itogarriak ere badira. Unearen arabera, egoera hori akuilu zein langa bilakatu zait.

Akuiluaz segituan ohartu nintzen, ikerketarekin hasi eta batera, «zer ondo zuk ikertzea gai hau!» entzun nuelako behin baino gehiagotan. Horrek arreta deitu zidan, eta esaldi horrek bi gauza adierazten zituela ondorioztatu nuen: Lehenak, Ezker Abertzaleko emakumeen\* esperientziak barrutik eta partekatutako berdintasun-kondiziotik ikertzearekin zerikusia du; alegia, ez uztea gizonen esku, ezta komunitate politiko horretakoa ez den norbaiten esku. Funtsean, *besteek kontatu gaitzaten* horrekiko erresistentzia modukoa antzeman nuen. Barrukoa ez denari, balizko afinitate ideologikoa eta politikoa ez izatea aurreikusteaz gain, interes akademiko eta indibidualak politiko eta kolektiboen gainetik ipintzeko joera egotziko zaio, aurreiritzi gisa. Beraz, konpromiso politiko-kolektibo maila da auzitan jarriko dena.

Bigarrenak, komunitate barrukoa izanik, eta antzerako esperientzia izanik, bat-bateko konfiantza eta fidagarritasuna sortzearekin du lotura. Alegia, jo da jakingo dudala zer idatzi eta zer ez, zer galdetu eta zer ez. Horrekin batera, ezkutuan eta isilean dauden beste gai eta komunitateekin gertatzen den bezala, gaia lantzea bera ekintza militantetzat hartuko da. Beraz, aitortza hori egingo zait ikerlari gisa. Aitortza hori eskaera batekin batera datorrela sentitu dut prozesuan, nolabait laburbiltzeagatik, niri haien esperientzia eta analisisien ezagutza eskainiko zidatela, baina horrekiko zerbait egitearen truke. Hitzarmen hori ez da kasu gehienetan esplizitatu, *ethos* berdina izatetik ondorioztatzen den ituntzat jotzen dut, eta, agian, ni neuk neure buruari ezarritako baldintza ere izan da.

Komunitate bereko kide izateak, aldez aurreko ezagutza zabala izatearekin batera (gaiaz, landa-lanerako beharrezkoak ziren ekimen eta partaideei dagokionez), konpromiso-maila altua izatea eragin dit. Konpromisoa parte hartu duten pertsonetik, konpromisoa pertsona horien bizipen, min eta egoerarekiko. Konpromiso horrek eta ikerketa hastapenean, Master Amaierako Lana egiten hasi nintzenean izandako esperientziak zalantza handiak eragin zizkidan. Zergatik pasarazi partaideak berriz mingarriak izango zaizkien bizipenetatik? Nola ez eragin modu ezkorrean partaideen intimitate eta integritatean? Gai mingotsak edo tabu izan litezkeenak (suizidioa, bortxaketa, hilketak) zuzenean galdetu ala ez? Haien bizipen eta usteak eskainiz gero, zergatik ez gero neuk neureak?

Langak ere ez dira gutxi izan, eta horien artean distantziamendurako zailtasuna azpimarratuko dut. Ikerketaren hasieran jabetu nintzen, ikergai nuen komunitateak jasotako biolentzia normalizatua zeukan moduan, neuk ere erabat barneratua neukala. Besteak beste, partaidetza politikoa eta errepresioaren arteko lotura, eta Euskal Herrian estatuen biolentzia politikoak izan duen intentsitatea. Hori dela eta, analisisirako beharrezkoa den distantzia lortu beharra neukala argi ikusi nuen, baita tresna bila hasi ere. Zinez zaila suertatu zait langa hori bere osotasunean gainditzea, eta, tarteka, ezbaian jartzen dut erabat lortu izana. Hala ere, beste



esperientziekin alderatzea ezinbesteko erreminta bihurtu zait. Beste herrialdeetako edo garaietako militantziarekin, espetxe- eta tortura-esperientziekin, eta ibilbideen balorazioekin alderatzen ibili naiz etengabe. Bestelako biolentzia-prozesuekin ere egin ditut konparazioak. Hori dela eta, sistematizatu eta zuzenean ez erabili arren, irakurketa horiek guztiak urruntzeko euskarri izan zaizkit.

Nire mamu, ezin eta mugen inguruko gogoetari amaiera emateko, biolentziaren intentsitateak gordetzen zuen min zabal eta pisutsuarekin topo egiteak, ikerketan jartzen ari zen min tona horiekin zer egin ez jakitea ekarri zuela azpimarratu nahi dut. Zer egin behar dut min honekin? Hori dela eta, metodologikoki min hori ez handitzeko nola egin pentsatzen hasi nintzen, are gehiago ikerketa-prozesuak min hori eraldatzeko aukera izan zezakeen aztertzeari ere ekin nion. Horrekin batera, nigan blokeo-, berbizipen- eta tristura-aldi luzeak eragiten zituela ohartu nintzen, eta galtzen ari nintzen oreka emozionala nola berrartu jakin gabe ibili naiz batzuetan.

### **c. Soluziobide posibleak entseatuz.**

Gorago azaldutako buruhaustek ikerketako protagonista eta komunitatearen zaintzarako irizpideak zehaztuz konpondu nituen. Hurrengo lerroetan horiek aletuko ditut:

**Muturreko anonimotasuna:** Jakina da anonimotasuna ez datzala soilik izen propioa ezabatu eta izengoitia sortzean (Guillo, 2020a). Ikerketa-objektua den komunitatearen zabaleraren arabera, eta irakurketa objektu den gizartearen arabera anonimotasuna gordetzeko beste hainbat estrategia beharko dira. Euskal emakume\* militante errepresaliatuen komunitatea oso txikia da kuantitatiboki, are gehiago aro historiko zehatzaz ari garenean. Horretaz gain, kopuru aldetik txikia izatearekin batera, trinkoa da, harreman-sare estua osatzen dute: militantzia, espetxeko patioa, familia, herria-eskualdea edo harreman sexu-afektiboak konpartitu dituztelako. Beraz, denek elkar ezagutzen dutela asko esatea den arren, gehiago edo gutxiago elkarren berri duen komunitatea da. Hortaz, litekeena da, nahi izanez gero, atxiloketa-urtea, egondako espetxeen izenak, ahaidetasun egoera, ikasketak, lanbidea eta jaioterri edo bizitokiaren berri emanez gero, ahalegin handirik gabe, izen-abizenetara iristea. Hori dela eta, ikasketak, ogibidea, ezagutu dituzten espetxeak, lurraldea eta beste zenbait ezaugarri pertsonal ezabatu beharrean ikusi dut neure burua. Horrekin batera, atxiloketa urtea eta modua, zein seme-alaba kopuru eta sexuan aldaketak sartu ditut. Beraz, ez dut bakoitzaren datu biografikoen eta narratibaren arteko loturarik egiteko aukera izan.

**Minaren inpaktua leuntzeko entrenamendua.** Minak nigan zuen efektua neurtzea ez da beti erraza izan, tortura- eta sufrimendu-testigantzak aditu eta irakurri ostean min horrek iruntzi eta eraman ez nintzan. Terapia behar izan dut ia ikerketa-prozesu osoan zehar, nirea nuen zauria itxi, ikerketak etengabe ireki ez dezan. Laburrera ekarrita,

kudeatzeko alderik zailena ikerketan parte hartzeko baldintzak izan dira. Zentzu horretan, nire lehentasunetako bat izan da elkarrizketatuak kaltetuta ez irteteko beharrezko neurriak eta baliabideak identifikatzea.

**Itzulera etengabea eta azkartua.** Ikerketa amaitu gabe izan arren, testuinguru sozio-politikoak, nire ekarpenarekiko ulergarritasun faltak eta partaideen minarekiko konpromiso sozialak, itzulera etengabean aritzera eraman naute. Gonbidatua izan naizen hitzaldi, mahai-inguru eta idatzizko argitalpen ahal den eta gehienak egin ditut hori dela eta, hartzaileen artean akademia, feministak eta Ezker Abertzaleko komunitate politikoa egongo zirela bermatuz.

**Malgutasuna, negoziazioa eta sormena.** Ikerketaren helburu eta edukia adostu eta negoziatzeko prozedura zein unea bilatzen saiatu naiz, azkenean kasu bakoitzean propioa landuz. Hori dela eta, hasieratik modu malguan eta askotarikoan aritu naiz. Partaide bakoitzaren egoera ezberdina baitzen, zauriekiko irekidura-mailatik hasi eta egoera judizialeraino. Beraz, bakoitza bere premia eta gogoak adieraziz joan da, eta horren arabera kokatzen joan naiz neu ere. Zehaztasun gehiagora joz, partaideek transkripzioak, analisia, eta abarrekoak irakurri, konpartitu zein ekarpenak egiteko gogo edo baldintzarik izan ez duten kasuetan, formula ezberdinak bilatu ditugu: esate baterako, ahozko azalpenak edo haien atalaren errebisioa. Hala ere, protagonistak zaindu eta babesteko neurriak eraginkorrena elkarrizketako informazio osoa ikerketaren mesedetan jartzeko ukoa izan da. Hau da, zenbait atal oso edota detaile erabiltzeko baimenik ez diot eman neure buruari, eta beste batzuetan haiek izan dira ez didatenak eman. Elkarrizketa gauzatzeko orduan, konfiantza handiz eta solasaldi askearen ereduak segituz aritu garen heinean, sarri askotan, elkarrizketak barruak hustutzeko premia zuten bideetatik joan dira, edo ihes egin dute. Protagonistak uste zutena baino gehiago biluztu dira, edo biluzteko asmorik ez zuten gaiak landu dituzte. Askotan, unean bertan, edo elkarrizketa behin amaituta, oso kontziente izan naiz atal eta informazio horiek zeintzuk ziren. Beste kasu batzuetan, zalantza izan dut, eta esplizitatu galdetu egin behar izan dut. Egon da kasu bakar bat ere non zenbait pasarte eta bizipen-gogoeta erabiltzeko aukera nuela interpretatu nuen horrela izan ez zenean. Modu batera zein bestera, edozein idazki publiko egin aurretik, haien irakurketa eta adostasuna bilatu izan dudanez, une horretan zuzendu ahal izan dugu, eta, beraz, afera horrek ez du deserosotasun, tentsio edo haserre handiagorik sortu. Hala ere, partaide bik ikerketatik alde egitea erabaki zuten, analisi-lanak egoera aurreratuan zeuden unean. Haien burua gehiegi nabarmentzea, beste pertsona batzuk mintzea, intimoztat dutena lau haizetara hedatzea eta errepresioa ekidin nahi izan dute erabaki horrekin. Haien burua eta historia babestu beharra sentitu dute, gauzak gehiago ez nahasteko eta zikintzeko senari jarraitzea erabakiz. Funtsean, ikerketako partaide izateak egonezin handiegia eragin du zenbait kasutan, eta partaideen ongizatea lehenetsiko nuela hasierako printzipio metodologikoa zen heinean,

erabakia errespetatu dut. Modu batera zein bestera, ikerketatik irteteko arrazoiek, emakume\* militanteek errepresioaren jomugan etengabe egon den Ezker Abertzalean egoteko izan duten moduarekin zerikusia dutela deritzot. Ezarri izan zaien genero-erregimen eta horien aurrean kokatzeko izan dituzten zailtasunekin, alegia (geroago, 12. kapituluan sakonduko dudan moduan).

**Entzuketa sakona.** Partaideak ezagunak nituenez gero, haien harreman-sareko parte, edo haien harreman-sareko parte diren pertsonen kide edo lagun izan nintekeenez gero, epai pertsonal eta politikorik gabe entzuteko saiakera egin dut. Esan gabekoak esateko, agerian uzten saiatu naiz ez nituela haien jokaera, hautu eta erabakiak neurtuko epaituko edo beste batzuenarekin alderatuko. Esaten zidatenari eta esan nahi zidatenari adi egon naiz, ikerketa batean egon litekeen ahalik eta konfidentzialtasun handienarekin; Roberta Culbertsonen *entzuketa sakonaren* (1995) kontzeptuari segika, funtsean.

### 1.3 Etnografiaren dimentsio hirukoitza


Lan etnografikoa aztergai den komunitatea ulertzeko zioz bertan egonez murgiltzea dela ulertzen dut. Prozesu bat, fenomeno bat, bizi-era bat bertatik bertara behatu eta bizitzea, arakatu nahi dugun horren bihotzera hurbiltzen saiatzea. Prozesuen inguruan galdetu beharrean, guk geuk behatzea, bizitzea. Baina, zer gertatzen da aztergai den komunitatea norberarena denean? Aztergai den egunerokoa norberarena denean? Jone Miren Hernadezek bere buruari galdetu bezela (1999). Horrek gutxienean askatu beharreko hiru korapilo eragin dizkit: nola zedarritu landa eremua eta lana; sarrerak eta irteerak; eta distantziamendurako estrategiak. Hori argitzeko, ikergaiari lotuta hiru dimentsiotan lanean ari nintzela argitu behar dut, eta hiru dimentsio horien arteko harremana definitzeak lagundu zidan korapilo horiek askatzen.

Dimentsioak honakoak izan dira: terapia psikologikoa, doktorego tesia eta prozesu politikoa. Beste modu batera esanda, euskal emakume\* militante errepresaliatuaren bizipena eta gaia lantzeko bulkada, psikologikoki, akademikoki eta politikoki lantzen ari nintzen, aldi berean. Bide akademikoa dimentsio psikologiko indibidualaren eta prozesu politiko kolektiboaren arteko oszilazioan dagoela deritzot. Egungo baldintza akademikoei banakako tesiak baino ez dituzte baimentzen, gainera unibertsitatearen egiturak eta eguneroko egite horrek, eliteen funtzionamendu-arau eta ezaugarriak beteta dagoen heinean, norberak lehia horretan pilatzen dituen meritu eta harreman-sareak agintzen dute oso bakarti eta diziplinatzailea izan ohi den bidean. Baina, aldi berean, jakina da ezinezkoa dela bakarrik pentsatzea, bakarrik ezagutza sortzea. Alegia, tesi-prozesu batek asko duela kolektibotik, nahiz eta ez aitortu. Hala ere, erabaki eta hautu nagusiak autorearenak diren heinean, hori ezkutatzea ere ez litzateke egokia. Funtsean, modu horizontalean funtzionatzen duen materia, modu bertikalera eramateko prozesua da tesiarena. Zentzu horretan, epistemologia feministak bertikalitasun hori agerian uzteko hautua egin du, eta tarteka bertikala

dena horizontalagoa, eta indibiduala dena partekatuagoa egiteko printzipioak erditzen saiatu da. Epistemologia feministen lanketan aitzindari izandako erreferentziekin, Sandra Hardingen lan ederra kasu, hurbilago ditudan Barbara Biglia, Itziar Gandarias, Marta Luxan eta Marisela Montenegroren eskutik murgildu nintzen ezagutza sortzeko prozesuen problematizazioaren bide horretan. Egiari zor, kide horiek guztiak mugarri izan direla deritzot; ikertzeko moduetan aldaketa eta erreflexibitate izugarria ekarri dutelako. EHUko Hegoa Institutuak<sup>32</sup> eta Simref-ek<sup>33</sup> elkarlanean bi urtero egin ohi duten jardunaldi eta argitalpenak<sup>34</sup> aberastasun eta eztabaida horien lekuko dira, nire irudiko, galdu ezinezko hitzordua.

### 2. irudia

*Etnografiaren hiru dimentsioak*



*Iturria: norberak egina.*

Modu batera zein bestera, hiru bide horiek haien artean elkarrizketan ari ziren, nik horrela aldez aurretik erabaki-antolatu gabe. Bada, elkarrizketa horrek nire esperientzia modu egokienean kokatzeko modua etnografia egitean zetzala ohartzera eramanez ninduen. Landa-eremu bat definitu, landa-lanerako denbora bat, bere sarrera eta irteerarekin, metodo eta errutina bat. Datuak eraiki eta datuak aztertzeke ni neuz nintzen galbahe horretan, nituen bizipen eta jakintzak kokatzea errazagoa egingo zitzaidala iruditu zitzaidan. Hortik haratago, niretzat ohikoa, egunerokoa eta funtsean neure bizitza zena, arrotz bihurtu, desnaturalizatu eta datu bihurtu behar nuen. Modu horretan gardenago agertuko zitzaidan neure jakintzaren intentsitatea, kolorea eta dentsitatea.

Ordutik aurrera, prozesu politikoko zenbait ekimen eta neure terapia prozesuko zenbait jakintza tesiaren mesedetan ezartzea eta beste hainbat gauza kanpoan uztea erabaki nuen; azken finean, eremu psikologikoari dagokionez, neure-neurea izango zen dimentsio bat izateko

32 Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko Ikasketa Institutua. Ikus: <https://www.hegoa.ehu.eus/eu/events/25>

33 Seminario Interdisciplinar de Metodología de la Investigación Feminista. Ikus: <https://www.simref.net/>

34 AA.V.V. (2019). *Otras formas de (des)aprender: investigación feminista en tiempos de violencia, resistencias y decolonialidad*. HEGOA y SIMReF. Donosti y Bilbao. A.A.V.V. (2015). *Otras formas de (re)conocer: Reflexiones, herramientas y aplicaciones desde la investigación feminista*. HEGOA y SIMReF. Donosti y Bilbao.

premia neukalako, ni eta tesia gauza bera ez izateko beharra. Dimentsio politikoari dagokionez, lehentasuna eman nahi nion, eta konplexua bezain sentibera zen prozesuari ez nizkion neure tesiaren gorabeherak gehitu nahi. Prozesu horretatik, diseinu metodologiko berritua etorri zen, eta horixe da hemen azalduko dudana.

### 1.3.1. Datuak sortzeko estrategia metodologikoa

Jarraian, ikerketa-prozesuan datuak sortzeko jorratu ditudan bideak aipatu eta azalduko ditut; besteak beste, berrikuspen bibliografikoa eta datuen jasoketa, idatzizko eta ikus-entzunezko materialaren azterketa, behaketak, biografia moduko elkarrizketa sakonak, bestelako elkarrizketak (aritu-adituei elkarrizketak, elkarrizketa tematikoak, elkarrizketa informal eta intimoak), oroimena eta idazketa literarioa, gaian egon (albisteak jarraitu, antzerki-film eta ekitaldietara joan).

#### **a) Berrikuspen bibliografikoa eta datuen jasoketa**

Bigarren mailako informazio-iturri bibliografikoak erabili ditut; bereziki, Ezker Abertzalearen historia eta estatuen aldetik Ezker Abertzalearen aurka erabili diren askotariko errepresio-bideen datuak eta bilakaera ezagutzeko. Horretarako, ikerketa historikoak irakurri ditut, baita bizipenen bilduma edo entsegu-eran osatutako lanak ere. Ikerketa-aldetik eremu asko eta zabalak dira aztertzeaz daudenak, eta, batzuetan, bizipenen bildumak baino ez ditugu. Aurkitu ditudan lan gehienak ez dira akademikoak izan, eta gehienak aztergai zen fenomenoaren lehen pertsonan edo oso hurbiletik bizi izan dutenen eskutik idatziak izan dira. Beraz horrek abantaila handia eskaini dit, ez soilik datuen dokumentaziorako, baizik eta baita fenomeno horien inguruko subjektibotasuna ezagutzeko eta sakontzeko.

Lanketa bibliografikoa ondoko eremuei lotuta egin dut: ihesaldi politikoa eta deportazioa, espetxe politikoa, tortura politikoa, Ezker Abertzaleko antolakundearen historia eta 90eko hamarkadako Biltzarretako ponentziak, Mugimendu Feministaren historia eta 90eko hamarkadako euskal gizarteko datu estatistikoak. Ikusi lehen eranskina, aztertutako bibliografia nagusia jasotzen baita bertan.

b) Behaketak

2. taula

Egindako behaketak

Gaia	Denbora-tartea	Ekimen kopurua	Ekimen mota	Lekua
Espetxea emakumeen* ikuspegitik	2015etik 2022ra	16	Mahai-inguru eta hitzaldiak	Bilbo, Iruñea, Donostia Gasteiz, Hendaia, Bakio, Mungia, Ondarroa, Lazkao, Iurreta, Ugao.
Tortura emakumeen* ikuspegitik	2015etik 2022ra	6	Mahai-inguru eta hitzaldiak	Bilbo, Gasteiz eta Asteasu.
Gatazka armatua emakumeen* ikuspegitik	2015etik 2022ra	8	Mahai-inguru eta hitzaldiak	Nik sinesten dizut 3, Igorre, Galdakao, Iruñea.
Gatazka armatua emakumeen* ikuspegitik	2015etik 2022ra	3	Ikastaroak	UEUn 2 eta Hernani.
Gatazka armatua emakumeen* ikuspegitik	2015etik 2022ra	6	Barne-tailerrak	
Ekimen feministak	2015etik 2022ra	4	Manifestu-aurkezpena, ekitaldia, performancea...	<i>Hemen Gaude</i> manifestua, <i>Nik sinesten dizut</i> , espetxera martxa feminista, tortura performancea.
Bestelako gune eta ekimenak	2015etik 2022ra	8	Liburu-aurkezpenak, <i>Justizia feminista</i> jardunaldiak, emakume* biktimen arteko solasaldiak, preso ohien inguruko Foro Soziala, jardunaldi akademiko espezifikoak, txosten espezifikoak aurkezpenak.	

Iturria: norberak egina.

Behaketa gauzak gertatzen diren tokian eta gauzak egiten ari direnekin egotea da. Betiere egiten den hori zergatik, zertarako eta nola egin/gertatzen den ulertzeko; protagonisten ikuskera-ekintza-bizipenetik ulertzeko, hain zuzen ere. Kasu honetan, Ezker Abertzaleko emakume\* errepresaliatu batzuk *lurrazpiko memoria* (Pollak, 2006) argitara ateratzeko garatzen ari ziren prozesu politikoan egotea eta berau behatzea zegoakidan. Horretarako, haien militantzia, tortura edo espetxe bizipena modu publikoan kontatzen ziren espazioak behatzea erabaki nuen. Modu horretan, emakume\* horien testigantza eta narrazioez gain, errelatatzen (g)une horien antolaketa moldeak, hizlari eta entzuleek bertan egoteko zeukaten modua, giroa, aurreko eta osteko harreman-trukeak behatzeko aukera neukan. Hori dela eta, behaketa-gidoia osatu (ikus 2. eranskina), eta mugarriztat neuzkan ekimenak edota geografikoki hurbilen nituenak behatzeari ekin nion. Horietako batzuetan,

nire parte-hartzea pasiboa beharrean aktiboa izan zen, alegia, beste emakume\* batzuekin batera neure testigantza-gogoetak zabaltzen aritu nintzen.

Behaketak baliagarriak izan zaizkit, batez ere, espetxe- edo tortura-bizipena errelatatzean aipatzen ziren gai kopuruak eta motak ezagutzeko, pisu-garrantzia non jartzen zen jakiteko, haien burua nola azaltzen zuten jakiteko, baita testigantza-solasaldi saio horiek nola antolatzen ziren ikusteko ere; besteak beste, nork antolatzen zuen, nola aurkeztu, garatu eta ixten ziren (dinamizazio-eredua, entzuleen partaidetza mota). Guztira, 30-40 bat emakume\* aritu dira hitza hartzen hitzaldi horietan. Kasu batzuetan, pertsona batzuk errepikatu egiten ziren. 2. taulan, horien berri ematen dut, xeheki.

**c) Idatzizko eta ikus-entzunezko materialaren azterketa. Landa-eremuan egon.**

Landa-lan osoan zehar, baina baita ikerketa egin bitartean, ikergaiari lotutako albisteen jarraipena egin dut, gertakari zehatzen inguruko erreportaje eta iritzi-trukaketak jarraitu ditut, mobilizazioetara hurbildu naiz, elkarrizketa informaletan bereziki adi egon naiz.

**3. taula**

*Beste erreferentziak*

<i>Nire nia baino ez dut</i>	Dantza eta monologoaren grabaketa. 2013 Lekeitioko Herri ekimena. Olatz Caminosen testua.
<i>Lasa eta Zabala</i>	Filma. 2014. Pablo Malok zuzenduta.
<i>Hau ez da gure bakea- espetxe martxa</i>	2016. Bideoak. Emagin.
<i>Non dago Mikel</i>	Film dokumentala.2020. Miguel Angel Llamas et a Amaia Merinok zuzenduta.
<i>L'hipothese democratique</i>	Film dokumentala. 2021. Thomas Lacoste.
<i>Karpeta urdinak</i>	Film dokumentala. 2022. Ander Iriartek zuzendua.
<i>Bi arnas</i>	Film dokumentala. 2022. Jon Mikel Fernandezek zuzendua.
Espetxeko bost testigantza	2022. Aldizkaria. Bilboko Uribarri auzoko ko Sortu
Preso-ohi, iheslari eta tortura jasandakoen bizipen eta gogoeten jasoketa: Arantza Zulueta, Nekane Txapartegi, Sara Majarenas, Sandra Barrenetxea, Elena Beloki, Kizkitza Gil De San Vicente, Naia Zuriarrain, Saioa Agirre, Iratxe Sorzabal.	Prentsa-erreportaje edo elkarrizketak: <i>Gara</i> , <i>Berrria</i> , <i>Argia</i> .

*Iturria: norberak egina*

Bizipenen kontaketa eta gogoetak ez dira mahai-inguru eta hitzaldietara mugatu. Testigantzek beste modu batzuetara ere lekua hartu dute: bideoan, antzerki bidez, prentsako erreportajeetan eta film dokumentaletan. Ikusi eta irakurri ditudanak baino, zuzenean ala zeharka ikerketan erabili ditudanen zerrenda jaso dut 3. taulan.

#### d) Biografia moduko elkarrizketa sakonak

Ikerketa honetako iturri nagusietakoa, 14 pertsonari egindako biografia moduko elkarrizketa sakonak izan dira. Biografiatik hurbil kokatzen dira, haien partaidetza politikoaren aro osoa jaso gura izan dudalako. Hortaz, sozializazio eta partaidetza politikoaren abiapuntua haurtzaro eta nerabezaroran kokatu denez gero, ordutik gaurdainoko denbora tartea jaso dut elkarrizketetan. Denbora kronologiko horren arabera egituratu nuen elkarrizketarako gidoia ere (ikus 3. Eranskina).

Zehazki, pertsona horien testigantza subjektiboa jasotzea eta erakustea izan dut helburu, haien bizipenetako gertakarietara hurbilduz, eta, batez ere, horien inguruko balorazioetara. Zentzu horretan, bizi-historien ezaugarrietara hurbiltzen da (Pujadas, 1992). Xehetasunak, 4. taulan.

#### 4. taula

*Elkarrizketa sakonak*

Data	Pertsona kopurua	Elkarrizketa kopurua	Transkripzio-orri kopurua	Erabilitako elkarrizketa kopurua
2016tik 2019ra	16	24	500+	14

*Iturria: norberak egina.*

**Elkarrizketa-profilak zehazteko aldagai multzoa:** Biografia-ereduko elkarrizketa sakonetakako profilak definitzeko, ondoko ezaugarri edo aldagaiak erabili nituen: (1) parte-hartze eremua/antolakundea, (2) errepresioa jaso izana, bere adierazpide ezberdinetan bada ere (3) euskal lurraldea, (4) partaidetza sozio-politikoaren garatutako tokia: hiria edo hirigunea, herri ertaina, herri txikia, (5) erantzukizun politiko maila edo jardute-eremua: zuzendaritza, eskualdeko ardura eta herrialdekoaren artean, eskualdeko arduratik behera. Aldagai horien araberrako sailkapenaren berri 5. taulan eman dut.

5. taulan ageri den moduan, beraietariko bat baino gehiago Ezker Abertzaleko antolakunde batean baino gehiagotan aritu da bere ibilbidean zehar. Hala ere, beraiekin hitz egin ostean, bakoitzak antolakunde zehatzen bat izendatzen du bere militantziako nagusi gisa, dela urte gehien han egin zituelako, dela arrasto handiena utzi ziolako.



**5. taula**

*Partaideen profilaren laburpena*

<b>Partaidetza / antolakundea</b>	<b>Lagun kopurua</b>
Jarrain parte hartu dute	9
Egizanen parte hartu dute	2
ETAn parte hartu dute	4
LABen parte hartu dute	3
KASen parte hartu dute	3
Ekinen parte hartu dute	4
HBn parte hartu dute	3
Beste batzuk (Ikasle Abertzaleak, Amnistiaren Aldeko Mugimendua, jai herrikoiak, mugimendu euskaltzalea)	7
<b>Jasandako errepresio mota</b>	<b>Lagun kopurua</b>
Jarraipen polizialak	3
Manifestaldietako kargak	14
Isun ekonomikoak	0
Atxiloketa komunikatuak	4
Atxiloketa inkomunikatuak	11
Espetxea	11
Tortura	9
Jazarpen mediatikoa	3
Jazarpen judiziala	3
<b>Lurraldea</b>	<b>Lagun kopurua</b>
Bizkaia	5
Gipuzkoa	6
Nafarroa	2
Araba	1
<b>Partaidetza sozio-politikoaren lekua</b>	<b>Lagun kopurua</b>
Hiriburu eta hiriak	7
Herri ertaina	4
Herri txikia	3
<b>Ardura maila egitura</b>	<b>Lagun kopurua</b>
Maila lokala eta eskualdearen artekoa	5
Eskualdea eta herrialdearen artekoa	3
Zuzendaritzako kidea	6

*Iturria: norberak egina.*

Bizitokiari dagokionean, bereziki haurtzarora eta gaztarora egin zuten lekuari egin diot erreferentzia, ez horrenbeste egun duten bizilekuari. Partaideen erdia Hego Euskal Herriko lau hiriburuetakoa batean hazi da eta garatu du bere partaidetza sozio-politiko nagusia edo hasierakoa. Hala, garaiko mapa elektoralari begira, Bilbo eta Gasteiz EAJren esku zeuden, Iruñea UPN eta CDNren agintepean, eta Donostia PSEren gidaritzapean. Auzoen arabera Ezker Abertzaleak zuen indarra ezberdina zela ezin dugu ahaztu, hala ere.

Beste lau partaide 5000 biztanletik gorako herrietan aritu dira militante, horietariko bitan Ezker Abertzalea elektoraliki indartsua zen, baita euskararen ezagutza eta erabilpen-maila ere. Beste bietan, aldiz, guztiz kontrako ezaugarriak zeuden euskararekiko eta independentismoaren adierazpen elektoralarekiko. Amaitzeko, 2000 biztanletik beherako herri txikidunak EAJren agintepekoak ziren nagusiki, eta oso euskaldunak.

Ardura-mailari dagokionez, haien partaidetza sozio-politikoaren garaian, zuzendaritza mailako arduretan, herri-mailako arduretan edo erdi mailako arduretan ibili diren ezberdindu dut. Funtsean, Ezker Abertzaleko antolakundeak lurralde-oinarriaren arabera antolatzen ziren gehienak; herri-eskualde-herrialde eta nazio maila —edota Hego Euskal Herrikoa—. Horretaz gain, LAB sindikatua enplegu sektorearen arabera antolatzen zen, baina sindikatuaren noranzkoa definitzeko garaian lurralde-eremuak lekua zeukan. Amaitzeko, ETAko antolaketa zen logika horretatik gehien urruntzen zena; beraz, kasu horretan, zuzendaritza-ardurak ala beste mailako ardurak baino ez ditut ezberdindu.

Guztiak bizi izan dute estatuen aldetiko errepresioa, isun ekonomikoak direla, jarraipen polizialak direla, manifestaldietako karga polizialak direla. Ez dira guztiak atxilotuak, torturatuak eta espetxeratuak izan, baina bai gehientsuenak —hamaika—, batzuk behin baino gehiagotan ere. Hala, batez beste, 5 eta 10 urteko espetxe zigorrak bete dituzte. Beraietariko batzuk ihes egin zuten eta klandestinitatean aritu ziren, baina gutxienak izan dira.

**Desberdintasun- edo aniztasun-ardatzak:** Ikerketan zehar beraien kontakizunari lekua egin ahala, beraien arteko aniztasuna adierazten duten beste ezaugarri batzuk agertuz joan dira, hala nola: 1) Adina; 2) Hizkuntza; 3) Ikasketa eta maila sozioekonomikoa; 4) Familia-egoera eta sexualitatea; 5) Egungo partaidetza politikoa; 6) Feminismoarekiko harremana; 7) Egoera judiziala.

Adinari dagokionez, 35 eta 50 urte artekoak ditugu gehienak. Egundak, horrek ezberdintasun handiegirik ezartzen ez duen arren, ume eta nerabe ziren garai historikoan eragina duelakoan nago. Orokorrean, 90. hamarkadaren hastapenean, amaieran eta erdialdean parte hartzen hasi zirenak hautatu ditut.

Hiru partaide dira euskara jatorrizko hizkuntza izan ez dutenak; bidean euskaratu ziren, nahiz eta, elkarrizketetan antzemango dugun moduan, horietariko bi, egun ere, gazteleraz bizi

diren. Horietako batek dio Ezker Abertzalean euskaraz ez jakiteak edo erraztasuna ez izateak boteregabetzen zintuela, 90ko garai horretan funtzionamendua erabat euskaldundu zelako; beraz, bilera guztiak eta txostenak euskaraz ziren. Hitz egiteko eta ulertzeko ahalmena garatzen, euskaldunak baino ahalegin handiagoa egin behar izan dute kide horiek.

Maila sozioekonomikoari dagokionez, guztiak bat ezik, guraso langileak izan dituzte. Gehienak ordainsari ez oso altuko enpleguetan, eta amen kasuan, batzuk ordaindu gabeko etxe lanetan. Hortaz, maila sozioekonomiko altukoak baino, etxe apaleko alabak dira. Hala ere, batzuen kasuan, gurasoek unibertsitate-ikasketak egiteko aukera izan dute —nahiz eta ez diren gehiengoa—. Horrekin batera, maila sozio-ekonomiko apalaren barruan, lau lasaitasun ekonomiko handiaz bizi izan dira, eta besteen artean, batzuek besteek baino estutasun ekonomiko handiagoak bizi izan dituzte. Hala, beraien artean ere, erdiak unibertsitate-ikasketak hasi zituen gazte-denboran, eta beste erdiak ez. Batzuen kasuan, militantziak eta errepresioak ikasketen bidearen etenarekin zerikusia izan zuen; beste batzuen kasuan, atxilotetak lanean harrapatu zituen; eta gutxi batzuen kasuan, militantziak ikasketa eta enpleguarekin zerikusia izan zuen.

Jatorrizko familiari dagokionez, alaba bakarrak dira hiru, eta beste gutxi batzuk bi neba-arreba dira, baina gehientsuenak hiruzpalau neba-arreben artean hasi ziren. Gure bi protagonista guraso bakarreko sendian eta amarekin hazi eta bizi izan dira, eta beste gutxi batzuk banatutako gurasoekin. Hala ere, gehientsuenek ama eta aitaz osatutako gurasotasuna ezagutu zuten.

Sortutako familiari dagokionez, gehientsuenak —hiru ezik— ama egin dira. Beraietariko bat klandestinitate-egoeran, beste bat klandestinitatera abiatu aurretik, beste bi espetxe egoeran, eta gainontzekoak espetxetik kalerako bidea hartu ostean. Inoiz atxilotuak izan ez direnak, aro errepresibo bortitzena behin gaindituta egin dira ama, baina beti haien partaidetza sozio-politikoari eusten zioten bitartean. Esan bezala, bada ama izateko bidea hartu ez duen gutxiengo bat, eta, kasu horietan, hautuz zein ezintasunagatik jazo da. Bikoteei dagokienez, gehienek militanteak ziren bikotekide gizonak izan dituzte, batzuk baita preso egondakoak edo egun preso daudenak. Baina badira militanteak ez diren bikoteak izan dituztenak, harreman heterosexualetatik emakume\* artekora jauzi egin duten hiruzpalau dauden moduan. Elkarrizketa-unean gehienak bikotean zeuden eta bikotean bizi ziren, baina ez den-denak.

Egungo parte-hartzeari dagokionez, askotarikoa da egoera. Horietariko lau, egun ere, Ezker Abertzaleko erakunderen bateko soldatapeko militanteak diren bitartean, badira beste hiruzpalau nazio-manifestaldi esanguratsuetan parte hartzeaz gain, Ezker Abertzaletik —eta egungo prozesu politikotik— erabat urrunduta daudenak. Beste guztiak, modu batera edo bestera, intentsitate handiagoz edo apalagoaz, herri-mugimendu edo Ezker Abertzaleko dinamika ezberdinen partaide dira.

Batzuek, gutxiengoa bada ere, gazte-gaztetatik feminismoa ezagutu zuten edo gertu bizi izan zuten, dela amagatik, dela lagunengatik, edo Egizanen eta emakume\* gazteen taldeetan aritu zirelako. Halaber, egun, gehienak feministatzat dute beraien burua, baina gutxiengoa da jardun feminista aktiboa duena.

Egoera judizialari dagokionez, beraietariko lau egoera konplexuan daude (prozedura guztiak amaitu gabe, askatasunez mugitzeko aukera gabe), eta beste hiruren kasuan haien seme-alaben aita espetxean dago.

Elkarrizketatuen profila alde batera utzi eta elkarrizketa-uneen berri ematen hasi aurretik, aipatuko dut elkarrizketatuen arteko antzekotasun nagusia haien interes eta ikasketa-eremua izan dela. Pedagogia, hizkuntzak, gizarte-zientziak eta zuzenbidea nagusi. Ez dira agertu, ez artea, ez ekonomia, ez matematikak, ez natur zientziak.

**Elkarrizketa-estrategiak eta estiloak:** Elkarrizketak patxadaz egiteari garrantzia eman nion, eguneroko zereginetatik eta mesfidantzatik babestutako eremua izatea bilatu nuen; azken finean, bizimodu arruntean eta edonorekin lantzen ez ditugun gaiak lantzeko asmoa nuelako eta horietako batzuk mintsuak izatea aurreikusten nuelako. Beraz, gu bion arteko solasaldi eta trukeak gorputza hartu eta bere bidea egingo zuen eremua sortu behar nuen. Elkarrizketarako gidoia neukan arren, elkarrizketaren unean, solasaldiak bere agentzia har zezan nahi nuen.

Elkarrizketatu ditudan pertsona gehienak ezagunak nituen, baina ez guztiak. Hala ere, arestian aipatu dudanez, nabarmena egin zait ikerketan dudan kokapenak konfiantza-maila garrantzitsua sortu duela, nik gauza handirik egin beharrik gabe. Alegia, neu ere emakume\* militante errepresaliatua izateak abantailan kokatzen ninduela sentitu dut. Aurrebaldintza horrez gain, protagonista bakoitzarekin landutako baldintza zehatzak eta akordioak bere eragina izan dutelakoan nago; batez ere, segurtasuna eta erosotasuna ekarriz.

Elkarrizketa batzuk haien etxeetan egin ditut, beste batzuk neurean eta gutxi batzuk kultur etxe, Ezker Abertzaleko egoitza edo unibertsitateko gelaren batean; eta bakarra, kaleko parke batean. Ohartzen naiz, harreman estuena dudan partaideekin non egite horri ez niola horrenbeste garrantzi eskaini, ziur nengoelako ezen, parke edo kultur etxe batean izan, segituan bion arteko burbuila intimoa osatzeko gaitasuna izango genuela. Beste kasuetan, haien etxeetan edo haiek eroso eta propiotzat zuten tokietan egiten saiatu nintzen.

Partaidearen arabera, elkarrizketa aurretik edo ondoren, merienda, hamaiketako, bazkari edo afariak egin dira batzuetan; baita grabagailua itzali osteko beste konfesio eta trukeak, negarraldi leun eta diskretuak, paseoak, edo besarkada sentitu azkar bat. Elkarrizketa osteko une horiek gai batzuk argitu, sakondu edo hobeto kokatzeko baliagarriak izan dira. Elkarrizketa bakoitzeko tonua oso desberdina izan da, baina guztietan ur sakonetan sartu gara azkar asko,

eta erraztasunez. Hitzekin batera honako hauek maiz errepikatu dira: barre-algarak, isiluneak, hasperenak, iraganean galtzen diren begiradak, gorputz-tenkatze deserosoak, antsietate-uneak, ideien argitasunak sortutako lilura-txinpartak, buruko mina, zorabio-sentsazioak, esku edo besoan egindako ferekak, gai batzuk ekiditeko keinu-adierazpen sotilak, diskurtso landuak, eta uneko bat-bateko freskotasuna. Ohikoa izan da, orobat, elkarrizketa osteko neure nekea eta gorputzetik sortzen zitzaidan esker ona. Neure esku bizipen mardul horiek uzteak hunkitu egin nau, beraien bizitza zatitxoak neuri oparitzen ari zirela sentitu izan baitut tarteka. Haien eskuzabaltasunak limurtu egin nau, erantzukizunez bete eta estutu nauen modu berberean. Neure gorputz osoarekin besarkatu ditut, batzuetan materialki, baina beste batzuetan gogoarekin, izan elkarrizketa osteko orduetan, osteko gauean edo transkripzio uneetan. *Zenbat adore, zenbat jakintza, zenbat min! Zer egin horiekin?* esaldiak bueltaka. Metodologikoki fina baino finagoa izatera bultzatu naute pentsamendu eta sentimendu horiek, nahiz eta beti lortu ez.

Beraietariko batzuekin elkarrizketa bakarra egin dut, baina beti elkarrizketa aurreko eta osteko telefono-dei, hitzordu, kafearekin. Gehienetan, elkarrizketa bat baino gehiago egin ditut, egun ezberdinetan zehar. Beraz, elkarrizketa eta elkarrizketa artean, haien eta neure egoeraz whatsappk trukatu ditugu. Batzuekin, harremana mantendu dut, eta, noizean behin, telefono-deien bidez edo han eta hemen topo eginez, tesitik haragoko gauzez aritzen gara.

#### e) Beste elkarrizketak

Ikerketako bi uneetan —zehazki bi prozesu hobeto ezagutzeko— idatzizko daturik aurkitzen ez nuenez, gai horietan aritutako pertsonak elkarrizketatu ditut (ikus 6. taula). Bata 90eko hamarkadaren amaieran eta 2000koaren hasieran Ezker Abertzalean garatu zen prozesu feministan parte hartutako emakumea\* da. Prozesu horren helburuak, urratsak, metodologia eta emaitzak ezagutu ahal izan ditut horri esker. Bestea, 80ko hamarkada erditik duela gutxira arte, motibazio politikoengatik atxilotu, espetxeratu edo judizialki prozesatutako pertsonen abokatu lanetan aritu da. Emakume\* eta gizonen aurkako jarraipen eta jazarpen judizialeko aldakortasunak ezagutu nahi nituen, eta berak sistematizatutako lanik aurkeztu ez zizkidan arren, bere eskarmentuko sentsazioak jaso nituen.

#### 6. taula

*Beste elkarrizketak*

Data	Gaia	Nori
2016an	Ezker Abertzaleko prozesu feminista	Prozesu feminista dinamizatzen egon zen kide bati.
2019an	Motibazio politikoengatik prozesatutako emakume* kopuruaren bilakaera	Preso politikoaren abokatu bati.

*Iturria: norberak egina.*

Bi elkarrizketa horiez gain, zenbatezinak zaizkidan elkarrizketa informalak izan ditut, garai horretako emakume\* errepresaliatuekin, beste garai batzuetakoekin, gizon errepresaliatuekin, Ezker Abertzalea barrutik ondo ezagutzen zutenekin.

### f) Autobiografia

Zalantza izpirik gabe, antropologia izan da kultura eta gizarte zehatzen barne-ikuspegiari antzemateko bide gisa elkarrizketak, biografiak. oroitzapenezko kontakizunak eta autobiografiak erabiltzen diziplina aintzindari eta prestuena. Horri zor diot neurea dudan bizipena ikerketaren mesedetan jartzeko hautua, nahiz eta autoetnografia-ariketa borobil eta oso bati uko egin, jada aipatu izan dudana gisara.

Bat nator memoria ezagutza-iturri gisa ikusten duten eta horretan sakontzen duten autoreekin; zehazki, Teresa Del Vallek ekarpen esanguratsua egin du, eta ikerketa honetarako bereziki inspiratzaileak izan zaizkit bere proposamenak (1996, 2012 a eta b).

Memoria tresna metodologiko izugarria bilakatzen zaigu ikerketarako. Ikerlariaren memoria zein beste partaideen memoria<sup>35</sup>.

Jone Miren Hernandezek (1999), autobiografia memoriari estuki lotutako ariketa bezala ikusten du. Bere ustez, memoria abiapuntu ederra da, norbera eta, batez ere, belaunaldi bat, kolektibo bat edo humanitatea bere osotasunean markatu duten gertakarien berri izateko. Zentzu horretan, nire bizipenak, memoria eta ezagutza funtsezkoak izan dira ikerketa honetarako. Norabide horretan, neure espetxeko bizipenen oroimena gakoa izan da espetxeko lau kapituluak osatzeko, bereziki hamargarrena eta hamaikagarrena. Gizabanako bakar izan arren subjektu historikoa ere banaizen aldetik, hortik ekin diot (Pujadas, 1992).

Ikerketa biografikoaren praktika pentsaezina da «identitate» eta «memoria» kontzeptuetara jo gabe, desberdinak izan arren guztiz gainjartzen baitira. Memoria autobiografikoa banaka bizitako esperientzien gainean eraikitzen da; subjektua kontakizunaren aktorea eta protagonista da, eta bizipen partekatuek izan arren, gertaerak bere biografia indibidualaren funtsezko zati dira. Gizabanakoaren berezitasun propio horrekin lotzen dira bere historia kontatzen dutenen dimentsio soziala, espazioa eta denbora. (Sanz, 2005:106).<sup>36</sup>

Horrekin batera, espetxean neuretzat idatzitako koadernoak lagungarri izan zaizkit. Bertan gutun garrantzitsuen zirriborroak, kartzelaren eguneroko bizimodu eta martxaren deskribapenak, neure gogoetak eta kolektiboki egindako zenbait ariketa jasotzen dira, laburmetrai baterako gidoia bezala.(ikus. 3 irudia).

---

35 Atal honetan neure memoria ekarriko dut erdigunera, baina ez dut aipatu gabe utzi nahi partaideen memoria ere tresna esanguratsua izan dudala; batez ere, Del Valleren proposamen metodologikoa erreferente izan nuelako elkarrizketarako gidoia osatzeko unean: haien bizipenetako mugariengatik galdegitea, ebokazioak bilatzea eta abar.


36 Itzulpena neurea da.

**g) Protagonista nagusien aurkezpena**

Ikerketa honetan, zuzenean ala zeharka, emakume\* askok parte hartu dute, eta askoren bizipenak aipatu izan dira, landa-laneko hitzaldietan, prentsako elkarrizketetan, elkarrizketa intimoetan zein 14 biografietan aipatuak izan direlako. Izan ere, kasu askotan, norberaren bizipenez gain beste emakume\* batzuenak agertu izan dira etengabean, nahiz eta haien identitate eta intimitatea gorde nahi izan. Nago, ikerketa honetan 50 emakumetik\* gora agertzen direla, eta hori azpimarratzeari garrantzitsua deritzot.

**3. irudia**

*Kartzelako koadernoak*



*Iturria: norberak egina.*

Dena dela, biografia moduko elkarrizketetarako prestatu diren 14 emakumeei\* leku protagonikoa eskaini diet, eta, ondorioz, hurrengo lerroen bidez, banan-banan aurkeztuko ditut, betiere anonimotasuna gorde asmoz informazio partikular gehiegi eman gabe.

45 urteko **Maitane** herri txiki eta euskaldun batekoa da. Isila dirudi, edo, hobeto esanda, noiz hitz egin eta zer esan ondo aztertzen duen horietakoa, behin hitza hartuta etorri ederrekoa baita. Aurpegi leun eta goxoa du; horregatik, batzuetan, bere hitzen zorrotzasunak zurtu egin ninduen. Bere kasuan, familian kokatzen du parte-hartze politikora eraman zuen ezinegona. Amamarengandik jaso omen zuen gauzak dagokien lekuan ez egotearen memoria, gerra zibiletik, hain zuzen ere. Ez da bakarria Euskal Gatazkaren atzerako haria jarraituz 36. urteko kolpe militarra aipatzen duena. Barneratutako denbora erreferentzia komuna dela esan genezake, beraz. Hala ere, modu batera zein bestera, politikoki konprometituta zegoen sendi bateko partaide da. Osaba preso izan zuen, eta, neba-arrebetan txikiena izanik, beraien engaiamendua izan zuen sarrera-bidea: izan ere, luzarora beraietako batek espetxean amaitu zuen. Ezker Abertzaleko erakunde eta ardura-maila batean baino gehiagotan egon da, herrigintzan diharduten eragile ezberdinetan egon den era berean. Ez da inoiz atxilotua eta espetxeratua izan, eta egun ere parte hartze politikoari eusten dio. Beste errepresio-moduen eta Ezker Abertzaleko militantzia ereduaren inguruko irakurketa aberatsa oparitu dit. Goi-mailako ikasketak modu berantiarrean amaitutakoa da. Ama eta abertzalea da.

36 urtetako **Sara** hiri batekoa da, eta, euskal hirietan gertatu ohi denez, euskara ezin esan denen ahotan zegoenik. Emakume\* bizia dirudi, alai eta hurbila, denbora motzean eroso eta erlaxatuta egonazten dizuten horietakoa. Bere hitz-jarioan eta nortasunean, bere familiako engaiamendu politikoak eta bereziki horren aurkako errepresioak pisu handia duela antzematen da. Aita ihesean zuela jaio zen, eta aita, halaber, espetxea edo atxilotetak bizi izandako sendi batekoa du. Bere biografia eta zuhaitz genealogikoa Euskal Herriko historia hurbila marrazten duen marka balitz bezala sentitzen du; alegia, bere bizitza aitortu gabeko egiaren lekukotza moduan ulertzen du, horrek dakarren amorru bizi eta guzti. Bera ere atxilotua izan zen. Bera ere torturatua izan zen. Bera ere espetxeratua izan zen. Egund, nahi ala ez, eta sarri kostata izan arren, «beti hor dauden» Ezker Abertzaleko kidea dugu, baina ez dago inongo antolakundeetan, eta ez du egon nahi, baina «esku bat botatzeko» beti prest. Bere ekarpena «errepresioa- memoria- emakumeak\*» eremuan sor litezkeen ekimenetan egiten du. Iheslarietako egon den trataeraren inguruko gogoeta konpartitu digu. Goi-mailako ikasketak amaitzea lortu zuen, nahiz eta egun langabezi-aldi luzeetan murgilduta ibili. Euskaltzalea, eta justizia eta memoriaren aldeko ekintzailea da.

45 urte dituen **Mariren** aita ere ihesean egondakoa da, eta, Sarak bezala, Ipar Euskal Herrian «errefuxiatuen komunitatea» bizi izan du haurtzaroan. Ama ere polizia-etxeak ezagututakoa du. Marik bere lagun taldea *desagertu* zela dio, atxilotu edo ihes egin zutelako. Horretan ere ez da bakarria; errepresioa zerbait abstraktua izatetik, denboran aurrera egin ahala, pixkanaka familia edo lagun taldera hurbiltzen den mamu moduko zerbait balitz bezala ageri da elkarrizketetan.



Horrek galderak, ezinegonak eta hautatu beharrak azkartu zituela eman du aditzera Marik. Bere aburuz, beti izan du justiziaren zentzu oso garatua, hori da herentzia nagusizat identifikatzen duena. Atxilotua, torturatua eta espetxeratua izan zen, bere ustez, «denbora gutxi» den bost urteko zigorra jasoz. Egun, kartzelan darraien lagunak bisitatzen denbora eta diru franko ematen du, eta bere parte hartzea errepresaliatu ohien eremuan tarteka aktibatzen diren ekimenetara mugatzen du. Lotsatia izan arren, behin segurtasun-eremua eraikia denean berbaldun bihurtzen zaigu, bederen gai honekiko. Hitz egiteko beharra eta gogoia bistakoa du, gertatu zaiona historiako paper txurian kosta ahala kosta idazteko beharrak mugitzen du. Lehen elkarrizketa burutu genuen egun hartatik gaurdaino, argitaratzeko asmorik ez duen koadernoak idazten hasi da. Goi-mailako ikasketak espetxeratu aurretik amaituta zituen. Irakaslea, ama eta errepresaliatua da.

Antzeko zerbait sentitu nuen 47 urteko **Ekiñ**erekin, bere intimitate eta bizipenak lau haizetara kontatzeko prestutasuna du, justizia eraikitzeke kalte-ordainik leunena izan daitekeelakoan baitago. Antzematen zaio bere historia sarritan kontatu duela, baduela diskurtso egituratu bat, baduela gaia hausnartua eta publikoki konpartitu izan duela. Bere historia torturari aurre egiteak eta torturari ihes egiteak osatzen du; torturari zilegitasuna kenduz, berau salatuz eta aitortza bila egindako ibilbide luzea du. Baina bere egungo parte-hartze politikoa hori baino zabalagoa da, mugimendu feminista eta internazionalistak begietan txinpartak sortzen baitizkio. Mundu berrietara, mundu zabalagoetara adi, ikasteko prest. Bere egoera judiziala ez da askatasunezkoa. Hau ere herri txiki batekoa dugu, euskalduna, nahiz eta badiren urte mordoa ez dela bertan bizi. Indar handia transmititzen du, eta berea leku propioa, gela propioa eraikitzeke borroka-ametsa ere badela esango nuke. Feminista da.

50 urteko **Alba** pertsona erreflexiboa da, eta etengabeko elaborazio-lanean ari dela igartzen zaio. Elkarrizketak ere hausnarrarazi egin dio, eta gustura hartu du erronka, ahots goran, nirekin batera gogoeta konpartituaren tonua emanez. Torturak utzi dion arrastoa desgiteko borrokan indar handia egindakoa dela esango nuke. Familia errepresio osteko prozesuetan bide-lagun izan du. Ni-tik gu-ra saltoka aritu da elkarrizketan, bera eta familia banatzen dituen haria oso fina dela agerian utziz. Egun, bere ezinegonak eta proiektuak ordezkatzten zituen Ezker Abertzalea ez du horren gertu sentitzen, ez dator bat hartutako zenbait erabakirekin, eta errepresioaren gaia modu sakonagoan lantzeko ekimen kolektiboak desio ditu. Bitarteko langile publikoa da, eta ahizpa, arreba, izeba eta alaba da. Feminista ere bai.

44 urteko **Sua** kartzela bere egunerokotasunetik aldendu ezin izan duen emakumea dugu. Beste batzuen moduan, bere espetxe-esperientziaren ostean, kartzela barrura gerturatzen darrai, bikotea han duelako. Beraz, bizitza erdia errepedean, metal-detektagailu, bost minutuko zortzi deirekin, hilero prestatu beharreko bi paketeen artean ematen du. Hala ere, bere hitz-jarioa kartzelak baino garai bateko militantziak eta bertako zauriek osatzen dute, horiez aritzeko aukera eta baldintzarik ez zegoen garaitik, horiek mahai gainean ipini eta gogoeta egiteko garaira salto

egin nahi duela igartzen zaio. Bere ibilbidea modu zorrotz eta kritikoa aztertu du, osotasun bateko parte izan dela inoiz begi-bistatik galdu gabe. Egun, beste garai batean parte-hartzeari eskaintzen zion denbora ezinezkoa zaio, haurrak, kartzelara bisitak, lana eta ikasketak baitira bere eguneroko orduak eramaten dituenak. Hala ere, gogoeta politikorako tarte edo harremanak izaten saiatzen da, eta, espetxeari lotutako ekimen ezberdinak sortu izan direnean, buru-belarri sartu izan da. Administrazio publikoan lanean ari da, prekarietate ekonomikotik irteteko behar beste diru ez du bildu, goi mailako ikasketetan murgilduta dabil. Ama eta senide da. Feminista da.

Ezker Abertzaleko komunitateko indarra, eta horrekiko asetasuna eta pozak dir-dir egiten dute 50 urteko **Lurren** begietan oraindik. Munduratu izan zen herriak baldintzatutako pertsonatzat du bere burua, jaiotze-lekuak bere hautuak gidatu dituela ematen baitu aditzera. Miresmen eta maitasunez betetako haututzat du berea. Zalantzak ditu nola arituko den elkarriketan, batzuetan isilik geratzea gertatzen omen zaiolako, buruan gauzak izan arren, ez omen zaizkiolako ahoraino iristen; hori nabaritu dio bere buruari kartzela ostean. Matxismoak bere ezaguera biolentzian kolpatu du, ez behin, ezta bi aldiz ere. Horretan ere ez da bakarra, polizia, bikote zein kartzelarien eskutik izan, edota denen eskutik kasu batzuetan, indarkeria matxista bidelagun izan dute ikerketa honetako protagonistek. Egun dezepzio modukoa sentitzen du, ezagutu zuen Ezker Abertzale hura inon ikusten ez duelako. Bere gogoeta ez da zuzendaritza edo erabaki taktiko-estrategikoetara zuzentzen, mintzen duena oinarri sozialaren destentsionamendua baita. Ez du goi-mailako ikasketarik eta ama da.

**Lola**, 49 urteko emakumea dugu eta lurrikara hutsa da. Gorputz guztiarekin hitz egiten du, ahots tonu altua du, eta umorea du tresna preziatutzat. Bikotekiderik gabeko ama baten bakarreko alaba, eta gizon artean bere lekua egindakoa. Oldarkortasuna bizi-motortzat izan du. Ekintza-emakumea da, eta, bere burua pentsalaritzat ez duen arren, gogoeta-prozesu mamitsua darie bere esaldi borobilei. Garbia da, egiak apaindu edo mozorrotu gabe botatzeko ahalmena du, deseroso sentiarazteraino. Ez omen zaio kostatzen *gai hauetaz hitz egitea*, gustukoa ere badu; horrek guztiak eragindako emozioez aritzea, aldiz, *beste gauza bat* omen da. Hala ere, bere ustez, jendeak erreparatutatik ez omen du galdetzen eta ez luke hala izan behar. Ezker Abertzalea gauza handitzat izan zuen arren, egun ez du horrela sentitzen, eta urrundu egin da. Urruntzea ez sufritzeko bide edo estrategiatzat du, oraingoz horrela lortzen baitu oreka. Ez dago bere unerik onenean, baina feminismoak *non egona* ematen dio, proiektu kolektiboen berotasuna berriz sentitzearekin batera. Ez da ama, eta feminista da. Enplegu-prekarietatea bizi du, eta goi-mailako ikasketarik ez dauka.

36 urtetako **Lua** ez da horren esplizitua, bigarren esanahiekin hitz egitea gogoko du, esaldi oro goitik behera, ezker eta eskuin argudiatzeko joera duen bezala. Isiluneak sortzen ditu, ondoren hitz-jario luzeari bide egiteko. Kartzelan emakume artean hazi eta hezi dela dio, bere aburuz egon litekeen inguru pribilegiatuenean, alegia. Militantzia gauza seriotzat duela igartzen zaio, leku handia ematen baitio «historia kolektiboari» eta bere *etxekoren* bati aurre egin behar

bazaio, horretarako nortasuna duela nabari zaio. Haserre dago, ezkututzen saiatzen den arren. Ama, senidea eta feminista da. Enplegu-desegonkortasunean bizi da, dituen erdi-mailako ikasketek ez baitiote bide handirik zabaldu.

**Xune** irribarre batekin begiratzeko joera duen 46 urteko emakumea da, baina bekokiko zainak betearazten dizkion haserrealdiak ere baditu. Goxoa bezain sutua da, bere esanean. Zauririk ez du ezkututzen, baina ez da zauri horiez mintzo bere egunerokoan, berdinekin baino ez da guztiz ulertua eta hustua sentitzen. Eta hori ere bada beste partaideen ezaugarria. Berdinen arteko harreman horrek kontrajarriak diruditen bi efektu eragiten ditu: bata, berba gehiegi erabili gabe ulertua izango den ziurtasuna; bestea, sarri partekatutako gaia izan arren, behin eta berriz jada esandakoa errepikatu ahal izatea, barrenak husteko beharrezkoak diren saio, denbora eta sakontasunaz aritu ahal izatea. Berreskuratuko ez duen oreka galdu duela dio, maila batean «irabazi egin diotela», berdin pentsatzen jarraitu arren bere azalaren tolesturek pairatutako biolentziaren izu-ikarak gordetzen dituela. Espetxeratu aurretik goi-mailako ikasketak amaituta zituen, egun langile publikoa da, ama izatearekin batera.

**Irene** 46 urteko pertsona politikoa bezain hurbila da. Kontrastez betetako emakumea. Bere burua eraikitzeko lan handia egindakoa da, propio ez zituen ezaugarriak izaten ikasteko inolako zalantzarik izan ez duena. Liburuzalea da, eta formazio-prozesu etengabea murgildua dago, goi-mailako ikasketak amaitu gabe izan arren. Nekea antzematen zaio, lehen lerroko ekarpen politiko intentsoak eta egoera errepresiboak osatutako familia-konfigurazio anitzak buru-bihotz eta azalean bere marka utzi diote. Egiten duena maite du, baina egin ezin izan dituenak egiten hasteko gogotsu ere badago. Autoerreflexiboa da, eta ondo hausnartua du zein zauri dauden irekita eta zein ez, baita zeren alde egin eta zer alde batera utzi. Militantea, senidea, ama eta feminista da. Lehengo borroketan jarraitzen du, ongizate ekonomiko eta beste segurtasun batzuen gainetik. Egoera juridiko nahasia du.

**Lili** 48 urteko emakume hurbila, alai eta hiztuna da. Gogoeta handia egindakoa da hori ere. Bere ibilbidea kritikoki aztertu du, baina beti badu galdera berriren bat. Burugogorra da, eta badu jendea erakartzeko ahalmena, sutua da. Egia esan, hori ere ez da Liliren berariazko ezaugarria, egiten zuten eta dutenarekiko sinesmen eta sentimendu handia ipinitakoak dira ikerketako protagonista guztiak. Are gehiago, gaur egun ere, esku artean dituzten proiektuetan horrela dihardute gehienek. Elkarrizketa-unean beldur da, ez omen duelako memoria ona, datak eta gertakarien ordena buruan nahasten omen zaizkio. Azken hori ez dut soilik bere ahotik aditu. Memoria-ariketa handia eskatzen omen du elkarrizketak, bere ustez. Militantea, feminista eta izeba da. 44 urte ditu, goi-mailako ikasketak ditu, baina enplegu-ezegonkortasunak bizi du.

## I. ATALA: Ikerketaren oinarriak


50 urteko **Maddik** ez-ohikotzat du bere ibilbidea, ez zelako gazterik hasi militantzian. Familia akuilu baino oztopo izan omen da bere engaiamendu politikoan, eta horretan ere ez da bakarra. Beraien parte hartzea oztopatzen aktibo izan diren guraso gehiago ere badaude protagonisten artean, edota beraien parte-hartzeagatik gogor zigortu dituztenak. Eremu maskulinizatueta bizirautean, eta errespetatua izatea lortu omen du, betiere emakume erreferente eta bidelagunen eskutik helduta. Erantzukizun handiak hartu izan ditu, eta handiegi geratzen omen zaizkion-zitzaizkion zalantza egiten du. Gardena eta umila da, eta mundu berri batekiko desira antzematen zaio etengabe bere esanari. Sindikalista, feminista eta ama da.

**Alazne** ere 50 urteko andrea dugu, eta ogibidearen bidez heldu zen parte-hartze sozio-politikora. Goi-mailako ikasketak ditu, eta bere hitzetan zortea izan omen du, atxilotua, torturatua eta espetxeratua izan ez delako, eta maila batean bere bizi-proiektu indibiduala ustez oztopo larririk gabe egin izanaren gogobetetzea dario. Bere bizitzak aurrera egin du, parte hartzen duen antolakundeak egin duen moduan; aldaketa handiak ezagutu ditu, baina oraindik egiteke dagoenari begira darrai pasio handiz. Sindikalista, feminista eta ama da. 50 urte ditu.

### 1.3.2 Analisia

#### 4. irudia

Azterketarako eskemak



Iturria: norberak egina.

Azterketa-lanek, behin landa-lana amaituta, egin ohi den datu guztien irakurketa pausatuekin lotura dute, baina zeregin hori gainditzen du halaber. Beraz, landa-lan ostean hasten den zeregina baino, ikerketa-prozesu osoan martxan darabilgun praktika gisa ulertzen dut, Jaime Altunak, (2023) iradoki legez. Funtsean, ikergaldera nagusiei erantzun asmoz abiatzen dugu ikerketa, eta horrek esan nahi du iker-prozesu osoan zehar galdera horiek erantzuten lagungarri izan daitezkeen datuen bila edo, bederen, bide horretan esanguratsuak direnen peskizan nondik jarraitu erabakitzeke lanetan gaudela. Landa-koadernoan jasotako gauzak irakurtzea, azterketa-unitateak berreskuratzea, datu-hutsuneak identifikatzea eta bakarrizketa erreflexiboei ekitea etengabe iker-praktika bilakatzen da.

Hori dela eta, landa-lan osteko unea iristerako, analisiaren hastapena eginda nuela iritsi izanaren sentazioak hartu ninduen, baina, aldi berean, benetako azterketako une sakonaren aurrean nengoela ere sentitu nuen. Ordenatze eta sailkatze mota ezberdinen bidez, koherentea zitzaidan emaitza ekoitzi arte aritu nintzen, jarraian informazioa antolatzeke. 4. irudian, azterketa egiteko erabilitako eskema batzuen irudiak daude ikusgai.

Horrekin batera, azterketari lotutako aurkikuntzak emakume errepresaliatuen komunitateko kide batzuekin partekatuz joan naiz prozesuan zehar, *azterketarako topaketa edo egonaldi* gisa izendatu ditudan enkontruak izan baitira. Argitu beharra dut egonaldi horiek ez direla saiakera ordenatu eta sistematizatuaren emaitza izan, kontrasterako (g)uneen premiatik sortutakoak baizik. Beraz, iker-ikuspegitik beharra nuenean aktibatuta ditudan gune informalak izan dira.

### 1.3.3 Idazketa

Behatu, entzun, alderatu eta idatzi. Horiek omen dira ikerketa batean beharrezkoak diren trebetasunak. Idazketa zeregin zailena egin zait, idazteak berak galdera asko pausatzen dizkiolako ikerlariari, eta halaber ikerlariaren zenbait kokapen materializatzea ere badakarrelako. Hori dela eta, idazketa argipen-prozesua ere bada. Behatutakoa, entzundakoa eta alderatutakoa berriro ere berraztertzeke une etengabea bilakatu zait.

Datuak nola aurkeztu eta ordenatzen ditugun, gure ikerketa prozesuaz sortzen dugun narrazio mota (agertzen duguna eta agertzen ez duguna) eta hautatzen ditugun hari eroaleak, ikerketaren azala diruditen arren, mamia ere badira. Mamiak azala egiten baitu, eta azalak mamia.

Idazketa-prozesuak erabaki txiki-handiak dakartza berarekin; besteak beste, lehen pertsonan ala hirugarren pertsonan idatzi, pluralean egin ala ez egin, eta iragan-denbora noiz erabili, adibidez. Horietako bakoitzak berarekin dakar gogoeta epistemologikoa eta kokapen sozio-politikoa, eta, horregatik, metodologiaren atalean horren berri ematearen alde egiten duten taldekideen bidea jarraitzea erabaki dut (Martin, 2015, Altuna, 2023).

## I. ATALA: Ikerketaren oinarriak

---

Ikerketako atal enpirikoak haien bizi-denboraren noranzko eta ordena berean egitea erabaki nuen. Modu horretan, 90eko hamarkadan hasi eta gaur egun egiten duten ebaluazioarekin amaitzea neukan buruan, hasi eta amaitzen den bidaia irudikatuz idazkeran. Alta, aurrera egin ahala, geroz eta argiagoa agertu zait bidaia amaitu gabe dagoela, ez soilik horrelako bidaiek inoiz ez dutelako amaierarik, baizik eta preseski ikerketak materializatu duen une historiko-partikularra irekita dagoelako. Alegia, bidai horretako egungo geltokia egundo hezurmamitzen ari da, forma hartzen ari da. Beraz, azkarregi izan liteke balorazio batzuk zuri-beltzera eramateko, eta, aldi berean, nahigabeen ere, haien kontakizun osoa baloraziotzat har dezakegu; gaur egunean, iraganetik zer ekarri eta zer ez ekarri horrek, egungo eta biharko asmoekin lotura duelako; gaur egunean, haien buruari eta besteei iragana kontatzeko moduak, haien identitate prozesuen berri ere ematen digutelako. Hori dela eta, kapitulu bakoitza aro horri edo gai horri dagozkion ebaluazio-kritika-baieztapen zipriztinez bete dut, prozesuan dagoen eta egiten ari den lana dela agerian uzteko.

EHUn eta ikerketa akademikoan AFITen eskutik ibili naiz, eta horrek, zalantzarik gabe, epistemologikoki feministak diren hautu ausartak egitera bultzatzen duen giroan murgilduta egotea ekarri dit. Horren ondorioz, hurrengo lerroetan azpimarratu nahi ditudan hautuak egin ditut idazketari dagokionez.

Lehen pertsonan aritzea: Hirugarren pertsonak ikerlariaren gorputza eta kokapena izkutatu ohi ditu, ikerlariaren ahotsa neutralizatzeko modu gisa erabili izan da. Norberaren egia partziala, egia akademiko borobila bilatu nahirik, positibismoaren sastrakan sartuz.

Singularrean idaztea: Pluralak, pentsamendu eta ezagutzaren ekoizpenaren esku-hartze kolektiboa adieraz dezake, eta, zentzu horretan, singularra baino askoz egokiagoa da, jakina baita iker-bideak eta ezagutza sortzeko lanak bakarka ezin egin daitezkeela. Ikerketa honen kasuan, partaide multzo zabala eta partaidetza mota ezberdinak sortzeko ariketan ibili naiz: landa-lanean informatzaileak diren kideez harago jo dut, eta osteko idazketa-prozesuan, gure lana irakurriko duten zuzendari edo kideez gaindi ere ibili naiz. Solasaldian gehitzeko autore eta lanak proposatu dizkidatenak, ikuspegi berriak ekarri dituztenak, haserre eta ezinegonak oparitu dizkidatenak, horiek denak, eta baita gehiago ere, ikerketaren parte dira, baina ez zait bidezkoa iruditzen pluraltasun horren atzean erabaki indibidualak ezkutatzea. Zentzu horretan, ikerketa-prozesua kolektiboa izan den arren, erabaki garrantzitsuenak neureak izan dira; beraz, horien ondorioak neure gain hartzeko modu gisa erabili dut lehen pertsona singularra. Hala ere, ikerketa-objektuko eta -subjektuko parte naizen heinean, haiek-gu adiera nabarmendu dut behin baino gehiagotan.

Emakumea izartxoaz erabiltzea: Argitu gura dut ikerketako partaideen artean *cisemakumeak* izan direla nagusi, baina horrela izan ala ez, ez da hori emakume kategoria erabiltzearen arrazoi nagusia. Era berean, *emakume izartxoa* ezaguera erabiltzeak ez du esan nahi genero-sistemak inposatzen duen binomiotik kanpoko bizipen eta identitateak ukatu nahi ditudanik.

Transfeminismoaren ekarpenekin bat egiteagatik emakume\* kategoria horren baitan ulertuko ditut lan honetan, nahiz eta jakitun naizen gazte belaunaldien artean berriki *emakume\*-izartxo*a bera ezbaian jartzen ari direla.<sup>37</sup>

Euskaraz idaztea: Jaime Altuna kideari jarraituz, idazketa-hizkuntza bereziki nabarmendu nahi dut, erabaki horren atzean dagoen apustu politikoa ikusarazteari garrantzitsua deritzodalako. Ezker Abertzalea eta bere komunitate politikoa aztergai dugun aroan, euskaraz ikasi, bizi eta ekiteko apustu kolektibo/indibiduala egin zen hamarkada da. Euskara seaskatik jaso zutenek erabiltzeko, idazteko, irakurtzeko eta ikasteko hizkuntza gisa hautatzeko apustua egin zutenekoa. Seaskatik ez zekartenek, euskara ikasi eta hizkuntza horretan bergizarteratu, harremanetan egin eta pixkanaka bizi eta sentitzera igarotzeko urratsa egin zutenekoa da. Ikerketa-gaia euskaraz bizi dut, euskaratik begiratzen diot militantziari, torturari eta kartzelari. Euskaraz sentitzen ditut ibilbide horretako kideak eta ikerketa honetakoak. Euskal testuinguruan ikerketa honi ezarri dizkiodan helburu politikoetatik gertu balio eta erabilera politikoa emango diotenak euskaraz bizi dira, herri-mugimenduak eta euskal komunitateko komunikabideak, besteak beste. Zentzu horretan, hauturik koherenteena neure-geure hizkuntzan idaztea izan da.

Horrekin batera, euskaraz aritzeak pentsamendua euskaraz sortzeko erronka eta helburuari erantzuten dio, Emaginek 2018an aldarrikatu bezala<sup>38</sup>. Gaztelera eta ingelesa nagusi diren ikerketa-munduan euskaraz ekoizteak, hemendik eta honako pentsamendua eta iker-lerroak erditzeko asmoari lotuta dago. Horrek ez du esan nahi kanpora begira egongo ez den ezagutza akademikoaren alde lerratzen naizenik, alderantziz baizik. Kanpora begira egoteaz gain, barrura ere begiratuko duen ezagutzaren alde egin nahi dut. Hemen ekoizitako beste ezagutzekin solasean eta bizikidetzan egongo dena, sortua izan den gizarteari zor zaiona, edo bederen ni mintzatzen natzaion gizarteko multzo esanguratsu horri. Baina kanpora ere euskaraz sortu gura dut, *euskara jalgi adi mundura* hura posible egiteko diruz lagundua izan dadin.

Beraz, euskaraz aritzeak baliabidez prekario aritzea dakarren arren, eta tribunala osatzeko, lana kanpora hedatzeko zailtasunak dakartzan arren, horrela egitea erabaki dut.

#### 1.4. Tesiaren egitura

Doktorego tesi honek hiru atal nagusi ditu: Lehenengoak, aurkeztutako emakume\* multzoa eta, zehazki, bigarren atala ulertzeko beharrezko aingurek osatzen dute: testuinguru eta oinarri teoriko-kontzeptualek. Bertan, beraz, aztergai den hamarkadako testuinguru historikoa eta ikerketako testuinguru etnografikoa azalduko ditut, ikerlanaren aurkikuntzak kokatzeko funtsezkoak baitira. Zehazki, testuinguru horiekiko harremanetan ulertu behar ditugu emakume\*

37 Usurbilen 2023ko urriaren 13tik 15ra egindako «Utopiak lehertzeraino!: Euskal Herriko Neska\* Gazteen baterajotzea» topaketako eztabaidagaietako bat izan zen.

38 2018. Ezagutzaren matazak. Emagin. Lisipe.

horien hautu, erabaki, kontraesan, zauri eta pozak; baita ikerketaren mugak ere. Horrekin batera, esperientzia horiek aztertzeke erabili ditudan kategoriak, teoriak eta ulerkerak azalduko ditut. Bertan, partaidetza sozio-politiko, kultura politikoa, tortura, espetxeak, generoa eta memoria nola ulertzen ditudan ezagutu ahalko du irakurleak.

Bigarren atalean, lan enpirikotik egindako azterketak hartuko du leku osoa. Atal hori kapituluak antolatu ditut, tesi honetako hamalau protagonisten ibilbideen kronologiaren arabera den ordenan. Horrela, tesia ere bidaia- edo ibilbide-proposamen bat bilakatu nahi ditut. bederatzi kapituluetan, emakume\* horien haurtzaro-nerabezaroan hasi, eta gaur egunera arte iristeko; zehazki, tesi honetarako, haien bidea gogoratzen ari diren helduaroan amaituz beraz.

Haien partaidetza politikoa hasteko motibazioekin hasiko dugu bidaia. Horregatik, bosgarren kapituluaren bidez, noiz eta nola galdegaiei erantzunez, haiek politikoki *mugitzen* hasi ziren garaira joko ditut. Hura nola gogoratzen duten, zein motibazio agertzen dituzten eta zeuzkaten espektatibak agertuz, hain zuzen ere. Bigarren kapituluak, militante-militante egin zireneko tarteak aztertuko ditut, hastapeneko sozializazio politikoaren ostean haien oinarritzko subjektibitate politikoa eraiki zuten garaia. Horretarako, kultura politikoaren kategoriaren bidez, garai hartan bultzatzen zen militantzia-eredua eta praktikan emakume\* horiek bizi izan zutena erakutsiko ditut.

Bidaiaren bigarren geltokia atxiloteta eta tortura izango dira, gehientsuenak, haien partaidetza sozio-politiko eta armatuaren ondorioz, uneren batean atxilotu eta torturatuak izan zirelako. Sei eta zazpigarren kapituluak, tortura zeri deritzogun, Euskal Herrian eta emakumeen\* gorputzetan hartutako formari ekingo diot. Egun lekukotzetan esaten ari dena, eta entzuna izaten ari dena eta ez dena ari aztertuko ditut. Horrekin batera, isilpean jazotzen ari diren berbiktimizazio-prozesuak, zein berrosatzeko prozesuak eta justizia ulertzeke eta eraikitzeke modu ezberdinei egingo diet leku, bi kapitulu horien bidez.

Hirugarren geltokia kartzelak osatuko du, eta bertan luzaro geratuko gara, lau kapituluak zehar, bizitako espetxe politikoaren eraikuntza-prozesua eta horri aurre egiteke estrategiak ezagutuko ditugu. Baina baita espetxearen denbora eta tokia lekutzeke izan zuten modua ere.

Azkena den laugarren geltokiak, bidaia-amaierak duten balantze eta birgogoratze-itxura hartuko du, nahiz eta, berez, kapitulu guztiek duten balorazio-dukia beren baitan. Hamabigarren kapituluak, haien ibilbide militante eta errepresiboetako genero-erregimenen azterketak hartuko du garrantzia, eta, horregatik, nago bidaiaren genero-balorazio moduko itxiera osatzen duela. Hasiera batean, partaideek haien ibilbide indibidualak eta kolektiboak egiten zuten kritika, proposamen eta balorazioak kapitulu espezifikoko batean jasotzeke asmo nuen. Gerora, berariazko kapitulurik ez osatzea erabaki nuen; haien kontakizunean etengabeko balantze modukoak agertzen zutelako; beraz, idazketa bidez horixe bera islatzen saiatu naiz. Kritika, balorazioa eta proposamenak erabat borobildu, partekatu eta osatu gabe dituzte. Prozesuan dagoen gauza dela deritzot, hobeto



## I. KAPITULUA

Sarrera: Euskal Gatazkako genero-azterketara hurbiltzeko ibilbidea

---

gorpuzteko denbora luzeagoa behar duena, ziurrenik. Lineala ez den eta etenez osatuta datorren bide hori, osatu arte, proposamen eta kritikok zuri-beltzera eramateak dutena baino entitate handiagoa hartzeak kezkatzen ninduen. Horregatik, itxiera genero-erregimen eta ordenaren arteko bategite eta talkekin egiteari aproposagoa iritzi diot.



## 2. KAPITULUA

### Oinarri teoriko-kontzeptualak

Zernahi gai ertz ezberdinetatik azter daiteke. Esku artean duzun ikerketak Ezker Abertzaleko emakumeen\* esperientziak ardatz dituenez gero, askotariko eremuak lantzerantz behartua ikusi dut neure burua; besteak beste, partaidetza sozio-politikoak, gatazka politiko-armatuak, espetxe-sistema, tortura politikoak, genero-harremanak, gatazken konponketa eta memoria-prozesuak. Horrek esan nahi du bakarka ikerketa-eremu propio eta sakon izan daitezkeenak —edo izan badirenak— lantzerantz behartua ikusi dudala neure burua.

Emakume\* protagonistek lekutu dituzten espazioak eta espazio horiek guztiak gurutzatuta osatu duten ibilbidea aztertzeko marko teoriko eta kontzeptual bila ari nintzela, diziplina eta ikerketalerro askotara jo behar izan dut halaberrez; hala nola, kriminologia kritiko eta feministatik, memoria-ikasketak eta memoria-ikasketa feministatik, generoa eta gatazka-bakeen ikasketetatik, antropologia feminista eta biolentziaren antropologiatik edan dudala argitu nahi dut. Hala ere, ikerketa osoa gurutzatu eta busti duen ulerkera eta ezagutza laburbildu beharko banu, esango nuke aztergai ditudan fenomeno, erakunde eta prozesu horiei ikuspegi feminista eta kritikotik heldu dioten ikasketak izan direla. Jarraian, *kritiko* eta *feminista* zeri deritzodan kokatuko dut, horien esangura askotarikoa izan daitekeela uste baitut.

*Kritiko* hitza darabildanean, *statu quo*ak agintzen duen eta gizartean nagusi diren ulerkeretatik urruntzen saiatu naizela esan gura dut; adiera normatiboetatik eta menderatze-sistemako botereguneetara ideologikoki gerturatzen diren adieretatik aldendu nahi izan dut, alegia. Beraz, *Emakumea\**, *gizona*, *terrorista* eta *politika* zer den kuestionatu eta berrezaugarritzen saiatu diren teoriak kontuan hartzen saiatu naiz. Justizia- eta zigor-sistema, poliziaren jarduera, mendebaldeko sistema politikoak zein genero-harremanak kuestionatu eta erradikalki aldatzeko motibazioa duten pentsaera- eta ezagutza-ildoetara jo dut.

Horrekin batera, botereguneen ertzetan sortutako pentsamendu eta ezagutzak lehenesten, edo, bederen, besteen beste aintzat hartzeko ahalegina egin dut. Hala nola, emakumeek\* sortutako pentsamendua, akademiatik eta mendebaldetik kanpo egindako ekarpenak, eta ingelesa ez den hizkuntzan eraikitako ezagutzari leku egin gura izan diet. Euskal Herriko kasuan, euskarazkoa lehenetsi dut. Laburbilduta, historia egin arren, historia ofiziala idazteko aukera izan ez dutenen

jakintza-komunitateetatik egin diren ekarpenetatik edan dut. Mendebaldeko pentsamendu anglo-saxoiaren erdian dauden lanetatik harago joanez, zuria ez den arrazializazioei leku eginez, bitartasuna eta estatu-nazioak ezbaian jartzen dituztenak ekarriz.

Proiektu feminista, zentzu horretan, sexu eta genero bi eta bereziak, eta menpeko botere-harremanaren arabera antolatutako gizartean oinarritzen den sistema iraultzeko proiektutzat dakusat; alegia, generoaren, klasearen, sexualitatearen eta arrazaren arabera beste menderatze-sistemekin sinbiosian; natura, gorputzak, sexualitatea, herriak eta pertsonak esplotatzean eta ustiatzean oinarritzen den mundu-bizitzaren antolaketa irauli nahi duen egitasmotzat dut feminismoa: antikapitalista, antipunitibista eta antiarrazista<sup>39</sup>, hain zuzen ere.

Hortaz, patriarkatuaren aro kapitalista liberal arrazista inperialista baten baitan emakumeen\* eskubideetan arreta jartzen duen feminismoa baino, botere-harreman askotarikoak jomugan hartzen dituen feminismoa da neure egin dudana tesian; egungo mundu-ikuskerak eta erakundeak normalizatu eta naturalizatu dituen biolentziak eta botere-harremanak borrokatzen dituen begirada feminista; gaurko botere eta biolentzia-dispositiboak zilegitzat aurkezten dituen ildoak ezbaian kokatzen duen begirada kritikoa; biolentzia eragiteko erakundeak desegin, berregin eta sortutako minak aitortzearen alde ekiten duen ikuspegi feminista eta kritikoa.

Arestian azaldutakoak esan nahi du ikerketa kritiko eta feministen ekarpenak izan direla azterlan hau hezurramitu dutenak, nahiz eta gerora beste lerro batzuetatik kontzeptu zehatzak ere hartu ditudan. Jarraian, ikerketa-lerro horien ekarpen esanguratsuenak azalduko ditut, ikerketa-lan honi dagokionez: biolentzia, memoria, gatazka armatuak, generoa eta antipunitibismoa.

### 2.1 Biolentziari antropologiatik beha

Biolentzia ez da erraza definitzen. Gainera, askotariko ikuspegietatik ekin diezaiokegu definitzeari, eta horren arabera baliagarria izan dakiguke definizio hori ala ez. Saiakera hori egiteko unean, Nancy Scheper-Hughes eta Philippe Bourgoisek (2004) diote «indarkeria kontzeptu labainkorra» dela, baita «ez-lineala, produktiboa, suntsitzailea eta, halaber, berproduktiboa ere». Antonius Robbenentzako eta Calolyn Nordstromentzako (1995), «nahasia da, eta noraeza sortzen du —ez du definizio errazik, ezta inplikaturako gizarte-eragileen artean ere—, giza biziraupenaren funtsezko alderdi oso konplexuei eragiten die, eta zeregin masiboa du inplikaturako jendearen pertzepzioen eraketan» (1995: 1-23). Aldi berean, biolentzia pertsonen, komunitateen, gizarteen eta munduaren nolakotasun eta norantzan funtsezkoa gertatzen da. Are gehiago, Allen Feldmanek (1991) azpimarratu du biolentzia formatiboa dela, nor garen, noren aurka borrokatzen dugun eta gure ingurunean nola erlazionatzen garen horren inguruko pertzepzioa eragiten duela biolentziak. Beraz, identitateak eraiki eta identitateetan eragiten du.

---

39 Besteak beste, 2022an Bilgune feministak eta Emaginek argitaratutako Haraka ditzagun gure bazterrak eztabaida prozesuan eta argitaratutako lanean darabilen feminismoaren ulerkera,

## 2. KAPITULUA

### Oinarri teoriko-kontzeptualak

---

Francisco Ferrandizek, biolentzia definitzeko asmo gabe bada ere, berau kokatzeko orduan dio: «Biolentziaz aritzean botere-harremanez eta harreman politikoez ari gara (asimetrikoak izan behar dute nahitaez), baita kulturaz eta indarkeria-eremu mikro- eta makro-sozialtako menderatze-egiturekin lotzen den moduez ere» (2004:159). Horrekin batera, kontuan hartu behar dugu biolentzia ez dela mugatzen indarraren erabilpenera, baizik eta berau erabiltzeko aukerak edo mehatxuak ere biolentziaren parte direla (Velho, 1996). Bi ideia horiek eztabaida feministetan oso ohikoa den bidegurutzera garamatzate; ez badugu ondo zedarritzen, dena irudituko zaigu biolentzia, botere-harreman oro, eta, orduan, horrek pertsonak zuzenean lehertzen dituen prozesu, testuinguru eta ekintzei haien espezifikotasuna kentzen die.

Baina, horren zaila bada, zergatik aztertu? Ikuspegi antropologikoak ulermena du ipar, ez da bere funtzioan edo sorburuetan tematzen. Egungo gizarte mendebalderetan, aldiz, biolentziaz jardutean, eztabaida antropologikoki antzuan erortzeko joera dugu: zilegi da ala ez da zilegi, justua da ala ez da, gaitzesten dugu ala ez dugu gaitzesten. Nordstrom eta Robben-ek (1996) azpimarratzen duten moduan, biolentzia pertsonen existentziaren dimentsio bat da, ez da gizartetik eta kulturatik at dagoen zerbait. Biolentzia ez da kanpotik jendeari gertatzen zaion zerbait; alegia, biolentzia ez dago geure bizitzari forma ematen dioten dimentsio sozial eta kulturaletik kanpo. Biolentzia bizitzaren dimentsio bat da, eta kulturala da. Horrek hastapenetik antropologiaren objektu izan dela pentsatzera eramanez gaitzake, baina, biolentziaren antropologiak salatu duen moduan, luzaroan diziplina horren puntu itsua izan da. Horrek esan nahi du psikologiatik, zuzenbidetik edo zientzia politikoetatik gaiari eusten zitzaion bitartean, antropologia beste gai batzuk aztertzen aritu izan zela, nahiz eta munduko lurralde franko gatazka biolentoz lepo egon, lehen eta orain<sup>40</sup>.

Hala ere, eta berandu bada ere, antropologia gaira hurbildu da eta penduluaren efektuaren antzekoa bizitzen ari da egun: biolentziaren ikerketen lehen lerrotik urrun egotetik, ikerketa asko eta askotarikoak ekoiztera igaro da, Ferrandizen (2004) arabera, biolentzia bera gaindimensionatzeko arriskuraino iritsiz. Modu batera zein bestera, ekarpen esanguratsuak egin ditu. Funtsean, kriminologiatik gailentzen zen ikuspegi psikologikoa, edo biologiatik defendatzen zen ikuspegi esentzialistak bazter uzteko adina. Hala ere, biolentzia definitzea ez bada erraza, ezta berau aztertzea eta hartaz idaztea ere. Zorionez, gaur egun gaia gehiago zedarritzea, testuinguru ematea, biolentzia ezberdinak harremanetan ipintzea eta, oro har, teorikoki garatzea lortu da. Baina hala ere, biolentziak afera konplexua eta ikuspegi askotarikoa izaten jarraitzen du, aburuak inplikaturako aktoreak adina baitira gehienetan. Hori dela eta, antropologiarentzat, biolentzia bera behatu eta aztertzea garrantzitsua da, baina baita inplikaturak dauden aktoreen ikuspegiak ulertzea ere (Ferrandiz eta Feixa, 2004).

---

40 Amnistia Internazionala elkartearen arabera, urtean 1000tik gora hildako eragiten duten gatazkek 30 bat dira, baina 1000tik behera hildako eragiten dutenak 150 bat

Jarraian, gizarte-zientzietatik, biolentziaren antropologiatik eta feminismitik egin diren — eta doktorego tesi honetarako funtsezkoak izan diren— ekarpenak kokatuko ditut.

Biolentzia naturalizatu eta guk geuk berregin egiten dugu: Biolentzia ez da beste horiek, gaixo edo maltzur batzuk egiten duten hori. Michael Foucaultek (1977) biolentzia egitura sozial eta materialetan sartuta egon zitekeela utzi zuen agerian, nahiz eta berau natural, egoki, normal eta zentzuduntzat jo. Are gehiago, ikusezina egiten zaigun biolentzia sarritan geurea izan ohi da, preseski naturalizatu egin dugulako (Riches, 1988). Bestalde, Nordstron eta Robbenek, Antonio Gramsciren (1971) ekarpena haiena eginez, adierazi dute indarkeria eta boterea, gizarte-erakundeetan eta klase nagusien ideologia islatzen duten hierarkia-kontzepzio kulturaletan sublimatuta daudela (Nordstron eta Robbenen 1996: 8). Eta Pierre Bourdieuk (2021a) biolentzia guk geuk erreproduzi dezakegula erakutsi zigun, biolentziak bere *habitus*a sortu baitezake. Besteak beste, segregazio arraziala edo genero-diskriminazioko sistemak harreman sozialak bortxaz betetzen dituzte eta banaketa kulturalak berregin. Beraz, agerikoa da biolentzia bizitzaren dimentsio bat dela, eta justu biolentziaren dimentsio sozial eta kultura da boterea eta esangura ematen diona (Scheper-Hughes eta Bourgois, 2004).

Biolentziak pluralean landuz gero, sailkatzea eta sakonago aztertzea dakar: Ignacio Martin Baróren ustez, «biolentzia anizkoitzak daude, kualitatiboki ezberdinak direnak, eta, gainera, egintza berberak, esanahi eta ondorio historikoen aldetik, maila asko izan ditzakete» (2003:74).

Bourgoisek (2001) biolentziak lau multzotan sailkatu zituen: politikoa, egiturazkoa, sinbolikoa eta egunerokoa. **Biolentzia politikoak** aginte ofizialen eskutik eragindako eraso fisikoak eta izuari egiten dio erreferentzia, baita horren aurka antolatzen den erresistentzia armatuari ere. Beraz, hemen kokatzen dira espetxeko jazarpena, poliziaren torturak eta borroka armatuak eragindako bahiketa eta heriotzak. **Egiturazko biolentzia** gizarte baten antolaketa politiko-ekonomikoari lotuta dago; zehazki, antolaketa horrek min fisiko eta emozionala, heriotza edo lan-baldintza penagarriak eragiten dituenean (Galtung, 1969). Hemen kokatzen dira, esate baterako, genero-biolentzia, biolentzia ekonomikoa eta arrazismo instituzionala. **Biolentzia sinbolikoa**, Bourdieuren (2012b [1977]) arabera, barneratutako umiliazioak dira, desberdintasunen eta hierarkiaren legitimazioak; sexismoa eta klasismoa hemen kokatuko genituzke, beraz. **Eguneroko biolentziak**, maila mikroan, eguneroko truke eta elkarrekiko harremanetan jazo ohi diren indarkeria-praktikei eta presioei egiten die erreferentzia; bereziki, horien normalizazioari eta sortzen den biolentziaren *ethos*ari.

Kasu honetan, terrorismoaren kategoria bazterrean utziko dut, bai Ezker Abertzalearen eskutik zein estatuen eskutik gauzatutako biolentzia politikoa izendatzeko; alde batetik, terrorista kategoriaren definizioa lausoa bezain malgua delako eta bertan zeinahi erresistentzia armatu sartu gura delako (Calveiro, 2014), are gehiago, terrorista kategoria militantzia politikoaren

deshumanizazio-prozesuak bultzatzeko erabili delako (Ibai Atutxa eta Iratxe Retolaza, 2021), legalitatea eta zuzenbide-estatua suspentsioan ipiniz (Calveiro, 2014, Mendiola, 2013, Del Cura 2009). Herfried Munklerren aburuz, biolentzia-ekintza batzuei terrorismo deitzean zilegitasun politiko osoa kentzeko asmoa egon ohi da, eta horrela izendatzen diren horiekin negoziatzerik ez dagoela hedatua dago nazioarteko politikan (2005:131). Beraz, auziari gatazka/guda deitu beharrean terrorismo deitzeak, talka egiten duten interes eta aldeez hitz egin beharrean, etsaia izendatzen da zuzenean, gatazka bera ukatuz eta normaltasunaren indarkeria zilegiztatuz (Atutxa eta Retolaza, 2021). Eta horrek bide arriskutsuan sartzen gaitu, Zulaikak<sup>41</sup> (2018) ondo gogoratzen duen moduan, kontraterroristak terrorista behar duelako, etsaia galduz gero identitatea kolokan geratzen baitzaio. Horren adibidetzat du ETAREN amaiera oztopatzeko eta onartzeko Estatu Espainolak izan duen jarrera. Azken finean, erraza delako abertzaletasuna kriminalizatzeko terrorismo hitzaz baliatzea, baina, biolentzia desagertzean, erabat politikoak diren aldarriak dira mahai gainean nabarmen ageri direnak, eta horiek konponbidean jartzea askoz zailagoa da.

Biolentziak elkarri lotu eta batak besteari bide egiten die, baina itzal ere egin diezaiokete: Scheper-Hughes eta Bourgoisen (2004) arabera, biolentziaren antropologiaren berezitasuna biolentzia mota ezberdinen arteko loturak eta haien arteko harremanak aztertzean datza. Are gehiago, antropologoek *continuumaren* kontzeptua darabilte, biolentziak kate-, espiral-, ispiluefektuak eragiten dituelako; indarkeriak bere buruari emanez funtzionatzen duelako, azken finean. Beraz, biolentzia politikoa, egiturazkoa, sinbolikoa eta egunerokoa eskutik oratuta ikusiko ditugu prozesu askotan, nahiz eta biolentzia batzuk besteei itzal egitea ere gertatzen den. Beraz, menderakuntza-ertz bati lotutako biolentziak beste ertz bati dagokion biolentziari leku egiten dio eta hauspotu egiten du, nahiz eta, batzuetan, ikusgarritasunari dagokionez, biolentzien artean itzal egiten amaitu. Esate baterako, estatuaren biolentzia politikoaren eta delinkuentziaren arteko harremana edo pobreziaren eta genero-biolentziaren artekoa erakusten dute lan etnografikoek.

Biolentziaren *continuumaren* kontzeptua (Cockburn, 2004) baliagarria izan da agerian uzteko biolentziak elkarri lotze eta katramilatze horrek moldakortasun baina jarraikortasun handiko kate luzea osatzen duela. Zentzu horretan, biolentziaren antropologiak *sufirimendu sozialaren* (Kleiman Das eta Lock 1996) edo gatazka armatu eta bakegintza-prozesuetako ikerketalerroei ekarpen handia egin die. Izan ere, biolentzia politikoaren testuinguruan, egiturazko beste biolentzia batzuk areagotu egin daitezke, eta biolentzia politikoa etendakoan egiturazkoen alderik oldarkorrenak mantendu. Kasu askotan, biolentzia politikoak beste biolentzia mota batzuegan izan duen eragina ezkutuan agertzen zaigu, edo biolentzia politikoak beste zein biolentziekin batera gauzatu den ezkutatu. Emagunek Euskal Gatazkaren kasuan azterketa horixe egin du

---

41 El Salto kazetan egindako elkarrizketan. Ikusi gehiago: <https://www.elsaltodiario.com/eta/joseba-zulaika-antropologia-cultura-vasca-violencia-terrorismo-regreso-itziar>

12 indarkeria identifikatzera ailegatuz<sup>42</sup>. Eta Euskal Herriko Foro Sozial Iraunkorreko genero-lantaldeak biolentzia politikoarekin batera jazotako genero-biolentzia mahai gainean jartzen saiatu da, biolentzia matxista testuinguru ezberdinetan<sup>43</sup> gauzatzen dela agerian utziz.

Nola ikertu biolentzia: Nolakotasunari buelta asko eman dizkio ikerketa-lerro honek, eta konpromiso politiko-etikoa azpimarratzearekin batera, epistemologikoki eta metodologikoki beste eremu batzuetarako garrantzitsuak diren ekarpenak egin ditu. Izan ere, Norbert Eliasek (1994) zioen moduan, muturreko egoerek beste egoera batzuei begira argi egin diezagukete. Edonola ere, biolentziaren antropologiaren indarra bertatik bertara aztertzeko ahalmenean dago, behaketa parte-hartzaile bidez lan egiten baitu, edo, bederen, bigarren mailako iturriekin aritu beharrean protagonistekin egonez. Zentzu horretan, ekarpen handia egin du eta egin dezake oraindik ere biolentziaren azterketan. Indarkeria ikertzen du, indarkeria gertatzen ari den tokian. Etnografia eta etnografo lekutuez ari gara, beraz. Alegia, biolentziaren ontologia —biolentziaren esperientzia zehatza— eta biolentziaren epistemologia —biolentziaz ezagutza eta hausnarketa egitea— ez daude banatuta (Nordstrom eta Robben 1995), esperientzia eta interpretazioa banaezinak direlako. Baina, halaber, Gayatari Spivakek dioten moduan (2011), ikerketa eta errepresentazioa politika eta boterearekin lotuta daude. Horregatik, Michael Taussig (1987 ) eta Nancy Scheper-Hughesek diote (1995) antropologoentzat landa-lanean aurkitzen dituzten injustiziez hitz egitea eta horien aurka egitea ez dela hautu kontua, betebeharra baizik. Zentzu horretan, askorentzat, ni neu kasu, biolentzia azterteak biktimekiko konpromiso politikoa dakar. Are gehiago, batzuentzat, etnografiak erresistentziarako gune eta elkartasunerako ekintza bilaka daitezke, eta bilakatu behar dira (Green, 1995).

### 2.2. Memoria sozio-politikoari memoria-ikasketetatik eta feminisмотik begira

Kapitalismoaren aro neoliberalak globalizatu duen munduan, abiadura handia ezarri zaio gure bizimoduari. Aldaketa handiak eta azkarrak jazotzen diren abagunean bizi gara, eta horrek bizi gaitu, inertzia eroan sartuta gabiltza aldaketez jabetzeko apenas astirik gabe. Abiadura, aldakortasunarekin eta mugikortasunarekin lotuta dago, eta errotze- zein identitate-prozesuetan eragiten du. Aldi berean, eta batzuen ustez kausa-efektu gisa, mendebaldeko gizarteetan memoriaren ez-tandan murgilduta gabiltza; *urteurren* etengabea biziz. Zentzu horretan, *memoriaren kultura* ezarri da. Izan ere, memoria tresna kulturala dugu, pertenezia sentimendua eragin eta indartzeko gai dena; funtsean, denboran eta espazioan irautearekin lotzen delako, permanentziarekin. Nor garen, nondik gatozen, zertarako edo zergatik gauden hemen, eta nora goazen oinarritzko galderei erantzuten laguntzen digun tresna kulturala da, hain zuzen ere.

---

42 Ikus: <https://www.ehu.es/documents/1687243/32916305/Documento+Emagune.pdf/a9f8bb7c-7c22-430f-b89b-e082a64196e1?t=1635243237814>

43 Ikus: <http://forosoziala.eus/eu/nik-sinisten-dizut-emakumeen-egia-aitortu-manifestua>



## 2. KAPITULUA

### Oinarri teoriko-kontzeptualak

---

Oroitzea, aldiz, giza ahalmen konplexua da; dinamikoa delako, selektiboa delako, indibidualki garatu arren zubi sozial gabe ezinezkoa delako. Beraz, bakarka baina besteekin egonez egiten dugu, eta zer oroitu eta zer ez sailkatzearen emaitza da. Gaur egun izan bagaren nor horretatik, leku eta denbora horretatik eraikitzen dugu iragana, askotan nora joan nahiko genukeen horren arabera. Reinhart Koselleck (1979-1993) zioen esperientzia gaur egunean sartzen den iragana dela, eta espektatiba, orainean sartzen den etorkizuna. Bere aburuz, ez zegoen espektatibarik gabeko esperientziarik. Zentzu horretan, memoriaren denbora ez da lineala, subjektibotasunak horixe bera hausten baitu. Eta subjektibotasun horrek dakar oroitzea ekintza politiko bihurtzea nolabait, memoria etorkizunerako nahi dugunaren araberrako iragan-irakurketa baita. Pilar Calveiroren esanetan (2006, 2012), memoriak politikarekin duen lotura ez dago horrenbeste iraganeko interpretazio-markoei lotuta, baizik eta gaur egunean garatzen diren borroka eta botere-harremanekin artikulatzen den moduari. Horregatik, memoriaren eraikuntza *lego*arekin parekatzen du, eta ez horrenbeste *puzzle*arekin, aldiro forma ezberdina hartu dezakeelako, etengabeko eraikuntza-prozesua baita. Gaur eguneko interpretazio-marcoak aldatzen doaz botere-harremanen arabera, eta, Paul Ricoeur-en ustez (1999), hortxe kokatzen da giza ekintza, hor dago kultura.

Orain arte esandakoari erreparatuz gero, memoria borroka-esparru dela ondorioztatzea ez da harritzekoa. Are gutxiago ezaguera politikodun gertakari traumatikoak egon direnean; alegia, sufrimendu sozialaren kasuan. Oroitzen ez dena ahaztu daitekeelako, *ahantzura soziala*<sup>44</sup> beti delako aukera bat, baina, horrez gain, aurrera begira ezarriko den *egia soziala* jokoan dagoelako.

Kontakizunak anitzak dira, esperientziak ere anitzak direlako; iraganaren eraikuntza bakoitzari esleitzen zaion legitimitatea ez dator nolabaiteko «froga objektibo» batetik, baizik eta haren sinesgarritasun sozialetik, gertakariak iraganean izan zutenaren inguruan adostasuna eraikitze gaitasunetik eta orainerako proiektioetik. Nork du hitz egiteko autoritate legitimoa? Denak. Nork du memoriaren edukia definitzeko ahalmena? Inork ez. Kontakizun ugari eta kontrakoak egongo dira, eta gizartean jarduten duten botere-harremanekin bat datozenak nagusituko dira. Hau ez da akademikoki definitzen den gai bat, borroka politikoan baizik, bertan ematen da «egia» sozialaren aldeko borroka, eta akademia ere horren parte da (Calveiro, 2012:334)

Prozesu horiek guztiak aztertzea da memoria-ikasketen objektua eta helburua. Gertatu den hori baino —edo horrekin batera—, gertatu den horri lotzen zaion esanahia ere bihurtu dute interes-objektua, jakinda esanahi hori etengabeko eraikuntzan dagoela, funtsean subjektu batek besteekin batera egiten duen lana delako, prozesu sozio-politiko-kultural eta koiuntura ezberdinen bidez, hain zuzen ere. Maurice Halbwachs-ek (2004) zioen moduan, norbanako memoriak beti daude sozialki kokatuta; horregatik, Elizabeth Jelinek (2002) *memoriaren lanak* adiera darabil, aktibotasun horri, agentzia horri erreferentzia egin nahian.

---

44 Giza talde batek ez duenean lortzen iraganaz ikasi zuena transmititzea. Norbanakoaren memoria eta praktika publiko eta kolektiboen arteko haustura gertatzen denean. Halbwachsen arabera, ahantzura soziala hiru desegite moduen emaitza izan daiteke: edukia ez delako jada komunikatzen, taldea desegin delako edo marko sozialak (denbora, espazioa eta lengoia) erori egin direlako. (2004). Luisa Passerinnik (2003) aipatzen zuen, memoriaren katea eteten denean.

Ez da harritzekoa, beraz, memoriaren-ikasketek memoria bera ezagutza-objektu bilatzea, unean une, lekuan leku eta zernahi gai dela eraikitzen diren memoria(k) eta esangurak zeintzuk diren, zergatik eta nola sortu diren aztertzen duen ikerketa eta ezagutza-lerroa baitugu; are gehiago, memoriaren eraikuntzan sortzen diren borrokak, talkak eta gatazkak aztertzen dituen, memoriaren ikasketa historikoa, funtsean. Eta hortxe datza historiarekiko diferentzia; izan ere, memoria eta historia modu askotara erlazionatu daitezken arren, Jelinen (2002) ustez<sup>45</sup>. Memoria historiarako iturri garrantzitsua da, iker-galderak eta lerro berriak arakatzeko sasoian, eta historia memoriarako baliagarria da, berau ezbaian jarri edo kontran froga dezakeelako. Horiek horrela, memoria-ikasketei askotariko diziplinetatik heldu izan zaie, historiak gain: psikologiak, kritika literarioak, filosofiak, soziologiak eta antropologiak ere ekin diote azterketa horri. Diziplinartekoa den ikerketa-lerro hau, kontzeptu multzo baliagarria eskaintzeaz gain, historiak isildu edo kanporatu dituen sektoreen defentsan ari diren mugimenduen erreferente ere bilakatu da. Askok memoriak erresistentzia, aldaketa, justiziaren aldeko aldarria eta sektore minorizatuen ahotsa daramala uste dute, garaituen, biktimen eta zapalduen emergentzia publikoa probestuz, hain zuzen ere. Esku artean duzun tesia marko epistemiko eta politiko horren parte da.

Bigarren mundu-gerraz geroztik, holokaustoak utzitako arrasto gisa, sasoi hartan egin zen giza eskubideen adierazpenari pega-pega eginda garatu izan da mugimendu memorialista. Herri-mugimendu horrek 80ko hamarkadatik aurrera indar handia hartu zuen, bereziki Argentina-Uruguay-Brasil eta Txileko diktaduren harira eta Hegoafrikako apartheidari lotuta. 90eko hamarkadan, Jugoslavia ohiko eta Ruandako sarraskien osteko prozesuei lotuta datorrigu mugimendua. 2000. urtetik landa, Euskal Herrian eta Estatu Espainolean, Frankoren erregimenaren erahilketen eta desagertuen salaketa-lanekin batuta ageri zaigu. Halabaina, esan beharra dago mugimendu horren garapena, eduki eta izaera politikoari dagokionez, ez dela berbera izan lurralde guztietan, bereziki kontinente bakoitzean. Ñabardura horietan sartu beharrik gabe, bereziki interesgarria deritzot, giza eskubideen paradigmaren mugei erreparatzea. Izan ere, bat nator Juan David Villa Gomez et. al-ekin (2018), memoria-ikasketen hazkunde handi eta azkarrak egiteke uzi du ordenatzeko, argitzeko eta mugak aztertzeko ariketa.

Lan horretan ari dira memoria eta ikuspegi feminista kritikoa harremanetan ipini guran ari diren aktibista eta akademikoak (García, Andrea et al, 2022, Troncoso, Leila y Piper, Isabel, 2015). Izan ere, biolentzia politikoko testuinguruetan jasotako min eta sufrimendu askotarikoak aitortzea helburu, beste epistemologia batzuetatik min hori osatu edo hortik berregiteko erabili dituzten estrategiak beti ez daude giza eskubideen markoaren barruan; esate baterako, iraultzaren paradigmatik edo beste kultura edo kosmobisioetatik ari direnak. Zentzu horretan, autore horien etnografiak, komunitateek eta pertsonak dugun agentzia politikoa erakutsi dute, baita minari zentzua eman eta berau eraldatzeko askotariko prozesu eta bideak ere.

---

45 Memoria eta Historiaren arteko harremanaren inguruko kokapen ezberdinak daude. Hemen azaltzen dena horietariko bat baino ez da. Gehiago sakontzeko, ikus: Jelin, 2002. Trabajos de la memoria laneko «Historia y memoria social» kapitulua.

## 2. KAPITULUA

### Oinarri teoriko-kontzeptualak

---

Begirada horrek, emakumeen\* aurkako biolentzia eta bere ondorioei adi egoteaz gain, batez ere, gorputza, emozioak eta esperientzia balioan ipini, eta egungo jakintza-sistematik at geratutako ezagutzetan barna murgiltzen gaitu. Horrekin batera, memoria dokumentatu eta aztertzeko beste metodologiei irekita egotea ere badakar begirada feministak.

Amaitzeko, garrantzitsua deritzot memoria sozio-politikoak biolentzia eta etikarekin duen harremanean gertatzen diren tentsioak aipatzeari. Izan ere, horiei erreparatu ezean, nekeza egingo zaigu Calveirok (2010) autoritarismoaren baliabidetzat zahartzat jo dituen joerak identifikatzea. Autore berberak, Argentinako kasuari erreparatuz eta German Ferrariren lanean oinarrituz (2009), ondoko hauek azpimarratu ditu, eta lerrootara dakartzat Euskal Herriko testuinguruan bizi gaituen memoria eta errelatoaren eztabaidan antzeman daitezkeelako:

Kontakizunen esparruan, zein nagusituko den zehazteko borroka dago. Ez dago memoria singularrik, eta ez da kontakizun historiko bakarra egongo, baina hegemonikoak direnek Estatuak, gizarte zibila eta dagozkien atribuzioak ikusteko moduak markatuko dituzte. Finkatuko du etorkizuneko belaunaldientzat zein indarkeria diren onargarriak, bai estatuaren aldetik, bai gizartearen aldetik, eta zein ez, hau da, gure gizarte-bizikidetzan zein balio hautemango diren. Eta hau ez da gauza txikia. (Calveiro. 2010:342)

Zehazki, ondoko hiru joera identifikatu ditu Calveirok: (a) Bereizketak desitxuratzea: biktima-nozioa estatuko indar armatuetako kideetara zabaltzea, eta biktimario-nozioa erantzunezko talde armatuetara, bi kategoriak gainjarriz, batzuk eta besteak identifikatzea zailduz eta parekatzeko joera izanik. Nahasgarria den terminologia hedatzen da, beraz; besteak beste, «terrorismo» kategoria hedatuz eta biktima-taldeak izendatuz, diferentziak azpimarratu gabe. (b) Esperientziaren alderantzikatzea: giza eskubideak modu diskurtsiboan bereganatzeko ahalegina, eskubide horiek berak urratzen dituztenak. Horrela, preso politikoak, gerrako presoak, tortura, genozidioa eta holokaustoa erabat neurritz kanpo gehitzen dira, hustuz eta hutsalduz. (c) Moral pribatura jotzea: dimensio etikoa ikuspegi moral eta pribatu batetik jorratzea. Erakundeen biolentzia eta beste biolentziak berberak balira bezala landuz; beste horrenbeste eginez «indarkeria politiko» kategoriaren, izen berbera erabiliz fenomeno ezberdinak izendatzeko, aintzat hartu gabe aktoreak, erantzukizuna, testuingurua, modua eta beste faktore batzuk.

### 2.3. Feminismotik generoari begira

Ikerketa feministen aberastasuna horren da handia ezen eta generoaren ulerkeraren inguruan ere kontsentsurik ez baitugun. Nire asmoa ez da, generoaren ulerkera eta erabileren inguruko bilana osatzea. Hori baino, ikerketa honen helburuak betetzeko erabili dudana ezagueraren berri ematea dut helburu.

Generoa erlazio eta praktika gisa ulertu eta teorizatu zuten Gaile Rubin eta Raewyn Connell izango ditut bide lagun. 1975an Rubinek generoa gizarte-erlazioen sistema zela esan

zuen. Connellek gorputzak gizarte-praktika horietan duen inplikazioa azpimarratu zuen, eta gorputzak praktika sozial horiei nola eragiten dien horretan jarri zuen arreta. Zentzu horretan, lan honetan, ez dut sexua emandako zerbait bezala ulertuko, sexua hautemateko modua ere praktika sozialen emaitza baita (Laqueur, 1995). Butleren (1993) iritziz, sexuaren materialtasuna aurre-emanztat ematea, berau birsortzeko eta mantentzeko baldintza arautzaileak indartzea da. Sexua generizatutako gauza da, hortaz<sup>46</sup>.

Zer da, bada, emakume izate hori? Sexu-genero sistemak, pertsonen aniztasuna kategoriatu bitar —gizon eta emakume— finko eta itxien arabera antolatzearekin zerikusia du. Zehazki, garai eta leku bakoitzean emakume eta gizon izatea bereizi, definitu eta hierarkikoki antolatzen dituen sistema litzateke, horrek esan nahi du emakume eta gizon egokiak izateko beharrezkoak diren ezaugarri, funtzio, praktika eta gorputzak arautuko direla. Raewyn Connell-i (1987) jarraituz, *feminitate* eta *maskulinitatearen eraikuntzak* genero-proiektuak dira, praktika sozialeko proiektuak. Hau da, «femeninoa» edo «maskulinoa» izatea pertsonen jokabideari lotuta egongo da, eta, beraz, jokabideari aplikatuko zaio, batez ere egokitzen ez den jokabide bat zigortzeko. Izan ere, genero bakoitzak feminitate- eta maskulinitate-eredu horien arabera jokatzeko dutenean, hori «naturalizat» jotzeak esan nahi du arrakastatsua dela genero-sistemak jokabidea patroira doitzeko egin duen ahalegina.

Beraz, generoa, funtsean, erlazio-egitura baino ez da, gizarte-praktikak antolatzeko modua (Connell, 1998). Eta justu horregatik, generoa gizarte-egituratzaile dela diogu<sup>47</sup>. Autore berberaren arabera, erlazio-egitura hori gutxienik ondoko egitura-ereduen baitan/arabera antolatzen da: botere-egitura, lan-egitura eta katexi-egitura. Lan-egiturak banaketaren antolakuntza printzipioari erantzuten dio, botere-egiturak hierarkia printzipioari, eta katexi-egiturak zer eta nola desiratu arautzen du —funtsean, besteenganako nola erlazionatzen garen horrek osatzen duena—. Bere ustez, hiru genero-egitura horiek dira nagusiak, nahiz eta ez bakarrak, eta, funtsean, hori dela-eta esaten da genero-mandatuak sortzen direla. Gayle Rubinek (1975), adibidez, botere-harremanetatik eratortzen den eta inposatua den banalerrotzat du generoa, espazio, zeregin, desio, eskubide, betebeharrak eta prestigioa esleitzen dituen marratzat. Subjektuen ekintza-ahalmena eta baliabide-irismena definitu eta mugatzen ditu marra horrekin, baimendu edo galarazi egiten duten esleipen eta mandatuak osatzen ditu generoak.

Gizarte bakoitzean eta gizarte horretako instituzio —formal zein ez-formal— bakoitzean, egitura-eredu horiek —botere-, lan- eta katexi-egiturak— ibilbide zehatz bat egiten dute, eta,

---

46 Gehiago sakontzeko, Raquel Lucas Plateroren (2015). *La agencia de los jóvenes trans\** para enfrentarse a la transfobia.

47 Genero-sistemek ez diote gure gizarteko eremu zehatz bati erreferentzia egiten, gizarte osoa zeharkatzen dute eta beste egitura sozial batzuekin gurutzatzen dira, hala nola, arraza, adina, klase soziala, ideologia eta abar.

beraz, emaitza ezberdina osotu ere bai. Horien artean, bi bereziten ditu Connellek (1985): bata *genero-ordena* dugu, gizarte-sisteman modu orokorrean gauzatu eta praktika sozialak antolatzen dituen genero-harremanen egitura; bestea, berriz, *genero-erregimena*, instituzio edo erakunde jakin batean egikaritzen dena. Bi horiek ez dute zertan berdinak izan behar, eta horien arteko harremanak gizarte aldatetarekin lotura izango du.

#### 2.4. Feminismotik gatazka politiko-armatuei eta konponbide prozesuei begira

Guda eta gatazka armatuez ari garenean, mundu-mailan zabaldutako genero-iruditerien ondorioz, ez dugu argazkia bere osotasunean begiratzeko ezta ikusteko ahalmenik; argazkiaren zati bakarra ikusteko joera dugu, edo argazkia lausotu egiten zaigu. Are gehiago, protagonistak lekuz aldatzeraino iritsi gaitzke. Zentzu horretan, ikerketa eta irakurketa feministen ekarpena oso garrantzitsua izan da eta da, baina hori ere ez da homoginoa; Antonia Navarro Tejero eta Jorge Diego Sánchezen arabera (2020), teoria feminista bera zatitzeraino.

Nork ez du aditu guda gizonek egiten dutela eta emakumeak\* gatazketan beti zaurgarriagoak garela? Gizonek gudarako joera dutela eta emakumeok\* bakerako? Gatazkek beti genero-harremanen aldaketa feministarako ez dutela gehiegi laguntzen? Hurrengo lerroetan, baieztapenok problematizatuko ditut.

**Emakumeak\* beti ez gara zaurgarriagoak, ez bederen modu berean, leku guztietan, denbora osoan eta denak.** Gerla eta gatazka armatuak ez dira fenomeno homoginoak eta ahistorikoak. Testuinguru, aktore, molde, iraupen, ondorio zeharo ezberdinak har ditzake enfrentamendu biolento batek, eta bere fase guztietan ere ez da berdina izango. Horrekin batera, gatazkan zehar generoak duen eragiteko modua gatazka aurreko baldintzekin lotuta dago, baina baita gatazka motarekin ere, eta horrek gatazka osteko egoeran ere eragingo du. Beraz, gudan, emakumeak\* zaurgarriagoak bilakatu daitezke jendarte matxistak baldintza zaurgarriagoetan kokatu ohi duelako; hala ere, baieztapen hori ezin dugu baieztapen automatikotzat jo. Are gutxiago emakumeen\* multzoa inoiz ez denean homoginoa. Klase sozialak, arrazak, pertenezia etnikoak, hizkuntzak, adinak eta sexualitateak, esate baterako, gizarte eta gatazkaren arabera, emakumeak\* desabantailan ala abantailan kokatuko dituzte. Beraz, emakumeek\* gatazkan parte hartzen dute, eta beti ez dira zaurgarriagoak suertatzen, zenbait kasutan indartuta atera daitezke gatazka egoeretatik (Cohn, 2013). Geroago ikusiko dugun moduan, guda eta gatazkak suntsipen-istantekin eta bere ondorioekin lotzen ditugu, baina gudan praktikak askotarikoak dira, edo, beste modu batera esanda, gerraren eraikuntzak praktika mota asko ditu: armagintzan lanean ari den emakumeetatik\*, lurren desjabetzeekin aberasten diren familietaraino, esate baterako. Horiek balioan jartzearen alde egiten du Charlyne Curielek, esate baterako (2022).

**Guda gizonek eta emakumeek\* egiten dute:** Guda gizonek egiten dutela esaten denean, ez dut argi zer den horrekin adierazi nahi dena. XX. mendeko bigarren zatian zehar lurralde eta jendarteak gudara lerratu dituzten motibazioek gizonez lepo zeuden elite ekonomiko eta politikoen jardunarekin zerikusia dutela esan nahi bada, bat nator. Besteak beste, kolonialismotik askatzeko nazio-askapen borrokak, klase-borroka ardatz hartu duten iraultzek eta elite ekonomikoen mesedetan egindako estatu-kolpeak izan direla dakusagu. Alegia, kapitalismoa patriarkatuaren lurretan oinak sartuta eraiki denez gero, jabetza pribatua, kapitalaren akumulazioa eta horren defentsa militarra, gizarte patriarkalen ezaugarri bilakatu da. Baina emakumeek\* guda egiten ez dutela esan nahi badu, zalantzak ditut. Mary Nash eta Susana Taveraren arabera, «gerla, emakumeen kezka-eta posizionamendu-arrazoia izan da, indibidualki zein kolektiboki, eta garai historiko guztietan» (Nash y Tavera, 2003: 9). Are gehiago, ikerketa guztien arabera, aurreko mendeko enfrentamendu biolento guztietan parte hartu dute emakumeek\* (Ibarra, 2009), dela bere sorreran, dela bere garapenean. Beraz, oztopoak oztopo, haien marka utzi dute gertakari historiko horietan, gertakariok eta haien partaidetzak identitate indibidual eta kolektiboetan aldaketak eragin dituen moduan (Ibarra, 2009:58).

Monica Toussaintek (1985) Nicaraguako kasurako eta Anouk Guinek (2016) Peruren kasurako aztertu duten moduan, gatazkek eztanda egin aurretik emakumeek\* autoantolakuntzarako eta borrokarako joera zuten. Horiek horrela, emakumeen\* genero-aldarrikapenek eta nazio-askapenerako borrokarako deiek bat egin zuten, eta horrek talde armatuak legitimatu zituen, baita emakumeek\* bertan parte hartzera deitu ere. Beraz, emakumeek\* ere gatazkak bultzatzen dituzte. Emakumeek\* ideologia daukate, interes ekonomikoak dituzte, premiazko informazio eta ezagutzaren jabe dira, lanerako ikaragarritzko ahalmena dute; beraz, zer dela eta uste dugu kokatuko direla gatazkatik at? Arriskuan eta ezbaian dagoen lurralde eta gizarteko kide diren heinean esku hartuko dute, hori erakusten digute XX. mendeko gatazkek (Merlo 2009). Modu batera edo bestera, emakumeek\* gudan duten papera eta esperientzia askotarikoa eta integrala da (Cohn, 2013). Horrek ez du esan nahi beti nahiko luketen baldintzetan eta moduetan egin ahalko dutenik, gatazkek eta gudek generoa dutelako, noski. Are gehiago, Cohn-en (2013) arabera, generoak eta gerlek elkar eratzen dute; beraz, ezin uler daiteke bata bestea ulertu gabe.

Laburbilduz, ikerketek sobera agerian utzi dute emakumeek\* engaiatu nahi izan dutenean oztopo guztien gainetik egin egin dutela. Eta haien partaidetza askotarikoa izan da. Yuval Davisen arabera (2004), nazio-askapenerako mugimenduei dagokionez, amatasunaren eta nazioaren sinbolo nagusi gisa, borroka eta borrokalariak ekoizteko birproduzitzeko, atzegoardian hornikuntzalanetan, komunitatea berregiten eta ekintza armatuetan parte hartuz. Kontua da borroka nazional, politiko, militar eta ekonomikoetako parte-hartzaile aktibo gisa ere badihardutela emakumeek\* (Amurrio, 2003: 15). Are gehiago, Navarro eta Diegok (2020) Tamilen kasuan aztertu duten

moduan, emakumeak biolentoki aritzen dira<sup>48</sup>. Horren aurrean, batzuetan biolentzia hori handitu egiten da, eta beste batzuetan ezkutatu, kasu batean zein bestean emakumeek biolentzia eragitea arau patriarkaletatik kanpo dagoen egintza dela agerian utziz.

Emakumeak ez dira eraiki diren bezain baketsuak, eta ez dira soilik biktimak testu historikoetan agertzen den bezala. Hau da, gerren luzapenean eta degradazioan ere lagundu dute, eta horrek genero-estereotipoen urratzea dakar, gizarte-judizioak horiekin gogorragoak izan daitezten laguntzen duena, esleitutako ezaugarriak iraultzen dituztelako eta kultura patriarkalak debekatutako erakunde, talde edo ekintzetan sartzen direlako. Hori dela eta, gehiegizko dimentsioa du bere agresibitateak, krudelkeriak edo gizontasunarekin lotutako edozein alderdik. (Maria Eugenia Ibarra Merl, 2009:58)

Beraz, guda gizonek egiten dutela esatea emakumeek\* borroka armatua egiten dutela ezkutatzeko beste modu bat bilakatu daiteke. Eta partaidetza hori aitortzen denean, modu behartuan aritu direla argudiatu izan da, edo talde armatuetan egon direla, baina atzegoardiako lanetan arituz; edo senar, neba, aita, seme edo gizon lagunen atzetik sartu direla borroka armatura. Modu batera edo bestera, emakumeak\* haien erabakimenez biolentzia erabiltzen irudikatzea bera nekeza zaigu jendarte patriarkal mendebaldarrotan, biolentziaren erabileraren monopolioa eta zilegitasunaren *statu quo*a modu bikoitzean apurtzen baitute emakumeek\*: estatuari dagokiona eta gizonezkoei dagokiena; estatu-nazio modernoan osaketak eta gizarte patriarkalaren aitortutako eta baimendutako biolentziak, alegia.

**Zergatik emakumeek\* borroka armatua egiteko dituzten arrazoi berezien bila ibili beharra?** Emakumeek\* borroka armatua zergatik egiten duten, horra, literatura akademiko eta ez akademikoak bere buruari sarritan egin izan dion galdera. Ikusteko biolentziarik zailena zilegiztatutakoa eta normalizatutakoa omen da. Bat nator. Estatu-nazioen eraikuntza-prozesuan, estatuen esku geratu zen biolentziaren erabilerarako eskubidea, eta, ondorioz, biolentzia horren bortizkeria ikusezina zaigu, zuzen eta egokitzen ditugun biolentziak baitira antzemateko zailenak (Wittgenstein, 1988). Biolentzia hori arautua dago, eta ogibide ere bilakatu zaigun heinean, legea betetzen, arauak betearazten eta gizartearen hobe beharrez ari direneko usteak zabal dira gure mendebaldar gizarteetan, Hanna Arendtek (1964) nazien jarrera aztertzean agerian utzi zuen moduan. Beste subjektu batzuk biolentziaz jabetzen direnean, erantzunak askotarikoak dira. Estatua helmuga badute, interes komunak aurkakotzat joko da, eta bere bortizkeria-maila anplifikatu egingo da. Beste gizarte sektore bat edo natura helburu direnean, herri-borroka eta mugimendu sozio-politikoaren urteetako aldarria beharko da bortizkeria hori ikusarazteko, biolentzia matxista, arrazista, ekoizdarekin jazo izan den moduan. Hala, autore batzuek geure buruari egin beharreko galdera alderantzizkoa litzatekeela aldarrikatu izan dute: Eta zergatik ez?

---

48 Autore batzuk, Miren Alcedo (1996) esate baterako, emakumeek\* ordura arte aitortuak ez zaizkien eremuetan aritzeko jauzia egiten dutenean, arauak zorrotz betetzen dituzte eta ondo tematzen dira ekintza orotan. Justuki, gai direla agerian uzteagatik, ostantzean modu gogorragoan epaituak izango direla jakitun baitira.

Ikusteko pribilegiarik zailena norberarena da. Gaur egun, geure buruari emakumeek\* borroka armatua egiteko arrazoiez galdetzea ez al da gizonei eskura duten borroka politikorako tresna bat gehiago bezala aitortzea, eta kontrari, emakumeek\* justu horixe bera ukatzea?

Jakitun naiz espazio publiko eta pribatuaren sorrera eta banaketak emakumezkoek\* politikaren eremua giltzarrapoz josia egotea eragin zela. Jakin badakit gizontasun hegemonikoari jarrera aktibo eta oldarkorra egozten zaiola, eta emakumeek\* pasiboagoa eta leunagoa. Horren ondorioz, urte luzez biolentzia gizonezkoen jabetzakoa balitz bezala antolatu izan da gure iruditegia. Hala ere, badira urte asko mugimendu feministari esker emakumezkoak\* partaidetza politikoa haiena egiten dihardutena; baita Euskal Herrian ere. Badira hamarkada batzuk emakumezkoak\* guda eta gatazka armatuetan —erizaintzan, umeen zaintzan eta elikagaien eremuan aritzeaz gain—, azpiegituran, informazio-jasoketa eta transmisioan zein armen bilketan eta tiro egite eta bonba ezartze lanetan ibili direla nabarmen geratu denetik. Testigantzek, biografiek, ikerketek, dokumentalek eta abarrek agerian utzi dute hori: bigarren mundu gerran (Strobl, Ingrid 2015) eta Espainiako 36ko estatu-kolpe osteko gudan (Mary Nash, 1995; Margaret Lines, 2012; Sofia Rodriguez, 2023). Borroka anticolonialean aritu ziren, Somalian, Eritrean, Zimbawen, Namibian, Irlandan eta Cariben (Jayawardena, 1994; Baksh-Soodeen, 1998; Nash, 2004). Vietnamen, Aljerian, Iranen, Guinea Bissauan, Cuban<sup>49</sup>, Nikaraguan eta El Salvadorreko iraultzetan (Navas et al., 1995; Vázquez et al., 1996; Luciak, 2001; Garibay, 2006). Zer esanik ez Egipton, Mozambiquen, Angolan eta Namibiako askapen-borroketan, han sostengu-, erresistentzia- eta konbate-lanetan aritu baitziren. Independentzia osteko demokratizazioen alde, Argentinan eta Chilen, eta Apartheidaren aurka Hegoafrikan (Nash, 2004). Baita Tamil herrian (Rajasingham-Senayake, 2000; Alison, 2009), Palestinan (Sharoni, 1995, 1995, 2001), Irlandan (Sharoni, 1995, 1998, 2001; Gurpegi, 2022) eta Euskal Herriko nazio-askapenerako mugimendu garaikideetan (Hamilton, 2007a; Odriozola, 2016; Rodriguez 2017).

Hortaz, XIX. mendean eta XX. mende-hasieran zein -amaieran emakumeak\* klase sozialari, nazio-askapenerako borrokei eta haien beste eskubide batzuen defentsari lotuta borrokan aritu dira<sup>50</sup>, kasu askotan gizonen arrazoi berberengatik (Gurpegi, 2022). Literatura akademiko eta ez-akademiko horri entzungor ari direnak, ezjakintasunetik baino emakumeen\* engaiamendu politiko eta armatua gutxieteko genero-ideologiatik ari ote diren galdetzen diot neure buruari.

1990etik 2011ra arte mundu-mailako guda edo gatazka armatuak jasotzen dira 7. taulan, eta horietako askotan emakumeek\* partaidetza garrantzitsua izan dute; esate baterako, Nikaraguan, El Salvadorren, Perun eta Colombian emakume\* milizianoak, dela talde armatuetan, dela oinarrizko

---

49 Cubaren kasuan, emakumeen\* partaidetza apalenetakoa izan zuela esan behar da. Timothy Wickham-Crowley-ren arabera (1992), % 5koa izan zen.

50 Nahiz eta hainbat kasutan gatazkgune nagusia desagertu ostean emakumezkoak\* botereguneetatik urruntzeko ibilbideak ezarri. Horrela aztertu dute, Afrikako herrialde batzuen kasuan, Helie-Lucasek (1987), Moghadamek (1993), Imamek (1994), Karik (1995) eta Mamak (1997).



**2. KAPITULUA**  
**Oinarri teoriko-kontzeptualak**

babes-sareetan, % 25 eta % 60 artekoa izan zen (Boutron, 2019; Dietrich, 2014; Kampwirth, 2007; Londoño y Nieto, 2006; Collinson, 1990; Flynn, 1983; Reif, 1986). Hala ere, bistan da horietako bakoitzean emakumeen\* partaidetza eta haiekiko jazarpenetan oso ezaugarritze ezberdinak zeudela. Batzuek Asia eta Afrikako banaketa kolonialarekin zerikusia zuten, beste batzuek Sobietar Batasunak bere baitan bildutako herrialdeekin, ezkerreko proiektu iraultzaile baten garapenarekin, eta beste batzuek haien identitateen lurralde-aitortzarekin, Europa ezbaian jarritz. Komunean zutena autodeterminazio-eskubidea eta horren ukapena zen, eta da, funtsean.

**7. taula**

*1990 eta 2011 urteen arteko gatazka armatu eta gudak*

<b>Afrika</b>	<b>Asia</b>	<b>Europa</b>	<b>Amerika</b>
Aljeria*	Afganistan	Frantzia*	Kolonbia*
Angola	Kanbodia	Ipar Irlanda*	El Salvador*
Burundi	India	Mazedonia	Guatemala*
Car	Indonesia	Montenegro	Haiti
Chad	Myanmar	Errusia*	Honduras
Cota d'ivoire	Nepal	Serbia	Mexiko
DRC	Pakistan	Espania- Euskal Herria*	Nikaragua*
Eritrea	Papua Ginea Gerria	Jugoslavia ohia	Peru*
Etiopia	Filipinak		
Liberia	Sri Lanka*		
Libia	Thailandia		
Mauritania	Timor		
Maroko-Sahara*	Uzbekistan		
Mozambique	Palestina*		
Ruanda			
Sierra Leona			
Somalia			
Sudan			
Hegoafrika*			
Uganda			
Zimbabwe			

*Iturria: Dyan Mazurana, 2013*

Bosniaren kasua inflexio-puntu bat izan zen, bertan indarkeria sexualak izandako eskalak nazioarteko komunitateak presio egitea eragin zuelako, eta, gerora, nazioarteko zuzenbide

humanitarioak gatazketako indarkeria sexuala gerrako krimen gisa izendatu zuen. Ordura arte, tradizionalki bortxaketa eta emakumeen\* aurkako beste indarkeria mota batzuk gudaren ondorio gisa hartuak ziren, ez estrategiaren zati gisa. Beraz, ez zen berariazko erantzunik lantzen (Jelin, 2017); hala ere, egun dokumentatzeko arazoak dakartzan eremua dela azpimarratzen dute hainbatek (Mendia, 2022).

2000ko urtean ere genero-ikuspegiarekin zerikusia duen urrats garrantzitsua egin zen. Berezi Jugoslavia ohiko eta Ruandako sarraskien osteko giroak bultzatuta, Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak 1325 ebazpena adostu zuen, eta bertan gizon eta emakumeek\* gudak modu ezberdinetan bizi ditugula esaten zen. Halaber, emakumeek\* esku-hartzea handitu beharraz mintzo zen, erabaki-eremuetan eta gatazken konponketan ere.

Laburbilduz, bistan da borroka armatuekin bat egiteko jauzia egiten duten emakumeak\* monopolio bikoitzaren aurka ari direla: estatuak duen biolentziaren monopolioaren aurka eta gizonei egozten zaien biolentziaren monopolioaren aurka. Lehena estatu-nazio kapitalistek arautua da (eta arau horren baitan, mugan eta gerizean gauzatutakoa); bestea, berriz, idatzi gabeko arau patriarkal modernoek ezarritakoa. Esate baterako, ez dira gutxi gizontasun hegemonikoa biolentziaren erabileraren bidez eraikitzen dela dioten ikerlariak; baita beste gizonen aurka ere: gizontasun subordinatuak, gizon arrazializatuak, gizon pobretuak eta abar luzea (Bonino, 2002; Coneell 1995, 2005).

Amaitzeko, estatuaz gain, biolentzia darabilen hori nor den horrek ere badu bere garrantzia. Funtsean, egun mundua antolatu eta egituratzen duten botere-harremanen arabera izango baita erreakzioa: ez da berdin ikusiko jabetza pribatua zaintzen dagoen segurtasun-langile gizon zuri batek ustezko lapur ez-zuriari emandako jipoia, eta emakume\* talde batek gizon erasotzaile bati emandakoa, esate baterako.

**Guda eta gatazkak, askotariko praktikak:** Gatazka eta enfrentamendu politiko eta biolentzako testuinguruetan, ekintza kolektiboaren baitan biolentzia politikoak garatu ohi da (Tilly, 2003). Euskal kasurako, estatuaren biolentzia politikoaz eta herritarrek modu autonomo eta espontaneoan zerabilten adierazpen bortitzez gain, ETA erakundearen jarduna zegoen. Biolentzia horrek gauzatua izateko prozesu kolektibo oso bat beharko du, baina sarri alderik ikusgarriena baino ez zaigu ikusgai egiten, izebergaren punta. Gainera, *Terrorismoaren aurkako borrokan* Ajuria Eneako Itunak<sup>51</sup> ezarri lerro komunikatiboak ikusgarritasun handia eman zion ETAk zerabilen biolentziari. Horrek, beste biolentzia politikoei itzal egiteaz gain, espektakularizazioa ere eragin zuen. Eta mass-mediaren mediatizazioak berez gatazkek dakarten begiraden militarizazioari mesede egin zion. Horren ondorioz, biolentzia politikoaren talde-antolaketa eta erabilpena estereotipatuz

---

51 EAEko alderdi politiko ezberdinen arteko akordio antiterrorista. Ezker Abertzalearen isolamendu politikorako prozesuan mugarriztat jotzen dena. 3. kapituluaren modu sakonagoan azaltzen da.

joan zela esan dezakegu, hori gauzatzeak beharrezkoak dituen zeregin eta ekimenen artean, ekintzak beraiek nabarmentzen baitziren gero eta gehiago. Baina ikusiko dugu borroka armatuak baduela etxeak garbitzearekin, harreman diplomatikoekin, jatekoa prestatzearekin, kohesio-lanak bultzatzearekin, informazioa biltzearekin, antolaketa eta ordenaren jakintzarekin, askotariko erosketak egitearekin, gorputz-itxura aldatu eta lantzearekin zerikusia ere. Horiek denak, sozialki, emakumeei\* esleitutako zereginak ez al dira ba? Eta gizon guztiak ikusgarria den eremu horretan aritu direla uste al dugu?

**Begirada zentralistak baztertzeko premia:** Yuval Davisen ustez, emakumeen\* zapalketaren arrazoiak unibertsalizatzeak tranpa du: ez baitu azaltzen jendarte talde ezberdinetan, denboran zehar, genero-harremanak zein modutan eraiki eta birsortzen diren (2004, 20). Mundua egituratzen duten botere-harremanen arabera zentroan kokatzen direnen begiradekin oso kritikoak izan dira feminismo antikolonialak, mendebaldeko gizarteetako feminismo arrazializatuak eta gaur egungo feminismo dekolonialak. Izan ere, zentro horretatik erreferentzia haiek balira bezala jokatu dutela salatu dute, erdigunetik pentsatu eta teorizatu dutela eta beste mundu eta emakumeak\* homogeneizatu dituztela (Mohanty, 1984, Hooks, 2000).

Beste gorputz eta hizkuntzetan ari diren feministek, beraz, salatu dute zuri inperialisten begiradak ez duela kontuan hartu munduko beste geografia batzuetan emakume\* izatea ez dela zapalkuntza-ardatz bakarra edo nagusia. Horrekin batera, suminduta agertu izan dira kanpotik egin izan diren irakurketekin, haien emantzipazioa haien kultura-herriari uko egitetik igaro behar den ideia nagusitu izan delako, genero-harremanak erdigune mendebaldar, zuri eta inperialeko kulturetan soilik borrokatu eta bernegoziatu ahalko balira bezala. Horregatik, haien kulturetako matxismoa haien gizartean errotuta dagoen feminisмотik borrokatzekeo premia aldarrikatu dute (Uma Narayan 2013, 2020).

Beste batzuek agerian utzi dute publiko eta pribatuaren dikotomia emakumeen\* eskusioa kuestionatzeko erabili izan dela, baina berau modu akritikoan edo edozein kultura eta testuingurutan aplikatzeak emakumeei\* agentzia ukatzea dakarrela; alegia, nahi gabe bada ere, emakumezkoak\* unean uneko egituren menpeko huts bezala agerrarazten dituela.

Literatura feministan, nazio-askapenerako mugimenduekiko arrakala ageri dela ere azpimarratu izan da. Alde batetik, horiek emakumeentzako\* arrotz eta eremu gogor gisa agertzen direlako; baina aztertu izan denean, emakumeek\* nazio-askapenerako mugimenduetan estatueta armadetan baino leku handiagoa izan dutela dakusagu. Askotan, ez da aintzat hartzen nazio-askapeneko abertzaletasuna eta feminismoa, kontrajarriak baino, osagarriak ere izan daitezkeela. Are gehiago, batzuetan nazio-borrokak emakumeen\* antolakuntza eta proiektua erraztu ditu (Jayawardena, 1986; West, 1997).

Nhala Abdo-k (1991) ohartarazten du historikoki estatu-nazionalismoek agintekeriaz eta gehiegikeriaz erabili dituztela emakumeak\*; nazio-askapenerako mugimenduek, berriz, beren izaeragatik emantzipaziorako espazio bat eskaini diete emakumeei\*; alegia, rol aktiboa hartu dutela emakumeek\* beren nazio-askapenean eta, aldez edo moldez emakumeen\* kezka mahai gainean jarrita, emakumeek\* nabarmenki lagundu diezaioketela mugimenduari bere egitura patriarkaletatik askatzen (Amurriok aipatua, 2003, 185-186).

Amurriok nazionalismoaren baitako genero-harremanek forma desberdinak har ditzaketela azpimarratu du. Hori dela eta, gomendatu du komeni dela emakumeen\* rola nazio-eraikuntza konkretuetan aztertzea eta ikustea ea nazionalismo batzuetan besteetan baino rol askatzaileagoa duten emakumeek\*. Azken finean, Amurriok, estatudun nazioetako eta estaturik gabeko nazioetako eraikuntza-prozesuetan genero-harremanen eraikuntza desberdina dela iradoki du (2003:185).

Euskal herriko kasuan, 2022an Euskal Herriko Bilgune Feministak eta Emaginek egin hausnarketa kolektiboak<sup>52</sup> dio, euskal nazio-askapenerako borroka marxismotik bezala, mugimendu antikolonialetatik eta antiinperialistatik edan zuela. Hala ere, hortik dekoloniala izatera jauzi bat egon badagoela. Izan ere, lan horretan genealogia oso bat landu dute zantzu arrazisten bila. Horrekin batera, estatu-hizkuntzak eta estatu-nazioek euskadunongan pausatu begirada eta bortxa ere kokatzen dute. Ibai Atutxaren lanari erreferentzia eginez, honakoa dio: «euskaldunok bortxa epistemiko, kultural, fisikoa, materiala gorpuzten dugu, eta ordena modernoaren bortxa eratzaila da hori, ez dira horren albo-kalteak» (2022:125). Horrek esan nahi du Euskal Herriko kasuan ere adi egon behar dugula beste abertzaletasunetatik, beste estatu-hizkuntzetatik egiten diren azterketekin, horiengan kokapen geografiko-politiko-kulturalak duen eragina aintzat hartzeari begira.

**Gatazketan emakumeak\* botere duitezke eta boteretze horrek gatazka ostean eragin baikorra izan dezake, emakumeen\* askapenen-ikuspegitik:** Gatazka armatuek generoa dute. Gatazka-egoeretako bizipenak, praktikak eta ondorioak ez dira berberak gizon eta emakumeengan\* (Mendia, 2014; Gardam, 1998; Vázquez *et al.*, 1996). Gatazka-egoerak emakumeen\* eguneroko praktketan aldaketak dakartza, eta halaber, emakumeek\* gatazketan izandako parte-hartzeak ere genero-harremanetan aldaketak eragiten ditu. Kasu askotan, emakumeek\* bizitako aldaketa guztien gainetik, botere-egituretatik eta erabakigune garrantzitsuenetatik kanpo geratzeko joerari eusten zaio (Vázquez *et al.*, 1996), eta genero-desberdinkeriak areagotu ere egin izan dira, bertan garatzen diren genero-harreman eta logiken ondorioz (Gardam, 1998).

Azken baieztapen horren ildotik, Simona Sharoni-k (2001), Ipar Irlandako emakume\* errepublikarren eta Palestinako Intifadakoen kasua aztertu ondoren, ezbaian jarri ditu gatazken

---

52 2019ko Durangoko jardunaldi feministetan, euskal arrazializatuek jarduera feministaren ertz arrazistak mahai gainean jarri ostean sortutako askotariko deserosotasunetik sortutakoa.

## 2. KAPITULUA

### Oinarri teoriko-kontzeptualak

genero-azterketetan zabaldu diren uste: bata da gatazka politiko-armatuak, bereziki asko biziagotzen direnean, ez direla lagungarriak emakumeen\* aldarrikapenetan aurrera egiteko. Sharoniren arabera, gatazka politiko armatuek ez dituzte efektu berberak komunitate guztietan, eta zenbait lekutan emakumezkoak\* oinarrizko aktoreak izan dira; zehazki, haien generoa desabantaila baino abantaila gisa bizi izan dute, gatazkek politizatu egin ditu, eta gatazkan izan duten esku-hartzeak legitimitate soziala irabaztea ekarri die.

Bestea da aintzat hartu behar dela, gatazka ostean ohiko genero-harremanak berrezartzeko joerari dagokionez, emakumeek\* gatazkan zehar egin dituzten lorpenak gordetzeko duten iaioetasuna ere (Jayawrdena, 1986; West, 1997). Batzuetan, gatazkan zehar garatutako militantzia esperientzia eraldatzaile gisa bizi izan dute emakumeek\*, eta independentzia eta nortasun propioaren bidean aurrera egitea ekarri die.

Beraz, ezin dugu ahaztu kasu batzuetan botere-asimetria horiek gainditzeko urratsak ekarri dituela, bai bederen emakume\* horiengan, eta batzuetan gizarte osoan; izan ere, gehienetan eremu sinbolikoan emandako jauziak izan badira ere, ostean hari horri tiraka beste prozesu politiko feministetan eragin duelako (Aretxaga, 1997).

Bi hitzetan, gatazka armatuek batzuetan genero-berdintasuneko borroka atzeratzen badituzte ere, beste batzuetan hauspotu egiten dituzte. Hori dela eta, Euskal Herrian errotze sendorik izan ez arren, komeni da, 80ko hamarkadaz geroztik sendotu diren gatazka, bakea eta genero-ikasketek<sup>53</sup> egindako ekarpen feministetatik, ondoko ekarpenetan aipatzen diren joerak aintzat hartzea; laburtzeko asmorik gabe, nire ustez, hauek dira, bereziki, Asia, Afrika, eta Latinoamerikako gatazketan oinarrিতා sortu den corpus horretatik aipagarrienak:

- a) *Emakumeak\* biktimizatu eta despolitizatze joera*: Nazioarteko erakundeen diskurtsoak eta politikak irudi estereotipatuetan oinarritzen dira: «Gailentzen den irudia indarkeriaren biktima errugabea den emakumearena\* da, adingabeak bere ardurapean dituen amarena, gatazkaren dinamikatik erabat kanpo dagoenarena»<sup>54</sup> (Mendia, 2014: 265). Horrela emakumea\* bakezale natural gisa aurkezteko joera nagusitzen da (Reardon, 1985; Ruddick, 1989; Reardon, 1993; Aretxaga, 1997; Cockburn, 1998; Porter, 2008; Alison, 2009), eta «emakume\* biktima – gizon borrokalaria» binomioa indartzen da (Cockburn, 1998: 13). Andrea Garcíaen arabera (2016), gainera, gatazka-ikerketetan eta bakegintza-politikan emakumeak\* ordezkatzekoan biktimismoaren kategoria erabat itsaskorra suertatu da, presesi oso gordina den biolentzia sexualaren bidez<sup>55</sup>. Hala ere, feministen lana ez da alferrikakoa izan, eta Irantzu Mendiak dioenez (2014), pixkanaka, gatazkek —

53 Gatazka politiko-armatuak eta osteko bakearen eraikuntza-prozesuak genero-ikuspegitik eta feministotik aztertzen dituen nazioarteko ikerketa-lerroa.

54 Itzulpena neurea da.

55 Emakumeak\* ikusezin izatetik ikusgarri izatera igaro dira, baina identitate finko batera lerratuta.

eta beraz, bakegintzak<sup>56</sup>— generoa dutela aitortzea lortu da; nahiz eta egoera hori modu deskribatzailean baino ez den jaso, eta, beraz, ez zaie lekurik egiten azterketa feministek egoera horren inguruan egindako azalpen eta analisisiei, bereziki genero-desberdinkeraren, gatazka armatuaren eta bakegintzaren arteko harremanen inguruan egindakoei.

Horrekin batera emakume\* biktima errugabearen kontakizun eta iruditegiak eraiki izanak, horietan emakume\* preso politiko militanteak edo borroka armatua egin dutenak ez kabitzea dakar. Horiek guztiak bereziki ikusezin edo aparteko modura aurkezteko joera da nagusi (Sharoni, 2010), eta, biktima gisa hartzen direnean, bere praktika politikoa estaltzen da. Beraz, emakumea\* subjektu politiko aktibo gisa ukatu eta estaltzeko joera gailendu izan da, biktima ona eta biktima txarraren arteko banaketak ezartzearekin batera, Egiaren Batzorde<sup>57</sup> batzuetan jazo den moduan. Nire ustez, literatura feminista hori agerian uzten ari da «biktima – min-egilea» dikotomia arrakalatu duten subjektuek deserosotasuna eragiten dutela, are gehiago subjektuak emakumeak\* direnean.

- b) *Emakumeak\* subalternitate baina eragile*: Gatazka armatuak ez dira arrotzak izan emakumeentzat. Horiek ere euren identitateak gatazkaren aktore izan diren eragile, entitate, boteregune eta idearioetan eraiki dituzte, eta gatazkan jardun dute. Beraz, gatazkaren sorrerako eta garapeneko testuinguru eta baldintzen parte izaten dira. Beste gauza bat da parte-hartze politiko (eta batzuetan armatu) horrek gatazken bilakaeran izan duen eragin-maila zein den edo, hobe esanda, ekarpenari eman zaion balio eta aitortza zein den. Hainbat autore feministak, adibidez, salatu dute politikaren espazio formal eta publikoetan arreta jartzen duten begiradak nagusitu direla. Hori dela eta, lubaki politiko horietatik urrun —baina horiekin harremanetan— dauden beste guda-zelaietan arreta gutxiago jarri da; eguneroko bizitzan, beste erresistentzietan eta, funtsean, atzegoardietan<sup>58</sup> gertatutakoaz gutxi aztertu eta bistaratu da. Horrek gatazka eta guda-eremuetan, arlo ekonomikoan eremu

56 Kontzeptualki esangura berbera ez dutelako *baketzea* eta *bakegintza*-prozesuak ezberdinu izan dira. Baketzea, bakea biolentzia gabeko eszenatokitzat hartu eta boteregabetua den komunitateari, ordura arte borrokatzen zuen injustizia-markoa barneratu arazteko lanak nagusitzen diren prozesuei deritze. Bakegintza, aldiz, gatazka-egoerak eta biolentziak eztabaida-modu konplexuagoan landu eta bakea eraiki beharreko prozesutzat duenari deritzo (Gehiago sakontzeko, ikus García, 2019). Euskal Herrian ere bakegintza nozioa lehenetsi da horretan diharduten feministen artean.

57 Egiaren Batzordeak Trantsiziozko justiziaren tresna nagusietakoa da. Genero-ikuspegia txertatu duten Egiaren Batzordeak ez dira asko, eta hastapeneko Egiaren Batzordeek ez zuten generoa azterketa-aldagai garrantzitsutzat hartu beren mandatuaren. Gerora etorri diren esperientzietan ikuspegi hori txertatu bada ere, hori ez da oraindik sakontasun nahikoaz egin. Vasuki Nesiah adituaren ustez (2006: 2), «historikoki, Egiaren Batzordeen prozesuek emakume\* askori huts egin diete». Kritika eta ekarpen feministan sakontzeko Hegoa Institutuak hainbat lan argitaratu ditu. Ikus, besteak beste:

[https://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/465/Genero\\_y\\_comisiones\\_de\\_la\\_verdad\\_%28eusk%29.pdf?1606213269](https://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/465/Genero_y_comisiones_de_la_verdad_%28eusk%29.pdf?1606213269)

[https://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/237/Lan\\_Koaderno\\_59.pdf?1488539793](https://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/237/Lan_Koaderno_59.pdf?1488539793)

58 Pluralean izendatzen ditut, gatazka bateko lehen lerroa pertsona eta beharrezko materialez hornitzeko, fronteko zaurietatik osatzeko edota ustez guda-zelaia ez diren beste lekuetan garatzen diren zeregin multzoak asko eta ezberdinak direlako.

produktibo eta erreproduktiboaren arteko banaketa, harreman-motak eta esleitutako balio sozialaren logikak berregitea dakar. Horren ondorioz, emakumeen\* kasuan erabili ohi den *eta* juntagailuari darion androzentrismoaren aurka egin dute batzuek (Castañeda, 2019)<sup>59</sup>, esate baterako, «gatazka armatuak eta emakumeak\*» moduko adierazpideak baztertzearen alde eginez.

Horrekin batera, autore batzuen ustez, lekuan leku eta garaian garai, emakumeei\* aldakorrak diren funtzioak ere egokitu izan zaizkie: fusilari eusteko besoak behar izan direnean iraultzaile gisa erreklamatu dira (Nash eta Cifuentes, 1999), eta beste une batzuetan gizon borrokalarien ama sortzaile eskuzabal gisa ebokatu dira. Talde armatuen emakumeen\* sexualitatea ere gudaren beharren zerbitzura kudeatu dela dioenik ere bada (Vázquez, Ibáñez eta Murguialday, 1996). Modu batera zein bestera, emakumeek\* prozesu politiko horietan eragin egin dutela inor gutxik ukatzen du, nahiz eta eragiteko lekua, modua eta intentsitatea ezberdina izan, eta gehienetan subalternitate-egoeratik aritu diren. Euskal kasuari dagokionez, horrela defendatzen dute Odriozolak (2016) eta Hamiltonek (2007) ere.

- c) *Begirada interseksionalaren premia*: Guda- eta bake-garaiko biolentzien antologian *biolentzia continuum*az hitz egiten dute Bourgeois eta Sheper-Hughesk (2004), lehenago esan bezala. Alegia, biolentzia, ekintza baino prozesu eta jarraikortasun modura ulertzen dute, salbuespen moduan baino normaltasun legez<sup>60</sup>. Horregatik saiatu dira biolentzia politikoaren, egiturazkoaren, sinbolikoaren eta egunerokoaren arteko loturak agerian uzten. Nire ustez, ikuskera horrek azpimarratu nahi du biolentziaren arrastoak uste baino sakonagoak eta konplexuagoak direla, biolentzia ezberdinek elkar elikatu eta sostengatzeko dinamikak abiatzen baitituzte. Eta horrek dakar, adibidez, biolentzia matxistaren kasuan, testuinguru ezberdinetan ematen dela, bai denboran, bai espazioan, bake-garaian zein guda garaian, lehen lerroan nahiz bigarrenan. Hala ere, gatazkan dauden komunitateen kultura, ideologia, gatazkagaia eta beste horrenbeste ezaugarri beti berdinak ez direnez gero, gatazkako biolentziak beti ez du inpaktu bera izango komunitate osoan, gatazketan ere emakumeak\* ez baitira multzo homogenea, klase, arraza, pertenezia etniko, sexualitate eta ideologiari dagokienez. Beraz, emakumeek\* beste faktore horiekin bat egiteko moduak asko eragingo du gatazkarekin duten harremanean (Cohn, 2013), bai biolentzia eragiteko

---

59 Patricia Castañedak esan du (2019:29): «Androzentrismoarekin hausteak, arazoak emakumeen\* aurretik dauden enuntziatuak bailiran izendatzeko joera alde batera uztea dakar. Gauza bera gertatu da genero-ikuspegia hartzen duten azterlan eta ikerketetan. Ikuspegi feminista (edo genero-ikuspegia) sartzeak eta emakumeen\* edo generoaren gehikuntzara ez murrizteak pentsamendu kritikoa eta konplexua hedatzea ekarri du. Eta horrek aukera ematen du giza bizitzako gertakariak bere zabaltasunean aztertzeak, emakumei\* eta femeninitasunari eragiten dieten moduan, baina baita bere horretan ere, nagusitasun-botereen adierazpenei eta horiek gizadian, oro har, dituzten ondorioei dagokienez batez ere» (itzulpena neurea da).

60 Autore horien arabera, ideiak, ideologiak, kulturak eta egitura sozialek osatzen dituzte biolentziaren dimentsio guztiak (adierazitakoak zein erreprimitutakoak), dela adierazpena, dela birbiolentziaren espresioa.

garaian, bai jasoko duten biolentziaren kasuan. Horrek guztiak biolentziaren banaketa desparekoa ekarriko du. Adibidez, estatuko biolentzia politikoaren banaketa selektiboa izan daiteke, eta, beraz, ezberdin eragin emakume\* guztiei, Euskal Herriko kasuan gertatu den bezala.

### 2.5. Sistema punitiboaz, biolentzia, boterea, politika, etika

Desadostasunak, kontrako interesak, kontraesanak eta gatazkak indarrez konpontzeko joera dugu punitibismoa; azken batean, zigorra eta indarkeria lehenesten duen hautu, joera eta politika. Egunerokoan eta askotariko testuinguruetan joera horren aurkako mezuak entzuten ditugun arren, gure gizartea printzipio horren arabera antolatu da. Hezkuntza- eta pedagogia-eremuetan nagusi diren mezuak elkarriketa, negoziazioa, amore ematen jakitea eta ulermena diren arren, estatu-nazio modernoak kontrako norabidean antolatu dira, eta horren erakusle dira polizia eta espetxea instituzio gisa, eredia edozein dela ere. Euskal Gatazkan, begi-bistakoa izan da hori, elkarriketa eta negoziazioa aldarrikapen zabal bilakatu baitira urteetan zehar.

Ikerketa honetako protagonisten ibilbide eta bilakaeran tortura eta espetxe-sistema erabakiorrak izan direnez gero, estatuaren aurpegi punitibo horrekiko irakurketa mahaigaineratzea dut helburu. Bereziki, zientzia politikoak, soziologiak, kriminologiak, ikerketa feministek eta mugimendu antipunitibistek, tortura eta espetxeratzea —estatuaren beste biolentzia batzuekin batera— salbuespena, iraganeko afera edo akatsa ez direla agerrarazten duten azterketak ekarriko ditut lerrootara.

Bada, sistema punitiboaz eta gizartearen joera punitibistez aritzea, botere-harremanez, politikaz, biolentziaz eta etikaz aritzea da. Zentzu horretan, Calveirok gogoratzen digu Foucoultek bere botere sistemen azterketan bi ikuskera nagusi identifikatu zituela; bata guda eta errepresioa botere politikoaren matrize gisa kokatzen zuena; bestea, berriz, biolentzia hori kontratuarekin<sup>61</sup> lotzen zituena. Batak guda politikaren abiapuntutzat joko du; besteak, guda politikaren jarraipen gisa. Lan honetan, Walter Benjamin eta Foucoultekin bat eginez —baina baita testuinguru hurbilagoan horretaz hausnartu duen Ignacio Mendiolarekin, edota klase, arraza eta generotik hausnartu duen Angela Davis-ekin edo Latinoamerikako diktaduren sabeletik gogoetatu duen Pilar Calveitorekin bat eginez—, lehen adierarekin bat egingo dut, justu egungo mendebaldeko demokraziek diskurtsiboki darabiltenaren beste muturrean kokatzen den horretan. Horrek esan nahi du politikak indarkeria berezkoa duela ulertzen dugula; beraz, biolentzia ez dela politikoa amaitzen den tokian hasten den hori (Calveiro. 2005). Autore berberaren ustez, menderakuntza dagoen tokian biolentzia dago, eta, politika dominazioa dagoen esparruan gauzatzen denez gero, biolentziari pega-pega eginda dago; hala ere, indarkeria politikaren osagai gisa ulertzen duen

---

61 Estatu-nazioen sorrera kontratuaz ari da. Herritarrek bere subiraitsa bolondreski Zuzenbide estatuari eskainiz osatutako kontratuaz, finean.



## 2. KAPITULUA

### Oinarri teoriko-kontzeptualak

---

begiradarekiko ezjakintasun modukoa hedatu dela salatzen du. Horren ondorioz, erresistentzia politikoez darabilten zernahi biolentziarekiko desautorizazioa omen da egungo joerarik behinena, funtsean estatuarena ez den beste edozein biolentziarekiko errefusa, eta, beraz, estatuan eta zuzenbidean bertan dagoen bortizkeriarekiko itsutasuna zabaltzen ari da, autore berberaren ustez.

Calveirok *Politika eta biolentzia* lanean egungo egoeraren irakurketa egiten du, eta ikerketa honentzat ekarpen hori funtsezkoa dela uste dut, estatuaren biolentzia ikusteko eta ulertzeko moduan eragiten duelako; baina baita erresistentzia edo disidentzia politikoez darabilten biolentzia aztertzeko eran ere; azken batean, biolentzia eta erresistentzien arteko harreman zailaz hausnartzen duelako ere bai. Autore argentinarrak, Foucault eta Walter Benjaminen ekarpenak jaso ditu, eta gatazka dagoen tokian biolentzia dagoela diosku. Esate baterako, horixe da, nire ustez, feminismoak egin ohi duena, beste zapalkuntza batzuk borrokatzen dituzten mugimenduak bezalaxe: gatazka ikusten eta aitortzen ez den tokian, erakutsi. Ezkutuko biolentzia agerian utzi. Eta modu batera zein bestera, egoera iraultzeko ahalmena dutenen joera sor-gorren aurrean aldaketak behartu. Prozesu horietan, halaber, biolentzia-maila diferenteak bizi daitezke, erran nahi baita mobilizazio sozial eta politikoen eremuan. Horregatik, Calveiroren ustez, politika biolentziaz beteta dagoen moduan, etikak ere politika tenkatzen du (Calveiro, 2005).

Politikaren osagaia den indarkeria —estatukoa izan ala ez— ez ezagutzeak gatazka, menderatze eta erresistentziarako gune gisa aintzat hartu nahi ez izatea dakar. Eta, hortaz, «baketutako» ikuspegia onestea; hau da, estatuaren lege-indarra eta, beraz, indarkeria instituzionala soilik onartzen eta legitimatzen duen begirada. ( Calveiro, 2008:45). Nire ustez, ikuspegi punitibista azken horrekin harreman estuan dago, edo horren emaitza da.

Estatu Espainolean, berriki, *Ez da ez* legea dela eta, ez da txikia sortu den hika-mika, eta berarekin, nabarmen agertu dira indarkerian oinarritutako estatuen joerak, feminismo antipunitibistaren mugak eta kontraesanak ikusi diren moduan. Horretan sakontzeko asmorik gabe, garrantzitsua deritzot punitibismoaren aurka agertuz teoria eta praktika garatu duten feminismoen ekarpena aintzat hartzeari. Camila Arbuete (2020), Argentinatik, feminismo antipunitiboaren iturrien inguruko gogoeta egin du: Amerikako Estatu Batuetako feminista beltzena, *pro-sexo*<sup>62</sup> mugimendua eta *kuir*<sup>63</sup> mugimendua. Hirurek komunean dutena da preseski arau-lege eta espetxeetako jazarpena bizi duten kolektiboak direla, jazarpen horretatik hurbildu direla gizatiarren multzotik kanporatu, deshumanizazio dispositiboak ezarri eta, bukaerarako, desegite edo-eta berregite ariketa egiten duen espetxe- eta tortura-sistemaren gogoeta teorikora. Euskal Herrian ere IPES - Bilboren *Kartzela Kalera* lantalde eta dinamikatik horixe hauspotzeko saiakera egin zen 2016an.

---

62 Langile sexualen mugimenduaz ari da besteak beste.

63 Heteronormatik kanpo dauden gorputz eta praktikak dituzten kideek osatutako mugimendu politikoaz ari da. Genero- eta sexu-disidentek.

Talde horren kezka eta hausnarketa honakoa zen<sup>64</sup>: Euskal Herrian espetxearekin horren harreman estua, zabala eta luzea izanik<sup>65</sup> eta herri-mugimendu indartsu eta erradikala<sup>66</sup>, harrigarria zitzaien-zitzaigun mugimendu antipunitibistarik ez egotea, eta Eusko Jaurlaritza espetxeen eskuduntza hartzeko zorian zen hartan, eztabaida hori ez egotea euskal gizartearen agendan. Urtebetez, hitzaldi, mahai-inguru, dokumental eta liburu bidez, posizio politiko jakin bat baino<sup>67</sup> gaia erdigunean jartzea bilatu zuten-genuen, tartean Angela Davis bera gonbidatuz jardueraren amaiera-ekitaldietara; azken batean, naturalizatu eta zilegiztatu den estatuko indarkeria hori ikusaraztea eta gure gizarteko arazoak konpontzeko bide berrien alde egiten hastea. Saiakera hark ez zuen jarraipen ikusgarririk izan, baina mugimendu feministak eta Ezker Abertzaleko antolakunde mistoek, eraso sexisten barne kudeaketan duten eskarmentu eta garapen teorikoek badute bide antipunitiboak jorratzeko bokazioa. Horrekin batera, Foro Sozial Iraunkorreko lantalde feministak egindako *Justizia Feminista* jardunaldi eta ponentziak<sup>68</sup> ere, justizia eraikitzeko prozesuak punitibismotik aldenduz plazaratu ditu. Beraz, bada genealogia praktiko eta teorikorik gai horretaz Euskal Herrian.

Modu batera edo bestera, feminismo beltzek itxialdi-politikak eta kartzelako egiturak pentsatu dituzte, subjektu kriminalizatuak, komunitate markatuak, eskulan esklaboa eta sasi esklaboa, eta barru eta kanpoari lotutako femeninoa eta maskulinoari buruzko iruditeria sozialak berregiteko elementu funtsezko gisa. 1985eko Konstituzioaren hamahirugarren atalean behartutako lana eta lan esklabua baztertu ziren, beti ere delitu baten zigor izatearen salbuespenaz. Hori dela eta, beltzak esklabu izatetik kriminal izatera igaro ziren, eta kriminalitate potentzial horrek kartzelara lotu zituztenez, aktibismo eta erresistentzia beltza antipunitibismora lotu zen. Pro-sexu aktibismoak zigor sozial juridiko eta sinbolikorako bitartekoez hausnartu du. Eta transfeminismoak (migrante, latino eta kuirrak), indar polizial eta parapolizialen ekintzen inguruan hausnartu du, kale, errepide eta mugen inguruko errepresioan sakonduz (2020).

---

64 Lantalde horretako kide izan nintzen.

65 Espetxe-politikoaren esperientzia zabala dugu, frankismoan espetxeko errepresioa pairatu zuten herritar ez-funtzionalen multzo zabala batuz (*vagos y maleantes* zeritzan legearen pean eta 50eko hamarkadatik aurrera prostituzio-akusaziopean, senargabeko amak, homosexualak, lesbianak, ijitoak, baliabiderik gabekoak asko ziren, eta horien amnistia aldarrikatu zuten fransismo osteko lehen urteetan), espainiar soldaduskari intsumisioa egiteagatik espetxea ezagutu zuten herritarrak gehituz eta egungo preso sozialen bizipenarekin batera, gure gizarteak dispositibo punitiboan bizipen sakona duela ondorioztatu genuen.

66 70eko hamarkadatik gaurdaino, herri-mugimendu dinamiko eta zabala du gure herriak. Elkartegintzaz baino, gizarte errotoaldatzeko bokazioa duten mugimenduez ari naiz: ekologista, gazteena, ikasleena, antimilitarista, sexu-askapenarena, langileena, hizkuntzarena eta feminista, besteak beste. Talde ugari eta tradizio handia. Horren baitan, euskal feminismoak, bere aniztasunean, ezaugarri ezkertiar eta erradikalak dituela esan dezakegu, eta espetxeetako egoerari begira egon izan den mugimendu antierrepresio indartsua: Salaketa, Amnistiaren Aldeko Mugimendua, Torturaren Aurkako Taldea, adibidez.

67 Abolizionismoa bai ala ez baino, gogoeta zabalagoa bilatzen genuen.

68 Hiru hilabetez luzatu zen mintegia osatu, eta gatazka politiko-armatua eta genero-gatazka gurutzatuz burutu zen gogoeta. 2019an Durangoko jardunaldi feministetan aurkeztu zen, eta egun esteka honetan eskuragarri dago: [www.justiziafeminista.eus](http://www.justiziafeminista.eus). Ikerketa honen zazpigarren atalean sakonago lantzen dut hori.

## 2. KAPITULUA

### Oinarri teoriko-kontzeptualak

---

Hiru korranteek agerian utzi dutena da, oro har, joera punitiboen alde egiteak edo horiek ezbaian ez jartzeak ahaztu egiten duela sistema punitiboaren zergatia eta osaketa, ez baita kasualitatea kartzela gizarteko sektore baztertuenek lekutzea, gizartetik kanporatu nahi direnek, txikitu nahi direnek, berregin nahi direnek, erabili nahi direnek. Izan ere, helburu funtzional eta instrumentalak bat egiten dute, eta gainera bitartekoak berak industria ekonomiko erraldoia suposatzen du eta etekin ekonomikoak eragiten ditu<sup>69</sup>. Beraz, *boomerang* efektuz, emakumeen\*, pobreen, ez-zurien, disidente politikoen eta lesbianen jazarpenaren<sup>70</sup> alde egiten ari gara, finean, jarrera punitiboak ditugunean.

Torturaren ekoizpen-prozesu politikoak aztertu dituen Ignacio Mendiolak —eta egun migratzaileen aurkako sistema harrapakaria aztertzen ari denak— erakutsi digu (2014) ordenamendu sozio-politiko honek bere baitan biolentzia multzo zabala daramala eta horrek sortzen dituela tortura posible egiteko baldintzak. Horrek esan nahi du, punitibotasuna eta torturaren arteko lotura behatzeko, gizarte-antolakuntza juridiko-politiko eta sinbolikoari erreparatu behar diogula, txanpon beraren bi aurpegiak baitira, horietako bat ezkutuan agertu arren.

Mendiolak torturaren ekoizpen sozio-politikoaren modernitatearen garapenean txertatuta dakusa, bi zentzutan gainera: bata torturagarritasunaren narratiben bidez; bestea, gorputz eta espazioen ehizatzea dakarren dimentsio anizkoitzeko prozesu gisa. Bat nator autorearekin, torturagarritasun-narratiben osaketa deshumanizazioan datza. Funtsean, batzuk humanotzat jo eta tratatzen dituen bitartean, besteak —atzerritar, pobre, sorgin, terrorista, esklabu— deshumanizat egiten ditu. Baina ez hori soilik, baizik eta humanotasuna eraikitzeke baldintza bihurtzen da deshumanizazioa. Beraz, mendebaldeko zibilizazioa besteen gaineratik eta aurka eraikitako humanotasuna dugu.

Beti ere Mendiolari jarraituz, gorputz batzuei bizi eragiteko eta beste batzuei hil eragiteko politika hiru dimentsioren bidez gauzatzen da, edo, hobe esanda, hiru dimentsiok osatzen dute prozesu harrapakin hori: neokoloniala, neoliberala eta sekuritarioa. Laburrera ekarrita, biolentzia sinboliko bidez deshumanizatzeko-prozesua gauzatzen da, eta horren gainean biolentzia materiala gauzatu. Beraz,

Tortura jokabide lazgarri, bereizi, unibertsalki debekatu gisa tratatu beharrean, indarkeria eta estatuko boterearen, inperialismoaren, arrazakeriaren, harremanen eta nazioarteko zuzenbidearen mosaiko luze batean ondo egokitzen dela mantentzen dut (Parry, 2010: 12).<sup>71</sup>

---

69 Amerikako Estatu Batuetako espetxearen abolizioaren aldeko mugimenduak asko landu du gaia. Estatu Espainolean ere gora egin du espetxe-industriak. Ignacio Gonzalezek (2015), Europa osoko preso kopuruak aztertuta, bereziki Estatu Espainoleko igoera ikaragarria (1987tik 2007ra, 40.195 preso gehiago daude). Hori dela eta, ikerlariok geure buruari egin beharreko galdera aldatzea proposatzen du. Delinkuentzia edo kode penalaren aldaketaren eraginez izan ote den baino, demokrazia-aroan frankismoan baino preso gehiago egotearen zergatia, mendebaldar gizarte ia guztietan gertatzearen zergatia, prozesu hori 70eko hamarkadan hasi izanaren zergatiez ikertzea proposatzen du.

70 Harrapatze, tortura- eta espetxe-dispositiboaren bidez.

71 Itzulpena neurea da.

Ondorioz, torturari erreparatu nahi badiogu, begirada gure ordenamendu politiko-juridikoan pausatu behar dugu, Pauline Guelle, zuzenbide publikoan dotore denak, bere tesian arakatu duen moduan, eta ez torturazailerik materialetan; tortura ez baita gutxi batzuen gehiegikeria hori, ezta salbuespeneko eskubideen etete bat, ezta borrokatzea lortu ez den iraganeko herentzia bat.

Ikuspegi feminista antipunitibistak modu oparoan landu du eremu hori, erantzukizun sozio-politiko kolektiboak indibidualizatzeko joera, alegia; eta zehazki positibismoarekin lotu dute. Yesuronen (2021) arabera, ikuspegi punitibista paradigma positibistaren osagarri eta menpekoa da<sup>72</sup>. Bertan, naturalizatutako eta esentzializatutako identitate kriminalak eraikitzen dira, subjektu horien kriminalizazio eta psikopatologizazioen bidez. Epistemologia positibistak, ezagutza objektua ezagutza subjektuaren gainetik dagoela dioten moduan eta funtsean ikerlariaren lana munduan dauden egia oso eta finkoak bilatzea eta aurkitzea dela defendatzen duen moduan, paradigma punitibista ekintza gauzatzen duen subjektuaren identitatean oinarritutako delituizaera baten existentziaren ideiatik abiatzen da, eta, ondorioz, indarra delituaren egilearengan eta delituaren nortasunaren azterketan jartzen dute. Hala ere, kritika feministak erakutsi du botereak eremu indibidualaz baino harago eragiten duela, zigorraren kultura gorputz eta identitate zaurgarri eta historikoki jazarriengan erortzen baita. Beraz, generoaren teknologian funtsezko papera betetzen duen mundu eta harremanen ikuskera da zigorraren kulturarena edo punitibismoarena (Lauretis, 1987; Butler, 1999). Azken finean, zigorra generoa eraikitzeke bide pribilegiatua da<sup>73</sup> (Perez, 2021).

Biolentzia, modu batera zein bestera, egilearen egoeraren ondorioz dakusa ikuspegi punitibista-positibistak; eta «biktima – biktimario» binomioa indartzen du. Ileana Baduinen ustez (2018, 2020), emakumezkoak\* biktimaren eremuan giltzapetzen ditu, biktima ona ala txarra zer den moralki ebaluatuz, eremu juridiko-punitiboan. Horregatik, Arbuetek (2020) feminismo ez punitibo baten bidean ondoko hauek aintzat hartzea proposatu du: (1) sexu-generikoki ere egonkorak diren «biktima – biktimario» kategorien deseraikuntza soziala; (2) biolentzia eta justizia espresiboaren arteko lotura desagitea; (3) estatuen segurtasun- eta zigor-sistemen erro sexuatuak, nazionalizatuak eta arrazializatuak aitortzea, (4) defentsa, elkar zaintza eta elkartasun modu berriak erditzea, poliziari deitu gabe; (5) kriminologia feminista kritikoa subjektua emakumeetatik harantzago mugitzea; (6) eskubideak figura penal gisa lantzearekiko errefusa; (7) berme konstituzionalak estatuak antolakundearen gainean egiten duen tutela bilakatzeko arriskuari adi egotea; (8) erreparaziorako estrategia eta printzipioak zigorraren logikatik kanpo berraztertzea; (9) moralizatzailea eta normatibizatzailea ez den justizia erotikoa lantzea.

---

72 Paul Beatriz Preciadok (2019), eredu positibista tradizionala aipatzen du, VII. mendetik medikuntzan eta mendebaldeko zuzenbidean jardun duen epistemologia arrazista, kolonial eta heterokapitalista baten paradigma zientifiko-kultural gisa.

73 Zigorra bitarteko pribilegiatuetako bat da generoak normalkuntzaren eta desbideratzeak zuzentzearen bidez ekoizteko. Dela «emakume gezurtia» bezalako estereotipoetan oinarritutako legeria penal patriarkalaren bidez, dela gizarte-mugimenduek erreproduzitzen dituzten biktima on edo txarraren karakterizazioen bidez, edo ezarritako kanonetatik ateratzeko adorerik gabe subjektuak diziplinatu nahi dituzten mikroerasoen multzo baten bidez. Halaber, diziplinatzeke eta baztertzeko mekanismo horiek bermatzea dakar. (Pérez, 2021: 276)

## 2. KAPITULUA

### Oinarri teoriko-kontzeptualak

---

Horietariko asko, arestian aipatutako Foro Sozialeko justizia feministaren ponentziak jasotzen ditu; besteak beste, egungo justizia-sistemaren erro arrazista, klasista eta generikoa azpimarratzea; begirada bitarra gainditzea baita «biktima – biktimario» kategoria aurkarien logikatik irtetzeko; justizia askotariko aktore eta bideak behar dituen prozesu kolektibo gisa ulertzea; mina jaso duen subjektua jartzea erdigunean baina ez horregatik mendekuari leku egitea; estatuen tutelekiko erne egotea, erreparaziorako bide berriak aztertzea; alteritate berriak eta deshumanizazio-prozesua jasango duen subjektu berririk ez sortzea (munstrorik ez sortzea); botere-harremanei eta testuinguruari erreparatzea (ekitatea konpromisoaren gainetik).

Laburrera ekarrita, eta Foucoulti jarraituz (1992), biolentzia politikaren oinarrietan dago, biolentziak erditu du politika, eta bere bidez hedatzen da. Zentzu horretan, gudan agertutako indarren desoreka mantentzeko eta zigortzeko ariketa dugu politika. Estatu baten politika eta zigor-sistema aztertzeko garaian —edo iraultzeko ariketan—, begi-bistatik galdu ezinezko abiapuntua da.



## 3. KAPITULUA

### Testuinguru historiko eta etnografikoa

Euskal Gatazkaren ikerketa-eremuan, 90eko hamarkadak ez du arreta akademiko handiena bereganatu. Nolanahi ere, gatazka politiko armatuaren eta Euskal Herriko feminismoaren bilakaeran, urte kualitatiboki esanguratsuak izan zirela deritzot, kasu batzuetan baita trantsiziozkoak ere. Izan ere, 2000ko hamarkada ezaugarritu duten fenomenoek aro honetan dituzte erroak; esate baterako: biolentzia matxistaren aurkako politika instituzionalak eta gizon eta emakumeen arteko berdintasun-politikak zein garapen instituzionala; «Dena da ETA» estatu-estrategia, ia gaurdainoko ondorioak ekarri dituena; Ezker Abertzaleak barne-mailan abiatutako prozesu feministaren abiapuntua; Espetxeko dispersio-politikaren urterik latzenetakoak.

Jarraian, hurrengo atalak ulergarriak suertatzeko beharrezkoak deritzodan azalpenak aurkituko ditu irakurleak. Ikerketako emakumeen\* esanak eta bizipenak ulertzeko gutxieneko mapa egitea izan dut xede, ez horrenbeste aro historiko hura ezaugarritu zuten gertakari eta prozesuen azterketa osatua egitea.

#### 3.1. 90eko hamarkada: Ezker Abertzalea edo Euskal Nazio Askapen Mugimendua

Gaur egun ezagutzen dugun Ezker Abertzalea eta 90ekoa ez da berdina. Hasteko, orduko hura osatzen zuten antolakunde batzuk desagertu egin direlako: ETA, KAS, Ekin, Egizan, Jarrai-Haika eta Herri Batasuna, hain zuzen. Gaur egun, badaude orduko horiekin lotura estuak dituztenak edo sektore eta ideologia bera defendatzen dutenak, eta bada orduan eta gaur egun dirauen antolakunde bat ere (LAB, hain zuzen ere ilegalizatua izan ez zen bakararra). Jarraian, 90eko antolakunde horiek apur bat hobeto ezagutuko ditugu.

ETA, Euskaldi eta Askatasuna, independentzia eta sozialismoaren proiektu politikoa zuen erakunde armatua zen (1959-2018). Euskal Herriak bere etorkizuna erabakitzeke eskubidea zuela aldarrikatzen zuen, eta bere jardun armatua eskubide horren errespetuaren menpe zegoela zioen. Alegia, independentzia eta sozialismoa lortu arteko borroka armatua egitea defendatu beharrean, oinarrizko eskubide kolektiboen lorpenari lotzen zion bere jardura. Hasieran, 70eko hamarkadan, gutxieneko horiek KAS alternatibari kokatu zituen, eta, ondoren, 90eko hamarkadan, *Alternatiba Demokratikoan*.

Ia 60 urte zituela desegin zen, 2018an. Urte horietan, 800 pertsona baino gehiagori kendu zien bizitza, ia erdiak 1980ko hamarkadan zenbakietan (ez dago adostasunik, adibidez, Espainiako Barne Ministerioaren, Terrorismoaren Biktimentzako Fundazioaren eta Terrorismoaren Biktimen Kolektiboaren artean). Zifretatik haratago joateko, baina eremu kuantitatibotik urrundu gabe, 2004an Luis De la Calle eta Ignacio Sánchez-Cuencak ETako hildakoei buruzko datu-basea sortu zuten. Bertan, hildako biktima bakoitza aldagai batzuen adierazleek definitzen dute (data, biktimaren estatusa, atentatu mota, asmoa, eta abar), eta horrek datuen tratamendu kuantitatiboa ahalbidetzen du. Francisco Llerak eta Rafael Leonisiok, 2015ean, 86 bahiketei (eta 85 pertsona bahituei) buruzko datu-basea egin zuten. Zehaztu beharra dago bi datu-baseen zifrak egon diren ETA guztietakoak<sup>74</sup> direla, eta, kasu batzuetan, baita 90eko hamarkadara arte aktibo egon ziren beste talde armatu batzuetakoak ere, hala nola Komando Autonomoetakoak. Amaitzeko, aipatu behar da datu-base horiek ere ez daudela kritikarik salbuetsita. Hain zuzen ere, Guibetek ETaren ekintzen azterketa kualitatiboa egin du, giza biktimek eragindakoetara mugatu gabe. Desagertutako ETak, 2018an onartu zuenez, bere historian 2.606 ekintza egin zituela (Mediabask, 2018/11/6). Erakunde horren sorrera- eta amaiera-prozesuak, bilakaera, eztabaidak, kritikak eta autokritikak ezagutu nahi izanez gero, bibliografia zabala da<sup>75</sup>.

KAS koordinadora 1975ean sortu zen, hamarkada horretan zeuden talde ezberdinen koordinazio gune gisa, eta Txiki (Jon Paredes Manotas) eta Otaegiren (Angel Otaegi Etxeberria) fusilamenduen harira, 1976an *KAS alternatiba* osatu zuen eta 1978an eguneratu. KAS alternatibak borroka armatua uzteko gutxieneko oinarri demokratikoak jasotzeko xedea zuen. 90eko hamarkadara iristerako, ordura arte KASen egondako talde asko deseginda edo joanak ziren. Esanguratsu batzuk aipatzearen: HASI alderdia bertatik kanporatua zegoen, ETA-pm (ETA politiko-militarra) deseginda, eta ASK (Abertzale Sozialista Komiteak) taldea ere deseginda. Beraz, ETA, Jarrai, Egizan eta LAB ziren aktibo mantentzen zirenak. Koordinadora 1998an desegin egin zen, errepresiora, ilegalizazio-prozesuen hastapenera eta oso aldatuta zegoen testuinguru politikora egokitzeko asmoz. ETak, Egizanek, Jarraik eta LABek haien ibilbidearekin jarraitu zuten, baina jada osotasun bat eratu gabe. 1999an, etorkizunean Euskal Herriko oinarriko zutabeetan herrigintzan ari ziren indarrak nazio-erakuntzaren mesedetan ipintzeko, Ekin sortu zen; zehazki, prentsaurreko baten eta Iruñeako Anaitasunan egindako ekitaldi jendetsuaren bidez eman zen ezagutzera. 1995-1997an garatu zen, Ezker Abertzalearen gogoetaren emaitza izan zen estrategia berrituak, nazio-erakuntzaren estrategiak alegia, zeuzkan behar berriak betetzeko helburuaz, funtsean. Oso bizitza laburra izan zuen, 2000ko irailean poliziak bertako hainbat kide atxilotu eta gutxira, ilegalizazioen aroan deseginda geratu baitzen. 2011ko udazkenean bere

---

74 ETA bat baino gehiago egon dira. Gehiago jakiteko: Bruni, Luigi. (1987). *ETA. Historia política de una lucha armada*. Bilbo, Txalaparta.

75 Ikus: Casanova, Iker, (2008). *ETA 1958-2008. Medio siglo de historia*. Bilbo, Txalaparta. Soto, Iñaki (2018). *ETaren zuzendaritzarekin azken elkarrizketa. Gernikatik Arnagara*. Bibo, Txalaparta.



### 3. KAPITULUA

#### Testuinguru historiko eta etnografikoa

---

desegitearen berri eman zuen.<sup>76</sup>

1978-1979 inguruan, Jarrai gazte-erakundea sortu zen. Independentzia eta sozialismoa helburu zuten gazteak biltzen ziren bertan, eta V. Biltzarretik landa gazte-problematikari eta antolakundearen autonomiari leku handiagoa egin zioten. Nazio-eraikuntzarako estrategiaren baitan, Ezker Abertzaleak nazio-mailan egituratzeko jauzia eman zuen 2000. urtetik aurrera. Ondorioz, Jarrai eta Gazteriak-en<sup>77</sup> artean egindako prozesutik, Haika gazte-antolakunde nazionala sortu zuten Kanbon (Lapurdi). Urtebetean, Haikako zuzendaritza atxilotu eta espetxeratu zuten, eta 10 urteko ilegalizazio-aroan murgildu zen ezker independentistaren gazte-mugimendua. Atzetik, laupabost polizia-operazioen bidez jazarria izan zen. 2018an, *40 urte eta segi aurrera* lanak argia ikusi zuen. Bertan, artxibo-lanak eta, Jarrain, Haikan, Segin eta Ernain parte hartu zuten gazteen ahozko lekukotzak oinarrizko elementutzat hartuz, euskal gazteria antolatuaren sektore horren historia osotu zuten, xehetasun handiz, elementu objektiboei eta subjektiboei leku eginez. Gazte-mailan arrakasta eta entzute zabalena bi urtetik behin antolatzen zituen Gazte Topaguneak ziren. Zuzeneko musika, antzerkiak, hitzaldiak eta tailerren altzora, 30.000 gazte elkartzen baitzituen, izugarritzko antolakuntza-gaitasuna erakutsiz eta garaiko gazte-festibal entzutetsuena<sup>78</sup> osatuz.

1987an Egizan sortu zen, independentzia eta sozialismoko proiektu politikoa partekatzen zuten feministen ekintzarako antolakundea (KAS emakumeak lehenengo eta Aizan gero, patriarkatuaren aurka borrokatzen ziren eta Ezker Abertzaleko sentitzen ziren emakume\*-multzoa trinkotzeko baliagarriak izan baitziren). Nazioa, klasea eta generoaren zapalkuntzaren aurka borrokatzen ziren emakumeak\* biltzen zituen, finean. Bi dimentsiotan lan egiten zuten: Ezker Abertzaleari begira, eta mugimendu feministari begira. Ezker Abertzaleko emakume\* feministek 90eko hamarkada amaieran egin zuten prozesu feministaren ondorioz, Egizan, zituen helburuak betetzeko eraginkorregia ez zelakoan eta aro berria ireki behar zelakoan, 2000an desegin egin zen. Ordutik aurrera, Ezker Abertzaleko antolakundeak beraiek izan beharko ziren eragile feminista. Eta mugimendu feminista autonomoari begira, 2002tik aurrera, Euskal Herriko Bilgune Feminista bihurtuko zen zapalkuntza hirukoitza borrokatzen zuten feministen topaleku.

LAB sindikatua 1974an sortu zen, eta gaur egun ere aktibo dago. 90eko hamarkadan hazkunde handia bizi izan zuen<sup>79</sup>. Horrekin batera, *LAB gazteak*, *LAB emakumeak*, *LAB langabetuak* bezalako azpi-batzorde edo idazkaritzak sortzen joan zen. Sindikatu hori, ELAekin batera egindako aliantzan, esanguratsua izan zen Euskal Herriko politikagintzan eta gatazka armatuaren

---

76 [https://www.berria.eus/eu/euskal-herria/ekinek-desegitea-erabaki-du-eta-euren-onena-ezker-abertzalearen-ildoaren-mesedetan-jarriko-dutela-iragarri-dute\\_55508\\_102.html](https://www.berria.eus/eu/euskal-herria/ekinek-desegitea-erabaki-du-eta-euren-onena-ezker-abertzalearen-ildoaren-mesedetan-jarriko-dutela-iragarri-dute_55508_102.html)

77 Ipar Euskal Herriko gazte-taldea zen. *Gazteriak Euskal Herrian bizi eta lan* kanpainatik landa eta emaitza gisa sortutakoa.

78 Fermin Muguruza musikariak, Jarrai eta Haikaren aurkako 2005ko auzian egindako adierazpenak: <https://www.libertaddigital.com/nacional/fermin-muguruza-dice-que-vincular-eta-y-jarrai-es-un-estereotipo-similar-al-de-espanol-y-torero-1276246617/>

79 *LAB sindikatuaren historia* liburuaren arabera, 1990ean 17.000 afiliatu zituen, eta 2000n ia 27.000.

bilakaeran, bereziki 1995tik aurrera. Azpimarragarria da LAB izan dela Estatu Espainolaren ilegalizazio-estrategiak irentsi ez zuen antolakunde bakarra eta 2008an idazkari nagusi gisa emakume bat hautatu zuena (sindikalgintzan eta Ezker Abertzalean urrats garrantzitsua izan zena).

Herri Batasuna Altsasuko Mahaia delakotik sortu zen; alkate ezberdinek egindako bilkura batetik, alegia. Herri Batasuna koalizio gisa jaio eta garatu zen, hauteskondeetara begirako aukera gisa eta Erakundeetan parte hartzeko asmoz. Urteak aurrera joan ahala, barneko taldeak desegiten joan ziren, eta herritarren batasunaren kontzeptualizazioan sakontzen joan ziren. 90eko hamarkadan, ANV (Accion Nacionalista Vasca) talde historikoa zen koalizio hartatik geratzen zen bakarra. Zuzendaritza *Mahai Nazionala* deitzen zen. Bertako kideak barne-proposamen eta bozketa bidez hautatzen ziren, egituran oinarrizko gune ziren *Herri Batzarren* bidez. 1995an, ETAk *Alternatiba Demokratikoa* plazaratu ostean Herri Batasunak zabalpena bere gain hartu nahi zuela-eta, bere zuzendaritzen aurka abiatutako prozesu judizial eta polizialen hastapena izan zen. Herri Batasuna eta 2001an sortutako Batasuna taldeak ilegalizazioen dinamikan murgilarazi zituzten. Atxiloketak, neurri bereziak, kanpaina egiteko debekuak, hauteskondeetara aurkezteko oztopoak eta abar.

### 3.2. 90eko hamarkada: gatazka politiko armatuaren bilakaera

Gatazka politiko armatuari dagokionez, modu arrakastatsuan amaitu ez ziren Aljeria (1989) eta Lizarra-Garaziko (1998) negoziazio-prozesuen arteko hamarkada izan zen, ETaren jardun armatuak arduradun eta ordezkari politikoak helburu hartu zituenekoa<sup>80</sup>, erakunde horren historiako bahiketa luzeenak gertatu zirenekoa, baita ETaren aurkako herri-mobilizazioak areagotu eta indartu zirenekoa ere. Halaber, lehenago esan bezala, urte horietan *kale-borroka* izendatutako moldearen gorakada eta fenomenoaren eraikuntza judiziala<sup>81</sup> antolatu zen, baita Ezker Abertzalearen eta euskal preso politikoaren aurkako jardunean jauzi esanguratsuak eman ere —Ajuria Eneako Ituna (1988) gauzatzearekin batera—: sakabanaketa-politikaren hasiera (1987-89), «Dena da ETA» ildoaren hasiera (1998), eta alderdi, antolakunde eta herri-komunikabideen ilegalizazio-prozesuen hastapena, besteak beste. Laburrera ekarrita, aro hartan eraiki zen *demokratak vs biolentoak* dikotomia, «biolentoak» isolatzeari ekin zitzaioneko, baina, halaber, biolentoen eremua zabalduz joan zenekoa ere —disidentzia politiko oro kriminalizatzen, euskal komunitate etnikoa kriminalizatzeraino—.

Jarraian, bereziki esanguratsuak izan ziren zenbait gertakari deskribatuko ditut (ikus, lagungarri gisa, 5. irudia):


---

80 Jauzi horren mugarrizat jo ohi da 1995. urtea, Donostiako udaletxeko zinegotzi Gregorio Ordoñezen aurkako heriotza-ekintza urte horretan izan baitzen.

81 Aurrerago sakonduko dut horretan. Oraingo esan, lekuan lekuko epaitegien eskumen izatetik, Auzitegi Nazionalekoa izatera igaro zela. Prentsan ere leku handiagoa ematen hasi zitzaion, eta aldiro txikitutako baliabideen balioa dirutan emateko joera nagusitu zen.

5. irudia

Gatazka armatuaren bilakaerako mugarrak



Iturria: norberak egina.

- **Ajuria Eneako Ituna:** 1988an HBk izan ezik EAEko gainontzeko alderdi politikoez sinatu zuten akordioa da. Bertan, gauza ezberdinak aipatzen ziren; tartean, ETAREN jarduera gaitzesteaz gain, Gernikako Estatutuaren marko politikoa jotzen zen gatazka bideratzeko marko gisa. Modu batera edo bestera, hitzarmen hark Ezker Abertzalearen isolamendua ekarri zuen pixkanaka. 2016an, Txema Ramirez de la Piscina-ren gidaritzapean EHUko ikerlari talde batek 1975-2015 bitarteko prentsaren azterketa egin ostean, bat dator lehenagoko ikerketek baieztatutakoarekin, itun hark prentsan «gatazkaren isla ezezik, xaxatzaile zuzenak ere gertatu» (Armentia et al., 1997) zirela ondorioztatu zuten.
- **Aljeriako elkarrizketa-prozesua:** 1989an, ETA eta PSOE buru zuen Espainiako gobernuaren artean elkarrizketak izan zituzten, printzipioz ondoren negoziazio prozesu bat abiatzeko. Elkarrizketa horiek ez zuten behar besteko fruiturik eman, Iñaki Egañaren *Nuevo diccionario político de Euskal Herria* (2015) liburuaren arabera, ETAk Espainiako gobernu atzera bota zela salatu eta su-etena hautsi baitzuen.
- **Lazo urdina eta Euskal Herria Askatu aurrez aurre:** 1993ko urtarrilean, ETAk Julio Iglesias Zamora enpresaria bahitu zuen, eta, haren askatzea aldarrikatzeko, lazo urdina ikur gisa hautatu zuten elkarte bakezale ezberdinek. Ondoren, Jose Maria Aldaya enpresaria (1995ean)-, Colme Delclaux abokatua (1996an) eta Jose Antonio Ortega Lara espetxe-funtzionarioarenak (1996an) etorri ziren, eta orratz batekin paparrean edo pankarta batean marrazten zen lazo urdinak ikur izaten jarraitu zuen. Gainera, astelehenero, hainbat herri eta hiritan elkarretaratzea egiten hasi ziren. Hortik gutxira, Ezker Abertzaleak ere elkarretaratzeak deitu zituen, egun eta ordu berberean, eta gainera leku beretan. Hori dela eta, astero, aurrez aurre topo egiten zuten bi aldarrikapenek eta horietako bakoitza defendatzen zuten herritar multzoek. Tentsio handiko uneak izaten ziren. Lazo urdindunek deialdi isila egin ohi zuten, eta Ezker Abertzalekoek ez; hala ere, behin baino gehiagotan bi norabideetan iseka eta mehatxuak jazozen ziren. Tentsio handiena poliziarekin izaten zen, Ezker Abertzaleko deialdiak zelatatzen baitzituen eta sarritan haien aurka oldartzen ere. Hori dela eta, istiluak luze jotzen zuten batzuetan, zaurituak pilatuz astero-astero. Horrela, Ertzaintzaren pilotakada baten ondorioz bizitza galdu zuen Donostian, 1995ean, Rosa Zarrak.
- **Lasa eta Zabala-ren hezurren aurkikuntza, eta kanposantuko zein aireportuko poliziaren jazarpena:** 1983an Josean Lasa eta Jose Inazio Zabala euskal errefuxiatuak, gerora jakin den moduan, Baionan bahituak, eta Enrique Rodríguez Galindo Intxaurrendoko Guardia Zibilaren kuarteleko komandantearen aginduz, Donostiako La Cumbre jauregian torturatuak izan ziren, Julen Elgorriaga garaiko gobernadore zibilaren egoitzan, alegia. 2000n Auzitegi Nazionalean Elgorriaga, Galindo eta beste guardia zibilaren aurkako epaiketa egin zen, eta frogatutzat jo ziren gertakariok. 1995ean haien gorpuzkiak agertu ziren

Alacanten. Antza denez, Guardia Zibilak Lasa eta Zabala haien hilotza egitera behartu zituzten, ondoren tiroa jo eta kare bizitan lurperatu zituzten. Gertakariak jakin zirenean, indarra hartu zuten Estatu Espainolak Ezker Abertzalearen aurka erabilitako gerra zikinaren oihartzunek. Lasa eta Zabalaren gorpuzkiak Hondarribiko aireportura iristean, jendetza bildu zen harrera egiteko eta salatzeko. Espainiako Polizia Nazionalak jendearen aurka jo zuen, baita Ertzaintzak hilerrian ere<sup>82</sup>.

- **Kale-borroka terrorismo gisa eraiki zenekoa:** Julen Arsuagak (2010) argudiatzen du *Y talde* gisa ulertutako kale-borrokaren fenomeno, Euskal Herrian zein nazioartean, lehen eta egun gertatzen diren protesta-moduetatik ezberdindu eta ezker independentismoko gazteria kriminalizatu eta jazartzeko helburu politikoz eraikitako fenomeno mediatiko, judizial eta poliziala izan zela. Juan Maria Atutxa EAeko barne sailburuordeak 1997ko maiatzaren 25ean *El Mundo* egunkarian Melchor Mirallosek egindako elkarrizketan esandakoa Arsuagaren tesiaren norabidean doa: «Para satisfacer la apetencia de la prensa, decidimos llamar *grupos Y* a lo que antes no llamábamos *grupos Y*». Modu batera edo bestera, 90eko hamarkadaren erdialdera, kale-istiluengatik atxilotutako gazteak Madrilgo auzitegi nazionalera bideratzen hasi ziren terrorismotzat jotzen ari zirelako. Horrek ekarri zuen, askotan salatu izan den moduan, kontenedore bat Madrilen erretzeak eta Euskal Herrian erretzeak zeukan tratamendu polizial eta judizial ezberdindua. Ehunka gazte izan ziren akusazio horren pean atxilotutakoak.
- **Mahai Nazionalaren espetxeratzea *Alternatiba Demokratikoa* zabaltzeagatik:** 1995ean ETA erakundeak *Alternatiba Demokratikoa* plazaratu zuen, bere negoziazio eta bakegintzarako proposamena. Ezker Abertzalea horren hedapen-lana egiten jarri zen, interlokuzio masiboen bidez. Horren barruan, 1996an, HBk hauteskundeetako *spot* unea eskaini nahi izan zion. Horrek bere bozeramaile Jon Idigorasen aurkako prozedura irekitzea ekarri zuen, eta, ostean, zuzendaritza osoaren atxiloketa eta espetxeratzea. Horren aurrean, mobilizazio asko egon ziren; horien artean, 1997an Bilbon antolatutako nazio-mobilizazioan, Ertzaintzak bi pertsona tiroz zauritu zituen, eta martxoan greba-deialdia egin zuen Ezker Abertzaleak.
- **Miguel Angel Blancoren heriotza eta osteko gertakariak:** 1997ko uztailean, ETAk Ermuko PP alderdiko zinegotzia bahitu zuen. 48 orduren buruan presoak Euskal Herriratuz gero aske utziko zuela agindu zuen, ostantzean hil egingo zuela. Bi egun horietan mobilizazio ugari egin ziren haren askatasuna aldarrikatuz. Hala ere, gobernuak ez zuen inolako urratsik eman, eta ETAk hil egin zuen. Horren ondorioz, bakezaleen elkarretaratzeak biolentziaz bete ziren leku askotan: makila eta guzti, Ezker Abertzaleko jendea jipoituz eta erreferentzia-lekuak —Herriko Tabernak adibidez— txikitzeari ekinez. Gerora, Ezker

---

82 <https://www.youtube.com/watch?v=Vc3845c0GNw>

Abertzaleak honako hauek salatu zituen: a) Oldarraldiak ez zirela bat-batekoak izan, kalez jantzitako poliziak identifikatu zituztelako den-dena zuzentzen; b) Poliziaren konnibentzia; c) Kanpaina mediatiko bortitza eta «a por ellos» deialdi faxista.

Jule Goikoetxearen<sup>83</sup> arabera, orduan hasi zen Jose Maria Aznar, Espainiako presidentea zena, munduko estatari eta ideologo ezberdinekin gerora ilegalizazio-estrategia gisa ezagutu zena diseinatzen.

- **Lizarra-Garaziko akordioa:** 1998an, gehiengo politiko abertzaleak (EAJ, HB, EA, AB, Zutik eta Batzarre) eta gehiengo sindikalak (ELA, LAB, ESK, EHNE, STEE-EILAS, CNT) eta herri-mugimenduetako elkarte esanguratsuetako batzuek (Amnistiaren Aldeko Mugimendua, Elkarri, Gernika Batzordea, Herria 2000 Eliza, Senideak) akordio bat sinatu zuten Euskal Herria subjektu politiko gisa aitortuz, bere subiranismoa eta erabakitze eskubidea aldarrikatuz, gatazkaren izaera eta konponbide politikoa iradokiz. Horren ondotik, ETAREN su-etena etorri zen, eta 1999ko azarora arte luzatu zen. Hilabete luzez indar abertzaleak elkarlanean aritu ziren, mobilizazio bateratuak deituz zein nazioa egituratze-lanetan arituz. Esate baterako, garai horretan sortu zen Udalbiltza, Euskal Herri osoko udalak biltzen dituen erakundea. Horrekin batera, Aznar buru zuen Espainiako gobernuak eta ETAK Suitzan elkarrizketak izan zituzten. ETAK, su etena haustean publiko egin zuenean, alderdi abertzaleekin akordio bat zuela jakinarazi zuen.
- **«Dena da ETA» ildo, ilegalizazioak eta udal-bazterketa:** 1990eko hamarkadaren amaieran, Espainiako botere judizialak honako doktrina ezarri zuen: ETA borroka armatua egiten duen erakunde bat baino gehiago da; euskal gizartean jarduten duten hainbat erakunde dira, erakunde armatuaren irizpenei jarraitzen dietenak, eta Espainiako ordena konstituzionala iraultzea dute helburu. Espainiako hainbat komunikabidetan «dena da ETA» kontzeptua deitu izan dena litzateke. 18/98 makro-sumarioan azaltzen da, lehen aldiz, doktrina horren oinarria. Doktrina horrek hainbat erakunde eta komunikabide desegin eta legez kanpo uzteko erabili diren prozesu judizial guztiak irekitzeko oinarriak ezartzen ditu. Arkaitz Letamendiak 18/98 sumario barruko lau antolakunderi dagokien ekimen judiziala aztertu du, eta, bere ustez, doktrina hori *sostengaezina* da; zehazki dio «beste edozein kontsiderazioren gainetik argudio judizialak estatu-arrazoiari lotutako irizpideei dagozkiela» (2011:150). Prozesu horren ondorioz, legez kanpo geratu ziren Amnistiaren Aldeko Mugimendua, Askatasuna, Jarrai, Haika, Segi eta Batasuna (lehenago Herri Batasuna edo Euskal Herritarrok izandakoa) antolakundeak. Eta *Egin* eta *Egunkaria* komunikabideak itxiarazi zituzten. Ordutik aurrera, Ezker Abertzaleak zailtasun handiak izan zituen hauteskundeetara aurkezteko, eta EHAK, ANV, AuB edo Herri Plataformak

---

83 <https://www.publico.es/politica/asesinato-conmovio-sociedad-abrio-camino-ilegalizaciones-politicas-25-anos-miguel-angel-blanco.html>

### 3. KAPITULUA

#### Testuinguru historiko eta etnografikoa

---

moduko formulak erabili izan ziren. Modu batera zein bestera, 2012an Euskal Herria Bildu koalizioa legeztatu arte, hamarkada bat egin zuen erakundeetatik kanpo edo baztertuta. Horren ondorioz, Ezker Abertzaleak apartheid bezala izendatu zuen egoera hori, eta mugimendu politiko horri zegozkion eserlekuak hartzen zituzten alderdiak lapurtzat jo zituen. Kanpaina horren barruan zilegizat jotzen ez zituzten zinegotzien aurkako *eskracheak* jazo ziren herririk herri, tentsio handiko egoerak biziz.

- **2000ko itun antiterrorista, PP eta PSOE alderdiek sinatua:** Itun horretan du jatorria 2002ko ekainean Espainiako Kongresuak onartutako Alderdi Politikoen Legeak. Eusko Jaurlaritzak helegitea jarri zuen, funtsean, argudiatuta ezker abertzalea *ad hoc* legez kanporatzeko arau bat zela. Baina testuak aurrera egin zuen.
- **11M:** 2004ko martxoaren 11n, islamistek Madrileko lau trenbidetan 10 lehegailu eztandarazi, eta 193 pertsona hil ziren. Ekintza hori ETari leporatu zioten Espainiako eta EAeko gobernuek<sup>84</sup>, nahiz eta zeuden zantzuek ez zuten ETarekin zerikusirik eta Ezker Abertzaleak berak ETaren egiletza ezinezkoa zela adierazi. Ez zen ETaren *modus operandia* eta, gainera, Espainiako gobernuak, bere armada Irakeko gudara bidali zuela eta islamisten mehatxupearan zegoen 2003az geroztik. Gerora agerian geratu zenez eta Espainiako PSOE alderdiak berak ere horrela defendatu zuenez<sup>85</sup>, martxoaren 11tik 14ra arteko egunetan zehar, polizia-ikerketatik zetozen datuak ezkutatu eta manipulatu zituen PPko gobernuak. Martxoaren 14an Espainiako gobernurako hauteskunde-eguna zen, eta Madrileko PPren egoitza aurrean jendetza elkarretaratu zen iruzurra salatuz. Horren ondorioz, Aznarren alderdiak hauteskundeak galdu zituen martxoaren 14an. Gertakari horren harira, ETA izan zenaren tesia baliatuz, Espainiako espetxeetan preso politikoen aurkako jipoi masiboak antolatu ziren, kartzeleroen interbentzioz batzuetan, eta oniritziz besteetan. Emakumeen kasuan, Avila, Alcala eta Villenan gertatu ziren, baina tentsio-une handiak egon ziren espetxe guztietan.
- **Loiolako prozesua:** 2005ean, EAJ, PSE eta Batasunaren arteko hiruko elkarrizketak garatu ziren Loiolan, gatazkaren oinarri politikoen inguruan aritzeko. Halaber, ETA José Luis Rodríguez Zapatero Espainiako presidentearekin aritu zen gatazka politiko armatuaren ondorioez. Prozesu biek ez zuten aurrera egin, eta, 2006ko abenduan, Madrilgo aireportuan ETak ezarritako lehegailuak garai horren amaiera ezarri zuen, nahiz eta, 2007an zehar, zartatua zena birbideratzen saiatu.

---

84 <https://www.lavanguardia.com/politica/20190310/46943184128/aniversario-11m-atentados-atocha-madrid.html>

85 [https://cadenaser.com/ser/2005/06/08/espana/1118188216\\_850215.html#:~:text=As%C3%AD%20lo%20explic%C3%B3%20en%20rueda%20de%20prensa%20en,recibiendo%20de%20la%20Polic%C3%ADa%20y%20de%20las%20investigaciones%22](https://cadenaser.com/ser/2005/06/08/espana/1118188216_850215.html#:~:text=As%C3%AD%20lo%20explic%C3%B3%20en%20rueda%20de%20prensa%20en,recibiendo%20de%20la%20Polic%C3%ADa%20y%20de%20las%20investigaciones%22)

- **Loiola eta Aiete arteko krisia:** *Berria* egunkariak Aieteko hamargarren urteurrenean egindako erreportajea, 10 urratsetan laburbildu zituen urte horiek (ikus 8. taula).

### 8. taula

#### *Berria* egunkariako kronologia

«Estrategia politiko-militarrarekiko kezka, hura albo batera uzteko gogoetak eta negoziatorako formula berriak lehenagotik zetozen Ezker Abertzalean. 2007ko maiatzean Genevako mahaia hautsi zen. Batasunak eta ETak ez zuten ikuspegi bera *Genevakoaren* ostean. Ezker abertzaleak agortutzat jo zuen estrategia eta negoziazio eredia.

- ETak 2007-2008 batzarraren ostean borroka armatua segitzea erabaki zuen.
- Azkeneko elkarrizketa prozesua 2007an apurtu ondoren, Batasunak eta nazioarteko komunitateko kideek ez zuten haria eten; eutsi egin zioten eta horrek gerora fruituak eman zituen.
- 2009an *Bateragune auziko* polizia-operazioa egin zuen Estatu Espainolak.
- Altsasuko Adierazpenean ezker abertzalea politikoak lehen aldiz jaso zuen indarkeriari uko egitea. *Zutik Euskal Herria* ebazpena plazaratu zuen jarraiki. Estrategia politiko-militarretik politikora pasatzeko, mugarria.
- ETak 2010eko irailaren 5ean, agiri baten bidez jakinarazi zuen eraso ekintza armaturik ez egiteko erabakia hartu zuela. Urte bereko otsailean hartu zuen erabakia, *Zutik Euskal Herria*-ren ondoren, baina isilpean gorde zuen; nazioarteko eragileen esan zien, baina.
- Nazioarteko hainbat eragile ezagunek Bruselako Adierazpena plazaratu zuten urte berean, 2010ean. Su-eten iraunkor eta benetan egiaztatzeko moduko bat eskatu zioten ETari. Eskatutakoa beteko balitz, Espainiako Gobernuari behar bezala erantzuteko eskatzen zitzaion.
- 2011n ETak nazioarteko komunitateak egiaztatu ahalko zuen su-eten iraunkor eta orokorra eman zuen eta Ezker Abertzalearen apustua berretsi zuen. Gatazkaren ondorioez aritzeko zeharkako elkarrizketa prozesu bati ekiteko baietza eman zuen ETak eta Espainiako Gobernuak.
- Zapaterok 2011ko apirilean jakinarazi zuen bere azken legealdia zuela, eta hauteskundeak lau hilabete aurreratu zituen uztailean: azarora. Ordurako, Aietekoa mamitzen ari zen. Nazioarteko bitartekariak ‘Bide orri erresultantea’ delakoa diseinatzeari ekin zioten ETarekin eta PSOEn gobernarekin.
- Lokarrik eta nazioarteko eragileen Aiete jauregiko konferentzia aurkeztu zuten. Urriaren 17an izan zen.»

*Iturria: Berria egunkaria.*



### 3. KAPITULUA

#### Testuinguru historiko eta etnografikoa

---

- **Aieteko Hitzarmena:** 2011n, Aiete jauregian, nazioarteko ordezkaritza zabala elkartu zen, eta estatuei, ETARI eta euskal gizarteari zuzendutako gomendioak egin zituen. Horri deritzo Aieteko hitzarmena, eta zehazki puntu hauek jaso zituen:
  - «1. ETARI jardun armatuaren behin betiko amaiera iragartzeko adierazpen publikoa egiteko eskaera<sup>86</sup>.
  - 2. Espainiako eta Frantziako gobernuei ETAREkin «gatazka armatuaren ondorioez soilik» hitz egiteko deia. Osloko mahaian ziren esertzekoak. Espainiako Gobernuak ez zen agertu —2011ko abendutik, PSOERen partez, PP—. 2013an, ETAK iragarri zuen Osloko mahaia desegina zela.
  - 3. Minaren eta biktima guztien aitortza egiteko eta adiskidetzeari pauso sakonak emateko deia.
  - 4. Eragile ez-bortxatzaileei eta ordezkari politikoei gai politikoez aritzeko eskaera. Herri-kontsulta.
  - 5. Aholkuak bideratzeko eta gauzatzen laguntzeko Jarraipen Batzordea eratzeko prestasuna.»
- **ETAREN ARMAGABETZEA ETA ETAREN DESEGITEA:** 2013an Osloko mahaia desegin ostean, prozesuak beste bide bat hartu zuen: ETA 2017an armagabetu zen, eta 2018an desegin. Armagabetzea bereziki berritzailea izan zen, estatuen bitartekaritza beharrez, gizarte zibilarena egon baitzen. Estatuak horrelako prozesu batan sartu nahi ez zuten gero —are gehiago, prozesu hura oztopatzen ari zirenez gero— alternatiba hori jorratu zuen ETAK. Horrela adierazi du publiko egin zituen agiri eta elkarrizketetan. Horrek, mundu mailan erabat berritzailea<sup>87</sup> den prozedura gauzatzea ekarri zuen.
- **90eko hamarkada: espetxe-politikaren bilakaera:** Zantzu guztien arabera, espetxe politikoaren politika gatazka politikoaren bilakaeraren menpe egon da. Aztergai dugun hamarkadan nagusitu zen politika, hain zuzen, dispertsio eta isolamendu politikoarena izan zen. 6. irudian ageri den denbora-lerroan, politika horren aurrekariak, garapena eta euskal gizarteko posizioa jaso ditut.


---

86 Konferentziatik hiru egunetara, ETAK nazioarteko komunitateak egiaztatu ahalko zuen su-eten iraunkor eta orokorra eman zuen, eta Ezker Abertzalearen apustua berretsi zuen. Gatazkaren ondorioez aritzeko zeharkako elkarrizketa prozesu bati ekiteko baietza eman zuten ETAK eta Espainiako Gobernuak.

87 Gehiago ezagutzeko, ikus: Thomas Lacosteren *L'hypothèse démocratique* filma (2021).

6. irudia

Espetxe-politika eta haren mugarrak



Iturria: norberak egina

### 3.3. 90eko hamarkada: Mugimendu feministaren bilakaera eta lorpenak

Mugimendu feministari dagokionez, aipatu moduan, feminismoaren erakundetzearen<sup>88</sup> hastapentzat eta berdintasunaren fikzioaren arrotzat jo dezakegu hamarkada hori. 1989an Berlingo harresiaren erorketak «guda hotza» izendaturikoari amaiera eman zion, eta garaile izan zen kapitalismoak neoliberalismoari atak ireki zizkion. European, estatuek herri-mugimenduen aldarrikapenak irentsi zituzten, eta, ondorioz, estatuek eskubideen bermetzat<sup>89</sup> erakusten zuten beren buruak. *Pentsamendu bakarraren* aro berri horretan, eragile feminista ugari aitortzen dutenez<sup>90</sup>, feminismoak herri-mugimendu autonomo gisa indarra galdu zuen bere kaleko presentzian eta auto-antolaketan, baita barne-mailan aliantzak osatzeko gaitasunean ere<sup>91</sup>.

Ondorioz, sakabanaketa eta noraeza gailendu ziren. Paraleloki, hedatuz joan zen *berdintasunaren ideologia*, emakumeon\* zapalkuntzaren egiturazko izaera ukatzen zuena, eta, oro har, *berdintasunaren lilura* izendatu zen fenomeno hauspotu zuten. Hala, emakumeen\* eta gizonen arteko berdintasuna lortua zen ideia zabaldu zen, eta feminismoa gutxiesteko diskurtsoak garatu ziren, feminismoaren existentzia bera ere kolokan ipiniz. Prozesu horrek hainbat emakumeren\* kontzientziazio-galera eragin zuen, bereziki emakume\* gazteen artean, haien amek egin ezin zituzten hainbat gauza egiteko aukera zutelako eta, ondorioz, desideologizazio sakona gertatu zen (Epelde, Aranguren eta Retolaza, 2015). Berdinen munduan bizi diren ilusioa deitzen dio Barbara Bigliak (2003), eta honela definitzen zuen prozesua Anna Maria Fernandezek: «subordinazioaren barneratze-maila handiak, sektore batzuk diskriminaziorik ez dagoela esatera eramán ditu; hortaz, tratu txarrak, bortxaketa, lanaldi bikoitz eta hirukoitzak ezkutatu edo aintzat ez hartuz»<sup>92</sup> (2000:46).

Amaitzeko, oraindik «biolentzia domestikoa» izendatzen zen biolentzia matxistaren izaera publiko eta politikoaren aitortzan aurrerapausoak eman ziren (Del Valle, 1993), eta, horrekin batera, *genero*<sup>93</sup> berba geure hiztegi, diskurtso eta ekimenetan sartu zen, hain justu Hondarribiko

---

88 Emakunde (1988) eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuak (1995) sortu ziren, eta ordutik aurrera lan handia egin zen administrazio publikoetan berdintasunaren aldeko egiturak sortzen eta hainbat administrazioren arteko sareak eraikitzen. Berdintasun-politikak aurrera eramango dituzten pertsonak trebatzeko ahalegina egin zen, modu horretan feminismoa formaziorako gai ere bilakatu zen —eta feminismo akademikoa sendotu zen—. Horrela, berdintasun-teknikarien figurak jaio eta berdintasun-sailak ugarituz joango ziren. Zitur aski, ibilbide horren mugarrri nagusietakoa ez da 2005. urtera arte gauzatu, EAeko Legebiltzarrak onartutako «Emakume eta Gizonen Berdintasunerako Legea»rekin, hain zuzen ere.

89 1995. urtean, Nazio Batuen Erakundeak *Emakumeen IV. Mundu Konferentzia* antolatu zuen, eta bertan zeuden 185 estatu-ordezkariek berdintasun-politikak adostu eta bere egin zituzten.

90 *Gure genealogia feministak* liburuaren arabera.

91 90eko hamarkadan, desmobilizazio, desantolakuntza eta gai sozial zein komunitarioekiko arduraren apaltzea gertatu zela diote askok. 1995. urteko *Petrás* informea erreferentzia esanguratsua da. Xehetasun gehiagorako: <https://www.inventati.org/ingobernables/textos/anarquistas/informe-petrás.pdf>.

92 Itzulpena neurea da.

93 Hasiera batean, emakumeekiko\* jazarpena ulertzeko eta analisi feminista kritikorako tresna zenak ikuspegi feminista ahultzen amaitu zuen.

eta Irungo alardeetako partaidetza parekidearen gatazkak eztanda egin zuen aro berean<sup>94</sup>.

Emagin elkarteak osatutako 10 urteko ikerketaren emaitza den *Gure genealogia feministak* liburu eta erakusketak, eta Begoña Zabalen *Movimiento de mujeres, mujeres en movimiento* liburuetan, xehetasun handiagoz jasotzen da mugimendu feministaren bilakaera, bere eztabaida eta mugarriekin.

### 3.4. 90eko hamarkada: Euskal Herriko genero-ordena kokatzeko zenbait datu:

Ezin dugu ahaztu, artean, aro historiko hartan, Euskal Herrian emakume\* izatea ezaugarritu eta emakume\* gisa aritzeko espazioa definitzen zuen genero-ordena zein zen. Aurreko hamarkada bietan emakumeek\* soldatapeko lan-mundurako zuten sarrera handituz zihoan, nahiz eta industria-eraipekin<sup>95</sup> eragindako krisi ekonomiko eta sozialak gogor jotzen zuen Euskal Herrian. Emakumeen\* ikasketak mailak ere gora egin zuen, nahiz eta garai hartan —egun ez bezala— oraindik gizonezkoak izan goi-mailako ikasketetan nagusi<sup>96</sup>. Harreman sexu-afektiboei eta sexualitateari dagokionez, 80ko hamarkadatik zetozen antisorgailuen onarpenak, abortuaren despenalizazioak, dibortzioaren legeztatzeak eta HIESaren oldarraldiak bazuten eraginik, baina, oro har, berezko ezaugarritzat honako hauek azpimarratuko nituzke: elkarbizitza-eredu anitzagoen zabalpena, ezkontzarako adinaren atzeratzea, ugalkortasunaren jaitsiera, eta lehenengo haurra ekartzeko adinaren atzeratzea<sup>97</sup>.

Partaidetza politiko eta sindikalari dagokionez, Emakunderen eta INAIren hamarkada-hasierako eta -amaierako ikerketa-datuei so, goranzko joera da azpimarratu beharrekoa<sup>98</sup>. Hala ere, EAEko parlamentariari dagokienez, partaidetzaren ehunekoak % 17 eta % 30 artean zegoen, eta Nafarroan % 28koa zen. Zinegotzi kopuruei dagokienez, 1991n % 16koa zen bitartean, 1999an % 27koa; eta Nafarroan, 2003. urtean, % 22koa. Alderdietako zuzendaritzetakoak % 10 eta % 15 artean, nahiz eta afiliatuen artean emakumeen\* portzentajea askoz handiagoa izan (% 30etik gorakoa). Herrialde eta alderdien artean aldeak egon arren, egiari zor ezin da alderdi zehatz bat nabarmendu bere emakume\*-partaidetza altuagatik, ezta baxuagatik ere<sup>99</sup>. Bestalde, lan-ildoen sexu-banaketari

94 Gehiago jakiteko: Bullen, Maggie (2000). Hombres, mujeres, ritos y mitos: los Alardes de Irún y Hondarribia. In *Perspectivas feministas desde la antropología social* (45-78). Ariel España.

95 Mundu-mailako petrolio-krisiarekin batera Estatu Espainolean gobernuan zen PSOEn eskutik ehun industrial desegituratu zuen prozesuari deritza. Xehetasun gehiagorako, ikus: Ruzafa, Rafael (2017) *Caras tristes de un proceso histórico. La desindustrialización de la ría de Bilbao en el último cuarto del siglo XX*.

96 2017/18 ikasturtean, emakumeen\* izen-ematea % 53,8koa da. Iturria: [https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/servicio\\_cifras/eu\\_emakunde/adjuntos/zifrak\\_2019\\_lab.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/servicio_cifras/eu_emakunde/adjuntos/zifrak_2019_lab.pdf)

97 Iturria: EAEko emakumeen\* eta gizonen egoerari buruzko zifrak, 1999ko txostena: <https://www.emakunde.euskadi.eus/dokumentazioa-argitalpenak/-/informazioa/txostenak/>

98 Emakunderen lanetan, Herri Batasunako afiliazio-zenbakiak jakiterik ez dago, ez baitzuen afiliazio-sistema erabiltzen. Tarteka, LAB sindikatuaren inguruko datuak ere falta dira, zehazten ez diren arrazoiengatik.

99 Nahiz eta 1999. urtean Ezker Abertzaleko emakume\* zinegotzien kopurua bereziki azpimarragarria izan zen: 660 emakumeetatik\*, 217 mugimendu politiko horretakoak ziren.

dagokionez, erakunde guztietan ongizate eta zerbitzu sozialen arloan, hizkuntza, kultura eta gazterian emakumeak\* nagusitzen ziren —eta dira—, hirigintzan, gobernuan eta ekonomian gizonak nabarmentzen ziren/diren moduan. Halaber, interesgarria da egungoekin alderatzea, nahiz eta, ordezkari politikoari dagokionez, 2005eko lege-aldaketak<sup>100</sup> izandako eragina ezin dugun begi-bistatik galdu<sup>101</sup>. Partaidetza politiko formalari eta sindikalgintzari dagokionez, gaur egun, Eusko Jaurlaritzako<sup>102</sup> sailetan emakumeen\* ordezkari % 63,6koa da, eta Nafarroan % 52koa. Eta EAEn, adibidez, gehiengo duten lau sindikatuen batzorde exekutiboan emakumeen\* presentzia % 47,2koa da.

Orain arte esandakoa laburbiltzeko: genero-ordenari dagokionez, nahiz eta frankismoko ulerkeretatik gertu egon oraindik, euskal gizarteko emakumeen\* bizi-baldintzak eta «emakume egokia»ren definizioak aldatzen hasiak ziren. Feminismoaren alorrean, berdintasun-formalak eta erakundetzeak aldaketa esanguratsua ekarri zuten mugimendu autonomoan, eta beste horrenbeste esan dezakegu Euskal Gatazkaren egoeraz ere, funtsean trantsizioa deitu zaion aroa zena finkatuzat jo osteko aroa bihurtu baitzen 90eko hamarkadan. Estatua zein Ezker Abertzalea birkokatu egin ziren, estrategiak berregokituz.

90eko hamarkadako argazki hau amaitzeko, Ezker Abertzale barruan egondako ekintzailatza feminista aintzat hartzea beharrezkoa da. Hurrengo lerroetan horretaz arituko naiz.

### **3.5. 90eko hamarkada: Ezker Abertzalea eta feminismoaren arteko harremanaren bilakaera**

Ezker Abertzalean feminismotik eragiteko egon diren prozesuen berri ematea uste baino ariketa zailagoa da. Hasteko, ia mende erdi laburrera ekartzea beti da nekeza, baina horrekin batera zailtasun handiena sistematizaziorik eza dugu, eta, ondorioz, kontakizun kolektibo adosturik ez egotea. Horren inguruko ikerketa espezifikorik ere ez da egin. Hortaz, orain arteko lanetan mugarriztat jo diren ekimen edo urratsak baino ez ditut jasoko (ikus, lagungarri gisa, 7.irudia):

Ezker Abertzalean feminismotik eragiteko egon diren prozesuen berri ematea uste baino ariketa zailagoa da. Hasteko, ia mende erdi laburrera ekartzea beti da nekeza, baina horrekin batera zailtasun handiena sistematizaziorik eza dugu, eta, ondorioz, kontakizun kolektibo adosturik

---

100 Eusko Legebiltzarrerako hauteskondeak 5/1990 Legeak arautzen ditu. Lege hori aldatu egin zen 4/2005 Legea onartu ondoren. Zehazki, 50. artikuluan, hautagai-zerrendek honako hauek bete beharko dituztela arautu zen: seiko tarteetan, sexu bereko pertsonen % 50ek osatuak egotea. Egun, emakumeen\* eta gizonen proportzio hori bete egiten da.

101 Gehiago jakiteko: Elizondo, 1999; Elizondo, 2004; Elizondo et al., 2005. Autore horrek 90eko eta 2000ko hamarkadetan egindako azterketak dira. Bertan, ikusten da emakumeen\* partaidetza handitu egin dela alderdi eta elkarte politikoetan zein ordezkari politikorako egituretan.

102 Iturria: [https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/servicio\\_cifras/eu\\_emakunde/adjuntos/zifrak\\_2019.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/servicio_cifras/eu_emakunde/adjuntos/zifrak_2019.pdf)

ez egotea. Horren inguruko ikerketa espezifikorik ere ez da egin. Hortaz, orain arteko lanetan mugarriztat jo diren ekimen edo urratsak baino ez ditut jasoko:

- **Hastapeneko urrats feministak:** 1974. urtean Ipar Euskal Herrian sortutako Emazteak Iraultzan eta 1976. urtean, Euskal Emazteak Beren Askatasunaren Aldeko (EEBAA) aurrekariekin batera, lehen esperientzia kolektibo feministak Ezker Abertzalean.
- **KAS alternatibari ekarpenak:** Ezker Abertzalearen baitako feminismoaren presentzia, antolaketa eta eraginari dagokionez, 1978an, Koordinadora Abertzale Sozialistako emakumeak izeneko antolakundea sortu zen (KAS Emakumeak). KAS alternatibaren helburuari, «Euskadi independentea, sozialista, batua eta euskalduna» helburu lauhoitzari, haiek *ez patriarkala* helburua gehitzen zioten.
- **Aizan-en sorrera eta arrakasta:** 1981. urtean, Ipar Euskal Herria sorburu zuen Aizan jaio zen. Emakumeak\*, langileak eta euskaldunak ziren aldetik, jasaten zuten zapalkuntza hirukoitzari aurre egiteko, emakume sozialista eta independentistaz osatutako erakunde gisa definitu zuten beraien burua. Erakunde burujabearen ideia eta borroken arteko erlazioaren beharraren inguruan, KAS Emakumeak erakundearen militante ohi batzuk eta esperientzia hori bizi izan ez zuten beste emakume\* batzuk batu ziren bertan. Nahiz eta KAS barruan ez egon, borroka feminista gainontzeko borrokekin erlazionatzeko asmoa eta sintonia politiko handia zuten; izan ere, 1984. urtean Aizanek KAS Emakumeekin batera, aldarrikapenen txosten bateratua osatu zuen.


Aizanek Ezker Abertzaleko emakumeengan\* kontzientzia feminista zabaldu ahala, oinarri sozial nabarmena irabazi zuen. Une horretan borroka feminista eta gainontzeko borroken arteko erlazioa bideratuko lukeen erakunde berria sortzeko beharrezko baldintzak zeudela baloratu, eta, Aizanek burututako azken asanbladan, erakundeari amaiera emateko erabakia hartu zuten.

- **Egizan-en sorrera:** KASeko erakunde feminista autonomoa sortzeko prozesua martxan jarri zen 1987. urtean: Egizan, hain zuzen ere. Antolakunde horrek KAS blokearen helburuak bere egin zituen, hala nola euskal estatu sozialista, independentea, batua eta euskalduna. Horiek horrela, sozialismoa zuen emakumeen\* zapalkuntza gainditzeko ipar:

Jabetza pribatuaren deuseztapena jendarte berri bat sortzeko ezinbesteko baldintza dugu. Gizonak eta emakumeak berdintasunean bizitzeko eta menperatzailerik zein menperaturik egongo ez den jendarte bat. Zapalkuntza patriarkala sostengatzen duen egituren kontrako antolakuntza zein borroka, eta gure burkideen jarrera kontraesankorrak saihesteko borroka ideologikoak, Euskal herriaren askapen-borroka bere osotasunean garatzeko bermea izango da (Egizan, 1988).<sup>103</sup>

7. irudia

Ezker Abertzaleko feminismoaren bilakaera



Iturria: norberak egina

Egizan 90. hamarkada osoan aritu zen lanean, 2000. hamarkadako lehen urteetan bere jarduera bertan behera utzi arte, geroago ikusiko ditugun arrazoiengatik.

- **LABeko Emakume Idazkaritza:** 1996. urtean, LAB sindikatuaren baitan, Emakume Idazkaritza osatu zen<sup>104</sup>. Aldez aurretik, 1992ko Biltzarrean, urratsa emana zuten, baina 1996an jada *LAB emakumeak* bezala ezagutarazi zuten. Helburuen artean, lan-merkatuko emakumeen\* diskriminazioak salatzea, sindikalgintzako eremu maskulinoan emakumeak\* lehen lerrora hurbiltzea, sindikatuaren antolaketa-eredua berregokitzea, lanaren ikuspegi integrala txertatzea eta Mugimendu Feministarekin aliantzak eratzea izan ziren.
- **Ezker Abertzaleko barne-prozesu feminista:** Ezker Abertzaleko emakume\* feministek gogoeta-prozesu sakona egin zuten, *Ezker Abertzale feministarantz* izeneko barruko prozesu feministari ekiteko. Bertan, Ezker Abertzaleak printzipio feministak barneratzeko (izan funtzionamenduan, proiektu politikoan eta lan estrategian), adostu zuten barne-mailan erakunde autonomoa egotea baino eraginkorragoa litzatekeela erakunde bakoitzean feminismoa barneratzeko prozesu espezifikoak egitea. Horrela, feminismoa Ezker Abertzaleko funtzionamendu eta praktika politikoan txertatzeko konpromisoa hartu zuten.

Bost urteko tartean eta irregularra izan zen ibilbidean zehar (tartean atxiloketa eta ilegalizazio-prozesuak gauzatzen hasi baitziren), proposamena zuzendaritza-mailetara eramane, eta erakunde bakoitzean diagnostiko bana osatu zuten, emakume\* guztiek bete zuten inkesta-gidoi baten bidez. Antolakunderen bateko kide izan eta partaidetza eten zuten zenbait emakume\* ere elkarriketatu zituzten, militantzia uzteko genero-arrazoiengatik. Ikerketa soziologikoaren ardatz nagusiak honako hauek izan ziren: barne-antolakuntza, feminismoaren inguruko pertzepzioak eta jarrera sexistak. Barne-antolakuntzari dagokionez, emakumeen\* parte-hartze kuantitatibo eta kualitatiboa aztertu ziren; besteak beste, parte-hartze politikoa eta gainontzeko bizi-proiektuen arteko bateragarritasuna zein antolakunde barruetako arduraren banaketak —araututakoak eta arautu gabek—, Feminismoarekiko pertzepzioak jasotzeko, politikoki zuzena zena gainditzeko asmoz osatutako galderamultzo zabala osatu zen. Azkenik, jarrera sexistei dagokienez, antolakunde barruan gertatzen zirenak identifikatu eta definitzeko ariketa egin zuten. Diagnostiko horien ostean, barne-planak osatu ziren, egoera horiek gainditzeko bidean ipintzeko, nahiz eta hori ez zen intentsitate berberaz egin antolakunde guztietan.

Horrez gain, eztabaidak garatu ziren, feminismoaren aldeko konpromiso- eta praktika-multzoa definitzeko. Bide horretan guztian, Ezker Abertzaleko antolakunde bakoitzak (garaian garaikoak), bere burua independentista eta sozialistatzat jotzen zuen,

---

104 *LAB sindikatuaren historia. Langile Abertzaleen Batzordeak (1975-2000)* liburuaren arabera, une horretan LABek 17.000 afiliatu zituen eta herena emakumeak\* ziren.



### 3. KAPITULUA

#### Testuinguru historiko eta etnografikoa

---

baina 2012. urtera arte itxaron beharko zen —LAB eta Ernaik urte gutxi batzuk lehenago egin bezala, Sorturen sorrera prozesuan— Ezker Abertzalea feministatzat autodefinitzeko eta bere proiektu politikoan esplizituki jasotzeko. Horrek ez du esan nahi lehenago ere Ezker Abertzaleak bere burua antipatriarkaltzat ez zeukanik, edota feminismoaren aldarrikapenekin bat egiten ez zuenik. Gakoa da proiektu sozialistak feminismoaren proiektua jasotzen duen ala ez duen galdera klasikoari ematen zitzaion erantzuna. Ibilbide horretako dokumentazioari erreparatuta, horixe azpimarratuko nuke hain zuzen, Ezker Abertzaleko feministen bidea zapalkuntza ezberdinen arteko harremanak ulertu, definitu eta mugimendu politiko osoaren estrategian materializatzeko saiakerek, oztopoek eta urratsek osatzen zutela. Hamiltonen (2007) arabera, Ezker Abertzaleko emakumeek\* arrakasta handiagoa izan zuten haien feminismoaren garapen ideologiko-teorikoan, beraien antolakundeetako egoera iraultzen baino.

Tamalez, diagnostiko horren emaitzarik ez dugu lortu<sup>105</sup>, prozesu horretan parte hartu zuten emakumeen\* memoria-ariketa eta testigantzak baino ez baitaude eskura. Nolanahi ere, ikergai dugun garaian, 1998-2000 urte-bitartean abiatutako prozesu feminista mugarri garrantzitsua izan zen Ezker Abertzaleak feminista bilakatzeko egun dirauen erronkan<sup>106</sup>.

Horren ostean etorri ziren Ezker Abertzaleko erakundeak pixkanaka beraien burua feministatzat izendatzeko prozesu eta urratsak. Ibilbide hori gaur egun arte luzatu da, Sortuk 2012. urtean, bere proiektu politikoaren azalpenean feminismoa gehitu duen arte. Aipatu moduan, LAB eta Ernai erakundeek bide hori aurretik egina zuten, baina *Herritar Batasunaren* kontzeptua gorpuzten duen Sortuk hala egiteak garrantzia estrategikoa izan zuela deritzot. Izan ere, horrek adierazten du Ezker Abertzaleak, bere osotasunean, ez duela jada emakumeen askapena lotzen sozialismoaren egikaritzarekin, eta, ondorioz, urrats ideologiko adierazgarria da.

Bestalde, Mugimendu Feministaren baitan zapalkuntza hirukoitzaren identitate feminista ordezkatzeko duen Euskal Herriko Bilgune Feminista sortu zen 2002. urtean. Hona hemen erakundearen aurkezpena :

Euskal Herriko Bilgune Feminista gure Herrian egon den eta gaur egun dagoen tradizio feministaren ondorioa da. Hirurogeita hamarrek hamarkadatik egun arte, esparru desberdinetan eta ahalegin handiz, Praktika eta Teoria feminista bultzatu dituzten emakume eta talde feministen ondorioa gara (Epelde et al. 2015).

---

105 Ikerketan zehar beste arlo batzuekin gertatu bezala, poliziak egindako ehunka atxiloketa eta erregistroak medio, idatzizko txosten eta lan asko egun ez daude kide horien eskuetan, ezta Ezker Abertzalearen eskutan ere.

106 <https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20170107/prozesu-feministari-berrekiteko-lehen-urratsa-egin-dute-durango>

Laburrera ekarrita, aztergai dugun aro historikoan, Ezker Abertzaleak emakumeen\* zapalkuntza onartu eta borrokatzeko apustua egiten zuen bere pentsamendu politikoan. Aurreko hamarkadetako joerari xerka, emakumeei\* langile- eta askapen-mugimenduaren baitan parte har dezaten deia luzatzen zien, eta, gainera, zapalkuntza espezifikoko horrekiko proposamenak garatzen zituen. Aldiz, barnera eta kanpora begirako praktikan, pentsamendu horrekiko kontraesanean aritu izanaz jabetzen den mugimendua ere badugu, barne-mailan abiatu dituzten prozesu eta gogoetek adierazten digutenaren arabera. Zentzu horretan, Ezker Abertzaleko emakume\* militanteek aro horietan guztietan —eta, beraz, baita aztergai dugun hamarkadan ere— modu iraunkorrean mantendu dituzten zereginen artean, honakoak azpimarratuko ditut:

- 1- Beraien mugimendu barruan kontzientzia feminista eragitea.
- 2- Klasea, generoa eta nazio-zapalkuntza hirukoitzaren inguruko garapen teorikoa egitea, Ezker Abertzalearen proiektu politikoan eta estrategian ulerkeria feminista landu nahirik. Adibidez, *Pueblo trabajador vasco*-ren inguruan egin zen kontzeptualizazioa aintzat hartuz, *mujer trabajadora vasca* bezalako kontzeptuak garatuz eta identitate politikoa eraiki guran.
- 3- Gainontzeko mugimendu feministan bere lekua egitea; izan ere, beti ez da ulertua izan feminismo mota horrek ordezkatzeko izan zuten identitatea. *Gure genealogia feministak* liburuak (Epelde et. al. 2015) dioenaren arabera, zeregin horietan tentsio eta gatazkak ez ziren gutxi izan, bai mugimendu feministarekin, bai Ezker Abertzale barruan, batez ere 80. hamarkadan. Aztergai dugun 90. hamarkadan, aldiz, erakunde autonomo feminista baten beharra ez zen kuestionatzen Ezker Abertzale barruan, ezta mugimendu feministaren barruan ere.

### 3.6. Testuinguru etnografikoa

Hurrengo lerroen bidez, Euskal Herrian, testuinguru etnografiko gisa hartuta eta esku artean dudak ikergaiari lotuta, zehaztu beharrekoak iruditzen zaizkidan lurraldeak deskribatuko ditut.

#### 3.6.1. Errepresioaren lurraldea

Ikerketa eta lekukotza guztien arabera, Euskal Herriko Hegoaldeko jendartearentzat, 1936tik 1975era bitarteko errepresio-aldiak eta 78ko erregimenaren ostean etorritakoak bat egin dute, etenik gabe. 1978tik aurrerakoa, Euskal Gatazkaren harira eta kultura politiko frankistaren oinordetza dela eta, ukazioaren eta biolentziaren hautua izan da erabiliena estatuko estamentu guztien aldetik; gobernutik hasi eta udaletaraino, epailetatik poliziaraino.

### 3. KAPITULUA

#### Testuinguru historiko eta etnografikoa

Horrek esan nahi du 1936ko kolpe militarren ostean jazotako erailketak, ihesaldiak, zaurituak, jipoituak, torturatuak, espetxeratuak, gosetuak, pobretuak eta bortxatuak kontuan izatearekin batera, ostera etorriko zirela iheslariak, deportatuak, zaurituak, hildakoak, torturatuak, atxilotuak, espetxeratuak, isunen eta fidantzen bidez espoliatuak, desegindako manifestazioak, ilegalizatutakoak (ekimenak, antolakundeak, egunkariak, irratiak) gehitu behar zaizkiola. Tamalez, oarindik zenbatze lanetan ari dira historialari, eragile antierpresiboak, memoriaren aldeko taldeak eta unibertsitatea. Horrek esan nahi du ez daukagula zenbaki borobilik. Are gehiago, batez ere pertsonaren askatasun eta integritatearen aurkakoetan jarri ohi da arreta, beste eremuak askoz gutxiago jorratuz.

Hala ere, nire asmoa, horietako bakoitzaren deskribapen zorrotzean sartzea baino, ondo errotutako joera dela agerian uztea da. Jarraian aipatuko ditudan prozesu errepresibo horiekin batera bizi izan diren eta garen belaunaldiak bat baino gehiago baikara, intentsitate baxuko demokrazia baten aurrean gaudela erakutsiz.

#### a) Hildakoak

Estatu Espainol eta Frantsesak eragindako hildako kopurua 366 dela dio hildako horien senideak biltzen dituen Egiari Zor elkarteak. Horrekin batera, beste 115 pertsonak galdu omen dute bizitza gatazkarekin lotutako egoera ezberdinetan. Eragindako hildako horietatik 88k besterik ez dute jaso nolabaiteko aitorten ofiziala. Hau da, % 24ak, besterik ez.

#### 9. taula

*Bi estatuek eragindako hildakoak*

<b>Estatuetako agenteek eragindako heriotzak</b>	<b>219</b>								
<b>Gerra zikinak eragindako heriotzak</b>	<b>79</b>								
<b>Eskuin muturreko «inkontrolatuek» eraildakoak</b>	<b>4</b>								
<b>Salbuespenezko neurri politikoen aplikazioak eragindako heriotzak:</b>									
<table border="1" style="width: 100%;"> <tbody> <tr> <td>Dispertsioak eragindako heriotzak:</td> <td style="text-align: right;"><b>16</b></td> </tr> <tr> <td>Salbuespenezko espetxe politikak eragindako heriotzak:</td> <td style="text-align: right;"><b>35</b></td> </tr> <tr> <td>Deportazioak eragindako heriotzak:</td> <td style="text-align: right;"><b>9</b></td> </tr> <tr> <td>Bere buruaz beste egitera behartuak:</td> <td style="text-align: right;"><b>4</b></td> </tr> </tbody> </table>	Dispertsioak eragindako heriotzak:	<b>16</b>	Salbuespenezko espetxe politikak eragindako heriotzak:	<b>35</b>	Deportazioak eragindako heriotzak:	<b>9</b>	Bere buruaz beste egitera behartuak:	<b>4</b>	<b>64</b>
Dispertsioak eragindako heriotzak:	<b>16</b>								
Salbuespenezko espetxe politikak eragindako heriotzak:	<b>35</b>								
Deportazioak eragindako heriotzak:	<b>9</b>								
Bere buruaz beste egitera behartuak:	<b>4</b>								
<b>Guztira*</b> Kontuan hartu behar da gutxienez <b>beste 115 pertsonak ere bizitza galdu dutela</b> gatazka politikoarekin harreman zuzena izan duten gertakarietan (enfrentamenduak, istripuak...).	<b>366</b>								

*Iturria: Egiari Zor elkarte<sup>107</sup>*

107 Gehiago jakiteko: <https://egiarizor.eus/eu/egia-biktima-guztientzat>

**b) Espetxe politikoa:**

1958tik 2020ra, sei hamarkadatan alegia, **10. taulan** ageri den preso kopurua egon da, Euskal Memoria Fundazioaren arabera.

**10. taula**

*Preso kopuruak, 1958 - 2020 bitartean*

Atxiloketa politiko kopurua	20.000	Euskal biztanlegoaren % 1
Preso politiko kopurua	9.020	Atxilotuen % 45
Emakumeak	1.281	Presoen % 14,20
Gizonak	7.742	Presoen % 85,80

*Iturria: Euskal Memoria Fundazioa*

Preso politikoekiko espetxe-politikari dagokionez, 11. taulan jaso dira hura ezaugarritu duten neurri nagusiak:

**11. taula**

*Preso politikoekiko neurri bereziak*

Urruneko espetxeetan kausitzea
Espetxez maiztasun handiz mugitzea
Ziegaz maiztasun handiz mugitzea
Komunikazio guztien interbentzioa
Jarraipen estuagoa. Ficheros de Internos de Especial Seguimiento -FIES- eta Detenu Particularment Surveille-DPS-.
Espetxe barruko sakanabaketa
Isolamendu handiagoa-zigor ziega edo zigor bizi-erregimen handiagoa.
Auzitegien berezien ezarpena -Auzitegi nazionala eta Espetxe zaintza zentrala
Presoentzako aurreikusitako onurak ez ezartzea: zigor osoa ez betetzea, larriki gaixo egonez gero kaleratzea, ikasketak egitea....
Bortizkeria espetxe funtzionari eta polizien aldetik

*Iturria: Burdinen arteko Herria liburua.*

**c) Ihesaldi politikoa:**

Motibazio politikoengatik ihes egin duten pertsona kopuru eta egoerei dagokionez, lehenengo eta behin esan behar da gehiengo zabal bat torturaren ondorioz gertatu izan dela, estatuetako errepresioaren jazarpenaren ondorioz edo horri beldur izateagatik ihes egin duten pertsonak izan baitira nagusi<sup>108</sup>. 2018ko urtarrilaren 26an Foro Sozial Iraunkorrek antolatutako bi eguneko hitzorduan, Jon Irazolak, une horretan iheslari politikoen bozeramaile lanetan zenak, ondoko datuak eman zituen:

- Bost hamarkada daramatela exiliatuta.
- 60. hamarkadatik gaurdaino 2500 pertsona exiliatu egon direla.
- Egun 100 bat pertsona direla eta gehiengoa 60 urtetik gorakoa dela.
- 14 pertsona daudela deportazio egoeran, eta 10 deportazioan hil direla.
- 40 erailak izan direla.
- 25 erbestean hil direla gaixo.
- 162 estradizio egon direla, 106 euro-agindu eta 300 entrega (poliziatik poliziara).
- Kolektiboki hartutako erabakiaren ondorioz 100 iheslari etxeratu direla.
- Haien aurka erabili dituzten neurriak, legezko eta ez-legezkoak izan direla: estradizioak, euroaginduak, *non grato* izendapenak, asignazioak, deportazioak, konfinamenduak, gerra zikina...

Irazolaren kontakizunean, errepasso historiko txikia ere egin zuen, Euskal Gatazka internazionalizatzeak Euskal iheslari politikoen aurka ekarri izan dituen neurrien berri emanez (konfinatzeak, deportazioak, asignazioak, estradizioak, entregak, euro-aginduak, ekintza armatuak. Finean, exiliatuek «errefuxiatu politiko» estatusa zutenetik «*non grato*» izaterako bidez aritu zen. Tartean legalak ziren neurriak aipatuz, eta tartean legez kanpokoak (deportazioa<sup>109</sup> edo ekintza armatuak bezala): 1977ra arte Ipar Euskal Herrian errefuxiatu politikoaren estatus politikoa zuten. Urte horretan, haietako batzuei kendu egin zieten, eta kasu berriak aztertzeari uko egin; baita lanerako baimenak ukatu ere. Horren guztiaren ondorioz, aro horretan hasi ziren *paperik gabe* egoten. 1984tik aurrera, haien aurkako jazarpena handitu egin zen, GALen ekintzen ondorioz. Horrekin batera, deportazioekin hasi ziren, eta 1986tik 89ra larrialdizko 200etik gora kanporatze egon ziren, inongo babes legalik gabekoak; beraz, Estatu Espainoleko polizia-etxeetan amaitu zuten askok eta askok. 90eko hamarkadan, Estatu Frantsesko euskal departamenduan bizitzeko debekuak, lurralde-debeku definitiboak (Frantziara inoiz ezin itzultzea), urruneko eta arrotza den

---

108 Iturria: Dorai, Jaione eta Prat, Ernesto (2022). Bestaldean. Euskal iheslari politikoen bizipenak. Txalaparta.

109 Hirugarren herrialde batera egindako kanporatzeak. Berez, neurri administratiboak da, prozedura judizial gabekoa. Alta, hainbat pertsonari ezarri zitzaizen, eta ordutik egoera irregular horretan daude, Frantzia eta Espainiako harreman kolonialak probestuz hautatutako herrialdeetan; besteak beste, Cavo Verden, Sao Tomen, Aljerian, Ecuadorren eta Dominicar Errepublikan. Gehiago jakiteko: Sabaté, Susana. Paniselo. (2011). *Els deporats d'ETA: els oblidats del conflicte (1984-1998)*. (Doctoral dissertation, Universitat Pompeu Fabra).

bizitoki zehatza esleitzea eta horrelako neurriak ezartzen hasi ziren. 1995 eta 99. urteen artean lortu zuten abokatuek judizialki poliziatik poliziarako entregak moztea. Hamarkada horretan, mundu zabaleko 30 herrialdeetan baino gehiagotan kokatu ziren euskal iheslariak. 2000ko hamarkadatik aurrera, herrialde horietako poliziek estradizioak bizkortu zituzten.

**d) Tortura politikoa:**

Nafarroako gobernuak eta EAeko gobernuak agindutako ikerketa ofizialen arabera, oraingoz 5.175 kasu daude egiaztatuta. Hala ere, motibazio politikodun tortura eta tratu txarren ikerketa egiten ari den Euskal Memoria Fundazioak, orain arte, 4.643 pertsonak jasandako 5.567 kasu egiaztatu ahal izan ditu. Eta elkarte horrek zein ikerketa ofizialak egin dituzten IVACeko<sup>110</sup> kideek azpimarratu dute litekeena dela benetako zenbakia handiagoa izatea. Xehetasun gehagorako, ikus **12. taula** eta **13. taula**.

Nafarroako ikerketa bi epealditan egin da, lehena 1960tik 1979ra eta bigarrena 1979tik 2015ra. Gainera, azterketa erabat amaitu gabe dago; beraz, datu gutxiago daude.

**12. taula**

*Euskal Autonomia Erkidegoan, Estatu Espainoleko poliziak (Polizia Nazionalak, Guardia Zibilak eta Ertzaintzak) torturatutako pertsona kopuruak, 1960tik 2014ra.*

Tortura kasuak	<b>4.113</b>
Emakumeak	<b>% 17</b>
Gizonak	<b>% 83</b>

*Iturria: IVACeko txostena*

**13. taula**

*Nafarroan, Estatu Espainoleko poliziak (Polizia Nazionalak, Guardia Zibilak eta Ertzaintzak) torturatutako pertsona kopuruak, 1960tik 2015era.*

Tortura kasuak	<b>1068</b>
Emakumeak	<b>% 16,7</b>
Gizonak	<b>% 83,3</b>

*Iturria: IVACeko txostena*

### 3. KAPITULUA

#### Testuinguru historiko eta etnografikoa


Guzti horietatik 103 pertsonak baino ez dute jaso aitopen ofiziala, EAEn egiaztatutako kasuen % 3k, besterik ez. Nafarroan, ikerketa beranduago garatu da, justuki UPN buru zuen gobernuak 2015ean aurrera ez egiteagatik. Gerora traba juridiko eta ekonomikoak agerikoak izan dira. Izan ere, Nafarroan torturatutako pertsonen sarea osatu zen 2022ko otsailean. Aurkezturiko salaketa judizialeetatik ere oso gutxik lortu dute torturaren zigorra. Gehiengoa artxibatu egin da, eta % 1ek baino ez du lortu torturatua izan zela dioen epai edo ebazpena. Alta, azpimarratzekoa da Nazioarteko bi erakunde garrantzitsuk (Giza Eskubideen Europako Auzitegiak eta Nazio Batuen Erakundeak) 12 aldiz kondenatu izana Estatu Espainola tratatu txarrak eta torturak zeharo debekatzen dituzten tratatuak behin eta berriro urratzeagatik.

Aztertu diren kasuei dagokionez, demokrazia-arokoek diktaturakoak gainditzen dituzte, azken horiek % 30 baitira, gutxi gorabehera. Horrekin batera, kasu gehienak inkomunikatutako atxiloketetan jaso dira, eta garai historikoaren arabera legalki baimendutako inkomunikazio-egunen kopurua aldatuz joan dira: 12 egun, 10 eta 5. Hala ere, kasu gehienegun kopurua 3 egunetan kokatzen da.

Ikerlan honen helburu den 90eko eta 2000ko hamarkada hobeto ulertzeko, urtekako kasuen berri emango dut (lagungarri gisa, ikus 8. irudia eta 9. irudia).

#### 8. irudia

*Nafarroako datuak urtez urte (1979-2015)*



*Distribución anual de casos (1979-2015).*

*Iturria: IVACEko txostena*

9. irudia

EAEko datuak urtez urte (1960-2015)



Iturria: IVACeko txostena

**Torturaren intentsitatea ezagutzeko zertzeladak.** Euskal gobernuek IVAC iker-taldeari tortura ikertzeko agindu aurretik, Pau Perez<sup>111</sup> buru zela, lehen aldiz Istanbulko protokoloaren bidez torturaren azterketa psikologiko sakona egin zuten. Bertan, Euskal Gatazkaren harira atxiloak izan diren kasuekiko erabili izan den torturen eta tratu txarren lerro metodologikoa aztertu zuten, eta polizia motaren arabera —Guardia Zibila, Ertzaintza eta Polizia Nazionalea— ñabardurak agertu arren, antzekotasun nabarmenak ikusi dituzte, Horrela, bada, zortzi eremutan banatu dute Euskal Herrian gatazkaren baitan torturak hartu duen forma eta sakoneraren deskribapena:

1. Pertsonaren oinarriko beharizanen eremuan: Polizia-etxeetako kalabozoei dagokionez, zikinkeria eta higieña falta. Loaldi eta esna-aldiei dagokionez, kasu gehienetan lo egitea eragozten zaie baliabide ezberdinen bidez. Janari eta edariei dagokionez, gehienek oso gutxi jan eta edan izan dute, eman ez zaielako, desorduetan eman zaielako, antsietate egoerak gosea kendu dielako edota droguak izango diren beldur zirelako. Azkenik, neke fisiko latza batu ohi dutela, tartean ariketa edo behartutako postura akigarriak inposatu zaizkielako, hala nola flexio eta bestelako kirol-ariaketak zein ordu luzez zutunik egon behararen ondorioz (hau gizonezkoek gehiago pairatu dute).

111 Perez Pau (2014). *Incomunicacion y tortura. Analisis estructurado en base al protocolo de Estambul*. Bilbo. Ekimen editoriala eta Irredentos libros.



### 3. KAPITULUA

#### Testuinguru historiko eta etnografikoa

---

2. Ingurunearekin izandako harremana eta orientazio-zentzuari dagokionez: Manipulazio bisuala eman da, ziegako argiak etengabe bizturik egotearen ondorioz, edo kontrakoa, ordu luzez iluntasunean egoteagatik. Entzumenen manipulazioa, narritadura eta alerta-egoera sortzeko asmoz zaratak sortuz, hala nola bolumen altuko musika, oihuak eta abar. Temperatura hotzen jazarpena, edota bero eta hotzaren konbinazioak (adibidez, izerdi patsetan egonik ur hotzez bustiz gorputz osoa). Denbora-nozioa ere galarazi izan zaie (ordu eta egunena), erlojua kentzeaz gain, otorduak orduz aldatuz, adibidez.
3. Pertsonaren segurtasun-beharrei lotuta: Ziurgabetasuna, beldurra eta izua atxilotuaren prozesu psikologikoaren kontrolerako ardatz nagusitzat jo dute. Kasu batzuetan, beldur horrek sortutako ezinegona eta blokeoa jasangaitza izateraino. Beldur-prozesu horretan bi gauza nabarmendu dituzte: alde batetik, plausibilitatea, guneak sortzea non atxilotua lehen unetik etengabean mehatxatua den eta, beraz, edozer gerta dakioketela sinestarazten zaion (tartean, berau hiltzeko antzeppenak ere bai); bestetik, tortura- eta heriotza-mehatxuek eragindako espektatibak eraginda eta beste batzuetan pertsonaren beraren irudipenetik abiatutakoak, behin beldurraren labirintoan sartuta. Testigantzen arabera, izu hau mina baino gogorragoa bihurtzen omen da.
4. Heriotza eta itotze-pertzepzio psikologikoak: Buru-estalkiak, burua poltsa batean sartzea, ur edo zikinkeriaz betetako *bañeran* burua sartzea, edo, esan dugun moduan, heriotza-saiakeren antzeppen mota ezberdinak eginez. Horrek guztiak berehalakoan hilko diren etengabeko sentazioa eragin ohi du.
5. Min fisikoari dagokionez: jipoiak eta erritmo zein gune zehatzetan lokalizatutako kolpeak. Ohikoenak dira liburu, aldizkari edo telefono gida batekin burua kolpatzea edo gorputz osoa manta batekin bildu eta lotu ostean jipoitzea. Honetan garrantzia hartuko du, Pako Etxebarria forentse kriminologoak *Info 7 Irratian* 2016ko apirilaren 20an<sup>112</sup> egindako elkarrizketa batean adierazi moduan, 80. hamarkadako tortura-salaketa eta zantzu argien ondorioz, tortura-praktiketako teknikak sotilduz joan dira, eta arrastorik uzten ez duten moduak areagotuz joan dira.
6. Elektrizitatearen erabilera: gorputzeko atal bereziki sentsibleetan elektrodoak ezarri eta deskarga txikiak eraginez: oin-azpiak, barrabilak, titiburuak. Teknika hau praktika gisa erabilia izateaz gain, eragiten duen beldurra dela-eta mehatxu gisa sarriagotan erabili izan da.
7. Ingurunea ulertu eta menperatzeko beharrari egindako erasoak: galdeketa eta hertsadura bidez. Horien artean, autoinkulpazio teknika zehatzak zein ez-zehatzak tartekatzen dira.

---

112 Informazio gehiago: [http://info7.naiz.eus/en/info\\_i7/20160419/paco-etxeberria-los-premios-los-tengo-que-coger-con-una-mano-y-con-la-otra-pasarlos-al-equipo](http://info7.naiz.eus/en/info_i7/20160419/paco-etxeberria-los-premios-los-tengo-que-coger-con-una-mano-y-con-la-otra-pasarlos-al-equipo)

Lehenak, gorago aipatuak izan diren bitarteko guztien emaitza gisa sortuko lirateke, eta bigarrenak poliziak adostutako autoinkulpazioak buruz ikasteko helburua duten galdeketen bidez.

Oro har, galdeketak egiteko moduak pertsonaren borondatea, ezetz esateko ahalmena edo isilik egotekoa haustera bideratuta daude. Atxiloarengan, polizia ahalguztiduna eta orojakilea denaren pertzepzioa eragiten da, eta engainua erabiltzen da, informazio eta promesa faltuen bidez (esate baterako, familiako kideak ere atxilo dituztela adieraziz). Galdeketa egiten duten poliziek ere rol ezberdinak hartzen dituzte (arduraduna, sadikoa, samurra) edo moldea aldatzen dute bat-batean.

Azkenik, atxiloarengan erruduntasun-sentimendu eta sumisio-jarrera eragiteko bideak lantzen dituzte. Atxiloak bere ingurune sozialeko pertsonak inkriminatzea bilatuz behartutako traizioa eragiteko; eta sumisioa, aldiz, ustez ulergaitzak edo zentzugabeak diruditen egoera eta gauzen bidez (atxiloari abestu eraginez edo ipuin eta txistek kontraziz).

8. Integritate psikologikoari dagokionez; norberaren identitate pertsonal, sexual, politikoarekiko jazarpenak eta familia eta bikotekideak mintzeko mehatxuak. Arlo honetan da genero-ikuskeran gehien sakondu den atala.

**Tortura, genero-ikuspegitik:** EAEko kasuan zein Nafarroako kasuan, genero-begirada ahula izan da, eta, lagina aintzat hartuta, gehiago sakontzeko zailtasunak aipatu dituzte. Hala ere, honela laburtu genezake bi txosten horiek erakusten duten genero marka: (1) Itotze lehorra edo poltsa deritzon teknika gehiago aplikatu zaie. (2) Tortura psikologikoa intentsitate handiagoz ezarri zaie. (3) Atxiloketa-baldintza txarragoetan egon dira. (4) Tortura sexuala gizonen baino gehiagotan eragin zaie. Modu batera zein bestera, Euskal Herriko kasuan ondoko tekniken bidez garatu izan da: Genitalen buelta-ingurunean kolpeak edo-eta elektrodoak jartzea, uzkitik edo baginatik objektuak sartzea, biluztera behartzea, ahozko umiliazio sexualak, ukitu sexualak, masturbatzea behartzea, besteen tortura sexuala ikustera behartzea...

### 3.6.2. Partaidetza sozio-politikoaren eta gatazkaren ondorioen konponketaren lurraldea

Irakurtzen ari zaren ikerketa garatu bitartean, asko eta asko dira partaidetza sozio-politikoaren normalkuntzarekin eta gatazkaren ondorioen konponketarekin lotutako albiste eta gertaerak. Bake-prozesua eraikitzeko ahalegina eta hura birrintzeko ekimenak etengabeak izan dira. Zentzu horretan, gatazka armatuaren garaian bezala, ekintzen hika-mika nabarmena izan da: klase politikoaren, epaileen, prentsaren, ETAko biktimen elkartean, poliziaren, erakundeen, herri-eragileen eta presoen kolektiboaren ekimenez, asko izan dira prozesuan aurrera eta atzera egitea ekarri duten ekimenak. Atal honetan, nire ustez, Euskal Herriko politikagintzan eta bereziki

### 3. KAPITULUA

#### Testuinguru historiko eta etnografikoa

---

gatazka armatuaren ondorioen konponbidean jazotako funtsezko gertaera nagusiak bilduko ditut. Ez da oso sakon eta zehatza, prozesua kokatu ahal izateko gutxienekoak baino ez.

- **2012an ilegalizazio-aroaren amaiera:** Ezker Abertzaleak 2010eko otsailean plazaratu zuen estrategia politiko-militarra alboratzen zuen *Zutik Euskal Herria* ebazpena. 2011ko apirilaren 3an aurkeztu zuten Euskal Herria Bildu, eta maiatzaren 5etik 6rako gauerdian eman zuten berria Bilboko Areatzan: EH Bildu legezkoa zen.

«Dena da ETA» izenpean ezagutu izan den strategiaren lehen harria izan zen Mahai Nazionalaren aurkako operazioa, formalki 1998ko uztailean *Egin* egunkariaren eta irratia iren itxierarekin abiatu zena, eta 18/98 auzian gorpuztu zena.

- **2013an Herrira operazioa:** presoek Euskal Herriratzea lantzeko antolakunde herritarraren aurka jo zuen poliziak. Horrekin batera, preso politikoekiko elkartasunez osasungintzan eta zuzenbide aldetik laguntzen egoten ziren kideen aurka jo zuen poliziak. Amaitzeko, Euskal Preso Politikoen Kolektiboa eta gizartearen artean bitartekaritza lanak egiteko sortu zen taldea atxilotu zuten.
- **2016an Foro Sozial iraunkorraren sorrera:** 2016ko ekainetik hasi zen lanean Foro Sozial Iraunkorra. 2013an Iruñean gizarte zibileko hainbat eragilek egindako gomendioen harira hasi eta 2022an desegin da. Bitarte horretan, 35 eta 15 eragileren artean egon dira bertan lanean: memoria-taldeak, sindikatuak, eragile feministak, biktima-taldeak edo gatazkaren ondorioak lantzen dituztenak, besteak beste. Zehazki, euskal bake-prozesua babestea eta ia mende erdiko indarkeria-zikloaren ondorioen konponbidea errazten laguntzea bilatzen zuen, eta, erraztatzaile lanak egiteaz gain, konfluentzia-akordiorako eremuak ere landu zituen. Zehazki, bost ardatzetan aritu zen lanean: 1. Oinarrizko adostasunak eraikitzea, bake prozesuaren erronka nagusiei aurre egiteko. 2. Desegite eta armagabetze prozesu bat diseinatzea, garatzea eta aurrera eramatea. 3. Presoen eta iheslarien berrintegrazioa erraztea. 4. Giza eskubideak sustatzea eta bermatzea. 5. Egia eta memoria babestea, iraganari zintzotasunez aurre egiteko eta etorkizuneko bizikidetzarako oinarriak ezartzeko.
- **2023: Aiete eta hamabi urtera:** Aieteko konferentziako lehen bi puntuak<sup>113</sup> beteak dira, jada ETA desegina delako. Gakoa da ETA desegin aurretik estatuen aldetik ez zela urratsik eman gatazkaren ondorioen konponbidearen bidean. Hirugarren puntua den minaren eta biktima guztien aitortza egiteko lanetan pausoak eman dira; esate baterako, Aieteko Konferentziaren 10. urteurrenean beste jauzi bat egin zuen Ezker Abertzaleak bide horretan. Hala ere, eragile askok ETArekiko kritikan sakontzeko exijitzen diote oraindik

---

113 Zehazki, ondoko bi hauek dira: 1. ETArri jardun armatuaren behin betiko amaiera iragartzeko adierazpen publikoa egiteko eskaera. 2. Espainiako eta Frantziako gobernuak ETArekin «gatazka armatuaren ondorioez soilik» hitz egiteko deia.

ere Ezker Abertzaleari. Madrileko gobernuak, ordea, ez du deus egin tortura-salaketak argitzeko, eta Europak dozena bat aldiz zigortu du Estatu Espainola tortura ez ikertzeagatik. Estatu Espainolak polizia, talde armatu, espetxe-politika edo kale-oldarraldietan hildakoen aitortzan ez da urratsik eman.

Laugarren puntuak ordezkari politikoek gatazkaren erro politikoez aritzeko urratsak ematea gomendatzen zuen, herri-kontsulta iradokitzearekin batera. 2017an, Euskal Hirigune Elkargoaren sorrera izan zen, eta 2018an EAEko estatus politiko berriaren oinarriak lantzeari ekin zioten. Hala ere, akordioak ez du segidarik izan, eta Gure Esku Dago ekimenak dinamika handia izaten jarraitu du gizarte zibilean.

Amaitzeko, azken gomendioa prozesuaren jarraipen-batzordeari buruz mintzo zen. Bada, nazioarteko laguntza izan da ETak bere jardun armatua utzi ostean ere. Hala ere, estatuen aldetik ez dute aitortzarik eta kolaboraziorik ezagutu.

- **2022: preso politikoaren dispersioaren eta isolamendu-politikaren amaiera.** Oso geldi eta pixkanaka eman den prozesuan zehar, euskal preso politikoak Iruñea, Gasteiz, Donostia, Basauri eta Mont-de-Marsaneko espetxeetan batu dituzte. Isolamenduko galeria eta graduetan sistematikoki eta automatikoki ezartzeko joera ere atzean geratu da.
- **2016-2023: Tortura eta gehiegikeria polizialak lantzeko saiakerak:** EAE eta Nafarroako Erakundearen aldetik, torturaren ikerketari lotutako urratsak egin dira, bereziki Eusko Jaurlaritzaren aldetik. Horrekin batera, polizia-jazarpena pairatu dutenen aitortzaren bidea irekitzen ari da 12/2016 Legea.

### 3.6.3. Lurralde feminista

Euskal Herriko mugimendu feministak, bere gorabehera guztiekin bada ere, antolatzeko, mobilizatzeke, eztabaidatzeko eta lorpenak eskuratzeko gaitasun handia erakutsi du. Ikerketa honetako protagonista guztiok, mugimendu sozio-politiko askotariko honek, euskal gizartean eragiteko izan duen eraginaren emaitza gara, eta horixe da atal honen arrazoia. Ondoko lerroen bidez, mugimendu feministak Euskal Herrian erakutsi dituen ezaugarriak aipatuko ditut:

- Mugimendu honek garatutako borrokaldien emaitza gisa, bertako instituzioak biolentzia matxistaren aurka eta berdintasun-legeen alde legegintza- eta arautze-lanetan aitzindari izan dira. Horrekin batera, udalen laguntzaz *Emakumeen etxeak* bezala ezagutzen diren gunek sortzen hasi ziren 2000ko hamarkadan. Lehen urratsak Ermuan eta Arrasaten<sup>114</sup> eman ziren, eta gerora hedatuz joan dira. Gaur egun, helburu eta kudeaketari dagokionez,

---

114 Gehiago jakiteko: <https://goiena.eus/arrasate/1697791154741-emakume-txokoa-aitzindari-eta-20-urtez-eredu>.

### 3. KAPITULUA

#### Testuinguru historiko eta etnografikoa

---

izaera askotarikoak dituzten arren, kasu askotan izaera publiko-komunitarioa hartzen duten espazio horiek mugimendu feministarentzat bilgune eta formaziorako iturri garrantzitsuak dira. Hainbat herritan halakoak aldarrikatzeko mobilizatzen ari da egun mugimendu feminista.

- Ondoko lurraldeetan erreferentzia izan da zenbait borroka izarretan: etxeko langileen borroka, 80ko hamarkadako abortuaren aurkako borrokan, zenbait aipatzeagatik.
- Batasun- eta mobilizazio-gaitasun handia: Martxoaren 8ari begira, biolentzia matxistari begira —azaroak 25 dela edo erailketa bat dagoen bakoitzean—, Mundu Martxaren antolaketari begira, modu bateratu eta koordinatuan aritzen da. Horrekin batera, azken hamar urteetan, ikusgarritasun handiagoa eman dioten zenbait mugari aipatuko ditut: (a) 2014an abortuaren eskubidearen aurka egin nahi zuen Espainiako lege-erreformaren testuinguruan, abortatzeko eskubidearen alde garatutako dinamika eta mobilizazioak. Mugari gisa, aipagarria da irailean lege-erreforma alde batera utzi aurretik, apirilaren 5ean Iruñean Euskal Herriko Abortatzeko Eskubidearen Aldeko Plataformak deitutako nazio-mobilizazioa<sup>115</sup>. (b) 2016an biolentzia matxista eta erasoen aurka garatu zen *Feministok prest*<sup>116</sup> dinamika. Biolentzia matxistaren inguruko gogoeta teoriko eta praktikoa izan zen dinamikaren indargune ikusgarriena Gasteizen apirilaren 9an egindako nazio-manifestaldi jendetsua izan zen. Planto indartsua irudikatuz, leloak berak erakutsi bezala: *11 eraso, 12 erantzun. Feministok prest!*. (c) 2018 eta 2019ko martxoaren 8ko greba feministak eta mobilizazio erraldoiak Kontsumo eta enplegu grebarekin batera, zaintza greba mahaigaineratu zuten<sup>117</sup>. (d) 2013ko azaroaren 30eko lehen greba feminista orokorra, zaintza-sistema publiko-komunitarioaren alde<sup>118</sup>.

---

115 Ikus gehiago: <https://www.naiz.eus/eu/mediateca/video/video-de-la-manifestacion-en-irunea-por-el-derecho-al-aborto>.

116 Xehetasun gehiagorako, ikus: <https://www.youtube.com/watch?v=WXdFfZ3XKV0>.

117 Kontsumo eta enplegu grebarekin batera, zaintza greba mahaigaineratu zuten.

118 Ikus gehiago: <https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20231130/jarraipen-zabala-eta-pikete-jendetsuak-greba-feminista-orokorraren-lehenengo-orduetan>.



## II. ATALA: Etnografian murgilduz







## 4. KAPITULUA

### Partaidetza sozio-politikoaren hastapenak

«(...) beharrezkoa da subjektu historiko eta politiko gisa eratuko den emakume beltzaren identitate aldarrikatzailea. Hala ere, kategoria hori modu egonkor eta finkoan ez pentsatzeko, funtsezkoa da kategoria horren inguruko heterogenotasunarekiko erne egotea».

**Djamila Ribeiro** (2020:66).

#### 4.1. Sarrera

Marcela Lagarde antropologo mexikarraren arabera, XX. mende amaieran erroko aldaketa bat gertatu zen gizarte- eta kultura-mailan; emakumezkoak besteentzat izateak ezaugarritutako existentziatik, haien bizitzako protagonista izatera jauzi egiten hasi zirela, alegia. Historiako protagonista eta subjektu bilakatzeko bidean jarri ziren-ginen, eta horrek hipotesi berri baterako aukera zabaldu zuen:

Emakumezkoak baldintza sozial eta kulturalen sintesi historikoen emaitza direnez gero, eta, beraz, naturaren egitate bat ez diren heinean, gertatzen zaizkien aldaketek aldatu egiten dituzte; eta emakume kategoria desagertzearaino egin dezakete. Aukera horrek drama kultural itzela dakar mundu zaharra alde batera utzi nahi ez dutenentzat; aitzitik, zentzua ematen dio hemendik aurrera beren izaera eta nortasuna birdefinitzeko utopian (benetan existitzen den utopian) sartuta dauden emakumeen bizitzari (Lagarde, 1990: 5)<sup>119</sup>.

Alegia, batzuetan, emakume\* izateko modu bat eta betikoa balego bezala jardunez ari garelara. Autorearen arabera, hori gertatzeko bi gauza omen dira funtsezkoak: bata emakume\* izateko —eta gizon izateko<sup>120</sup>— egon daitezkeen beste moduen *ikusezintasun deliberatua* da. Bestea beldurra da; zehazki, gizartearen eraldaketa kontrolatzeko eta gelditzeko tresna bezala erabilia izan ohi dena. Bada, ikerketa honetako protagonistek emakume\* izateko eta egoteko

---

119 Neuk itzulia.

120 Emakume\* eta gizon izan baino, *egon* esatea egokiagoa litzateke, generoa praktiken bidez egin eta berregiten duguneko teoriarekin bat egiten dudalako. «Praxiari eta etengabeko aldaketari garrantzi handia emate horretan, eta Judith Butler (1999) bezalako egileei jarraiki, generoa ez litzateke jada “garena” —emakumea\* naiz, gizona naiz—, kulturalki finkatutako eta estereotipatuegiak diren identitate gisa (maskulinoa aktiboa, zakarra, oldarkorra... femeninoa sentikorra, zaintzailea, sentsuala... den aldetik), baizik eta generoa funtsean “egiten duguna” bezala ulertzen dugu (Stolcke, 2003), ekintza sozial eta indibidualak, non gorpuztasuna funtsezko dimentsioa den (Connell, 1995; Esteban, 2004)».

askotariko moduak praktikatu zituztela ikusiko dugu, bereziki zortzigarren kapituluan. Eta nago, horrek generoari lotuta zekarren aldaketa kultural eta soziala aintzat hartuta, beldur-dispositibo ezberdinak aktibatzeaz gain —horietako batzuk hirugarren eta bosgarren kapituluetan ikusiko ditugu—, gaurdaino dirauen ikusezintasun deliberatua ezartzen zaiela. Lan honek ezabatu nahi diren emakume\* gisa egoteko modu ezberdinak lekutu dituzten emakume\* horiek aintzat hartu nahi ditu, haien ibilbideei leku bat ematearren: 90eko hamarkadan Ezker Abertzaleko askotariko antolaketa-adierazpenetan parte hartzen hasi ziren emakumeak\*.

Laugarren kapitulu honetan, 90eko hamarkadaren bueltan Ezker Abertzalea osatzen zuten antolakunderen batean nola parte hartzen hasi ziren erakutsiko dut. Alegia, KASen edo bertako talderen batean (LABen, Jarrain, Egizanen, ETAn edo Herri Batasunan) zergatik eta zertarako hasi ziren aztertuko dut: haien partaidetza politikoa abiatzeko agertzen dituzten motibazioak, haien konpromisoak, sortzen zizkien espektatibak eta testuinguru hura nola gogoratzen duten, baita aipatzen dituzten erreferentziak eta bidelagunak, zein oztopoak identifikatu ere. Modu horretan, mundu zabaleko beste esperientziekin alderatzeko moduan egongo gara, eta beste hamarkada batzuetako ikerketetan aurkitu denarekin jarraikortasunak ala etenak dauden ikusteko aukera ere izango dugu.

#### **4.2. Euskal Herrian emakumeek\* mende bat baino gehiago daramate ekintza politiko eta biolentoetan murgilduta**

Gogoan izan behar dugu aztergai dugun emakumezkoen\* belaunaldia 36ko altxamendu faxistaren osteko gudan armak hartu edo atzeragoardian aritu ziren emakumeen\* edo bigarren mundu gerran aritu zirenen ilobak direla; baita ETAn hastapenetan engaiatu ziren emakume\* horien alabak ere. Edo 80 eta 90eko hamarkadetan Nikaraguara eta El Salvadorrera borroka armatua egitera edo laguntzera joan ziren emakumeen\* gertuko belaunaldia<sup>121</sup>. Beraz, horren agerikoa egiten ez bazaigu ere, 90ekoa espetxea, deserría eta tortura hain urrun ez zeukan belaunaldia zen bezala, bere burua bere hautu politikoa defendatzeko indarra erabiltzera behartuta ikusi diuela dioen hirugarren belaunaldia ere bada. Horiekiko begirada, aldiz, generoak, herri pertenezkiak eta ideologiak osatutako arrakalatik egin izan da —eta egiten da—.

Baten batzuk etxean gorde, hango hari janaria eraman, polizia despistatzeko eginahalak egin, beste hango haren gaineko informazioa jaso eta hango besteari eraman, zaurituak artatu, dokumentuak manipulatu, botikak erosi, diruak bildu, muga pasatzen lagundu, pistola saldoak garraiatu eta lehergailuak gordetzen egondako hiru belaunaldi. Isilik egoten eta esan behar ez dena

---

121 Iñaki Gonzalo Casalek, *¿Como no quererte Alba?* liburuan (2010), El Salvadorrera borrokan joan eta han bizitza galdu zuen Gareseko Begoña García Arandigoyen-en biografia jasotzen du. Leire Iburguren Agirrek, Laura esaten zioten liburuan (2016), Miren Odriozolak El Salvadorreko gatazka armatuan izandako partaidetza kontatzen du.

ez esaten ikasi duten belaunaldiak, galdera gehiegi ez egiten eta *ezizenen*<sup>122</sup> munduan nola edo hala murgildu diren emakumeak\*; ageriko bizimodua eta ezkutukoa izaten garatu direnak; gudari eta gerrillari iraultzailearen heroitasunak itzal egin dien emakumeak\*; borrokalariak beharrezko duen informazioa, lotura, babes, etxea, autoak, dirua, botikak, armak, jana, aitortza eta irria eskaini duen hirugarren emakume\*-belaunaldia, hain zuzen ere. Mingarria izan arren, detonagailuen eta pistolen munduan aritu behar izan den hirugarren belaunaldia dugu, finean.

Testuinguruak testuinguru, atze luzea duen hautuaz aritu arren, gaur egun ez ohikoa, arraroa, berezia eta arrotza bailitzan agertzen zaigu, frankismoaren genero-ideologia atzerakoia indarrean egondako ia mende erdia ez baita alperrik igaro. *Emakume\* abertzalea* eta *emakume\* gorria* ukatuz eraikitako andrazko onbera, otzana, isila, elizkoia, garbia eta Espainiari zein senarrari emanaren irudia indartsua da oso<sup>123</sup>, baina iruditeria eta eguneroko praktikak ez datoz bat. Testigantzei behatuz gero, emakume\* guztiak ez ziren egonean egon, baina ez ziren ez-ohiko emakume\* apartak ere. Emakume\* arruntak ziren, haien burua, etxea eta etxeokak gainditzen zituzten asmoen alde eta zirenaren suntsiketaren aurka aritu ziren pertsonak baino ez, kapitalismoaren min eta nahiak erditutako proiektu politiko antonimoak bortizki gudan aritu ziren mendean engaiatu ziren gizabanakoak, haien eskubideen alde mugimendu gisa osatzen joan ziren mendean konprometitu ziren herritarrak, bigarren mailako herritar izateko bokaziorik gabe izan, esan, egin eta erabaki zezakeen pertsona eta herrien alde aritutako norbanako soilak, mende hari zerion konbentzimendu, ilusio, min, grin eta garra zeukan jende-multzoa. Baina horiek guztiak ez ziren berezko ezaugarri pertsonalak, garaiko gizarte eta polarizazioak eragindako ezaugarriak baizik; zalantza eta beldurrez josita egon arren, alde batera edo bestera mugiarazten zituen testuingurura moldatu ziren<sup>124</sup>.

Denboran hurbilen dugun aroan, GRAPON, Komando Autonomoetan edo ETA ezberdinetan engaiatu ziren Euskal Herriko emakumeak\*. Aldiz, denboran gehien luzatu zen ETAn zentratu izan dira ikerketa gehienak. Eta, gainera, ikerketa horiek ETAn ezaugarri abertzalean egin dute indarra, eta ez horrenbeste alde iraultzailean. Zentzu horretan, bat nator Iñigo Bullainekin (2014) hori akats deliberatua dela esaten duenean; ikerlarien pertenezia etnikoa edo proiektu politikoaren eragina agerian uzten duena, gainera. Nago espainiar proiektuaren kokapenetik aritzearen arrakala dela.

Destacar sólo el perfil nacionalista e ignorar el revolucionario es un error, en ocasiones intencionado.

---

122 Begoña García «Alba» zen bezala eta Miren Odriozola «Laura», frankismoko testigantzetan edo ikerketa honetan bertan, torturapean benetako izena ez esateko onena ez jakitea zenez gero, *ezizenez* deitzea oso arrunta izan dela uzten dute agerian.

123 Jakitun naiz euskal abertzaletasun tradizionalak euskal emakume\* aratzaren iruditeria eraiki izan duela, batez ere gerra ostean amaren figurari lotuta, baina kasu honetan frankismoak eraikitako eredia azpimarratzea bilatzen dut, abertzaletasun tradizionalak eraikitako emakume\*-eredu ezberdinetan sakontzeko: Aresti, Nerea (2014). *De heroínas viriles a madres de la patria. Las mujeres y el nacionalismo vasco* (1893-1937). *Historia y política: Ideas, procesos y movimientos sociales*, (31), 281-308.

124 Euskal jatorriko emakume\* gutxiaren testigantzak irakurri ditut, baina Estatu Espainoleko beste lekuetakoe hori adierazten dute. Adibidez, Irene Cardonak (2015) bere lanean jasotakoak: Cardona, Irene (2015). *Aproximación al papel de las mujeres dentro de los grupos armados de la Transacción*. Deskontrol.

Poner el foco sobre el nacionalismo ha servido a diferentes intereses. A quienes querían desprestigiar al nacionalismo vasco en su conjunto para debilitarlo electoralmente, pero también se ha utilizado por el nacionalismo vasco institucional para amedrentar a sus adversarios políticos. En realidad, el fenómeno de la violencia política se ha sustentado en la mezcla que pudiera definirse como revolucionarismo patriótico (Bullain, 2014:491).

Horrekin batera, nire beste kezkek genero-harremanekin du lotuta; zehazki, fokua eta interesa non jarri diren. Izan ere, dela ikerketetan —ez guztietan—, dela landa-lanean zehar ikusi dudan moduan, gatazka armatuaren inguruko genero-azterketa egiteko saio, eztabaida, elkarrizketa edo hitzaldietan, Ezker Abertzale barruan eta, zehazki, ETAREN barruko genero-erregimenak sortzen du arreta handiena. 60 urteko erakunde eta mugimendu baten inguruan azterketa anakronikoak egiteak dakarren arrakalaz<sup>125</sup> gain, gatazkako beste aktoreen genero-erregimenak ez aipatzea deigarria egiten zait, maskulinitatez inor gutxi aritzea bezala.

Deigarria zait, Ezker Abertzaleko emakumeengan\* behin arreta ipinita, beti pairatu duten matxismoan sakondu nahi izatea, eta ez saiatzea belaunaldi horiek ikuspegi feministatik ekarpenik egin ote duten aztertzen. Nago horrek baduela zerikusia generoak beste ardatzekin (klase eta pertenezienekin) gurutzatzean sortzen den emaitzarekiko aurkakotasunearekin; alegia, Ezker Abertzalearen proiektu politikoarekiko —ezkerreko independentismoa— eta erabili dituen moldeekiko —biolentzia politikoarekiko— aurkakotasunak eta desadostasunek eragindako arrakala izan daitekeela.

Hurrengo ataletan, azken aurkikuntza hori berretsiz, 90eko hamarkadan parte hartzen hasi ziren ikerketa honetako emakumeen\* ahotsei egingo diet leku; zehazki, haien diskurtsoei eta neuk entzuten dudanari, noski.

### 4.3. Mundu mailako erreferentziak direla eta

Euskal Herriko emakumeen\* motibazio eta espektatibetan murgildu aurretik, beharrezkoa ikusten dut zenbait ohartarazpen egitea; izan ere, generoa eta gatazka armatuen literaturan, edozein gatazka edo guda, edozein talde armatu, edozein kontinente eta edozein garaitakoak antzera lantzeko joera dagoela antzeman dtut; alegia, orokortzeko joera dago. Nire ustez, ezin konpara daitezke estatu bateko armada eta talde armatuak. Talde armatuen kasuan ere, ez da gauza berbera eskuineko talde parapolizialak izatea ala nazio-askapenerako borrokakoak. Alegia, taldeen ideologiak garrantzia dauka<sup>126</sup>, baita klandestino eta jazarria izateak, ala kontrari, baliabide

---

125 Horren adibidetzat dut Gaizka Soldevilla ikerlariaren ondoko prentsa-artikula: <https://www.elcorreo.com/opinion/tribunas/mujeres-20210421214051-nt.html>

126 Baita ezkerrean barruan ere. Esate baterako, Kolonbiako kasuan, 1964an sortutako ELN eta FARC taldeak, ezkerrekoak izan arren, ezberdintasun ideologikoak dituzte, eta horrek eragina izan du haien antolaketa eta jardueran. Alba Nubia Rodriguezen arabera (2008), bi taldeen arteko aniztasun ideologikoak ELN talde horizontalagoa izatea ekarri du, eta FARCen, ordea, idazkari nagusiak egituren gaineko kontrol handiagoa izatea..

publikoek eta administrazioaren bultzadaz aritzeak. Beste horrenbeste esan dezakegu lurraldeari buruz: herrialde bakoitzaren kulturak, hezkuntza-ereduak, antolaketa ekonomikoak eta politikoak badute eragina, ez baita gauza bera nekazal nagusitasuneko herrialde bat ala industrializatutakoa, emakumeak\* masiboki eskolaratuta egon ala ez egon, estatua laikoa izan ala ez, eta abar luzea.

Zentzu horretan, Euskal Gatazkaren kasuan, bederen Ezker Abertzaleari dagokionez, egokiena nazio-askapenerako mugimenduekin alderatzea dela deritzot. Horien baitan, ideologia iraultzailea bere egin dutenekin eginez gero, hobe. Horri erreparatuz gero, aukerak murriztuz doaz, are gehiago baldintza sozio-ekonomiko-kultural antzekoen bila joanez gero; Europara hurbilduz, alegia.

Jakin badakigunez, Euskal Gatazkan paper protagonikoa izan duen Ezker Abertzaleko mugimendua Berlingo harresia erori aurreko garaian, deskolonizazio-prozesuko nazio-askapenen unean eta iraultza sozialisten aroan eratu eta garatu zen, Kuba, Aljeria eta Vietnamgo moduko esperientziak ipar<sup>127</sup>. Ikerketa honetan, aldiz, harresia erori osteko aroa dugu aztergai, Europa astintzen zuten ezkerreko talde armatu gehienak desagertuta zeuden garaia<sup>128</sup>, praktikan ETA, Korsikako FLNC<sup>129</sup> eta IRA<sup>130</sup> baitira XXI. mendera arte iritsi diren bakanetakoak.

Hala ere, Korsika eta Irlandarekin batera, kontinente ezberdinetako gatazka armatu eta ezkerreko ideologiako nazio-askapenerako borroka esanguratsu batzuen erreferentziak hartuko ditut kontuan; besteak beste, Palestina, Kurdistan, Kolonbia, Hegoafrika eta Tamil herrikoak. Nahiz eta esperientzia horiek oso kontinente ezberdinetakoak izan, denboran gehiago hurbildu edo garaikideagoak izatearekin batera, ondoko hiru arrazoi pisutsuengatik hautatu ditut:

1. Carol Coulter eta Lee (1993) jarraituz, Irlandan eta ukatutako beste nazioetan, emakume\* askok eta askok XX. mendeko mugimendu abertzaleen bidez egin zuten jauzi eszena publikora. Autore berak dio herrialde horietan sortutako masa-mugimenduek eta zeuzkaten estatu-egitura politiko eta kultural inperialistekiko sortutako mespretxuak erraztu egin zutela partaidetza hori. Hori dela eta, herrialde inperialistetako emakumeen\* esperientziekin zerikusirik ez omen du nazio-askapenerako mugimenduetako emakumeen\* engaiamenduak (1993:3).

---

127 Horrela aitortzen dute Ezker abertzaleko bozeramale publikoek. Ikusi: [https://www.atresplayer.com/lasexta/programas/salvados/temporada-11/capitulo-18-entrevista-arnaldo-otegi\\_5ad094dd7ed1a88d4ef8120c/](https://www.atresplayer.com/lasexta/programas/salvados/temporada-11/capitulo-18-entrevista-arnaldo-otegi_5ad094dd7ed1a88d4ef8120c/)

128 Estatu Espainolean bezala, Europan barna ere (berezi Italian), eskuineko talde armatuak egon ziren bigarren mundu-gerra ostean. Ezkerrekoei dagokienez, ezagunenak eta esanguratsuenak, Brigada Gorriak (1970-1988), Alemania RAF (Rote Armee Fraktion) (1970-1994), Frantziako Acción Directe (1979-1987), Grapo (1975an sortua eta, desegin ez den arren, ia aktibitatearik gabe darama 90eko hamarkada erdialdetik).

129 1976an sortu eta 2014 arte iraun zuen *Fronte di Liberazione Naziunale Corsu* zeritzon talde armatuak.

130 Zatiketa asko izan ditu, baina 1998ko Ostiral Santuko akordiotik, borroka armatua Irlandan beste aro isilagoan dagoela esan daiteke.

2. Nazio-askapenerako mugimenduak kolonoen eta inperialisten abertzaletasunaren —eta estatu horien— aurkako mehatxuak dira, ez soilik statu quo ezbaian jartzen dutelako, baizik eta gatazka azpian ezkututzen diren botere-harremanak birdefinitzea bilatzen dutelako.
3. Bereziki Palestinako eta Irlandako kasuetan arreta ipini zuen Sharonik (1998, 2001) dio askapen-mugimenduak, gerora nazio iraultzaileak ezartzeko agertokiak izateaz gain, sarritan borroka-leku bihurtu izan direla beren baitan, eta, beraz, emakumeek\* eta gizonak etorkizuneko nazioa zer ikuspegik eta ideiek osatuko duten jakiteko borrokatzen dutela bertan. Barne-eztabaida horiek genero-gaiak eta -harremanak izaten omen dira.

Beraz, hautatu herrialde horietako kasuetan, gatazka armatuak nazio-askapenerako mugimendu ezkertzaletz osatuta daude; hortaz, euskal kasuari begiratzeko parekotasun gehiago eskaintzen dizkirate, beste gatazka batzuek baino.

#### 4.4. Mugitzen hasi. Agentziadun emakumeak\*

*Nik ez diat inoiz esango / hire egin beharra zein den / nik aspaldi egin nian aukera /  
jotake irabazi arte.  
Jaio ginen bai / guda baten erdian / urteak pasa / ta berdinean gaude  
ez esan inoiz / hau bukatua dago / ez inoiz esan / bidea amaitu da.  
nik ez diat inoiz esango / hire egin beharra zein den / entzun jendearen ahotsa /  
jotake irabazi arte.  
SU TA GAR musika taldea<sup>131</sup>*

Su Ta Gar-en abesti hori ez da orduko ezkerreko gazteria independentistaren subjektibitate politiko kolektiboaren berri ematen duen bakarra, baina kanta horrek, oso gutxik bezala, modu esplizituan adierazten du. Konpondu gabeko gatazka eta zaurietara erdituak, aurreko belaunaldien dema bere egin eta bide bakartzat zuten borrokaren alde egitea hautatu zuen gazte-komunitatea agertzen du. Gudatzat zuten gatazka horrekiko bete-beteko konpromisoaren aldeko aldarriak mutilek zein neskek egin zituzten.

Ikerketa honen bidelagun nagusien artean bada aniztasunik, ibilbide militante eta errepresiboetan, hizkuntzan, bizi-tokian, familia-egoeran eta beraien egungo konpromiso mailan ere. Baina gazteago ala helduago, konpromiso-maila handiagoaz ala txikiagoaz, Ezker Abertzaleko kide egin ziren 90. hamarkadaren bueltan, batzuk hamarkada hastear edo hasi berri zela eta beste batzuk amaieran (ikus partaideen denbora-lerroa 10. irudian).

Orain artean, Ezker Abertzaleko emakumeen\* partaidetzarako motibazioez egin diren ikerketa feministek diskurtso mediatiko, literario eta zinematografikotik zabaldu izan den iruditeria ezeztatu dute, edo, behinik behin, ñabardura garrantzitsuz bete dute. Zehazki, emakumezkoak\*


---

131 80ko hamarkadaren amaieran Eibarren sortutako musika taldea. Abestiak *Mari* izena du, eta lehen diskokoa da.

Ezker Abertzalean gizonekin zituzten harreman sexu-afektiboen bidez (eta harreman horien eskutik) sartu izan zirela dioen diskurtsoaz ari naiz. Jarraian, ikerketa horietako hiruren bidez, argudiaketa ezberdinak azaldu eta laburtuko ditut.

### 10. irudia

Partaidetzaren denbora-lerroa



Iturria: norberak egina.

1. Teresa del Valle (1985) zuzendu zuen *Mujer vasca: imagen y realidad* laneko ikergaia oso zabala izan zen, eta, gatazkaren gaia gainditzen bazuen ere, *abertzaletasun erradikaleko emakumeen\** partaidetzaren motibazioak landu zituen. Lan horrek diosku gizonekin izandako harreman afektiboak pisua zuela —ez dute zertan bikotea izan behar—, baina, aldi berean, emakume\* horien engaiamendurako beste bi motibazio hauetan ere indarra egiten du: naziotzat zuten Euskal Herriaren zapalketa sentitzeko modu gordina, eta beste munduetara irekitzeko nahia. Finean, ideologia eta aukera berrien guraria (azken horrek genero-mandatuei muzin egiteko nahiarekin izan dezakeen lotura azpimarratu nahi dut).
2. Zuriñe Rodriguezek (2017) idatzi du, berak aztertutako garaian (1958tik 1982ra) eta emakume\*-multzoan —ETAko emakumeak\*—, motibazio nagusia Euskal Herri aske baten proiektu politikoarekiko atxikimendua izan zela, baita garaiko errepresio-testuinguruarekiko lotura orokorra ere. Baina, horrekin batera, arrazoi pertsonalak ere aipatzen ditu, tartean oso hurbileko pertsonekin lotura duten inpaktu emozionalak (atxiloketak, torturak, erailketak, ETAn sartzea), gehienak ere errepresioari lotuak. Bestalde, generoarekin lotutakoak ere aipatzen ditu, funtsean, bizi-aukerak zabaltzeko eta askatzeko nahia.

3. Carrie Hamilton (2007) dugu aipaturiko tesia ezeztatzen irmoena. Autore horren doktore-tesiko unibertsoa ere ETako lehen urteetako emakumeak\* izan zen (1958tik 1982ra). Bere ustez, emakumeak\* arrazoi pertsonal eta politikoengatik egin ziren ETakide, eta, funtsean, «arrazoi horiek gizonen motibazioei gainjartzen zaizkie» (2007: 111)<sup>132</sup>. Are gehiago, Hamiltonek kontrakoa adierazten duen literatura herrikoa eta zientifikoa kritikatu du, esanez delako baieztapen horiek gehiago dutela *fantasia publikotik* eta genero-ideologiatik errealitatetik baino (2007). ETako emakumeen\* errepresentazioak auzitan jartzen ditu, estereotipo sexualez beteta daudela adieraziz, eta emakumeak\* biktimatza eta agentzia gabekotzat aurkeztu ohi direla baieztatuz. Kontrara, berak ikertutako emakumeek\* esplizituki adierazi zioten inork ez ziela iruzur egin, ezta behartu ere; funtsean, motibazio politiko eta pertsonalengatik sartu zirela ETan, eta ez bikote gizonen eraginez.

Ikerketa honetako protagonistak diren Ekiñe, Lua, Alba, Irene, Sara, Maitena, Xune, Mari, Lur, Sua, Lili, Lola, Alazne eta Maddik ere, behin eta berriz, hautua eta erabakia beraiena eta propioa izan zela azpimarratzen dute. Erabat bidegabetzat jotzen zuten garaiko testuinguru soziopolitikoaz eta errepresio oldarraldiaz mintzo dira, baina baita askatasun eta justizian oinarritutako proiektu politiko batekiko atxikimenduaz ere. Ezker Abertzalea zerbait handitzat zuten, estatuei erronka jotzeko gaitasuna zuen mugimendutzat, historia idatz zezakeena. Eta garrantzitsuena zena, beraien bertan emakume\* gisa leku bat zeukatela sentitzen zuten. Jarraian, motibazio horiek modu sakonagoan ezagutuko ditugu.

#### 4.4.1. 78ko erregimenean kabitu ezinik bizi zen eta mundu berria oraindik egiteke zeukan belaunaldia

Beraien motibazioak azaltzeko garaian, injustu edo bidegabetzat jotzen zutena agertuz doa kontakizunetan, eta, horrekin batera, garaiko giroaren deskribapen bizitua ere:

Nik uste dut nire amaren aldetik amonaren eragin handia eduki dudala. Hori oso sartuta eduki dut. Amonak txiki-txikitandik kontatu zizkidan, oso garbi, zehatz mehatz gerra-garaian, bizi izandako istorioak. Istorio horrek oso sartuta izan ditut, eta nik esango nuke, gurasoena baino gehiago, amonaren kontakizunekin eduki dudala sensibilitate berezi bat, herri honek pairatu izan duenaren kontzientzia. Sentsazioa nuen, ez geundela behar genuen lekuan. (...) ez nuen ikusten bidezko egoeran bizi ginenik, eta dana aldatzeko beharra zegoela sentitzen nuen. Nire partetik ekarpena egin ahal nuela sentitzen nuen. Ez nuen ikusten herri osasuntsu bat, bere eskubideak bermatuta zituen herri bat... sufritzen ari zen herri bat ikusten nuen, eta errekonozitu gabeko herri bat. (...) Normalizaziorik eza..., hori nik uste dut umearotik ikusi dut, ... ikusten denaren atzean badagoela esan gabeko gauza asko, konpondu gabeko gauza asko, beldur asko zegoela... eta oraindik ezin direla esan ere egin. Herri txikietan, auzoetan, konpondu gabeko min handiak zeudela, baina oraindik ezin zela hitz egin horretaz. Ez zegoela egoera normal bat. Nik uste dut ni gehien-gehien horrek ikutu nauela hasieratik. **Maitane**



Maitanek oso ondo azaltzen duen moduan, atzerako begiradan, zuzenean ala zeharka, 36ko Espainiako estatu-kolpea eta gerra osteko 40 urteetako diktadura dira erreferentzia nagusiak. Umezaroan eta gaztaroan aurkitutako errealitatearen erroak han kokatzen dituzte. Zehazki, 39. urtean gailendu ziren botere-harreman edo indar-korrelazioen herentziazat dute «jasotako egoera». Orokorrean, biolentzia, izugarrikeria eta gezurrez osatutako arotzat dute gerra eta gerra osteko diktadura; eta 78ko erregimena, horren luzapen inposatua.

Bidezkoa iruditzen ez zitzaion egoeran jaioa eta harrapatua sentitzen zen Ekiñe, inork berarentzat hautatutako munduetan bizitzen, eta horietan kabitu ezinik. Hizkuntza eta herri-identitate arrotzaren inposaketa, euskalduna izateko zilegitasun-eredu baztertzaila, klase sozial eta generoaren arabera bizi-ereduen ezarpenak, *txikitatik amorrua*<sup>133</sup> eragin eta *barru-barrutik horren kontra* aritzeko sentimenduez ari da. Bere mundua kategoriatan *markatuetan* antolatuta eta banatuta ikusten zuen, erabat modu baztertzaila edo hierarkikoan, gainera, *handia eta txikia bezala*.

Nik uste dut oso umetatik izan nuela zapalkuntza ezberdinen sentsazio hori edo bederen aske ez nintzela. Ikastolan gogoratzen naiz eskola nazionalak nola ziran, eta gu joaten ginen ondoko herrira, 4 kilometro eta erdi zeudela, ba Ikastolara. Eta hor, neretzako zan klase-gatazka, edo oso presente, nik bizitzen nituen gauzak benetan barru-barrutik, eta izorratzen ninduen gauzetako bat zen, haundia eta txikia bezela, bi munduen artean egotea bezela. Eta bi munduen artean egotea zen, ba, bat, PNVko zortzi abizen euskaldunak, burges horietan, klase eta identitate horietan. Ze horientzako ni ez nintzen euskalduna, nik zortzi abizen euskaldun ez nuen, nik hola bizi nuen, sentitzen nintzen erasotua horiekiko. Eta bestea espainolekiko, ezta? O sea, asimilatu beharreko espainola zara, ezta? Orduan neukan oso txikitatik amorru edo hori, eta argitasuna inork ez duela erabakiko nik nola sentituko dudana, nola hitz egingo dudana, ni neu izango naizela. Eta hori ja Ikastolan jada zan beti kriston borroka, ezin nuela aguantatu klaseekiko desprezio horiek, «zuek zer ikastera zatozte, zuek baserriarrak zarete», o sea, zan barru-barrutik horren kontra, ez isiltzeko joera eta zerbait egiteko. [...] Txiki-txikitatik oso bai, oso gatazka horren... nolabait opresio horiek edo ez nintzela aske sentitzen, eta nik uste txikitatik beti eduki nuela garbi ez nintzela belauniko bizitzen utziko, eta horren kontra eta egunen batean bai borrokatuko dudala, ez dakit nola, baina... bai, argi zegoen. Gero joan ere berdina, klaseak ere oso markatuta, ze joaten ginen familia proletario batetik, oso markatuta, non aitak bakarrik lan egiten zuen, eta orduan zan Ikastolaren zuzendariak bideratzen zuen ikasketak zure klasearen arabera, zure medio ekonomikoen arabera, orduan gu joan ginen argi eta garbi FPra [Formación Profesionala delakoa], argi eta garbi lan egiteko eta etxera dirua ekartzeko. Orduan ja hor hasten dira ere, ta egia da ni fisikoki eta kirolean-eta oso ona, eta, alde horretatik, ba mutilentzako gauzak, rol horiek... baina egia da kapazitate ekonomikorik ez, eta amaitu nuen administratibo egiten, ez hori naizelako, baizik eta hori zelako bide errezena dirua ekartzeko etxera, eta ikasketak euskeraz nahi genituelako eta hori zen aukera bakarra, eta etxean zera esaten zuten. **Ekiñe**

Testuinguru horretan, iruditu zait aitona-amonek galdu zuten mundu berrirako aukeraren dema irabaztear zutela uste zuen belaunaldi berri gisa ulertzen zuela bere burua. Frankismoak ahaideak nola, haiek 78ko erregimenak itota sentitzen ziren: *egunen batean bai borrokatuko dudala, ez dakit nola baina*. Gerora, *nola* hori bigarren frankismoan ETaren sorrerarekin hasi eta delako «trantsizioan» apurketaren hautua defendatu zuen Ezker Abertzalea zela ulertuko zuen. Denek, 36. urtetik ordura arteko jazarpen-katea (askotariko eskubide-galeraz osatutakoa) hausteko

---

133 Elkarrizketatuen lekukotzak testu barruan hitzez hitz gehitzean letra etzanez azpimarratuko ditut

borroka-aterpe egoki edo bakartzat zuten Ezker Abertzalea, eta beren belaunaldia, aldiz, behingoan etena ekarriko zuen katebegitza.

Edukiari dagokionez, egunero-egunero bazela zerbait dio Lurrek: 1) unibertitate-ikasketak euskaraz osotasunean ezin burutzea, 2) jaiak pribatizatzeko saiakera, 3) soldaduska egiteko derrigortasuna, 4) gaztetxeen aurkako politika, 5) desmantelatze industrialia, 6) ETTen eta enplegu prekarioen legeztatzea<sup>134</sup>, 7) desberdinkeria sozialak eta pobrezia<sup>135</sup>, 8) gazte-langabezi tasa handia, 9) eraso matxistak. 10) IHESA. 11) droga-menpekotasunak eta droga-trafikoa.

Beraz, politikoki parte hartzen hasteko motibazioei dagokionez, Maitaneren ondoko bi ideioi ondo laburbiltzen dute: *Ez geundela behar genuen lekuan eta dena zegoen aldatzeko*. Zentzu horretan, hiru elementu nabarmendu dira, frankismoa nola interpretatzen zuten eta frankismo ostea nola bizi zuten erakusten digutena (bi aroei ezaugarri berdintsuak egozten dizkiete, funtsean): 1) euskaldunentzat herri-aitortzarik eza eta proiektu propioa garatzeko aukerarik eza; 2) diru eta ondasun kapital handiena pilatzen dutenen agintea; 3) hainbat herritarren aurkako jazarpen bortitzarekiko inpunitatea. Mundua eta bere herria beste modu batera antolatzei aukera indarrez zapuztu zitzaion komunitate bateko kidegintza dute beren burua.

#### 4.4.2 Errepresioa engaiamendurako mugarri

Arestian aipatutakoekin batera, errepresioaren aurkako dinamikak indar handia eskatzen zuela ikusi dut: 1) gerra zikinaren oihartzunak; 2) kaleko manifestazioekiko poliziaren esku-hartze bortitzak<sup>136</sup>; 3) ilegalizazio-estrategiaren hastapena<sup>137</sup>; 4) udaletako bazterketa politikoa<sup>138</sup>; 5) preso politikoen aurkako dispersio politika; 6) tortura<sup>139</sup>; 7) atxiloketa sarekada<sup>140</sup>. Justu errepresio-bide ezberdinak haien politizazio prozesuan mugarri izan zirela adierazten dute askok.

---

134 1994. urtean legeztatu ziren Felipe Gonzalezen gobernupean

135 1997. urtean herri-mugimenduen aldetik Oinarrizko Errenta ezartzeko Herri Ekimen Legegilea abiatu zen.

136 Asko eta asko izan ziren hamarkada hartan zauritu zituzten pertsonak. Kasurik larrienak aipatzearen Ekiñek berak gogoratutakoak ekarriko ditugu: 1991. urtean Mikel Iribarren eta 1993. urtean Txuma Olaberri gazte nafarrak larriki zauritu zituzten: lehena hil ala biziko egoeran izan arte.

137 1997. urtean Herri Batasunako Mahai Nazionala espetxeratu zuten ETak publiko egindako *Alternatiba Demokratikoa* zabaltzeagatik. Delako *Alternatiba Demokratikoa*, ETak Espainiako eta Frantziako gobernuarekiko balizko elkarrizketa eta negoziazio-prozesu batean KAS alternatibatik ordura arte proposatzen zituen aldaketan berri eman zuen. 1998. urtean EGIN irrati eta egunkaria itxi zituzten, gerora beste hainbat antolakunde bildu zituen 18/98 sumario ezagunari hasiera emanez.

138 Ilegalizazioen aroan, Ezker Abertzaleko Erakundeetarako ordezkariak ere ilegalizatu izan zen, beraz udal-politikatik baztertuak izan ziren. Gainontzeko alderdi politikoen haiek inkluitzeko biderik ipini ez zutela interpretatu eta «lapurrak» eta «Apartheid politikorik ez» dinamika abiatu zuten herriz herri

139 1993. urteko irailean Gurutze Iantzi eta Xabier Karparsoro guardia zibilaren eta Espainiako poliziaren eskutan hil ziren.

140 Poliziaren operazio bakarrak gazte-multzoa zuenean saldotzat: 5, 10, 15 gazte atxilo hartuz. Razzia modura ere izendatua izan dena Ezker Abertzalearen aldetik.

Gazte-gaztetan hurbiletik bizitako errepresio-esperientziek haiengan izan zuen inpaktua nabarmena da, kasu batzuetan haien engaiamenduan mugarri modukoa bilakatzeraino, jautzia egiteko azken aupada modukoa izan zela ematen baitute aditzera. Hurbilekoen atxilotetak, dela senideak, dela herrikideak, dela ezagunak, tortura-testigantzak edo heriotzak, GALen erailketak... bakoitzak badu bere gertakari gordin zehatza buruan iltzatuta.

También detuvieron a mi hermana, y eso ya me motivó más. La detuvieron cuando... vivíamos cada una en un piso, no vivíamos juntas. Y entonces fueron a detener a un compañero de piso de ella, y cuando llegaron al parecer solo tenían la orden de detención de esa persona, pero se encontraron con gente de diferentes *herrialdes* y dijeron, «pues nos llevamos a todos». Y solo le tuvieron unas horas, pero eso me dolió, me indignó. Y ya eso fue el motivo ya, me había centrado donde había estado estudiando pero allí ya sí, ntre en Gestoras [Gestoras pro amnistía]. **Alba.**

Me marcaron unas cosas, yo recuerdo que estábamos en el instituto y detuvieron a la ama de Goreti, a Mentxu, la de mi pueblo. Bueno es que a mí de *txiki* me marcó que mi ama me llevó a una charla de... no, era una rueda de prensa, era una charla que la daba una *neska* además, de LAB de mi pueblo, ahora no recuerdo el nombre pero para mí ha sido alguien como... ¿sabes? Además como mujer, militante, sindicalista, de mi pueblo, super... una de mis referencias. Y estaba hablando de tortura, estaba contando lo que le había pasado. (...). Y yo recuerdo que una de las cosas que me marcó (...) los carteles que relataban lo que le habían hecho en comisaría, que era bastante bárbaro. Desde introducirle la pipa en la vagina... eran unas torturas muy *gores*, y aquello me pareció una bestialidad todo. Venía con eso en la cabeza... ¿qué tendríamos, 14 años? Claro yo les conocía desde cría, a ella, le conocía desde cría. Y era como... buffff. Fue como mi contacto, mi contacto más directo con lo que es la tortura, lo más bestial y desgarrador. Como... hostia puta, lo que está pasando aquí. **Lola.**

Gu gaztetxoak ginela, gure senide bat, ihesean joan zen, etxera bere bila joan zirenean, ihes egin nahi izan zuen, ... zauritu eta ospitalera eramane behar izan zuten. Eta, bueno, kartzelara sartu zuten, Bisitak izan genituen... eta hori nola bizi zen gure familian ikusi nuen. Uste dut barrutik horrek ere ikutu ninduela. **Maitane.**

Ze nik uste det gero lehen pasartea gogoratzen dudana da Joxe Arregiren erailketa, eta hor bai nabaritu nuelako izu kolektibo bat, izua nere etxekeengan, gurasoengan eta tabua zen zerbait: tortura... orduan izango nituen, ba... 81 zan, ba 8 urte, eta hori gogoratzen naiz, oso garbi, esan nuen «ostras, Ja, hauek dira gaiztoak», bakizu, umeen mentalitatea, gaiztoak eta... ba honen kontra egin beharra dago. Oraindik tortura-eta zer zen jakin gabe, baina izu kolektibo hori, gogoratzen naiz manifara joan ginela eta *marroiak* [polizia nazionala], daukat oraindik errepideko kruze hori iruditan, eta gurasoen izua ateratzeko, eta sortu zidana da beldurra, bai, gurasoena, baina amorru hori. Eta gero ia Ikastolan lehenengo greban, 7. eta 8. mailan, atxilotu zituztelako gurekin Ikastolan ibilitako batzuk, piskat zaharragoak ziran jada Ikastolatik aterata, eta nolabait niretzat argi eta garbi zegoelako, ze gu elkarrekin jolasten ginan... eta bestea ere asko markatu ninduela da gure irakasle bat atxilotu zutela ere. Ondoko gelakoa zan, baina zan apreziatzen nuen irakasle bat, baina atxilotu zuten bere anaiaren bila joan zirelako, eta, bueno, zan gauza horiek, ezta? Nola egun batetik bestera konfidantzako pertsona horiek desagertzen ziran eta pun! **Ekiñe.**

Argi dago garaia modu intentsoan bizi izan zutela, eta, intentsoa zela hitzez, errepikapenez eta adjektibo bidez adierazteaz gain, beste hainbat modutara ere antzeman daiteke. Esateko moduetan harridura- eta sumindura-tonuak sarri agertu dira, negar edo begi bustiak agertu diren legez. Elkarrizketa-unean, garaiko giroa eta errepresio-egoerak kontatzen ari zirela, askoren

begiradak salatzen zuen buru-bihotzetik eszena eta gertakari asko pasatzen ari zitzaizkiela; min, amorru, inpotentzia eta harridurak bat egiten duen emozio mutu moduko batean. Isiltasuna egin da holakoetan, eta haietako batzuk elkarriketatik ausente geratu dira tarte batez.

Errepresioak ingurune hurbileko jendea *eraman* egiten zuen, eta, ondorioz, *desagertu*<sup>141</sup> egiten zirela diote. Errepresioa natur fenomeno indartsu, oldarkor eta erraldoia balitz bezala deskribatzen dute, pare-pare zuen guztia gupida gabe eramateko gai zena eta gogor kolpatzen zituena.

#### 4.4.3. Emozioak haiek eta gu marrazten

Sara Ahmed-ek (2014) dio emozioek lerrokatze eta taldekatzeekin zerikusi handia dutela, gorputz indibidual eta kolektiboaren «azala» moldatzen dutelako, hain zuzen ere; alegia, gorputzek besteekin —eta objektuekin— duten harremanen araberako forma hartzen dutela. Emozioak nia eta guaren azala eta muga eraikitzeke prozesuan parte aktiboa dira, haren ustez; funtsean, emozioek eremu psikikoa eta soziala eraikitzen dutelako. Orain artekoari erreparatuta, emozioak politikarako oso garrantzitsuak direla esan dezakegu, botereak gorputzen eta munduen azala nola moldatzen duen erakusten digutelako. Horregatik, Ahmedek emozioak politika kultural modu bezala landu ditu, munduaren eraikuntza-modu bezala, azken finean.

Partaidetza sozio-politikoaren eremura eramanda, horrek esan nahi du subjektua ez dela horrenbeste eratuko bere adimenari egindako interpelazioaren emaitza gisa, baizik eta gorputze modu gisa. Emozioak ikasi egiten direlako, emozioek sinesmen eta balore eroale dira —ondo eta txarto dagoenaren inguruko balorazioa daramate haiekin—, emozioek norbanakoa mobilizatzen dute. Horrek esan nahi du emozio jakin batzuek gorputzak moldeatu eta komunitate jakin batekiko lerrokatzea eragin dezaketela. Alegia, emozioak ikasiak eta konpartituak dira, eta esperientzia kolektiboaren parte ere badira (Esteban, 2015).

Horren gaizto eta bortitz dakusaten testuinguruan, eta testuinguruarekiko zerbait egitera behartuak sentitu zirela diote, betebeharrak moral modukoa sentitzen zutelako aditzera emanez. Ezin zirela gelditu geratu, zerbait egin behar zutelako, *mugitu*. Testuinguru hark *ukitu* egin zituen, beraz, beraiek erabat astinduta utziz. Egoera hori gainez egitea bezala deskribatzen dute, beraien gorputz eta onetik erabat kanpo uzten zituen egoera, eta hortik beraien erreakzioa: *Zerbait egin behar zan, no podía quedarme quieta, eso no se podía permitir*. Geldi egoteari utzi eta posizioa hartuz, zerbait egin nahian *mugitzen* hasi ziren, hortaz.

Gehienak oso gaztetatik, ikastetxearen testuinguruan. Asanbladetan parte hartuz, manifestazioetara joanez, kartelak eginez, eztabaidetan iritzia emanez, Ezker Abertzaleko egin

---

141 Desagertu esaten dutenean, kaletik desagertzen direla esan nahi dute. Ihesera jo dutelako edo espetxeratuak izan direlako.

ziren. Erreferentzia politiko-kolektibo indartsu gisa sentitzen zuten Ezker Abertzalea. Mercedes Arbaizaren (2015) arabera, une historiko jakin batean narratiba zehatz batek limurtzeko duen gaitasuna azal dezake emozioen teoriak. Horrek esan nahi du kategoriatan, errelatuetan, nola jasoa den eta nola afektatzen duen hori emozionala dela, eta afektatze-ekintza hori subjektibitateen eraikuntzan zentrala izango dela. Bada, hori da argiki haien hastapeneko engaiamenduak adituz ikus daitekeena.

Oro har, ikusi dugu haien izatea eta proiektuak lekurik ez zuen gizarte bortitz batean murgildua ikusten zutela beren burua. Eta, testuinguru horretan, Ezker Abertzaleak horren inguruko arrazoi eta ondorioen inguruan zeukan narratibarekin bat egiten zuten. Injustuztat sentitzen zuten orduko marko juridikoa, inposatzen zitzaizkien biolentzia eta bizi-baldintzak. Mundu-mailako beste gatazka politiko armatuetan esku hartu duten emakumeen\* motibazioei dagokienez: bizirauteko aukera gisa, Tamilek (Alison 2009), etxeko biolentziari aurre egiteko, Kolonbian<sup>142</sup>(Nubia, 2008), genero-mandatuei ihes egiteko, Kurdistanen (Tugrul, 2021) haien lurralde eta komunitateen defentsan aritzeko, Irlandan eta Hegoafrikan (Gurpegi, 2022), (Zirion eta Idarraga (2014) ) edo gizonen motibazio berberengatik (herrialde guzti horietan eta gehiagotan ere) izan dela ondorioztatu dute lan ezberdinek (Bosi, 2012). Euskal Herriko kasuan, motibazio nagusiak ez dituzte genero-kondizioarekin zuzenean lotuta agertu. Hamiltonek (2007a) ETAko emakume\*-kideen arrazoiak gizonen arrazoei gainjartzeko modukoak zirela esan zuen, eta beste horrenbeste Caroline Guibetek (2020). Kasu honetan ez ditugu gizonen motibazioak aztertu, eta, beraz, ezin aldera dezakegu; hala ere, genero-ikuspegitik erabat garrantzitsua deritzot ikusi dugunari: a) beren burua subjektu politikotzat zuten. b) Ezker Abertzalean haientzat lekua zegoela sentitzen zuten.

#### 4.5. 90eko hamarkada eta Euskal Gatazka haien begi-bihotzetatik

Ikusi dugu Ezker Abertzalera hurbiltzeko eta militatzeko konpromisoa garaiko testuinguruari lotuta kontatu digutela. *Oso gogorra zen, mundu guztia mugitzen zen, egunero eta etengabe zerbait gertatzen zen* moduko esaldiak erabili dituzte garai hura deskribatzeko. Esate baterako, gogortasunaren berri emateko *konbultsoa, gogorra, latza, brutala, gordina, bortitza, eskandaloso, eta bestial* moduko adjektiboak erabili dituzte. Sarri bitan ere errepikatu dute berba edo *oso* gehitu diote intentsitatearen berri emateko. Are gehiago, gehienek *gerra* deitzen diote gatazkari, *gerra* bezala bizi zutelako. Salbuespenezko denbora eta lekuan bizi zirela sentitzen zuten. Etengabeko gertakariz betetako eta azkartutako denbora gisa deskribatzen dute garai hura, esperientzia totalizatzaile eta intentso modura. Kanean egoten, eusten, elkarrekin egoten, aritzen eta ekiten egiten zen gatazka deskribatu dute. Hurrengo atalean, garai hura nola gogoratzen duten sakonago aletuko dut.

---

142 Landaguneetan eta hiriguneetan ez dira motibazio berberak ageri. Zehazki, landaguneetan hartzen du pisua etxeko biolentzia matxistaren arrazoiak. Rodriguez (2008).

#### 4.5.1. Gerra bat zen

Estatu Espainolak, bere gobernu guztiakin eta guztietan, ez du Euskal Gatazka aitortu, auzi politiko gisa bederen. Euskal disidentzia terrorismotzat jotzeari ekin zion frankismoan; baita gerora ere. Era berean, jakina den moduan, gudetako estrategia militarrek erabili zituen estatuak, aitortu gabeko guda hartan: tortura, bahiketak, mehatxuak, jazarpen eta jarraipenak, hilketak, leherketak<sup>143</sup>.

Ikerketako partaideek, ordea, ez zuten gatazka ezeztatzen; are gehiago, gatazkaren erro politikoen aitortza aldarrikatzen zuten. Hala ere, esanguratsua da Euskal Gatazka *guda* gisa izendatzen dutela, tarteka. Jakin dugunaren arabera, horrek ez du esan nahi militarki pareko ziren eta militarki zirt ala zart, irabazi ala galdu egiten den konfrontaziotzat zutenik Euskal Gatazka. Printzipioz, arazoa politikoa zen heinean, irtenbideak politikoa behar zuela errepikatu digute, behin eta berriz. Zehazki, auzi politikoei irtenbide errepresiboak baino ez eskaintzea da Estatu Espainolari aurpegiaritzen diotena, eta, hemerotekara joz gero, horixe da aurkituko duguna Ezker Abertzaleko txosten eta deklarazio publikoetan.

Orduan, zer da guda izendatzeak adierazten diguna? Uste dut Gatazkaren konponbide politikotik urruntzeak dakarren militarizatze prozesuak eragindako sentimenduen berri ematen digutela. Errepresioaren dimentsioa azpimarratzeko guraria, estatua edozertarako prest zegoela adieraztekoa —legalki, legeditik kanpo edo legeak aldatuz—; horrela, bada, haien garaian ere «gerra bat zela» eta «gerran zeudela» esateko arrazoiak desagertu baino, areagotuz zihoazela eman dute aditzera. Are gehiago, «Dena da ETA» bezala ezagutarazi zen estrategia judizial eta politikoz geroztik, non hainbat eragileren ilegalizazioek espetxe-zigorrek ekarri zituzten eta Ezker Abertzalea ordezkartza politiko gabe utzi zuen instituzioetan —haiek «bazterketa-garaia» edo «apartheid» bezala izendatzen dutena, alegia—. Prozesu hori herri eta komunitate bezala txikitu, ezdeustu eta erabat desagerrarazteko prozesu bezala bizi izan zuten, espresio eta proiektu politiko gisa, dela kaleetatik, dela instituzioetatik, dela fisikoki ere ezabatzeko saiakeratzat.

Ba bai... sentrazioa neukan gu txikitzen ari zirela, txikitu... gerora *Egunkaria* etorri zan bebai, sei hilabetetara edo... zan... esaten dizut, hilabete batean 40 lagun atxilotu, jenerazio oso bat zakutik hartzera bidali zuten, eta ez gurean bakarrik, berdina gertatzen zen beste hiriburuetan. 700-800 preso, jendea nire inguruan, 40 horietatik atxilotu ez zituztenak, sasira edo Iparraldera egin zuten alde. Ni atxilotu ostean, kalean geratu nintzen, eta nik neukan sentrazioa zen nire jeneraziotik ni nintzela bakarra geratzen zena bost urteko bueltan. (...) ez dakit injustizia den hitza, baizik eta gerra bat da! O sea, están matando nire inguruko jendea, nire familia, nire herria, hemen zerbait egin behar da. (...) O sea, injustizia baino gehiago neukan sentrazioa zen, nos van a aniquilar. Justo zan Euskal Herria Askatu eta lazo urdina, lazo urdindunak sartzen alde zaharrean eta botatzen olioaren erretzen jendeari. Biolentzia-puntu bat hain bestiala, hain gaztea izanda. Rosa Zarra hilda, Olaia Kastresana hilda, reventada, Ohiane Errazkin espetxean urkatua. O sea, zer geratzen da? O sea, ez

---

143 Gehiago jakiteko: Agirre, Asensio, Bustillo, Egaña eta Zubimendi (2014): *La guerra no declarada. Terrorismo de estado en Euskal Herria*. Euskal Memoria Fundazioa.

da nik manifak eta gauzak bizi nituela urrunetik, gertatzen dela ez dakit non, eta, hala ere, mintzen nau, ez, ez. **Sara.**

Orduan gu pleno guztietara, batzorde guztietara joaten ginen eta, tira, hemengo PNVk oso zikin jokatu zuen, gezurrak... oso krudela, zikina izan zen dena (...) oso bortitza izan zen, oso hasiera gogorra. Min handi batekin hasi ginen lanean. Apartheid egoeran geunden. Herriko sektore bat, eta lanean buru-belarri egon zen sektore bat bazterrera utzi zen. Herrikoak ginen, bagenuen zer esanik eta zer emonik baina aukera guztiak ixten zizkiguten. Eta ahalegindu ginen, hautetsi taldea, hor batzen ginen jendeari begira...ba batzordeak, plenoak... gauzak antolatzen genituen, gu hor buru-belarri: Gu hemen geunden, salatzen eta ekarpena egiten, salatzen eta ekarpena egiten. Baina ez zen gozoa, oso tensoa izan zen, gainera herri txikian, dena geratzen da oso hurbil. Zure auzoa da izan daiteke PNVko zinegotzia eta hor dago zuri egurra ematen. Ez ziguten ezer egiten uzten, ez jaiak antolatzen, ez ezer. Bizikiderza asko tenkatu zen. (...) Hor sakonduko banu, ... gauza asko gertatu ziren. Harremanak asko gaiztotu ziren. **Maitane**

Badaude gatazka bizi zuten intentsitatearen berri ematen duten beste zantzu batzuk ere. Zehazki gatazka eta gudetan, denborak eta espazioak hartzen duten garrantzia eta nolakotasuna agerian uzten digutena; besteak beste, abiadura, izaera totalizatzailea, guneen defentsa eta iniziatiba izatearen garrantzia.

*Egunero bazen zerbait eta estabamos en la calle todo el rato, todo el rato* bezalako adierek, Ezker Abertzalea eta herri-mugimenduak etengabeko aktibismoan sartuta irudikatzen garamatza:

Zan garai bat, ba... ez bazeuden atxiloketak egunero zan, bi egunetik behin, zipaioen oldarkeriak ziren bestialak, manifak zeuden, manifa bat zegoen, han kargak zeuden, atxiloketak han bertan; beraz, beste manifa bat; beraz, zen egunero-egunero kriston tentsioa, amorrua. **Sara.**

Ze gaur egun Euskal Herrian ez dira hainbeste gauza gertatzen, baina garai horietan... **Lur.**

Eran los años 80, todos los días hostias en la calle y era lo que veíamos y lo que mamábamos. **Alba.**

Etenik gabeko «ekintza-erantzuna-ekintza» dinamikaren berri ematen digute, eta, beraz, Euskal Gatazka abiadura handian bizi zen zerbait zela ematen ari dira aditzera, gertakariak elkarren gainean zangopilatu eta behar besteko patxada hartzeko aukerarik ematen ez zuen sasoia, bizitzeko modua. Abiadarekin batera, tempusak haiek ezartzeak, estatuari aurrea hartzea eta aurreratzea bilatzen zuten. Eta horrek bazuen militatzeko moduan eraginik (bostgarren kapituluan ikusiko dugun moduan), *kalera* atera, *kalean* egon, eta *kaleari* eutsi, exigentzia handiko lana baitzen; modu batera edo bestera, gatazkaren eszenatokia *kalea* baitzen.

#### 4.5.2. Kalea gurea da

Gero, herri-mailan ere errepresio handia zegoen. Castresana<sup>144</sup> hil zutenean, Galindo etorri zan, gazteak ginen, baina geratzen da hori memorian, ezta? Kanean geunden, han nengoen hartan. Ba bizipen gogor horiek markatzen dute dextente. (...) Ni garai horretan, ni beti izan naiz Ezker Abertzalekoa, baina inoiz ez nuen inon militatzen. Baina beti Ezker Abertzalekoa izanik, manifa guztietan izan naiz. **Alazne**

Horren polarizatua zegoen gizartean, posizioa hartu eta iritzia emateak pertenezia zekarren, baina batez ere manifestaldietara joateak eta kanean egoteak. *Kalea* hitzaren esangurari heltzeak merezi duela deritzot, *kalera jaitsi*, *kanean egon* errepikatzen baita behin baino gehiagotan.

Kalea espazio publikoa izendatzeko darabilte, eta hura praktikan definitzen duena bere erabilera da, ez horrenbeste bere estatutu juridikoak (Segovia eta Dascal, 2000). Bat nator nortzuk erabiltzen duten, zertarako erabiltzen duten eta zelan erabiltzen duten, horrek definitzen duela espazio publikoa; beraz, zerbait fisikoa, sinbolikoa eta politikoa ere bada, *ekintzarako agertokia* (Joseph, 1998).

Espazio publikoan gizarte eta une historiko bakoitzeko kontraesan eta borroka politiko, sozial eta kulturalak agertu, adierazi, bat egin edo aurkakotzen diren gunea ere bada (Segovia, 2007). Bada, aktore sozio-politiko kulturelek garrantzi handia ematen diote, horrexegatik hain zuzen, espazio publikoaren erabilera eta esangurei, bereziki publikoa deritzon horren gainean erabaki ahalmenik ez dutenek.

Nora Rabotnikof-ek (2005) espazio publikoa hiru esanguretan aintzat hartzea proposatzen zuen: 1) Denontzat eskuragarria dena, ez elitista; 2) Komuna eta partekatua dena, ez intimoa; 3) Ikusgarria dena, ez ezkutukoa. Proposamen horri jarraituz, espazio publikoaren erabilera *herritarra*, helburu *komunitarioduna* eta modu *askeetan* erabilitakoa izatea zirudien iparra Ezker Abertzalearen kasuan —eta, diotenagatik, baita herri mugimenduen kasuan ere—.

Modu batera zein bestera, eremu hori *borrokagai* bilakatzen da, *irabazi* beharrekoa. Euskal Gatazka —eta, bereziki, 90eko hamarkada— horren erakusgarri garbia da; zehazki, hiru mailatan:

1. 90eko hamarkada kudeaketa herritarra eta instituzionalaren arteko gatazka handia izan zen hamarkada izan zen. Esate baterako, Gaztetxeen itxierak, kultur etxeen irekierak, jai batzordeetan parte-hartze herritarra mugatu eta jaien antolaketan iniziatiba pribatu-merkantila sartzeko saiakerek eta abarrek hainbat gatazka eragin zituzten, etengabeko pultsua sortuz. Eragile askok aldarrikatzen zuten eremu publikoa herritarren zerbitzura egoteko aldarriainstituzioen kudeaketa murriztaileak eta fiskalizazioak borrokatzeko beharra

---

144 1988an, Miguel Castresana ETako kidea tiroz hil zuten:  
[https://elpais.com/diario/1988/09/24/espana/591055201\\_850215.html](https://elpais.com/diario/1988/09/24/espana/591055201_850215.html)



(Pascual, 2015, 2019). Kalea instituzioei kontrajartzen zitzaizen zentzu horretan, kudeaketa horretatik kanpo geratzen zirenen edo geratu nahi zutenen eremu bilakatuz. Instituzioak klase politikoaren ikurtzat zeuzkaten, haien proiektu eta interes partikularren defentsan arituko zirenena. Kalea, herritar-sektoreen gune kuttuna zen. Kalea, herritarren tokizat dute, eta, beraz, Ezker Abertzalearen tokia kalea da, herritarretatik hurbilen dagoen lekua.

2. 78ko erregimenetik zetorren joera. «Trantsizioa» onartu ez, eta estatua eta bere egiturak zilegitzat jotzen ez zituen mugimendua zen Ezker Abertzalea. Komunikabide, egitura judizial, administrazio eta erakunde politikoetatik zabaltzen zen *bertsio ofizial* eredu egia aurre egiteko, espazio publikoa eta bertako mobilizazio eta propaganda ziren *Ezker Abertzaleak bere egia* plazaratzeko zeukan eremu bakar eta pribilegiatua. Norgehiagoka horretan, garrantzi handikoak bilakatu ziren 90eko hamarkadarako, lehenagotik zetozen estatu-mailako zein EAEko plan ezberdinak: 1983ko *ZEN plana*<sup>145</sup>., 1984ko *lege antiterrorista*, 1987ko *Acuerdo de Madrid sobre terrorismo*, 1988ko *Ajuria Eneako ituna*<sup>146</sup>. Plan horiek eragina izan zuten espazio publikoaren erabilerarekin, komunikabideen eta kale-adierazpenen erregulazioarekin, eta adierazpen-askatasunaren eta mobilizatzeko eskubidearen estutzearekin gertatutako aldaketetan.

Deskribatutako aurreko bi joerei, aldaketa globalak ekarri zuen bideo-zaintza eta udal-ordenantza murriztak gehitu behar dizkiogu, indarrez sartu eta hedatu baitziren hamarkada honetan.

3. Diskurtsoen konfrontamendua kaletik egin eta irabazi beharra bereziki argigarria suertatu zen *lazo urdina* eta *Euskal Herria Askatu* deitu ziren elkarretaratzeen bidez. Astelehenero, aurrez aurre kontrajartzen ziren bi leloak eta bi elkarretaratzeak. Astero-astero botatzen zioten elkarri erronka, eta pulsu horrek tentsioa pilatzen joatea ekarri zuen: Ezker Abertzalearen aurkako polizia-jazarpenak, kale-oldarraldiak 1997ko uztailean Miguel Angel Blanco-ren bahiketa eta osteko hilketaren harira, eta, behin baino gehiagotan, herritarren arteko hika-mika bortitzak.

Amaitzeko, kalea borrokagai egiten zuten hiru dimentsio horiekin harreman estuan dago 90eko hamarkada ezaugarritu zuen Kale Borroka. Herri-mobilizazio ezberdinen aurkako polizia jazarpenari oldartzea eta kale-istiluak berriak ez baziren ere, horien antolakuntza-mailak zein, oro har. mediatikoki, judizialki eta polizialki<sup>147</sup>emandako urratsek entitate propioa eman zioten molde horri.

---

145 Kontrol parlamentario gabe Estatu Espainoleko polizia etxe guztietara banatu zen planari deritzo. Sara Alvarezen ustez (2016), euskaldunen inguruko estereotipoz jositako plana zen. Nazionalismo espainolari darion begirada dikotomikotik eraikia eta hura indartzen zuena. Horrela, frankismoaren ekarpenetik abiatuz, euskaldun onak eta txarrak banatzen zituen, are gehiago, euskaldunak eta terroristak (azken hauei euskaldutasuna ere ukatuz). Gehiago ezagutzeko: Álvarez-Pérez, S. (2016). La imagen del pueblo vasco en el plan Zona Especial Norte (España, 1983): un análisis desde la perspectiva de los estereotipos. *Iberic@* 1, (10), 93-107

146 Beste itunak 95.orrialdean azalduta datorren Ajuria eneako itunaren parekotzat eta aurrekaritzat jo daitezke.

147 Ez dugu ahaztu behar hamarkada honetan hasi zirela istilu horiek Entzutegi Nazionalen eta lege anti-terroristapean epaitzen.

Egiari zor, Ezker Abertzaleak mobilizatzeko gaitasun izugarria erakutsi du hamarkada luzeetan zehar. Deitutako mobilizazioen maiztasuna eta asistentzia-mailari beha, ezin besterik esan. Are gehiago, beldurgarria zen biolentzia-egoerak gertatzen zirela kontutan izanda<sup>148</sup>. *Kalea gurea da* leloak adierazten duen moduan, Ezker Abertzalea kalea hartzen saiatzen zen kartel, margoketa, pankarta eta etengabeko mobilizazioen bidez. Poliziak, berriz, euskarri komunikatibo guztiak kentzearekin batera, mobilizazioak eten eta zapuzteari ekiten zion. Eta, modu horretan, polizia-karga hasi aurreko mobilizazioa, zeina pankartari eusten diotenak eta polizia ilara prestua aurrez aurre kokatuta materializatzen baita, modu askean aritu nahi duten herritarrez eta nahi hori zapuzten duen estatuaz osaturik dagoela dakusagu.

Kalean egotea erresistitzea ere bazen, eustea; baina ez bakarrik. Asanblada informatiboak kalean deitzen ziren, ekonomikoki autogestionatzeko ekimen ezberdinak kalean garatzen zituzten, ospakizunak ere kalean egiten ziren —herri-bazkariak, musika-emanaldiak, mendi-irteerak, bizikleta-martxak, kotxe-karabanak...—. Zentzu horretan, *kalea* etxea ere bazen, Ezker Abertzaleak praktika politikorako berezko espaziotzat jotzen zuena.

Ikusi dugun moduan, *kalea* lurralde politikoa zen. *Kalea* borrokaleku eta borrokagaia zen. Ezkutatu eta ezabatu nahi zen Ezker Abertzalearen egia soziala ikusgarri egin, instituzioen arautze baztertzaile eta elitistei kontrajartzen zitzaien erabilera zeukan eta —partekatua-kolektiboa zein heinean— herritartasun berriarena izango zen eremuazen *kalea*. Eta han *denek* egiten zuten bat, hurrengo atalean ikusiko dugun moduan.

#### 4.5.3. Denak mugitzen ziren

Oso politizatua zen garaia zela adierazten digute. Kontzientzia kritiko eta gaitasun mobilizatzaile handiko gizartea, aroa eta belaunaldi politiko baten berri emanez, finean. *Mundu guztia mugitzen zen* sentrazioa du Xunek. Bere inguruan, parte-hartze politikoa zabala eta ohikoa omen zen —gazte moda<sup>149</sup>—. Zehazki, beraientzat, helduen artean erreferenteak ziren asko, politikoki parte hartzen zuten edo manifestazioetara joaten ziren neba-arrebak, lehengusuak, gurasoak edo irakasleak. Etxekoen kasuan, ezkerreko, abertzale edo feminista izan dituztenen kasuetan, ama erreferentetzat jo dute bost kasutan; besteetan, guraso biak edo aita aipatu diren bitartean. Lagun taldeei ere egin diete aipamena; haiek ere militatzen zutelako, haiek ere atxilotuak izan zirelako. Askotan, laguntasuna, parranda eta militantzia gauza bakarra balitz bezala mintzo dira.

Aldi berean, beraien kontakizunak agerian uzten du denek ez zutela haien subjektibitate politiko berbera, ez beren komunitate politikotik kanpo, baina ezta barruan ere. Alegia, denak

---

148 Besteak beste bi pertsonak bizitza galdu zuten egoera horietan, 1995an Rosa Zarrak Donostian eta Imanol Lertxundik Ondarruan. Beste asko zauri larriekin geratu ziren betiko. Txuma Olaberrik begia galdu zuen eta Mikel Iribarrenek aurpegia erre zuen.

149 Adierazpide honekin parte-hartze politikoa prestigiatutako gauza zela adierazi nahi dut.

ez ziren topera engaiatzen, eta beste gauza batzuk lehenesten zituzten (ikasketak, bikote-bizitza, enplegua...), *bizimodu normal bat*, *bizimodu eroso bat* haien hitzetan, bizimodu normatiboa, alegia. Eta Lurrek, adibidez, ezin du ezkutatu horrek harridura, atzerakada edo ernegua eragiten ziola.

Gerora sorpresa txarrak eraman ditut, ze nik uste nuen ni bezela mundu guztiak izan behar zuela. Edo hobeto esanda, mundu guztiak ni bezela pentsatzen zula uste nuen. Eta konturatzen zera ezetz, orduan hasten zera begiak irekitzen... ba igual militantzia ez degula denok berdin bizitzen ezta? Eta mmm... arraroa egin zitzaidan. Legitimoa, e? bakoitzak bere aukerak egiten ditu, baina arraroa egin zitzaidan ze ez nuen uste horrela zenik. **Lur**

Beraz, mundu guztia mugitzen zen baieztapenarekin haientzat erreferenteak ziren pertsonak politikoki kritiko eta konprometituak zirela adierazten ari dira, eta horrekin haien bizi-mundua mundu bakartzat ere jotzen ari dira, Lurren kolpeak argi erakusten duen moduan. Partekatzen zuten ideologia-komunitateko pertsonak, heldu izateko ereduaren artean lehenesten zuten moduko pertsonen beste guztiei baino balio handiagoa ematen ari dira horrela, haiengan marka handia utzi zuten seinale, haientzat erreferentzia zen eredu argia zedarriz. Ez horrenbeste haien gurasoen modukoak izan gura zutelako, baizik eta iragan luzea zeukan borroka baten katebegi sentitzeak zekarrenagatik baino, Ezker Abertzalea baitzuten borroka erreferente gisa, zinez estatuari erronka jotzeko gai zen mugimendua, beste mundu bat erditu nahi zuena eta horretarako gai zena. Eta haiek erreferente kolektibo horren parte izan nahi zuten, parte egin ziren, hurrengo atalean ikusiko dugun moduan.

#### 4.6. Noiz eta zein espektatibarekin hasi ziren mugitzen

Motibazioekin batera, espektatibei erreparatzeak badu genero-ikuspegitik garrantzi berezia. Izan ere, espektatiben alorrean, desioak, gurariak eta grinak kontuan hartu behar dira, eta horietan agertu ohi dira batzuetan emakume\* hasi eta hezi izanari lotutako ametsak (Alison, 2009).

Aipatutako nazioarteko esperientzia horietan, herria-lurraldea, herritarren eta herritartasunaren defentsa izan dira nagusiki emakumeak\* borrokara lotu dituenak, nahiz eta beste aspirazio batzuk ere izan (Sow, 2017). Zehazki, Kolonbiako ELNren kasuan —bereziki nekazal inguruko jatorria zutenen artean (Nubia, 2008)— eta Kurdistango kasuan (Tugrul eta Lafayet, 2022), bertako genero-mandatuei eta genero-biolentziari ihes egiteko modua ere izan da. Bestalde, kasu guztietan, lurralde- eta nazio-askapenerako prozesuak emakume\* horien subjektibitate feministan eragin du, behin militante bihurtu direla. Alegia, esperientzia politiko edota armatua prozesu feminista indibidual eta kolektiboetan sartzeko baliagarria izan da. Celia Muriasek dio (2020) XX. mende amaierako emakume\* afrikar askok eta askok<sup>150</sup>

---

150 Zehazki, hedapen kolonialari aurre egin eta deskolonizazio-prozesuei ekin zioten ondoko liderrak aipatzen ditu, eta nik lerrootara ekarriko ditut ikusgarri egiteko asmoz: Nigeriako Ransome-Kuti, gerora Afrikako lehen emakume\* parlamentari bilakata zen Ghanako Mabel Dove-Danquah, Vera Chirwa malawiarra.

kontinente hartako nazio-askapenerako mugimenduetan politika eta borroka armatua eginez egin zuten ekarpenaren emaitza dela Afrikako egungo mugimendu feminista.

Hala ere, ezin esan hori gauza automatikoa denik, ezta emakume\* guztiei eragiten dienik; izan ere, emakume\* batzuentzat eraldaketa erradikal baterako aukera den bitartean, komunitate berbereko beste emakume\* batzuentzat ondorio larriak dakartza (Murias, 2020).

Atal honetan, parte hartzen hasi zireneko adina, lekua eta espektatibei leku egingo diet.

#### 4.6.1. Gazte-gaztetatik eta ikastetxeetan

Ikastetxeetan borroka propioak zituzten eta *kristonak montatzen genituen institutoan, las calefacciones, lo otro... o sea, ni beti izan naiz la delegada de clase, bai?* Baina ikastetxeetara gizarteko beste gatazkak ere eramaten zituzten. Gizartea astintzen zuten beste gaien inguruko grebak egiten zituzten; esate baterako, fabriken itxierak, derrigorrezko soldaduskaren aurka, gaztetxe baten itxieraren aurka, herriko gazte baten atxiloketaren kontra. Asanblada eta mobilizazio horietan parte hartuz, beste gela eta ikasmailetako kideekin harremanetan sartu, eta aktibismorako bestelako guneak sortzen zituzten, hala nola neska gazteen taldeak, Egizan, Ikasle Abertzaleak, presoek taldeak, euskara-taldeak eta abar.

Hasi ba... hasiko nintzen, gutxi gorabehera, orduan nituen 14 urte, ba orduan Jarrai zegoen amaitzen... Haika hasi baino lehenago ari zen prozesu bat ematen Amaiur, orduan ez nengoen Jarrain baina bai nengoen inguruko talde horretan, anaia ere hor zegoen. (...) Eta orduan zerbait egin nahi horrek, ze institutoan ere jolas-ordua, eta pankartak egitera jeitsi, karretera moztu...osea zen dena hola. **Sara**

Hasi nintzen dana institutuaren inguruan. Nire institutoa oso euskaltzalea zan, eta Ezker Abertzaleko jende pila bat zegoen, bai irakalse aldetik... ikastetxe publikoa zan e? Eta hor zegoen jende pila bat, talde pila bat, dana bor-bor... eta hor hasi nintzen neu ere instituto inguruan. Batez ere hasikera-hasikeran emakume-taldeetan. Bertako emakume-talde baten, eta Egizanen be bai. Hori izan zan nire oinarrizko formakuntza, inoiz gero ahaztu ez dotena edo. Eta gainera emakumez bakarrik osatutako talde horietan, defendatzen genituela *a capa y espada*... mutilen presentziatik. Eta iruditzen zait oso baligarria... orain igual gauzak beste modu batera egiten dira, baina niretzat oso-oso baligarria izan zan, oinarri hori niretzat funtsezkoa izan da. **Xune**

Ba institutoan, soldadutzaren kontrako borrokan. Lehenengo zan *soldaduska honi ez*, eta gero ja danari ez. Insumisio-borroka<sup>151</sup>. Greba pila bat egiten ziren. Nire lehenengo kartela, bandera frantses bat eta español bat tatxatzea izan zen. **Lili**

---

151 Soldaduskari intsumisioa egitearen borrokan eragile batek baino gehiagok parte hartu zuen. Esanguratsuenak: MOC-KEM, Kakitzat eta Jarrai. Lili, zehazki, Jarraik bultzatutako dinamikaz ari da. Jarraik bilakaera ideologiko nabarmena izan zuen gai hori dela eta. Hasiera batean, Soldaduska espainlaren aurka baino ez zen agertzen. Ondoren, barne-eztabaida baten ostean, desmilitarizazioaren aurkako ildo oso bat adostu zuen, eta lan dinamika hori bultzatu zuen. Gehiago jakiteko ikus: Ormazabal, Markel eta Sierra, Irati (2019) *Eta segi Aurrera. Ezker Abertzaleko gazte antolakundeek 40 urteko historia bat*. Txalaparta.

Nik gogoratzen dut grinaz, ikastetxeko ezinegona, *borreguismoa* sentitzearen ezinegona. Ia 15-16 urterekin non pertsona ia gai den gauza polit pila egiteko, eta *borreguismoaren* amildegirantza somatzen nuen. Eta hortik ateratzeko lan-tresnen beharra. Somatzen dut, oraindik ere, hainbeste jende hainbeste ordutan, gizartearen makineriarako prestatzen egotea. Hortik ezandarazteko beharra gogoratzen dut, pozik gogoratzen dut. **Lua**

Partaidetza horrek, kasu batzuetan, herri edo auzoko beste partaidetza batzuetarantz lerratzea ekarri zuen; Jarrain, Egizanen edo Herri Batasunan, adibidez. Bigarren urrats hori, jada, parte hartzeko norbaiten gonbita bidez gogoratzen dute batzuk, zerbait garrantzitsu bezala. Konprometitzeko jauzi gisa.

Gogoratzen dut 16-17rekin esan zidatela Jarrain parte hartzeko, eta hor si fue el salto, baina personal. Hor bai sentitu nuen sartzan nintzela politikan, hor bai sentitu nuen nire militantzia politikoan salto kualitatibo bat. Y a partir de ahi, IAn (Ikasle Abertzaleak) edo beste gauza batzuetan egiten nituen gauzak hartu zuten beste dimentsio bat. Proposatatu zidan neska batek sartzeko, eta oraindik oroitzen dut. (...) Baina bai, porque sí, porque me parecía, o sea, oroitzen dut que crecí dos palmos cuando entré a Jarrai, y me daba la sensación que todo el mundo tenía que saber que yo estaba en Jarrai, aunque yo no se lo dijera a nadie, o sea, que ya identitate berri bat, identitateak ematen dizun indarrarekin eta posizioarekin. Sentimendu horretaz oroitzen naiz pila bat. Eta niretzat Jarrai zen garai horretan ez dakit, gerra... no sabría definirlo, baina zerbait inportantea, eta ni zerbait inportante horren parte izan nahi nuen. Eta zerbait inportantea ez en el sentido de ospea, sino de ja konpromezu bat. Nik sentitu nuen hartzen nuela konpromezua. **Irene**

Hor bazegoen Herri Batasuna, ze herri handietan bazeuden beste kolektiboak-eta, baina herri txikietan ez zegoen... Bazegoen Ezker Abertzalea, baina ez zegoen hola amnistiaren aldeko taldea, euskerarena eta hola, baizik eta dena zan komitearen<sup>152</sup> bidez. Eta hor, ikasten ari naizela, eskeintzen didate lan bat eta zan herri txikiak dinamizatzeko, eta hor laguntza behar zutela dinamizaziorako eta, hor hasten naiz kolaboratzen, eta, han nagoela, proposatzen didate zinegotzi sartzeko, eta hor nituen 19 urte. Ta hor zan ere, instituzioak ez direla nire basea, nire borrokaren zera. Ni ondo sentitzen naizena kalea da, herri-mugimenduak, baina bai 19 urtekin ikusten nuen kazikismoa, kazikeak bezela funtzionatzen zela herri txikietan, gizonak zirela eta hor bai, nolabait esan nuen «igual gazte eta emakume bezela saiatuko naiz, joan eta gure iritziak eta zergatik ez» eta, egia esan, hor kriston bultzada eta babesa izan nuela orduko komitearena. **Ekiñe**

ETako partaidetzak ezaugarri bereziak ditu, pertsonaren bizitza bere osotasunean baldintzatu zezakeelako. Horrez gain, ETakideen ustetan, erakunde horretan sartzea lehenagotik datorren engaiamendu politiko baten barruan egindako beste urrats bat da, garrantzitsuena agian, baina alde zurretik izan bada Ezker Abertzale edo beste herri-eragile batzuetako partaidetza. Kasu askotan, ETako kidetzak beste partaidetza politiko batzuekin bat egin zuen denboran, nahiz eta, askotan, ETako militantziak beste horiek alde batera uztea ere eragin<sup>153</sup>. Modu batera edo bestera,

---

152 HBko herriko komiteaz ari da. Bertan udaleko zinegotziak eta herriko beste kide batzuk elkartzen ziren. Herri Batasunako egiturako herri mailako partaidetzarako markoa zen. Auzi garrantzitsu eta estrategikoetan eztabaidagune eta erabakigunea Herri Batzarra zen, izaera publikoa zeukan noizean behingo markua.

153 Gehienetan, poliziaren aurrean arreta ez eragitea eta diskrezioz aritzea gomendatzen omen zelako; segurtasun-arrazoiengatik, beraz. Horrek parte-hartze politikoa eta, zehazki, proiektu abertzale independentista eta ezkerrekoak susmagarri bihurtzen zintuela uzten du agerian.

Ezker Abertzaleko erakunderen batean parte hartu eta ETako partaidetzaren artean ezberdintasuna egiten dute, baita, azken horretan ere, gradu edo faseen artean. Horrela badakigu ez dela gauza bera «legal» bizitza eramatea ala klandestinitatean «ilegal» egotea, «legal» zein «ilegal» egonda ere, ezarritako edota hautatutako funtzio-zereginak bizipena erabat aldatzen zuela dakigun moduan. Buruan, gogortasunaren araberrako hierarkia modukoa balu bezala ari dira, baina baita bizipena alda dezaketeen askotariko egoerez ere. Kasu batzuetan, legal bizitza klandestinitatekoa baino latzagoa egin zitzaie, klandestinitatera heltzea atsedean hartzearekin lotuz. Irenek, adibidez, galduta zuen hilerokoa berreskuratu zuen behin klandestinitatera joanda. Beste batzuetan, klandestinitatea, atera gabe gorde-gordeta eta luzaroan egote hori, beldurgarria dela diote. Horrela mintzo dira Sara eta Irene, hurrenez hurren:

Ez nuen dudarik izan, eta banekien zertaz ari nintzen, ze jendeak esaten du «eske adin horretan» eta ez, ez, adin horretan ni oso konziente nintzen. Edo hilda amaitzen nuen, edo kartzelan amaitzen nuen, edo han eskegita auskalo zenbat urte. Hori egia da konziente nintzela, horretaz. Momentua heldu zenean baiezkoa eman nuen. **Sara**

Beti oso konziente. Orduan bi konzientzia horiek, de que lo que haces sirve para algo y al mismo tiempo la libertad de tomar tú esas decisiones. Y en ciertos momentos sentir esa libertad ba, oso ederra izan da. **Irene**

Bada baldintza batzuen araberrako baiezkoa eman zuenik ere, bere burua zenbait gauzatarako gai ikusten ez zuelako edo horrelakorik egin nahi ez zuelako. Hala ere, borroka armatua egitea zer den estereotipatua edo modu partzialean ikusita dagoela adierazi dute: *Gauza asko zeuden egiteko, ez zen dena armak erabiltzea*, errespetu handiena eragiten zuena eta hainbat emakume\* eta gizon atzera bota zezakeena hori zela aditzera emanez. Ez zaie beste norbaiti bizitza kentzerik egokitu, baina badakite —eta kideengan ikusi dute— horrek zerbait apurtzen dizula barruan betiko; eta, askotan, botaka eginez azaleratu izan dela min hori.

Bada ETAn parte-hartzeari ezezkoa emandakorik ere, proiektu pertsonalen garapenarekin bateragarria ez izateagatik —esate baterako, ikasketak eta amatasuna—, Ezker Abertzaleko beste antolakundeetako bere partaidetza garrantzitsuagoa zela irizten ziolako, edo borroka armatuarekin erabat kritikoa izateagatik.

ETAn inplikatzeko ere gonbidapen-unea oso ondo gogoratzen dute. Gutuna jaso zuten istanta, pasean zeudela lagunak proposatu zienekoa, lehen hitzorduaren gorabeherak... Poza, harridura, kezka, urduritasuna eta zirrara adierazten dituzte.

Baina bai, gogoratzen dut urduri, etxera iristean izango banu bezela hemen (bekokia markatzen du) un gran sekreto, baina markatuta banu bezela hemen, beldurra ere ama ohartuko zen zerbaitetaz. **Sara**

Gogoratzen dut topatu nintzela lehen eguna, (...) beraiekin, bikin bakarrik. Beraiek zeudela ihesean. Eta izan zan oso naturala, ze ematen zun betidanik ezagutzen ginala, eta... izan zan super polita. Ni

beldurrez nihoan, begiratzeko alde guztietara, ia norbaitek ezagutzen zitun... baina si inork ez daki ezer ez. Eta izan zan oso paseo polita, hasieran beldurra, pentsaturik norbait konturatuko zala, baina gero ikusten duzu dela lagunekin buelta bat ematen ari ginan bezela. **Lur**

Oro har, partaidetza politikoak eta —zer esanik ez— ETAn aritzeak aldaketa eta jauzia eragin zuen haien bizitzetan. Ordura arte sekula egin gabeko gauzak egiten hastea ekarri zien, erronka eta ikaskuntza etengabea. Urduritasuna, segurtasunik-eza eta beldurra sentitu arren, aro polit gisa gogoratzen dute, aldaketa ekar zezakeen eta, haien ustez, ekarriko zuen mugimendu politiko indartsu baten kide zirelako.

#### 4.6.2. Ezker Abertzalearen erreferentzia-ikur

*Oso handia eta indartsua zen horren parte izan nahi zuten, Ezker Abertzalea eta borroka horrela ikusten baitzituzten, gizarte kontserbadorearen, injustuaren kontrako ikur eta gizarte-mundu berri baten aldeko aukera gisa. Bertan parte hartu nahi zuten, ahal zuten, eta gai sentitzen ziren. Aurreko belaunaldien erronkari segida eman nahi zioten. Historia egin nahi zuten, nos ibamos a comer el mundo y la ibamos a liar petarda* dio Xunek.

Y formar parte de ello, me parecía y me parece lo más grande. Y la izquierda abertzale era la hostia. Para mí la izquierda abertzale era la hostia. **Lola**

Eta uste nuen ekarpen bat egin ahal nuela, bai horixe. [...] ba egoera zaila izan arren eta gogorra izan arren, ba amets egin daitekeela, eta, bueno, gauzak ere lortzen direla. [...] **Maitane**

Había una situación en Euskal Herria, a nuestro alrededor, en el barrio donde vivíamos, hubo mucho problema de heroína. La heroína caló y hubo mucha gente que cayó. Y, joe, yo luego lo analizaba, y a nosotros nos libró la política de todo eso. Porque teníamos valores, teníamos proyectos [...] yo creo que de eso, que nos sirvió para no estar en eso, porque nos interesaban otras cosas, otras ideas. **Alba**

Baina nik kontzientzia-maila bat gauzak aldatu nahi nituela, beste gizarte bat, beste balore batzuk, hori oso txikitatik izan dut. Balore konserbadoreen kontrako jarrera, elizaren kontrako jarrera, konfirmazioa ez egitea erabaki nuenean ere talka bat izan zen nire etxean. Ez dut izan holako formazio zera bat, baina nire barrutik beti egon da holako kontzientzia bat, beste gizarte bat eraikitzearen kontzientzia, eta hori beti identifikatu dut Ezker Abertzalearekin. Baina oso lotuta proiektu politiko bati, bizitza ulertzeko modu bati, balore batzuei. Eta hori eskeintzen zidana edo irudikatzen nuena, ba Ezker Abertzalea, eta hortik. **Maddi**

Ezker Abertzalearekiko erreferentziak agerian uzten dute mugimendu politiko hori zela haien estatuari zinez erronka jotzen ziona, eta bizi-eredu askeagoak aldarrikatzen zituena, gizarte berri baterako ametsak biltzen zituena, proiektu politiko alternatiboa eskaintzen ziona. Gauza handia eta zabala, mugimendu garrantzitsua. Munduan egoteko eta munduari begiratzeko leku bat eskaintzen ziona, haien ezinegona praktika politikoan bilakatzeko aukera eskaintzen ziona, pertenezkoa sentimendu sendoa eragiten ziona. Izan ere, oso gutxi dira beste ezker edo

mugimendu alternatiboekiko erreferentziak, eta agertzen direnean hiriguneetakoan ahotan agertzen dira. Eskuragarri izan zezaketen aniztasun ideologikoak edo antolakunde mota eta kopuruak badu lotura herriaren tamainarekin ere, Ekiñek esaten digunaren arabera, herri txikietan Ezker Abertzaletik kanpoko erreferentziak oso gutxi omen zirelako, eta Ezker Abertzalekoetan ere Herri Batasuna zelako nagusi<sup>154</sup>. Modu batera edo bestera, azpimarratzekoa deritzot beste ezker-ideologiei egindako aipamen bakanak. Izan ere, kide bakarrak egin die aipamena beste mugimenduei, eta haien artean zituzten liskarrei aipamena egiteko izan da, aliantzak apenas agertu dira, zeharka ez bada.

Ezker Abertzalea zen haien ikurra, baina bakoitzak bere erreferentzia zehatzak zituen horren baitan. Batzuentzat, ETA izan da erreferentzia nagusia, baina, beste batzuentzat, Herri Batasuna zen ikurra. Emakume\* artean aritzeak dakarren askatasun- eta segurtasun-sentimendu ordezkazinez gogoratzen dute Egizian Xunek eta Irenek. Jarrai oinarrizko formakuntza eta lagun-sarea egiteko funtsezkotzat jo dute Luak, Suak eta Lilik. Azkenik, sindikatuko praktika ere borroka egitea zela barruraino sentitu zutenak ere badira, Alazne bezala. Funtsean, agerian geratu da, Ezker Abertzalearekin bat egiteko arrazoietan ere, militante bakoitza sentsibilitate ezberdinetik lotuz joan zela. Batzuentzat, euskara eta kultura funtsezkoak ziren, eta independentziaren aldarriak lotzen zituen; beste batzuk ez ziren ezta euskaldunak eta bereizkeria sozialek sumintzen zituzten, edo erlijio katolikoaren pisuak eta desberdinak baztertzeko joerak; gazteriarengan globalizazioak ekarritako homogeneizazio, kontsumismo, indibidualismo eta otzankeria ziren funtsezkoak beste batzuentzat.

Bert Klandermansek (1997) konpromisoa «antolakundearekiko lotura afektibo» gisa definitzen du, bertan geratzera bultzatzen duen lotura. Kasu honetan, lotura proiektu politikoak eragiten zuen, baina baita berau defendatzeko eta garatzeko moldeak, praktikak. Mugimendu horrek komunitate zabal eta trinkoa osatzen zuen, eta hor lagunak egin zituzten, elkartasun praktikak bizi. Zentzu horretan, mugimenduaren eta bertako kideen alde egiteko betebeharrak moral modukoa sentitzen zutela ikusi dugu, are gehiago errepresio-testuinguru hartan.

Bada, Mikel Arriagak (1997) ETArekin eta Ezker Abertzalearen sorrerako lehen bi hamarkadak aztertzean, Ezker Abertzaleko komunitate politikoari egozten dizkion ezaugarriak badute emozioekin lotura, eta, gainera, ikerketa honetan ikusi dugunaren antzeko emaitzak planteatzen ditu. ETAk, bere jardunean, lotura emozional eta afektibo mordera sortu zituela dio Arriagak, oso gogorki kohesionatutako komunitatea marraztuz (1997:37). Beraz, ETA 40 urteren ondoren gerra irabaziko duen eta goraka doan mugimendu gazte, berri eta aktibo bezala biziko dela esan zuen (1997:79-80). ETA eztabaidaezina den borroka antifrankistaren motor ukazintzat

---

154 Horrela ulergarriagoa da herri txikietako hiru emakumeak\* izatea HBrekiko erreferentzia handiena adierazten dutenak.



joko du komunitate horrek, egoerak eskatzen zuen neurrira ari zen erakunde bakartzat joz<sup>155</sup>. ETArekiko ebaluazio altu horrek komunitateari autoestimu handia emango diola baieztatzen zuen Arriagak. «Balentria», «konpromisoa» eta «lidergo karismatikoa» moduko ezaugarriak egotziz, talde-batasun handiaz gain, ETAk onura psikologiko handiak eragingo dizkio bere komunitateari (1997:78). Historia eraldatuko duen aktibitate klandestinoetan, honekin eta harekin, hemen eta han, berdinen artean hartu-emanetan egotea ezaugarri garrantzitsua izango da. Beraz, gaztetasuna = abertzaletasuna = aktibitatea = talde-izaera = zorientasuna moduko sentimenduak agertuko dira garaiko bizipen militantea aztertzean (1997:79). Komunitateko partaideek konpartitutako egoera dentsuak direla eta, sinesmen, balio eta jokaeren gorputz komuna osatzen joango dira, beldur berdinak, poz berdinak, tristezia berdinak eta etsai berdina konpartitzeak elkar lotuko ditu, euskal borrokalarien belaunaldi batekiko pertenezia-sentimendua handituz (1997:69). Beraz, ETArekin batera sortu zen komunitate politiko eta emozionalak, identitate horrek, erakargarri eta arrakastatsua izaten jarraitu zuen 30 urteren ondoren ere.

Bestalde, hori ez da soilik euskal kasuan gertatuko; alegia, ez da horrelako efektuak eta sentimenduak eragin dituen talde armatu edo mugimendu politiko bakarra. Gero eta gehiago dira ekintza kolektiboa —identitate kolektiboa— emozioak eta generoa gurutzatuz garatzen ari diren azterketak, eta ez soilik emozioek politikoki antolatzeke ariketan daukaten garrantzia aztertuz, baita ekintza kolektiboaren parte izateak dakartzan onurez ari direnak; baita, gainera, genero-ikuspegitik ere (Wood, 2001; Taylor eta Rupp, 2002; in De Volo, 2004). Ikuspegi horretatik, aztertu diren kasuetan eta gatazka armatuei lotuta, Nikaragua, Kolonia eta El Salvador kasu, antzeko aurkikuntzak egin dituzte. *Nor naiz* eta *zertarako nago hemen* oinarriko galderei erantzuteko gaitasuna dakarren perteneziaz gain, eta bizitzari zentzu eta norabidea emateko aukeraz gain, *banai*z *nor* sentimendua eragiten duela ikusi da. Zehazki, haien hitza errespetatua ikustekoa, komunitatean estimatuak sentitzekoa eta, finean, eremu publikoan eragiteko ahalmena izatearena. Zentzu horretan, onura horiek gizarte horien galera eta hutsunez ere mintzo zaizkigu. Geurera ekarriz, sentimendu horiek guztiak zuzenean aipatuak izan ez badira ere, haien diskurtsoetan egon bazeudela ikusi dugu, eta nago nazio eta klase perteneziaz harago, generoarekin ere baduela lotura; azken finean, emakumeen\* kasuan, aintzat hartua izatea eta eragiteko ahalmena izateak bat egiten baitute genero arteko botere harremanek ukatu ohi diotenarekin.

Laburbilduz, Ezker Abertzalea estatuaren aurkako eta mundu eraldatzaileen aldeko ia aukera bakartzat zuten elkarrizketatuek, gauza historikoa egiten ziharduena eta haiek hor egon nahi zuten, eta hor egon zitezkeela sentitu zuten. Baziren nor.

Erreferentzia kolektibo hori zer gorputzetan mamitzen zen: emakumeenetan\* ala gizonenetan? Mundu-aldaketa horrek eduki feministarik ba al zuen haientzat, edo, hobe esanda,

---

155 Bederen, ETaren lehen bi hamarkadetan. Izan ere Arriagak justu hori aztertu du, 90eko hamarkadan estrategia politiko-militarrarekiko zalantzak izaten hasi zen jende multzoa eta bere prozesua.

eduki feminista horren atzetik (ere) ari zirelako egin ziren Ezker Abertzaleko? Hurrengo lerroetan horri ekingo diot.

#### 4.6.3. Emakumeen\* ikur ahula eta feminismoaren ipar lausoa

Bueno, beti dago proto-sentimendu bat edo presentimiento bat. Eta hori soziala izan da, baina ez nuke feminismoarekin lotuko. Inklusio esango nuke izan dela oso katolikoa, oso humanista más que católico. Gero hasi nintzen emakume\* taldean, eta gauza bat eta bestea, gazte emakume taldeetan.

**Irene**

Gizarte matxista bateko kide zirela jabetzen zirela adierazi digute etxean ikusten zuten gurasoen arteko lan eta autoritate banaketan, baita beste esparru batzuetan, kirolean adibidez, futboleko emakume\* talderik ezean edo esku-pilotan, adin batetik aurrera kanporatuak izatean.

(...) ni kasu hortan ardi beltza nintzen, nere anaiak paso egin izan du, baina bai, ardi beltz sentsazioa ere emakumetasuna bizitzeko moduan ere. Ze heziketa eta rolak erreproduzitu diren nire etxean, nik jaso dudana heziketa oso, anaiak eta nik oso heziketa ezberdina, es ke ba oso matxista, nik lau urte gehiago ditut baina horrek ez du justifikatzen nire etxean nik zenbait gauza gehiago egin behar izatea nire etxean, nire anaiak baino gehiago. Izan zan gaztaro, nerabezaro hori, gauza guztien aurka egotearen sentsazio hori. O sea, emakume izateko modu horrekin ez nintzen identifikatzen, ama etxean zegoena, orduan etengabe talkak, nik ere orduan berarekin eztabaidatzen nuen. Orain, ba, baserri-girokoak biak, aita lana, lana, lana, eta oso jarrera txarrekin, beti bere... denbora librea eta hori bai amarekin, oso ondo, baina paperak oso banatuak, baserri-girokoak, amak ez du sekula lan egin, ta ni enfrentatzen nintzan.(...) Baina nik kontzientzia-maila bat gauzak aldatu nahi nituela, beste gizarte bat, beste balore batzuk, hori oso txikitatik izan dut. Balore konserbadoreen kontrako jarrera, elizaren kontrako jarrera, konfirmazioa ez egitea erabaki nuenean ere talka bat izan zen nire etxean. Ez dut izan holako formazio zera bat baina nire barrutik beti egon da holako kontzientzia bat, beste gizarte bat eraikitzearen kontzientzia eta hori beti identifikatu dut Ezker Abertzalearekin. Baina oso lotuta proiektu politiko bati, bizitza ulertzeko modu bati, balore batzuei. Eta hori eskaintzen zidana edo irudikatzen nuena, ba ezker abertzalea, eta hortik. **Maddi**

Hala ere, horrekiko ideologizazio-, formazio- eta politizazio-maila ezberdinak zituztela geratu da agerian; haietako batzuen engaiamendu politikoa Egizanen hasi zen bitartean, beste batzuek ez zuten hori lehentasun bezala bizi izan:

Ez denak, baina gutako batzuk konprometitu gara Ezker Abertzalean aspirazio feministak genituelako. Behar genuelako lortu baldintzak, gero beste harreman eta herri-eredua sortzeko.

**Irene**

Borroka-ziklo hura, gatazka politiko orokorreko gaiei lotuta, edo haiek sektorialtzat jotzen zituztenetan murgilduta egin zutela diote, baina bertan parte hartzeko motibazio nagusien artean ez dira aspirazio feministak ageri, ezta generoari lotutako ondoez-boteregabetze jakin batetik urruntzeko premiarik ere ez.

Horrek ez du esan nahi, haien iruditegian beste mundu batzuk eraikitzeaz, beste bizi-eredu batzuk erditzeaz eta justizia soziala erditzeaz ari zirenean, emakumeek\* bizi zuten egoera

aintzat hartzen ez zutenik. Hori baino, antzeman dut, korapilo nazionala edo autodeterminazio- eskubideari lotutako auzia konpontzean, askotariko emantzipazioei leku egingo zitzaiela sentitzen zutela. Horixe zela haien espektatiba, bederen, partaidetza sozio-politikoari ekin zioten garai goiztiar haietan.

Horrekin batera, zuzen esplizitatu ez arren, garai hartan gazteei eskaini edo inposatzen zitzairen bizi-ereduekiko kritikotasuna edo aurkakotasuna ere ageri da, bizimodu normatiboa desio eta, era berean, errefusatzen zuten zerbait zela agerian utziz (batzuek beste batzuek baino gehiago). Zehazki, militatzeari ekin ez eta kontsumoa, lanbidea eta bikotea bizi-proiektu bakartzat eraikitzen zuten horiekiko mespretxua ere adierazi izan dute. Zentzu kritikorik gabeko gazte gris baten gisan irudikatuz. *Konprometituta ez zeuden beste gazteak baino askeago sentitzen* ziren, baina askatu zituzten korapilo horietan ez dituzte espresuki eta esplizituki genero-mandatuak aipatzen, nahiz eta tarteka aditzera ematen duten. Beraz, gurari apala edo bigarren mailakoa zela ondorioztatu behar dugu halabeharrez.

Hastapeneko militantzia urratsak emateko unean zituzten pertsona-erreferentzia zehatzei dagokionez, gehientsuenak ez dituzte oso ondo gogoratzen —edo memoria lanean ipini behar izan zuten— elkarrizketa-unean izen-abizenak botatzeko; beraz, badirudi ez dela izan bereziki esanguratsua. Proiektua eta mugimendua, edo antolakundeen siglak aipatzen dituzte. Modu batera edo bestera, gehienetan gizonak zirela diote —eta, elkarrizketa unean, horretaz lehenengoz jabetu izan balira bezala erreakzionatu dute askok—, dela herriko antolakundeetakoak edo dela garaiko Ezker Abertzaleko jarduera publiko eta bozeramaile-lanak egiten zituztenak. Hala ere, badira salbuespen ziren emakume\* horiekiko aipamenak ere. Batek baino gehiagok organikoki parte hartzen hasteko gonbita-hitzorduan emakumeak\* egon izana azpimarratu du, haien garrantzia izan zuelako. Are gehiago, horrek lagundu egin ziela adierazten dute; izan ere, emakumeek\* gizon artean *gehiago moztu* edo *atzeraka egiten* dutelako. Beste kasu batzuetan, zeuden emakume\* horiek erreferente nagusiak izan arren, haien burua ez zuten haien pareko sentitzen, emakume\* eta militante bezala egoteko modu ezberdinak zeudela agerian utziz.

Ez dakit esaten ere... nik ikusten nituen erreferentziak... ba herriko emakumeak, nagusiagoak, emakume gogorak, sendoak... hor egon direnak, une gogorrei eutsi dietenak, tiratu dutenak, ... ba aurrera egitea bermatu dutenak, iraunkorrak izan direnak- niretzako eredu ziren. Baina nire izaera ez da estilo horretakoa, ez dakit zelan esplikatuz... baina ni neure lekua topatzen nenen oraindik. Ze ni ere ez naiz... ez dakit zelan esplikatuz... agian vulnerableagoa naiz, ... ez dakit zelan azaldu ondo (barre urduria). Gero norberaren adineko jendearekin, ba igual hor gehiago, zu zaren moduan gehiago soltatzen zara.... **Maitane**

Laburbilduz, Ezker Abertzalea estatuaren aurkako eta mundu eraldatzaileen aldeko ia aukera bakartzat zuten, gauza historikoa egiten ziharduena eta haiek hor egon nahi zuten. Erreferentzia publikoak gizonezkoak ziren gehienak, baina bazekiten emakumeak\* zeudela, eta horrek lagundu egin zien, nahiz eta emakume\*-eredu ezberdinak izan eta beti ez sentitu eroso horrekin. Emakumeen\* eskubideak defendatu arren, gizon eta emakume\* arteko harremanen

nolakotasuna goitik behera aldatzea ez zen haien espektatiba behinena borrokara lotu zirenean, baina modu lauso eta apalean bada ere, hortxe ageri zen.

#### 4.6.4. Etxeakoak bidelagun ala etxeakoekiko etxekalte

Orain arte testuinguru sozio-politikoak, kale giroak eta lagunarteko sozializazio politikoak garrantzia handia daukatela ikusi dugu. Baina, horrekin batera, etxeako sozializazioak, gurasoen jarrerak eta bikoteenak haiengan nola eragin zuen ezagutzea ezinbestekoa zaigu, lehen eta bigarren sozializazioak oso garrantzitsuak baitira gazte baten biografian. Ikusiko dugunez, bidea erraztu, leundu, lagundu ala kontrariatu, oztopatu, zaildu eta atzeratzea eragin die.

#### «Ez dut ezagutzen beste bizimodurik»

Atal honetan, politizazio prozesuetan familiako kide ezberdinen parte-hartze politikoak, esperientzia errepresiboak edo ideologiak lagundu edo alde izan dituzten emakumeen\* ibilbide eta esperientziak jasoko ditut, hau ere ez baita mutur bakarreko haria. Hasteko, askok aipatu dute txikitatik gurasoekin manifestazioetara joan izan direla, etxean politikaz hitz egin izan dela eta, zenbait kasutan, gurasoek Ezker Abertzaleko edo beste eragileren bateko partaide izan direla — ezkerreko eragileak, feministak, sindikalistak, herri mugimendu ezberdinetakoak —, eta partaidetza horiek beraien politizazio-prozesuetan inportanteak izan zirela diote.

Nik uste txikitatik etxean hori bizi izan dugulako. Txikitatik gurasoak leku guztietara eramane gaituzten horietakoak izan dira, leku izugarri politetara, ta manifara joan behar zenean ba manifara... ez dut ezagutzen beste bizimodurik nik behintzat. **Lur**

Nik uste dut horrekin hasi eta hezitu nintzela. Ez da bapatean bai edo ez. Eske no es que eche la culpa a mis padres, baina es ke ni jada hori nintzen. Eta hori da egin behar nuena momentu horretan. **Mari**

Zergaitik hasi nintzan parte hartzen? Ba familia, argi eta garbi. (...) Orduan ja gero ideologia jaso nuen, etxetik datorkit hori, eta azkenean izan zen bide natural bat. Zentzu horretan, ni sentitzen nintzen etxean bezela, nire giroan sentitzen nintzen. Gero nire amaren senarra ere asko mugitzen zen, *Egunkarian*, Bilboko Konpartsetan eta. Eta trabarik ez zidaten ipini. **Xune**

Xunek bidea inoiz oztopatu ez diotela esateaz gain, elkarrizketa batean baino gehiagotan antzemandako ikuskera salatzen du. Arreta jarri nahi dut bere amaren bikoteak euskalgintzan edo jai-eredu herrikoietan zuen konpromisoari egindako aipuan. Hainbati agian deigarria egin arren, emakume\* horiek Ezker Abertzalearekin lotzen dituzte, Ezker Abertzaleko antolakundeen baitako partaidetzaz gain, beste herri-eragile ekologista, feminista, euskaltzale, sindikalista eta abar, nolabait mugimendu politiko horrek bultzatu nahi zituen proiektuen parte zirelako edo horiek guztiak diktadura-garaian zein gerora ere disidentzia politikoaren baitan kokatu izan zirelako Estatu Espainoleko dispositibo errepresiboen aldetik.

Hala ere, ikuskera hori, bereziki, *aitortu gabeko* eta *ukatutako herri* eta *hizkuntzaz* ari direnean nabarmentzen da, eta horrek aurreko atalean adierazitakoa berresten du. Diktadura bezala euskaldunarekiko gorroto eta mespretxua baino ez zekarren estatu batengandik mehatxatuta sentitzea, eta herri horren defentsa instituzioetatik baino herrigintza eta herri-borrokatik lortuko zen uste irmoa.

Baina, gerora, egia da inoz amak esan didala, gertatu izan zaiola, berari eta beste batzuei, ba... inoiz aipatu duela ni barruan nengoenean, ba beste ama batzuei eta: «ba nik ein dot holan. Nik emon diot nire mundu ikuskera, niretzat onena zena baina gero... ba ez nion azaldu hainbeste edo baztertu izan banu...». Baina egia da beraiek inoiz ez didatela trabarik jarri horretarako, ezta bizitzan zehar egiteko nahi dudana. **Xune**

Xunek beste gai oso interesgarri bat ere aipatzen du; hain zuzen ere, preso zeuden emakume\* batzuen amen arteko elkarrizketak argitara ekarriz, dio ama horien erantzukizun-sentimenduei darien damu eta kezka. Alaba baten atxiloketa eta espetxeratzeak haren amengan eragindako inpaktuak alabei helarazitako hezkuntzaz hausnartzera eramán zituela agerian uzten du, funtsean.

Bizitzan hartu ditugun norabide eta hautuek eragin dezaketen deserosotasuna, damu edo buruhausteak ez dira soilik amarengandik alabarenganako norabidean ageri, alderantzizko norantzaren berri ematen digu Sarak; zehazki, ETAn sartzeko gonbita jaso zuen eguna kontatzen ari dela, honela dio:

Bai etorri zitzaidan burura, lehenengo nire ama eta gero nire aita, buelkoa eman zidan barruak baina... beraiei suposatuko ziena, batez ere ama, ze aita azkenean ez dut etxean ezagutu, eta bai aita da, baina berarekiko harremana ba aita-figura hori bete du gehiago nire anaiak edo inguruko beste batek, baina bai pentsatu nuen ba berak zer pentsatuko zuen, edo noiz ikusiko nuen berriro, edo ikusiko nuen... edo berak zer pentsatuko zuen, ze bera ere oso gazte sartu zen, banekien harro edo ondo sentituko zela, edo agian ez, ze azkenen ni etxeko txikiena nintzen, neska... gauza asko. Eta amarekin bai, buff, zer putada edo zer egiten ari naiz amari. Sufritu duen guztia eta gero, baina bueno, gero pentsatu nuen ere bakoitzak bizi behar duela bere bizitza, bakoitzaren bizitza berea dela. **Sara**

Beraz, gurasoek —batek ala biek— beraien ideologiarekin bat egin arren eta beraien hautu edo patuaren aurka ez jarduteak ez du esan gura engaiatzeko orduan dena leuna zenik. Familia edo bizi esperientzian erreprezio saldo handia bizi izana engaiamenduaren aurka joan daitekeen faktore ere bada. Kartzela-bizipenen atalean ikusiko dugun moduan, honetan badu zerikusirik, izan, genero-sozializazioak ere. Bestalde, erreprezioa, zaintza eta generoarekin lotura estuan egon litekeen engaiamendu politikorako beste oztoporik ere agertu da; esate baterako, Maitanerekin izandako elkarrizketan, senide bat espetxean izateak eta horrek zekarren lan eta karga emozionala dela-eta une batean beste erantzukizun bat hartzeko orduan ezezkoa esateko eragina izan zuela aipatzen baitu.

Zentzu horretan, Sara eta Maitaneren kasuak gurutzatuz, amekiko kezka berezia agertzen dela ikusi dut. Horrek ez du esan nahi aitekiko agertu ez denik, kasu batzuetan aitarekiko loturak

berezi eta indartsuak zirela agerian geratu baita. Hori baino, errepresioaren osteko lan-karga, funtsean, emakumeen\* eta, beraz, amen gain erortzen denarekiko jakintzarekin lot dezakegu. Hala ere, ez dute horrelako irakurketa azpimarratu beraien kasu pertsonaletan, baina bai orokorrean aritzean. Beraz, gehiago ez sufritzeko nahiak eta etxekoei gehiago ez sufriarazteko nahiak badu engaiamendu politikoa hartu ala ez bidegurutzearekin loturarik. Zaintzaren eta hurkoak errepresaliatuta izatearen karga eta zauri emozionalak konpromiso politikoa bultzatu eta azkartu dezakete; besteak beste, Irlandan eta Argentinan jazo izan den moduan (Morales, 2011, 2017; Gurpegi, 2022), ala inhibi dezakete. Eta horrek ere generoarekin lotura du, nahiz eta, emakume\* hauek, hain justu, ez izan horren adibiderik argienak.

Bestalde, esate baterako, familia PNVkoa izatea, aurkako faktoretzat baino aldeko faktoretzat bizi izan duenik ere bada, bereziki 80. hamarkada amaiera aldera engaiatu zen Albak;

Entonces no me pareció extraño que en ese ambiente, nacionalista, más de país, inculcado... el Batzoki, o sea, hacía turnos en el Batzoki cuando era enana (barre egiten du)... familia del PNV. Además, mi aita siempre muy implicado y mi ama también, o sea, los dos participaban en asambleas etc. o sea, que era algo que se vivía en casa, el Alderdi Eguna, el Aberri Eguna, se ponía la ikurriña con el crespón negro cuando caía un militante, yo he visto a los maderos acercarse al portal para ver el apellido del portal, porque había una ikurriña con crespón puesto... pues eso te vas empapando poco a poco. **Alba**

Hala, Albak elkarrizketan zehar, ez du ezta momentu batean auzi politikoak direla-eta etxean gurasoekin gatazkarik izan izana aipatzen. Une batean ikastetxean bi aldiz kurtsoa errepikatzeak etxean arazoak ekarri zizkiola baino ez du aipatzen. Horrekin ez dut esan nahi izan ez zituenik; izan ere, nik hastapeneko esperientzia, motibazio eta giroez galdetu izan diet modu orokor eta zehaztugabeen, beraien galdera horrekin nahi zutena ekar zezaten, modu horretara beraien gaztaroa eta engaiamendua gogoratzean memoriara dakartzaten gauzak zeintzuk diren ere azterketa-gai bihurtzeko. Modu batera edo bestera, «eroritako» militanteak zeudenean —ETAko eraildako pertsonak— ikurrina krespoi beltzez jartzen zutela adierazten du Albak. Justu, 80. hamarkadaren amaieran engaiatu zen kidea dugu, eta, zentzu horretan, euskal gizartean ETArekiko zegoen onarpen-mailaren berri ematen ari zaigu, baita beste alderdi politikoetako jendearen artean ere. Wiliam Douglas eta Joseba Zulaikak (1990) gogora dakar Eusko Jaurlaritzak nazioarteko terrorismoko aditu talde bati nola eskatu zion ETArri aurre egiteko ekintza-plana. *Adituen informe gisa* ezagutarazia izan zen lan hartan (Rose et al., 1986) EAEko biztanleen % 15ek ETA «babesten» zutela eta % 50ek «ulertzen» zuela edo harekiko enpatia sentitzen zutela jaso zuten.

### «Ez sartu lioetan»

Batek baino gehiagok, bizitzako lehen mobilizazio eta praktika politikoarekin hasi zenean, *lioetan ez sartzeko* erregua eta konbentzitze-saiakera tematiak bizi behar izan zituen gurasoen aldetik. Aldiz, aholku, debeku, eskaera edo haserre horren arrazoa, intentsitatea, ondorioak eta

alabek hartutako jarrera ez dira berdinak izan kasu guztietan. Atal honetan, guzti horren gainetik, lehenago edo beranduago beraien bideari jarraitzea erabaki zutenen ibilbideak jasoko ditut.

Guraso batzuek beste ideologia bat edo —Euskal Gatazkaren kasuan beste lerratze bat— zutelako (gerraren aurkako *bandoetan*<sup>156</sup> zeudelako) jaso zituzten presioak. Bereziki, ETArekiko aurkakotasunak garrantzia izan duela ikusi dugu, eta, kasu batzuetan, presio hori politikoki gehiago engaiatzeko oztopo izan da; beste kasu batzuetan, aldiz, alaben determinazioak uneko gurasoen presioaren gainetik aurrera egitea ekarri zuen, haien familiekin apurtzeko prest egoteraino.

Beti familian banaketa egon da, PNV eta bestea. Nahiz ta ideologiaz aparte ba familia nahiko batua egon da beti. (...) Baina beti Ezker Abertzalekoa izanik, manifa guztietan izan naiz, egia esan, familiak ere baldintzatu ninduen dexente, Ze PNVkoa zan, eta nere aita beti, «ez sartu liotan, ez sartu» eta beti oso presente izan dut nire aitaren ahots hori, nahiz ta berak jakin oso diferente pentsatzen nuela. Baina militantzia hori izateko urratsik ez nuen inoiz eman, batzarretan parte hartzen nuen, institutuko grebetan eta manifestan ere, baina beti bigarren maila batean. **Alazne**

Gurasoak teorian nahiko apolitikoak ziren, baina hitza gaizki dago, izan direlako... eske gainera familian ez daukat inolako erreferenterik, Ezker Abertzalekorik, familia izan da PNVko familia bat edo PNV bozkatu ez dutenak ba bozkatzera joaten ez direnak. Eta nire gurasoak ba bozkatzera ez doazenak, nahiko apolitikoak, «ez gara ezertan sartzen, baina hiltzea gaizki dago». Ezker Abertzalearekin marra bat eta kontra. Eta bronkak, eta gainera ba bigilatzen zuten, grebak genituean institutoan bazekiten, ze herri txiki bat izanda, ba ikusten bazuten institutoko jendea iristen eta ni beranduago iristen banintzen, pues «non egon zara? Manifan egon zara», bronka. Hor egon da, bai bai... gerora ia hitz egin izan dut beraiekin eta gerora ia aflojatu zuten, baina aflojatu zuten, nituenean ia hogeitapiko urte. Eta hori, «gu ez gara batekoak ez besteakoak, baina bai gaude oso kontratan», orduan azkenean oso Ezker Abertzalearen kontrako jarrera zuten, orduan hor muga bat egon zan. **Maddi**

Baina ez da aurkakotasun politikoa edo zuzenean *beste bandoan kokatzea beraiek edo gu* atakan kokarazi dituen. Diktaduran jaiotako gurasoek engaiamendu politikoa errepresioarekin ordaintzen zela ondo ikusia eta ikasia baitzuten. Hortaz, beldurra eragindako «ez sartu politikan» mezuak bere lekua zeukan hamarkada honetan.

Nire kasuan, espero ez nuen egoera bizi izan nuen. Gurasoak Ezker Abertzalekoak ziren ideologikoki, umezaroa manifestazio artean egin dugu, eta noizbait Gestoretako militanteak edo izan zirela uste dut, aita bai, behintzat. Orduan, ni Jarrain parte hartzen hasi nintzenean, denbora batetara kontaktu egin nien, pozik hartuko zutelakoan edo. Baina justu kontrakoa izan zan, bereziki amaren aldetik. Disgusto handia hartu zuen. Ez dut zehazki gogoratzen zer esaten zidan edo zein zan bere argudiaketa, beldurretik zihoan gauza, rollo «herri honetan konprometitzen direnak badakizu nun eta zelan amaitzen duten»... hau da, tortura, kartzela. Klaro, nik esaten nion inkoherentea zela borroka bat bultzatzea eta gero ez konprometitzea, egoista zela «besteen seme-alabak konprometitu daitezela» pentsatzea. Hildakoek eta presoek ere amak zituztela, eta ametsak eta ikasketak egin nahia eta... ba bueno, horrela buelta eta buelta asuntuari. (...) Bueno, gauza da ikusi zutenean militantzia dagoeneko nire bizitzako lehentasuna zela, hor ja kriston boikota etorri zan. Ama gabetan ohera etortzen zitzaidan «Jarrai edo gu» esatera. Hautatu behar nuela... ba horrela. Batzutan txantaje

---

156 Bando hitza behin baino gehiagotan atera da ikerketan. Funtsean, aurrez aurre gudan dauden etsaitutako bi aldeek ikuskera agerian utziz berriro ere.

emozionala egiten, besteetan erreguka, tensioa. Ni dexente nazkatu nintzen egoera horretaz, eta azkenean amari «Jarrai» erantzun nion. Erabakia neukala, eta gauzak berak esaten zuen modukoak baziren, ba jarraituko nituela ikasketak behin kartzelan egonda. Horren aurrean, ez zen gai izan mehatxua betetzeko, o sea, ez zen harremana eten, baina bakean utzi ninduen. **Lili**

Gurasoak ez ziren ezker abertzalekoak, abertzaleak bai, baina ez politikoki aktiboak eta, baina bai argi zeukaten guri aukera hori emango zigutela euskeraz ikasteko, eta horrek suposatzen zuen gasto ekonomiko bat eta hor dana argi eta garbi, baina beldur asko ere politikoki aktibo izateko ere. Berezi amak, ikusten bazuen hau gehiagora badoa, bukatuko du espetxean egun batean, bakizu, beldur horiek. Baina politikoki aktibo ez, baina bai ateo... herri txiki batean erlijioa eta hori dena, baina nire etxean ez da inoiz erreztatu, irekiak izan dira zentzu askotan ere, erlazioekiko edo migranteekiko, nik uste hori bai eman digutela, irekiak izatea, abertzaleak bai, baina ez aktibo. (...) Neba-arreben artean nahiz ta heziketa eta ingurune berdina bizitu, denak ez gara berdin aktibo izan. Nire amak ere, nire izaeragatik edo, neukan konfrontatzeko manera ere berarekin edo... edo igual emakume nintzelako, ez dakit. (...) eta ni ja hor, ikusten dut eta garbi azaltzen dut nola pentsatzen dudan, ez nuen ezkututzen, eta orduan, hor bai nabaritzen dut beldur bat, amarena... ba pasa delako, nire lehengusua ere atxilotu zuten (ni baino apur bat zaharragoa zana) eta gero bazegoen beldur bat gazteak erabiltzen zirala, «batzuek erabakitzen dute eta gero zuek egiten duzue», eta bai, zegoen holako Ezker Abertzalearekiko holako zera batzuk, bai, aurreiritziak, bai bai. Nik uste nire ama batzutan zan oso impulsiba, beldurren aurrean ez zala posible komunikatzea, berarekin harremana oso gogorra izan da zentzu horretan, konfrontatiboa eta abar. (...) Igual besteekin, beste anai-arrebeekin horrela jokatu izana edo, ez dakit baina nik uste dut bi neskekiko bazuela beste jarrera bat agian, babestekoak mutilak, eta gu ba ez dakit. Pixka bat, erroletan edo marko batzuetan nik uste dut errepikatzen zuela berak jasotakoa, eta nire kasuan bera zan alaba zaharrena, orduan ardura hori, eta hori errepikatzen zuen nirekin, nik daukat inpresio hori. **Ekiñe**

Ekiñeren kontakizunean, familiaren aldetik beldurraz gain edo, hobe esanda, beldurrari lotuta, egoera sozioekonomikoarekin eta sexu-generoarekin lotura izan dezaketen arrazoiak ere bazeudela ikusi dugu. Eta Maddi eta Liliren kasuan ere horrela da.

Hiru neba-arreba gara, mutil bat gazteagoa, es ke ni kasu hortan ardi beltza nintzen, nere anaiak paso egin izan du, baina bai ardi beltz sentsazioa ere emakumetasuna bizitzeko moduan ere. Ze heziketa eta rolak erreproduzitu diren nire etxean, nik jaso dudana heziketa oso, anaiak eta nik oso heziketa ezberdina, eske ba oso matxista, nik lau urte gehiago ditut baina horrek ez du justifikatzen nire etxean nik zenbait gauza gehiago egin behar izatea nire etxean, nire anaiak baino gehiago. Izan zan gaztaro, nerabezaro hori, gauza guztien aurka egotearen sentsazio hori. O sea, emakume izateko modu horrekin ez nintzen idenfikatzen, ama etxean zegoena, orduan etengabe talkak, nik ere orduan berarekin eztabaidatzen nuen. Orain ba, baserri giroakoak biak, aita lana, lana, lana, beti oso jarrera txarrekin, beti bere... denbora librea eta hori bai amarekin, oso ondo, baina paperak oso banatuak, baserri giroakoak, amak ez du sekula lan egin, ta ni enfrentatzen nintzan. Orain ulertzen dut ere, ba igual beretzat ez zela erreza hortik kanpo zerbait eraikitzea ezta? Baina zan denbora guztian kontran bizitzearen sentsazio hori, ez nintzen eroso sentitzen emakume bezela asignatzen zidaten funtzioa, politikoki ez zidaten uzten... izan zan mugitu xamarra nerabezaroa zentzu hortan. (...) Niretzat eragina izan zuen kontrol politikoan ba emakumea izatea, eta gero oso garbi ikusi nuen piskat, ba sindikatuko militantzia nire lanbide bilakatu zenean. Ez zan izan beraien gustuko hautu bat. Behin eta berriz beraiek irudikatzen ninduten beste lan mota batzuetan, bai, horrek ez duela lagundu, fijo. Ziur nago. **Maddi**

Igual eragina zeukan emakumea nintzela? Ezin dut jakin, ze nire nebek ez zuten ezertan parte hartzen garaian, orduan ezin dezaket konparatu. Gero be bai... ba ikasle oso ona nintzan, ikastea



gustoko nuen eta gainera argi neukan unibertsitatera joan nahi nuela. Familiako bakarra nintzen hori buruan zuena. A ver, egia esan, ba nire gurasoek ez dute ikasketa unibertsitariorik, eta diruz be, ba eskasia handi-handiak bizitakoak gara... Orduan, badakizu, gurasoen mentalitate hori, beraiek izan ez duten aukera izatea guk, unibertsitatean ikasita etorkizun hobea duzula eta holakoak. Klaro, garai horretan karreratik parora joaten ziren gazte pilo bat, baina berdin du, nire gurasoentzat unibersidadea zan la letxe. Bueno ez dut ondo gogoratzen gurasoekin gatazka-garai gogorrena noiz etorri zan, igual liberatzea erabaki nuenean. Bai uste dut hor izan zela, edo igual lehenago...? **Lili**

Ekiñe, Maddi eta Liliren kasuetan, agerikoa da premia eta espektatiba sozioekonomikoek haien amen jarreraren esku hartu dutela, dela familiarterako egoera ekonomiko kaxkarra leuntzeko seme-alabek zuten betebeharraren ikuspegia, dela ikasketek etorkizun ekonomiko oparoagoa dakarten ustea, dela prestigio handiagodun lan batean arituko ziren nahia. Baina generoaren araberako atribuzio, desio eta beldurrak ere esku hartu dutela ere jakin dugu, preseski beraien amek jaso zuten genero-mandatu eta -bizipenaren araberakoak izan direnak. Maddiren kasuan, alabak berak ezagutu zuen bizimodutik kanpoko ibilbideak egitearekiko beldurra, eta, Liliren kasuan, justu kontrakoa, beste ibilbide batzuk egiteko desioak esku hartu duela hauteman dut. Beraz, ama horiengan, alabak norabide ezberdinetan lerrarazi arren, garaiko sexu-genero sistemak ezarritako sexuaren araberako lan-banaketaren pisua ikus dezakegu, emakumeen\* idatzitako destinoak senitarterako zaintzaz eta etxeaz arduratzea zekarrela defendatzen edo enplegua utzi eta etxeokonde bihurtzeak amei ekarritako zauria alabengan ez berregin nahian. Aldi berean, antzeman daiteke sexu-generoaren araberako lan, zeregin eta bizipenen banaketak parte-hartze politikoa emakumeentzako\* baino gizonentzako zen usteak eta emakumeen\* konpromiso politikoa garestiago ordaintzen zela jakiteak eragin izan duela. Modu batera zein bestera, ez dira horren seguru agertzen beraien emakume\* kondizioak zehazki amen jarreraren izan zuen eraginaz (Maddiren salbuespen argiaz, non emakume\* egoteko eredu biren arteko talka eta liskarra deskribatzen duen).

Modu batera zein bestera, lehenago edo beranduago ikerketako emakumeek\* presio eta muga horiekiko errebelatu, eta beraien bidea jarraitu zutela ikusi dugu, beraien disidentzia gauzatzea lortu zutela, nahiz eta guzti horrek zauriak eragin, eta urte luzez harremana etenaz edo urrunduz, kasurik muturrenekoan. Baina denak, urteetan aurrera egin ahala, adiskidetu, hurbildu edo gaiaz hitz egiteko gai izan dira, eta, kasu batzuetan, haien amen lekuan kokatzeko ariketa ere egin dute, orain beraiek ere amak direnean.

Nik uste dut atxiloketa ostean izan zela lehen aldia nitaz eta nire hautuez harro daudela esan zidatena. Eta egia esan piloa eskertu nuen... nahitanahiez, hor barruan banuelako pisu hori... nahiz ta azken sasoiari gertuago eta aliatu modura sentitu gehiago. Baina, en fin, guzti horrek familiaratik urundu ninduela uste dut, hurbiltzea behin preso nengoela ematen hasi zen. **Lili**

Guzti hori gerora joan gara lantzen, ni ja heldutasun batera iritsitakoan eta nire buruan konfidantza hori izan dudanean, gauzak modu lasaiago batean hitz egiteko aukera izan dudanean, ba distantzia horiek joan dira mozten, eta pentsatzen dut egoera politikoak ere lagunduta. Pues ja... baina bai. (...) eta orain ikusten naiz guraso bezela eta joe! Ez nuke nahi, hau da, alabek bere bidea egin dezatela, beraien erabakia izan dadila, ez ni mugak jartzen egotea. **Maddi**

Baina gaur egun, ama baten ikuspegitik ulertzen dut gehiago bere beldurrak ezin kudeatu horrek jotzen zuen zapalkuntzara. Eta niri zenbat eta gehiago zapaldu, ba da justu kontrara egiten dudala.  
**Ekiñe**

Laburbilduz, oztopo izan daiteke, Maddi eta Alazneren kasuan izan den moduan, ala ez, Albarenean bezala. Eta azkenik, guraso-alaba harreman pertsonal eta politikoak engaiamendua atzeratu dezake, apurketa eta urruntzeak eragin ditzakeen moduan: are gehiago *errebelde*, *aktibista*, *ardi beltz* bezala autodefinitzen diren emakumeen\* kasuan bezala, funtsean hartu nahi zituzten bideak hartzen eta militante egiten amaitu dutelako. Modu batera zein bestera, esperientzia hori generoak gurutzatzen duela ikusi dugu, errepresioarekiko beldurrarekin batera, alabekiko espektatibetan partaidetza politikoa kokatzeko zailtasunak zeudela ikusi dugulako.

#### 4.7. Azken ideiak

Ikusi dugu emakume\* gazte horiek, haien kabuz erabakiz eta arituz, haien burua subjektu politikotzat zutelako eta Ezker Abertzalean leku bat zutela sentitzen zutelako hasi zirela parte hartzen. Badira, egitate horretan, deusezten diren estereotipo bat baino gehiago, eta sakonak gainera. Izan ere, eremu politiko gisa aitortua den horretan aritzeko orduan, emakume bezala irakurri eta hazi diren subjektuak, gizonak baino zailtasun handiagoak izan ohi dituzte jauzia emateko (Taylor, 1999; Alfama, 2009). Zentzu horretan, Ezker Abertzalean alde aurretik emakumeak egoteak gauzak erraztu zirela agerian geratu da, nahiz eta erreferentzia kolektiboen atzetik ari ziren. Horrekin batera, haien kabuz erabaki zutela behin eta berriz errepikatzean, haien agentzia aldarrikatzen ari dira. Funtsean, haien buruak subjektu sozio-politikotzat zeukatela da mahai gainean jartzen ari direna, eta horrek Lagardek azpimarratu jauzia erakusten du. Izan ere, mahai gainean geratu da motibazioetan, alde aurretik politizatuta egotearekin batera, ingurune hurbilean ikusi eta bizi izandako errepresioak izan duela eraginik haien engaiamendu politikoan.

Partaideek injustiziarekiko *betidaniko sentsibilitate berezia* izan dutela adierazi dute, barruan halako zauri jasangaitza eragiten zirela bidegabekeriek. Horren aurrean *ukituak sentitu* eta zerbait egitearen premia modukoa sentitu zutela diote, beraiek geldirik egotekoak ez omen direlako eta geldirik egoteko moduko sasoa ere ez zelako. Begien aurrean zeukaten egoeraren aurrean, *ezin nintzen geldirik geratu* eta *zerbait egin behar zen* moduko adierazpenak maiz agertzen dira beraien hitz-jarioan, parte-hartzea betebeharrak moral gisa bizi zutela aditzera emanez. Izan ere, parte hartzen hasteari *mugitu* deitzen diote, geldirik egoteari utzi.

Haien motibazioetan, 78ko erregimena eta errepresioa nabarmentzen dira. Zehazki ez dira ageri emakume\* izatearekin erlacionatutako arrazoiak parte hartzen hasteko garaian; baina agerian geratu da Ezker Abertzalea, bere jarrera, indar eta proiektua ortzi-muga askatzaileekin lotzen zutela, baita emakume\* gisa ere. Alegia, motibazio nagusia izan ez arren, egon bazegoen, modu lausoan bada ere. Partaidetza sozio-politikoaren feminisमतik aztertzen dutenek aipatzen

duten zoru itsaskorra gainditze bidean eta gainditzeko ekarpen esanguratsu gisa koka genezake emakume\*-belaunaldi hori; erreferentzia kolektiboen atzetik, publikoki bereziki gizonak aritu arren, salbuespeneko emakumeen\* ereduari segika ibili zen belaunaldia, alegia. Etxean, partaidetza oztopatzeko gurasoek hartutako jarreran, generoak zerikusi argia zuela diote. Baina generoak, partaidetzak ekarriko zuenaz jabetzen ziren heinean, erruduntasun-sentimenduak eragiten zituela ere ikusi dugu. Aldi berean, militantziak, errepresio-arrisku erreala ekarri arren, prestigio soziala ere bazeukanez gero garai hartan, estatus soziala ematen zuela ere ikusi dugu. Eta emakumeek boteretze hori gustura hartu zuten.

Zentzu horretan, aurreko belaunaldikoekin alderatuz, partaidetzarako aukera eta ikusgaitasuna indartsuagoa zela dakusagu, beste herrialdeetako prozesuekin antzekotasunak eta diferentziak ageri diren moduan. Nazioarteko esperientzietan, emakumezkoen\* partaidetza kuantitaboa % 15 eta % 30en artean kokatu izan da; organikoki, bederen, Euskal Herrikoaren antzera. Beste gauza bat da zeri deritzogun partaidetza sozio-politikoa. Horrekin batera Cocburnkek azpimarratu bezala, garrantzitsuena ez da partaidetza kuantitatiboa soilik, baizik eta kultura politikoa. Horixe da hurrengo kapituluan aztertuko dudana.



## 5. KAPITULUA

### **Ezker Abertzaleko kultura politikoaren ezaugarriak emakume\* militanteen esperientzietan**

«Ziur aski lerro hauek ispilu gisa funtzionatuko dute kide askorengan.  
Beste emakumeen bizitzetan geure bizitzak ikustea,  
geure historia idazten duen esperientzia maitagarri horren parte da».

**Claudia Corol** (2007:15).

#### 5.1. Sarrera

«Euskal Herria ala hil», halaxe irakurtzen da «Patria o muerte»ren euskal bertsioa. 90eko hamarkadan, ohikoa zen lelo hori idatzita aurkitzea Euskal Herriko taberna ugarietako komunetan<sup>157</sup>, edozein paretatan margotuta edo egiten ziren mobilizazio ugarietan saltzen ziren ehunka pegatinetan. *Emakumea eta gizona* estiloa bereizten ez zuten kamisetetan agertzen ziren leloak, gizonen neurrira egindako *unisexak*, alegia, ziren gazteria kritikoaren, ezkertiarren eta/edo independentistaren sektore garrantzitsu baten moda 90eko hamarkadan. Kamisetok, zenbait lekukotasunen arabera, poliziak gerra-trofeo gisa gordetzen zituzten, edo kalabozoen tortura-saio amaigabeetan erabiltzen.

Gaur egun, tabernetako ateak eta gainak garbiagoak daude, *Euskal Herria ala hil* leloa kamiseta eta pegatinetatik erori da, ia desagertu arte. ETA erakunde armatua desegin egin da. Baina gauza bera gertatzen al da balore, sinesmen, desira eta atxekimendu multzoarekin? Berdina jazo al da politika eta militantzia egiteko erarekin? Ikusiko dugun moduan, ez horrenbeste.

Kapitulu honek 90eko eta 2000ko hamarkadetako Ezker Abertzalearen *kultura politikoa* aztertzen du, mugimendu horretako emakumeen\* memoriaren bidez. Generoa eta memoria gurutzatzen diren leku horretan pausatzen du begirada; bide batez, agerian utzi nahi dut memoriaren ikasketak eta ikasketa feministen azterketak maizago eta modu biziagoan eskutik helduz gero darien emankortasuna eta potentzialtasuna.

---

157 Zehaztu beharra dago taberna guztietan ez zela gauza bera gertatzen. Esango nuke banantze espazial halako bat gertatzen zela, non zenbait eremu baitziren, batez ere hirietako guneko historikoak, gazteen sektore hori aisian kontzentratzen zituztenak.

*Kultura politikoaren* kontzeptua erabiltzen dut zeren, polemikoa izan arren, ez delako baztertu behar purismo zientifikoagatik (Norbert Lechner, 1987). Zehazki, ekintza eta praktika politikoari emandako esanahiak eta horiek eraikitze eta aldatzeko prozesuak erdigunean jartzen dituen kontzeptualizazioaren alde egiten dut. Gai horiek guztiz garrantzitsuak dira mugimendu soziopolitikoak aztertze; izan ere, subjektibotasunak mugimenduak artikulatzen dituzten antolakundeetatik haratago iraun dezake, eta, azken batean, gizarte, belaunaldi edo gizarte-komunitate bakoitzak gizarte-aldaketarekin erlazionatzeko modua markatzen dute.

2011n, ETak borroka armatua behin betiko utzi zuela iragarri ostean, sortu zen testuinguru berrian herri-mugimenduetan *militantzia-krisiaz* hitz egiten zuten ahotsak entzuten hasi ziren, eta eztabaida haren oihartzunek gaur egun ere irauten dute<sup>158</sup>. Izendapen horren atzean, bakoitzak gauza desberdinak aipatzen zituen, baina uste dut, gutxienez, konpromisoaren krisia eta lehen nagusi zen eredu edo kultura militantearen krisia adierazten ari zirela. Gai horrek elkarriketa eta kezka asko izan bazituen ere, oso gutxi izan dira modu ordenatuan eta antolatuan lantzeko saiakerak. Ekarpen interesgarrienetako bat Joxemi Zumalabe Fundazioarena (JMZ) izan da: *Dabilen harriari goroldiorik ez* deitutako liburuarekin amaitu zen azterketa egin zuen *militantzia-ereduez*<sup>159</sup> hitz egitea proposatu zuen, kultura politikoarekin zerikusia duten alderdi asko bilduz bertan. Gerora ere, beste formatu batzuetan jarraitu dute lanean<sup>160</sup>.

Zehazki, JMZ fundazioak ondorioztatu zuen «sakrifizioaren paradigmak» eragin handia izan duela euskal kasuan, eta, borroka armatua amaitu ondoren, hura zalantzan jartzen eta, aldi berean, beste paradigma batzuk marrazten, eta beste bide batzuk ibiltzeko saiakera jazotzen ari zela. Sakrifizioaren paradigmaren beste muturrean, XXI. mendeko Europako gizarte baten ezaugarri indibidualista eta liberalagoak partekatzen zituen paradigma ere identifikatu zuten, eta bertan «konpromisorik eza askatasunez mozorrotzen» zela ebatzi zuten (JMZ, 2014:14). Bi polo horien artean, JMZk, Euskal Herriko eta Euskal Herritik kanpoko sektore politikoetako militantziaren krisiari buruzko gogoetei ere oihartzun eginez, garai hartan ongi errotutako hausnarketa kolektibo bat proposatu zuen: bi paradigmatako elementuak berreskuratzekoa eta baztertzeakoa, hain zuzen ere.

Kapitulu honen asmoa ez da paradigma berriez aritzea, ezta gutxiago ere, sakrifizioaren paradigma hori nola bizi izan den sakonago ezagutzea baizik. Eta horrekin batera, teorian eta idatziaren gainean hauspotzen zen militantzia eredia eta praktikan nagusi zen borroka-mandatua eta militantzia ideala hobeto ezagutzea eta alderatzea.

---

158 Horrek ez du esan nahi militantziaren krisia 2011n hasi zenik, ez eta ETaren borroka armatua bertan behera uzteak eragin zuenik. Euskal ezker ezberdinek, beren forma guztietan, 90eko hamarkadatik landa Europako ezkertiarren gainbehera joeraren eragina izan zuten, eta, XX. mendearen bigarren erdiko proiektu iraultzaileen porrotaren ondoren, ahuldu egin ziren etsipenaren, frustrazioaren eta horizonte faltaren ondorioz. Halaber, badira iritzi batzuk esaten dutenak, gatazka armatuak moteldu egiten zuela prozesu hori Euskal Herrian. Are gehiago, ezkerrean antolakuntza- eta erreferentzia-gaitasuna oso handia zen Estatuko edo Europako gainerako ezkerrekin alderatuta.

159 Informazio gehiago: <https://joxemizumalabe.eus/reflex/>

160 Gehiago jakiteko: [https://www.argia.eus/astekaria/docs/2682/azala/larrun\\_251.pdf](https://www.argia.eus/astekaria/docs/2682/azala/larrun_251.pdf)

Beraz, aurreko kapituluan, partaidetza sozio-politikoari ekiteko motibazioak eta espektatibak landu baditut, oraingoan, subjektibitate politikoetan gehiago sakonduz, kultura politiko horren zenbait alderdiri begiratuko diet, zehazki. Hasteko, Jorge Alonsoren proposamenari jarraituz (1996), sinesmen, sentimendu eta ebaluazioei, eta Esteban Krotzek (1997) proposatutako utopiei beha, partekatutako ezaugarri nagusiei erreparatuko diet, eta, horretarako, militante bilakatzeko prozesuari kasu egingo diot, kultura politiko jakin batean sozializatzeko prozesu gisa ezaugarri asko agerian gera daitezkeelakoan. Ondoren, praktikan, kultura politiko horren azpian zeuden *kultur mandatuak* aztertuko ditut. Segidan, Biltzarretako ponentzietan iltzatuta geratu diren gogoeta teorikoak eta haien praktikak beti bat ez zetozeala erakutsiko dut, sakrifizioaren eta/edo entregaren logikari<sup>161</sup> —eta ikerketa honetako emakume\* protagonistek hori nola sentitu eta praktikatu duten horri— ekinez. Beste modu batera esanda, eraiki nahi zuten militantziari eta praktikari militante gisa nola ekin zioten, eta horrek eragindako kontraesanak. Amaitzeko, egun kultura politiko horren esangura, balio eta sinesmenen inguruan egiten dituzten gogoeta feministak plazaratuko ditut; hau da, ekintzaile horiek, gaur egun, garatzen ari diren erresistentziak, kritikak eta proposamen berriak identifikatu, edo, gutxienez, egungo egoera politikoan —borroka armatuaren amaieraz eta feminismoaren gorakadaz ezaugarritutakoa— gertatzen ari diren aldaketak ikuskatu.

## 5.2. Kultura politikoari buruzko zenbait ohar

Kultura politikoa, subjektibitate politikoa eta sozializazio politikoa elkarrengandik gertu dauden kontzeptuak dira. Sozializazio politikoa sozializazio zabalago baten baitan jazotzen da (Imhoff eta Brussino, 2016). Horrek esan nahi du sozializazio politikoa ez dela beste sozializazio orokorrago baten ostean garatzen den zerbait, baizik eta oinarrizko sozializazioaren parte eta dimentsioa dela (Benedicto eta Moran, 1995; Corona Caraveo eta Fernández Poncela, 2000; Oller I Sala, 2008); edozein kulturatan sozializatzen garenean, politikoki sozializatzen ari garela, alegia. Beraz, txikitatik abiatzen den prozesua dugu, eta bizitza osoan zehar gertatzen eta garatzen da. Modu horretan, arauak, balioak, ideiak, ideologia eta kode sinbolikoak barneratzen goaz; funtsean, prozesu kulturala ere badelako (Elizondo Juerta, 2000).

Modu batera edo bestera, kapitulu honetan, politika eta politikoa bizitzeko, gorpuzteko moduei erreparatuz, kultura politiko horren ezaugarriak identifikatu nahi ditut; ez soilik jaso zuten sozializazio politikoaren emaitza gisa, baizik eta beraiek eraiki zituzten esangurak ezagutu nahirik ere. Politikoa ulertzeko, politika sentitzeko eta praktikatzeko moduek kultura horren matrizea agerian utz dezake, garaiko testuinguru eta jardueraren emaitza gisa, baina baita haien agentzietatik egindako ekarpenen emaitza gisa ere. Bigarren hori genero-ikuspegitik bereziki interesgarria dela dakusat, garai historiko zehatz hartan baldintza zehatz batzuetan jardun zuen emakume\*-belaunaldi

161 Ohartzen naiz, eta ikerketan elkarriketatu dudan kide batek hala esan zidalako ere, kultura politikoaren alderdi bakar bat hautatzeak gehiegi zatitu dezakeela emakume\* horien esperientzia, ordezkaturik ez sentitzera arte. Horregatik, sakrifizioaren alderdi horri bakarrik erreparatuz gero, beharrezkoa iruditzen zait beraien bizipena eta balorazioa totalizatzeko tentazioaz ohartaraztea.

batek eraikitako esanahiak eta zentzuak ezagutzeak, eraldaketa indibidual-kolektiboei dagokienez, funtsezkoak diren eremuetara garamatzalako. Zentzu horretan, eraldaketarako sozializazio politiko batez ari garen ala ez, edo noraino ari garen jakin dezakegu.

Del Vallek (1992, 2001) dioen moduan, gainera, haurtzaro eta nerabezeroan arreta baino jartzen ez duen sozializazioaren begiradak ez dio mesederik egiten emakumezkoen\* egoeren ulermenari. Eta aldaketaren teoriarentzako oso garrantzitsua da emakumeen\* prozesu horiek behatzea, emakumeek\* bizi dituzten zein eragiten dituzten aldaketak, hain zuzen. Izan ere, sozializazio-prozesu batzuk aldaketara, boterea eskuratzera bideratuta egon daitezke (ala ez), zeren, esan dugun moduan, sozializazioa ez baita prozesu pasiboa, eta lan horretan emakumeek\*, besteekin batera arituz, ezagutza berriak eskuratu dituzte, beren esperientziari zentzua emanez.

Bestalde, esan dut kultura politikoak ez dela kontzeptu erraza. Graciela Bard-en arabera (2016), «bere tratamendua une historikoaren, ikerketen ekoizpen-testuinguruaren, hori lantzen duten diziplinen, aztertzen den helburuen, ikertzailearen jarrera epistemologiko, politiko, teoriko eta metodologikoaren mende dago» (2016:138).

Gainera, ez da egon modu bakarra akademikoki gaia lantzeko ere. Dauden bi posizio handien artean, ez zait interesatzen tradizio estatubatuarraren ikuspegia, politologiatik datorrena eta azterketa kuantitatiboei lehentasuna ematen diena, alegia; baizik eta bestea, interpretaziozkoa<sup>162</sup>, «erabilera irekiagoa, gaikako murriztapen gutxiagokoa eta, erabilitako ikerketa-metodologiari dagokionez, kualitatiboagoa izateko» (López de la Roche, 2000:102) aukera ematen duelako.

Ildo horretatik, Norbert Lechnerrek bere lan osoan gogorarazten digu politikak dimentsio sinboliko eta subjektiboa duela; bada, hori interesatzen zait kultura politikoaz ari naizenean. Bizitzeko eta politika egiteko modu horiek, esanahiak, orientazioa, ekintzak gidatzen dituzten itxaropenak eta desioak. Edo, bestela esanda, ekintza politikoari eusten dioten balioak, emozioak eta esanahiak, autore horren ustez banaezinak baitira mundu soziala eta bere errepresentazioa, ezin uler daitekeelako ezer, zentzua emango dion interpretazio-sistema gabe. David Beorlegi-k azpimarratzen du «dimentsio subjektiboa esploratu behar dela, forma, praktika, emozio, diskurtso, jomuga eta desengainu jakin batzuen bidez esanahiak eskuratzeko etengabeko prozesu gisa» (2016:11). Hain zuzen, Mabel Berezin-ek (1997) proposatzen du kultura politikoak «esanahien matrizea» dela, talde jakin baten sinbolo, praktika eta sinesmenetan txertatuta datorrena. Aaron Wildavsky-k (1997) kultura politikoak praktika gidatzen duten esanahizat hartzen du. Mari Luz Moran-en ustez (1996), koderik eta esanahi komunik gabe, zaila da ekintza politikoak egotea, eta Klaus Eder-en ustez (1996-97), kulturak ekintzari esanahia emateko funtzioa du. Beraz, ekintza politikoak hartzen duen zentzuari garrantzia ematen dion begiradaren alde egiten dut, eta zentzu hori, Berezinen arabera (1997), komunitatearen ohituren bidez hartzen da.

---

162 Informazio gehiago: Uharte (2020), Bard (2016), Castro (2011)



Ekarpen horiek guztiek bat egiten dute ekintza politikoa bideratzen eta sostengatzen duten esanahien garrantzian, ekintza politikoak metatzen eta birsortzen diren esanahiak sortzen dituela dioen ustean ere, baita prozesu horiek guztiek eratuz doan «sentimendu-egitura bati» erantzuten diotela (Williams, 2009) dionarekin. Egitura horren azterketari heltzen badiogu, balioak nola bizi eta sentitzen diren, sentimenduak ideiekin nola artikulatzen diren, eta pentsamendua sentitu eta sentimenduak pentsatu egiten direla ulertuko dugu. Hurbilketa horrek, beraz, politika bizitzeko moduak aztertzeo aukera eskaintzen/zabaltzen digu.

Nire ustez, Euskal Herriko militantzia-ereduez hitz egiten denean<sup>163</sup>, horri guztiari egiten zaio erreferentzia, ekintzarako mugiarazten dituzten desioei eta balioei, ekintza politiko horiek modu zehatzean hartzen dituzten esanahiei, zer eta gizabanakoa eta gizartea artikulatuz eta kode partekatuko komunitate politikoa eratuz. Alde horretatik, garrantzitsua da gertaerak, balioak eta interesak dikotomizatzen ez dituen (Wildavsky, 1997) eta utopiak aztertzen dituen (Varela, 2005) kultura politikoari buruzko ikuspegi bat izatea.

Olga María Ruizek idatzi du: «Militantzia politikoa errealitatea bizitzeko, ulertzeko eta sentitzeko modu bat da, eta aise gaintzen du proiektu politiko eta/edo ideologiko batekiko adskripzio hutsa» (2015:5). JMZaren arabera, militantzia «munduan egoteko modu bat da, pentsatzeko modu bat, harremanak izateko modu bat, sentitzeko modu bat. Adimen apalategia da. Pertsona batzuei militantziak asko eman die, beste batzuei ia dena» (2014: 16<sup>164</sup>). Nire ikerketaren protagonistek diotenez, militantzia «munduan egoteko lekua da, begiratzeko tokia». Baina zein da leku hori? Zein da bizitzeko modu hori? Eta zein da apalategi horren *egitura*? Horixe da kapitulu honetan ikusiko duguna.

### 5.3. Ezker abertzalea militantziaren eredu- eta paradigma-aldaketan

Kultura politikoa aztertzeo, hurbileko zein urruneko testuinguruari begiratzea ezinbestekoa da. Kultura hori modu isolatuan aztertzeak informazio handia galtzea lekarke, egin beharreko loturak pobretu eta —larriagoa dena— desitxuratu. Azken finean, antropologikoki ez luke baliorik. Eta horretaz ohartazi zidan ikerketako partaideetako batek.

Bada, Euskal Gatazkari eta bere bilakaerari erreparatzeaz gain, erabat garrantzitsua iruditzen zait garai horretako mundu-mailako egiturazko aldaketa objektibo eta subjektiboei ere

163 2011n ETAK bere jarduna betiko etengo zuela adierazi ostean, militantziaren krisiaz hitz egiten zuten ahotsak entzuten hasi ziren herri-mugimenduetan. Hori dela eta, hamarraldi horretan militantzia ereduaren inguruko gogoetak leku handia hartu du. Testuinguru horretan, JM Fak militantzia-ereduen inguruko azterketa egin zuen, eta emaitzak liburu eta dokumental batean jaso zituen. Joxemi Zumalabe Fundazioa (2014) *Dabilen harriak goroldiorik ez*: <https://biltokia.joxemizumalabe.eus/eu/detail/reading/dabilen-harriari-goroldiorik-ez/>. Garai horretako egonezina eta gogoeta Jakin aldizkariaren 203. alean jasota dator.

164 Komunitateak ehunduz herri-ekimenetatik, ikerketa eta liburuan ere ideia hori agertzen da. Esteban, M. L. (2020). Komunitateak ehunduz herri-ekimenetatik. *Tejiendo comunidades desde iniciativas populares*, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea (UPV/EHU), Bilbao.

behatzea; are gehiago, kasu honetan bezala trantsiziozko hamarraldia izanik. Horregatik, mundu-mailan jazo ziren aldaketak ekarriko ditut lerrootara, betiere kultura politikoan izan dezaketen eragina dela eta.

Halabaina, ez da nahikoa mundu-aldaketari behatzea. Garaiko euskal politikan nagusi zen eta erantzun nahi zen kultura politikoa zein zen ere ezagutu beharra dago. Ezker Abertzaleko kultura politikoa, beste kultura batekiko aurkakotasunean —edo horrekin solasean— ulertu behar da. Alegia, Luisi Uhartek (2020:332) dioen moduan, ezkerreko kultura politikoa aztertzeo, lurralde horretan hegemonikoa denaren ezaugarriak aztertzea komeni da, preseski sare horren baitan sortzen baita disidentea izan gura duen ezkerreko kultura politiko hori, eta, beraz, baliteke hegemonikotzat jotzen den kultura politiko horren sinesmen, sentimendu eta balioak ere izatea; Nerea Arestik, diskurtsoen *aingura puntu* deitzen dituen horiek, azken finean.

Zehazki, garai hartan Hego Euskal Herrian nagusi zen kultura politikora hurbiltzeko garrantzitsua da frankismoak utzi zituen arrastoak aintzat hartzea. Mari Luz Moranen arabera, (1999), ondoko hauek ziren ezaugarri behinenak: a) gaitasun politiko maila baxua, hala nola kultura zibikoa, oinarritzakoa, eredu klasikoak aztertzean. b) parte-hartze politikoaren oinarriak eraikitzeko funtsezko jarrera eta balio-maila baxuak.

James Petrasek, 1995ean, kultura horren azterketara egindako hurbilpena baliagarria zait, berak kultura zibikoa deitzen badio ere. Soziologo estatubatuarrak kontzeptu hori darabil, estatua eta gizarte zibilaren arteko hartu-emanaz aritzeko. Estatu bateko demokraziak herritarren partaidetzaren kalitate eta mailarekin zerikusia du, herritarrak haien eskubideak egikaritzeko libre sentitzen diren ala ez, boteregune politiko-ekonomikoetatik presio eta mehatxurik jasotzen duten ala ez. Petrasen arabera (1999<sup>165</sup>), kultura politiko autoritarioetan —hauteskundeak egon ala ez—, herri-mugimenduek egonkortasun demokratikoa mehatxatzen duten ustea sustatzen dute lider politikoek. Modu horretan, beldurra eta segurtasun-eza sortzen dute herritarren artean, eta elite politikoek bakarrik erabaki dezaketelako ustea hedatu. Hemerrotekara joz gero, euskal klase politikoaren horrelako adierazpen ugari ikusiko dugu urte horietako prentsan. Horrekin batera, gatazka sozio-politikoak indarrez konpontzeko joera frankista oraindik indarrean zegoela defendatzeko zantzuak aurkituko ditugu. Kultura politikoa aztertzeo, merezi du komunikabideen esku-hartzea aintzat hartzea, horiek, gizarte demokratiko guztietan, aktore garrantzitsuak baitira; aktore politikoak, azken batean (Borrat, 1989), are gehiago 90eko hamarkadatik aurrera, prentsa boteregune eta politika praktikatzeko tresna eztabaidaezintzat jotzen den heinean. Txema Ramirez de la Piscinak, Imanol Muruak eta Petxo Idoiak (2016) egindako *Prentsa eta euskal gatazka: 1975-2015* azterketaren ondorioak aipatutakoa berresten dute.

---

165 1995an egin bazuen ere, Hiru argitaletxeak 1999an argitaratu zuen.

Beraz, Petrasen ereduari jarraituz, esan dezakegu Estatu Espainolean formalki monarkia parlamentarioan oinarritutako eredu demokratikoa ezarri arren, erregimen autoritarioetako kultura politikoa zela nagusi, eta ez herritarrak ekintzaile sozial bilakatu nahi dituen kultura politiko demokratikoa. 80 eta 90eko hamarraldietan, espazio publikoaren pribatizazio prozesuari beha, eta poliziak bortizki esku hartu zuen mobilizazio kopuru eta motari so eginda<sup>166</sup>, esan dezakegu pisu handia zuela iraganeko erregimen autoritarioko inertzietatik edaten zuen kultura politikoak.

Mundu mailako aldaketei dagokienez, 1973ko petrolioaren krisia eta haren ondorioen ostean ernaldutako hamarkada da 90ekoa, modernitatea eta posmodernitatearen arteko igarobidean kokatutako hamarkada, azken finean. 1989an Berlingo harresiaren erorketa gertatzen da, munduko saiakera sozialisten amaiera-ikurtzat hartu izan dena, dela Europako ekialdean, dela munduko beste saiakera iraultzaileen ortzi-mugetan. Margathet Tacherrek 1987an elkarrizketa batean gizartearen akabera eta norbanakoaren apologia egin izana eta Francis Fukuyama politologoak 1992an idatzitako *Historiaren amaiera* liburua jartzen dira *pentsamendu bakarra* azaltzeko mugarrizat, preseski indibidualismoaren eta *there is no alternative* eratu zuten pensamendu bakar hura. Metaerrelatoen aroa, egia sendoen bilaketaren aroa, atzean geratzen joan ziren, eta kapitalismoarekiko alternatibarik ez zegoen ustea hedatu zen horrela.

Orobat, paradigma-aldaketa oso bat ezarri zen. Parisko 1968ko maiatzean aldarrikatzen zen bizi-ereduen aldaketa enpleguaren birdefinizioarekin eta kontsumo-gizartearen hedapenarekin konpondu zen. Merkatu librearen doktrina ezarri zen, ongizate-estatuaren aurka joz eta enpresa transnazionalak hauspotuz (Pierre Bordieu, 1993; David Harvey, 1998; Richard, Sennet 1998; Manuel Castells, 2002; Ulrich Beck, 2002; Elisabeth Beck-Gernsheim, 2007). Globalizazioaren aroa ireki zitzaigun munduko txoko guztietan eta guztietara. Horren ondorioz, gizarteko estratifikazioa areagotu egin zen, aberats eta pobreen arteko aldea handituz, eta arrazaren arabera lan-banaketa areagotuz. Eremu ugariaren pribatizazioa eta eskubide sozialen galera ekarri zuen prozesu hark izan zuen eraginik herri-mugimenduko eta Ezker Abertzaleko borrokarako baldintzetan eta aldaketa sozio-politikoa pentsatzeko moduetan (Andoni Olariaga, 2020). Hurrengo lerroetan aldaketa hori nola islatu zen ezagutuko dugu.

Laburrera ekarrita, Ezker Abertzaleak kultura politiko zigortzaile eta punitiboa, zein interesatu eta diruzalea gainditu nahi zituen, eta, horrekin batera, mundu-mailan gertatzen ari ziren aldaketa sakonetara egokitu, horietan eragin eta horiek kontrako norabidean ezartzeko. Horixe da, bederen, idatziz jaso zuena, eta ikerketako emakumeen lekukotzen bidez, idatzitakotik zenbat hurbildu edo aldendu ziren ikusi ahalko dugu.

---

166 Ez dago datu zehatzik jakiterik, baina Espainiako Barne Ministeritzak urtero ateratzen dituen estadistiketan, elkartzeta eta manifestatze eskubideari lotutako datuetan, Hego Euskal Herria ageri da, mobilizazio kopuru handienarekin, bereziki komunikatu gabeak, eta istilu kopuru handienarekin; beti ere biztanle kopuruarekin alderatuz.

Horretarako, Ezker Abertzaleko idatzietan, zehazki, Jarrai, HB eta LABen 90eko Biltzar garrantzitsuenetan, aldaketok jaso ziren moduaren berri ere emango dut, horrela, kapitulu honetan, birkokapen teorikoak praktikatzen zen kultura politikoa zeukan eragina ezagutzeko eta erantzun nahi zen kultura politiko hartatik praktikan zenbat urruntzea lortu zuten jakiteko.

Zehazki, Herri Batasunako 1991eko *Urrats Berri* ponentzia eta 1995eko *Oldartzen* ponentzia; Jarraiko 1992ko V. Biltzarra eta 1996eko VI. Biltzarra; eta LABeko 1996ko IV. Biltzarra eta 2000ko V. Biltzarra aztertu ostean, kapitulu honetan aztergai dugun kultura politikoarekin zerikusia izan dezaketen horiek ekarriko ditut jarraian lerrootara.

### 5.3.1. Iraultzatik eta abanguardiatik dinamizazio sozio-politikora eta aniztasunera

Hego Euskal Herriko gizarteak mundu-mailako prozesuekin harremanetan jartzeko zeukan modua Francoren diktadura nazional-katolikoak erabat baldintzatua zegoen. Hori dela eta, Euskal Herrian, zenbait prozesu beranduago jazo ziren, edo modu bizkortuan gauzatu ziren.

Mundu-mailan, azpimarratzekoa da langile-mugimendua borroka subjektu nagusi izatetik, eraldaketa-ikur zuten beste subjektuen agerpenerako desmarta; mugimendu feminista, beltzen eskubide zibilen aldeko mugimendua, nazio-askapenerako borrokak, LGTBI mugimendua eta mugimendu ekologistak bor-borka jarri zuten eraldaketa eta emantzipazioen unibertsoa. Gurean, talde eta mugimendu horien loraldia 70 eta 90eko hamarkaden arteko urteetan sortutako mugimendu eta talde mordoak<sup>167</sup> ezaugarritu zuten.

Horrek ezker marxista-leninistaren ulerkera eta molde batzuen aldaketa ekarri zuen. Iraultza egingo zuen abangoardiako mugimendu batetik, gaietan eta moldeetan askotarikoa zen mugimendu baten murgiltze soziopolitikoan indarra egitera pasako da eraldaketa nazional eta sozialaren ulerkera. Borroka ideologikoa ardatz, indar-pilaketan tematu eta hegemonia egikaritzen saiatu nahi zuen Ezker Abertzaleak. Segidan, aztertutako ponentzia guztietan hori begi-bistakoa zela ikusiko dugu.

Jarraik, atzera begiratuta, 1992ko V. Biltzarra jo zuen jauzi hori emateko momentutzat, eta 1996ko VI. Biltzarra, eredu horretan sakontzeko urrats gisa. Definizio estatutarioak izatetik, molde bakarra ez zeukan egiturara eta «burni» *definiziorik gabeko malgutasunaren aldeko apostua egin zen*. Horrela Jarrai, «*Kuadro politikoz*» *osatutako antolakundea, euskal gazteriaren «masak» politizatu eta antolatzeko desdoblamendu militantea teorizatu eta praktikatzen zuen antolakundea* izatetik, beste sektoreekin elkarlana erraztearen alde egin zuen, *masa/kuadro, militante/laguntzaille* dualitateak gaindituz.

---

167 Ezker mugimenduen unibertsoa ezagutzeko ikus: Satrustegi Andrés, Imanol. (2017). Mugimendu ekologistaz eta feministaz jakiteko, ikus: Ormazabal, Andere (2019). LGTB\* mugimenduaz, ikus: Azpiazu, Jokin, (2020)

Horrekin batera, V. Biltzarreko 1992ko eztabaidaren ardatzak honakoak izan ziren: lan sozialaren balore politiko estrategikoa, subjektuaren ulerkera eta sektorialtasunaren aldeko apustua:

1) Lan sozialaren balore politiko-estrategikoa: urte luzeetan zehar Ezker Abertzaleak lan politiko eta soziala motzera («berehalakoa» zen negoziazio prozesuari begira) burutu beharreko indar-akumulazio eskema baten arabera planteatu izan du. Indarrak akumulatu, HB gizendu irtenbideari begira. Zabaltasuna, kalidadea eta tinkotasuna beharko zuketean proiektu zehatzak, eta lan sozialerako beste haize batzuk ekarri zituen.

2) Sujetu kontzepzioa: egunero egiten den lan isil, anonimo horren balioa azpimarratu nahi genuen. Adibidez, haurren aisi eta astia-ren esparruan garatzen zen lanari izaera eta balore eraldatzaile bat aitortzen, gizarte berri baten oinarrien hazia hor zegoela ikusi eta barneratzea, euskararen etorkizuna hortik hasten zela edo «geroko» planteamenduetan euskerak bizitzeko ezin zitzazkeela oinarri nahikorik izan ikustea. Egunez egun, dagokiguna geure egin, aldaketa politiko kualitatiboen zain egon gabe. Jauzi handiak egiteko urrats ttipiak ezinbesteko direla, eta horretarako gure lana baino ez genuela adieraztea. Txinaurria zuk, nik eta guztiok burutzen dugun lan kolektiboa dela, esparru ezberdinetan baina helburu ber-beraz ari garela eta gu geu gure helburuak erdiesteko protagonista garela ikustaraztea.

3) Sektorialtasunaren aldeko apustua: Jarrairen historian zehar beti egon da present gatazka politiko orokorra eta sektorialtasuna uztartzeko bideak eta, moldeak aurkitzeko beharra eta ezina. Eta oraindik orain asmatu dugunik esatea ez litzateke zuzena izango. Urte luzeetan zehar sektorialtasuna irakaskuntza, droga eta soldadutza hirukotean kokatu genuen, gerora aisiak eta astia lantzen joan zen, haurrena barne, baina gatazka politiko orokorrak duen abiadurarengaitik edo, zaila egin zaio Jarrairi bere proiektuaren garapen sektoriala problematika horietan asmatzea, eta Gazte Mugimenduaren gorpuzte sektoriala bultzatzea. **Jarrairen 1996ko VI. Biltzarreko ponentzia.**

Esan bezala, VI. Biltzarrean norabide hori berretsi zuten: aniztasuna onartu, sektorialtzat jotzen zituzten gaiak besarkatu, eguneroko lan sozio-politiko balioan ipini, mikropolitikari garrantzia eman<sup>168</sup>, koadro-antolakundearen izaera baztertu eta autonomia-malgutasuna-irekieraren alde egin. Ondoko parrafoak ondo laburbiltzen du paradigma aldaketa:

Lan sozio-politikoaren garrantzia: Estrategiaren berrikuntzaren oinarrietariko bat dugu hau. Ezker Abertzalearen iharduera herri eta auzoetan finkatu behar da. Herri eta auzoetan. Eguneroko lan sozio-politiko ixil hortan. Nazioaren eraikuntza dinamika eta mugimendu hauetan, proiektu «txikietan», hasten baita. Makropolitikaren liluratik atera eta gure herri eta auzoetako errealitateak aldatzea edo indartzea jo behar dugu. **Jarrairen VI. Biltzarreko ponentzia.**

Herri Batasunak ere, eguneroko lan sozial txiki eta anonimoaren aldeko apustua azpimarratzeari ekin zion. Herri Batasunako 1991ko *Urrats Berri* ponentziak eta 1995ko *Oldartzenekoak* horrela zioten, hurrenez hurren:

168 Zesar Martinezek (2002) *Giza egintza, gizartearen egiturak eta aldaketa sozialaren produkzioa eta gidaritza: globalizazioari buruzko diskurtso sozio-ideologikoak* deitutako bere doktore-tesian, eraldaketa sozio-politiko ulertzeko modu ezberdinak aztertu zituen, 90eko hamarraldian euskal ezker mugimenduetan elkarrekin bizi ziren paradigmak, alegia. Horren baitan, Ezker Abertzalea historikoki egiturazko aldaketak eguneroko bizimoduko aldaketak bultzatzearen gagnetik zegoen paradigman baitan koka dezakegu.

Herri Batasunaren edozein militantek borroka ideologikoan duen arduraz ohartu beharra dugu (...) Ernetasunezko jarreratik soilik lortuko dugu geure ideiak familian, lantokian, ikastetxean edo tabernan etengabe bueltaka ibiltzea. Zorionez ez omen gara (ez genuke izan behar) inortxo ere baketan uzten ez duten aspergarri horietakoak, edonork itzuri nahi duen proselitista; baina kontua ez da politikaz geure artean bakar-bakarrik aritzea. Izan ere, Herri Batasunako jende antolatu gabea eta interes apal edo biziagoa duten bestelako pertsonak ere informazioaren gabezia atzeman dute: datuak, hamaika arazotarako erantzunak, balorazioen transmisioak. Eta ez gara gai politiko nagusi soilez ari, herri bakoitzak egunero dituen asuntuez baizik. **1991ko Urrats berri ponentzia**

Garbi utz dezagun, behingoz: militante politikoa da egitura organizatiboetan diharduena eta militante politikoa da, era berean, jarduera sozialean lan egiten dueña; ez gehiago, ez gutxiago. Daukan garrantzi osoan neurtu behar dugu era honetako militantziaren irudia. Kultura, feminismoa, ekologia, euskara, gazteria, aisia eta alderdi hauetako lana garrantzitsua da: alor horietan eraiki eta eraldatzen dirá gauza asko, hortxe egiten da bonoka ideologikoa, hortxe herritarren egiazko premiak ezagutu eta landu. Ez gara ari asistentziazko lana egiteaz, gizarte-errealitatearen alderdi guztietatik gure Herria eraikitzeaz baizik. Militante izan daiteke egoitzan lanean diharduena nahiz dantza taldea bizkortzen dueña: honek ez du esan nahi, hala ere, egitura organizatiboetako konpromezuaren garrantzi eskerga behar bezala baloratu behar ez denik. Euskal Herriaren errealitatea aldatzea den gure helburu honek, gogoan izan dezagun, bai Herri Batasuneko militanteen, bai gainontzeko hemtarren portaera pertsonalen eta kontzientzien aldaera eskatzen du. **1996ko Oldartzen ponentzia**

1996ko *Oldartzen* ponentziak eta Jarraiko 1997ko VI. Biltzarrekoak Ezker Abertzalearen estrategia-aldaketa jasotzen dute, hain justu, negoziatziora bideratutako epe motzeko jardunetik nazio-eraikuntzara<sup>169</sup> saltoa. Norabide-aldaketa horren katalizatzaile nagusizat Aljeriako elkarrizketen porrota eta 1992an Bidarten ETako zuzendaritzaren atxiloketa jotzen duten arren, badu loturarik mundu-mailako aldaketekin ere.

Andoni Olariagaren ustez (2020), garai horretan ondoko ustea hedatzen hasi zen: «Estatua, nazioa, ez dira egun batean, negoziaketa baten ondorioz, historiak eskubidea ematen digulako edo eskubide hori berez dagokigulako lortzen diren egitate unibokoak, independentzia ez da negoziazio osteko egun handia ere» (2020:62). Beraz, esentzialismoak baztertuz, eraikuntza prozesuak jarri ziren erdian; emakume egin egiten garen modu bertsuan, nazioa egin egiten dela adieraziz. Erronka horrek militantzia-eredua eta kultura politikoari bete-betean eragiten zion. *Oldartzen* ponentziako goiko pasarteak, egituretako kidegoa eta lan sozio-kulturalen ziharduten kideen arteko asimetria salatzen du; beraz lan politikoaren eta sozio-kulturalaren arteko aitortza-diferentzia uzten du agerian, bigarren horren kaltetan.

---

169 Euskal Herriaren oinarri materialak eraikitzekeko estrategiari deritzo; besteak beste, hizkuntza, hezkuntza, sozioekonomia, lurraldetasuna. Hona, Jarraiko VI. Biltzarreko definizioa: «Nazio Eraikuntza: Ezker Abertzaleak urteak pasa ditu Euskal Herriak bere buruaren jabe izateko negoziazio baten zai. Bitartean gure herriaren etsaiek, estatu espainol eta frantsesak, indar erregionalisten laguntzaz, Euskal Herria herri egiten duten oinarriak erasotzeari ekin zioten. Gure proiektu politikorantz, independentzia eta sozialismorantz, aurrerapausu sendoak eman ahal izateko gaurtik indartu eta sendotu behar ditugu gure herriaren baldintza ekonomikoak, eraiki nahi dugu gizarte eredua, euskara eta kultura, gure herriak behar duen irakaskuntza. Gaurtik borrokatu Euskal Herriaren oinarri materialak.» **Jarraiko VI. Biltzarreko ponentzia**

### 5.3.2. Hogeitalau orduko militantzia koherente eta integrala ipar

Ezker Abertzaleak Hego Euskal Herrian gailentzen ari zen kultura politiko hartatik ezberdindu nahi zuen bere burua. Politika ulertzeko eta egiteko zuen modua ez zen garaian *normalizazio politikotzat* ulertzen zena (edo horixe aldarrikatzen zuen bederen). Ezker Abertzaleak independentziaren proiektu politikoa defendatzeko marko demokratiko eza salatzen zuen bitartean, Ajuria Eneako Itunean bildutako alderdiek, Hego Euskal Herrian edozein proiektu politiko diktadura ostean ezarritako sistema politikoaren bidez gara zitekeela argudiatzen zuten:

Besteek, alderdi komentzionaletan alegia, bestelako euskarriak dauzkate: beren bitarte teknikoak, beren diruak, instituzioetatik eta komunikabideetatik jasotzen dituzten laguntzak, esate baterako. Gurea, berriz, pentsatzeko eta politika egiteko bestelako modua da, militantziaren eraketan isladatzen den bezala. (...) Herritar Batasuna betidanik gizarte mugimenduekin batera joan da aurrera; bestetik, antolatze ikuspegi eta ihardueran askoz ere gertuago gara Herri Mugimenduetatik alderdi komentzionaletatik baino, zorionez. **1992ko HBko Urrats Berri ponentzia**

LABek bestelako sindikatu-eredu baten aldeko aukera egin du: honek, langileentzat zerbitzu orokorrak antolatu eta ematean oinarria zuten sindikatu tradizionaletatik baino ahalegin handiagoak eskatzen ditu. **LABeko 1996ko IV. Biltzarra**

Horrekin batera, garai horretan mendebaldeko gizarteetan gailentzen ziren sistema politikoek eta alderdi politikoaren funtzioak ezbaian jartzen zituen mugimendu independentista ezkertzeak; besteak beste, lau urtero bozka ematera mugatzen zen partaidetza sozio-politiko (agintari politikoei, lau urtero bozkatuak izateagatik, herritarren bizi-baldintza, bizimodu eta eskubideen gaineko zernahi erabaki hartzeko eskusibotasuna eta zilegitasuna zeriela defendatzen zuen modeloa). Horregatik ere ez zuten ohiko alderdi politiko bat, ohiko sindikatu bat, ezta alderdi politiko baten gazte edo emakume\* eremua izan nahi. Autoantolatutako gizarte eta komunitateen partaidetza defendatzen zuten, eta barne-mailan partaidetza-eredu horiek egikaritzeko eginahalak egiten zituztela dirudi, txostenetan ageri diren autokritikak irakurriz. Gainera ez da ahaztu behar, preseski *Euskadi Normaltzeko eta Baketzeko Hitzarmena* deitu zenak, Ezker Abertzalea garaian alderdiei zegokien dirulaguntzarik eta espazio komunikatiborik gabe uztea ekarri zuela<sup>170</sup>:

Paktu hark erabat baldintzatu zuen euskal politikagintza. Orduetik aurrera, prentsan —Itunean bertan agertzen zenari jarraiki— dikotomia batek hartu zuen indarra: biolentoak alde batetik eta demokratik bestetik. Lehen kategorian ez ziren soilik sartzen ETako militanteak, baizik eta ezker abertzale osoa. (Ramirez de la Piscina et. al., 2016:136).

Ondorioz, haien bozgorailua kalea eta militanteak bilakatzea hautu bakartzat zutela azpimarratzen dute ponentzietan. Horrek ulergarriagoa egiten du Ezker Abertzaleko antolakundeek haien indarra kidegoan kokatzea behin eta berriz. Kidegoak antolakundearen egituratze eta

170 *Euskadi Normaltzeko eta Baketzeko Hitzarmena* 1988ko urtarrilaren 12an sinatu zen Ajuria Eneako jauregian. Sinatzaileak hauek izan ziren: AP (oraingo PP), CDS, EE, EA, EAJ-PNV eta PSE-PSOE alderdiak. Hitzarmenaren helburu nagusia ETak euskal gizartearen zilegitasuna ezabatzea izan zen (Ramirez de la Piscina et al., 2016).

funtzionamendu moten baitan hartutako joera ezkorrak azpimarratzearekin batera, nahiko zuketen militante-eredua deskribatuz.

Hortaz, militantzia-ereduarengan modu ezkorrean eragiten zuten joerak identifikatu eta baztertzeko saiakera antzematen da aztertutako txostenetan. Eta, horrekin batera, eredu ideala izan beharko zukeena deskribatzen zen, bereziki nazio-eraikuntzaren estrategiak eskatzen zuen profila zela adieraziz.

Behin txostenok landuta, Ezker Abertzaleko kultura politiko eta militantzia-ereduarengan ezkerki eragiten zuten fenomeno, joera eta prozesuak ondoko hauek zirela ondorioztatu dut: a) errepresio klasikoarekin batera, Ajuria Eneako Itunak ekarritako isolamenduak eta inkomunikazioak zekarren gotortzea. b) Gizarte-aldaketaren eskutik etorritako indibidualtasuna eta proiektu kolektiboekiko atxikimendu falta. c) Mundu-mailako ezkerak bere egindako eredu leninistaren aztarnak.

Lehenengo biak agerian geratu dira aurkakotu nahi zuten eredu azpimarratzean; hirugarrenak —mundu mailako ezkeraren arrastoak—, aldiz, testuinguru handiagoa behar duelakoan nago. Zehazki zuzendaritza eta oinarri sozialaren arteko distantziaz, *sektarismoaz*, *elitismoaz*, *burokratizazioaz*, *erosokeriaz* ari dira. Jarraik antolakuntza-eredu leninista V. Biltzarrean esplizituki atzean utzi arren, eta 90eko HB *Herritarren Batasun*<sup>171</sup> gisa ulertu arren (eta ez alderdi iraultzaile gisa), agerikoa da antolaketa-eredu leninista ezaugarritzen zuten *zentralismo demokratikoen* printzipioak eta *abangoardiaren* kontzeptuak zeukan pisua.

Lehenak, zentralismo demokratikoak, alegia, demokrazia ezaugarritzen duen deliberazioa dakar berarekin, baina baita ekintza- eta ideologia-batasuna bermatuko duen zentralizazioa ere. Zuzendaritza zentrala eta eztabaida demokratikoaren arteko dialektika horren emaitza, hala ere, tokian toki ez da berdina izango. Norbanakoaren ekintza eta interes kolektiboak lerratzen saiatzen dira, kohesioaren mesedetan. Hori dela eta, gutxiengoak gehiengoaren erabakiak bere egin beharko ditu, funtsean bat ez etorri arren. Zentzu horretan, kontzientea den diziplina baten alde egiten da. Zuzendaritza kolektiboa izango da, denak printzipio berdinak gidatuko dituelako, kasu honetan Hego Euskal Herri edo Euskal Herri oso mailan, Hala ere, zuzendaritzek noizean behin kontu eman beharko dute. kritika eta autokritika izango baitira erakunde horien jardueraren ardatzak.

Abangoardiari dagokionez, antolakunde horietako kidegoa hautatua izango da; alegia, ez ditu edonork sartzeko beharrezko baldintzak beteko, zentzu horretan estatutuz osatutako antolakundeez ari gara. Kidego horrek abangoardiako lanak egingo ditu, gatazken norabideari dagokionez, funtsean garapen historiko-soziala arautzen duten legeak ezagutzen dituelako. Alegia,

---

171 HASI, Herri Alderdi Sozialista Iraultzailea, 1992an desagertu zen. Alderdi horri Herri Batasuna koalizioaren parte zen. Hamarraldi horretan, HBk bere egin zuten Herritarren Batasun gisa ezagutzen den funtzionamendu-eredua eta -ulerkera



zuzentze-, gidatze- eta lidergo- lanak egingo ditu abangoardia den kidegoak, baina ez alde zuzenetik horrela ezarria delako, baizik eta praktikan horrela jarduten dutelako. Beste modu batera esanda, besteen aurretik doazen aitortza izateko, beharrezko izango dute besteen aurretik joatea. Horrek exigentzia maila handia dakar kidego horrekiko, etengabeko erreferentzia eta eredu ideologiko-praktikoa izan behar dutelako.

Jakina denez, zentralismo demokratikoan eta abangoardian oinarritutako antolakuntzen esperientziak, barrura begira, zuzendaritzaren eta oinarrien arteko distantzia, eta burokratizazioa ekarri izan ditu; kanpora begira, berriz, harrokeria eta itxitasuna. Bada, militantzia-ereduaren ezaugarritzean, joera horiek oztopo zirela uzten dute agerian biltzarretako txostenek; funtsean, militantzia-ereduen arteko aldeek, konpromiso-leku eta -mailen arteko diferentzietatik sortutako zatiketa eta botere-harremanak zeudela islatzen baitzuten.

Joera horiek gaintitu nahi zituzten, eta gainera paradigma-aldaketak, gizarte-aldaketak eta estrategia-aldaketak eskatzen zuen militante-eredua ondu. Nazio-erakuntzarako prozesuak behetik gorako partaidetza behar zuen, mikropolitikoari eta sektorialari leku egingo ziona eta aniztasunera zabalduko zena:

Militante garen aldetik, koherentzi maila ere garatu behar dugu, harreman pertsonalen alorrean, bereziki. Zer den pribatu eta zer den publiko ezin da erraz bereizi, gizarte-eredu ez-konsumista, antipatriarkal eta berdintasunezkoa jokoan dagoenean. Ez baita posible kontu sozialetan kritikiko jokatu eta maila pertsonaleko gaietan konformista azaltzea. Euskarari dagokionean, behar beharrezkoa da Herri Batasunako militante euskaldunok koherentzia ematea gure jardura abertzaleari. Euskaldunari gaztekeraz egiten dion Herri Batasunako militante euskaldunak Ezker Abertzalearen borroka eta helburu politikoaren aurka egiten du. (...) Ahaleginak egin beharko ditugu gure bizitza militante eta gure bizitza pribatuaren artean sortzen diren kontraesanak gaintitzen. Zentzu horretan, ezinbestekoa izango da lanaren banaketa gizon eta emakumeen artean, bai lan militantea, baita etxeko lanak eta ume eta nagusien ardurak ere. Herri Batasunako gizaki militanteak, lekuko errealitatearen eta daraman jardueraren inguruko gorabeherak kontuan izanik, berezko lan-estilo eta dinamika garatzeko ere gai izaten saiatu behar du: - Barne mailako harremanetan: dinamika elkartzaileak sortzea, barneko aniztasuna onartzea, gure jardueraren batasun eta eraginkortasuna garantizatuko duen jarrera arduratsua erakustea eta, inprobisazioaren mesedetarako joerak gaintituta, plangintza egitearen aldeko dinamika bultzatzea. - Gizarte mugimenduekiko harremanetan: batasunezko dinamika eraikitzaileak aporteratzen asmatzea, organismo bakoitzaren subirautea, autonomia eta berezko dinamika errespetatuz. **HBko 1996ko Oldartzen ponentzia**

Ikusten den moduan, militante orori bere ekarpena aitortu behar zitzaion, gai makropolitikoetan eta egituretan ibiltzearekiko lehentasuna alde batera utziz. Eta, horrekin batera, aldarrikatzen zuten gizarte-ereduarekin bat zetorren jarrera pertsonala eskatzen zitzaion haien egunerokoan, izan partaidetza sozio-politiko leku-denboretan, izan hortik kanpo. Jarrairen kasuan, pribatu eta publikoan koherente jarduteari *hogeita lau orduko militantzia* deitu zitzaion. LABen kasuan, koherentzia-arazoak konpromiso falta, indibidualtasuna, erosokeria eta ikuspegi politiko oso baten faltarekin lotzen zen.

Bultzatzen dugun proiektu politikoaren arabera, gizartean eta gure eguneroko bizitzan dauden arazo, bidegabekeria eta oztopoei aurre egin behar diegu eta gure praktikarekin bizitzaren atal guztietan eraiki nahi dugun gizartea bultzatu behar dugu. Arlo guztietan burutzen dugun lanari ikuspegi orokorra eman behar diogu. Jarraiko militanteok 24 orduko militanteak izan behar gara. Militantzia ezin du soilik eginbeharrez osatuta egon, militantzia jarrera orokor eta integrala da. Militantzia aldaketa kolektibo eta pertsonala lortzeko prozesu bat bezala ulertu behar dugu. Gure praktika politikoan jorratu nahi ditugun lan ildoak ezinbesteko gauzapena izan behar dute gure eguneroko bizitzan; gauza biak ezin baititugu banatu. Jarraiko militanteek inplikazio osoa izan behar dugu gazte mugimenduaren bultzadan eta suspertzean, hori baita gure militantziari benetako zentzua ematen diona, barne egitura, dinamika, hezkuntza egokitu beharko direlarik. Militanteek erakundearekiko eta jorratu behar ditugun ildoekiko hartzen ditugun erantzunkizunetan datza erakundearekiko hartzen dugun konpromezua. **Jarraiko 1996ko VI. Biltzarreko ponentzia.**

Jarduera sindikalaren plangintza egin behar da, helburu dinamikoak zehaztu eta beharrezkoak lirakeen emaitza eta aldakuntzak, indibidual eta kolektiboki ebaluatzeko. Erosokeria, lanean nork bere buruari mugak jartzea eta antzeko jokabideak, militantziaren eta erakundearen bilakaera indibidual eta kolektiboa usteltzen dute. **LABeko 1996ko IV. Biltzarreko ponentzia**

Laburtuz, txosten idatzien arabera, 90eko hamarkadan, behetik gorako joera duen, eguneroko lanean eta eguneroko askotariko auzietan esku hartzen duten kidegoaren alde egin nahi zen. Egunero eraiki behar zen nazioa, leku askotatik eraikitzen ari zena.: gatazka politikoaren gordinari lotutako jardueraz gain, hizkuntza, hezkuntza, arlo sozioekonomikoa eta bestelako eremuen garrantziari erreparatuta, horietan arituko dena, konpromiso-maila guztiei irekita egongo dena, horiek guztiak aitortuko dituen, bere bizitza publiko eta pribatuan proiektu politikoarekiko koherentzian arituko zena. Eta azken horri *hogeita lau orduko militantzia* deitu zioten; ikuspegi feminista batetik, pertsonala politikoa dela esateko modu bat zela esan dezakegu.

Harro baina harrokeriak gabe, modu apal eta anonimoan, xinaurri-lanetan zebiltzan kideak goraiatzeari ekin zioten. Zio horretarako oztopotzat jotzen zituzten: gatazka politiko armatuaren bilakaerak zekarren gotortzea, Ajuria Eneako Itunetik eratorritako isolamendu eta inkomunikazioa, eta, amaitzeko, munduko ezker leninisten printzipioen eragin ezkorrak.

Bada, jarraian, praktikan zein kultur politiketan sozializatzen ziren eta hura nola bizi eta sentitzen zuten ikusiko dugu, idatzia izan denaren gainetik, egunerokoan emakumeek\* nola gorpuztu zuten horren bila ari naizelako.

#### **5.4. Borroka-mandaturia eta eredu idealak**

Ikastetxe eta unibertsitateetan irakatsi digute 60ko eta 70eko hamarkaden garaia mugimendu sozio-politiko zabaleko eta mobilizazio-maila esanguratsukoa izan zela. Alegia, proiektu politiko utopikoak, iraultza-feminismoa-ekologismoa-borroka armatuak, 68ko maiatza, nazio-askapenerako borrokak eta gerra inperialisten aurkako aldarri ugari zegoen garai gisa irakasten da; sasoi politizatua, politikak jendarteko norbanakoen bizitza eta bizimodua ardatzen zueneko; borrokaz baino ezin lortu daitezkeela eskubideen egikaritzea eta inork ezer oparitutako ez

ziela jakin bazekien belaunaldia; aldaketa haien esku zegoela sentitzen zuen belaunaldi politikoa, subjektu sentitzen zen gazteria.

XX. mendeak XXI. mendeari leku egin zion aroari dagokionez, ordea, prozesu horien etena, amaiera, ahultzea eta itzaltzea dakar. 90eko hamarraldia zinez aldaketa ekonomiko handiko aroa izan zen, zeren, kapitalismoaren historia kontatzeko garaian, sistema hura ezbaian jarri zuten saiakeretatik garaile atera eta, bere burua berrasmatuz, gaur egun hartu duen forma neoliberalarekiko bidean trantsizioa izan baitzen. Aldaketa ekonomikoak, sozialak eta kulturalak ekarri zituen, eta, berarekin, belaunaldien artean haien duintasunaren eta ongizatearen alde borrokatzeko subjektibitate ezberdinak, oro har.

Mundu mailako prozesu hura, Estatu Espainolean, PSOEn gobernaren eskutik gauzatu zen, James Petrasek 1995ean CSICerako egin zuen ikerketan ondo adierazten den modura. Gogoz tematu zen Felipe Gonzalezen gobernu langile-klasearen atomizazioa bultzatu zuen industria handi eta zentralisten amaiera-lanetan, eta enpresa-sare deslokalizatu eta interkonektatuen hedapenean. Euskal Herrian, erruz jo zuen prozesu hark: Euskalduna eta Altos Hornos enpresen akabera, 1988 eta 1996 jartzen da eraispen industrialaren ikurtzat. 1994ko ETTen legalizazioa eta 1999ko Boloniako Adierazpenean aurreikusitako hezkuntza-ereduaren ezarpena prozesu horren beste urrats osagarri gisa ulertzen dira.

Modu horretan, Uzuri Aboitzek (2022) ondo aztertu duen bezala, 60ko eta 70eko hamarkadetan Estatu Espainolean jazotako enpleguaren eztandak eta bizi osorako lana eta identitatea zekarren eredutik, enpleguaren behin-behinekotasunera pasa ginen. Gatazka soziala klase-gatazkak ezaugarritzen zuen eredutik, langilegoaren atomizaziora eta *no future* pentsamoldera igaro ginen belaunaldi bakar batean. 36ko estatu-kolpeak ekarritako gerra egin zuen belaunaldien seme-alabek ezagutu zuten enpleguaren loraldi hura gure gurasoak diren horiekin amaitu zen, eta gure belaunaldiari Estatu Espainoleko trantsizio politiko deuseztuak ekarritako dezepzioaren aztarnekin batera, gure gurasoak baino txarrago bizi-beharraren espektatiba egokitu zitzaigun. Estatu Espainola mendebaldeko demokrazien pare homologatu beharrean zen, eta, horretarako, 1987an NATOn sartzearekin batera, 1992ko Maastrichteko akordioak ekarri zuen Europar Batasuneko antolaketa, eta Hego Euskal Herriko kasuan, ekonomiaren tertziarizazioan murgildu zen buru-belarri, Estatu Espainolean aldaketok modu azeleratuan jazo zirela ahaztu gabe.

Testuinguru horretan egin ziren militante ehundaka gazte Euskal Herrian, baita ikerketako protagonistak ere. Haiek aditzean, behin baino gehiagotan militante bihurtzea gauza *naturalizat* zutela dirudi, garaian *tokatzen zena* zela. Gainera, azaltzen dute ohikoena zela militante bilakatze hori gazte-gaztetatik gertatzea, zehazki militantzia berantiarra<sup>172</sup> izan dutenek, beraien bidea *ez-naturalizat* jotzen baitute. Lechnerrek (1987) proposatu zuen, ahozkatzen ezta azaltzen ez diren

172 20 urtetik aurrera hasi zirenak.

«ebidentzietan» arreta ipintzea, preseski, normal eta naturaltzat jotzen den horri erreparatzea. Funtsean, *natural* eta *ebidentetzat* jotzen den horrek kultur mandatu baten berri ematen digula deritzot. Kasu honetan, *borrokarako kultur mandatua*.

Atal honetan *natural* horren esanahi eta nolakotasuna zein natural/ez-natural banaketa bitarrak agerian uzten dituen idatzi gabeko arauak, joerak, eta patroï kulturalak ezagutzen joango gara. Ez soilik engaiamendu goiztiar eta berantiar kategorien arabera, baita generoari lotutako mandatu zein Ezker Abertzaleko kultura militantearen beste ezaugarri batzuei so ere.

Idatzi gabeko arau zen borroka-mandatu hori, bete-betean gauzatu zutenen ahotsen bidez (Sara, Lur, Mari eta Irene) eta bere osotasunean bete ez dutenen bidez (Xune, Alazne eta Maddi) ezagutuko dugu. Balioan jartzen zena zer zen erakutsiko digute bi mutur horiek. Zehazki, ikusiko dugu gazte-gaztetatik hasitako militantziak buru-belarri harrapatu eta erabat konprometitzen zituela. Bi muturrek, komunitate horretan, 90ko eta 2000ko hamarkadetan ideala zena eta arautzat jotzen zutena uzten digute agerian.

#### 5.4.1. Naturalizatutako bideak: militatzea patua balitz bezala

##### **Mari: «Ni jada hori nintzen»**

Marik ez du baietz ala ezetz erantzun behar den galdera edo proposamen bezala sentitu bere engaiamendu politikoa, ezta ETAKoa ere. Aita errefuxiatua izan zuen, ama ere atxilotutakoa, bera Ipar Euskal Herriko errefuxiatuen komunitatean haurtzaroa emandakoa, eta *ni jada hori nintzen* dio. Modu horretan, garaiko testuinguru politikoak eta familiako bizipen politikoek bere pertsona eta bere prestutasuna eraiki zituztela azaltzen ari da. Bere burua lur-sail hutsa balitz bezala eta, testuinguru eta familiak pixkanaka lurra goldatu eta erein zutenez gero, urte batzuetara ortuariak ematerik baino izango ez balu bezala ari da. Horrekin ez du esan nahi beste hauturik ez zuenik eta, ondorioz, bere erabakiari kontzientzia falta zitzaionik; baizik eta engaiamendu horretarako prestatu izan balute moduan sentitzen zela, zuzena, bilatua eta intentzionatua izan ez zen prestaketa izan zuela. Bere gogoia eraiki eta elikatua izan zela, ondoren gogotsu eta zalantza izpirik gabe aritzeko. Egin behar zuena hori zela jakiteko. *Nik uste dut horrekin hasitu eta hezitu nintzela. Ez da bat-batean bai edo ez (...) baina es ke ni jada hori nintzen. Eta hori da egin behar nuena momentu horretan.* Eta, horrela, ehuneko ehunean sartu zen, ez zuen beste aukerarik sentitzen. *Denerako prest? Ba bai.* Hala ere, hautu horren ondorioez hausnartu zuela esaten digu, horiez guztiez jabetzen zela.

No lo pensé... ahora las consecuencias sí. En ningún momento cabía otra cosa... el %100. Horrek ez du esan nahi batzutan ez nuenik eramaten gorabeherekin. Ni gogoratzen naiz, joaten nintzanean kotxez, ni bakarrik behin baino gehiagotan joaten nintzela negarrez. Ze oso fuertea zan bizitzen ari nintzena. Ze nik banekien amaituko nuela edo ihesean edo espetxean. Baina ihesak tiene dos opciones: sasia edo hilda. Eso sabes que es así. No es que me diera igual. **Mari**

Hala ere, ETAko bere engaiamenduan urrats handiagoa emateko aukera izan zuenean — jada 25 urterekin— eta zertarako prest zegoen galdegin ziotenean, erreakzio berbera izan zuela diosku. Mari ez zen klandestinitatera igaro, ez dakigu nahi izan ez zuelako edo horren beharrik ez zegoelako, baina atxiloketak legal lanetan harrapatu zuen.

**Lur: «Hau tokatzen zaigu»**

Lurri ere ETAko gonbidapena iritsi zitzaionean, bera gaur egun harritzen bada ere, ez zuen zalantzarik izan eta ez zuen gehiegi pentsatu behar izan; izan ere, horren zain zegoela eta erabakia alde zuretik hartua zuela ikusten baitugu:

Neregana ate joka etorri zirenean, ba esan zidaten: pentsatu. Eta nik esan nien nik ez det ezer pentsatu behar. O sea, hau da momentu honetan tokatzen zaitena, baina jaiotzen zeratenetikan, ba uste nuen tokatzen bazitzaidan, ba tokatuko zitzaidala. Inoiz ez det pentsatu erabaki bat hartu behar nuela, nik behintzat ez dut horrela bizi. Nik buruan neukan, tokatzen zaidanean, edo hurbiltzen zaizkitanean, beste etapa bat izango da nire bizitzan, baina inoiz ez dut zalantzan jarri erabaki bat hartu behar nuenik adibidez. Nik pentsatzen nuen nire bizitzako prozesu logikoa zela. **Lur**

Beraz, Lurrek ere Mariren antzera, *prozesu natural bezela* bizi izan zuen. Baina ez du bizitzan zehar oharkabeko prestaketa-prozesuan egon zenik sentitzen, Lurrentzat *Euskal Herrian jaiotzen gara eta hori da tokatzen zaizuna. Etapa desberdinak, eta militantzia desberdinak hartzen, baina beti konprometituta. Hau da, Euskal Herrian jaiotzen naiz, eta hori horrela da, eta iruditzen zait, hola dala. Alegia, jaiotzatik patuarekin lotutako zerbait balitz bezala ari da, zehazki gatazka edo guda baten erdian jaiotzearen patua. Erabakia berea baino, gerra hori hasi zutenek ezarri zioten jaiotzeko bataioa zela dirudi.*

Gainera, mundu guztiak horrela sentitzen zuela uste zuen, nahiz eta gerora, bere bidean aurrera egin ahala, hori horrela ez zela jabetu. Dena dela, berak bere ETAko partaidetza legalarekin aurrera egin zuen. Eta Marik bezala, ez du horren gogortasuna ezkututzen, eta horrek ekarriko zuenaz jabetzen zela adierazten du; azken batean, *momentu horretatik aurrera hoberen gertatu ahal zaizuna espetxean bukatzea* baitzen. Beraz *polita baina gogorra* bezala definitzen du esperientzia. Etxean gezurretan hasi beharra, familiar lanean ezin lagundua, bere enpleguan ere tranpak egiten aritu beharra... azken finean, *militantzia ezkutua* eraman beharra pisua egiten zitzaizola diosku. *Zuk isil-isilkan eraman behar zenuen hori, eta gogorra zen konpatibilizatzea zure bizitza arrunta zure izkutuko jarduerarekin; izan ere, horrek hurbilekoekin enfrentamenduak eta diskusioak* izatera eraman zuela esaten digu.

Gerora une polit asko deskribatzen ditu, zaindua sentitu zela eta, beraz, holako *jende zoragarriarekin egoteak ematen zizun indarra guztirako*. Izan ere, hurbila eta familiarra egin zitzaion giroa hasieratik. Horrela, bere ETAko militantzia oso polita, gogorra eta, batez ere, oso intentsoa izan zela dio. Mari bezala, legal lanetan ari zela harrapatu zuen atxiloketak.

**Sara: «Harriduraz, baina ;de cabeza!»**

Sararentzat ere militatzea *normalena* zen, *gauza arrunta bat, etxean denek egiten zuten zerbait*. Dio *eskolara joatea bezain* naturalizat zuela. Izan ere, aita Iparraldean errefuxiatu zuela jaio zen bera, gerora estraditatu eta espetxeratu egin zuten. Kartzelatik landa, berriz ere ihesean egin behar izan zuten, gaurdaino. Hortaz, bere *bizitza jaiotzez izan da horrela*. ETAn parte hartzeko proposamena 17 urte zituela, oso gazterik jaso zuen. Une hori heldu bitarte beste antolakunde eta dinamiketan aritzen zen, aurreko protagonistak bezala. Hala ere, horren gaztea izanik proposamen hori jasotzeak harritu egin zuen. Bere buruan bazekien uneren batean hurbilduko zitzaizkiola, dela laguntza eske, dela parte hartzeko eskatuz, bere ibilbide zein familiagatik; izan ere, ama, aita, izeba-osabak, aitonak, lehengusuak, den-denak atxilotuak izandakoak zituen. Are gehiago, pentsatuta omen zeukan zer erantzun. Hala ere, espero zuena baino lehenago iritsi zen, gazteegizat zeukan bere burua. Jakin bazekien historikoki jendeak oso gazterik parte hartu izan zuela ETAn, baina, hala ere, harritu egin zuen bera kontuan hartzeak, horren gazte izanik. Dena dela, baiezko borobila eman zuten pentsatu gabe, eta erabaki horren ondorioez oso kontziente zela dio.

(...) ze jendeak esaten du «eske adin horretan» eta ez, ez, adin horretan ni oso konziente, edo hilda amaitzen nuen, edo kartzelan amaitzen nuen, edo nire aita bezala, han eskegita auskalo zenbat urte. Hori egia da konziente nintzela horretaz. Momentua heldu zenean, baiezkoa eman nuen. **Sara**

Oso ondo gogoratzen omen du momentu hori. Paseo batera gonbidatu zuen lagun eta maitale batek, eta, hasieran paseo ohikoa izango zela uste zuen arren, beraien harremanaren baitakoa, azkar antzeman omen zion zerbait berezia egoerari, lagunaren urduritasuna medio. Hala, ahoz, *Erakundean* sartzeko prest zegoen galdegin zion, eta berari barruak buelta eman zion, eta bere erantzuna azkarra, unekoa eta alde aurretik meditatutakoa izan arren, amarekiko erruduntasun modukoa ere sentitu zuen, amari faena handia egiten ziolakoan. Hala ere, ondoko gogoeta eginez landu zuen bere autonomia:

Gero pentsatu nuen ere bakoitzak bizi behar duela bere bizitza, bakoitzaren bizitza berea dela. Beraiek egin dute nahi dutena edo ahal izan dutena, eta hau nire bizitza da, eta nik hartu behar ditut erabakiak. Beraz, nik pentsatzen dut hau dela egin behar dudana gauza bat, ikusita egoera zein den. Ez dakit nora iritsiko den hau, baina beharra ikusten dut borroka armatuak aurrera jarraitu dezan, eta bizitza osoan apolloa eman diodan erakunde bati, nahiz ta bigarren filan izan, ba pasako naiz egotetik pasako nintzela lehen filan egotera. **Sara**

Horrekin batera, 2000ko hamarkada hartan, Ezker Abertzale edo herri-mugimendutik gertuen sentitzen zuen erakundea ETA zela diosku. Beti izan omen du bihotzean, funtsean jaiotzatik ezagutu izan duelako aitaren bidez. Baina jakin bazekien gelditi zitekeela ETAn sartu gabe, beste nolabait laguntzen, *jende askok egin duen bezala eta beharrezkoa izan den bezala gerra honetan, baina momentu horretan, proposatu eta esan nuen, de cabeza, banoa!*

Etxera oso urduri iritsi omen zen, bekokian bere sekretua markatua balu bezala, amak sekretu handia antzemango zion beldur. Horren gaztea izanik eta amarenean bizi izanda, ez

omen zen erraza izan etxean gezurrak esatea, hori baino lehenago sekula ez baitzuen egin. Hala, kanpoan egun-pasak egiteko asmakerian aritu behar izaten zuen, eta hori ez zuen ondo eramaten; are gehiago, txarto zeramala diosku.

Ez zen hori izan ezinegona eragin zion bakarra, bere gaitasunen inguruko zalantza handiak izan zituen, emakumea\* eta oso gaztea zelako. Hala, galdegin egin zuen ia gai ikusten zuten, eta, besteen baiezkoa jasota, aurrera egin zuen. Modu batera zein bestera, kezka ez zen berehalakoan desagertu; ondorioz, zer egin beharko zuen horrek baino, tailla emango ote zuen horrek kezkatzen zuen.

Bai kezkatzen zidan horrek, zer egin behar nuen horrek ez, ze printzipioz aukera ezberdinak eskeini zizkidaten lan egiteko: bat zen kanpora joatekoa nintzenez hurrengo urtean Unibertsitatera, ba zan jendea hartzea etxean. Ta uko egin nuen, ba ez nintzelako bakarrik biziko, eta ni pringatzea bale, baina ez nuen nahi honek salpikatzea jende gehiagori. Bestea zen zuzenean komando legal batera pasatzea, zera batzuk hartu ondoren. Ta hori be esan nuen ezetz. Eta hirugarrena zen ba kaptazioan aritzea, jendeari proposatzea. Eta hori ikusi nuen errezagoa, jendez inguratuta nengoen, jende asko ezagutzen nuen militantziagatik, beti jende nagusiagoarekin ibiltzen nintzen; beraz, adintartea zabaltzen nuen, eta gainera unibertsitatera nindoan ikastera eta han jende gehiago ezagutuko nuen... o sea, ikusten nuen zela lan bat asumiblea eta egin nezakeela ondo. Taldeari esan nion ezetz ze zehazki ez dakit zergaitik, baina agian zuzenean arma... ez dakit, igual da lehen esan bezala pixkat zaharragoa banintz... baina hain gazte eta zuzenean imajinatzea arma batekin nire burua egiten zitzaidan buf, gehiegi izango balitz bezala, handiegi geratuko balitzait bezala. Ta bestea askibileagoa ta errezagoa, eta nire granito de arena hori ondo egin nezeakeenaren sententzia neukan. (...) **Sara**

Mari eta Lur ez bezala, Sarak ez zuen edozertarako prestutasuna agertu. Beretzat egingarriena zenari kolpe zion, adin eta sexu-generoari erreparatuz eta zeukan harreman kapitala probestuz. Edozein kasutan, hilabete gutxiko esperientzia izan zen berea, Guardia Zibilaren atxilotetak bere konpromiso eta erabakia eten zuelako.

Hala ere, ikerketa honetan ez dugu pistola norbaiten aurka erabili behar izan duen emakumerik\* aurkitu. Eta, beraz, urrats horrek eragin dezakeen jauziaz ezin izan digute hitz egin. Hala ere, batek besteari konpartitutako bizipenak bai jaso ahal izan ditut, dela emakume\* hauen bidez, dela beste pertsona batzuek niri esanda. Jauzi horrek barruan betirako apurtzen den zerbaitek eragiten omen du, eta, hainbat kasutan, epe motzean gorputzak botaka egiten eta epe luzera amets gaiztoak izanez bizi izan dute.

Beldurrik handienetakoa gauzak ondo ez egitea zen, horrek beste pertsonengan — kideengan— eta bere sentitzen zuten proiektu eta antolakundean eragin zezakeen galerari beldur, finean. Ostantzean, beste ikarek lekua egin gabe aurrera egiten saiatzen zen, emozio horri lekua egin gabe. Hala ere, azkenean atxilotu egin zuten, gauzak ondo egin ez zituelako, bere ustez, eta hori egon daitekeen zauririk latzena dela agerian uzten du, elkarrizketan zehar.

Orain artean, Mari, Lur eta Sararen bidez, naturaltzat jo dituzten ibilbideak ikusi ditugu. Batzuk luzeagoak, eta besteak oso laburrak. Hurrengo atalean, txanpon beraren beste aldea balitz bezala, horren ohikotzat jotzen ez dituzten ibilbideei leku egingo diegu, Xune, Alazne eta Maddiren bideei beha.

#### 5.4.2. Mandatua erabat bete ez zutenak

##### **Xune: «Era una pringada»**

Xune, ikastetxe-garaian, Egizan eta Ikasle Abertzaleak zein Jarrain aritu zen. Unibertsitateko ikasketak egitea erabaki ondoren, bizilekua aldatu eta beste hiri batera joan zen bizitzera, eta ordura arteko bere parte-hartzea eten zuen. Unibertsitatean, euskal adarrean matrikulatu arren euskaraz ikasteko eskubidea bermatuta ez zegoela ikusi zuen, irakasle falta izugarria biziz justu bere lizentziaturan<sup>173</sup>. Horrek bere konpromisoa unibertsitateko euskara taldean berregitera eraman zuen, bereziki borroka horretan. Hala ere, oso ondo azaltzen ez dituen arrazoiak direla eta, parte hartze hori alde batera utzi zuen. Elkarrizketako beste une batean, aldiz, argi adierazten du bere buruaz egiten zuen etorkizuneko proiektzioa ikasketei lotuta zegoela eta ez militantzia eta borrokari.

O sea, izan zen dena harremanen kontu batengatik. Eta ez igual militantzia pertsonal batengatik. Nik, beraz, ez nuen aurreikusten atxilotzea inondik inora, ni ikasle oso ona nintzen, eta nire etorkizun akademikoa nahiko finkatua zegoen, ez nuen nik holakorik proiektatuta. Inoiz ez dut ikusi nire burua ekintza-emakume bezela, todo lo contrario, ez naiz, ez daukat tener calle, ostia, ez naiz bizia... de hecho, harrapatu ninduten oso *out* nengoelako, deskolokatuta eta... horretara adi banengo ez nindukete atxilotuko. Eta gero hori ere kostatu zitzaidan, barruan kostatu zitzaidan, ze bai beti eduki dut hor ere, como sensazioa que estaba más de paso. De ¿qué cojones pinto yo aquí? ¿Pero esto qué es? Ze bai, niretzat bazen harrotasun-punto bat. Erakundea... agian aukera bat izan ahal zen? Ba agian bai, baina hipotetikoa, ez zen erreala. Ez nihoan horretara, ez esatera: ei kontatu noizbait nirekin. Ez ez... Hala ere, nik uste dut oso ausarta izan naizela beti eta horretan ere nortasunak eragin egingo zuela... ze niregana etorri zenean, aurretik beste hiru pertsonak ezetza esana zioten, eta nik ere esan ahal nion, ba ez, ez... Baina beti izan naizenez una hechada palante esaten dena, ba nortasunak egiten du... denak egiten du, ideologiak egiten du... orduan ba benga palante! **Xune**

Beraz, Xunek ez zion engaiamendu geroz eta handiagoa hartzearen bide logikoari jarraitu. Parte-hartze mota ezberdinak izan arren, pixkanaka bide akademikoak pisu handiagoa hartu zuen, eta horixe zuen lehentasun, tartean ekintza emakumetzat\* ez zuelako bere burua. Aldiz, harreman pertsonal bat medio eta hari mesede bat egitearren, ETArri laguntza ematearen akusaziopean atxilotua eta espetxeratua izan zen. Han, beste emakume\* militante ezberdinekin topo egin zuen, eta horrela deskribatzen du bere burua, haiekiko alderaketan:

Hasiera nahiko... uf... barruan, ba bazegoen ETako jendea eta antolakunde politikoetako, eta, bueno, pues ni (barre egiten du) edo ni bezelakoak. Orduan, a ver bai izan zen ideologiagatik, baina azkenean izan zen lagun bati laguntza emotearren orduan. Eta ikusten nuen, ba, tokatu zitzaidan

---

173 Unibertsitateko ikasketak hastean arazo honekin topo egin zutela azpimarratu dute ikerketa honetako beste lau emakumek\* ere.



hiru lehen pertsonak antolakunde politikoetakoak ziren, oso garbi zituztenak gauzak eta oso disziplina zorrotza mantentzen zutenak egunerokoan. Beraiek hor zeuden ba ez dakit zelan esan, arrazoi oso potente batengatik, ardura politiko bat aurrera eramateagatik; beraz, beraiek zeuden *en pie de guerra...* ta ni nengoen ondiño en un enbolau cerebral ja ja. Kostatu zitzaidan, baina aldi berean inoiz ez zitzaidan pasatu burutik kolektibotik ataratzea edo ez sartzea. **Xune**

Xunek dio militantzian erabat konprometitu eta espetxea konpromisoaren hain ondorio logikotzat zuten emakumeekin\* topo egin zuela, edo berak bederen horrela ikusten zituen. Haiekin alderatuz, bere ibilbidea oso bestelakoa zenez gero, *de paso* sentitzen zen, han nahigabeen erori balitz bezala. Baina, halaber, bere agentzia, hautua eta konpromisoa azpimarratzen ditu, EPPKan (Euskal Preso Politikoen Kolektiboan) sartu izanagatik, eta ausardia zein ideologizazioa eskatzen zituen *laguntzatxo*a eskaintzeagatik. Azken batean, Xuneren kontakizuna eta begirada pribilegiatua da. Mandatua bete ez duenaren begiradatik mandatua bete zutenak deskribatzean, argia egiten duelako mandatu horrengan.

Horrek beste elkarrizketetan ere agertu den *laguntzaile* figurari leku egiten dio. Ezker Abertzaleko zeinahi erakunderen barruan egon ez, baina antolakunde horiek beharrezkoa izan zezaketen edozein laguntza eskaintzeko prest zeudenak edo, hobeto esanda, beraien ekarpen eta militantzia laguntza emate gisa definitzen zutenak. Alba Egizanez ari den batean, laguntzaile figura horretaz ari da: *era laguntzaile, me tenían como laguntzaile, porque yo para militar necesitaba dar, dar.* **Alba**

Horrek esan nahi du bete-betean egon (Albak *eman eta eman* deitzen duena) eta geroz eta gehiago konprometitu nahi ez zuten kideak, inguruan-edo laguntzaile-figuran geratzen zirela. Eta, ikusi dugun bezala, lan horiek naturalizat zeuzkaten, eta zentroa zegoen eredu horrekiko periferian gertatzen ziren. Are gehiago, Xunek ondo azpimarratzen duen moduan, laguntzaile-figura izateak konpromisoa eskatzen du, eta hori izan bada ekarpen politikoa.

#### **Alazne: «Hau ere bada, militantzia da»**

Alazne, familiarteko harremanak aztertu ditugunean ikusi dugun moduan, beti Ezker Abertzalekoa sentitu arren, Egizan eta Ikasle Abertzaleak-en zertxobait aritu arren, eta mobilizazio eta asanblada askotan egon arren, militante LABen sentitzen hasten da, eta bertan jada 23 urte zituen. Are gehiago, LABen, printzipioz, ikasketak amaitu osteko praktikak egitera sartu zen, nahiz eta gaurdaino geratu. Berak dioenez, ez zen denbora bat arte ohartu militante egin zela, LABek militante bihurtu zuela. Modu batera zein bestera, Ezker Abertzalera formazio akademiko edo profesionala dela medio sartzea ez du uste ohikoena denik, eta, formazio hori tarteko, gerora militante bilakatzea ere ez.

Gainera esaten nuen, ze suerte daukaten, ikasi dudan hori praktikara eraman dezaket, orduan uztartzen nuen nolabait nire lana balizko militantzia horrekin. Hasieran ez nuen jakingo militantzia zenik baina gero konturatu naiz, ba, ostras, nire militantzia sindikatuan izan dela. **Alazne**

Pixkanaka, askotariko zereginetan arituz eskarmentua hartu zuen sindikatuan, eta LAB Emakumeak\* sortu zen garaia ere ezagutu zuen. Gizonen artekoa zen sindikatuaren barruan emakume\* eta feminista gisa bidea egin zuen, tartean feminista izatea batere ondo ikusia ez zegoen sasoian eta emakume\* askok beraien burua horrela definitzen ez zuten aroan. Aldi berean, zeuden emakume\* bakanen artean elkar lagunduz eta saretuz, Ezker Abertzalea 2000. urteko prozesu feministara iritsi, eta denek batera gaurdaino dirauen sindikatuaren eraldaketa feministari ekin zioten. Garbitzaileen greba bat ekarri digu gogora, ordura arte feminismoa zer zen eta zer ez zen definitzen zituen ulerkerak hankaz gora botatzen lagundu zuen ekimenetako baten adibide modura. Berak dioen moduan, *feminismoak ere aurpegi ezberdinak ditu, astindu handia eman zitzaion sindikatu barruan*. Begi hunkituekin gogoratzen dituen mobilizazio eta greba horiez aritzean, berarekin sindikatuan zebilen beste emakume\* kide feminista baten aipuak ekarri ditu behin eta berriz. Hark «hau ere bada, militantzia da» eta «hau ere bada feminismoa» esaten ziolako.

Orduan hasi nintzen pixkat sindikalgitza zer zen hortik ikasten. Ostras, langile hauen lan baldintzak beraien alde ateratzea, beraien lan, bizi duten prekaritate guzti hori, ba bada militantzia bizitzeko beste modu bat. Hortik pixka bat ikusten dut nire burua. Nik uste dut militantzia hori ez zela militantzia bezela ikusten; egia esan, berria ere bazen holako greba bat, sindikatua beti izan da oso industrialia ere, ta grebak nahiko ohikoak ziren, baina emakumeak grebara ataratzea ez zan hain ohikoa. Iruditzen zait bisualizatu genuela zein zan emakume horien egoera eta egunero manifak egiten, Donostia hartu genuen. Kristonak montatzen genituen, joaten giñen pikete moduan ba garbitzen zuenari zikintzera, hau da pikete aktibo ginen, gaur egun ja Mozal Legearekin... baina garaian, inputatu gintuzten, eta joan behar izan genuen deklaratzera, eta, bueno, esan nahi dut beste garai batzuk ziren, gaur egun askotan esaten dugu... garai hartan egiten genituen gauzak gaur egun pentsaezinak izango liritezke. Orduan, bazan modu bat ba bisualitzatzeko beste kontu horiek ez? **Alazne**

Garaian inputatu zuten arren, elkarriketaren beste une batean, errepresioarekiko beldurraz hitz egiten ari ginela modu orokorrean errepresaliatua sentitzen den galdetzean, lehenik isilik geratu zen, gero harridura-keinua agertu zuen, ondoren irribarre urduria, eta azkenik hasperena atera zitzaion. Izan ere, une horretara arte, LABen, Rafa Diez idazkariatz gain —zein LABekin zerikusirik ez zuten jarduerengatik atxilotutakoez gain— ilegalizazioen fasean<sup>174</sup> errepresiorik bizi izan ez zutela azaltzen ari zen, baina baita mehatxu horrekin bizi zirela ere:

«Hurrengoak gu gara» horrekin bizi izan ginen, ikusita zein zen egoera, «hurrengoak gu gara». Baina ez zan bitartekorik ipintzen horretaz hitz egiteko, nik uste ezetz. Ze ni orain esaten ari naizen hau, ez dakit pare batekin edo bakarrik konpartitu dudana, eta orain, e? Momentuan ez, momentuan ez. Ez zan, bueno, nik, behintzat, ez nuen hitz egiten, gero ba diskrezio-maila bat behar zan. Beldur bat baneukan, ez horrenbeste nigaitik, ze nik irudikatzen nuen nire burua, ba eramango naute edo etorriko dira bila. Noizbait irudikatu dut hori nire buruan. Baina nire beldurra zan etxeoak, ama zehazki, aita hil zan. Beldur hori, nola biziko duten, zelako disgustoa... beldur hori handiagoa zan nirea baino. Ni ba, aterako naiz, edo ez dakit, baina bai, nire ondokoena, amari begira batez ere. Irudikatzen nuen batzuetan bai, baina ez zenekien ere zeren aurrean egon zintezkeen, ze denetarik entzuten zan. Orduan ba beldur. Ze emakumeak eta... oraindikan, pues... ba... beldur gehiago... Bai, bai, beldur hori, bai. Baina igual ez hainbeste horrentzako, baizik eta pentsatzen nuen «eramango

---

174 2000ko hamarkadaz ari da. Zehazki, Ezker Abertzaleko erakundeetako zuzendaritzak atxilotu, espetxeratu eta legez kanpo uzten zituzten garaiaz.

naute?», eta garai horietan, ba hori, beldur hori, bai. Eta loa kendu ere bai. Ni K<sup>175</sup>ren laguna naiz, eta ni bere bizipenak ba, a ver. Igual ez hainbeste, ez zitzaidan etortzen hori, baina bai, beldur hori bai, beraien esku geratzeko beldurra bai. Bai, bai. (...) Ba hemen, ba bai zuzendaritzako kideak gara, eta igual eramango gaituzte. **Alazne**

Horrenbestez, gerora berak erreakzionatu ostean, errepresioa atxilotuekin, torturatik pasatu direnekin eta kartzelarekin lotzen dituela esan zuen. Eta, oraindik ere, gatazka politiko armatuak bere bizitzan izan duen eraginaz galdetzean, hausnartu ez duela eta erantzuteko oso galdera zaila dela diosku, gerora kolektiboki errepresaliatua izan arren pertsonalki *ez zait tokatu batekin* amaitzeko.

Horrek esan nahi du ezen, garai hartan, Ezker Abertzalearen aurka bizi zen oldarraldiaren baitan, errepresiotzat bere adierarik bortitzenak baino ez zirela jotzen, eta, gerora, ilegalizazio-aroan, Ezker Abertzaleko zuzendaritza bat beste baten atzetik atxilotua eta espetxeratua zen aroan, kalean norberaren bizi-proiektuak aurrera eramane eta parte-hartze politikoarekin batera uztartzea ez-ohiko gauza arraroa bilakatu zela; are gehiago, *ez zait tokatu* hori karga emozional handikoa zela sentitu nuen, zeren, horrek suertekoa izatea zekarren arren, sakonean halako erruduntasun-kutsua bazuela ere esatera ausartuko bainintzateke.

### **Maddi: «Bikinian ez, neoprenozko trajearekin bai»**

Maddiren kasuan ere berandu hasi omen zen parte hartzen, eta penaz bizi du egoera hori. Are gehiago, parte hartze edo engaiamendu handiagoa zergatik izan ez zuen ahoz gora hausnartzen hasi zen elkarrizketan zehar.

Hau dena 94 urte ingurua izango da, ni 91ean hasi nintzen unibertsitatean, eta 94an amaitu nituen ikasketak. Ba gu, egia esan, unibersitateko giro hortatik nahiko kanpo edo. Es que izan ziren urte batzuk nahiko mugituak, ez mugituak militantziagatik, baizik eta parrandan-eta nahiko, klasera gutxi joaten ginen. Asko pisuan, eta pisuko lagunekin sartuta, eta parrandan, eta gero... Gizarte Graduatua ere, hor geunden zulo batean sartuta, ez zen Kazetaritza edo Soziologia bezela, hor zegoela giroa. Orduan nik nahiko aparte, bueno garai hortan bazegoen irakasleen konfliktoa, eta mobilizazioetan-eta parte hartzen genuen, baina ez zan izan jarrera aktibo batekin, interes berezi batekin... ez. Guretzat holako herri txiki batetik Bilbora joatea bizitzen, izan zan, niretzako izan zan la letxe, bat-batean ikustea pertsona bat piko bat sartzen zure portalean... bueno! Gu ginen oso-oso inozoak zentzu hortan, eta kosta zitzaigun lehen urtea moldatzea bizimodu hortara, eta gero gehiago izan zan gure artean, laguneren artean pisuan, kalera lo minimo. Alde horretatik, badut pena puntu bat, eta da unibertsitate-garaia ez aprobetxatu izana beste ikasketa horietarako, ze egin nuen minimo esfuerzo. (...) Eta gero pena ere, ez aprobetxatu izana, ba bueno, garai haietan Unian zegoen giro horretako parte gehiago izateko, ze garai horretan bai zela... oso pil-pilean zegoen. Eta, gerora, ba igual penakin, baina, bueno, iristen zara... ba gu pisuan ginen bi kuadrillakoak, beste bi oso gertukoak, eta ez zebilen inor ezertan militatzen; orduan, klaro, ba ikusten zara bakarrik. Nire gelakideetatik ere ez nuen ikusten jenderik, gerora badut pena-puntu bat. Baina igual... ez nuelako bilatu, edo ez nuen izan inor engantxatuko zidana unibertsitate garai horietan han zegoen borrokara, han militatzera eta hori dena. Horregatik, nire militantzia hasten da sindikatuan, oso lotuta sindikatuari. **Maddi**

175 Komisaldegian bortxatua izan zen emakume\* bat.

Familiarteko harremanen atalean ikusi dugun moduan, gainera, familiako aurkako presioa ez zuen bide-lagun fin sentitu, eta hori ez da asko hitz egin ohi duen kontua. Modu batera zein bestera, behin ikasketak amaituta, langabezia-tasa izugarria egonik, herritik alde egin eta beste batean tabernari hasi zen, bertan LABeko kide bat ezagutu eta haren bidez sindikatuan amaitzeko, 25 urte zituela. Ordutik, ibilbide luzea egin du sindikatuan, eta ardura handiak eduki ditu.

Ibilbide horretan, bidegurutze modukoa identifikatu dut, nire ustez bere bidea ez-ohikoa bilakatzen duten ardatzetariko beste bat erakutsiz: zehazki, gatazka armatuak sindikatuaren jardura baldintzatzeko zuen gaitasunarekin du lotura, zeren, Alaznek zein Maddik, borroka armatuaren garaian jardura horrek sindikatuan zuen eragina handia zela azpimarratzen baitute; alde batetik, kanpo-aliantza eta elkarlanerako oztopo bihurtzen zelako eta, bestetik, nagusitu edo agerian geratzen zena sindikatuaren alor politikoena zelako eta sindikalgintza bera ezin hazita geratzen omen zelako. Ondorioz, langileriak ere sindikatua gatazka armatuarekin eta beronek sortutako lerratze eta zatiketekin lotzen omen zuen. Testuinguru horretan, eta LABen aurkako balizko errepresio saiakera ate-joka zegoela sentitzen zuten hartan, Maddi erdibituta edo zalantzati ibili zen bere engaiamenduan.

Egia da momentuak egon direla, eta hori oso gertuko norbaitekin konpartitu dut, ba egon dira momentu batzuk kostatzen zitzaidana identifikatuta sentitzea, pues, Ezker Abertzaleko proiektuarekin, eta horrek eragina zuen nire militantzian, ezta? Pues si esto es lo que hay, pues es lo que hay, baina ez dut ikusten, ez dut ikusten eraginkortasunik orduan... holako momentuak bai, 2008 urte bueltan bai izan nuen. Eta esaten zidaten «bueno, baina gu sindikatuan gaude, benga, lasai» eta pixkat hola, ezta? Hor eduki dut momentu bat pixkat hola. Estrategiarekiko zalantzak nituelako, eraginkortasun-ikuspegitik. Eta gero ere... baina. bueno (isiltasuna zabaltzen da). Pixkat zalantza horiek ere ez nekielako oso ondo nola eragingo zuten, eta hor, klaro gero, egia da, gu izan garela, hau da, guk ez dugu errepresioa lehen pertsonan bizitu izan, oso gertutik ezagutu dugu, baina lehen pertsonan ez. O sea, igual momentu puntual batzuetan jarraipenak-eta izan ditut, baina osea, ezer ez. Nik badakit zer dan jazarpena jasan duten pertsonak... o sea, inguruan izan ditut, eta espetxetik pasa diren pertsonak, eta beste erakunde batzutan militatzeagatik, ba, jazarpena bizitu izan dutenak, eta horrek suposatzen duen desgastea, eta, bueno, guk holako ezer ez dugu izan. Baina... bueno, eta gero ere nik maila pertsonalean, ba beldur hori, ba errepresioarekin ordaindu behar badut, kartzelarekin ordaindu behar badut, ez. Nik garbi badaukat ze proiektu defendatzen ari naizen, ba bai, baina zalantzak badituz ba... eta nik zalantzak nituen estrategiarekin, eta depende ze bide hartzen zuen, ba klaro, honek sindikatuan eragina izango zuen, eta zalantza nuen zuzendaritzan egoteko egokia ote nintzen, indarrak izango ote nuen erabaki horiek aurrera ateratzeko. Beti garbi izan dut, nik Ezker Abertzaleak bere osotasunean hartzen dituen erabakiekin aurrera jarraituko dut, beti, ez naiz desligatuko. Daude eztabaida-marko batzuk, eta eztabaida-marko horietan ateratzen dena beti errespetatuko dut. Baina zalantzak en el sentido de, ba ilusio, determinazio, ba pixkat konbentzimendu maila batekin transmititzeko jendeari «hau da, esto es lo que toca ahora» eta hemendik tiratu behar dugu. Zalantzak, zentzu hortan. Ez hainbeste honek eragina badu en términos represivos, me quiero bajar de este barco. Ez, hori ez. Hori izan dut beti oso garbi. Tokatzen bada tokatu da, eta punto pelota. Hor ez dut zalantzarik eduki. Gehiago zan «ai. ene. ni ez banago oso konbentzituta, nola egongo naiz indarrakin, nola egingo dut lan hori?» horrek sortzen zidan ezintasun bat, puff. Hori bai izan zan delikatuak gestionatzeko, baina ni ere beti, osea ingurukoetatik aparte, oso diskreta naiz, oso ingurukoekin komentatzen ditut gauzak, eta gero diskrezioa eta erabaki-markoak daude, eta hori errespetatzen da. Baina ingurukoekin konpartitu

nuen, «zuekin konpartitu nahi dut, ze zintzoa izan nahi dut eta», ez dakit, eta, bueno, gero ya beste garai batzuk etorri ziren, eta, bueno, beste arazo batzuk, ez dakit nola esan.

Niri behin pertsona batek esan zidan, ze ni beti izan naiz nahiko transparentea ezta? Eta diskretua, eta nire guneetatik kanpo ez naiz zeratu. Baina hor nahiko gordin, eta transparente eta ja. Eta momentu batean gauza batzuekiko zalantzak baldin banituen edo desadostasunak, ba esan. Eta ejekutiboan sartu eta handik gutxira, pixkat eztabaida politiko batean, ba hor ja strategiaren inguruko debatea, eskema baten baitan zan. Eta bota nuen gauza bat bileran, eta bilera amaituta, jada sindikatuan urteak zeramatzan batek, zaharra, esan zidan «es que hona ezin zara bikinian etorri. Jantzi behar duzu neoprenozko trajea. eta ezin da bota, holan. pentsatzen duzuna» eta nik «es que hemen, nire eztabaida-markoan ezin badut bota pentsatzen dudana, orduan zein da gure funtzioa?», eta «es que gai batzuetan ezin da bota. Traje de neopreno». Eta horrek, niri txokatu zidan pilo bat, denbora gutxi neraman ejekutiboan. **Maddi**

Kontakizun hori elkarrizketako zail edo gogorrena izan zela esatera ausartuko nintzateke, esan nahi baina esplizituki ezin adierazi ari zela sentitu nuelako. Azken batean, Ezker Abertzaleko proiektuarekin zalantzak zituela esatean, ez da proiektu politikoaz ari —independentzia eta sozialismoaz—, baizik eta estrategia politiko-militarrak eta 2008ko garai hartan Ezker Abertzalearen gune ezberdinetan (formal nahiz informaletan) sortzen hasi ziren kuestionamenduez<sup>176</sup>. Beraz, agerian uzten ari da ez dela ohikoena borroka armatuarekiko edo uneko ETaren jardunarekiko kritiko edo zalantzati agertzea.

Borroka-mandatuei lotuta, Lur, Sara, Mari, Maddi, Alazne eta Xuneren bidez, Ezker Abertzalearen borrokaren mandatura ezagutu dugu; lehen hiru protagonistek bete zutelako, eta beste hirurek bete ez zutela uste zutelako. Modu sakonagoan ikusi dugu, txostenetatik kanpo eta emakume\*-kondiziotik, zein ibilbide eta eredu lehenesten ziren, eta zeintzuk gutxiago.

Laburbilduz, esan dezakegu jarrera hauek ez zirela Ezker Abertzaleko militante batengandik espero zitezkeenak: 1) pasioz baino ikasketa edo profesioari lotuta parte hartzen hastea; 2) lehen gazaroa norberaren bizimoduari lotuta igaro eta beranduago konprometitzea; 3) bizi proiektu pertsonala kolektiboari nagusitzea; 4) atxilotua eta espetxeratua ez izatea; 5) ia ezer egin gabe espetxeratzea; 6) borroka armatuak eragindako heriotzek sortutako zauriez gehiago hitz egin nahia; 7) gatazka armatuari lotutako jardura ikusgarrietan ez aritzea; 8) estrategia politiko-militarrarekiko zalantzak izatea eta 9) matxismoak eragindako minari ezin eutsiaz, militantziako jarraitutasuna ezbaian ipintzea. Hurrengo lerroetan, modu garbiagoan ikusiko dugu zein zen prestigiatzen zen militante-eredu ideal hori.

#### 5.4.3. Militante prestigiatua: intentsiboa eta eskusiboa

Ezker Abertzalea bizimodu aske eta justuagoen alde ziharduen mugimendutzat jo arren, garai horretan gatazka politikoak zuen biolentzia politikoaren dimentsioak eragindako dinamika,

176 Arnaldo Otegik *Bateraguneko* kasua deitu zaion haren epaiketan egindako deklarazioetan esan zuenaren arabera. Gehiago jakiteko: <https://www.eitb.eus/es/noticias/politica/detalle/737632/el-juicio-caso-bateragune/>

efektu eta inertzien ondorioz, pixkanaka militantzia politiko zurrun, intentsibo eta gogorra marraztu zuela aipatu dute; alegia, konfrontazio-testuinguru horretarako baliagarriena zena prestigiatzen eta balioan ipintzen joan zela, pixkanaka; eta, gainontzekoa, itzalean, baztertuta edo bigarren mailan geratzen joan zela.

Balio-eskala horretan, ETAz gaindi, Ezker Abertzaleko beste antolakundeetan ere *denerako prest eta beti prest* logika hedatuz joan zen. Zeukaten *egoismoaren* kontzeptuak eta Ezker Abertzaleko kideek egindako *errenuntziak* eta egokitze-prozesuek horren berri ematen dute.

Esplizituki gutxitan adierazi den arren, beraien diskurtsoetan, Ezker Abertzalearen balorazio-sistemaren barruan zegoen hierarkia horren berri ematen digute hainbat pasartek. Hasteko, Ezker Abertzalea erakunde edo antolakunde ezberdinek osatzen bazuten ere, diskurtsoetan ETari erreferentzia egiteko erabiltzen den hitza «Erakundea» da. Beraz, zeuden erakundeen artean, erakunde hori modu singularrrean izendatzeak, zentralitate eta prestigioa adieraz dezakete. Virginia Maquieirak dio:

Prestigio edo ohore sozialaren garrantzia honako honetan datza: prestigioak hainbat ezaugarri hartzen ditu bere baitan, eta kopuru desberdinetan kontzentratzen da gizarte bateko pertsona edo taldeetan, eta garrantzitsuak dira gizarte bateko estatus-sistema edo egitura-posizioak erreproduzitzeko. (Maquieira, 2001:170).

Halaber, prestigio eta estimu soziala elkar-ekintza sozialetan esleitu edo berresten dela dio Maquieirak, pertsona baten egoera beste pertsonen beronekiko egiten dituzten ebaluaketaren arabera osatuko delako.

Kartzelan... orokorrean sentitu naiz de tu a tu, denekin. Oso momentu puntualetan igual, ze badakit hori gertatzen dela, baina nire kasuan ez. De: «jo, es que hau Erakundekoa da, ta da ez dakit nor...» ez dut sentitu. Horregaitik egin ditut holako harreman onak, ze Aitziberrengana ez naiz hurbildu Aitziber zelako, baizik eta bere izaera gustatzen zitzaidalako. Orduan nik ez dut sentitu hori. Jende batengan eragina du, adibidez konplejo handiak ikusi ditut Erakundekoak ez zirenen aldetik... gutxiago balira bezela, eta orduan gehiago egin behar zuten. (...) hor uste dut konplejo kontua zela. Hortik hitz egiten zuten: Lo de siempre, el resquicio ese del machismo, claro, yo no soy de ETA, que parecía... osea militantzia horrek balio gehiago zuela dirudi jende horrentzat. **Mari**

Pasarte horretan, espetxean beste erakunde batzuetako kide izateagatik, laguntza emateagatik edo ustekabeen bertan amaitzeagatik kideek dituzten *konplexuen* balio-eskalaren barruko gorengo lekua ETAk betetzen zuela ikusten dugu. Halaber, komunikabideen eragina dela eta, ETAn ardura handiak edo bederen oihartzun mediatiko handia izan duten pertsonak eskala horren baitan oraindik are gorago kokatzeko tentaldia ere agertu da:

Orduan, hor izan zen nire buruarekiko konfiantza-falta (...), ez nintzela ez dakit ze militante, atara dana bost komunikabideetan. Ez! Nintzela feliciana gixajo bat. Igual neuk ere paper hori bera... ez dakit, ikusi nintzen oso hauskor ta... nirekin egin zezaketela nahi zutena, nahi zuten guztia! osea nahi zutena! **Xune**

Beraz, ekarpen militante oso eta intentsibo horren gorengo erpinean ETA kokatzen zen arren, Ezker Abertzalearen balio eta moldeak ere ipar horri begira antolatzeke joera agertu da «% 100ko militantzia vs egoismoa» dikotomia osatuz. Modu horretan, militantzia-eredu hori zenbaitzuk hautatzen zuten beste aukera bat gehiago izan beharrean, betebeharrak bezala hedatu zela igartzen da, militante bilakatzeko eredua bakarra, azken finean. Hortaz, ETAtik kanpo ere militantzia-lanak izango dira baloratuenak eta lehentasunezkoak, bizitzako beste zeregin eta arduren gainetik: ikasketak, lanbidea edo zaintza-lanak, besteak beste. Azken finean, erabateko entrega edo sakrifizioa aterako dira garaile, beranduago sakonduko dugun moduan.

Hala ere, emakumeen\* kasuan, gaztetatik, 15-16 urterekin militatzen hasteko eta militantziari lehentasuna emateko deia —bikote, ikasketa, guraso eta enpleguaren gainetik— egiten zuen kultur mandatu horren bitartez, errazagoa egin zitzaizen beste herrialde edo beste sektore batzuetan emakumezkoek\* politikan parte hartzen hasteko dituzten zailtasunak (besteak beste, zoru itsaskorra) gainditzea. Horiek horrela, haiek ere gai zirela, haiek ere gauza handi, eder eta historikoaren parte izan zitezkeela sentitu eta gorpuztu zuten. Eta Euskal Herritartasunetik deribatzen zen praktika gisa sentitzen zuten horrek, emakume\* gisa, garaiko genero-mandaturak bere osotasunean ez betetzeko aukera eskaini zien, batzuetan kontzienteki; beste batzuetan, ez horrenbeste, horrek eragindako zauri eta plazer guztiekin, askatasun-sentimenduak eraginez, baina, aldi berean, emakume\* gisa bestelako zauriak eraginez. Zehazki, genero-mandatuak apurtzearen zauria leuntzen ziela dirudi, edo, bederen, horiekiko men ez egiteko adinako kemena eman ziela.

### 5.5. Militante sentitu

*Nik beti esaten dut, militante egin naiz sindikatuan.*

*Hemen sartu naizenean egin naiz militante-militante.*

***Alazne***

Alazneren goiko aipu hori galdera askoren giltza da. Zeri deitzen diote *militante-militante egitea/izatea*? Nolakoa da prozesu hori, eta, batez ere, nola bizi dute? Parte hartu duten zenbait antolakundetan, besteak beste, KASen eta Jarrain, *aurremilitantzia mahaiak* jaso zituztela aipatzen dute. Hala ere, formazio-prozesu hori ez zuten denek jaso —95tik aurrera desagertu egin zirelako, besteak beste—, eta, gainera, denek ez zuten bertan hasi haien partaidetza sozio-politiko.

Partaidetzaren hastapenez aritzean, *mugitzen* hasi zirenekoa eta *militante-militante egin* zirenekoa ezberdintzen dituzte, beraz. Era berean, *militante-militante* horrek ez du beti adierazten Ezker Abertzaleko antolakunderen batean sartzea denik; alegia, ez dakar partaidetza organikoa. Hori baino, haien subjektibitatean, konpromisoan eta biografian eragin handi eta sakonena izan duen partaidetzari deritzote *militante-militante egin*. Eta hori prozesu bat da, ez da egun batetik besterako gauza; ekiten eta egoten ikasten den zerbait, ikaskuntza handia zekarren sozializazio prozesua. Prozesu horrek norberaren eraldaketa zekarren, denbora antolatzeke modua,

lehentasunena, harremanak bizitzekoa, bizi-proiektua hezurmamitzekoa, pixkanaka, militante-militante hori izateko modu bat bilakatzen zelako. Militante izan, militante jardun, militante sentitu.

#### 5.5.1. Subjektu politiko gisa jaio eta sozio-politikoki garatu

Militante izatea sozializazio politikoko prozesu baten emaitza gisa, baina, aldi berean, inoiz amaitzen edo eteten ez den kondizio gisa azaltzen dute. Eta heziketa-, garapen- eta hazkuntza-prozesua da erakusten ari direna, eraldaketa-prozesu sakona; azken batean, subjektu politiko gisa eraikitze prozesua, subjektu politiko gisa erditzekoa, herritar oso gisa haztekoa.

(...) nik hasieran ikusten nuena zen ni baino nagusiagoa zen jende bat ... eztabaida politikoetan,, ni baino jantziagoa zegoen jende bat, niretzat oraindik arrotzak ziren kontzeptu asko. Eztabaida asko, kontzeptu politiko asko, eta beraiek jada dinamika batean sartuta eta... ni harrapatzen, gehiago entzutera eta ikustera. Mundo berri bat. Sartzen nintzen mundo berri baten, ordura arte ez nuena ezagutzen, eta ikusi nuen bazutela bilakaera bat, eta esaten nuen, bueno, hauek badakite zertaz ari diren. Eta bueno, ba ni, gehiago, entzutera eta jasotzera. **Maitane**

Mundo berri bat zen zabaldu zitzaiena; zentzu horretan zalantzarik ez dago militatzen hastea *sozializazio-prozesu* berri bat izan zela. Are gehiago, Roderits Watts, Jadeel Abdul-Adil eta Terrance Pratt-ek (2002) *garapen soziopolitikotzat* jotzen dutena dakusagu: azterketarako trebezia eta ekintzarako ahalmena. Gure protagonistek ere taldean aritzen ikasi zuten, plangintzak egiten, komunikatzen, ardurak hartzen eta eztabaidatzen.

Arlo batean, arlo teorikoaren, diziplinarekin, ba tokatzen zitzaidalako eskualdeetan parte hartzea, edo ardurak ematen duen beste ikuspegiarekin... ikusten hasi nintzen zer zen epe ertainean lan egitea, zer zen plangintzak egitea, zer den gune ezberdinen sorrera eta kudeaketa. (...) Zer diren asanbladak, lan taldeak... eta hori zorion bat izan zen. (...) Garaian antolakuntzak dakarren ardura edo konpromezua besteekiko ematen duen, pausuk ematen lagundu ninduen. Ez dira gizartean edo hazkuntzan dauden arduren antzeko, baina gizarte-ardura handiak dira, balio handia dute. Eta, garaian, 16-17 urterekin, besteekiko zaintza edo ardura hartzea... ba oso positiboa da. (...) Konprometituta ez zegoen beste gazteak baino askeago sentitzen nintzen. **Lua.**

Ta ze perfil zen? Ba bueno kostantzia, konpromezua, lan egitea... (...) nik uste dut militantzian ikasten duzula batzen eta... gauza batzuk lortzeko batera funtzionatzen, eta gauzak batera ataritzen. Ikasten duzula iraunkortasunaren garrantzia gauzak ataratzeko; esan nahi dut gauzak ez direla solteak, hasieratik amaierara jarraipen bat behar duela, eta hor norberaren presentzia premiazkoa dela. (...) Eta baita ikasi dut entzuten, entzuten, ... kostantzian bidez, egotearen bidez, laguntzaren bidez, gauzak irtetzen direla, gauza politak egin ahal direla. Nik hori uste dut, bai, militantzian ikasi dudala eta elkarren arteko kideatasunarena hor ikasten den balore bat dela... **Maitane**

Pertsonak bizi dituzten testuinguruarekin ezartzen dituzten harreman mota espezifikoaren bidez eraikitzen duten ikaspen eta garapen politikoari ere sozializazio politikoa esan zaio (Plaff, 2009). Lan horretan, norbanakoak sozialarekiko garatzen duen harremana dialektikoa da; beraz, ezin uler daiteke norabide bakarreko prozesu gisa. Horrek esan nahi du pertsonak ez direla modu pasiboan sozializatzen; aitzitik, norbanakoek, aktiboki eta besteekin harremanetan, beren



esperientziei zentzua emango dieten ikaskuntzak eraikitzen dituztela. Hortaz, prozesu bikoitza dela esan dezakegu, pertsonak rol aktiboa darabilelako soziala den horri buruzko bere irudi eta errepresentazioak eraikiz (Benedicto, 1995; Grusec eta Hastings, 2007; Domínguez, 2003; Morán, 2003). Alegia, jasotzen ditugun inputak gure egiteko prozesu aktiboan txertatzen dira (Malafaia, Fernandes, Ribeiro, Neves, Fonseca y Menezes, 2012), baina, era berean, input horiek gauzatzen diren harreman sozialek baldintzatu egiten gaituzte. Bestela esanda, norabide bikoitzeko, harreman dinamiko eta konplexua gauzatzen da, eta, horrela, testuinguruak eta subjektuak elkar eraiki eta berreraikitzen dute, etengabe. Horrek subjektua, subjektiboa eta subjektibitatearen alorrera garamatza. Jarraian, eraikitako subjektibitate horretan jarriko dut arreta.

### 5.5.2. Pertenentzia: munduari nondik begiratu eta munduan non kokatua baduzunean.

(...) bizitza beste moduan ikusteko, ba, sindikatuan hezitu naiz. **Alazne**

(...) baina bai lortzen da beste era bateko...agian gauzak ulertzeko eragatik, edo bizitza ulertzeko moduagatik, edo mundua ikusteko eragatik, edo sentitzeko modu hori. **Maitane**

Militantziak munduari begiratzeko modu bat, munduko gatazka sozio-politikoekiko leku-hartze bat eta bizitzeko etxe bat eskaini ziela agerian geratu da, behin eta berriro. Ingurune hurbil eta urrunari kritikoki begiratzeko ahalmena militantzian jaso zuten, eta ez hezkuntza formalean. Boteregabetuen aldean eta boteredunen aurka kokatu ziren, gu batu eta ahaldundu baten parte eginez, baina baita *etsai* argi bat identifikatu eta ikusiz, eta iritsi nahi zuten helmuga bisualizatuz. Ezker Abertzalekoa izatea posizio hori hartzeari, leku horretan kokatzeari deitzen diote, ez horrenbeste bozka emateari.

Pentsatzen dut gu begiak zabalik bizi ginela, ez genituela zarratu nahi. Eta alderik alde begiratzen genuela, inguruan zer geneukan horri begiratzen geniola beti. Ez ginen bertsio ofizialekin konformatzen, ez genuen *40 Principaleseko* gazte bat izan nahi. Esnarik bizi nahi genuen, bueno, esna bizi ginen (barre egiten du). La Pollako abestia zelan zan? Y llaman universidades a criaderos de mutantes... isilik egon, sumiso, dirutxua egin, merkatu kapitalista loditu... ez genuen hori nahi. (...) Etsaia ba... estatua. Argi ta garbi. Beraien Guardia Zibil eta telebistarekin, Konstituzio Espainol ostia horrekin eta castellanoarekin. Aiiii... gogoratzen duzu txikitako *hablame en cristiano?* Zelako amorrua. (...) Baina, be bai, bizimodu kaka hori ezta? Tradizioa bete, probetxuzko pertsona bihurtu, guapa egon eta rollo hori. Nobia, umea, kotxea, familiko bazkariak... PNVko jendearen bizimodu hori, ezta? Aitiaren, semiaren eta esprititu santuaren izenean, amen. Venga ya, ala por ahi. (barre egiten du). **Lili**

El estado era el puto enemigo. No podía decirlo de otra manera, y hoy en día tampoco. Puto enemigo (lo subraya, y se ríe). El estado tenía caras, tenía nombres, y era... no era un ente abstracto como «esto es imposible, luchar contra estos»... no, era un agente muy grande, pero era el puto enemigo. **Lola**

Militantziak, begirada eta ikuspuntua, eta posizionamendu politikoa eskaini zien. Betaurreko batzuk, pertenenentzia bat. Haien buruak ikusteko eta besteengana aurkezteko modu bat.

Subjektibitate politikoa, finean, subjektibitate kritikoa, aktiboa eta indartsua. Ezin dugu ahaztu soziala den hori ez dagoela subjektiboa den horretatik kanpo, eta subjektiboa den hori ez dagoela soziala den horrekiko isolatuta. Martin Heideggerren aburuz, subjektibitatea munduan izatearen osagaia da. Foucaultentzat, subjektibitatea ezin da diskurtso eta praktika sozialetatik banandu, eta, Slavoj Žižek-entzat, subjektibitateak ez dakar soilik mundu sozialaren berregitea. Horregatik, ezin uler daiteke soziala den hori ehuntze lanetan ari den subjekturik gabe; hain zuzen ere, hori egitea subjektua bere esperientziari eta existentziari zentzua ematen dien mundutik deslotzea litzatekeelako (Luna, 2006).

### 5.5.3. Elkarrekin egon, aritu eta erresistitu

Militante *hor egoten* egin ziren, kalean aritzen, erresistitzen. Manifestazioetan egoten eta ekiten. Elkarrekin egoten, elkarrekin jarduten. Azken finean, harremanetan egoten, harremanetan ziren.

No estaba en ningún organismo concreto, yo entro por *kale borroka*. Yo no estaba en ningún organismo, pero ya estaba allí. Es lo que te digo, qué definimos como militancia. Porque igual no estás en ningún *talde* concreto, ni estás... pero estás allí, estás metida en el meollo. Sí, sí, sí, creo que eso es una forma de participación política, porque si eso no es participación política, pues apaga y vayámonos. **Lola**

Aktibitatea eta harremanak funtsezko elementuak izan dira militante egiteko prozesu horretan. Horrek ez du esan nahi kaleko aktibitate guztiak *kale-borroka* zirenik (are gehiago, partaide gehienak ez dira horretan aritu), ezta bilerarik egiten ez zutenik edo txostenak irakurri eta eztabaidatzen ez zutenik. Horiek ere aipatu dituzte, eta ikusi ditugu jada.

Hala ere, horiek guztiak ere militante egiteko prozesuaren parte izango diren arren, bereziki kale-mailako aktibitateak dira behin eta berriz aipatu dituztenak. Hipotesi bat izan liteke kale-mailako manifestazioetan eta bertako ekitaldietan kondentsatzen ziren emozio guztiek arrasto nabarmena utzi izana, eta emozio horiek haien militante egiteko prozesuan halabeharrezko elementu izatea. Etorkizuneko ikerketa-lan bat izan liteken horretan sakontzeko aukerarik ez dut izan, baina, orain arte ikusitakoen arabera, elkarrekin egon eta elkar zaintzeak, proiektuarekiko, mugimenduarekiko eta kideekiko fideltasunak eta harreman-ziurtasunak leku handia hartu zutela esateko moduan jartzen gaitu. Litekeen a da, prozesu horretan, erritualak eta erresistentziari eta ekintzari lotutako epikak eragina izatea; beste autore batzuk ondorio horretara iritsi dira, bederen. Esate baterako, Jesus Casquetek (2005) Ezker Abertzaleko mobilizazioak erritual gisa eta barne-helburuei lotuta aztertu ditu, eta, bere ustez, «protesta-ekintzetan sortutako emozioek lagundu egiten dute bere burua mehatxatutzat jotzen duen gizarte-talde baten nortasuna eta elkartasun kolektiboa indartzen<sup>177</sup>» (2005:1). Mikel Arriagak (1997) Ezker Abertzaleko komunitate politikoa aztertu zuen 80ko hamarkadaren hasieratik 90eko hamarkadaren erdira arte), eta komunitate emozionala

---

177 Itzulpena neurea da.

osatzen zuela ikusi zuen. Horrekin batera, pertenezia-sentimendu sakona, onura psikologiko-erlazional sendoa eta elkarrekiko lotura askotarikoak eskaintzen zizkiela ondorioztatu zuen, ikerlan honetan ere ikusi dugun moduan. Are gehiago, etorkizuna, gaurdanik bizitzen egotearen sentimendua ere bazuten, utopien atzetik eta utopiak bizitzen egotekoa.

#### 5.5.4. Utopiak bizi

Euskal Herri askearen utopiak, desio, gogo eta beste min askoren etena gordetzen zituen bere baitan, eta, zenbait ekimenen bidez, hori alde aurretik bizitzeari eta gorpuzteari ekin zioten:

(...) uko egin niola selektibitatea egitea. Espainiako selektibitateari ez, eta intsumisioa. Garaiko Haikako insumisio eta matxinada berrizendatze horren barruan... eta oso polita izan zen. Osea nire lekuan sentitzea. (...) Alde batetik, askebide bezala, eta, gero, gorrotoz zelan bizi nituen borregazioarako bide horiek, eta, ikasle bezala, ba jendeak zelan prestatzen zuen selektibitatea, zelan galtzen zuen umorea, nola inklusio osasuna azterketa horren alde. Ta areago joanda, ba lan baldintza hori, 40 orduko eta 40 urteko lanaldi bat aurretik izatea zoriontasun zati baten alde, zure bizitza saltzea. **Lua**

(...) egoera zaila izan arren eta gogorra izan arren, amets egin daitekeela, eta, helburuak, gauzak ere lortzen direla. **Maitane**

Gazte erakundeak egiten zituen gauzak iruditzen zitzaizkidan biziki alaiak... ba ni baino handiagoak zirenak, ze pozarekin bizitzen zituzten ere, adibidez Topaguneak. Bai pozatik, bai. Herri-boterearen erakuslea izan zen... txikitasunetik zelan egin aurre potentzia erraldoiei. Izan zen... handitzeko aukera bat. Eta horrek gorpuzten ninduen, laguntzen ninduen ni osoago sentitzera. Alde batetik, askebide bezala. **Lua**

Lehenengo topagunean, Etxarrin, dutxak mutil eta neskenzako berdinak izan ziren, eta guri hori la hostia iruditu zitzaigun! Institutoan hori ezinezkoa zan e?! Jo, zenbat denbora emon genuen beste bizimodu batzuk pentsatzen, zenbat barre Euskal Herri horretan burua ipintzen genuenean. **Lili**.

Ezagut zezaketen destino edo helmuga bakartzat zuten ikur eta ipar zuten herri, bizimodu eta mundua. Ezagutuko zuten ala ez, ez zuten horren argi, baina, historiaren ulerkera lineal eta progresiboa agerian utziz, garaipena ukazina zen haientzat. Horregatik, gaur egun, 2011ko prozesuaz geroztik, agerian geratu da inoiz haien buruetan irudikatu ere egin ez zuten egoera bizitzen ari direla.

Garaipenaren bidean, kolektiboa norbanakoaren gainetik ezarri beharra zegoen; are gehiago, kolektibo hori mehatxatua zegoela sentitzen zuten heinean. Ahalegina, iraunkortasuna, eskuzabaltasuna, zintzotasuna, umiltasuna eta diskrezioa gorengo baliotzat zituzten; irmotasuna, ausardia eta tinkotasuna legez. Horregatik, borrokan aritzeak, norberekoikeriaz, balio materialistez, hutsaltasunez, indibidualismoz josita zegoen munduarekiko loturak askatzea zekarkielako sentitzen zutela dakusagu. Borroka horretan parte hartzeak —militante izateak, alegia— askeago sentiarazten zituen.

Orain arte ikusi duguna laburtuta, esango nuke Ezker Abertzalekoa izatea bere proiektu politikoa eta helburu horiek eskuratzeko proposatutako bidea partekatzea zela, baina baita balio-eta sinesmen-sistema oso bat partekatzea eta horren parte bilakatzea ere. Munduan egoteko leku zehatza, munduarekin eta bertan, hurbil-urrunean, gertatzen ari zenarekin harremanetan egoteko modu bat. Munduko injustiziarekiko posizioa hartzeari eta haien engaiamenduan atzeraezinezko gisa bizi izan zuten (g)unea. Horrela, gu indartsua osatzen zuen mugimendu eta komunitateko pertenezia-sentimendu bizia eskuratu zuten, militante-militante sentituz, elkartasuna, eskuzabaltasuna, elkar-zaintza, konfiantza eta askatasun-sentimenduak biziz, utopikotzat zuten gizarteari aurrea hartzen zioten arnagunez elikatuz. Militante-militante sentituz. Eta hori guztia elkarrekin egon eta ekinez eraiki zuten, oharkabean elkarrekin izaten amaitzeko. Harremanetan eta martxan ziren, bizitza bere osotasunean edo ia osotasunean hartzen zuen militantzia batean, bizi-proiektu bilakatu zitzairen militantzian, alegia. Militante egiteak, izateak eta sentitzeak elkar elikatzen zuten dimentsioak zirela agerian utziz, ekinez ikasten zuten, ekiteko ikasten zuten.

Euskal Herriko bertako beste garai eta ezker-mugimenduetako ikerketak zein nazioarteko borroka-zikloetako kidegoaren bizipenei behatuta, 90eko hamarkadako eta ikerketa honetako emakumeek\* erakusten dizkiguten sentimenduak, berriak edo berariazkoak ez direla dakusagu. 1936ko estatu-kolpearen osteko urteetako guda- eta gatazka-zikloko emakumeen\* partaidetza aztertu duten lanetan, antzeko ondorioak ageri dira (Nash, 1995; Iturbe, 2012; Yusta, 2004, 2015). Trantsizioko garaira hurbilduta ere, Irene Cardonak Talde Autonomoetako emakumeen\* esperientziak aztertu zituen (2017) eta David Behorlegiyk (2016) Hego Euskal Herriko ezker-mugimenduetan modu aktiboan bizi izan zuen kidegoaren subjektibitateak eta memoria. Lan bietan, militanteen inplikazioaren gozamina eta intentsitatea ageri da. Cardonaren laneko partaide batek dio iraultza egiten zutela baina baita primeran pasatu ere. Bere ustez, iraultza besteengatik egiten da, baina baita —eta batez ere— norberagatik; haien buruarekin bakerik ez zuketelako beste modu batera jardunez gero (2017:126). Behorlegiren laneko batek baino gehiagok, 1975tik 1978ra edo 1983ra arteko ziklo horretan, gainontzeko 30 urteetan baino askoz modu biziagoan bizi izan zirela agertzen dute. Historiako subjektu izateak, historia egiten zeudela pentsatzeak, aldaketa hatzamar puntekin ukitzen zeudela sentitzeak kideengan marka baikor eta betegarria zekarrela ondorioztatu dute 70eko eta 80ko hamarkadetako nazio-askapen eta borroka iraultzaileak aztertu dituztenek ere, edo emakumeek\* egin dituzten auto-biografietan (Vidaurrezaga, 2007; Schiller, 2009; Balzerani, 2016; Oberti, 2015; Ibarguren 2016).

Poza, harrotasuna eta bizi-zentzuarekin batera, zauriak, ezinak, kontraesanak eta galerak ere agertu dira. Kultura politiko hartan, testuinguru hartan, emakume\* egonik, zauriok eta zaurion aurreko emakume\* horien jarrera oso kontutan hartzekoak dira, jarraian ikusiko dugun bezala.

### 5.6. Militantzia politikoaren bidegurutzak: hiru emakume\*, hiru inflexio-puntu eta kontakizun bakarra

Esan dut ETaren borroka armatuak eta, oro har, gatazka armatuak eragin handia izan dutela militantzia politikoa bizitzeko moduan, eta, beraz, sakrifizioaren paradigmaren eraketan. Ezker Abertzalearen barruan nahiz kanpoan zabaldu den olio-orban gisa irudika dezakegu hori, esate baterako. Prozesu hori gehiago ezagutzeko, uste dut, alde batetik, ikuspegi pribilegiatua eta kritikoa eman diezagukeela emakume\* ekintzaileetan arreta jartzeak, subjektu generizatuak diren aldetik; bestetik, 90eko eta 2000ko hamarkadak ia Ezker Abertzale guztia klandestino bihurtzen den aroa izan zenez gero, are argiago agertuko zaizkigu, muturreko egoera horretan, kultura politiko haren prozesu eta joerak. Bide hori, Irene, Maitane eta Liliren kontakizunek ardatz hartuta egingo dugu.

#### **Irene: «gure seme-alabei mundu hobea uztea»**

Irenek erakunde armatuan parte hartu zuen, bai legal bezala, bai klandestinitatean. Bi urteko alaba familiaren ardurapean utzi behar izan zuen, bat-batean, klandestinitatera igaro zenean. Hainbat espetxetan bete zuen kondena, baina, kartzelatik atera ondoren, bere bizi-egoera baldintzatu zuten prozesu judizial eta neurrien mende jarraitu zuen.

Konturatu da zauri asko dituela, baina ez irekitzea erabaki du, agian beretzat gehiegizkoa izan daitekeela uste duelako. Behin baino gehiagotan esan du kartzelaren gauzarik gogorrena kalean ezin egotea izan zela, eta ez horrenbeste barruan (kartzelan) egotea. Horrekin azpimarratu nahi du oso mingarria egin zitzaioala alabarekin eta bikotekidearekin ez egotea<sup>178</sup>. Izan ere, kartzelan zuen bizitza bere «gela propio» gisa deskribatzen du, bere zaletasun eta nahiak berreskuratzeko aukera izan zuen toki gisa. Agian ulergarriagoa izango zaigu hori bere militantzian bizitako bi dilema eta inflexio-puntu kontatzen dituenen:

[Bere zaletasunei berriro heldu ahal izan zien espetxe egonaldiaz ari dela]. Unerik ederrena, nire asmo politiko pertsonalekin... hau da, nik nahi nuena ikasten gozatu dut, unibertsitateko jende batekin nengoela, jende batekin izan dudana harremanarekin. Neure burua elikatuz gozatu dut, onartzen dut, hori gustuko dut. Baina gerra hau... Baina, beno, ez da ezer gertatzen. Hori da guri tokatu zaiguna, eta orain beste batzuei beste zerbait tokatuko zaie. Eta asmo pertsonal hori politikarekin garatu ahal izango dute, hau da, beren asmo pertsonalak eta politikoak gehiago bateratu ahal izango dituzte. (...) Bai, espetxetik irten nintzenean, nik hor erabaki bat hartu behar izan nuen: edo kanpora joan eta bi urtez ikasi, edo militantziarekin nuen konpromisoari berriro heldu. Eta bigarrena erabaki nuen, eta askotan sentitzen nintzen... ez nuen egin nahi nuena. Esan nahi dut, alde batetik nik nahi nuena egin nuela, nik hartu bainuen erabakia. (...) Eta esaten dut «ez nintzela ausartu», ez norbaitek utzi ez nauelako, baizik eta ni neu Euskal Herria uztera ausartu ez nintzelako eta une hartan nuen konpromisoa hartu nuelako. Ausartzea ez da norbaitek ez uztea, mendekotasunarekin lotura handiagoa du, ez naiz ausartzen... ulertzen duzu? Zure konpromisoei

178 Bikote-harremana eta amatasunaren eta aitatasunaren garapena etenez beteta egon dira, baldintzak aldatu direlako. Elkarriketaren unean, bi hilabete falta ziren bikotekidea aske uzteko; beraz, ilusio handiz espero zuen 20 urtez etendako elkarbizitzari berrekiteko unea.

dagokie, Euskal Herriari. Are gehiago, balioen kontua da: «leku batean zaude, edo beste batean zaude». Oso kontzienteki diot hori, horrela sentitzen dudalako...

(...) Beste inflexio-puntua, oso handia izan zena, lehen alaba izan nuenean konturatu nintzen hori ez dela jokoa, inflexio-puntua izan zela, bai. Esatea hau ez da jolasa, hau beste zerbait da. Eta orduan berriro pentsatu behar izan nuen: nik egiten ari naizena egin nahi dut? Merezi du? Zertarako egiten dut? Onuraren kostua, politikoki. Zaila da neskatoa uztea, neskarentzat onena nahi duzu. Eta hor oso gaizki pasatu nuen. (...) Baietz erabaki nuen. (...) Eta, orduan, jauzi bat izan zen nire militantzian, merezi zuela erabaki nuelako. Emakumeok, duela 20 edo 30 urte, ez genuen seme-alabarik izan ala ez erabaki, bagenituen eta kito. Oraingo emakumeok seme-alabak ditugun erabaki dugu. Orduan, guk, jaten emateaz gain, ohera doazenean berotuta egoteko konpromisoa hartu ez ezik, mundu hobea uzteko konpromisoa ere hartzen dugu.

Irenek bi inflexio-puntu edo bidegurutze erakusten ditu, non oso argi ikusten baita nola militantzia politiko eta/edo armatua bateraezina zen egunerokotasunean oinarritutako amatasunarekin eta asmo intelektual edo profesionalak asetzearekin. Beste kasu batzuetan, militatzeari utzi ondoren heldu ziren ikasketak eta amatasuna. Hurrengo protagonistaren kasuan, Maitane:

**Maitane: «oraindik ez dugu maskorra kendu»**

Maitane ez zen inoiz atxilotua izan, baina poliziaren jarraipena eta jazarpena jasan zituen bi urtez baino gehiagoz, eta, beraz, etengabe bizi izan zuen noiznahi atxilo eramango zuten sentipena, zeren, 2000ko hamarkadan, Ezker Abertzalearen edo herri-mugimenduaren<sup>179</sup> edozein erakundetan parte hartzeak atxiloketa, tortura eta espetxea ekar baitzezakeen Estatu Espainolean. Hainbesteko presioaren aurrean, gaixotu egin zen. Lehenik eta behin, eguneroko beherakaden bidez argaltzen hasi zen, eta, azkenean, konbultsioak izanez eta gorputzaren kontrola galduz amaitu zuen. Torturak izututa zuela esan du, batez ere emakumeenak\*, nahiz eta ez duen behin ere aipatu zer den emakumeei\* gertatzen zitzaien hori edo, hobeto esanda, polizia-etxeetan egiten zieten hori, *sexu-biolentzia politikoaz* ari den arren<sup>180</sup>.

Ni agian naturalagoa nintzen ilegalizazioa baino lehen. Nire ustez, 27 urte ditudanean hasten da nabarmen polizia-jarraipena. Eta, hortik aurrera, beste era batean bizi izan nuen guztia. Eta bai, egia esan oso inflexio-puntu indartsua izan zen niretzat. Modu horretan gaixotu arte. 30 urterekin gaixotu nintzen.

---

179 Hamarkada hori ilegalizazioena bezala ezagutzen da, hamar bat erakunde baino gehiago izan baitziren hala aitortutakoak eta jazarritakoak.

180 Pinocheten diktadurako preso eta preso ohiek sortutako kontzeptua, tortura sexualaren asmo politikoa azpimarratu ahal izateko. Honela definitzen dute: emakumeek edo disidente sexuak politikan parte hartzeagatik egiten duten konnotazio sexistako eta sexuarekiko indarkeria oro (bereganatzen duen forma). Informazio gehiago: <https://www.youtube.com/watch?v=3uC7Ucxb7VY>

Sendatzen inoiz bukatu ez duela uste badu ere, urte batzuen ondoren parte-hartze politikora itzultzea erabaki zuen, eta bere herriko zinegotzia izan zen, isolamendu politikoko urteetan<sup>181</sup>. Hainbeste tentsio eragin zion horrek, ezen urte batez bere herria uztea erabaki baitzuen, nahiz eta bere herritik ateratzean bizi izan zuen ezegonkortasunaren ondorioz itzuli behar izan zuen.

Bere kontakizunak deigarri egiten du bere militantziakideen erantzuna, Maitanek zer gertatzen ari zitzaion adierazi zuenean. Jarraitzeko ezkutuko eskaera horren aurrean, Maitanek jarraitzea erabaki zuen, are erantzukizun handiagoa hartuz, gainera. Elkarrizketaren beste une batean, horren arrazoiak azaltzen ditu, nolabait. Lekukotzaren hasieran, ETAko pertsoneri buruz ari da, eta haiekin alderatzen da:

Nik banekien nirea baino egoera gogorragoak eta bortitzagoak zeudela, eta oso egoera larrietan lan egiten zuen jendea zegoela. Orduan, baloratzen ikasten duzu. Niri ere oso deigarria egin zait hori, gu baino testuinguru gogorragoetan daudenak, eta hor dagoen jendeak edo atera duenak erakutsi duen indarra. Niri horrek asko eragin dit. (...) Gero, egia da militantziaren bidez askotan gertatzen dela hori, «egin behar da, egin behar da, egin behar da»... Izan ere, askotan sentitzen duzuna entzuteaz ahaztu egiten zara, edo ahaztu egin behar duzu gauzak aurrera ateratzeko. Eta hori noraino eramaten den norberaren esku dago, baina hori norberaren aurka doa. (...) Aurera, aurrera eta aurrera egin behar da. (...) Bai, nik uste dut egur handia eman diodala neure buruari, «zer ahula zaren! Begira zenbat jende atxilotu duten, zenbat torturatu duten eta ez dakit zenbat gauza gehiago. Zuri ez dizute ukitu ere egin, eta nola jar zaitezke horrela? Ez da posible». Badakizu, gure herriari begiratzen nion, gatazkari, gure inguruari, eta noski... baina ni ez ninduten ukitu.

Maitanek politikan parte hartzeko baldintza gogorren berri eman digu, eta, era berean, baldintza horiek betetzen dituen kultura politikoaren berri ere; bertan jarraitzea da helburu bakarra, eta ia ez dago lekurik zainketarako. Hain zuzen ere, Lilik, hurrengo protagonistak, subjektibotasun politiko horren aldaketak nola bizi izan zuen kontatzen digu:

**Lili: «Askapenaren eta umezurztasunaren artean»**

Lili 45 urteko emakumea\* da. Elkarrizketa 2018an egin nuen, eta une horretan unibertsiteate-ikasketak amaitzen ari zen, bere konpromiso militanteak eta 10 urteko espetxealdiak etendakoak, hain zuzen ere. Elkarrizketaren unean ez zuen, ez seme-alabarik, ez bikotekiderik, nahiz eta iraganean espetxean bikotekideak eta senideak izan zituela kontatu. Dinamikoa, gogoetsua eta hiztuna da.

Lili 16 urterekin hasi zen militatzen ikasle- eta gazte-mugimenduan, baita Jarrain ere. Garai hartan, Ezker Abertzaleko gazte-erakundeek lan publikoa egiten zuten, nahiz eta gero ezkutuko bilakaera izan zuten Baltasar Garzón epaileak bultzatutako «dena da ETA» estrategia judizial eta polizialaren ondoren.

181 1997. urtetik 2012. urtera bitartean, Ezker Abertzalearen hainbat hauteskunde-adierazpen legez kanpo utzi ziren, eta, legez kanpo utzi ez ziren herrietan, hautetsiak isolatu eta kanporatu egin zituzten; esate baterako, udalbatzordeetan parte hartzen ez uztea, udalbatzarrak informatu gabe egitea, eta abar.

Lilik bere belaunaldiak izan zuen entrega- eta konpromiso-ahalmenaren alde egiten du; bistan da harro sentitzen dela, batez ere, kapitulu honetan aztertzen den moduan, egin zuten emakume\*-talde ez hain handiaz. Baina, aldi berean, garai hartako kultura politikoarekin kritikoa ere bada. Lilik militantzian duen inflexio-punturik handiena deskribatzen du espetxetik irtetean bere konpromiso militantea berrartzen ez duenean (preseski liberazio gisa bizi izan zuena, baina baita zurrunbilo eta zentzu-galera gisa ere):

Niri asko kostatu zitzaidan bizitza pertsonala lehenestea. Baina ez hori bakarrik, e? Esan, azaldu... Oso zaila egiten zitzaidan, mingarria... ez dakit zer hitz erabili. Pixka bat berekoia sentitzen nintzen, gure proiektu kolektiboa utzi edo traizionatu izan banu bezala. Ahula banintz bezala sentitzen nintzen, horrek lasaiago egingo baninduen bezala, markatutako eta naturaltzat jotzen zen ibilbidea edo, behintzat, ondoen baloratzen zena espetxearen ondoren militatzen jarraitzea zelako. Esango nuke logika hori erantzukizun gehiago izan zituen jendeari aplikatzen zitzaiola, batez ere. Jendeak ez dizu gaizki begiratuko, edo zerbait esatera ausartuko zara... ez da hori, ez didazu gaizki ulertzen. Banekien hori ez zela harengandik espero zena. Bestalde, nire baitan oso indar handia zegoen, nire ametsak, nire proiektu partikularrak edo pertsonalak garatzera bultzatzen ninduen. Denbora eta energia eskaini. Oso fase emankorra izan zen, baita politikoki ere, e? Baina arraroa izan zen, deseroso, bai. Haustura izan balitz bezala bizi izan nuen, nahiz eta benetako haustura ez izan. Baina konturatzen naiz jendea eta zenbait giro saihesten nituela. Gainera, nik ez ditut seme-alabak janzen, eta ikusten nuen seme-alabak edukita zure bizitza pertsonala lehenestea zela onartuena. Horrek amorru handia ematen zidan. Gainera, nik zauriak sendatu behar nituen, eta garai hartan oraindik ere kostatu egiten zen horretaz hitz egitea. Errepresioaren ondorioak arindu eta zuk zeuk jaten zenituen.

Lilik subjektibotasun politiko hori berresten du, non kolektiboa gizabanakoaren gainetik jartzen zen, eta norbanakoa kolektibotasunetik asko eraikitzen zen, norbera diluitzeraino. Halaber, erakusten du harremanen mundua, alderdi emozionalen eta psikologikoen arloak, eremu pribatukoak zirela eta kostatu egiten zela eremu publikoan eta, beraz, politikoan kokatzea. Azken finean, sendotasun eza, kontraesanak eta zauriak eremu pribatuan agertzen zirenez, horiek ukatzeko beste modu bat zen.

Erabateko entregaren paradigma, *Euskal Herria ala hil* lema, alegia, sakrifizio moral gisa, ETaren eta Ezker Abertzalearen aurretik dator. Euskal abertzaletasunak, nazionalismo tradizionaletik edaten duen emantzipazio-proiektuak, alegia, XIX. mendean du jatorria, nahiz eta *nazionalismo erradikalak* modernizatu egin zuen, sozialismoa gainjarriz independentismoaren proiektu politikoari. Modu batera zein bestera, lelo hori, Eusko Gudarien kanta bera bezala<sup>182</sup>, 1936ko gerratik berartutakoa da. Euskal erresistentziak espainiar faxismoa borrokatu zuen garai hartatik hartu eta frankismoaren bigarren aroan Ezker Abertzaleak kantua bere egin eta esangura berri zion, mobilizazio eta ekitaldien amaiera orotan abestearen bidez.

Hamiltonen (2007) ETako emakumeak\* aztertu zituen 1960tik 1982ra bitartean, eta ondorio hau atera zuen: 1968an berreguneratu<sup>183</sup> eta berregin zen hiltzeko prest zegoen maxima, eta urte

---

182 Euskaraz «Euskal soldaduak» esan nahi du.

183 Hiltzeko prestasuna ez da ia zehazten elkarrizketetan. Isilune aipagarrienetako bat da.



horretan hil zuten ETako lehen militantea eta ETak lehenengoz hil zuen<sup>184</sup>. Autore beraren arabera, *Euskal Herria ala hil* birlantze hori behin betiko sendotuko da Burgosko Epaiketan, nazioartean oihartzuna izateaz gain hedapen mediatiko handia izan baitzuen. Hamiltonek azpimarratzen duenez, heroiaren eta, batez ere, martiriaren irudiak heriotzara kondenatutako sei gizonetan gauzatzen dira, beren adierazpenen<sup>185</sup> eta oraindik bizirik dagoen *Eusko gudarien* kantuaren bidez. Era berean, eta beti autore berari jarraituz, euskal heroia euskal martiri gaztearekin lotzeko joerak sendotzen jarraitu zuen, ETako hildakoak eta espetxeratuak gero eta gehiago izan ahala —gatazkaren militarizazio gero eta handiagoaren erakusgarri—.

Euskal Herria etsaiaren atzaparretatik *erreskatatzeko* premiak, arbasoen *historia* eta iraultzarenak (egiturazko aldaketena), hainbeste nahi den askatasunari *dana ematea eskatzen zuen*<sup>186</sup>. Hamiltonen arabera, *hori guztia bizitza* da gizonen kasuan, eta *amatasuna* emakumeen\* kasuan. Horrek ez du esan nahi emakumeak\* ez direla hiltzeko arriskuan egon, baizik eta emakume\* aktibistek amatasuna sakrifikatu behar zutela aktibista izateko, edo beren aktibismoa sakrifikatu behar zutela ama izateko.

Aktibista gizonaek sarritan gurasoak ziren, eta litekeena da batzuek, hilez gero, aitatasuna beren buruaren zati uzteko modu gisa ikustea. ETaren lehen bi hamarkadetan, emakume gutxi izan ziren aktibismo armatua eta amatasuna konbinatzen zituztenak. Salbuespen gutxi horietan, emakumeen sakrifizioak hartu duen forma, militantzian eta kartzelaratzean bere seme-alabengandik bereiztekoa izan zen (Hamilton, 2007:103)<sup>187</sup>.

Irenek erakutsi digu seme-alabengandik bereiziz sakrifikatu egin zela aztertutako aldian, etorkizun hobean pentsatuz egiten egin zuela, zehazki seme-alabei eskaintzeko betebeharra sentitzen zuten herrialde libre horretan pentsatuz egin zuela, esate baterako Txileko MIRen eta ERP eta Montoneros erakunde argentinarren kasuetarako ere aztertu den bezala (Vidaurrezaga, 2007; Diana, 2006; Ruiz, 2015). Euskal kasuan, ordea —garai historiko bakar batean ere ez—, ez zen «bikote terrorista» (Morgan, 1989) edo «bikote iraultzailea» formula proposatu<sup>188</sup> ezta «txiletarren eraikineko<sup>189</sup>» haurtzaindegietan hazkuntza kolektiboko proiektuen antzeko ezer ere ez.

184 Txabi Etxebarrieta eta Jose Antonio Pardines, hurrenez hurren.

185 Adierazpen horietan argi eta garbi esaten da Euskal Herriaren alde egiteko prest daudela.

186 Esteban Urkiagaren (Lauaxeta) euskal idazle, poeta eta kazetariaren poema. 1937an fusilatu zuten tropa frankistek.

187 Itzulpena nirea da

188 Argentinako kasuaren hurrengo bezalako proposamenez ari naiz, ERPn (70eko hamarkadako Argentinako erakunde armatua): «Bikote iraultzaileak ez du unitate itxi bat osatu behar, bertan hasi eta amaitzen dena, gorago esan dugun bezala, bere harremanetan erakunde osoarekin, langile-klasearekin, herriarekin eta prozesu iraultzailearen multzoarekin integratu behar du. [...] Familia-taldea erakundearen jarduera militarren oinarritzko zelula izateaz gain, etorkizuneko bizimodu sozialistaren trantsizio egokia den bizimoduaren oinarritzko zelula da» (Ortolani, 1972: 29-30).

189 Macarena Aguiló-ren eta Susana Foxley-ren «El edificio de los chilenos» dokumentalari egiten dio erreferentzia. Kubako BAME Etxeak proiektuaren esperientzia deskribatzen du, eta 60 hurrek hartu zuten parte. Eta dokumentala Virginia Croattoren haurtzaindegia, Montones erakundearen ondorengoak protagonista dituen, antzeko proiektu batean parte hartu baitzuten.

Maitanek erakutsi digu, amatasuna sakrifikatzeaz gain, «batek bere osasuna ere arriskuan jartzen duela azkenean», norberaren biografia eta gorputza gainditzen dituen asmo eta amets kolektiboei jarraipena emateko. Maitaneren istorioa «kosta ahala kosta jarraitu behar da» inperatiboaren materializazioarena da. Haren kontakizunak agerian uzten du gatazkaren militarizazio gero eta handiagoaren eragina —bi hamarkada horietan, *terrorismo-kategoria hain elastikoan* (Calveiro 2006) sartzen zen erakunde-multzo gero eta zabalagoen ilegalizazioen eta errepresioaren bidez eman zena—, baina baita ETAko militanteen erreferentziak zuen garrantzia ere, horiek baitziren entrega eta eskuzabaltasunaren idealak.

### 5.7. Azken ideiak

Ikusi dugunez, gure protagonisten testigantzek *corpus pribilegiatua* osatzen dute, aztertutako testuingurua eremu publikoarekin eta pribatuarekin, kolektiboarekin eta banakakoarekin, bizitza politikoarekin eta pertsonalarekin, nola erlazionatzen den ikusteko, baita esperientzia militantea kritikoki berreraikitze ere (Oberti, 2006 eta 2015).

Kapitulu honetan ikusi dugu ezen, mundua gaurdaino dirauen aro neoliberalari irekitzeko prestaketa lanetan ari zen garaian, Euskal Herriko gazteriaren artean borroka-mandatu kultur mandatu indartsua zela, baita emakumeengan\* ere. Gainera, Estatu Espainolaren kasuan, berregituratze kapitalista atzerapenez eman zenez gero, aldaketok abiadura handiagoan jazo ziren. 10-20 urtetan, gaur egungo «hautsitako gizartera» (Mingione, 1993), «zatitutako gizartera» (Tezanos), «zaurgarritasun sozialeko gizartera» (Castells, 1999) sartzeko zereginetan buru-belarri murgilduak ginen.

Hori dela eta, militantziaren auzirako garrantzi berezia izan zuten fenomenoak sortu ziren; besteak beste, ideologiek ordezkaten zuten askapen-errelato handiekiko atxikimendu-falta, salto teknologikoa dela medio informazioak eta ezagutzak zeukan balioa biderkatzea, gizarte-abiadura etengabe azkartzea, ongizate subjektiboa maximizatzea (bizi-kalitatea, autoadierazpena, autoerrealizazioaren garrantzia). Hala ere, kultur mandatuak hor zirauen, eta gazteak horixe betetzen tematzen ziren. Beraien hautuetara eraman dituen indarra oso handia zela ikusi dugu, ia-ia beraien borondatea bera gainditzeko modukoa. Euren ikuspegitik, Euskal Herria zegoen atakan egonik, egin zezaketen onena eta egokiena engaiatzea zela uste zutela erakutsi digute. Mandatua betetzea lortzen ez zutenean ageri den lotsak —Maddik, Alaznek eta Xunek erakutsi diguten moduan—, borroka-mandatuak haien inguru eta komunitate sozio-politikoan zeukan prestigioaren berri ematen digu.

Ezker Abertzalea, gatazka politiko armatuaren bilakaerara berregokitzeaz gain, mundu-mailako aldaketak aintzat hartu eta baldintza horiek aldatzen tematzen zen. Betiere, zeuden baldintzen arabera jardun, baina baldintza berriak erditzeko helburuari xerka. *Euskal Herria ala*

*hil* lelotik, *Euskal Herria eta bizi* lelora salto egin nahirik, nazio-erakuntzarako estrategiaren bidez eta horrek behar zuen militantzia-ereduen bidez. Hala ere, konpromiso-maila ezberdinen arteko hierarkiak indarrean zirauen, eta nabarmena zen gatazka politikoa beste gatazken gainetik ezartzeko eta, beraz, lan politiko guztiei balio berbera ez emateko joera, Alaznek erakutsi digun bezala. Gaur egun, guzti horrekiko kritiko agertu dira.

Beraz, gizarte-aldaketa, Ezker Abertzalearen 90eko estrategia-aldaketaren gainetik, aurreko kultur mandatuek indarrean jarraitu zuten, onerako zein txarrerako. Alde batetik, aurreko belaunaldiek bezala erabateko konpromiso-mailari eusten zion gazte-belaunaldia dakusagu, baina halaber beste modu batera funtzionatzen hasi zen munduan. Paper gainean egoerara egokitzeko egindako ahaleginaz haratago, mundu modernoaren eta posmodernoaren arteko subjektibitatean zegoen belaunaldiak kalean eta eguneroko trukeetan prestigioa zeukan ereduari eutsi nahi izan zion. ETAko kideek gorpuzten zuten erabateko entregak zekarren erreferentziak eraginda eta bultzatuta aritu ziren asko eta asko. Indibidualaren eta kolektiboaren, pribatuaren eta publikoaren arteko harremana aldatu egiten da gatazka garaietan: pribatua publikoagoa bihurtzen dela esango dute batzuek, eta interes komunak ordura arte ez zeukan pisua hartzen duela. Atal honetan hori ere ikusi dugu; alegia, bikote harremana ez lehenestea, haurra uztea eta alaba zintzoak izateari uztea (gurasoei gezurrak esatea, negozio familiarrean ez laguntzea, gurasoen uste politikoei ez jarraitzea eta disgusturik ez eragitea, batez ere amei) hautatu zuten emakumeak\* izan zirela. Baina ikusi dugu, orobat, hirugarren pertsonetik eta proiektu kolektibo batekiko ondorio izugarri handiak zituen jardunean, emakume\* gisa hezi izanak dakartzan autogaitasunen inguruko zalantza eta erruduntasunekin zein ez-gai eta arazotsuaren kanpo-errepresentazioaren gainetik sostengatzeari ekin ziotela.

Itzal eta argiz betetako kultura politikoa utzi digute agerian; garaiko mundu berrira eta Ezker Abertzalearen apustu berrira egokitzeko saiakerek porrot egin zutela, mandatu zaharrek eta gatazkak elikatzen dituen kultura politikoa gailendu zelako. Horrek zauriak eragin zituen, baita genero-ikuspegitik ere. Gaur egun irakurketa feminista batetik kritiko agertzen diren arren, agerian utzi dute, borrokarako kultur mandatu hark genero- mandatu batzuk hausteko aukera eskaini ziela, eta haien bizitzaren balantzean eta haien subjektibotasun politikoak mugarri izan zen aro asegarri eta asketzat ere badutela.



## 6. KAPITULUA

### **Torturaren zauri irekitik torturaren memoria feminista eraikitzen**

«Ba, nire ustez, Euskal Herrian, politikoki militatzeko erabakia hartzen denean, ba niretzat argi zegoen. Arrisku hori zegoela entzuten duzu, eta banekien tortura eta... baina etortzen denean esaten duzu bua! Ostras, hau nola heltzen da, nola kudeatzen dut, bai. Prest egon daitekeen torturarako, ez dut uste, baina bai, banekien gertatu ahal zela.» **Ekiñe**

«Habitagarria ez den horrek gizateriaren aztarnak erauzi egiten ditu, desegin egiten ditu, bizitzak behar duen eta exijitzen duen gutxieneko duintasuna lehertzen du, giza eskubideak ahaztutako adierazpenetako letra hil horretan gordetzen ditu.

Hiltzeko beharrik gabe bizitzearen aurka egiten du zuzenean, zeren eta, azken batean, haren ezaugarri nagusia bizitza arriskugarria izateko aukera besterik ez baita: babeslekuak eta babes askotarikoak kendu nahi zaizkion bizitza, botere-erregimenaren mende eta zerbitzura jarritako bizitza. Egurats gorriari utzitako bizitza, oinazeari eta sufrimenduari emandako bizitza. Finean, bizi nahi ez den bizitza.»

**Ignacio Mendiola (2017)<sup>190</sup>**

#### **6.1. Sarrera**

Tortura izan da Estatu Espainolaren indarkeria politikoaren adierazpenetako bat; zehazki, funtzionario publikoek eta segurtasun-indarrek egindakoa. Torturaren lanketa honi dagokionez, euskal polizia autonomikoa, Polizia Nazionalea eta Guardia Zibilaren eskutik eragindakoa hartuko ditut kontuan; beraz, kartzeletako funtzionarioek gauzatutakoak kanpoan utziko ditut.

Gutxienez, 5.657 kasu aipatzen dira 1960-2014 bitartean, nahiz eta horien magnitudea, dentsitatea eta intentsitatea oraindik ez diren guztiz ezagutzen, besteak beste, torturari buruzko memoria(k) eraikitzekeo prozesua testuinguru anibalente batek markaturik dagoelako. Testuinguru horretan tortura-kasuak gero eta agerikoagoak badira ere, ez Estatu Espainolak, ez haren gobernuak, ez du aitortza politiko-instituzionalik, judizialik edo sozialik egin. Gatazka armatuen ondoren, prozesu zailak eta konplexuak izaten dira gatazka horien arrazoiak eta ondorioak lantzen saiatzen direnak. Zeregin horretan, aurreko ikuspegiak eraldatu egiten dira, eta, agertoki berrietan, iraganari buruz egiten den narrazioan jartzen da gatazkaren arreta; alegia, gizarte gisa zer gogoratzen den eta zer ez, zer kontatu nahi den eta zer ahaztu. Ariketa hori gatazkatsua da, gizarte ez delako homoginoa eta interes, sentimendu eta erantzukizun desberdinak daudelako

gatazkaren indarkeriazko adierazpenetan. Horretan eragin handia dute gizarteko botere-harremanek, bereziki gatazkaren ondorioz sortutakoek, baina baita gatazkaren aurrekoek eta garaikideek ere. Gauzatutako eta jasotako (edo bietako) indarkeriazko adierazpenak identifikatu eta zenbatu egiten dira indarkeria politikoak uzteko prozesuen ondoren, gatazka horrek ekarri duen giza eskubideen urraketak zein izan diren aztertu nahian. Iraina eta pertsona laidoak onartzea, egia eraikitzea eta agerian uztea, justizia-prozesuak irekitzea, berreraikitze sozialeko prozesuak hastea eta zigorgabetasunarekin amaitzea izan ohi dira, gehienetan, borrokatu beharreko nahiak. Trantsizio-justiziaren arau-esparrutik abiatuta ere estandarizatu dira formulak, eta, Hego Afrikako esperientziatik abiatuta, munduan zehar era guztietako testuinguruetara esportatu dira (Castillejo, 2017). Eredu horrek badu kritikarik, halere. Aztertzen ari garen kasurako, kritika feminista nabarmenduko dut. Izan ere, prozesu horretan ez zaie erreparatzen emakumeen\* eskubideak urratzeko baldintza izan diren generozko botere-harremani, eta ez zaie erreparatzen emakumeen\* eta feminismoaren esperientziari eta ekarpenari ere (Mendia eta Guzman, 2017; Sigsworth eta Valji 2012). Horrek esan nahi du giza eskubideen inguruan ustez neutroa den ikuspegi bat lehenetsi ohi dela, non eskubideen subjektuari gorputza ezabatzeko joera dagoen eta, hala, generoa ez ezik, gorputz horien baldintza materialak, linguistikoak, etnikoak, ideologikoak, arrazazkoak eta sexualak (batzuk aipatzearen) ere lausotuta geratzen diren. Beraz, beharrezkoa da giza eskubideen ikuspegia beste eskubide askotara zabaltzea, edo, bestela esanda, azterketa zabaldu eta sakontzeko funtsezkoa izango da esperientzia zehatzak eta indarkeria espezifikoko aztertzeari; kasu honetan, tortura-egoeran dauden emakumeena\*. Laburbilduz, memoria-ikerketen bibliografiak baieztatu duenez, gatazkaren ondoriozko botere-harremanek bat egiten dute aurrez aurre dauden aldeek artikulatzen dituzten botere-ardatzekin, eta horrek guztiak eragina izango du memoriaren eta giza eskubideen gaiari heltzeko moduan; halaber, eragina izango du giza eskubideen eta memoriaren aldeko herri-mugimenduetan eta feministen praktika politikoan.

Euskal kasua ez da salbuespena. ETaren jarduna eten eta 12 urtera, kontakizunaren guda gori dago, eta giza eskubideen urraketa jasan duten biktima guztien onarpena truke-txanpon bihurtu da. Gatazka armatuaren amaierako agertoki berria ETaren alde bakarreko erabakiaren ondorio izanik, errazago sortzen dira gatazkaren existentzia bera ukatzen duten prozesuak, eta, beraz, badirudi ez dela beharrezkoa gatazka horren zergatien eta ondorioen aurre egitea. Gatazka eta estatuaren eskubide-urraketak ukatzen ez dituzten sektoreen artean ere ez dago adostasunik, bakoitzak indarkeria jakin batean eta eskubide-urraketa jakin batean jartzen baitu fokua, eta, gainera, Argentinako *bi deabruen teoriara*<sup>191</sup> hurbiltzeak deserosotasun bat baino gehiago sortzen du. Emaidza gisa, ETaren biktimez haratago —Estatu Espainolak aintzatetsiak—, inolako aitorpenik

---

191 Argentinako azken diktadura zibiko-militarraren (1976-1983) ostean, 30.000 lagun desagerrarazi zituen estatu-biolentzia eta bertako talde armatuen biolentzia (ERP, Montoneros eta abar) parekatu nahi zituen diskurtso eta lerro politikoa horrela izendatu zen, ikuspegi horrekiko kritikoak zirenen aldetik. Estatuak bultzatu eta egindako izugarrikeriak herrialdea muturreko ideologia eta indarkeriak jota (eskubikoa eta ezkerrekoa) egon zela esanaz izkutatu nahi zuen diskurtso eta estrategia politikoa salatzen den kontzeptua da.

izan ez duten pertsona laidotuena komunitate oso bat dugu: poliziak ikertu gabeko kasuetan hildako pertsonen senideak, *etsaiaren zuzenbide penalaren* eraginpean erbesteratutakoak eta epaitutakoak (Jakobs, 1985), eta espetxe politikoa salbuespen-araubidean betetzen dutenak. Horiekin batera, torturatutako pertsonak eta haien aurkako indarkeria politiko-sexuala gehituko dut; kontzeptu hori Txileko Pinocheten diktadurako preso politiko ohiengandik hartu dut<sup>192</sup>, eta, euskal emakumeen\* kasuan, tortura interpretatzeko, identifikatzeko eta deskribatzeko egokiena dela aldarrikatzen dut.

Euskal Autonomia Erkidegoko eta Nafarroako Foru Komunitateko gobernuen ekimenez, aurrerapausoak eman dira tortura aztertu eta ikusarazteko; batez ere, ETaren aurkako egoera politiko berrian. Horren adibide liriateke Nafarroako 2015/16 legea eta EAeko 2016/12 legea. Hala ere, ez da ariketa erraza izaten ari, ez bakarrik horrelako gai bati lotutako eztabaida politikoagatik, baizik eta Espainiako Gobernuak berak ahalegin handia egin duelako aurrerapen horiek galarazteko, esate baterako, 2015eko abenduan helegitea jarritz. Bi lege horiek<sup>193</sup> nazioarteko arau eta estandar guztiak bete arren errekurritu ziren, eta, beraz, agerian geratu zen baliabide horren izaera politikoa; izan ere, errekurtsioa Euskal Legetik kentzea Eusko Jaurlaritzak eta Espainiako Gobernuak erabaki zuten, eta aldaketak onartu zituzten.

Beraz, urrun gaude Euskal Herriko eta Espainiako gizarteek torturaren errealitatea bere osotasunean hartuko duen eszenatoki batetik, non torturaren ondorio politiko, sozial, kultural eta humanoak<sup>194</sup> aintzat hartuko baitiren, iraganeko eta gaur egungo legitimazio-diskurtsoak landuko baitiren, zauri horretatik gizarte gisa berreskuratzeko modua bilatuko baiten eta tortura erreproduzitzeko baldintzak desegiteko bidea aztertuko baiten. Dударik gabe, erronka erraldoia da, baina beharrezkoa, lekukotasunak sortu behar dituen; eta horien entzuketa sakonak Estatu Espainolean nagusi den iruditeria desegiten lagun diezaguke. Izan ere, iruditeria horrek, nahiz eta nazioarteko literaturaren eta euskal kasuaren torturari buruzko datuekin bat ez etorri, egun Estatu Espainolean gailentzen den iruditegia izaten darrai.

Iruditegi hegemoniko hori ideia hauek artikulatzen dute: tortura ETaren asmakizuna da eta erakunde horrek eskuliburu bat zeukan horretarako; tortura iraganeko edo beste herrialde batzuetako zerbait da; demokrazian ez da torturarik izan, eta tortura hori kasu bakan eta salbuespenekoetan

---

192 Aurrerago modu sakonagoan azalduko dut. Oraingoan, esan, bertako diktaduran ezker mugimendua eta militanteak desegiteko erabilitako biolentzia politikoaren ertz sexuala agerian utzi eta salatzeke darabilte kontzeptua. Biolentzia politiko hark emakumeak\* partaidetza sozio-politikotik aldendu gura zituela interpretatzen dute, eta horrela salatzen dute orduz geroztik, haien mobilizazio, hitzaldi eta askotariko ekimenetan.

193 Nafarroako 2015/16 Foru Legea: Eskuin muturreko taldeek edo funtzionario publikoek eragindako motibazio politikoko ekintzen biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko Foru Legea. 2016/12 Legea, uztailaren 28koa, Euskal Autonomia Erkidegoan 1978 eta 1999 bitartean izandako motibazio politikoko indarkeriaren testuinguruan giza eskubideen urraketak jasan dituzten biktimei errekonozimendua eta erreparazioa emateko legea.

194 Ondorio judizialak ere berehalakoan lantzekoak liriatezke. Tortura bidez eraikitako prozeduren ondorioz espetxean edo ihesean dauden pertsonen egoera konponduz. Adibidez, Iratxe Sorzabal torturapean egindako auto-inkulpazio baten ondorioz, berriki zigortua izan da. Ikus gehiago: <https://www.naiz.eus/eu/info/noticia/20220222/sorzabal-condenada-a-24-anos-por-la-an-no-ha-quedado-plenamente-acreditada-tortura>

baino ez da gertatu; torturaren helburua informazioa ateratzea zen, ETAren hilketak gehiago saihesteko; tortura atxiloketa biolento bat da, eta tortura sexuala laupabost poliziaren gehiegikeria lizun izan zen.

Testuinguru politiko eta sozial horrek guztiak eragin izugarria du giza eskubideen urraketak lantzeko moduan; zehazki, zer indarkeria eta eskubide aipatzen ditugun eta zein ez, eskubideak izateko eskubidea duten pertsonak zeintzuk diren eta zeintzuk ez. Hori dela eta, torturaren bidez laidotu diren emakumeen\* esperientziak aztertzeko proposamena egin nuenean, honako ikerketa-galdera hauek egin nizkion neure buruari: Zer enuntziazio-baldintza dituzte? Zer agerikotasun- eta lehentasun-maila hartzen dute emakume\* horien indarkeria-esperientziek? Zein interpretazio-markotan ari dira kokatzen genero-, sexu- eta politika-indarkeria? Haien beharren arabera eta haien jakintzez elikatzen ari al gara? Zer eginkizun dute gure gizartea osatzen duten hainbat eragilek, hala nola akademiak, feminismoak, herri-mugimenduek eta Ezker Abertzaleko<sup>195</sup> komunitate politikoak?

Hain zuzen ere, kapitulu honek, batetik, azken hamarkadan (2013-2023) tortura-forman emandako sexu-indarkeria politikoari emakume\* batzuek lehen pertsonan ahotsa emateko egiten ari diren prozesuari heltzen dio; bestetik, prozesu horretan dauden galdera, aukera eta arrisku berriei buruz ere hausnartu nahi du (baita genero- eta botere-harremanak feminismotik birdefinitzeko ikuspegitik ere). Horrenbestez, atal honen helburuak hauexek dira:

- Euskal Gatazka armatuaren kasuan torturatutako emakumeak\* protagonista dituen memoria eraikitzeke prozesua jasotzea.
- Memoria horren eraikuntza-lanetan darabilten hitza hartzeko prozesua deskribatzea.
- Torturaren kontzeptua zabaldu ote den aztertzea.
- Prozesu horretan dauden isiluneak eta esanahiak identifikatzea.
- Subjektibotasunen, botere-harremanen eta torturaren arteko harremanaren azterketan sakontzea.
- Sexu-torturaren salaketa-lanen aukerak eta arriskuak —ikuspegi feministatik— identifikatzea.

Horiek guztiak funtsezko kontuak dira, herri gisa bidegabekeria guztiak identifikatzea lortuko duen eta ezagutza horretaz baliatuko den egia osoa eraiki nahi badugu. Zertarako eta, besteak beste: kaltetutako pertsonen eta taldeen laguntzeko; tortura-esperientzia kolektiboki

---

195 Komunitate horri egiten diot erreferentzia, kasu askotan emakume\* horien pertenezia komunitatea delako, ez beste komunitate politikoek baino erantzukizun handiagoa duela uste dudalako.



lantzeko eta gizarte gisa berreraikitzeko (emantzipazio, demokrazia eta justizia parametroetan); ondorengo emakume\*-belaunaldien parte-hartze politikoa mugatzen duten herentzia frankistak eta genero-ideologiak desegiteko.

Kapitulua bederatzi ataletan banatzen da. Hasteko, torturaren definizioa problematizatuko dut, tortura historizatu, bere logikak, iruditeriak eta mugak ezagutzearekin batera. Azken batean, lehen zazpi atalek tortura eta haren azterketa kontzeptualizatzeko asmoa dute. Bigarren une batean, fenomenoak Euskal Herriko testuinguruan kokatuko dut; jarraian, torturatutako emakumeak\* protagonista dituen ekitaldi bat deskribatuko dut, eta tortura moduko indarkeria politiko eta sexualean sakonduko dut. Halaber, emakumeen\* komunitate honek hitza hartu ondoren sortzen diren beste gai batzuen berri ere emango dut. Kapituluak amaitzeko, emakume\* horien memoriak eraikitzeko une garrantzitsu eta esanguratsuei buruz hausnartuko dut, nahiz eta hutsune eta arriskurik gabeko memoria ez dela azpimarratu.

## 6.2. Torturaren definizioaz

Ez da asko hitz egiten torturaz, edo ez bederen hitz egin beharko litzatekeen beste. Baina horrekin batera, tortura zer den jakintzat jotzen da; alegia, definizioa emantzat jotzen da. Bada, lehenengo eta behin, torturaren definizioa bera problematizatu nahi dut. Zeri deritzogu tortura?

Prozesuen izendapenen atzean ezkututzen den mami politiko eta epistemologikoa agerian uztearen zalea da mugimendu sozio-politiko eta ikerketa-eremu kritiko eta feminista. Izendapena auzi hori pentsatzen dugun moduarekin lotuta dago. Kasu honetan, sozialki, ekonomikoki, politikoki eta kulturalki torturarako baldintzak berregiteko prozesuetan eragitea helburu izanez gero, tortura pentsatzea premiazkoa zaigu; are gehiago, akaso bide hori horren antzua den gaitzespenen dinamika baino emankorragoa izan dakiguke. Tortura pentsatzeaz dihardudanean, tortura aztertzeaz eta ulertzeaz ari naiz. Biolentzia-ekintza guztiak al dira tortura? Noiz esan dezakegu biolentzia-praktika batzuk tortura direla eta noiz ez? Auzi hori ez da inondik inora erraza, are gutxiago, definizio horren emaitzak milaka pertsonengan izan ditzakeen ondorioei so. Modu batera zein bestera, askorentzat min egiteko intentzioan dago gakoa; alegia, asmo horrek ezberdintzen du tortura beste biolentzietatik. Mendiolaren (2014) aburuz, gaur egun, min hori, gizakia gizaki egiten duen leku eta praktiketatik aldenduz, heriotza eragin gabe baina bizitzeko baldintzak ebatsiz, marra fin horretan kokatzen da tortura. Subjektua erabateko subjektzioan eta agerikotasun-egoeran geratuko den (g)unea, hain zuzen, hor zabalduko zaio torturatuari edozer posible den tarte krudel eta ankerra, oinaze jasanezina eraginez. Mugarik gabeko izugarrikeria posible da, humanitatetik kanpoko esperientzia bilakatzen delako tortura. Jean Amery-ren (2002:173) arabera, laguntza jasotzea gizakiaren funtsezko esperientzietako bat da; horra hor, bada, tortura ezaugarritzen duen gakoetako bat: laguntzarik ezin dela espero, laguntza jasotzeko esperantza desegiten duela eta, ondorioz, humanoarekiko deslotzea gauzatzen dela.

Aurrerago sakonduko dugu torturaren geografia horretan. Oraingoz, azpimarratu nahi dudana da torturaren definizio edo ulerkera horiek torturaren praktika komisaldegietatik kanpora daramatela; esate baterako, bikote heterosexual baten etxera edo Mediterraneo itsasora. Mendiolaren ustez (2014), hor eztabaida interesgarri eta premiazkoa irekitzen zaigu. Ikerketa honen asmoa ez da galdera horiei erantzutea, baina pausatze hutsak, problematizatzearekin batera, tortura-sistemen ugaritasun eta aldakortasunari begiratzera behartzen gaitu.

Torturak, izan ere, ez du zertan leku eta garai guztietan forma berdina hartu, objektu eta subjektuek berberak zertan izan ez duten moduan. Muriel Montagut-ek (2016) tortura, ekintza gisa baino, egiturazko prozesu gisa pentsatzeko apustua egiten du, eta, horregatik, sistema bezala definitzen du tortura. Autore horrentzat, prozesu terapeutikoan, torturaren praktika posible egin duen testuingurua eta gauzatu den intentzio-helburua artikulatzea beharrezkoa den moduan, beharrezkoa litzateke tortura sozio-politikoki pentsatzeko antzeko proposamena; hau da, Montagut-entzat, (idem) torturaren ekintzak, testuinguruak eta intentzioak, eta hiru horien elkarren arteko menpekotasunezko harremanak osatzen dute torturaren sistema. Alegia, hiru horietako baten aldaketak sistema osoaren aldaketa eragin dezake. Eta horrek tortura-sistemen ugaritasuna dakar.

### 6.3. Tortura zeharkatzen duten logikak

Arestian esandakoak, alegia, tortura-sistema asko daudela, ez du esan nahi tortura zeharkatzen duten logika zehatzik ez dagoenik; are gehiago, badira denboran eta munduan zehar errepikatzen diren logikak, Montagut-en (2016) ekarpenari xerka, hauek azpimarratuko ditut:

- a. Tortura logika judizialaren arabera erabiltzeak inculpazioak lortzeko aplikatzea dakar berarekin; informazioa bildu, besteen eta norberaren burua eskainiz. Alegia, tortura froga prozesal gisa erabiltzea, Estatu Espainolean egin den bezala, 2021an Pablo Iglesiasek Espainiako Gobernuko lehendakariorde zenean adierazi zuen modura<sup>196</sup>, hain zuzen ere. XII. mendera arte, esaterako, konfesioa jotzen zen froga juridiko bakartzat, beste froga materialen gainetik. Gerora, froga material eza konfesioekin estaltzeko joera izan da nagusitu dena; bereziki, disidentzia politikoak desegiteko, estatu-biolentzia politikoak sutsuki erabili den kasuetan.
- b. Logika berrezitzailean indaregitea. Kasu horretan, helburu den pertsona multzoaren portaera-edo jarrera-aldaketa da bilatuko dena; eskarmentuzko tortura, preseski. Emantzipazio-borrokaren bat alde batera uztea, engaiamendu politikoak etetea, desobedientzia-dinamika bat apurtzea, hautu kultural-erlijioso batzuk baztertzea edo generoa molde hegemonikoetara berregitea izan daitekeen moduan. Argentinako «prozesuan» ezkerreko militanteak

---

196 Ikusi gehiago: <https://www.lavanguardia.com/politica/20210227/6260859/iglesias-denuncia-tortura-utilizado-procesalmente.html>

konbertitzeko Maserak garatu zuen plana logika horren isla da<sup>197</sup>.

- c. Logika punitiboa. Zigortzea, mina eragitea, mendekua bilatuz. Kasu horretan ere eskarmentuzko tortura litzateke. Mendebaldeko zibilizazioaren ezaugarri esanguratsua dugu hau, nahiz eta gaurdaino oso gutxi aztertu den gizarte-zientzietatik.
- d. Dominazio-logika. Aurreko guztietan ere egon badagoena. Tortura aplikatzen duenaren proiektu politikoa, nazionalismoa, erlijioa, sistema ekonomikoa eta, funtsean, zibilizazioa ezartzeko asmoa du torturaren praktikak. Proiektu horren baieztapen material eta sinbolikoa da, bestearen —alteritatearen— azpiratzea den bezala. Ikerketa feministek agerian utzi dute tortura sexualaren praktika politikoak baieztapen maskulinoa eta azpiratze femeninoarekin lotura duela, eta generoak eta nazio-pertenentziak bat egiten duten lekuan, azpiratu nahi den nazioa-herria-etnia horregatik feminizatzen dela, tortura sexualak etsaitzat hartzen den horren emakumeekiko\* baieztapen maskulinoa bilatzen duela, eta *etsai* diren gizonak feminizatzea<sup>198</sup>, ordea, egitasmo patriarkaletan femeninoa beti gutxiago delako, balio eskasekoa.

#### 6.4. Tortura historizatuz

Erdi Arotik XVIII. mendera arte, tortura zigorraren parte zen, publikoa zen. Modernitatearekin batera, tortura abolitu egin zuten. Baina, dakigun moduan, horrek ez zuen ekarri tortura desagertzerik. Tortura tormentuen erakustaldi publiko eta, beraz, politikaren alde ikusgarria izatetik, ezkutuan eta sekretuan garatu beharreko praktika politiko izatera igaro zen. Batzuen ustez, horrek torturaren humanizatzea ekarri zuen; beste batzuen ustez, gizateriak biolentziarekin zeukan harremana aldatu baino ez zen egin. Alegia, biolentzia mendeetan aurrera joan ahala, arau sozialetan integratu eta erakundetu egin da, eta, harekin batera, tortura, pixkanakako erakundetze horrek mendebaldeko kulturetako tabu bilakatzeraino. Aldaketok, bereziki antzinako erregimenetik modernitaterako jauzia egitean jazo ziren. Gizartearen arautze eta antolatze berriarekin, alde ikusezinean geratu beharreko biolentziarekiko aztarnak ezabatzeari ekin zioten, tortura zuri edo garbiari leku eginez, teknizitatean irabaziz eta burokratizatuz. Funtsean, torturak eraginkorra izateko masiboa izan behar duen modu berean, bilatzen duen dominazioa emankorra izan dadin, dagokion gizartearen ezaugarrietara eta aldaketetara egokitu beharra dago. Iragan hurbilera jota, Frantzisko Etxeberria antropologo forentseak adierazi bezala, 80ko hamarkadatik aurrera Estatu Espainolaren tortura politikoaren politika aldatu egin zen, ikusezinagoa eta frogatzeko zailagoa izan zedin. Edota AEBetan, irailaren 11aren ostean jazotako ondorioz, Serge Portelliren esanetan,

---

197 Masera militarrek eskubiko proiektu politikoarekin bat zetorren portaera eta praktikan berregin gura izan zituen bere menpe zituen presoak. Gehiago jakiteko: *Ese infierno: conversaciones de cinco mujeres sobrevivientes de la ESMA*, 2001eko liburua.

198 Maskulinitatea feminitatearekiko ukaziotik eraiki dela argudiatu dute askok, besteak beste Pierre Bordieuk bere *Dominacion masculina lanean* (2001).

«AEBen gardentasun-itxurak torturaren erabilera askatu zuen. Lehenengoz, demokratikotzat jotako herrialde batek modu irekian erabili zuen tortura» (2011:56). Orduetik, duela 40 urte pentsaezina zatekeen arren, torturaren erabileraren inguruko eztabaida publikoa ezagutu dugu, komunikabide, politikari eta legegileak komenigarritasunaz eta arautzeez nola aritzen ziren entzun eta ikusiz.

Hala ere, gaurdaino ezagutzen dugun nazioarteko zuzenbidearen garapen handiena XX. mendearen bigarren erdian gertatu zen, justu tortura indarrez berragertu zen garai historikoan. II. Mundu Gerra eragin zuten izugarrikerien altzora eta koloniei lotutako nazio-askapenerako borrokei lotuta; izan ere, tortura estatu-inteligentzia zerbitzuei lotuta berragertzen da. 1984an torturaren aurkako neurriak adosten dira, eta gaurdaino erabiltzen den definizioari<sup>199</sup> eusten zaio.

### 6.5. Torturaren iruditeriak

Tortura pentsatzeko orduan, egitura eta logikekin batera garrantzia handia hartzen du iruditegiak; zehazki eta bereziki, darabilgun torturaren definizioak sozialki tortura ulertzeko moduekin bat datorren ala ez. Zer dago torturaz dugun iruditegi horren atzean? Nola eragiten dute horiek torturarako baldintzen berregitean? Eraikia dugun iruditegi horren atzean dauden diskurtsoen sustrai eta ainguratze-puntuak ezagutzeak badu bere garrantzia. Jarraian, ikusiko dugu egun nagusi den iruditegiak ez duela zerikusirik handirik ikerketetako datuekin eta torturaren beraren historiak dioenarekin.

Tortura atxiloteta- eta polizia-etxeetan hormen artean gertatzen denarekin lotzen da, baita, modu apalagoan bada ere, espetxeetako pareren artekoarekin. Beste maila batean, antolatutako kriminalitateari lotuta ere ager dakiguke, Europako ekialdeko mafia eta Ameriketako marei, esate baterako. Hala ere, gehienetan, estatua kokatzen da subjektu gisa; izan ere Nazio Batuen definizioak berak estatuari egiten dio erreferentzia.

Aitortua eta irekia den gatazka edo guda bateko praktikekin erlazionatzen dugu tortura. Herrialde eta estatuen artean lotzen da batez ere, inbasio- eta estatu-kolpeen testuingurura. Salbuespenezko eszenatoki deklaratuarekin jartzen dugu harremanetan geure buruetan, ohiko logika eta zuzenbidea eteten diren eszenatokiekin: Yugoslavia ohia, Persiar golkoa, Yemen, Palestina, Errusia eta Ukraina irentsi dituen testuinguruak.

Torturak zentzu horretan gaitzespena eragin arren, batzuetan beharrezko eta eraginkortzat joko da. Gatazka, guda edo terrorismoaren aurkako estrategiaren baitan, milaka bizitzen hobe beharrez baldin bada, zeresanik ez. Eztanda egitear den lehergailuaren adibidea jarri ohi da horrelakoetan. Datu guztien arabera, torturapean lortutako informazioak egiazkotasun eta fidagarritasun-maila oso baxua izan arren, eutsi egiten zaio tortura zilegiztatzeko bitarteko horri.

---

199 «Pertsona bati eragiten zaizkion sufrimendu gogorrak, fisikoak nahiz psikologikoak izan daitezkeenak, funtzionario publiko batek edota funtzio publikoak egikaritzen dituen norbaitek eragindakoak» (NBE, 1984).

Gatazkek eragiten duten min eta sentimenduei lotuta ere agertzen da tortura batzuetan. Horrelakoetan, gain egitearekin edo gehiegikeriarekin lotzen da. Bat-bateko sexu- edo biolentzia-pultsio kontrolaezinekin. Baina ez da salbuespenezko egoera, gertakaria baizik; kontua da gauza isolatu eta salbuespenekotzat jotz gero, giza eskubideekiko begirunea dagoelako ideia nagusitzen dela, hori baita estatu demokratikoan arau. Horrek esan nahi du demokratizatu gabeko herrialdeekin lotzen dela tortura, mendebaldeko herrialdeen aurrerabide- eta garapen-maila horretara iritsi ez diren herrialde ez-garatuekin, hain zuzen ere; bereziki, Ipar Amerikan eta Europan ez dauden herrialdeekin. Ikuskera horren zantzu kolonial eta arrazistak agerikoak dira, baina, horrekin batera, torturaren praktika eta tekniken aurrerabide nagusia herrialde demokratikoen eskutik etorri direla gogoratu behar dugu. Amaitzeko, aurrerapenaren eta historiaren linealtasunaren ikuspegi horrekin ere estuki lotuta, atzean, iraganean, utzi den gai gisa hautematen da tortura, gainditu diren diktaduretan edo egungo zibilizazio-maila eskuratu aurreko garaietan praktikatzen zena. Oso hedatua da gizateria humanizatuz joan dela dioen ustea, eta nagusi da torturaren aurkako eta giza eskubideen aldeko zuzenbide eta arautegia handituz eta onduz joan delako pertzepzioa. Iruditegien azalpen labur hau ez dut itxi nahi esan gabe litekeena dela azken hamarkadan munduaren joera autoritarioak errelato eta iruditegi horietan eragin izana<sup>200</sup>. Ziur aski, aldaketa-garaian sartuta gaude horri dagokionez ere; hala ere, ukaezina da azaldutako iruditegiaren indarra.

## 6.6. Torturaren mugak

Sozialki, tortura bat-bateko biolentzia-eztanda batekin lotzeko joera egon daiteke; bereziki, mendekuari lotzen zaionean. Mendeku-gosea, gorrotoa, amorru bizia, desio sexuala... gainez egiten duten pultsioei lotuta erakusten digute sarri askotan filmetan. Aldiz, ikerketen arabera, tortura erabat zedarritua eta mugatua dago. Torturagarritasun-une, -gune eta -komunitateak aurrez definituta egon ohi dira (Mendiola, 2014). Judith Butlerrek (2006) Irailaren 11ko gertakarien harira jazotako ostean egin gogoetan ondo zioen gisara, bizitza batzuekiko negar egitea merezi du eta beste batzuekiko ez; eta horren arrazoia da bizitza batzuen balioa ukatzen dela beste batzuen balioan jartzen den bitartean. Batzuk humanotzat joko dira eta beste batzuk ez, eta kategoria horretatik kanpo kokatutakoak izango dira zigortu, mindu, eraldatu eta menderatu beharrekoak. Funtsean, torturaren biolentziaren hedapena berezia da, ez da indiskriminatuki aplikatzen. Erromatar inperioan, tortura galarazita zegoen, baina atzerritar eta esklabuei ezartzen zitzairen, bi kategoria horiek humano edo gizatiarraren geografiatik kanpo geratzen zirelako. Ilustrazioko prozesuan ere emakumeak\*, pobreak eta atzerritarrak prozesutik kanpo utzi zituzten. Funtsean, bigarren mailako herritartzat jo ohi diren multzo horiek edo etsai gisa eraikitzen diren horiek izan ohi dira komunitate torturagarriak: aberatsa ez dena —pobrea—, zuria ez dena —beltza—, gizona ez dena —emakumea\*—, zibilizazio bakarrekoa ez dena —kanpokoa—, gure ideologiakoa ez

---

200 Brasilen Jair Bolsonaro presidentziara eraman zuen 2019ko hauteskunde-kanpainan esan zirenek eta Argentinan, berriki, 2023ko abenduan hauteskundeak irabazi dituen Javier Mileiren aldekoek adierazitakoek tortura publikoki zilegiztatzeke bertsio berrituak direla deritzot

dena —disidente politikoa—... Humano kategoriatik kanpo kokaraziak izan direnei humanoek merezi duten tratua ukatzen zaie, eta, beraz, animaliak edo objektuak balira bezala, edozer egin dakieke. Deshumanizatzen dira, tratu deshumanizatzailearen bidez, erabat deshumanizatzeko. Horregatik, humanitatearen aurkako ekintza dugu, funtsean, tortura.

### 6.7. Torturaren azterketara hurbilpena

Hurrengo lerroetan, tortura kontzeptualki aztertzen duen nazioarteko eta tokiko literaturara hurbiltzen saiatuko naiz, nahiz eta, Gabriel Ignacio Anituak eta Diego Zysmanek (2013:7) gogorarazten dutenez, «tortura ez da gizarte-zientziek asko zabaltzen duten aztergaia». Nire asmoa ez da laburbilduma sakon bat egitea, baizik eta nire ikerketa-galderei erantzuteko garrantzitsutzat jotzen ditudan ekarpenak berreskuratzea. Bibliografia horren berri emateko, lehen aipatutako iruditegiez baliatuko naiz (tortura diktadura-garai batekin lotzen duen irudia edo/eta polizia baten kolpe eta gehiegikeria bakartua besterik ez den irudia), erabat baliogabetzen baitituzte Euskal Herriko edo nazioarteko kasuaren ikerketek. Laburtuz, azalduko dut nola ikerketek baieztatzen duten tortura estatuari lotuta dagoela eta estatuaren alde ezkutua dela, eta horregatik egiten dela erregimen demokratikoetan ere (eta ez diktatorialetan bakarrik); ez dela indarkeria fisikoaren sinonimo hutsa, baizik eta eraikitzen ari den azterlan eta ezagutza bati erantzuten diola, zeina beste edozein jakintza legez entseatzeko eta transmititzen baita; eta bere azken helburua ez dela informazioa lortzea.

#### 6.7.1. Tortura estatuen *backstage* da (baita demokratikoena ere)

Rita Segato-k (2016), feministek egindako guztia gorabehera (baita aurrerapen legal eta berariazkoekin ere) emakumeen\* aurkako krimenen prebalentziari buruz hausnartzen duen moduan, Ignacio Mendiola soziologoak (2014) galdetzen du nola gerta daitekeen torturaren aurkako arkitektura juridiko-politikoak, 1948an, Bigarren Mundu Gerraren ondoren, gero eta handiagoa izatea eta, aldi berean, torturak jarraitzea. Mendiolak (2014) dio, eta horretan bat dator beste autore askorekin (Calveiro 2008 eta Pérez, 2009), torturaren praktika zigortzailea estatuen funtzionamenduarekin erabat lotuta dagoela eta zigorraren ekonomia baten parte dela. Izan ere, Michel Foucault-ek (1975) defendatu zuenez, tortura, XIX. mendean, publikoa izatetik eta prozesu penalen zati izatetik, «esparru ez-publikoaren» parte izatera igaro zen. Handik aurrera (eta gaur egun arte), autore beraren arabera, espetxeratzeak diziplinatu, zuzendu edo birgaitu egin behar zuen. Horrek ez du esan nahi estatuek torturari uko egiten diotenik, baizik eta *sekretu* gisa jokatzeko dutela. Hain zuzen, sekretu hori egia izan dadin, ezagutu egin behar da. Horregatik, Estatu Espainolean eta nazioartean, askotan, tortura gaitzetsi eta tortura erakutsi egiten da aldi berean (baita legitimatu ere). Izan ere, lau haizetara zabalduko sekretua izan behar du, batez ere izua eta kaltea zuzentzen zaizkion komunitatearentzat (Aranguren, 2016), zeren, Carlos Beristainek (1992:17) dioten bezala, torturak ez baitio bakarrik eragiten tortura jasaten duen pertsonari, baizik

eta «baita pertsona horiek bizi diren eta askotan balio eta praktika berak dituzten familia, talde eta komunitateei ere. Beldurtu egin behar dira, talde edo komunitate osoak jakin dezan zer gerta dakiekeen haiei ere».

Estatuei buruz hitz egitean, diktadura-egoerei buruzko datuak ez ezik, zuzenbide-estatuari buruzkoak ere aurkezten dira. Luigi Ferrajoliren arabera (2006), tortura eta zigorgabetasuna zuzenbide-estatuaren bortxaketa nabaria eta lotsagarria dira, baita Darius Rejalirentzat ere (2009), torturaren arloko berrikuntza handienak mendebaldeko demokrazien eskutik gertatu baitira. Horrek esan nahi du nabaria dela estatuarekiko lotura, baita Nazio Batuen torturaren definizio berean ere:

(...) tortura, berez, ez da subjektu disfuntzional batzuen jokabide irrazional edo maltzur gisa katalogatzen, baizik eta estatu-politika gisa (funtzionario publikoek exekutatu, eskatu edo onartzen baitute), eta informazioa lortzera, zigortzera, larderiatzera edo talde edo pertsona jakin batzuk diskriminatuz bideratuta dago. Hau da, tortura egiteak erabaki politikoa dakar, eta estatuak bere mekanismo errepresibo instituzionalen zati gisa onartzen du (Calveiro, 2008:80).

Mendiolak dioenez (2014), etengabe sortzen dira «torturatzeko guneak eta denborak», baita «torturatzeko moduko pertsonen komunitateak» ere. Hau da, gizatasuna kentzen zaien pertsona-taldeak eraikitzen dira, beren eskubideetatik desjabetzeko. Julia Estela Monarrez-en arabera (2017: 245), «beren gorputzak indarkeria anitzen ontziak dira, eta, justiziarik jasotzen ez duenez, pertsona ez den pertsona bihurtzen da, estatuak babesten ez duen herritar, eta botere politiko, sozial eta ekonomiko horrek berak torturatzailerei barkatzen die».

Horren ondorioz, gizarte eta politikaren arloan zilegitasuna duten denborak eta tokiak sortzen dira, eta horietan edozein eskubideren bermea desagertu (edo eten egiten da), hala nola Espainiako lege antiterrorista (gaur egun bost eguneko inkomunikazioa ahalbidetzen duena) edo, Butlerrek (2006) oso trebeki aztertu zuenez, Guantanamoko espetxe militarra. Ikuspegi hori bera dute, halaber, nekropolitika landu duten zenbait autorek tortura estatuaren kontrainsurjentzia gisa landu duen Lisa Marie Cachok (2012), feminizidioa ikertu duten Monserrat Sagotek (2017) eta Rita Segatok (2019), migrazioez hitz egiten duen Adriana Estevezek (2018), terrorismoaz aritu den Alice Martinik (2020), guda-modalitate berriak aztertzen dituzten Elsa Blairrek eta Ayder Berriok (2010).

#### 6.7.2. Estatu Espainola: ez da salbuespena, ezta iraganeko gauza ere

Estatu Espainolean, torturaz hitz egitea erregimen frankistaren eta gaur egungoaren arteko jarraitutasunetako bat adierazteko modu bat da; beraz, horrek zalantzan jartzen du, hein batean, *Trantsizioa*, espainiar demokraziaren mito fundatzaile hori, ahanzturan eta adiskidetzean oinarritua. ETA eta Ezker Abertzalea ez ziren sartu itun sozial berrian, eta, hala, gizartea «demokrata eta terroristen» artean banatu zen (Montoto, 2019). «Ahal zenarekin egin behar zitzaion aurre ETARI»; izan ere, indarkeria politikoa erabiltzeaz gain (Bourgois, 2001), ETA zein Ezker Abertzale guztia

narratiba horren pitzadura handia ziren. Hori dela eta, mugimendu horren aurka, euskal basati, barbaro eta ez-zibilizatuaren diskurtsoa gauzatuko da, modernitatea osatzen duten botere- eta indarkeria-ardatzetako bat berrituz horrela (Atutxa, 2022). Testuinguru horretan, Espainiako gizartearen zati batek (baita euskal gizarteak ere) berariaz edo inplizituki legitimatu zuen tortura, beste alde batera begiraturaz, nahiz eta isiltasunaren horma hausten zuten argazkiak, auzitegiko frogak edo heriotzak egon, hala nola, Amparo Arangoa (1976), Joxe Arregi (1981), Mikel Zabalza (1985), Jose Antonio Lasa eta Joxe inazio Zabala (1983-1995), Kepa Urria (1992), Fernando Elejalde (1997), Gurutze Iantzi (1993), Unai Romano (2001) eta Iratxe Sorzabal (2001).

Giro polarizatu horretan, atxilotuek dituzten eskubideen urraketak salatzea ETaren aldeko jarrera gisa irakurriko da. Horrek ez du esan nahi erakunde batzuen aldetik ez denik salatu; funtsezkoak izan dira Amnistiaren Aldeko Batzordeen, Amnistia Internazionalaren edo Torturaren Aurkako Taldearen salaketa eta datu-bilketen lanak.. Egoera horretan, tortura-salaketek ETaren eskuliburu bati erantzuten zioten mitoa izan da orain dela oso urte gutxi arteko egia ofiziala, Eusko Jaurlaritzaren aginduz egindako txostenarekin gutxituz joan dena, Francisco Etxebarria auzitegiko medikuak, Carlos Martin Beristain psikologoak eta Laura Pego abokatuak zuzendu dutena, non, Istanbulen Protokoloaren aplikazioaren bidez, 113. txosten horrek ondorioztatzen duen torturak aplikazio sistematikoagoa izan duela noizbehinkakoa baino. Eta kritikatu<sup>201</sup> ere egin den arren, ukazina da txosten horrek torturari buruzko egia ekarri duela Euskal Gatazkaren kasuan. Nabarmentzekoa da dokumentatutako kasuen % 70 garai demokratikokoak direla, eta % 17 emakumeak\* direla. Horri dagokionez, nahiz eta ikerketak ez duen barne hartzen generoaren azterketa sakona, gizonen eta emakumeen\* artean teknika desberdinak aplikatzen direla jaso du (aurrerago helduko diot gai horri). Azkenik, azpimarratu nahi nuke beste leku batetik ere begiratu daitekeela iraganeko kontua ez delako baieztapen hori. Esan nahi dut ezen torturak eragindako haustura kolektibo eta pertsonalak, sozialak eta kulturalak egungo bizitzako eta politikako praktika, lotura eta moduetan eragiten jarraitzen dutela, eta, beraz, alde horretatik ere, tortura oraina da.

### 6.7.3. Tortura, suntsitzeko ezagutza gisa

Eusko Jaurlaritzaren txosten horrek berretsi egiten du, halaber, Xabier Makazagak (2009) azalduzkoa eta nazioartean joera izan dena. Izan ere, 1980ko hamarkadaren erdialdetik aurrera, batez ere salaketak auzitegiara iristen diren zenbait kasuren ondorioz, torturaren praktika aldatuz doala. Euskal kasuan, praktika batzuk desagertzen hasten dira, hala nola «bainuontzia» (edo asfixia bustia), eta «poltsa» (edo asfixia lehorra), Espainiako polizien artean ezagunagoak bihurtzen hasten dira. Azterna gutxiago uzten dituzte, eta eraginkortasun bera duela erakusten da. Txosten horren arabera, tortura gero eta zientifikoagoa bihurtu zen, eta horrek esan nahi du, Francisco Etxebarriak behin baino gehiagotan publikoki adierazi duenez —eta hala berresten dute

---

201 Ikus gehiago: <https://www.eitb.eus/es/noticias/politica/detalle/5283234/reaccion-del-pse-al-informe-sobre-casos-de-tortura-en-cav-entre-1960-y-2014/>



nire ikerketaren testigantza batzuek—, zalantza sortzen duela ea esperimentatutakoa tortura den ala ez; beraz, ez da salatzen. Horrek (beste isilune batzuekin batera) tortura-kasuak gehiago direla pentsarazten du.

Horrek guztiak agerian uzten du tortura ezagutza bat dela, sistematizatu eta transmititu egiten dena. Fabrice Trollet (2002) eta Daniel Pereyra (2004) Frantziako armadaren tortura-teknikei buruzko ezagutza metatuen garrantziaz ohartu dira. Jakintza horrek arrakasta izan zuen Aljeriako gerra kolonialean (1954-62). Ezagutza horiek, gero, Estatu Batuetako eta Latinoamerikako amerikarrek sozializatu ziren, CIAren eta Panamako Ameriketako Eskolaren bidez, eta eragin handia izan zuten Hego Konoko diktaduretan eta Erdialdeko Amerikako gatazketan. Izan ere, Aljeriakoen aurka erabilitako teknika izarretako bat korrante elektrikoak (Trollet, 2002) izan ziren, gero Argentinan *pikana* eta Euskal Herrian *elektrodo* bezala ezagutuko direnak. Torturan adituak diren psikologoek diotenez (Euskal Herrian, Olatz Barrenetxeak eta Juliette Ruizek publikoki adierazi dute), trumoiaren ekonomiak aurrera egin ahala, tortura gero eta denbora gutxiagoan egiteko gai da, eta ondorio psikologiko iraunkorragoak ditu.

Adibidez, zentzumenen gabezia (Guantanamoen irudiak ikusi genituen, eta Munduko Elkarte Psikiatrikoko lehen presidentek, Ewen Cameronek, aztertu zuen) eta Moskun erabilitako eta CIAren agindupean ikasitako kalte autoezarria dira azken urteotan Euskadin presentzia handiena izan dutenak. Txosten horren arabera, «*tortura garbi* horrek zaildu egiten du biktimak bere borrokoak eragindako infernua gainditzeko premiazkoak dituen ulermena eta aitortza eskuratzea. Erakutsi beharreko aztarnarik gabe, tortura-teknika modernoak jasan dutenek arazo larriak dituzte jasan behar izan zuten mina publikoki ateratzeko<sup>202</sup>.» (Makazaga, 2009:31).

#### 6.7.4. Sexu-tortura, praktika politiko gisa

Sexu-indarkeria praktika politiko gisa aztertzen duen bibliografia zabala dago, nahiz eta leku eta garai bakoitzean forma desberdina hartu indarkeria horrek. Ez dira gauza bera Jugoslavia ohiaren eta Ruandaren kasuak (biak mugarri izan ziren esparru juridikoari dagokionez), Guatemala (Fuchiron, 2016; Casaús eta Ruiz 2017), Peru (Juarez, 2016; Sastre, 2021) edo Hego Konoko<sup>203</sup> diktadurak (Hinner, 2009; Aucia, 2011). Baina horrek ez du esan nahi sexu-torturaren definizio-eta funtzionaltasun-lerroak antzekoak ez direnik. Izan ere, azterketak bat datoz honetan: emakumeen\* kasuan, praktika horren xedea komunitatea kaltetzea da; bereziki, komunitateko gizonak (emakumeen\* bidez). Gizonezkoei dagokienez, berriz, emakumetu egiten dituzte, haien proiektua eta komunitatea gutxieteko eta estatu torturazailerak berresteko estrategia gisa (Taylor, 1997; Nusair, 2008 eta Zurbrigge 2008). Beste autore batzuek ere indarkeria sexuala praktika

---

202 Itzulpena neurea da

203 Hego Ameriketako hegoaldeari deritzo: Argentina, Uruguai, Txile, eta Paraguairi, zenbaitzuk Brasil ere bertan sartu arren.

politiko gisa onartu dute, indarkeria politikoaren testuinguruan. Hain zuzen, azken urteotan, Txilen, preso politiko ohien hausnarketatik abiatuta, zabaldu egin da sexu-indarkeria kontzeptua, eta honela definitu eta identifikatu da: «Genero-indarkeria modu berezi bat, modu sistematikoan erabilia, emakumeak\* diziplinatzeko, erreprimitzeko eta aktibismotik eta militantzia politikotik baztertzeko» (Goecke, 2021). Bat nator irakurketa horrekin; izan ere, Raquel Osbornek (2009) genero-indarkeriaren kontzepturako gogorarazten digun bezala, garrantzitsua iruditzen zait kontzeptu berak ez orokortzea edo erabiltzea fenomeno desberdinetarako, horrek berezitasunak edo enuntziatio-leku zehatzak ikusezin utz baititzake. Kontua ez da biolentzia edo sufrimenduz osatutako termometroa ateratzea, baizik eta aplikatzen diren eta indarkeria adierazten duten helburu eta moduak ezagutzea, testuinguru batzuetan egiten dutelako (eta ez beste batzuetan) pertsonen aurka eta abar; azterketa oso garrantzitsuak, ezagutzak zabaltzeko ez ezik, beste leku batzuetara eramango gaituzten bideak eraikitzeko ere.

Euskal Autonomia Erkidegoan, Eusko Jaurlaritzaren txostenak berretsi duenez, torturakasuen % 22,3an sexu-indarkeria erabili da, hainbat modutan: atxilotzean biluzik egon dira (% 18), sexu-irainak izan dituzte (% 10,3), genitaletan kolpeak jasan dituzte (% 9,7), ukitzeak (% 5,4), sexu-organoetan elektrodoak sartu dizkiete (% 1,4). Eta kopuru hori handiagoa izan daitekeela aipatzen da, aurrerago ikusiko dugunez. Teknikek emakumeengan\* eta gizonengan duten aplikazio berezia ere erakusten du:

Emakumeek\*, gizonekin alderatuta, bultzada eta ile-tiratze gehiago jasan zituzten, «plantoia» gehiago erabili zuten, poltsarekin asfixia lehor gehiago, sexu-indarkeria mota gehiago jasan zituzten (biluztasun behartu gehiago, ukitze gehiago, hitzezko umiliazio gehiago eta beste sexu-indarkeria mota batzuk), atxilotze-baldintza okerragoak (etengabeko zaraten eraginpean gehiago, garbitasun-gabeziakespazioan) (Etxebarria, Beristain eta Pego, 2017:167).

Laburbilduz, tortura sexuala praktika politikoa dela esatea, ez naturalizatzeko eta ikusezin ez bihurtzeko deia da, generoaren arabera ezberdin eta bereizi eraikitako gorputzen aurka erabiliz eragiten diren ondorio ezberdinak ez gutxiesteko deia. Gainera, tortura sexuala praktika politikotzat hartzeak horren aplikaziorako baldintza eta helburuez gogoeta egitera gonbidatzen gaitu, tortura bere dimentsio politiko osoan aztertzeraz. Horrela, emakumeen\* aurkako indarkeria patriarkatuaren indarkeria fundatzaile gisa eta indarkeria erreaktibo gisa problematizatzen eta politizatzen duten irakurketekin lotzen da. Azken baten, diziplinatu behar diren praktika disfuntzionalen aurrean botere patriarkalaren berrezartze-estrategia gisa kokatzen laguntzen du.

### 6.8. Emakumeak\* ahots propioz: indarkeria eta mina izendatuz

«Jarraitzeak eta berrekiteak korapiloak deslotu eta birlotzearekin zerikusia du. Esperientzia eta memoria berrikustea esan nahi du, eta haietan eta haiekin kritikoki jardutea. Hala ere, esperientzia interpretazio neutroetara lotzen duten korapiloak aldeztu aurretik deslotzen ditugunean baino ezin da berrekin. Izan ere, interpretazio horiek emakumeen\* ikusezintasun historikoa eraikitzen dute, korapilo horietako gorputzak biluzteak aukera ematen du agentzia- eta protagonismo-gaitasuna berrantolatzeke, esperientziari interpretazio-marko berrietatik ahotsa emateko.<sup>204</sup>».

Lilian E. Celiberti (2015)

Celibertiren gogoetarekin bat etorritik, euskal emakume\* errepresaliatuak ikusezintasun hori hausteko bidean daude. Bide hori interpretazio-marko berriak eskatuz eta sortuz hasten dute, eta, modu arin eta aldizkakoan, aldaketak egiteko baldintzak sortzen dituzte. Hori guztia erakutsi nahi dut emakumeak\* protagonista dituen eta Foro Sozial Iraunkorraren ekimenez sortu zen ekitaldi baten deskribapenaren eta analisiaren bidez. Foro horretan, gatazka armatuaren ondorioen ebazpen integrala lortzeko lan egiten duten hainbat erakunde eta gizarte-mugimendu biltzen dira. Ekitaldi hori Iruñean egin zen, 2017 apirilaren 6an. Zehaztu beharra dago bat etorri zela Sandra Barrenetxeak 2010ean torturatu zuten lau guardia zibilen aurkako torturen, sexu-erasoen eta lesioen epaiketarekin (2017/3/14).

Nafarroako Parlamentuan egindako ekitaldia mugarriz izan zen isiltze-egoerarekin hausteko; izan ere, tortura bizi izan zuten emakumeek\* lehen aldiz hartu zuten hitza parlamentuan, eta, besteak beste, erdigunean jarri zuten tortura-esperientziaren indarkeria matxista eta sexuala.

#### 6.8.1. Isiltasunaren horma bikoitza hausten: eszena etnografikoa

Bost emakumeren\* torturen lekukotza Nafarroako Parlamentuan egiten zen bigarren ekitaldia izan zen. *Hitzorduak* izeneko ekimen horien bidez, Foro sozialak elkarriketarako eta bizikidetzarako gune segurua sortu nahi zuen. Lehenengoan, izaera desberdineko gatazkaren biktimek parte hartu zuten; orainoan, torturaren txanda zen, tortura sexista eta sexualarena, zehazki. Horretarako, bi mahai-inguru egin ziren. Lehenengoan, bost emakume\* aritu ziren, hamarkada desberdinetan torturatuak izan zirenak: Gloria del Bosque (1973 eta 1975), Mertxe Gonzalez (1983), Marilo Gorostiaga (1994), Ainara Gorostiaga (2002) eta Izaskun Juárez (2010). Bigarren mahai-inguruan, zenbait gonbidatutako hitza hartu, eta praktika horri buruz hausnartu zuten, beren esperientziatik edo lanbidetik, eta genero-ikuspegitik eta ikuspegi psikologikotik jendeari ezagutza desberdinak hurbiltzen saiatu ziren. Foro sozialeko parte-hartzaile batek ere hitza hartu zuen bilera horren arrazoiak azaltzeko eta ekitaldia kokatzeko. Baina, zalantzarik gabe, zirrargarriena eta gertaeraren historikotasunaren berri plazaratzen zuen gauzetako bat hau da: Ainhoa Aznarezek egin zituela Nafarroako Parlamentuko lehendakari gisa harrera-lanak. Politikari

---

204 Itzulpena neurea da. Autore Uruguaytarrak lehen pertsonan ezagutu zituen Hego-konoko espetxe eta tortura. 1978an Porto Alegren bahitu zuten. Mi habitacion mi celda 1990an argitaratutako bere liburuan guzti hori jaso zuen.

hori Nafarroako Alderdi Sozialistako (PSN) kidea zen, Ainara Gorostiaga atxilotu, torturatu eta kartzelaratu zutenean. Hain zuzen, Ainara Gorostiagak, bere lekukotasunean, salatu zuen PSNk, Unión del Pueblo Navarro (UPN) alderdiarekin batera, 2002. urtean ganbera horretan bertan bere kasua lantzeari uko egin ziotela. Ezbairik gabe, ukazio eta isiltasun instituzional luze baten hausturaren aurrean geunden egun hartan.

Ekitaldia aurkeztu da, baina ia ez dituzte hitza hartuko duten bost emakumeak\* aurkeztu. Bakoitzaren errepresio-historialaren izen-abizenak eta datuak baino ez dira aipatzen (atxiloketa-data eta kartzela-urteak). Izan ere, hiru emakumek\* beren kontakizuna atxiloketa-data aipatuz hasten dute, eta, ondoren, poliziak zer astakeria egin zizkieten kontatzen dute. Hala ere, bi gazteenek, Ainara Gorostiagak eta Izaskun Juárezek, oso modu desberdinean ekiten diote kontakizunari; lehenbizikoak ahanzturaren eta oroitzapenaren arteko tentsioari buruz gogoeta egiten du, eta isiltze-testuinguru batean eta erabateko baliabiderik gabe berreraikitzea zein zaila den erakusten du. Bigarrenak, berriz, hitz-txanda gazte-erakunde bateko militantzia politikoa azalduz ireki du (gerora atxilotu egin zuten).

Atxiloketa-urtearen araberako ordena kronologikoan hartzen dute hitza, eta elkartasun- eta laguntza-keinuak trukatzan dituzte, bai eta sumin- eta ulermen-keinuak ere. Gloria del Bosque bi aldiz atxilotu zuten; bigarrena, 1975eko udazkenean, FRAPeko kide izateagatik, justu Franco hil zen bera inkomunikatuta izan zuten 10 egun horietako batean. Bere kontakizunean, indarra hartzen du giza eskubideen, egiaren, justiziaren eta erreparazioaren diskurtsoak. Mugimendu memorialistaz hitz egiten du, eta bere lana balioesten du, eta haserretu egiten da estatuak oraindik ere genozidio frankista gaitzetsi ez duelako. Gloria frankismoaren krimenen aurkako Argentinako kereilaren eta Iruñeko Udalaren kereilaren lekuko izan da, eta Francisco Etxebarria buru duen ikerketan parte hartu du. Era berean, esan du torturen eta preso zeuden emakumeen\* egoeraren lekukotza eman zuela Iruñeko Anaitasuna pabiloian 1977ko Amnistiaren ondoren, eta haren lekukotza Lidia Falcónek zuzentzen zuen *Vindicacion Feminista* aldizkarian ere sartu zela. Jasotako laguntza eta aitortzarako borroka azpimarratzen ditu. Bidegabekeria, zentzugabekeria eta torturaren atsekabea erakusten ditu: «karta-jokora jolasarazten ninduten. Makila ateratzen bazen, buruan kolpatzen ninduten luzaroan. Beste bat irteten bazen, gelditu gabe flexioak egitera 10.000 arte, eta gero atzera zerora itzuli, guzti hori hiltzeko mehatxu etengabeen artean». Tortura sexuala jasan duela adierazten du, baina xehetasunik gabe, gehiegi azaldu gabe.

Mertxe Gonzálezek, berriz, sexu-torturari eta isiltasun konplizeari, legitimazioari eta torturarekiko lankidetzari buruzko kontakizun oso esplizitua egiten du:

Tentsioarekin hilerokoa jaitsi zitzaidan, eta ez zidaten uzten aldatzen; beraz, galtza guztiak odolez beteta nituen. Biluztera behartu ninduten, zutik zentroan eta haiek aurrean, eta tampaxa kendu eta ahoan sartzera behartu ninduten. Mahai baten amaieran flexioak egin behar nituen, eta, gero, mahai horretan bertan, etzan, hankak altxatu eta erratz-makila bat sartu zidaten baginatik gora. Edo kokoriko nengoenean, polizia batek ukituak egiten zizkidan gorputz osoan.

Halaber, esan digu Madrilerako bidean geldialdia egin zutela, polizia taberna batean geratu zela arkume bat agindu zutelako, eta une horretan berak komunera eramateko eskatu zuela. Egoera nabaria eta deitoragarria zen arren, tabernako inork ez zuen ezer esan, ezta ezer egin ere. Espetxetik irten eta absolbitu ondoren, Noaingo aireportuko bere lanpostuan, nagusiak lekualdatze bat eskatzeko proposatu zion, «Iruñeko aireportuan ez baitago terroristentzako lekurik». Neskak nagusiari ezetz esan zion, eta erantzun gisa hormari begirako mahai batean ipini zuten ia lanik eman gabe. Jendeak ere (ez du zehazten zein den) bere lekukotzari buruz galdetu omen dio, eta bere egiazkotasuna zalantzan jarri omen du. Salatzen du inork ez diola barkamenik eskatu, adibidez, prentsan argitaratutako guztiarengatik, eta espetxetik irtetean poliziaren jarraipena izan zuela berriro.

Taberna bateko sukaldari zen Marilo Gorostiagak bere esperientzia eta bere kideena konparatzen ditu, eta azpimarratzen du bera ez zela hain torturatua izan, ez baitzuten biluztu, ez bortxatu. Harridura erakusten du *puta* gisa kalifikatu zutelako poltsan bi preserbatibo eramateagatik, 90eko hamarkadan emakumeek\* jada sexu-askatasuna zutela uste baitzuen. Ez du ulertzen zergatik obsesionatzen den emakume\* polizia bat bere gorputza «itsusia eta lodia» den horrekin.

Beste atxilotuen oihuak eta negarrak behin baino gehiagotan aipatzen ditu, asko iruditzen baitzitzaizkiolako eta larritzen baitzuen. Oinarrizko beharrek etengabeko xantaiak egiten ziotela ere badio, hala nola edatea edo komunera joatea. Bere narratiban hauxe nabarmentzen du: «horretaz guztiaz barruan gehien geratzen zaizuna, gainera, hauxe da: ziegak irekitzera doazenean, sartzen zaizun lasaialdia, ez denean zeurea ireki dutena. Baina argi dago errudun-sentsazioa sortzen zaizula, ezagutzen duzun edo ezagutzen ez duzun beste pertsona baten bila doazela esan nahi duelako. Baina une horretan zu libratzen ari zara. Izugarria da». Hala eta guztiz ere, erresistentzia-pasadizo bat oparitzen digu, nahiz eta berak ez duen hala esaten: ez zuen bere ohiko sinadurarekin sinatu erruduntasun-aitorpena, izen-abizen osoekin baizik, eta, hala, adierazten du hori zela erabat behartuta sentitu zela erakusteko sentitzen zuen aukera bakarra. Keinu bat dirudi, bere nortasuna gordetzeko ikusten duen arraildura bakarra baliatuz egiten duena. Materialki, amarru horrek ez zion ezertarako balio izan, ez Baltasar Garzón epailearen aurrean, ezta torturen helegitea artxibatu zuen epaile probintzialaren aurrean ere. Izan ere, Carabanchelgo espetxeko medikuak, espetxean sartu zen osasun-egoera zela eta, hasiera batean espedientea ireki zuen, eta, ondoren, presioen eraginez, erretiratu egin zuen. Adierazi du tortura ez dela kalabozoetan amaitzen, espetxean zaukaten bitartean edozein lekualdaketa edo eginbide Guardia Zibilaren eskuetan egiten delako. Izan ere, bere kontakizuna honela amaitzen da: «Guardia zibila hor dago oraindik». Azken hori ez da sentimendu bat, baizik eta torturak bere horretan jarraitzea ahalbidetu duen terrorismoaren aurkako legearen arkitekturak hor darraielatzen eta, beraz, noiznahi gerta daitekeela, nahi izanez gero.

Ainara Gorostiagak beste modu batera hasten du bere kontakizuna:

Duela hamahiru urte espetxetik irten nintzenean, gogoan dut terapeuta batek esan zidala bizitako esperientziarekin dolua egiteko. Dolu hori torturen lekukotasun idatzia bera eta oroitzapenak

ekartzen zizkidan guzti-guztia haustea zen. Eta, horrekin, landare bat landatzeko. Landarea hil egin zen. Eta nik, ordutik, jarraitu dut gogoratzen. Denborarekin, diluituz joan da, baina ez da desagertzen. Horrekin bizitzen ikasi dut. Ikasi dut iluntasunak, gauak, beldurra ematen didala. Arnasa hartzen ikasi dut indarkeria-zantzuak ikusten edo sentitzen ditudanean, garrasiak entzuten ditudanean. Alabari, plastikozko poltsa bat buruan jartzera jolasten denean, oroitzapen txarrak ekartzen dizkidala esaten ikasi dut. Ikasi dut eskuak begietan jartzen dizkidanean aurpegitik kentzen. Ikasi dut ez zaidala gustatzen lau hankatan jartzea, urpean igeri egitea. Ikasi dut, norbaitek atzetik hitz egiten ditanean eta ikusten ez dudanean, buelta ematen. Nire tamainan sentitzen, neure kabuz moldatzen eta erabakiak hartzen ikasi dut. Eta kontzentratzen, sentitzen eta konfiantza egiten.

Horrela, torturaren ondoren bere burua eta boterea berreraikitzeke ikaspen-prozesua kontaktzen du. Ahaztearen eta gogoratzearen, isilaraztearen eta memoriaren arteko oreka zaila politizatzen du. Geroago, bera ere bost egun horietan bizi izandakoa deskribatzen hasten da, non «arropa bakarra *antifaza* izan zen». Behin eta berriro azpimarratzen du zein higagarriak, nekagarriak eta asaldagarriak diren mehatxu, teknika, min eta ukitze horiek guztiak, are gehiago «etengabekoak eta elkarren artean nahasturik» jasota, eta pertsona ezabatzea lortzen dutela: «Nire gorputza anesthesiatuta zegoen, bularretako ukituak ez nituen sentitzen; orduko nire bikotekidea oihuka entzuten nuenean, edo, entzuten ez nuenean bihotzekoak eman ziola esaten zidatenean ez zidan eragiten». Kartzelan sartzean, komunikatu gabe jarraitu zuen, baina azterketa mediko sakona eskatu zuen, lehen egunean egindakoa guztiz eskasa zela uste baitzuen, ia ez baitzioten begiratu, gelako ateko burdin hesien bestaldetik artatu baitzuten. Ez zuen inoiz lortu eskatutako azterketa hura. Ainarak ere sexu-torturari buruzko xehetasunak ematen ditu, baina azpimarratzen du okerreana eta gainditzeko zailena dela jakitea «beste pertsona batzuei gauza bera gertatu zaiela zure adierazpenen ondoren eta ondorioz».

Izaskun Juárez gazte-erakunde bateko kide izateagatik atxilotu zuten, eta esan du tortura hasten dela: «zerrenda beltz batean zaudenean eta atxilotzeko unearen zain bizi zarenean, egunetik egunera ahulduz». Poliziaren etengabeko jarraipenekin bizitzen, lo egiteko zailtasunak izanda, «edozein hotsengatik asaldatuta, gau horretatik pasako ez dela pentsatuz. Batzuetan nahiago nuke hurrengo ni izatea, etengabe beldur horrekin bizitzea baino». Euskal kasuko torturazailen genealogia tristeaz mintzo da, 40 urteko torturaren inpunitateaz kontziente izateak daukan suntsitze-ahalmenaren berri ematen du. Horren ondorioz, «egingo dizutela dioten hori entzun eta batera errealitate bihurtzen da zure buruan». Beldurraren inbasioaz ari da, «bakarrik egoteko beldurra, egingo dizutenari beldurra, jasateko gai ez izateko beldurra». Estimuluen inbasio horretan, «galdera eta erantzun prestatuen» labirinto horretan nola galtzen zen kontaktzen du, egoera kontrolatzeko, lasaitzeko eta arrazoimena berreskuratzeko bere borrokaren antzua azaltzen du. Errua eta lotsa aipatzen ditu. Izaskun Juárezek torturaren ondorengo isiltasunaz eta mutismoaz ere hitz egiten du, salatzeke gai ez izateraino, baita kartzelatik atera ondoren ere. Beraz, lorpen handia da bere portaeran eragiten ari ziren sentimendu horiek guztiak kentzea, eta honela deskribatzen du: «haien esku egoteari uztea». Azken finean, erakusten ari da tortura «bere operazio-espazio eta -denbora mugatutik haratago doala, haragian eta oroimenean kokatzen dela, eta bere egintzaren balioak irau

egiten duela, errepikapen iraunkor eta nekaezin batean» (Calveiro, 2008). Lekukotza hori erabat kontrajartzen da tortura sistematikoki salatzen zuen ETAREN ustezko eskuliburuaren ustearekin.

Kontakizun-dentsitate horren artean, aretoan isilune itzela sortu zuten bi une izan ziren: Lehenbizikoa Marilo Gorostiagak eragin zuen, lekukotasunen ondorengo eztabaidan, ahots ozenez eta haserre antzean «ni ez naiz biktima» esaten duenean. Inork ez dio aurka egiten, inork ez dio galdetzen. Segundo batzuetako isiltasuna egin zen, eta ondoren, beste puntu batean ekin zioten hausnarketari. Bigarren unea anonimoa izan zen, eta hori ere eztabaida-txandan izan zen. Jendeari galderak edo gogoetak idazteko aukera ematen zitzaionean, gizon baten oharra agertzen da. Gizon horrek azaltzen du bere lagun eta hurren ama torturatu egin zutela, baina gaur arte ez duela salatu, ez judizialki, ez publikoki, ezta bere komunitatean ere. Halaber, azaldu du ez dela poliziarekiko beldurratik, baizik eta bere izena horri lotuta ikusgarri egiteagatik, bere alabei eta gainerako senideei bizipen hori erakutsi beharrik. Horixe ekidin nahi izan zuela. Gizona isildu zenean, nago emakume\* haren isiltasunaren pisua geurea balitz bezala sentitu genuela, kolpera gu zanpatzen.

Bost kontakizun horiek, haien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak, bai eta azken bi isiluneak ere, aberatsak dira oso. Euskal kasuan, gai honi buruz gertatzen diren prozesu asko laburbiltzen dituztelakoan nago. Horrek ez du esan nahi lekukotza horiek esperientzia eta bizipen guztiak erakusten dituztenik, ezta kasu bakoitzaren berezitasun guztiak ere, baina, era berean, uste dut tortura-auziaren gaur egungo egoera ondo islatzen dutela, dauden tentsioak, kontraesanak, anibalentziak eta sendotasunak, jarraitutasunak eta aldaketak, alegia. Ondo erakusten dizkigute enuntziazio-leku baimenduaren josturak eta erabilerak. Hurrengo lerroetan, horretan sakonduko dut.

#### 6.8.2. Sexu-indarkeria politikoa tortura gisa: mezuak eta irakurketak

Nafarroako Parlamentuko bost testigantzek berriro jarri zuten sexu-tortura erdigunean. Ez zen lehenbiziko aldia iritzi publikoan horrelako testigantzak paratzen zirena, baina hori ere ez zen hain ohikoa, eta hala izaten jarraitzen du. Kontatzen ari garenez, dagoeneko elementu asko daude euskal kasuko *torturaren indarkeria politiko-sexualaren* kartografia bat egiteko eta berau ondo aztertzeko. Horrek, gainera, indarkeria mota hori irakurtzen eta salatzeke erabiltzen dugun markoak zabaldu eta eraldatzen lagun diezaguke. Uste dut garrantzitsua dela beste herrialde eta prozesu batzuetako ispiluetan begiratzea, ez konparatzearen, baizik eta elkarriketan sartzeko eta galdera berriak egiteko. Hori da nire helburua; izan ere, gaur egun Euskal Herrian indarkeria hori izendatzeko, jasotzeko edo prentsan jakinarazteko darabilgun interpretazio-markoari teoria feministaren falta antzematen diot, sakontasun handiagoz aritzeko premia dakusat. Edo, bestela esanda, oraindik ere zaila da praktika politiko gisa izendatzea. Ondoren, *torturako sexu-indarkeria politikoaren* praktika nagusien berri emango dut, *indarkeria adierazkor* (Segato, 2016) horren mezuetara lehen hurbilketa bat egiteko; azkenik, akaso euskal kasuari erabilgarri izan dakioken beste kasu batzuetako interpretazio-markoen inguruko ohar batzuk ekarriko ditut.

Ximena Goedke-k (2021) Txilen indarkeria politiko sexualak barne hartzen dituen jardueren kartografia egin du. Hortik abiatuta, eta publikoak diren hainbat lekukotasun aztertu ondoren, hau da euskal testuinguruaren emaitza (ia berdina): a) Eremu publiko/politikoan sartuta dagoen emakumearen\* irudikapen sexualizatuak, umiliagarriak, erridikuluak edo lizunak komunikabideetan, hainbat baliabide teknologiko erabiliz (sare sozialak, prentsa...). b) Galdeketetan eta atxiloketan biluzarazi eta horrela egon beharra. c) Patriarkatuak emakume\*-generoari egozten dizkion lanak egin beharra (garbitzea, arropa garbitzea, eta abar) modu behartuan eta iraingarrian. d) Isekak eta hitzezko erasoak, sexu-edukiarekin. e) Jarrera lizunak edo iraingarriak hartzera derrigortzea. f) Generoaren araberrako deskalkifikazioekin loturiko irainak, sexuari, gorputzari, amatasunari edo funtzio ugaltzaileari dagozkionak. g) Bere orientazio sexuala zalantzan jartzea. h). Bere feminitateari edo maskulinitateari buruzko isekak. i) Pertsona edo senideak bortxatzeko mehatxuak. j) Mehatxuak, etorkizunean plazera galtzeko aukeraren edo ugaltzeko aukeraren (edo ziurtasunaren) gainean. k) Atxilotutako edo familiako beste pertsona batzuen sexu-tortura ikusi, entzun edo hartan aktiboki parte hartzera derrigortzea, behartutako intzestua barne. l) Gorputzeko edozein ataletan ukituak egitea. m) Bortxaketa-simulazioak. n) Korrante elektrikoa aplikatzea genitaletan edo eremu erogenoetan. o) Uzkitik edo baginatik bortxatzea.

Praktika sorta hori, Segatoren proposamenari jarraituz, *adierazpen-indarkeria* gisa ulertzen badugu, beharrezkoa da euskal kasuan dauden mezuei buruz hausnartzea. Horretarako, Amaia Urizarren testigantza gordinaren zati txiki bat aukeratu dut, ikerketa honetan parte hartu duten emakumeek\* esandakoa, zeren horrek (eta beste testigantza publiko batzuek) oso ondo laburbiltzen baitu eta torturaren genero-erregimena (Connell, 1998) agerian uzten baitu. Tesi honen azken kapitulu horren inguruan sakonduko badut ere, oraingoz esan ezen genero-erregimen horren ezaugarri nagusiak honako hauek direla:

- 1) Emakume\* horien izaera militantea (parte-hartze politiko) ukatzea eta moztea. Bigarren mailako gisa ikusiak dira, norbaiten eranskin gisa: laguntzaile, emaztegai edo inozo engainatu gisa.
- 2) Puta gisa irakurtzea, genero-eredu hegemonikoetatik ateratze hutsagatik, aukeratzeko eta jarduteko gaitasuna duen emakume\* batek eragiten duen beldurra eta mehatxua agerian utziz. Genero-ihesaldi hori zigortzea eta hari aurre egitea, funtsean.
- 3) Gorputzak objektu bihurtzea, praktikak sexualizatzea, bularrak, sabela eta bagina erabiltzea feminitatearen sinbolo gisa.
- 4) Emakumeen\* birjintasunarekin, kastitatearekin, monogamiarekin eta emankortasunarekin (Taylor, 1997) jokatzeko, feminitatearen proiektua osatzen duten elementu gisa, hura auzitan jarritz edo kaltetuz indartzeko.



- 5) Intsektu, itsusi, arrotz, okaztagarri, zikin eta zabor hutsera murriztea, ulergaitza den edo ezin izan daitekeen zerbaitera, *bestearen bestea* edo emakume\* *borroka* edo *etarra*.

Azken batean, esan genezake emakumeen\* aurkako torturak mezu bat eta bi hartzaile dituela. Mezuari dagokionez, honela laburbil daiteke: «Emakumeek\* ez dute egon behar gizonentzat erreserbatutako eremuetan, eta, beraz, dagokien lekura itzuli behar dute», emakumeen\* parte-hartze politikoa (edo armatua) desmobilizatzeko zigorra. Hartzaileei dagokienez, bikoitza da: alde batetik, militante politikoak, uneko edo etorkizuneko emakumeak\*. Frankismoaren errepresio politikoaren kasurako, genero-desplazamendua zuzentzeko eta emakumeak\* parte-hartze politikorik ez duten ereductara itzularazteko asmo hori aztertu da, eta bertan identifikatutako genero-ereduekiko eta -ideologiarekiko antzekotasunak deigarriak zaizkit (Sánchez 2019; Abad, et.al. 2012; Solé eta Diaz; 2014, Ginard; 2013 eta Rodríguez, 2015). Esan dezakegu estatuak diktadura frankistaren genero-hariaren bidetik jarraitu zuela, torturari eta kartzela politikoari dagokionez. Kasu honetan, XIX. mendeko prozesuarekin konparazio bat egin genezake, torturaren ondorengoak publikoak izatetik sekretu izatera igaro zirenean. Hasierako frankismoko buru-soiltzeak eta purga publikoak, besteak beste, bortxaketa bihurtu ziren Intxaurren eta Antigu (Donostia), La Salbe (Bilbo) eta Tres Cantoseko (Madril) kuarteletan. Argitik itzalera. Hurrengo hamarkadetako emakume\* militanteen komunitate txikian, oso presente egongo zen indarkeria politiko sexuala. Gainera, 90eko hamarkada mugarriz izango da errepresio-mailan, baita genero-ikuspegitik ere: tortura-testigantzen bilduma sistematizatzen hasiko da (eta, pixkanaka, datuak sexuaren arabera bereizten), sexu-indarkeriaren ikuspegi zabalagoa izaten hasiko da, emakumeak\* judizialki penalizatuagoak izaten hasiko dira, eta azterna gutxiago uzten duten tortura-tekniketara jauzi egingo da (horrek eragina izango du, batez ere, emakumeengan\*, Laura Pegoren arabera gehiago aplikatuko baitzaizkie eta salatzen zailagoa egiten baitzaie).

Bestetik, mezuaren bigarren hartzaileak Ezker Abertzaleko gizonak dira. Azken kapituluan ikusiko dugun bezala, garai hartako (eta gaur egungo beste mugimendu politiko askotan gertatzen den moduan) zuzendaritza politikoetan haiek ziren nagusi. Gizonei zuzendutako mezua hau zen: «Begira zer egiten dugun eta zer egingo dugun zuen emakumeekin\*». Beraz, emakumeak\* komunitatea suntsitzeko tresna bilakatzen dituzte. Gai horrek zerikusia du emakumeei\* kultura bakoitzean ematen zaien zeregin sinboliko eta materialarekin, eta, kasu honetan, Ezker Abertzalean, Begoña Aretxagak (1988), Mila Amurriok (2006), Carrie Hamiltonek (2007) eta Onintza Odriozolak (2016) aztertu duten moduan, 60ko, 70eko eta 80ko hamarkadetako Ezker Abertzaleko genero-ideologiak emakumezkoen\* kulturaren transmisio-lanak egozten zizkien eta borrokari eta aberriari seme-alabak eskaintzen zizkion amaren figura goratzen zuen. Horregatik, alderdi hori bereziki aztertu eta eztabaidatu behar da. Gatazka armatuei eta gerrei buruzko nazioarteko literaturak azpimarratzen du emakumeen\* gorputzak komunikazio-bide bihurtzen direla bi aldeetako gizonen artean, eta, mezu horiek ulertzeko, bistan da hizkera sinboliko bera erabili behar dutela (kasu honetan, emakumeen\* sexualitatea ulertzeko modua). Ondorioz,

ulerkera hori partekatzeak eragiten du sexu-indarkeria estrategia militarren tresna bilakatzea, Julie Mostov-ek dioenez (2000), nazioa edo komunitate kulturala haustea helburu duena. Politologo amerikarrak gaineratzen du bortxaketak mugen inbasioak eta maskulinitatearen bortxaketa direla, eta ondorioztatzen du nazioaren subiranotasuna eta autonomia bortxatzea esan nahi duela. Horregatik, zenbait autorek diote gizonen aurkako tortura sexualak haien gizentasuna zauritu eta feminizatu nahi duela (Taylor, 1997; Nusair, 2008). Eusko Jaurlaritzaren txosteneko datuen arabera, genitaletan korrante elektrikoa aplikatzea gehiago erabili da gizonen kasuan, eta Mikel Sotok, bere esperientziaz (ikuspegi feminista batetik irakurriz) publikoki hitz egin duen gizon bakarretakoak, Bilbon hitzaldi baten testuinguruan (2019/6/20) esan zuen, bere esperientziari dagokionez, 10 urte baino gehiago behar izan dituela ohartzeko mahai baten aurka botatzea, galtzak jaiste eta uzkia objektu batekin igurzte eraso sexuala dela. Gizon torturatuekin izan dituen elkarrizketetan, sexu-indarkeria handiko tortura-praktikak daudela aipatu du. Praktika horietan, *maricón*, *cobarde* eta *nenaza* irainekin gizentasuna kaltetzea zen helburua. Haren arabera, interpretazio-esparrurik ez izateagatik arazoak izan dituzte hura identifikatzeko, teoria feminista urrunegi egon baita haientzat. Horrexegatik uste dut ezen lan feminista zabalago batek, emakumeen\* kasuan tortura sexualaren testigantza gehiago jasotzeaz gain, gizonen kasuan ere emaitza oparoak<sup>205</sup> izan ditzakeela. Alde horretatik, landa-lanean, honako kasu hauek nabarmentzen dira: sexu-indarkeriaren beldurra dela eta gaixotzera iritsi den pertsona, sexu-torturaren inguruko isiluneak familian eta lagunartean, eta erlazio pertsonalen apurketa, segurtasunik ezak eta mesfidantzak. Lurrek jasandako sexu-erasoaz ari dela, honako hau aipatzen du: *Gero ikusi nuen nola erabili zuten nire kasua beste emakume batzuetan izua handiagotzeko; hori oso gogorra egiten zait*. Maitanek, berriz, izendatu ere egin gabe, zera dio: *Batez ere benetako izua ematen zidan emakume izateagatik, hori...* Eta Ekiñek honela gogoratzen du tortura eta sexu-erasoa publikoki salatu osteko aldia:

Eta hedabideetan jaso zena xehetasun morbosoa ziren, nola egin zen, zertaz edo zertaz hitz egin ordez, xehetasun mamitsuekin, nola gertatu den kontuan hartu gabe, eta... ez da soilik nire inguruan eragina izan zezakeena aditzera ematea. Dena argi eta garbi agertzen da egunkarian, eta nire ama enkarguetara jaisten denean eta denek begiratzen diotenean, horrek eragin handia du nire inguruan. Eta niretzat hori motxila bat eramatea zen: «neska hori...» (ez du hitza esaten, baina ulertzen da). Eta niretzat motxila hau kendu eta esan ahal izatea: «Hau gertatu bazait, ni hori naiz», nire ustez hori izan zen nire borrokarik handienetako bat, hau da, «pena ez dut behar, eta ni emakume bat eta pertsona oso bat bezala tratatu!», eta hori bai, hori beti, *abizen hori* gainean dudala. Etxean ez da torturaz hitz egiten, tabua da. Batez ere, min handia eta inpotentzia handia dagoelako, erruduntasuna dagoelako bi aldeetatik. **Ekiñe**

Puntu honetan, nabarmena da tortura sexualaren inskripzio bikoitza: bata, militantzia sozial, politiko edo armatuaren aurkako indarkeria politikoa; bestea, berriz, irismen handikoa, emakumeen\* gorputzekin zerikusia duena. Inskripzio urrun eta luzeko sexu-indarkeria hori

---

205 Gizonen aurkako tortura sexuala eta bortxaketak salatu izan dira, baina Oier Gonzalez eta Iker Morenok 2015ko UEUko *Euskal Herriko gatazkaren irakurketa etorkizuneko bake feministaren bidean* deitutako ikastaroan emandako hitzaldian azaldu zuten moduan, egun nagusi den maskulinitateak ez du errazten horretan sakontzea, eta ikuspegi feminista zeharo lagungarria izan dakieke.

nabarmendu ohi da emakumeen\* aurkako indarkeriak etenik ez duela aipatzen denean, ez bakegiroan, ez gerra-giroan, *continuum* gisa ulertu behar dela (Cockburn, 2004, 2014; Scheper-Hughes eta Bourgois 2004). Baina beste autore batzuek ere uste dute, hain nabarmena den ideia horrekin bat etorri arren, garrantzitsua dela emakumeen\* aurkako sexu-indarkeriak indarkeria politikoaren testuinguruan duen espezifikotasuna onartzea (Bacci, Capurro Robles et al., 2014; Sutton, 2015). Adibidez, Miranda Alisonek (2007) begirada interseksionala aldarrikatzen du, zehazki, generoa etniarekin eta gatazka nazionalekin gurutzatzen duen begirada; izan ere, autorearen arabera, beldurraren eta indarkeriaren banaketa ez da berdina izaten. Aztertzen ari naizen eremura etorri, euskal emakume\* guztiek ez zuten tortura-erregimen horiek jasateko arrisku bera.

### 6.8.3. Lekukotzetatik abiatuta hausnartzea

Jarraian, Nafarroako Parlamentuko lekukotzetatik sortzen diren hainbat kontu aipatuko ditut, eta euskal kasuan torturari buruzko gogoeten eta eztabaiden erdigunean jarri nahi nituzke. Ez dut eztabaida-baieztapen kategorikoetan sartu nahi, kontrakoa baizik, entzuketa-ariketa ireki nahi dut gehiago ezagutzeko, eta praktika feminista, akademiko eta politikoak zabaltzeko.

#### **a) Gorputza jarri: testigantza garrantzia**

Iruñeko ekitaldiko bost protagonistak, beste asko bezala, torturari eta torturako sexu-indarkeria politikoari buruz ari dira. Lekukotasuna emateko, *gorputza jarri*<sup>206</sup> behar da, eta, horregatik, beharrezkoa da hausnartzea Euskal Herrian zer zailtasun dauden bortxaketak tresna eta praktika politiko gisa irakurtzeko (Segato, 2010), preseski emakumeen\* ahalegin hori beste modu batean entzun eta irakur dadin, besteak beste.

Elizabeth Jelinek (2017) nazioarteko interpretazio-markoek gatazka armatuko egoeretan sexu-indarkeriari buruz duten bilakaerari buruzko gogoeta egiten du. Autorearen arabera, 2000ko hamarkadatik aurrera, ohorearen eta duintasunaren aurkako atentatu gisa interpretatzen (hau da, irakurketa moral batetik), irakurketa politiko eta kolektiboa egitera igarotzen da. Hala ere, oraindik pribatizatu egiten da prozesu politikoetako sexu-indarkeria, eta oraindik ere kostatu egiten da gai publikotzat hartzea. Baina paradigma-aldaketa horiek tentsio berriak sortzen dituzte; esate baterako, izugarrikeriaren espektakulu bihurtzeko arriskua. Horren ondorioz, Jelinek (2017) kezka agertu du hitza hartu duenaren berreraikuntzari eta entzuten duenaren saturazioari dagokionez.

---

206 Feminismoan, inplikazioa eta konpromezua adierazteko erabiltzen dira. Zerbaitetan buru-belarri sartzearekin lotura du, baina baita sartzeko horrek dituen arriskuekin ere; denetariko arriskuak (osasuna, askatasuna eta bizitzarekin lotutakoak). Beraz, ondorio guztiak propio egin eta erabateko murgiltzea adierazteko erabiltzen da, horrek dakartzen gorputz-prozesuak ezkutatzeari utziz. Kasu horretan, nekea, antsietatea, argaltzea, loditzea, zahartzea, gaixotzea, desoreka hormonalak izatea, beherakoa, idorreria, buruko minak, muskulu-uzkurdurak eta abar. Ikerketa-mundurako ere erabiltzen da esaera. Patricia Castañedak dio ikerketa feministek «Gorputza jarri edo gorputza arriskuan ipini darabilte harreman sakon bati izena emateko, non ikertzen ari denak ikerlari, ekintzaile, laguntzaile eta ikerketarako erabiltzen dituzten talde berdinetako kide gisa parte hartzen baituen» (2019:24).

Zenbat testigantza behar dira? Zenbat xehetasun behar dira? Kontuan izanda, gainera, torturaren eta sexu-indarkeriaren esperientzia intimitatean erabateko inbasioa eta barneratzea dela, intimitatea bera suntsitzea, non nor bere jario eta erreazio guztiakin erakusten baita: gernua, hilerokoa, bilisa, adurra, izerdia, dardarak, karranpak, tolesturak, paralisia, imintzioak, arnasestuak, garrasia, negar-intzirriak eta autolesioak, besteak beste. Tortura da torturatzailleak iritsi, inbaditu, kontrolatu eta menderatu ezin dituen leku bakar bat ere ez dagoen sentrazioa sortzen duen paisaia eraikia, desjabetze erabatekoaren sentimendua. Izaskun Juárezek, adibidez, bere esperientziaz esan du berak «ez zuela kontrolatzen ezta pentsatzen zuena ere». Horregatik, Silvia Amati Sas-ek (1991) «lotsa berreskuratzea» deitzen dio intimitatea berreraikitzeke saiakerari, eta horrek eragina du kontatzeko moduan edo isiluneak egiteko edo gordetzeko erabakian.

Lehenago aipatu bezala, Susana Atxaerandiok (2013) aurkeztutako komunikazio batean, testigantza ematearen garrantziaz hausnartu zuen, baina baita noiz, nola eta noren aurrean egiteaz ere; izan ere, batzuetan hori egiteak birtraumatizazioa ekar dezake. Alde horretatik, beharrezkoa iruditzen zait lekukotza eman duten pertsona horiek egiten duten ahalegina azpimarratzea, askotan inolako laguntza profesionalik edo bestelako zainketarik gabe egin izan dutena, gainera. Uste dut gorputza hainbat zentzutan jartzen ari direla: alde batetik, ez dugula ahaztu behar torturatzailleen interferentzia eta bitartekaritza egungo zigorgabetasun-egoeran; bestetik, lekukotasunak berarekin dakarren biluzte eta azalpenagatik, *oroimenaren betebeharrak* edo lekukoa zarela jakiteak sozializatzerara bultzatzen zaitu, aitortzaren-egun desiratura arte; azkenik, nahiz eta kasu askotan pertsonari esperientzia partekatzea bizipena lantzeko eta politizatzekeo lagungarri<sup>207</sup> izan dakioken (gero ikusiko dugun bezala), beste askotan, muga-egoerara itzularaziko du lekukotza emateak, baina ez handik itzultzeko, Celibertik eta Garridok (1990) diotenez, han geratzeko baizik. Adibide gisa, ohikoa izaten da aurreko edo ondorengo egunetan buruko mina edo loezina izatea, urduritasun berezia sentitzea, amets gaiztoetan korapilatzea.

Horrek zerikusia du erakundeen aitorten-ekak berarekin dakarrela narratzeko modua oso markatuta egotea, ahozko lekukotzak «krimenaren aztarna materialak» ordezkatzan dituelako (Jelin, 2017). Horregatik birsortzen da aplikatutako tekniken eta zortasunen kontakizuna, eta subjektibotasun oro kentzen zaio, zeina beste testuinguru politiko edo adierazpen-testuinguru batzuetan ager baitaiteke, hala nola literaturan edo artean. Bat nator iraganeko gertaeren literaltasunetik urrunago dauden kontakizun mota horien behararekin (Taylor, 1997; Pollak eta Heinch, 2006), non emakume\* horien subjektibotasuna eta gogoeta azalera baitaitezke.

## **b) Isiluneak**

Iruñean, isiltasuna agerian geratu zen errebelazio anonimo haren bidez. Torturaren lehen

---

207 Ez dut berariaz *terapeutiko* hitza erabili, torturaren esperientziako esparru guztiak psikologizatzekeo joera dugula uste baitut. Nahiago dut esatea kontaketa *sentipentsatzeko* modu aberatsa izan daitekeela.

ahotsetako bat da isiltasuna. Esaten ez dena asko da, eta zergati asko ditu: ezin delako, ez delako egin behar, nola esan ez dakigulako, sinesten ez delako... Isiltasuna minaren garrasia da; esaten ez dena, baina egin egiten duena. Isilune ugari izaten dira, eta behin eta berriz izututa geratzeko arriskua errepikatzen da. Errepikapen horretan, gainera, indartsu bihurtzen da, zeren astinalditik haratago irauten duten menderatze-mekanismo bikainak baitira lotsaren eta erruaren labirintoaren bidez elikatutako eta koipeztatutako isiltzeak.

Baina badira bestelako isiluneak ere: autobaieztapeneko, biziraupen eta erresistentziako, norberaren eta pertsona maiteenganako ekintza gisa agertzen direnak; isilunea, leherrarazitako eta lapurtutako intimitatea berregiteko ezinbesteko baldintza; hau da, hautu kontziente edo ez-kontzienteak diren isiluneak, baina hainbat esparru berreraikitze bideak direnak. Isiluneak testigantzen zati dira, eta, kapitulu honetan euskal emakumeak\* hitza hartzen ari direla azpimarratzen den arren, proposatzen dut isilune askorekin batera entzun dadila ahots zalantzati hori, aurreko isiltasunak egiten duelako boteretsu oraingo ahots hori. Isilune horien artean nirea, identifikatutakoa eta identifikatu gabea ere badaude. Alde horretatik, irakurlea gonbidatzen dut isiltasunari leku bat egitera eta isiltzea eskubide bat ere badela ez ahaztera (Jelin, 2017).

Eva Forestek (2007) testigantzak kontatu eta entzuteko beharra defendatzen zuen, tortura basatasun hutsa ez dela ulertzeko modu bakar gisa. Ulertzeko, orobat, tortura ez dela ausaz hautatu eta aplikatutako tekniken multzo hutsa ere. Teknika horiek guztiak eta askoz gehiago direla, esaten zuen Forestek. Tortura erabateko zigorgabetasuneko giroa da, non torturatutako pertsonari edozer gauza gerta dakioke, dena posible den egoera da; irudimenean ere ez dagoena gerta dakioke. Batzuetan ez da jakiten egoera delirioa den edo benetakoa den, tortura ere erotasunetik gertu dagoen esperientzia baita. Forestek aipatzen zuen «gainerako guztia» eta «askoz gehiago» hori kontatzea zaila dela, kontalaria ia ziur baitago ez dela sinesgarria gertatuko. Tortura bere baitan biltzen zaituen gauza hori da, zure gorputza berarentzat daramana, nahi duenerako erabilgarri. Zernahi hori ez da batere xaloa, baizik eta krudela, maltzurra eta mingarria. Norberaren aurka, pertsona maiteen aurka, ideien eta norberaren identitatearen kontra erabiliko duten *zernahi* latza.

### **c) Lotsa eta errua: zure gorputza etsai**

Ikasitako jakintza baten ondorioa da tortura. Jakintza horren bidez, pertsonaren loturak eta sinesmenak hautsi nahi dira, pertsona erabat hustu, gero haren jabe egiteko; eta norbere buruaren eta besteen oinazearen parte dela sentiaraztearekin du zerikusia. Dozenaka xehetasun dira, nahiz eta inozoak iruditu, norbera min horren guztiaren partaide sentitzera daramatenak; norbera bere gorputzaren eta buruaren etsai sentitzera bideratuta daudenak. Sarritan, torturatzailak babes moduko bat eskainiko dio tortura pairatzen ari denari, eta horrek, uko egitean, sentituko du ordutik aurrera gertatuko zaion guztia norberaren ardura dela, erruduntasuna eragingo dio. Natalia Rodríguezek (2015) gezurrezko hautuen objektu izatea deritzo horri, norbera bere osotasun fisikoaren edo proiektu politikoaren eta komunitatearen leialtasunaren artean aukeratzera behartzen

baitute. Torturak isilarazten duen moduan hitz eragiten du; kantatu ala ez kantatu logika bitarra inposatzen du torturaren logikak. Aldiz, Primo Levik (1986) adierazi moduan, bizipen horiek, preseski, ez dira zuri ala beltz, zonalde gris asko baitaude. Logika bitarrak dio: edo zuk egiten diozu uko zure taldeari ala taldeak zuri egingo dizu uko. Torturapean dagoen pertsonari bidegurutze horretan dagoela sinetsarazten diote: a) bere egitasmo politikoari eta identitateari uko egin, ala torturazaileen uneko jazarpenari ihes egin. b) bere gorputzari uko egin bere ideal politikoen mesedetan. Horregatik, askok diote torturan beti dagoela heriotza bat, dela gorputzarena, dela egitasmo politikoena, zeren, modu batera edo bestera, identitate kolektiboarekiko desatxikimendua edo gizakien munduarekiko desatxikimendua ekarri baitezake. Azken finean, min fisiko eta psikikoak norbanakoa nor egiten duen eremutik ateratzea bilatzen du, ni-gu horrekiko disoziazioa; euskalduna, emakumea\*, militantea, gizakia.

Hala, bada, norbera errudun eta lotsatuta senti daiteke behin inkomunikazio-egunak gainditu osteko bizitzan. Hain zuzen ere, Marilo Gorostiagak aipatu bezala, ondoko kalabozaoren atek irekitzen direnean (ez norberarenak) sentitzen den lasaitasun horrek luzera norberaren buruarekiko etsipena dakar. Atxilotuak ahalegin handia egiten du pentsatuz torturazailearengandik nola askatu, hura nola engainatu, nola konbentzitu edo harengan gizatasuna nola aurkitu, torturan «gizateria bera baita eteten dena» (Calveiro, 1998:62). Nola eutsi kontrolari, nola mantendu bat norbera den horretan nola egin egoera horretatik askatzeko, barrutik datorren «bizi nahi dut!» horri segitzeko, Gloria del Bosquek Nafarroako Parlamentuan esan bezala. Torturatua/atxilotua hori oihukatzen ari den bitartean, borrokatzen ari da, nahiz eta norbera borroka horretako borroka-eremu bihurtu. Bizitzaren aldeko borroka da, baina tortura, hain zuzen ere, bizitzaren eta heriotzaren arteko geografia da, non ez baita bizitza onartzen, baina ezta heriotza ere (Mendiola, 2014), atxilotuak nahi duen arren, hiltzea eskatu arren, dozenaka testigantzek erakusten dutenez.

#### **d) Torturaren tekniken, aktoreen, objektuen eta jakintzen mapa**

Pedro Gómez Nieto Guardia Zibileko kapitainak torturak duen jakintza eta ezagutza ia zientifikoaren berri ematen du, Juan Alberto Perote CESIDeko (Centro Nacional de Inteligencia) zuzendari zenarekin izandako telefono-komunikazio batean. 2021eko otsailaren 22an argitaratutako ahots-mezu baten bidez ezagutu dugu hori, eta, bertan azaltzen duenez, poltsaren tekniken gakoa (asfixia lehorra) poltsa gardena izatean dago, «atxiloak bizitza badoakiola eta heriok nola harrapatzen duen ikus dezan». Alde horretatik, garrantzitsutzat jotzen ditut tekniken azterketak, torturari buruz eraikitako ezagutza; izan ere, torturaren eragin pertsonal, sozial eta kulturalak desegiten lagundu dezake (baita generoari dagokionez ere). Bestela, tekniken kontakizunean soilik tematzen bagara, salaketa eta izuaren ugalketa eta torturaren adierazpen-funtzioa biderkatzea bereizten dituen ildo fina gurutza dezakegu (Aranguren, 2016). Marilo Gorostiagak esan du Gurutze Iantzi aipatu ziotela (1993an komisarian bizitza galdu zuen Urnietako emakumea\*) eta horrek garbi erakusten digu torturak euskal kasuan duen komunikazio-funtzioa, adierazpen-indarkeria (Segato, 2016).

Testigantzek erakusten dutenez, poliziek bazekiten lege antiterroristaren inkomunikaziopean polizia-etxeetara iristen ziren pertsonak heriotza edo bortxaketa horien berri izaten zutela. Atxilotuak badaki poliziak arrazoi politikoengatik torturatzen duen zigorgabetasunaz, testigantzetan astakeriak entzun eta irakurri dituelako, bertsio ofizial sinesgarrikerik ere aditu duelako edo torturaz akusatutako guardia zibilei dominak jartzen ikusi duelako. Krudeltasunaren pedagogia horren ondorioz (Segato, 2018), torturaren eraginkortasuna areagotu egiten da; izan ere, aurrea hartzen duen beldurrak ekintzak berak baino eragin beldurgarriagoa izan dezake, Izaskun Juárezen testigantzak erakusten duenez, eta ikerketa honetako beste protagonista bat, poliziaren jarraipen- eta jazarpen-urteak igaro ondoren atxilotuta eta tortura hurbildu ahala, gaixotu egin zen nerbio-sistema desegonkortu eta zapuzteraino. Mende Erdiko tortura sistematikoak indarkeriaren kapital sinboliko garrantzitsua metatzea ekarri du, batez ere Guardia Zibilaren kasuan. Eta gauza bera da Izaskun Juárez pibilegiatua sentiarazten duena elektrodoen mende ez jarri izanagatik, edo Marilo Gorostiagak bere burua gutxiago torturatutzat jotzen duena bortxatu ez dutelako. Indarkeria normalizatzeko prozesuen berri ematen digu horrek, eta agerian uzten du inplikazio politikoa torturarekin ordaintzen dela barneratzen dela, demokraziarik gabeko herrialdeetan jazo ohi den bezala.

Zigorgabetasun horretarako, poliziak mehatxu-, umiliazio- eta xantaia-teknikak erabili behar ditu; hau da, mina sortzeko batera guztia. Testigantza horiek eta beste batzuek adierazten dute zigorgabetasun horretarako beharrezkoa dela Ordena Publikoko Auzitegi Frankista egun batetik bestera ordezkatu zuen Auzitegi Nazionalaren instrukzioko epaileen lana, edo ez ikusiarenak egiten duten auzitegiko medikuena, edo Marilo Gorostiagaren edo Ainara Gorostiagaren kasuan bezalako mehatxuen aurrean amore ematen duten espetxe-medikuena (orobat, Mertxe Gonzálezek kontatu bezala, difamatzen duten komunikabideak eta tortura legitimatzen duten herritarrek), edo tortura-salaketak izapidetzen dituzten probintziako epaileak (Marilo Gorostiagaren kasuan bezala, tortura materialki eta espazialki ezinezkoa zela esaten dutenak, aitzakia gisa). Lekukotasunei erreparatuta, aipatzen dituzten tortura-objektuek ez dute lekurik betetzen, eta ia edozein lekutan erabil daitezke: mantak, alfonbrak, antifazak, poltsak, telefono-aurkibideak, prezintoak, aulkiak, mahaiak, entxufeak, komunak eta abar. Gainera, praktika judizialaren genero-marka azpimarratu behar da, eta, beraz, genero-joera ez da inkomunikazio-egunetara mugatzen, geroago, hurrengo kapituluan sakonduko dugun moduan.

#### ***e) Kiebre edo haustura: apurtu egin naiz***

Aktore-, teknika- eta objektu-mapa horren bidez, torturak era guztietako autoinkulpazioak lortzen ditu. Prozesu judizialei eusten zaie, eta kartzelak betetzen dira, hori baita torturaren helburuetako bat. Baina ez da helburu bakarra; izan ere, *kiebre* edo haustura deitzen den hori ez da baliabide bat soilik, helburu bat ere bada. Albak, ikerketako protagonistetako batek, apurketa nola deskribatuko lukeen galdetuta, hauxe dio:

Honela deskribatuko nuke: pertsona izateari uzten diozu, zure buruari jada ez diozu axola, jada ez duzu ezer kontrolatzen, ezer ez, ezer ez, ezer ez... ezta zure pentsamendua, ezta zure gorputza, ezta ezer. Nik badakit hausteko unea ondo kokatzen (...). Haiek oso ondo dakite noiz iristen den une hori. Galdeketa egiten duten exekuzio-simulazioaren antzekoa da. Edo, gero, bada beste gauza bat, nik haiekin hitz egiten dut, ederki gogoratzen naiz hitz egiten dugunaz, esan zutenaz. Eta han ni, lankideekin egongo banintz bezala hitz egiten, eta pikoletoak ziren. (...) Ni hautsi egin nintzen, eta lekukotasunak irakurrita, jendeak porrot egiten duela ikusten duzu, *kiebrea* ikusten duzu, nahiz eta gero ikusi nahi ez izan; izan ere, zaila da zu hautsi zaituztela onartzea.

*Kiebrea*, heriotza txiki hori, kasu askotan iristen da. Batzuetan, nahi gabe deskribatzen da, baina, beste testigantza askotan, honelako esaldiak aurki daitezke: *Une horretan ikusi nuen ezin nuela gehiago, dena berdin zitzaidan*, Ainarak deskribatzen duen anestesia-egoera edo Enkarni Blancok<sup>208</sup> dioen bezala: «Nik *krak* bat sentitu nuen, nire barruan zerbait apurtu balitz bezala. Eta, gainera, kalean zoazenean eta labezomorro bat zapaltzean egiten duen zarata horrekin lotu dut beti: *krak*. Nik hori sentitu nuen nire barruan».

*Kiebre* edo hausturak niaren ezabaketarekin du zerikusia, bizirik irauteko borroka horren amaierarekin, etsitzearekin, borondatea deuseztatzen delako. Haustura horrek segundo batzuk edo askoz gehiago iraun dezake, baina eragina izango du Ainarak aipatzen duen konfiantza-galeran, torturatuak izango diren beste pertsona batzuen izenak ematera behartuta egoteak sortzen duen oinazean. Ainarak polizia berarengan ereiten saiatu zen hainbat mesfidantza-, erru- eta lotsagabekeria-hazi deskribatu ditu. Izan ere, poliziak, hirugarren pertsonak salatzeo, informazioa lortzeko eta pertsona gehiago atxilotzeko ez ezik, leialtasunak eta solidaritateak hausteko ere darabil. Horregatik, Rodríguezen aburuz (2014:88), «torturaren helburua ez da biktima hiltzea, baizik eta subjektua, haren gorputza eta munduarekin duen harremana erabat deuseztatzea, muturreko sufrimenduaren eta oinarrizko sinesteak haustearen bidez», hala nola, norberarengan, bere jendearengan eta, kasu honetan, bere herriarengan dauzkan loturak. Horregatik, porrot egin duen pertsona batek uste du jendearen eta herriaren konfiantza hautsi duela, une garrantzitsuena iritsi denean erori egin dela. Sentitzen du hori dela bere egia, nahiz eta bere burua ezkutatzen saiatu, edo bere buruarengandik ihes egiten saiatu. Izaskunek ondo deskribatzen du zer den «ez eusteko beldurra», «lehen izandako guztiarekin haustea» edo autogorrito handi hori, «norbere buruarekin ere ezin egotea». José Manuel Paredesen arabera (2012:66), «tortura baliabide egokia da botere-helburu jakin batzuk lortzeko, eta herritarren jokabidea aldatuz baino ezin dira lortu helburu horiek; horretarako, tortura baliabide egokia izan daiteke batzuetan, baita bakarra ere».

#### **f) Subjektibotasun militanteak torturan**

Françoise Sironi-ren arabera (1999), torturak gizarte bateko tabuak gainditzea bilatzen du, deskulturizazioa deitzen duena. Gizakia bere gizarte-loturetan egituratua dagoen heinean,

---

208 1992an atxilotua, ETArekin lankidetzan aritua eta bere lekukotasuna Euskal Telebistako programa batean eman zuena.



lotura horiexen aurka eta horiexetan eragin nahiko du torturak; pertsona horren balioetan, arauetan, obligazioetan, debekutzat jotzen duen horretan; kulturaren, finean. Euskal Herriko kasuan, emetasunean eta militantearen kulturaren (gehienetan, euskal kulturaren); emakume\* eraikitzeke ezaugarrietan (amatasuna eta besteekiko zaintza, esate baterako) eta herri-nortasunari lotutako ezaugarrietan: hizkuntza, arbasoak, ikurrina, elkartasuna, eskuzabaltasuna, fidelitasuna, ausardia, indarra. Odolez betetako konpresa bat bekokian itsatsita, biluzik eta Espainiako himnoa abestuz, deklarazio poliziala sinatuko duzula eta deklarazioa buruz ikasiko duzula oihukatzeke ekintzak agerian uzten du hori.

Zauri emozionalaren gogortasuna erakusten duen isiluneetako bat da hausturaren min hori, oso gutxitan sakontzen dena testigantzetan. Antzeko zerbait gertatzen da delazioarekin. Isilune horiek pertsona horien subjektibotasunez hitz egiten dute, subjektibotasun militanteez, zehazki. Calveirok dioenez (2008), torturaren esperientzia pertsona eta militantea bere egiarekin elkartze gisa senti daiteke; batez ere, epika heroikoetako subjektibotasun militanteen kasuan, non, nahi gabe bada ere, XX. mendeko ezkertiarrek bere egin zituzten logika militarrek erreproduzitzen baitira eta torturaren ondorioak areagotzen baitituzte. Luis Mattini ERPko (70eko hamarkadako Argentinako erakunde armatuko) militante ohiak horri buruzko hausnarketa kritikoa egiten du Ana Longonik idatzitako (2017) «traizioei» buruzko liburuan. Prisma horren azpian, tortura irabaz edo gal daitekeen zerbait bezala kokatzen da; horregatik indartu ohi da epika heroikoa, horri aurre egiteko. Euskal Herriko kasuan, Itziarren Semearen kanta<sup>209</sup> ezaguna da, eta komisaldegian «ez kantatzeko» (hitz egiteko) militante baten garaipena kontatzen du. Iruditegi heroiko horrek eragin handia izan du euskal lurraldeetan, eta, gaur egun, errepresaliatutako emakumeak\* ari dira hura zalantzan jartzen. Ixone Fernándezek horri buruz hitz egin zuen Bilbon egindako hitzaldi batean (2019/06/20), tortura osteko berreraikitze-prozesua ikuspegi feminista batetik aztertzea helburu zuen ekimenean:

Hitz egiten dugu «egin zidaten», «egin zidaten», «egin zidaten», nola sentitzen garen ez hitz egiteko, gure emozioetatik ihes egiteko... gauza batzuk onartzea zaila delako, benetan zauritu zaituela begiratzea (...) Askok zigortu dugu geure burua. Uste dugu militante gisa ez dugula eman eman behar genuena. (...) Gure lema beti izan da «aurrera! gogorrek gara, etsaiari hortzak erakusten dizkiogu guk, ezin da ahuleziarik erakutsi!». **Ixone Fernandez (2020)**

209 Itziarren semea abestia Euskal Gatazkan indarra izan duen —eta indartu den— iruditegi baten ikurtzat hartu da, eta justuki ezbaian jarri da hamaika espazio feministatan, besteak beste: UEUko 2016, 2017 eta 2021ko saioetan, 2016ko abenduko *Hemen Gaude* Usurbilgo emakume\* errepresaliatuen manifestu eta ekimenean (ikus gehiago: <https://www.youtube.com/watch?v=Ch2-rE1tGCE>), Ernai, Bilgune Feminista eta Ipar Hegoa Fundazioaren artean *Irla bat izan ez dadin* lanean (2016an Angela Davisekin egindako topaketak jaso zituen liburuak eta autore feminista askok idazten dute bertan: Irati Siena Zengotitabengoa, Saioa Iraola Urkiola, Laura Mintegi Lakarra, Ainhoa Etxaide Amorrortu, Itziar Gandarias Goikoetxea, Cony Carranza Castro, Amaia Andrieu Sanz, Lur Etxeberria Iradi, Arantza Santesteban Perez, Izaskun Garcia Bordagarai, Edurne Larrañaga Celada, Olatz Dañobeitia Ceballos, Kizkitza Gil de San Vicente Gurrutxaga, Larraitx Ugarte Zubizarreta, Itsaso Zubiria Etxeberria, Irati Tobar Eguzkitza, Oihana Etxebarrieta Legrand, Marina Sagastizabal Emilio-Yus, Oiakue Azpiri Robles, Lorea Agirre Dorronsoro, Idurre Eskisabel Larrañaga, Jone Etxeberria Agirre, Ainara Santamaria Barinagarrementeria, Jule Goikoetxea Mentxaka, Amaia Zufia Erdozain eta Sandra Barrenetxea Diez. Gehiago jakiteko: <https://www.iparhegoa.eus/materialak/argitalpenak/irla-bat-izan-ez-dadin-angela-davisekin-gogoeta-egiten/>).

Subjektibotasun militantearen beste muturretako bat biktimarena da. Giza eskubideen diskurtsoak eskubide horien urraketan jartzen du arreta, eta bortxatuak izan diren pertsonak indarkeria eta bortxakeria horren biktima bihurtzen ditu. Diskurtso horrek leku horretatik egin du borroka tortura bistararazteko; gaur egun, horixe da horretarako onartutako enuntziazio-leku bakarra. Hala ere, emakumeen\* (eta gizonen) komunitate hori ez da oso eroso sentitzen jarrera horretan, Marilo Gorostiagaren haserreak edo Susana Atxaerandioren hitzaldiak erakusten zuen moduan:

Gauza bat gertatzen da, gu, torturatik igaro garen pertsonak, torturaren biktimak gara, hori ezin du inork ukatu, baina egia da nik ezin dudala kolektibo baten izenean hitz egin, nik Susanaren izenean hitz egin dezaket. Egia da pertsona asko daudela, eta ni batzar batean egon naiz, kristona sortu zena biktima hitza aipatze hutsagatik. Zergatik? Euskal Herrian egia da biktimen iruditeri guztia biktima zehatz batengana doa, hemen eta testuinguru askotan biktimak aipatzen direnean gure irudia ETA erakunde armatuaren biktimarengana doa. Orduan, jakina, hori gertatzen denean, militantea izan den edo ez, baina torturatu egin den pertsona bat, giza eskubideen urraketa larria jasan duena, eta nik hori planteatzen nuena, biktima esatean kolektibo horretan sartu ezin izango ginela dirudi. (...) nik beste garai batzuk erabiltzen ditut, hitz egiten ari zaretelako, «biktimak zaretelako»... Ez, ez, barkatu, ni torturaren biktima izan nintzen, urtarilaren 17tik 21era, tortura orduan gertatu zen. Horixe zioen Marcela Lagardek dokumentalean<sup>210</sup> ere, ezin da bizitza osoaren biktima izan, ezin da beti joan mina gertatu zen une horretara. **Susana Atxaerandio (2013)**

Tortura sufritu duten pertsonak jabetzen dira beren eskubideak urratu direla eta horrek giza eskubideen urraketa baten biktima bihurtzen dituela. Baina, aldi berean, uste dute kategoria horrek despolitizatu egiten dituela, agentzia lapurtzen diela eta ez dituela erretratzen. Izan ere, beren mina erakutsi behar duten arren, batez ere beren zapalkuntza eta aukera politikoa erakutsi nahi dute. Didier Fassin-ek (2010) erakusten duenez, bizitzarako eskubidearen eta gizarte-justiziaren arteko tentsioari buruz hitz egitean, emakume\*-komunitate hori gehiago da iraultza eta populazio zapalduerari buruz hitz egiten zuen antzinako paradigmatikoa, eta ez hainbeste trauma, biktima eta erresilientziaren paradigmatikoa. Hau da, helburua da estatuko indarkerian arreta jartzeak ez diola agentziari itzalik egin behar, batez ere emakumeek\* beren parte-hartze politikorako aukera eta ekarpena asko borrokatu dutelako, eta horixe da, hain justu, errepresioak auzitan jarri dutena. Agentzia horren arabera, mende erdi baino gehiagoan dozenaka emakumeek\* hartu zuten parte politikan eta/edo modu armatuan, lehen eta bigarren lerroan, eta oso modu desberdinetan. Landa-lanean izugarri nabaritzen den gauzetako bat da isiltasuna derrigor gorde beharreko lurralde oso bat dagoela, ezin dela hitz egin, eta hori da horietako bat. Proiektu politikoan, ametsen eta emantzipatzeko grinaren lurraldeaz ezin da hitz egin, aukera armatua lurralde horretan kokatzen baita. Zentsura bat sentitzen da, etsipenez onartzen dena, eta ez duena uzten batek bere burua subjektu eta militante politiko gisa aurkezten. Paradigma berri bat (funtsean, baketzearen paradigma) Andrea García Gonzalezek (2019, 2022) ondo aztertu duena, diskurtso eta enuntziazio-leku batzuk

---

210 Berta Gaztelumendik zuzendutako *Mariposas en el Hierro* dokumentalaz ari da. Atxaerandioren hitzartzea dokumentalaren emanaldi ostan izan baitzen.

zentsuratzen dituela sentitzen duena eta motibazio, kezka eta proiektu politiko alternatibo batzuk ikusezin bihurtzen dituen.

Laburbilduz, hitza hartzeko ekintza horretan, ikusi dugu emakume\* talde hori indarkeria politiko sexuala —modu esplizituagoan ala ez— torturaren agendan kokatzen ari dela. Eta, horrekin batera, kontakizunetan subjektibotasun handiagoa sartzen hasi direla, zer kontaktzen den eta zer ez hausnartuz, beren mugimendu politikoaren kultura politikoa auzitan jarritz, torturari aurre egiten dion militante horren existentzia gezurtatuz, zaurgarritasuna, lotsa eta erruak jendaurrean erakutsiz. Prozesu hori ez da bateraezina isiluneak egotearekin, beti ez baitira aukeratzen, baina batzuetan bai. Eta horretan interesgarriztat jotzen dut irakurketa linealik edo dikotomikorik ez egitea, non uste baitugu narratzea dela egokiena eta aproposena, eta ez egitea aurrera ez egitea dela. Kontua askoz konplexuagoa da, eta anbivalentzia eta kontraesan hori ere sortzen ari da, torturaren teknika ulertzearekin zerikusia duena, funtsean. Horregatik uste dut testigantza bakoitza torturari buruzko eskola magistrala dela, gertaeren literaltasunetik haratago entzuteko gai bagara, bederen. Entzuteko markoak irekitzeak lekukotasuna beste eduki, modu eta pertsoneri zabaltzen laguntzen du beti. Alde horretatik, emakume\* horien memoria aztertzeak kontakizun ofizialenetan beti jasotzen ez den gai hori zabaltzen lagunduko digu, eta botere-harremanetan fokua jartzeak, berriz, bidegabekeria-aukeren baldintzak ezagutzea (Llona, 2020); eta isiluneak aldatzen lagunduko digu, hala nola Korean bezala (Jelin, 2002). Horiek guztiak bide bat egiteko tresnak dira: oinazeak eraldatzeko, baina baita —eta batez ere— tortura sistematiko eta sexistari bide eman dion egiturazko zutabe sinboliko, historiko eta testuingurukoak eraldatzeko. Alde horretatik, testigantza-ekitaldi desberdinetan parte hartzen ari diren emakumeek\*, bai eta nire ikerketan parte hartzen dutenek ere, feminismoa beren tortura-esperientzia aztertzeko edo hobeki ulertzeko tresnatzat hartzen dute.

## 6.9 Azken ideiak

Torturaren ukazio instituzionalak eta ikuspegi androzentrikoen ondoriozko ikusezintasunak isilune bikoitza eragiten duten arren, arrazoi politikoengatik beren bizitzako unerren batean tortura bizi izan duten emakumeak\* hitza hartzen eta ikusgaitasuna lortzen ari dira. Orain arte narrazio-prozesu horiek ez zuten oihartzun handirik edo ez zuten lortzen zenbait gai agenda politiko eta sozialean kokatzea; horietako bat tortura da, indarkeria politiko sexuala. Horrek berebiziko garrantzia du, kasu honetan, Estatu Espainolak erabiltzen dituen indarkeriak salatzeke eta hobeto ezagutzeko, emakumeen\* egiara gehiago hurbiltzen gaituelako. Hala ere, ikusteke dago testigantza horiek euskal gizarte gisa ondoko galderak egitera bultzatuko gaituzten ala ez: Zer ondorio izan ditu edo izan ditzake emakume\*-populazioaren zati handi batengan (kuantitatiboki eta kualitatiboki) aplikatutako biolentzia politiko horrek? Nola eragiten die emakumeen\* parte-hartze politikoari eta etorkizuneko belaunaldien partaidetza-baldintzei? Zer estrategiaz hornitu da emakume\*-komunitate hori, eta zer ikas dezake feminismoak? Horri buruz galdegitea aukera bat

da memoria horiek genero-harremanak eraldatzen laguntzeko (besteak beste, botere-harremanak). Gerta daiteke, halaber, bizipen eta kontakizun horiek ez iristea eremu kolektibora, eta, beraz, oroimen pertsonalaren eremuan geratzea. Izan ere, aukerekin batera, lerrotara arriskuak ere ekarri nahi ditut; esate baterako, Kimberly Theidonek (2006) Peruko kasurako aipatzen zuena bezalako, narratiba horiek genero-estereotipoak betikitzen jarraitzea, alegia; edo Mariana Rissok (2012) azpimarratzen duen hau: hainbesterainoko gordinkeriak itsutzea. Bi adibide horiek entzunaldia ez-erakitzailea eta ez-askatzailea izatea ekarriko lukete. Beraz, arrisku horiekiko erne egoteak dakar interpretazio-marko eta kontzeptu feministen premia azpimarratzea; zertarako eta tortura-eran gauzatu den biolentzia politiko sexualaren azterketan sakontzeko eta beharrezkoa diren ñabardura guztiak egiteko.

Beste latitude batzuetan bezala, euskal gizartean ere kosta egiten da indarkeria mota hori praktika politiko gisa kokatzea eta, beraz, indarkeria politiko sexualtzat hartzea. Nire ustez, generoa, etnia eta ideologiaren arteko bidegurutzean sakontzen ez duten bi ikuspegi batera bizi dira oraindik gurean, eta, horregatik, gerta liteke indarkeria mota horren adierazpen moduak eta ondorioak bere osotasunean ezagutzera ez iristea Euskal Herriko testuinguru zehatzean. Lehen begiradak kutsu androzentrikoa du (euskal gizarteak propio duena baina baita emakume\* errepresaliatu horien komunitate sozio-politikoak ere), eta sexu-bortxaketak eta -irainak *torturaren sortaren*<sup>211</sup> barruan ulertzen ditu; hau da, *etsaiak* suntsitzeko beste tresna bat da, eta, beraz, ez dira erabiltzen irakurketa zehatzagoak sor ditzaketen bideak, sexu-indarkeria eraso propio bezala ulertzea, besteak beste, zeren torturako sexu-indarkeriak, emakume\* ala gizon eraikia izan, atze eta sustrai ezberdinak baititu. Beste ikuspegiak, feminismoak beretzat duenak, emakumeek\* bizi ditugun indarkerien continuuma azpimarratzen du, dela gatazka-egoeretan, dela bake-egoeretan, emakumeen\* aurkako indarkeria egiturazkoa baita. Irakurketa horrek, nahiz eta bete-betean asmatu, ez die erreparatzen emakumeen\* aniztasunari eta indarkeriaren banaketa desorekatuari. Esplizituago izateko, euskal emakume\* guztiek ez dute izan tortura jasateko aukera bera. Eta feminismo beltzak eta dekolonialak etengabe azpimarratu ohi bezala, emakumezko\* guztiak homogeneizatzea emakume\* batzuen pribilegiotik aritzea da.

Laburtuz, tortura gatazka armatuaren indarkeria politikoari lotuta interpretatu da, eta irakurketa horretan genero-ezaugarri eta arrakalak ez dira oso ageriko egin, eta, horren ondorioz, ez dago oso ondo kokatuta. Beraz, hitza hartzen duten emakume\* horien testigantzek, testigantza ematean gorputza jartzeko egiten duten ahaleginari erantzunez, gure entzutea eta ulermena sakontzera bultzatzen gaitzakete. Nire ustez, aldatu egin daitezke torturaren ondorio pertsonalak, sozialak, kulturalak eta politikoak, zein horiek denboran zehar hartzen duten forma. Prozesu hori aldakorra eta dinamikoa da; beraz, kontingentea da, eta aldatu dezakegu. Kasu zehatz honetan, azpimarratu nahi dut beharrezkoa dela jakitea eta ulertzea zer bizi izan duten emakumeek\*

---

211 Landa-lanean oso entzundako esamoldea da hori.

indarkeria ezberdinen arteko intersekzio horretan. Biolentzia horiek bat egin duten tokian garatutako indarkeria motak ahalbidetu dituzten gizarte-baldintza, -testuinguru eta -prozesu kulturei buruz hausnartzea lagungarria izan daiteke baldintza horiek aldatzeko eta desegiteko; edo, bederen, bide horretan urrats esanguratsuak eta eraginkorrak egiteko, bai eta beste intersekzio batzuei arreta jartzeko ere (heteronormarekin gurutzatzen dena, esaterako). Horrek guztiak indarkeriaren kontzeptua zabaltzen lagunduko digu.

Ikusi dugu testigantza ematea garrantzitsua dela, eta ikusi dugu isiltasuna ere lekukotzaren parte badela. Agerian geratu da garrantzi handiko auziak direla nola kontatzen den, norentzat eta zein helbururekin (baita galdera horien arteko erlazioari ere). Hori dela-eta, hainbat lekukotasun, antolatze modu eta eduki pentsatu behar ditugu. Dirudenez, emakume\* horietako batzuk hainbat bide aztertzen hasi dira; besteak beste, subjektibotasuna eta hausnarketa gehiago sartzen dira kontakizunetan. Torturaren fenomenoaz ezagutzeko ikuspegi kolektibo, politiko eta feministik bide berriak irekitzen ditu horrek, haien agentzian eta berreraikuntzan azentua jarriko dutenak, eta ez bakarrik pertsona horienan, baita gizarte osoarenean ere. Emakume\* errepresaliatuen kasuan, prozesu horrek berak ekar dezake tortura-esperientzia landu ahal izatea, aitortuago eta lagunduago sentituko diren marko eta erreferentzietatik.

Zentzu horretan, interesgarria da ikustea nola giza eskubideen diskurtsoak hauspotu egiten dituen, baina baita lotu ere. Alde batetik, bulkadak nazioarteko zilegitasun osoarekin du zerikusia, eta, beraz, jende desberdin asko bil dezakeen lurzoru komuna izatearekin. Aldiz, emakumeek\* giza eskubide gisa dituzten eskubideen diskurtsoa ez dago oso presente, eta, hortaz, nazioarteko garapen kontzeptual eta juridiko guztia ez da bereziki laguntzen ari emakume\*-komunitate horri. Aldi berean, gainera, diskurtso horrek mugatu ere egiten ditu; izan ere, genero-baldintzetatik aldentzen bagara (besteak beste), ez dago argi zein den subjektua. Ildo horretatik, Baccirekin (2019:3) bat nator salaketa hau egiten duenean: «Giza eskubideak gizabanako abstraktu eta unibertsalaren paradigma juridikoan kokatu dira, modernitatearen pentsamendu filosofiko eta politikoaren ezaugarri den arau-ideal batean». Are gehiago, ez dira aztertzen ondorio kolektiboak, hurbileko pertsonen inguruneetan, politikan eta komunitatean uzten dituen aztarna eta markak. Gainera, zoritxarrez, giro horretan, badirudi emakume\*-komunitate horrek uste sendo bat duela barneratuta (herentzian jaso, alegia): sentitzen dute ez direla eskubide eraginkorren jabe, eta ezereza balira bezala hartzen eta tratatzen dituztela, ez hainbeste egin dutenagatik, baizik eta direnagatik eta ordezkatzeko duten horregatik: euskaldunak, emakumeak\* eta ezkerreko militanteak. Giza-eskubideen urraketan soilik arreta jartzeak ez dio leku egiten torturaz politikoki kaltebera izan den komunitatearen aipamenari (Feito, 2007) eta, beraz, despolitizatu egiten da. Alde horretatik, giza eskubideen diskurtsoa ez da ikuspen eta trakzio handiagoa izaten ari emakume\* horientzat, besteak beste Latinoamerikan izan zen bezala.

Hala eta guztiz ere, hitz egitean, agian erantzuten ez diren gauza asko kontatzen ari dira. Horietako batzuk erakutsi ditut, besteak beste: a) *kiebre* edo haustura, gizabanako eta militante politiko gisa ezabatu eta berridazteko (baita genero-parametroetan ere) une garrantzitsu gisa; b) isiluneen esanahiak eta funtzioak; c) isilarazteko prozesuak; d) indarkeria politiko sexualaren aukera-baldintzak polizia-etxeetatik kanpo daudela; e) *Itziarren Semearen* irudia zalantzan jarriz kultura militanteari egindako interpelazioa.

Egoera horiek guztiak konplexuak dira, bizitzeko eta tortura definitzeko moduarekin ere zerikusia dutenak, eta ez dira nahitaez sartzen edo ez datoz bat beti giza eskubideen hizkuntzarekin. Alde horretatik, esango nuke emakume\* horiek torturaz dituzten definizioak NBERen gisako estamentuek dituztenak baino askoz gehiago direla. Torturaren geografia horretan, identifikatu ditut oraindik ere nolabaiteko gizarte-gorrieria duten lurralde emankor batzuk. Esate baterako, torturaren ondorengo prozesuaz ari naiz. Prozesu horretan, alde batetik, indarkeriazko eta birbiktimazio jarraituko ekintzak sortzen dira, eta, ikusezinak izanagatik, ez dute galtzen haien mehatxu egiteko indarra (horiek torturaren oihartzun kartografiak deitu diet); bestetik, subjektua berreraikitze eta mina eraldatzeko prozesuak, itxaropenaren kartografiatzat har ditzakegunak. Horiek dira hurrengo kapituluan landuko ditudanak. Azken batean, une esanguratsu hau aukera, arrisku eta absentziaz betea dago torturari eta indarkeria politiko sexualari dagokienez, eta gizartea, akademia, memoria-mugimendua eta are feminismoa ere interpelatzen ditu.

## 7. KAPITULUA

### Tortura-politikoaren isilpeko kartografia

«Terroristari lotutako iruditeria basa oso bat erabili da, armatuak zein ez, Euskal Herriko mugimendu emantzipatzaile oroz hitz egiteko. Desordenaren, irrazionaltasunaren, biolentziaren, antidemokratikotasunaren, inposizioaren xingola jarri zaie herri-mugimendu askatzaileei. XVI. mendetik hona errepikatu den iruditeria eraberritu da etengabe. Eraberritze horri erantzuten dio laugarren barbarizazioak gaur. Horrela eraikitzen da euskaldun basa eta horrela egiten da torturagarri.».

**Ibai Atutxa** (2022).

«Eta hemen onartzen dugun arriskua hau da:  
hitz egiteko ekintzarena  
ondorio guztiekin.»

**Lelia González**  
**Djamila Ribeiro** (2020)

#### 7.1. Sarrera

Orain arte, torturaren kontakizunean (kontakzea garrantzitsua ez ezik, kontatzen den modua ere garrantzitsua baita), kategoria nagusiak teknika, sufrimendua eta biktima izan direla deskribatzen saiatu naiz. Landa-lanean ikusitakoaz eta entzundakoaz hausnartu ondoren, tortura bizi izan duten emakumeak\*, dela elkarrizketa informalen bidez, dela hitzaldien eta prentsa-artikuluen bidez, entzuna izaten ari dena baino gauza gehiago esaten ari direla ere agerian utzi nahi izan dut. Bada, horrekin batera, aztertzeke dagoen eta isilpean igarotzen ari den geografia oso bat dagoela uste dut. Badira publikoki kontatzen ari ez diren bizipenak, bigarren mailan geratzen direnak edo galdetzen ez direnak. Izan ere, tortura ukatzeko egondako joerarekiko erreakzio gisa, atxiloketako 12, 10 edo 5 egun horietan gertatutakoa nagusitzen da kontakizunetan. Hori dela-eta, adibidez, ez da ezertxo kontatzen ondorengo prozesuaz, non birbiktimizatzeak eta irainak agerikoak diren, baina baita boterea berreraikitzeke prozesuak ere, mina eraldatzeko lanak eta eginahalak, jadanik Iruñeko testigantzetan zertxobait ikusi dugun moduan. Kapitulu honetan horiei egingo diet leku.

Lehenengo eta behin, ikerketa-prozesuan agertu diren torturaren oihartzunek egun osatzen duten kartografiarekin hasiko naiz; funtsean, torturak hedatu asmo duen beldurra eta sentiarazi nahi duen identitatearen txikitzeke garamatzaten gertaerak. Ondoren, itxaropenaren kartografia gisa izendatu dudatan atalean, beren burua berregiteke eta osatzeko bilatu dituzten bideak eta ekintzak azalduko ditut. Azkenik, justizia eraikitzeke prozesuei erreparatuko diet; zeri erreparatu eta zer ikertu zabala dugula ondorioztatzen amaitzeko.

## 7.2. Torturaren oihartzunen kartografia

Torturaren prozesua ez da atxiloketekin hasten, ezta amaitzen, Izaskun Juárezek eta Marilo Gorostiagak agerian utzi duten moduan. Era berean, Mendiolak (2014), torturaren birprodukzio-prozesu sozio-politikoak aztertzean, esan du ezen, tortura posible izateko, torturagarriak diren komunitateak eraiki behar direla alde aurretik. Aztergai dugun garaian, Ezker Abertzaleko partaidetza txanpon bat balitz, militante politikoak alde bat osatuko luke, eta bestea, errepresioak. Ikusiko dugu jazarpen zuzena atxilotu aurretik ere hasten dela. Adibidez, Albak esan zigun poliziaren jarraipenak bizi izan zituela Guardia Zibilak preso eramanez orduko. Maitaneren kasuan, jarraipenak etengabekoak eta estuak izan ziren, baina atxiloketarik inoiz ez zen gertatu. Lilik telefono-deiak jasotzen zituen goizaldean, baita bere etxekoek ere. Marik eta Sarak, berriz, atxilotuak, espetxeratuak eta kaleratuak izan ostean ere jazarpenak bizi izan dituzte:

Eran situaciones como... ¡que se acabe esto ya!... Me acuerdo que en Nochevieja pues dije: «que pase lo que tenga que pasar, pero que pase ya. No aguanto la situación de tensión, de mirar atrás, de estar parada en un semáforo y que te saluden los dos *picoletos* que estaban en el coche de al lado, o sea, un vacile». Y en Navidades tenemos un accidente de coche, y cuando llevamos el coche al garaje, nos llamó el del garaje, amigo de mis padres y me dice, «oye, pásate por el garaje que ha pasado el perito y tenemos que hablar». Me llamó al trabajo, porque no tenía móvil, dejé de tener móvil. Me paso por el garaje y veo una cosa en el capó, buf... yo pensaba que era una bomba. Era un aparato de escucha y seguimiento, eran tres cacharros, con dos baterías. Bueno, yo veo eso, me quedo blanca, y dije: «bueno voy donde el abogado». Quedamos para el día siguiente para ir al juzgado. No lo tocamos, porque no convenía tocarlo y, bueno, pues eso se precipitó la detención. (...) Por eso se precipitó, no nos dio tiempo ni para ir al juzgado... bueno ¿qué hubiera pasado? Ya, nada. Total, es que nos habrían detenido cuando les hubiera dado la gana. Durante todos esos meses desde septiembre a enero, el cacharro estaba colocado. Yo llego agotada a la detención, agotada.

**Alba**

(...) baina gerora jada jarraipen polizialekin hasi nintzen, joaten nintzen leku guztietara beraiek han zeuden, niretzat hori inflexio-puntu gogor bat izan zen, inflexio-puntu oso gogor bat esango dut. Niretzat hori, militantzia eramateko eran aldaketa bat izan zen. Sarekadak, ia astero zeuden herrietan, lantzean zonalde baten sartzen ziren, eta garai horretan jarraipenekin ibili nintzen. Bueno nik uste dut aurretik ere gainean nituela. 27 urterekin atera nuen karneta, eta kotxea hartu nuenean nabarmena zen gainean nituela! kotxea hartu eta mugitzen hasi nintzenean, lehengo egunetik, hiru-lau kotxe, bide gurutzeetan, ... bua! denbora guztian gainean nituen, denbora guztian, denbora guztian gainean, eta atxilotzera zetozela uste nuen, horrekin nengoen denbora guztian. (...) eta, bueno, hiru urtetan horrela bizi izan nintzen, alerta egoeran. 30 urte nituela gaixotu egin nintzen. Benetan gaixotu nintzen. Loia galtzen hasi nintzen, sentitzen nituenean, sabeleko minak hasten zitzaizkidan, beherakoak... Askok argaldu nintzen. **Maitane**

Denbora asko egin genuen edozein momentutan atxilotuak izango ginenaren sentsazioarekin. Jarraipenak bai, noizean behin oso nabarmen. Gero be bai hasi ziren gauean telefonoz deitzen. Isilik geratzen ziren. Edo nik telefonoz izandako elkarrizketa baten grabazioa ipintzen zidaten. Edo taberna bateko musika entzuten zen, baina euskal taberna bat, e?! Klaro, mundu guztiak zekien poliziak militante pilo baten telefonoak pintxatzen zituela. Garai horretan mobilak erabiltzen hasi ginen ere, eta horrekin jarraitu eta entzun egiten gintuztela konturatzen hasi ginen. Total, gurasoenera ere deitzen hasi ziren. Horrek asko izorratzen zidan. Jo, urte bat edo bi izan ziren,



que caña. Egia esatea nahi baduzu, portaleko atea apurtu zutela entzutean, nire alde batek «ya está, heldu da eguna» esan zuen, la ostia da gero! **Lili**

Agerian geratu da atxilotua izateko arriskuarekin bizitzea, are gehiago atxiloketak torturatua izatea zekarren garaian, xahutze-prozesu indartsua zela. Etengabeko alertan egon beharraz aritu dira, baita etengabe mamuekin bizitzeko esperientziak. Gau eta egun poliziaren hatsa belarri atzean zutela bizi beharra zigortzat dute. Parte-hartzaileen ustez, jarraipen horietako asko eta asko nabarmenegiak ziren; beraz, informazioa bildu edo ikerketa helburuak baino, beste jazarpen motatzat zituzten; are gehiago, polizia zela esan gabe, polizia zela agerian uzten zuten deien bidez, garai hartan inoren telefono deiak entzuteko beharrezko tresneria ez baitzegoen edonoren eskura. Lili eta Alba nekatuta, birrinduta heldu ziren atxiloketara. Maitane ez zuten inoiz atxilotu izan, baina gaixotu egin zuten.

Behin espetxean zeudela, espetxe arteko desplazamenduak, espetxetik epaitegietara eta ospitaletara poliziaren zaintzapean egin dituzte. Polizia Nazionalea, Guardia Zibila edo Ertzaintzaren esku zeuden zeregin horiek, eta, presoak zeukaten lurraldearen arabera, polizia baten edo beste baten ardura zen. Horrek esan nahi du ezen desplazamenduak, behin baino gehiagotan, atxilotu eta torturatu zituen polizia-gorputz beraren eskuetan egitera derrigortuak zeudela. Horrek izugarritzko urduritasuna, beldurra eta berbizitze-egoera eragiten zien behin baino gehiagotan.

Ta trasladoan atera giñenean, ba *pikolo* pila bat zegoen, izugarria zan, eta aditu nion *pikolo* bati esaten: «mira, mira, con esta estuve yo»... eta tipoa egon zan nire atxiloketan, Madrideko kalabojoetan. Eta hor zan como... konduzioei<sup>212</sup> kriston bildurra nion, paniko! Diligentzietan<sup>213</sup> eta, horroroso. Bezperan esaten zidatenean hurrengo egunean atarako nintzala, era como un brum... berriro atzera egitea. Gainditu nuen konduzioena, ba haurdun nengoenean, eraman nindutenean ospitalera. Ze kontraesankorra da, ze izugarritzko bildurra nion diligentzia eta konduzioei-eta, baina gero hartu genuenean erabakia haurdun geratzeko-eta, ez nuen horretaz pentsatu. Baina, klaro, gero erditzeko atera behar nintzan, baina nire gogoa, amatasunaren gogoa, gainetikan zegoen. Eta gerora konturatu nintzan, joe ze beldurra nien, eta haurdun nengoela hasi nintzenean ataratzen ospitalera, ba zan hola... como... nola badaukazu beste zerbait protejitu behar duzula, ahaztu egiten zara zure bildurraz. Ze badituzu berriak, ez lehengokoak, orduan horrekin gainditu nun bestea. Bai bai. Ze ordura arte nien izugarritzko bildurra. **Lur**

Eta, gero, ba, ginekologora eramaten naute hankak eta eskuak lotuta, jartzen naute silla hortan, poliziak ez dute atera nahi, poliziaren aurrean ez zuten kontrola egin nahi, baina da berriro bortxaketa... irudia jartzea gertatu zitzaidanari komisarian. Ze orduan izan zen, ostia holan nengoen, hankak eta eskuak lotuta. Eta zihoan errepikatzeraz, eta ze zaude momentu batean ba... eta ezin! Eta txakurrak ez atera nahi... medikuak esan zuen bera ez zela epailea, baina txakurrak esan zuten segurtasuna denaren gainetik, nire beharren gainetik. Hor bai, buffff. Botaka egiten dut bidean, baina txakurren aurrean ez nuen nahi ere hautsi, baina, baina... hor ba, hori bai izan zan irudiak jartzea. Ostias. Baina nolabait izan zan ere aldi berean izan zan reparazio bat-edo, ze oraingoan gelditu nuen. Ulertzen? Ez nuen kontrol medikua egin. Momentu batean esan nuen: «Ez! Horrela ez!». Momentu batean, izan zan komisarian egin ez nuena egitea. Lehenengoa ezin izan

---

212 Konduzioak, espetxetik noranahi eramateko gauzatzen diren mugimenduak dira.

213 Epaitegietara, eginbide judizialen bat tarteko zela, leku aldatzen zituzten uneez ari da.

nuen gelditu, baina bestean bai, ja hontatik ez. Eta gero hor ja izan zan nolabait satisfazio bat, ostias moztu dut, kontrola ez dut galdu. Gauza bakoitzak dauzka... gero egia da laguntzen dit psikiatrak gauza horiek aztertzen eta osotasun batean ikusten. «Eta nola sentitu zara?» eta bai, ostia, egia da. Bai, gainditu dut eta orduan hecho polvo baina ostias, ez naiz utzi. Ze da momentu batean hain zaude, ze sartzen zara eta berriro. **Ekiñe**

Baina ez soilik espetxe-egoeran. Behin zigorra beteta ere, kalean egonik, kasu batzuetan, polizia hurbildu izan zaie, kolaborazioa eskainiz eta mehatxatuz. Beraz, bigarren atxiloketa eta tortura-saio baten arriskuarekin bizi izan dira, eta dira. Hori dela eta, askok errepidean ibiltzea ekiditen dute, edo mendira bakarrik joateari beldurra hartu diote, polizia gerturatu ahal zaien testuingurutzat dituztelako, besteak beste:

Eta bildurrak ba bai ze beti dago hor nonbaiten, ze kalean be bitan etorri dira Guardia Zibilak, tú sabes que siempre pueden estar ahí, es algo que no te deja descansar, no sé, hori, horrela izango da beti. Es algo como que te persigue, no es solo que vayan a aparecer. **Mari**

Eta bai, iluntasunaren beldurra, guztiaren beldurra. Berriro etortzeko beldurra, garai hartan poliziaren jarraipen argiak izan nituen eta... **Sara**

Alta, torturak dakarren umiliazioa, txikitzea eta osagai matxista, ez da poliziaren jazarpena mugatzen. Epaitegiek, torturaren salaketa gehienak artxibatzearekin batera, emakumeon\* testigantza eta hitza kolokan ipini, ukatu eta euskal emakume\* militante izateagatik iraindu ditu. Jarraian, tortura-prozedura judizialok artxibatu aurretik, emakume\* batzuk epaitegira eramanak izan zirenean bizi izandakoaren testigantzei egingo diet leku.

Ixone Fernandez, 2005ean, kartzelan hiru hilabete zeramatzanean, Madrilgo epaitegietara eraman zuten bere tortura salaketa dela eta, deklaratzera. Guardia Zibilaren esku egin zuen bidaian, sexu-irainak jaso zituen. Ondoren, epaile aurrean deklaratu zuen, fisikoki poliziaz inguratuta eta honakoak aditu zituen epailearen ahotik:

Zure testigantza irakurri dut, eta oso nobeleskoa izan dela esan behar dizut. Ulertu behar duzu kontatu didazuna barregarria dela, kontuan hartuta zure gainean dagoen akusazioa. Gainera, esan behar dizut zuek, sexu ahula zaretenez, beldurra eta izua sentitzen duzuela benetan horren ahulak ez diren egoeren aurrean; beraz, nola emango diot sinesgarritasuna zuk kontatzen duzunari? Baduzu zuk diozuna berresteko moduko marka fisikorik? Auzitegiko txostenen bat baduzu? **Ixone Fernandez (2017).**

Agurtzane Uriarte Bustinza 2002an atxilotu zuten. Kartzelan bi urte baino gehiago eman ondoren eta ETari laguntza emateagatik Auzitegi Nazionalan zigortua izan eta bi hilabetetara, Madrilgo Plaza Castellako Epaitegira eraman zuten. Han, epaiketa izan zen Guardia Zibilaren eskutik jasotako torturengatik. Zehaztasun osoz deskribatzen ditu epaiketaren baldintzak:

Igogailuan, lau pikoloz inguratuta igo ninduten, uf ze handiak ikusten ditudan! Beldurra uste dot ez nuela sentitu, baina eurak denuntziatzera eurakaz inguratuta? Ta deklaratu ostean gero barriro

igogailuan eurakin? Zer da hori?! Zergatik ez juzgadoko Polizia Nazionalagaz? Audientzia Nazionalean holan da adibidez!

Ez dakit deskribatzen igogailuko sentsaziñoa. Nik uste dot nahi nebala euren aurrean indartsu moduan-edo agertu. Baina neukan kokoteko miña... painelu hori... ez nintzen beldur... zan presiño fisiko bat moduan neure inguruan. Egia esan, igogailu baten bost, toki askorik be ez zegoen, jeje. Beldurra ez, zaurgarri sentitzen nintzen, eta amorrua be bai. Egoera hori pasatu beharra! Zergatik eurekin? Amorrua, ezin izan nuelako egun horretan erakutsi banuela indarra, berdin zitzaidala beraiek hor egotea, salatza nentorrela, ez nindutela makurrarazi, baina ezin izan nuen. Horixe barruan. Eurari bardin zaie, baina niri ez...

Sartu barrura, eseri lau horietaz inguratuta, niretzako momentu horretan mole batzuk zirian, handiak gogoratzen dodaz, egia zan edo ez, ez dakit...

Epailea eta besteak semizirkulo baten zeuden gure aurrean, baina apur bat altuago, eta beheko aldean banku «korridoak» eskuma eta ezkerrera. Aurrera begira, eskumako aldean, lehenengo bankuan ni, alde bakoitzean pikolo bat eta atzean beste bi. Ezkerreko aldeko bankuan nire abokatua, bera bakarrik, urrun, urrun niretzako orduan. Gainera Guardia Zibila gure artean...

Han aurrean, gu baino goratxoago eserita, erdian epailea. Emakumea zan, ni baino 5-8 urte gehiago, melena, esango nuke «atraktiba», ez guapa, baina horrek tipika melena, gauzak bere tokian, esan nahi dut, erropa egokia, ulea ondo orraztuta... eta ni horregaz painelugaz eta kokota okertuta, ze txorrada ezta? Ba ez! Ez nuen indargunerik topatzen. Emakume indartsu moduan agertu ahal banintz sikiera...

Epailearen ondoan, erdian, beste bat zegoala uste dot, ez naz akordatzen gizon edo emakumea, emakumea esango nuke. Alde bakoitzean beste bi, eskuma aldekoak, neska bat eta mutil bat ziren. Berba eta berba ari ziren, papelak mugitu eta gu han ez bageunden moduan. Bueno beste guztiontzako be, gauza handirik ez ginela argi egoan. 10 minutu-edo itxaroten egon eta gero, zeozer esatearren, igual 20 minutu izango zirian. Ez luze, baina ez berehala. Nire abokatua azkena sartu zan. Begiratu ninduen eta agurtu ninduan buruaz, eta animozko irribarretxo, besterik ez. Amaitzerakoan agur esan, kanpora ateratzen ninduten bitartean, eta kitto, gehiago ez neban ikusi eta ez dut berataz ezer jakin; baina nik beti eskertuko diot egindako lana.

Epaileak galdetu zidan izena eta hori, uste dot... eta bueno «¿qué viene a declarar?» Holan bat-batean, galdera konkretu barik. Nondik hasten zara kontatzen? Deklaratzen hasi nintzen, pikoloz inguratuta, eskumako aldeko mutil eta neskak, orain ere ez zuten jartzen arreta handirik, epaileak pare bat bider edo zeozer galdetu zidan, «desdeinuz», ahots indartsua zuen, harroa... holako galderaren bat uste dut:

«¿qué quiere usted decir? ¿Está usted segura?». Esango nuke, edo agian nire imajinazioa da. Eraso sexuala deskribatzen nuen unean nazkaz begiratu zidan.

Amaitu zen deklarazioa, inork ez zidan agurrik esan. TATEkoen keinua. Ja. **Agurtzane Uriarte Bustinza (2021)**.

Kasu batzuetan, torturagatiko epaiketa horiek Euskal Herrian gertatu dira, senideak bertan zirela, baina baita polizia ere, Igor Porturen kasuaren kronikak erakusten duenez:

Bista-aretoan jendearentzako eserlekuak auzitegira berariaz joandako kalez jantzitako poliziek hartu zituzten, eta alde zuzenetik senideei sarrera eragozten saiatu ziren, atea blokeatuz. Ukondokadak eta bultzadak izan ziren. Bertako 73 urteko emakume batek lurrian amaitu zuen. Etxerat-ek ohar baten bidez salatu zuen «kolpeak, irainak eta sexu-ukituak» izan zirela. Gainera, ziurtatu zuten guardia guztiak ez zirela detektagailutik pasatu, eta haietako batzuk armatuta zeudela. Lurrera erori zen emakumeak eta haren bikotekideek kexa bat bidali zuten idatziz epaitegira, eta «pasibotasuna» egotzi zieten eraikinean zeuden ertzainei. Bestalde, Etxerategi jakinarazi zuen Portu eta Sarasolaren senideei ez zirela haiekin hitz egiten utzi. **Gara 28/10/2010**

Ixoneren kasuan bezala, Ekiñeren kasuan ere lekukotza kolokan jarri zuten, eta Agurtzane Uriartek bizi izan zuen hoztasun burokratiko berbera pairatu zuen. Ekiñe Europako beste herrialde batean atxilotu zuten. Herrialde hark urte batzuk atzera torturatu eta bortxatu zuen Estatu Espainolaren esku ez uzteko asilo politikoaren prozedura abiatu zuen. Espetxean zela estatuko idazkari batekin izandako elkarrizketa honela kontatzen du:

(...) Estatuko asilo-sekretaria, ba beraien helburua da kontraesanak bilatzea asiloa ez emateko. Guk eskatu genuen emakumeak izatea gaiaren zeragatik, eta hori onartu zuten, baina ez dut uste hobeia izan zenik. Gogoratzen dut, bai, adibidez «eta plastikoa bazeneukan buruan orduan gero nola ezagutu zenezakeen?» eta horrelakoak esaten zizkidala. Eta «eta hor esan duzun hori, baina nola izango da?», «eta bosgarren egunean noiz da deklarazioa?» ni esaten ari naizenean desorientazioa, nire zera bakarra dela forensea pasatzen zenean... bueno horrelako gauzak. «Bai, baina falta zait zerbait sinisteko...» holako gauzak. Eta berarentzako zan ere «jendeari ez kontatzea, publikoki ez esatea, froga bat zan», kontrakoa denean ezta? Adibidez, esaten zidan «zergaitik ez diozu medikuari kontatu espetxean bortxatua izan zarela? eta holakoak. Hori da froga bat ez dela egia». Alderantziz denean, normalean arazoak dituzu kontatzeko. Eta bestea nola zan? A bai, nik gero ginekologoarengana joan nintzen Madridentan, baina espetxe bateko ginekologoa da, eta joan nintzen kideak bultzatuta, ze, klaro, hilerokoa eta dena galdu nuen, baina, klaro, nik denbora bat behar nuen, ezin nuen 10 egun eta gero joan espetxeko ginekologo baten aurrera. Eta asilokoak dio ba hilabetera ez dagoela frogarik bortxatua izan zarela frogatzeko, kontrol ginekologikoak ez du frogarik ematen bortxatua izan zarela. Klaro, kanpotik ez, barrutik... eta horrelako gauzak. Edo moratoiak... ze jartzen du forense batek «kontrola egin dut eta ematen du zikintasuna daukala hantetan»... eta gero Madridentan medikuak konstatazen du moratoiak ditudala hiru egun beranduago. Nire kasuan, badaude frogak horiek... baina asilokoak saiatzen ziren denari punta ateratzen. **Ekiñe**

Epaileek eta estatuko beste langileek torturaren errelatoa lineala, ordenatua, kohesionatua eta koherentea izatea espero dute. Ikusi dugun moduan, horrela izateari ematen diote garrantzia, eta horixe darabilte sinesgarritasunaren neurgailutzat. Literatura zientifikoak, egoera traumatikoetan ordena eta koherentzia desegin egiten dela adierazten du, eta ordena koherentea kontakizuna garatzeak «itzulpen<sup>214</sup>»lan oso bat eskatzen duela (Bordieu, 1999; Pollak 2006; Arfuch, 2013)<sup>215</sup>. Are gehiago, inkomunikazio-egoeran poliziak torturatutako kasuetan denbora eta espazioarekiko

---

214 Mariana Tellok (2012) ondorioztatu duenez, atxilo egoeran, *denbora, espazioa eta gizakiaren* nozioak erabat aldatzen dira, eta horrek beste testuinguru eta mundu zeharo ezberdin bat sortzen du. Testigantza mundu honetan garatzen da, baina beste mundu haren berri eman nahi du, eta horrek «itzulpen» lana eskatzen du.

215 Arfuch (2014) eta Bordieuk (1994) metodo biografikoaren inguruko posizio ezberdinak dituzte, baina bat datoz haien artean, eta baita Pollak-ekin ere, muturreko egoeretako esperientzia errelato biografikoaz espero den koherentzia horretan sartzeko zailtasunean.

jabetza erabat galtzen denean: eguna eta gaua ezin ezberdindu, egunak zehatz-mehatz ezin zenbatu, non zauzkaten ezin ikusi eta abar.

Sara Majarenasen lekukotza ere auzitan jarri zen, eta, are gehiago, tortura salaketa ebazten zuen epaiak iradoki zuen terrorista izanik ez zuela eskubiderik, Espainiako Auzitegi Konstituzionalaren auto baten laburpenek erakusten duten moduan. Auto horretan, Probintzia Auzitegiko autoak eta Valentziako Instrukzioko Epaitegi bat aipatzen dira, tortura-delitu baten aurreko eginbideak artxibatu zituztenak:

La denuncia presentada por Sara Majarenas Ibarreta, detenida en la ciudad de Valencia el 17/2/2005 por supuesta pertenencia a la banda armada ETA, no obedece a fines objetivos, sino por el contrario está presidida con el único fin de minar la labor que día a día realizan los miembros y cuerpos de Seguridad del Estado en el ejercicio legítimo y social de sus funciones, denuncia que no obedece ni está acorde con lo que realmente sucedió, sino, más bien, la debemos calificar como venganza a la actuación policial bajo el prisma de que una denuncia contra los miembros de dicho cuerpo, como nada «hay que perder», que se efectúa a la ligera y, la mayoría de las veces, sin pensar ni medir las consecuencias que de ello pueda derivarse para las personas denunciadas, no solo como tales sino también como profesionales, pues no hay que olvidar que la denunciante detenida por su presunta implicación en una banda terrorista, es significativo que su detención se produce el día 17/2/2005 y la denuncia no se presente hasta el 13 de abril de dicho año, habiendo transcurrido el tiempo suficiente para dudar de la objetividad de la denuncia, máxime cuando, estando detenida en las dependencias de la Jefatura Superior de Policía, fue examinada de forma inmediata por el médico forense adscrito al Juzgado de Instrucción 20 de Valencia, sin que al mismo le manifestase los supuestos malos tratos que ahora denuncia, y sin que en el informe médico forense se hagan constar, ni indiciariamente, las posibles lesiones sufridas; por otra parte, consta un informe del hospital General Universitario donde también fue explorada la detenida en la que simplemente habla de un ‘leve mareo’.

Por Auto de 17 de octubre de 2005 se desestimó el recurso de reforma, pudiendo leerse en el fundamento jurídico único: «Las consideraciones dadas por la parte recurrente en nada desvirtúan los motivos que se tuvieron en cuenta para dictar el Auto de archivo de la denuncia presentada, simplemente limitarnos a decir que dicha resolución no es arbitraria como alega la parte, sino objetiva en relación a los hechos denunciados y, sobre todo, en relación a la realidad de lo acaecido, reiterándonos en todo lo dicho en la resolución de archivo. No hay que olvidar de que la denunciante, perteneciente junto a... miembros «liberados» de ETA, fueron detenidos en Valencia el 17/2/2005 cuando intentaban cometer un atentado, pues no en vano en el registro que se efectuó en la habitación de la pensión donde se alojaban, se les intervino armas, munición, explosivos, detonadores, etc., así como todo material e información con el fin de cometer atentados, por lo que no deja de ser ‘curioso y chocante’ que todas las alegaciones en las que se base el recurso, además de descalificaciones a este Órgano Judicial, se base y se alegue la doctrina de los ‘Derechos Humanos’, ‘torturas’, etc., cuando ellos mismos por su comportamiento han sido los primeros que han preterido tales derechos a los demás.» **Auzitegi Konstituzionalaren sententzia, 279 zk.-ko BOEn argitaratua.**

Azken kasu horretan, esan behar da urte batzuk geroago ama izan zela eta bere hiru urteko alaba bikote ohiak labanaz zauritu zuela ia hil arte. Horrelako egoera baten aurrean, eta prozesu

osoa aztertu ondoren, bai berak, bai beste agente batzuek<sup>216</sup> ondorioztatu zuten Sara irakur zitekeen bi identitateen artean («euskalduna, terrorista, ETAko kidea» edo «genero-indarkeria jasan duen emakume\*») lehena izan zela estatuarentzat nagusitu zena, eta, beraz, kokapen horretatik aplikatu zitzaioela legea, eta horrela osatu zela Majarenak pilatutako bidegabekeriaren dinamika, 3 gradu bete arte.

Izaskunek Iruñean emandako lekukotzei so, eta Alba, Maitane eta Liliren bizipenak adituta, ikusi dugu atxilotu aurretik hasten dela tortura. Mamu baten forma hartzen du, eta, horregatik, era askotara agertzen zen haien egunerokoan. *Dena posible den* egoera haien irudimenean hasten da, beldurrak uneoro sortzen zituen labirinto berrietan. Entzundako lekukotzak, irakurritakoak, eta norberaren fobia eta zauriei lotutako izu-ikarak diapositiba-emanaldi azeleratu eta amaiezina bilakatzen dira. Espazialki, lekuz aldatzea, errepidea, mugitzea eta etxetik irtetea-sartzea bilakatzen dira arrisku handieneko egoerak. Denborari dagokionez, berriz, gauak<sup>217</sup> dira atxiloketa gehienak gauzatzen ziren unea; atsedena, babesak, goxoa bat-batean zartatzeak atxiloa dagoeneko babesgabetasun-egoeran kokarazten duelako.

Marilo Gorostiagak, Ekiñek, Lurrek, Marik eta Sarak agerian utzi dute torturatu zituen poliziarekin duten harremana nahiko luketena baino estuagoa dela, poliziaren presentzia errepikatu eta inposatu egiten baitzaie, dela espetxeko kustodian, dela kaleko errepide-kontrol batean, dela zuzenean haiei egindako «bisitetan». Topo-egite horietan, emakume\* errepresaliatuak bere burua poliziarekin bakardade-egoeran ikusiko du, komisaldegian bezala, eta, beraz, laguntza eskatzea nekeza zaion egoeran, hau da, dena posible den egoeran berriro ere. Ezinezkoa posible egiten da. Are gehiago, Ixone eta Agurtzane adituta, torturaren salaketa judizialerako bidaia eta egonaldia zaintza eta mehatxuaren arteko mugan gauzatzen da. Horrek erakusten du ez dela berariazko prozedurarik aurreikusten tortura eta biolentzia politiko sexual horren kasuan. Abokatua ikusteko zailtasunekin, etxekoen hurbiltasunik gabe, egoera fisiko makala eragiten duten baldintzetan gauzatzen dira tortura salaketari lotutako prozedurak. Nekatuta, ahulduta, bakarrik, kuestionatuta eta berriz ere irainduak diren egoera da deskribatu dutena, funtsean Sararen epaiak agerian uzten duenez, *terrorista* izateak giza eskubideez desjabetzen baitu pertsona. Carlos Martín Beristainek (1992) esan bezala, «*gizartearen gorengo etsai*» bilakatuko dira disidentzia mota ezberdinak, preseski horretarako, haien aurkako jazarpena zilegiztatzeko.

Torturaren lorratza luzea eta zabala da, beraz. Ez psikologikoki eta fisikoki soilik, baizik eta etengabe berregiten den mehatxu gisa, baita zilegiztatzen eta babesten den tresna politiko gisa ere. Berbizitza, batzuetan, ia erabatekoa bihurtuko da, Ekiñek kontatu ginekologoko eszenan bezala. Egoera hura era gogor eta mingarrian eteteko ahalmena izateak bere buruarenganako konfiantza

---

216 Foro sozialeko lantalde feministak justizia feministaren inguruan osatu zuen gida praktikan jartzen saiatu zen kasu ezberdinak aztertuz. Horietako bat Sara Majarenasena izan zen, bere baimenaz, noski.

217 Frantziako estatuan preseski horregatik, debekatuta dago goizeko 6rak orduko atxilotzea.

eta boterea berregiteko baliagarria izan zitzaion, baldintzak izanez gero iraina gelditzeko gai dela erakutsiz bere buruari.

Tortura bizi izan duenari, bere burua psikologikoki, fisikoki, sozialki, politikoki eta kulturalki berregiteko erronka zabaltzen zaio, inkomunikazio-egoera behin gainditu eta batera. Lehengora itzultzea ezinezkoa izan arren, zauriarekin bizigarria den bizitza bizitzea eta balioa aitortzen zaion bizitza eraikitzeke premia, azken batean. Beren buruen berregite-prozesu horretan, baldintza batzuk beste batzuk baino lagungarriagoak izango dira, banaka edo taldeka tresna eta akuiluak eskuratzen joango dira, eta haien prozesuan mugarriztat dituzten uneak biziko dituzte. Ilunetik argirako, anabatatik sosegurako bidean. Hurrengo atalean, prozesu horiei egingo diegu leku.

### 7.3. Itxaropenaren kartografiak

Nora Strejilevich idazle argentinarrari behin entzun nion<sup>218</sup> «biziezina dela, inoiz bizi izan dugun gauzarik handiena». Beraz, berrosatze- eta berregite-prozesuen sakonera eta askotariko ertzez jabetzea garrantzitsua da, eta horri eskainiko dizkiot lehen lerroak, geroago ikerketako emakumeek\* egin dituzten bideak azaltzeko.

Aipatu dugu torturaren esperientziak hautsi eta desegin zaitzakeela<sup>219</sup>. Apurketa horrek esan nahi du gauzak zeuden tokian egoteari uzten diotela. Ez horrenbeste lekuz aldatzen direlako, baizik eta horiek haien artean lotzeko eta bat izateko lokarria desegin delako. Eta horrek, gutxienez, nahasmena eta koherentzia falta eragiten ditu. Masilla hori konfiantza da, aitortza da eta sinesmenak dira. Ertz askotariko identitatea da, funtsean. Horrek egiten gaitu oso. Oso egin, baina baita izan eta sentitu ere. Osotu. Osatu.

Prozesu horrek dimentsio ezberdinak ditu: bata pertsonala da, norberarena; bestea intimoa, torturaren esperientzia zerbait oso intimoa den bezala, berrosatzeak ere dimentsio hori behar duelako; azkenik, dimentsio soziala dago, funtsean zeregin horrek norberaz gaindiko aktoreak behar baititu, harremanetan baikara. Konfiantza, aitortza, sinesmenak eta identitateak *besteak* behar ditu, prozesu sozial-kultural eta politikoak direlako, ezbairik gabe.

Torturatutako batzuek sarri *kintsugi* jarroiak berregiteko teknikari egiten diote erreferentzia<sup>220</sup>. Zehazki, Japonia aldeko jarduera horrek koloretako masillaz birrosatzen ditu hautsitako piezak. Arrakala ezkutatu beharrean, berau edertzean datza teknika, funtsean. Arrakala ardatz bihurtzen du, eta metafora horrek oso ondo adierazten du batzuek duten berrosatzeko ikuspegiaren nondik norakoa.

---

218 EHUko *Modelos y areas de investigacion social* doktoretza programako 2018ko ekaineko Testimonioa eta idazketa mintegian

219 Garrantzitsua iruditzen zait azpimarratzea torturak beti ez duela bere helburu hori lortzen.

220 Ixone Fernandezek Bilboko *Nik Sinisten dizut* ekimenean egin zuen testigantzan aipatu zuen. 2017an, Bilgune Feministak torturaren aurkako eguneko kartela horietako batekin osotu zuen.

Esku askok eta luzaroan goldatutako buztin erdi gogortua gara pertsonak, erdizka lehortutakoak eta egosi gabeak. Torturaren bidez, kolpe bakarrez ala kolpe askoren ondorioz txikitu edo desegin zuten pieza. Funtsean, noizbait hautsi duten pieza gara, baina berregin daitekeena, berrosa daitekeena. Ez dugu zertan betirako pieza birrindua izan. Horretarako, berriz ere, esku asko beharko ditugu, haizea eta beroa beharko ditugu. Ginen pieza hura errepikaezina da, buztin berberaz egindako beste pieza bat bilakatu beharko gara, halabeharrez; ezkukatutako buztin zaharrez egindako pieza berritua, arrakalak ezkututako ez dituen, arrakaletan eragin behar delako arrakalak lokarri bilakatu behar direlako.

Aztergai dugun auzian, arrakalok geure orbainak dira. Ezbairik gabe. Biolentatu gintuen gertaera-prozesua itsatsi egiten zaigu, lekua hartzen du gurean, bere espazioa eta bere denbora. Oharkabean egun garenaren alde ukaezina bihurtzen zaigu, geu bilakatzen da. Zartadakoa, anputazioa, zornatutako zauria, heriotza txikia, inbasioa. Modu ezberdinetan senti daiteke mina. Minak geure barruan eta hartu-emanetan bide ezberdinak egingo ditu: nahastu, isolatu, txiki egin, ihesa hauspotu, iltzatu, ezabatu, disoziatu, itzali ala gorrotoan bildu. Baina, besteengana ere ireki gaitzake, aktibatu, eraldatu, handitu, mugitu, eta galderen erantzun ere bilaka daiteke; azken batean, minak askotariko forma, kolore, usain eta testurak baititu.

Hala ere, orain artean ez diogu min horri gehiegi erreparatu, edo akaso ez dugu horri so jartzeko behar besteko baldintzarik izan. Modu batera edo bestera, eztabaida horretan sartzeko asmo gabe, agerikoa da oso gutxi ezagutzen dugula prozesu horretaz. Izan ere, lehenik salaketan murgildu zen torturaren aurkako mugimendu eta jendarte multzoa. Gerora, dimentsio juridikoarekin batera, batez ere, psikologikoak hartu du garrantzia. Nire kasuan, berriz, beste nonbaitetik begiratu nahi diet berrosatze-prozesuei, ikuspegi antropologikotik, alegia. Horregatik, atal zehatz honetan, berreraikitze-prozesuaren baldintzak, tresnak eta identifikatutako mugarriak deskribatuko ditut.

Horiek guztiak berrosatzeak dituen hiru dimentsioetatik irakurtzeko gonbita egin nahi dut, era berean, torturak dakarren txikitetik berregiteko lanak *dimentsio kolektiboa*, *pertsonala* eta *intimoa* hartzen dituelako bere baitan. Hirurek dute dimentsio sozio-politiko eta kulturala. Hirurek dute elkarrengan eragina eta elkarren menpeko ere badira. Eta hiru horien arteko harremana aldatzea ere bilatzen du torturak, azken finean.

Norbanakoa eta gizartearen arteko banaketa nagusitu den mendebaldeko ikuskera bitarraren emaitza da norbanakoa (Escobar, 2018), eta ilustrazioko prozesuek zein modernitatearen inplementazioak erro indartsuak jarri zizkion ikuspegi horri. Hemen, harremanetan garelako dioten ikuskeren alde egiten dut. Norbanakoa eta gizartearen arteko banaketa hori artifizio hutsa dela dioen soziologiaren arabera, gizarteak egiten gaitu eta gizartea egiten dugu (Berger eta Luckmann, 2006). Norbanakoaren eraikuntzan, funtsezkoak dira gizarte-prozesu eta egiturak, eta, beraz, gizarterik gabeko subjektu guztiz-ahaldunik ez da. Gizartea eta norbanakoa banaezinak dira zentzu



horretan, elkarrekintza etengabean daude. Elkarri bizkarra ematen baino, elkarri mintzo dira eta mintzo direla daude.

Ikerketa feministek ere liberalismoak eraikitako subjektu isolatu, autosufiziente eta autozentratu horren eraikuntza kritikatu dute, besteekiko eta naturarekiko menpekotasuna agerian utziz (Perez-Orozko, 2004, 2014; Herrero, 2013, 2016; Carrasco, 2001). Beraz, harremanetan baldin bagara, hiru dimentsio horiek (sozial-kolektiboa, pertsonala eta intimoa), etengabeko elkarreaginean daudela aintzat hartu behar dugu. Horrekin batera, soziologia klinikoak, antropologiak bezala, ez du lehenesten, ez begirada indibiduala, ez kolektiboa; aitzitik, prozesu sozial eta kulturalak bertan inplikaturik dauden kideen begiradatik aztertzen ditu. Eta horixe da ni neu ere hemen egin guran nabilen ariketa. Hala ere, argiagoa suertatzeko, hiru dimentsioak erabiliko ditut azalpena ontzeko:

- *Gizartearen dimentsioa:* Tortura osteko berregite lanetan, jada aipatu den moduan, besteen parte-hartzea ere funtsezkoa da. Alegia, norbanakoak, berrosatzeko, besteen esku-hartzea beharko du, prozesu sozialak beharko ditu. Beste modu batera esanda, mina intimoa bezain sozial eta politikoa denez gero, gizarte osoaren esku-hartzea beharrezkoa da mina eraldatu eta torturatutako pertsonak berrosatzeko, eta, horrekin batera, gizartea bera berrosa dadin; zauria kolektiboa ere badelako. Beraz, estatuarekin batera, gizarteak torturatutako komunitateari egindako mina aitortzea eta ez errepikatzen bermeak eskuratzeko lanetan inplikatzeko oso garrantzitsuak dira mindutako subjektuentzat. Laburbilduta, torturatutako pertsonak bere burua berrosatzeko borondatea izan dezake ala ez, baina, berrosatuko bada, gizartea beharko du, bai ala bai, prozesu hori burura eramateko. Gizartearen inplikaziorik ezean, askoz nekezagoa egiten da mina eraldatzea eta bertan gotortuta ez geratzea.
- *Norbanakoaren dimentsioa:* Berrosatzeko baldintzak izatearekin batera, bide horri ekiteko borondatea ere beharrezkoa da. Jakina da borondatea baldintzekin bat datorrela, eta bi horiek, borondateak eta baldintzek, torturak bizitza eta munduarekiko uzten duen eszeptizismo, ezkortasun eta deskonfiantzarekin lotuta daude. Zentzu horretan, torturaren ostean bizi daitekeen mezua lau haizetara hedatzeko premia ikusten dute batzuek. *Bizi* letra larriz, baina ez minik gabe bizi, minarekin bizi baizik. Horretarako, mina eta minak egiten diguna eta minak eginarazten diguna aztertzea proposatzen dute<sup>221</sup>. Beste batzuek, ordea, uste dute zauria kutxa batean gorde eta giltzapetzea dela onena, *eta segi aurrera* egitea hobea dela uste duten moduan. Gertatutakoa atzean uzteko deiak ezagunak dira gatatzak aitortu eta konpondu nahi ez dutenen aldetik, erroetara jo nahi ez dutenen

---

221 Torturatutako pertsonetako batzuek eta torturaren esperientzian espezializatutako psikologo batzuek 2019ko ekainaren 20an Bilbon egindako mahainguru batean, tortura bizitako kide asko gerturatu zituen entzule gisa, eta amaiera aldeko solasaldian gai horren inguruko bi posizioen argudioak izan ziren nagusi.

aldetik. Mezu hori hegemonikoa ere bada gure gizartean, alderdi politikoetatik hasi, eta zenbait diziplina zientifiko eta ez-zientifikoaren korrante batzuetara arte.

Hala ere, elkarrizketatuek aitortuko dute testuinguru sozio-politikoak zauria irekitzen diela behin baino gehiagotan, eta, beraz, zauria erabat ixtea ezinezkoa dutela egungo testuinguruan. Eta horixe berretsi daiteke landa-laneko beste datuetatik ere.

- Dimentsio *intimoa*: Norberak bere buruarekin duen harremanean ere eragin nahi du torturak. Eredu horri deritzot *intimoa*. Tortura gorputzarekin eta sexualitatearekin oso lotuta dago. Ez dago gorputza inplikatzeko ez duen torturarik; izan ere, tortura psikikoak berak ere gorputza darabil psikea eta emozioak mintzeko lanabes gisa. Gorputzetik eta gorputzaz pentsatu, sentitu eta ekiten dugu. Halaber, gure gorputzak sexuatuak dira. Hortaz, esan dezakegu ez dagoela sexuatu gabeko torturarik. Eta sexuatzeko horretan sexualitatea pertsonen identitatean giltza denez gero, presentzia handia hartuko du. Horren guztiaren ondorioz, berrosatzean ere badago norberak bere buruarekin duen eremuan zer berregin eta nola berregin. Are gehiago, tortura intimitatearen lehertzea ere badenean, intimitate hori birsortzea premiazkoa izango da (Amatis Sas, 1991; Jelin, 2002).

Hiru dimentsioak behin kokatuta, gure protagonistek sentitutako segurtasun-eremu eta uneetan jarriko dut arreta. Horien artean, nabarmentzekoak dira euskara erabiltzea, terapia eta berdinen arteko harremanak (bai emakumeen\* artekoak, bai antzeko zerbait bizi izan dutenen artekoak). Tresna edo moduei dagokienez, kontaktu eta salatzea, umorea, terapia, herri-aitortza, torturaren aurka militatzea eta torturaren inguruan formatzea agertu dira. Amaitzeko, berregiteko bideko mugariak sexualitatea eta gorputz-prozesu eta botereari estu loturik agertu dira; tortura gorputzetik ateratzeko ariketa intimoak, bizi-proiektuekin jarraitzeko determinazioa, berregin eta osorik agertu txikitu zintuenaren aurrean. Dimentsio intimo, pertsonal eta soziala duten prozesuak denak. Amaigabeko bidea, lineala ez dena eta egun prozesu kolektibo eta baliabideen premian dagoena.

### 7.3.1. Espazio seguruak

Ez da beti erraza suertatzen espazio segurua zeri deitzen diogun zehaztea eta definitzea. Kasu honetan dimentsio subjektiboa lehenetsiz, haiek segurutzat jo dituzten espazio-giro-pertsona-leku-taldeen ari naiz. *Etxea* sentitzen dutenak edo etxean bezala sentitzen diren guneak; ulertuak, jasoak, aitortuak eta, batez ere, arriskutik kanpo. Gertuko giro goxoa, ezaguna edo propiotzat duten hori. Horrek ez du esan nahi torturarako aukera errepikatu daitekeen testuinguruan egoteari (ala ez) edota haien estatus juridiko zehatzari garrantzirik aitortzen ez diotenik. Inportantzia sekulakoa da. Hori baino gehiago da, eta, beraz, segurtasunaren kontzeptuan gehiago sakondu nahi dut, edo jakintzat jotzen den dimentsiotik harago arakatu nahi dut.

### a) **Berdinen artean**

Kartzelaren testuingurua, ikusi dugun moduan, etsaitasunezko espazio latz bilakatzen da. Baina, horrekin batera, espazioak bertan bizi garenok eta geure arteko harremanek ere ezaugarritzen dituzten heinean, kartzela emakume\*-etxe gisa ere izendatzen dute elkarrizketatuek, kide militanteen arteko etxe gisa. Zehazki, Espainiako demokraziaren *backstage*ko infernuetatik igaro ostean, kideen zainketak jaso zituzten (g)unetzat jo dute, eta berebiziko inportantzia aitortu diote horri.

Fisikoki sendotzeko eta sendatzeko jasotako laguntza aipatzen dute; dela loa eta jana normalizatzeko, dela zauriak eta minak osatzeko medikazioaz gaindiko aholku eta akuiluak izateaz. Torturak eragindako buru-nahasketa gainditzeko, salaketa judizialerako idatzia egiteko zeregin nekezari eusteko, etxekeen aurrean agertzeko... Zainketa, ulermena, mimoa, jakintza, errespetua, elkartasuna agertu dira kideen arteko eta tortura osteko hasierako hilabetetako babestoki horren azalpenetan:

Oso gogorra izan zen espetxetik ateratzea. Han oso babestuta sentitzen nintzen, egia, oso bitxia da, zaintzen ari nintzen, barrukoak, nire familia, jasotzen ari nintzen guztiarengatik, maitea, maitasuna... ordura arte jasotzen ez duzunagatik, ni aste horietan bezain maitea sentitu ez naizelako, ausartu zaitez. Gero kalean asko estutzen nau. Bada, hori, hiru aste zeramatzan, irteeraren berri eman didate, eta niri, berriz, bular-jaitsiera amarena. Nik lauza bat balitz bezala gogoratzen dut. Nire kolkorako esaten nuen: «Orain kalera? honekin?» nik uste dut «honekin» esan nahi nuela, ba, nengoen bezala. Nora nihoan? Berriro etxera? Ez nuen etxerik, noski... gurasoen etxera itzuli behar nuen. Lauza baten antzera. Nik esaten nuen, gutxienez hiru hilabetez uzteko, ezta? Puteotzat sentitu nuen. **Alba**

Hori izan zan ja salbatu ninduen, komisaria eta gero egon nintzan beste 5 egun inkomunikatua, beraz hamar egun, eta gero iristen naiz modulora hautsita, eta hor ttak egin zidana da kideak esan zidatenean: «ei gu ere pasatu gera hortik» eta ttak... hor esaten duzu «ostras, ni zuetako bat naiz». Neretzako hori zan, ta klaro ze jendeak esan al dizu «bua, aaaa» (lastima onomatopeiak egiten ditu). Baina ez, adierazi zidatena da «badakigu zertaz ari zaren»... ze bera ere, klaro, bortxatua izan zan, eta sensibilitatea ere bai nolabait berak ere bizi... baina bai tiratzen ere pixkat, ze ez duzu kontatu nahi zen... neretzat hor gauza asko nahastutzen ziren... erruduntasuna, errua... esan duzunagatik, beste kideengatik... baina errua ere ezin izan nuelako gelditu egin zidatena, ulertu nuen arte, ikasi nuen arte nire buruari barkatzen. «Ezin zan gehio», baina hori eman arte, buf, gauetan eta flashak, bihotzaren azelerazioa... ikasi nuen arte nire buruari barkatzen... punto! **Ekiñe**

Kondizio partekatukoak edo parekoak ez dira espetxe testuinguruan kokatzen soilik. Esperientzia berdina bizi izan duten pertsonekin topo egin dute kalean ere, nahiz eta bertako espazio- eta denbora-antolaketa ez dituen espetxeko baldintza berberak eta, beraz, beti ez den erraza suertatzen. Horrekin batera, kasu batzuetan familiaren aurrean indarra adierazi nahiko den arren, beste kasu batzuetan familia eta militantzia sinbiosian agertzen dira, eta etxeoak hustutzeko eta aitortua sentitzeko leku bilakatu daitezke. Baina esperientzia parekoa izateak azalpen asko aurreztu eta ulermen-dimentsio zabalak eragiten ditu. Erabat ikusia sentitzea:

Torturatutako pertsoneri laguntzeari edo laguntzeari dagokionez, uste dut denok garelako, ez digute erakutsi zainketa hori egiten. Adibide bat jartzearen, ni komisariatik irten orduko, amarekin eta anaiarekin autoan sartu nintzenean, autoan bertan hasi nintzen egin zidaten guztia kontatzen. Ni malkoz betea, ama ere malkoz betea, eta nire anaia leihotik begira... negarrez baino gehiago amorruz eta gorrotoz zegoen. Jende askok ezin izan du hori egin. **Sara**

Hala ere, gehienak bat datoz ez dela erraza laguntzen asmatzea. Zeregin horretan, oso ohikoa omen da ingurukoak galduta sentitzea, dorpe edo hanka sartzeari beldur, eta horrek inguruan sortzen den isiltasun eta tabu modukoa dakar. Parekoak ez direnekin ez dute hitz egiten, batzuetan ezta bikotean edo familian ere. Eta parekoekin, modu ordenatu eta jarraituagoan egin ahal izatea eskertuko lukete. AEBetan, 60 eta 70ko hamarkadetan, batez ere feminismo erradikalari lotuta, sortu eta hedatu ziren autokontzientzia edo *bitch sessionsen*<sup>222</sup> antzeko dinamikaz ari dira, funtsean. Izan ere, Martinez eta al.en arabera (2021), gaur egungo osasunari lotutako elkarri eusteko taldeek bertan izan dezakete oinarria, eta gaur egun osasun-eremuko ekintza kolektibo garrantzitsua suposatzen dute, baita *ero- mugimendu*<sup>223</sup> eta mugimendu feministatik harago.

### b) Euskara erabiltzea

Torturaren bizipena izan duten guztien lehen hizkuntza ez da euskara. Era berean, bizitzan zehar euskaldundu diren guztientzat euskararekiko lotura eta praktika ez da estu eta zabala bilakatu. Hala ere, torturaren esperientzia eta euskararen artean bada bidegurutzerik. Torturatzeko euskara erabiltzeak nahastu zituela dioten moduan, funtsean haiek gazteleraz eraiki baitute *etsaia*; euskara, aldiz, haien proiektu politikotik hurbilago kokatzen dute, kultura propioa baita funtsean.

Ze niri hor hautsi zitzaidana da konfidantza, munduarekiko konfidantza. Niretzako tortura da konfidantza galtzea. Ze niri gainera torturatzailer batek hitz egiten zidan euskaraz. Horixe, orduan urte luzez niretzat izan da, ba, gizonetikiko mesfidantza... **Ekiñe**

Torturaren bizipenaren berri emateko eta tortura salatzeako orduan ere, euskara izango da hitz egin nahi luketen lekua, hortik sentitzen baitute beren burua eta beren taldea. Beraz, euskaraz aritzeak menpean hartu ez izanaren frogara eta indargunetzat dute.

Horrekin batera, euskara babeslekua da eta etxetzat dute. Batzuek hizkuntz-gaitasun handiagoa dute euskaraz, baina, halaber, komunikazio- eta emozio-hizkuntza nagusitzat dute:

---

222 Kathie Sarachildek 1978an lehenengoz horrela izendatu zituen. Hala ere, berak horrela deitu eta garatzen hasi aurretik, egiten ziren jada. Gerora, boteretze-prozesuen —*empowerment*— dinamika hortik abiatu zen. Pablo Freirek proposatutako Hezkuntza Herritarrak ere antzeko pedagogia eta metodologiatik edaten du. Eguneroko bizipen, sentimendu eta arazoetatik, kontzientzia meso eta makrorako bidea egitea eta, modu horretan, eraldaketa askatzaileko praktikaren proposamena garatzea. Autokontzientzia-taldeak osasunaren integritasun eta kudeaketarekin lotuz ere garatu ziren, bereziki komunitate beltz eta indigenek AEBetan egin zuten autolaguntza-taldeen berrapropiazioen bidez. Ikus gehiago: Dudley Hannah, 2016

223 *Movimiento loco edo orgullo loco* deritzan mugimenduaz ari naiz.

Ez dut gogoratzen zer galdetzen zidan psikologoak. Gogoratzen dut nolakoa zen kontsulta eta nolakoa zen. (...). Baziren esku-ohet bat, mahai bat eta flexo bat, argia erdi jarrita bezala. Mota bizarduna zen, erdi txikitina, gaztelania hiztuna. Eta puntu hori txokatu egiten zait, nire bizitzan batez ere euskaraz hitz egin dudalako, eta, noski, ez zait erraza iruditzen nire sentimenduez gaztelaniaz hitz egitea. Uste dut orduan esan niola: «Ez naiz itzuliko, e?» **Sara**

Gehienek ez dute horretarako aukerarik izan, bereziki estamentu formaletan eta epaitegietan. Egiari zor, datuen arabera, gehienek ez dute ahozko testigantza ofizialik emateko aukerarik izan, baina aukera hori irudikatzen dutenean, ideia horrekin esna ametsetan ari direnean, euskaraz egiten dute, eta euskaraz egiteari garrantzia aitortzen diote.

Bai, eta euskaraz egitea. Nik euskaraz egin nahi dut. Aurrekoan zein hizkuntzatan egin hitz egiten ibili ginen, eta azkenean gazteleraz erabaki genuen, ba zuzenagoa zelako, ez genekilako nola itzuliko zuten... betikoa ezta? Baina nik euskaraz egin nahi dut, gure hizkuntza. Ni agertu. Ni osorik. Ez nauzue garaitu. Hemen nago. **Ekiñe**

Agurtzane Uriarteren lekukotzan agerian geratu da emakumeen\* subjektibitatean txukun jantzita joatea, bereziki polit sentitzea, botere- eta indar-iturri dela emakume\* eraikitakoentzako. Bada, mingaina euskaraz jantzita joatea indargune da, euskaraz eraiki direnentzako eta euskaldun gisa zanpatuta sentitu direnentzako.

### c) Terapia

Ikerketa honetako denek ez dute terapia egin, eta ez dute terapia egitearekiko iritzi edo kokapen berbera. Batzuek beharrezkotzat duten arren, ez dute egin nahi, ireki beharko luketena gehiegi delakoan eta, beraz, bidean apurtuko direlakoan. Beste batzuek premia ikusten dute, baina ez daude prozesuak dakarren inbertsio ekonomiko eta bestelakoa eskaintzeko moduan. Azkenik, badira haien erabakiz edo hurkoren batek bultzatuta tortura lantzeko terapia egin dutenak. Horietako batzuk Istanbulleko protokoloa parte ere izan dira eta, kasu gehienetan, sostengu psikologiko landuaz bizi izan dute prozesu hori. Modu batera zein bestera, terapia prozesu gogortzat dute, baina, halaber, bizitza aldatu diela ere argudiatu dute. Haien buruak onartzeko eta ulertzeko prozesutzat dute, une zailtan aurrera egiten lagundu diena.

Bakoitzak hautatutako bidea ez da torturan aditua den psikologoarengana edo psikiatrarengana joatea. Batzuek erabaki duten terapia ez da ezta psikologikoa, terapia egiteko beste bide batzuk jorratu baitituzte. Funtsean, gaur egun gizartean osasun mental-emozionalari lotuta dauden eta eskura dituzten bitartekoak erabiltzen dituzte<sup>224</sup>. Garrantzitsuena da, gune horietan, biko edo jende gehiagoko harreman horretan, tortura bizi izan duten emakume\* gisa aurkeztu direla, haien esperientzia lantzeko laguntza behar dutela aitortu diotela beren buruari eta besteari, eta torturaren bizipenari lotuta egunerokoan bizi dituzten gauzak beste pertsona-terapeuta horrekin

---

224 Maria Zapatak, doktorego-tesian (2019), osasun mentala eta berau gainditzeko estrategiak landu ditu. Bertan ageri diren bide eta aukerak errepikatzen dira.

partekatzen dituztela. Harreman horietan eroso, gustura, hasten eta batez ere, torturarekiko modu indibidualean zerbait egiten ari direla sentitzen dute. Seguru sentitzen diren (g)unea da.

Askotan azpimarratzen dute: *guri gertatu zaiguna ezin diogu edonori kontatu*. Torturaren fenomenoaz ezagutzea, Euskal Herrian hartu duen formaren berri izatea, ez kuestionatzea, ez epaitzea haien jardun politiko edo armatuagatik, esate baterako, ez dira normahirekin aurkitu daitezkeen baldintzak, Iruñeko parlamentuko lekukotzan Ainara Gorostiagak esan bezala. Espazio segurua izateko beharrezko ezaugarrien artean, haien komunitate politikoa, subjektibitate politikoak eta kultura ezagutzeari garrantzia handia eman diote, behar-beharrezkotzat jotzen baitute haiek ulertzea, terapia zinez eraginkorra izateko. Eta horren barruan, feministak izanez gero, hobe dela diote.

### 7.3.2. Tresnak, moduak

Torturak aldi ezberdinak ditu: tortura bizi den unea, tortura osteko lehen hilabeteak, eta osteko bizitza osoa, finean. Aldi bakoitzeko baldintzak eta premiak berdinak ez diren arren, kasu honetan orokorrean hitz egingo dut, azpimarratu nahi dudana erabilitako estrategiak eta tresnak direlako.

Norbanakoak bere biografian leku esanguratsua izan duten pertsonekin duen harremanean eragin nahi du tortura-sistemak, oinarritzko loturetan: bikotea, gurasoak, seme-alabak, lagun minak eta borrokako kideak. Azkenak inportantzia handia hartuko du, zeren, torturaren bidez, norbanakoaren eta bere pertenezia-komunitatearen arteko loturetan eragin nahi baita; zehazki, lotura apurtzea edo, bederen, ahultzea du helburu, pertsona baten gorputzarekiko dominazioak bere parekoen dominazioa bilatzen baitu, haiek ere men egitea (Beristain, 1992; Montagut 2016), lagun horren gorputz eta bizipena beste guztiekiko mehatxu bilakatzen baita. Jazartzen dena, jipoitzen dena, iraintzen dena, birrindu nahi dena, norbanako horrek ordezkatzeko duena da; bere pertenezia eta egitasmoa, bere izatea, funtsean. Eta justu, Luari, tortura-egoeran aurrera egiteko erabilitako estrategia edo akuiluei buruz galdetuta, aipatu du ezen, tortura-egoerako talkan, jokoan zegoena, polizia eta norberaren arteko sokatira izan beharrean, Estatu Espainolaren hordagoa eta Ezker Abertzaleak materializatzen zuen independentziaren gogo eta egitasmoaren arteko talka zela. Torturatuak apurtu nahi zen herri-proiektua eta torturatuak inposatu nahi zen herri proiektua ordezkatzeko zituztela ez ahaztea, finean.

Ba uste dut oinarrian dagoen gauzetako bat da jabetzea ez dela norberaren aurkako zerbait, dela herri baten aurkako tresna bat, daukaten tresna bat. Beraz, hor gertatzen denaz harago dagoela gauza, o sea, ez txikitzea kalabozo batean gertatzen denari, o sea, indarra ez datza hortan. Eta hortik, gela horretatik mentalki ihes egiten jakitea... ez galtzea zure oinarriak... ba horrek... O sea, kokatzea ongi zer den polizia bat estatu batean, ze helburu duten, horrek indartu egiten ninduen, osea iparra ez galtzea. Atxilotu aurretik estatuarekiko eta estatuaren poliziarekiko dakizun guztia ez galtzea, ez ahaztutzea momentu batean. Buru ihesaldi horietan ez dut esan nahi joatea leku idilikoetara, baizik eta beraien astopotrokerian ez erortzea. O sea, badakizu zer egiten duen poliziak eta hori pairatu dezakezula, baina burua ez galtzea. Nik garaietan gogoratzen dut gazte harrapatu ninduten, orduan ez nintzen gazte alaiaren harrotasunetik jeitsi, osea edo alde egin. **Lua**

Luak aipatu estrategia baliagarritzat dakusat, torturak bost egun baino gehiago irauten duenean. Funtsean, pertsonak harremanetan gara. Ezin pentsa dezakegu gutasun gabeko nitasunik. Are gehiago, kasu honetan aztergai ditugun subjektibitate politikoak direnean, azken finean, independentismoak, sozialismoak eta horien aldeko borroak egiten zituen nor. Niaren gua hautsiz, beste ni bat erdituko da. Eta nitasunik gabeko gurik ez da posible. Horixe da, boterearen bidez pertsona bereganatuz eta menperatuz bilatzen dena. Norbera bere buruan eta bere buruarekiko arrotz bihurtzea. Horretarako, beldurrak, konfusioak, erruak eta lotsak osatzen duten laukotearen bidez, lotura sozialak desegiteko helburua du torturak, kideen arteko konfiantzan ere eragiten duelako.

Jarraian, berregiteko zereginen eta bidean baliagarriak suertatu zaizkien moduak eta urratsak ekarriko ditut lerrootara; besteak beste, herritarren aitortza, umorea, salaketa eta formazioa.

**a) Aitortza: askotariko *Nik sinesten dizut isilak***

*Nik sinesten dizut* leloak, biolentatua izan den kidearen hitza ezbaian jartzen denez gero, justu kontrako bidea egin nahi du: azalpen handiegiren beharrik gabe, haien egia zilegitasuna ematea eta aitortzea. Bada, ikerketa honetako emakumeek\*, atxiloketa ostean, kartzelan egon ala kalean egon, esan gabeko *nik sinesten dizut* mordoa jaso izan zituztela geratu da agerian.

Polizia-etxeak behin atzean utzita, jendea hurbildu zitzairen herrian, auzoan, lanean edo ikastetxean, haiek ere antzeko esperientzia izan zutela adieraziz, bizitzen ari zirena ezaguna zitzaizela esanez eta adorea helaraziz. Batzuetan, alde zurretik ezagutzen ez zituzten herritarrak; besteetan, ezagunak zituztenak baina tortura bizitakoak zirenik ez zekitenak. Kartzelako kasuan, gutun esanguratsuak jaso zituzten.

Nik uste dut, bai, aitorten kolektibo bat badagoela, ikusten duzu keinuetan, edo deitzen didatenean torturaren inguruko zerbait dagoenean, deitzen naute leku askotatik, eta horrek pentsarazten dit ba gutxi jartzen dela dudan. (...) eta ez dakit den lortu dugulako torturaren erabilpen sistematikoa gizarteratzea eta orain ez onartzea lekuz kanpo dagoelako. (...) Hasieran, nahiz ta begiratu en plan «gaixua», ba argi dago esan nahi duela sinisten dutela. Niri, pertsonalki, aurrez aurre inork ez dit ukatu egin didatena. Beti egon da afirmazio bat eta oso positiboak... «oso gogorra izan da baina oso ondo adierazi duzu», edo nire familiarengana joan izan dira esatera «esaiozu Ekiñeri eskerrik asko», hori dena iristen zait. **Ekiñe**

Ezagunak eta hurbilak dituzten pertsonen aldetik ere keinu, aupada, begirada edo familiako kideei esandako mezuen bidez sinetsiak eta aitortuak sentitu dira. Zerbait behar duten galdetuz edo gauza zehatzak eskainiz hurbildutako pertsonen (preso egonez gero dirua, arropa, janaria, kotxea) elkartasuna horrela ulertu-interpretatu izan dute. Euskal gizarteko batzuen aldetik, aitortza herritarra zutela sentitu dute, beraz.

¿Cómo lo recibo? De diferentes maneras, algunas veces ha sido con un abrazo, que ha sido reparador (en algunas ocasiones ¿eh? que yo lo de los abrazos lo llevé fatal, aunque unos eran reparadores), de gente que para mí era referente también, puede ser, no tanto políticamente sino académicamente,

por ejemplo, eso me paso en la Uni. Hubo gente que me contó su propia experiencia de tortura, que yo no la sabía, aunque le conociera... **Alba**

Zenbait kasutan, haien atxiloketen ostean, udalbatza elkartu izan zen, eta mozio bereziak aurkeztu ziren. Bertan eztabaida biziak eta herritarren elkarretaratzeak ere jazo izan zirela diote, eta tarteka sorpresa baikorrak ere bai, oro har tortura ukatzen zuten pertsona edo alderdiren bateko kideen aldetik. Kasu bakan batzuetan mugimendu feministaren prentsa-agerraldiren bat ere jaso izan da. Ekimen horiek guztiak aitortza-ekimen gisa sentitu zituztela azpimarratzen dute.

### **b) Umorea**

Aitortuak sentitu direnekin eta, are gehiago, torturaren bizipena izan dutenekin, umorea sentimendu batzuk askatzeko eta kanporatzeko tresna izan dela diote; baliagarria, gertatu zaiena hobeto ulertzeko. Beste modu batera esaten ausartuko ez ziren gauzak atera omen dituzte horrela, eta, barreen artean, tortura-egoeran besteei ere antzeko tranpak-trantzeak, gezurrak-baliabideak ezarri dizkietela jakin dute. Are gehiago, haien kondizio ez-deusaz ere barre egiteko gai izan dira. Horrek ez du esan nahi bizipen hori irrigarria zitzaienik edo zaienik, baizik eta, akaso beste baliabide batzuen faltan, ahots-goran eta taldean aritzeko beste biderik egiten asmatu ez dutela.

(...) también se daba que entre las personas que habíamos sido torturadas como una especie de vinculación, que a mí me hacía sentirme muy bien, aunque no habláramos. A mí me ha ayudado mucho y nos hemos echado muchas risas. Me acuerdo una vez grabando una mesa redonda que hicimos con gente de diferentes sitios y de diferentes cuerpos policiales, me río porque cuatro cámaras y... parecía que estaban grabando una película... ja ja... (...) me acuerdo de nuestros comentarios (...) y nos reíamos, y la gente que estaba grabando nos miraba como... (pone cara de incredulidad). Esa vinculación no la compartíamos con otra gente porque otra gente no se reía de nuestro humor. Y a mí el humor me ha parecido crucial, yo me he reído mucho. **Alba**

Hasta en los peores momentos. Ni orain gogoratzen dut torturatu ostean, Iratigaz txabolo berdinean, yo te juro que a mí nunca me ha pasado tener agujetas en la tripa de reír, eta agujetak nituen! Todo el rato riéndonos, hasta tener agujetas. Es que inoiz ez dut bizi izan hori, y después de cinco días... que si ahora lo cuentas y flipamos. Eta zergaitik? Las dos... elegimos ese camino, simplemente. **Mari**

Umoreak egoera bakoitzean askotariko funtzioak bete ditzake, eta nik tristezia, haserre-amorrua, beldurrari aurre egiteko edo haien ondorioak leuntzeko bitarteko bilakatzen den horri erreparatu nahi diot, baita alaitasunari deitzeko bide gisa ere. Umorea eta barrea, lekutua den une zehatz bateko egoerari eta barrea konpartitzen duten pertsona horiei loturik dagoen heinean, beste hainbat esangura izan ditzake, dominazio-egoera bati aurre egitea, kritika soziala egitea eta itxaropena elikatzea, besteak beste. Beraz, zentzu horretan, estrategia ere bilakatzen zaigu. Barrea eta umorea aztertu dituen Ana Maria Fernandez Poncela antropologoak ondokoa dio:

La risa libera la tensión dramática que impone el mundo, vertiendo un carácter de ridículo, de inesperado y grotesco a cuestiones muy serias. Cuando se alegra la vida se soporta, se aguanta, se



subsanar los peligros, los miedos y los dolores. Por lo tanto, dar media espalda al mundo es reírse de él; el humor relaja porque produce aceptación (de lo existente) y negación (de su conflictividad). Pero igualmente, en sus pliegues existe una manera crítica, resistente e insurrecta para confrontar las formas de poder y dominación. El chiste colorea los grises y las sombras que pueblan la tristeza. Así, en momentos de tensión, el humor no sólo acerca, no sólo acompaña, no sólo cobija y rodea; también humaniza al abrir el camino a momentos de intersticio, para dar lugar a una forma de vida que deviene esperanza y destituye el lugar del miedo, del horror y de la desconfianza (Fernandez, 2012:13).

La risa puede ser y es, un síntoma de alivio tras la tensión de un gran enojo o mucho miedo. Desbloquea y recarga energía, comunica y eleva el estado de ánimo. Quizás no es exacto lo de huir de otras emociones. Tal vez sólo es un alto o descanso en el camino o desarrollo de las mismas. A lo mejor se trata de evitación, negación o simple insensibilidad. (Fernandez, 2012:16).

Beldurrarekiko eta minarekiko pertzepzio sozial ezkorra izan ohi dugu, eta barrea, aldiz, zorientasun ikurtzat dugu. Emakume\* hauek bizi izan dituzten testuinguruetan, azterketa sakonagoa eginez gero, pertzepzio dikotomiko horien arteko marra lausotu daitekeela ikusiko dugu, eta horrela uzten dute agerian beste ikerketa batzuk ere (Hunt, 2008; Esteban, 2018). Horrekin ez diot mehatxu edo bortxari indarrrik kendu nahi, biziirauteko estrategia eta transgreditzeko estrategia eta bide izan daitekeela azpimarratu baizik. Ondorioz, ikusiko dugu beldurraren eta barrearen arteko distantzia eta loturak ez direla horren urrunak, beraien arteko elkarrekintzak aberats eta emankorrak izan baitaitezke, zeren, funtsean, biak ala biak eraldaketa prozesuetarako garrantzia handikoak baitira, ekintza kolektiboaren esanahia zabalduz gero.

### **c) Kontatu, salatu, militatu**

Lekukotzari lotuta, gogoeta eta eztabaida franko azpimarratu daitezke, baina, nire ustez, bi dira nagusi: bata, tortura kontagarria den inguruko eztabaida akademiko eta filosofikoa da. Shoah edo holokaustotik landa, biziezina da, eta biziezina izate hutsagatik kontaezina bilakatzen dela defendatuko dute batzuek, eta kontrakoa besteek, esanaz isiltasunak ulertzera irits gaitezkeela eta beste lengoaia mota batzuk baliagarriak direla: literatura<sup>225</sup>, gorputz-mugimendua... Nora Strejilevich-en (1997), Mariana Tellor-en (2012) eta Catalina Sosar-en (2022) lanak hiru diziplina ezberdinetatik egindako saiakera eta bilaketa dira, zentzu horretan<sup>226</sup>. Esku artean duzun lana, saiakera horiekin lerratzen da; bestea historia eta memoriaren arteko eztabaida da, ahozko lekukotaunen ingurukoa, sinesgarria den ala ez den auzi eztabaidatsua<sup>227</sup>.

---

225 Literatura egin daiteken ala ez ere eztabaidagai dago. Idazketari buruz lan egin du Gorje Semprunek (1995 eta 2016) eta lengoaiaren garrantziaz Leonor Arfuchek (2018).

226 Gehiago jakiteko: Oberti, Alejandra., eta Bacci, Claudia. (2014). Sobre el testimonio: una introducción. *Clepsidra. Revista interdisciplinaria de estudios sobre memoria*,1(1), 5-13.

227 Gehiago jakiteko: Jelin, Elizabeth. (2002). Historia y memoria social. *Los trabajos de la memoria*, 63-78. Ricoeur, Paul. (2007). Historia y memoria. *La escritura de la historia y la representación del pasado. Historizar el pasado vivo en América Latina. Santiago de Chile*, 1-27. Landaeta, Romane (2018). Historia y memoria: debates y tensiones en el siglo XXI. *Revista de la Academia/Volumen 25/pp. 55-85.*

Nire asmoa ez da, inondik inora, eztabaida horietan bereziki sakontzea; hori baino, aztergaia aintzat hartuta, adostasun gabeko paisaia hori kontuan hartu behar dela azpimarratzea da. Zehazki, tortura bizi izan dutenentzat hitza hartzea, lekuko direla jakitea, lekukotza emateko sentitzen duten betebeharrak moralari jarraitzea (Pollak eta Heinich, 2016), torturaren aurkako militante bilakatzea eta noiznahi hura salatzekeko prestutasunari ekitea dira hemen nabarmendu nahi ditudanak. Are gehiago, pairatu duten biolentziaren zentzu politikoa lantzeko modua ere bada, eta horrek trauma gainditzeko aukerak handitzen ditu (Bacci et.al. 2014).

Leonor Arfuchek (2002) dio norberaren bizitza edo bizipena kontatzea esperientzia hori objektibatzeke modurik oinarritzkoena dela. Sara, Ekiñe, Lur eta Albarentzat, kontatzea eta salatzea, eta torturaren aurkako borroka haien bizitzetako ardatz garrantzitsu bilakatzea inportantea izan da.

Tortura ere sartzen da egunerokotasunean salaketa moduan, eta edozein espazio aprobeztatzen saiatzen da «sekretua» salatzeke eta agerian uzteko, prentsaurrekoetatik, txostenetatik eta adierazpenetatik haratago, euskal gizartearen zati handi baten belarrietara eta begietara iristen ez dela dirudienean:

Geroago, unibertsitatean ikasten ari nintzela, kartzelan sartu baino lehen, Orwelen *1984* liburua irakurtzeko eta paragraforen bat aukeratzeko agindu ziguten. Nik torturak kontatzeko orrialdeak aukeratu nituen, atal hori aukeratu nuelako galdetuko zidatelako. Eta horrela iritsi nintzen zain nengoen «zergatik?» hura, eta esan nuen: Niri gauza bera gertatu zaidalako eta hau idatzi duen pertsona torturatu egin delako, bestela ezin izango zukeen horrela idatzi. Garai batean, irakasle horrek prentsan idatzi zuen hogeitau urte baino gehiago zeramatzala eskolak ematen, eta horixe izan zela eskola magistrala ematen zioten lehen aldia. **Sara**

Edo, beste kasu batzuetan, edozein tokitan kontatzea, publiko egitea; hau da, salaketa eta borroka publikoa berreraikitze pertsonal eta politikorako tresna gisa:

Adibidez, torturari buruzko hitzaldi bat eman nuenean, 500 pertsonaren aurrean. Fakultatean izan zen. Hasieran gela txiki batean deitua zegoen, baina aldatu egin behar izan zen jendea ez zelako sartzen, 500 pertsona zeudela uste dut. Eta hitzaldi bat emateko gogoan nuen, hasieratik hartu bainuen erronka pertsonaltzat torturaren gaia, ez dakit nola esan. O sea, pentsatu nuen «hau jakin egin behar da, hau ezin da isildu». Orduan, ematen zidaten edozein aukera hartzen nuen, edo nik ikusten nuen beste edozein aukera, gaia ateratzeko aprobeztatzen bainuen, nire eta besteen gainean zerbait egiten ari nintzela sentitzen ari nintzelako. Egin behar hori sentitzen dut, kontatu ezin duten pertsona guztiengatik. Niretzat hori zen, subjektu izatea, hori izan zen nire terapia: subjeto politiko izatea. Borrokatzea izan da nire terapia. Eta hor nago, eta epaiketara joatea erabakitzen dut, eta hori da nire defentsa. Nire ustez, aurrerapauso handia izan zen, pertsonalki ez ezik, kolektiboki ere, tortura salatzea tortura babesten zuen auzitegi horretan, telebistaz gainera. Eta jaiki eta kontatu nuen. Horrek utzi zidan txikia sentitzen. **Ekiñe**

Albak dio espetxean bertan erabaki zuela berriz militatzen hastea, eta torturaren eremuan aritzea. Horrek haien bizipenari zentzu bat, norabide bat eta balio bat ezartzen/eskaintzen diela esan digute.

#### **d) Formazioa, jakintza, ulermena**

Berrosatze-prozesuetan norberaren onarpena ere sartzen da, eta zeregin horretan oso garrantzitsua da espermentatutakoa ulertzea; esate baterako, Albak, Ekiñek, Lilik eta Sarak kontatzen digute haientzat hori mugarri bat izan dela. Besteak beste, polizia torturatzekeko darabilen tekniken nondik norakoak, horien konbinazio motak eta zergatiek, bizi-ezingarritasuna sortzeko moduak, torturaren partaide eginarazteko bideek, jazarpen sexualaren arduradun sentiarazteko erak, nahasmena eta ahuldadea eragiteko formak ezagutzeak, haien esperientzian kokatzeak, haien egungo portaeran identifikatzeak... boteretu egin ditu, haien buruari dagokion baino erantzukizun gehiago ez egotzen lagundu die.

Gero konturatzen zara, denboraz, eta gaia lantzen duzunean, ba... adibidez, pertsona batek kartzelatik ateratzean esan zidan: «Izan ere, zuri garrasi batek hautsi zaitu eta beste bati belarrondoko batek, eta beste bati agian elektrodoak jarri dizkiote, eta ez gili-gili ere egingo, eta beste bat miserian hondoratuko da. Eta hori dena ondo kalkulatuta dago». Eta hor hasi nintzen gaiak ikasten eta onartzen. Nola ikusten dut dena gaur egun? Bada, ez dagoela graduaziorik, hau atxilotzen dizutenetik, hortik aurrera zer taktika erabiltzen duten, baina ez da gutxiago edo gehiago, eta zein da torturaren helburua? Bada, ez da informazioa ateratzea, hori bazuten. Pertsona gizatasunez eta politikoki suntsitzea da, eta are gehiago makurraraztea, emakumeen kasuan. Beldurra sartu, militarzera ez itzultzeko, etxean geratzeko, emakume eta gizon ona izateko eta kito. Hori da bere helburua. Eta ni horretaz konbentzitu nintzenean, haien helburua etxean geratzea zela, hor klaka egin nuen, aurrera. Eta hori egun batean izan zen, gogoan dut etxean nengoela, manta korapilatsu eta txar batekin, eta puffa, pentsatu nuen «hau nahi dutena da, horrela eduki dezatela» eta esan nion: «Ezin dut hori niri egin, ez nire inguruari, amari, anaiari, aitari... ezin dut». Hori bai, oso ondo gogoratzen naiz, orain ikusten ari naiz: dutxan sartu nintzen, oso pitikia jantzi nuen, eta, nire ustez, ez nengoen denborarekin gogoratzen. **Sara**

Ni kaleratu nindutenean, lotsagorritzen hasi nintzen. Lotsarena kontrolatu ezin nuen sentimendu bat zan. Bat-batean jendeak kartzelan egon izanagatik beste begi batzuekin begiratzen ninduen, la ostia banintz modura. baina ni barrutik kaka mierda bat sentitzen nintzen, lotsatuta komisaldegiko esperientzia dela eta. Klaro, nik ez nekien zergatik ostia lotsagorritzen nintzen, batez ere jende militantearen aurrean e?! Bueno, gero joan nintzen ulertzen. Psikologoek kriston formazio-lana egin dute gurekin. Ez dakit zergatik ez den info guzti hori a sako banatzen. **Lili**

Ez dakit, ez da burdina kentzeagatik, baina nik inoiz ez dut pentsatu batzuei eltzea bota eta ostikeriaz jokatzeko dutela. Ez, une bakoitzean beren teknikak zituzten, eta hori erabiliko zuten. Baina uste dut 90eko hamarkadaren amaieratik aurrera, zientifikoago bihurtzen dela, adibidez... baina batzuetan, Unairen [Romano] kasuan bezala, ezta? Edo markak utzi dituzten beste batzuk, eta hori ez litzateke bere profesionaltasunean gertatu behar. Baina ez dakit, beharbada, neure neurriko lana egiteko ere balio zidan, niretzat, norbaiti erantzukizunak eskatu nahi badizkiot, torturatu egin ninduten, niretzat ez baitira erantzukizun handiena dutenak eta horrela egiten dut, tortura zela aztertu nuenetik. O sea, erabateko argitasuna da... auzitegiko medikuarena, epaitegiarena. Izan ere, zientifikoa da; izan ere, zuk adierazpen bat egiteaz gain, jendea desmobilizatzea ere lortzen dute, nik hori jende askoan ikusi dut. **Alba**

Badirudi torturaren teknikak eta «jokoak» metodologia baten, helburu orokor eta zehatz batzuen (epe labur eta luzera) testuinguruan jartzeak irakurrerazagoa, logikoagoa eta indar

gutxiagokoa egiten duela, horrek nahasketa, errua eta lotsa, arinduko balitu bezala, funtsean torturaren praktikaren ondorio diren funtsezko hiru sentimendu gogor. Horrek esan nahi du sentimendu horiek partekatzeak, bateratzeak, bide horretan aurrera egiten laguntzen duela; izan ere, norbera konturatzen da partikularra, berezia edo oso pertsonala zela uste zuena oso arrunta, kolektiboa eta, ondorioz, politikoa dela, nahita jazarri eta eragindako sentimenduak direla, desaktibazio politiko, indibidual eta kolektiborako. Beste herrialde batzuetan, antzeko testuinguruetan antzeko bideak erabili dituzte estatuek, baina, halaber, lekuan leku, helburu espezifikoak ere egon dira (adibidez, Hego Konoaren kasuan, desagerraraztea lehenetsi zuten estatuek, eta ez autoinkulpazioa); eta berdin Euskal Herrian (azken finean, estatu bakoitzak unean duen zilegitasun- eta zigorgabetasun-mailak eta estrategiak du eragina). Izan ere, atxiloketa guztiak ez dira berdinak; poliziak bilatzen zuena ere ez da berdina. Esate baterako, ilegalizazioaren hastapenetako sarekadetan, ez zuten informazioa bilatzen, pertsona eta antolakunde horien jarduera publikoa baitzen. Helburua mina sortzea eta borroka-dinamika politikoa etetea zen.

### 7.3.3. Mugarriak

Torturaren praktikan, mendean hartu nahi dena eta baieztatu nahi dena ditugu aktore nagusi. Ikusi dugu torturatzailerak ez dagoela bakarrik, ezta torturatua ere. Kasu bietan, atzean dagoen proiektuan eragitea da helburua; batek txikitu, eta besteak babestu. Bakoitzak aurkakotzen diren proiektuen arteko talkan, arraza, etnia, generoa, klasea, hizkuntza, kokapen geografiko eta geostrategikoa, erlijioa eta sexualitatea bezalako faktoreen arabera botere-harremanak daude jokoan.

Bada, tortura darabilen proiektu politikoa, kasu honetan estatua, eta tortura erle bat balitz, torturatuaren gorputz eta iruditegi barruan bere eztena uzten saiatuko da. Nahita, marka, aztarna eta orbana utziko ditu, tortura eragin duenaren botere-baieztapen iraunkor gisa, orbana, memoria leku bat delako, gorputza memoria delako (Clastres, 1973). Beraz, torturak denboran mantentzea izango du helburu. Baieztapen-ariketa horiek denetarikoak izan daitezke. Torturatzailerak, diktadoreak eta genozidak goratzea ez da gauza berria; Euskal Herrian ere, ohikoa da frankismoak utzitako kale-izendegiak edo egungo torturatzailerak goratzen dituzten albisteak entzutea. Beste maila batean, tortura soilik ez diren beste biolentzia politiko batzuen memoria eta baieztapenak ezagutzen ditugu. Esaterako, berriki, duela laupabost urte *Black Lives Matter* mugimenduaren eskutik, Virginian (AEB) Williams Carter Wickham-en monumentua bota zuten. Ondoren, Cristobal Colonena eraitsi zuten Bostonen (AEB) eta Edward Colston-ena Bristolen (Bretainia Handia). Eta horrela, lehen munduko hirietan zeuden esklabista, genozida eta arrazisten estatua eta monumentuak apurtu, bota, margotu eta salatu izan dira, azken laupabost urteetan. Monumentu horiek zurien supremazia baieztatzeke ariketa dira, beltzen herria menpe hartu izanaren gogorazlea eta menpe hartzeko deigarria. Monumentu horiek beltzen herriak bere azalean daramatzan orbanak dira, sarraskiak belaunaldiz belaunaldi utzi duen orbana, gure gizarte eta zibilizazioek egin dutenena, baimendu

dutenena, egun isiltzen dutenena. Gure gizartearen orbanak dira, funtsean. Bada, orban horietan aritzea eta lan egitea funtsezkoa da berrosatzeko, norbanakotik hasi eta mailarik makroeneraino.

Atal honetan, ikerketan agertu den eremu intimoari leku egiten ari natzaio. Torturaren eztena norberaren gorputzetik eta sexualitatetik ateratzeko ariketa. Horregatik, gorputz-memoriak salatzen dituen orbainetan eragitea, torturazaileen afirmazio ariketa etengabekoa desegiteko modua ere bada, tortura oraina delako<sup>228</sup>. Ariketa interesgarria litzateke, Euskal Herrian ere, orbanak arakatu eta afirmaziorako eraiki diren geure azaleko monumentu eta estatua horiek eraisten hastea. Orrialde hauetan, torturaren orbain batzuetan arakatuz, tortura-marka batzuk desegin eta, kasu batzuetan, gorputzetik ateratzeko prozesuan bizitako mugarrietan jarriko dut arreta.

Ikusi dugun moduan, kaltetutako pertsonatzat hartzeko eta inguruko jendeari jakinarazteko edo zauriek eragindako dardara desegiten saiatzeko, espazio seguruak behar dira. Hala denean, hainbat ekintza sartzen dira egunerokotasunean, tortura azaleratzen da, eta pertsona bakoitzak egiten duen ibilbide-orri ez-lineal eta partikular horren parte dira; esperimentatutakoa ulertzen saiatzen da, korapiloak desegiten ditu, eta, azken batean, norbere burua berregin eta «polizia bere gorputzetik ateratzen» du, Lilik dioenez, bere gogotik, sexualitatetik, emozionaltasunetik. Lili bera izango da egoera horietako baten berri ematen lehena:

Gure herriko jende talde bat joan ginen urte amaieran mendiko txabola txiki batera. Belaunaldi arteko talde bat ginen, konplizitate handiko giroa sortu zuena. Herriko talde feminista sortzeko prozesuan parte hartu genuen, lankide baten espetxean oinarritutako dantza-pieza bat egiten lagundu genuen. Maitasun, aintzatespen eta sormen handiko lotura baten parte ginen. Egun batzuetan, gure herriko jende gehiagok bisitatu gintuzten, baita mutilek ere. Baina kontatu behar dudau hau joan ziren egunean gertatu zen. Pertsona gutxi geratzen ginen txabolan, adiskidetasunean hurbilenak. Eguerdiko 13:00etan izango lirakeke, eguzkia aldera. Nik banekien nire lagun bat tortura-esperientzia prestatzen ari zela garai hartan, eta txabolatik ateratzean, mendira begira ikusi nuen, oso bakartuta, eta, beraz, leku hori errespetatzea eta beste bi lagunekin txabolan sartzea erabaki nuen. Nire laguna nire atzetik sartu zen tarte batean. Lurrean etzan zen ahoz gora, eta eusteko eskatu zuen. Negarrez ari zen, dardarka... mina, amorrua, tortura botatzen ari zen. Gero, lasaitu ahala, gure eskuak hari eustetik laztantzera igaro ziren. Gu ere gustu hori sentitzen genuen, baretasun hori, eta gure eskuekin bat egiten genuen. **Lili**

Alta, Lilik beste pertsona batekin bizitakoa ez da ikerketa honetan agertu den gorputz-esperientzia bakarra izango. Albak, tortura ostean, barruan gorputza hartu zion korapilo maltzur eta itsusi moduko bat egin zitzaioa dio, berak izena eta guzti eman ziona; *alien*. Berarentzat, alien edo animalitxo horrek tortura ordezkatzeko zuten, hori da sortu zuten esanahia, torturak bere barruan egindako zaurietako bat, sexuala. Bada, egun batean, aliena (eta, beraz, tortura), alutik behera atera zuten, haize hotz hormatuaren itxuran.

(...) la sexualidad, que me di cuenta hace un año... pues yo desde que había pasado por la tortura, yo hacía así (señala un lugar entre el estómago y el útero) y sentía que tenía un alien, cuando me

---

228 *Bi arnas* (2022) dokumentalak ere maila ezberdinetan agerian uzten du tortura gaur egungo arazoa dugula.

cabreaba, me enrabetaba, sentía así físicamente, o sea, le llamaba *El Alien*, como un monstruo dentro ¿eh? Y lo situaba así, aquí... incluso viendo un telediario, de algo que me afectase, alguna detención o... pues era como despertar algo de mí, de malestar del copón, y yo le llamaba *El Alien*. Le había dado un nombre, le había dado un espacio, aquí... que puede estar también relacionado con no haber podido llevar adelante un embarazo. Eso de psico-somatizar. Pero desde el principio ¿eh? Y además lo decía «jo ya se ha despertado *El Alien*», y era una forma yo también de entender lo que me provocaba. (...) la primera vez que estuvimos, se despertó *El Alien*, entonces lo vi claro. Y ¿cómo se despertó? Pues yo le decía a mi pareja, «¿pero tú no lo sientes?» porque tenía una corriente de aire que me salía de la vagina, una corriente de aire frío. Lo sentía, y pensaba que era algo tan físico que ella lo tenía que sentir, pero ella no lo sentía. Y claro, entonces me bloqueaba, y me venían imágenes de comisaría, y claro... nos poníamos a hablar, y no había manera. Y eso pasó durante todo un mes, porque nosotras seguíamos manteniendo relaciones sexuales, yo estaba super a gusto, pero era como... cuando ya te dejas y vas a tener un orgasmo, pues ahí me bloqueaba. Entonces llamé a mi terapeuta y le dije que tenía que trabajar eso. Le decía que tenía *El Alien* dentro y no me deja, que no me dejaba tener relaciones plenas o satisfactorias... o sea, no hace falta tener ocho orgasmos, pero eso... y me venían imágenes ¿e? Y eso es jodido. (...) Pues nada, fui a la cita con la terapeuta, y yo ya el día anterior lo había elaborado, y bueno, la terapia esta es de Polaridad, una terapia basada en energías, tipo Reiky que te pone las manos y todo eso... y trabajamos en la camilla, y fue brutal. Ella misma estaba flipada... porque fue como una pelea, yo me retorció en la camilla, porque yo le estaba echando y *El Alien* no quería salir. Esto se lo cuentas a cualquiera y piensa que estoy colgada. Pero fue así. Sería psicósomático o lo que quieras, pero fue así. Y yo sentí que le eché. **Alba**

Gorago aipatutakoak ikusi ostean, esan dezakegu gorputzak bere agentziarekin ezustean harrapatu eta berrosatzeko bidean ekin egiten duela, Estebanek *Herida de carcel y politica. Relato encarnado de una activista* lanean proposatzen duen moduan. Lan horretan, euskal militante baten gorputz-krisia aztertzen du, eta mina eraldatu eta pixkanaka aurreko identitate-ardatzak berrosatzen joateko prozesu gisa interpretatzen ditu *negar-atake* moduko batzuk, aldaketak gorputzetik ere eragin daitezkeelako, bere ustez:

Horrela, jokabide bat aldatzea (adibidez, egoera batek sortzen dizun emozioa modulatzeko edo aldatzea) ez da arrazionalizazio hutsetik abiatuta gertatzen, baizik eta berreziketa korporala dakar, aurretik adierazitako zentzuan. Eta, alderantziz, mugimendu- edo sentimendu-esperientzia birmoldatzeak galdera eta bizi-planteamendu berdinak sor ditzake (Esteban 2013:420).

Diana Marcela Gómez Correalek (2022) ere mina eraldatzeko prozesuetan jarri du arreta. Antropologo kolonbiarrak, sufrimendu sozialari, emozio, gorputz eta memoria moduan adierazten den heinean, *memoria sakona* deitu dio. Hura aztertzeko, desplazamendu epistemologikoa behar dela diosku, zehazki logozentrismoa eta pentsamendu dikotomikoa problematizatuko dituen, baina baita desplazamendu politikoa, minduak izan diren pertsona eta senideen ongizatea erdian jarriz. Jauzi epistemologikoaz ari dela, Albak eta Lilik ekarri dizkiguten moduko esperientziak irakurri eta ulertzeko beharrezkoa izango da, nagusitu zaigun pentsamendua bazter uztea, zinez zaila suertatu arren.

Pentsamendu horren jatorria ontologia dualista da, errealitatea aurka dauden pare hierarkikoetan antolatzeagatik ezaugarritzen dena (Escobar, 2018). Binarismo horrek barne hartzen du arrazoiaren/

emozioaren, gorputzaren/adimenaren, naturaren/kulturaren, gizabanakoaren/gizartearen, bizitzaren/heriotzaren, iraganaren/orainaren/etorkizunaren, oroimenaren/ahazturaren, barbaroen/zibilizatuen arteko banaketa, besteak beste. (Gómez, 2022: 188)

Autore horrek dio mendebaldean gailendu den pentsamendu horrek gizarte gisa gaitasunik gabe utzi gaituela, sufrimendu soziala bezalako prozesu konplexuak bere ertz eta korapiloen osotasunean aztertzeko. Horren ondorioz, kolonialitate horretatik aritzen garenean, eremu psikologiko, sozial eta kulturalari soilik erreparatzeko joeran murgiltzen omen gara. Biktimizatutako subjektuen esperientzia patologizatu eta estereotipatu egiten dugu, edo soilik haien dimentsio politikoa azpimarratu. Bat nator berarekin, eta diziplina zehatzei lotutako moduetatik harago, tortura bizi izan duten emakumeek\* —biktimizatu eta mindutako beste edozein subjektu gisa— haien mina eraldatzeko erabiltzen dituzten bideak ondo azertzearen alde egiten dut.

Berregiteko prozesuko mugarrak aztertzeari jarraituz, Ekiñeren kasuan, torturatu zuten pertsoneri aurrez aurre begiratzeko aukera izan zuen egunak osatu zuen. Haien aurrean osorik eta indarrez agertzeko aukera izan zuenekoak dakar gogora. Bortxatua izateak, ustez lotsa eragin behar zion, eta lotsak isiltasuna eta beretzat gordetzea. Ekiñek ordea, lau haizetara, komunikabideen aurrean eta torturatu zuten ekipoaren aurrean kontatu zuen. Torturak bere helburuetako batean kale egin zuela erakutsi nahi zion Guardia Zibilari:

Gai naiz publikoki hitz egiteko, ama izateko, torturatzailleak ezagutzeko, zuzenean esateko: zu zara torturatzen nauenetariko bat. Hori mugarrria izan zen niretzat. Talde torturatzaillea identifikatzea lortu genuen, epaiketan jakin genuen, ez hainbeste izen-deitura, baina bai modu bisualean, guk ikusi genituen, ez zegoen manpararik. Niretzat hori zen: zu, zu eta zu. Eta altuera berean sentitzea. Nork: «begira, ni ez nintzen ezer komisarian, labezomorro bat bezalakoa nintzen, zapaltzen duteneko kraka ere entzuten nuen. Baina ni libre nengoen eta haiek bazekiten, orduan botere-sentsazio hori zen, ezta?» Hor bai, planean sentitu nintzen: «Orain, nork du indarra eta boterea hemen? Zuk daukazu egin zenidanagatik edo neuk daukat hemen kontatzeko?». Niretzat hori izan zen, boterea beraiei begira jartzea, eta miradarekin zera esatea: «Zuk eta zuk badakizue». Haiek ez daude horretara ohituta, haiek ohituta daude gogoak ematen dien guztia egitera eta zigorgabetasun osoz. Orduan, nik esaten diedanean «zu izan zara», ez baitzeuden eroso. Eta ez dut esango gustatzen ez zaidalako, baina hain txikia ez nintzen sentitu, hain txikia ez nintzen sentitu, esateraino: «Ezagutu zaitut». Nik irudi bat behar nuen, hala niretzat, aurpegira, begietara. **Ekiñe**

Lolaren mugarrak ere isiltasunarekin du erlazioa, bere isiltasuna apurtu zuen egunaz hitz egin digu; hitza hartzen hasi zen egunaz, hain zuzen ere. Kontatzen hastea bere buruari torturatu zutela aitortzearekin lotu du, tortura bizi izan duenak, bere kolporako, bere intimitaterik latz eta gordinenean, «torturatu zaituzte», «txikitu zaituzte» esan behar baitio, jazarria izan dela eta mindua izan dela aitortuz; izan ere, batzuetan, norbera mindua izan dela ukatzeko, jazarpenari indarra kentzeko tentaldia egon liteke. Binomio horrekin, bakoitzak bere hartu-emana garatzen du:

Komisariatik atera nintzenez, ez nuen salatu, ez nuen ezer esan, ez nuen ezer kontatu. Ni konturatzen hasi naiz, beno, ez naiz konturatzen hasi, beti egon baita nire zati bat kontzientea zela, baina ez

nuen horretaz hitz egiten eta ez nuen uste markatu ninduenik ez ezer. Ez nuen uste torturak markatu ninduela sentitzeko eskubiderik izango nuenik. Gaur egun ez dut sinesten, asko kostatzen zait. Baina ez nuen ukatzen, baina torturatutako pertsona gisa ere ez nuen kudeatzen; beno, bakoitzak nola kudeatzen dituen gauzak.... Baina ez nuen horrela prozesatzen, ez nuen esaten «ez, ez naute torturatu», hori ere ez. Honela esaten nuen: «bai, beno, psikologikoki», inportantzia bezala kentzen nion, baina ez nuen gaiari buruz hitz egiten, inoiz ez. Izan ere, niri ez zait axola kartzelari buruz galdetzea, ez dut arazorik, baina ez dut nahi, eta ez diot aukerarik ematen inori komisarioari buruz galdetzeko (...) ni neu konturatu gabe, tabua nintzen niretzat. Eta konturatu nintzen, krisi ikaragarri batean sartu nintzelako, tortura-hitzaldi batera joan nintzenean lagun batekin. Gero kontzertuak eta gainerakoak zeudenez, ba joan egin nintzen. Egundorretan, horrela egiten dit buruak, ez dakit zer gertatu zen. Ni tortura-hitzaldietara joana nintzen lehenago, kontakizunak irakurriak nituen, tortura-prentsaurrekoak entzunak, zuzenean kontaktu dizkidaten lankideen testigantzak entzun ditut, o sea... ez dakit. Eta egun hartan, bat-batean... nik hitz egin nuen (...) eta hitz egiten hasiko naiz, bai. **Lola**

Bizipen, gertaera edo prozesu horien guztien interesgarriena da une horretan gertatzen ari direla, eremu ez-formaletan eta politikoki aintzat hartzen ez direnetan. Batzuetan, berdinen artean topo egitean edo gaiari lotutako espazioak sortzen direnean (torturari lotutako hitzaldi, prentsaurreko, manifestazio edo albisteren bat dagoenean) elkarri kontatzen dizkioten esperientziak dira. Nago modu batera edo bestera sare bat osatzen dutela. Sarea partziala da<sup>229</sup> (ez ditu emakume\* guztiak barne hartzen), eta desorekatua da (emakume\* bakoitza ez dago esperientzia honen aurrean lege-, psikologia-, material- edo harreman-egoera berean). Sarea parte-hartzaileengana eta, agian, haien hurbileko batzuegana baino ez da iristen. Modu desordenatuan ehuntzen ari da, eta, une batzuetan, aurreko edo oraingo parte-hartze politikotik, armatutik, erbestetik edo espetxetik elkar ezagutzen duten emakume\* batzuk gertaera (manifestazioa, festa, eta abar) eta/edo adiskidetasun-egoera batean elkartzen dira, eta bizipen berri eta zaharrak, aurrerapenak, minak, aurkikuntzak azaltzen dizkiote elkarri, edo, besterik gabe, lagundu egiten diote elkarri.

Gizaki orok existitze hutsagatik merezi duenaz haraindi, jaramon propioa ere merezi du; azken batean, norberaren bidea, erorikoak, beldurrak, asmatzeak... errespetatu eta aintzat hartzea. Ez da baldintzarik gabeko laguntza akritikoa, ez da erruki hutsa. Bestearengan, kaltetutako pertsona bat ikusteak laguntzen du, baina kaltetuta egoteak subjektua izatea eta subjektu gisa jardutea eragotzi gabe. Ikaskuntza kolektiboko prozesuak dira.

#### **7.4. Justizia eraikitze prozesuak: *Nik sinesten dizut*, emakumeen\* egia aitortzea**

Instituto Vasco de Criminologiak (IVACek) egindako ikerketaren arabera (2017), parte izandako gehienek ez zuten itxaropen handiegirik Estatu Espainoetik etortzear den aitortzari buruz; besteak beste, Estatu Espainola demokrazia-kultura gabeko estatutzat zutelako, 1936an ireki

---

229 Landa-lana amaituta eta tesi hau idazteko prozesuan nagoela, Nafarroako Torturatuen Sarea sortu da, herrialde hartan ere tortura azter dadila aldarrikatzeko. Bertan, badira emakume\* feminista batzuk, autokudeatutako berrosatze-prozesu kolektiboak abiatzen. Ikerketatik kanpo geratu dira, ezin izan baititut bertatik bertara aztertu.



zen aro historikoa itxi gabe dagoelako, memoriaren legea geldiarazi nahi izan dutelako. Horrekin batera, gehiengo zabal batek ez zuen espetxe-zigorra bilatzen torturatzailentzat; inpunitatez jositako egungo testuinguruarekiko kezka handiena berriz ez errepikatzeko berme faltan kokatzen zuten. Norabide horretan mintzo da Ekiñe ere:

Bai. Ez justizian sinesten dudalako, baina bai epaitegi horiek kokatzea nahi dudalako. Nik ez dut zalantzarik gertatu zaidana egia dela, baina ukatu duten guztiak orain jarrera har dezatela nahi dut. Baina nire helburua ere ez da, espetxea edo... nik aitortza juridiko eta politiko hori nahi dut, eta onarpen hori kolektibizatzea. Baina nik badakit egia dela, sozialki ere bai, eta nire kasuarekin juridikoki ere lortzeko aukera dugu; izan ere, kasu bakanetakoa da txosten medikoak dituguna, eta lan handia dago eginda, eta hori politikoki kolektibizatzea, ezta? Zer emango dit aitortzeak? Bada, agian, nire etapa ixteko, baita aitortza horrek kasu horrekiko jazarpen politikoa itxiko duelako ere. Nik aski dut gizarte-onarpen hori, baina bestea behar dut libre izateko. Bai. Itxi bai, bai. **Ekiñe**

Egiari Zor erakundeak ere, 2019ko ekainaren 1eko *Justizia Feminista* jardunaldietan, barne-mailan egindako gogoeta plazaratu zuten, eta hauxe da adierazi zutena:

Justizia bat aldarrikatzen dugu, helburu nagusia egia osoa argitzea duena, eta uste dugu egia ezaguna eta ofizialki justizia-egintza gisa onartua izatea.

Horregatik, beharrezkotzat jotzen dugu justizia-eredu berri bat eraikitzea, helburu nagusia zigorraren ordean egia izan dadin, gatazka gehiago ez luzatzeko, ondorioak ez eteteko eta ebazpena ez oztopatzeko. Horretarako, euskal erakunde- eta gizarte-sektoreen konpromiso zabal eta sendoa hartu behar da oinarritzat. Egunero egiten dugu lan gogoeta hori sozializatzeko. Gure biktima-emaileen zigorgabetasunaren salaketa publikoa: kolpatutako krimenen zuzeneko eta zeharkako erantzuleak nor izan ziren publikoki ezagutarazi, ezagutarazi eta salatzen lan egiten dugu, kasu gehienetan, oraindik ere, inork ez baititu bere gain hartu erantzukizun horiek.

Helburu hori lortu nahi dugunez, bistan da ez gatozela bat, inola ere, gatazkatik eratorritako giza ondorioen zati bat konpontzeko bide bakarra zigor-justizia *sine qua non* aplikatzea dela, justizia hori askatasun-zigor pribatiboak aplikatzea baita, estatuarekin zerikusirik ez duten beste biktima-egileei aplikatzen zaizkien baldintzetan. Gure ustez, gure senideen hilketen erantzuleak 20, 30, 40 urte espetxera bidaltzeak ere sufrimendu gehiago sortzea eta liskarraren ondorioak luzatzea ekarriko luke, gure bokazioarekin talka egiten baitu. Benetako erronka, estatuko biktimen kasuan, pertsona horiei dagozkien eskubideez hornitzea da (egia, errekonozimendua, justizia, konponketa eta ez errepikatzeko bermeak), horrela jasaten duten kategorizazio- eta diskriminazio-egoera gainditzeko. **Egiari Zor Fundazioa (2019).**

Orain arte mahai gainera ekarritako datuek adierazten dute ezen, epaitegiei lotutako justiziaz harago, justizia, aitortza, egia eta ez errepikatzeko bermeak beste toki batzuetatik ere hausnartzen ari direla. Hurrengo lerroetan, emakumeen\* egia eta aitortza erdian jarri zituen ekimena azalduz, justizia eraikitzeko beste prozesu batzuetan sakonduko dugu. Prozesu horiek ez dute zerikusirik estatuko erakundeekin, baizik eta autokudeatutako prozesuekin, Hego eta Erdialdeko Amerikako emakume\* kaltetu feministek proposatu bezala, Guatemalarako Amandine Fuchironek (2009 eta 2018) eta Mexikorako Aida Fernandezek (2022), batzuk aipatzearen.

2017ko urriaren 8an, Foro Sozialaren lantalde feministak<sup>230</sup> ordura arteko ezohiko lekukotza-ekitaldia antolatu zuen. Kokaleku berean bildu zituen bere bizitzako uneren batean, edo, behin baino gehiagotan, indarkeria matxistaren bat bizi izan zuten zazpi emakume\*; sexu-harreman afektiboetan, laneko jazarpen edo diskriminazioan, Espainiako 1936ko altxamendu faxista osteko guda-bortxaketetan, gure herrialdean asiloa eta babesa eskatu behar izan duten emakumeek\* jatorriko herrian bizi dituztenetan, indarkeria lesbofoboan, Espainiako poliziaren eskuetan jasandako torturan eta kaleko ezezagunen bortxaketetan. Ekimenaren arrazoiak azaltzeko plazaratu genuen testuetako batean ondo laburbiltzen dira helburuak, eta, funtsean, 2017ko udazken hartan kezkatzen gintuena izan zen, zehazki, lau guardia zibil absolbitu zituztela Sandra Barrenetxearen epaiketatik hilabete gutxira. Bertan, sinesgarritasun osoa kendu zitzaion Sandra Barrenetxearen testigantzari, eta irainengatik akusatzeko zorian egon ziren, testigantza faltsu bat balitz bezala.

Euskal Herriko prozesuak indarkeria politikoarekin lotzen diren indarkeria guztiak kontuan hartu behar dituela sinetsita, «Nik sinisten dizut» leloa duen lehen ekitaldi publikoa egin genuen Bilbon, 2017ko urriaren 8an, emakumeek bizi dituzten indarkeria matxistak publikoki salatzen dituztenean, haien egia legitimatuko duen herri-aitortza lortzeko asmoz. (...) Orain arte indarkeria matxista ez da gehiegi nabarmendu Euskal Gatazkaren testuinguruan. Orain hori da agerian utzi nahi duguna, baita berau kolektiboki lantzeko deialdia egin ere. Izan ere, egiten ez badugu, ez dugu inoiz erabateko egiarik izango Euskal Gatazkak eragindako giza eskubideen urraketei buruz. Gainera, indarkeria politikoarekin batera, gure gizartean egiturazkoak diren emakumeen aurkako beste indarkeria batzuk ere izan dira. Indarkeria hori ez da eten, eta gaur egun ere jarraitzen du. Gutxitan jartzen dira emakumeen esperientziak analisisen lehen lerroan, eta, gertatzen denean, gure lekukotzaren sinesgarritasuna zalantzan jartzea da ohikoena (epaitegietan, komunikabideetan, kalean, sareetan...). Beste alde batera begiratzeko ariketa betean, gizarteak, emakumeei gertatutakoa ukatu, estali edo garrantzia kentzen die. Gure hitzak, kontakizunak eta esperientziak balio txikiagoa balu bezala. **(Marea aldizkarian argitaratutako testua).**

Ekitaldi horretatik, hiru elementu nabarmendu nahi nituzke: a) sortu zituen eztabaidak; b) lan egiteko modua eta c) eszenaratzea.

Eztabaidari dagokionez, indarkeria politikoa eta emakumeen\* aurkako indarkeria (matxista izan ala ez) lotzen zituzten hiru aurrekari garrantzitsu zeuden arren<sup>231</sup>, ekimen horrek desadostasuna sortu zuen klase politikoan, zehazki indarkeria politikoa eta sexuala beste genero-indarkeria batzuekin erlazionatzeagatik, tartean ulertezintasuna eta deserosotasuna eraginez. Keinu horrek agerian uzten du gure gizartean eraikitako iruditeria, non indarkeria politikoa gainerako indarkerietatik eta errealtateetatik isolatzen den. Iruditeria hori androzentrikoa ere bada, gainera; izan ere, gizonen esperientziak erdigunean jartzean, indarkeria patriarkal guztia ikusezin bihurtzen da.

---

230 8-10 emakumeek\* osatu izan dute lan talde hori, tartean neuk ere.

231 Aurrerago azalduko ditut.

*Urdaia eta abiadura nahasten*<sup>232</sup> ari ginela aurpegiratu ziguten; aitzitik, ekintza horren bidez, indarkeria politikoaren eta genero-indarkeriaren arteko elkargunea ikusaraztera behartzen ari ginen; preseski, puntu itsu horri ez zitzaiolako begiratu nahi. Horrek ez du esan nahi indarkeria hori guztia ukatu nahi zenik, baizik eta gure interpretazio-markoa zela deserosotasuna eragiten zuena. Izan ere, gatazka armatuaren ostean existitzen darraien beste indarkeria batzuekin lotzen zen gure gogoeta, eta, beraz, gure gizartea egituratzen duten botere-harremanak eraldatzeko erronkari aurre egin beharrean kokatzen zituen horrek. Aitzitik, indarkeria politikoa urruneko denbora batean eta testuingurutik kanpo uzteak erraztu egiten du botere-harreman horiek betikotzea.

Indarkeria politiko eta matxistaz ari naizenean, Estatu Espainolekoaz ari naiz (eta horren inguruko erakunde armatuez), hura baita salatuena eta landuena. Aldiz, ez dago horrelako lanik ETAREN edo beste erakunde armatu batzuen indarkeriari dagokionez. *Biolentzia politiko iraultzailea* eta genero-indarkeriaren arteko harremana oraindik ikertu gabe dago, eta lehen hurbilketa Argituz<sup>233</sup> taldearen azterlana izan da. Bertan, indarkeria politiko guztiek emakumeengan\* izan duten eragina aztertu zuten kuantitatiboki, eta ondorioztatu zuten joera argia zela Estatuaren eta beste erakunde batzuen kasuan (hala nola, GAL, BVE eta Triple A) baina ez horrenbeste ETAREN kasuan (adibidez). Egia esan, Bilboko ekitaldirako ahalegindu ginen ETAREN indarkeriaren biktimaren batek ekitaldian hitza har zezan, baina ez genuen lortu.

Arestian aipatu dudan gisan, lau aurrekari garrantzitsu izan dira gure gizartean indarkeria politikoa eta emakumeen\* aurkako indarkeria (matxista edo generokoa izan ala ez) harremanetan jarri zituztenak: Lehena *Tximeletak burdinan* Bertha Gaztelumendiren dokumentala izan zen, indarkeria-egoera desberdinak bizi izan zituzten euskal emakumeei\* ahotsa ematen ziena. Bigarrena Euskal Unibertsitate Publikoko emakume\* talde batek unibertsitatetik kanpoko zenbait emakumerekin\* osatu zuen *Emagune* ekimenaren txostena izan zen. Bertan, gatazka armatuaren indarkeria politikoeekin batera, gatazka armatuaren garaian eta ondoren gure gizartean zeuden beste 12 indarkeria mota identifikatu zituzten. Hirugarrena *Feministok prest* dinamika, Euskal Herriko Mugimendu Feministak batera ekin eta biolentzien inguruko gogoeta eta praktika komuna garatu zueneko. Eta azkena, Mugarik Gabe GKEaren proiektua, *Flores en el asfalto* izeneko, non emakumeei\* eragiten dieten indarkeria mota desberdinen azterketa batean tortura politikoa sartu zuten. Beraz, ekimen hori ez zen hutsetik abiatu, baina, hala ere, bere begiradak eztabaida piztu zuen.

---

232 Elkarrekin aztertzen ez diren gaiak elkartzeari, edo elkarrekin aztertu ohi direnak banatzen iaioa da pentsamendu feminista, eta hori aldarrikatzen du Angela Davisek. Foro Sozialeko lantalde feminista horretan saiatu da, Euskal Gatazkaren unibertsoa eta feminismoarena elkarren ondoan ipintzen, eta elkarri mintzo direla aztertzen. Horrela, generoak gatazkan eragiteko modua, edo gatazkan generoan eragiteko modua ezagutzearekin batera, justizia zentzu eta praktika berriak sortzen saiatu da. Euskal Gatazkari begira zigortzaileak izan ez baina biolentzia matxistarekin punitibo bilakatzen gareneko prozesuak aztertu ditu, adibidez. Baita alderantzizko joerak ere.

233 Giza eskubideak lantzen dituen elkarteak; kontzientziazio-lanak, kultura-aldaketa eta ikerketak eginez. Gehiago jakiteko: <https://argituz.org/eu>

Nabarmendu beharreko bigarren gaia Foro Sozialeko lantalde feministan *Nik sinisten dizut* ekimenean erabilitako lan-printzipioak eta -irizpideak dira. Lehentasuna eman genion prozesuari, eta ez bakarrik Bilboko aitortza publikoko ekitaldia bera izan zenari, baizik eta ekimenaren ageriko aldeari. Horrelako prozesu baten ezaugarriak zaintzea proposatu genuen: erritmoak, tonua, elkar-babesa, harreman mota eta abar. Hitza hartuko zuten emakumeen\* hautaketari zegokionez, aldez aurretik jendaurrean hitz egin zuten emakumeak\* izatea izan zen gure proposamena, edo bederen zauria landuta zuten emakumeak\* izatea. Baldintza horiek betez gero, hainbeste jenderen aurrean eta prentsaren eraginpean egoteak desegingo ez zituela aurreikusi genuen; izan ere, guk ez genuen baliabiderik, eta, beraz, ez geneukan haiei eusteko gaitasun handirik. Horrek ez zuen esan nahi ez gintuenik kezkatzen haiek ekimenean parte hartzen ari ziren moduak; besteak beste, ia azalekoegia sentitzen zuten, edo gairen batekin deseroso sentitzen ziren.

Azkenean, bat izan ezik, denak igo ziren agertokira; denak agertu ziren prentsaren aurrean; eta gainera, agertoki horretan sartu ziren baino indar handiagoz atera zirela sentitu zuten. Aurrez hitz egiteko uneak ere partekatu nahi izan genituen, gure motibazioari eta kezkarri buruz hitz egin, haien iritziak entzun eta elkar ezagutzeko. Ekitaldia baino egun batzuk lehenago elkarrekin topo egitea bilatu genuen, esperientziak, gogoetak eta aurreko nerbioak partekatzeko edo, besterik gabe, kafe edo garagardo batez elkarrekin gozatzeko, baina ez genuen aurreko topaketarik lortu, hainbat herritako agendak eta joan-etorriak direla eta. Lekukotasunari dagokionez, ez genien gidoirik proposatu, bost minutuko denbora eta eszenatokia eskaini genien nahi zutena partekatzeko. Askotan jasotako erasoak kontatzera behartzen gaituzte, edo sinetsarazi digute dena kontatu behar dugula sinesgarritasuna lortzeko ahaleginean. Preseski joera hori zen apurto nahi izan genuena. Ekimen hori espazio feminista eta segurua bihurtzea bilatu genuen; helburua emakume\* horiek aintzat hartzea eta aitortzea zen, esparru judizialean eskatu ohi den kontakizun zehatzik behar izan gabe.

Hirugarren elementua eszenaratzea da. Hiriko leku esanguratsu bat aukeratu genuen: Frankoren diktadurako kartzela bat, baliabiderik gabeko emakumeak\* edo garaiko genero-erregimena hausten zuten emakumeak\* giltzapetzen zituzten galera-etxe bat, haur bitxien zentro bat, amatasun-eskola bat eta irakasle-eskola bat izan zituen kokagunea; hau da, hainbat eraikin eta erabilera, aurreko belaunaldietako emakumeen\* bizi-baldintzak eta mugak agerian uzten zituztenak. Koloretako musuzapi batzuk ere egin genituen, «nik sinisten dizut» ziotenak, eta, lekukotasunak amaitzean, ikuslegoa zutitu egin zen, eta zapia altxatu zuten. Ondoren, emakume\*-talde batek *emakumeen aureskua*<sup>234</sup> dantzatzeari ekin zion, eta horien artean eskutik oratuz emakume\*-kate bat osatu zuten, pixkanaka testigantza eman zuten emakumeen\* eta ikusleen artean zeudenak lotuz, biribil erraldoia osatu ostean itxiz joateko. Koloretako zapi, zutuntze eta dantzanekin, aniztasuna, poza eta elkartasuna adierazten saiatu ginen. Azken finean, aitortza herrikoia eta feminista irudikatzea izan zen gure saiakera; betiere horrelako ekitaldiak sustatzeko asmoz.

---

234 Lekeitio herriko emakumeen\* dantza tradizionala.

Herritarren aintzatespenean jarri nahi genuen arreta, etorri gabe dagoen aitortza instituzionala erakartzeko; baina baita, hori lortu bitartean, mina eraldatzeko, osotasuna berregiteko eta feministen artean loturak estutzeko espazioak eskainiz joatea ere.

Bilboko zazpi lekukotza horiek oso desberdinak izan ziren, baina iruditzen zait klima eta tonua, eta kasu batzuetan edukiak, beste enuntziatio-leku bati buruz hitz egiten zigula: agentziaz eta aktibismoaz. Ez zituzten indarkeria eta haren ondorio suntsitzaileak ezkutatu, nola bizi diren ere adierazi zuten, eta, batez ere, euren boterea eta identitatea nola berreraiki zuten kontatu ziguten. Ibiltako bide hori eta egun diren emakumeak\* nortzuk ziren kontatu ziguten, hain justu. Zaurgarritasuna eta indarra bateragarriak direla erakutsi ziguten, baita bidaide onak ere. Bertaratutakook sentitu genuen emakume\* horiek, behin pairatu zuten biolentziaren indar guztiak, orain, bultzatu egiten zituela, eta indar-joko horretan harrapatuta geratu ginen denok, harrotasunez eta duintasunez ase. Txalo, malko eta irrintzietan lehertu zen giro-betea arnastu genuen. Gutasun berri bat marraztu zen, bere burua ezagutu eta besarkatzen zuena, gorputz eta subjektu bihurtutakoa, finean.

Torturatik igaro eta ekitaldira hurbildu ziren emakumeek\*, hitza hartu zutenek zein hartu ez zutenek, osteko elkarren arteko hitz-trukeetan, esan zuten oso eroso sentitu zirela, zaintza-gune batean eta entzunak izateko baldintzekin, zehazki, eta orain artean torturaren inguruan aritu diren espazioen nolakotasuna eta horren artekoaren aldeei erreparatzeko premia piztu zidan horrek. Behaketa eta esperientzia propiotik abiatuz diferentzia nagusiak honakoak dira:

a) Aldez aurretik:

- Aurretiaz, zenbat denbora hartzen den hitz egingo duen pertsonarekin hitz egiteko, egoteko eta antolatzeke: Zer behar dituen galdetzeko, nola sentitzen den jakiteko, erabakiarekin aurrera doan ezagutzeko, eta abarretarako. Praktikan, tortura testigantzetarako hitzaldiak ez dira beste hitzaldietatik asko desberdintzen aurre-lanketan. Beraz, lekukotasuna ematera doana bere gaiaz hitz egitera doan profesionalaren parekotzat hartua da.
- Ekimena, ekitaldia edo hitzaldiaren helburua zein den zehaztea eta komunikatzea: Zertarako antolatu den, nork eta norentzako. Ez baita berdina tortura aitortzen duen ikuslekoa hurbiltzea ala ez, gatazka armatua bizi izan duen belaunaldiren bat izatea ala ez, emakumezkoei\* zuzenduta egotea ala ez, eta abar luzea.

b) Ekimenean zehar:

- Espazioa nola antolatzen den: Hizlaria eta jende multzoa non kokatzen diren. Borobilean eseri ala ez, hizlaria beste partaideekin batera edo aparte kokatzen den, hizlaria bakartua geratzen den ala ez. Detaile garrantzitsu horiek ez dira oso kontuan hartzen.

- Hizlariari galderak egingo zaizkion ala ez: Aldez aurretik, onartuko ez dituen galderaren bat adostua dagoen ala ez. Oro har, galdetuko zaionarekin bat datorren ala ez. Bere bizipena etenik gabe azaltzeko aukera izango duen ala ez. Entzuleek hitza hartzeko eta galdetzeko aukera izango duten ala ez.

c) Itxiera:

- Nola itxiko den hitzaldia: Eskerrak eman eta agurtuz, ala beste zerbaitek gehituko zaion, ekimenak izan duen helburuaren arabera. Antolatzaile eta entzuleen partaidetza bultzatu dezakeen zerbaite, emakume\* horiek jasotzeko moduren bat.

Emakumea\* eta espetxea, emakumea\* eta torturari buruzko hitzaldiak direla eta, horra nire landa-lanetik jasotako kezka:

Disgustua hartu dut kontatu didatenean kide horri pasa zaiona hitzaldian. Berrero. Komentatu dugu be bai hitzaldi asko antolatzen ari direla, denetarikoa, eta hori oso pozgarria dala. Hori bai, batzuetan ez dagoela argi zein dan helburua. Egitarau bateko relleoa gara edo benetan nahi da gai hori landu? Orokorrean nahi barik, preokupazio bat ere badabil. Hitzaldi horiek emateak dakarren karga, gehienetan ez da kontutan hartzen. Ez da ariketa erraza emozionalki, nahiz eta batzutan gustora ematen ditugun eta ondo ere egiten digun, noski. Baina orokorrean suposatzen digun ahaleginaz jendea ohartzen den ala ez zalantza dago, eta hori oso nabaria da tratuan eta gurekiko zaintzetan. Ez gara profesionalak, gure denbora librean gure bizitzan izugarritzko eragina izan duen esperientzia eta gogoetak kontatzera goaz... tarteka biluztera. Komisaldegiko torturarekin noizbait berdina gertatu da... Eta kasu batzuetan kide batzuk ostean amets gaiztoak izan dituzte, barrenak astindu zaizkie, bizitako gauza batzuetaz ohartu dira besteak entzunaz, apurte ere egin dira... aurren bi kasu egon dira. Buelta batzuk eman behar zaizkio honi, iraganeko formatuekin gabiltza, testuinguru berrian eta beste gu batekin (2018-02-22. Landa kuaderno).

Bilboko ekimenaren kasuan, espazio horretan, haien ideologiarekin bat ez zetozen emakumeekin\* egon ziren tortura ala espetxea bizitakoak. Haien burua emakume\* errepresaliatu gisa irakurtzeak, eta ez bakarrik militante independentista edo ezkertiar gisa, beste emakumeenganako\* bidea erraztu zien, eta, hala, tortura-esperientzia beste leku batetik berregin; izan ere, haien ideologiako kideekin dauden espazio mistoetan, urte askoan torturako genero eta sexu-indarkeria hori *tortura-sortaren* barruan kokatu izan dutenez, ez da nabarmendu izan. Beraz, bulkada feminista horrek beste era bateko elaborazioak ahalbidetzen ditu. Horrelako espazioetan, emakume\* artean egonik, espazioak berak haien buruak intersekzio horretan irakurtzera behartzen dituela dirudi, eta orain artean gordeago egondako dimentsio horrek leku gehiago hartzen du, baita haien artean ere.

## 7.5. Azken ideiak

Kapitulu honetan, ikusi dugu torturaren aitortza ofizial ezak, zigorgabetasun-egoerak eta euskal gizartearen erabateko inplikazio ezak, tortura pairatu zuten pertsona multzoak bizi dituen berbiktimizazio prozesuak eta berregite-prozesuak isilean eta modu pribatuan bizitzea dakarrela;

alegia, iritzi publikoaren arretatik urrun, eta bakoitzak eskura dituen baliabideak mobilizatuz ari direla. Horrek ondoko gogoetetara narama:

1. Tortura gaur da. Ikusi dugu torturaren ondorio pertsonal, sozial eta kulturalak lantzeke daudela. Bederen ez dagoela martxan horiek lantzeko inolako azterketa ezta plangintzarik. Giza eskubideen arloko taldeek, euskal erakundeek eta unibertsitateetako ikerketa-eremuek badute non jardun eta ekarpena egin, beraz.
2. Kultura militantearen ezaugarri batzuek torturaren ondorioak leuntzen lagundu ez duten moduan (zehazki, *Itziarren Semearen* iruditegiari lotutakoak<sup>235</sup>) badira beste ezaugarri batzuk torturaren prozesutik banaka zein komunitate gisa berregiteko oso baliagarri eta emankorrak izan direnak. Torturaren praktikak, torturatutako pertsonen bizitzari balioa kendu nahi dien bitartean, haien subjektibitate politikoa beraien bizitzaren balioa goratu du, euskal militanteek funtzio kolektibo eta publikoa izan baitute (edo egotzi diete haien buruei eta horrela eraiki dira). Ondorioz, subjektibitate politikoa funtsezkoa izan da berrosatze-lanetan, zentzua (esanahia eta norabidea) eta balioa eskaini dielako, eta haien esperientzia kokatzen lagundu dielako, hori izan dutelako gatazka armatua eten arte haien memoriarako marko soziala (Halbwachs, 2004).
3. Prozesu horiek jasan dituzten emakumeen\* eta haien sareen ezagutzak eta ikaskuntzak erdigunean jartzea interesgarria litzateke mugimendu feministarentzat ere. Aldi berean, teoria eta praktika feministak eskaini dituen tresnak emakume\* multzo horren eskura eta torturaren berregite-prozesuen mesedetan jartzeak emaitza oparoak eman ditzake, izan ditugun zantzuen arabera. Izan ere, genero-azterketak ulermenean lagun dezake; biktima kontzeptuaren inguruko kritikak haien agentziaren aitortzan ekarpena egin dezake; eta autokontzientzia taldeen praktikaren emankortasunaren esperientziak ireki ditzakeen bide berriak oso interesgarriak izan litezke (berdinen arteko harremanak mugarri izan baitira).
4. Emakume\* horien egia agenda politiko eta publikoan ezartzea (alegia, klase politiko, erakunde, herri-mugimendu, Ezker Abertzale edo Mugimendu Feministaren agenda politikoetan) aitortza herritarrak egiten joateko modua ere bada. Eta aztertu bezala zein Egiari Zor taldeak nabarmendu duenez, hori justizia ulertu eta egiten joateko beste modu bat da.

---

235 Lagundu ez dutela argudiatzen dut, aurreko kapituluan ikusi dugunari erreferentzia eginez. Horrek ez du esan nahi ohartzen ez naizenik iruditegi hori ez dela funtzionala izan, edota badituela elkar-zaintzarekin zuzenean lotzen duen esangurarik. Norabide horretan hausnartu du Jorge Sepdrumek bere *Ejercicios de supervivencia* lanean: «La experiencia de tortura no es únicamente sufrimiento. Es también, sobre todo y sin duda, la de la fraternidad. El silencio al que una se aferra es rico en todas las voces, en todas las vidas que protege, a las que permite seguir existiendo. Y sin duda el ser resistente de la tortura te convierte en un ser para la muerte, pero también es un ser abierto al mundo proyectado hacia los demás». (2016).





## 8. KAPITULUA

### **Euskal emakume\* militanteen espetxe politikoa aletzeko ariketa**

«Haren alferrikakotasuna harrigarria da, nahiz eta berrogei urtetan zehar kalkulaterik ez dagoen kaltetutako bizitza kopuru zabala utzi»

**Ricard Vinyes** (2010:1).

«Eta botere-harremanak laburtzen diren tentsio-eremu honetan, indarkeria suaren azkartasunarekin hedatzen da»

**Nari eta Fabre** (2000:32)**Vinyes** (2010: 1).

#### 8.1. Sarrera

Ricard Vinyes, frankismoren espetxe politikoaz ari da goiko aipuan, baina lasai asko, 78ko erregimenetik eratorritako demokraziaren espetxe politikoaz ari dela pentsa genezake. Bada, bai, hurrengo lau kapituluetan espetxearekin lotutako aferak aztertuko ditut. Lehenengo kapitulu honetan, deshumanizazio eta biolentziazko espetxe politikoak bere doitze-prozesuan izan duen ibilbidean sakonduko dut. Ondoren, Estatu Espainoleko espetxe-sistema, -erregimen eta -arautegira hurbilduko gara. Hirugarren kapituluan, deshumanizazio eta biolentzia hori egunerokoan gauzatzen zen moduari erreparatuko diogu. Azken kapituluan, berriz, euskal emakume\* preso politikoen erresistentziei begiratuko diegu.

Esan dut dagoeneko, euskal emakume\* preso politikoak ez direla ikerketa objektu izan. Nire ustez, ordea, emakumeen\* espetxe politiko garaikideari begiratzea funtsezkoa da, zehazki hurrengo hiru arrazoiengatik:

- 1) Lehenengo eta behin, esperientzia hori ezezaguna zaigulako; besteak beste, ia mende Erdiko hutsune akademikoa dagoelako. Nago ikusgarritasun-falta horrek geruza asko dituela eta horietariko bakoitzak ezaugarri ezberdinak dituela. Banaka aletzea merezi du:
  - Euskal emakume\* preso politikoen egoera ikusezina da *presoak* direlako: presoen ahotsa entzun eta haien subjektibitateetatik eraikitako ikerlanak oso gutxi dira antropologia eta soziologian (Almeda, 2017; Gonzalez 2019).
  - Euskal emakume\* preso politikoen egoera ikusezina da *emakumeak\** direlako: Elixabete Imazek (2007) azpimarratu du ikusgarritasun-falta dela emakume\* presoek jasaten duten biolentzia instituzional espezifikotako bat. Epistemologia feministek salatu duten moduan, diziplina gehienenen begirada androzentrikoa da, eta zientziaren

neutraltasuna eta objektibitatea genero-alborapen hori ezkutatzeko falazia baino ez dira (Biglia, 2015).

- Euskal emakume\* preso politikoaren egoera ikusezina da *politikoak* direlako: Estatu Espainoleko edo Euskal Herriko azterlanetan, ez da espetxe-politikaz hitz egiten, preso politikoei ezartzen zaien berariazko espetxe-politikaz, alegia. *Espetxe politikoak* deitzaiek berak motibazio politikoengatik espetxeratuak izan diren herritarrak daudela adierazten du, baita horiei guztiei espetxe-politika berezitua ezartzen zaiela ere. Bi ezaugarri horiek dira, preseski, Euskal Herriko kasuan ukatuak izan direnak, beste hainbat gatazkatan bezala (Kolonbian, Katalunian, Herri Maputxean, Irlandan, Hego Afrikan, Hego Konoko diktaduretan<sup>236</sup>).
- Arestian aipatutako horrek guztiak eragina du hurrengo eta azken ikusgarritasun faltan: euskal emakume\* preso politikoaren egoera ikusezina da *euskaldunak* direlako. Izan ere, badirudi gaur egungo Estatu Espainolak ez duela euskalfobian oinarritutako Espainiako nazioaren sorkuntza frankistaren herentzia kulturalki landu (Moya, 1984); are gehiago, garai berrian bitarteko ezberdinen bidez berregin du (Resina eta Limon, 2014; Atutxa 2022) barbarizazio-prozesutzat jo dituen horien bidez. Finean, Espainiako nazionalisten diskurtso publikoei begirada azkarra emanda erraz dakusagu hori, edota euskaldunei buruz egiten den umoreari erreparatuta (Anduaga, 2016).

Horren ondorioa da gaur egungo egoera paradoxikoa. Euskal gizartean preso politikoak preso sozialak<sup>237</sup> baino ikusgarriagoak diren arren, akademikoki alderantzizkoa gertatzen da. Funtsean, gizarte-zientzietan presoaren egoera, oro har, nahiko ikusezina bazaigu, are gehiago politikoena.

- 2) Euskal emakumeen\* espetxe politikoa aztertzeke beharrezko bigarren arrazoa, egun preso dauden eta egon diren-garen emakume\* militanteak memoria bizia osatzen dutela-dugula da. Haien-gure bidez, eta hamarkadaz hamarkada, espetxe politikoaren erregimena eta bere genero markak ezagutzeko aukera dugu.
- 3) Azkenik, emakumeen\* espetxeratze-prozesu eta bizimodu presoaren inguruan pixkanaka aberastuz doan ikerketa-lerroari beste ertz esanguratsu bat gehitzea dakar, apurka handituz

---

236 Apirilaren 17an nazioarteko preso politikoaren eguna da, eta bertan mundu osoko ukatutako preso politikoak aldarrikatzen dira 1974az geroztik. Urte eta egun horretan, Mahmud Baker Hijazi preso politiko palestinarra kartzelatik askatu zuten, Israelgo Estatuarekin preso palestinarrek trukatzeko lehen akordioan. Urte horretan bertan, Palestinako Kontseilu Nazionalak apirilaren 17a Palestinako preso politikoekiko elkartasun-egun izendatu zuen. Ildo horretan, nazio-askapenerako borrokan jarraitzen duten hainbat herrialdek erabaki zuten urtero apirilaren 17a Preso Politikoaren Nazioarteko Eguna izatea. Ondoren, giza eskubideen defentsan ari diren taldeak, erakunde politikoak eta sozialek data hori aldarrikatzen dute. Euskal Herrian ere data horren inguruan ekimenak garatu izan dira.. <https://agenciaparaalibertad.org/17-de-abril-dia-internacional-de-las-y-los-presos-politicos>  
<https://www.elsaltodiario.com/alasombra/preso-politico-social-espana-siglo-xix-al-xxi>  
[https://elpais.com/diario/1995/12/20/opinion/819414011\\_850215.html](https://elpais.com/diario/1995/12/20/opinion/819414011_850215.html)

237 Preso sozial kategoria darabilt, haiek 70. hamarraldian zabalduko autodefinizioa aintzat hartuz.

doan ikerketa eremu honetan oraindik dauden «kutxa beltzak» argitara ekarriz. Modu horretan, feminismoentzako aberasgarriak izan daitezkeen praktikak eta subjektuak azalertzeko plantan egon gaitezke.

Bi hitzetan, lau geruza horiek estaltzen dute euskal emakume\* preso politikoko espetxe-politikaren itsutasun akademikoa. Niri, berriz, ikusezinak direlako garrantzitsua iruditzen zait, espetxe politikoa eta generoak bat egiten duten tokian gertatu zena ezagutzeko eta espetxeen inguruko ikerketa feministen emaria aberasten jarraitzeko, haiengan fokua ezartzea.

Euskal Gatazkaren memoria feminista eraikitzeko betebeharrak eta erronkek interpelatu egiten naute. Akademiatik, administratibotik eta herri-mugimenduetatik batera aritzeak beste geografia batzuetan frogatu duen emankortasunak inspiratu egiten nau. Hiru eremu horietako jakintzen artean botere-asimetriak agerikoak dira. Esanguratsua eta adierazgarria da egin dena administrazio eta unibertsitateetatik kanpo egin izana. Cardonak talde autonomoen inguruan dagoen isiltasun akademikoari erreferentzia eginez, dio —akaso horren arrazoia— talde autonomoek borrokatzen zuten egoera politiko eta soziala gainditu gabe egotea dela (2017:41).

Baliteke euskal preso politikoen inguruko azterketa-erak horrekin zerikusia izatea. Horregatik kapitulu honen lehen atala erreferentzia bibliografiko bila egindako bidea eta emakume\* preso politikoen idatzi gabeko historia osatzeko garrantziaren argudiaketak beteko du. Ondoren, ikergai ditugun emakume\* militanten espetxe politikoa nola osatzen joan den aztertuko dut. Azken finean, jaso duten erregimena elikatu, hauspotu, indartu eta eraiki duten inputak kontutan hartzea inportantea da.

## **8.2. Emakumeen\* beste historia idatzigabe bat gehiago**

1978az geroztik, Estatu Espainolean preso politikoen existentzia ukatu egin da, Euskal Herriko, Galiziako eta Herri Katalanetako gatazka politikoekin zerikusia izan zein disidente politiko komunista ala anarkistak izan. Euskal Gatazkaren kasuan, preso politikoa terroristak direla eta motibazio politikoei haien ekintzekin zerikusirik ez dutela aditu diegu politikari, kazetari eta espainiar intelektual frankori, baina, batez ere, Estatu Espainoleko ordezkariari. Ezarri izan zaien espetxe-politikari dagokionez, argudiaketa-abanikoa honako bi uste hauen artean egon da: beste presoekiko berezituak dela ukatuz, hitzarmen antiterroristapean egindako salbuespen legitimatuak direla defendatuz. Pribilegiatuak direla esatera iritsi denik ere bada, batez ere espetxe barrura zuzendutako mezuen bidez. Modu batera zein bestera, estatus politikoa ukatu zaie, baina praktikan beste espetxe-erregimen mota bat ezarri zaie.

Litekeena da testuinguru sozio-politiko horrek eragin izana gizarte eragilean, aktore politikoen, kazetarien, gobernu autonomikoen eta akademiaren jardunaren joko-zelaian. Bada, azken hori da hemen azpimarratu nahi dudana. Modu batera edo bestera, hutsune hori azpimarratu

gura dut. Kontua ez da salaketa politikoa egitea, eta Euskal Herriko unibertsitateen inguruko kezka agertzea (hori ere bada). Hori baino, ikergaiaren inguruko testuinguruaren berri ematen digula deritzot; hutsune hori informazio eta ikerketarako datuz beteta dagoela adierazi nahi dut. Beraz, ez ditut gutxietsi nahi, pixkanaka eta unibertsitateetako behe-mailetatik bada ere, egiten hasiak diren urratsak; preso politikoen gizentasunak (Oier Azkarraga), preso politikoen amatasunak (Laura Vara), preso politikoen herriratze-prozesuak (Leire Barberena), espetxearen inguruko pertzepzioak (Leire Martinez), osasuna (Naia Rodriguez) eta beste hainbat ardatz aztertzen hasiak diren ikasleak eta haien ekarpena. Are gehiago, horrek hutsune akademikoaren zio politikoa konfirma dezake isiltasuna ikasleen aldetik apurtzen hasia delako. Doktore-tesi honen desioen artean, gure artean saretzea eta ekarpena ikusgarri egin eta balioan ipintzea da, oro har, espetxearekiko (politikoa ala ez), Maria Ruiz, Laura Vara eta Oihana Etxebarrietak *14 argi izpi txarrantxen artean* liburuaren proiektuaren bidez egin nahi izan zuten moduan. Izan ere, aurrekari zientifiko apalek ez dute errazten besteen ezagutzaren gainean aritzea edo horiekin solastea. Hala ere, ez da berandu mesedegarriak izan litezkeen arkitektura, zuzenbidea, kriminologia, psikologia, soziologia eta antropologia moduko diziplinetan aritzeko.

Estatu Espainoleko espetxe politikoen inguruko bibliografia aurkitzeko, 1978tik atzera egin beharra dago. Maila horretan, emakumezkoen\* errepresio eta bizipen espezifikoki erreparatu dioten lanak ugariagoak dira (Maria Garcia-Nieto eta Pilar Dominguez, 1991; Hernando Holgado, 2003; Ana Aguado, 2013; Vicenta Verdugo 2013; Mary Nash, David Ginard, 2013; Ricard Venyes; 2002, 2007 eta 2011; Adriana Sola eta Teresa Lopez, 2020). Aldiz, behin diktaturako gobernu eta legedia moldatu osteko espetxe politikoa azertu duten lanak aurkitzeko, akademiatik kanporako lanak izango dira informazio iturri nagusiak. Lan horiek, ordea, ez dira haien ikuspegi feministagatik nabarmentzen. Modu batera zein bestera, unibertsitateetik kanpo egin diren ekarpen horiek ez dira asko, baina dauden guztiak dira, eta, zentzu horretan, izugarri baliagarriak<sup>238</sup>.

Bakarka egindako literatur ekarpenak emankorrakoak izan dira. Iratxe Retolazak (2019) aztertu bezala, hastapenean lan horiek zirkuitu alternatiboetan argitaratu izan dira, eta, gerora, bereziki 90. hamarkadatik landa, zirkuitu literarioetara egin zuten jauzi, Alberdania, Elkar, Maiatz, Susa eta Txalaparta argitaletxeen eskutik. Beraz, esan dezakegu eremu akademikotik baino, literatura-mundutik edanez ezagutu ahal izan dugula espetxe politikoa eta, gehienetan, preso edo preso ohien egiletza izan dela nagusi. Horietatik guztietatik, ikerketa honen beharrei

---

238 Ondokoak azpimarratu gura ditut: - 1988tik 1993ra, Barrutik aldizkariak preso politikoen inguruko eta preso politikoen idatziak biltzen zituen aldizkariak sei ale baino ez zituen ezagutu. Ekarpene horren indargunea presoak lehen pertsonan beraien egoeraren kontakizuna osatu zutela da. - 2002. urtean, berriz, *Ataramiñe* proiektua jaino zen, preso politikoen ekoiztako lan literarioak jaso eta zabaltzeko asmoz. - 2009. urtean, *Burdinen arteko herria. Euskal preso politikoen kolektiboaren historia* liburuak argitaratu zen. - 2015. urtean, preso dauden edo preso egon diren gizon-emakume\* ezberdinen ametsak jasotzen zituen *Ametsen Liburuak*. - 2019. urtean, *Prisión para la disidencia vasca. Presas y presos políticos vascos (1978-2011)* lana argitaratu zuen Euskal Memoriak. - 2020. urtean, Askatasun Haizea 1958tik 2020ra espetxean egon diren preso politiko guztien izen-abizenak eta zenbait datu estatistiko jasotzen dituen lana dugu.

so<sup>239</sup>, *Burdinen arteko herria* (Egiletza kolektiboa, 2009), *Prisión para la disidencia vasca* (Trenor, 2019) eta *Askatasun Haizea* (2020) dira esanguratsuenak. Ikuspegi historikoa osatze aldera, datuen sistematizazio-lana burutu duten bakar batzuk ere badira; lan galanta, beraz. Ezin dut gogoeta txiki hau itxi, ezagutza-zirkuitu akademiko eta idatzizko ekarpen literarioez harago doazen bideetatik sortu eta hedatzen<sup>240</sup> dela azpimarratu gabe; funtsezkoak dira, esate baterako, ahoz ahoko transmisio eta gogoetak, are gehiago *lurpeko memoriaren*<sup>241</sup> kasuan (Pollak, 2006)<sup>242</sup>. Arrazoibideak modu sakonagoan aztertzea merezi duen paradoxa dakusagu; preso politikoen elkartasun-mugimendu zabala egonda eta milaka senitartekori eragiten zien egoera izanda, ezagutza apala da. Jakintza kolektiborako urratsa eman duten informazioak, gose-grebak, jipoiak, hotza, beroa, gosea eta kartzelako langileen zirikatze biolentoak izan dira, muturreko gertakariak eta jazoera biolentoak, funtsean. Eta horrek badu zerikusirik erresistentzia-logikekin, bortizkeriak bereganatzen duen erabateko arretarekin, iruditegi androzentrikoarekin eta euskal emakume\* preso politikoen historia idatzi gabe egotearekin. Narratiba horrek ez al du gizon preso pribilegiatu? Beste modu batera esanda, Euskal Preso Politikoen Kolektiboako (EPPK) erreferentzia ez al dago gizon-gorputzez osaturik? Euskal gizartea astindu duten kartzelari lotutako gatazkak eta borrokak (eta horien inguruko narratibak) ere gizon gorputza dute: Soria, Puerto de Santamaria, Herrera, gose-greba mugagabea<sup>243</sup>.

Emakume\* presoen ahotsari dagokionez, ekarpena askoz urriagoa izan da eremu literarioan ere. Emakumeen\* testu gutxi argitaratu dira, eta gehienak liburu kolektibo eta mistoetako partaidetzak osatzen du (Retolaza, 2019). Literaturatik kanpoko aipatu bi ekarpenetan ere (*Burdinen arteko herria* eta *Prision para la disidencia vasca*) emakume\* presoen egoera eta bizipenak ez dira modu espezifikoan landu. Zehar-lerro modura agertzen zaizkigu, liburuko atal ezberdinetan —ez guztietan— emakumeen\* egoerari erreferentziak eginez<sup>244</sup>, baina, funtsean, bertan idazten den istorioaren hari eroalea gizonezkoek osatzen dute, nahiz eta EPPK edo preso guztien esperientzia gisa agertzen zaigun. Ziurrenik, emakumeen\* bizipenak eta ekarpenak erreferentzia gisa hartuz gero, azpimarratzen dituzten mugarriak eta gertakariak beste batzuk

239 Gehiago ere egin dira, osasunari lotuta Jaiki Hadik egindakoak (2016 eta 2018) esate baterako.

240 Zinema, antzerki eta artegintzatik ere egin izan dira ekarpenak, gehientsuenak zirkuito alternatiboetan.

241 Pollak-en *memoria subterranea* deritzona horrela itzuli dut.

242 Euskal preso politikoen sakonean espetxea nola bizi izan duten hori egun ezjakintasunezko lainoan bilduta dago, baita sarri beraien komunitate gertuenean ere. Iduri lezake, barrutik kanpora hitz egin duenak kanpokoak gehiegi ez kezkatzeko demari utsita gauza asko irentsi dituela. Kanpokoari aldiz, min eta biolentziaz betetako ingurune hartan ahaide hurkoa irudikatze hutsa mingarriegia zaiola dirudi, bai bederen dakiena baino gehiago jakiteko moduan. Funtsean, erresistentzia-logiketan murgildu behar izateak —barrukoak, kanpokoak zein euskal gizarteko komunitate politikoko hori bere osotasunean— ez dio ezagutza zabal eta sakonago bati bide egin, nire ustez.

243 2000an, EPPK-k gose-greba abiatu zuen euskal preso politikoen estatusa eta herriratzea aldarrikatuz. Daniel Dergi bizitza eta heriotza artean kokatu ohi den 60 eguneko langara arte iritsi zen. Josetxo Arizkurenak ere 59 egun egin zituen jan gabe. Bi gizonezko preso horien ospitaleko gorputz mehar eta intubatuek osatu zuten gose greba haren irudia.

244 *Askatasun haizea* lanean, datu kuantitatiboekin egindako oinarritzko azterketak sexuaren arabera segregatutako datuekin aritu dira, eta horrek emaitza garrantzitsuak eskaini ditu.

izango lirateke; eta horrek zuzenean beste kontakizun bat dakar. Iruditegi androzentriko horrek, ordea, sustrai sendoak ditu, eta horren erakusgarri da ikerketa honetako emakume\* preso ohi bati, presoaren irudiaz galdetzean, bere buruarekin zur eta lur geratu ostean, gizon bat datorkiola adierazi izana.


Emakume\* preso politikoen historia osatzea ikerketa hau gainditzen duen zeregina da. Hala ere, dakigunetik eta, batez ere, *Burdinen arteko herria* liburuak eskaintzen duen informazio pribilegiatua baliatuz eta jarraituz, EPPK-ko emakumeen\* historian garrantzia izan duten hiru ardatz proposatzera ausartuko naiz:

- 1) **Sorrera eta de faktozko deserria:** Liburuak 1978. urte inguruan kokatzen du EPPKren sorrera, errepresioari erantzun eta koiuntura politikoan eragiteko asmo zuen gose-greba baten bueltan. Zehazki ondoko asmoekin: «Gatibutasunari era antolatuan aurre egin eta politikoki diktadorearekin hauste-prozesua indartzea ziren urrats ardatzak. Eta erresistentzia zehar-gakoa» (Egiletza Anonimoa, 2009: 43). Garai horretan, Hego Euskal Herriko lau hiriburuetak eta Burgosko espetxean zeuzkaten ehun bat pertsonak osatzen zuten talde hau. Emakumeen\* kasuan<sup>245</sup>, lehen urruntze politika hori Yeserias espetxean hasi zen, 80ko hamarkadaren hasieran Estatu Espainolak emakumeentzako\* espetxe nahikorik ez zuela-eta, hastapenetik *de faktozko deserriratzetat* jotzen zutena bizi zuten.

11. irudian, euskal emakume\* presoek kopuruak ageri da, 1958tik 2009ra arte, bost urteka, *Askatasun haizea* liburuaren arabera.

### 11. irudia

1958 – 2009 bitartean izandako euskal preso politikoen kopurua, generoka banatuta



Iturria: norberak egina

2) **Komuna-garaietatik, isolamendu politikora:** 1985. urtean, Carabanchel espetxeko ospitaleko hegal bat atondu zuten euskal emakume\* preso politikoentzako, eta leku-aldaketarekin bizi-erregimenaren gogortzea etorri zen —bizi baldintzen kaskartzea eta militarizazioa—: ziegan banaka sartu, ziegatik banaka eta kartzelako bi espetxe-langilez lagunduta jaisten zituzten, eta, ondoren, janlekuan giltzapetuta utzi<sup>246</sup>. *Komuna-garaiak* bezala oroitzen dute aro hori, eta horrela izan omen zen emakumezkoen\* kasuan ere —nahiz eta ez den asko sakontzen—; esate baterako, garbiketa, aisia eta formazioa EPPKren esku geratu ziren, baita bazkarien antolaketa ere. Horrez gain, EPPK-ko ordezkariak baimendu zen, gizonen kasuan moduluka eta espetxeka. Ordurako, 1983. urtean, Espainiako gobernuak iragarritako «terrorista damutuenezako birgizarteratzeko plana<sup>247</sup>» ere martxan zen, eta ETAk ere «espetxe frontea<sup>248</sup>» irekia zuen.

1987an<sup>249</sup>, zehazki, polizia espainiarra Carabanchelgo emakumeen\* moduluan indarrez sartu eta ziegan giltzapetu zituzten hango EPPK-ko kideak. Urte berean, dispertsio-politikaren lehen laborategi-entsegutzat jo duten hastapeneko sakabanaketa gauzatu zen. Liburuaren aburuz, Estatu Espainolak frogara horrekin bi gauza aztertu nahi zituen: 1) Lekuan-lekuko preso sozialen erreakzioa; hori dela-eta emakumezko\* preso politikoak pribilegiatuak ziren mezua zabaltzen hasi ziren. 2) Tokian tokiko kartzeleroen jarrera; izan ere, ordura arte preso politikoek aurkako oldarraldi bortitzak, Polizia Nazionalaren eta Guardia Zibilarren esku zeuden, edo, Soria, Puerto de Santamaria eta Herrera bezalako preso politikoentzako espetxe militarizatuen ardurapean. Aurrerantzean, errepresio hori espetxe-langileen eskuetan egotera igaro behar zen, eta jauzi hori neurtu beharra zegoen.

Proba horien ostean, 1989an Aljeriako negoziaketa prozesua hautsi eta gero, sakabanaketa politika abiatu zen. Betiere liburu horren arabera, ordura arte estatuarentzat nahi besteko fruiturik eman ez zuen presondegi militarizatuak jazarpenak eta *birgizarteratze-*

246 Garai horretan, EPPKren erresistentzia eta borroka ikur bilakatu zen. Herrera de La Mancha espetxeko preso politikoek borrokaldiek negoziazio batekin amaitu zuten, eta horrek EPPK-ko kideengan eragin handia izan zuen bizi baldintzen hobetze —bereziki komunikazioak— eta talde gisako eskubideen aitortza politikoan.

247 Estatu Espainoleko gobernuak, euskal preso politikoei zuzendutako berariazko politiken artean, birgizarteratze-plan gisa aurkeztu diren egitasmo bat baino gehiago egon dira joan den 40 urteetan. Horietako bakoitzean, bertara batu ahal izateko gutxieneko ezberdinak eskatu dituzte, eta eskaintzak ere ezberdinak izan dira. Gehienetan, preso politikoei haien proiektu eta egitasmoekiko uko egitea, egindakoaren damua agertzea eta estatuarekin laguntzaile lanak egitea eskatu dira. Plan horiek EAeko gobernuarekin elkarlanean eta inizatibaz ere garatu izan dira. Hamarkada bakoitzean, gutxi gorabehera saiakera hori egin da gobernuen aldetik (1983an, 1992-93an, 2012an). Azken finean, isolamendua, dispertsioa eta bizi-baldintzen gogortzearekin konbinatuz ezarritako neurritzat hartu izan ditu EPPKak.

248 ETAk bere ekintza armatua helburu ezberdinen aurka bideratzen zuen; besteak beste, Estatu Espainoleko interes ekonomiko eta turistikoak, polizia eta indar militarrek, monarkia, alderdi politikoak. Horien artean, espetxe-langileen edo Espetxe Zuzendaritzaren aurkako ekintzak zeuden; azken horiei deitzen zioten espetxe-frontea. Kasu batzuetan, ETAk su etenik ez iragarri arren, erabaki propioz espetxe-frontea ez du aktibo izan, eta horrela jakinarazi izan du publikoki.

249 Gose-greba, polizia espainiarren eta kartzeleroen jipoi artean igaro ziren 1987ra arteko egunak. Gizonen kasuan, borroka-molde berriak entseatuz —txapeoak, burrunbak, komunikazio grebak— ere aritu ziren. Baita preso politikoekiko sostenguen ikur bilakatu zen Herrerako espetxe-martxa jendetsu artean ere.

*politikaren* porrotak eragin zuen Estatu Espainolak jauzi hori ematea. Helburua zen presoak beraien ingurune politiko, sozial eta kulturaletik urrunduta eta isolatzea<sup>250</sup>, baita beraien artean ere, hala, deuseztatze pertsonal eta politikoaren bidez, batasuna apurtu nahirik. Ordurako 400 presotik gora zeudenez gero, ez zen ariketa erraza izan, baina, emakumeen\* kasuan 50 bat zirenez, politika berria bere osotasunean gauzatu ahal izan zuten, eta erabateko bakartzea lorgarriagoa izan zen —edo, asko jota, binaka egon ziren—. Liburuak bi emakumeren\* ondoko testigantza jasotzen ditu:

Norbaitekin ondo konpontzen bazinen, harengandik banatzen zintuzten, eta agian ondo moldatzen ez zinen beste kide batekin jarri. Eta moldatu egin behar, hasieran gaizki baina azkenean lagun bukatzen duzu. Sakabanaketarekin presoak bakarrik dago, isolatuta zaude erabat eta erabakiak ere bakarrik hartu behar dituzu. Preso sozialekin ere harreman gehiago izan behar duzu. (Begoña Sagarzazu, 126).

Ezbaitik gabe, Argeleko mahaia osatu baino lehenago prestatu zuten Kolektiboaren kontrako neurri batera. Bestela ezin daiteke ulertu neurri horiek ezartzeko erakutsi zuten bizkortasuna. Egun batetik bestera, akabo irakasle, mediku eta lagunen bisitak. Bereziki gabeko araketak ugaltu ziren, ordea eta saiatu ziren gu makurtarazten, kontaketetan zutik jarri eta bisean. Bisekoak egin ahal izateko gu edo gure senideak biluztea saiatu ziren. Xaxatze lana etengabea zen eta probokazioen soka horretan gure intimitatea eta gure ohituren eta bizitzaren berri lotsagabeki jakinaraztea izan zen, komunikabideen laguntzarekin, emandako pausu berria. Maiatza hasierako arratsalde epel batean, kartzelako megafoniaz jakin genuen ni eta beste kide batzuk espainiar kartzela mapa osoan sakabanatuko gintuztela (Ines del Rio, 126-127).

2016ko abenduaren 29an, Usurbilen, Mertxe Galdos preso ohiak *Emakumeak\* patriarkatuko kartzelatan* mahainguruan egindako hitzartzean, isolamendu- eta erabateko bakartze-urte horien berri eman zuen. Emakume\* asko bakarturik egon ziren, edo, asko jota, binaka, gizonetzkoen baino modu biziagoan ezarriz isolamendua (dispertsioa 2023an desegin arte mantendu duten neurria). Sakabanaketa politikaren lehen urtean, emakume\* preso bat eta 89 gizonetik gora jipoitu zituzten kartzela-langileek —tartean, emakume\* bakarra— eta EPPK-k hilabeteetako itxialdiarekin eta astebeteko gose-greba batekin erantzun zion neurriari.

- 3) **Mugarriak:** 90eko eta 2000ko hamarkadetan, *Euskal Presoak Euskal Herrira* aldarri soziala ahalegin eta koste handiko gose-greba mugagabe batekin batera gauzatu zen. Ostean etorri ziren EPPKren hurrengo urte luzeetan kualitatiboki oso garrantzitsuak izango ziren urratsak. Alde batetik, EPPK berrezaugarritu egin zen. Hain zuzen ere, geroz eta preso gehiago ziren ETArekin zerikusirik ez zutenak; batez ere, *Kale Borroka* deitu zuten fenomenoarekiko hartutako neurri punitiboen eta estatuek abiatutako mugimendu sozio-politikoaren ilegalizazio-politiken ondorioz. Bestetik, gatazka politiko armatua beste egoera batean zegoela-eta preso politikoaren estatusak eta gatazkak berak onartu gabe zirautenez,

---

250 Orainaldian idatzita dator, lerro hauek idazten ari naizen unean ez delako erabat gaintu dispertsio-politika hori, nahiz eta, pixkanaka, geroz eta preso gehiago dauden Euskal Herriko espetxeetan, adibidez.



erreferentzia propio eta indartsua garatzeko asmoz aritu ziren. 2004ko maiatzean, Miramar Jauregian nazioarteko elkartasunezko konferentzia egin zen, eta urte horretan egin zuen publiko EPPK-k bere aldarrikapen sorta berria.

- 4) **Emakumeekin\* zerikusia duten auzien lanketa:** Behin baino gehiagotan, EPPK osatzen zuten preso guztiek bat egin dute, espetxeren baten edo presoren baten egoera larri baten aurrean; jipoiak, gaixotasunak edo zeinahi neurri arbitrario. Liburuan ez da agertzen emakumeen\* bizi-baldintzekin lotuta dauden errealitateekin EPPK-ko borrokaldi orokorrik; asistentzia ginekologikoa, bakartzeak edo bestelakoak aldarrikatuz, adibidez.

90eko hamarkadaren amaieran, arreta mediatiko handia jaso zuen Maitane Sagastumeren ume Onditzen inguruan antolatu zen kanpainak: «Onditz euskal irrira». Espetxean haurdun geratu eta erditu zen Maitane. Hori dela eta, Onditzek Euskal Herrian jaio eta bizitzeko zeukan eskubidearen inguruko mobilizazio ugari egin ziren, tartean Pirritx eta Porrotx pailazo ezagunek parte hartu zuten (Joxemari Agirretxe *Porrotxen arabera*<sup>251</sup>, Euskal Herriko kultur gile asko elkartu ziren manifestu baten altxora, eta abesti bat eta guzti egin zuten). Hori dela eta, ikusgarritasuna irabazi zuten espetxean ama egindako presoek eta, kasu honetan, Maitane Sagastume erditzera Euskal Herrira eramatea lortu zuten. 90eko hamarkadan, egun bezala, Euskal Herriko espetxeetan ez zegoen amentzako modulurik, baina emakumezko\* preso politikoak ere ez zeuden Euskal Herriko espetxeetan. Kanpaina horren bidez, presoen haurrak protagonista bilakatu ziren, gerora *motxiladun haurrak* bezala izendatuak izan diren horiek, baina, zeharka, baita amak eta erditzeko baldintzak. Jarraitu zion hamarkadan, emakume\* preso franko erditu ziren espetxean, hazkuntza nabarmena suposatuz. Horrek belaunaldi aldaketarekin eta kode penalaren aldaketekin loturarik izan dezake.

- 5) **EPPK eta ildo feminista:** Ezker Abertzalea 2000ko hamarkadan bere barne-prozesu feministan murgildua zegoen, eta espetxean ere bi belaunaldi bat egiten ari ziren. Datuak datu, batzuentzat horrek haize feministak ekarri zituen EPPKra; ez askiak batzuentzat, pausu esanguratsua besteentzat. EPPK-k, aldiro, bere mintzakidetza parekidea aurkeztu izan du, eta bere adierazpen publikoetan, espreski, emakumeen\* problematikari zegokien auziak izan ditu mintzagai. Hala ere, garatu dituen borrokaldien aldarrikapenetatik eta publikoki plazaratu dituen agiriak aztertu ostean, preso zeuden emakumeekiko\* ez du, ez barne-, ez kanpo-ildo politikorik izan aro horretan. Salbuespen bakanetakoa 2005. urtean Emakumeen Mundu Martxa Euskal Herrira sartzean egindako agiri hau dugu:

Agur eta ohore munduan barrena zapalduak izan eta borrokari eusten dioten emakumeei, hau da, emakume borrokalariei. Askapen borroketan ere emakumeok toki propioa baitugu. Bestela, ez gaitu inortxok ere askatuko. Alta, geure burua askatuz, gure herri eta gizartearen askapen bidean urrats erabakigarria egingo dugu. Zutik, emakumeok! (EPPK, 2005).

---

251 [https://irratia.naiz.eus/eu/info\\_irratia/20220603/onditzek-22-urte-ditu-eta-oraindik-martuteneko-amen-moduluaz-ari-gara-hitze-egiten](https://irratia.naiz.eus/eu/info_irratia/20220603/onditzek-22-urte-ditu-eta-oraindik-martuteneko-amen-moduluaz-ari-gara-hitze-egiten)

Amaitzeko, 2017an emakume\* preso ohien eskutik, *Hemen Gaude Manifestua* egin zen publiko, eta tartean haxe aipatzen zuten bertan:

«Eta, hemen gaude kartzelara sartu gintuztenean bikotekidea galdu genuen emakumeak ere. Egia esan, ez dakigu zein momentutan pasa ahal izan zitzaigun burutik zaintzaile beharrean zainduak izan gintezkeela. Edo, hobeto pentsatuta, gure barruan beti jakin genuen hori gertatuko zela. Eta, hala ere, aurrera egin genuen... Nonbait, borreroak bakarrik ez, herri honetan ausardiak ere baditu milaka aurpegi. Hala, geroztik, espetxean hain beharrezkoa den babes emozionala gure amek, ahizpek, neskalagunek eman ziguten emakumeak gara hemen gaudenak». *Hemen Gaude manifestua*.<sup>252</sup>

Laburbilduz, EPPK barruan emakume\* kopurua esanguratsua izan da, %10 eta %15 bitartekoa. Estatuak kolektibo horren aurka ezarri duen politika berezia emakumeen\* kasuan gauzagarriagoa izan da, emakumeek\* borroka orokorreari ekarpena egin diete, eta haien egoera zehatzarekin lotura zuten borroka espezifikoak garatu izan dituzte (bakartzea dela eta, artatze ginekologikoaren edo amen moduluko egoeren inguruan...), baina, hala ere, EPPK-k ez du horrekiko ildo propiorik garatu bere 40 urtetik gorako ibilbidean.

### 8.3. Deshumanizazioaren biolentzia eta biolentziaren deshumanizazioa

Espetxe politikoari begira jarriz gero zer dakusagun azaltzeko, Arantza Zulueta preso ohiari prentsan egindako elkarrizketa baliagarria zait oso:

La conclusión final de Zulueta sobre el aislamiento es que se trata de «una continua búsqueda de romperte como persona, de que te sientas un animal y no una persona. Así que la pelea más dura en la cárcel a veces es por ser una persona». Y aquí entran tácticas como la de «decirle ‘buenos días’ y ‘buenas noches’ al funcionario que te abre o cierra la puerta, para que vea que eres una persona». Tras pasar esa experiencia, ella se ha sentido muy reflejada en todas esas personas que piden limosna en la calle y que dan los buenos días a quienes pasan, los miren o no: «Es una forma de decirles, ‘no soy un perro que está aquí tumbado’» NAIZ. 2018/03/16<sup>253</sup>.

Euskal emakume\* preso politikoaren aurkako espetxe politikoaren ezaugarritzea biolentzia eta deshumanizazioa izan dira, eta, horren aurrean, bizirauteko eta espetxe-sistema hori desegiteko estrategia indibidual eta kolektiboak garatu zituzten. Generoak estatuaren estrategia modu biziagoan pairatzea ekarri die, baina, hala ere, espetxearen logikari ihes egitea lortu izan dute, ez horrenbeste, ordea, genero-bizipenei. Oro har, espetxea bahitu politiko gisa bizitzea ekarri die horrek guztiak, eta horrexek berak zanpatu eta indartu ditu.

1995etik 2015era ezarritako espetxe-zigor mota ulertzera hurbilduko gaituzten dimentsioak, zehazki, hamar ataletan aletuko ditut. Horietako bakoitzak kapitulu honen atal bana osatuko

---

252 Gehiago jakiteko: [www.justiziafeminista.eus](http://www.justiziafeminista.eus)

253 Ikus gehiago: [https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2018-03-16/hemeroteca\\_articles/en-aislamiento-buscan-romperte-que-te-sientas-animal-no-persona](https://www.naiz.eus/eu/hemeroteca/gara/editions/2018-03-16/hemeroteca_articles/en-aislamiento-buscan-romperte-que-te-sientas-animal-no-persona)

du. Azken batean, euskal emakume\* preso politikoek bizitako espetxealdi garaikidea prozesu ezberdinez elikatu da; alegia, teilakatze-prozesu planifikatu eta ez-planifikatu baten emaitza izan da. Hurrengo lerroetan, nire ustez esanguratsuak izan diren inputak jaso ditut, doktore-tesi honetako protagonisten espetxealdia input horien konbinaziotik ulertu behar dugula uste dudalako; azken batean, deshumanizazio, biolentzia eta itxialdi matxistaren genealogia modukoa.

Sakontzen hasi aurretik, deshumanizazioaren inguruko bi hitz egin gura ditut. Joaquin Samayoak psikologia sozialetik Salvadorreko gudaren kasurako gogoeta interesgarria egin zuen. Autoreak, deshumanizazio agerikoak eta sotilagoak daudela esanaz, bigarren horietan jarri zuen arreta. Kapitulu honetan ikusiko duguna ulertzeko, Samayoaren gogoeta batzuk baliagarriak izan daitezkeela uste dut:

- a) Deshumanizazioa gatazka/guda baten ondorioa da, baina baita —eta batez ere— gatazka baten garapenerako beharrezko baldintza ere.
- b) Deshumanizazioak ondoko lau gaitasun gutxitzen omen ditu: 1. Modu argian pentsatzeko ahalmena. Munduarekin modu defentsiboan erlazionatzea dakarrelako eta horrek beldur irrazionalari eta prejuizioei bidea egiten die. 2. Modu eraginkorren eta egiazkoan komunikatzea. Izan ere, horrela aritzeko, askatasuna, malgutasuna, errespetua eta zintzotasuna behar dira, eta gatazka-egoeran horiek desagertu egiten dira. 3. Sufrimenduaren gaineko sentsibilitatea eta elkartasun-zentzua. 4. Itxaropena izatea, funtsean gizakiarengan eta humanitatean konfiantza egitetik datorrena.
- c) Deshumanizazioak ondoko pentsamendu eta portaera desagokiak indartzen ditu: 1. Desasistentzia selektiboa eta aurreiritziei estuki atxikitzea. Errealitatea kausitzeko moduan eragiten du, eta norberaren eskemetan sartzen ez den hori aintzat ez hartzea dakar. 2. Absolutizazioa, idealizazioa eta zurruntasun ideologikoa. Konplexutasunei eta ñabardurei antzemateko zailtasuna, hautu politiko ororen alde iluna ikusteko ezintasuna, balio- eta interpretazio-eskemen absolutizazioa, pertsona, erakunde eta ekintzen idealizazioa. Joera hori, batez ere ardura- eta konpromiso-maila handiak izandako pertsonengan antzematen da. 3. Eszeptizismo selektiboa. Konpromiso etiko-politikoa hartu ez dutenengan antzematen da, batez ere (nahita hartu ez dutenak, edo, batzuetan saiatu arren ez dutelako lortu). Eszeptizismoa deitu arren, funtsean sufrimenduarekiko sentiberatasunik eza, ezkortasuna (eta hori kutsatzeko beharra), oportunismoa, ustelkeria eta indibidualismoa areagotzea. 4. Defentsa paranoidea. Errealitatea modu distortsionatuan ikusi eta etsaia ez dagoen tokian etsaia ikusteari deritzo. Mehatxu-egoerak eraikitzea, azken baten.
- d) Deshumanizazio orokortu baten testuinguruan, posible da, talde murriz baten baitan, kontrako prozesua gertatzea: berhumanizazioa edo humanizazio bizia; ulertzeko ahalmena indartzea, sakrifiziorako prestutasun eskuzabala handitzea, esperantza

handitzea, gizatasun horretan berrestea. Horren adibide historikoak aipatzen ditu, eta hor, argudiatu zuen hori gertatzea unean uneko faktore pertsonalei eta egoerari lotuta datozela Hala ere, honakoa esatera iritsi zen: «El riesgo de la propia vida por una causa justa tiende a potenciar el humanismo que lo hace posible, mientras que la indiferencia ante la suerte de los otros seres humanos tiende a profundizar todavía más la deshumanización» (1987:215).

Modu batera edo bestera, gatazka eta guda egoerek larritasunez betetako intseguritate-sentimendua dakarte, patuaren gaineko kontrola galtzea, hil ala biziko tartean bizitzea, azken baten. Arriskua eta isolamendua areagotzea zein informazioaren irisgarritasuna kaltetzea. Horrekin batera, gehituko nuke deshumanizazio-prozesuak gatazka eta gudek eztanda egin aurretik, bitartean eta, tamalez, ondoren ere egon ohi direla; afera intentsitate edo eskalan dago. Horregatik, politika gudaren jarraipena da baina beste baliabide batzuekin, eta ez alderantziz. Zentzu horretan, deshumanizazioa biolentziaren oinarritzko osagaia da, deshumanizatzea bera dagoen eta biolentziarik gordinenetakoa izan daitekeelako, eta, horrekin batera, biolentzia ez delako posible deshumanizazio-prozesurik gabe, maila handian ala txikian izanda ere. Deshumanizazio-prozesu hori etsaiaren eraikuntzarekin harremanetan dago.

Guda eta etsaia eskutik helduta datoz, ez da posible gudarik etsairik gabe, zeren guda, beharra izanez gero, etsaia desagitera bideratuta baitago. Guda hori bi indar militarren artekoa denean, bi estatu-nazioren armaden artekoa, etsaiak zailtasunik gabe idenifikatzen direla dio Saramayok. Biolentziaren muga-egoeran ere ez da zaila idenifikatzea; esate baterako, une honetan palestinarrek idenifikazio-arazorik ez dute. Baina Saramayok dio ezen, estatu bat eta herritarrek osatutako mugimendu- edo iraultza-egoeretan, estatuek etsaia eraiki eta idenifikagarri egiteko eginahalak egin behar izaten dituztela, herritar soila eta etsaia ezberdintzeko, edo herritar soila etsaitzat hartzeko. Eta hori izaten omen da kontrainsurgentzia-lanetako bat, funtsezkoa baita intimidazio-lanetarako; batez ere, talde armatuari babes ematen dieten herritarrek helburu dituen intimidazioa<sup>254</sup>. Horretarako, lekuan leku, garaian garai, *subertsibo*, *errebeld* edo *terroristaren* figurak eraikitzen dituzte (ZEN planean, esaterako, janzkera ere definitzera iritsi ziren). Prozesu horiek guda-propaganda bidez eratzen direla dio El Salvadorreko autoreak, eta larritasuna ez dagoela propagandaren partzialtasunean —definizioz hori baita—, baizik eta propaganda informazio bihurtzeak etsaiaren eraikuntzan arrakasta izatea dakarrela, eta terroristaren iruditegiak berak eragiten duela deshumanizazioa. Prozesu horren larritasuna ez datza soilik ezkerreko militanteak ezaugarri gizatarriez hustutzean; inolako arrazoi gabe izua hedatzeko asmoz elkartu den jende-multzo deitoragarriaren kontakizunak herritarrek gatazkaren konponketan parte hartzeko ahalmena gutxitzen du, zeren izua hedatzeko asmoz, inolako arrazoirik eta helbururik gabe, krudelkeriarekiko

---

254 Euskal Gatazkaren kasuan, sektore horiek ere terrorista bilakatu zituzten «dena da ETA» estrategiarekin. 2011n ETAk bere jarduna utzi zuenetik, terrorismoa goratzeagatik irekitako sumarioak gora egin izanak antzeko zerbait adieraz dezake. Gehiago jakiteko: [https://www.eldiario.es/politica/enaltecimiento-terrorismo-delito-multiplico-eta\\_1\\_2166124.html](https://www.eldiario.es/politica/enaltecimiento-terrorismo-delito-multiplico-eta_1_2166124.html)

gustu hutsez diharduen talde batekiko nola jardun jakin gabe geratzea baitakar horrek. Beraz, herritarrek, sukalde eta elite politikoetatik gain, gatazketan eragiteko duten betebeharrak eta eskubide politikoak indargabetzen ditu. Ondorioz, soluziobide politikoak baztertzeko dira, terroristekin ezin delako negoziatu, ezta hitz egin ere<sup>255</sup>. Eta, modu horretan, gatazka politiko-sozialen aurreko soluziobide zigortzaileak egiten dira nagusi, gatazkak iraunaraziz eta *irabazle-galtzaile* ikuspegi bitarra indartuz eta mendean hartzea eta mendekua hartzea helburu bihurtuz. Preseski, euskal preso politikoaren kasuan, hori dakusagu: mendean hartzeko saiakerak, eta mendekuaren arteko kontinuuma. Mendekua min baten ordaina eta zigorra da, baina iraintzeko asmoz ere egiten dena, mendean hartu nahi dena gutxietsiz eta ezdeustuz.

Jarraian, ikerketa honetako protagonistek bizi izan zuten espetxe politikoa deshumanizatzaile eta bortitza nola osatu zen ikusiko dugu. Pairatu eta borrokatu zuten espetxe politiko horren iturriak eta eraikuntza-prozesua ikusiko dugu. Modu argian agertzeko, input bakoitzak atal bana osatuko du. Atalok ez dauden kronologikoki antolatuta, eta haien artean kategoria ezberdinetako prozesuak daude; pentsamendutik hasi, eta legetaraino. Hala ere, guzti horiek teilkatzeak egin du posible kapitulu honetan eta hurrengoan ikusiko dugun espetxe-eredua eta euskaldunekiko espetxe politiko garaikidea.

#### **8.4. Lehen teila - Espetxea: urrunekoa eta kuestionaezina**

Bat nator Lorenzo Rubiok (2013) bere *Cárceles en Llamas* liburu ederrean eta atal honen izenburu gisa hautatu dudan baieztapen horrekin. Angela Davis (2003) ere antzeko ondoriora ailegatu zen: espetxea horren *naturalizat* jotzen dugu ezen zaila egiten baitzaigu bizitza bera gabe imajinatzea ere. Jakina da dominazio-sistemen arrakasta naturalizazioan datzala, eta espetxea ez da salbuespena izango. Hala ere, espetxea bortxa-erakunde bat da, eta ez da betidanikoa.

Gaur egungo mendebaldeko gizarteetako erakunde punitiboena da espetxea. Arau legalak, sozialak eta politikoak hautsi dituzten gizarteko menpeko sektoreak zigortzea eta horien zaingoa ditu helburu, eta, horren ondorioz, espetxe-zigorra behin amaituta, presoak gizarte bazterretara boteak eta are egoera menpekoagoan aurkituko dira. Bortxa-dispositiboa da, gizakiaren natura sozialaren aurka doalako, eta horixe darabilelako zigortzeko. Beraz, esan dezakegu biolentzia dela, deshumanizatzailea delako.

Funtsean, espetxe-zigorra, bere gordinean azaltzeko, pertsona bat bere bizitoki eta eguneroko bizimodutik erauzi, eta fisikoki mugatua bezain itxia den espazio-denborako epe jakin batean bertan itxita eta gordeta izatea da. Preso egotea, orobat, kanpokoarekin komunikatzeko bide urri eta neurtuekin, eta barruan jarduteko, mugitzeko eta erabakitzeke ahalmen ezdeusa izatea

---

255 Esaldi hori Euskal Gatazkan asko entzun da Espainiako Gobernuaren arduradun ezberdinen ahotan. Berriki, enegarrenez, horrek polemika mediatikoa ekarri du, Pedro Sanchezen gobernuak Kataluniako preso politikoei eskaini dien amnistia dela-eta Partido Popularrak eta VOXek hedatutako mezuetan.

da. Gizartetik kanporatu, zigortu eta gizartearentzat funtzionalak diren parametroetan itzularaztea da haren mandatua; hots, estatuak hainbat gizabanakoren<sup>256</sup> bizi-denbora ebasteen datza espetxe-zigorra. Estatuak, bere epai-sistemaren bidez, gizartearentzat kaltegarriak diren horiek nortzuk diren zehaztuko du, eta estatuak berak erabakiko du zenbat bizi-denbora lapurtuko dien, tarte horretan non biziko diren eta norekin. Horiek guztiak estatuaren erabakia izango dira: zenbat haize eta argitasun ordu izango dituzten, zenbat aldiz ukituko duten maiteenen aurpegia, zer ezingo duten irakurri, egin, jantzi, jan, edan, esan, sentitu eta izan. Autonomiaren erabateko suntsiketak definitzen du preso egotea; horregatik, euskarazko *presondegi* berbak ondo adierazten du erakunde horren funtsa: presoak sortzeko erakundea. Gizarteko ezdeusak ezgaitzeko tokia.

Bestalde, espetxea ez da betidanikoa, mundu osoan barreiatu den eredu gisa bederen, bizpahiru mende baino ez ditu; azken batean, modernitatearen eskutik eraikitako erakundea da., batzuen ustez (Garcia Valdes, 1981) modernitateak berarekin ekarritako ordena publikoko arazo berriak eta aurreko Antzinako Erregimeneko sistema punitiboaren krisia gainditzeko sortu zena. Baina, baita —eta batez ere— ilustrazioaren eta kapitalismoaren sorrerak ekarritako sistema ekonomiko-produktibo, kultural eta politikoaren neurrira egindako zigor-sistema berria behar zelako (Pavarini eta Melosi, 1977; Foucault, 1975). Alegia, gizarte-antolakuntza bakoitzak bere zigor-eredu propio eta koherentea behar duen heinean, XVII. eta XVIII. mendeetan zigorrak ilustrazioko arrazionalitate, humanismo eta justizia kontzeptuekin bat egitea bilatu zuen justizia-sistemak. Horrenbestez, jabego pribatua eta burgesiaren nagusitzea, ilustrazioko balioak eta gizabanakoen askatasunen kontzeptuak ezinbestekoak izango dira, zigor-sisteman jazotako aldaketa eta jauzia ulertzeko.

Ordutik aurrera, printzipio indibidualizatzailea ezartzea eta zigorraren objektua zigortutako gizabanakoa bilakatzea bilatu zuten. Antzinako Erregimenean, gorputzari eragindako oinazea erakustean oinarritzen zen zigorra, eta ikusleak zituen helburu. Modernitatean, gorputz fisikoaren gaineko krudelkerien behatzaileak zirenen eskarmentua beharrean, delitugilea eraldatzea izango dute helburu. Horretarako, Foucaultek (1975) zioen diziplina deritzon botere mota darabilela kartzelak, gorputzaren bidez arima ondu-landu-eraldatu nahirik. Horren bortitz eta ikusgarriak ez diren neurri sorta errepikakor eta etengabeen bidez, espetxeak gorputzarekiko duen erabateko kontrola norbanakoaren subjektibotasun eta borondatera moldatzeko darabil, damua eta otzantasuna sortuz. Hori lortzeko, zigortzaileek denbora luzeagoa beharko zuten, denboran mantentzen diren eta errepikakorrak diren praktiketan datzalako arrakasta. Horixe izango zen, hain zuzen, denboran luzatzen den itxialdia etorkizuneko zigor nagusi bilakatzeko arrazoia, eta hori berori izan zen (ber) heziketan eta zuzentzean oinarritutako itxialdi luzeen esperientzietatik eta adibide zaharragoetatik edateko arrazoia: emakumeen\* itxialdia. Hurrengo atalean ikusiko dugun moduan.

---

256 Europar Batasunean milioi eta erdi pertsona baino gehiago zeuden egoera horretan 2019. urtean. 100.000 biztanleko 106 preso zeuden, eta hori migratzaileentzako eta adin txikikoentzako zentroetan bizi zirenak aintzat hartu gabe. Gehiago jakiteko: Gonzalez, Ignacio. (2021). *Neoliberalismo y castigo*. Bellaterra.

### 8.5. Bigarren teila - Emakumeen\* itxialdia modernitatearen aurrekoa da

Horixe defendatu dute ikerketa feministek (Almeda eta Bodelon 2007; Juliano, 2011; Hernandez, 2013; Ballesteros eta Almeda 2015; Ruiz, 2016); alegia, espetxearen sorrerak ez zuela horrenbesteko berrikuntza suposatu emakumeen\* kasuan. Sasoi horren aurretik, gizonak atxilo izaten zituzten epaia ebatzi bitartean, baina epaia ez zen itxialdian oinarritzen. Emakumeen\* kasuan, aldiz, baziren arau sozialak hausteagatik heziketa eta zuzentzea bilatzen zuten itxialdiak. Horregatik, literatura feministak azaldu du gizarte patriarkaletik edaten zuten Estatu Espainoleko emakumeentzako\* galeretan daudela espetxe modernoaren oinarritzko zutoinak. Valladolideko Sor Magdalena de San Jeronimo mojak 1608an idatzitako espetxe-tratatuan landu zuenez, espetxeek, propio, emakumeak\* zuzentzeko helburua zuten. Foucaulti egin izan zaion oinarritzko kritika feminista izan da hori (Juliano, 2018; Almeda 2002); alegia, emakumeentzako\* galerak lehen aurrekaritzat ez hartzea, eta, nire ustez, hori funtsezkoa da, ez soilik emakumeen\* esperientziekiko dakarren gortasun eta itsutasunagatik, baizik eta presondegien funtzio sozio-politiko eta ekonomikoa —eta, nola ez, espetxearen funtzionamenduaren funtsa— hobeto ulertzeko. Itxialdia eta zigortuaren eraldaketa oinarritzkoak izango direnez, hedatu egin ziren XVII. mendetik aurrera, gerora egungo kartzela bihurtu diren horientzat guztientzat (galerak, zuzentze-etxeak...).

Arestian aipatutakoak ez du esan nahi espetxe modernoak emakumeengan\* eragin ez duenik. Alde batetik, espetxe modernoaren eraikuntza beste itxialdi mota batzuk dakartzaten beste erakunde batzuen definizio eta trinkotzearekin batera egin zelako; besteak beste, publiko eta pribatuaren banaketa, lanaren banaketa sexuala, ezkontzaren kontratu sexuala eta «etxeko aingeruaren» ideal tipoaren indartze eta hedatzearekin (azken hori, hasiera batean emakume\* burgesentzako eraikitako ideala bazen ere, gerora langile klasera hedatu zen). Zentzu horretan, modernitatearekin, trinkotu eta bikoiztu baino ez zen egin emakumeen\* itxialdia bultzatzeko gizarte-joera. Beste aldetik, garaiko pentsalariak gizona ikusten dute delitugiletzat, (emakumezkoak\* *bekataritzat* jotzen zituzten), eta, espetxe modernoak delituaren bueltan eraiki zituzten heinean, gizonak gizonen ikuspegitik eta gizonentzako eraikitako erakundeak direla esan ohi da (Juliano, 2011).

Aurrekari horiek aintzat hartuz, hobeto ulertuko ditugu egungo emakumeen\* espetxeratzeari egindako funtsezko kritikak. Bata emakumeen\* zigorra, bereziki, zuzentzean kokatzen dela, arau legalaz gain arau sozialak ez betetzeagatik zigortzen direla, eta egun espetxea generoa berregiteko erakunde dela (Ruiz, 2016; Almeda, 2007). Bestea espetxea emakumeentzako\* diskriminatzailea dela, berezikerietan oinarritzen dela eta horiek handitzen dituela. Hurrengo atalean, literatura feministak egindako ekarpenak modu sakonagoan landuko ditugu.

### 8.6. Hirugarren teila - Emakume\* presoak: diziplinatu, etxekotu, zuzendu

Elisabet Almedaren arabera (2002), bere sorreratik, emakumeen\* bizi-erregimenaren ardatzak moralizatzea, etxekotzea eta diziplina handiagoa aplikatzea izan dira, eta hiru ezaugarri horiek mantendu egin dira historian zehar, gaurdaino.

Diziplina aipatzean, aktibitateen errutina eta portaeraren kontrol estuaz ari gara. Espetxe-  
autoritateek hurbiletik zaindu dituzte emakumeen\* arimak eta gorputzak zentzu horretan; gainera,  
gehienetan, eliza katolikoari lotuta egon dira autoritate horiek. Hori dela eta, ikerketa batek baino  
gehiagok frogatu duen moduan, emakumezkoak\* gizonekin alderatuz gero, horren oldarkorrek ez  
izan arren, parte diziplinario gehiago dituzte (Almeda, 2005; Juliano, 2011).

Horrekin batera moralizazioaren eragina dago, delitua eta bekatua sinonimo egiten  
dituena eta hezkuntza sexualarekin estuki lotzen dena. Ondo eta txarto dagoena garbi adierazi eta  
desbideratutakoa bide egokira ekartzeko erronka izan du espetxeak. Erljio katolikoaren eragina  
nabarmena izan da historikoki, baita gaur egun ere. Esaterako, espetxearen bueltan lanean ari  
diren hirugarren sektoreko elkarte asko katolikoak dira. Edo espetxe barruko asteroko meza,  
beste inongo aktibitaterik egon ez denean ere, mantendu izan den ekimena da. Emakume\* txarrak  
emakume\* egoki bilakatzeko ariketa horretan, tipo idealak garrantzi handia du. Emakume\* ona  
etxekotutakoa da, jakina.

Publiko eta pribatuaren banaketan, emakumeei\* etxea eta familiako itxialdia dagokie;  
beraz, espetxeko itxialdiak beste itxialdi horietara berregiteko ariketa dela azpimarratu da (Almeda,  
1999, 2002 y 2003). Hori ere nabarmena da gaur egun, aktibitateen eta lanaren banaketa sexuala  
indarrean baitago espetxean; garbiketa, sukaldea, joskintza eta estetika baitira emakumeentzako\*  
ia aukera bakanak.

Laburbilduz, espetxea emakumeek\* gizartean dugun menpeko egoera indartzera datorren  
erakundea da, kartzela ez baita gizartetik kanpoko erakundea. Espetxea genero-erakundea da (Ruiz,  
2016); gizartetik kanpoko erakundea dela dirudien arren, gure gizartean ernamuindu da espetxea.

### **8.7. Laugarren teila - Gizarte barruko gizartea**

Ez da egon eta ez dago espetxeari begiratzeko modu bakarra. Alde batetik, bi paradigma  
nagusitu izan dira: lehena portaera kriminalak kausa indibiduala izango balu bezala aztertzen  
zuen (Parsonsen eskola). Bigarrena —eta lehena ezeztatzen zuten— gizarte bakoitzak, bere  
prozesu sozial, ekonomiko eta politikoen ondorioz, portaera kriminala zer den definitzen duela  
argudiatzen zuena eta, ondorioz, prozesu horiek aztertzei ekin ziona (Frankfurtoko eskola).

Espetxearen funtzio, helburu eta emaitzen inguruko ikuspegiak ere zatituta daude. Batek  
espetxea birgizarteratzeko tresna gisa dauka, eta gaur egungo gizartearen gaitzik txikiena dela  
defendatzen du. Besteak, ostera, espetxeak birgizarteratzeko asmoan porrot egin duela frogatutzat  
jotzen du, eta, beraz, eredu punitiboa berrikusi beharra proposatzen du. Azken horren barnean,  
askotariko iritziak daude, noski, espetxeko desberdinkeriak desegin eta espetxeari alternatiba  
bilatzeko.



Lan honek espetxearen sorrera zein egungo bilakaera neoliberala prozesu ekonomiko, sozial, kultural eta politikoen baitan ulertzen ditu, eta espetxearen funtzioa errepresibotzat du. Espetxean nortzuk eta nola dauden horrek, gizarte bakoitzak zer zigortu eta zer saritzen duen adierazten digula deritzot, eta nola zigortzen dituen horrek, zer gizarte mota daukagun ere.

Mercedes Gallizok, 2004tik 2008ra Espetxe Erakundeko Zuzendari Nagusi eta 2008tik 2011ra erakunde bereko idazkari nagusi izan zenak, Estatu Espainoleko espetxeak jende pobre, gaixo eta drogazalez beteta zeudela adierazi zuen prentsan<sup>257</sup>. Ikerketa ofizialak eta ez ofizialak ere ijito eta atzerritarren gainordezkapenez mintzo dira, drogari lotutako delituak % 70a direla azpimarratzen dute, adinaren batezbestekoa igo egin dela, itxialdiak areagotutako gaixotasunak eta artatze-mediku apalak dakarren osasun-egoera, besteak beste. Espainiako Espetxe Erakundeko gune zentrolean sei urtez lanean aritu zen María Jesus Mirandak (2022) *Cárceles ¿para qué?* lanean dio espetxeak ez duela birgaitzen, ikerketa guztiek berrerortzea % 50ekoa dela baitiote; beraz, espetxeak ez duela delitua betetzeko sasoian asmo hori burutik kentzen, mundu-mailan geroz eta delitu, espetxe eta preso gehiago baitaude (Waquant, 2000). Zentzu horretan, agerikoa da ildo ofizialistagoak espetxearen izaera birgaitzailea defendatzeko arazoak dituela, datuek aurkakoa baitiote, behin eta berriz. Lan honetan aztergai ditugun garaiko datuak ekarriko ditut emakumeen\* kasuan, baina, egungoak askoz hobek ez direla agerian jarri nahian, sexua aintzat hartzen ez duten beste hainbat ere emango ditut<sup>258</sup>:

- 1995ean 45.000 pertsona zituzten preso; 2010ean, 76.000.
- 2009an, presoen % 7,98 emakumezkoak\* ziren. Estatu Espainolak Europako batezbestekoak gainditzen ditu, espetxeratu-tasari dagokionez (100.000 biztanleko, 161,69). Zigorren urte-iraupenari dagokionez, Europako 7,8ko batezbestekoaren aurrean, 17,8koa du.
- Presoen % 60k hezkuntza-maila baxua du, lehen mailako ikasketak amaitu gabe edo horiek baino ez ditu. Emakumeen\* kasuan, are baxuagoak direla adierazten dute ikerketa feministek.
- Senideekin bereziki telefono eta gutun bidez egiten dituzte harremanak, nahiz eta hilean bisita bat edo gehiago izan. Emakumeen\* kasuan, % 18k espetxeratu aurretik tratu txar fisikoak pairatu zituen bikotekide gizonaren partetik, eta % 17 sexualki jazarria izan zen. Horrekin batera, % 68 ordainduak ez ziren lanetan aritzen zen espetxean. % 45 kalean enplegatua zegoen, baina espetxean % 23 baino ez.
- 2000ko hamarkada-hasieran Espainiako Gobernuaren Emakumeen Institutuak egindako III. I+D Plan Nazionalaren harira egindako *Necesidades y demandas de las mujeres presas* azterketaren arabera, % 67k soldatapeko lana egin nahiko luke, % 53k tailer okupazionaletan

---

257 Ikus El País, 5/08/2009

258 Ignacio Gonzalez-en lanetik hartutako datuak (2012 eta 2015)

parte hartu, kirol ekintzetan % 48k, ikasketak burutu % 44k, aisia eta kultur ekintzak % 68k eta tratamendu psikologikoa jaso % 46k. Beraz, horrek garbi adierazten digu presoek, haien borondatearen aurka, egonean egotea inposatzen zaiela.

- Datu horiek ez datoz bat Espetxe Erakundeko langilegoaren funtzio banaketekin: % 71,32 zaingoan ari da; hezkuntza-ekimenetan, % 5,28; osasungintzan, % 4,38; tailerretan, % 2,04 eta psikologo- eta ebaluazio-lanetan, % 6,2. Gainera, esan behar da psikologoaren funtzio praktikoa, espetxean, ez dela kontsulta pasatzea, baizik eta graduen sailkapenean eta tratamendu indibidualizatuari begira txostenak betetzea eta tratamendu-batzordean gomendioak egitea. Horrez gain, langile erreklamatuak langile soziala eta hezitzailea izaten dira, beti ere medikuaren atzetik.
- Tratu txarrei dagokienez, zenbaki zehatza jakitea zinez zaila da. Izan ere, salaketak bideratzea ez da gauza erraza presoarentzat, ez baitu garantia handirik izango prozesuan (Gallego et al. 2010); izan ere, presoaren aurka mendeku hartzeko joera dago kartzeletan (CPT, 2007), langile giltzariak direlako haien kide giltzariak ikertzeko arduradunak, eta NBEko errelatoretzak bereziak aipatu izan duen moduan, interes korporatiboak lehenesteko joera dago, kanpo-ikerketak oztopatuz eta barnekoak laxatuz. Esate baterako, 2011n, orain arte Estatu Espainolean presoaren artean egin den inkestarik zabalena dioenaren arabera, 703 presoaren salaketetatik 34 baino ez ziren epaiketara heldu, eta bi espetxe-langile baino ez ziren izan zigortuak. Errealitate horrek agerian uzten digu litekeena dela salaketekiko konfiantza-falta egotea.
- Zenbaki zehatz eta zorrotzetatik harago aritu behar dugula jakinda ere, tratu txarren salaketa kopurua (Arartekoarengana helarazitakoak edo CPTan<sup>259</sup>) handiak izaten dira Espainiako kasuan. Tratu txarren ezaugarritzeari dagokionez, subjektio-neurrien maiztasun eta iraupenaren ingurukoak dira gehienak; besteak beste, presoaren araketa kopurua edo esku eta hankak ohera lotuta izateko ordu kopurua. Baina ez dira jipoiak eta ahozko umiliazioak falta. Tratu txarrak jazotzeko baldintzei dagokienez, bizimodu itxiko moduluak dakarten presoaren babesgabetasuna eta giltzarien inpunitatearen handitzea nabarmendu behar ditugu, baita zenbait espetxetan, zenbait modulutan pilatzen diren kartzelero talde berezietan ere. Salaketek adierazten dute, askotan, tratu txarrak funtzionario talde batzuen eskuetan kontzentratzeko joera dagoela. Zentzu horretan, eskuin muturreko ideologia duten eta biolentziara emanak diren taldeen presentzia azpimarragarria da espetxe-langileen artean (lehen UFIP: Union de Funcionarios de Instituciones Penitenciarias zena, egun CSIF: Central Sindical Independiente y de Funcionarios).

Datu eta azterketa horiek guztiek agerian uzten dute kartzelak gizarte barruko destilaziorako irlak eta geure gizartearen kondentsazio-guneak direla. Ikusi dugun moduan, espetxea gizarte-

---

259 Comité Europeo para la Prevención de la Tortura y de las Penas o Tratos Inhumanos o Degradantes

antolaketa, -joera, -aldaketa eta -premiekin harremanetan dagoen erakundea da. Denbora eta espazioaren koordenaden erabateko aldaketek barne-mundu propioa sortzen dute, eta, zentzu horretan, espetxea mundu berezi bat den sentsazioa sor dezake, gizartetik kanpoko irlak balira bezala. Baina gizarte barruko irlak dira, eta, gaur egun, zenbait komunitaterentzat, penintsula hutsak. Autore batzuen ustez, hirietako periferietako pobreentzako espetxea auzoaren luzapena bilakatzen da, eta sartu-aterak ez dakarte rolaren etenik (Chuna, 2002, 2005a). Estatu Espainoleko kasuan, ijito-herria dugu joera horren adibide hurbilena.

Laburrera ekarriz, espetxeak, bere txiki eta estuan, gure gizarteko antolaketak eta joerak islatzen eta berregiten ditu, eta askotariko ardatzen arabera botere-harremanek lausotik gardenerako bidea egiten dute bertan. Erabat trinkotuta agertzen dira klasismoa, matxismoa, arrazismoa, baita kultura politiko autoritarioa ere. Azken horretaz arituko naiz jarraian; alegia, disidentzia politikoak definitzeko eta tratatzeko moduz.

### 8.8 Bosgarren teila - Frankismoko preso politikoak: zigortu, makurtu, damutu, eraldatu

Espetxe-politika bizi izan zuten emakumeen\* testigantzei eta jasoketa-lanei esker, errepresio frankistaren ikerketa-lerroan emakumeen\* espetxealdiak izan duen ikusgaitasun-faltan argi apur bat egin da (Verdugo, 2008). Izan ere, horiei esker, pixkanaka, historia eta soziologia zein ikerketa feministetatik, frankismoko emakume\* presoek bizi izan zuten egoera, garatu zituzten borrokek —gose grebak adibidez—, eta oro har, haien esperientzia ezagutzeko aukera izan dugu.

Azken diktadura garaiko espetxea aztertu duten asko bat datoz espetxeak, zaingoa eta zigorraz gain (Foucault, 1975), makurtzea, damutzea eta preso eraldatzea (identitate eta ideologia aldetik) bilatzen duela (Vinyes, 2011). Helburu horri xerka, eta Euskal Herrian Zornotza, Durango eta Saturrarango<sup>260</sup> erreferentziak ekidinezinak direla azpimarratuz, emakumeen\* espetxe politikoaren ezaugarriak honako hauek izan ziren:

- **Izaera politikoaren ukapena:** Emakumeen\* kasuan, preso politikoak (gizonak ez bezala) preso sozialekin batera mantendu zituzten, haien izaera politikoa ukatuz. Hori dela eta, elkartasun-sareak eta beste mota batzuetako jarduerak bereziki haien artean antolatzen zituzten. Etengabe beste presoengandik nabarmentzeko eguneroko ariketan murgiltzen ziren, gauzarik txikienarekin bazen ere.
- **Haurrak kentzea:** Haurrak gosez ala hotzez hiltzen ez zirenean, mojen bidez —moja-kongregazio ezberdinek kudeatu zituzten espetxeak— autoritate frankistek haur horiek familia frankisten esku uzten zituzten hainbatetan; justu, Antonio Vallejo Nájera (1938)

---

260 Espetxe horietan pilatu zituzten emakumeak\* frankismo garaian. Ez ziren leku bakarrak izan, noski, baina, gaur egunera arte ikertu denaren arabera, espetxe horiek kualitatibo eta kuantitatiboki emakumeen\* espetxealdian garrantzitsuak izan ziren.

psikiatra sonatuaren tesiari segika, ideologia genetikoki pasatzen zelakoan-edo. Horrek unean eragindako zauriaz gain, espetxetik ateratzean seme-alaba askok haien amen aitortza ukatzeko izan zuten joera beste zigor bat bilakatu zen.

- **Deserria:** Baldintzapeko askatasunean, 60 eta 250 kilometro arteko deserria ere ezarri zieten, ustez berriz kontu politikoetan ez nahasteko eta «gizarte-ofentsa» zela eta; alegia, militantzia alde batera uzteko eta jatorrizko herrietan ustez utzitako biktimak eta laidotutako pertsonak errespetatzeko.
- **Kontrola eta presioa:** Horrekin batera, kalean antolatu zen elkartasun-sarea desegiten saiatzearekin batera, sarea erabilia emakume\* horiek eta haien senideak kontrolatzen saiatu ziren. Gainera, preso ohiek maiztasun handiz sinatu behar zuten polizia-etxeetan, eta askok diote presioa horren handia zela itota bezala sentitzen zirela.
- **Ilea moztea eta beste ankerkeria batzuk:** Gudan zehar eta frankismoko lehen hamarkada bortitzean, emakume\* askori ilea moztuta eta errizino-olioa edatera behartuta, biluzik eta beherakoak jota paseatzen zituzten herrietatik barna. Praktika frankista honek, ustez modernitatearekin bazter utzi ziren krudelkeria fisikoen erakusketa publikoa berrezartzea ekarri zuen emakumeen\* kasuan.
- **Erredentzioa:** Delitugile eta bekatari gisa, zigorraren erredentzioa frankismoaren espetxe-politikaren ardatzetako bat izan zen. Emakumeen\* kasuan, zigorraren erredentziorako estatu-egitura, senitartekoen kontrolerako erabiltzeaz gain, genero-marka handia izan zen<sup>261</sup>.

Horrez gain, gizonezkoek bezala, gosea, gaixotasunak eta mediku-artatze urriak zein heriotza-zigorak pairatu zituzten.

### 8.9. Seigarren teila - Kartzela barruko kartzelen eraikuntza-prozesua, bost urratsetan

Estatu Espainoleko trantsizioa espetxeetan nola gauzatu zen aztertu dutenen arabera (Rivera, 1999-2005; Lorenzo, 2013), berantiarra, geldoa eta erlatiboa izan zen espetxeetako erreforma. Prozesu hori preso politiko eta sozialen<sup>262</sup> protesten<sup>263</sup> artean garatu zen, gainera. Beraz, kartzelan 1985era arte ez da delako trantsizioa gauzatutzat joko. Espetxeko langile kopurua bikoiztu zuten, bereziki segurtasunera bideratutakoak, eta eraikinak eraberritu edo berri batzuk irekitzeari ekin zioten. Hala ere, preso kopuruaren igoera etengabea eta eraberritze-prozesurako zegoen

---

261 Hernando Holgadoren (2011) arabera, frankismoko lehen erregelamentuetan, 1938an, emakume\* presoen lana haien sexu eta zereginei lotutako lanekin lotu zuen.

262 1977an COPEL sortu zen, borrokan zeuden preso sozialen koordinadora. Haien burua preso sozialtzat autodefinitu zuten, eta haientzat ere amnistia eskatzen zuten, urte gutxiren buruan, Garcia Valdés Espetxe Erakundeetako zuzendari nagusi zela, desegin baitzuten. Gehiago jakiteko, ikus: Lorenzo Rubio (2013).

263 Preso sozialak politikoei ikasitako moldeak erabiltzen hasi ziren garai hartan. Lorenzo Rubio (2013).

aurrekontua ez zetozen bat. Hori dela eta, elikadurari, osasunari, lanari, aktibitateei, higienerari eta abarri lotutako baldintzen hobetzea apala baino apalagoa izan zen.

Preso politikoen kasuan, amnistia ostean, espetxeak preso politikoz betetzen ari zirela kontuan hartu behar dugu. Aro horretan, preso politikoak *kartzelaren barruko kartzela* deitzen zaien isolamenduko erregimen gogorren eraikuntza-prozesuaren parte izan ziren, dela horiek pairatuz, dela horiek borrokatuz. Kartzelaren barruko kartzelak, azken batean, espetxe barruan eraikitako tortura-lekuak dira, polizia-etxeetan egindako torturak bezala, sekretua gordetzeko babes fisiko, legal, medikal eta mediatikoa beharko dituenak, gutxienean. Bi hamarkada horien ostean espetxeratu zituzten ikerketa honetako emakumeak\*; horrenbestez, hurrengo lerroetan, emakume\* horiek erregimena sortzeko bizi izan zuten-genuen prozesuaren berri emango dut.

- **Lehen urratsa: Kontraerreforma:** Estatu Espainoleko espetxeetan presoaren tratamendua bizi-erregimenaren menpe egon beharrean, alderantzizkoa gertatzen zen; bereziki, 1. graduan sailkatutakoen artean. Batzuek 1978. urtetik aurrera abiatu zen prozesu horri kontraerreforma deitzen diote (Lorenzo, 2013), funtsean segurtasun handiko espetxe eta erregimenen alde egin zelako. 1981. urtean, espetxe-lege organiko berriak, bere 10. artikulua bidez, muturreko bizi-baldintzak aurreikusten zituen. Intsubordinazio-kasu larrietarako sortutako artikulua horrek 22 eta 23 orduz mantentzen zituen presoak ziegan, eta eguneroko diziplina estu eta jarraituaren mende zituen. Tartean, artikulua horren pean Segurtasun Goreneko Espetxe gisa ireki zen Herrera de la Manchan gauzatu zen biolentziaren ondorioz, prozesu judizial gorabeheratsuak egon ziren<sup>264</sup>.
- **Bigarren urratsa: Sakabanaketa politika:** Bitartean, heroinaren fenomeno dela-eta zein gobernutik gaia lantzeko hartutako ildo politikoa<sup>265</sup> medio masifikazioa eta gatazka-giroa gorantz zihoazela, euskal preso politikoekiko dispersio-politika abiatu zen. 1987an hasi eta 1989ko Aljeriako negoziaketen porrotaren ostean bizkortu zen politikak gatazka-giroa eta tentsioa areagotu zituen. Astebetean 400 leku-aldatze gauzatu ziren, eta, euskaldunen ostean GRAPOkoei neurria ezartzean, haiek gose-grebari ekin zioten (hil egin zen beraietariko bat, nahiz eta bortxaz elikatuak izan ziren). 1988ko urte hartan, Antoni Asunción ministroak adierazi zuen neurri horrek preso politikoen arteko barne-elkartasuna garatzen zuten komunak desegin eta presoak ETAko diziplinatik aldentzeko helburua zuela.
- **Hirugarren urratsa: FIESaren sorrera:** 1989ko ekainaren 26an, 1. graduan edo LOGPko<sup>266</sup> 10. artikulua eraginpean zeuden presoentzako, *Normas Comunes Tipo* zeritzan zirkularra egin zuen Espetxeetako Zuzendaritza Nagusiak (EZN). Bertan, preso horien eguneroko bizitzako eremu guzti-guztiak arautzen ziren: patiorako irteerak,

---

264 Gehiago jakiteko, ikus: Eduardo Parra (2015).

265 Besteak beste: 1988ko Kode Penalaren aldaketa, 1985ko Drogaren aurkako plan nazionala eta 1992ko Corcuera legea.

266 Ley Orgánica General Penitenciaria

arropa eta irakurketarako gutxieneko ziega-ondasunak (bi liburu, bi kamiseta eta abar), komunikazioak eta araketak. Azaroaren 13an, beste zirkular bat sortu zuen EZNak, preso politikoek egunerokoa jasoko zuten banakako jarraipen-fitxa egitea aginduz. Aro horretan, eskuin-muturreko joerak zituzten giltzarien eta administrazioaren arteko hika-mikak egon ziren, segurtasuna eta bortizkeria zela eta.

1991eko martxoaren 6an, isolamendu-politika areagotzen trebatu zen Asunción, eta FIESa sortu zuen: *Ficheros de Internos de Especial Seguimiento*. Bertan, ziegan 20 ordu edo gehiagoz egotea agintzen zen, sare estalitako patio txiki batzuetara bakarka irtetea, astero gorputz, ziega eta ondasunen araketa egitea, komunikazio guztietan esku hartzea, bisean bisekoak eta telefono-deiak kentzea, inongo aktibitate komunik ez izatea eta, beharrezkoa zen kasuetan, presoak eskuburdinez blokeatzea. Funtsean, tratu gizagabe eta zitala arautu zuen.

- **Laugarren urratsa: Segurtasuna lehenesten duen ereduaren egonkortzea:** 1991n, zentro-tipoen eraikuntzari ekin zion PSOEko gobernuak *Plan de Amortizacion* delakoaren bidez. Makroartzela deitzen zaien horien diseinu arkitektonikoak orain, ordura arte espetxe-langileek eskatutako segurtasun-neurriak jasoko ditu: herri-multzoetatik urrunduta egotea, kontrol-dorreak izatea, bideokamera-zirkuitoak egotea, ateen irekiera eta itxiera motorizatuak izatea eta abar. Funtsean, ortzi-mugan presoaren bizi-baldintza eta tratamendua izan beharrean, mutinak, ihesaldiak eta bestelako borrokek ekiditea zuten xede.

1995ean, Zigor Kodea aldatu zuten, eta 1996an Espetxe Erregelamendua. Lorenzoren ustez (2013), bi urrats horiek mugarri izan ziren Estatu Espainolean zigor-politika efektista ezartzeko garaian. Hots, presoek segregazioa bilatzen zuten eredu indartuta atera zen lege eta erregelamendu berrien ondorioz. Bertan, nolabait, FIESak legeztatzen dira; izan ere, zirkularrek ez dute kontrol parlamentarioz ezta judizialik, eta horrek esan nahi du legeditik at ezarritako neurria izan zela. Orduan, bost FIES modu ezarri zituzten; euskal preso politikoek FIES 3 osatuko zuten aurrerantzean. FIESak legeztatzearekin batera, erregimen itxia makroartzeteletara egokitu zuten, eta, horretarako, 1. graduko erregimen itxia bi eredutan banatu zuten: bata departamendu berezietan betetzeko kontrol zuzenez, eta bestea erregimen itxiko moduluetan. Gaixo larrien irteera prozesuak zaildu egin zituen lege-aldaketa horrek, eta aurrerantzean erredentzioak zigor-urteen gainean aplikatzen hasi ziren, eta ez —ordura arte bezala— bete beharreko zigor-urteen gainean. Ondorioz, kaleratze-prozesu ugari atzeratu ziren.

1996an, PP alderdia gobernura iristearekin batera, EZN Barne Ministeritza barnean sartu zuten, beste behin agerian utziz espetxe-politikaren irizpideak ordena publikoa eta segurtasuna zirela, eta ez zutela zerikusirik irizpide juridikoekin; bereziki preso politikoek kasuan.

- **Bosgarren urratsa: barne etsaia deuseztatu, mendekua:** Arestian aipatutako joera hori areagotuz joan zen 2001eko irailaren 11ko atentatuen ostean nagusitu zen barne- eta kanpo-etsaiekiko «gerra egoeran». Bete beharreko zigor-urte efektiboak 30etik 40ra igo ziren, 3. gradua eta baldintzapeko askatasuna eskuratzea ia ezinezkoa bilakatu zen, bizi osorako zigor estalia sortuz, zaintza-epaitegiak zentralizatu egin ziren; eta, funtsean, «etsaiaren zigor-zuzenbidea»ren<sup>267</sup> ezarpena berretsi zuten.

Ikusi dugun moduan, preso politikoei ezarritako kartzelaren barruko kartzelak, Estatu Espainolean egun indarrean dagoen kartzela-sistematik eta ondoko oinarri juridikoetatik edan du. 1978ko Espainiako Konstituzioko 25.2. artikulua finkatu zuen «berreztea» eta «birgizarteratzea» direla askatasun-gabetzea oinarri duten zigorren zereginak, eta 1979ko Espetxeei buruzko Lege Organiko Orokorrak, 1981eko Espetxe Araudiak eta azken horren 1996ko erreformak ostera zehaztu zuten ereduaren funtzionamendua, apurka-apurka gero eta jarraibide gehiago sortuz. Jarraibide horiek, baina, zigorrak bere osotasunean bete, bizi osoko zigorrera hurbildu, itxitasunik ahalik eta handiena ezarri eta kontrol estura lotzea ekarri dute. Eta hori izango da ikerketako emakumeei\* bizitzea egokituko zitzaiena-zitzaiguna.

#### 8.10. Zazpigarren teila: Espetxe Erakundearen irakurketa feministen ekarpena

Estatu Espainolaren eremuan, diktadura aurretik Concepcion Arenal (1820-1893) eta ondoren Victoria Kent (1892-1987) ditugu emakume\* presoan egoeraz kezka adierazi zuten artean ekidin ezineko erreferentzia. Arenalek, aitzindari feminista gisa, emakume\* presoan egoera gogor salatu zuen, eta Kentek emakumezko\* kartzelarien figura sortu zuen, bertako zuzendari nagusi izan zen garaian, 1931an. Francoren diktadurako azken urteetan eta 70eko hamarkadaren bigarren erdian, kartzela ezagutu zuten emakumeek\* ikerlan batzuk plazaratu zituzten (Pamies, 1975; Falcón, 1977; Dapena, 1978; Dona, 1978). Gerora etorritako hamarkada, aldiz, lan-eskasiak ezaugarritu zuen (Tomas Cuevasen<sup>268</sup> lan zoragarria dugu salbuespen bakar).

80ko hamarkada-amaieran, lanak agertuz eta ugarituz joan ziren. Ordutik aurrerako bidea bi etapatan banatzea proposatu du Almedak, hain zuzen ere lan kopurua, iker-diziplina eta gaiak aintzat hartuz. Lehen etapak XX. mendeko azken hamarkadak hartzen ditu, eta, bertan, lan historikoak dira nagusi nahiz eta kriminologiatik ere ikertzen hasiak ziren, dela emakumeen\* kriminalitatea, dela emakume\* presoan egoera. Bigarren etapa mende berriarekin batera hasi eta gaurdaino luzatzen dela diosku autore aitzindariak. Bere ustez, aro hori askoz emankorragoa izaten ari da, lan, gai eta diziplina kopuruei dagokionez.

267 Conde, F. Muñoz. (2003). El nuevo derecho penal autoritario: consideraciones sobre el llamado «derecho penal del enemigo». In *La influencia de la ciencia penal alemana en Iberoamérica: en homenaje a Claus Roxin* (117-126). Instituto Nacional de Ciencias Penales.

268 Grabadora hartu eta Espainiar penintsula osotik bidaiatu zuen ezagunak zituen emakume\* presoak elkarrizketatuz. Berak bere burua aurkezten zuen moduan, ikasketarik gabea zen, baina haien memoriak haiek kontuan hartu behar zituen uste irmoak mugituta aritu zen

Nik bereziki azpimarratu nahi ditut soziologiatik eta antropologiatik egindako hurbilpenak; zehazki, Almedak 1999an bere doktore-tesiaren bidez ireki zuen bidea eta corpora. Batez ere, emakume\* presoen ikuspegia jaso zuelako nabarmendu nahi dut. Azken 20 urte hauetako ekarpen zientifikotik, ez ditut emakumeen\* delituen inguruko lanak ekarriko lerrootara (Bona,1992 y 1994; Balmaseda y Carrera, 1995; Sepúlveda, 1995; Fernández et al.,1995), espetxeen izaera generizatua eta espetxearen izaera diskriminatzailea lantzen dituztenak baino, horiek direlako nire azterlanerako funtsezkoak. Zentzu horretan, Maria Ruiz Torrado, Elixabete Imaz, María Naredo, Estibaliz De Miguel, Cesar Manzanos eta Juana Balmasedak egindako ekarpenak azpimarratu nahi ditut, geografikoki eta kulturalki gertuen ditudan erreferentziak ekartzearren. Almedak eta Bodelonek, *Mujer y Castigo* (2007) lanean egiten duen aipu honekin, oso ondo laburbiltzen ditu Estatu Espainoleko emakumeen\* espetxealdiko baldintzak:

Espainiako kartzelek diskriminatu egiten dituzte espetxeratutako emakumeak, ez bakarrik gizonak baino okerrago tratatzen dituztelako, baita tratamendua sexista delako ere. Gure herrialdean, emakumeak espetxeratzeko erakundeen ezaugarriek emakumeentzat askatasun-gabetze gogorragoa dakar. Emakumeen espetxeetan, baliabide ekonomikoaren hornidura eskasa dago [...]. Espetxe-tratamendua emakumeen rol tradizionala indartzen duen ikuspegi sexista eta estereotipatuan oinarritzen da: diziplina eta kontrola gogorregiak dira, neurri gabeko medikazioa dago, eta familia-kargak dituzten emakumei arreta eta laguntza falta zaie. Egoera diskriminatzaile horiek bereziki larriak dira emakumeentzat, eta espetxe babesleetan eta paternalistetan gizartean bertan dauden genero-desberdintasunak sendotzen eta areagotzen dituzte (Almeda, 2007:28).

Beraz, materialki espazio txikiagoetan eta baliabide gutxiagorekin betetzen dute zigorra. Gabeziak dituzte bitarteko faltan, programan, formazioan, tailerretan eta osasun-zerbitzu eta -tratamenduan; are gehiago, genero-rol tradizionalak eta nagusiak berregitera zuzendutako programazio eta tratamenduak agintzen du (Almeda, 2005; Ruiz, 2016). Emakume\* presoen arteko aniztasun-printzipioa ez da aintzat hartuko, presoen arteko sailkapenik ez baita egiten; alegia, emakumeen\* kasuan denak elkarrekin jartzen dituzte. Lan eta enpleguari dagokionez, biek ala biek sexuaren araberrako banaketa-printzipioari erantzuten diote, eta indartu egiten dute printzipio hori. Gizonak baino bortizkeria gutxiago erabili arren, diziplinazko espediente bidez gehiago zigortzen dituzte andrazkoak (Aguilera, 2011), eta, gainera, medikalizazio-maila zein ezarritako dispersio geografikoa handiagoak dira. Amaitzeko, ezin ahaztu espetxe-langileen aldetik sexualki jazarria izateko baldintzak eta hurrak ekartzekoak. Lehenengoari dagokionez autoritate printzipio bertikal eta arbitrarioan oinarritutako erdua den heinean, salatu izan diren (Avila<sup>269</sup>, Soto Del Real<sup>270</sup> eta Langraitzeko<sup>271</sup> kasuak) sexu-eraso sistematikoak gertatzeko baldintza behinenak daudela esan daiteke. Amatasunari dagokionez, haurra amarekin egon daiteke espetxe barruan hiru urteak bete arte. Amentzako moduluak ohiko modulu baten egitura eta funtzionamendua

---

269 <https://www.elmundo.es/sociedad/2017/09/25/59c93aa5468aeb18248b45a9.html>

270 <https://www.publico.es/politica/condenado-25-anos-funcionario-carcel.html>

271 <https://www.diagonalperiodico.net/libertades/funcionarias-langraitz-confirman-acoso-sexual-contra-trece-reclusas.html>



dute, eta haurra bertan egoten da amarekin 24 orduz, hiru urteak bete arte. Sasoi horretan, kalera atera beharko du eta beste bisitarien baldintzetan (leku eta maiztasunari dagokionez) elkar ikusi. Beraz, amatasun intentsibotik, distantzia eskerga eta deserrotzerako jauzia inposatzen zaie amari eta hurrei (Almeda, 2003; Imaz 2007; Juliano 2011; Arbelaitz et al.,2012).

Ikusi dugun moduan, emakume\* preso guztien egoera ez da berdina, eta, pixkanaka, Almedak estatuko ikerketa feministen bilakaeraren bigarren fasean kokatzen dituen ikerketak leku egin diote errealitate espezifikoko horiei guztiei. Corpus horren parte dira emakume\* preso droga-mendekoen (Martinez, 2010; De Miguel, 2015), ijitoen (Equipo Barañi, 2001; Imaz eta Martin-Palomo, 2007), migratzaileen (Naredo, 2004; Imaz 2007; Martin, Miranda eta Vega, 2005; Ribas, Almeda eta Bodelon, 2005; Almeda, 2010; Almeda eta Di Nella, 2011; Castillo eta Ruiz, 2006, 2010, beste batzuen artean), amatasunen (Yague, 2007; Igareda, 2009; Naredo, 1999; Vara, 2011) eta maitaleen (De Miguel, 2016) errealitatera hurbildu gaituzten lanak.

Pozgarria ikusten dut ikerlanen bidez preso dauden emakumeak\* ez homogeneizatzeko hautu hori. Hala ere, emakume\* preso adinekoei eta gaixoei buruz lan gutxiago egin dira; baita —ikerketa honi zuzenean eragiten dion beste hutsune handia— 1. gradu edo isolamenduko moduluetan dauden emakumeei\* buruzko ikerketak. Eta, maila batean, ikerlan hau hutsune horretan eragin guran ere badator.

### **8.11. Zortzigarren teila - EPPKren aurkako oldarraldi berria (1995-2015)**

Espetxe-zigorraren oinarriz zigortuen pertsona multzoa gizartetik ateratzea izan arren eta —beste edozein erakunde itxitan bezala— irentsi egiten zaituen barne-mundu intentsibora giltzapetu arren, Espetxe Erakundea, gure gizarteen eraikuntza den heinean, gure gizarteko egoera eta aldaketei erabat lotuta dago. Zer esanik ez, espetxe-politika. Funtsean, kartzelak gizartetik kanpo baino gizarte barruan eraikitakoak badira, espetxe-politika gatazka politikoen erdigunean altxatuko da.

Aztergai dugun kasuan, Estatu Espainol eta Frantsesek euskal preso politikoei ezarri bizi-erregimena aztertzeke, garaiko une politikoaren araberrako estrategia eta neurri ezberdinez osatuta egon denez gero<sup>272</sup>, bi ataletan aztertuko dut: lehenengoan, espetxeko bizi-baldintzei lotutakoa landuko dut; bigarreanean, berriz, garaian ezarritako neurri berriekin zerikusia duena (dela lege aldaketak, dela legeen interpretazio berriak, dela legeen aplikazio berriak).

---

272 Horrela dio *Burdinen arteko herria* liburuak, eta horrela adierazi dute Espainiako gobernuak publikoki behin baino gehiagotan; funtsean, espetxe-politika politikoa antiterroristaren barruan kokatzen zutela diotenean horixe esaten ari baitira. Adibidez, «Inputazio berriak eraikitzea beharrezkoa bada, inputazio berriak eraikitzen dira» PSOEko Justizia Ministroa zen Juan Fernando Lopez Aguilarrek 2000ko hamarkadan esana.

### 8.11.1 Espetxe-erregimen politikoa

- Euskal Herriatik urruntzea: Espainiako Lege Organiko Penalak preso bakoitzak zigorra bere jaioterri edo bizitokitik hurbilen dagoen espetxean bete behar dutela dioen arren, 1987-89tik 2023ra arte nagusi izan da «Dispertsio Politika» modura ezaguna egin zen politika. Politika horrek urruntzea eta sakabanaketa ekarri zituen. Gainera, urruntze hori bizi dutenak ez dira preso politikoak soilik; preso sozialen kasuan ere gertatzen da, bereziki emakumeen\* kasuan (arestian aipatu dudan legez). EPPK-ko kideen kasuan, aldiz, urruntze hori estrategia antiterroristaren parte izan da, eta, ondorioz, ondo aztertutakoa eta sistematikoki ezarritakoa. Ikerketa honetako partaide gehienek ez dituzte Euskal Herriko espetxeak ezagutu, soilik hiruk eta epe laburrez; zehazki, Euskal Herrian diligentzia judizialen bat egin behar zutelako.
- Preso politikoen arteko sakabanatzea: Haien herrialdetik urruntzeaz gain, haien artean ere espetxe ezberdinetan eta espetxe berean bertan sakabanatu izan dituzte; bereziki, 1989. urtetik landa. Espetxe berean modulu ezberdinen artean sakabanatzeaz gain, modulu berean egon arren bizi-erregimen ezberdinak ezarriz elkar ez ikusteko modua bilatu izan du Espetxe- Zuzendaritzak. Hori gutxi balitz, kartzela bereko preso politikoek topo egin zezaketen espazioak (esate baterako, bisita eta bisean biseko gelak, espetxe bakoitzeko gune zentralen bateko aktibitate orokorren bat edo espetxe-erietxea) zorrotasun handiz zaindu dituzte. Alegia, topo egin ez zezaten espetxe-antolaketa osoa moldatzen zuten — hori ere, espetxe eta une politikoaren arabera, zurruntasun handiagoz ala gutxiagoz—.
- Komunikazioen interbentzioa eta irakurgaien zentsura: Espetxeratu eta batera, preso politikoen gutun, telefono-dei eta lokutorioko bisitak zuzenean entzun eta irakurriak ziren; bisean bisekoak eta abokatuen bisitak, aldiz, ez. Hala ere, horiek ere entzunak ziren susmoa zutela adierazi dute; beraz, beraien intimitatearentzako lekurik ez egotearen sentimendua nagusitzen zitzairen. Horren ondorioz, zenbait elkarrizketa pertsonal eta, bereziki, politikoak tentu handiz edo zeharkako hizkuntzan egiten omen zituzten (keinuen bidez, beste izen batzuk erabiliz eta abarrez). Izan ere, Espetxe Zuzendaritzak beraietariko bakoitzaren profil politiko eta pertsonala osatzen zuela kontuan hartuta eta, are gehiago, profil horiek beraien aurka erabiliak izango zirela jakitun, haien benetako kezkak ezkututzen saiatzen ziren. Tarteka, preso politikoen gutunen bat edo bisitan esandakoren bat Espainiako egunkariren batean argitaratuta agertu izan da, eta horrek ere buru-langa handia omen zekarren. Horrenbestez, komunikazioen esku hartze horrek eragina izan du kaleko jendearekiko harreman eta komunikazioetan, isolamendua handituz. Komunikazioen esku hartzearen benetako jakinarazpen baten adibidea jaso da 12. irudian.

## 12. irudia

## Komunikazioen esku hartzearen jakinarazpen eta argudiaketa

MINISTERIO DE INTERIOR

SECRETARIA GENERAL DE INSTITUCIONES PENITENCIARIAS

CENTRO PENITENCIARIO DE MADRID V

EJEMPLAR INTERNO

**ORDEN DE DIRECCION**

**ACUERDO DE INTERVENCION DE COMUNICACIONES**

De conformidad con lo previsto en los arts. 51/5 de la L.O.G.P. y art. 43.1 R.P., esta Dirección acuerda **la intervención de las comunicaciones orales y escritas del interno:**

**Interno/a: DAÑOBEITIA CEBALLOS OLATZ**

por razones de seguridad y orden del Centro.

Las razones de seguridad y orden se concretan en:

- 1ª.- *La capacidad criminal y la peligrosidad del interno/a patente en e/los delito/s presuntamente cometido/s (Terrorismo) y por el/los que actualmente se encuentra preso.*
- 2ª.- *Presunta vinculación del interno a la Organización Terrorista ETA, siguiendo en el interior del Establecimiento las directrices consignadas por la misma (protestas, encierros, incumplimiento de normas reglamentales, etc)*
- 3ª.- *La posibilidad de que a través de las comunicaciones se faciliten datos o información que podría repercutir en la seguridad del Establecimiento y sus trabajadores*

El presente acuerdo de intervención de comunicaciones será revisado cada 6 meses, según la Instrucción 06/06, asistiéndole el derecho de recurrir en queja al Juzgado Central de Vigilancia Penitenciaria de acuerdo con lo establecido en el art. 76.2. apartado g. de la L.O.G.P.

**Puede remitir un máximo de dos cartas semanales en base a lo establecido en el artículo 46.1 del R.P.**

Se exceptúan de la limitación anterior y de la intervención las comunicaciones previstas en el artículo 48 del Reglamento Penitenciario, con abogado defensor, abogado expresamente llamado en relación con asuntos penales y procuradores que le representen y las establecidas en el art. 49.2 del mismo Reglamento con el Defensor del Pueblo o sus Adjuntos o delegados o con instituciones análogas de las Comunidades Autónomas, Autoridades Judiciales y miembros del Ministerio Fiscal.

Soto del Real, a 23 de enero de 2009

Recibi COPIA, fecha: El/la interno/a

Entregado, el Funcionario nº

C.P. MADRID V

CARRETERA M 608  
K.M.T. 3.500  
C.P. 28971 SOTO DEL REAL

Iturria: nirea.

- Komunikazioen beste mugak: Idatz zezaketen gutun kopurua ere mugatu egiten zuten, Madrilen horiek itzultzen eta zelatatzen zegoen ekipoaren hobe beharrez, antza denez, baina presoaren eskubideen kaltetan, bistan denez. Espetxearen arabera, bidali zezaketen gutun kopurua ezberdina zen: astean bikoia, astean bostekoa ala mugagabea. Gainera, gutunak irakurri, aztertu eta, kasu askotan, hizkuntza itzultzeko bi eta hiru asteko epea hartzen zuten «segurtasuneko langileek»; beraz, komunikazioa motel eta geldoa zen. Horrekin batera, zenbait espetxetan euskaraz komunikatzeko debekua ezarri izan zen. Gutun edo pakete bidez presoari sartzen zioten gauzen artean zeuden liburu eta aldizkari guztiak ere ez ziren presoaren eskuetara iristen, dela depositu legala ez zutelako, dela edukia politikoki

arriskutsutzat jotzen zutelako. Euskal Herriko prentsaren kasuan, bazkidetza bidezko sistema bidez jasotzen zuten, baina hori ere, kasu askotan, atzerapen handiz.

- Ziega eta gorputz-araketak, biluzteak, ziega- eta espetxe-aldaketak: Segurtasunaren izenean ala aitzakiaz, presoarengan desegonkortasuna eragiten duten neurri horiek guztiak ezarri izan zaizkie.
- Bisean bisetarako ahaideak biluztea: 2010etik aurrera, sistematikoki ahaideak biluzarazten hasi ziren, eta horren aurreko ukoak denbora luzez ahaideen bisita gabe egotea ekarri zuen.
- Isolamendu fisiko mota ezberdinak: Preso politikoaren gehiengoa bizi-erregimen itxienean sailkatzen zuten (1. gradua epaituen kasuan, eta 10. artikulua prebentiboenean). Horiatariko batzuk zigor-modulu berezietan sartzen zituzten bizitzen; beste batzuk, bizimodu itxiko modulu berezietan; eta besteak, bizimodu arrunteko moduluetan, baina bizi-erregimen murriztaz.
- Moduluetatik eta espetxetik kanporako irteeretan segurtasun bikoitza: Beste presoei baino segurtasun-neurri gehiago eta zorrotzagoak ezartzen zitzaizkien. Batzuetan hori irteerak ukatu edo geldotzeko arrazoia bilakatzen zen.
- Bisita baimenen muga: Euskal preso politikoaren gehienezko 40 minutuko iraupena duten lokutorioko bisitak —kristal bat dela medio, eta batzuetan kristala eta barroteak— egin ahal izateko, presoak espetxean egiten du baimen-eskaera. Ondoren, galdegite horiek guztiak Espetxe Erakundeko bulego nagusirako bidea hartzen zuten, bertan baimenduak ala ukatuak izateko. 2003ra arte, ez zegoen pertsona kopuruaren mugarik zerrenda horretan, eta jasotzen zituzten ukoak motibazio politikoengatik omen ziren: bisitaria preso ohia zelako, noizbait atxilotua izan zelako edo noizbait manifestazioren baten aurreko polizia-kontrollean gelditua izan zelako, esate baterako. Horrelakoetan, Espetxe Zuzendaritzak zioen presoaren harreman horiek ez zirela seguruak espetxearentzat, edo presoak birgizarteratzeko proposak ez zirela ere justifikatu omen dute. Horrelakoetan, pertsona bisitariari egiten zieten «ikerketatxoan» oso atzera jo zezaketen, 70eko eta 80ko hamarkadara arte. Espetxez aldatzean baimenak berriz tramitatu behar zituzten, baina, oro har, hastapeneko baimen-eskaera zen gehien luzatzen zena.

Alta, 2003. urtetik aurrera Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentrala ezartzearekin batera, bisita egiteko pertsona kopurua 10 pertsonara mugatu zuten (hasiera batean hiru hilabetero 10 lagun; gerora, sei hilabetero). Neurri horrek galera handia eragin zuen preso eta ahaideengan, zeren presoari lagun bisitariak hautatu beharra eragiten baitzien, eta bisitariari, konpromisoa handitzea; funtsean, hiru edo seihilekoan egin beharreko bisita kopurua handiagoa zelako. Beraz, horrek zaildu egin zuen kartzelarako bidaiak eta pertsona bisitarien eguneroko bizitza uztartzea. Epe luzera, kasu batzuetan lehen ikusten zituzten pertsona batzuk bazterrean geratzen joatea eragin zien; adibidez, edadetu batzuk.

Laburrera ekarrita, inkomunikazioa, isolamendua, bakartzea eta eskubideen murriztapena gailendu da erregimen politiko horretan. Eta horri, ikusi dugun azken kasuan bezala, hamarkada horretan hartutako neurri berriak gehitu behar dizkiogu.

#### 8.11.2. Salbuespeneko legedi eta arkitektura judiziala

1998-99ko Lizarra-Garaziko hitzarmenaren eta Suitzako elkarrizketen, 2005-2007ko Loiolako negoziazio-prozesuaren eta 2011ko ETaren su-eten iraunkorraren artean bizi izan zuten espetxealdian, EPPKren aurkako Estatu Espainol eta Frantsesaren erronkan ondoko eremuak azpimarratu daitezke:

- 2002ko adin txikikoen lege berria.
- 2003an Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentrala sortzea. Euskal preso politikoek, aurrerantzean, ezin izango zituzten haiek kexak lekuan lekuko zaintza-epaitegira zuzendu, auzitegi Nazionalaren menpeko den epaitegi horrek haien kexa guztiak zentralizatzen baititu.
- 2003an gehienezko espetxealdia 40 urtera luzatzea (1986an, 20tik 30era igo zen bezala).
- 7/2003 legea: Aznarren gobernuak bultzatutako 7/2003 legeak baldintza berriak ezarri zituen baimenak eta 3. gradua lortzeko. «Segurtasun tarte» bat ezarri zuten: bost urtetik gorako zigorretan, erdia izan behar da bete —zigor osotik egiten da zenbaketa—. Adibidez: 100 urteko zigorra duen batek, baimenak lortzeko, 25 urte beteak izan behar lituzke; 3. gradura heltzeko, 50 urte beteak, eta, baldintzapean aske geratzeko, 75 urte beteak —Espainian, 40 urtekoa da gehienezko zigorra—. Horrez gain, baldintza gisa daude jasota «helburu eta bitarteko terroristak» alboratzea eta «erakunde terroristarekiko eta haren inguruarekiko» harremanak etetea. Atzera eraginez ezar liteke lege hori; beraz, EPPK osoari eragiten diote baldintza horiek.
- 2006. urtean Parot doktrina: Espainiako espetxe-legediaren arabera, badira zenbait aktibitate presoaren zigorraldia laburtu dezaketenak; esate baterako, ikasketak egiteak. Horri erredentzio deitu ohi zaio. Bada, 2006ra arte, erredentzioak betetako espetxe-urte kopuruari ezartzen zitzaizkion, baina, 2006tik aurrera, ezarritako zigor-urte kopuruari. Horrek esan nahi du, lehen 30 urteko zigorra zuenak erredentzioen bidez bi urte lortzen bazituen, 28 urte baino ez zituela bete beharko. Parot doktrinaren ostean, aldiz, adibidez 200 urteko zigorrari aplikatuko litzaizkioke bi urte horiek; beraz, praktikan, zigor efektiboak berdin darrai.
- Frantzia betetako zigorrak aintzat ez hartzea eta Estatu frantseseko zigorren luzapena. Neurri horiek guztiak jadanik lehenagotik zetozeinei gehitu ahal zaizkie: EPPK-ko % 90 1. graduan klasifikatzea, gaixotasun larri eta sendaezinak dituzten presoak aske ez uztea, eta zigorraren hiru laurdenak beteta kaleratua izan behar duenaren lege-ebazpena ez betetzea.

Agerian geratu da ezen, legedi eta espetxe-erregimen arrunta beharrian, euskal preso politikoen kolektiboa osatzen zuten eta duten kideei berariaz bideratutako arautegi eta legedi multzoa eraiki eta praktikatu izan dela. Horrek ikerketa honetako protagonisten espetxealdia eta bere bizipena erabat baldintzatu zituela ikusiko dugu hurrengo ataletan.

### **8.12. Azken ideiak**

Kapitulu honetan, ikusi dugu euskal emakume\* preso politikoen espetxealdi garaikideaz ezer gutxi dakigula eta ezer gutxi landu dela. Aldiz, akademiatik kanpo aztertu denari erreparatuta, badakigu izaera politikoa dela eta erregimen politiko berezia ezarri zitzaiela, baita erregimen hori hamarkadaz hamarkada trinkotuz joan dela ere. Zaingoan eta zigorrean oinarritutako erregimenaz gain, makurtzean eta deuseztatzean oinarritutakoa ezarri zaie; azken batean, eraldaketa eta damutzea bilatzeko.

Erakutsi dugu ezen, izaera politikoak generoarekin bat egiten duen tokian, frankismo-  
aroko berariazko ezaugarriak izan zituela: aitortza eza, haurrak ebaztea, eskarmentu publikoa berrezartzea... besteak beste. Gainera, ikusi dugu historikoki emakumeek\* pairatu izan duten kartzelaldia itxialdi continuum baten barruan kokatzen dela eta, horiek horrela, espetxea eta itxialdia genero-birgizarteratze hegemoniko eta funtzionalago baten mesedetan ezarri izan dela.

Beraz, izaera politikoaren ardatzari eta genero-ardatzari so eginez gero, bi ezaugarri azpimarratu ditzakegu: бага, espetxealdia itxialdi continuum baten baitan ulertu behar dugula eta, beraz, espetxealdi aurrekoa eta ondorengoari behatzeak baduela bere garrantzia; biga, itxialdi biderkatuak ezarri izan zaizkiela, itxialdiaren barruko askotariko itxialdiak biziaraziz. Zentzu horretan, aztergai dugun espetxe politiko generizatua aurrekari eta erro horien arteko txirikordatzearen emaitza dela ikusiko dugu hurrengo kapituluetan.

## 9. KAPITULUA

### Estatu Espainolaren espetxe-ereduari begira

«Espainiako espetxe-erakundeetako zerbitzu zentraletan sei bat urtez lan egin ondoren (...) gertakarietan oinarrituta nahiko ziur nengoen, kartzelak ia alferrikakoak direla humanoak uxatzeko edo birgizarteratzeko»

**Maria Jesus Miranda, (2002:378)**

«Araudi zorrotzarekin batera, arbitrariotasun osoa ere ikusten da haren aplikazioan. Izan ere, arbitrariorotasunak kontrol uniboko zurruna baino gehiago diziplinatzen du. (...) Zuzena eta okerra kategoria aldakorrek bihurtzen dira»

**Nari eta Fabre, (2000:27)**

#### 9.1. Sarrera

Preso egondako emakumeei\* kartzela ezagutu ez duen bati kartzela nola kontatuko lioketen galdetuta, isiltasuna, putzadak eta noraeza izan dira nagusi. Nondik hasi? Zeri eman garrantzi handiena? Zerekin alderatu? Ulertuak izango bagara, entzuten-irakurtzen dagoenak ezagutzen duenarekin konektatzeko premia dugu. Beraz, azalpenok emateko garaian ekidinezina da gizarteko iruditeriekin harremanetan ipintzea, dela horiek ukatzeko, dela zehazteko. Tamalez, emakume\*-espetxeen iruditeria ahula bezain okerra da, eta, Netflixen aroan, beharrezkoa zaigu *Orange is the new black* telesail kritikoa eta *Vis a vis* telesail hutsala eta irrealia aipatzea. Hala ere, hori baino askoz urrunago joatea nekeza izaten da.

Neurea ere bada espetxea kontatzeko zailtasuna. Egiari zor, antzeko egoeran sentitu nintzen espetxeko atalok garatzeko orduan. Lehen zalantza nagusia honakoa izan zen: espetxea erregimenari, azpiegiturari, denbora eta espazioaren antolaketari ekinez azaldu, ala kalearekiko harreman etenari, bizikideei eta barruko kultura propioari erreparatuta aritu?

Aukera eta kezkak ez ziren galdera horietan agortu, eta segidan beste mordo bat sortu ziren: Zer ardatz hartu: bizipena ala egitura? Zeri erreparatu: politiko-izaeraren bizipenari, emakume\*-baldintzei, preso egoteari ala hirurek bat egiten duten bidegurutzeari? Non egin indarra: zapalkuntzetan ala erresistentzietan? Ezaugarri garrantzetan ala bizirautearen poz eta hazkuntzan? Biolentzia, injustizia eta minari leku egin, ala, kontrakoari, harrotasun, betetasun eta kontu goxoagoi?

Erantzuna, ikerketako emakumeek\* mahainguruetan, idatzietan eta elkarrizketetan azpimarratu dituzten ardatzen arabera kontatzea izango zela ebatzi nuen. Nago espetxea nola kontatu horrek zer kontatua ere badakarrela berarekin. Gainera, espetxea ez da egun batean ezagutzen den gauza. Espetxearen bizipenak bere ibilbidea egiten du, eta, bidean, askotariko ertzak erakusten dizkigu. Espetxe-esperientziak, bizi-esperientzia orokorrakoak legez, ezustekoz beteta datoz, fase eta aroz osatuta daude, eta bakoitzak bere-berea duen ibilbidea egiten du, beste guztien berdina dena, baina, halaber, beste guztiekiko ezberdina, partikular bezain komuna. Lurrek espetxez aldatzen zuten bakoitzean, amari «hau da espetxea» esaten omen zion, eta horrela gogorarazten omen zion amak espetxe-aldaketa bakoitzaren ostean. Ziurrenik, hasieran berria zaizun espetxea behin ezagututa, zeure egiten duzulako, eta, ondorioz, hastapeneko kanpo-begirada galdu egiten dugu. Litekeena da arrotza ezagun bilakatzeko prozesu horretan moldatze-lanak muturrera eramanez izana eta dagoeneko geure buruari egindako narratiba ezberdina izatea. Ondo gogoan dut Avilako isolamenduan geundela, beste espetxe batetik bi kide berri ekarri zituzten batean, haien harridurarako eta harridura-aurpegiari erantzunez, han zoragarri geundela azaltzen niela behin eta berriz. Haien begiek, aldiz, desertu-patioa, ziega-ordu mordoxka eta presoaren profil apurtua baino ez zuten ikusten. Unean, kostatzen zuten zitzaidan elkarrizketa hartako pertzepzio-talkari antzematea (eta, une honetan, lerro hauek idazteko momentuan, zer pentsa ere ematen dit).

Lur, Ekiñe, Xune, Mari, Lola, Sara, Lua, Sua, Alba, Lili eta Ireneri bezala geratzen naiz ni ere irakurlea espetxean kokatzeko erronkaren parean. Kasu honetan, bizipenetan jarri nahi dut arreta, baina horien osotasunaren ulermenera iristeko, garrantzitsua da Espainiako espetxe-eredua eta bizi-erregimena ezagutzea. Alegia, jakitun naiz espetxeek (eraikinak eta funtzionamenduak, idatzizko eta idatzi gabeko arautegiak eta horiek betearazteko moduek) alimaleko eragina dutela presoaren bizi-baldintzetan eta bizipenetan. Horregatik, kapitulu hau espetxe-egiturari eskainiko diot; hau da, Estatu Espainoleko zigor-sarean nagusi den espetxe-eredu tipoa erabiliko dut, espetxe-erregimenaren sistema eta arautegia aztertzeko. Ondoren, hurrengo bi kapituluetan, emakume\* protagonisten bizipenei, harreman-sareari, eraikitako esanahiei eta erresistentziei leku egingo diet.

Hala ere, espetxe-egituraren azalpenetan sartu orduko adierazi nahi dut Estatu Espainoleko espetxe-egitura motaren ezaugarritzeak berak zaildu egiten duela espetxearen azalpen bakar, estandar eta uniforme egitea, zeren, preseski, Estatu Espainoleko espetxe-ezaugarri nagusia arbitrariotasuna baita. Horrek esan nahi du orain betebeharra dena gero debekatuta egon daitekeela; hango espetxe hartan derrigorrezkoa dena hemengo honetan borondatezkoa dela; langile-txandaren arabera eskubide multzo bat edo bestea duzula (ala zuzenean ez duzula). Espetxe bakoitzeko bizimodua eta aukerak bertako arautegiaren interpretazioaren arabera dira, beraz. Eta interpretazio hori zuzendaritzaren eta langile taldeen ideologiaren zein presoek egindako borroken lorpen-mailaren arabera izango da. Indar-korrelazio horren emaitzak aginduko du, funtsean, eta



espetxe-giroa<sup>273</sup> elementu (material eta ez-material) horien guztien arteko elkarrekintzek osatuko dute (Aguilar, 2020).

Hurrengo lerroetan, irakurlea espetxera hurbildu eta bertan sartzen saiatuko naiz. Horretarako, neure espetxealdian ezagututakoa, ikusitakoa eta ikasitakoa ere erabiliko dut, iturri ofizialetako datuekin batera eta landa-lanean jasotako testigantzekin batera<sup>274</sup>. Deskripzio lekutua eta kokatua egingo dut. 2000ko hamarkadan, zigorra batez ere espetxe modularretan eta gehiena 1. graduan egin zuen euskal preso politikoaren esperientziatik. Zentzu horretan, azalpen hori espetxe-zigorra aplikatzeko moduei erreparatuz egingo dut, eta ez horrenbeste lege organikoan edo espetxe-erregelamenduak dakarrenari so, funtsean hori delako lan honek egin dezakeen ekarpena. Ignacio Sanchezek argudiatu zuenez, ikerlaria espetxeaz idazten hasten denean zaila izaten da ahotsa hautatzea. Izan ere, espetxea egitura erabat hierarkikoa da, eta bi rol bereizi, ezberdin baina osagarriak ditu berarekin: preso eta kartzelaria. Bakoitzak espetxeko leku ezberdinak lekutzen ditu, errutina eta praktika ezberdinak ditu, eta, gainera, haien artean botere- eta autoritate-asimetria handia dago; beraz, sarritan aurkako ikuspegiak dituzte, nahiz eta elkarrekin bizi. Botere-diferentzia horrek eragin ohi du, orobat, presoaren hitzari zilegitasuna kentzea eta kartzelariarenari sinesgarritasuna ematea. Ignacio Gonzalezek (2012) dio etnografian oinarritu izan ez diren lanek eragiten dutela ahotsa hautatzeko garaian sortzen den dilema moduko hori. Halaber, jakina da, Estatu Espainolean, bertatik bertarako landa-lana egin duten espetxeen etnografiak ez direla ugariak izan, hain zuzen ere espetxe-eredua itxia delako eta ikerlariarentzat ere trabak handiak izan direlako, urte luzez. Bestalde, nik bertan egin nuen egonaldian, ez nuen etnografiak behar dituen datuak sortzeko inongo biderik jarraitu; eta hori azpimarratzea garrantzitsua da. Hala ere, metodologiaren atalean azaldu dudan moduan, memoria erabiliz, eta nahita presoaren tokian kokatuz, objektibotasun erradikala (Haraway, 1991) eraiki asmoz ekingo diot.

Hurrengo lerroetan, Estatu Espainoleko espetxeetan zigorra betetzeak dakarrena eta, gure protagonisten bizipenera gehiago eta hobeto hurbildu ahal izateko, bertako arautegia, espetxe-sarea, sistema eta eredu-tipoa azalduko ditut; funtsean, horiexek direlako, espetxe-egiturari dagokionez, presoaren egunerokoan inpakturik handiena duten ardatzak.

## 9.2 Estatu Espainoleko espetxe-sarea

Iturri ofizialen arabera, geografia punitiboaren bizkarrezurra gutxienez 82 espetxek<sup>275</sup> osatzen dute, eta horietako 69 dira erregimen arruntekoak. Kopuru horri beste 2 espetxe psikiatriko, erregimen irekian bizi direnentzako 32 zentro, adin txikikoentzako 1300 zentro eta Atzeritarrak

---

273     Espetxeko gizarte-giroaz ari naiz. Araceli Aguilaren definizioaren arabera, espetxe giroa faktore anizkoitzeko kontzeptua da. Espetxe bizitzan garatzen diren dimentsio materialen eta ez-materialen arteko elkarrekintzaren emaitza gisa sortzen da, eta bertako kideek erabat perzibitzen dute (2020).

274     Barne Ministeritza, Espetxe Erakundea, SPACE, Herritarren defentsorea.

275     Espainiako Barne Ministerioaren iturrien arabera.

Barneratzeko 7 zentro<sup>276</sup> gehitu behar zaizkio. Espetxe-sare zabal horretako hiru eraikin baino ez daude emakumeentzako\* propio bideratuta<sup>277</sup>. Halaber, hiru espetxek baino ez dituzte erregimen itxirako emakumeentzako\* unitateak: Avilakoak, Granadakoak eta Valentziakoak. Hiru dira, halaberr, haurra berarekin izateko aukera eskaintzen duten amentzako barne-unitateak: Aranjuez, Valentzia eta Palentzia. Azken horiei dagokienez, azpiegitura eta bizi-erregimenaren aldetik, modulu arrunten oso antzekoak omen dira; alegia, haurrak direla-eta egokitzen handiegirik gabekoak. Badira amentzako beste hiru unitate ere, Madril<sup>278</sup>, Sevillan eta Mallorcan, kaleratze-prozesuan daudenentzako, eta, ustez, espetxe bezala izendatzen ez direnak.

Sare hori guztia zabala da zigorraren kudeaketa eta alternatibak lantzeko dauden 55 zerbitzuguneekin alderatuz gero; emakumeen\* ikuspegitik, sare murriz eta mugatuagoa dugu, ordea. Esate baterako, Estatu Espainoleko geografiari beha, deserrotzea ia derrigorrez biziko du umedun egon eta haurra berarekin izan nahi duenak, baita 1. graduan sailkatua denak ere. Hortaz, emakumea\* izanez gero, onenean, emakumei\* zuzendutako kartzelan beteko duzu zigorra, baina espetxe horiek emakumeen\* beharrak aintzat hartuz eraiki eta antolatu diren ustea deuseztatu beharko duzu halaber; txarrenean, aitzitik, mistoak deitzen dieten baina izatez androzentrikoak diren espetxeetan izango zaituzte. Datu harrigarriak, inondik ere, Europako emakume\* preso portzentaje handiena duen estatua izateko.

Amaitzeko, sare horretako espetxeen artean, diferentziak handiak dira, tamainan, urte kopuruan eta barne-dinamikan (Gonzalez, 2012), eta horrek eragin handia izango du espetxe zigorra betetzeko egokitutako espetxearen arabera. Arbitrariotasuna azpiegituratik bertatik hasten da, beraz.

### 9.3. Sistema progresiboa eta bizi-erregimenak: etengabeko xantaia

Nola azaldu eta nola ulertu espetxea zer den, denborarekiko eta espazioarekiko dakarren berrantolaketa eta murrizketari erreparatu gabe? Foucaulten *Vigilar y castigar* (1975) zein Goffmanen *Internados* (1961-1972) lanak funtsezkoak izan dira zentzu horretan. Foucaultek zioen denbora eta espazioaren kontrolak presoarekiko diziplina-tresnak zirela eta, gorputz-diziplina horren bidez, subjektibitate-aldaketak eta otzantasuna bilatzen zirela. Izan ere, modernitate ilustratura arte, zigorra gorputza mintzean zetzan; ordutik landa arima bihurtuko da helburu (nahiz eta horretarako gorputza bitarteko izan). Goffmanek *instituzio totalaren* kontzeptua plazaratu zuen, modernitateko gizartearen denbora- eta espazio-banaketa apurtu eta aisia, lana eta atsedena, dena leku berean, autoritate bakarraren menpe eta kide berdinekin, egiten den egoera eta lekua izendatzeko. Funtsean, formalki antolatuta dagoen, egunerokoa den eta denbora-tarte batez

---

276 CIEak eta adin txikikoentzako zentroak, Zumarragako kasu, espetxearekin parekatu dituzte. CIE-en kasuan, are gogorragoak, hastapenean barne-erregelamendurik ezak zernahi baimentzen zuelako.

277 1981ean irekitako Alcalakoa, 1989an zabaldutako Avilakoa eta 1992an ireki eta 2020an itxitako Sevillakoa.

278 Sara Majarenas bertan izan zutenean, kartzela baino gogorrago bezala deskribatu zuen, ostean eskaintako elkarriketetan.

gizartetik isolatua dagoen espazio bakar batean pertsona asko elkarrekin bizi diren horri deritza instituzio totala (1961).

Bada, espetxea zigortzeko eta otzantzeko instituzio totala da Hori espazioaren eta denboraren berrantolaketaren bidez sortzen da, eta bi dimentsio horien aldaketek gizakiaren eta gizatiartasunaren dimentsioan bertan aldaketak eragiten dituzte (Tello, 2012). Denboraren eta espazioaren dimentsioak elkartzean, konbinazio-aukera anitz sortzen dira, askotariko emaitzak ekarriz. Zentzu horretan, espetxea matrioxkaren antzeko zerbaite da, espetxe baten barruan beste bat gordetzen da, eta haren barruan beti beste bat; finean, bizi-erregimena deritzoguna denboraren eta espazioaren antolaketan egindako aldaketen bidez erditzen baita askotan. Atal honetan, horri helduko diot, baina alde aurretik esan behar dut bizi-erregimena azpiegiturari lotuta dagoela eta, bizi-erregimenarekin eta azpiegiturekin batera, kartzelako atezainen jarrerak eta beste presoen profilak ere badute zerikusia. Horiek guztiak izango dira preso baten egunerokoan eragina izango duten ardatzak.


Hala ere, printzipioz, Estatu Espainolean, denbora eta espazioaren berrantolaketa eta konbinaziotik hiru bizi-erregimen ezberdintzen dituzte, eta hori da *graduena politika*. Presoa epaitu ostean, graduena politika ezartzen du. 1. gradua bizimodu hertsia da; 2.a, arrunta; eta 3.a, irekia edo erdi-askatasunekoa. Graduena sailkapenen bidez ezartzen den sistema progresibo horrek bere baitan Filadelfiako eredu eta Auburneko eredu jaso dituela esan ohi da (Carou Garcia, 2015), bi horiek ziegako isolamenduan oinarritzen baitziren (lehen erabatekoa eta bestea zertxobait malguagoa). Hortaz, sistema progresiboa edo graduena politika denboraren eta espazioaren konbinazio hertsienetik zabalenera joateko bidea baino ez da, isolamendu gradu zorrotz batetik arinagoetara: erregimen itxia (1. graduko), erregimen arrunta (2. gradua) eta erregimen irekia (3. gradua). 1. graduan, isolamendu zelularra 20 ordukoa da, eta ez dago lanerako aukerarik. 2. graduan eta 3.ean, isolamendu zelularra soilik gauekoa da. Aldea da 2. graduan lana eta aisia espetxean egiten dituela presoak; 3. graduan, aldiz, katean.

Azken batean, erregimenen politika itxiera eta askatasun-gabetzea eskaladan eta modu progresiboan antolatze modua baino ez da, 13. irudian ageri den eskailera modukoa osatuz. Printzipioz, presoa, zigor-urteak bete ahala —eta espetxearentzat egokia den portaera izanez gero, are modu azkarragoan—, askatasunaren eskaileran pisuak igotzen joango da. Baina goitik beherako bidea ere egin dezake; beraz, horixe izango du beti mehatxu eta arrisku. Ordena lehenesten den espetxe-eredu batean, eskubideak otzantasunaren truke eskuratu beharreko pribilegio bilakatzen dira progresibitatearen ereduaz. Beste modu batera esanda, Gonzalezek Jose Adelantadore (1993) ustea jasoz, esan zuen:

«Espainiako espetxeetako tratamenduaren izaera dela eta, graduena araberako sailkapenarekin (eta berarekin dakartzan jardura eta espazioetarako sarbidearekin) eta ordena nagusi den erakunde batean, tratamenduak garrantzi handia du diziplina-tresna modura eta gatazkak kudeatzeko tresna gisa» (Gonzalez, 2012:371).

### 13. irudia

*Espetxe Erakundearen bizi-erregimenen sistema progresiboa edo graduen politika*



*Iturria: nirea.*

Gaur egun, eredu eta logika horri errespetu-moduluak gehitu zaizkio, baina ez dut horretan sakonduko, aztertzen ari naizen garaian ez zeudelako erabat hedatuta.

Espetxe Erakundeek gradu bakoitzari egokitutako eraikuntza bereziak ditu. Jarraian, 1. graduko edo isolamenduko unitateetako bizimodua eta 2. gradu edo bizimodu arrunteko egunerokoa deskribatuko ditut:

#### 9.3.1. Erregimen bereziko moduluak

Gehienetan, modulu horiek dira aurreko kapituluan aipatutako *kartzela barruko kartzelak*. Zigor-ziegaz osatutako galeria txikiak dira. Diziplina apurtzeagatik zigortuak diren presoak izateko tokiak dira. Ziega gutxi izan ohi dira: 4, 8 edo 10, behegainaren altueran eraikiak, eta, beraz, bista erabat mugatua da bertan, argitasuna apalagoa eta hezetasuna handiagoa. 20 x 5 m-ko patio txikiak, goitik sarek estalita eta askotan aterik ez duten komun batekin, ertz batean lurrera iltzatutako mahai bat eta lau aulki dituen. Mahai osoa bete eta musean aritzea amets egitea izan ohi da, patiora bakarka edo binaka ateratzea baita arruntena. Ziegan, garbitasunerako erratza eta lanbasa izatea debekatuta egonik, goizero eskatu beharreko luxuzko tresnak bilakatzen dira. Zigorraren arabera, ekonomatoan kafea eskatzeko aukera dago ala ez. Ziegak ate bi ditu: ohikoa eta kaiola itxurako beste bat, «kangrejo» deitutakoa. Presoak ez du beste gizakirik ukitzeko aukerarik izango: gutun-, janari- eta liburu-banaketa zein medikuaren behaketa bi ate horiek tarteko egiten dira, bertako lauki zuzen itxurako zuloatik. Atearen beste aldean dagoena nor den ikusteko ere atea duen aho moduko horren bidez egin behar da; hots, gorputz-burua makurtuta garatuko dira elkarrizketa laburrok.

Modulu horiek estimuluen absentziak ezaugarritzen ditu. Isiltasuna eta aktibitate eza. Behin zuzendariari enegarrenez aktibitate eske idatzi ostean, «ya dispone usted de la actividad religiosa» erantzun zigun; alegia, errezatze eta horrekin konformatzeko. Baina baretasun mingarri hori erabateko eta bat-bateko zalapartarekin konbinatzen da; izan ere, presoren bat indarrez zigorra betetzera dakarten bakoitzean, negarrak, oihiak, jipoiak eta alarauak nagusitzen dira. Beste askotan, legeak isolamendu mota hori bizitzeko gutxieneko oreka mentala behar dela agintzen duen arren, buru-desoreken ondorioz 2. graduko modulu arruntan egunerokoa hausten duten presoak dira isolamendura eramaten direnak<sup>279</sup>. Bere burua hormaren aurka kolpatzen ari den presoak, uso bat hormaren aurka joz hil eta barrez lehertzen dena, bere senetik irtenda komuna kolpeka apurtzen saiatzen dena, isilean bere buruaz beste egiten saiatzen dena... Gaixotasun kutsakorrek dituzten presoak isolatzeko lekua ere bada, tuberkulosia dela edo, berriki, Covid-19a.

Kapituluan aurrera egin ahala, leku horiei, alegia, delako *txopanoei*<sup>280</sup> eta bertako giroari atal berezia eskainiko diot.

### 9.3.2. 1. graduko bizi-erregimena

1. graduko bizi-erregimen honetara bideratuta daude bizi-modu itxiko modulu bereziak<sup>281</sup>. Bertan, presoak egin dezakeen aktibitate kopurua eta berarekin eduki dezakeen ondasun kopurua murriztuta daude, ez horrenbeste FIESaren emaitza gisa, baizik eta graduaren ondorio gisa. Ezaugarri nagusia, ordea, eguneko ordu gehienak —20 gutxienez— ziegan egiten direla da, baita espetxe-langileen jarrera zorrotzagoa eta jarraipena estuagoa direla ere. Kanpo-estimuluen murrizketa itzela da, eta barne-estimuluak dira nagusi. Bizimodu horretako moduluetan, arruntetan baino emakume\* gutxiagorentzako lekua dago, asko jota 20 lagun egoten baitira, baita zarata eta musika gutxiago, elkarrekintza sozial gutxiago eta mugikortasun txikiagoa ere. Bertan amaitzen duten presoak *konfliktiboak* dira (espetxearen ikuspegitik): otzanak ez direnak, haien eskubideak aldarrikatzen dituztenak, beste kideen aurka edo langileen aurka bortizkeria darabiltenak, buruko eritasunak dituztenak eta preso politikoak izaten dira. Ez da arraroa izango beraz, FIES kategoriapean sartutako presoak aurkitzea 1. graduko erregimen itxian. Egia esan, gizarteak eta espetxeak txikitutako pertsonak izan ohi dira, portaera eta drogomenpekotasun arazoak dituztenak eta, askotan, bizikidetzaz zailekoak.

---

279 Lan ezberdinek adierazi dute osasun mentala arazo handia dela espetxean, Espetxe Erakundea larritzerainokoa, 2006 eta 2009an ezarri zituen plan eta programei so (*Programa marco de Atención Integral a Enfermos Mentales en centros penitenciarios* delakoa). Are gehiago, batzuen ustez, kaleko osasun-sistemaren artatze-ezaren ondorioak bere gain hartzen ari da espetxea (Hernández Monsalve, 2011 in Gonzalez, 2012:371).

280 Presoen artean, zigor-modulu bereziak *Txopano* izenez ezagutzen dira

281 Estatu Espainolean preso prebentibo kopurua handia da, espetxe prebentiboa modu zabalean ezartzen delako, eta egoera horietarako espetxe-lege organikoaren 10. artikulua 1. graduko bizimodua zatekeena ezartzea dakar.

### 9.3.3. 2. graduan

2. graduan, presoak bizitoki duen lekua handiagoa da, eta preso-kide gehiagorekin partekatzen du. Gainera, espetxeen gainpopulazio-egoera dela eta, gehienetan ziegan binaka egoten dira. Oro har, ziegatik kanpo zortzi ordu edo gehiago egiten dira, lan-jardun bat balitz bezala: goizeko 8:30etatik 13:30etara eta 16:30etatik 19:30etara. Aktibitateetarako sarbidea eta enplegurako aukera irekitzen zaio presoari egoera horretan. Horien ezean, lehen begi-kolpe batean, presoak patioan aurrera eta atzera zein borobilean paseatzen egongo dira, izkinaren batean taldean eserita, edo egongelako mahai-aulkietan musikapean kartetan, eskulanak egiten edo solasean. Moduluaren zati handiena egongela izaten da, egon, egon eta egoteko. Talde bakoitzak bere mahai-aulkia izaten du; sarri askotan, herrialdeka edo kontinenteka antolatutako preso taldeak: euskaldunak, arabiarak, afrikarrak, latinoamerikarrak, espainiarrak... Euskal preso politikoen mahaiak, ia beti, kartzeleroen garitatik urrunen egon ohi ziren. Mahaien «jabetza», batzuetan, presoen arteko liskarren arrazoi izaten da: mahaiak, aulkiak, ondoko entxufeak, leihoko apala, atun-latekin egindako hautsontziak, botila moztuekin egindako potoak, joko-kartak eta partxisa moduko ondasunak egon ohi dira taldeen jabetzan. Liskarrak, bakoitzak betetzen duen espazioagatik, metatutako objektu kopuruagatik edo musikagatik izan ohi dira. Idatzi gabeko presoen arteko arautegiaren arabera, ondasun horiek ez dira lapurtzen.

Modu batera zein bestera, auska nagusiak telefono-ilaran eta ekonomatoko ilaretan egon ohi dira. Telefono bakarra 150 lagunentzako, herrialde eta senide bakoitzak ordutegi jakin bat; beraz, anabasa sortzen da denak aldi berean deitu nahirik dabiltzanean. Ekonomatoan, aldiz, kafea eta zigarroak kartzelan inori ukatzen ez zaizkion gauzak omen dira, baina egin egiten da, eta, horrela ez denean, lehenengo parrasta luzea entzun behar. Espetxean kaleko diru-sistematik ez dago, kartoizko billete moduko batzuk zeuden lehen, eta, egun, txartel bidezko sistema. Praktikan, telefono-txartelek eta zigarroek diruaren funtzioa betetzen dute, eta barruko salerosketak (arropa, medikamentuak, droga, makillajea edo beste edozer) horien bidez gauzatzen dira.

Patioa zeharkatuz gero, gimnasio, ileapaindegi eta ikaslekuaren funtzioak betetzen dituzten hiru gelarekin egingo dugu topo. Esparru bakoitzak preso arduradun bat dauka, eta berari dagokio espetxe-langileei horiek ireki eta ixteko betebeharra gogoraraztea, espazioa antolatzea eta horren zaintzaz arduratzea. Praktikan, ordea, preso askok ardura hori enplegua eta askatasuna eskuratzeko bide malkartsuaren hasierako urrats gisa hartzen dute, ez horrenbeste eremu horrekiko interesagatik. Egunerokoan, beraz, espetxe-langileen utzikeria bitarte, leku horiek itxita egoten dira askotan, eta, beste batzuetan, ustez dagokien erabileraz oso bestelakoak diren gauzetarako darabilte presoek. Gimnasioan, adibidez, kirola egiten ari diren preso bakan batzuk ikusiko ditugu; aitzitik, bertako koltxoneta eta berogailua gaueko loaldia kartzelarien begi-bistatik urrun luzatzeko probesten duten presoak, sarritan.

Eskulanen tailerretan, josteko makinak eta material falta dela-eta papiroflexian edo egunkari zaharrekin egindako otzaragintzan ari diren emakume\* bakan batzuk ikusiko ditugu, gehientsuenak hariz edo margoz umeentzako irudiak ikur dituztela. Haurtzaindegiko irudiek eta bihotzek beste edozein aukera eklipsatzen dutela dirudi: larrosa, urdin argia, *brilli-brilliak*, Snoopy, Mickey Mouse, simpsondarrak eta Kupidoren geziz zeharkatutako bihotzak; seme-alaba, ama edo bikotekidearentzako.

Patioa eta egongela banatzen dituen atletik komunerako bidean, espetxeko telebistaren irudiak eta soinuak beste bost bat irrati-kaseten musika doinu desberdinekin bat egiten dute. Burrunba handi hori zeharkatu beharko du presoak komunera joateko. Komunean, sartu eta irteteko leku bat izateaz gain, egoteko tokia ere badago; izan ere, kameren begia ez da bertara arte iristen, eta espetxe-langileak ez dira sarri bertaratzen. Beraz, laztanak edo droga-kontsumoa partekatzeke leku kuttuna izaten da. Ekonomatoan bosnaka erositako txokolate-tableten estalki metalikoa *txinoak* erretzeko aproposa omen. Memoriaz blai dut eta nazka dario usain horri.

Egunaren amaierarako, buruan iltzatuta geratu den matraka jasanezina baino ez dira oihu, kantu eta moduluko megafoniatik egindako bat-bateko ohar zaratatsu horiek guztiak. Presoen arteko «perra, te voy a rajar» eta «chivata de mierda» artean, espetxe-langileen zalaparta: «María José Rial, acuda a garita», «suban a celdas» eta «¡recuento!». Irrati-kaseteetan, Camelaren «cuando zarpa el amor», Aventuraren «lo que tú tienes se llama obsesión», Los Chichosen «Libre, libre quiero ser», Rosario Floresen «Yo quiero marcha, marcha». Runbak, askotariko kunbiak, morna, samba, flamenkoa, *riq* eta *oud* arabiarren erritmoak soinu espazioa bete eta leherrarazten dute. Herriko jaietako barraka-guneetako paisaia musikal nahasgarrian etengabe murgilduta bizitzea bezalakoa da. Pozezko oihu, haserre-txilio, negar-zotin eta askotariko hizkuntza zein hizkeren arteko elkarrizketen artean; gaztelera *s*, *z* eta *c* ahoskatzeke manerekin soinu-liburu oso bat idazteko moduan.

Presoak hurrengo egunera arte ziegan zarraturik dauden iluntze-gaueko une horretan ere ez da egiten isiltasuna. Are gehiago, une hori berezia izaten da: mehatxu-hitzak maitasun-promesekin gurutzatzen dira leihotik-leihorako elkarrizketetan. Gauetako aire-espazioan, mezularia bere mezua hartzailearenganaino irits dadin saiatzen da, beste ahots-eduki eta tonu batzuetako mezuen artean leku eginez eta horiek saihestuz, batzuetan txanda errespetatuz. Hori dela eta, kartzelan «boteatzea» deritzon isileko hizkera darabilte askok: eskuaz botila, pota, galtzerdi bati eutsita—edo gau ilunean flexo bati—airean letrak marraztean datza. Modu horretan, elkarrizketa ezberdinak garatu daitezke aldi berean, eta intimitatea ere handiagoa da, nahiz eta besteen *boteoak* irakurtzen aritzen den preso aspertu edo kuxkuxerorik ere ez den falta. Tarteka, hirugarren preso batzuk sartzen dira elkarrizketetan, eta modulu osoaren barreak eragiten dituzte. Boteatzeko, baina, idazten eta irakurtzen jakin behar da, eta hori ez da emakume\* preso guztien egoera, inondik inora.

Modu batera edo bestera, «Cariño, bebe, mi cielo, baby» moduko esaerak aditzeko unea da; eguna zer moduz igaro duten kontatu, afaldu duten ala ez esan, janaria txarra dela baina jatea garrantzitsua dela gogoraraztea edo ondo lo egiteko opak aldiro errepikatzea. Tarteka, udako gau beroetan odola borborka ipintzerainoko sexu-grinak *strip-tease* itxura hartzen du, ziegako leiho azpian dauden mahai gainetara igota egiten direnak.

Bizitza eutsiak, subjekzio-objektu diren bizitza horiek guztiak, erabat ageriko egoten diren unea izaten da gauekoa. Ziegako intimitatean, ziegako itxitasunaren itoan ala goxoan, haserre-, amorr-, ezintasun- eta desio-sentimenduek leihotatik kanpo irrist egiten dute. Ziegan kabitu ezinik patiora erortzen dira, telebistak eta lotarako pilulek beren lana egin eta isiltasuna egiten den arte betiere futbol partidarik ez badago telebistan (halakoetan, gizonen moduluetakoz zalapartek ez baitute ordutegirik), edo norbaitek amorruez eztanda egin eta bere burua hormaren kontra jotzen hasten ez bada, edo koltxoia erretzen, edo bere buruaz beste egiten, edo erditzen... Horrelakoetan, preso guztiak ate joka hasten dira kartzelako langileak etor daitezen, ukabilkadak eta ostikadak atearen kontra «¡Funcionaria!» deiarrekin batera. «Picar puerta» deritza horri espetxeko argotean; izan ere, espetxe-langileen premia larria dagoenean, ohikoa da ziega bakoitzak duen interfonoaren beste aldean inork ez erantzutea. Gainera, arauaren arabera, zerbitzuburu gabe ziegak irekitzerik ez omen dago gaueko zenbaketaren ostean, eta zerbitzuburuak lokalizatzea beti da nekezagoa, presoek oso ondo ez dakiten arrazoiengatik.

#### **9.4. Zigorraren kronotopoa: etengabeko denbora programatua eta etengabe zatikatutako espazioa**

Jadanik ikusi dugu espetxe-zigorra leku murriz eta mugatuan denbora zehatza egitean datzala. Ikusi dugu bertako bizi-erregimenek denbora eta espazioaren antolaketarekin zerikusia dutela. Alta, denbora eta espazioaren eragina ez da horretara mugatzen, espetxe barruan denbora eta espazioa ez baitira askeak beste zentzu batzuetan ere: espetxean, denbora erabat programatua dago, eta espazioa zatikatua. Eta bi horiek eta bi horien baturak egituratzen dute espetxe-zigorra. Izan ere, denborak espazioa definitzen du eta espazioak denbora, zigorraren kronotopoa<sup>282</sup> osatuz. Honako atal honetan horixe azaltzeari ekingo diot.

Hasteko, garrantzitsua da presoak betetzen duen toki-neurrietan geure burua kokatzea. Espetxe batek bere barruan gordetzen duen zabalera horren zati txiki-txikia baino ez du lekutzen presoak. Alde handia dago espetxe kanpotik ikus dezakegun azalerarekin. Horretarako, ariketa interesgarria da espetxeak txori-begiradaz behatzea. Horixe proposatu zuen Miren Zabaletak

---

282 Kronotopoa, Mijail Bajtin-en arabera (1975/1989), espazioaren eta denboraren konfigurazio jakin bat bateratzea da, eta konfigurazio horretan garatzen diren ekintza multzoen aritzeko zerabilen. Teresa Del Vallek genero-kronotopoa landu zituen (1999); eta, horiekin, generoa ageri den denbora eta espazioak bat egiten duten tokian gertatzen diren gauzez aritu zen; esanahi konplexuak dituzten eta identitateak negoziatzen diren ekintzen interpretazio berriak eta bereizkeria dakarten sinboloak sortzen diren aktibitatez (1999:12).




2016an Emagin elkarteak antolatutako ikastaro batean Iruñeko Katakarak liburu-dendan. Bertan, Valladolideko espetxeko aire-argazkia banatu zuen jende artean (ikus 14. irudia) . Valladolideko argazki hori emakumeak\* zeuden gunearen azalera —zirkulu gorri batean bilduta ageri dena— gizonak zutenarekin alderatzeko —koloretan ageri diren beste guneak— erabili zuen. Kasu horretan, nik espetxearen azalera osoarekin alderatzeko darabilt irudi hori. Eta horri bizitoki izan ditudan espetxe batzuen irudiak gehitu dizkiot: Madrilgo Soto del Realeko kasuan, zigor-modulua morez agertzen den leku txikia da. Avilako kasuan, berriz, berdez adierazi dut 1. graduako modulua. Ikusten den moduan, azken horren patioak modulu arrunten besteko tamaina dauka. Soto Del Realeko kasuan, 2. graduako patioa (urdinez agertzen dena) eta zigor-moduluetakoak biziki ezberdinak dira<sup>283</sup>.

#### 14. irudia

Hiru espetxe-erakinen goitiko bistak  
(aire-argazkiak):



Soto del Realeko Espetxea



Valladolideko Espetxea



Avilako Espetxea

283 Horiekin batera, Alacant eta Langraitzeko espetxeak ezagutu nituen, baina horren erregimen itxia neukan, ezen ez naiz gai espetxe barruan betetzen nuen lekua kokatzeko, ez nuen lortu espetxearen buru-mapa osatzerik.

Horiek horrela, egunaren eta zigorraren denboraren gehiengoa inondik inora ez doan leku finko horretan iltzatuta emango ditu presoak. Asko jota, bisita unean edo erietxera abiatzerakoan oinez egingo dituen 300-500 metroak izugarrizko txangoa irudituko zaizkio. Hortaz, espazioari dagokionez, mugikortasun eza da nabarmenena.

Kontuan hartu beharreko bigarren gauza egun arrunt baten denbora-egitura da:

- Goizeko 8:00etan: zenbaketa, ziegarik ziega. Megafonia bidez ematen dute horren berri, zutik eta modu ikusgarrian egoteko adieraziz. Ziegako ateak duen leihatila txikira begia hurbildu eta gauean zehar norbaitek alde egin edo heriotzak eraman duen egiaztatuko dute.
- 8:30etarako, ziegen irekiera. Derrigorrez ziegatik kanpora egon beharko du presoak, ziegako ohea eginda, eta dena txukun utzia duela.
- Zonalde komuna dagoen beheko solairura jaitsi, eta ilara egingo du jangela ireki arte. Jangela behin irekita, ilara egingo du bertan sartzeko. Gosaldu ostean, erretilua garbitu eta bere lekuan utzi ostean, jangelatik irten beharko du, bai ala bai, espazio hori bazkalordura arte itxiko baitute.
- Patioa irekiko dute. Eta akaso beste gune komunak: kiroldegia, ileapaindegia eta abar.
- Ekonomatoa irekiko dute, ordu erdiz. Bigarren kafea nahi izanez gero, une hori probestu behar.
- Ondoren, lan egiten dutenak modulutik kanpoko haien lantokira (espetxeko beste departamendu batera) eramango dituzte. Apur bat beranduago, ikasleak eskolara. Horiek guztiek aldean zer daramaten behatuko dute funtzionarioek, eta, ausaz, noizean behin, araketa pertsonala burutu.
- Lan edo ikasten ez dutenak eremu komunetan egongo dira bazkal ordura arte (sartu berriak, iskanbilazaleak eta politikoak izan ohi dira lan egiten ez dutenak).
- Goiz erdian, ekonomatoa irekiko dute beste ordu erdiz.
- Telefonoz deitu ahalko du, gosaldu ostetik bazkaltzeko jangela berriz ireki arteko denboran.
- 13:00etan, jangela irekiko dute, patioa eta beste espazioak itxi ostean.
- Ilara egin ostean, bazkalduko du presoak. Eta behin erretilua hustuta eta garbitzeko tokian utzita, ekonomatoa irekiko diote 15 minutuz. Bazkalosteko kafea lortzeko korrika eta presaka ibili beharra dago askotan.
- 14:00etan, ziegetara igotzea derrigorrezkoa izango da. Horiek ireki, barruan sartu eta bertan itxita utziko dituzte presoak.
- Eguneko bigarren zenbaketa egingo dute, ziegarik ziega.
- Arratsaldeko 16:30tan, ziegak irekiko dituzte. Derrigorrez, beheko espazio komunera jaitsi beharko du presoak, ez bada ikasteagatik edo osasun-arazoengatik, ziegan geratzeko baimen berezia duela.
- Arratsaldez aukera gutxiago daude patioa ireki dezaten, are gehiago beste eremuak.

- Ekonomatoa bi aldiz irekiko dute arratsaldean: jaitsi eta batera, eta ziegara igo orduko ondoren.
- Telefono deiak, jaisteko unetik afal-ordura arte egin ahalko ditu.
- 19:00etan ilara egingo du jangela ireki arte. Espetxe batzuetan, une horretan zenbaketa egingo da, ilara militarrek osatuta.
- Jangelan erretilua hartu, eseri, jan, erretilua utzi, eta jangelatik alde egin beharko du presoak.
- Ziegara orduko ekonomatoan hurrengo egunera arte behar duena erosi eta 20:00etarako ziegan itxita egingo da presoak.
- 20:30etan gaueko zenbaketa egingo da, ziegarik ziega.
- Amaitu da eguna. Ziegak ez dira hurrengo egunera arte irekiko, larrialdirik ez bada. Horrelakorik egonez gero, zerbitzuburuak baimendu beharko du ziega irekiera.

Beste ekintzen maiztasuna eta egutegia ezarria dago: gutunen banaketa: egunean bi aldiz; mediku kontsulta: astean bitan; bisita: astean behin; hilean bi arropa-poltsa kaletik; arropa garbitzeko zerbitzua: astean behin; telefono deiak: lehen, astean bitan, gaur egun, astean zortzi dei 5 minutukoak; eskaeren tramitea: egunean bitan (baimen mota ezberdinak, bisen eskaerak eta abar).

Eguneko ordu bakoitzean presoari non egon behar duen eta non ezin den egon ezartzen zaio. Modulu barruan ere presoak ezingo du nonahi egon, ezta noiznahi. Hori arautegiak jasotzen du, eta, betetzen ez badu, zigorra jasoko du, aurrerago ikusiko dugun moduan. Orain azpimarratu gura dudana da leku batetik besterako trantsituak edo mugimenduen kontrola espetxe-langileek egiten dutela, denboraren kontrola egiten duten modu berean. Horien esku daude espetxeko ate guztien giltzak<sup>284</sup>: modulutik barrurako espazioena (ziega, patioa, jangela, ekonomatoa, komunak, tailerrak, ileapaindegia, gimnasioa, telefonoz deitzeko txokoa, mediku kontsultarako gela...) eta modulutik kanporakoena ere bai. Modulutik kanpora irteera-justifikazio bat tarteko irtengo da presoak, aldeztu aurretik atezainak ate biak ireki badizkio, eta araketa balekotzat jo badu.

Presoen arteko jolas modukoa da ziegatik kalera doan ateraino zenbat ate igaro behar diren zenbatu edo asmatzen aritzea. Izan ere, espazio guztiak moztuta eta zatikatuta daude, espetxea kaiola txikiz osatutako katea balitz moduan, eta zatiketa bakoitzean, presoak ireki ezin duen ate bat dago (motorizatua ala giltza bidezkoa). Ate bakoitzaren aurrean, zain egon behar duzu, eta,

---

284 Aurrerantzean, espetxe langile horiek *atezainak*, *giltzariak* eta espetxe funtzionarioak deituko ditut. Hala ere, azpimarratu nahi dut, espetxe langile guztiak ez direla giltzariak, adibidez medikuak espetxe funtzionarioak dira Estatu espainoleko kasuan. Baina hiztegi hori erabiliko dut funtzio horri erreferentzia egiteko. Horrekin batera *kartzelero* hitza ere erabiliko dut. Ignacio Gonzalezen gogoeta jarraituz (2012), hitz horren erabilera egon litekeen zientifikoena baita. Beraz, *interno eta espetxe funtzionarioen* aldeko hautua baino, *preso* eta *kartzelero* hitzak lehenetsi ditut. Gonzalezen ustetan (2012:366), preso-kartzelero erabiltzea politikoagoa dela pentsatzea akatsa da. Batek, itxialdian bizi den pertsonaren egoera espezifikoa eta bertan lan egiten duenarena agerian uzten dituen bitartean; besteak, askatasuna gabeko pertsonak eufemistikoki aurkeztu eta lanbide bat desestigmatizatzea bilatzen dute.

ate bakoitzaren aurrean, araketarako aukera. Zain egote horrek denbora espetxe-langilearena dela uzten du agerian; presoak ez du denborarik. Zain egote horretan pilatzen dira antsietateak eta urduritasunak. Presoak isiltasunean eta imintziorik egin gabe eusten dio tentsioari, eztanda egiteko zorian egon arren. Akaso bost urtean ikusi ez duen laguna ikustera doa. Akaso kimioa hartzen ari den bere aita nola aurkituko duen jakin guran dago. Akaso, duela hilabeteko bisean bis intimoan lagun-minarekin izandako haserrealdia zertan den sentitzeko esperoan dago. Akaso, abokatua beste hamar urtez han egon behar duen ala ez esatera dator. Akaso, ama hil zenetik hilabete igaro da, eta neba-arrebak lehenengoz besarkatzeko irrikan dago. Akaso, gutun eta bisita bidez ezagutu duen pertsona horrekin lehen zita du. Baina giltzariak ez daki hori. Giltzaria eguneroko asperduraz ari da bere zereginei eusten. Eta presoari atea ireki aurretik, telefono-deiak atendituko ditu, abisuak pasako ditu megafoniatik.... edo agian badaiki, baina bost axola zaio, edo horrexegatik dauka zain preso, nahita. Isilik, bere kolporako barrezka ari da, eguneroko etsaien arteko lehian irabazle sentitzen delako. Preso politikoaren eta kartzeleroen arteko harremanak askotan *westernetako* dueluak dirudite, dena esaten duten keinu isilen bidezko gatazka.

Zain egote hori, aterik ezin irekitze hori, eguneroko errituala da, horixe baietz. Presoari egunero-egunero giltzarik ez duela gogoratuko dion erritu gogaikarri bezain bortitza. Espetxea presoak ireki ezin dituen ate mordo da. Espetxea, presoari lapurtu nahi zaion erloju-orratzen mugimendua da. Funtsean, zigorraren kronotopoa da: itxaronaldien katea eta itxaronaldi kateatua; denborak eta espazioak bat egiten duten lekua.

Espetxe-eredu horretan, ziegatik espazio komunetara jaisteko tartean hiru ate daude. Espazio komunean, moduluko sarrera-irteerako ate biak, telefonoz deitzeko atea, jangela eta patioko atearak. Presoak ezin ditu 500 metro baino gehiago egin ate batekin tupust egin gabe. Modulutik kanpora distantzia luzeagoak ibili ahalko ditu. Txango moduko horietan, berriz, kartzelero bat edo bi doaz berarekin, presoak espetxe barneko etorbideetatik oinez doala, agindu zaion helmugatik aldendu ez dadin. Presoen artean, «taxi» deitzen zaie funtzio horiei. Preso politikoek beti dute taxia, preso sozialek ez beti.

Zain egotearen inposizio hori, erakunde publikoetako burokratizatutako funtzionamendu eta gogogabeko langileen eraginetik harago, espetxearen autoritatea berresteko ekintza bilakatzen da: berrespen-ekintzak (Goffman, 1972); are gehiago preso politikoaren kasuan, eskuarki ez dutelako *derrigorrezko begirune* (Goffman, 1972) delakoari jarraitzen. Alegia, espetxea edozertarako baimena eskatu behar den tokia da, eta baimen-eskatze horiek presoaren erregu eta mesedez-faborez-arren tonuan egin ohi dira. Bada, preso politikoek ozta-ozta premiazkoak dituen egoeretan eskatuko dute baimena, eta, gainera, ez dute begirune-tonu hori erabiliko. Ez dute erabiliko «Señorita» berba, eta *mesedez* hitza gutxieneko edukazio-berba gisa baino ez du erabiliko. Hori dela eta, espetxe-langileak zorretan sentitzen duen begirune hori itxaronaldi horiekin kobratuko dizkio preso politikoari.

Jolas modukoa dirudien horrek presoaren gorputzean iltzatzen den mezu eta bortizkeria dakar. Presoak presa berezirik ez duenean, umore oneko dagoenean, jolasak ez du inongo eraginik izango. Aldiz, aldartea ilun edo urduri ibiliz gero, litekeena da presoak pazientzia galtzea. Hala eta guztiz ere, presoak ez du biraoka hasteko eskubiderik, ezinegona haserrea adieraziz baretzeko eskubidea ukatzen zaio presoari. Otzan, isilik eta egoki eutsi beharko dio, baita injustiziarik handienari ere. Haserre-adierazpenak zigortu egiten dira, dela diziplinazko zigorraren bidez, dela mendeku bidez. Preso politikoari, agian, diziplinazko zigorraren arriskua ez zaio horrenbeste axola, baina badaki ezen, espetxe-langileren batek begitan hartuz gero, luzera ordaindu egiten dela. Langile horren txanda oro *western* hutsa bilakatzeaz gain —horrek lekarkeen tentsio karga-dosia eta guzti—, beti iritsiko da langileak gogotik ordainaraziko dion okasioren bat. Azken hori ez da zaila, botere-asimetria handiko testuingurua izanik. Lehenago edo beranduago presoak mesederen baten premia izan bailezake, eta, ez badu, bere eskubideren bat ez betetzeko une aproposa bilatuko du funtzionarioak. Eta ez bada agertzen, aurkitu egingo du. Esate baterako, badira espetxean zigortzat jotzen diren aktibitate batzuk edota leku batzuk: hildako azken presoaren ziegan sartzea, edo neguan eguzkiak inoiz jotzen ez duen ziegan sartzea. Aktibitateen kasuan, preso politikoen kasuan zailagoa da horiek ezartzea, ordaindutako eta ordaindu gabeko lanei uko egin ohi diotelako.

Horrek guztiak esan nahi du espetxean egun zorionsu bat izatea dela kartzeleroren batekin gatazkarik izan ez duzun egun bat izatea, zenbaitetan etsai-giroa bereziki gaiztoa baita. Beste garai batzuetan, kartzelarien eta preso politikoaren arteko soka ez da horren estua, eta, beraz, ez du horrenbeste tenkatzen. Horretan, bizi-erregimenak, kartzelariaren beraren jarrerak, garai politikoak eta, nola ez, preso politikoaren egoteko moduak ere eragiten dute. Nortasun-abanikoa zabala da, eta minak eta amorruek eramateko modua ez da beti berdina. Batzuetan, kanporantz ateratzen dira; besteetan, barrurantz; besteen aurka, ala norberaren eta etxeko aurka. Denetariko pertsonak eta denetariko sasoiak egongo dira. Soka oso estua denean, etsaitasunak barrua hartzen dio presoari, ametsak okupatzeraino. Garai batean, espetxe-langileak jotzen nituela amets egiten nuen, gozamen handiz. Eta bortizkeria horrek beldurtu egiten du. Halaber, soka luzatu eta lasaitzen denean, beste mota bateko beldurrak sortzen dira, ea elkarrekiko goxoegi egote horrek diferentzia eta areriotasuna ezabatuko ote dituen, espetxeak otzandu egin ote zaituen, eta espetxeak bere pultsuan irabazi dizun zalantza-izpiak agertzen dira. Artez edo moldez, harreman nekagarria da, baina, aldi berean, bakoitzari bere proiektu politikoarekin egoteko aukera eskaintzen diona.

Ondorioz, denbora eta espazioaren antolaketa eta kontrola espetxe-langileen presentziaren, zigorraren edo muga fisikoen mende daude. Modu horretan, itxitasuna, bakardadea eta segurtasun-irizpidea nagusituko den mugikortasun-eredua inposatzen zaio presoari, Foucaultek oso ondo adierazi zuen moduan (1975). Espazio batetik besterako langin inguruan ere igarotze-erritoak osatzen dira, preso naturalizatzerira irits daitekeen kontrol-errutinen bidez: ziegan araketa, barroteen araketa, zenbaketak, gorputz-araketa, poltsen miaketa eta objektu jakinen debekua. Baina, batez ere, horrek zain egote bat dakar; alegia, denboraren jabetzaren inguruko pultsua. Eta kronotopo horrek materializatzen du zigorraren funtsa.

### 9.5. Espetxe-arautegia

Gimnasioa ez da lo egiteko. Ileapaindegia ez da berbarako. Ziega ez da partekatzeko. Ziega arteko pasilloetan ezin da egon. Jangela erabili eta batera itxiko da. Ziegatik ziegara ezin da hitz egin. Ziegatik patiora ezin da hitz egin. Harreman sexualak baimendutakoekin baino ezingo dira izan, eta espetxeak ezarri denbora, egun eta lekuan. Ezin da eguzkia hartu titi-bistan. Ezin da arropa eskegi barroteetan. Ezin da leihoetan eseri eta hankak atera barrote artetik. Ezin da alkohola edan, ezta beste substantziarik hartu. Ez dago argi abestu daitekeen ala ez. Ziega eta ziega artean, zein ziegatik patiora, ezin dira gauzak bidali. Horiek guztiak, batzuk aipatzearen, «parte» baterako arrazoi dira; alegia, diziplinazko espediente baten irekiera eta, ziurrenik, ondoren zigorra.

Araudi penitentziarioak zigor arina, tartekoa eta larria ezberdintzen ditu, eta horietako bakoitzak era batera edo beste batera zigortuko du presoak: parte larrien kasuan, ziegan zarratu eta isolatuz (zigor-ziegetan edo norberaren ohiko ziegan), eta, arinagoen kasuan, modulutik kanporako aktibitateetan parte hartzea ukatuz. Inongo zalantza-izpirik gabe, beldur eta mehatxu zuzentzailea dela esan daiteke. Eta nago bere ondoriorik larrienak ez direla zigor-ziegan egun batzuk igarotzea eta pasealdi gabe geratzea; atsekabe handiena eragin dezakeena da parteek sistema progresiboan aurrera egitea eten egiten dutela eta, beraz, atzeraka jar zaitzaketela.

Horrenbestez, arautegiak eragin handia du presoaren bizimoduan, presoak dituen eskubide eta aukerak, betebeharrak eta debekuak jasotzen dituelako. Estatu Espainolaren kasuan, lehenik ley/1979, irailak 26ko espetxe-lege organiko orokorra dugu, eta, ondoren, horretan oinarritutako 1981ko Erregelamendu Penitentziarioa, 1984an eta 1996an moldatua izan dena errege-dekretuz. Funtsean, erregelamenduak legean arautzen diren eskubideak egikaritzeko prozedura zedarrizten du. Horiekin batera, espetxe bakoitzaren barne-arautegia dugu. Hiru horiek (lege organikoa, erregelamendu penitentziarioa eta espetxe arautegia) presoarentzat eskuragarri eta ulergarriak izan behar dute, baina, praktikan, irisgarritasun murrizta eta mugatua da; izan ere, liburutegira joatea, esate baterako, ez dago edozein presoren eskura. Beste aukera bat da mailegu-sistemaren bidez eskuratzea. Kasu guztietan, irakurtzen jakin behar da, noski. Eta, gainera, lege-lengoaia espezifiko hori ezagutu. Beraz, administrazio publikoko beste esparru batzuetan gertatzen den moduan, lengoaia errazera itzultzeko premia bizia dago<sup>285</sup>.

Horrek dakar, presoaren egunerokoan, arauak presoaren eskubideekin duen lotura itzaletan geratzea, eta espetxe langileen eta espetxe sistemaren segurtasuna —edo dominazio-guraria— gailentzea, zeren, azken batean, espetxe-langilearen esku geratuko baita presoak dituen eskubideen mezulari izatea, eta horrek espetxe-langileen arbitrariotasunari eta boterearen gehiegizko erabilerari ateak parez pare irekitzen dizkio. Hori dela eta, espetxe-arautegiak baino garrantzi handiagoa hartzen du horretaz espetxe sistemak egiten duen interpretazioak eta erabilerak.

---

285 Presoen %60k ikasketa-maila oso apala du (lehen hezkuntza beteta edo ia beteta). Manuel Gallegoren (2010) arabera, datu horiek ez dira Espetxe Erakunde Zuzendaritzaren aldetik publikoki agertzen.

Praktikan, eskubide eta betebeharrak lan-txandan dagoen kartzelariaren arabera izango dira, eta hark nahi duen presoei, nahi duenean eta nahi duen moduan betearaziko dizkie arauok. Posible denaren eta ez denaren ortzi-muga espetxe-langileak marrazten du, eta egunero ez da berdina, ezta guztientzako ere. Horrek izugarri murrizten du preso dagoen pertsonaren defentsa-ahalmena. Hori da presoek kartzeleroak jarreraren arabera sailkatzeko arrazoiak, dela bere baitarako, dela taldean ere. Kartzela guztietan bada «bere lana betetzera mugatzen den espetxe-funtzionarioa» eta «beste guztiak». Presoak berarentzat oso garrantzitsua den zerbait eskatu behar duenean (bisean biseko baten data-aldaketa, paketean atxikia izan den zerbaitekin gertatu dena jakitea edo dena delakoa), buruz ikasita dituen zaintza-funtzionarioen lan-txandak kalkulatzeko hasiko da bere buruan, «bere lana egitera mugatzen den» hura noiz egongo den jakiteko, eta tramitea orduantxe egiteko.

Legez, adibidez, presoak zigor jakin bat errekurri dezake diziplina bermatzeaz arduratzen den *tratamendu-mahaiaren* aurrean, baina nik neuk ez dut ezagutu alegazioen aurreko zigor-aldaketarik, presoaren eta kartzelariaren arteko hitzen artean bigarrenak irabazten baitu beti. Zaila izaten da frogak aurkeztea, eta, aurkeztuta ere, beste presoek testigu-hitza izan ohi da; beraz, ez da aintzat hartzen. Eraso fisikoa izan denean ere «lesio-partek» modu lauso eta arinean egin ohi dira, medikuak ere espetxe-funtzionarioak baitira. Bestalde, dagokion lurraldeko espetxe-epaitegiaren aurrean helegitea jartzerik ere badago; Espetxe Zaintzako Epaitegien funtzioa presoek eskubideak jagotea baita. Epaile horiek oso gutxitan bisitatzen dituzte presoek moduluak; gutxiegitan, jasotzen dituzten helegiteak kontuan hartzen baditugu (Defensor del Pueblo Andaluz, 2009: 534-535). Espetxe-polarizazioan, tarteko kartzelarien alde egiteko joera dute (Gonzalez, 2012), eta gainera, helegite-gutunak espetxe-langileen bidez tramitatzen dira. Horren ondorioz, batzuetan jakin ere ez dakigu salaketa bat Zaintzako Epaitegietara iritsi den ere.

Lehenago aipatu dudan moduan, espetxe bakoitzean barne-arautegi xeheak ere egoten dira: eguneko lehen presoek zenbaketan egon behar duela, presoak zutik egon behar duela, oihurik egin ezin duela, ilaran eta isilean jaitsi behar duela egongelara, zenbaketan patioan militarki formatu behar duela, leihoko barroteak estali ezin direla eta antzeko gauza zehatzak ezartzen dituenak. Funtsean, presoak izan beharreko portaera deskribatzen da bertan. Nik, sei urtetan, behin bakarrik irakurri ahal izan ditut arau horiek. Presoek artean, kartzela ireki berri batera eramana izatea ez da albiste pozgarria; ekipamendu berri eta apurto gabeen liluratik harago, «kartzela inauguratzea» zerbait gogortzat jotzen da, preseski horregatik, espetxe berrietan presoek presio- eta protesta-lanek dakarten arautegien faktozko malgutzea egiteke egoten delako eta, beraz, espetxe-arautegien ezaugarri diziplinatzaileak are agerikoagoak eta gogorragoak izaten direlako.

Laburbilduz, «parte» eta «txanda» berbak oso errepikatuak eta garrantzitsuak dira presoarentzat, sistema progresiboaren logika eta gailentzen den arbitrariotasuna dela medio; lege gorena, beti, kartzeleroen legea izango delako.


## 9.6. Espetxe-eredu modularra

Kartzela horietako batzuk frankismo aurrekoak edo frankismo-garaikoak dira<sup>286</sup>, baina gehientsuenak 90eko hamarkadatik aurrera eraikitzen hasi ziren makrokartzelak dira. Kokapen geografikoa edozein dela ere, egitura berbera dute. Berdin du Salamanca, Leon, Kordoba, Alacant, Pontevedra, A Coruña, Soto del Real, Zaragoza ala Curtis izan.


Espetxe tipo honek atzean utzi zituen aurreko joera arkitektonikoak; besteak beste, Benthamen *panoptikoa* (behaketa zentralekoa), *eredu radialekoa* (ikus 15. irudia) eta *espinakoa*<sup>287</sup> (ikus 16. irudia). Espetxe «zaharrek» espazio txikiagoa betetzen zuten (eta dute) eta txikiagoak ziren (eta dira), baita «famiarragoak» ere (Olabarria, 2020). Horrelako horietan, lehenago almazena zen txoko batean, sarrera-modulu batean edo erietxea ziren lekuetan sartzen dituzte emakumeak\*. Oso agerikoa da hori Martutenekoan, Focalentekoan, Murtziakoan, Valladolidekoan, Logroñokoan eta Langraitzekoan<sup>288</sup>, batzuk aipatzearren.

### 15. irudia

Espetxe-arkitekturen ereduak: panoptikoa (ezkerrean), erradiala (eskuinean).



Iturria:Internet



286 Zaharrenetakoen artean, El Dueso, Martutene, Burgos, Ocaña I, Segovia, Puerto I, Yserias, Carabanchel, Iruñeko eta Langraitzeko espetxeak, adibidez, egun itxita daude presoentzako, eta horietako batzuk eraitsiak izan dira, eta beste zentro batzuk eraiki dira bertan.


287 Informazio gehiagorako, ikus: Carou-García, S. (2015). *El régimen penitenciario cerrado: análisis de la regulación del régimen penitenciario cerrado en el ordenamiento jurídico español a la luz de los principios básicos que deben informar el Derecho Penitenciario, recogidos en la Constitución y en la Ley Orgánica General Penitenciaria*.

288 Langraitzeko emakumeen isolamendu-modulua, patioa baino kalean etxe-blokeen artean arropa eskegitzeko egon ohi diren hutsune horietako bat zen. Euriaren euriz, lurra goroldioak estalita ageri zen.



**16. irudia**

*Espetxe-arkitekturen ereduak: espina eredu.*



**17. irudia**

*Espetxe-arkitekturaren ereduak: eredu modularra.*



**18. irudia**

*Segurtasun handiko espetxeetako kontrol-dorrea*



*Iturria: Internet*

Arestian esan dudan moduan, 90eko hamarralditik aurrera, *eredu modularra* ezarriko zen (ikus 17. irudia), makrokartzela eta segurtasun handiko espetxeen eraikuntzarekin batera, alegia. 78ko erregimenaz geroztik % 500 handitu da preso kopurua, eta, beraz, espetxeratze-prozesuaren gorakadaren seinale ere bada makrokartzelen sare berria.

Ereduek modularra da, gutxi gorabehera, ia mimetisoz errepikatzen den espetxe mota edo eredua. Hobi moduko baten bi aldeetara eraikitako harresiek inguratzen dute espetxearen diametroa. Askotan, kontrol-dorre luze eta altu baten azpian (ikus 18. irudia) 1500 bat preso bizi dira, gehienetan 14 eta 16 bat moduluren artean sailkatuta. Dorreak panoptiko berrituaren begia dirudi. Bi moduluan behin, eta bien erdian kokatua, espetxe-langileen *garita* bat, haien begiekin eta bideo-kameren begiekin ondo hornituta —ehun edo berrehundik gora—. Garita, nola ez, presoek zapaltzen duten zorua baino altuago eraikita dago. Horrela, espetxeko langileek goitik behera hitz egiten dio presoari, eta presoak, halabeharrez, behetik gora; 30 x 30 *cm*-ko leihatila baten bidez burua okertuz. Horrek agerian uzten du, noski, erabaki- eta ekintza-ahalmenaren banaketa. Autoritatea berresteko ekintza arkitektonikoa da, inondik inora ere. Baina, ikusiko dugunez, ez da bakarra.

Espetxe-eredu horrek udalerrri baten tankera hartzen du bere plaza, kale, administraziorako eraikin, sektore produktiboko tailer, bizitoki... eta guzti. Beharbada, horregatik betetzen dute horren azalera handia, aurreragoko espetxeen aldean. Hori dela eta, hiriguneetatik urrun samar eraikiak izan dira, mendi edo lautaden erdi-erdian. Sarritan, garraio publiko gabe, eta, dagoenean, senideen presioaren emaitza izan da maiz.

Eraikin artean, kale-etorbideak, lorategiak, baratzeak eta eskulturak. Baina egunerokoan ez du udalerrri batekin zerikusirik, praktikan espetxe barruan denbora eta espazioa ez direlako askeak, eta hori eredu modularrak eman dezakeen itxurarekin talkan dago. Hurrengo atalean, niretik zein ikerketako beste emakume\* preso ohien bizipenetik abiatuta deskribatuko ditut tokiok.

#### 9.6.1. Sarrera-irteera gunea

Espetxea den porlana guzti horretatik, sarrera-irteera modulua izango da preso legez zapalduko dugun lehen zorua. Eta, zortea izanez gero, azkena. Kaletik edo beste espetxe batetik datozen presoek harrera egiteko edo beste espetxe batera, epaitegira, ospitalera edo kalera —baimenez ala askatasunean— doanari agurra antolatzeke eginda dago.

Lehenengo sarreraldian, bertan egingo dira presoaren fitxa betetzeko lanak, osasun- eta gizarte-profesionalekin egin beharreko elkarriketak, presoaren nortasun-agiria (ikus neurea, adibidez, 19. irudian), gorputz-desinfekzioa eta espetxe-arropa janzteko ariketa. Burokrazia handiko unea da, eta presoak batetik bestera galduta ibiltzea ohikoena da. Pertsonatik preso izaterako trantsizio azkarra gertatzen den tokia da, eta, dirudienez, galduta sentitzea prozesuaren

parte da, inork ez baitio presoari azaltzen zer gertatuko den hurrengo minutuan, hurrengo orduan eta hurrengo egunetan. Bazkaldu ere egingo duen ez daki. Dagoeneko, erabakimena ukatzen zaion *zerbait* sentitzen hasiko da, eta berba bakarreko aginduak izango dira hasieran entzungo dituen esaldi luzeenak.

### 19. irudia

*Presoaren nortasun-agiria*



*Iturria: neurea*

Preso-bizitzan beharrezkoak izango ez dituen objektuak kenduko zaizkio hemen: giltzak, kale-dirua, kaleko nortasun-agiria, kaleko sare publikoetako txartelak (liburutegikoa, kiroldegikoa, garraioarena), banku-txartela eta abar. Funtsean, presoari bere nortasuna erantzeko eta desegiteko prozedura burokratikoa da. Hor ikasi beharko du presoak, ahalik eta lasterren gainera, zain egoten, igo-jaitsi-sartu-irten-isildu eta antzeko aginduei erantzuten, *usted*kako trataera ematen kartzelariei, sarrerako *obediencia-testa* betetzen (Goffman, 1972); azken finean, zenbaki/pakete moduko bat sentiarazteko saiakera horiek guztiak eramaten trebatzen. Norbere burua jaietako erraldioen tamainako eta garaiko kuleroekin, eta buzo batekin jantzita ikustean, bere ohiko dokumentazio-kartera-belarritako eta arropa gabe, norbere burua identifikatzea ere nekeza suertatzen da. Nortasunaren desjabetze-prozesu hori (Goffman, 1972) ez dute denek berdin biziko, eta horretan eragiten dute espetxearen inguruko aurre-ezagutzak eta polizia-etxeetako tratua ondo ikusi. Miriam Camposek aldizkari batean idatzitako testigantza horrela kontatzen du:

Soto del Real izaten zen garai hartan emakumeontzako sarrera-kartzela: Audientziatik kartzela horretara eramaten ohi zituzten emakumeak. Urdirnek bertan eman ziguten «harrera» daukat nire lehenengo bizipen bezala: deshumanizazioa eta umiliazioa, emakume eta pertsona bezala zenituen segurtasun harresi guztiak suntsitzen saiatzea: zure arropak erantzi, biluztu, kartzelak emandako buzoa jantzi, ziega zikin eta ilun batean sartu...

Albak, aldiz, kontrako erreakzioa izan zuen, eta nortasunaren desjabetzeari eutsi zion bere zikintasunari atxikiz:

Estaba sola, y ya empecé a enfrentarme al maco, también tenía mucho conocimiento del maco. Me acuerdo cuando, más tarde, una compañera me dijo: «Pero no te has puesto el buzo ese?». Yo le dije: «Pero ¿cómo me voy a poner eso?!». Me negué, porque es difícil que te pongan algo a la fuerza, que te quiten ropa puede ser, pero ¿qué te la pongan? Es muy difícil si tú te niegas. ¿no? Y la verdad que la ropa que tenía estaba asquerosa, asquerosa, me había bajado la regla, asquerosa, pero era mi ropa, mi mierda.

Mari Luz Estebanek *Herida de política y cárcel. El relato encarnado de una activista* artikulurako elkarrizketatu zuen Arrate Gardoki deitu zuen presoak «lekuz kanpo dagoen barreak» jota bizi zuela kontatzen du:

Entonces [luego, con las compañeras] empecé a hacer bromas: nuestro olor, nuestro pelo... y una compañera se enfadó conmigo y me decía, «pero tú no estás bien de la cabeza, ¡que estamos en la cárcel!». Y yo le decía, «¡ya está, Haizea!, ¡da igual! Estudiaremos, haremos deporte, yo qué sé, ¡tranqui! ya hemos terminado» (...) Luego, sobre el paso por comisaría hablamos poco en la cárcel... ¿Qué hablamos? Sobre los insultos y contarnos un poco, «¿a ti cómo te insultaban?». Se metían mucho con el cuerpo. A mí no tanto, pero a una de ellas, le metieron mucha caña con su cuerpo. Y bueno [se ríe]... Yo realmente sentía euforia, me reía, me reía, y decía, «no puedo aparecer en la foto de... pero todo era una locura» (2018: 351).

Lurrek, aldiz, harrera-prozesutik amari egindako telefono-deia baino ez du buruan. Torturak —barre desegokiarekin batera— eragin ohi duen beste erreakzio baten berri emanez: mutu geratzea.

Amak hartu zidan telefonoa. Ta hartu zidan eta mutu nengoen, ez zitzaizkidan ataratzen hitzak. Izan zan oso... nere ama konturatu zan segidan ni nintzela eta... mutua. Me salian ruiditos raros, negar antzekoa... ta azkenean lortu nun esatea, lasai ondo nago. Ta berak esan zidan, abokatua, nire aita, ahizpa, denak Madriden zeudela, Carabanchelen zeudela, baina ez zietela utzi sartzen, esan zietela inkomunikatuta nengoela. Eta esan nion, konfunditu dira, ez nago inkomunikatuta baina. Ta ondo nago, ta lasai. Ta amari holako hitzak esan nion, ta hori, hurrengo asteburuan etorri ziran bisitan. Nere amaren ahotsa aditu nuen, eta izan zan como un: aaaaa... antsietateko zera batek eman zidan. 5 minutuko deia zen, eta uste dut lortu nuela azken 30 segundotan dena esatea, ondo nago, baina hola, con un hilito de voz. Ta nere ama denbora guztian, lasai, eta kriston animok ematen, oihukatzen... (negarrez hasten da). **Lur**

Espetxetik kalera irteteko prozesuan, presoari jada berea ez duen etxe edo autoko giltzak itzuliko dizkiote, baita iraungitako NANA ere. Gogoratzen ez duen txanponak gordetzeko kartera hura, *cashik* ia ez darabilen gizarte batera botea izateko. Paradoxa galanta. Objektuak anakroniko xamarrak irudituko zaizkio, oraindik anakronikoa dena bera dela guztiz ulertu gabe. Ustez, judizialki preso ez dagoen pertsona izan arren, eraikina utzi arte, Espetxe Erakundearen arauen menpe jarraituko du, eta hori azken muturreraino eraman dezakete. Kartzelan, ohikoa da kartzeleroek presoari informaziorik ez ematea; are gehiago, preso politikoen kasuan, segurtasun-neurri berezien izenean. Adibidez, espetxe-aldaketetan nora eramanak diren ez zitzaien jakinarazten.

Bada, Ekiñeren kasuan, kaleratua izango zela ere ez zioten jakinarazi, eta imajinatu egin zuen, espetxe kanpoan entzundako zalaparta eta etxafueguak direla eta.

Horrela, kontestu horretan geunden, eta, goizean, kartzelariak, ba dutxatzea edo tokatzen zitzaigula uste dut. Ba dutxatu eta kartzelariak ikusi nituen, ba zerbait neregatik esan zutela. Eta gero esan zidatenean «bisita daukazu», eta jeisten naiz eta bisitako bat, emakumea, hasten da «kalera zoaz, kalera zoaz» (oihu doinua jartzen du), ordu batzutako gauza da. Ostirala zan. Eta ni «eee?!!!» eta berak «baietz». Egia da bezperan suziriak bota zituztela, ze normalean ostiraletan botatzen zituzten (...). Bestea zan ostiraletan izaten zirela bisitak, ziega batera joan eta bi ordu egoteko aukera. Baina esaten didate, «gaur ezin duzu ziega bisita egin, zure ziegara joan behar duzu» eta nik esaten diet «zer, kalera noa, ezta?» eta beraiek «ezin dizugu ezer esan», «kalera noa, ezta?», «ezin dizugu ezer esan». Gero, ziegan esaten didate «jaso zure gauzak». Bale, hartzen dut nire denbora ze ez zidaten esaten zer, ta ni klaro. (...) Total, esan nien «ni ez noa hemendik preso guztiekin agurtu arte», eta beraiek «a, o» eta nik «presoekin agurtu nahi dut», azkenean tipak banaka-banaka ireki zidan atea, banaka-banaka besarkatu nituen, eta esan nien «lasai, nik borrokan jarraituko dut denak askatu arte», batzuk flipatuta negarrez... joaten naiz behera, sartzen naute ziega batera berriro. Ta nik... ze ostia, aske baldin banago ziega batera? eta han irratian entzuten dut nire izena, eta esaten libre geratu nintzela eta ni... libre? Zulo putan hontan nago eta, lotuta berriro. Esaten didate «trasladatuko zaitugu» eta ni «e?! Ni aske nago, zergaitik lotzen didazue? Nora noa?» (...) o sea, atxiloketa eta askatasuna kondizio berdinetan. Isolatuta, gela puta batean, informaziorik gabe. Eta irratian entzuten «sale en libertad» eta ni, han! Gero etortzen dira eta esaten didate astelehenera arte egon behar dudala han ze ezin dutela asteburuan sinatu. Eta ni «nola... aske banago?», eta denbora guztian entzuten nituen oihuak kaletik, ni askatzeko eskatzen. Eta pentsatu nuen «igual askatuko naute?», bueno nik burua eginda nuen astebururako, eta berriz atea irekitzen da berriro eta «hartu zure gauzak». Orduan hartu gauzak eta nik «ze ostia? Nora? Kalera noa?» eta berriz «ezin dizugu esan», eta entzuten ditut pon, pon koheteak kanpoan.

Ikusi dugun moduan, sarrera eta irteeretako esparru hau berezia izango da presoarentzat. Burua kezka, galdera eta zalantzez beteta duelarik igarotzen duen tramite burokratiko azkarra. bere bizitzan espetxean egon izanak espetxera egin eta ondoren kalera berriz egite horren zailtasun eta konplexutasunarekin zerikusirik ez duena.

#### 9.6.2. Erietxea-eroetxea-herioetxea-gune pribilegiatua

Espetxe bakoitza udalerrri bat balitz, erietxea ez litzateke anbulatorioa, bailara edo eskualdeko ospitalea baizik. Erietxean, dependentzia-egoeran dauden presoentzako bizitoki txiki eta mugatu bat baino ez dago; ziega kopuru txikia, eta patio bakarra, alegia. Lehen arretako medikuak, espetxe-funtzionarioa ere badenak, ez du erietxean kontsulta pasatzen, moduluan baizik. Mediku-kontsulta ez dagoen egunetan (astean behin edo bitan egon ohi da, eta alde zaureratik eman behar da izena) premiaren bat izanez gero, erietxean artatzen dute presoak, larrialdi modukoa balitz bezala.

Praktikan, ordea, ez da erraza hori lortzea, espetxe-langileek erabakitzen baitute premia zenbaterainokoa den. Tamalez, presoaren hitza kolokan jartzea izango da lehen erreakzioa, automatizatuta dagoena. Espetxe-funtzionarioen iragazki-lan horiek makina bat presoren osasun-egoeran kosteak izan ditu. Lurrera ziplo eroritakoak ikusia nago, ustez asmatuak izan

diren gaitzak tarteko. Beraz, medikuak ez diren espetxe-langileek, jakintza mediko gabekoak, osasunean eragina duten erabakiak hartzen dituzte. Eta osasun-ezagutza zientifikoa dutenak, halaber, BarneMinisterioko langileak dira, eta fideltasuna bi ofizio horietako zeini zor dioten ez da oso argia sarri. Gainera, kaleko erietxera joateko txangoa antolatu eta segurtasunaren aitzakiaz mobilizatu beharreko polizia kopurua tarteko, baliabide gabeko espetxe-erietxean artatuko dira kanpoan beharko zuketen ondoez asko.

Gerta liteke, kontsulta-egunean, medikuak izena eman duten preso guztiak ikusteko astirik ez edukitzea. Horrelakoetan, hurrengo astera arte itxaron behar izaten da. Baina kontuan izan behar dugu farmaziarik ez dagoen gun e batez ari garela; beraz, minarentzako pilularen bat —edo beste botikaren bat— behar izanez gero, medikuarenera hurbildu behar duzu. Horrelakoetan, presoaren arteko elkartasun-sare inprobisatuaren bidez, izena eman duen batengana ilaran hurbildu, eta hortzetako mina kentzeko zerbait eska diezaiola eskatzen zaio. Botika preziatuenak, aldiz, musutruk ez, baizik eta salerosketagai bihurtzen dira: eskizofreniarako zipresak, antsiolitikoak<sup>289</sup>, metadona<sup>290</sup> eta abar. Automedikazioaren katedralak dira emakumeen\* moduluak. Eta, bistan denez, jarraipen-medikoa egiteko zailak, zeren ez baitago beti jakiterik azaltzen ari den mina edo eskatzen ari den botika norberarentzako ala besteentzako den.

Erizaintza-lanak egiten dituzten guneeetan ere gizonetzkoa da ardatz eta neurri. Espetxe askotan, espazio falta dela eta, eta segregazio sexuala betetzea lehenesteagatik, emakume\* asko ez dituzte erizaindegian artatuko, moduluan bertan baizik. Horrek esan nahi du emakumeentzako\* erizaindegia gizonetzkoentzako baino eremu pribilegiatuagoa izango dela. Ez da betatutako eremua izango, baina ozta-ozta.

### 9.6.3. Betatutako eremuak

Kartzela hiria balitz, pasabideak kale nagusiak lirateke, bere plaza eta parke eta guzti. Praktikan, presoek bertan egon eta gozatzea debekatuta dituzten espazioak dira, noizean behingo igarobide zainduak baino ez, kartzelariz inguratuta zeharkatzen dituen tokiak. Behin, espetxe-eredu zaharrago batetik —eta, zehazki, zigor-modulu batetik— zekarten euskal preso politiko bat ikusita nago, modulutik bisita-lokutoriotara eramaten gintuzten batean, zapatak erantzten eta korrika belarra zapaltzera joaten. 15 urtetik gora zeramatzan preso, eta denbora-tarte horretan belarrik zapaldu gabe zegoen, bera jatorriz mendialdean sortu eta hasitakoa izanik. Emakume\* presoaren poz-algarak, kartzelarien ezusteko eta harridura-keinuek eta bisitara gindoazen beste hamar bat presoon barre konplizeak eszena bitxia osatu zuten. Kartzelariak erreakzionatu zutenean, oihu eta mehatxu artean, bere lekura itzultzeko agintzen hasi ziren. Preso euskaldunak, bere plazerari

---

289 Medikalizazioa gorantz doan fenomeno da espetxean; are gehiago emakumeen kasuan. Gainera, medikazio asko psikiatrikoa da (Gallego Pérez, 2011).

290 1996tik landa, Espetxe Erakundeak metadona banatzen du heroinarekin menpekotasun arazoak dituzten presoaren artean.

nahiko leku egin ziola erabaki zuenean, guregana hurbildu eta, artaldeak artzainaren gidaritzapean nola, bisita-geletarako bidea berrartu genuen.

Zapaltzea debekatuta ez, baina bertara hurbildu eta erabiltzeko eskubidea pribilegio fin bihurtzen duten heinean, espetxe-mailako kiroldegia, gradu-aretoa, liburutegia, futbol-zelaia eta abar lilura modukoak izango dira. Ustez sarrera unibertsalekoak, baina, praktikan, saritzeko bide. Graduen progresioaren logikak zigor eta sarian oinarritzen den erregimena dakar, *meritokrazian* oinarritutakoa. Beraz, lortu beharreko luxuzko harribitxi bihurtuko dira eskubideak sarri askotan. Gainera, espetxe zaharretan meza nola, makrokartzeletan leku horiek izango dira beste moduluetakoa kideekin topo egiteko tokiak. Baita emakumeak\* eta gizonak ere.

#### 9.6.4. Espetxe mistoen mitoa

Emakume\* presoen % 80 espetxe misto deitu diren baina gizonen espetxeen mende dauden moduluak baino ez dira (Ugarte, 2003, Aguilera, 2011). Sexuaren arabera bereizita dagoen espazioa dugu kartzela. Bizitoki, lan-merkatu, komunikaziorako txandak edo kiroldegi, kultur ekintzetarako txandak, emakume\* eta gizonen arteko banaketa mantenduz egiten dira, gehienetan. Gizon eta emakumeak\* elkartzea arrisku-gaia dela segituan sentituko du presoak espetxea ezagutu eta gutxira, giroan etengabe antzematen den araua baita; presoa naturalizatzerira irits daitekeen araua. Elkar ikustea ekidin beharrekoa da, eta, txarrean, erabat kontrolatu beharrekoa. Espetxe mistoak topaldi horiek saihestu edo, ezin denean, zelatatu eta zaintzeko zeregin gorena dutela pentsatzerira irits daiteke presoa. Heterosexualitatea emantzat jotzen da: emakumezkoak\* desio sexualaren objektu gisa irudikatzen dira, eta gizonak sexu-subjektu basapiztia menderakaitzak. Beraz, emakumea\* arriskutsua izango da, emakume\* izate hutsagatik, desio sexuala ase ezin den bizitokian desio sexualaren hauspoletzat joko baitute etengabe.

Hori dela eta, gizon eta emakumeek\* bat egiten duten ekimenak ezkutuan zirriak egiteko parada eta txoko bihurtzen dira. Ehunka kontakizun daude bikoteak harreman sexualak izaten harrapatuak izan diren moduen berri emanez. Presoek, zigorrak zigor —barre artean elkarri kontatuz—, berregin egiten dute araua, posible duten guztietan apurtzen duten moduan. Bitxia da emakumeen\* moduluetan emakumeen\* arteko harreman afektiboak eta sexualak irekiera eta ikusgarritasun apalez bizi izatea; badirudi, heteroaraua indartzeko bidea, harreman lesbikoak zuzenean zigortzean baino, heterosexualitatea indartzean datzala. Horrek ez du esan nahi moduluetakoa komuna edo atezainak sartu ohi ez diren beste gelaren bat ez denik bihurtzen emakumeen\* arteko harreman sexualak izateko gune.

Heteroaraua sendotzen duen sexu-segregazioaz gain, espetxe-antolaketa erabat androzentrista da, moduluak zenbatzeko modutik bertatik hasita. Dagoeneko azaldu dudanez, makrokartzela horietariko 14 edo 15 moduluetatik bat edo bi baino ez dira izaten emakumeentzako\*.

Moduluak ezberdintzeko, zenbakiak erabiltzen dira, eta, kasualitatea ala ez, emakumeenak\* beti azkenak dira: 11., 12. eta 13. moduluak. Eta badirudi mota guztietako baliabideak banatzeko orduan ere ordena horretara lerratzen direla, emakumeen\* moduluak azkenak izaten baitira kirolerako tresnak, eskulanetarako materialak eta abar jasotzeko sasoian, eta. banaketa ez-parekide horretan, soberakinak jasotzen dituzte askotan.

Nabarmenena ordaindutako lanaren kasuan ikusten da (zigorraren erredentziorako beharrezkoa dena), lan txarrenak eta gaizkien ordaindutakoak gordetzen baitzaizkie. Lanaren banaketa sexualari eusten dion genero-ideologia agerian geratzen da moduluko garbitasuna kudeatzeko garaian. Emakume\* preso guztien betebehartzat jotzen da, baina, gizonen kasuan, enplegutzat dauka sistemak. Gaur egun, 2023 honetan, ere bai.

2007an, «las mujeres no hacen deporte» zioen esaldiarekin jaso nuen moduluko gimnasioa baliabidez hornitzeko eskaerari espetxeak emandako erantzuna. 2018an Castelló de la Planan bisitatu nuen lagun batek kontatu zidan ezen, Martxoaren 8an, egun hori ospatzeko, segurtasunekoak, ilusio handiz, plantxa bat oparitu zuela moduluko emakumeei\*. Datak nahita aipatuak dira, iragan mendeko gauzez ari ez naizela azpimarratzearen, eta estatu-mailako Berdintasun Legearen eta espetxera zuzendutako berdintasun-planen osteko gertaerak direla azpimarratzeko.

Bestalde, espetxe-eredu modular horren ardatza, ustez, tratamenduaren indibidualizazioa da, presoak ezaugarri ezberdinen arabera multzokatu eta besteekin harremanetan ez egoteko parada eskaintzen duen eredu izaki, aniztasun-printzipioa gorde eta autonomia indartzen duena. Emakumeen\* kasuan berriz, zigortu gabekoak zigortuekin batera daude, gazteak zaharrek, drogazaleak narkotrafikatzaileekin eta abar luzea. Aniztasun horretan, sufrimendua eta mina ardaztuta duten gorputzak dira nagusi: orbainak, gorputz meharregiak, gorputz puztuak, haginik gabeko barreak, erredurak, azkarregi zimurtutako aurpegiak, azkarregi zuritutako ilediak, nora begira dauden jakitea zailak diren begiradak, emandako sabelak, zirujiaz moldatutako titi eta ipurdiak. Hilerokoaren falta, idorria eta bizkarreko mina duten emakumez\* mukuruko espetxea, baita patioan txandalaz edo pijamaz jantzita dabilzan emakumez\* ere. Sarri askotan, modulu etxe-arropaz egoteko tokia da, eta moduluz kanpokoak, kale-arropekin egotekoak. Moduluan, egunero-egunero pertsona eta aurpegi berdinekin egiten duzu topo, ez dago ezustekorik. Zentzu horretan, ziegaren eta espazio intimoaren zabalpen modukoa ere bada: buruan tinteak emanda patioan oinez ibiltzea edo elkarri feminitate-ereduak itsusitatzat jotzen dituen ileak kentzen aritzea ohikoak dira. Alta, norberarentzat apaintzea borrokagai bilaka daiteke, ez apaintzea edota besteentzat apaintzeko arauaren aldean. Idatzi gabea den arau horrek kontraesanak eta hika-mikak eragiten ditu, Ekiñek ondo azaltzen duen moduan:

O sea, kriba egiten dute arropa batekin, beraiek erabakitzen dute zer jantziko duzun. Niri hasieran nahi zuten bakarrik txandalarekin egotea. «Ja nik ezin dudan erabaki eguraldiaren arabera galtza motzak nahi ditudan ala ez» zen ere, ez probokatzeko funtzionario gizonak edo beste presoak, nola beste presoak ere ezin dute sexu-harremanik izan, ba mezua zan hori... están muy salidos, beraz,



zuen haragi puska bat ikusten badute, ba probokatzea da. Hori zan mezua. Hau zer da...? Eta bai, kontraesanak asko, kanpoan apurtzen dituzun rol guztiak, han edo bizirauteko egiten dituzu, edo gelditzen zara 23 ordu isolatuta, hori da e? Hori niretzat ez zan erraza, e? Egun, hontatik zer ateratzen dut galdetzen nion nire buruari. **Ekiñe.**

Zabaldu den espetxe-eredu honetan emakumeen\* modulu bat edo bi egotea gizonezko presoekiko funtzionala bilakatu dela dioenik ere bada<sup>291</sup>. Modu horretan, presoaren arteko harreman sexual eta afektiboak izatea bultzatzen da, gizonak baretuz eta emakumeek\* bizirauteko ekonomian murgildu ahal izateko (Ruiz, 2016)<sup>292</sup>. Arauak dio bi preso, gutun bidezko hiru eta sei hiletako harreman baten ondoren, bikotetzat jo daitezkeela eta, beraz, modulu-arteak bisita eta bisean bisak izateko eskubidea dutela. Arau hori espetxearen arabera eta presoaren arabera aplikatzen dela ikusi izan dut nik. Preso politikoen kasuan, zinez nekeza bilakatu ohi da. Aldiz, gorago aipatutako iritzia dutenen arabera, espetxea malgua da oso beste hainbat kasutan, preseski interes hori duelako. Goragoko ustea eztabaidagarria da, baina emakumezkoek\* espetxean bizimodu itxiagoa egitera behartuta daudela ez horrenbeste: modulutik kanporako aktibitateetan parte hartzeko aukera gutxiago dute, eta, gainera, irteera misto horietako batean arazoren bat egonez gero, emakumeak\* modulora bueltaraziz zigortzen dituzte; are gehiago, preso politikoen izanik, segurtasunaren eta zigorraren artean dauden arazoiz argudiatzen zitzaizkien debeku eta ukoak bizi zituztelako. Eta horren emaitza modulutik kanporako jardueretan ezin egotea zen.

Zentzu horretan, kartzela barruan beste kartzela bat bizi dute. Kartzelako kartzela nagusia jarraian landuko dudan *txopanoa* bada ere (zigor-modulu eta ziega, alegia), beste maila batean emakumeena\* ere bada kartzela barruan beste kartzela bat bizitzeko modua (aukera, betebeharrak eta arau ezberdinekin), emakumeentzat\* zigorra gogorragoa eginez. Ustez mistoak diren espetxeetan, arautegi murritzailagoa, mugikortasun ahalmen txikiagoa eta baliabide eskaintza apalagoa dago emakumeentzat\* (espazio faltagatik, gizonekin alderatuz kuantitatiboki gutxiago direlako...), eta, hori gutxi balitz, ez da onargarria atezainen eta espetxe-arduradunen tratu infantilizatzailea.

#### 9.6.5. Txopanoak

Kartzelaren barruko kartzelari deitzen diete presoek *txopano*. Arkitekturari dagokionez, espetxe-eredu modularra adituen arteko eztabaida eta praktika zehatzen arteko emaitza izan da. Beste horrenbeste gertatzen da bizi-erregimenei lotuta dagoen sistema progresiboarekin.

Euskal preso politikoei ia hastapenetik eta modu sistematikoan 1. gradua ezarri izan zaie, baina, halaber, haien artean sakabanatu nahi izan dituztenez, erregimen politikoa berezi horrek

---

291 Hau 2016ko Usurbilgo emakume preso ohien arteko mahainguruan, emakume preso ohi batzuk adierazitako iritzia da.

292 Autoreak, emakume preso sozialen biziraupen estrategiak aztertu ditu bere doktore tesian, eta biziraupen ekonomikoa helburu, gizon presoekin lotzea horietariko bat da.

Espainiako espetxe-azpiegitura gainditu izan du. Horren ondorioz, preso politiko batzuek zigor-moduluetan bete dute espetxe-zigorra, eta beste batzuek 2. graduako moduluan, baina murriztutako eskubideekin. Gutxiengoa egon da 1. gradurako espetxeetan, emakumeen\* kasuan, 2024ko urte hasiera honetan hiru baino ez baitaude estatu osoan.

Zigor-moduluak sistema zelularren edo Filadelfiakoa bezala ezagutu zenaren garapena baino ez dira. Ziega gutxiko galeria txikiak dira, eta askotan burdin sareez estalita dauden patio txikiak dituzte. Guztira, lau, sei edo zortzi galeria izaten dituzte, eta galeria bakoitzak patio propioa eta sei bat ziega ditu. Beraz, biztanle gutxiko bizitokiak dira, berez ez direlako bizitokiak, salbuespenezko egoeretan salbuespenezko denbora-tarte mugatu eta laburra egiteko lekuak baizik. Baina, tamalez, presoen komunitate batentzat<sup>293</sup> —tartean, 2021eko udaberrira arte, preso politikoak<sup>294</sup>— ohiko bizimodua izan denez gero, sistema zelularra ezartzeko ezkutuko modua bilakatu dela esan daiteke. Funtsean, XIX. eta XX. mende-hasieran horrenbeste eztabaida zientifiko eta sozial sortu zituen, gaur gaurkoz, selektiboki aplikatzen den espetxe-modua da.

Arauaren arabera, zigor-modulu horiek, gehienez, 72 orduko luzapena izan dezaketen zigorrak betetzeko balia daitezke; halere, badago gehiago luzatzea ere, txarrean, Espetxe Erregelamenduko 75. artikularen<sup>295</sup> bidez—artikulu horrek ere behin-behinekotasunezko bokazioa badu ere, praktikan, 75. artikulua bizi-erregimen bilakatu da batzuetan (Freixa 2014)—. Freixak dio ezen, 1. graduan ere, ustez bizimodu horren menpe ahal den eta denbora gutxien egotea gomendatzen den arren, gutxienez 9 hilabete egin beharko dituela presoak, gradu-progresiorako ezarria den prozedura dela eta.

Delako txopano horiek lehen begi-kolpean horren deigarriak diren modulu-arteke pasabide dotore, lorategi eta igerilekuaren alde ezkutua dira. Espetxeetako zulo beltzak. Beti bada horrelako zurrumurruren bat: «Hau edo bestea hara eraman zuten, jipoitu egin zuten, baina gerora ez dakigu ezer. Ez dugu entzun beste kartzela batera eraman dutenik...». Elkarrizketa isiltasun batekin amaitu ohi da, txarrena aditzera emanez bezala. Izan ere, leku horiek espetxe-boterearen eta espetxe-langileen inpunitatearen erreinu izateagatik dira ezagunak. Bortizkeria eta gehiegikeriarako gune dira, eta espetxean duten sona horrek berorrek biderkatu egiten du bere zigor-efektua. Herritar batek araua hausten duenean, espetxera doa. Preso batek araua hausten duenean, horra doa. Eta ez dago hori baino infernu handiagorik. Horixe da kate punitiboaren ertzik gogorrena. Mendiolarentzat,

---

293 Preso prebentiboak, Espetxe Lege Organikoaren 10. artikulua ezarri zaien presoak edo behin epaituta 1. graduan sailkatuak izan direnak erregimen itxiko moduluetan egon behar luketen arren, askotan zigor-moduluetan sartzen dituzte, sistematikoki; baita espetxeari modu antolatuan edo antolatu gabeaurre egiten zieten presoak ere. Gizonen kasurako, ikus:

294 Ikus gehiago: <https://www.naiz.eus/es/iritzia/editorial/fin-del-aislamiento-medida-punitivista-y-vengativa>

295 «El art.75 del R.P. concede al Director de un Centro Penitenciario el poder discrecional de establecer temporalmente limitaciones regimentales y medidas de protección personal sobre un interno por razones de seguridad o tratamiento y ello, en ocasiones, puede comportar que se produzca una asimetría entre el grado de clasificación de un interno y su régimen de vida.»

hau torturarako geografia bilakatu daiteke<sup>296</sup>.

(...) la imposición de un régimen de aislamiento prolongado en donde el recluso debe estar en su celda entre 22 y 24 horas al día; régimen de castigo, reservado en principio a los presos más peligrosos o con cargos de terrorismo, que por la dureza que impone, por crear un espacio marcado por su radical inhabilitabilidad, puede ser catalogado como tortura institucionalizada que se asume en el ordenamiento del sistema punitivo. Si la vida, en las múltiples formas que adquiere, se fundamenta en el modo en que es practicado y concebido el lazo social, la imposición de un régimen de aislamiento, volcado en la erradicación de ese lazo social, viene a constituir una de las formas más crueles de tortura ya que cumplimenta en toda su radicalidad la reducción del torturado a los límites de su propia corporalidad. (Mendiola, 2015: 7).

Kartzela barruko kartzela da (Pizarro eta beste batzuk, 2014). Azken batean, presoak modu bikoitzean isolatzen dira, gizartetik eta beste presoetatik —eta espetxe langileetatik— (Kurkis eta Morris, 2001). Carltonen (2011) arabera, kontrol sozialera, deshumanizaziora eta atezainen segurtasunera bideratuta daude bizimodu itxiko espazioen arkitektura eta teknologia. Finean, espetxeko ordena, segurtasuna eta kontrola bermatzeko helburua dute, eta, horregatik, beste presoekiko disuasio-funtzioa bete dezaten ere bilatzen da (Ward eta Werlich, 2003; Pizarro eta Narag, 2008). Modu batera zein bestera, bertan ezartzen den bizimodua egon litekeen gogorrena dela esan dute askok (zigor kapitala salbu), buru-osasuneko arazoak eraginez. Angustia, estresa, antsietatea, nahasmena, errealitatearekin harremana galtzea, autokontrol-galera... eragiten dituela berretsiz (Haney, 2003). Giza eskubideetatik kanpoko eremutzat dute hainbatek.

Gizonak zeuden isolamendu-galeria batean. Gurea, aldiz, zen zigor-galeria, jendea ekartzen zuten zigorra betetzera, ta hura jipoi eta oihuz betetzen zen: «¡Señoritaaaa un cigarro!». Edo guri horma jotzen: «Es que no puedo mássssss». O sea, jasanezina, giroa. Edo beste behin, ekarri zutela bat con tuberculosis. Y al patio con nosotras. Ta joan nintzan medikura esatera: «Pero a ver, ¿esta señora está aislada o qué? Como te da igual que yo pille la tuberculosis, la triquinosis, la hepatitis, el VIH y si me muero mejor. Pues claro». Egoera hori mutilen moduluan ez da ematen, ze gauza bakoitzak bere espazioa dauka: zigortuen alde, ta bertan bizi direnen patio eta galeria. Gurea zen un kutrerio, hormako adreiluen erdia hezetasanak janda, eta mantxa permanente bat. Eta, bueno, gero genituen labezomorroak a tutiplén, toalla batekin ate azpia estaltzen eta atean moskitera bat, eskerrak uzten ziguten. Ze labezomorro hegalariak ziren, de las mediterráneas que vuelan. Baina funtzionario hauek: «¿cómo son tan guarras y trabajan en estas condiciones?... yo me manifiesto allí en la puerta». Bisita bat etorri zen egun batean, eta labezomorro bat ipini zitzaigun buruan, queé puto asco. Esas marrones. Edo zeunden siestan ta entzuten zenuen, ahhh... pun. Eso era lo más cotidiano, ja ja. Típico, ¡qué puto asco por favor! Hori igual mutilak be izango zuten. **Xune**

---

296 Ignacio Gonzalez Sanchezen esanetan (2012), tratu txarren datuak haien eragingarritasunen azpitik baloratzen dira, presoekiko konfiantza falta dela eta. Hala ere, ideia bat egin dezagun, hona 2020ko maiatzaren 13ko La Copeko albiste bat: «El Gobierno ha informado, en una respuesta parlamentaria, de que se han presentado 950 denuncias por posibles torturas en las cárceles españolas en los últimos diez años, acumulándose casi el 40 % de los procedimientos en los últimos tres años y siendo Castellón II la prisión que con más casos. Estos datos se encuentran en el documento que ha aportado el Ejecutivo como respuesta a la pregunta sobre la cantidad de denuncias por posibles casos de torturas en las cárceles».

Ziegako ateetako sistemek<sup>297</sup> presoaren eta espetxe-langilearen arteko elkar-ikustea eta -ukitzea ekiditen dute. Segurtasunaren izenean hartzen den neurri hori presoarentzako erabat deshumanizatzailea da. Arestian esan dudak bezala, Arantza Zuluetak prentsan nahiz hitzaldi batean<sup>298</sup> ere esan zuen kalean ikusten dituen beltz eskaleek bere burua gogorarazten diotela txopanoan zegoenean, norbaitek egun onak noiz emango, humano sentitu ahal izateko. Horregatik, kasu guztietan, behin-behineko neurri gisa aurreikusten du espetxe-erregelamenduak.

Aipatu dudanez, ziegako ateeak leihatila txikitxo bat daukate, atearen kanpotik itxi eta irekitzen dena. Ateko leihatila hori jaistea preso bati emango dioten jipoiaren zeremoniaren lehen pausua da. Modu horretan, jipoiak entzun bai, baina joka ari diren kartzelariaren aurpegiak ezingo du ikusi. Ziega-arteko hormek ez dute mina bertan gordetzen, galeriatik barna hedatzen da; eta norberaren bihotza uzurtu egiten da. Horrelakoetan, buruko sufrimendua muga-muturretara iristen da, eta zaila da hori bizitzen ari den presoaren estutasun/itoaldi eta antsietatea sentitzera ez iristea. Oinetakoak jantzi eta ahal den eta modurik bortitzenean joko duzu atea, ukabilak gorritu egingo zaizkizu kolpeen kolpez, ahotsa urratu oihuen oihuz; baina jipoitua den presoaren txilioak ez dira etengo. Gau horretan (eta, batzuetan, hurrengo egunetan ere), buruan iltzatuta eramango dituzu. Inpotentziaren negarrak eztarria loditu, etsipenak negar-soinua ahoan ito, hortzak estutu eta bihotza bizituko zaizkizu, eta horrela ikasiko duzu txopanoko legea horixe dela. *La plantillaren* edo *la guardiaren*<sup>299</sup> obra haien erreinu modukoak diren isolamenduko moduluetan. Azken finean, indarra erabiltzeko prestutasun berezia duten kartzelariak, eskuin-muturrekoak askotan, inpunitate<sup>300</sup> osoz aritzeko gunea. Beste ziegetako ateetako leihatilak itxiz, jipoiaren zeremonia hasiko dute, eta zigorra, jipoiak jasateaz gain, besteenak entzutea bihurtuko da.

Beste presoaren aurka entzuten dituzun hotsak bihar zeure gorputzekoak izan litezkeela jakiteak giro zurbil, lodi eta pisua sortzen dute. Isiltasun desatsegin eta mingarria da leku horietakoa, kolpatu egiten zaituen isiltasun modukoa. Hori dela-eta presoaren zentzumenak izugarri azkartzen dira bertan, eta isiltasuna apurtzen duten soinuak erregistratzen hasiko da, buruz ikasi arte. Soinu horiek emango diote kanpoan gertatzen ari denaren berri: janaria gordetzen duten gurdi-hots urrunak jatordua dela diotso, patioko atearen hotsak agian hara aterako dutela, lurraren kontra tatarrez dakarten poltsa-soinuak norbait berria datorrela... Soinu horiek barneratu eta ezagutzeak segurtasuna eta konfiantza sortuko dute berarengan, ezezagun eta arriskutsua zitzaiena etxeko eginez. Zaratak ikasi arte, baretasunik ez. Ziegaren itsutasunean, belarria eta usaimena zorrotzuko zaizkio, egoera kontrolpean izan nahian, gauean lo egin ahal izateko, komunetan kaka egin ahal izateko. Denak, gorputz-patxada behar duten aktibitate halabeharrezkoak. Soinu bakoitzaren

---

297 *Cangrejo* izenez ezagutzen den ate-sistema da. Azken batean, ate bikoitza da, bigarrena burdin hesia da.

298 Bilboko Zazpi Katu gaztetxean 2018ko azaroan emandako hitzaldi batean.

299 Indarra erabiltzen duten kartzelariak deitzeko moduak.

300 Arazo handiak daude txarren salaketak direla eta. Alde batetik, salaketak mendekatzeko joera zabalduta dagoelako (Ligero, 2002), informe medikuak lortzea zaila delako eta ikerketa horien ardura salatutako funtzionarioen kideen esku geratzen direlako (Gonzalez, 2012:383).

aurrean bihotzak salto ez egiteak osasuna esan nahi du, ez-ohiko zarata eta mugimenduek alertan jartzen baitute, pentsamendua azkartu, giharrak uzkurto eta arnasa eten. Tamalez, badira isiltasuna apurtzen duten zaratak, baina ohiko soinu-paisaia bilakatu direnak: presoek alarauak, etsipen-esaldiak, negar zalapartatsuak edo sexu-gehiegikeria salatzen duten gaueko ziega-irekiera eta takoi-hotsa, haizeak dakarren gizon arteko mozorkeria eta barre-algarak.

Laburbilduz, espetxean infernua aipatzea lakoxea den txopanoa beldurgarri egiten duena bertako idatzi gabeko araua da: espetxe-langileen inpunitate-maila handitu, eta presoak bere burua babesteko duen ahalmena zeharo murrizten den lekua da, kartzelariak nahi dutena egin baitezakete. Eta presoak ezingo du ekidin.

#### 9.6.6. Bizitza familiar, intimo eta sozialerako, 340 minutu hilean

Lagun, senide eta abokatuen bisitak horretarako propio eraikitako eraikuntzan egiten dira. 40 minutuko bisitak kristalezko lokutorioetan, eta bisean bisak horretarako propio sortutako geletan. Familiarenak, mahai, besaulki eta kristaldun ateeekin; intimoak, ate opako eta ohedun geletan (minimalistak baina korporatiboak, Instituciones Penitenciarias dakarten izara zuriekin). Presoa bere ziegan eta bereziki bisean biseko intimoetara bere etxeko izarak eramateko borrokan ibiltzen da. Mantak, espetxe guztietan eta polizia-etxeetan darabilten manta marroi eta finak; kalean mudantzetarako erabili ohi direnak. Gortinak, espetxearen arabera, gorriak, urdinak, berdeak eta abar. Eta nola ez, Klimt-en kuadro bat; zeinahi dela estatuko geografiako kartzela, denetan ageri da Klimt. Gogo gabe eta gustu txarrez dekoratutako espazioak direla berretsi nuen, Klimten koadro berdin bi elkarren ondoan eskegita ikusi nituen egunean. Klimten koadroek espetxe-egituren mimetismoaren metafora dirudite, askotariko klima eta geografietarako eraikuntza berdinak baitira nagusi. Ongizatea helburu ez dutela salatzen du material eta forma berdinak erabiltzeak Kordobako 40 graduko eguzkiaren aurkako borrokan eta A Coruñako Curtiseko euri eta hezetasunetik babesteko. Aterpe gabeko patioak Kantauriko kostaldean, eta uralitazkoak diruditen sabaiak — eta haien negutegi efektua— Alacanten; «donde termina Instituciones Penitenciarias, empieza la lógica» sona duen esaldiaren omenez.

Komunikazioen modulu horretan, inon baino gehiago, denbora borrokagai bihurtzen da. Bisitako kristalak dakarren gorreria, telefono moduko batek 40 minutuz eten egiten du. Denbora hori igarota elkarri aditzeko ahalmena desagertzen da. Beraz, azken agurrak mimikaz, begirada mutuez, oihu eta kristalari emandako muxu zein kolpeen bidez izateak ez gaitu harrituko.

*Vida cotidiana de la ilustracion en España* liburuan, Inmaculada Torremochak XVIII. mendeko emakumeen\* espetxeratzea aztertzen zuen. Bertan, astean bitan presoek «boquete» zeritzan tokira joateko aukera zutela aipatzen du. Han, senitartekoekin errekaduak trukatzeko aukera zuten. Helburua oinarrizko albistek eta janari-jantzi kontuak trukatzeko zen. Eredu horri eutsi zaio frankismoaren garairaino. Eta, ostean, bisita-tokiak erabat aldatu diren arren, astean 20

minutuko bi bisiten eredia mantendu egiten da. Preso egin beharreko urte kopuruak gora joan dira, baina bisiten funtzioa ez da komunikazioarena bihurtu. 40 minutuko bisita 20 + 20 metatuaren emaitza baino ez da, errekaduak trukatu eta bisaia ikusteko helburu hutsa zuten bisiten herentzia.

Komunikazioa norekin egin daitekeen eta norekin ez horrek ere badu nondik aztertua. Izan ere, kale-bizitzan enpleguarekin gertatu bezala, senidetzat odoleko ahaideak baino ez dira kontuan hartuko espetxean. Eta bikotetzat, formalizatutako harremanak baino ez. Azken batean, gure gizarteak harremanak hierarkizatzeke duen modua garbi agertzen da espetxe-egoeran, eta errekurtsio bidez emakumeek\* luzaro landu duten auzia izan da.

#### 9.6.7. Burokrazia geldo eta axolagabeen galtzen diren eskubideak

Nire esperientziatik abiatuz, makrokartzetako kudeaketa astunagoa eta geldoagoa dela esan dezaket. Presoak erabakiguneak urrunago sentitzen ditu, eta, beraz, eguneroko bizitzan horrek eragin nabarmena du, gehienetan txarrerako.

Espetxean, oro har, edozein eskari egiteko bidea idatzizkoa da, instantzien bidez. Bada, makrokartzela eredu tipo horietan, instantziak erantzuna izateko eta presoarengana bueltan iristeko egiten duen bidea askoz luzeagoa omen da, denbora handiagoa hartzen baitu.

Araceli Aguilarrek (2020) eta Melissa Lugok (2016) *antolakuntza-klimaz* hitz egiten dute, eta bertan instituzioaren ezaugarriak aintzat hartzea proposatzen dute, horrek preso eta kartzelarien portaeran eragina izaten duelako. Horrela, presoak ikusten badu erakundeak egiten duen arauen aplikazioa bereizia edo okerra dela, haren autoritatea ez-zilegitzat jo dezake, eta, beraz, arauak betetzeari utzi (Bottoms, 1999), ondorioz espetxe giroa gaiztotuz.

Presoen testigantzetan, espetxe zaharretan gauzak lortzea eta konpontzea errazagoa dela aipatzen da. Ez bertan malguagoak edo presoarekiko onberagoak direlako, baizik eta presoak autoritatea hurbilago eta eskuragarriagoa duelako. Horrek presoaren frustrazioa, ezinegona, urduritasuna eta espetxearen aurkako jarrera areagotzen du, zalantzarik gabe.

#### 9.6.8. Segurtasuna, ororen gaintik

Aurreko kapituluan landu dugu Estatu Espainoleko espetxe-sistemak nola egin zuen segurtasuna ororen gaintik lehenesten joateko ibilbidea. Horren ondorio eta emaitza da espetxean ez dagoela preso erdigunean, kartzelaria eta espetxe-erakundearen segurtasuna baizik. Arkitektura, beraz, ihesaldiak ekiditera zuzenduta dago eta ez tratamendura (Valverde, 1991). Tratamendura bideratutako espetxe-langile bakoitzeko, ia bost daude zaingora zuzenduta (SPACE 2010)<sup>301</sup>. Tratamendu aldetik egiten den lana, modu boluntarioan lan egiten duten 500 GKeren lanari

---

301 SPACE Europako Kontseiluak espetxeen inguruan kaleratzen dituen informeak dira.

esker egiten da maila handi batean (DGIP<sup>302</sup>, 2011; Gonzalez, 2012); kopuru aldetik espetxeko tratamenduko langileak baino gehiago dira bederen<sup>303</sup>. Amaitzeko, psikologoak maiztasun txikiz hurbiltzen dira preso artera, eta, egiten dutenean, 10 minutu dituzte, batez beste, premia adierazi duen preso bakoitzarekin egoteko (Gallego et. al. 2010).

### 9.7. Azken ideiak

Estatu Espainoleko espetxe-sarean, espetxe-zigorrarekiko alternatiboak izan daitezkeen aukeren kaltetan, zigorra betetzeko eraikinak dira nagusi, espetxe-sistemak birgizarteratzeari beharrean zigortzeari erantzuten diola agerian utziz. Bertako espetxe-sare nagusia, 1990etik gaur arte eraikitako makrokartzelez osatua dago hein handi batean, eta espetxe-langileen segurtasuna eta erosotasuna asetzeko moduko arkitektura da nagusi. Izan ere, ez da presoaren tratamendua, eta ongizatea ez da espetxeko erdigunean dagoena, segurtasuna baizik.

Espetxe-sistema progresiboak presoari askatasunerako bide mailakatua ezartzea dakar, baina pixkanaka birgizarteratzeko gaitasunak eskuratu eta autonomian irabaziz doan ustezko bide-orria, praktikan, eskubideak pribilegio bihurtu eta saria zigorrarekin tartekatzen dituen xantai moduko bat bilakatzen da. Horren ondorioz, bizi-erregimena presoaren arteko desberdintasunak egiteko bidea bihurtzen da. Horren erakusle nagusia da euskal preso politikoak 1. graduan sailkatuta ematea zigor ia osoa, agerian utziz estatuak birgizarteratzerik ez dagoen komunitatetzat duela.

Estatu Espainolean —AEBetan eta Erresuma Batuan ez bezala—, printzipioz ez dago bere osotasunean erregimen itxira bideratutako espetxerik (Puerto I espetxeko preso guztiak 1. graduan dauden arren, ohiko espetxe baten azpiegitura du), baina bizimodu hori definitzen duten ezaugarriak betetzen dira. Araceli Aguilarren arabera (2019), ondokoak dira ezaugarriok: 1. Beste presoak bizi diren gunetatik isolatuta egotea. 2. Preso eta atezainen arteko kontaktua eta hartu-emana ekiditen da; horretarako, presoaren mugimenduak zeharo mugatzen dituzte, are gehiago teknologia berrien laguntzaz. 3. Bertako presoak portaera apurtzailea izatearren daude hor, dela espetxe barruan, dela espetxeratu aurretik egindako lege-hauste motagatik. Zernahi gisaz, espetxeko administrazioaren esku dago sailkapen hori, eta ez epailearen esku.

Aurreko kapituluan ikusi dugun moduan, preso politikoei makurtzeko, damutzeko, zigortzeko eta mendeku hartzeko, espetxe mota ezartzen zaie, eta, horregatik, bizimodu itxiko moduluen eta txopanoen biztanle izan dira. Emakumezkoen\* kasuan, eraldatzeko helburua gehitu behar diogu; beste emakume\* presoekin egindako ikerketetan ikusi izan den moduan, politikoentzako ere espetxea, genero-ikuspegitik, diskriminatzailea bihurtzen delako, baita generoa berregiteko (g)une ere. Hala ere, generoa berregiteko saiakera hori, preso politikoen

---

302 Direccion General de Instituciones Penitenciarias.

303 Liger Lasaren arabera, «espetxe barruko jarduerak noizbehinkakoak eta puntualak dira. Bitarteko gutxi, plaza urriak eta erabilgarritasun eskasa izaten dute. Eta, batzuetan, administrazioaren kudeaketagatik baino gehiago hirugarren pertsona edo erakunde independenteen borondatez ateratzen dira aurrera». (Liger, 2002:92).

kasuan kontuan hartu beharreko beste ezaugarriekin gurutzatzen da, eta, hurrengo kapituluan ikusiko dugun moduan, emaitza ezberdinak eragiten ditu.



## 10. KAPITULUA

### **Espetxea askotariko harreman-eremu eta espetxea bizitzeko denbora gisa**

«Espetxea, araututakoaren espazioa da. Etengabe zaindutako eta behatutako espazioa, pertsonak eskura izateko eta kalteberatasun-harreman baten mende jartzeko aukera ematen duena»

**Nari eta Fabre, (2000:26)**

«Isolamendua elkar ezagutzen ez duten, sarrian antzekoak ez diren eta mesfidantza sortzen duten beste emakume batzuekiko bizikidetzak konpulsiboekin osagarritzen da.»

**Nari eta Fabre (2000:40).**

#### **10.1. Sarrera**

Ikusi dugu espetxe-egiturak, bere erregimen, arautegi eta langilegoaren bidez, izugarritzko eragina duela presoaren egunerokoan. Ikusi dugu emakume\* izateak eta preso politiko izateak espetxealdia zeharo ezaugarritzen duela. Ikusi dugu espetxeak modu formal eta ez-formalean ezarritako egunerokoak izugarritzko eragina duela. Atal honetan, gure protagonisten esperientzia eta bizipenetan jarriko dugu arreta, preso, politiko eta emakume\* izatearen bidegurutzea nola bizi zuten ezagutzeko. Nazioartean eremu hori oso emankorra izan da ikerketa aldetik, bereziki, Hego Konoko diktadurei dagokionez.; Hilary Hinner-ek (2015) eta Jorge Montalegrek (2009) Txilez egindakoak; Ana Guglielmuccik (2007), Santiago Garañok, (2010), Debora D'Antoniok, (2011) eta Rocio Ceballosek (2023) Argentinako espetxe politikoaz egindakoak; eta, amaitzeko, Graciela Jorgek (1970), Nibia Díazek (2010) eta Josefina Licitrak (2020) Uruguai egindakoak. Europari dagokionez, Aretxagak Ipar Irlandaz eta Margrit Schilleerrek Alemaniak egindakoak azpimarratuko ditut. Landu dituzten gaiak asko izan dira; besteak beste, emakumeek\* erabili zituzten borroka-moldeak, haien arteko komunikazio-sistemak, borroka- eta espetxe-kideen arteko harremanak, estatuaren errepresio-molde berrien azterketa, estatuak emakumeen\* espetxez egindako erabilerak, bizirauteko estrategiak, ihesaldi irudikatuak eta fisikoak. Lan batzuk biografiak dira, beste batzuk ikerketak, eta badaude gertaera zehatzen kontaketa mugatzen direnak ere.

Lan honen kasuan, espazioa, denbora eta ibilbideari begiratuko diet, eta, hala, hiru atal nagusi izango ditu kapituluak: Lehenengoan, harreman-espazioari egingo diet leku, eta euskal emakume\* preso politikoaren harreman-unibertsoa ezagutzera hurbilduko gara. Ondoren, espetxe-

garaiak haien bizitzan hartu zuen tokia edo, hobe esanda, haien biografian birkokatzeko modua aztertzeari ekingo diot. Azken ideia gisa, ondorioetan sartu aurretik, espetxealdia ibilbide bat balitz bezala aztertuko dut, bere hasiera- eta igarotze-errituekin, bere mugarriekin eta inoiz amaitzen ez diren bukaerekin; alegia, espetxealdi batean espetxe-egiturak ezartzen dituen halabeharrezko uneak landuko ditut. Modu horretan, hobeto ezagutuko dugu, emakume euskaldun preso politikoez garai historiko horretan espetxe politikoa nola bizi zuten.

## 10.2. Bizi-harremanak: sailkapenak, errepresentazioak eta identitateak

Espetxean, kalean bezala, harremanen unibertsoa askotarikoa da, nahiz eta, bistan denez, kalean baino murriztagoa izan. Sailkapenen bat egitea lagungarria izan daiteke azalpenak hobeto jarraitzeko. Nire kasuan, ondoko beste presoekiko, parekoekiko, espetxe-langileekiko, kalekoekiko eta norberaren buruarekiko harremanez arituko naiz, preso politikoen bizitzan garrantzi handiena hartzen zuten eguneroko harremanak direlakoan, baina baita espetxe-egiturak sortu eta baldintzatzen dituzten harremanak direlako ere.

Harreman horietako bakoitzak badu ezaugarritzen zuen leku, ulerkera edo lotzen zaion tresnaren bat. Zehazki, espazioak harremanen arabera sailkatu behar izanez gero, edo harremanak espazioaren arabera, ondokoa litzateke emaitza: presoaren arteko harremanen lekua *patioa* litzateke; kideen artekoena, *etxea*; espetxe-funtzionarioekin izandakoa, *aurkaritza* eta *etsaitasunaren* arteko *continuuma*; kalekoekin, *gutuneria*; eta norbere buruarekin, *ziega*.

Hala ere, argitu nahi dut, ezertan jarraitu aurretik, pentsaezina dela preso politikoa izan edo preso politikoen kategorian kokatzeko modu bakarra egon dela baieztatzea. Preso politiko izatearen esanahiak denboran zehar aldatu dira, eta horretan eragina izan dute besteen atribuzioek zein autoatribuzioek. Dialektika horren unean uneko emaitzak definitu ditu preso politiko gisa jarduteko moldeak. Beraz, testuinguru politiko eta antolakuntzakoak eragin handia zeukan moduan eragin zuen bakoitzak horrekin jokatu izan zuen formak. Hori dela eta, hurrengo lerroetan molde orokor baten itxura har dezaketen harremanak azalduko ditut, *presobelaunaldi politiko* bati dagokiona baina baita horien baitako ñabardurak ere. Horrek esan nahi du emakume\* preso politikoen elkarrekiko homogeneizatzatuta aurkeztea ekidin nahi dudala. Nire helburua da testuinguruak eta espetxe egiturak harremanetarako ezartzen zizkien baldintza eta posizioak erakustea. Izan ere, haien esanak adituta, presoaren arteko bi belaunaldi politikoren arteko elkarbizitza-garaia egokitu zitzaizela ikusten da; eta horrek bi aroren eta gauzak egiteko bi moduren arteko elkarbizitza erakutsi digute.

### 10.2.1. Patia: presoaren arteko harremanak

Estatu Espainolean batera bizi diren bi espetxe-ereduetan (dela tradizionalagoan, dela espetxe-tipoan), *patia* da preso guztiek bat egiten duten tokia eta hartu-emanak garatzen direna.

Halaber, patioak leku fisikoa gaintzen duen esanahia hartzen du kartzelan. Esate baterako, preso batek eskarmentu handia duela esateko, «tiene mucho patio» esaera erabiltzen da; presoen arteko giroari erreferentzia egiteko honela esaten den era berean: «Granadako patioa gogorra da». Hurrengo paragrafoetan, aztergai dugun garaian preso politikoek beste presoekiko zituzten harremanak xehatuko ditut, beti ere kontutan izanda beste presoekin bizitzeko baldintzak ez direla berdinak izan (batzuetan, ordu gutxi partekatu dira; besteetan, 1. graduko presoekin egon dira/gara eta horrek preso profil oso espezifikoa dakar).

Espetxean, «las políticas» ginen. Tarteka, beste euskal herritar batzuentzat, «las neskas», eta beste batzuentzat, «las etarras» edo «las vascas»; izan ere, ez ginen preso politiko bakarrak, nahiz eta kuantitatiboki Grapokoak edo anarkistak baino askoz gehiago izan. Guretzat, beste presoak «sozialak» edo «arruntak» ziren. «Arrunta» izendapena preso komunaren euskaratze soila da, baina «soziala» adierak kutsu politikoagoa du; zehazki, 70eko hamarkadan preso politikoak ez zirenek egindako borrokan beren burua preso sozialtzat autodefinitu baitzuten. Eta, nahiz eta 90-2000an espetxeratutakoek borroka eta presoen autoantolakuntza-maila horiek<sup>304</sup> ez zituzten-genituen ezagutu, ziur aski EPPK-ko hiztegian eta argot propioan geratzen diren eta heredatzen diren arrastoetako bat izango da hori ere. Dena dela, ideologikoki autoizendapen politiko horrekin bat egin arren, «arrunta» berba zen gailentzen zena.

Harremanek preso-profilarekin zerikusi handia dute/zuten. Maria Jesus Mirandak dio (2002) hiru profil daudela: droga-menpekoak, atzerritarrak eta ijitoak. Nago hori baino zabalagoa eta heterogenoagoa ere bazela/badela preso sozialen unibertsoa, baita aldakorra eta kulturalki kokatua ere. Esate baterako, Mirandak eta datu ofizialek berresten duten moduan, aztergai dugun aroan Estatu Espainoletik kanpoko jatorria zutenen portzentajea % 20 zen<sup>305</sup>, eta egun % 28 da. Ijito herriaren gainordezkapena, lehen eta orain, handia da/zen, baita haien eragina espetxe-kulturan zein argotean.

Estatu Espainoleko geografia, halaber, kultura ezberdinez josita dago; esate baterako, ez dira berdinak Mediterraneo aldeko herriak edo Galizia; hortaz, espetxearen kokapenaren arabera, bertako herrikideek osatuko dute preso sozialen multzo zabalena, eta hori izugarri antzemango da, herrialde bakoitzak bere ezaugarri espezifikoak dituelako, noski.

304 Estatu Espainoleko Trantsizioan - Coordinadora de Presos Españoles en Lucha -COPEL-en antolatu ziren presoen aldarrikapenetatik sortua. Gehiago jakiteko: Oliver eta Lorenzo (2019)

305 2001. urtean, Estatuko presoen % 10 emakumeak ziren, Europako emakume presoen protzentaia %3-4 zen bitartean. Estatuko emakume presoen % 20 atzerritarrak ziren (Flaquer et al., 2001) eta garai bereko datuen erabera % 25 eta % 30 bitartean ijitoak ziren, eta zifra hori 20 aldiz baino gehiago da gizartean. Tratamendu diferentzialak agerian uzten du pertsona atzerritarrak prebentziozko presoen % 45 direla, eta maiztasun txikiagoarekin baliatzen dituztela Espainiako nazionalitatea duten pertsonen baino neurri penal alternatiboak. Gehiago jakiteko: <https://vientosur.info/estado-espanol-migrantes-y-prisiones/> eta: Manuel L. Ruiz-Morales (2018). La evolución de la población reclusa española en los últimos treinta años: una explicación integral. En *Anuario de derecho penal y ciencias penales*, ISSN 0210-3001, Tomo 71, Fasc/Mes 1, 2018, 403-490.

Garaian garai eta lekuan leku, ikasketa-maila, adina eta delitu motak ere ez dira berberak izango. Hala ere, badira gailentzen diren ezaugarri batzuk; besteak beste, pobrezia, ikasketa-maila apala, droga-kontsumo edo -trafikoarekin lotutako delituak. Emakumeen\* kasuan, azpimarragarria da asko eta asko biolentzia-egoera ezberdinak pairatuta iristen direla espetxera, tartean baita indarkeria matxista ere. Oro har, datuen arabera, emakumeen\* % 70 banatuta, dibortziatuta edo alargun dago, eta batez beste bi ume dituzte haien ardurapean.

1. graduan (lehen zein bigarren fasean) sailkatutako presoak gutxi dira Estatu Espainolean, eta horien gehiengoa preso politikoak ziren<sup>306</sup>. Bada, gehiengoa biziraule hutsak ziren, bazterketa sozialak, analfabetismoak, matxismo-arrazismoak eta klasismoak jotakoak; osasun faltak eta drogomenpekotasunak zeharo kolpatutako pertsonak. Horietako askorekin elkarrizketa bat izatea bera ere ia ezinezkoa bihurtzen zen. Espazioan eta denboran kokatzeko ahalmenik ez zuten pertsonen ari gara (geografikoki non zeuden, erlojuan ordua irakurtzen, egutegian eguna kokatzen ez zekiten pertsonen ari gara). Droga-menpekotasunak dakarren deshumanizazioak jota, arazo kognitiboak, burukoak eta portaerazkoak zituztenak; Gaixo, eta kaleko babes oso gutxiarekin. Pribilegiatuenean telebista bat izateko aukera zuten, eta gustuko medikazioa; beraz, marrazki bizidunak ikusiz eta pilulek eragindako lozorroan igaro zezaketen ia egun osoa.

Euskal preso politikoekiko aurreiritziak, ezagutza eta kokapenak jatorriarekin zerikusia du. Estatu Espainoleko jatorrizko presoen iritziak kaletik zetozen; harantzagotik zatozen presoenak, ordea, ez (salbuespenak salbuespen). Esan beharrik ez dago erabat mediatizatutako iritziak zirela, baina haien komunitatean espetxearen presentzia handia eta aspaldikoa zen kasuetan (ijitoenean, esate baterako), lagun-senide edo auzokideen elkarbizitza-esperientzietan ere oinarritzen ziren haien aurreiritziak; azken finean Espainiako espetxeetan preso politikoaren arrastoa luzea baita oso.

Horrekin batera, preso bakoitzak bere ideologia dauka, Estatu Espainolekoa izan edo Latinoamerikatik etorri, eskubiko pentsaerari lotuta zeudenak ez zuten preso politikoekin afinitate gehiegi. Hala ere, patio bakoitzak bere egoera zehatza du/zuen, eta preso bakoitzak han nola aurrera egin aztertu beharra du/zuen, bizirauteko; beraz, interesen arabera kalean aurrez aurre izan genezakeen pertsona-profil batzuk espetxean politikoetatik gertuago zeuden: narkotrafikatzaileak edo klase altuko preso bakan horiek (delitu ekonomikoengatik espetxeratutakoak). Horiekiko distantzia, egotekotan, preso politikoaren aldetik zetorren. Hala ere, patio batean, elkarmenpekotasuna oso agerikoa da, eta nahitanahiez, gehiago edo gutxiago, ia denekin egongo da trukeren bat, txikia bada ere.

---

306 Estatu espainoleko barne ministeritzak bere web orrialdean dituen urtekari estadistikoak aztertuta, aztergai dugun garaian batazbeste 70 emakume zeuden lehen graduan sailkatuta. 2000 eta 2005 urteen artean. Urte tarte berdinean 107 bat euskal emakume preso politiko zeuden, eta aro historiko honetan lehen gradua ezartzen zitzairen gehiengoei.

Batzuetan, preso sozialek politikoeikiko esango dute espetxeak modu gogorragoan tratatzen dituela; besteetan, aldiz, pribilegiatu batzuk direla<sup>307</sup>. Beraz, miresmena, inbidia, morboa, errespetu handia, amorrua, beharra-interesa eta gorrotoa moduko sentimenduak dira beste presoengan antzematen zirenak. Modu batera zein bestera, azpiratutako egoera batetik egindako balorazioak izango dira gehienetan (ez beti, noski), ukaezina baita ikasketa-maila, osasun-egoera eta kanpo-babesa ardatz hartuta, preso politikoeikiko azpi-egoeran kokatzen zirela preso asko eta asko, Maria Ruizek (2016) ere nabarmendu zuen moduan.

Preso politikoeik ere beste presoengatik inguruko kontakizunak jasoko dituzte herentzia gisa, eta haien zigorrea zehar baieztatu edo ezeztatuko dituzte/zituzten. Modu horretan, bakoitza bere irizpide propioa osatuz joango zen, eta bere kokapen partikularra landuko zuen. Kasu gehienetan, halabeharrez eta gizarte-kokapenak berak aginduta, nolabaiteko hierarkiak markatutako harremanak izango dira. Asimetria horrek denetarikoko egoerak eragin zituen: elkartasuna, barre-algarak eta mesfidantzak. Gizarte-bazterketak eta hezkuntza-maila apalak eragindako analfabetismo eta ezagutza-faltak zekarren kokapen anibalentea azpimarratu nahi dut. Horrelako bereizkeriak eragiten zituen gizartearekiko herra, ezjakintasunak dakarren mundu eta lengoia mugatuak eragindako barrearekin nahasten zen. Azken hori, batez ere, umorean antzemango da, ezagutza-faltak sortutako egoera xelebreek asko elikatu baitute preso politikoen arteko egunerokoa. Baina beti diskrezioz eta haiei aurpegiratu gabe. Horrek ez du esan nahi, pobrezia erromantizatu eta gaitzotutako giroak ikusteko zailtasunak zituzten preso politikoeik ez zeudenik. Arrazakeriari dagokionez, ezin esan preso politiko izanagatik euskaldunen ijitofobia desagertzen zenik, eta Estatu Espainoletik kanpoko presoekiko hegoalde globaleko herritarrekiko kultura kolonialaren nahi gabeko zantzuak nabarmenduko dira noizean behin, mesfidantza eta paternalismo forman.

Oso gutxitan jazoko da biolentziazko egoera bat, eta, suertatuz gero, euskal preso politikoeikiko jarrera oldarkorrek izateagatik izango da. Hirigune handietatik zetozen preso politikoeientzat ez ziren horren egoera berriak izango, baina herri txiki eta nekazal guneetatik etorritakoentzako, aldiz, bai. Esate baterako, batzuentzat lehen aldia izango zen beste pertsona batekin borrokatu eta haien burua elkar jo beharrean ikusi zutena. Horrela, hiriguneetako presoek besteei aho-hizkeran zein gorputz-hizkeran biolentzia erabiltzen erakutsi behar izan diete.

Elkarbizitza zaila suertatzen zen bereziki droga-menpekotasunak jotakoekin. Aztergai dugun sasoia ez zen 80koa bezain gogorra izan heroinari eta GIBari dagokionez (Losada, 2022), baina horrek ez du esan nahi droga-menpekotasunak eraginik ez zuenik moduluko egunerokoan. Jakina da menpekoak bere dosia eta berau eskuratzeko dirua dituela ipar-muga bakar; hortaz, haserrealdiak, gatazkak, borrokak, engainuak eta krispazioa nagusitu ohi dira/ziren. Gatazka ekonomikoen egun

---

307 Preso politikoeik pribilegiatuak direla dioten mezua, espetxe langileen aldetik erabili izan den argudioa ere bada.

kuttuna pekulioa<sup>308</sup> kobratzeko eguna zen, astean behin. Eta ezinegona agerikoa egiten zen tokia, ordea, ekonomatoko ilara. Elkarrekiko zorpetze-dinamikek eztanda hortxe eta, bereziki, orduantxe egiten baitzuten. Dagoeneko aipatu dudanez, espetxean dirurik ez dagoenez, tabakoak eta telefono-txartelek hartzen zuten diruaren funtzioa. Drogei dagokienez, batzuk kalekoak dira (kokaina, heroina, hatxisa) eta besteak barrukoak (metadona, pilula psikiatrikoak, lo egitekoak eta abar). Horiek guztiak saldu eta erosi egiten dira, etengabe. Nago droga gatazka-arrazoiz izan arren, baretze-bide ere badela, zaila egiten baita metadona, lorazepam, fluoxetina (Prozac™) eta olanzapina (Zyprexa™) gabeko emakumeen\* espetxea imajinatzea. Modu batera edo bestera, horrek guztiak bazuen preso politikoengan eragina, maiz giroa gaiztotzen zuelako, eta horrek berak zuzenean bizi-baldintzetan eragiten zuelako, baina zorpetze-liskarrak ez ziren ia inoiz preso politikoekin.

Bai, aldiz, zarata dela-eta sortutako liskarrak. Gailuen bolumena eta ordutegiaren inguruan hika-mika bat baino gehiago sortzen ziren; gehienetan, siesta-ordua ez errespetatzeagatik, edo bost irrati-kasete batera jarrita egoteak zekarren burrunba jasanezina zela medio. Telefono-ilaran ere tentsio-uneak gertatzen ziren, preso asko, telefono bakarra eta deiak egiteko ordutegi murrizta izateak dakarrena.

Politikoei ere bazituzten beren truke-sistemak preso sozialekin, baina ez zen arazo handirik sortzen horrelakoetan. Gehienetan, jogurtak, fruta, arropa, gosariko opil eta marmeladak eskuratzeko sare eta trukeak ziren. Modu batera zein bestera, preso politiko eta beste presoekin arteko harremanetatik nabarmentzen ziren bi ezaugarri komun nagusiak elkartasuna eta politikoei besteekiko gordetzen zuten/genuen distantzia modukoa zen.

Elkartasuna, batez ere, politikoen arteko harreman-zirkuituetan garatu arren, preso sozialekiko ere franko landu zuten/genuen. Gehienetan, preso gisa zituzten eskubideen berri emanez, salaketa edo errekursoak idatziz/irakurriz, haien arazoak entzunez eta abarrez. Beraz, haiek espetxearekin sortutako gatazka edo talka handietan baino, eguneroko aholku-ematearekin, entzute aktiboa egitearekin eta epaitegi edo espetxera zuzendutako idatziekin zuen zerikusia. Preso politikoak sozialen artean bakarrik egon izan diren garaietan, preso sozialen premia horiek guztiek ito egin izan dituzte:

Azkenean, beste presoekin beharretara geunden: rekursu, permiso eta abar. Hori ere militantziaz bizi genuen, ahal den guztia laguntzea, injustizia guzti horien aurrean, ba laguntzea kartzelaren aurka egiten. Baina klaro, azkenean zure beharrak aparkatzen zoaz. **Lua**

Espetxeak preso politikoei ezartzen zizkien/zizkigun zigor berezituak eta jazarpenak begi-bistakoak ziren heinean, zenbait kasutan preso sozialek bidegabetzat jotzen zituztenez, horren

---

308 Pekulio, presoak astean behin bere kontutik dirua hartzeko duen aukera edo kopuruari deritzo. Gehieneko kopuru bat ezartzen zaio; aztergai dugun garaian 60 eta 75 euro artekoa zen. Diru horrekin, kafeak, tabakoa, telefonoa, tanpoiak, txokolata, atun-latak eta horrelakoak erosi ahal zituen presoak, bertako denda edo ekonomatoan.

aurka zerbait egiteko gogoia adierazi izan dute/zuten. Araketa bortitz eta bat-bateko horiez mintzo da **Lur**, adibidez:

Klaro, gauza horiek preso sozialak ikusi ikusten zituzten, baina nekez baloratzen zuten haiek ere gurekin gertatzen zena. Gu saiatu izan gara haiek ere errealtate horretatik aparte mantentzen, ze inplikatzeko baziren gurekin, kartzelako zigorra jasoko zutela bagenekien, bereziki gure aurkako giroa oso gaiztotuta egon den garaietan. **Lur**

Aparte mantendu nahi izate horrek preso sozial eta politikoen arteko harremaneko bigarren ezaugarri nagusira garamatza: distantziara. Urrun mantentze hori izaera politikoaren identitatea berregiteko lanei lotuta zegoen, baina baita segurtasunari eta biziraupenari ere. Lehenengoari dagokionez, frankismoko emakume\* preso politikoen oso antzeko dinamikak aurkitzen ditugu. Azken diktaduraren garaian, emakumeek\*, gizonak ez bezala, preso sozialekin partekatzen zuten espetxealdia; azken horiekin batera jartzeak haien izaera politikoa ukatzeko modutzat zeukaten (Núñez-Díaz, 2004). Hori dela-eta, elkarbizitza hura izaera politikoaren baieztapen-praktikak ezaugarritzen zuen, eta horrek desberdintze-nahia zekarren. Bi hitzetan: frankismoan, Espetxe Erakundearekiko —eta, beraz, gatazkan zeuden estatuarekiko— nortasun politikoa aldarrikatzeko helburuz aritu ziren preso politikoak, eta, horretarako, eguneroko praktika txikiak bilakatzen ziren bitarteko (Yusta, 2005).

Estatu Espainoleko preso politiko garaikideen kasuan, antzeko zerbait baieztatu dezakegu. Bizirautea ipar izanik, preso politikoek bereziki haien artean antolatuta zituzten elkartasun-dinamikak, eta haien artean elikatu zituzten izaera politikoari arnas ematen zioten jarduerak (hurrengo kapituluan ikusiko dugu). Horrek, praktikan, preso sozialekiko urrutze, aldentze edo bereizte modukoa zekarren; baina, frankismoan bezala, horren hartzailea estatua zen, eta ez horrenbeste beste presoak. Are gehiago, arestian ikusi dugun moduan, preso politikoek, batzuetan, preso sozialak ez zipriztintzeko ahalegina egiten zuten, estatuarekin eta espetxe-sistemarekin zeukaten tentsioak eta talkek eragindako biolentziatik babestuz.

Duela mende erdi baino gehiago espetxeak bete zituzten preso politiko horiekiko beste antzekotasunik ere bada gaur egungo preso politikoetan. Zenbait testigantzen eta ikerketaren arabera, orduko emakume\* preso politiko eta sozialen arteko elkarbizitza kuriositateak eta zentsura moralak ezaugarritu zuten. Zentsura moralak, batez ere, sexu-langileekiko zela nabarmendu dute ikerlariek (Vynes, 2002, Osborne, 2009b), nahiz eta, gerora, preso politiko batzuei, espetxetik irten ostean, biziraungo bazuten, lan hori egitea baino ez zitzaientz geratu. Espetxe-politika garaikidean ere, beste presoekiko harremana, mundu ezezagunak ezagutzeko bide izan zen; esate baterako, Madrilgo txabola-herrien<sup>309</sup> egunerokoa, emakumeen\* salerosketa pairatu duten afrikarren jazarpen mota

309 Las Barranquillas, geroago La Cañada Real eta El Gallinero moduko txabola-herri zabal eta jendetsuez ari naiz. 2000ko hamarkadan, Madril inguruko txabola-herriak Europako handienak zirela esaten zuten komunikabideek. Ikus gehiago: Alonso, Ó. F. (2005). Evolución reciente del fenómeno chabolista: El nuevo chabolismo madrilen. *La ciudad y el miedo, VII Coloquio de Geografía Urbana, Barcelona*.

edo «mula»<sup>310</sup> lanak ezagutuaz. Arrazakeria, bazterketa soziala eta sexu-jazarpenaren testigantzak eta bizi-istorioak barra-barra entzun zituzten/genituen. Eta horrek jazarpenaren mundu-mailako dimentsioa eta sakontasun kualitatiboa ekarri zien/zigun haien/gure kontzientziara.

Claro, nosotras no venimos de ese mundo. Nosotros podemos tener una panda de delincuentes o lo que sea, pero no venimos de ese mundo, que existe, que es reflejo de la cárcel. Podemos vivir en barrios chungos, podemos vivir en barrios pobres, o obreros, pero no venimos de la purísima marginalidad. No hemos salido de las barriadas, del chabolismo, de ese mundo tan *gore* que es. Es un mundo totalmente especial, diferente, con su propia jerga, su propio funcionamiento, sus propias leyes, etc, que nosotros desconocemos. **Lola**

Hala ere, bazeuden deitoragarritzat joko zituzten/genituen portaerak ere: berbakoak ez izatea, kideari lapurtzea, ondokoarekin lehiatzea eta Espetxe Erakundearen alde jokatzeko (informazioa pasatuz, adibidez). Maila horretan, gogor epaitzen zituzten/genituen, dela haien/gure artean kritikatu, dela mesederik ez eginez. Azken hori baliagarria zait distantziaren beste arrazoia aztertzeko: segurtasuna.

Preso politikoak beste presoen arteko liskar, iruzur, interes-truke eta abarretatik urrun mantentzen saiatzen ziren/ginen, arazoak ekidite aldera. Manipulatuak edo erabiliak ez izateko alerta guztiak puri-purian zituzten/genituen. Kartzelak preso sozialen bat erabil zezakeen politikoen aurka joateko, edo, besterik gabe, norberaren ongizatea arriskuan ipin zezaketen dinamiketarik aldentzeko saiakera indibidual eta kolektiboa egiten zen; espetxetik bizirik eta onik ateratzea helburu kolektiboa zelako. Horrek ez du esan nahi harreman esturik sortu ez zenik; alegia, elkartasunaz gain, laguntasuna, beste maitasun mota batzuk eta sexualitatea presente egon ez zirenik hartu-eman horietan. Lurrek, muturreko egoera batean, 2003ko martxoaren 11ko testuinguruan bizitako elkartasun- eta laguntasun-keinu honen berri eman digu:

Eta oso polita izan zen, ze gurekin ibiltzen ziren bi, una de Zaragoza, la otra de Bermeo, eta gero beste bi colombiana jarri ziren atean: babesteko guri, zerbait behar dezute... lasai egon... beste gitanari esaten: luego le irás pidiendo cuando necesites y ahora... Ez dakit, izan zan oso polita, ze konturatzen zera ba bitu, beraiek ere... no se amedrentaron. Ze guk badakigu nortzuk garen, gaude kolektibo baten barruan, baina beraiek ere posizionatzea izan zan... niri emozionatu egin zidan. Pues, benetazko lagunak, ez? A las buenas y a las maduras. Ez dizutela... ze hor badaude asko que dijoaz de amigas eta gero a la mínima puñalada traperera ematen dizutela... hori holan da. Badakigu zelan diran espetxeko harremanak, por el interes te quiero Andrés. Baina hauek demostratu zuten hor egon zirala. Oso polita. Gero okerrena izan zan, no, ya se ha aclarado todo y ya podeis salir: eta polita izan zen ere bai... guri gosaria eta gero jeitsi ziguten, eta denak ay que bajan eta lagunak etorri ziran besarkada ematera... ta gero jendea txalotzen: eh, venga, que estamos con vosotras. Y las dos putas que nos amenazaban eta... ay perdona. Ta guk: ni perdona ni nada, no te vuelvas a arrimar a esta mesa en lo que te queda de condena, ni pasar por al lado. Las que ni dijeron ni hicieron nada pues txalotzen. Ez dakit, halako momentuak ere oso intensoak egiten dira hor barruan, adibidez. **Lur**

---

310 Abioiez, haien gorputzean edo gauzetan droga ezkutatuta dakarten emakumeak, gehienetan latinoamerikako herrialdeetatik eta herrialdeetakoak.



Hala ere, harreman horiek ez ziren beti denboran oso iraunkorrak izaten, eta ahal den eta diskretuena izatea ere komeni izaten zen. Sarri askotan, preso sozialen eta politikoen arteko zubiak desegiteko asmoz —eta, beraz, EPPK-ko kideak isolatzeko helburuz—, preso horiek mehatxatu egiten zituzten espetxe-langileek, eta, mehatxuak eraginkorrak suertatzen ez zirenean, zigortu ere egiten zituzten, dela espetxe-aldaketa batekin, dela komunikazioen interbentzioa ezarriz, dela enplegua galaraziz. Ondoren Sarak aipatzen duena egoera horietako bat da:

Ez zuena ondo eraman kartzela izan zen, hilabete batzuetara *kundatu*<sup>311</sup> zuten, eta hor ni haserretu nintzen, ze lana zeukan eta gurekin zebilenetik super zentratua zegoen, gainera *trantsizioa*<sup>312</sup> egin nahi zuen (...) Eta derrepente kundatu zuten eta... la líe. Esan nien funtzionarioei «nahi baduzue izorratu ni, kundatu ni, no le destrócéis la vida a una persona jada zentratua zegoena. Sois una panda de hijos de puta». **Sara**

Beraz, preso politiko eta sozialen arteko harremanetan, Espetxe Erakundeak ere esku hartu zuen. Preso sozialak preso politikoen aurka ipintzeko saiakerak laguntasunak ekiditetik presoak jipoitzaizainokoa izan da. Aztergai dugun garaian, 2003ko Madrilgo martxoaren 11ko gertaera larriak preso sozialak politikoen aurka joateko erabili zituen espetxeak. Emakumeen\* espetxeetan gertatu ziren jipoiak espetxeak hauspotu zituela agerian uzten dute testigantzek. Besteak beste, Alcalá Mecon, ondoko moduluko atea ireki zituzten, preso andana politikoengana erasora joateko; Villenan, moduluko argiak itzali zituzten garitatik; eta Avilan, jipoia garita aurrean izan zen... Espetxe Erakundearen esku-hartze horrek ere preso sozialekiko harremanak prebentzio-, tentu- eta mesfidantza-sare batek bilduta bizitzea zekarren.

Laburbilduz, segurtasun-distantzia batetik elkartasuna, baina, tarteka, gatazkak jotako elkarbizitza garatu zuten preso sozialekin. Azpimarragarriena da ezen, frankismoko emakume\* preso politikoeekin bezala, estatuaren estrategia preso politikoa preso arrunt gisa asimilatzea zenez gero, haien izaera-identitate politikoa eraiki eta adierazteko lanak egiten zituztela, funtsean haien arrazoi eta ekintza kolektiboa despolitizatzeke estatu-estrategiari aurre egiteko modu bezala. Erresistentzia eta berrespen gisa, inoiz ahaztu gabe preso sozialekiko harremanak Espetxe Erakundeak eta, beraz, estatuak bere estrategian erabil zezakeen elementuak zirela. Ondorioz, bestearen ukazioan baino haien berrespenean oinarritutako hartu-emanak garatu zituzten/genituen, eta, bide horretan, asko ikasi zuten/genuen preso sozialen eskutik.

### 10.2.2. Etxea: kideen arteko harremanak

Preso politikoen multzoa ere ez zen homogenea, ikasketa-mailari edo interesei, jatorriari, sexualitateari, hizkuntzari, militantziaguneari edo motari<sup>313</sup>, eskarmentuari eta egoera ekonomiko-

311 *Kunda* espetxe batetik besterako bidaia eta leku-aldaketari deritzo espetxe-lengoaian.

312 Sexu-trantsizioaz ari da. Elkarrizketako beste une batean azalpen osoa ematen du.

313 Aro horretan, ETAkoak ez ziren presoak gero eta gehiago ziren. Kale borrokan parte hartzeagatik edo antolakunde politikoren bateko partaidetzagatik espetxeratutakoak alegia.

familiarrari dagokionez. Nortasuna ere bakoitzak berea, noski. Berdintzen zituena, 20 eta 40 bitarteko adin-bueltan egotea eta motibazio politikoa ziren. Oro har, konfiantza, elkartasuna, elkarrekikotasuna, babesa, errespetua, onarpena eta aitortza zuten harremanak ziren. Hortik aurrera, batzuekin laguntasun edo harreman sexo-afektibo handia eraiki zitekeen, ala kontrakoa, hika-mikak edo ezin-ikusiak garatu. Kasu honetan, *etxea* deitu diet harreman horiei, lotura kultural eta ideologiko sendoan oinarritzen zirelako, proiektu —mugimendu— kolektibo politiko berbera partekatzeak dakarren lotura sendoak ezaugarritzen zituelako; zeresanik ez, gainera deserrian egonez gero, , ingurune arrotz eta aurkarian. Bell Hooksek, *etxea* biolentzia iturri izan daitekeela ukatu gabe, arrazismoaren kasuan, kanpoko gogortasun horrekiko babesgune ere badela esan zuen moduan. Hortaz, kontraesanak kontraesan, babes hartzeko eta haien burua maila askotan berregiteko gunea zen kideartekoa:

Nire aitak 20 minututan esan zizkidan hitz bakarrak izan ziren: «Orain barruan daudenak zure familia dira, egiezu kasu, mimatu itzazu, utzi zaitez maitatzen eta... gu orain zure bigarren familia gera, beraiek dira gaur egun zure lehen familia». Horiek izan ziren hitz bakarrak eta oso intenso sartu zitzaizkidanak. Porque benetan horrela sentitu nintzan espetxean, *etxera* iristen nintzala. *Etxera*. Tristea dala gero kanpotik begiratuta, baina espetxera iristen zarenean da *etxera* iristea bezela. **Lur**

Lurren berbak, komisaldegiko tortura-esperientzien ostekoak dira, eta litekeena da horrek sentimendu hori biziagotzea. Hala ere, kartzela-egoera ere bada muga-egoera etengabea, eta behin baino gehiagotan ageri da EPPK-k eta bertako kideek etxetzat izan dituztela. Erresistentzian eta estatuaren jo-puntuak egoteak dakarren elkarrekiko lotura estua zen EPPK-ko emakumeen\* artekoa, beraz. Zalantza eta kezken aurrean, beste euskal presoak erreferentzia nagusia izango ziren. Inoiz ikusi gabekoarekin konfiantza handia eta berehalakoa sortuko zen, ezagutu beharrik gabe haren eskuetan ondo egongo garela sentitzeraino. Miriam Campos preso ohiak, 2022ko azaroan argitaratutako aldizkari batean hauxe idatzi zuen:

Gogoan dut garai hartan sarekadak ugariak zirela, eta momentu horretan egiten ari ginenaz oso kontziente ez izan arren, harrera egiteko moduloa antolatzen hasi ginen. Komisaldegian tortura eta tratu txarrak pairatuta, hainbat kide hasi ziren geurera heltzen eta haiek artatzeko beharrian ikusi ginen. Ez dut uste oso ezaguna denik kartzela barruan antolatuta zegoen zaintza-sare hura. Sarekada baten berri izaten genuenean, moduluan ginen kideen artean asanblada antolatzen genuen, sarekada bakoitzean zenbat emakume zeuden ikusi eta, beraz, zenbat egon zitezkeen gure moduluan sartzeaz aurreikusten genuen. Garai hartan bikoiztuta geunden txaboloetan, eta beraz, erabaki behar zen etorri berri bakoitza norekin sartuko zen. Nor zegoen emozionalki prestatuta komisaldegiko infernutik hautsita ailegatuko zen kidea artatzeko. Goxotasuna erabili behar zen, maitasuna eta babesa erakutsi, baina baita kontzienteak ginen garrantzitsua zela jasandako tratuaz hitz egitea, norberaren erritmoan, baina tortura salaketa lehen bait lehen egitea ezinbestekoa zela. Gure sena eta energia osoa jartzen genuen horretan, eta, hortaz, emozionalki ikutuak eta hustuta bukatzen genuen. Ohikoa zen hortik aste gutxitara kide horiek beste kartzela batetara eramatea. Eta gurpil horretan berriro hastea zegokigun: albisteei adi egon, hurrengo sarekada noiz egingo zuten zain, kide berriei harrera eta zaintza zelan antolatuko genuen zain... Zaintza lan hori ez da inoiz aitortua egon. Baina horri esker ere, emakume preso politikoen artean lotura berezi bat sortu izan da, kalean egonda ere irauarazten duena.

Preso politiko izatearen hastapeneko lan-ildoak sartu berriak artatzea, babestea, mimatzea, ulertzea, entzutea, gozatzea eta informatzea izaten da. Eta lan hori goi-mailako zeregin politiko gisa egin eta antolatzen zen emakumeen\* moduluetan.

Horrekin batera, EPPK zertan den, nola antolatzen den, espetxe horretako testuingurua zein den, borrokagai zehatzak eta estatuaren pulsu behinenak zertan ziren jakinarazteko lanak egiten ziren. Sarrera eta harrera politiko-militantea, alegia. Zeregin hori EPPKren antolakuntzaren eta kide berrien hobe beharrez egiten zuten, ezagutzak beren burua defendatzeko tresnak eskaintzen zuelakoan. Sarrera-moduluen ondotik emakumeen\* kasuan, gehienetan, bakartzea inposatzen zenez gero, sarrera-harrera politikorako eremu kuttuna bilakatzen zen lehen hilabete edo urteetako egonaldi hura. Nire landa-laneko koadernoan ere hauxe jaso nuen:

Gaur I-rekin espetxeaz hitz egiten aritu naiz. Badakit berak baduela sentsibiltate berezia horrekiko, horren inguruan hitz egiteko, hausnartzeko eta funtsean memoria eraikitzeke premia neure antzera bizi duela esango neuke. Ez dakit nola konbersazioak Soto Del Realeko kuadernora eraman gaitu. Hauxe poza be! Oraintxe 2016an jakin dut, 2002an idatzi eta landu genuen kuadernoak, espetxe langileen hatzaparretatik kanpo egotea lortu zuela eta bere egitekoa zena egitera iritsi zela: euskal preso politikoei harrera politikoa egitea, alegia. Harreraren nolakotasunak kezkatzen gintuen, atxiloketa kopurua handia zen eta kide horiek espetxean ondo kokatzea inportantea zen. Hori dela eta, babes material eta emozionalarekin batera, EPPKko lorpen, arau eta ibilbidearekiko memoria transmititzeari garrantzia berezia eman genion. Horregatik, badaezpada, idatziz uztea erabaki genuen, noizbait ahoz-ahoko bidea moztuko balitz. Gaur I-k esan didanean, kuaderno hori zein baliagarria izan zitzaien, geure buruaz harro sentitu naiz, beste kide batzuegan baikorki eragin izanagatik aseta ere. Eta kuaderno hori egitea otu zitzaigun taldea etorri zait burura, zer idatzi eta zer ez erabakitzeke, gure arteko lanak banatzeko antolatutako bilera guzti horiek. Beraien gazte aurpegiak etorri zaizkit gogora, beraietariko bakoitzaren presentzia modukoa... keinuak, esakerak, barre egiteko modua, haserretzeko era. Beste askotan bezala intentsitate berba datorkit. Harreman konprometituak, intentzio sakonak, borondate zabala. Burua gauza praktikoetara ere joan zait. Non gorde genuen kuadernoa azkenean? Partxisaren kutxan sartu genuen? Edo Grapokoei eman genien gordetzeko? Edo ordurako Grapokoak beste espetxe batera eramanda zituzten? Kuadernoa granatea zen, eta gutako bati horrenbeste gustatzen zitzaizkion koloretako boligrafo berezi horiekin idatzita zeuden atal batzuk... bere letra datorkit burura, ikusten ari naiz. Ze letra polita.. **Landa kuadernoa. 2016ko otsailaren 27an.**

Beste espetxe batera lekualdatuko zintuztela aditu bezain pronto, lehen galdera han euskal preso emakumerik\* ba ote zegoen zen, hasierako gauzetarako beharrezko jakintza eta harrera hark egingo baitzizun, eta, gerora, norberaren ahaide eta etxeok ere bai. Izan beharreko beste erreferentzia bat kide haren familia izango zen, norberarentzat kide hori patioko aliatu naturala izango zen modura, ondo ala gaizki eraman. Azken finean, espetxea bizikidetzat handia bilakatzen zen: hautatu gabekoarekin derrigorrean eguneroko estu-estuan murgildu beharra zekarrelako. Zentzu horretan, testuinguruak eta baldintzek kideen arteko hartu-emanetan eragin handia zuten, horrek berak izugarri batzen zituelako edo, kontrakoa, erabat gaiztotzen zituelako. Argitu beharra dago ezen, beste preso gehienak ziegan binaka izaten zituzten bitartean, preso politikoei urte gehienak ziegan banaka egin zituztela/genituela. Kasu batzuetan, EPPK-k eskubide

hori borrokatu zuelako/genuelako, baina, gehienetan, 1. graduaren derrigorrezkoa zelako. Preso batzuek binaka egotea nahiago zuten, eta beste batzuek espazio propio baten premia gorriak jota bizi izan dira<sup>314</sup>. Txarrena da Estatu Espainoleko espetxeen masifikazioak erabakitzeke aukera kentzen ziela (Losada, 2022), are gehiago emakumeen\* kasuan, gainokupazioa handiagoa baita/baitzen (Almeda, 2003)

Hala ere, ziegatik kanporako elkarbizitza oso intentsoa bilakatzen zen; izan ere, Erving Goffmanek (2001) esan bezala, modernitatea ezaugarritzen duten harremanen espazio-banaketatik ez da gertatzen *totalak* diren erakundeetan; beraz, egunero eta etengabe pertsona berberak osatuko zuten presoaren egunerokoa. Gainera, espetxean inor bere onenean ez dagoenez gero, harremanen saturazio modukoa gertatzen da. Zauri eta kezken motxila bete duenak besteen zauri eta motxilez kargu egin beharrak barne-indar eta ahalegin handia dakar. Saiakera hori oreka eta laguntasunaren bidetik joan daiteke ala, kontrara, espetxeko bizi-baldintza gogorrek dakarten ezintasun, frustrazio eta mina elkarren aurka joz botatzeko bidetik. Hartu-emanak kontestualak diren heinean, mutur batean ala bestean kokatu, intentsitate hori espetxeak eta bere errepresio-estrategia osoak esku hartutako harremana zela ezin ahaztu. Margrit Schillerek (1999) bere biografian argudiatzen du ezen kartzelak ezartzen dituen muturreko egoerak eta, bereziki, horien arteko konbinazioak ez direla kasualitatea, zientifikoki ondo aztertutakoak direla<sup>315</sup>. Esate baterako, denbora luzez bakar-bakarrak eta erotzeko modukoa den isiltasun horretan bizitzen egon ostean beste kide batekin ipintzea (binaka), eta, batzuetan, bizi-erregimen normaleko modulu batean, isolamenduaren efektuak handitzen dituela; alde batetik, mugatze sensorialean oinarritzen den erregimenean egotetik (soinu, kolore, usain, laztan eza) zarata, pertsona, usain eta kolore aniztasunera igarotzeak, izugarritzko neke fisikoaz gain, beldurrak ere eragiten dituelako; eta, bestetik, harremanei dagokionez, zeure buruan eta zeure buruarentzako bizitzetik, bestearentzako bizitzera igarotzen zarela, bestearekiko halako obsesio moduko batekin, bestea etengabe behatzeko ariketan murgilarazten zaituela egoerak, eta horrek bestearekiko harremana ito egiten duela eta, ondorioz, gatazkak sortzen direla eta elkar ez-jasate modukoa. Bada, euskal preso politikoek erabateko isolamendua eta bizimodu arrunteko moduluko bizitza ezagutu izan dute, modu tartekatuan askotan. Eta beste horrenbeste harremanekin, bakarrik ala kideekin egon izan diren garaiak ezagutu dituzte.

Haatik, kalean akaso lagun-sarean izango ez genukeena lagun min bilaka daiteke, eta beste horrenbeste alderantziz. Hala ere, ondo eramateko borondate eta erabaki modukoa gailentzen zela esan beharra dago. Eta EPPK-ko beste emakumeen\* presentzia fisikoa ez zenean ere, gutun eta senideen bidez elikatuta, bere absentsian presente egiten zen babesaren ere bazen.

---

314 LOGPek preso bakoitzak bere ziega izatea jaso arren.

315 AEBetako CIAko esperimenduak eta gabetze sensoriala aztertu zuen Hamburgoko Jan Gross psikiatra aipatzen ditu, zehazki.

Beraz, babes politiko, pertsonal eta materiala eman eta sortzeko gunea zen kidearteko harremana; konfiantza, leialtasuna, elkartasuna eta elkarrekikotasunari esker, emankor eta aberatsa zen gune erlazionala.

### 10.2.3. Etsaitasuna: espetxearekiko eta bere langileekiko harremana

Goffmanek (2001) zioen ezen, *erakunde totaletan* oro har eta bereziki espetxean, batera bizi diren bi kolektibitate nagusien artean (presoen eta kartzelarien artean, alegia) ez dela egoten elkarren arteko komunikazio handirik, informazioa ezkututzen diola talde batek besteari; elkarrekiko aurreiritzi handiak dituztela eta harremana bestetasunetik eraiki izan dutela. Euskal preso politikoen kasuan, *presoa vs kartzelaria* ohiko areriotasun-aurkakotasunetik harantzago, estatuaren eta Ezker Abertzalearen arteko talka ere bazen, eskuz eskuko harreman horretan materializatzen zena. Horrek esan nahi du elkarrekiko etsai gisa eraikitako bi komunitateetako kideak elkar bizitzera behartuta zeudela; eguneroko bizitza eta bertako gorabeherak partekatzea behartuta, hain zuzen ere. Izan ere, preso politikoak espetxea etsaiaren etxetzat joko du, inongo zalantzarik gabe.

Espetxeko langile edo segurtasuneko funtzionarioei deitzeko izen asko erabiltzen ziren espetxean. Horietako batzuk preso guztiek partekatzen zuten argotetik datoz, *boki* edo *bokeras* bezalakoak. Juan Garfiak idatzitako eta Txalapartak 1995ean argitaratutako *Adios Prision* liburuan, kartzelako argotaren glosario modukoa agertzen da. Baina euskal preso politikoak ere beraien ezizen-zerrenda propioa garatuz joan dira: *giltzariak*, *urdinak*, *txotxolak*, *matoiak* eta abar. Gero, zehatzean, horietako bakoitzak ezizen bat izango du, bereziki haien amorrugatik nabarmentzen zirenek: *la pikoleta*, *la play-movil*, *la pato*, *nancy* eta abarreko zerrenda luzea.

Ordura arte sinbolikoagoa zen etsaitasunak kartzelan gorputza hartzen du, eta eguneroko presentzia bilakatzen da. Esate baterako, begirakune, keinu, berba siku eta zakar zein irribarre ironikoen erregistroa zabala zen, eta etsaitasun horren tentsioak eguneroko gorputz-jitea osatzen zuen, ohitura bihurtzen zen presentzia deserroso edo aurkaria. Nik neuk 2000ko hamarkada hasieran ezagututako hiru espetxeetan, goizeko 8:00etako zenbaketan, ziegaz ziega ateko leihatilatik presoa hor dagoen ikusteko igarotzen zirenean, presoari egun ona opatzeko probesten zuten. Euskal preso politiko baten ziega parean suertatzen zirenean ordea, «recuento» oihukatzen zuten, edo, onenean, isilune handi bat egiten zen. Etsaiari egun onik ere ez.

Horiek horrela, kartzelaria eta euskal presoa konfrontazioan dauden bi subjektuen ordezkariak baino ez ziren, torturatzailarekin eta torturatuarekin gertatzen den moduan. Bakoitzak atzean proiektu politiko bat du, eta proiektu hori defendatzeko edo garatzeko egitura bat; bata, estatua, eta besteak, mugimendu politiko bat. Beraz, proiektu politikoen arteko talka-gatazka horren aktore-ordezkari bilakatzen dira presoa eta kartzeleroa, halabeharrez. Etsaien arteko elkarbizitza behartu hori, bistan denez, egoera asimetrikoan garatzen da, espetxea erakunde gisa

presoa zigortzeko egina baita, eta, kasu honetan, helburu politikoei erantzuten dion bizi-erregimen propio eta espezifikoa ezartzen zitzaielako/zitzaigulako. Baina hori gutxi balitz, aurrez aurreko egoera hori bakoitzak unean zeukan botereaz elkar mintzeko ere bazerabilten. Zentzu horretan, espetxe-langile batzuk modu «militantean» hartuko zuten haien egitekoa. Xuneren ondoko pasartean ikusten den moduan, jazarpen orokorrari haien hondar-aletxoa gehitu nahi ziotenak ez zirelako falta izan:

Baina en cambio daukazu txanda bat que está a ello, ba jolasteko zaude. Zer, sagutxoa katutxoarekin, benga tiki-tiki-tiki, venga ta-ta-taaaa (mahaia jotzen du). Ta komunikaziotik bueltan, ba berdin, ze pasatzen ginen modulotik, ta ziren zirenak, ta orduan, venga, hoy te despeloto porque me da la gana. (...) Baina hauekin harremana zan oso estua, vulnerable total, estás al jueguito y la gracia que les hagas. **Xune**

*Txanda* hitza, jada lehenago aipatu bezala, erabakigarria da Espainiako espetxe-sisteman, lan-txanda osatzen zuten espetxe-langileen izaeraren arabera egikarituko baitzen eskubidea, azken hori edozein izanda ere. Are gehiago, zenbait langilek debekatuta zeuden gauza batzuekiko ez ikusiarena egitera ere irits zitezkeen, ardoa edo janaria sartzen utziz edo beste aldera begiraturaz, esate baterako. Baina beste batzuk haien botere-kuota mendekua eta berrespena bilatzeko erabiliko zuten. Eta hor hasiko zen Xunek aipatzen zuen katua eta saguaren arteko jolas maltzurra. Modu batera zein bestera, aztergai dugun garaian espetxe-funtzionarioak ETArek helburuen artean zeudenez gero, espetxe-funtzionarioak, jarrera militantea izan ala ez, bere ogibideak etsai bilakatzen zituen. Eta alderantziz, beste horrenbeste.

Preso politiko bakoitzak aldarte bera ez zuenez gero, jokaera ere ez zen beti bera izango. Modu batera zein bestera, preso politikoei kartzeleroekiko zuten/genuen harremanari zuhurtasun, distantzia eta hoztasuna zeriola esango nuke. Zuhurtasuna, egiten denak beste hainbat bizitzari eragiten diela jakituz izateagatik; izan kide edo izan senide. Interdependentziaren kontzientzia handiz jokatu beharra zuten/genuen, alegia. Preso sozialen kasuan, «gánate tu libertad», «no te metas en líos» edo antzekoek beste presoek edo espetxe-langileen probokazioetan ez erortzea esan nahi duten moduan (graduak progresibitatean aurrera egiteko zigorrak ekiditea, azken finean), euskal preso politikoen kasuan, probokazioetan ez sartzeko gomendioa indarrak neurtzearen ikuspegitik egiten zen. Borrokatu beharrekoa zer zen, noiz zen eta nola zen hura ondo pentsatzeko deia; bereziki, kolektiboki pentsatzekoa. Beraz, eguneroko talka horiek indar-xahutze eta -higaketa modura bizi ziren. *Etsaiaren etxean eta etsaiaren eskuetan* bizitzeak prepotentzia, arbitrariotasuna eta injustizia berarekin dakartzala elkarri ulertarazten eta barneratzen saiatzen ziren/ginen, injustiziaren aurrean portaera oldarkorregiak ekiditeko (espetxean jakina baita langile bat jo edo erasotuz gero, zureak egin duela).

Hoztasunari eta distantziari dagokienez, izaera politikoa eta aurkaritza mahaigaineratzeko bideak ziren, espetxe-langileen autoritatea erabat ez onartu eta autoritate propioa erakusteko modua.

Preso sozialen ahotan ohikoa zen «señorita» eta «don» hitzek ez zituzten/genituen erabiltzen, esate baterako. Hala ere, *usted*kako trataera mantentzen zuten/genuen gehienetan, eta baita horrela eskatu ere. Haien/gure bizitza pertsonaleko informazio gehiegi ez ematen saiatzen ziren/ginen. Funtzionarioen lagunak egiteko joera handirik ez zegoen preso politikoen artean, eta ez zituzten/genituen gauzak erreguka eskatzen edo biktimaren papera antzezten, beste zenbait presok bezala (Ruiz, 2019).

Etsaitasun horren eszenatokia ez zen moduluko aurrez aurrekoa soilik. Komunikazioen interbentzioa zela eta, telefonoa, gutunak eta bisitetan ere presentzia deseroso eta aurkaria sentitzen zuten/genuen. Askotan, gutunak hartzaileari zuzenduta zeuden, baina baita irakurtzen ari zen interbentoreari ere: izan txantxak eginez, beraien aurka barrenak hustuz, beraiei informazioa gordez, entzun nahiko luketenaren kontrakoa idatziz edo autozentsura aplikatuz. Egiari zor, preso bakoitza ez zen berdin kokatzen komunikazioen interbentzioaren aurrean, eta ez zituen estrategia berberak erabiltzen; are gehiago, preso bakoitzak kartzelaldiko une guztietan ez zuen posizio bera hartuko gai honekiko. Bakoitzaren egoerak eta unean uneko espetxe-politikak eraginik bazuten horretan ere.

Hala ere, baterako ala besterako izan, gutunen interbentzioaren bidez, espetxea presoaren bizitzan sartzen zen, eta gero hori erabili egiten zuen. Nire espetxealdiko bi unetan nabarmena izan zen komunikazioen interbentzioa harremanen interbentzio bilakatu izana. Batean, euskal preso bat, gutun bidez, beste espetxe batean zeukaten euskal preso batez maitemindu zen. Hori dela eta, elkarri telefono deiak egin ahal izatea eskatu zioten espetxeari. Eskari hori idatziz egin zuen, eskari guztiak egin ohi diren inprimaki edo «instantzia» bidez. Erantzuna segurtasuneko zuzendariordearen ahotik etorri zitzaion, esanez haien arteko gutunak irakurri dituela eta ez zaiola iruditzen laguntasun-harreman bat baino gehiago denik, gatz eta piper apur bat falta zitzaizela, alegia. Beste behin, bikotean zegoen euskal preso bat bere bikotekidea ez zen beste preso batekin idazten zen modu intimo samarrean. Bada, bikoteak eta beste pertsonak okerreko gutuna jaso zuten, bakoitzak besteari zuzenduta zegoena, modu horretan emakume\* presoak mantentzen zituen bi harreman intimoak argitara ekarriz (nahita egindako okerra zela ez zuen ezta zalantzan ipini euskal presoak). Bi gertaerok bikote-harremanak ulertzeko modu jakin bat inposatzeko saiakeratzat uler daitezke, modu monogamikoan eta karga erotik-sexual derrigorrezkoarekin, alegia. Baina, horrekin batera, espetxea preso politikoen harreman intimoenetan ere presente zegoela agerian uzteko nahita egindako ekintza gisa uler daitezke.

Etsaitasunerako eremuak bazituen geruza gehiago ere; zehazki, espetxe-zuzendaritzak horretan funtsezkoak izango dira:

Gurekiko etsaikortasun-maila kartzelaren arabera ezberdina izan da. Funtzionarioen aldetik, baina baita zuzendaritzaren etsaikortasuna... edozer gauza zailtzeko proposioa zuten zuzendaritzekin egon gara. Batzuk bereziki bai izan dira gogorak. (...) Gero, espreski kide batzuekin ere, beraiek egin zuten pertsonen perfila, militante perfila, horren azterketa egiten zuten, eta kide batzuk hautatu

izan dituzte bereziki zigortzeko. Haien parametroen arabera, badakizu... ke si, ke arduraduna zela, edo auskalo. **Lur**

Etsaikortasuna, beraz, estatuko Barne Ministeriotik, Espetxe Erakundetik eta Espetxe Zaintzako Epaitegi Zentraletik diseinatu eta hauspotzen zen. Eskala bat beherago, espetxe-zuzendaritza batzuk haien ekarpen propioa egiten saiatzen ziren *euskaldun terroristen* aurka. Eta, amaitzeko, segurtasuneko funtzionarioekin ere antzerakoa gertatzen zen, batzuk militanteak ziren, eta beste batzuk ez.

Preso politikoen kasuan, haien izaera politikoa aldarrikatzeko modu bat zen distantziatzko hartu-eman, *zuek eta gu* nabarmentzekoa, gatazkan alde ezberdinetan egotea erabaki duten bi subjektuen arteko elkarbizitza, azken finean. Horrek ez du esan nahi zenbait espetxe-langilerekin edo tentsio berezi gabeko garaietan espetxearekin eta bertako langileekin harremana aurkaritza soilekoa izan denik. Horiek ere bazeuden. Horregatik, hartu-eman etsaitasunaren eta aurkaritzaren arteko continuum horretan kokatzen zela ondoriozta dezakegu, nahiz eta haien gatazka berez kartzelariekin ez zela adierazten duten, baizik eta espetxeko zuzendaritzarekin, Espetxe Erakundearekin, Auzitegi Nazionalarekin eta, funtsean, Estatu Espainolarekin. Baina, aldi berean, batzuk beste batzuk baino gehiago, kartzelarietara talka forma hartzen zuen eguneroko pulstu politiko horrek. Nahi ala ez nahi izan.

#### 10.2.4. Gutunak: kalekoekiko harremana

#### 20. irudia

#### Eskutitzak



Iturria: nirea



Gutunak elkarren berri emateko tokia ez ezik, kanpoko eta barruko munduak josteko saiakera ere baziren, muga-espazioa. Eta zentzu horretan, ihes egiteko lekua ere bai.

Presoak kalean zuen nortasun eta identitatera atxikitze bidea, izate horretan berregiteko saiakera etengabea. Desioak, irudimenak eta fikzioak leku handia hartzen zuten gutunetan. Iragana gogoratuz eta etorkizunairudikatuz elikatzen den *nia* eta *gua*, baita sarri presoarena ere, betiere orainaren parentesitik eta absentziaz ekinez. Horregatik ipuinek, bertsoek, olerkiek, kontakizun lizunek, antzerki-gidoi bilakatutako espetxe-komikiek, kronikek, pasadizo komikoen literatura-eraikuntzek eta marrazkiek leku handia hartzen zuten gutunetan<sup>316</sup>. Emakume\* presoek gutunak, askotan, apainduta zeuden: loreak, leloren bat koloretan idatzita, eguzkiak, sorginak... Landutako gutunak ziren, bere forman ere mimoa eta dedikazioa erakusten zutenak. Ikus, 20. irudian, adibide batzuk.

Komunikazioen interbentzioak, hirugarren bat zelatan egoteaz gain, gutunen joan-etorriaren iraupena handitzea ere bazekarren, eta biek ala biek zuten eragina gutunen edukian. Esan gabekoez osatutako orrialdeak, ezkutuko mezuak dituzten kontakizunak, errealitatearen eta fikzioaren arteko lurralde aberatsa osatzen zuten eskutitzek. Preso igorleari barruan duena botatzeko, jolasteko eta gozatzeko baliagarria zitzaion. Kaleko hartzaileari, ostera, ulergarri, ikasgarri eta plazer-iturri izatea espero zuen barrukoak. Erdibideko zentsore eta irakurlearentzat beti argiak ez ziren errealitate, uste, egoera eta sentimenduak gordetzen zituzten gutunek.

Presoa bere kanpoko sarearen gaitasun eta mugez ere ohartzen da: bakoitzak idazteko duen iaiotasun-maila, denbora eta diru-aurrekontua, eskuzabaltasun-maila, lotsa, espetxearekiko jakintza-maila edo kuriositatea, politika bizitzeko moduak, maitasuna eskaintzeko/emateko erak eta abar luzea. Horrek berak norberaren burua eta ingurunearena hobeto ezagutu, ertz ezberdin batetik behatu eta ezaugarri batzuk kontzientziara —edo alde ikusgarrira— ekartzeko esperientzia osatzen du, norberaren lehengo bizimodua, bizi-ingurunea, bizi-komunitatea eta bizitokia norbera gabe, urrunetik eta modu diferituan begiratzeko aukera eskaintzen baitu espetxeratzeak. Arantza Santesteban preso ohiaren *918 gau* dokumentalak, adibidez, gutunak errekurtsio narratibo gisa erabilita, autorea espetxean zela bere komunitate politikoa ikusi eta sentitzeko era mudatu zitzaioneko prozesuaren berri ematen du. Aurrerago ikusiko dugun moduan, espetxe-denbora hausnarketarako, zalantzak pausatzeko, kezak partekatzeko eta bilakaerarako denbora eta leku aproposa izan da hainbatentzat (nahiz eta lan honetan ez den agertu Santestebanen dokumentalean iradokitzen den dezepzio edo urruntze politikoa; bai, ordea, idealizazioak gainditzen dituen heldutasun politikorako bideak, kritika eta auto-kritikaren bidetik, subjektu politiko eta giza alaba gisa, hazkuntza- eta garapen-ibilbide oparoak).

Esan beharrik ez dago gutuneriaren muga-eremu horrek denboraren dimentsioarekin ere lotura izan baduela. Presoaren iragana eta etorkizuna hatz-puntekin ukitzen diren dimentsioak

316 Ikus: Ametsen liburua, 2015. Egiletza kolektiboa. Gehiago jakiteko: <http://zaharra.sare.eus/ametsen-liburua/>

dira: gogoratu, irudikatu, apaindu, asmatu ere egiten den dimentsioa da denbora, ametsak aurrera beharrean atzera ere begiratzen baitute kartzelan. Iragan dotoretua desiratutako etorkizun idilikoarekin batzen da, eta orainean etengabe erreplikaturia eta deitua den ipuin bihurtzen da. Iraganetik iltzatuta geratu zaizkigun eszenek eta gerorako bizimodua kristalizaturik muntatu ditugun irudi berriek osatutako eszenek diapositiba-pase paregabea osatzen dute presoaren gogoan. «Gogo» hitza *gogoan hartu* adieran erabiltzen da euskaraz, gogoratzeari lotuta. Baina desio-nahia adierazteko ere erabiltzen dugu; *non gogoa han zangoa* esaera zaharrak erakusten digun moduan. Bada, presoak bi gogo horietan bizi da. Gogo horren bidez bidaiatzen du, denboran eta espazioan, eta, horretarako, gutuna du garraio bide kuttun.

Ta bai, irudikatzen dezu... ta semearekin egingo degu hau edo bestea... edo nola moldatuko gara bizitzen elkarrekin, ze inoiz ez genuen konbixitu... hori bai. Nere azkenengo urtea izan da apur bat berezia... baina beste urteetan bai, bereziki idazten, bai, sobre todo idazten amets egiten dezula pilo bat, bikotearekin... egiten duzula mila plana, beti ere oroimenetan oinarrituta baina... «Egunen batetan»... mundu imajinario bat. Ta hori gehiago izan da gutunez, hitz eginez baino, neretzako. Ihesbide bat da... ametsa ala ameskeria... **Lur**

Laburrera ekarrita, gutunek kalera lotuta jarraitzeko saiakera kolektiboa osatzen zuten, baina denboran eta espazioan gertatutako aldaketak, dela bakarka, dela kolektiboki, doakoak ez direla ere ohartuko da presoak. Hala ere, errealitate berriak eraiki eta sortuko ditu gutun-trukearen bidez, bidaiak modukoak eginez. Sartu-irten horretan, barruan eta kanpoan bizi da presoak, eta gutuna, muga-espazio etengabea, loturak egin eta ihes egiteko leku bilakatzen da. Azken finean, presoak ehunka kilometrotara bizi arren, bere baitako kokapen geografiko eta kulturala Euskal Herriak izaten jarraitzen duelako, eta gutunak horretarako zimendua ere badira (telefono-dei eta bisitekin batera, noski). Herriratu den preso emakume\* bati baino gehiagori aditu diot «beti izan gara hemengoak, ez ginen inoiz joan» esaldia, deserria inposatu arren, haien barne- barneko mundua Euskal Herrian eta haien ahaide artean mantendu dutela aditzera emanaz, kapitulu honen amaieran ikusiko dugun moduan.

#### 10.2.5. Ziega: presoak bere buruarekin

Ziegak itxialdia sinbolizatzen eta kondentsatzen du. Bertako leihoak eta barroteak osatutakoa da, ziur aski, espetxeaz gehien zabaldu den irudia. Askatasun-ezaren irudia; finean, hertsadurarena. Lotuta, itxita egotearen sinboloa, animalia kaiolan nola. Presoak barrutik kanpora begira, burua burdinen artean sartuta eta eskuak aldeetako barrote banatan dituela, horixe dugu atxiloaren irudi gorena. Lolak ere *recuerdo esa primera vez cuando te ves a ti misma con la cabeza metida entre los barrotes* diosku, bere burua preso zegoela jabetzen hasi zen egunez ari dela.

Ziega logela baino zerbait gehiago da. Ziega presoak bere buruarekin egoteko espazioa da, goxo egon daiteke edo harreman erabat maltzurra. Ziega-orduak gogortzat jotzen dira; batez ere, eguneko ordu gehienak han egin behar dituenarentzat. 20 edo 22 ordu ziegan sartuta, bakarrik. Ziega,

beraz, norberaren luzapen modukoa bihurtzen da, norberaren mamu eta desioen leku bilakatuz. Norbanakoak, aurrez aurre, inongo maskararik gabe bere errealitatearekin topo egiten duen tokia dugu ziega. Baita militantea bere egiari begira jartzen dena. Plazera eta mina kanporatzeko gunea, dela dantzan, dela negarrez; Xune eta Lola bi mutur horiez aritu dira, adibidez:

Lotsak bai, oso potenteak. Bakizu zerekin? Ba ziegako horrekin. A ver es que nik, y lo digo para que se oiga bien, nire masturbazioa eta ni primeran konpontzen gara. Ni, si no es todos los dias, no hay que dejar, no hay que dejar las buenas costumbres. Eta, egun batean, ni han nengoen en mi triki-triki-triki...eta bat-batean *klank*, uste dut mugitu zela mirilla. Eta... ostia, nikkkk... nik uste dut bai hortan afektatu didala apur bat. Sexu-harremanak ditudanean, no sé cómo decirte, no es que me venga, pero sí... bai, askotan izaten dut sentsazioa que alguien me puede ver, haciendo algo. Ta leihoak ixten ditut. Zuri ez zaizu gertatzen? Egotea han zuloa beti zabalik, ze gainera ez zen soinua egiten zuen handi horietako, txiki isil hura zen. Gogoratzen dut lotsa pasatu nuela. Edo beste inoiz, dantzatzen edo hitz egiten ispiluarekin, ba harrapatu eta lotsa. Nire intimitatean sartu zirela. Esto es mío. Ya no me queda ni esto... ezta intimitate intimoena ere. Izkutuan aritu behar. Ispiluarena be lotsa handia. **Xune**

Ese momento en el que estás en la celda, y te da un ahogo puro y duro de falta de libertad, de que en ese momento tú no puedes salir. Esa sensación solo la experimentamos la peña que estamos privados de libertad, es de las peores que yo he sentido en mi vida. Es como que te da un ahogo, ¿sabes?, es que no se explicarlo mejor. Siempre he dicho: la sensación de falta de libertad, real, física. Física, física. No de esa sensación de libertad mental, social etc. No. La física, es de la peor que puede haber en el mundo. Yo recuerdo que es como una angustia que te come por aquí (indica el camino desde el estómago a la garganta), no sé explicarla mejor, también hace tiempo que no me pasa. Cuando igual estabas en la celda haciendo cualquier tontería y de repente te empezabas a ahogar físicamente, porque empezabas a sentir la falta de libertad física, lo llamo física. Yo hablo de falta de libertad física, no la mental, creo que la mental no la he sentido nunca. Creo que mi cerebro puede volar, soñar, pensar... y esa no la he sentido encerrada. Sino la sensación de ¡quiero salir por esa puta puerta ahora ya, ya, ya! y no poder. **Lola**

Ezinegona, nekea, urduritasuna, frustrazioa, asperdura, utzikeria, mania eta ezintasuna sentitzeko leku ere bilakatzen da ziega. Espetxeak izugarrizko estres emozionala eragiten du, buru, bihotz eta tripa bare izatea zailtzen duen egunerokoa eta bizitza inposatzen duelako. Gehienetan, isilekoak, ezkutukoak eta —tamalez— ohikoak bihurtzen diren zauri eta minak dagokien lekua hartzen dute ziegan. Beldurraren labirintoaren sarrera da ziegako atea, batzuetan. Norberaren burua jasanezin bihurtu daitekeen txokoa, kritikak, autokritikak, balantzeak, kontraesanak, erruduntasunak eta bakarrizketa amaigabeak.

Neretzat konzentrazioa, ez dakazu gogorik, o sea, ganora sartzen zaizu baina... eske igual kalean ez dezu perzibitzen, ze lanera zoaz ta hara ta hona. Baina han zaude zu, ke te txapan, te abren, ke te suben, que te bajan, badaude egun batzuk de: eske ez dakat gogorik ezertarako, ezertako. Ta nola ez dakazu beharra ba... **Lur**

Espetxe-egoeran hartu beharreko erabakiak hausnartzen diren tokia da ziega. Espetxe-erakunde eta -egiturak ezartzen dituen aukerak eta tranpak aztertzeari ekiten zaion tokia. Azken batean, preso politikoak estatuko espetxe-sistemarekin bere buruan jokatzen dituen xake-partidak

dira. Preso politikoa etsaiak egingo duena neurtzen saiatzen da, aurrea hartzen. Hala ere, mugatu samarra izango da preso politikoaren jokaldi-ahalmena; azken batean, senideren baten heriotzaren aurretik edo ostean hura ikusteko baimena eskatu ala ez, Euskal Herrian erditzea eskatu ala ez, zenbait epai errekurritu ala ez, bikotea beste espetxe batean preso bazegoen harekin bisean bis intimoak eskatu ala ez, moduluan zurekin bizi den bikotearekiko harremana espetxeari jakinarazi ala ez... Eta horiek erabaki ahal izateko, une horretako egoera politikoari, une horretako Espetxe Erakundearen edo Auzitegi Nazionalaren joerei, edo espetxe jakin horretako zuzendaritzari eta giroari erreparatuko dio presoak; inoiz ez legeak dionari edo, ustez, preso bezala dituen eskubideei, jakin baitaki horrek ez duela eraginik haien kasuan. Liriri amaren hiletara joatea ukatu ziotenean bezala, ez omen zegoelako justifikatua eskaera. Preso politikoez, diferentziak egin, haien arteko harremanetan esku hartu, xantaiak egin eta mendeku-gosea asetzea omen zen lehenesten ziren irizpideak, Lurrek pasarte honetan adierazten duen moduan, Espetxe Erakundeak horrelako eskaerak preso politikoaren artean desberdintasunak egin eta haien arteko haserre eta minak sortzeko erabiltzen zituela ikusten zutelako.

Niri, adibidez, abokatuak esan zidatenean erditzeko Euskal Herrian nik esan nien ezetz, ta hori bai izan zan hautu pertsonal bat. Niri iruditzen zitzaidan ba, Garbiñeri ukatu zioten...ta ez nuen sartu nahi joku horretan, batzuei bai ta besteei ez. Edo norbait hiltzean bezela. «A esta si, a la otra no». Gainera nik ez nuen nahi Euskal Herriraino joan, gero Martutenen ez nintzan geldituko, ez nekien umeaz bananduko bazidaten bidaian...osea beldur gehiago ematen zidan horrek, beste zerak baino. Ta ez nuen egin eskaera. Horrekin jokatzeko zutelako ere: depende quien eres te doy y si no, no. Ez nuen joku horretan sartu nahi. **Lur**

Aldi berean, eguneroko burrunba eta mota guztietako trukeetatik babesteko gune ere bada ziega. Atsedean hartu, norbere kolkorako gorde eta babes-giroan kulunkatuko zaituen oskoltzoa ere bada. Horregatik, ez dira faltako ziega bere espazio murriztuan eta baliabide-faltan funtzionala bilakatzeko ahaleginak, txukun eta etxeko jartzeko saiakerak. Literako ertzetan, goiko literatik behekoa, norberak telaz egin eta jositako *antolatzaile mugikor* horietakoak; apal-eskasiari aurre egiteko, baina intimitatea irabazteko ere bai. Horman, herriko irudiak, paisaiak eta lagunak irudiak. Ohean, ahal izanez gero, etxeko izarak edo eskuz egindako manta propioak. Arraskako iturriari hagineta pasta-tutu hutsa zeloz lotua, ura arraskara eror dadin. Ziegako berogailua den zirrikitutik literara soka fina, arropa sikatzen uzteko. Irratia beti leku berean, zauden tokian zaudela gauetan Euskadi Irratia harrapatzea lortu baduzu, uhinak galtzera arriskatu nahi ez duzulako. Hileko garbitasun-loteko konpresak leiho azpian itsatsita, ziegara sartzen den ura xurga dezaten. Asko dira ziega txoko funtzional eta goxo bilakatzeko presoak egingo dituen ahaleginak eta sortuko dituen moldaketak. Horietako batzuk herentzian ere jasotzen ziren, askatasunean edo beste espetxe batera joandako kideek utzitako tramankulu eta eskulanak heldu berriei eskainiz.

Hemen amaitutzat joko dugun atalean, harreman-espazioak ezberdinak direla ikusi dugu; izan, egon eta egitea posible egiten zuten askotariko harremanak. Identitateari eutsi, identitatea berregin, identitatea eraikitzeke etengabeko ahaleginean beti ere. Harreman-eremu horien guztien

loturari dagokionez, garrantziaren arabera modu hierarkikoan bizi dituzten ala ez aintzat hartzea garrantzitsua da. Egunerokoari dagokionez, patioa eta etsaitasunekoa nagusi ziren. Aldiz, preso politikoak munduan hartzen duen tokiari eta garapenari dagokionez, kide arteko harremanak eta kalearekiko harremanak ziren funtsezkoenak. Hori dela eta, harreman horiek ziren militante politiko horien preso-bizimodu berri horretan kokatzeko oinarritzko erreferentziazko harremanak; gehien zainduko zituztenak, aintzat hartuko zituztenak, balioan jarriko zituztenak.

Aipatu moduan, preso politikoaren burua Euskal Herrian dago zigor osoan zehar. Bere erreferentziak, kezkak, babesa, ilusioak Euskal Herrian kokatzen dira. Beraz, iragana eta etorkizunaren artean kokatzen den barruko aparteko denbora hori, nahiz eta fisikoki deserrian eman, preso politikoaren barruko niak Euskal Herrian bizitzen darrai, begiak hara begira ditu. Migratu duten pertsonekin gertatzen den moduan, batzuek begiak haien herrira begira dituzte, barrurako; beste batzuek, ordea, kanpora, jaso dituen herrira begira (Solabarria, 2010)<sup>317</sup>. Eta subjektibitate horrek izugarritzko garrantzia izango du migratuaren esperientzian (González 2012). Euskal Diaspora bera ere horrelako makina bat adibidez josita daukagu. Zentzu horretan, euskal presoak jatorrizko gizartean iltzatuta egongo da, eta iltzatuta jarraitzeko ahaleginak egingo ditu, helmugako leku horretatik ihes. Ez du espetxekoa izan nahi, eta horren aurka borrokatuko da.

### 10.3. Espetxea bizi-denboran

Esana dut ikerketako emakumeen\* espetxealdia, batez beste, hamabost urtetik beherakoa izan zela, eta gutxienez bost urte zeramatera espetxetik kanpo elkarrizketaren unean. Beraz, haien bizitza eta biografia kontatzeko unean, horrek eragina izango du. Kasu guztietan, gaztetan politikoki engaiatu, eta emakume\* heldu direla utzi dute atzean espetxea; eta, horrekin batera, atzera begiratzeko orduan behar besteko freskotasuna dute haien oroitzapenek. Baina, horrekin batera, kalean haien lekua egina dute, edo espetxean amestu edo proiektatu zituzten gauzak bizitzen ari dira, bai bederen maila pertsonalean: ikasi, bidaiatu, ama izan, bikoteaz kalean gozatu eta abar. Bada, hurrengo gakoak kokapen horretatik ulertu behar direla azpimarratu nahi dut.

Atal honetan, emakume\* preso politikoaren denboraren bizipenera hurbilduko gara, denbora funtsezko dimentsioa delako espetxealdia nola bizi izan zuten ezagutzeko. Eta funtsezkoa da, espetxe-zigorra denboran oinarritzen denez gero (Cuhna, 2005), kartzelan denbora kalean baino gehiago nabarmentzen delako. Hori dela eta, denbora bizitzeko moduari erreparatuta, itxialdia-espetxealdia zer den ulertzera hurbildu gaitezke.

Hala ere, arestian esan bezala, preso politikoaren espetxealdian denbora eta espazioa sarri askotan ez dira modu banatuan uler daitezkeen dimentsioak. Eta horrek berorrek gauza asko adierazi nahi ditu, jarraian ikusiko dugun moduan. Ustez erakunde totaletan egin beharreko denbora bete

317 Llegara Euskal Herria Bilboko Gite-Ipeseke egindako dokumentalean Periko Solabarriak esana.

beharrekotzat hartzen omen da Goffmanen arabera (2001), denbora galdua, lapurtutako denbora. Baieztapen hori ezbaian jarri izan da zenbait preso komunitateren kasuan (Cuhna, 2005a); beraz, esan dezakegu Goffmanen baieztapena ezin dela unibertsaltzat jo. Lekuan leku, garaian garai eta preso komunitatearen arabera, denborarekiko bizipena zehazki aztertu beharrekoa baita. Bada, preso politikoen kasuan eta aztergai dugun garaian, nola bizi zuten da erantzun beharreko galdera.

Ikusiko dugu haien bizi-ibilbidea espetxera egokitu zutela/genuela; izan ere, espetxe-bizitza urte mordoxka batez zeukaten/geneukan bizitza bakar bihurtu zen. Zentzu horretan, espetxe-denbora ez zuten/genuen hutsik dagoen denbora gisa bizi izan, espetxe-denbora haien/gure bizitza-denbora baitzen. *Egun bat gutxiago espetxean, baina egun bat gehiago gure bizitzetan*. Beraz, espetxe-denbora ez zen edonola bete eta albait azkarren igaro beharreko denbora, espetxe-denbora bizitza-denbora zenez gero, bere gazi eta gozoan, bizi beharrekotzat zeukaten/geneukan. Hala ere, horrek ez du esan nahi entzierroak eta konfinamenduak eragiten duen denborarekiko bizipen duala ez zeukatenik. Alegia, haiek estatikoa den denbora batean iltzatu beharrean zeuden bitartean, kalekoak dinamikoa zen denbora batean bizi ziren, eta presoak bi denbora mota diferente horietan bizi zen, biak ditu bere kontzientzian, elkarren artean talka egin arren edo beldurra eragin arren (Chuna, 2005).

Gogoratzen dut zu zigor moduloko zulo horretatik atera zintuztela, zuk han utzi ninduzun. Eta urte bira berriro ekarri zintuzten. Zuk urte bi kalean eta ni zulo berdinean. Hori flipante egin zitzaidan, gogorra. Baina klaro, ondoan neukan kide batek esan zidana: ni horrela egon naiz 19 urte. Egunerogenero, 19 urtetan, leihotik pareta berdinari begira. **Lur**

Autore portugaldarrak denboraren *kristalizazioa* deitzen dio presoari inposatzen zaion denboraren ezaguera horri; Lurrek, aldiz, *konjelazioa* deritzo, baina kontzeptu edo bizipen berberaz ari dira.

Beti esaten da espetxeak konjelatuta bezala uzten zaituela, ta niri benetan iruditzen zait baietz. Holan dela. (...) Ta garaiak joan dira aldatzen, baina beraiek ez dira jun... baina inkoszientemente, neretzat faktura bat da. Eragin bat. Espetxeak jan egiten zaitu, zure mundotxoan, ez dakit, ez dira... (...) jada urte batzuk neramatzan barruan, bisitetan-eta hasten zera ikusten nola kanpoan bizia aurrera doan eta zu konjelatuta geratzen zaren hor. Zu konjelatuta geratzen zara hor. Kontatzen dizute: eske ez dakit nork izan du umea. Ostras, izan du umea? Ez dakit nor hil egin da... ostras, hil egin da? O sea, joaten zara bizitzen baina... Ia, baina, ger, o kalera joaten zarenean da, benetan ikusten dezunean, zure lagun horri nola aldatu zaion bizimodua, bi umerekin... zelako hutsunea dagoen zure etxean pertsona hori falta dalako, orduan sentitzen dezu. **Lur**

Hurrengo lerroen bidez, printzipioz esanahi gabekotzat jotzen den espetxe-denborari ematen saiatzen ziren esanahia eta zentzua aztertuko ditugu. Motela eta hutsa den eta suspentsioan eta parentesi biren artean sartuta dagoen aparteko denbora hori hausnartuko dugu, haien bizitzaren joana eten zuen tarte hori. Kosta ala kosta, haien bizitzaren iraupen-proiektuaren garapenean integratzen nola saiatzen ziren erakutsiko dut.

### 10.3.1. Kartzelaldi-hasiera askotariko esanguraz beteta

Presondegia bizitzeko moduan eta, batez ere, sarrera-prozesuan eragin handia izango du presoak atxilotua izan aurretik zeukan bizimoduak eta engaiamendu politiko mailak eta motak. Ez da berdina klandestinitateak sartu, ala kaletik, militantzia trinko batetik, ala ezustean, torturatua sartu ala ez. Ikusiko dugu ezen kartzelarako sarrera ibilbide pertsonal militante batzuen apurketa, beste zenbaiten hasiera, beste batzuen jarraipena eta batzuetan atsedena izan zela.

Zenbait kasutan, espetxea engaiamendu militantearen ondorioz xamurren artean egon daiteke, ez horrenbeste atxilo bizitzea gauza goxotzat zutelako, baizik eta, borroka armatua egin zutenentzat, adibidez, arriskurik latzena heriotza zelako.

Klandestinitateko bizimodutik espetxeratuak izan direnentzako lagun, bikote, familia eta jaioterriarekin birtopatzeko eta harremanak ber-hartzeko aroa ere izan da espetxeratu berritan bizitakoa. Zentzu horretan, bizipenak badu eztitik, eta ez soilik arantzatik. Gainera, birtopatzearekin batera, bakoitzak klandestinitatean bizi izandako egoeraren arabera, espetxeratzearen eragina, eguneroko bizi-baldintzei dagokionez, ezberdina izango da. Itxialdi-egoera erabatekoan edo eskasia egoeratik datozenen kasuan, espetxeratzeak hobekuntza ekarri die, bederen maila horretan. Ez da hori izan ikerketa honetako partaideen kasua, baina klandestinitatean egondako guzti-guztiek horri egin diote aipamena; haien «sasia» ona izan zela, ez zirelako luzaro «entxupinatuta» egon eta ez dutelako eskasia latzik pasa. Irenek dioen moduan, *niretzako zintzoki oso sasi ezberdinak daude. O sea, ezin da jeneralizatu.*

Modu batera edo bestera, klandestinitatean ahaideekin harremana erregulartasunez eta gutxi gorabeherako ziurtasunez garatzea ezinezkoa zen heinean, hasierako bisitak, bikotearekin, seme-alabekin, gurasoekin eta lagunekin topo egin eta, kasu batzuetan, suspentsioan egondako harremanak eta elkarriketak jarraitzeko unea izan zen espetxea. Aspaldi gordetako hitzak esatekoa edo isiltzeko unea, denborak bakoitzari ekarritakoa kontatu eta baloratzekoa, haserre luzeak eten eta adiskidetzekoa, bikoteak haustekoa, amatasuna ber-hartzekoa... Lurrek, lehenengo bisean bisa gogoratzean, amak belarrira esandakoa dakar gogora:

Amak xuxurlatu zidala belarrarian: «Ni ama bezela pozten naiz. Ez hartu gaizki.». Esan nahi zidana zan, de ke gutxienez, gaizki, eta barroteak eta espetxean, baina ikusiko ninduela. Baina beste ama batzuk ez zituztela bere seme-alabak ikusiko, denbora luzez edo inoiz ez gehiago. Ta berak hori esan zidan, ba igual zortea duen ama bat bezela sentitzen zan une horretan. Oso gogorra egin zitzaidan ere bai. **Lur**

Haien engaiamenduak espetxeraketarik ekarriko ez ziela uste zutenen kasuan, edota konpromiso militante apartekorik izan gabe atxilotu eta espetxeratuak izan zirenen kasuan, espetxea ez zen haien biografian eta etorkizuneko aukeren artean aurreikusten zuten egoera bat. Hori dela eta, espetxeratu berritan, gertatu zitzaiena sinetsi, kokatu eta barneratzeak unea izan zen.

Surrealista zen egoera bizitzen ariko balira legez sentitu zutela adierazten dute, haiei gertatzen ariko ez balitzaie bezala, hirugarren baten egoeraren ikusle sentitu ziren hasieran, gainez eginda.

Ingresosekoa, ba... oso arraroa izan zen... nik uste dut pelikula bat bezala bizi izan nuela. Euforika bezela nengoen, ya está, ya está, ya está, jode, kartzelan nago, ya está. Heldu naiz, hemen nago. Puff. Gaueko orduak ziren, ez zegoen ia inor. Ematen zuen putada bat egiten ari nintzela hango kartzeleriei... dutxa batean sartu ninduten... biluztuta. Berdin zitzaidan. Nik izerdi nazkagarri hori kendu nahi nuen. Baina zerbait gertatu zela uste dut, ez zegoen urik... edo bai. Aaaa, bai ura bazegoen baina arroparik ez. Nire arropa kendu zidaten, eta kulero erraldoi batzuk eta kamiseta urdin argi bat eman, nire talla baino askoz handiago. Ez zeukaten besterik, orduan komisaldegiko arropa nazkagarria ekarri zidaten berriro... Lio handi bat. Ingresos gogoratzen dut, ba ITV froga baten antzera. Pausuz pausu txkeatzen dute kotxea ITVan ezta? Ba ingresos holako zeozer izan zen... ke si desinfectatu, ke si arropa, argazkia, mediku bat, psikologo bat... nik ez dakit ze jende ikusi nuen ere. Ez dakit zer galdetzen zidaten ere, ezta zer ostia esan nien. Nik bakean uztea nahi nuen... lo egin eta euskal preso politikoeekin batu. Uf! Ba holan, pakete fastidioso baten moduan, atzera eta aurrera... joder! Zu kriston egoera fuertetik zatoz, eta zure burua burokrazia aspergarri modukoan ikusten duzu, ezta? Kar-kar. Ondo gogoratzen dudak bakarra da, funtzionaria batek bota zidan bronka ez niolako de usted hitz egin... une horretan pentsatu nuen zelako gogorra egingo zitzaidan de usted moduan bizitze hori, jakin ez nekienean ere horrela hitz egiten. **Lili**

Ikusi dugun moduan, poliziaren aldetik bizi izandako tratuak —zehazki, torturatua izan den ala ez— izugarritzko eragina izango du espetxealdi osoan zehar, baina bereziki nabarmena izango da lehen asteetan. Hasteko, kasu batzuetan inkomunikazio-aldia luzatu izan zaielako espetxean; beraz, polizia-etxeetatik zigor-ziegetara eramana izan dira; etxekeekin, konfiantzazko abokatuarekin, beste atxilotuekin eta abarrekin hitz egiteko, egoteko edo ikusteko aukerarik gabe. Une hori norbera bere zauriekin bakarrik egon ohi den unea izaten dela diote:

(...) torturatu eta gero, sartzen naute bost egun isolamenduan, eta han ispiluan ikusten naiz, aurpegia handitua eta... eta orduan konturatzen naiz ni naizela, ze ordura arte zan «zer egiten ari dira neska gazte honi?», baina han ispiluan ikusi nintzenezan izan zan: neska gazte hori ni naiz. Disoziazioa haustu zen, ostias, ni naiz. Eta orduan egin nuena zan kirola, dena hautsita, bizkarra hautsita, belauna hautsita... baina... ez pentsatzeko, ateratzeko zera hortatik. Kirola, kirola... baina txikituta nengoen e? Eskua hasita... baina behar nuen mugimendua. Ispilua izan zan erakutsi zidana ni nintzala. Ispilu deformatu hori baina berdin du, ikusten da. **Ekiñe**

Behin euskal presoak dauden modulura joanda edota polizia-etxetik hara zuzenean eramana izan direnen kasuan, aste horiek babes- eta sendatze-(g)une izan dira. Poliziaren jazarpenetik «salbu» egotea zekarrelako, bizitakoa ezagutzen zuten pertsonekin egoteak azalpen handirik ez eman beharra zekarrelako. Zainduak, ulertuak eta babestuak sentitu ziren; are gehiago, kaleratuak izan balira erabat esposatuak sentitzearen beldurra agertu da, dela poliziaren aurrean, dela senide eta lagunaren aurrean; funtsean, haiek gehiago ez mintzeko asmoz, zeudena baino sendoago agertu beharra aurreikusten baitzuten egoera hipotetikoa imajinatzean:

Para mí, lo de Soto fue una experiencia muy positiva, estaba fatal, pero fue muy positiva... (...) Y en el maco una *kide* fue mi tabla de salvación, desde el momento que la escuché, a la mañana siguiente (...) cuando se abrieron las puertas, la vi, que venía saltando. Me vinculé a ella (...). Con



ella hablé de torturas. Yo en el maco dije, lo de la tortura lo guardo, fue bastante consciente... ahora esto no, ahora toca esto: enfrentar el maco. Pero a su vez, el hecho de hablar con ella, yo creo que me sirvió mucho. Como luego pasa en la calle también, ese vínculo que estableces con alguien que ha sido torturada, que sin hablar mucho te comprendes, que me ha pasado en ocasiones... a mí me pasó con ella. **Alba**

Azkenik, beste kasu batzuetan engaiamendu politikoa ez da klandestinitatean gauzatu; hala ere, neke-maila handiak antzeman ditut, aro politiko hartan ohikoa zen militantzia intentsiboaren zein errepresioari ihes egin beharrak eragiten zuen egunerokotasunaren ondorioz.

Niretzat oso nekagarria izan zen atxilotu aurreko azken urtea. Gogorra da horrela esatea, baina ez daukat ahazteko, nola polizia atxilotzen zetorrela ohartzean, nire zati batek «por fin» modukoa sentitu zuela. Etengabe atxilotetaren zain egoteak tentsio handia dakar, desgaste handia, itzela! Ke horror. Dena zan probisonala, dena zan leku batetik bestera ibili beharra... ez nituen bi gau segituan inun egiten. Ez dut ondo gogoratzen, baina esango nuke azken hilabeteetan inon ez nuela alkilerrik ordaintzen, total hara ta hona nenbilenez. Puff... D egunaren zain... tortura bazetorrela, ebitatzeko zer gutxi egin ahal nuen... burua prestatzen etengabe, joder, hori bai tortura! Eta gero, ba... yo qué sé, azkenean txartoen datorkizunean atxilotzen zaituzte... espero ez duzunean. Jo, hau ezin da holan kontatu, baina como hay dios diotsut espetxeko lehen hilabeteetan curas de sueño handiak egin nituela. Gorputza trunkiltzen joan zan... egunero beherakoa izateari utzi nion... no sé, guapa ta dana ipini nintzen! Ostia, kriston bizimodu desordenatutik (ordutegiak, lotarako tokiak, jateko pintxoak), ba, espetxean, hiperordenatura salto egin nuen segidan. Bai, rollo handi bat, baina nire gorputzak edo nire barruak eskertu egin zuen. Ke triste kontatzen nagoen hau, ezta? Lotsa eta dena ematen dit, baina egia da. Eta nik badakit hau beste batzuri be pasatu zaiela... ETAkoei ez dakit, baina bestelakoei bai. **Lili**

Aldiz, lan honetan zehar ikusi dugun moduan, Xunek bere burua ikasle ontzat zuen, hortik jarraituz ikusten zuen bere burua eta etorkizuna. Espetxeratua izandakoan, bere proiektu horiek moztuta sentitu zituen, eta *en la luna de valencia* sentitzen zela dio; errealitate berri horretara kokatzeko zailtasunak zituela adierazi nahirik, bere tokia ezin aurkituta.

Laburrera ekarrita, espetxe-sarrera eta lehen hilabeteak bizitzeko modua, dispositibo errepresiboa berbera izan arren, ezberdina eta askotarikoa izan da, emakume\* hauen alde aurreko egoera eta subjektibitatearen arabera. Espetxea familiarekin birtopatzeko unea, torturatik osatzen hastekoa, atsedenerako tokia, edota bizimodua erditik moztu ezusteko bortitza izan zen.

### 10.3.2. Gela propioa andre-etxeetan

Kalean ezinaren zakuan eroritako gauzei tokia egiteko lekua ere badugu kartzela-denbora. Lehenengo kapituluan, ikusi dugu partaidetza sozio-politikoak eta armatuak —zeresanik ez klandestinitate-egoeran—, borroka egitea ez den beste bizi-proiektu edo zaletasunak gauzatzea zailtzen zuela: ikasketak, garapen profesionala, haurrak ekartzea edo bikote-bizitza *arrunta* egitea, besteak beste. Horiek guztiak albo batera utzi beharreko aferak izan ziren, noizbait, agian, auskalo gauzatzea posible izango ziren *hipotetiko* bihurtuz. Bada, horietako batzuek berhartzeko edo horiei ekiteko sasoia izan da espetxe-denbora, kasu batzuetan.

Ta, niretzat, aukera izan zen. Ze, adibidez, nire bizitza militantean egon naiz egunero ikasten bi ordu, baina de lo que me tocaba, de palos muy diferentes, baina ez agian nik nahiko nituzkeen gauzak. Baizik militantziak eskatzen zizkidan gauzak. Orduan, kartzelan, ba aukera izan nuen nahi nuena ikasteko. Eta gero kirola egin, deskantsatu, irakurri, kideekin egon. (...) momentu ederrena, nire aspirazio politiko pertsonalekin, o sea, nik disfrutatu dut ikasten nik maite nuena, jende batekin egoten, unibertsitateko jende batekin izan dudana harremanean. Disfrutatu dut nire burua elikatzen, onartzen dut, maite dut hori, eta pues esta guerra... pero bueno, no pasa nada. Hori da guri tokatu zaiguna, eta orain beste batzuei beste zerbaite tokatuko zaie... eta anbizio pertsonal hori politikarekin ahalko dute garatu; hau da, gehiago uztartu ahalko dute beraien anbizio pertsonal horiek eta politikoak. **Irene**

Beste kasu batzuetan, behin espetxean zeudela hasi ziren haien literatur zaletasuna deskubritzen eta idazteko lehen urratsak egiten. Berdin margoketarako gustua, eskulanetarako eskua eta musika egin edo jotzeko iaiotasuna. Espetxeko denbora-etenak eskaintako gela propio horiek izan zituzten/genituen; besteak beste, arreta norberarengan ipini, norbera elikatu eta maila ezberdinetan garatzeko aukeraz ari gara, azken batean, etxekoengan edo militantziako aferetan zentratuta zegoen arreta, energia eta dedikazioa haien buruan jartzeaz.

### 10.3.3. (Ez)-amatasunen sasoia

Beraietariko batzuek, kalean zirela, dela klandestinitatean, dela militantzia legal trinkoan, haurrak ekartzea geroko edo noizbait aukerak zituztenerako utzita zeukaten. Unean, militantziari edo engaiamendu politikoari lehentasuna ematea erabakia zuten. Garai horretan, jada ikusi dugun moduan, ez ziren oso uztargarriak amatasuna eta militantzia (nahiz eta ez izan ezinezkoa), eta gerorako utzita zeukaten. Beraz, gogo eta desio hori, bizi-proiektu hori, gauzatzeko sasoia izan zen espetxe-denbora, askorentzat; batez ere, ume biologikoak ekartzeko adina espetxean agortu behar zutela zekitenen kasuan. Zentzu horretan, adina, baina, batez ere, zigor-urteen kopurua erabakigarriak izango dira espetxean ama bihurtzea erabakitzekeo unean.

Ta kide batzuk ez dute ulertzen ama izatearena, hori ere gertatu zaigu. Emakume kideren bat, eta gizon kideren bat baino gehiago. Ez daude ados, iruditzen zaie umeak ez ditugula espetxean izan behar, eta kideek esan izan digute. Adinekoak. Ez zaielako iruditzen leku bat egokia haurrak izateko. Eta nik beti erantzuten diet: neri ere ez, baina nik ez diot uko egingo nere amatasunaren nahiari. Eta nik dakat adin bat eta sentitzen dut, baina hemen egokitu zait erabakia hartzea. Edo orain, edo inoiz ez. Eta ez diot uko egingo. Eta ama izan behar badut hemen, ba hemen izango da. Baina badago horrela izan behar ez dela uste duenik. **Lur**

Beste kasu batzuetan, kalean utzitako hurrekin harremana berregin, eta oro har, amatasuna distantziara lantzeko sasoia izan da espetxekoa; bistan denez, ama izanda engaiatu zirelako haien partaidetza politikoan. Horrela mintzo da Irene, bere semearen bizitzan presente egoteko zerabilen estrategiez:

Mila gauza, abesten nizkion gauetako abestiak bikoteak jartzeko, eta ateratzen nituen bisitetan, grabatzen nizkion ipuinak zintetan, egiten nizkion urtebetetze-postalak, postal horiekin gonbidatu

ditzan lagunak urtebetetzera... hasta que un día me dijo: ama ditut 7 urte, las postales de dibujitos de... no, no, ya horrekin ez dut inor gonbidatuko nire urtebetetzera (barre egiten du). Eta, orduan, konturatu nintzen que tenía que renovar. Bueno! Me carteaba con... a ver nola zen... el apego, nola landu, nola ez dakit zer... le volvía loco a mi bikote, «porque no le dais madalenas para desayunar, porque no sé qué...» claro, no me hacía ni caso, esaten zidan: «bueno, ateratzen zarenean ikusiko duzu». Baina bai, bai, ni nintzen una obsesiva gainera gauza horiekin... ipuinak lantzen nizkion pilo bat, baina ipuinak jorratuz pilo bat, irakurriz eta o sea, nire ustez transmititu beharreko baloreekin, edota azaldu nion Euskal Herriko borroka puzzle baten bidez... bai, bai. (...) Helburua zen presente egotea, Euskal Herriko borroka azaltzea... o sea, nik dena. Eske zen behar bat, nik oroitzen dut gauza batzutan ez, baina beste batzutan bai. O sea, desde la distancia, ze ez dut reparorik horretarako, de compartir mis hijos, baina etengabe, etengabe. (...) Aurrekoan esaten zidan kide batek: baina zu ez zara oroitzen, cómo te currabas las visitas, cuando te disfrazaste de mariquita que bloquearon dos veces la cárcel, porque no era posible una vasca disfrazada de inauteris en la visita. Eta ni, «ostia egia da, bai, bai». Bai, garai hori oso polita izan zen, asko lantzen nituen bisitak. **Irene**

Kartzela-denbora, baina, inoiz ama izateko aukerarik gabe geratu zirela barneratzeko aroa ere izan da, ez-amatasunerako garaia. Adina igaroa zutelako, haurra ekarri nahi zuten pertsona ikusteko aukerarik ez zutelako (klandestinitatean edo beste espetxe batean zegoelako), norekin egin ez zutelako, espetxeak erreprodukzio-tratamenduak zailtzen zituelako edo, besterik gabe, espetxeko baldintzak eta egoera haurdun geratu eta haurrak mundura ekartzeko hoberenak ez zirela uste zutelako Dolu hori egiteko aroa ere izan da hainbatentzat. Elkarrizketa horiek leku nabarmena hartzen zuten patioetan. Modu batera edo bestera, ikusi dugu espetxea (ez-)amatasunei aurrez aurre begiratzeko etapa izan zela askorentzat; aukera bat izan ala beste bat izan, hautu bat ala bestea egin, (ez-)amatasunaren desio-proiektua eta espetxea lotuta agertzen dira, gogoetazaletasun-mailari dagokionean, bederen.

#### 10.3.4. Esperientzia eta modu berriei irekitzeko sasoia

Kartzelako denbora loraldi sexual gisa bizi izan zuten batzuek. Kaleko bizi-abiadura, presioa eta baldintza gogorak beti ez zirelako esperimentazio sexualerako bidelagun onenak izan. Beste batzuetan, ez zen loraldia izan, baina bizitza-proiektua espetxe-bizitzara geroz eta lotuagoa zegoela jabetzen ziren heinean, *hil artean bizi* leloa bere egin —espetxean izan arren— eta ez zioten aterik itxi maitasun eta laztan mota askotarikoei. Gainera, tarteka, espetxe-egoerak erraztu egin dizkie zenbait urrats ematea edo esperientzia batzuetan jauzi egitea:

Ni kartzelan enrollatu nintzen lehen aldiz emakume batekin, preso sozial batekin. Hori ez da publikoa. Nik ez nuen bizi batere arraro, nola hain natural bizi izan nuen. Berdin zait hanka artean zer duen, pertsona bat gustatzen bazait ba gustatzen zait. Inoiz suertatu gabea nuen emakume batekin, baina barruan suertatu zitzaidan eta ez nion garrantzirik eman. Garai horretan zegoen kide bati kontatu nion eta arazo gabe. Garai horretan bi kide nituen, batekin ez nuen konfidantza handirik gauzak kontatzeko, baina biek laguntzen zidaten logistikoki, eta oso ondo... gurekin bazkaltzen zuen. Espetxeak antza hilabete batzuetara nabaritu zuen, ze guk ez genuen nabarmen egiten patioan, edo adi zeuden edo norbait txibatzerara joan zitzaielako. Nik beti izan dut susmoa preso arruntaren bat izan zela. Gero ni barruan egon nintzen bitartean gutunez mantendu genuen harremana, baina atera nintzenean jada ez. Ez dakit ezer berataz. Ze gainera kundatu zuten espetxe

batera, non modulu horretan ez geneukan kiderik. Ondokoan bai baina ez zuten ikusten. Baina supongo que se hundiría en la mierda, eta gaur egun ez dakit nola egongo den, eta gogoia sartzen zait askotan e? Behintzat jakiteko ondo dagoen, bizi den, ze jende honekin inoiz ez dakizu. Edo nola joan zaion, ze zan ijitua, lesbiana, trans bidean... zeukan todo en contra. (...) Baina bai, kideen artean ez zen arazorik egon, inkluso kide mutil batek zekien eta oso ondo. Kaleko jendeak ez zekien, ze nik gainera bikotea nuen, baina ez nion kontatu. Eta aurretik ere egon nintzen liatuta mutil batekin, eta hori ere ez nion kontatu, eta kideek bazekiten (barre egiten du). Bizitzen jarraitu behar genuen, ezta? Yo no me arrepiento, no me arrepiento de haber hecho, sino de no haber hecho más. (...) Baina sartu eta gutxira ba... yo empecé a vivir, zentzu guztietan. Ja bukatzen zen fase bat, kalean egon nintzena, oso txungoa izan zena, batez ere azken urtea. Eta kartzelara sartu eta batera hasi nintzen bizitzen, lehen bisitan amak esan zidan «no tienes ojeras, estás de la ostia». Kirola egiten nuen, sentitzen nintzen super ondo, o sea kartzelara sartzea momentu horretan izan zan super marabilla bat momentu horretan. Eta orduan gutxira hasi nintzen ikusten, nik gauzak sentitu ahal nituen beste batzuekiko eta ni gustagarria nintzela, banekien kartzelan izanda gustagarria zela hasta la que no tenía dientes, baina ez dakit nola esan, sentitzen nuen bizi nintzela eta sentitzen ditudala gauzak. Eta hasi baino lehen liatzen tipo honekin, *arrunta* zena ere, ja bikotearekin ikusten nuen lagun moduan... eta bis a bisetan ba derrigorrez bezela txortan egitea, ez nahi nuelako baizik eta bikotea zelako... eta aldiz kaletik etortzen zitzaidan bera zegoela super enamora, ez zuela planteatzen ezer, denbora pasako zela di dau, eta egongo giñela de la ostia... horiek ziren bere hitzak ere. (...) Eta hor ja ere, eduki nuen aukera neska batekin, baina azkenean ez zen suertatu, hori ja bazen kidea, baina bueno... ikusten nituen aukera ezberdinak, eta jo que bien, sentitzen nintzen super ondo... nola ez nuen ikusten eta bizitzen kanpokoia ba zan como mi mundo es este, ulertzen? Eta ni bizi naiz hemen orain. **Sara**

Xunek ere harreman lesbikoak izateko garaian espetxean babes handiagoa sentitzen zuela ematen du aditzera, kale egoeran normatiboa ez zen harremanean egotea gogorragoa egin zitzaiola adierazten baitu.

Ba denagatik. Ze kurioa da baina hor konturatzen zara, borroka bat dela harreman hori. Ez duzu maitatzen sin más. Defendatu behar duzu. Maitasun hori defendatu behar duzu. Orduan egon behar duzu beti, pues borrokan. Gizartearen aurrean, zu zoaz zure banderarekin denbora guztian, kaletik eskua emonda bazoaz, edo familiari esatean... barruan bizi izan nuen sin ningún problema. Funtzionarioak zer pentsatzen zuten me la traía al paio. Ni nengoen super pozik, maiteminduta, qué estás en globo, qué solo ves corazones y globos. Baina gero irtetea globo horretatik, kalean egin zitzaidan oso gogorra, gizartearen presioa. **Xune**

Horrekin batera, gutun bidezko harreman afektibo sexualak izateko edo zer diren ikasteko garaia ere izan da kartzelakoa. Batzuk gutun-truke erotikoez gozatzen zuten harreman mota horretara mugatuz. Beste kasu batzuetan harreman afektiboek ireki zioten bidea geroko truke erotikoei.

Ni sartu nintzenean, kideak entzuten nituen gutun bidezko maitasun eta bikote harremanez hitz egiten, eta burutik jota zeudela iruditzen zitzaidan. Nola da posible?! Garaian kalean ere eztabaida hori pil-pilean zegoen, ia interneteko citas a ciegas horiekin ligatzea ondo dagoen ala ez, posible dan ala ze arraio. Berria zan hori guzti hori. Eta niri, kideak kontatzen zizkidaten gauzak antzerako paresido iruditzen zitzaidan e?! Ez nituen epaitu nahi, baina hori niretzat ez zela argi neukan. Urte batzuetara baina, ni neu maitemindu nintzen gutun bidez. Ai la ostia, amigaaaa! Bakardadea, afektu beharra, espetxeko egunerokotik ihes egiteko premia, jende berriarekiko bidea egin nahia... ni ideaaaaa, auskalo. Baina uste dut ziur aski, espetxean holako behar handiak genituela ze... horrek,

erreztu egiten zuela dena. Ez dakit kartzelako bikote horien helburua bizi proiektua egitea zen ala ez... ez dakit. Bueno batzuk egin dute, batzuk haurrak eta dena ekarri dituzte. Gero banatu, edo batera jarraitu dute. Ez dakit zer esan... gazteak ginen eta bikotearen gaiari garrantzi handia ematen genion... nire ustez kalean baino gehiago. Kalean dena zen borroka eta borroka... eta bai, bikotetzen ginen, baina ez genion horrenbeste inportantzia emoten igual? Ez nago ziur. Baina barruan bikotea izatea bizi-poza izateko modu bat zen... egunerokoa alaitu, berezi sentitu eta zerbaiten irrikan eta esperoan egoteko modu bat, aliziente plus bat izatea, estimulu potente bat. A saber. Kaleko lagunek ere flipatu egiten zutela esango nuke, kar kar. **Lili**

Hala ere, ez ziren denak maitasun eta sexualitate munduan borroka aritu. Bada, espetxea, sexualitatearen apaltze bat eta ezintasun bat bezala bizi izan dutenak. Haien esperientziatik desagertutako eremu gisa deskribatu dutenak. Sentimendu gaziz, baina baita gozoz. Beste gorputzekiko desiragarri agertu behar izate horretatik aldentzea, gustura hartu izan zutenak.

Gorputz esperientziarekin lotutako beste bizipenentzako garaia ere izan zen kartzelakoa. Belaunaldi horietako emakumeengan\*, haurtzaro eta gaztetasunean kirola ez zen bereziki hauspotzen zen gauza. Frankismo garaiko emakume\* belaunaldietan baino gehiago bultzatzen zen, saski-baloï eta boley emakume\* taldeak zeuden herrietan, baina ez zuen gaur egungo hauspotze eta baldintzekin zerikusirik. Zentzu horretan, batek baino gehiagok kirolarekin lehen harreman estu eta jarraitua espetxean izan du. Eta plazer iturri izateaz gain, haien-gure gorputzarekiko kontrol bide (De Graaf, 2013) eta biziraupenerako tresna ere izan da, ihesbide bilakatu zaielako-zaigulako hainbatetan (Fornons eta Barcelona, 2008; Martinez et al.,-2015; Ozano, 2008).

Estetikoki aldaketak egiteko, estetikarekin jolasteko (g)une ere izan da. Besteen arropak jantziz, ile orrazkera edo mozketak berriak frogatzeko. Kalean aluak depilatuak eramaten zirela eta, denek alua depilatu eta elkarri zelako alu ezberdinak zituzten erakusten ibili zirela kontatzen du batek, esate baterako. Beste kasu batzuetan, klandestinitatean norberaren itxurari egindako horrenbeste aldaketen ostean, gustuko, betiko edo propio sentitzen den gorputz eta itxurara itzultzeko (g)une bilakatu zen espetxea.

Hitz batean esanda, kartzelan haien gorputz eta sexualitatearekin harremanetan egoteko modua aldatu egin zen, tartean gozatzeko era berriei leku egin zieten biziara izan zuten. Esperimentazioari leku egin eta alde aurretik uste ez zuten tokietara ailegatzearaino. Eta horretarako espetxea bide-lagun eta babes-leku eta gune izan ere izan da. Jauzi horiek emateko beharrezkoak ziren baldintzak aurkitu dituztelako bertan. Aurrekoa baieztatzeak ez du esan nahi, espetxeak pertsonen sexualitatea ez duenik mintzen, moteltzen, pobretzen eta kamusten. Testuingurua hori izanik ere, batzuek egin zuten bidea agertzea baino ez dut helburu.

#### 10.3.5. Borrokarako eta hazkuntza militanterako etengabeko aroa

Kasu askotan, espetxea bizitzaren joaneko etena baino, edo hobe esanda, eten horrekin batera militantzia politikoa garatzeko modu batzuen etena (ere) izan zen.

Oso ondo gogoratzen dut kide batek, lehen bi urteak haserre pasa zituela. Ta bakizu zergatik zen? Ba erori zelako. Horrekin zegoen haserre, ez zuen onartzen atxilo zegoenik, bere «bidea amaitu» zenik. Eta orduan jarrera oldarkor eta tematiak zituen kartzelarekin... ez dakit nola esan, oraindik sasiko adrenalinarekin zegoela esango nuke. **Lili**

Hori dela eta, lehen kolpe horren ostean, bakoitzak bere erritmo eta estrategien bidez espetxe denbora garapen politikorako eta borroka politikorako esparru eta denbora bilakatuko du. Izan ere, EPPKko partaide izatea, arestian ikusi dugun moduan, Euskal Herriko prozesu politikoei ekarpena egiteko bizi-baldintza hobeen aldeko lana egiteko hautatu zuten.

Eta Alcalá Mecon, espetxeratu berrien dinamikarekin... edozein borroka kriston grinaz hartuta, kaleko ritmoaren pare kasi kasi. Txapeoak, eserialdiak... Alcaláko espetxealdi osoa, uste dut bi urte izan zirela, parteekin egin nuen, o sea, nik ez nuen piszina... uste dut behin sartu nintzela eta eskapatu nintzelako, bestela beti parteekin. (...) Ze han egonda ere nahi duzu zure izaera garatu eta horrek dauzkan alde gazi gozoekin. Baina alde... elkartasuna zer den, elkarlaguntza, elkarren ardura... egoera zail batean ezagutzea pues lujo bat da, jendeak erantzuten dugunean. Eta... baina kontrari alde txarra, ba ezagutzea bizitza honetan zer den gizarte honetan, o sea, espetxe barruko gizartean eguneroko bortizkeria, eguneroko zapalkuntzak, nola ematen diren bereizkeriak pertsona batzuk eta besteen artean, zer den kartzelero poliziaren papela... zer den gizarte estamendu bat markatzea. (...) Zer den preso egotea Espainiako gartzela batean. Eta aldiz kontrari berriz esango dut, militante... askatasunaren aldeko militanteak zer diren, edozein egoeratan ere, bufa... marabillak egin nahi dituztenak, eta ia kasi batzuetan lortu. Eta horretarako izaera indartsuak edo... izaerari nola eutsi indarrez. (...) Ba egunero algaraka egotea, o sea, gauza xumea bezala. Egunero algaraka esan nahi dut, eta planteatzen diren borroketan tinko, eta maite duzun jendearekiko harremanetan estu. Eta horretarako zure burua trebatzen, eta pentsatzen ez zenuen egoerei aurre egiten eta... espetxean dauden baliabide gutxiekin, o sea, berez fisikoki zer dira jarduerak? Egin litezke eskulan eskasak eta kideekin harremanak. . Baina dauden baldintza horietan nola ezagutzen duzun gehiago zeure burua eta osasuna eta zure izaera, zure... eta hortik nola lortzen duzun garatzea, maila indibidualean eta... borroka indibidualean eta borroka kolektiboan. Ez dakit horrela parrastada batean. Nola hor egonda ere ez diozun uzten somatzen askatasun haizea. Bai. (...) Gauza polita zan Alcalá, gazte erakundeko kide pila zeudenez, formakuntzari zelako arreta jartzen genion. Azkenean egin genuen laupabost kideren taldetxo bat eta ostras, una escuela marxista de formación, egin genuen hor. **Lua**

Modu antolatuan edo auto-didaktan, jarraikortasunez ala ez, sinesmen osoz ala zalantzati, baina kartzelan haien burua militante politiko gisa sentitzen jarraitu zutela agerikoa da. Ez dute espetxea konpromiso politikoaren etentzat jotzen, borrokatzeko baldintza eta helburu zehatzen aldaketatzat baino ez. Espetxean bizirautea eta espetxe politikoaren politika ankerrari bizirautea nahiko garaipen politiko eta pertsonaltzat duten arren, praktika hori hasi eta hazirazi dituen beste garapen politikoekin batera kokatu dute. Hau da, horrekin batera bizi izan dituzten egoerek, izan dituzten eztabaidek, landu dituzten irakurgaiak eta gozatutako elkarrizketek politikoki heldutasuna eta garapena ekarri zirela diote. Liburuak edo beste irakurgaiak elkarri gomendatzea, erraztea eta komentatzea posible egiten zuen harreman sarea garatu baitzuten, azkenerako haien kapital kultural-politiko handituz. Interes- guneak ez dira denentzat ezta beti berberak izan, ekologia dela, euskara, memoria historikoa, feminismoa, historia, ekonomia edo internazionalismoa, abanikoa zabala zen. Gaur egungo begiradatik, sare sozialetako afinitate talde modukoa osatuko lukete, edo formazio eskola iraunkorra.

Espetxea erresistentziarako eskolatzat dute, konpromiso maila eta hausnarketa maila oso desberdinetako kideen arteko truke hutsetik sortzen den hazkuntza militantea. Aurkaria hurbiletik eta bere sakontasunean ezagutzetik abiatzen zen hazkuntza politikoa. Pertsona hobeagoa bihurtu, militante politiko osoagoa egin eta garatzeko (g)unetzat. Nahiz eta espetxealdi osoan ez dituzten horretarako baldintza berdinak izan, ezta sarri askotan egokienak ere. Hala ere, espetxeak ezartzen zizkien bidegurutzeak eta txantaiak gainditu, ezarri erronkei aurre egitea bera, hazkuntza militantetzat dute.

### 10.3.6. Balantze kritikoetarako sasoia

Presondegi garaia hausnarketarako garaia izan zuten-genuen. Zentzu horretan garai mugarrria izan zela ere esan daiteke. Hori baieztatzen arren, hala ere, ezin dugu begi-bistatik galdu, atal honen hasieran azaldutako kokapena, alegia hamabost urtetik beherako espetxealdiez ari garela eta gutxi gorabehera bost urteko kaleratze eskarmentua zutela parte hartu dutela ikerketan.

Hausnarketa horiek haien ordura arteko engaiamendu politikoaz, kultura militanteaz, lehenetsunez, beldurrez eta haien erabakien ondorioez izan dira kasu askotan. *Militantzia egoista da, ze zauri eragiten dituen maite zaituen komunitatean, espetxean horretaz ere pentsatzen duzu modukoei, beldurrak geratzean agertu zitzaizkidan, ez lehenago. Espetxeak dakarren gelditzeak zer pentsa handia ematen dizu bezalakoak gehitu zaizkio. Baita erabaki borobilak edo ziurtasun berriak ere kartzela garaian gehiago nituen proiektu pertsonalak politikoak baino. Hor egon zan aldaketa bat.*

Baina ez da militantzia egiteko modua edo militantziaren lehenetsun maila hausnargai egongo den bakarra. Kasu batzuetan, kideekiko eta bikote harremanez espero zutena eta errealtatean gertatu zitzaienaren arteko talka espetxe garaian eman baitzen. Beraz, norberaren bizipenetik abiatuta ala beste kideenetik, feminismorantz lerratuko dituen haustura modukoak bizi zituzten. Beste kasu batzuetan, talka hori, lehenago bizi izan zuten, baina kartzelan egon arte, gaia haien buruarekin eta besteekin modu partekatuan lantzeko aukera gabe egonak ziren; hortaz, espetxean egin izan zuten bide hori. Horrek, haien proiektu politikoan emakumeek\* duten tokiaz, horren inguruan duten minaz, eta eraiki nahiko zuketenen herri eta mugimendu politikoaz aritzera eramanez zituen batzuk.

Izan ere, egoera politikoaz hausnartzea, Ezker abertzalea hartzen ari zen erabakiez, estrategia politiko-armatuaren garapenez eta egokitasunaz aritzea konstante bat zen. Batzuk, gogoeta horietan aritzea oso gustukoa zuten, eta beste batzuk prentsa irakurtze hutsarekin nahikoa zuten, eta batzuetan ezta hori.

Laburbilduz, espetxeko etenak atzerako eta aurrerako begirada piztu zien, ziegako gogoetei patioetako emakume\* arteko elkarriketa luzeak gehituz, mamitsua izan zen garaia ekarri zien,

eta geroko kale bizimodu berrituan gogoeta horiek eragina izan dute. Bikote harremanen aferan ere, maitasun erromantikoaren bertsio iraultzaileak eta haien benetako esperientziaren arteko hausturak, zer hausnartu handia ekarri zien. Kasu askotan, horiek guztiak feminista bilakatzeko prozesuan oharkabeko mugarri izan dira. Zentzu horretan, parekorik ez duen entzierroko denbora biziak eta dentsuak, norabide askatzailean, eta ez espetxeak aurreikusi norabidean, gertatutako eraldaketarako une ere izan dira. Preseski, geroko bizimoduan eragina izango duten aldaketak, bistan da.

#### 10.4. Espetxe-zigor baten ibilbidea

Espetxealdi bakoitza oso ibilbide pertsonala bilakatzen da. Pertsona bakoitzari bere harreman sareari lotuta denetarik kausitu dakiok: heriotzak, istripuak, haserreak, maitemintzeak, bikote apurketak, jeloskortasunak, gaixotasunak... Alegia, beste hainbaten ahaide-sarean gerta daitezkeen gauzak. Horiek espetxetik bizitzea beste kontu bat da, ordea. Atal honetan, , mugarri mota horien bizipenean baino, espetxe egiturari lotuta dauden beste mugarrietan jarriko dut arreta. Funtsean, espetxealdi baten definizioan badaudelako bai ala bai (gehienetan), presoak igaro beharko dituen egoerak, kasu honetan preso politikoei ezartzen zaien derrigorrezko ibilbidea zein den erakutsiko dut. Espetxe sarrera horietako bat da, eta gehienetan irteera, nahiz ta espetxean esaten den bezala, *kartzelara noiz sartzen zaren badakizu, atera aldiz ez*. Espetxe zigorra handituz joan daiteke behin barruan zaudela, espetxe egoeran geratu daitezkeen hainbat afera medioa. Baina bizirik ez ateratzea ere aukera bat da, eta zuzenean ala zeharka, aitortu ala ez aitortu, preso politikoen buruak zeharkatu dituen mamua ere bada.

Baina sarrera eta irteeraz gain, preso politikoei espetxe aldaketa edo kunda biziko du. Kideen agur behartu mingarriak, hil ala bizikoa den muturreko egoeraren bat, txikituta sentituko den uneraren bat eta bakartzea. Zaila da mugarri horiek bizi izan ez dituen emakume\* preso politikorik aurkitzea. Are gehiago, espetxealdiaren arabera, horiek behin baino gehiagotan gerta daitezke, espetxeratzea behin baino gehiagotan eman daitezkeen moduan.

Hurrengo lerroetan ibilbide horretako geltoki ezberdinetara hurbilduko gara. Horiek bizitzeko modua, sortutako esanahiak edo garatutako estrategiak ezagutzeko. Eta azken batean, preso politikoei ezartzen zaien ibilbideak, bahitu politiko izatearekin lotzen dela ikusiko dugu. Hau da, haien ibilbideek ez direla espetxe lege eta presoaren eskubideekin lotuta garatzen. Gatazka politiko armatu bateko indar harremanen arabera, ibilbide bat ala beste ezarriko zaiela baizik. Haien horrela bizi zutela ikusiko dugu, eta haien arteko elkartasun eta harremanak trantze horri aurre egiteko saiakera zirela.



10.4.1. Espetxera sartzea: «Orain hemen zaude».

Goffman (2001) niaren mortifikazioaz mintzo zen, erakunde total eta itxiek ezartzen duten prozesu gisa. Miriam Camposek, niaren mortifikazioa espetxea zapaldu eta batera gertatzen dela erakusten digu. Torturatik igaro denarentzat lan hori polizia etxeetan egina izan den arren, espetxean errepikatu egingo da. Espetxean sartzea, bi munduen arteko trantsizioa delako ezartzen zaiona presoari.

Urdinek<sup>318</sup> bertan eman ziguten «harrera» daukat nire lehenengo bizipen bezala: deshumanizazioa eta umilazioa, emakume eta pertsona bezala zenituen segurtasun harresi guztiak suntsitzen saiatzea: zure arropak erantzi, biluztu, kartzelak emandako buzoa jantzi, ziega zikin eta ilun batean sartu. **Miriam Campos**

Komisaldegiko etengabeko gau ilunen eta espetxe-sarrera moduluan egindako egunen ostean, harrizten bazaitu ere, zeure zain zeuden kideak ikusiko dituzu zu besarkatzeko zain. Batzuetan baita atean ere. Babes emozionala, babes politikoa, babes fisikoa eta materiala. Arropa, garbitasunerako estera berdea, lejia, eskaerak egiteko instantziak, kafetxo beroa eta Martínez markako goxoren bat, ordutegien azalpena, torturen testigantza egiteko papera eta boligrafoa, partxis partida bat, oinarrizko eskubideen berri eman, besarkada, familiako telefonoa haien etxeko bidez abisua emateko, txantxaren bat... horien artean egingo ditu preso politikoak lehen egun eta asteak.

Ba nitzat kristona da, iruditzen zait, bueno izugarritzko kideekin. Nik uste dut denoi gertatzen zaigula hori, topatzen dituzun lehen kideak, oroitzen dituzula izugarritzko...gero guztiak funtsean, joaten zara familia, partaideak joaten dira aldatzen baina familiak jarraitzen du hor. Baina lehenengo kide horiek izan ziran, bueno niretzako como derrepente zortzi ama izatea. (...) desde nere lehen bisita, de -ezin dezu joan horrela bisitara, tori nere alkondara, jantzi, orraztu, margotu marra. -baina inoiz ez naiz margotu... -ba gaur bai). Oso gogorra egin zitzaidan ere 20 minutuko lehen bisita hori (...) etorri zirela kristalera. Igual une horretan ama gogorrena izan zan, ze ez zuen ezta malko bat bota, eta nere aita egon zan 20 minututan negarrez, ezin zun ahoa ireki. Negarrez eta parrez, holako... oso gogorra egin zitzaidan ze aita ikusten nuen orokorrean oso indartsua, el más indartsu de la familia eta... Gogoratzen dut kide batek esan zidala joan baino lehen lokutorioetara, erabat mozorrotuta, ze arroparik ere ez nuen, ta baten alkondara ta bestearen praka, ta gogoratzen dut esan zidala: «Ezin dezu negarrik egin e?! ezta malko bat ere. aguantatu aguantatu». Eskerrak 20 minutu izan ziren, ta aguantatu nuen negarrik egin gabe, eta nire aita horrela ikusita! (...) Eta... eta hori gogoratzen dut. Ta gogoratzen dut, atara nintzala lokutorioetatikan, eta hasi nintzala negar batean. Gogoratzen dut erori nintzala desplomatuta lurrera...**Lur**

Ahaztea zailak diren lehen bisitak, gurasoekin bisita. Dena esaten duten begirada horiek. Mina, kezka, haserrea, harrotasuna, beldurra eta amorruek kristal lodia zeharkatu nahirik. Behartutako irribarreak, elkar lasaitzeko hitzak. Zer esango, zer pentsako horretan murgilduta. Elkar sostengatzeko ariketa kolektiboa. Etxekoekin egiten dena eta kideek norberarekin egiten dutena. Eta pixkanaka tokira egiten doa preso, eta horretan saiatzen dira ondokoak.

Ni inoiz ez nihoan patiotik begira nere ingurura, zoaz zure munduan, eta zure mundua da zure oroimenak. Ze ni gehiago elikatu naiz oroimenez, etorkizunaz baino. Nik ez det etorkizunaz pentsatu edo proiektatu haurdun geratu arte. (...) hori kide zaharrek beti esaten zieten kide sartu berriei: -ipini oinak lurrean, ez egon pentsatzen kalean, edo baldintzapeko askatasuna edo holakoetan. Vamos burua kalean zutenak, oso txarto pasatzen zuten. Ta ni da gauza bat hasieratikan argi nuena, gainera uste nuen amnistia egunera arte izango nuela beraz, situatu nintzan han. Gainera nengoen super goxo, etxean banengoen bezela. Eta bueno, ba hemen biziko naiz. Horrela egin nuen. Ikusi dut sufritzen asko asko jendea burua kanpoan zuna. Ta ondorio larriak ere. beraz niretzat inportantea izan da hori: aklimatatu eta egitea unean tokira **Lur**.

Ez nekien noiz epaituko gintuzten, eta zenbat urte erori al zitzaizkidan. Badakizu, egoera politikoaren arabera 15 urte ala hurrengo egunean kalera. Egoera politikoa ez zen ona, gaiztotuta zegoen, beraz burua txarrenera egiten hasi nintzen. Kide gehienak hori onena zela esaten zidaten. **Lili**

Beraz zenbat iraun zezakeen orainaldi horri lotzea zen gomendagarriena. Egunez egun egiten zen orainaldia. Biharkoa galdera ikurra denean, hobe etengabe hedatu eta zabaltzen den orainean iltzatu. Amets edo ilusio faltsuei ez lotu. Geroa ziurtasuna izatetik urrun dagoenean, unean zeukaten leku horretan kokatzeko egin ahalak egin behar zirela azpimarratzen dute. Espetxean egonda bizi-proiektuak abiatzea, ama egitea bezala adibidez, geroago datorren gauza omen da.

#### 10.4.2. Espetxe aldaketak. «Recoja sus cosas que se va de conducción»

Espetxe batetik besterako mugimenduak tortura eta zigor erantsia bilakatzen ziren askotan. Presoentzat *kunda zena* eta langileentzat *conducción*, ez zen beti baldintza berdinetan egingo ezta berdin biziko. Baina modu batera edo bestera, ez da zaila izango gorputza muturrerarte tenkatzearen ondorioz, barrenak apurtuta iristea *destino* berrira.

Bapateko *recoja sus cosas* baten bidez jakingo du presoak beste norabaitera daramatela. Normalki, gauean eman ohi zitzaien abixua, ziegak itxita zeudela, ezinbeste kideaz agurtu, ezta etxekoei jakinarazi ere. Presa eta larritasun handiz, bere egin nahi izan duzun ziega desegin beharko du. Eta kostala ala kostala, norberaren ondasun guztiak rafiazko pakete horietako batean sartu<sup>319</sup>. Burua abiadura handian martxan hasiko da holakoetan: «-Nora naramate? Zer eraman dezaket hemendik beste kartzelara? Etxeko izarak, kalientaletxesa, musika kasetak eta argazkiak hobe neuk eramatea. -Zer utziko diet kideei? Zer utzi hemen haiek nire familiari ateratzeko? -Ze klima egingo du han? Iparralde, hegoalde ala nora naramaten ere ez badakit. -Zer datorkit aurrerantzean? -Kiderik egongo al da han? -Ea zelako guardia zibil txanda tokatzen zaidan». Galderak barra-barra, eta segurantzak bat ere ez. Bidean hiru egun ala astebete egingo dugula. Ala hilabete. Izan ere kunda-berezi eta zuzenak daude edota arruntak. Bigarren horien kasuan, penintsulan zehar alde zuzenetik ezarritako ibilbideak dituzte, eta bidean lotarako espetxe ezberdinetan sartuko dute

---

319 Espetxean objektuekiko garatzen den harremana aztertzea interesgarria izan daiteke etorkizuneko ikerketei begira. Ondasunak gutxi dira, eta beraz, objektuei eragiten zaizkien transformazioak, funtzio aldaketak edo horien zirkulazioa eta horiekiko atxikimendua, eta hartzen duten esanahia aztertzea oso emankorra izan dakiguke.

presoa. Eta horrela konbinazio ezberdinen bidez ezarri dioten bere helmuga berrira iritsiko da. Tarte horretan guztian, jan eta edateko zailtasunekin egingo ditugu egunak, kaiola txikiz osatutako furgoneta handietan edo *kanguruetan*, eskuburdinekin eskuak atzean lotuta bizkarreko mina, goragalea eta kolpeak biltzen errebuelta bakoitzean.

Ama hil ostean, aitarengana igo ninduten hilabeteetara. 10 urte neraman aita ikusi gabe, badakizu, ezin zuten horrelako urrun bidaiatu aita-amek. Bueno ba bidaiari apurtu nintzen, transitoan, transitoan. Ni bizkarreko min handiz, ezin nuen oinez egin, paketea eraman behar, lau hankatan heldu nintzen. Etzanda idazten nuen, eta ni subdirektore medikuari, todo kristori idazten. Ezin nuen patiora irten. Ziegan 24 ordu, hotzak jota, burua galtzear. Ziegako 10 zentimetroko leihitilatxotik ikusten zaitu medikuak... bueno! Ez daukat hitzik. **Lili**

Behin suertea izan nuen, eta bost bat ordu eta gero espetxe berrian nengoen. Bidai guztia ondoan nuen sozialari galdezka egin nuen, ia erlauntza ditudien zuloz betetako leihotxu horretatik ze zuhaitz mota ikusten dituen galdezka, peninsulako ekialde, hegoalde ala mendebaldera nihoan jakin nahirik. Eta jo eta preso sozialak ipar eta hegoaren noziorik ere ez zuen, ba atara kontuak zer zekien zuhaitzez! Mekauendie! Ba total... ailegatu ginen Alicantera. Eta hantxe gela batean sartuta, neu bakarrik. Ezer gabe. Afaririk ez, funtzionarioirik ez. Rekuento orduan ohartu ziren nitaz ahaztuta zeudela. Ordurako zenbatuak nituen baldosak mila aldiz. Aspertua nengoen neure etorkizun berriaz erantzun gabeko galderaz egiteaz. **Lili**

Leku aldaketa bakoitzak presoaren bizitza suspentsioan jartzen zuen. Biziko zen geografia, kultura, arautegia eta espetxe-giroaren aldaketa zekarren. Pertsona berriak, dela presoen artean, funtzionarioen artean, eta egotekotan, baita kideen artean ere. Espetxe azpiegitura desberdina, egitura tradizionala ala espetxe tipoa izanda ere. Ordura arteko ezagutza domestiko askok ez diote balioko, berriro berriak egin beharko ditu. Beste horrenbeste pertsonekin: funtzionario txanda *onak* eta *txarrak* ikasi, preso sozialen arteko botere harremanak eta saltsak ezagutu; norekin lortu ditzake jogurt batzuk, norekin kiwiak, norekin beste kideekin komunikatzea, norekin fido ahalko den, norekin elkarrizketa bat izan, norekin kirola egin patioan eta abar luzea. Atzera ere, berregokitzeko lanak egin beharko ditu eta bere indar guztia jarriko du horretan. Albait azkarren egokitua eta bertakotua egoteko, zapaltzen duen lurra mugitzen ari zaiola sentitzeari uzteko. Espetxe aldaketa hautatu ez duzun. gustuko ez duzun baina zeure egin behar duzun toki batetik, hautatu ez duzun beste batetarako trantsitua da. Onerako izan daiteke ala txarrerako. Ala ez bata ezta bestea ere. Espetxea norberaren bizitza barruko parentesia bada, lekualdaketa espetxe-bizitzako parentesia. Parentesiaren parentesia. Aldiro gertatzen den deserrotzea eta ber-errotze behartuak. Ez lekuaren ez-lekua. Aparteko denbora barruko aparteko denboraren barruan. Eguneroko jarraituaren eten bortitza eta bapatekoa. Pertsonaren proiektu eta egunerokoak suspentsioan geratu eta erabat espetxe subjektioaren menpe geratzen den egoera da.

Hara eraman nindutenean, buf! Buruari bueltaka, eta bueltaka:-zergatik ekarriko naute hona? Arrazoi administratibo hutsa da ala hango borrokaldiagatik mendekua hartu nahi dute? Eta klaro, inoiz ez dakizu egoera hori zenbat luzatuko den. Beraz, zeure burua berriro kokatu, zeure burua ezezagunari aurre egiteko prestatu, aurrera egiteko estrategia bat hautatu. Nekagarria. Total, total. **Lili**

Leku aldaketa fisikoa egun bat, bi aste bete ala hilabetez luzatu daiteke. Tartean, egunak igaro daitezke, preso hori non dagoen inortxok ez dakiela; preso politikoei helmuga espetxea ez jakinaraztea espetxeak segurtasun arrazoiekin azaltzen duen arren, preso bere bakardadean berriz ere espetxe egitura bortitzaren aurrean eta menpe sentiarazteko bitarteko bilakatzen da. Hor nonbait, norberaren orain eta etorkizunaz hausnartzen eta erabakitzen diharduen norbait badela ber-gogoratzeko modua. Azken batean, preso politikoen leku aldaketak zigor gisa erabili direla ulertzen dute ikerketa honetako kasuan bakoitzak lau espetxetik gora ezagutu ditu. Espetxe batetako moduluan, ziega ezberdinak ezagutu dituzten moduan. Leku aldaketak, preso politiko izatearekin datorren zerbait izan dela agerian utziz.

#### 10.4.3. Erditu naiz, erdibitu naute. «Tu no los conoces».

Espetxea eguneroko borroka da. Egunik onenean ere, ia norbera ohartu gabe ere, borrokan ari da preso politikoa. Oraingo honetan ez gabiltza gose-greba, liskar edo helegite itxura har dezakeen borrokei buruz. Baizik eta bakoitzak bere buruarekin izan ohi duen horretaz. Inposatzen zaion espetxe baldintzei aurre egiteko, egunero-egunero, nonbaitetik indarrak atera behar izate horretaz. Ez etsitzeko borroka isil eta etengabea.

Hala ere, badira gertaera, une edo egoera batzuk non preso erabat zaugarri sentituko den. Bere bizitza, osasuna eta etorkizuna erabat *etsaiaren* menpe daudena sentituko duena. Presoaren egunerokoa, osasuna eta etorkizuna beti daude espetxe egituraren menpe. Eta intentsitate handiagoz ala gutxiagoz, presoak hori jakin badaki. Hala ere, presoak bere autonomia garatzeko saiakera egiten du, dela modu indibidualean, dela modu kolektiboan. Beraz, preso biziko bada, espetxe egiturari norberaren bizitzaren gainean duen ahalmen hori kentzen edo gutxitzen saiatuko da.

Hori horrela izanda ere, botere harremanen soka izugarri estutzen den uneren bat bizitzea ia saihestezina izango da. Sokaren beste muturra oso ikusgarria zaiguna, estuki eta gertu lotuta gaituztela sentituko duguna. Eta hortik ihes egiten saiatuko da preso, baina errealitate hori inposatu egingo zaio. Inpotentziaz itozteko moduko egoera horiek, lehen pertsonan bizi daitezke edo beste norbaiten bidez; kasu honetan haurra edo beste preso baten bidez.

Erditu nun bi aste beranduago, probokatu zidaten, bueno eman zidaten oxitocina dilatatzeko. No tenía contracciones. Orduan fetoa ez lehortzeko eman zidaten oxitocina. Erditu nuen ostegun bat eta arratsaldeko 5:20tan eta hurrengo goizeko 8:00tan medikua pasatu zenean alta boluntario eskatu nion. Ze esan zuten, aditu nien txakurrei ke me iban a llevar al penitenciario, eta umea neonatos-en utziko zutela.. ta klaro nik gau osoa hola (besarkada gestoa egiten du) umearekin... ta goizian etorri zanean medikua esan nion: -nik espetxera joan nahi dut. -Baina zer esaten dezu?, medikuak flipatuta. -Sabes lo que estás diciendo? Y yo: -que sí, que quiero ir a la carcel. Ta bera: ¿Pero cómo? -Que sí, que no quiero estar aquí, que me han dicho que van a...-que no te van a quitar al niño. Ta nik: tú no les conoces. Sí me van a quitar al niño. Beraiek esaten baldin badute que me llevan aquí, me llevan. O sea, tipoarekin diskutitzen, baina ondo, e? Ta esan zidan: bueno yo lo que tú me digas, eta onartu zuen. Ni medikua... o sea, berez itxoin behar duzu 48 ordu. Baina nik bajo

mi responsabilidad pero quiero ir a la cárcel. Txakurrak ari ziren hitz egiten beraien artean, baina esaten dute zuk aditzeko (...) Nere gurasoak azaldu ziran, ze ni egon nintzan hor, ingresatu nuen astearte bat. Eraman ninduten guardia zibilez inguratuta, esposatuta y con un tripon, la bolsa y todo. Eta aditu nuen nire aitaren eztula, eta egin nuen hola eta esan nion: -aitaaa! Eta eskatu nien uzteko pixkat, eta ez zidaten utzi ni ni... arrimatzen. Eta beraiek ibili ziran kamuflatuta bezala ospitaletikan. Ospitaleko jendea oso ondo portatu zan beraiekin: ei que la suben parriba. Ta beraiek gora. Que la bajan pabajo, ta beraiek behera. Enfermerak eta gurasoekin konplizitate hori bilatu zuten, pena sentitzen zuten edo ez dakit, baina ondo portatu ziran, oso humanamente. Ta gero bebai, umea jaio zanean, ba klaro niri ez zidaten uzten joaten a lo de las vacunas... mugitu behar zutenean umea, umea bakarrik mugitzen zuten, niri ez zidaten uzten. Baina nere ama edo gurasoei abixatzen zieten enfermerak, umearekin egoteko. Ta nik esaten nion amari: ama no le pierdas de vista. Gogoratzen dut esaten niola, bai. Gero utzi zidaten egoten gurasoekin, 15 minutos con mi padre y 15 minutos con mi madre. Ez zidatela gehiago ematen (...) eta izan zan de reloj, cronometraos, besterik ez nun ikusi. Ta esan nion amari, kentzen badidate umea, no lo perdais de vista mesedez... ta horrela izan zen, gau guztia atea irekita, guardia zibilak pasilloan... ta etorri ziren enfermeroak atentzioa deitzera, que no hablaran tan alto. Ta sartzen ziran ta ateratzen ziran... ta ni umearekin hola (berriro besarkada keinua egiten du), sentada en una silla. Izugarrizko beldurra pasatu nun... hartu nuen umea, ta hola, nik umea ez nuen askatzen. Beraz esnea espetxera heldu arte ez zitzaidan jeitsi. Bai bai, espetxean de golpe igo zitzaidan, kriston mina pasatu nun. Hirugarren egunean, claro con los nervios. (...) Espetxera iritsi nintzanean, ez zidaten utzi txaboloan geratzen ere ez e? behartu ninduten jeisten txabolotikan, ta nengoen recien parida, ni 24 horas... punto bakar bat eman zidaten, ze ondo joan zan, baina lehenengo astean ibili nintzan, vamos... prrr... ezin nintzan oso ondo ibili. Oso gogorra, oso bakarrik sentitzen zera. Oso oso oso...

Presoaren biografian garrantzia handia hartzen duten egoeretan; erditzea, gaixotasun larriren bat, ebakuntzaren bat, edo senideren baten heriotzaren aurrean, preso politikoak bere egoera bere aurka antolatua izan den egitura baten menpe dagoela garbi sentituko du, eta ahal dela espetxe erakundeak horrela gogoraraziko dio. Eta horrek, indarrak xahutzen ditu.

Gogo gabe egotea, zentzua zuenari zentzurik ez ikustea, indarge sentitzea, indarge, indarge! Zenbat borrokatu behar da ba? Noiz arte? Zer da krudelkeri hau? Nola liteke? Honek horrela jarraitu behar al du ba? Noiz arte jarraituko dute gurekin nahi dutena egiten? Haien eskuetan naukate eta ahal duten eta etorkizunik mingotsena opa didate. Jendeak ez ditu ezagutzen, sinestezina den krudelkeria da hauena. Faxistak dira. Jendeak jakingo balu, munduak jakingo balu...Harrapatuta naukate, harrapatuta. Ze zaila den sentimendu hori azaltzea...zure gorputza haien eskuetan, etsaiaren eskuetan ikusten duzunean. Hementxe zeldan sartuta, hementxe naukate. Kartzelako koadernoak 2003ko apirila.

Baina badira espetxean, beste muturreko egoera batzuk, ez direnak eratoritzen zuzenean preso politiko izatearen kondiziotik. Baina hala ere, espetxe erakundearen des-humanizazio maila, kudeaketa kaxkarra eta biolentzia agerian uzten dituen. Hurrengo atalean ikusiko dugun moduan.

#### 10.4.4. Muturreko egoerak. «Pensar que tu vida estaba en manos de esa gente»

Lo más duro, algo que te genera esa sensación de bua, qué crudeza. Yo creo que tengo algunas cuantas, quiero decir que la cárcel está llena de eso. Lo que pasa es que entramos, nos amoldamos y todo nos parece natural. Un día que una chica que la chaparon en aislamiento y no se le ocurre otra cosa que prenderle fuego al colchón a ver si la sacaban, se le fue de las manos, lo quería sacar,

pero se le cayó encima, y estábamos todas allí solas, no había funcionaria en el módulo. Y me acuerdo gritando al *picoletto* (el de la garita): «Que se está quemando, que se está quemando todo el módulo». Todas en la ventana. Recuerdo esa impotencia tan grande, de pensar que tu vida estaba en manos de esa gente. Y se te puede ir en cualquier momento. Quiero decir obviamente dudaba de que a mí se me ocurriera prender fuego a un colchón, como *chinarte* o tomar lejía, no se me ocurriría hacer eso, pero sé que la vida estaba en manos de ellos. Fue muy *heavy*, porque además la oíamos gritar, «me quemo, me quemo». Nosotras gritábamos, *picábamos* puerta todas, y nada, no estaban. Se habían juntado todas y se abrían ido a otro modulo. Estábamos solas. Me acuerdo el *picoletto*, porque le veíamos, porque los muros allí son muy bajos. Y él estaba muy cerca, como de aquí a la puerta (40 metros). Él estaba desesperado. Gritando «que se está quemando, podéis mandar a alguien al puto modulo», desquiciado, y nosotras desquiciadas. Y esa impotencia de saber que alguien se está... (hiltzen esan nahi du) y no puedes hacer nada. Nada de nada. Nada de nada. Nada. Y no pasó nada de nada, además. Y se quemó, se hizo una avería de mil pares de narices, entera, cara, cuerpo... avería gordísima. Recuerdo esa impotencia como muy muy *gore*. (...) Destrozada la chiquita que era muy guapa, llena de quemaduras. Porque luego me volví a encontrar con ella al curso de los años. Y esta estuvo a punto de ahorcarse, estaba a punto de palmar. Esa sensación que no puedes hacer nada, no depende de ti, es horroroso, yo no se lo recomiendo a nadie. Y además en manos de quien estas, encima de que no estaban en el módulo... cuando llegaron, que estábamos histéricas perdidas, porque llevábamos mucho tiempo picando, igual unos 20 minutos o media hora. Picando, gritando... desde que empezó. No te puedo decir el tiempo. La actitud con la que ellas se comportaron después, en plan de «bueno ya vale. A calmarse». Me acuerdo de que sonaba una voz de un hombre, jefe de servicios gritando «bueno silencio o a la siguiente le pongo un puto parte». Que encima ni siquiera fueran ellas quienes abrieran la puerta, sino que abrieron a otras dos presas para que ellas abrieran la puerta y la sacaran de allí, porque el chavolo estaba lleno de humo. Pues sí. Esa sensación de decir: «sois una puta escoria y mi vida está en manos de esta escoria». Estoy en manos de esta escoria. No me acuerdo de que guardia fue, solo de esos pequeños detalles. De que nos gritaron para callarnos, porque nosotras estábamos indignadísimas y les decíamos «que no había nadie aquí, que nos habéis dejado solas». Y por supuesto, hubo gente que le dio ataque de ansiedad etc. Y no llevaron a nadie a enfermería, lo único fue amenazas. No recuerdo si dormimos o no, no recuerdo todo de aquel día, pero no recuerdo el después, para nada. Ni siquiera recuerdo lo que sentí después. **Lola**

Lolak ondo aipatzen duen moduan, espetxe bizitza eta beraz espetxealdia holako gertaera larriz beteta dago. Bakoitzak baditu bere ahaztezinezko gertaera eta gertaerak. Lolaren kontakizunean, preso bat etsituta edo bere gorputza borrokarako duen molde bakar bihurtzen denean, bere osasuna jokoan ipintzen ekiten duela ikusi dugu. Kasu honetan koltxoia erreaz, beste batzuetan gose grebekin edo zainak moztuz. Koltxoia erretzearen ekimena, eta Lolaren interpretazioaren arabera, eskuetatik joatea, nahi bada istripu bezala uler daiteke. Baina, emakumeen\* modulu osoa zaingo gabe uztea norberaren lan-funtzioak ez betetzea da. Tamalez, sarritan errepikatzen zen egoera izaten da, eta ez da ezagutzen langile horien aurkako lan espedienterik. Ez dira albistegietan agertzen. Baina, akaso, deshumanizatzaile eta bortitzena, egoera horrek eragin zuen kaos eta osasun krisia, mehatxu eta biolentziaz konpondu nahi izatea da.

#### 10.4.5. Bakartzeak. «Kontentzio handia».

Zortzigarren kapituluan ikusi dugu, estatu espainoleko espetxe ereduaren segurtasunaren altzora nola eta zergatik eraikitzen joan zen. Ikusi dugu, espetxeak gatazkatsutzat zituen presoak

isolatzeari ekiten ziola. Eta ikusi dugu, preso politikoak, erabateko bakartzera eramán zituztela 80ko hamarraldi amaieratik tesi honen idazketa unera arte. Urte luzez, beraz, Alemanian RAFekoekin egin bezala, edo egun AEBko gobernuak Guantanamo egin moduan; estatu Españolan estimulu gabeko bizimoduak eta isolatzeak arma politiko gisa zer ematen zuen aztertzerá ausartu zirela. 2000ko hamarkadan, egunean zehar inortxo ikusten ez zuten emakume\* presoak baziren.

(...)ez dakit ikusi nintzen oso hauskor ta..nirekin egin zezaketela nahi zutena, nahi zutena, nahi zuten guztia, osea, nahi zutena. Eta ez dakidana da nola atara nintzen hortik indemne, indemne. (...) Es que bizipen hori eta gero...hor nire hauskortasunarekin egin nuen topo eta...gogoratzen dut bolada horretan izan zala Ohiane Errazkinek bere buruaz beste egin zuenean, eta hori izan zen niretzat..ufff...ulertu nuen. Me quede flipada, ulertu nuen. Dije, ostia la primera vez que entiendo ha alguien que se suicida: eske amaitzen da mina, amaitzen da dena, guztia, el tormento se acaba. Es que el paraiso. Porque el tormento no se acaba sobando ni nada, al dia siguiente hay lo tienes. Eta se acaba, ostia...bua hor hasi zen ere...ezkututzen nituen artaziak eta...ze beldurra nuen e..en una bentolera me hago algo a mi misma, esto como va? Ze ez neukan asmorik, ez planeatzeko ez...baina ez nintzen Fido nire buruaz, ez nuen nire buruaren kontrola, nire burmuinarena. Izan zen infernua, infernua, infernua, infernua, (negarrez hasten da. Sotinka).Orain dela gutxi ba egiten ari diren fitxategia ta hori torturena...tan nik esan nien, osea benetan kartzelako aldia ere aztertu egin behar da. Nik komisaldegia oso ondo, baina kartzelan tortura zuria egon daaaa, osea. Gainera legez kontrakoa, ta berdín berdín. (komisaldegia baino txarrago? Galdetzen diot): Bai niretzat bai. Luzeagoa zen, Amaitezina zan, ez dakizu noiz amaituko den. Ez duzu zer eginik, gainera nik errekurtsio bat jarri nuen epaitegian, baina orduan jada epaitegia zegoen Audeintzia Nazionalan, eta desestimatu zuten eta zegoen reglamentu penitentiarioaern kontrakoa baina. Ze ezin da inor egon bakarrik, baina epaileak argi berdea eman zien, orduan jada duzun ziurgabetasuna ya da, totala. Hainbeste egun, eta hilabete eta urte. Es ke ezin dut, ezin dut ezta egun bat, ba zenbat geratzen zait niri hemen. **Xune**

Erabateko bakartzeekin batera, bakartze politiko sozial eta kultural sendodun prozesuak ere ezarri izan zaizkie preso politikei. Lilik horrek beregan eragin zuen prozesua azaltzen digu. Kasu honetan, bere azalpen guztiei egingo diet leku, kontatu ahala azterketa gaitasun handia erakusten duelako.

Gogoratzen dut lehen bakartzea, esan nahi dut preso politikoak ondoan ez izatea. Klaro ni nentorren Avilatik, han geunden kide pila bat, bakoitza bere bisita eta telefono deiekin, ba informazio joan etorri handia zegoen, informazio politikoa ere, esan nahi dut. Bakarrik zaudenean, zuk zure bisitak eta zure telefono deiak bakarrik dauzkazu, eta klaro horrek mugatzen du zure bizitza politikoa. Baina ez bakarrik politikoa. Ideiak, pentsamenduak garatzeko ahalmena ere. Kideren batekin zaudenean aberatsagoa da, zure iritziaren kontrakoa, edo desberdina dena, edo beste ertz bat edo ikuspuntu bat jartzen dizulako aurrean. Eta zeurea ere mingainean jar dezakezulako. Ze ideiak ahora pasatzen diren momentuan garapen bat ematen da pentsamenduetan. Aldiz bakarrik zaudenean, ni konturatzen nintzan garapenik gabe geratzen zitzaizkidala ideiak. Egunkaria irakurtzen nuen eta hor geratzen zen hausnarketa. Kideak egonik askoz abertasagoa izaten zen. Ikuspegi ezberdinak kontrastatzen zirelako. Patioetan, preso sozialen artean, inoiz gutxitan aurkitu dugu militante politiko izaera duenik, edo politika interesatzen zaionik, edo jarraitzen duenik, are gutxiago Euskal Herrikoa. Agian estatu espainolekoa apur bat, oso gainetik. Gu bizi izan garen patioetan, egia esan inork gutxik zekien nor zen espainiako gobernuko presidentea ere. Errealitate horretan bizi izan gara (...) Gainera irakurtzen zenuen liburu bat baina norekin komentatu? Edo nondik elikatu? Iritziak egiteko, mundua nola eraldatu den ikusteko...nondik elikatu? Espainiako telebista kaka bat da. Guk ez ditugu dokumentalak eta gauzak ikusi kalekoak bezala. Benetan, sujeto politiko bezala

ete...deuseztu nahi zaituzte, ze zaila! sujeta sozio-politiko bezala...ez duzu informaziorik. Kaleko ilegalizazio eta abarreko fasea barruan nabaritu zen, mugimenduek egiten ziguten elikadura ere desagertu zelako. Orduan galduta...«Pero¿ que es esto de Fracking?» eta horrela, galduta.

Pentsamendua garatzeko eta elikatzeko zailtasunez, Euskal Herriarekiko lotura eta informazio iturrien zirrikituen estuaz mintzo zaigu Lili. Eta horren ondoren, bere irakurketa politiko eta feminista gehitzen du.

Kontentzio ariketa pertsonal handia. Norberaren indarrak eta animoak ematen zuten tokira arte. Bakarrik sentiaraztea, apurtzea pertsona gisa eta politiko gisa. Emakume gisa, kartzela kopuru berdina baina gu gutxiago izanda ba klaro. Beraien legeak urratu dituzte, gu gehiago isolatzeko. 1. graduan egonda, 2. graduako moduloetan izan gaituzte. Ez da legala. Picasent, Albolote eta Avila bakarrik direlako emakumeen 1. gradurako. Gizonen kasuan gehiago egon dira 1. graduako moduloetan. Eta bueno, klaro diferentzia da, ba elementu diferentzial hori etengabekoa delako 2. graduako moduloetan egonda. Ze gure patioa 9tik 13tara zen, gosari, bazkari eta afaria ziegan. Sozialekin egin genitzakeen harremanak mugatuta, ze hor ere aktibitateak ukatuta izanda, jangelan egon gabe...modulo barruko kiroldegian kirola egiteko baimena eskatu behar genuen. Edo kartzela berdinean kideei idazteko debekua nuen ere. Ulergaitzak ziren gauzak. Bakardade horrek eragin al zigun min fisiko, psikologiko eta pertsonalaren bila. Hori argi daukat.(...) Baina, jo gogorutzen dut batean, egunkarian agertzen zen irudi batengatik jarri nahi zidatela partea. Joder, zer egiten dut nik horrekin? Amorrua nola desblokeatu? Bakarrik bazaude, gehiago luzatzen zaizu. Eta orduan ni, ni eta ni. Eskatu nuen amaren hiletara joatea eta «no procede, no esta justificado». Eta zuk mina mina duzu, eta bakarrik bakarrik.**Lili**

Lili bestalde, beste bakartze mota batetaz ere mintzo zaigu, beste indar xahutze prozesuaz. Norbera denean espetxe batean finko dutena, bere esku geratuko da datozen kideei harrera egitea eta laguntzea..Berak, espetxeak mendeku bezala ezarri zion egoeratzat dauka. Modu batera zein bestera, Elkartasunez aritzea ez zen aukera bat beretzat, horrenbeste ere ezagutzen zuen espetxe erakundeak EPPKako kideetaz. Emaizta bezala, besteentzako egoteak, batzuetan eragiten duen neke eta indar xahuketaz ari da, Azken batean, preso politiko baten bizimodua, beste preso politikoen bizimoduari oso lotuta agertzen baita, kasu honetan bezala, baita beste batzuetan ere.

Batzutan ez zaude bakarrik baina bai zaude bakarrik, ze jarraikortasun gabeko kideak datoz, baina badatoz eta badoaz. Eta etengabeko aldaketa horrek ansiedade handia sortzen du. Ni bizi nintzen hango egoerak kudeatzeko, nire bizitza ahaztuta. Aukera ona izan zen ba kide asko eta asko ezagutu nuela. Ahal den beste ikasten egon nintzen. Hori hiru urte egin nituen hireloko gabe. Ongi etorriak egiten eta agurtzen! Eta torturatutakoen begirada horiek,aurpegira begratzera ausartzen ez ziren begirada horiek, komisaldegi osteko gorputzaldi horiek. Ez zen bakardade politikoa, baina bai bestelakoa..**Lili**

Beste presoen ongizatearen alde entrega maila handiarekin aritzen zirela dakusagu. Beste aldetik, espetxe egiturak tenkatzen zituen bitartean. Batzuetan, egoera horietan beste kideekin indarrak batzea egokitzen zen moduan, besteetan xahutzea. Eman eta jaso, berriz emateko; espetxe erakundeak erabaki eta hautatu baldintzetan bada ere. Eta hortxe, norberaren indarrak eta animoak ematen zuten tokira arte.



#### 10.4.6. Kaleratzea. «Hemengoak gara. Ez giñen inoiz joan»

Kaleratze prozesua, inoiz norberarena izan ez den tokitik irten, eta norberaren lekura itzultzea dela diote. Baina halaber, espetxea dagoeneko leku familiarra du presoak, eta kalea apur bat arrotza ere sentituko du tarteka. Batetik besterako trantsizio modukoa egin beharko du presoak, baina kontrako norantzan, eta 5, 10 edo 15 urteren ostean, kasu honetan. Preso politikoen kasuan, aztergai den garaian, zigorra bere osotasunean betetzen zuten, azken egunera arte. Horrek esan nahi du, legeak eta espetxe sistema progresiboak aurreikusten duen, kalerako girotze prozesurik gabe, bat-batean, haien burua kalean ikusten zutela. Kasu batean baino gehiagotan, 1. gradutik, isolamendu modulu berezi batetik kalerako jauzia emanaz.

Kaleratzea prozesu bat da, fisikoki ordu gutxi batzuen buruan egiten den gauza dela iruditu arren. Espetxerako sartzea bezala, harreman batzuk etetearekin, beste batzuekin topo egitearekin eta berriak egitearekin zerikusia du. Eta bide horretan, preso ohiari ulertzeko zailak egingo zaizkion erruduntasun sentimenduek, poztasun handiek, erabat itxi gabeko zaurien irekiera mingarriek gainez egingo diote. Horrekin batera, ekonomikoki, politikoki, sozialki-erlazonalki eta psikologikoki berregiteko erronkari ekin beharko dio. Beraz, kaleratzea pozgarria izan arren, prozesu zaila da. Errepresioaren zauriak norberarengan eta besteegan egin dutena eta egiten duena hautemateko prozesua izaten da. Zauriak behatu, eta zer egin erabaki; askotan intseguritatez eta beldurrez gainezka egon arren. Orohar, preso ohiak, preseski espetxean egon delako, ez ditu horren erronka handiei behar bezala eusteko baldintzarik. Eta ikerketan ikusi dugunagatik, prozesu hori bere indar propioekin eta bere sarekoekin egin beharko du. Harrera elkarteak eskainitako laguntzaz harago, inolako jarraipen gabe. Osasuna, sartze laborala, ikasketak eta partaidetza sozio-politikoak akonpainamendua publiko eta profesional gabe garatzen dute. Sare pribatu-komunitarioaren laguntza soilaz. Kaleratu eta herriratze prozesuak aztertu eta publikoki kudeatzeko erantzukizunari dagokionez, bada zer egin. Gainera, hori guzti hori, politikoki gatazka konpondu gabe darrain testuingurura itzuliz, izan ere partaide guztiak 2013a aurretik irten ziren espetxetik, gatazka armatua erabat eten gabe zegoelarik, gatazka armatuaren ondorioak landu gabe zeudela, eta gatazka politikoari ekin gabe jarraitzen dugun bitartean. Horrekin batera, komunikabideek oihartzun handia eman dioten pertsona izanez gero, jarraipen eta batzuetan jazarpen mediatikoa ere suposatuko du. Baina ez da hori izan ikerketako partaideen egoera. Hala ere, oraingo honetan, irteera prozesuetako beste mugarri batzuei erreparatuko diet. Zehazki preso politiko eta emakume\* izatearen arteko bidegurutzean daudenei. Kolpera, espetxeak desplazatu, aldatu edo apurtu dituen harremanak ber-hartu beharko ditu preso egondakoak.

Ba ni kaleratu eta gutxira, nire alabaren aita klandestinitatera pasatzen da berriz, Nik hartzen dut erabakia kudeatzeko horrek ekartzen zuen guztia, Alaba oso gaizki ze berarekin zuen harreman oso estua, eta bapatean oso ondo ezagutzen ez duen pertsona batengana, nigana, joan behar. Es que alabak esaten zidan «es que ama ez zait ateratzen zuri ama deitzea», «ez nagoelako ohituta ama». Osea ama deitzen zidan baina ez zegoen ohituta nire figurara. Ta nik «lasai maitia, ohituko gara, ez

da ezer gertatzen». Baina hori izan zan, oso gaizki. Eta nik uste dut lehen urte hori, nik ez nituela gauzak ondo egin, eta gero ikasi nuen, remontatu nuen eta...baina izan zen urte bat oso egoera prekarioan, oso bakarrik, betiko kontuak, zure tokia egin behar duzu, zure familiak ere espazio hori utzi behar du, konfliktoak sortzen dira familiarekin. Osea todas las casuisticas daukana irteera bat, baina gehituta ez nengoela nire etxean, nire ingurunean, eta ume baten kargu egin behar nuela.

Familian liskar handiak sortzen dira. Etxekoek ez dakite guk zer behar dugun, ez gaituzte ulertzen. Eta, zeozelan ere, batzuetan faktura pasatzen digute, edo guk faktura ordaindu behar dugula sentitzen dugu. Edo justu kontrakoa, zergatik eta zenbat denbora biziko gara ba zorrean? Gure amek eta ahizpek batez ere, gurekiko dituzten espektatibak, edo haien ustez guk zer egin behar dugun, eta guk uste duguna egin behar dugula, beti ez datoz bat. Batzuetan presio handia da. Eta bueno, ba min handiak erdian. Familiako rolak, genero rolak. Pasada hutsa da. Gizonek ez dute berdina bizitzen nik uste, beraietaz ez da berdina espero. Pentsa, niri kalean beti familiagatik galdetzen didate, eta ez kontu militanteak; eta gizonei bai. De etxo, asko kartzelatik irten eta berriro militante txanpiñon egiten dira. Tan pitxis! **Sua**

Harremanak berregiteko erronka horretan, bikote harremanetan generoarekin eta txikitze matxistarekin zerikusia duten prozesuak bizitzea egokitu zaie emakume\* preso ohi batzuei. Kartzelan garatutako kontzientzia hartze feminista izan arren, oso zaila egingo zaie egoera hori kudeatzea, haien bikoteak militante aitortu eta prestigiotsuak izan diren kasuetan batez ere.

Kartzelan utzitako etxekoekiko ere, sentimendu kontraesankorrak agertzen dira. Errepresioa norberaren gainean ez baina besteen gainean erortzen jarraitzen duenean, beste herrialde batzuetan ere ikusi den moduan, erruduntasun sentimenduak sortzen dira. Errepresioak, pertsonen arteko loturak apurtzeko eta deskonfiantzak eragiteko helburua duelako. Hala ere, batzuetan ez zaie sentimendu hori batere ulergarria suertatuko, baina pisutsua egingo zaie.

Eta atera naizenetik ez naiz gai izan de mandarles una puta foto. Sentitzen naizelako ez kulpable baina... ezin diet bidali nire argazki bat umearekin kalean, eske no puedo (negarra). Egoten naiz asko batzuen gurasoekin kalean, ze batzun semealabak ezagutzen ditut kalean, beitu beraiek zer pasatzen ari diran, ke si uno paki, el otro palli...eta badakit barruan egonik sentituko dutela diferente, ze nik sentitu dut ezberdin, baina ni orain kalean egon eta...ezin dut. Ezin diet bialdu argazki bat... da como una sensación de te estoy pasando por el morro...es que no puedo, inkapaza naiz. ... eta uff... ze gogor. Oso gogorra egiten zait. (...) Ba kide, atzera begiratzea oso gogorra egiten zaizu, oso. **Lur**

Para mí fue bonito, duro y fácil. ¿Puede ser todo a la vez? Duro, por sentirme mal, porque dejaba a *kides* dentro, no me acababa de sentir bien, me sentía... me notaba que me sentía bien y entonces me fustigaba un poco por sentirme bien. Pero en realidad fue fácil, muy fácil, y muy bonito. Pero yo he tenido dos salidas. Creo que la primera, me sentí peor. Me sentí más culpable, y creo que en la segunda me sentí menos culpable. En la primera tenía más esa sensación de, cuando de repente me sentía bien y decía «*mecauenlaputa*, no tengo derecho a sentirme bien» y me fustigaba. **Lola**

Irteera egunean eta irteera prozesuan, ez da desagertuko *etsaiaren* presentzia, ez mentalki, ezta materialki. Kasu batzuetan jazarpen mediatikoa biziko dute, poliziaren bisitak edo espetxera lotuta jarraituko dute haien bikote edo ahaideak bisitatzerara. Baraiengan, espetxearen arrastoa ere

luzaro sentituko dute. Haien lehentasunak aldarazi dituelako, bizitzan beste modu batean kokatzen direlako, gauza txiki eta ez materialekiko harremana aldatzen delako. Biziraule-testiguaren ikuspegiarekin (Garcia, 2016 ) zerikusia duten prozesuak adierazten dituzte azken batean. *Hementxe gaude, bizirik gaude, ez da gutxi, eta probestu dezagun*. Horixe izango da, biziraulearen betebear moral eta erruduntasunarekin batera kaleratze prozesuaren ezaugarritzea.

### 10.5. Azken ideiak

Feminista beltzek emakume unibertsala deuseztatzea proposatu zuten moduan, beste horrenbeste egitea dagokigu emakume\* preso unibertsalarekin. Generoarekin batera, eta beste batzuen artean, klasea, adina, sexualitatea, ideologia, pertenezia etnikoa eta arraza oso garrantzitsuak dira. Ezaugarri eta gizarte kokapen horiek eragin handia dute presoak espetxea nola biziko duen horretan (baita kanpoko testuinguruak eta espetxe langilegoaren jarrerak), hau da, izugarri definituko dute zer den edo zer esan nahi duen emakume\* preso izatea(k). Gure kasuan, euskal emakume\* preso politiko izateak, espetxea guda bahitu gisa bizitzea ekarri du, hori baita atal honen bidez ikusi duguna, zein den emakume\* preso politikoei ezartzen zitzaien espetxe mota, alegia. Espetxe politikoak, zigortu eta makurtzearekin zerikusia zuela alegia. Horretarako, isolamendu politiko eta fisikoa, ezartzea izan dela tresnarik garrantzitsuenak. Emakumeen\* kasuan, gainera, itxialdia eta isolamendua beti handiagoa izan dela ere agertu da; bizi-erregimen itxian eta sakabanatzeko garaian modu biziagoan egin dutelako, eta aro politikoak bizi-erregimen arrunterantz eramatea suposatu duenean ere, emakumeen\* moduluetako bizimoduak itxiagoak direlako, aukera gutxiago eskaintzen dituztelako. Kasu horietan, beste presoek pairatu espetxe egitura diskriminatzaile eta matxista bizi izan dute.

Ikusi dugu, espetxe politikoan preso politikoak gatazka politiko armatuaren indar harreman, egoera eta erronkei itsatsita dauden bahitu politiko edo guda-bahituak bihurtzen direla. Guda edo gatazkan, etsaitzat dugunak bere esku hartutako pertsonak, gatazkan aurrera egiteko dakusan erabileraz ari baikara, azken batean. Beste aldea mintzeko, beste aldea makurrarazteko indargune eta negoziaketarako objektu bilakatzen baitira presoak. Espetxe egiturak izaera politiko horretaz egiten zuen erabilerak, preso sozialekin zituzten harremanetan, kartzelariekin zituzten harremanetan, kalekoekin zituzten harremanetan, intimo eta pertsonalak izan arren politiko eta publiko bihurtzen ziren erabakiak hartzerakoan eta kideen arteko harremanetan eragina zuela ikusi dugu. Harreman guzti horiek mediatzen zuela.

Hala ere, espetxealdiari eta espetxe bizitzari, zentzua eta probetxua eraikitzen saiatu direla nabarmen agertu da. Bizitza sortzen eta bizirik egoteko erronkari lotu zirela. Indibidual eta kolektiboki hasten eta hazten saiatu ziren moduan.. Preso politiko izatea, bahitu politiko izatea eta EPPKan antolatuta egoteak, elkar-menpekotasun handia zekarren heinean, batasuna eta elkartasuna elikatu dituzte. Baita, modu formalean izan ez bada ere, gogoeta prozesu kritiko eta tarteka feministak.



# 11. KAPITULUA

## Erresistentziak, frikzioak eta arrastoak

“Oinarrizko ekintza politikoa, bizitza salbatzea, bizirautea zen”

Mercedes Yusta (2005)

### 11.1. Sarrera: Espetxeko hormetako eta espetxe-egituraren arrakalak

Goiza zen, gosaldu berriak ginen eta eguneko freskura lagun genuela hiru kide patioan borobilean oinez eta bueltaka ari ginen. Ez motel, ezta bizi ere. Gorputza esnatzeko besteko erritmoan, baina arnas esturik gabe, elkarrizketa bat edukitzeko lain ari ginen. Orduaren arabera patioan paseoan ibiltzeko modu eta erritmo ezberdinak baitaude. Hori ere artea bilakatzen da kartzelan.

Periodikoak zekarren albisteren bat komentatzen, asteburuan bisitan nor datorkigun kontatzen, nola lo egin dugun aipatzen edo sarri errepikatzen zen ondoko solasaldi hau izaten ari ginen ziur aski:

-Gaur zer tokatzen da bazkaritarako?

-Garbantzuak.

-Ez garbantzuak ez, pasa den astean izan genituen, beraz lentejak.

-Ez ez, ez zen pasa den astean izan, 15 egun pasa dira jada, garbantzuak tokatzen dira.

-Aste bi pasatu dira jada?! Sinestezina aizu. Ze azkar. Ziur zaude?

- Bai, ze garbantzuak jan genituen bisa izan nuen egunean, eta hori duela aste bi izan zen, seguro! Bandeja gorde zenidaten badaezpada, ez duzue gogoratzen?

-A! Ba igual bai, ez dakit. Asteak nahasten zaizkit buruan, nola nahiko antzekoak diren. Baina bai bai, kolore gorriekin etorri zinela bisetik bai, gogoratzen dut. En fin, zuk jakingo duzu guk baino hobeto, bis intimoa noiz izan zenuen.

-Kar kar kar. Ez zen intimoa izan, konbibentziakoa izan zen.

-Bueno berdin du, txortan ibili zinen seguro, que ya te conocemos. Kar kar.

Aprobetxatu zuk denon partez.

-Kar kar kar.

-Bueno, orduan entsalada prestatuko dugu gaur lentejen aurretik jateko ala ez?  
Noren txanda da?

-A Portzierto, aberri eguneko pastela egiteko marmeladak biltzen hasi behar dugu jada e?!

-Neskak, aurten txitxa egingo dugu ala ez?

Horretan ari ginela, bapatean burdin xafla jotzean sortzen den soinua entzun zen,  
hiru aldiz, flax, flax, flax.

-entzun duzue?

Nik artean ezer gutxi entzun nuela dut gogoan. Ziurrenik belarria egin gabe nuen patio baten ohiko eta ez-ohiko soinuetara. Guretzat ziren keinu eta zaratei erne eta adi egoten ikasi gabekoa nintzen.

-Bai. guretzat izango da? Zenbat aldiz jo dute?

-Hiru. Guretzat da.

-Nor dago garitan gaur?

-La perro. Beraz, gaur denbora gutxi eta diskretu e?!

-Bale, orduan arrakalaren paretik pasatzen garenean hurbilduko gara.

-Benga, nortzuk joango gara?

Eszena horretan, espetxeko murrizketak gainditzeko, egunerokoa goxatzeko eta EPPKko kideen arteko komunikazioa azkartzeko praktika ezberdinak ageri zaizkigu. Foucaulti egin zaion bigarren kritika nagusian adierazten den moduan, frogatu da presoak ez direla modu perfektuan ordenatuta dagoen sistemako parte soila (Rothman, 1980; Alford, 2000; Knepper eta Scicluna, 2010), dispositibo horrek bere akatsak izan badituelako<sup>320</sup>, eta presoek agentzia dutelako. Baina agentzia oro erresistentziatzat hartu behar al dugu? Agentziak eraldaketa esan gura al du? Zein da espetxe egiturak presoaren ekintza-praktiken gain duen eragina? Erresistentziak agentziaren ondorio eta emaitza dira ala egiturak ere zerikusi handia du horretan? Non jarri arreta? Espetxe egiturak presoengan eragindako subjektibitate aldaketak beti al dira bilatutakoak? Espetxean sortutako azpi-kulturek, nola eragiten dute presoan subjektibitate eta identitateetan?

320 Honekin Foucoultrek arreta egituran eta dominazioan jarri zuela esan nahi da. Beraz, ez da adierazi nahi erresistentzia ukatu zuenik, noski.

Goiko galderek ikerketa honetako azken aurreko kapitulua den honetan hauxe lantzera eramanez: zein izan zen, modu antolatuan edo banaka, modu kontzientean ala ez, espetxe egituraren aurka eta haien bizitza eta identitateen alde izan zituzten praktikak. Zortzigarren eta bederatzigarren kapituluan ikusi dugu preso horiei ezarri zieten espetxe sistema, eredia eta politikak zigortzeko, makurtzeko, damutzeko eta genero ikuspegitik eraldatzeko xedeari erantzuten ziola. Hamargarren kapituluak, preso politiko eta emakume\* izatearen arteko bidegurutzeak, espetxea bahitu politiko gisa lekutu beharra ekarri zuela erakutsi digu, itxialdi biziagoa eta bikoitza eragin ez. Hamaikagarrenean, EPPKak emakumeek\* bizi zuten egoerarekiko, lan ildo espezifikorik, ezta berariazko irakurketa feministarik ez izan arren, nola jardun zuten eta horrek eragindako emaitzak dira ezagutuko ditugunak.

Lehenengo eta behin, kapitulua ireki duen eszena baliatuz, espetxearen inguruko ikerketa kritiko eta feministetako eztabaida akademikoa xehetu eta neure kokapenaren berri emango dut. Ondoren, landa lanean identifikatu ditudan erresistentziak -espetxe ordenuaren aurka erabat kontziente eta intenzionalitate politikoz garatutako praktikak-, eguneroko portaera erreaktiboak edo mikro-erresistentziak, baina aldaketa iraunkorrak eta kontzienteak bilatzen ez dituztenak-, eta arrastoak -espetxe egiturak eta espetxeko harreman sarean sortutako kulturaren arteko elkar eraginak subjektibitatean duen eragina-landuko ditut.

## **11.2. Zapalkuntza eta erresistentziaren arteko solasaldia**

Kapitulua irekiz, espetxe- tipo berri edo makro-kartzelak deitutakoen hormetan dauden arrakalak erakutsi ditut, espetxe egiturak berak ere arrakalak dituela aditzera emateko. Izan ere, espetxe dispositibo errepresiboa, espazioaren antolaketa arkitektonikoak, denboraren organizazioak, espetxe langileen jarrerak-interesak-premiak, txertatuta dagoen gizarte horren ezaugarri-joera-premiei eta presoek portaera eta praktikek osatzen dute. Horien guztien arteko interakzioak konbinazio ugari eragin ditzake, nahiz eta printzipioz espetxe erakundea eta zigorrak helburu eta norabide jakin bat eman gura. Zentzu horretan espetxea dinamikoa da, arautegi eta legediak presoek jardunaren arabera aldatzen direlako, eta aldaketa horiek, presoek agentziarako ahalmenean eta norabidean aldaketak eragingo ditu halaber. Oso ondo ikusi dugu hori guztia, estatu Españoleko espetxeek 1978az geroztik izandako bilakaeran. Izan ere, ikerketa honetako protagonistek ezagutu duten-dugun espetxea, prozesu guzti horien emaitza da.

Horiek horrela, ikerlariek eta espetxearen inguruan lanean diharduten mugimenduek arreta leku ezberdinetan jarri izan dute. Eztabaida horren mamia eta funtsa hobeto ulertzeko, jarraian kapitulua ireki duen eszenak agerian utzi dituen praktikak aztertuko ditut, adibide zehatzen bidez pedagogikoagoa izan nahian.

Komunikatu ezin denekin eta komunikatu ezin den bideetatik komunikatu: espetxe- tipoetan, moduluen arteko patioak banatzen dituen hormek badute arrakala estu- estu bat. Horma ez dago

hormigoi xafla bakarrarekin eginda, bi edo hiru blokerekin baizik. Eta horien artean, tenperatura aldaketak direla eta, edo hastapenetik gaizki jarri dituztelako, arrakalak daude. Espetxe batzuetan burdin xafla txikiak jarri dituzte gainean, presoak elkarri gauzarik ez igortzeko eta elkarri ez hitz egiteko. Horma horiek kartzeleroen garita dagoen patioaren aldean egon ohi dira, beraz disimuluz eta tentuz aritu beharra dago bertara hurbildu nahi izanez gero. Noizean behin elkarrekin hitz egiteko erabiltzen zuten-genuen: kide berriren bat ekarri bazuten zer moduz zegoen jakiteko, EPPKko Batzarreko premiazko zerbait hitz egiteko, norbaiten osasun egoeraz aritzeko eta abar. Alegia, presazko eta premiazko gauzez aritzeko. Nahiz eta noizean behin, txanda ona egonez gero, kontu kontari aritzeko ere erabiltzen zuten-genuen; ohikoa ez den norbaitekin solasaldian aritzea bera urre-gorritzko gozamina baita kartzelan.

Harreman sexualak izan, ez dagokion denbora eta lekuan: bikote edo sexu-lagunarekin momentu intimoa eduki al izatea ez da gauza erreza espetxean. Pertsona horrekin bikote harremana duzula frogatu beharra dago espetxearen aurrean, garaian- garai modu ezberdinetan. Izatezko bikote eginda edo ezkontuta esate baterako. Horrek pertsona horrekin, eta soilik horrekin, intimatzeo aukera eskainiko dio presoari, zehazki, hilean behin 90 minutuz.

Espetxeak halaber, 12 urtetik beherako haurrak izanez gero, hiru hiletik behin lau orduko bisean bisekoa egiteko aukera eskaintzen du arauz haurra eta bere ama edo aitarekin batera. Helegiteen bidez, aurrez aurreko horiek, haurrak izan gabe ere eduki al izatea lortu izan zen, finean, familia izateko ez delako derrigorrezkoa haurrak edukitzea.

Beraz, elkarbizitzako aurrez-aurrekoak, bis familiarrak egiteko esleitutako gelatxo berberetan egiten ziren-dira. Espetxe- tipoen kasuan, gelako ateen kristala zuten, beraz kartzelarien bistatik salbu zegoen leku bakarra komuna eta gelako ertz-txoko bat zen. Hori dela eta, preso politiko batzuk familiako bisera bikotea edo sexu-laguna etortzea eskatzen zuten, eta 90 minutu horietako batzuk komunean egiten zituzten, familia kanpoan kontu- kontari aritzen zen bitartean.

Elkarbizitzako bisen kasuan, pareo modukoa edo fular haundi bat eramaten genuen, txoko horretako lurrean jartzeko, giroa goxatu eta berotu nahirik. Eta horrekin batera, behar izanez gero, kondoiak ere ezkutuan eramaten ziren, kuleroetan ezkutatuta.

Dieta alternatibo edo osagarria egin: espetxeko menuak zapore eta oreka gabezia handiak ditu, lekuan leku eta garaian garai desberdintasun handiak dauden arren. Zuzendaritzak, sukaldeko arduradunak eta aurrekontua eragin handia zuten horretan. Normalki, etengabe errepikatzen zen 15 eguneroko menuak osatzen zuen dieta, horregatik presoek egun bakoitzean zer dagoen buruz ikasten amaituko zuten-genuen. Modu batera zein bestera, barazkiak eta fruta, esate baterako, nahiko eskasak dira. Hori dela eta, presoen artean, espetxekoa osagarritzeko joera zuten. Horretarako, kartzelak eskaintzen zuen *demandadero* zerbitzua (kaleko produktuak eskuratzea) erabiltzen zen, baina baita beste bide batzuk ere. Beste presoak nahi ez zituzten fruta aleak jaso,



eskatu edo trukatu (mesede baten truke). Beste horrenbeste jogurtekin. Horrekin batera, sukaldeko langileen bidez, olioak, gatzak, berakatza, kipula eta horrelakoak lortzen saiatzen ziren-ginen. Edo gurina, marmelada eta fruta errazio bikoitzak negoziatzen. Espetxean sukaldean lan egiten zuten presoek “lagun” izatea oso garrantzitsua zen, horiek sukalde zentraletik jakiak hartzen zituztelako, eta horrek boterea ematen zielako. Sukaldeko langileek, ondoren, haien afinitate eta interesen arabera distribuzio sareak zituzten. Beraz, euskal preso politikoak, haien elikadura hobetzeko kontzientziaz eta ospakizunetako pastelak egiteko, sukaldekoen lagun izaten saiatzen ziren beti. Pastelak, gosaritarako ematen zituzten magdalena, gaileta, gurina eta marmeladekin egiten zituzten. Baita fruta sartuta ere, ekonomatoan erositako *nocillarekin*. Bakoitzak eskura zeukan gauzeekin esperimentatzen eta berritzen zuen. Beraz, pastel bat egiteko, aste bete edo 15 egun lehenago, osagaiak lortzeko lanetan jarri beharra zegoen. Alkohola sortzeko beste horrenbeste; fruta kopuru handiak irakin edo legamiatzen utziz lortzen den *txitxa* alegia. Sagarrak lortu, gorde, txikitu, baldeetan urarekin nahastu eta, ondoren, lortutako ur botila handi hutsetan sartu eta legamiatzen utzi. Hori guztia ezkutuan. Hori dela eta, denboran irundako sare baten emaitza kolektiboa bihurtzen zen *txitxa* edo pastela. Batean emaitza baimendutakoa zen eta bestean debekatutakoa, beraz diskrezio maila ez zen berbera.

Euskal kulturako eta Euskal Herriko nazio egitasmoen lotutako ekimenak ospatu: Aberri eguna<sup>321</sup> eta Korrika<sup>322</sup> bezalako ekimenak antolatzen zituzten-genituen. Ikurrinak, dantzak, abestiak, testigu<sup>323</sup> eta korrikaldiekin. Euskaldun eta abertzale izateari lotuta dauden erritualak berreginez azken batean. Jai kuttunekin ere beste horrenbeste, dela sanferminak, dela santo-tomas, esate baterako. Horiek askotan, janari eta edari bereziekin ospatzen zituzten-genituen. Deserri egoera gainditu, herri pertenezia aldarrikatu, eta ohiko eguna jai egun bilakatzen zuten; gozamenari, distentsioari eta aisiari leku eginez. Halaber, espetxeko egunerokoarekin zerikusirik ez zuten, eta batzuetan espetxearen begiei bizkar emanez antolatutako ekimenak ziren. Egun guztiak berdina izan ez daitezkeen, zenbait data esanguratsu ezaugarritzeak buruan denbora modu ezberdinean egituratzea dakar, era diferentean zenbatzea eta erreferentziak aldatzea adibidez. Edukia emanez hutsik dagoenari, buruan errutinaren errepikapenak sortzen duen denboraren sentsazioa apurtzen du. Izan ere, errutinak denbora modu azkarrean, automatikoan, eta beraz aurreikusgarrian igarotzen denaren pertzepzioa eragiten du. Apartekorik ez egoteak, dentsitatea, erliebea, testura, esangura kentzen dio denboraren bizipenari eta, beraz, arrastorik utzi gabe igarotzen da. Ez du gorputz memoriarik sortuko, eta egunak buruan nahastu egingo dira. Beraz, ospakizun horiek sarea eta

---

321 Aste santuetako igandean euskal nazioaren eguna ospatzen da guda aurretik (1932tik). Ondoren, 1964an berreskuratu zen Bilbon. Euskal Herria nazioa dela aldarrikatzeko eguna da, eta beraz euskal abertzaletasunaren sorrera eta bilakaerari lotuta dago.

322 Helduen alfabetatze eta euskalduntze lanetan ari den AEKak, 1980tik landa, bi urterik behin antolatzen duen euskararen aldeko ekimenaz ari naiz. Gehiago jakiteko: Del Valle (1988). Korrika. Rituales de la lengua en el espacio. Anthropos.

323 Korrika ekimenean, eskurik esku pasatzen den objektuari testigu deitzen zaio. Eta edizio bakoitzean bertan mezu bat egon ohi da.

kolaborazioa dakarte, baina baita denbora kolektiboki kualifikatu eta gozatzea ere, oroitzapen kolektibo bat sortzea.

Patioko eszenak agerian utzitako lauzpabost praktika horiek preso multzo horren agentzia agerian uzten dute. Espetxearen begien bizkarrean ari dira komunikatzen eta harreman sexualak izaten, espetxeko *rantxoa* (eguneroko janari razioa) ez dagokion helburuetarako darabilte, espetxeak aitortzen ez duen haien identitate etniko eta politikoa aldarrikatzeko ekintza baten antolakuntzan sartuta daude, eta debekatuta dagoen substantzia bat ekoizteko aukera baloratzen daude - bigarren hori ere debekatuta dagoenean, gauzak eraiki eta produzitzea alegia-. Horiek guztiak erresistentziatzat jo ditzakegu? Denek dute helburu eta intentzio berdina? Denak daude berdin arautu edo zigortuak? Azken horrek nola eragiten die?

Espetxea aztergai izan duten autore batzuk espetxe egiturari jarri dute arreta, eta beste batzuk aldiz murrizketa, muga, langa eta kontrolekiko presoek nola jokatu duten horretan. Eta beste batzuk egitura eta presoaren agentziaren arteko harremana aztertu dute. Beraz, bizimodu hori datorkion moduan onartzen du presoak ala arau multzo horiekiko oldartu egiten da? Ala, ez bata ezta bestea ere; ez da oldartzen baina bizimodu horren barruan bere aldeko arrakalak bilatzen saiatzen da? Posible duenean eta posible duen heinean arau eta kontrolari ihes egiten tematzen da ala ez? Eta guzti hori, bakarka ala taldean egiten du? Biziraupen sen hutsez -Cohen eta Taylor, (1972)- ala helburu politikoekin dihardu -Snow et.al. (1986)- Osagai politikoak nondik eratortzen dira: preso kontzientziatik, emakume\* izatetik, pobre egotetik ala militante politikoaren kokapenetik? Zer da erabakigarriena, presoak kaletik dakarren identitatea -Irwin eta Cressey (1962)- ala zigorraren denbora-intentsitatea eta nolakotasuna -Sykes eta Messinger(1960)-.

Galdera horiei guztiei emandako erantzun ezberdinek osatzen du espetxea eta presoaren bizipena aztertu dituzten ikerketen eztabaida akademikoak Beraz, gai horri erreparatzeko erronkari ekin nahi badiot, alde aurretik non kokatuko naizen argitzea premiazkoa deritzot. Hurrengo lerroetan, eztabaida horren mamian sakontzearekin batera neure ulerkera aditzera emango dut.

Aipatu izan dudana moduan, Foucault egin zaizkion kritika nagusien artean dago, boterea modu aldebakarrekoan aztertu zuela, erakundeetan itsastan den modua aztertzea mugatu zela alegia. Arretarik apenas jarri zuela beste botere subjektuetan, besteak beste, presoengan. Beste modu batera esanda, kritikatu zaio bere lana ez zela presoaren ikuspegitik garatu (McNay 1992), erreformatzaileen asmoetatik baizik, ondorioz egiturari baino ez zuela ipini fokua.

David Garland-en iritziz (1990), autore frantsesak ez zuen boterea subjektibitatearekin artikulatu, eta horrek ekarri zuen zigorra esanahi eta helburu bakarreko auzi gisa agertaraztea. Beste makina bat autorek (Bosworth, 1999, Ruiz, 2016b) presoaren modu batera edo bestera, bere bizitzaren gaineko kontrola ezartzen saiatzen dela frogatu dute, pertsonen ingurune murriztaileen barruan ere agentzia dutela mahaigaineratuz. Eta beraz, presoaren modu perfektuan ordenatutako sistemako engranaje hutsa baino askoz harago doan edo joan daitekeela azpimarratu dute.

Orditik, presoaren ikuspegian arreta jartzen duten lan gehiago egin dira, eta eztabaida akademikoak beste norabide batzuk hartu ditu. Zehazki, agentzia hori ulertzeko moduaren inguruan: agentzia eta erresistentzia parekatu daitezke? Agentziak beti erresistentzia al dakar? Kausa efektuzko harremana dute? Ala, erresistentzian agentziaz gain, beste faktore batzuk ere eragiten dute? Besteak beste, espetxe egiturak (araudi penitentiarioak, azpiegiturek, egunerokoak), ez al du eragiten presoan agentzian?. Agentzia beti espetxeari aurre egitera bideratua dago ala agentzia espetxe egitura indartzeko ere badarabil presoak? Hortaz, agentzia horren intenzionalitatea eta motibazioak garrantzia izan badute.

Abu Lughod-ek (1990a) zioen<sup>324</sup> erresistentzia ekintzek egituraren gaineko informazio handiagoa ematen dutela, pertsonen agentziari buruzkoa baino. Bere ustez, erresistentziak idealizatzeko joera baitago. Wiliam Sewellentzat (1992) egitura presoaren portaera moldatu edo egituratzen duten kanpo indar edo patroiak dira. Eta horiek materialak zein ideologikoak izan daitezke, funtsean boterearen tresna material eta ideologikoez ari baikara. Presoa horien aurrean errebelatu daiteke eta errebelatze ekintza hori modu ezberdinetan, arrazoi ezberdinengatik eta helburu ezberdinekin egin dezake. Eta hori aintzat hartu behar da.

## 21. irudia

*Agentzia eta egitura*



*Iturria: neuk egina*

324 Ez zuen hau espetxe testuinguru bati lotuta aipatu, oro har baikik. Hala ere baliagarria zaidalakoan ekarri dut lerrootara.

Ashley Rubin-ek (2015) *erresistentzia eta frikzioen* arteko diferentzia proposatu zuen. Frikzioak, ingurune oso kontrolatuetan dauden pertsonak izaten dituzten erreakziozko portaerak dira. Mikro-erresistentziak edo eguneroko erresistentzia ere deitu izan direnak<sup>325</sup>. Erresistentziak, ordea, intentzio politikoz eta kontzienteki disruptiboak diren ekintzek osatzen dute. Bere ustez frikzio eta erresistentziak continuum bat osotzen dute. Eta bata zein bestea ez dira soilik agenziaren emaitza, egiturak ere zerikusi handi du, beraz, marko bikoitza proposatu zuen.

Rubin-en proposamen hau baliogarria zait euskal preso politikoen portaera eta subjektibitateak aztertzeko<sup>326</sup>. Izan ere, horietariko asko erresistentzien definizioarekin bat egingo dute, baina ez denek. Horrekin batera, espetxe barruan egoera ezberdinak bizi izan dituzte, egituraren hertsatze mailari dagokionean. Esate baterako, isolamendu moduluetan bizi izan dira, baina tarteka baita bizimodu arruntean, eta horrek haien portaera eta jardueran aldaketarik ekarri duen ala ez ikusi ahalko dugu. Zehazki, egiturak haien agentzia-erresistentzian izandako eragina.

Honekin batera, ahaztu ezinezkoa da espetxeko gizartea beste gizarte baten barruan eraikia den gizartea den heinean, espetxe bizimoduan kanpoko faktoreek eragina dutela; eta testuinguru hori beti ez dela berbera. Esate baterako, klasea, arraza, generoa, ideologia, etnia eta adinak, unea- uneko egoera sozio-politikoan har dezaketean garrantzia ez da berdina, ezta horien arteko bidegurutzek ere. Gure kasuan, gatazka politiko armatuaren koiunturak, beste presoek jardunak, Espainiako estatuko egoera ekonomikoa oso garrantzitsuak izango dira. Beraz, horiek ere kontuan hartu beharko ditugu ikerketa honetako emakume\* protagonisten portaerak aztertzeko unean.

Izan ere, aurreko atalean azaldu dudana moduan, aztergai dugun aroan; a) Espetxe zahar batzuk itxi eta makro-kartzelak irekiz joango ziren. b) Euskal preso politikoko politika murriztaileak areagotu ziren: kondenak luzatu, zaintza epaitegia zentralizatu eta 1. graduak orokortzea besteak beste. c) Atxiloketa politiko eta espetxeratze kopuruak gora egin zuen, baita emakumeek ere multzoek ere. horrek guztiak haien bizi-moduan, esperientzian eta portaera-erabakietan eragina izatea litekeena da.

Hurrengo lerroetan, testuinguru sozio-politiko zehatz horren baitan, landa lanean identifikatu ditudan erresistentziak eta frikzioen berri emango dut, alegia continuum horren berri.

---

325 Nagore Martinezek (2018) bere doktorego tesian, kirol jarduerarekin lotutako frikzioak landu zituen modu emankorrean

326 Hori da nire hautuaren arrazoia. Horrekin ez dut bilatzen beste autore batzuek erresistentziazat jo dituzten praktikak ukatzea. Esate baterako Maria Ruizek oso tesi interesgarria egin zuen preso sozialen erresistentzien inguruan. Autore eta kide honek, erresistentziazat jo zituen idazketa eta trapitxeo ekonomikoak, beste gauza batzuen artean. Nire lanean horiek frikziazat hartuko ditut; Ruizen ekarpena ezeztatzeko baino, ikerketa honetako presoek garatu zituzten agentzia praktika eraldatzaileen artean maila ezberdinak zeudela agerian uzteko asmoz.

### 11.3. Erresistentziak

Asko dira aipa daitezkeen erresistentzia praktikak, iturburu eta helburu politiko garbi eta publikoki adieraziak izan dituztenak. Izan ere, Rubin-en arabera, horiek erresistentziatzat jotzeko unean intentzioa zentrala izango da, eta ez horrenbeste lortutako emaitzak edo ekintza horien testuingurua. Jarraian azalduko ditudan erresistentzia praktiketan, aldeztu aurretik eta ondoren, espetxeari horren arrazoiak adierazi izan zaizkio, dela instantzia bidez, dela bilera bidez, dela prentsa bidez. Horrekin batera, horien berri ematerakoan argi eta garbi haien jardun politikoaren barruan kokatzen zituztela adierazi zuten. Azken horrek erabateko garrantzia du, ostantzean akademikoak presoen jarduna interpretatzen aritu gara Rubin-ek salatzen duen moduan. Ondorio modura, presoen agentzia nabarmentzeko intentziopean, gu geu, akademiko gisa, presoei agentzia kentzen egotea dakarrela esatera ausartzen naiz.

Horiek guztiak intentzioaren arabera sailkatzeko orduan, EPPKko helburu eta izatearen bi ardatzei lotutako erresistentziak identifikatu ditut: bizi-baldintzak hobetzeari lotuta (injustizia salatuz eta lege- araudia betetzeko eskaerak eginez), edo izaera politikoaren estatusaren eskaerarekin erlazionatuta (adibidez Euskal Herriko prozesu sozio-politikoan parte hartzeko eskubidea aldarrikatuz).

Erresistentziarako erabilitako moldeari dagokionez: desobedientzia, eskubide zibil eta politikoen praktikatzea, hautazko eskubideei uko egitea, helegiteak egitea eta ez kolaboratzea izan dira. Erresistentzia horiek guztiak azaldu eta sailkatzeko orduan, borroka-moldeari eta espetxeko arautegiari erreparatu diet. Bereziki azken honi, horrek ezaugarritzen baitu erresistentzia bera, hurrengo lerroetan ikusiko dugun moduan. Horregatik, espetxe arautegi eta bizi-erregimen irekienetik itxienerako ordenan agertuko ditut, eta amaierarako utzi generoarekin zerikusia dutenak.

#### 11.3.1. Espetxe sistemaren zutabeekin zerikusia dutenak: Ez kolaboratzea

Aztergai dugun aroan, EPPKak espetxeko eguneroko jardunarekin eta oinarritzko logikekin zerikusia zuten eremuetan ez zuen parte hartzen. Kolaborazio-eza deritzon erresistentzia praktikatzen zuen. Hori dela eta, ordaindutako edo ordaindu gabeko lanik ez zuten eskatzen, ezta egiten. Horrekin batera, ustezko tratamendu individualizatuari lotuta zeuden aferak saihestu egiten zituzten. Dela graduaren sailkapena errekurritzea, dela hezitzaile-psikologoarekin izan beharreko elkarrizketei muzin egitea ( edo jarrera pasiboa izatea).

- *Lan egiteko eskubideari uko egin.* Espainiako espetxe egiturak jazartzen zituen heinean, bertako logika eta funtziona moldearen mesedetan aritzerik ez zuten nahi. Ez zuten haien presentzia han normalizatu nahi. Beraz, uko horrekin espetxea deslegitimatuz eta haien estatus politikoa aldarrikatzen zuten praktikan; han zertan egon ez zutelako agerian utzi nahirik.

- *Graduak errekurritzeko eskubideari uko egin.* Gradu batean ala besteko sailkapena arbitrariotzat zeukaten. Horrekin batera, haien artean ezberdintasunak bilatzeko eta sakabanaketa posibleago egiteko asmoz ari zirela interpretatzen zuten. Beraz, eskaera indibidualak beharrean eskaera orokor eta politikoak egiten zituzten; zehazki, estatus politikoaren aitortza eskatuaz. Modu horretan, Espainiako espetxe erakundeak zerabilen ondoko joko bikoitza desegin gura zuten: preso politikoak preso arruntak zirela baieztatzen zuten bitartean -eta horren arabera graduen sailkapena eta ustezko tratamendu indibidualizatu ezarri- preso politikoei etengabeko salbuespeneko egoera eta neurriak ezartzen zitzairen (komunikazioen interbentzioa, sakabanaketa eta lan honen hasieran ikusi dugun neurri andana).
- *Langile sozial eta psikologoekin elkartzeko eskubide-aukerari uko egin.* Espainiako espetxe egitura, hezitzailea eta psikologoa tratamendu batzordean daude eta, beraz, preso bakoitzak bere askatasunaren bidean egin behar duen bide progresibo horretan aurrera egiteko figura garrantzitsuak dira. Preso politikoak, haiei tratamendu indibidualizaturik ezartzen ez zitzairela jakinda, lehen gradutik aurrerako biderik egingo ez zutela jakinda, ez zuten elkarriketarik eskatzen. Azken finean, espetxe egitura 1. gradua etengabe ezarriz eta betiketuz, preso politikoak bide progresiborik egitekorik ez dutela adierazten ari baitzen espetxea. Horiek birgizarteratzerik ez dago, askatasunerako prestatzerik ez dago. Preso politikoen kasuan, makurtu eta damutzea baino ez baitzuten bilatuko, duela 40 urte atzera bezala. Horrela ulertzen zuten. Hala ere, noizean behin, espetxeko langile horiek presoak deitzen zituzten eta, horrelakoetan, ihes egiteko bakoitzak bere estrategia zerabilen: diskurtsoa bota edo mutu geratu, adibidez.

### 11.3.2. Adierazpen askatasuna eta beste eskubide zibil eta politikoekin zerikusia dutenak


Giza eskubideen nazioarteko markoak jasotzen dituen eta Espainiako estatuko konstituzioak jasotzen dituen oinarritzko eskubideak, ustez ez dira suspentsoan sartuko pertsona preso egoeran izan arren, preseski zenbaitzuekin epaiak horrelakorik agintzen ez badu bederen.

Praktikan, kale egoeran gertatu daitekeen modura, espetxean ere zenbait eskubide errespetatzeko arazoak izango ditu estatuak edo dagokion administrazio eta langile publikoek. Presoen egoeran, eskubide zibil eta politikoen eremuan kokatzen direnak erabat desagertzen direla ikusi dugu; zigortu diren praktikak zeintzuk izan diren ikusita. Besteak beste, partaidetza sozio-politikoarekin zerikusia duten ondoko hauek guztiak: biltzeko eskubidea, manifestatzeko eskubidea, adierazpen askatasuna, pentsamendurako eta informazioa jasotzeko eskubidea, edota estatuko edozein eremutako politika publikoen inguruan esku-hartzekoa, betiere bozka emateaz harago. Horiek guztiak betetzen ez zirela ikusi dugu orain arte, aldizkari eta liburuetan zentsura ezartzen zelako, EPPK ofizialki aitortzen ez zelako eta jazarria ere bazelako. Hala ere, kolektibo

horrek 45 urte iraun du. Tarte horretan, besteak beste, eztabaida politikoak eta espetxe egoerari lotutakoak garatu dituzte, egitasmo komunak adostu dituzte eta aldarrikapen taulak osatu. Eta hori guzti hori, espetxe barruan eta geografia zabaletan sakabanatuta egonik, gure aroan 70-80 espetxeetan, nahiz eta akaso emakumeak ez egon guztietan.

## 22. irudia

### Dispertsioaren mapak



### Iturria: Sare

Erresistentzietara itzuliz, ondoko ekimen politikoak berri eman digute:

- *Enkarteladak*: Eskuz egindako karteekin funtzionarioen garita aurrean ala jantokiko sarreran aldarrikapen edo salaketa zehatzen bat zekarren karteekin kokatzea.
- *Txarteltxoak*: Pin baten antzera, zerbait aldarrikatu edo salatzen zuen txarteltxoa -kartulina baten zortzirena- eramatea aldean 24 orduz.
- *Kartelak itsatsi moduluan*: Moduluan zehar edo abisuak ezartzeko propio zegoen txokoan, aldarrikapenen bat zekarren kartela itsastea.
- *Kartelak leihoan*: barrotetik barrotera, ala barroteen azpian aldarrikapenen bat dakarren txartela ipintzea.
- *Idatzi kolektiboak*: espetxe erakunde nagusira zuzendutako salaketa gutun edo instantziak idaztea, preso politiko gisa.

Aldarrikapen txartel horiek, kartulinekin eta errotuladoreekin bakoitzak berea egiten zuela adierazi digute. Norbait hilez gero, esate baterako lau senideren heriotzari eta beste bost preso kideen heriotzari egin diete erreferentzia, ikurrinak eskuz margotzen zituzten A4 batean eta leihoetan itsatsi, ala soinean zeramaten txikiago bat egiten zuten.

### 11.3.3. Espetxeko eguneroko bizimoduarekin zerikusia dutenak

- *Txapeoak*: Erregimen arruntean eta bizimodu arrunteko moduluetan, goizeko 8:30etan eta arratsaldeko 16:30etan ziegatik atera eta komuna den espaziora jaisteko dagoen derrigortasunari uko eginez, egun guztia ziegan geratzean datza. Isolamenduko edo bizimodu itxia izanez gero, eguneko lau ordu patiori uko egitean datza. Erresistentzia tresna horren intentsitatea, bizi-erregimenaren, espetxe bakoitzeko errutinen eta presoek erabakien arabera da. Hori dela eta, bazkal eta afalorduetan espazio komunetan bazkaltzeko hautu edo derrigortasuna jazo daiteke ala ez. Kasu batzuetan molde honen baldintzak tentsioak eragin dituzte eta negoziatu egin behar izan dira; bereziki kartzelera batzuk ziegara janaria eramatera ukatzen zirelako horrelakoetan.
- *-Planteak*: Arratsaldeko 14:00etan eta gaueko 20:00etan espazio komunetik ziegara igo eta bertan gordeta geratzeko dagoen derrigortasunari uko eginez ziega kanpoan geratzea da. Uko edo plante horrek ere modalitate ezberdinak ditu. Ziega aurrean sartu gabe geratu daiteke preso. Edo sarri askotan, ziegak dauden solairuetara igotzeari uko eginez zuzenean. Beraz indarrez sartzeko hautua egitekotan, kartzelariak lehen edo bigarren solairura doazen eskaileretan gora eramanez beharko dituzte preso disidenteak. Horrekin batera, plantoak zutunik ala lurrian eserita egin daitezke, erresistentzia pasiboa jarriz ala ez.

Bi moldeok nabarmen hausten dute espetxeko eguneroko jarduna; ziega uztea, espazio komunean egotea, jatea eta berriz ziegara joatea betebeharrak baitira espetxean.

### 11.3.4. Bizi-baldintzen kaskartze eta gehiegikeriekin zerikusia dutenak

Erresistentzia asko eta asko, egunerokoan erregelamenduak edo legeak adierazitako eskubideak ez betetzetik eratorritzen ziren. Eskubide horiek tentsio eta gatazkagai bihurtzen ziren erresistentzietan. Ikerketa honetan ondo hauek agertu dira :

- *Ziegan bikoizteari uko*: Ziegan banaka egoteko eskubidea urratzen duen ziega bikoizteari uko egitea. Horrelakoetan, ziegan sartzeari uko egiten zioten, eta hori plantotzat hartzen zen. Horren ondorioz, EPPKko beste presoak elkartzasunez idatziak egin, zuzendariarekin bilerak eskatu, edo bestelako tresnak martxan jartzen zituzten. Horren ondorioz, denak ala denak zigortuak izaten ziren; dela parte larri batekin, dela unean indarrez isolamendu galerietara eramanez.
- *Bata gabe biluzteari uko*: araketa integrala deritzon hori, norberaren intimitatea gordeta egingo zela bermatzen zuen bata gabe egiteari uko egiten zioten. Araketa horiek sarritan senideen bisetara joateko garaian jazo ziren, baina baita ziega araketa batean eta espetxetik kanpoko irteeretan ere (erietxera edo audientzia nazionalerako osteretan).



Egoera horrek eztabaidak, giro erasokorra eta mehatxuzkoa eragiten zuen. Eta kartzelera txandaren arabera indarrez biluztuak izatea ere zer den bizi izan zuten.

- *Formazio militarrean jartzeari uko*: Zenbait espetxetan, ez guztietan, ziegatik kanpoko zenbaketak patioan egiten zituzten eta horretarako formazio militarren antzera, presoak ilarak osatuz jartzen zituzten. Preso politikoak diziplina militarri erantzuten zieten horrelako neurriei muzin egiten zieten, eta hori ere zigorrerako arrazoia zen.
- *Patiora irteteko arkitik igarotzeari uko*: isolamenduko modulu batzuetan, patiora irteteko, metal-detektagailuaren azpitik igarotzeko betebeharra ezartzen zen eta egunero-egunero neurri hori pairatzeari uko egiten zioten. Ziegatik patiora, patiotik ziegara, beste inolako pertsonekin kontakturik ez zuten testuinguruan, neurri hura gehiegizko jazarpentzat jotzen zuten.
- *Zaintza epaitegian helegiteak aurkeztea*: denetariako helegiteak, txikikeriak diruditen gauzetatik hasi, presoari egunerokoa erabat alda diezaioken horretatik, gauza handiagotara. Esate baterako, dutxak komunak ziren espetxeetan pribatutasuna gorde ahal izateko gortinak jartzeko eskaerak, ziegan esnea berotzeko gailuak-margoak-puntua egiteko orratzak izatea, biluzketa integrala kentzea, telefono deiak euskaraz egin ahal izatea, lagun minak ahaidetzat hartzea eta abar.

#### 11.3.5. Presoaren oinarrizko eskubideekin zerikusia dutenak

Estatuak, lege organikoa eta espetxe erregelamendua bitarte, presoari zenbait eskubide aitortzen dizkio. Horietako batzuk, aurreko ataletan ikusi dugun moduan, bete egiten dira eta beste batzuk ez. Bada, oraingo honetan, horiek bete arren, presoak bere eskubideren bati uko egin diezaioke protesta eta erresistentzia gisa.

- *Espetxeko rantxoari uko egitea*: Espetxeak egunero bazkaritarako eta afaritarako preso bakoitzari ematen dion janari-erretiluari uko egitean datza. Horrekin batera bizimodu arrunta izanez gero, horrek jantokira sartzeko derrigortasunari ukoa ere badakar batzuetan. Espetxearen arabera, bazkalordua zenbaketa egiteko baitarabilte.
- *Komunikazio greba*: Bisita jasotzeko eskubideari eta gutunak bidaltzekoari uko egitea. Horrelakoetan familiari alde zuzenetik jakinarazten zioten, ez zezaten bidai luzea alperrik egin.

Norbaitek pentsa lezake *txapeoa* presoaren espazio-komun eta patio eskubideari uko egitea dela funtsean, eta arrazoirik ez zaio falta. Desberdintasuna, espetxe arautegian legoke kasu horretan. Ziegatik ez ateratzea zigortuta baitago, eta espetxe bazkariari eta komunikatzeko eskubideari uko egitea, aldiz, ez. Horrek agerian uzten du espetxearentzat presoak ziegatik ateratzea derrigorrezko

kontua dela, nahiz eta egun osoa patioan botata egoteko izan, jada ikusi dugun moduan, aktibitate eta lanerako aukerak erabat murrizak zirelako.

#### 11.3.6. Gorputza eta osasunarekin zerikusia dutenak

Eskubide eta aukerei dagokionez oso murrizak diren testuinguruetan, pertsonak haien eskaera eta salaketak plazaratzeko beste bitartekorik ez dutela sentitzen dutenean, eskura duten azken arma eta arma bakarraz baliatzen dira; haien gorputza, bizitza. Gorputzari min egitea borrokarako tresna ezaguna da, modu geldo eta jarraituan zein modu azkar eta bortitzean. Bada, zalantzarik gabe, espetxea testuinguru horietako bat da. Bertan ezagunenak, gose-greba, edari-greba eta barauak zein auto-lesioak dira. Horiek guztiak modalitate ezberdinak dituzte, baraua edari grebari lotuta joan daiteke ala ez, mugatua ala mugagabea izan daiteke, erabatekoak ala salbuespenekin izan daitezke (Reiter, 2004) . Auto-lesioei dagokienez (Bosworth 1999; Doty et al, 2012), zainen moztea, pilak eta bizar-xaflak irenstea edo lixiba edatea, dira daitezke horietako batzuk.

Ikerketa honetan erabateko gose-grebak, mugatuak eta mugagabeak agertu dira.

- *Gose greba mugatu ala mugagabeak*: Aldez aurretik erabakitako denbora mugan edo norberaren gorputzak lehertu aurretik iraun dezakeen denbora tartean zehar, ura bai, baina bestelako elikagairik ez hartzea. Gose greba mugatu laburrei, egun bat edo biko *baraualdiak* deitzen zioten. Azken horiek, batzuetan aldizkakoak bihurtzen ziren, edo asteburuetakoa adibidez.

Gose greba labur eta baraualdiei dagokionez, gaixotasun kroniko eta sendaezina zuen EPPKko kide baten osasun egoera salatzeko, baldintzapeko askatasuna eskatzeko. Hilean asteburu bateko osoko baraua, alegia. Horrez gain, haiek edo beste batzuek, zenbait muturreko egoeretan, bizi-baldintzei lotuta egindakoak agertu era aipatu dira.

Euskal presoak euskal herriratzeko aldarrikapena, haien estatus politikoa eta Euskal Herriko prozesu sozio-politikoetan subjektu politiko gisa parte hartzeko eskubidea aldarrikatuz gose greba luzeagoak aipatu dira: 1999ko urtean mugagabea eta 2004an 10 egunekoa.

#### 11.3.7. Generoari lotutako erresistentziak

- *Garbiketari uko egin*: Astean behin, modulua garbitzeko betebeharrari uko egitea. Zeregin hori hau emakumeentzako baino ez zen betebeharra, gizonen kasuan hori “destino” bidez egiten zen lana baitzen, nahiz eta ez izan lan ordaindua. Emakumeen kasuan ere, horrek aitortutako lana izan behar zuela aldarrikatzen zuten, emakumeak izateagatik haien betebeharra ez zela aditzera emanez.


- *Helegiteak*: Emakumeen esperientzia eta bizipenekin lotura zuzena zuten gaiekin helegiteak egiten zituzten zaintza epaitegian. Emakumeek espetxe barruan pairatzen zuten diskriminazioari aurre egiteko, edo espetxearen bizi-modu zurrun eta tradizionala gainditzeko.. Zehazki ondoko hiru hauek dira gehien errepikatu direnak:
  - a) Emakumeen espetxeetan eta espetxe mistoetako erietxeetan, mediku ginekologoaren kontsultak egoteko aldarrikapena.
  - b) Ahaideen artean, odoleko lotura eta ezkontza bidezko loturetatik harago dauden pertsonak ahaide gisa aitortzea eta, beraz, bisean bisekoak haiekin egiten aukera izatea.
  - c) Elkarbizitzako bisean bisak, haurrak ez izan arren mantentzea, umerik gabeko bikoteak familiazat hartuz.

Maparen bidez, ikerketan zehar agertuz joan diren erresistentzia praktikak laburtu ditut. Espetxeko egituraren aurka, erregimena hautsi edo aldatu nahian eta haien estatus politikoa aldarrikatu nahian gauzatutakoak, alegia.

Praktika horiek agerian uzten dute:

- a. Presoen askatasun gabetzeak horrela beharko ez zukeen arren, gizabanako orori, dagoen tokian dagoela dagozkion eskubideen gabetzea dakarrela, zehazki eskubide zibil eta politikoenak. Skysek (1958:78) adierazi zuen modura, espetxea askatasun fisikoa galtzea baino askoz gehiago baita
- b. Erregelamendu penitentziarioak eta lege organikoak dakarrena ez dela betetzen, borrokagai bilakatzen baita.
- c. Espetxeko funtzionamenduak genero ideologia atzerakoia duela eta emakumeekiko diskriminatzailea dela.
- d. Boterearen gehiegizko erabilpena eta injustizia egoerak jazotzen direla. Beraz, Manzanos-ekin (2005) bat egiten dut, esaten duenean ziur aski gaur egun 1996ko Lege Organiko Penala betetzeak gaur eguneko espetxeko egitura asko eta asko deuseztatzea ekarriko zukeela. Orduetik hona, Kode Penalaren erreformak direla medio, edo kontrol judizial eta parlamentariarik ez duten zirkularrak, zein inpunitate eta arbitrariotasunak egonkortu dituen praktikak, espetxeen egunerokoa legeak berak dionetik zeharo urrun baitago.

23. irudia  
Erresistentzia mapa



Iturria: neuk egin

Praktika horiek, agerian uzten dute ere, preso politikoaren politizazio maila espetxe egiturari dagokionean. Espetxe-modernoaren sistemaren oinarritzko zutoinetako batzuk, lana eta graduen bidezko sistema progresiboa esaterako, ez jarraitzeak maila handi batean, espetxeak presoan mende hartzeko eta otzantzeko dituen tresna garrantzitsu batzuk indargabetzea delako. Foucaulten (1975) arabera, esate baterako, hiru ziren espetxe-sistemaren osagai nagusiak: isolamendua, lana eta zigorraren modulazioa. Isolamenduaren bidez, presoari kanpoko errealitatearekin harremanetan sartzeko edo zailtzen zaionez gero, espetxeko errealitatea eta bere boterea gain-dimentsionatua eta handitua sentitzea dakar. Kartzelan askotan entzuten da: *Hemen arazoak handiagoak egiten dira*. Nago esaera horrek espetxean edozein gauza lortzea zailagoa eta luzeagoa dela esan gura duela. Baina, batez ere, horren auto-zentratutako bizimodua eragiten duela isolamendua ezen, *goizeko 10:00etan txikia zen arazoa, eguerdiko 13:00etan dagoeneko erraldoia* izatea zekarrela. Presoa txikiagoa sentituko da espetxe erraldoiaren aurrean, ez duelako barruko besteen eta, batez ere, kanpokoaren eskua eta burua izango batera ekiteko. Lanaren bidez, presoan espetxeko funtzionamendu eta mantenuaren parte bilakatzen da, espetxeak ezin baitu aurrera egin edo *egunero bere ateak ireki* lan guzti horiei esker ez balitz: arropa garbitzaileak, espazio komunitario garbitzaileak, sukaldariak, lore zaintzaileak eta abarrek luzea. Baina horrekin batera kaleko enpresetako sistema produktiboaren parte diren lanak daude, non presoek diru gutxiagoren truke lan egiten duten eta, beraz, preso egoteak eskulan merke bilakatzea dakarren, sindikatzeke aukerarik gabe, grebarako eskubide zapuztuekin eta 90ko hamarraldira arte segurtasun sozialik gabe.

Amaitzeko, Foucaultek azpimarratzen zuen hirugarren ezaugarria sistema progresiboa eta mailen sailkapena da. Azken hori, XIX. mende bukaeran Irlandako Crofton espetxe zuzendariak proposatu zuen ereduak izan zen, eta nahiz eta Europan zehar ez zen modu bereberean inplementatu, logika edo zentzua bera da: modu progresiboan, zigorraren gogortasun eta estutasuna malgutzea eta leuntzea. Modalitate itxienean hasi eta askatasuna entseatzearen antzekoa den 3. gradu edo baldintzapeko askatasunarekin amaitu. Barne sailkapen eta mailaz mailako progresibotasun horrek presoak askatasunarekiko kokatzen diren distantziarekiko sailkatzea dakar, eta distantzia horren neurria denbora izango da. Horren arabera, tratamendu batzordeak eta espetxe zuzendaritzak 1. graduan, itxienean zenbat denbora egin behar duen, zenbat bigarrenetan eta zenbat hirugarrenean erabakiko du. Sistema horretan aurrera egiteko modua portaera egokia izatea da, beraz, mendeko eta otzan jokatzeko, *preso ona* izatea. Bide horretan merituak eginez, eskubideak betearaziz sarituko dute presoak: lana, hezkuntza, komunikazioak eta abarrek eskubideak sari bezala erabiltzen baitira. Beraz, graduen araberako sailkapen horrek preso onak eta txarren arteko sailkapena ere badakar berekin. Presoen arteko barne sailkapenak estratifikazioa dakar eta sistema progresiboa saria eta mehatxuaren bidez, eskubidea pribilegio bilakatzen duen eredu horren azken ekarpena errespetuzko modukoak direla baieztatzen dute hainbat autorek (Ballesteros, 2017, Losada, 2022). Are gehiago, Ana Ballesterosen aburuz (2017), emakumeen berdomestikazio estrategia eraberritzea ekarri du eredu berriak.

Preso onak eta txarrak sailkapenean preso politikoak zuzenean bigarren multzoan kokatzen zituzten. Lehen graduan sailkatzea eta graduz ez aldatzeak, espetxeak preso horiekiko birgizarteratzerik bilatzen ez zuela uzten du agerian. Galdutzat jotzen duen preso profila, edo hobe esanda, Frankoren preso politikoentzako Ricard Vyneisek (2011) esan moduan, zigor eta zaingoa beharrean, makurtzea, damutzea eta eraldaketa ideologikoa bilatuko da. Preso politikoari bere estatusa ukatuz besteekiko berdindu guran, baina besteengandik ahal den eta isolatuen izatea bilatzen baitzuten.

Graduen sailkapenaren pentzuan ez egoteak eta lan ez egiteak, diziplina eta kontrolerako izugarritzko garrantzia zuten bitartekoetatik kanpo egotea zekarren, otzantzeko tresnetatik ihes egitea funtsean. Ziurrenik, hori izango da preso politiko gehienak etengabe diziplina-zigorrekin aritzea eta bizimodurik eta hertsiena ezartzen saiatzeko arrazoi, beste bitartekoek kale egiterakoan isolamendua eta biolentzia zuzena izango baitira espetxeari geratuko zaizkion bitarteko bakarrak.

Hala ere, badira diziplinaren boterea gauzatzeko modu eta bitarteko gehiago. Sona handiko Frantziako filosofoak ondoko hauek azpimarratu zituen: a. Begirada panoptikoa edo ikuskatze hierarkikoa, funtsean kontrola helburu duena. b. Ona eta txarra, baimendua eta galazotakoa, abantaila eta desabantaila zer den ezartzen duen sistema. c. Ebaluazio-behaketa. Hiru printzipio horiek, jada ikusi dugun moduan, isolamenduarekin, sailkapenarekin eta lan egitearekin zerikusia dute. Baina diziplinaren botereak bere garapenerako beharrezkoak dituen espazio eta denboraren antolaketa zehatza, isolamendua, graduak eta lanaz harago ere hedatzen zen: guneen erabilgarritasun maila eta mota, entzierroa, ordutegi zurrun eta estuak, espazioen banaketa eta jardueren erregularutasunak nonahi zeudelako. Horregatik, badira diziplinaren botere horri ihes egiten dioten beste zenbait praktika, Rubin-en definizio eta sailkapenaren arabera ezin direnak erresistentziatzat jo, baina bai ordea frikziotzat. Hurrengo atalean horien berri emango dut.

#### **11.4. Frikzioak**

Presoari araua astunegia eta itogarriegia egiten zaiolako, izugarritzko erronka latza den biziraupen psikologikorako (Brown, 2003) behar duelako, biziraupen materialerako edo besterik gabe egunerokoa goxatzeko baliogarria zaiolako, lehenago edo beranduago, gehiagotan ala gutxiagotan, presoa kartzelarien bizkar arituko da, eta arau batzuk hautsiko ditu. Presondegian garesti ordaintzen diren ondasunak badira: osasuna, elikadura, higiena, babes-segurtasuna, aisia-atsedena-lasaitzea-gozatzea-ihes egitea, komunikazioa-harremanak eta afektua. Eta horiek betetzeko, estrategia eta praktika zehatzak garatu beharko ditu presoak. Horiek guztiak bere bizi-baldintzen kalitatea, biziraupena eta areago, nortasunaren garapena (ni-gua) posible egingo ditu. Baina horrek ez du esan nahi, presoak beti modu kontzientean egiten dituenik, edo espetxea iraultzeko asmoz ari denik. Horietako praktika askok potentzial izugarria izan dezakete, baina potentzial horrek ez du zertan leher egin behar. Horiek dira frikzioak eta hurrengo lerroetan landa lanean agertutakoak garatuko ditut.

Atal hau ireki duen irudi etnografikoan ageri diren pastelgintza zein alkoholgintza frikziotzat ditut. Rubin-en arabera, pertsonak testuinguru oso itxi eta kontrolatuetan daudenean, erreakziozko portaerak sortu ohi ditu, eguneroko erresistentziazat ere jo izan direnak (Maria Ruizek egin bezala). Funtsean, beti modu kontziente, hausnartu eta antolatuan ez bada ere, presoak bere bizitza eta destinoaren gaineko kontrola ber-hartzeko saiakera egingo du, bai eta askotariko modutan egin ere. Ariketa horretan, presoak espetxeak agindutako aktibitate bati batzuetan beste esangura eta funtzioa esleituko dio, edo arau batzuk ez ditu bereziki aintzat hartuko. Pastelak egiteak, espetxe barruan sukaldean egiteko debekua eta espetxeko menura lotzeko betebeharra hausten ditu, espetxean aniztasuna galduz doan gustuari opari egiteko baino ez bada ere. Beste horrenbeste gertatzen da alkoholarekin, noizean behin presoak errealitatea beste dimentsio alai eta arinago batetik begiratzeko gogoia izango du; bere burua horren tentsionatua eta estu ez ikustekoa. Lagunartean barre algaraka lehertzea, zentro totaletan erabatekoa den autoritate bakar hori desafiitzea, edo besterik gabe, erronka jotzeko plazer hutsagatik, bihurrikeriagatik edo zerbait ospatzeko alkohola ekoizten zuten. Frikzio mota horren zirraretako bat modu kolektiboan egitean datza, plazer konpartitua izatea. Baina ez dira gozogintza eta alkohola izango, sormena eta gorputzari gustua eta osasuna emateko bide bakarrak. Hurrengo lerroetan horien berri emango dut, agertu diren adibide gutxi batzuk ematearekin batera.

#### 11.4.1. Jakintza, jolasa eta ekintza kolektibizatzearekin zerikusia dutenak

- *Jaiak antolatzea*: herri kirolak, mus txapelketak, dantzaldiak, norbaiten urtebetetzea edo albiste onen bat ospatzeko.
- *Eskulan tailerrak antolatzea presoen artean*. Elkarri pultserak, kakorraz-lanak, puntokruza eta puntua egiten erakustea. Motxilak, jertseak, mantak, gortinak, adurzapiak, fularrak eta beste hainbat gauza egiteko patrioiak elkarri igorri eta akonpainamendua egitea.
- *Formazioa, irakurketa, idazketa tailerrak antolatzea presoen artean*. Bertsogintzan edo ipuingintzan trebatu, denek irakurritako liburuen inguruko solasalditxoak egitea.
- *Kirol praktikak modu kolektiboan egitea*: luzaketak, *aerobic*, yoga eta abarreko auto-kudeatutako eskolak egitea. Astean ordu eta egun zehatzak ezarriz, elkarri *taichi*, *taichi-kun*, *step*, *korrika training*-ak eta antzerako aktibitateak erakustea eta elkarrekin egitea.
- *Dantza, irrintzia edo beste espresio kulturaletan trebatu*. Bakoitzak zeukan jakintzatik, besteei edo besteari erakustea.

Azken finean, espetxeko hezitzaileek antolatutako ekintzen eskasia zela eta, motibazio faltagatik edo bertan parte hartzeko ukazioagatik, preso politikoek haien artean antolatzen zituzten goian aipatutako aktibitate guztiak. Bakoitzak zituen ezagutzetatik tiraka, haien mugikortasuna, gustua, sormena, alaitasuna, intelektua eta formazioa lantzeko edo, besterik gabe, ondo pasatzeko

zernahi aktibitate antolatzen zituzten. Horrek beraien kultur eta gorputz hezkuntza eta garapena espetxeak ezarritako zirrikitu edo absentziatik gaindi garatzea zekarren.

#### 11.4.2. Espazio eta denboren ezaugarritzea aldatzearekin lotura dutenak

Gorputz, formazio eta kultur jarduez gaindi, denbora eta espazioaren berrantolaketa erabatekoa zekarren praktika gehiago ere garatu dituzte. Azken horiek zigorra ekar zezaketen, espetxe arautegiarekin modu zuzenagoan talka egiten zuelako.

- *Bisean biseko konbibentzialak edo familiarrak harreman sexualetarako probestea.* Lehen aipatua izan den moduan, aurrez-aurreko hauek batzuetan bikotearekin edo, espetxeari bikotea dela esan arren, sexu-laguna baino ez denarekin harreman sexualak izateko erabiltzen zituzten.
- *Ziegako hormak apaintzea, ziegari nortasun propioa ematea.* Ziegak kartzeleroen segurtasun eta lanerako, funtzionalak izan behar ziren, beraz, hormetan zein barroteetan kartel, tela, argazki edo dena delakoak eskegitzea debekatuta zegoen. Hala ere, horietan herriko argazkiak, lagunak, marrazki bat edo dena delakoak eskegitzeak ziegako hoztasun inpersonala desegiteko ariketa zen.
- *Etxeko izarak erabiltzea espetxekoak beharrean.* Izaren tolesturetan droga sar zitekeenaren aitzakiaz, kaletik izarak sartzea debekatuta zegoen, eta beraz *Centro Penitenciario* zeritzan zuri urdinen erabilera inposatzen zen. Hala ere, arau hori orokortu aurretik etxeko izarak zituztenak, edo sarrerako langa gaintzea lortu zutenak, haien ondasuna beste kideekin partekatzen zuten, jaso zitekeen herentzia preziatuena bilakatu.
- *Komunak edo beste espazio partekatuak harreman sexualetarako erabiltzea.* Modulu bereko pertsonaren bat gustuko izanez gero, eta ziegak itxita egoten zirenez gero, moduluko espazio komunetan zehar txokoren bat bilatu behar zen une intimoak izateko. Horretarako, beste kideek zaintza lanak egitea eskatzen zuen, norbait etorri gero sartzen ez uzteko eta abar. Horretarako, komunak, gimnasioa, ikasgela eta denetariko tokiak erabili izan dira.
- *Aste barrua eta asteburua ezaugarritzen saiatu.* Espetxeko ordutegiak eta egutegia, espetxeko langileen arabera antolatuta dago, horren ondorioz, asteburuak eta opor datak, inolako kudeaketarik eta gehienetan ekintzarik ez dauden datak izan ohi dira. Zer esanik ez, aktibitateetan parte hartu ezin dutenentzat, edo asteburuan beti bisita ez duenarentzat. Hori dela eta, data horiek, batez ere asteburuak, eta norbaitek bisita ez zuenean, aste barrutik, banatzeko zerbait egiten zuten. Alegia, egun arruntak eta bereziak ezberdinduz egutegian. Gehienetan gorago aipatu izan diren jai edo aktibitateen bidez.



### 11.4.3. Komunikazioarekin zerikusia dutenak

- *Botilekin, galtzerdiekin edo flexoarekin komunikatu*: leihotik leihora, botila baten laguntzarekin, eskua galtzerdi batean sartuta ala gauean argi flexoaren bidez, *boteatu* zeritzan lengoia hitz egiten zuten batzuetan. Horretarako, elkarrizketa izan nahi duzun pertsona, gutxi gora behera, zeure pareko tokiren batean egon behar da, lengoia horren funtsa, hizkiak botila, galtzerdi edo flexoarekin, banan-banan airean marraztea datzalako. Kristal baten bidez banatuta egonez gero, esate baterako modulu bata eta bestearen arteko banaketa kristala ziegen solairuetan -botilarik ez da behar, atzamarrekin erabat ulergarriak suertatzen baitziren hizki eta elkarrizketak.
- *Oihuka ziegatik ziegara edo modulutik modulura*: komunikatzeko molde hau beste pertsonak beti parez pare ez daudenean erabiltzen zen. Haizearen arabera oso eraginkorra suertatzen zen ala frustrazioak jota uzteko bestekoa. Oso geldia, ondo ahoskatuz eta ozen hitz egitean datza komunikatze modu honek. Gehienetan, zerbait larria gertatzean edo babesa eta indarra behar duen norbait hauspotzeko erabiltzen zen. Adibidez, Soto Del Realen, sartze- moduluetatik oihukatuz gero emakumeen moduluetan entzun egiten zen, eta alderantziz. Modu horretan, polizia etxeetatik heldu berriei oihu bidez dena amaitu dela, ondo egongo direla, asko jota bost egunetan ekarriko dituztela eta dei bat egiteko eskubidea dutela azaltzen zitzairen. Horrekin batera, animo eta adore emateko irrintziak eta hitz goxoak ere.
- *Euskaraz mintzatu*: Joseba Sarrionaindiaren *euskera da gure territorio libre bakarra* esaldiak bere esangura osoa du espetxean, preseski beste preso eta kartzelarien belarri zorrotzetatik babesean aritu al izatea zekarrelako. Beraz, haiengatik gaizki esaka edota haiengana iristerik nahi ez zuten-genuen informazioez hizketan aritu zintezkeen-gintezkeen lasai asko, eta horrek, zorrotza baino zorrotzagoa den kontrol eta jarraipenaren barruan (FIES), askatasun sentsazio handia eragiten zien. Eta nago, ez zirela-ginela gu hori sumatzen genuen bakarrak:

Behin iitu bat hurbildu zitzaidan esanaz pena handia ematen ziola Romania galdu izana. Hitz solte batzuk baino ez zekizkiela. Ni erabat hunkituta, ijitu herriaren nortasunaz eta eskubideez hitz egiten hasiko zitzaidalakoan edo, a saber. Baina esan nion: -"Sí ¿Verdad? Os han robado parte de vuestras raíces". Eta bere erantzuna: -"Sí sí. Nuestros abuelos se inventaron el Romani para poder hablar sin que les entiendan los carceleros, como vosotras las *etarras*. Nosotras igual podíamos inventarnos otro idioma nuevo para eso". Flipatuta geratu nintzen, mekaulenamar! Ze iñuxentea nintzan pentsatuz. Baina bai, kartzelan euskarak askatasun hori oparitzen zigun, egunero-egunero ezta? **Lili**

- *Espetxearentzako ikusgarri ez den bizitza izatea (ezkutuzko komunikazioak, okerreko senidetzeak, osasunaren eta ikasketen kudeaketa isila)*. Komunikazioen interbentzioak eta FIES fitxak betetzeko beharrezkoa zen eguneroko behaketa dela eta, preso politikoek

espetxe erakundearen begi-belarrietara iristerik nahi ez zituen informazio-gertaera-arazo eta proiektuak zituzten Horiek ez ziren soilik, EPPKren funtzionamenduari eta jarduerari lotutakoak. Norberaren bizimoduarekin erlazioan zeudenak ere: arazo psikologikoak, haurra ekartzeko proiektua, ikasketa prozesu batzuk, espetxe barruko harreman sexo-afektiboak. Hori dela eta, *espetxeak badaiki, espetxeak oraindik ez daki, espetxeari ez diogu esango* eta horrelako espresioak maiz entzuten ziren patiotan. Arrazoia gehienetan babestea zen, espetxeak informazio hori presoa mintzeko eta presoaren aurka erabiliko zuelakoan.

Kolektiboari bai dena adierazi nion, denei, baina beraiei ez (kartzelari). Ta beldurragatik zan, me ahorcan un día allí y listo, una menos. Ta nork esan ezetz? Ez nintzen fidatzen ni un pelo. Zan nire burua babesteko, ez nuen nahi jakitea, ez dakit, nire burua babesteko. **Xune**

Beraz, horrek agerian uzten du interbentzio eta jarraipen horren helburua ez zela espetxeak esan bezala, ekintza terroristak ekidin eta horren inguruko informazioa eskuratzea, baizik eta haien jardun politikoa deuseztearekin batera, pertsonalki ere nola suntsitu jakitea. Izan ere, espetxeari informazioa gordetzeko arrazoia, haiek mindu edo txikitzeko erabil ez zezaten zelako.

- *Pilak, karroa, hormako arrakala*: Hormako arrakalarekin batera, patiotik patiora pila batean zelorekin itsatsitako ohartxoak pasatzen zituzten, baita *karroaren* bidez ziegatik ziegara edo patiotik ziegara ere.
- *Umorea*: Haien buruaz, beste presoek eta kartzelariek barre asko egiten zuten. Negarra atera arteko barre handiak batzuetan. Arerioa gutxiesten zuen umorea, ezizen komikoak eraikitzen zituena. Parekoekin bizikidetza estu-estuak izateak eragindako konfiantzatik sortutako umorea. Beste presoek kasuan “besteek” sortu ohi duten barreari lotuta. Horrekin batera, “son las reglas” delakoak, egoera erabat absurdu eta surrealista sortzen zituen, hanka ez bururik ez zutenak. Baina horien aurrean, arauak betetzea edozeren gainetik lehenetsiko zuten langileen jarrerek ez zuten asko laguntzen.

#### 11.4.4. Gozamena sortzeko

- *Sukaldean egin, menua propioak sortu, jogurta eta gazta ekoitzi*: Elikadurari dagokionez, espetxea eguneko hiru otorduen kargu egiten da. Horrez gain, ekonomatoan kaleko herri txiki batetako dendan batean aurkitu ditzakegun gauzak aurkituko ditugu: opilak, txokolatea, gailetak, atun edo sardinak latan, enbutidoa, esnea. Baina inoiz ez, sukaldean egiteko izan daitezkeen elikagaiak: arrautzak, barazkiak, olioak, gatzak eta abar. Izan ere Espainiako espetxeetan debekatuta dago sukaldean egitea. Hala ere, eskura zituzten gauzekin produktu ezberdinak edo plater zehatzak egiten zituzten presoek: esne kutxa bat gau osoan ziegako flexoaren azpian jarrita, litro bete jogurt ekoizten zuten. Eta baita gazta ere. Zenbait tokitan, irabazitako helegiteak direla eta, ziegan esnea berotzeko tramankuluak zituzten, ziegan 20

ordu egonik berotan sartu ahal izateko. Horietako batzuk sukaldean egiteko balio zuten erresistentzia elektrikoa zutenez, ezkutuan, (ohe azpian, komun ondoan) ziega barruan sukaldean egiten zuten.

- *Beste presoek tailer edo lanean lortutako materialekin gauzak eraiki ziegan:* espetxean sokek, alanbretxoek eta horrelakoek, balio handia hartzen dute. Ustez, presoak bere buruaren aurka erabiltzeko arriskua duten heinean debekatutakoak ere badira. Halaber, ziegako ekipamenduek dituzten gabeziak osatzeko erabilgarriak izaten ziren oso: eskuz ziegan garbitzen zuten arropa eskegitzeko esate baterako. Baina horrekin batera, pintzel bat, pota txiki bat...edozein gauza altxorra izan daiteke, ziegan gutxieneko konforta sortzeko. Modu horretan, sormena lagun, denetariko tramankuluak asmatzera iritsi zitezkeen. Horien artean, emakumeen modulu batean *dildo* bat eraikitzen iritsi ziren.
- *Kaleko janaria sartzea:* bisean bisetan senideek bertan jateko gutuziak eramaten zizkieten presoek, espetxeko janariak ekarritako gustuaren pobretzea leuntzeko. Hala ere, ez beti eta ezta testuinguru guztietan ere, baina giroa lasaia zela sumatzen zutenean bai. Inoiz, jaki horietako batzuk modulura arte eramango zituzten presoek, eta horrelakoetan horiek elkarrekin jan eta gozatzeko erritual pozgarria antolatzen zuten. Janariaren bidez maitasuna zen espetxe barrura sartzen zena, izan ere senide-lagun-bikoteek zekarten urdaiazpikoa, pastak eta langostinoak sarritan herriko edo auzoko harategi, arrandegi edo gozotegian doan eta presoarentzako espreski oparitutakoak izaten ziren. Beste batzuetan, ama edo amonaren, edo presoak gustuko zuen tabernako pintxoak sartu ohi ziren; partikularrak eta bakanak ziren gustu bereziak asetuz baina, aldi berean, afektuz eta oroitzapenez beteta dauden jakiak sartuz.
- *Alkoholduen edariak egin, txitxa. Porroak erre.*
- *Espetxeko zenbait elikagai dosi handiagoak eskuratzeko sarea sortzea.*

Azken bi horiek jada arestian aipatuak izan dira.

#### 11.4.5. Preso identitate orokorrarekin bat egiten duten praktikak

Ondoko hauek, presoaren azpi-kultura komun horretako praktikak ziren; espetxearen arabera batzuk galduz edo aldatuz joan arren, moduluko preso guztiek batera ekiten zuten uneak ziren:

- *Atea jotzea edonoren arazo baten aurrean (erditzea, jipoia, gaixotzea...).*
- *Gabon zaharretan atea ostikoka jotzea (espetxeak apurtu ezagueran)*
- *Kaleratzeak ospatzea zarata eginez; poz oihuak, gorak eta gorak.*
- *Hildakoak agurtzea zarata eginez; burrunbak, txaloak, eta ondoren isiltasuna.*

Gauean eta eguerdian, isolamendu zelularra deritzona aplikatzen zenez-denez gero, presoak ziegan giltzapetuta izan ohi zituzten. Une horietako batean larrialdi egoeraren bat sortzen bazen, preso guztiek atea ukabilka eta ostikoka joko zuten. Horri *atea pikatu* deritzo. Praktika horrek testuinguruaren arabera esanahi ezberdinak ditu: abisua ematea ala protesta egitea. Gaur egungo espetxe- tipoek ziega bakoitzean interfono bana dute eta berau erabili behar zuten-dute kartzelariei zerbait adierazi nahi izatekotan, baita kartzelariak presoari. Hala ere, atea jotzearen ohitura horrek indarrean jarraitzen zuen, nahiz eta batzuetan hori egitea zigortzen zen. Ondoko egoeretan izan ohi zen ohikoena:

- Osasun larrialdiak gertatzean: Haurdun zegoen presoren batek urak apurtu zituelako, besteren bat auto-lesionatu zelako zainak moztuz edo burua hormaren aurka joz-, norbaitek konortea galdu zuelako edo droga-gaindosiak jota zegoelako, antsietate edo urduritasuni emanda egoteagatik , ziegako koltxoari su emateagatik. Horrelakoetan, espetxeko langileak alaitz azkarren egoeraz jabetzea eta ziega irekitzea garrantzitsua izaten zen, nahiz eta askotan interfonoak deskonektatuta egoten zirelako edo patxada handiz hartzen zutelako, ziegak irekitzearena astiro joaten zen. Hortaz ateari emandako ukabilkadak protesta bilakatzuz joan ziren.
- Bidegabekeria edo injustizia baten aurrean: ziegaren batean presoren bat jipoitzen ari zirela sumatzean. Batzuetan norbait hiltzean, isiltasun astun eta dentso batekin batera, zarata sortze bateratuak ere egiten ziren. Horrelakoetan agur erritual itxura hartzen zuen.. Urteko azken egunean gaueko 12:00etan ateak jotzea bezala, errituala bilakatzeko kartzela batzuetan. Presoaren identitatea berresten zuten erritualak ziren, presoak espetxeratzea onartzen ez zuela adierazten dutenak alegia.
- Hildako presoaren ziegatik zonalde komunera jaisten zuten bitartean, beste presoek eskura zutenarekin zarata egiten zuten. Hilotza igarotzean, ordea, erabateko isiltasuna egiten zen. Ziur aski 2. graduko moduluetan adibidez, espetxean isiltasun egiten zen une bakarria ere bazen.

#### 11.4.6. Generoari propio lotutakoak


Generoaren eraikuntzan, gizon eta emakumetaz espero den portaera eta aktibitateak ezartzen doaz. Bada, baita espetxean ere, alegia preso emakume\* izateari esleitzen zaizkion egoteko eta aritzeko moduak zeuden; dela espetxe erakundeari begira, dela presoarteko harremanetan. Generoari lotutako espetxe deskribapen edo azalpenak emateko orduan, aurreko mendeko tokian egotearen sentsazioa behin baino gehiagotan agertzen den gauza dugu. Espetxean sartzea denboran atzera egin izana balitz bezala. 90 edo 2000. hamarralditik frankismo garaira, belaunaldi horretako ama eta izekoek bizitako genero erregimenera, alegia. Funtzionarioak *entre madre-policia y monja* bezala deskribatu zituen preso ohi batek hitzaldi batean. Preso politikoek espetxeko segurtasun

funtzionarioak, haiei zegokien lanetik harago ari zirenaren gaineko kontzientzia zutela nabarmen ageri da. Hori dela eta, janzerarekin lotutako aipamenei ez zieten inolako kasurik egiten, kartzelariak zerabilten tonu infantilizatzailea ekiditen zuten distantzia ezarriz, genero rolekiko errudun sentiarazteko aipamenen aurrean haserrea adierazten zuten. Horrekin batera, segurtasuneko arduradunarekin, zuzendariarekin, osasun zuzendariordearekin negoziatu behar bazuten, kasu gehienetan gizonak zirenez gero, uneren batean genero rol hegemonikoren bat jolastu behar bazuten horrela egiten zuten. Eta beste presoekiko ere, emakumeen arteko lehiakortasuna dela eta borrokan hasten zirenean, hortik kanpo mantentzen eta lehia hori leuntzen saiatzen zirela agertu da. Horrek guztiak esan nahi du generoak eta genero arteko harremanek zeukaten garrantziaz jabetzen zirela, gehiago ala gutxiago teorizatu arren. Espetxea matxistatzen zeukaten eta ez zitzairen harrigarria iruditzen. Haien burua babesten saiatzen ziren, baina ez zuten jarrera zuzen eta intenzionaturik erabiltzen, espetxeko trataera matxista mota hori desegiteko. Horregatik erresistentzia feministatzen baino frikziotzen jo ditut. Laburbilduz ondoko hauek dira azpimarragarrienak:

- *Feminitate hegemonikoa erabiltzea negoziatzeko*: genero sistemaren nagusi zen feminitate eredura hurbiltzen ziren portaerak erabiltzen zituzten noizean behin, helburu oso zehatz bat eskuratzeko. Pierre Bordieuk (2000) “emakumearen irudi publikoa erabiltzea” deitzen zuen hori; edo Dolores Julianok (2002, 2004, 2015) bere pobrezia, sexu langile eta etorkinen ikerketa ezberdinetan, emakume\* askoren portaeretan identifikatu eta erresistentzia estrategiatzen jo zituen horietaz ari naiz: edertasuna eta sedukzioa erabiltzea, txoliken plantak egitea, goxo eta leun hitz egitea, besteak beste.
- *Emakume aratza ez izatea*: Matxistatzen zituzten arau batzuk, asko idatzi gabeak, ez onartzea. Eguzkia bainujantzian edo titizorro gabe ezin hartzea, txukuntasuna mantendu beharra eta abar.
- *Emakume meneko eta otzana ez izatea*: Espetxeetan indartzen zen emakumeen infantilizazioari lotuta zeuden egoteko era eta portaerak ez erabiltzea. Kartzelariak señoita ez deitzea, biktimaren rola hartzea, kartzelariak opariak ez egitea adibidez.
- *Emakume arteko lehiakortasunean ez parte-hartzea*: Emakumeen arteko lehiakortasun eta hika-miketarik aldentuta mantentzea. Edertasuna, gizonekiko arrakasta eta arropa kontuetan, sortzen ziren norgehiagokak desegiten saiatu.

24. irudia

Frikzioen mapa



Iturria: neuk egin

Ikusi ditugun erresistentzia eta frikzio horiek, espetxe egituran, modu batera edo bestera eragiten zuten. Ikerketa honen helburua hori ez den arren, nabarmena da presoek praktikek espetxe egitura eta arautegietan izandako eragina. Orain artean ikusi ditugunez gain, beste bat azpimarratuko dut. Preso politikoren bat ireki berria zen espetxeren batera eramatea zoritxarreko albistetzat zuten. Azpiegitura aldetik berritasuna eta garbitasuna ekarri arren, gehienetan araudi zorrotz betearaztea zekarrelako, lekuan leku eta garaian garaiko lorpen asko zerogarren puntura eramatea, azken finean. Horri *espetxea estrenatzeko zoritxarra* deitzen zioten.

Kontrako norabideko eragina, hain zuzen ere, espetxe-egiturak presoengan eragindakoa (erresistentziak- erresistentzia eta frikzioak-frikzio) da hurrengo atalean landuko dudana. Alegia, espetxea dominaziorako egitura bortitza den heinean, preso horien subjektibitate eta identitatean izan duen eraginaren azterketa.

### **11.5. Arrastoak: identitateak, ondoezak, komunitate emozionalak**

Espetxeratzeak emakume\* preso politikoengan utzitako arrastoa edo marka hobeto ezagutzeko, espetxeratzeak subjektibitatean duen eragina eta subjektibitateak espetxeratzean duena ezagutzea beharrezkoa da. Modu horretan hobeto ulertuko dugu botere harremani nola begiratzen zioten presoek, baita horiek nola baloratzen eta negoziatzen zituzten ere.

Espetxe esperientziaren kontakizunari beha, John Irwin eta Donald Cressey-ren (1962) *inportazioaren teoria* baliatuz eta berretsiz, nago emakume\* presoek kaletik dakarten ezaugarri sozio-demografikoen multzoak eta identitateak eragin handia zuela haien espetxe portaeran. Hori nabarmena da, guztiek EPPKn sartzea erabaki zutela kontuan hartuta eta haien erresistentzia gehienak antolakunde horren ekimenez egin zituztela ikusita. Halaber, kolektibo horretako partaidetzak berak, eta patioan kolektibo horretakoekin eta herrikideekin egoteak, are gehiago politizatu eta botere du. Hortaz, telebistan, prentsan eta espetxe egiturarentzat desegin beharreko *etsaia* izan arren, horientzat eta beste presoentzat identifikagarriak izateak, haien talde eta herri identitatearekin bat egitea sendotzen zuen. Hori ikusteko Xune eta Albaren gogoetak erabiliko ditut.

Xunek hurrengo pasartean, isolamenduan eta burua galtzeko zorian zegoen garaia gogoratuz kontatzen duenak agerian uzten du hori.

Kostatu zitzaidan baina, aldi berean, inoiz ez zitzaidan pasatu burutik Kolektibotik ataratzea edo ez sartzea. Alderantziz, izan zan niretzat indarra ematen zidan gauza. Momentu horretan, gaur egun ez zait gertatzen, baina momentu horretan ikusten nituen egunkaria eta... Mundua dagoen bezela egonda esaten nuen: ni nago egon behar den lekuan. Es que hemen egon behar da! Irakurtzen zenuen nazioarteko edo Euskal Herriko albisteak eta... eta argi dago, no te puedes estar en casa pasando de todo. Egoteko lekua hau da, hau da. (...) ni konbentzita nengoen ba leku egokian aurkitzen nintzela eta egiten ari ginenak bazuela zentzu bat. Beraz inoiz ez zitzaidan okurritu ez dakit, beste bideren bat hartzea edo errenegatzea egindakoz. (...) Adorea ematen zidan bakarra

zan jakitea nengoela egon behar nintzen tokian, nahiz eta sufritzen egon. Joder, esaten nuen: - soy una persona como debe ser en esta vida, punto pelota, esto es lo que hay. O sea, somos lo más decente de esta sociedad, punto. Ni ez naiz isilduko. **Xune**

Albak kontatzen du, espetxera heldu eta batera, *etarra* deitu zutenean, “bestea” zela sentitu zuela, eta bestetasun horrek adoretu egin zuela. Ordutik aurrera espetxean zegokion identitatea garbi sentitu zuela, eta hori gogotsu lekutzeko asmoa ere adierazi du.

Bueno alguien pregunto, y el funcionario dijo: “La etarra”. Y a mí eso me dejó o me hizo así, lo dijo como con rabia, con odio, con todo... porque después yo vi a otro tipo de funcionarios que no tenían ese rollo, pero este sí, y pensé: “ah vale, aquí seré la *etarra*, vale pues seré la más *etarra*”. Estaba sola, y ya empecé a enfrentarme al maco. **Alba**

Beraz, espetxera haien partaidetza politikoak eraman zituzenez gero, eta espetxean partaidetza politikoak berretsi eta berregin zituzenez gero, haien subjektibitate politikoak eragin handia izan zuela agerikoa da. Eta gaur egun ere horrela mintzo dira. Gainera, ezartzen zitzaizkien salbuespeneko neurri eta trataeraren aurrean, minduta sentitu arren, haien subjektibitatea hasi baino egiten ez zela dirudi. Haien izaera politikoak, eta antolatuta egoteak indarra ematen zien. Ondorioz, lehenagoko subjektibitateak espetxean eragingo du, eta espetxeak subjektibitatean. Baina espetxe testuinguruak, urte horietan, eta kasu batzuetan gerora ere, zer nolako egoteko eta izateko modua eragin zuen? Hori da, jarraian ikusiko duguna.

#### 11.5.1. Muturreko egoeretako lotura estuak. Elkar zaintza

Kriminologiako ikerketetan espetxean presoan azpi-kultura modukoak sortzen direla diote, zehazki presoan artean jazo ohi diren arau, balio, jarrera eta portaerez ari dira (Caballero, 1986. Clemente, 1997).

Landa lanean zehar izandako elkarrizketetako batzuk oso argigarri eta emankorra izan ziren euskal preso politikoaren garai horretako azpi-kulturaren inguruan sakontzeko.

Lehenengo eta behin, espetxeari, jazarpena egiteko bideak ez erraztea azpimarratu da, *hori lehenengoa zan, eta inportanteena!*. Espetxe sistema ez zilegiztatzea, *nahiz eta haien arauak eta legeak* erabili bizi baldintzak hobetzeko. Adibide bezala, lehenago agertu den Martxoak 11ko egoera agertzen da berriz ere<sup>327</sup>.

Bigarrena, espetxe sistemak preso politikoaren artean egiten zituzten bereizketa eta bereizkeriak gainditzea. *Benetan uste zuten gure artean elkar joka hasiko ginela porque a fulanita le han dado*

---

327 2003ko Martxoaren 11an, zenbait espetxetan egondako jipoiaren ostean, euskal preso politikoak ustez beste presoetatik babesteko neurri gisa, zuzendaritza isolatu zituztenetakoa darabil. *Guk ez genuen babes hori onartu nahi, gu izorratzen gintuena eta bizitza inposiblea egin espetxea zen. Espetxea izan zen erabili zituena “arruntak” gure kontra. Bai zera, etsaia gu babesten, ez, ez! Eta uko egin genion.* Hau beste hainbat espetxetan ere gertatu zen, eta askotan egin zioten uko *kagadas de miedo* egon arren.



*esto y a la otra no? Mesedez. Ze mentalitate duten, ez gaituzte ezagutzen, ez gaituzte ulertzen.* Desberdintasunak eginez elkarren arteko lehia sortzea bilatzen zuen errepresio sistemaren aurrean, batasuna eta elkartasunari eustea nabarmendu daiteke.

Baina horrekin batera, *Gu ez gara beraiek* bezalakoak argudiatu dute. Beraz hirugarren ezaugarria kartzelarietako eta espetxe egiturarekiko nagusitasun moral modukoa ere ageri da, haien burua ia mende erdi zituen askapen borroka bateko kideztat zeukaten bitartean, kartzelariak lotsagarritzat zuten ogibidean sartuta ikusten zituzten, soldata baten truke jendea izorratzen eta erreprimitzen. *Gu atarako gara eta beraiek han geratuko dira esaten zuen Sarrik poeman ezta?*<sup>328</sup> Emakume\* preso politikoek haien burua eskuzabaltzat zuten, egokitu zitzaizen testuinguru sozio-politikoan haien ustez egokiena egiten saiatu zen belaunaldizat, hots, beste belaunaldi bati segida eman ziona. Espetxe-sistemaren parte ziren horiek, berriz, balio miserablez osatutakotzat zituzten.

Laugarrena, elkar-menpekotasunaren kontzientziari lotuta agertzen den batasuna lehenestea. Haien borrokak, EPPK bezala, atze luzea zuenaz jabetzen ziren eta ibilbide horrekiko koherente jarduten saiatzen ziren. Interdependentziaren kontzientzia haundiz, bakoitzaren ekintza eta esanak besteengan izugarritzko eragina zuela jakitun zirela agertzen da etengabe. *Ze etsaiak beti esaten zuen gu ez ginela diferenteak, baina gero guri de vosotras hitz egiten ziguten beti, ze tratamendu individual eta ze arraio.* Espetxeko erabaki errepresiboak ezarpen kolektibokoak ziren, eta espetxeak, preso politiko baten jardura erabaki kolektibo baten ondorio gisa interpretatzen zuen. Ni-gu horren oreka mantentzea beti ez omen zen horren erraza, askotan buruhauste ederrak eragiten zizkien: *bikote eta ezkontzekin gertatu zen bezala, batzuk premia bizia zuten bikotea ikusteko, eta batzuk behin ezkontzen hasita, gero besteoi ere baldintza hori jarriko zigutenaren beldur ginen. Kasu batzuetan gertatu zen moduan.* Egoera horrek nekeza egiten zuen norberaren jardura eta erabakiak garatzea, eta gainera haien ahotan, espetxea beti saiatzen zen preso mota horretako trantzeetan jartzen.

Hala ere, euskal preso politikoak haien artean erabateko elkartasuna garatzea, oinarrizko irizpidea zen, eta horixe dugu bosgarren ezaugarria; elkartasuna eta elkar zaintza. Zatituak ez izatea eta batasuna mantentzea helburu bat zen bere baitan, horrek gura niaren gaintik jartzea eragin arren. Azken finean, EPPKan antolatu ziren elkar laguntzeko eta elkarrekin aritzeko; eta beste norabidean ere balio zuen gutasun hark, hau da, gehienetan baten arazoa denen arazoa bihurtzen zen. Elkartasuna ez zen horrenbeste ekintza bat, egoteko modu bat baizik, izateko modu bat eta bizirauteko bide bakarra.

---

328 *Egunen batean* deritzon 1990eko poemaz ari da: Egunen batean mundua leunagoa / eginen da gure inguruan / eta nahinorantz abiatuko gara / nahieran, / eta maite ditugun lagunak / besarkatuko ditugu, / eta den edaririk bizigarriena / edanen dugu, / eta legeaz landako gure mintzairan / solastatuko gara, / eta munduko andere guziekin oheratuko gara, / eta hamaika urteren ondoren lehenengoz / —gorrotoaren kortesiaz— / diosala eginen diegu kartzelan utziko ditugun / funtzionarioei.

Horrek ez du esan nahi, jadanik lehenago agertu den moduan, haien artean desadostasun handiak eta eztabaida beroak ez zituztenik. Espetxe egituraren aurrean hartu beharreko jarrerenguruan; dela kartzeleroekiko tratua, dela bikote harremanak eta amatasuna, dela egoera politikoa eta estrategia politikoa ulertzeko moduak, zer eztabaidatua bazegoen. Azpimarratzeakoa eta esanguratsua da oso, elkarrizketetan zein hitzaldietan, bereziki kontrako norabidean, adostasunak eta batasuna eraikiz egiten zuten ahalegina izan da batez ere argudiatu dutena. Baliteke, prentsa urte luzez EPPKko kideen arteko desadostasunekin inguruan hitz eginez irekitako albiste eta erreportai sortari erantzuten aritzea, nahigabe bada ere. Bederen diskurtso horrekin solasean daudela agerikoa da.

Beste presoekin ere (politikoak ez zirenak edo haien burua politikotzat ez zutenak), posible zen heinean, eta egoeraren arabera, elkartasunez jokatzeko saiatzen zirenak, baina beti ere tentuz, haiekin aritzeak buelta kezkarria ekar zezakeela jakin baitzekiten.

Kalekoei ere, etxekoei edo sostengu sareari -lagun, militantzia kide eta familia alegia -, ahal den eta buruhauste txikienak ematen saiatzen zirenak; kalekoak sostengatzea haien zeregina ere bazelakoan. Ekoizten zituzten opari mordoak esker ona adierazi eta zaintzeko haien modua zen: *Ez genituen pitxikeriak egiten geure etxekoentzako bakarrik e? bestearen etxekoentzako ere... hango harek minbizia duela eta benga, ba postaltxo edo jertse bat. Hango hari senarra hil zaiola, ba puntokruza. Baten ahizpa haurdun, ba toma babero.* Hori bisitetan ere antzematen zen, bisita gutxi zituen presoari beste kide presoaren lagun eta familia hurbiltzen zitzaion bisitan. Edo batez ere lokutorioetan egiten zituzten *antzerkiak*.

Igual guk ere ez dugu isladatzen barrutik kanpora zer den kartzela, ze beti ateratzen gara adierazten ze ondo gauden. Nik uste dut inoiz ez dugula azalarazten ze gaizki gauden, inoiz. Hasten gara kontatzen gerora, edo hasten gara kontatzen modu baten, ba han Soton geundenean bezela, que nos subieron tirando de los pelos... kontatzen duzu ji ji ja ja, ba kanpokoak ez preokupatzeko. Egia da. Hala ere nik esaten dut: nahiz eta zuk ez trasladatu, beraiek ere ez dute galdetzen. Zergaitik? Ez dute jakin nahi? Beldurra ematen diete aditzea aditu dezaketena? Edo beraiek ere nahi dutelako 40 minutu horiek izatea larrosa kolorekoak? Ez dakit. Orduan bisitak dira como un oasis en el desierto, baina da bi aldetakoa, antzerki bat da. **Lur**

Lur iragan denboran beharrean orainean hitz egiten ari dela nabarmendu nahi dut, elkarrizketetan eta hitzaldi publikoetan behin baino gehiagotan gertatu den moduan. Subjektibitateaz ari garela, horri esanguratsua deritzot oso, funtsean gaur egun kartzela barruan dauden euskal preso politikoen multzoko kide sentitzen direla adierazten baitu, buru askoko gorputz bakarra bailitzan. Horrekin batera, akaso bizipen hura sobera esanguratsua izan zela esan gura du, orainean gogoratzean egoera horretara errez asko itzultzen direla alegia. Memoria hori epidermisaren geruzan dagoela agerian utziz eta Teresa del Vallek (2012b) ebokazio deitzen dion une horietakoak osatuz.

Beraz, antzerkia egiten zuten etxeakoak ez kezkatzeko, antzerkia egiten zuten espetxeari pistorik ez emateko, antzerkia egiten zuten erresistentzian zeudelako. Antzerki moduko horiek elkar zaintzeko moduak ziren finean. Eusteko psikologia kolektiboa osatzen zuten, kalea kalekoei utzi behar zitzaenez ziur, eta haiek barruko aferetan kokatu: aro politiko horretan gobernuak ezartzen zizkien tranpa eta erasoei aurre egiten, eta bitartean biziz. Espetxea militante bezala hazteko eta pertsona hobeagoa izateko probestuz, dela formazioaren bidez, euskara ikasiz edo landuz-. Etengabe presente zuten euskal preso politikoak zirela, Euskal Herriko historiako subjektuen artean katebegi bat, historiako beste katebegi bat. Eta horregatik elkarri helduta aritzea zen handik onik ateratzeko modu bakarra. Hori zuten estrategiarik onena.

#### 11.5.2. Kideak. Birhumanizazio prozesuak eta komunitate emozionalak

Goiko atalean ikusi dugu krisi testuinguruei erantzuten dioten harreman moduak garatu zituztela, ekar zaindu eta elkar babesteko harremanak. Lotura estuak eta osoak, biziak erabat. Itxurakeriarako lekuri uzten ez zutenak, nahita ere ezingo zutelako. Horrek, gaur egun, komunitate emozional (Rosenwein, 2006) modukoa osatzera eraman ditu. Euskal Herriko borroka horiek sentitu eta bizi izan dutenen komunitate emozionala, estatuen zainak gertutik ikusi eta bizi izan dituztenen komunitatea, finean. Bertan, elkarrekiko konpromiso maila altuak ezaugarritzen dituen harremanak dituzte.

Kontutan hartu beharrekoa da harremanetan garela, harremanek egiten eta harremanek definitzen gaituztela (Friedman, 1993). Hortaz, ezin dugu irudikatu pertsona horien identitatea, komunitatea eta testuinguru sozialetik bananduta. Barbara Rosenweinek (2006, 2010) zioen moduan, taldeak partekatutako balio eta sentimenduei lotuta sortzen dira komunitateak. AEBtako historialari horrek komunitate emozionalak aztertzen ditu, zehazki: haiek haientzat baikortzat eta ezkortzat zer dakusaten; zeintzuk diren balioan jartzen dituzten emozioak eta zeintzuk errefusatzen dituztenak; onartu eta hauspotzen dituzten espresio emozionalak zeintzuk diren, eta zeintzuk diren ukatu eta onartzen ez dituztenak (Rosenwein, 2010:11).

Bada, Rosenweinen proposamena jarraituz, komunitate emozional haren —eta, maila batean, egungoaren— balio-sistema eta emozioak adierazteko erregimena destilatuko dut hurrengo lerroetan.

**14. taula**

*Balio sistema*

Balioan jarri	Gutxietsi-mesprextatu	Aintzat ez hartu edo bazterrean utzi
Elkartasuna	Berekoikeria, interes indibidualak lehenestea.	Lotsa
Ulermena		Ezina
Eskuzabaltasuna, eskaintzeko ahalmena, sakrifizioa	Diru gosea, kontsumismoa, azakeria, itxurakeria	Ziurgabetasun politikoa
Ekina eta tematia izateko ahalmena	Balio materialak lehenestea	Min propioa
Zintzotasuna, gardentasuna, egiazkotasuna	Inkoherentzia (Printzipio ideologiko-etikoekiko)	Besteen eta bestearen mina
Diskrezioa, kolektibotasuna, ez nabarmentzea	Saldukeria	Etsipena, erruduntasuna
Konprometitzeko ahalmena	Lehiakortasuna	
Koherentzia	Polizia lana	
Beste presoen borroka	Kartzelari lana	
Zapalduen alde aritzea	Jarrera biolentoak	
Polizia eta kartzelerien aurka egitea	Damutzea	
Errespetua	Lapurtzea	
Ziurtasun politikoa	Jeloskortasuna, inbidia	
Utopikoa izatea	Kexatia izatea, tenplea ez izatea	

*Iturria: neuk egina*

Emozioak kanporatu edo adierazteko modu edo erregimenari dagokionez:

**15. taula**

*Emozioen unibertsoa*

<b>Etxekoekiko</b>	<b>Kideekiko</b>	<b>Espetxearekiko</b>
-Arnasa ematea	-Irekiera	-Itxitasuna
-Sostengatzea	-Hurbiltasuna (fisiko-afektiboa)	-Distantzia
-Ez kezkatzea	-Elkar zaintza dinamikak	-Haserrea eta amorrua
-Barrea (indar eta osasun adierazle gisa).	-Arnasa eman	-Poza, barrea (ironia eta burla gisa)
-Negarrik ez.	-Negarra	-Negarrik ez
-Egi osoa ez esatea, disimulatzea	-Barrea (kondizio partekatutik, batura gisa, biziraupen gisa).	-Gezurretan egitea
-Sorpresa	-Egi osoa esatea	-Intentzio bikoitzeko praktikak egitea
-Konfiantza	-Zuzena izatea	-Nazka, mespretxua (Nagusitasun morala adieraztea)
	-Beldurra, urduritasuna	-Indiferentzia
	-Tristezia	-Mesfidantza
	-Kezka	-Hotza eta sorgorra
	-Maitasuna	-Pazientzia
	-Haserrea	-Kontentzioa
	-Asperdura	
	-Sorpresa	
	-Konfiantza	
	-Pazientzia	
	-Erreafirmazio ariketak	
	-Nekea	
	-Hauskortasuna	

*Iturria: neuk egina*

Balio sistema eta erregimen emozional horrek haien mugimendu politikoaren subjektibitate eta identitatearekin zerikusia zuen, bosgarren kapituluan ikusi dugunari so. Baina baita bizi ziren mehatxu eta bortizkeria testuinguruarekin ere. Nago, biziraupen egoerari lotutako emozionalitate baten aurrean gaudela. Kasu batzuetan gaurdaino irauten duena. Espetxean babes eskola eraikitzearen beharra zegoela behin baino gehiagotan atera den ideia dugu, besteak beste, bertako bortizkeriak barrua ez hartzeko eta, beraz, eramangarria izateko.

Badago oso interesgarria eta mamitsua den elementua, informazio handia ematen duena, eta hori sorpresa nazka eta lotsa dira. Zerk eragiten zien sorpresa? Zerk lotsa? Horixe izan da haien balio-sistemara heltzeko erabili dudan estrategia metodologikoa.

El dolor y la indignación cobran vida mediante el asombro, pues este nos ayuda a darnos cuenta de que lo que duele y causa dolor, y lo que sentimos que está mal, no es necesario, y puede deshacerse, así como hacerse. El asombro inyecta energía a la esperanza de transformación y a la voluntad para la acción política” (Ahmed, 2015:274).

Sorpresaz ari naizenean, ezustean harrapatzeaz baino, norberaren buruan eta ezta imajinazioan zeuden gauzak ikusi-entzun edo bizitzeaz ari naiz. Lekuz kanpo, ulertu ezinean, nahastuta, harrিতuta, kuriositateak jota eta aho zabalik utz zaitzaketen gauzez ari naiz. Horrelako egoerek nabarmen erakusten dute haien-gure buruetan zer zen ondo zegoena eta zer gaizki. Baina horrekin batera, eta nire ustez interesgarriena dena, posible denaren unibertsoan zer zegoen eta zer ez zegoen erakusten digu. Zer zen pentsagarria eta zer pentsaezina. Hurrengo lerroetan sorpresa horiez arituko naiz.

Lo más duro, algo que te genera esa sensación de bua, qué crudeza. Yo creo que tengo algunas cuantas, quiero decir que la cárcel está llena de eso. Lo que pasa es que entramos, nos amoldamos y todo nos parece natural.

Una crueldad... buffffffffff... bestial. Como se puede ser, es que esta gente es cruel. Gogoratzen dut Arnaldok [Otegi] esan zuela behin, etsaia ezagutzen duzunean, kontziente zara etsai hori borrokatu beharrekoa dela. ¿¿¿Yo dije, esta gente???! Es de lo peor, la peor calaña de la sociedad. Como puede ser esta gente tan sumamente cruel.

Ankerkeria eta krudelkeria mailak, humanitate faltak harritu eta lekuz kanpo uzten zituen. Gizakia edo egitura bat maila horietara irits zitezkeela posible zenik ere ez zekitela adieraziz, horrelakorik irudikatu ere ez zutela egin. Ezin ulertzea eta nazka adierazten dute horren aurrean, nolabait munduan krudelkeria maila hori egotea eta horretarako prest dauden gizakiak egotea iruntzi ezina egiten zaiela esaten ari dira. Barrura sartu ezinean eta luzaro barruan bueltaka geratzen zaie, oka egiteko zorian etengabe. Oka horretan krudelkeria hori mundutik bota nahiko balute bezala. Min horrekin zer egin, nola landu jakin gabe geratzen baitira. Oka egin guran, min hori gizarteari itzuli nahiko liokete horrekin zerbait egitea erabaki dezan. Baina barrura egiten dute oka. Eta gizatasunaren zikintasun eta zekentasun handiena barruan geratzen zaie, barrua zulatzen duen metraila bezala. Halaber, bizitzaren aldeko mundu mailako borrokan iltzatzen ditu, munduko eta gizarteko botere harremanen zer-nolakoarekiko eta zertarako gai direnarekiko kontzientzia maila eta argitasun estrategikoa eragiten die. Jazarriaren jakinduria modukoa. Ahmed-ek dioen moduan, eraikia izan den moduan deseraiki baitaiteke.

Azken batean, biolentzia eta des-humanizazio prozesu horien baitan, haien arteko harremanek eta haien proiektu politikoak eta izaera politikoak, birhumanizatzen zituela esan

daiteke. Mundu eta bizitza hobea baten alde elkarrekin aritzea, elkarri lotuz eta elkarri bizirauten lagunduz, itxaropenerako atea zabalik uztea ekartzen zien. Ez zuten estatu Españoleko legedi eta eskubide formaletan inongo itxaropenik, ezta nazioarteko giza eskubideen inongo adierazpenetan. Gizakiok eta humanitateak egin dezakeen txarrena ikusi eta sentitu ostean, itxaropena haien arteko sare, harreman eta esanahietatik baino ez zetorren; horrek erabateko etsipenetik aldendu eta askatu zituen.

### 11.5.3. Ondoezak. Genero zaurietatik feminismora oinez.

Zaila da, espetxeak utzitako arrastoa torturak utzitakoetatik ondo ezberdintzea. Hala ere, haien buruak gorriak ikusi osteko bizirauletzat dute. Estatu Españoleko espetxe politikoa gainditzea azpimarratzeko zerbait dela uzten dute agerian. Espetxe politikari biziraun behar baitzaio, inongo legedian idatzita ez daudenak bizitza egokitu zaie, eta horrek ez du erreza egin bidea.

Hala ere, atal honetan genero- zauriei egingo diet leku, bereziki haien genero sozializazioetik eratorritako direnei, eta ez horrenbeste espetxe sistematik ezarritakoei. Marga Aguilera (2011), emakumeen zigor hirukoitzaz ari denean, zigor penitentiarioa, soziala eta pertsonala aipatzen ditu. Lehenak eta bigarrenak espetxe egiturarekin zerikusia dute. Azkena, norberak eta norberaren gizarteak, genero sozializazioaren ondorioz, sortzen dituen epai, erruduntasun, lotsa, mandatu eta abarrekoin harremanetan dago. Bada, azken honetan jarriko dut arreta, landa lanak agerian utzi baitu genero zauri horien sakontasuna eta irekidura. Baina horrekin batera, haien bizipenean garrantzia izan duen heinean, haien arteko hartu-emanen ere, eta feminismora hurbiltzen joateko askotariko bide horietan ere.

Ikusi dugun moduan, espetxean identitate politikoa ardatz izan da haien esperientzian, dela espetxearen aldetik inposatu zaizkien kategoria, trataera eta erregimenagatik, dela haien boterea eraikitzeke garaian: kaleko babes mugimendua, elkartasun sareak eta mugimendu politikoa euskaldun borrokariaren identitateetik ari ziren. Beraz emakume\* izatea espetxe egoeran zekarrena haien kolporako modu isilagoan eraman izan duten gaia izan da. Espetxeke patioetan komunean jartzen zituzten egonezin eta min horiek, baina ez da agertu espazio informaletatik harago joan den ekimenik.

Gainera genero zauri horietan, espetxetik zetozenetatik landa (10 atalean ikusi dugun moduan, gainontzeko preso sozialek bizi zituztenak), haien gertuko sostengu komunitateekin, haien kideekin, senideekin eta bikoteekin erlazioa zutenak partekatzea eta lantzea are zailagoa zitzaien. Azpimarratzekoa da, zauri horiek, partaidetza politikorekin baino, ustez pertsonaltzat eta ez politikotzat hartzen den dimentsioarekin zerikusia dutela. Azken batean, garai horretako euskal gizarteko genero ordenaren arabera, emakume\* egoteak zekartzan zereginekin: ahaideen zaintza lanak, bikote erlazio heterosexualak eta amatasunak. Gehiago edo gutxiago; haien amatasuna

militantziaren gainetik inposatzen zitzaizela sentitu dute, gurasotasuna haiei baino ez zegokiela sentitu dute, ama txarrak sentiarazi dituzte. Bikote harremanei dagokionez, emakumeekin izan direnean ez dira beti aske sentitu, gizonekin izan direnean kartzelak etena ekarri duela hauteman dute eta gizon militante bikoteek errepresioaren ezinak haiekin ordaindu dituztela ikusi dute. Zaintza lanei dagokionez, haien etxekoez ezin kargutzea eta haien etxekoentzako karga bat izatea, emakume genero-sozializaziotik mingarriagoa suertatzen dela ikusi dute, bai haiengan eragin duen kargagatik, zein irteera prozesuetan haien ingurukoek haiekiko izan dituzten espektatibak aintzat hartuta. Gizonak kaleratu eta militante eta langile gisa nola birkokatzen diren kezka nagusi izaten den bitartean; emakumeen kasuan haien gurasotaz eta semea-labetaz kargutzea espero da, lehenetsun nagusi eta batzuetan bakar gisa.

Bada, zauri, gatazka eta talka horiek dira, hauspo edo agentzia feministan eragina izan dutenak ere. Jarraian, EPPKko emakumeen ibilbidean mugarri feminista izan zen 2016ko ekimena ekarriko dut lerrootara.

2016ko abenduan Usurbilen *Hemen Gaude Manifestua* aurkezteko elkartu ziren-ginen, mistoa zen eta preso politiko guztien egoera salatu asmo zuen akanpada batean. Bi egunetan zehar emakumeak baino ez ziren-ginen bildu txanda egitera. Manifestua publiko egiteko agerraldiarekin batera, hitzaldiak, asanbladak eta bilerak ere egin zituzten-genituen. Horrekin batera, otorduak partekatzeak, elkar ezagutzeko eta esperientziak partekatzeko aukera eskaini zien-zigun. Batu ziren-ginen 60 emakumeak 25 eta 65 urte artekoak ziren-ginen, eta 70, 80, 90, 2000 eta 2010ko hamarkadetan atxilotutako emakumeak zeuden-geunden bertan.

Han elkartu zituena-gintuena, ekimena propio egiten zuena azken batean, ondokoa zen:

- a. Lehenengoz emakume\* preso ohiak gizonezko gabe elkartzea.
- b. Elkarri preso politiko ohi bezala, baina baita eta bereziki, emakume\* bezala begiratzeko deia izatea. Bi horien bidegurutzean bizi izan zutenaz-genuenaz hitz egiteko eta azaleratzeko hitzordua zela, alegia.

Horrek, batzuk haien burua feministatzat ez zutela azpimarratu arren, emakume\* gisa jasan izan zituzten jazarpenak elkarri kontatzeko adorea eman zien. Horrelako kontakizunak hauspotzen zituen giro berezia sortu zen. Poza, irrika, indarra, harridura, kemena, mina, haserre... denetarik nabaritzen zen giroan. Baina bereziki, han denak batera, elkarrekin egotearen poza. Etxean eta etxekoekin sentitzea, ikusgarri egitea haien-geure burua. Besarkada asko eta estuak egon ziren 48 ordu izan ziren.

Manifestuko edukiak, espetxe sistemaren, poliziaren eta prentsaren trataera matxista salatzen zituen. Baina baita haien kolektiboko eta militantzia kideena ere, hurrengo kapituluan ikusiko dugun moduan. Eta manifestuaren altzora elkarrekin igarotako bi egunetan, informaletik



formalera, ilunetik argira, inplizitutik esplizitura pasa zuten genero ikuspegitik espetxeak eta espetxe testuinguruak eragindako zauria: Familia heterosexualari lotuta datozen zereginei uko egin, edo beste modu batez betetzeagatik sentitu duten zigorra.

### **11.6. Azken ideiak**

Euskal preso politikoen kolektiboko kide ziren emakumeek, kolektibo horri esker, bertatik zein bertatik kanpo, emakumeen arteko elkartasun eta elkar-zaintza dinamiken baitan, espetxe sistemari aurre egin zioten. Batzuetan modu zabalean eta helburu politiko argiekin erresistentzia praktikakgaratu zituzten, espetxe ordenaren aurka modu deliberatuan aritu zirelako. Besteetan, horretara iritsi gabe eta aldaketa iraunkorrak bilatu ez arren, espetxeko arau eta egiturarekiko erreakzio- praktikak izan zituzten, frikzioak. Eta hori guztia gutxi balitz, beraien arteko harremanetan asetasun handiaz gain, bir-humanizatzeko bidea aurkitu zuten elkartasun indartsu horri esker, eta hori ere erresistentzia politikotzat jo dezakegu.

Militantzian eta gizarte-bizitzan esperientzia zuten preso politika horientzat, biziraupenak ekintza kolektibo baten emaitza izan behar zuen, “guztion onerako ahalegin” baten emaitza, eta horrek esan nahi zuen bizirauteko espazio bat sortzea, arau etiko batzuetan oinarrituta, “funtzionarioen eta erlijiosoen arauen aurkakoak, hau da, frankismoaren aurkakoak”. Ri-card Vinyesen agerian jartzen dutenez, horrela lortzen zuten, baita kartzelan ere, haiek uste zutenari esanahi guztia kendu nahi zion sistema totalitario baten aurrean, beren nortasuna mantentzea. Mercedes Yusta, (2005:17)

Eta horrek, ere, komunitate emozional bateko kide sentiarazten ditu. Are gehiago emakume\* artean, haien komunitateko matxismo kargak espetxean eta espetxeratu osteko prozesuetan eragin dizkieten genero zauriek elkarri lotu dituelako, elkarrekin erantzunak bilatzen saiatu direlako, eta azken garaian agentzia feminista bateratura jauzi ere egin dutelako.



## 12. KAPITULUA

### **Ezker Abertzaleko emakume\* militanteak genero-erregimenen arteko dantzan**

“Historikoki baztertuak izan diren taldeetako kideekiko exijentzia handiagoa dago. Bereizkerien aurka ekin asmo duten borroka estrategiak sortzeko garaian boterean dauden taldeetako kideek baino obligazio handiagoa balute bezala”.

**Djamila Ribeiro (2020:95)**

#### **12.1. Sarrera**

Ikerketa honen hasieran, tesi hau euskal gatazkak genero harremanetan eta genero harremanek gatazkaren bilakaeran izandako eragina ezagutzeko grinak egituratu dutela azaldu dut. Hori dela eta, ezker abertzaleko emakumeengan eta Espainiako estatuko dispositibo errepresiboetan arreta ezartzea erabaki izana azaldu dut.

Orain arte, 90eko hamarraldiko emakumeek Ezker Abertzalean politikoki eta armatuki parte hartzen hasteko motibazio eta baldintzak aztertu ditugu. Zehazki, mugimendu politiko horrek subjektu politiko izateko aukera eskaintzen ziela jakin dugu. Ezagutu dugu gatazka armatu baten baitako kultura politiko ezkertiar eta borrokalaria emakumeek nola gorpuztu zuten. Hala nola, eztabaida prozesu, diskurtso eta kongresuetako paperetan konpromiso maila ezberdinetara eta askotariko ekarpenetara irekita zegoen mugimendu politiko poroso gisa jardun nahi arren, praktikan gatazkaren indarrezko ezaugarriek militante eredu exijentea erditu zutela. Hori dela eta, garaiko gizon eredu eta baldintzetatik, emakumeenetatik baino hurbilago zegoen militantzia eredu ideala eraiki zen. Gerora ezagutu zuten tortura eta espetxe politikoa, biolentzia politiko eta generokoaz osatu zela ikusi dugu. Horrela, deshumanizazio prozesuak ezarri zitzaizkien; eta haiek, emakume\* militanteen arteko sare eta etxeetan, eta haien ideologiari eutsiz, birhumanizatzeko prozesuei ekin zietela, batzuetan erresistentzia indibidualen bidez, besteetan kolektiboki. Zentzu horretan, hazien identitate politikoa lagungarri eta boteretzeko akuilu izan zaie. Ildo horretan, gaur egun isilean igarotzen ari diren birbiktimizazio prozesuak pairatzen ari dira, justizia esangura berriak eta auto-kudeatutako berregite prozesuak gauzatzen ari diren moduan; inpunitate giroan, aitortzarik eta baliabiderik gabe. Gradu eta maila ezberdinetan bada ere, haien esperientziari begiratzeko moduan, ikuspegi feminista presente dute. Haien gaztetako profeminismoari, tortura

eta espetxea askorentzat izan den sozializazio feminista batu zitzaion, eta, gaur egungo euskal testuinguruan feminismoaren premiak hartu duen pisuaren laguntzaz, hortik irakurtzen dute haien esperientzia eta ekarpena. Hala ere, bide horretan gabeziak dituzte eta mugimendu feministaren arreta handiagoak mesedegarri izan zitekeela agerian geratu da, bereziki torturari dagokionean.

Bada, azken kapitulu honetan, Connell-ek (urtea) eskainitako genero erregimen eta ordenaren kontzeptuez baliatuko naiz, zehatz-mehatz ibilbide horretan ezarri zaien genero erregimena ezagutzeko eta garaiko genero ordenarekin alderatzeko. Alegia, argitzeko modu horiek garaiko euskal jendartean zeuden eredu nagusietatik urrundu ala hurbildu egiten ziren eta, batez ere, euskal gatazkak ereduotatik urruntzen ala hurbiltzen lagundu zuen.

Galdera horiek erantzuten saiatu naiz, betiere Ezker Abertzalean eta emakume\* horiengan eragina izan zuten dispositibo errepresiboek generoa eraikitzeke orduan izan zuten esku-hartze garrantzitsua alde batera utzi gabe. Izan ere, kezkarria zait batzuetan mugimendu politiko hari esleitzen zaizkiola akaso gatazkarenak ziren inertiak, edo leundu egiten dugula errepresioaren eragin sozio-kulturala.

## **12.2. Ezker Abertzaleko genero-erregimena: borrokarako etxeko andre eta amatxuetatik Itziarren alabetara**

Ezker Abertzalean izan duten esperientzia kontatzean, era batera edo bestera, Ezker Abertzaleko botere-egitura, lan-banaketa eta katexiaren berri eman digute. Modu horretan jakin ditugu honako hauek: (1) erabakigune eta zuzendaritzetara iritsi diren emakumeak gutxi izan direla, eta eragiteko ahalmenak genero-hierarkiekin ere zerikusia zuela; (2) Ezker Abertzale barruan politikoki garrantzitsua zena eta horren garrantzitsua ez zena banatzen zirela, eta banaketa horrek sexuaren arabera lanaren banaketa asimetrikoarekin bat egiten zuela; (3) Ezker Abertzale barruan heterosexualitate- eta monogamia-mandatuetik apurketak egon direla ukatu gabe (ikerketan horiek ere agertu direlako), mandatu hauek indarrean zeudela eta indartzen zituzten diskurtso eta praktikak izan zirela (eta horrek, kasu askotan, bereizkeria eragin zuela). Hurrengo lerroetan hiru egitura horiek aztertuko ditut.

### 12.2.1. Hori gizonentzat, agintzen dutenak dira eta

*Bai, balio horiek agindu dute mutilendako. Que son los que dirigen. Besteak ere, pero son de menor valor; son los dirigidos. Mari*

Lehen urteetako parte-hartze politikoa gogoratzekoan, antolakunde ezberdinetan -Egizanen salbuespen agerikoaz gain-, gizonetzkoak nagusi zirela diote, *garai horretan, gizon asko, gizon asko*, dio Alaznek. Zuzendaritzetan oso emakume\* gutxi ezagutu zituztela ere badiote eta ildo politiko orokorraren definizioa eta erabaki ahalmen nagusia gizonen esku zegoela. Irenek horrela diosku: *Ildo politikoa markatzearen ikuspegitik, ez nuke esango emakumeak egon direnik,*

*esango nuke emakume bat, emakume bi, esango nuke orokorrean estrategiaren definizio oso maskulinoa izan dela, nahiz eta baditudan emakumeak buruan.*

Bestalde, 90eko hamarkadan aurrera egin ahala, zuzendaritza ezberdinetan emakumeen presentzia handitu zela ere azpimarratu dute, dela Herri Batasunan, dela LABen, dela Jarraitik Haikarako prozesuan. Baina horrek ez du kenduko emakumezko gehiengoa oinarri sozial eta dinamika lokaletan egoten jarraitzea. Lola argia da: *¿Dónde estaba la militancia femenina? Pues en la base. ¿La militancia femenina? Pues tú te ibas a los comités de los pueblos y allí estábamos las mujeres.* Ezker Abertzaleko finantziazio-iturriak ziren zozketak egiten eta saltzen, txosnetako eta herri-bazkarietako sukaldeetan, hauteskunde-kanpainetako buzoneoetan eta herri-mailako beste dinamika politikoetan -udalak barne- emakume\* asko aritzen zirela diote. Beti oinarrizko egituretan eta modu iraunkorrean.

Emakume\* egote horrek ez du soilik egituraren barruan kokatu beharreko maila baldintzatuko, intereseko gaien agenda politikoa definitzeko unean ere nabarmen eragiten omen zuen. Bereziki pribatutzat, subjektibotzat edo pertsonaltzat jo ohi diren, baina feminismoak politikotzat aldarrikatzen dituen eremuak lantzeko garaian bazterketa bizi zuten.

Rachel Crosonek eta Uri Gneezyk (2009) planteatzen dute erakundeetako genero-osaera zenbat eta desorekatuagoa izan, orduan eta gutxiago esku hartzen dutela emakumeek, autokonfiantza gutxiago sortzen dutela eta askatasun gutxiago sentitzen dutela gizonak antolatu gabeko edo partekatzen ez dituzten eskaerak planteatzeko. Beraz, egoera horretan, erakundeek gutxiago hartzen dituzte kontuan emakumeen lehentasunak erabakiak hartzeko prozesuetan, eta gutxiago txertatzen dute genero-ikuspegia. Joni Lovenduski (2002) arabera, jarraibide horiek indartu egiten dira konfiantzazko eta botere hertsiki maskulinoko sare informalak sortuz, egile horrek *boy's clubs* deitzen dituenak. Gure protagonistek, gutxi bada ere, horrelakoak aipatu dituzte.

Zentzu horretan oso interesgarria da botere edo erabakitze ahalmeneren hierarkiako bi muturretan zeuden pertsonen profilak nola deskribatzen dituzten. Parte hartzen hasi zireneko haien herriko oinarriko emakume\* militanteak gogoratzekoan, *emakume nagusiagoak, emakume gogorak* eta *sendoak* zirela diote. *Hor egon direnak, une gogorrei eutsi dietenak, tiratu dutenak. Ba bermatu dutenak, hor iraunkorrak izan direnak*, dio Maitanek. Ildo politiko orokorra definitu duten gizonen profila zehaztean, aldiz, segurtasuna eta askatasuna aipatzen dute baldintza gisa.

Iruditzen zait perfil konkretu batetako pertsonak egin dutela makropolitika. Eta perfil horretako emakume gutxi ikusi ditut. Baina abiapuntua da horren desberdina? Nola iristen zara halako profila izatera neska? Bueno lau bost gizon ditut buruan ez zuzendaritza osoak. Nik uste dut dela profila, osea beraien artean ezberdinak dira, batzuk dira reflexiboagoak, besteak espontaneoagoak, batzuk kreatiboagoak, besteak... baina orokorrean esango nuke, ba bakoitza bere inseguritateekin (ze hori ikusi dugu, beraien motxilak) baina pertsona oso seguroak eta askeak izan direla (askeak dentro de lo que se puede). Gero gaitasuna ere, baina gaitasuna edo konpetentzia hartu egiten da, ze gure

mugimenduan etengabeak egon dira erorketak, orduan ba momentu batean egin behar duzu, y eso con el tiempo lo coges. Baina bi elementu horiek, seguritatea eta askatasuna. **Irene**

Laburbilduz, zuzendaritzan egoteko askatasuna eta segurtasuna beharrezko baldintzak ziren eta emakumeentzat eskuratzeko zailak. Oinarri sozialean, aldiz, iraunkortasuna (denboran mantentzea eta ekina izatea) eta eusten jakitea beharrezkoa zen. Hala ere, inkondizionaltasun-modu hau, ez da “beti prest” jarrerarekin nahastu behar. Militantzia-eredu intentsibo honetan noiznahi zernahi egiteko prest egotea balio handiko ezaugarria zen, eta garaiko genero-ordenak ezartzen zuen sexuaren araberako lan-banaketak emakumeei prestutasun hori izatea zailagoa egiten zien, zaintza-lanekin bateragarri egin behar zutelako (nahiz eta gazte-garaian hau parekatuagoa egon).

Modu batera edo bestera, zuzendaritzaren eta oinarri sozialaren arteko ezberdinketa hau aurreragoardia eta atzeragoardiaren ezaugarritzearekin eta sexu/genero esleipenarekin lotzen da, hurrengo lerroetan ikusiko dugun moduan.

#### 12.2.2. Politikoki garrantzitsua(k) eta politikoki ez horren garrantzitsua(k)

*Baina zalantzarik gabe hor bazegoen,  
lo político menos importante y lo político más importante.  
Seguramente egongo ziren gizonak  
en las referencias de lo político más importante. **Irene***

Modu honetan adierazi du Irenek, Ezker Abertzalean ezagutu zuen lan-banaketa eta lan horien arteko hierarkia. Bere kontakizunean eraikuntza- eta sostengatze-lanak, ekintza-lanen azpitik zeudela agerian geratu da. Eta banaketa horrek Ezker Abertzalearen jarduera zeharkatzen zuen bere osotasunean, lan-ildoak, zeregin eta funtzioak, eta baita horiekiko guztiekiko aitortza ere.

Esate baterako, 2000. urtean Ezker Abertzaleko emakume\* feministek abiatutako *prozesu feministan*, antolakundez antolakunde egin zen barne-diagnostikoari erreferentzia eginez, honako hau dio Luak gazte-antolakundearen kasuan:

Radiografía hori egiterakoan, nolako zen parte hartzea? Kualitatibo aldetik zen, nola emakumeori bideratu zaigun hainbat esparrutan militatzera, hezkuntzan eta euskaran. Zaintza edo erlajatuagoak omen diren arloetan, eta guda parametro ezagunetan gizonezkoak egon direla: amnistiaren mugimenduan edo bogan edo banguardian zeuden mugimenduetan gehiago gizonak. **Lua**

Beste adibide bat, emakumeek konfrontazio eta ekintzarekin lotuta zeuden aktibitateetan esku-hartzea lortuta ere, bertan garatzen zituzten zereginak, babestu, jaso, eraman, gorde eta ezkutatzearekin lotzen ziren, eta ez egitearekin –ekintzarekin–. Kale borrokako bere esperientziaz honela dio Lolak.

Tengo un recuerdo, que me dió mucha rabia que era: “No, hoy vosotras no, que hoy es serio<sup>329</sup>”. Y yo: “¿Perdona?”. Recuerdo que me dió mucha rabia, pero lo viví en silencio. Porque éramos nekas. Me dio muchísima rabia, además recuerdo perfectamente quién me lo dijo, que es amigo amigo. Y creo que alguna vez se lo he dicho: “Sí, porque tu frasecita”. Pero en ese momento lo viví en silencio, acaté orden... que ni siquiera orden de alguien alto, de un mando alto...no, no, era un igual que yo, con el me movía igual ¿eh?! Pero me acuerdo que se quedó para una movida y me dijeron no, no. Y además la frase fue esta: “No, no, vosotras hoy no, que hoy es serio”. Me dió mucha rabia, muchísima rabia. Y lo viví, como “vale”. Me daba mucha rabia que a veces se nos utilizara como... engranaje de lotura, o como engranaje para llevar, como digo yo. Eramos las de para llevar, las de para llevar las cosas. Para llevar, para avisar, para guardar, para esconder, para topojear, eso éramos en el engranaje. Pero yo en ese momento lo vivía como: “Ya pero estoy aquí”. No lo vivía como ahora lo analizo desde esta perspectiva. Ahora lo analizo... no ahora hoy, y llevo muchos años analizando desde esta perspectiva. Y llega un momento en que siento: mecaguen su puta madre, hemos sido las recoge... sabes”. Como si “yo barro. Vosotros montar el mueble que yo barro la mierda que dejéis del mueble”. Y eso sí, sí, lo visualizo clarísimamente. Nosotras éramos el parapeto... que decían: “Venir que nos hemos metido en un movidón y necesitamos que nos hagáis de parejita”. De tapujo... de “guardarme esto”. Y es que al final nos utilizaban a nosotras para ser las guardadoras de sus mierdas. Sabes. De que nosotras aun sigamos haciendo de las que vamos por detrás, a ver si... necesitáis que os cubramos, a ver si necesitáis que os guardemos y demás. Eso sí, nosotras éramos eso. Funcionábamos así. Es más, nuestra sentencia es así. Nosotras tenemos menos condena que los chicos. Porque nosotras somos “colaboradoras”, y es verdad. A ver, luego sí participé en cosas más directas, de venga vamos a hacer. Donde nadie me trato de “tú me recoges” no, no. Tú estás haciendo conmigo y estás haciendo lo mismo que yo. Sí hice, también de esto. Pero también de lo otro, de las encubridoras necesarias, de colaboradoras necesarias. **Lola**.

Bi pasarte hauek ekitea, eustea eta eraikitzea baino garrantzitsuagoa zela agerian uzten ari dira. Gauza bat da gordetzea, abisatzea, eramatea eta ezkutetzea –garrantzi gabekoa–, eta bestea, egitea –lehen mailakoa–. Ezker Abertzalean ekintzak zeukan zentraltasuna adierazten ari da, estrategia politiko militarrean arerioa kolpatzeko gaitasunak zeukan pisua, baina horrekin batera ekintza hori posible egiteko prozesua ez zen balioan ipintzen, ekintza beraren eraginkortasuna eta ikusgarritasuna baizik. Orduan beste zeregin horiek balio gutxiagokoak zirela ondoriozta dezakegu, eta beraz, edonork egin ahal zituela (emakumeek ere); ekintzak, aldiz, hautatutako gutxi batzuek baino ez (gizonek, eta salbuespen ziren emakume\* batzuek)<sup>330</sup>.

Zentzu horretan Ezker Abertzalean gogortasunaren –indarra– bi adiera zeudela ikusten da. Bata, indar fisikoarekin eta kolpatzeko gaitasunarekin lotutakoa, denbora motzekoa eta azkarra. Bestea, indar fisikoari baina psikikoari ere batuta agertzen zaigu, eta sostengatzeko ahalmenari lotuta dago, beraz, denboran gehiago luzatzen da, iraunkortasun gaitasunean datza. Gogortasunak

329 Azpimarra neurea da.

330 *Yoyes desde su ventana* (1987) liburuan Dolores Gonzalez Katarain ETako kide izandakoaren egunerokoaren pasarteak jaso zituzten bere lagun eta senideek. Horien artean salbuespen emakumea izateaz diharduen hau ere: “Ez dut bihurtu nahi, gizonek nolabait arra dela uste dutelako onartzen duten emakume.batean. Nola lortu nire presentziak esan nahi izatea beste batzuk ere egon daitezkeela. Nola lortu nire presentziak beste batzuei dei diezaien eta ni nolabait aintzat hartu ez nazaten, zomorro arraro bat. Nola lortu gizon horiek ulertzea emakumearen askapena helburu iraultzailea dela, modu horretan erabat beren gain har dezaten “(1987:57).

sendotasuna esan nahi du kasu horretan<sup>331</sup>. Presoen kasuan, espetxean egotea erresistentziarekin itsatsita dagoen heinean, bigarren adierak gizonengan ere pisu gehiago hartuko du, nahiz eta bertako borroka-molde batzuk (zehazki, gose grebek) ekintzaren lekua beteko duten.

Balio-sistema hori, borrokaren aurreraguardia eta atzeraguardiaren arteko asimetria eta sexu-esleipena, alegia, beste gatazka politiko armatuetan edo herri mugimenduen antolakuntzan eta Ezker Abertzaleko beste garai batzuetan ere identifikatua izan da. Esate baterako, Odriozolak (2016) horren arabera banatzen ditu ETA erakundea eta ETA mugimendua.

Militanteen zereginak horrela baloratu eta antolatzeko modua, bat dator feminismitik kritikatzan den publiko eta pribatu espazio banaketarekin, eta jardueren mailakatzearekin ere. Esate baterako Jean Gabriel Contamin (2007) “patriarkatuaren burdinazko legea” darabil emakumeen ikusezintasunaz aritzeko, Jone Miren Hernandezek (2008) “partaidetza ikusezinaren kartografia” oso bat eratu zuen. Marina Sagastizabalek ere (2014) azpimarratu duen moduan, auzia emakumeak parte hartzen duten ala ez baino, emakumeek parte hartzeko duten moduari erreparatzea da, sarri beste parte hartzeko moduak agertzen baitira. Auzia partaidetza horri politikoaren kategoria aitortzen diogun ala ez litzateke. Jone Martinezek (2014) ere emakumeek herri mugimenduetan parte hartzeko dituzten oztopoak aztertu zituen, eta publiko pribatuaren banaketarekin batera, arrazoa eta emozioaren banaketak aipatzen ditu, eta nola batzuetan, Jules Falquet-ek (2005) Latinoamerikako gizarte mugimenduetan ikusi zuen moduan, emakumeek funtzio batzuk bere gain hartzen dituztenean funtzio horiek balioa galtzen duten.

Horiek horrela ikerlan honen arabera, Ezker Abertzaleko garaiko kultura politikoaren lanaren antolaketa, balioak eta ezaugarriak honela laburbildu daitezke:

### **16. taula**

*Ezaugarri eta zereginen hierarkia*

<b>Garrantzitsua</b>	<b>Ez horren garrantzitsua</b>
Ekintza	Sostengua eta babesa
Konfrontazioa, ildo militarra	Nazio eraikuntza eta kulturaren transmisioa
Ikusgarria	Ez ikusgarria
Azkartasuna eta unea	Iraunkortasuna eta prozesua
Ausardia, indar fisikoa, autokonfiantza	Eustea, sostengatzea, irautea, sendotasuna
Gizonei esleitua	Emakumeei esleitua

*Iturria: neuk egina.*

331 Teresa Del Valle (1985), Begoña Aretxagak (1988) eta Sandra Ott-ek (1993) indarraren adierak landu dituzte.



Borrokaren erreproduzio-lanak aitortza politiko apalagoa zuten moduan, Ezker Abertzaleko pertsonen zaintza-lan batzuk, bereziki behin errepresaliatuta, pribatutzat jotzen den eremuarekin lotuko dira eta emakumeen bizkar geratuko dira .

### 12.2.3. Zainduak izateko eskubiderik ez duten zaintzaileak

“Eta, hemen gaude kartzelara sartu gintuztenean bikotekidea galdu genuen emakumeak ere. Egia esan, ez dakigu zein momentutan pasa ahal izan zitzaigun burutik zaintzaile beharrean zainduak izan gintezkeela. Edo, hobeto pentsatuta, gure barruan beti jakin genuen hori gertatuko zela. Eta, hala ere, aurrera egin genuen” (2016ko abenduan Usurbilen emakume\* preso ohi batzuk publiko egindako manifestua<sup>332</sup>).

Connell-en arabera, sexualitatea soziala da eta, beraz, harreman sozial orotan dimentsio emozionala dago, baita erotikoa ere agian. Modu batera edo bestera, harremanak *atxikimendu* emozionalaren arabera antolatzen dira, eta *katexi-egiturak* atxikimendu horiek antolatzen ditu<sup>333</sup>. Bere ustez, katexi-antolakuntza egun bi printzipiok arautzen dute: bata, desio objektuak femenino eta maskulinoaren oposaketa eta dikotomiatik eraikitzeak eta, bestea, praktika sexuala nagusiki bikote-harremanen baitan antolatzeak. Labur esanda, heterosexualitatea eta monogamia dira egungo katexi-egituraren ezaugarri behinenak.

Gero ia kartzelan ikusi nuen, mutila kanpoan zuten neskak utziak izan zirala, o sea, kaleko mutilek barruko neska utzi zutela. Eta hori izan zan como, ¿pero qué mierda es esto? Ze klaro kalekoak ere militanteak ziran, ze ez balira militanteak. **Sua**

Gaur, gizonezko presoen bikote ziren emakumeen sexualitatearen gaineko kontrol komunitarioaren gaia atara da. *Gudarien* bikoteak harreman sexualekiko gorde beharreko fideltasuna nola mugimenduko kide ezberdinen begirada eta aipuek arautzen zuten, askotan kontrol hau txantxa moduan adierazten bazen ere. *Broma horrek ez ziren broma* esan du batek mindu aurpegiaz. Bestaldetik gizon bikoteei ez jarraitzea erabaki duten emakumeak epaituak izan direla aipatu da, nahiz eta gehienak jarraitzea erabaki izan duten. Honek 2002an izandako elkarrizketa gogor bat gogoratu dit. Bertan haserre handiz kontatzen zidan Donostiako Ezker Abertzaleko giroan presoen bikote neskekiko joera honek zeukan pisua, baina aldiz ez zela berdin jarduten barruan zegoena emakumea eta kanpokoa aldiz mutila zenean. Ezker Abertzaleko moral bikoitz horretaz kexu zen, are gehiago ardura politikoez gizon hauen inguruan beti neskatala talde bat egotea zekarrela esaten zidan, horrela gizon hauek *batekin eta bestearekin* egoten zirela. Gauza batzuetarako beharrezkoa zen *sekretismoa* holako gauzetarako erabiltzen zutela iruditzen omen zitzaion” (2018-4-14ko **landa-koadernoko oharra**).

Connell jarraituz, garrantzi berezia hartzen du bikote heterosexual hauetako kideak ezberdinak izateaz gain, asimetriko harremantzeak. Finean, heterosexualitate hegemonikoaren elkarrekotasun erotikoa, botere-egiturak zeharkatzen duen heinean truke *asimetrikoetan* oinarritzen dela dio. Gure partaideek diotenaren arabera, horren emaitza sexualitatearekiko moral

332 Ikus: <https://justiziafeminista.eus/beste-esperientzia-batzuk/>

333 Lan honetan emozio-egitura izendatuko dut.

bikoitza eta gizon-bikoteen zaintzaren galera dira. Baina baita azken horren txanponaren beste aldean, emakumeak zaintzaile-lanetara eternoki lotzea. Esate baterako, presoen ama eta emazteen praktika eta zereginak erreprodukzioa bideratuta zeudenez gero, eta gainera, gizon horiekiko harremana ahaidetasunak definitzen zuenez –ama edo emazte–, lan horiek obligazio gisa ulertuko dira, erabat naturalizatuz. Hau da, gizartean jakintzat jotzen zena (emakumeek gizonak zaindu behar dituztela, alegia), Ezker Abertzaleko komunitatean de facto gertatzen zen, eta beraz, zaintza-lan horiek, ez ziren borroka politikoki berregiteko funtsezko modura onartzen. Egun, makina bat zaintza-lan eguneroko bizitza eta estatu baten ekonomiarako funtsezkoak direla onartzen ez diren modu berberean.

Nire ustez, ez dugu ahaztu behar gizon eta emakume\* izateko moduen naturalizazioa ezberdintasunei eusteko erarik eraginkorra dela (Connell, 1998) eta hautua dena obligatortzat jotzeak agentzia ukatzea dakarrela, politikoa dena bizitza pribatuaren eremura eramatearen bidez despolitizatuz. Marik diosku une batean, aldiz, ama guztiek ez dituztela haien semeak –edo alabak– jarraitu, nahiz eta berak dioenaren arabera *de eso no se habla*. Zer esaten ari zaigu isiltasun hori?

Aretxagak (1988) 80ko hamarraldiko Ezker Abertzaleko hileta erritualak eta emakumeek duten partaidetza-mota aztertu zituen eta, bere aburuz, bertan kolektibitate horrekiko pertenezien jarraikortasuna adierazteko, emakume-amaren zentraltasuna gailentzen da: “Familiaren eta emakumeak ama biologiko eta bitartekari gisa duen funtzioaren eta familiaren inguruko sinboloen kondentsazioa agertzen da” (Aretxaga, 1988: 42). Izan ere, hiletetan konkretatzen den moduan, amaren figura zentrala izango da bere seme-alaben hautu politikoak eta bere ondorioak bere gain hartzeko prestutasunean; hala nola espetxea, erbestea eta heriotza (Aretxaga, 1988 in Del Valle, 2000).

Hamiltonen ere Ezker Abertzaleak amaren mitoak sinbolo mailan definitu zituela dio. Gainera, *gudariaren amaren* figura, 1968. urteko ETako lehen hildakoa geroztik areagotu n ziren heriotza eta espetxeratzeen ostean, indarra hartu zuela ere baieztatu zuen autore berberak.

Bi autore horien ekarpena aintzat hartuz, Ezker Abertzalearen genero-ideologiak amak goraiatu zituela esan dezakegu, baina betiere abertzaletasunaren ikuspegi horretatik, nazio eta borrokarentzat semeak eskaintzen zituen figura gisa. Horregatik, hautu hori egin ez zuten amak itzalean geratuko dira. Hamiltonen arabera, ama figura horren goraiatzeak itzal egin zien bestelako ekarpena egiten ari ziren emakumeei, besteak beste, Itziarren alabei. Eta agian emakume\* gehiagori, landa-lanean zehar behin baino gehiagotan, “senide” sentitzen ez ziren emakumeekin topo egin baitut; haien ustez, “senidea” pertsona nagusia delako eta gehienetan presoaren ama.

No me siento senide cuando llevo 25 años haciendo viajes. Ez naiz inoiz Etxerako batzar batetara joan. Senide esaten badut ze perfil etortzen zaizu? Ba nire bikotearen gurasoak. Y no han hecho ni la mitad de los viajes que yo he hecho, ni tienen... o sea, bada sostengu familiarra, baina ez senide baten hurbiltasuna. Nik eramaten dizkiot bisitak, paketea... [...] Zer irudi preso ohi entzutean? Jo es que da pasada bat, has dado en el clavo, etortzen zait gizon bat, hamapiku urte daramana. Hori

nagusitzen da, neska bat ez zait etortzen, ze nagusitzen da bere identitateko beste fazeta batzuk.  
**Irene**

Alegia, gudariaren, presoaren eta iheslariaren figura erabat maskulinizatua dagoen moduan, senidearen figura feminizatua dago, baina, gainera, ahaidetasun-lotura zehatz bat, eta ondorioz, urteekin adin zehatz bat pribilegiatzen da. Hala ere, horrek ez du esan nahi emazte-lekua ez denik zaintzailearena izan. Are gehiago, Irenek beharrezko azpiegitura eta *borrokalariaren atsedena* gorpuztu izana aipatu du.

Eta zuzendaritzakoek ze emazte perfil hautatu dituzten? Ba hori oroitzen dut Jarraiko garaian kide batekin komentatu izana: “Ikusten duzu? Honek ez du militatzen, honek ere ez”. Eta aldiz zuzendaritzako emakumeak, ba gehienek bikotea zen zuzendaritzakoa den militantea. Eta klaro, horrek beste gauza batzuen artean orain ekartzen du, ba prekariedade maila ezberdinak, ze guk ez dugu metatu zuzendaritzako gizonen emazteek metatu duten babes ekonomikoa, umeak, etxea eta hori guztia. Ba dira la infraestructura del hombre militante. El descanso del guerrero. **Irene**

Amaitzeko, katexi-egitura horren beste ondorio bat, publiko eta pribatuaren arteko banaketa eta harreman asimetrikoa apurtzeko ezintasuna da. Horregatik pribatutzat –eta beraz, ez politikotzat– jotzen zen eremuaren gain uzten ziren Ezker Abertzaleko borroka eragindako zaurien zainketa asko, baina ez denak. Esate baterako, presoekiko zaintza-lan batzuk kolektibizatu eta demokratizatzeko keinu batzuk egon dira, autobus eta gerora gidari bolondresen bidez, edo presoaren ikasketak, bisitak, prentsa eta diru beharrak asetzeko sare anitzen bidez.

#### 12.2.4. Ezker Abertzalean egoteko bi ideal tipo: Itziar eta Itziarren alaba<sup>334</sup>

Ikerketa honetako emakumeen esperientzia eta beste emakumez diotena adituta<sup>335</sup>, ezkerreko emakume\* independentistek *borrokan* emakume\* egoteko espazio asko eta ezberdinak lekutu zituztela deritzot. Hala ere, lehen begirada batean aurkariak diruditen edo bederen kontrako bi muturretan kokaturiko bi eredu indar handia zutela antzeman dut: bata, Itziar izendatu dudana *errepresaliatuaren ama* eta *Ezker Abertzaleko etxeoandre eta amatuarena* da; bestea, sekula abestua izan ez den *Itziarren alaba gudariarena*.

Bi eredu horien artean, emakumea izanik ekarpen politikoa egiteko hainbat modu entseatu zituzten: bi ideal horiek doitu zituzten, edota horietatik ihes egin zuten, edota horiek baliatu zituzten, edota horiek moldatu zituzten edo esanahi berriak eraiki zituzten. Izan ere, gehienetan

334 Telesforo Monzonek idatzitako “Itziarren semea” abestiko amaren figura eta gudariaren figurak hartu ditut bi emakume\* ideal tipoak konzeptualizatzeko.

335 Haien esperientziaz gain, antolakundeetan organikoki ez zeuden beste emakume\* batzuen praktikez ere mintzatu zaizkigu eta mugimendu politiko horren bilakaeran eta borrokan, haien ustez, garrantzi handia izan duten hainbat zereginetan emakumeak aritu zirela azpimarratu dute behin baino gehiagotan. Horixe bera, azpimarratu izan da Borroka armatua eta kartzelak (2016) lanean, eta hainbat jarduera feministetan ere: Kalera Kalera 2016ko emakume\* preso ohien ekimenean, 2017ko espetxe martxa feministan, 2020ko Urtarrilaren 11an Sarek egindako Bilbon egindako ekimenean, 2022ko Iraultza Txikien Akanpádan Ekiñe eizagirrek emandako hitzaldian.

bi ereduaren arteko askotariko grisak egin/osatu/lekutu dituzte, baina nago horiek ez direla horren ikusgarriak egin, eta horregatik, emakume\* horien esperientzia homogeneousatu eta estereotipatu ohi dela.

Bestela esanda, lekutze horiek ez dira modu itxi eta finkoan ulertu behar (batetik besterako mugimendu eta desplazamenduak ere badaudelako), ezta modu lineal edo progresiboan ere (desplazamenduak hainbat norabidetan gerta daitezkeelako). Seguruenik, mugimendu horiek guztiak dira ikuspegi feminista batetik interesgarriak.

Hurrengo lerroetan bi ideal tipo horiek deskribatuko ditut.

#### **a) Itziar ereduko emakumeak**

Itziar ereduko emakumeak seme edo senar borrokalariarekiko harremanak definitzen zituen, ama edo emazte, baina baita zeregin eta obligazio-motak ere (semea edota senar borrokalaria zaintzeko betebeharrak). Bereziki espetxe eta exilioak eragindako erbesteetaraino jarraituz eta testuingurua testuinguru beharrezkoak ziren lanak burutuz: hurrez kargutu, enplegatu eta etxea diruz, arropaz, elikagaiz eta goxotasunez hornitu. Hortaz, lan- eta funtzio-banaketa argia antzeman daiteke, batek borroka egiten zuen bitartean, besteak borrokalaria babestu eta sostengatzeko lanak egiten zituen.

Itziarren ereduak adierazten digu zenbait emakumek bere parte-hartzea 90eko hamarkadan oraindik indarra zuen eta frankismotik zetorren emakume-eredu jagoleari pega-pega eginda egiten zutela. Alegia, emakume rol tradizionaletik abiatuz garatu zutela haien parte-hartze politikoa, eta Lagardek (1990) proposatutako *madresposa* kategorian sartu ditzakegu. Mexikoko antropologo horren arabera, emakumeak jaio aurretik ere emazte eta ama bezala eraikitzen gaituen historia baten parte gara. Horrekin aditzera ematen ari dena da generoaren eta genero-harremanen eraikuntza historikoan, amatasuna eta ezkonbizitza emakumeon bizimodua antolatu eta eraikitzen dituen bizi-eremutzat dituela, hala emakumeok gizonekiko subjektio-harremanean eraikiak garela<sup>336</sup>. *Ama izatea eta emaztea izatea, emakumeentzat beren izatea, besteena eta besteentzat izatean datza. Ugalketa-jarduerak egitea eta borondatezko morrontza harremanak izatea, alegia. Ama izateko baina, umeak erditzeko beharrik ez dela ere azpimarratzen du, emaztea izateko ezkondu beharrik ez dagoen moduan. Funtsean, emetasunaren<sup>337</sup> eraikuntza horren ondorioz emakumeok, berak *madresposa* modura definitzen duen kategoria soziokultural horretako funtzio material eta kulturalak betetzen omen ditugu, seme-alaba edo senarra ordezkatu dezakeen edozeinekin: direla lagunak, direla lankideak, direla enpleguko arduradunak (Lagarde, 1990).*

---

336 Lagarderen arabera, hau klase, erlijio, ideologia eta abarreko guztietan gertatzen da, emakume\* asko paper horretan deseroso sentitu edo ama eta emazte gisa identifikatuta ez sentitu arren.

337 Emetasuna eta gizentasuna genero-proiektutzat ditu Connellek (1997) eta beraz horiek kategoria mugikorak dira.

Mundu patriarkalean emakumeak amatasunean espezializatzen dituzte: gizartearen ugalketan (subjektuak, identitateak, harremanak, instituzioak) eta kulturaren ugalketan (hizkuntza, munduaren eta bizitzaren ikusmoldeak, arauak, pentsamoldeak, pentsamendu sinbolikoa, afektuak eta boterea). (Lagarde, 1990: 365).

Etxekoanderearen eredu hori emakumeei partaidetza politikoa ukatzeko, ez aitortzeko edo gutxiesteko modu bat zela esan dezakegu. Ezker Abertzaleko egituretatik kanpo edo egituren inguruan eta oinarrian, baina aitortza politikorik gabe mantentzen baitziren emakume\* horiek nahiz eta, zeharkakoa izanik ere, ezinbesteko laguntza politikoa osatu. Hala ere, genero-ordenak emakumeari esleitutako ama edo emazte lekutik bada ere, pribatutzat jotzen den eremutik harago jardun duten “emakume txarren” mobilizazio publikoa oso garrantzitsua izan da hainbat kasutan, besteak beste, *madres de la plaza de mayo*-koen kasua<sup>338</sup>.

Ezker Abertzalean egoteko emakume\* eredu hori, hamarkada batzuk atzerago eraiki zuten beste partaidetza-eredu batekin batera elkar bizi zen, besteak beste, hurrengo lerroetan ikusiko dugun Itziarren alabak ereduarekin.

### **b) Itziarren alaba gudariak**

Itziarren alaba gudariak beraien herriko historiaren subjektu, ekintza kolektiboko protagonista izan nahi zuten, inguratzen zituen injustizia desegiten esku hartu gura zuten eta horretarako tresna Ezker Abertzalea zela uste zuten emakumeak ziren.

Emakume\* militante horien praktiken mugek, Teoria Feministak mugimendu soziopolitikoaren ikerketari egindako ekarpenekin eta ikerketa horien emaitzekin bat egiten dute: herri-mugimenduak eta mugimendu politikoak generizatuak dira. Horrek esan nahi du generoak osatu duela –betiere etnia, arraza, klase sozial, sexualitatea eta beste ardatz batzuekin gurutzatuta–, mugimenduen identitate kolektibo zein praktiken antolakuntza-printzipioa. Horrela, mobilizazioak, lidergotza- ereduak, estrategiak, ideologiak zein mugimenduen eragina genero-estereotipo eta hierarkiek zeharkatzen dituzte. Izan ere, pertsonak beraien generotik egiten diete ekarpena mugimenduei, eta halaber, elementu horiek guztiak inplizituki edo esplizituki osatzen duten inguruarekin elkarrekintzan ari dira (Taylor, 1999 in Alfama, 2009). Horregatik, mugimendu hauetan sartu ahal izateko baldintzak (jadanik lehen kapituluan zertxobait ikusi dugun moduan), mugimenduen barruan garatuko diren lan-motak (eta horien balioespenak) eta konpromiso militante horren ondorio pertsonalak generizatuak direla baieztatu dute (Taylor, 1999 in Alfama, 2009). Zentzu horretan, 90eko hamarkadan modu argian antzeman daitezke aurreko hamarraldietako Ezker Abertzalea edo ETA aztertu duten ikerketa feministen oihartzunak. Emakumeak *bigarren*

338 Ikus gehiago: Navarro Marysa 1989, In Eckstein, 1989.

*mailako militanteak* ziren<sup>339</sup>, bigarren mailako herritarrak ziren gizarte hartan.

Atal honetan ikusi dugunaren arabera esan dezakegu Ezker Abertzaleko –komunitate politikoko zein egitura barruko– lan-banaketa, botere-antolaketa eta katexi-egiturak garaiko genero-ordenatik edaten zuela. Eta horrek, bi ideal tipoen kasuetan, parte hartzeko modua eta emakumeen praktikak mugatzen zituen. Beraz, ezker independentistan emakume\* gisa egon eta aritzeko bi erduei dagokienez, bigarren begirada xeheago batek, biak ala biak genero-erregimen berbereko ideal tipoak zirela pentsatzera eramanez. Azken batean, emakume\* apurtzaile eta ausartak izatea bultzatuko baita, baina hala ere, puntu bateraino, gizonen babes beharretik landa joan gabe. Emakume\* burutsu eta politikoak baloratuko dituzte, baina beti ere, gizonak baino gaitasun handiagokoak ez diren heinean. Emakume\* konprometituak nahiko dira, baina beti ere, zaintza ardurei izkin egin gabe.

Funtsean, Itziarren eredia garaiko genero-ordenak feminitatea definitzeko zuen modu tradizionalatik gertuago osatutakoa zen. Gizon eta emakumeen arteko eskubide desberdintasuna eta eremuen banaketa defendatzen zuen genero-ideologian zizelkatutako eta diktaduratik zetorren gizarte kontserbadore batek emakumeei partaidetza politikorako eskaintzen zizkien baldintza urrietan, emakumeari esleitzen zitzaion ama eta emazte lekutik haien engaiamendu politikoari ekin ziotela hainbat emakumek osatu zutena<sup>340</sup>.

Eta Itziarren alabarena, aldiz, horrekiko alternatiba gisa eraikia, garaiko genero-ordenan gertatzen ari ziren aldaketen oihartzunak dituztenak: mugimendu feministaren hauspoa eta aurreko hamarraldietako emakumeek irekitako bidea<sup>341</sup>. Baina betiere gizonak egindako hautu eta eraturako erreferentziarekiko eraikitakoa eta, beraz, partaidetza ezberdindu eta azpiratuan oinarritutakoa. Garai horretan erreferentzialak ziren emakume\* militanteak egon bazeuden, baina ez ziren bereziki ikusgarriak. Emakumeek kuantitatiboki militantzian gutxiengoa izaten jarraitzen zuten (are gehiago, klandestinitate- eta espetxe-egoeran) eta kualitatiboki militante ikur ideala gizonetzkoa zen. Beraz, ispilu-lana egingo zien eredu lausoekin egin zuten aurrera hamarkada horretako emakumeek.

---

339 Odriozolak 1958tik 1968rako ETA aztertu zuen, eta bere ustez, araua gizonen militantzia zenez gero, nahiko ikusezinak izan ziren hasierako emakume\* horiek, *bigarren mailako militanteak*. Nahiz eta pixkanaka gutxi batzuk zuzendaritza arduretan egoten hasi ziren, eta emakumeen jardun armatuan Latinoamerikako esperientziek argia eman zieten. ETA abertzaletasun tradizionalaren genero-ikuskerarekin apurtuz joan zen eta Marxismoaren eraginez garairako aurrerakoak ziren gogoetak burutu zituen, barne-tentsio handiak eraginez, Del Vallek (1985) ondo aztertu zuen moduan. Hala ere, diskurtso aldetik emakumeen parte-hartzearen alde egin arren, egunerokoa garaiko gizartearen patroia matxista berberak aurkitu omen zituzten emakume\* hauek.

340 *Mujer vasca imagen y realidad* (Del Valle et al., 1985) liburuaren eta Emakunde 1991. urtean argitaraturiko *Informe sobre la situación de las mujeres en Euskadi* delakoaren arabera, indibidualizazio-prozesua eta etxeko zereginetatik aldentzea eskatzen duten aktibitateetatik aparte xamar mantentzen ziren emakumeak. Horrek esan nahi du emakume\* asko emazte eta ama funtzioekin lotzen ziren aktibitateak eta partaidetza lehenetsiko zituela.

341 Beste esperientzia batzuk eredu zituztela (Latinoamerika eta Espainiako Estatuko guda, besteak beste), emakumea izan eta politikoki – eta batzuetan armekin– konprometitzeko beste eredu bat eraikiz joan ziren ETAn eta Ezker Abertzaleko emakumeak.

Mary Nash eta Irene Cifuentesen arabera (1999), emakumeen erantzun kolektiboan, alde zuzenetik egon den ikaskuntza historikoak eragin egiten du. Baina, aldi berean, emakumeen hautu eta erabakietan generoa lekutzeko adostasun tradizionala duen moduari ere jarraipena ematen zaio. Hori da aztergai dudak kasuan ere ageri dena.

Ikusi dugun moduan, bi eredu horietako bakoitzean, eta baita bien arteko harremanetan eta joan-etorrietan, ñabardura garrantzitsuak gertatu ziren, baita tarteko hainbat bertsio gorpuztu ere. Horrekin batera, aurreraguardia eta atzeraguardia deritzen eragin eremuak ez zeuden elkarrekiko irudikatu ditzakegun bezain urrutia.

Ondorioz, 90eko hamarkadako aukerak zabaldu, gerturatu eta sakontzeko ariketa izan zela esango nuke. Batetik ala bestetik, edo bien artean, politika egin zuten. Ziurrenik, garaiko ikerketen arabera, politikarekiko interes eta engaiamendu handia zuen emakume\* multzo batek osatzen zuen azpikulturako parte izan ziren.

### 12.3. Estatuko dispositibo errepresiboetako genero-erregimena

Empezó a introducirme y a sacarme la pistola de forma más violenta, lo que me provocaba dolor, mientras el que me estaba violando me susurraba ‘si te gusta puta’, ‘no vas a tener un hijo de puta porque te voy a pegar dos tiros’. [...] Estaban encapuchados y el que había ido en el coche tenía bajados los pantalones y los calzoncillos, y venía hacia mí mientras me decía entre risas “nos vamos a follar a la novia del jefe”. Se tiró sobre mí mientras restregaba su cuerpo contra el mío [...] Me gritaba “¿qué te dice tu pareja mientras te folla, gora ETA? ¡Seguro que estás poniéndote cachonda, puta, te vamos a follar todos y le vas a dar asco porque nos lo vamos a pasar muy bien contigo!” (Amaia Urizar)<sup>342</sup>

Testigantza labur bezain gordin honek beste hainbatek publikoki esandakoa oso ondo laburbiltzen duela uste dut, baita torturaren genero-erregimena ikusgai egin ere. Horren ezaugarri nagusiak bost dira, nire ustez: 1) Emakume\* horien izaera eta parte-hartze politikoa ukatzea, ezabatzea edo debalutzea. 2) Emakumeen gorputzak objektu sexual bilakatzea. 3) Emakumeen genero-eraikuntzaren markagailutik irteten diren pertsonak, *puta* bezala irakurtzea. 4) Emakumeen genero-eraikuntzan zentrala bihurtutako gakoez baliatzea, bereziki amatasunaz. 5) Zikin, itsusi, zibilizatugabea, barbaroarekin<sup>343</sup> lotzea. Horiek guztiek osatu dute Ezker Abertzaleko “beste arraro okaztagarri” horren iruditegia. Hurrengo lerroetan bost horiek azaltzen saiatuko naiz, beraien arteko harremanei ere erreparatuz, funtsean emakumeak bi kategoriara murrizten zituztela

342 2004. urteko testigantza publikoa. Bi urtetara bere tortura-salaketa judiziala artxibatu zen. Ikus gehiago: <http://www.gara.net/idatzia/20041229/art94344.php>

343 Ibai Atutxak (2022) dio Euskal Herrian torturaren zifrek erakusten dutela subjektu torturatzaile baten eraikuntza. Zehazki, euskaldunok pairatu ditugun lau barbarizazio prozesu proposatzen ditu, eta horietako azkenean euskaldun basa terrorista gisa eraiki da, euskaldun bizilizatuarekin aurkakotuz. Euskaldun basa horren aztarnei segi dakieki tortura lekukotzetan, emakumeen kasuan, bestearen bestea izanda, are zailagoa izango zaie haien ikusegian emakume\* horiek ulertu, kokatu edo antzematea. Garbitasun eta zikintasanaren gaiak, botere afirmazio eta boteregabetez prozesuekin lotuta dago. Arrazismoa ikertu dute autoreek erakutsi diguntenez.

agerian uzteko.

Amaia Urizarren lekukotzan, emakume\* bakarrean -kasu honetan Amaia, baina nornahi izan zitekeen-, hiru figura dakusagu berau definitzeko: *ama*, *emaztea* eta *puta*. Aipatutako Lagarderen (1990) proposamenari jarraituz gero, oinarritzko bi kategoriatara mugatuta geratuko lirateke: *madresposa* eta *puta*. Autorearen arabera, *puta* kontzeptu generiko bat baino ez da, emakumeak bere erotismoagatik definitzen dituen, eta emakumeei tabu bihurtzen zaien kultura batean eraikia izan dena. Bere ustez, *puta* kategoria *madresposa* kategoriarekiko oposizioan osatutakoa da. Horrek esan nahi du *madresposaren* ezaugarriak betetzen ez dituzten emakumeak zuzenean *putatzat* joko direla. Puta *madresposaren* funtzioei uko egin edo bide horretatik desbideratutakoei egotziko zaie, beraz<sup>344</sup>. Eta gizarteak baztertu nahi dituen ezaugarriak jositako estigma gisa eraiki denez puta kategoria, emakumeak ezarritako bidetik ez aldentzeko mehatxu gisa eraginkorra da oso, biolentzia sinbolikoa (Bourdieu, 2001) arrakastatsua.

Hala, aratza ez izatea eta senarrekiko mendekotasuna hausteari suposatzen zaion *askatasun* hori da zigortuko dena; eta halaber, hori bera da gizonen begiradara erakargarri egingo dituen. Emakume\* horiek sinbolizatzen duten arriskua eta beldurra izango dira, zehazki, desiragarri bihurtzen dituen. Are gehiago, *besteenak* direnekin harremanetan egotea –eta beraz, *beraien madresposak* ez direnekin–, erotismo ilegala izatea, ohikoak ez diren leku eta orduetan –ezkutuko lekuan– aritzeak kitzikatuko ditu gizonak, eta bistan da aztergai dugun kasuan polizia-etxeak “putetxeei” egotzitako ezaugarri horiek betetzen dituztela<sup>345</sup>.

Horrela bi kategoria horien arteko jolas perbertsoarekin lotura du emakumeen aurkako torturak: 1) *madresposari* ihes egin izana zigortu -puta-, 2) *madresposaren* logikara itzularazteko saiakera subjektu politiko autonomoa ukatuz –*la novia de*–, eta, 3) *madresposarako* etorkizuneko bidea betiko zarratzeko mehatxua –*no vas a parir*–, preseski hori bera indartzeko edota euskaldun basak ez erreproduzitzeko. Hurrengo lerroetan biolentzia horietako bakoitza aletuko dut.

---

344 Horren erakusgarri Nash eta Cifuentesen lanetik (1999) hartutako hau dugu, Bartzelonako errebolta batean emakumeek zuten partaidetzaren inguruan: “Las mujeres que sigan el tumulto sobre contravenir los bandos, demuestran tener un alma poco delicada y ser de procedencia poco decorosa, por tanto, se reputarán como mujeres públicas, y se les aplicará la pena que las leyes tienen establecidas”. 1835. Urteko Mariscal del Camporen bandoa. (Nash eta Cifuentes, 1999:43).

345 Jelinekin bat egiten dut esaten duenean: “tortura sexualak ez ziren tortura egin zutenen asaldura sadikoaren gain egitea izan. Praktika horiek dakarten ondorio suntsitzailearen ezagutza ia zientifikoan oinarritutako praktikak izan zirein. (2017:224). Beraz, tortura sexuala plazer hutsagatik egin zela ulertzerik ez nuke nahi. Nire ineteresa gizonaren begirada deskribatzea da, beste emakume\* terrorista hori eraiki eta desio objektu bilakatu duenaren begirada. Besteak beste, prentsan ere oso agerikoa izan dena.



### 12.3.1. Duintasunaren/integritatearen mutilazioa: zikina

A mí lo primero que me dijeron en el coche [...] lo primero que me dijeron era que era una guarra porque no había cogido bragas. Y yo esa frase la tengo aquí, “eres una guarra, no has cogido bragas” y en cambio después, cuando hablé con mi pareja, lo primero que le dijeron fue “estás con el enemigo y ya sabes lo que pasa”. Ahí está claro, cómo van a trabajar contigo. Y eso entra casi, o entra en la intimidación. “Eres una guarra” ¿”pero tú que hacías, follar con todos los etarras?”. Todo eso, que no aparece en el testimonio, pero que no tengo problema de hablar de eso, y son repetitivas, y son repetitivas, porque son desde el principio hasta el final, hasta que te quiebran, y en mi caso te quiebran con ello también. **Alba**

Ta umiliazioa usaiaz aparte da zure gorputza, ze zikina sentitzen zaren. Momentu horretan hilerokoa jeitsi zitzaidan, iritsi eta hurrengo egunean berriro ere, ze hilerokoa pasatu berria neukan. Ta gogoratzen dut pilo bat nola nihoan jantzita: con un peto de pana marroia, kamixeta gorria, txaketa, ze bota, kaltzetinak. Ta neukan dana pegatuta, ez zidaten eman ni una puta compresa, ez neukan ezer ez garbitzeko. Eta izan zan lau egun odolez behera, izan zan benetan horroroso. Oso, hori izan zan. Ta beraiek ere: “Ah mira que guarra”. Ta ordun hor bai sentitzen duzu umiliazioa, lotsa, lotsa bai. Baina ez beraiek esaten zutenean “que eres la puta del comando”. Baina bai zure burua zikina ikustean, biluzten zaituztenean eta zu hain zikina! Zu ere zaudela, zu ere sentitzen zarela... lotsa hori, igual ez da umiliatuta, da lotsa, lotsa pasatu nun. **Lur**

Joder es que, es que no sé cómo se explica, es que tiene que ver con tu cuerpo y con lo que le están haciendo a tu cuerpo. Y sobre todo por todas las connotaciones sexuales, porque para mí todas esas connotaciones sexuales y de afección a lo que, a tu persona como mujer, pues desde que te sacan de casa hasta el final. **Alba**.

Lehenengo eta behin, agerian geratzen da emakumeak jazartzeko orduan, Espainiako poliziaren eskutara ustez eramán dituen partaidetza politiko edota armatuari lotutako kategoria ez dela beti ageri, edo ez dela bederen nagusia. Agertzen ez den kategoria hori “aurkari-etsai-disidente politikoarena” litzateke, poliziaren begietara “etarra, terroristarena” edota terminologia juridikoan, “balizko delitugilearena” nahi bada. Ikerketan ikusitakoaren arabera, emakumeok publikoki torturaz aritu direnean,, torturaren zauriez ari denean, preseski hau da oso mingarritzat duten gauzetako bat; alegia, subjektu politikoaren izaera ukatzea. Hori dela eta, euskal emakume\* militantea torturatzeko ardura eta betebeharra zuten pertsonak –kasu gehienetan gizonetakoek–, “etsai terroristaz” gain, batez ere emakume\* gorputzak ikusten zituztela salatzen ari dira. Eta zenbait kasutan kasik soilik “emakumeak”.

### 12.3.2. Mutilazio politikoa: ez militantea

Bai es que niri joan ziren min egitera bazekiten tokira. Bost egun horietan aztertzen dute zu nolakoa zaren eta aztertzen dute nun min egin, eta asmatu zuten eta jo ninduten min gehien egin zezaketen lekuan eta hala da. Ez dut uste, ez dakit emakume guztioi min ematen digun gauza berberak, ez dakit baina metodoak nahiko antzekoak izaten dira. Baina hori da gero zure jarrera nolakoa den, edo zure egoera sistema horrekiko. Ez dakit, batzuei agian min gehiago emango die militante bezala emakume bezala baino? Ez dakit... nik badakit niri zer. Eta gauza bakoitzak bakoitzari min ezberdina eman ahal dio, baina niretzako ez gaitzat jotzea, hor oso mingarria izan zen, min ematen

zidan ez onartzea nire militantziaren hautua, niri horrek min ematen zidan, “ei nik erabaki dut” eta min handia ematen zidana zan ere, ez sinistea edo ignoratzea. Bakoitzari gauza ezberdiñak eman al diote min handiena edo denborara. **Ekiñe**

Es que contado así parece una gilipollez, pero a mí eso me parece, me parece escalofriante. Sé que cuando lo cuento suena muy *ligh*, pero en mi cabeza no suena nada *ligh*. Es anularte como ser humano ¿me entiendes? Anularte en plan: “No tienes decisión propia”. Me parece brutal, brutal. **Lola**

Emakumeen nortasun eta militantzia politikoa gutxietsi edo ukatzean, poliziarentzat Ezker Abertzaleak suposatzen zuen “etsai” kondizioa ebasten ari zietela esan gura du. Beraz, tortura geletako joko-zelaia, guda batetako bi partaide areriores aurrez aurreko enfrentamendu politiko militarretik, gizon eta emakumeen arteko dominazio-lurraltera desplazatzeko saiakera dela ondorioztatu dezakegu. Edo gutxienik bi gudu-zelai horiek gurutzatzeko zioa. Adriana Cavarero filosofoaren ustez,

“Babesgabea izatea, armagabea izatea, kontzeptu harrigarria da. Izan ere, adierazten du ezin duzula erantzun. Babesgabea zarenean, etsaia ere ezin duzu izan: deus ez izatera igarotzen zara. Zaurgarri izateak, ordea, esan nahi du zauritu ahal zaituztela, baina, aldi berean, nolabaiteko duintasuna duzu, badakizu eta zure kontra joan daitezkeela. Eta, aldi berean, zaurgarria babestu ere egin daiteke”<sup>346</sup>.

Horrekin ez dut esan gura emakumeak “etsai” gisa ukatzeko poliziak egindako saiakerak zaurgarri izatetik babesgabe izatera bihurtu zituenik, edo ez bederen beti horrela jazo zenik. Seigarren eta zazpigarren kapituluan ikusi dugun moduan, atxiloketan zehar *agentzia* ez baitzen beti desagertu eta erresistentzia-estrategia ezberdinak ere garatu zituzten. Interesatzen zaidana praktika horrek gorpuztutako genero-erregimena agerian uztea da. Besteak beste, emakume\* horiek Ezker Abertzaleko kide izateagatik atxilotu zituzten arren, ostean emakume\* egoteagatik jazarri zituztela.

### 12.3.3. Autonomiaren mutilazioa: neskalguna, tuntuna, komandoko puta

Pero a su vez nos dejaban claro que no éramos un sujeto propio que habíamos decidido libremente nuestras decisiones, sino que nuestra decisión de estar ahí venía dada porque éramos novias de alguien, o amigas de alguien o la una por la otra, pero como mujer no éramos sujeto propio. ¿A ellos les harán este juego? Yo creo que no, torturarles diciendo que están ahí por su novia, no creo. Conmigo jugaron eso, buscaban todo el rato una conexión con un macho que a mi me hubiera marcado el camino, porque claro como yo había arrastrado a la otra, pues alguien me había arrastrado a mí. **Lola**

Parte-hartze politiko eta armatura jauzi egitea ulergaitza bihurtuko da poliziaren begietan,

---

346 Ikus gehiago:[https://www.berria.eus/albistea\\_papera.php?id=1761&orrialdea=029&kont=001&fetxa=2015-06-03&testua=interdependentziak\\_ezaugarritzen\\_du\\_existentzia](https://www.berria.eus/albistea_papera.php?id=1761&orrialdea=029&kont=001&fetxa=2015-06-03&testua=interdependentziak_ezaugarritzen_du_existentzia)

beraz, gizonekiko harremanaren bila arituko dira etengabe: beste kideren batekin bikotetu nahirik, gizon batekiko maitasuna kokatu nahirik engaiamendu politikoren iturburutzat.

Modu burujabeen, autonomoki emakume\* batek horrelako hauturik hartu ezin duela sinetsita, gizon batekiko lotura bilatzeaz gain, lotura hori ez egotekotan, senarraren prakapetik ospa egin duen emakumetzat jo, eta zuzenean, *komandoetako puta* bihurtuko dute. Eta gizonen batekiko harreman sexu-afektiboa aurkituz gero, gizon hori jazartzeko trofeotzat joko dute emakumea, gizonaren ohorea kolpatzeko, “nos vamos a follar a la novia del jefe” horrek salatzen duen moduan. Horrela *madresposak* senarrarekiko izan beharreko fideltasun eta purutasuna hausten dute.

#### 12.3.4. Amatasunaren mutilazioa: ez-ama

Con el tema de la maternidad de la Guardia Civil de “no vas a ser madre”, sí he sentido que en eso sí que me ganaron. Entiendo que no he sido madre por la experiencia vivida. No quería achacarlo a eso ¿eh? Pero así ha sido. **Alba**

*No vas a tener hijos* hori, behin eta berriz errepikatzen da haien kontakizunean, eta gainera, antza denez, *nos lo dicen a todas*. Mehatxu hori modu ezberdinetan gauzatzen da, dela urte luzez espetxeratutako dituztela etengabe errepikatzen zitelako, dela beraien gaitasun erreproduktiboa urratuko dietela azpimarratzearen bidez. Azkena, gainera, oso lotuta egon ohi da bortxaketa-modu ezberdinekin. Funtsean, bortxaketa bidez, gaitasun erreproduktiboa hautsi eta emazte gisa behin betiko zikindu nahia baitago, puta kategoriara lotzeko –*madresposa* inoiz izaterik izango ez duena–, eta emakume\* horiek sexualitatearekin duten harremana betiko aldatu nahian.

Y hablarme de mi cuerpo también, en el viaje, de agarrarme por aquí de “pero estás flaca. Bueno ya te veremos”. Claro son cosas que no aparecen allí<sup>347</sup>, porque no tienen tanta relevancia, pero al final, es como llega el quiebre ¿no? Desde el principio la amenaza de la violación. Todo el resto de amenazas se cumplían; *la bolsa*, la... bueno todo no, “te vamos a arrancar la cabeza no”, pero cuando yo creo que van a... es que la violación se produce desde el principio... la de la intimidad se produce desde el principio, la mía y la de mi familia... porque luego en los testimonios pues, “a esta la violaron”... y nosotras hemos caído en eso... y hablamos de que se produjo una violación cuando ha habido penetración. Pero, a ver, te han sobado, te han acariciado, a mí eso ¡me daba un asco! Pero prefería golpes que hacer como hacían... (hace el gesto de acariciar) *buaj* ¡qué asco! **Alba**

Zentzu horretan, garrantzi berezia du sexu-torturaren abanikoa zabala dela azpimarratzeak, ikusi dugun “aluan pistola sartzetik” harago doalako. Izan ere, emakumeen kasuan biluztasunaren inposizioa maiz erabili da. Gure gizartean, ama eta emaztearen gorputza, giltzarekin zarratutako gorputzak dira. Amen kasuan, sexualitate gabeko gorputz aratzak, eta emazteen kasuan senarraren propietate kuttuna. Horrela, gizonek bere bizi-ibilbidean gorputza erakusteko esperientzia zabalagoa duten bitartean, emakumeoi biluztasuna gordetzeko arauak geure eguneroko praktikan eragin digu, funtsean pribatasun handiko une/gune eta pertsonentzat gordetzen dugu. Tortura bizi izan

duten emakumeak adituz gero, lehen bortxaketa-sentimendua biluztasun esposatuarekin hasten dela ikusiko dugu: begiratua, komentatua eta ukitua den gorputz biluzia.

### 12.3.5. Mutilazio sexuala: zikina ezin garbitu

Nire torturatzaile batek plazerra izate, *buaj* sexualki horrek eramaten du beste maila batera, zure gorputzarekin nazka sentitzea, ikutua izan zarela eta sentitzea ja guda zelai bat, ja ez da zure gorputza, garbitu nahi izatea. Gogoratzen dut kartzelara sartu eta garbitu eta garbitu. Eta gerora ere bai, total putakume hauek nire gorputz guztia zeratu dute. Eta bueno, ba hor alto, alto eta benga lantzera gauza horiek. Hemen orain ez da dena, nola jada profanatu duten zure gorputza ja como que todo que... bai holako momentu batzuk bai... eta orduan alto! [...] Ze fisikoa sendatzen da, baina hemen barruan gelditzen dan hori, o sea, niretzako da nire zati bat kendu zidatena han, nire zati bat han dago oraindik, hartu nahi dudana. **Ekiñe**

Askotariko formak hartzen dituen bortxaketen gaiarekin jarraituz, teoria feministek sobera ikertu dute beldurra emakumeen dominazio sexual eta kontrolerako tresna gisa. Mendeetako beldurrarekin konektatzen gaituen heinean oso eraginkorra da. Hala, bortxatutako Ekiñek bere kasuan penetraziodun bortxaketa egikaritzea beharrezkoa izan ez zela azaltzen du, erabat sinesgarria ziztaion mehatxuarekin jada apurtu zutelako. Shanon Marcus-ek (1994) dio bortxaketaren gidoiak “emakumeen beldurrak, gorputz kaltebera eta sexualizatua Niarekin guztiz identifikatzea dakar; horrela bortxaketa heriotzarekin parekatzea iristen gara, Niaren ezabaketarekin, alegia” (1994: 74). Funtsean, autorearen arabera bortxaketaren gidoiak lotura zuzena du emakumeen sexualitatea objektu moduan, jabetza moduan eta barne espazio moduan ulertzearekin (Marcus, 1994). Ekiñek, esate baterako, profanazioa deitzen dio. Nago hori dela Ekiñek dioen *barruan gelditzen dan* hori. Berea den zerbait horren lapurretak eta profanazioak dakar bere gorputzarekiko nazka edo bortxaketa ekidin ezinagatik eragindako erruduntasuna.

Azken batean, sexu-torturak gizon eta emakumeengan dituen ondorio diferenteak aintzat hartzeak garrantzia du. Afera ez baita soilik tortura sexualaren teknika ezberdinak aplikatzea ezta emakumei gehiagotan aplikatzea ere (Etxebarria, Pego, Beristain, 2017). Horrekin batera, gizon eta emakume\* gisa irakurriak eta eraikiak izan garen pertsonak, genero sozializazio ezberdina izan dugunez gero, sexu-biolentzia nola sentitu, interpretatu eta biziko dugun horretan ezberdintasunak egotea litekeena da. Besteak beste jazarria izatea eta biolentatua izateko arriskuarekin bizitzea emakume genero- sozializazioaren parte den bezala, gizontasunaren sozializazioa biolentzia erabiltzean eta besteak biolentatzean datza (Bonino, 2000; Azpiazu, 2017; Connell, 2020). Beraz, tortura sexualeko umiliazioaren esangura eta efektuak gauza ezberdinekin lotuko du bakoitzak. Emakumezkoek, ustez emakume\* bati gerta dakioken gauzarik gogorrena bezala eraiki den bortxaketarekin lotuko duten bitartean, gizonak, biolentzia eragile izatetik biolentzia hartzaile kokaraztean, haien gizontasuna ezabatzen dela sentitu dezakete, lotsa, errua eta ahuldadea sentituz. Emakumeek *puta* estigmatik korrika beste aldera irten gurako duten moduan, gizonak haien feminizaziotik alde egin nahiko dute arrapaladan. Beraz, biak bihurtzen dira genero-dispositiboak

*genero- teknologia* baten baitan (Lauretis, 1996).

Horrekin batera, Espainiako estatuko indar dispositiboek komunitate etniko eta politiko horretako emakumeei ezarritako genero-erregimenak, emakume\* horiek egindako desplazamendua zuzendu eta partaidetza politikorik gabeko etxekotutako andre egoteko eredura itzularazteko lanak egin zituztela ere ikusi dugu. Horretarako Frankoren diktaduratik martxan jarri zituzten tortura eta espetxe politikoaren haria jarraitu zuen Estatuak<sup>348</sup>. Baina horretan ere egon zen mugimendua, izan ere, hastapen batean emakumeak ez baitzituzten horrenbeste judizialki prozesatzen, emakumeak aktibitate horietarako gai ez zirelakoan. 90eko hamarkadatik aurrera, aldiz, judizialki emakumeei beste tratamendua ematen hasten zaiela baieztatu dute abokatu adituek eta ikerketako partaideek ere<sup>349</sup>. Horrekin batera, tortura “zientifikoagoa” -eta psikologikoagoa bihurtzen doa<sup>350</sup>, markarik ez uzteko asmoz eta horrek bat egiten du emakumeekiko torturaren aplikazio berezituarekin<sup>351</sup>. Izan ere, osagai psikologikoak pisu handiagoa izango du, baina, halaber, frogatzeko zailena izango da, horrek eragiten duen etengabeko birbiktiazio-prozesuekin. Amaitzeko, tortura psikologikoak polizia-etxeetako tortura sexuala torturaren eta eraso sexualen muga gainditzea lortzen du eta zenbait kasuk prentsara salto egiten dute<sup>352</sup>.

Modu batera zein bestera, 90eko hamarkadan bi fenomenok egiten dute bat. Alde batetik, geroz eta emakume\* gehiago engaiatzen dira, eta, bestalde, emakumeen parte-hartze politikoa gehiago zigortzen hasten da. Izan ere, datu objektiboek so, emakumeak politikan eta borroka armatuan engaiatzen ez direneko estereotipoa jada ez da horren sinesgarria suertatzen.

#### **12.4. Genero-erregimen ezberdinen arteko dantza**

Orain artean, Ezker Abertzaleko eta Estatuko errepresio dispositiboetako genero-erregimenok ezagutu ditugu, 90eko hamarkadan zehar mugitu zirela ere ikusi dugu, baita erregimenok elkarreraginean zeudela baieztatu ere. Eta erregimen horien erdian, horietan eraginez eta horiek zeharkaturik, Ezker Abertzaleko emakume\* militanteak. Atal honetan, emakumeek genero-erregimen ezberdinen artean egin duten bideari erreparatuko diot.

348 Lehen eta bigarren frankismoko ikerlan feministek egindako ekarpenaren arabera. Gehiago sakontzeko ikus: Aguado y Verdugo (2011), Abad, Irene et. al (2012). Gorosarri (2011) eta Moreno (2013), Ginard (2013),

349 Uste hau datuetan baieztatzen duen ikerlanik ez dagoen arren, elkarriketatutako abokatu adituek zein landanean erregistratutako hainbat solasaldietan inolako zalantza gabe aipatua izan da.

350 Ikus: Pérez (2014) eta Francisco Etxebarria buru duen *Proyecto de investigación de la tortura y malos tratos en el País Vasco entre 1960-2014*. [http://intxorta.org/wp-content/uploads/2017/12/INFORME\\_FINAL\\_-\\_investigacion\\_tortura\\_y\\_malos\\_tratos\\_18-12-2017.pdf](http://intxorta.org/wp-content/uploads/2017/12/INFORME_FINAL_-_investigacion_tortura_y_malos_tratos_18-12-2017.pdf)

351 2017. urtean Eusko Jaurlaritzarentzat egindako informearen arabera, emakume eta gizonei aplikatu zaizkien tortura-teknikek badute genero-markarik. Emakumen kasuan esate baterako “boltsa”, “plantoia” eta sexu iranak sarriagoak izan dira eta gizonen kasuan, kolpeak, elektrizitatea eta exekuzio simulazioak.

352 Nekane Txapartegik 18/98 epaiketan Audientzia Nazionalen bertan egindako lekukotza. [https://www.lainformacion.com/asuntos-sociales/Nekane-Txapartegui-buscada-despues-Suiza\\_0\\_905310901.html](https://www.lainformacion.com/asuntos-sociales/Nekane-Txapartegui-buscada-despues-Suiza_0_905310901.html)

Zehazki, ibilbide horri dantza deitu diot. Alde batetik, dantzak mugimendua dakarrelako eta, lan honetan zehar agerian geratu den moduan, emakume\* horiek etengabe mugituz eta birkokatuz aritu dira, espazio finko eta itxia gailenduz eta zabalagoa den espazio multzoa betez. Bestetik, bakar-dantza ez den kasuetan, dantzan mugimendua beste gorputz (edo gorputzen) araberakoa da, alegia, testuinguratua eta elkarren menpekoea, nahita egindakoa, eta nahigabekoa ere. Tarteka norberak gidatzen du, eta tarteka besteek –norbera inertzietan harrapatua sentitzeraino–. Azkenik, dantzak gozamina dakar, baina baita ikaspen-prozesua ere, segurtasuna eta askatasunaren beharra eta konkista. Eta batzuetan oina ere zapaltzen digute, eta min ematen du.

Funtsean, Ezker Abertzaleko emakumeek generoa modu ezberdinetan lekutu dutela esaten ari naiz, dela bakoitza ideal tipo ezberdinerara hurbildu delako –eta tarteko hainbat bertasio eraiki dituelako–, dela bakoitza leku ezberdinetan kokatu delako –bere ibilbidean zehar–. Modu batera zein bestera, kasu guztietan beraien mugimendu politikoko genero-erregimenak eta errepresioarenak eragin nabarmena izan duela agerian geratzen da. Baina begi-bistakoa ere bada baldintza horiei erantzun egin dietela, nahiz eta denek ez egin modu berean.

Hurrengo lerroetan, emakume\* protagonistek une ezberdinetan egindako aipua eta Ezker Abertzaleko emakume\* militante izan/egoteko era desberdinen kontakizuna izan daitekeena jasoko ditut dantza horren erakusgarri modura.

#### 12.4.1. Militante errebelde eta burujabea

Nik ere dena eman nahi nuen borrokan, eta horretarako tokia Erakundea<sup>353</sup> zela sentitzen nuen. **Mari**

Partaide batzuk haiek ere “eusko gudariak” izan nahi zutela sentitu zutela agerikoa da. Bide horretan askatasuna sentitu dute, erabaki propioak hartzeko beharrezkoa den autonomia eta erabaki propioek dakarten autonomiari darion askatasuna, kotxea gidatzen zuten moduan bere bizitzaren eta hautu politikoaren gidari sentitzen baitziren:

Askatasuna ere. Uste dut sasiak ematen dizu batzutan askatasun sentimendu bat izugarria. Eta askatasun sentimendua aldi berean, como muy consciente, muy de “ostias estoy haciendo esto, porque creo que tengo que hacer esto”. Orduan bi konzientzia horiek: de que lo que haces sirve para algo y al mismo tiempo la libertad de tomar tú esas decisiones. Y en ciertos momentos sentir esa libertad, ba, oso ederra izan da. Nik esango nuke, eta hau espetxean dagoen kide batekin askotan komentatzen genuen, sentimendu hori zen asko gidatzen genuenean, bakarrik hitzordu batetik bueltan edo harako bidean, edo zerbaitera. Orduan bakardade hori. **Irene**

---

353 ETari deitzeko moduetariko bat da, elkarrizketetan nagusi izan dena, bereziki Ekiñe ETakidearen ahotik, baina ez soilik beretik. Singularrean izendatzeko modu horrek, Ezker Abertzaleko antolakundearen arteko garrantziaren arabera hierarkiari so, ETA gorengo tokian zegoela agerian uzten duela iruditzen zait.

Irene adierazten ari den bakardadea, errebeldia eta askatasunak, badute generoarekin loturarik. Bakardadea subjekzio eza eta inoren/inorentzat ez izatea modura irakur daiteke. Errebeldia eta askatasunari dagokionez, modu kontziente edo ez horren kontzientean bada ere, parte-hartze politikoa emakumeentzat preseski gordetako eremua ez zela bazekiela salatzen ari da, lehenago beste hainbat emakume\* egon zirela zekien moduan. Baina bidea irekita egon arren, oraindik norberaren buruari –emakume\* legez– eta besteei –gizonei– egoerak eskatzen zuen tamainan egoteko gai zirela erakusteko premia zegoela adierazi digute, edo horrela interpretatzen ditut bere esanak.

Parte-hartze politikoak jakintza eta gaitasuna eman diela ere adierazten dute, zuzenean edo zeharka. Militantzian trebatu ziren talde-lanean aritzen, jendaurrean hitz egiten, eztabaidatzen eta bere ideiak garatu eta defendatzen, proiektuak diseinatzeko, dinamizatzen, aliantzak egiten, errealitate sozio politikoa aztertzen, begirada kritikoa zorrotzen, Euskal Herriaren ezagutza geografiko eta soziologikoa eskuratzen. Azken batean, jakintza tekniko espezifiko, kapital sozial eta kultural handiaz ari gara, boteretze-prozesuaz.

#### 12.4.2. Burujaibetza galduz doan emakume\* militantea

Ardura politikoa eta garaiko gatazkaren militarizazio-prozesuak burujaibetza galera dakarkielako sentitu dute. Bete beharreko rolak eta ardurak, jendeak beraietaz espero zuten hura bete nahiak, beraien burua eraldatuz joan zirela diote, bereziki arduradun gisa gogortasuna zelako espektatiba behinena. Irizpide propioa galduz eta gizonei esleitzen zaizkien portaerak garatuz ikusi omen zuten beraien buruak nahigabe; estrategia gisa ala ondorio gisa izan zen argitu gabe.

Oso gazteak ginen eta pisu handia jartzen zen gudan. Ikur izate hori edo izan behar hori zaila da horren gaztea zarenean. Inertziaren zurrunbiloan sartzen zara, gauzak azkar doaz eta... aldaketa pertsonal handiak bizi izan nituen. **Lili**

Partaidetza politikora askatasun-egarriz sartu arren, pixkanaka gustuko ez zituzten gauzak egin beharrak eta gustuko zituztenak alde batera utzi beharrak zauria eragin zien. Ondorioz, horiek leuntzeko estrategia zenbait garatu zituzten: hartutako ardurei mugak edo baldintzak ipintzea, gustuko gauzetan aritzeko tarteak ateratzea, edo beste emakumeekin aritzeko espazioak bilatzea. Giro horrek ulergarriagoa egiten du hurrengo lerroetan deskribatuko dugun militante-eredua.

#### 12.4.3. Itziarren semea izan nahi duen emakume\* militantea

Testuinguru eta partaidetza baldintza horietan, batzuetan Itziarren Semearen lekura doitzeko lanetan tematu ziren, emakume\* gorputza estali eta maskulinoz jotzen ziren jarrerak garatuz. Horrekin ez dut esan nahi hautu eta posizio hori kontzientea, eztabaidatua eta adostua zenik; boteretzeko irrikitan, horretarako garaian zegoen bide laburrena edo agian ikusgarri

zitzaien bakarrenetakoa zela baizik. Modu batera zein bestera, 90eko hamarraldian hedatu zen *berdintasunaren fikzioaren* joerak eta azterketa ezberdinek aipatzen duten (Epelde, Aranguren eta Retolaza, 2015) kontzientziazte feministan emandako belaunaldi hausturak eraginik izan zuela Ezker Abertzalean ere. Hortaz, “emakumeen askapena kultura maskulinora jauzi eginda” (Epelde, Aranguren, Retolaza, 2015: 204) etorriko zeneko ustea teoriarik errefusatu arren, praktikan zenbait emakumerengan eragina izan zuela begi bistakoa dela deritzot. Horiek horrela, Egizanen eragin ahalmena mugimendu politiko horretako emakume\* guztienganako berbera ez zela agerian geratzen da. Lolak eta Suak horrela definitzen dute prozesua.

Eran las más fuertes, las más duras, las más frías, las más...esa era...No éramos así, nos hicimos así. Yo me doy cuenta. Es que como que no importa que vaya a decir el otro, lo importante es - *bua bua*-. Decirlo. Y además lo más alto, lo más. Yo creo que a mí me viene de aquí, del formato de militar con hombres. Que no había otra manera, tenías que ser la que gritaba más fuerte, la que estuviera allí. Y tenías que ser dura y fría. Yo creo que nos hicimos así. **Lola**

Orokorrean zan egoera bat nun beldurra jan egin behar zenuen. Ausarta izan behar zinen, enfrentatzeko prest egon behar zinan, karakterra izan behar zenuen. Orduan beti esaten dena, emakumeok minus batetik abiatzen garenez, ba orduan extrak demostratu behar genituen. Gizonen aldetik emantzat ematen da ausartak direla eta abar. Emakumeetan ez, orduan demostratu egin behar dugu. **Sua**

Uxue Alberdik (2019) maskulinitateari esleitzen eta exijitzen zaizkion ezaugarriak indartuz bide egite horiei Drag King estrategia deitu die. Emakume\* bertsolariengan fokua ipini duen autore honen ustez, “gorputz transgresorea ezabatzea *intelektotik bakarrik* lehiatu behar izateko estrategia logikoa eta errepikatua da. Inkontzienteki, baina emakume\* haiek bazekiten euren gorputzetan bazegoela urratzailea zen zerbait” (2015)<sup>354</sup>. Ezker Abertzaleko kasuan, emakumeek “gorputza ipini” zuten plaza ez zen soilik oholtza izan, are gehiago militarizatuz jarraitzen zuten gatazka armatuan. IRAko emakume\* presoen zikintasun greba ikertu zuen Aretxagak (1977a) ere emakumeen gorputzak ez sexuatzeko joeraz dihardu. Kasu horretan hilerokoaren odola erabiltzeak lehenengoz jendaurrean gorputz horiek emakume\* gorputz gisa sexualizatu zituela dio, ordura arte, Irlandako abertzaletasunak ezarritako *emakume\* ama asexualaren* irudiak eta haien burua gizonen parekotzat zuten *borrokalari asexualaren* errepresentazioak indarra baitzuen. Modu batera zein bestera, Drag king estrategia estetikaz harago doan estrategia litzateke Ezker Abertzaleko emakumeen kasuan, baina janzkerak generoa lekutzeko moduak eta horrekiko erosotasun eta desorosotasunez aritzeko balio du.

#### 12.4.4. Militante pinpirina eta militante ez-pinpirina

Ta janzkerak eta abar leku handia hartzen zuen, janzkera aldatu zen, hasi nintzan erakusten gehiago, prestatzen gehiago. Es que tia, gure garaian, con esas camisetas de XXL y punto pelota. Como mucho begiko marra. Atzazkolak, ezpainak eta hori ni por el forro. A ver, ez nago esaten denik gauza txarra

---

354 Ikus gehiago: <https://www.pikaramagazine.com/2015/02/bertsolaritza-eta-gorputza/>



e? Edo praka laburrak hankak erakutsi, en mi puta vida. Baina bai, leku handia zuen arropak han. Eta aldatzen genuen, eta sartzen ziguten... como si fuéramos las *Barbies* cambiándonos. Gainera garai horretan egon zan *boom* bat arropan, ta hasi ziren H&M ta holakoak, ta hasi ziren arropa sartzen marka hauek super merkeak, eta jendeak oparitzen zizun arropa, edo konjuntioak edo... eta klaro. Ta ni identitate horrekin ba ez nengoen... baina gero ohitu nintzen. Zu bebai? Edo bueltatu zara zure zerera? Era algo como mio, pero como ajeno también, ezta?. Xune<sup>355</sup>.

Kartzelako garaia gogoratzen ari da Xune. Estetikoki feminizatzeraz jo zutela adieraziz, eta , aldi berean, espeteratu aurretik nola janzten ziren eta estetikari ematen zioten garrantzi txikiaren berri ematen digu. 90eko emakume\* haien gazte modak oso androginoa zela dio, eta esate baterako, autofinantziaketa eta propaganda helburu zuen Ezker Abertzaleko arropaz ere hitz egin digu Xunek: gizon gorputzak erreferentzia bakar zuten kamisetak eta jertseak ziren salgai jartzen zituztenak. Baina horrekin batera, hamarkada horren amaieran eta 2000.ean kapitalismo patriarkalaren globalizazio-prozesuaren ondorio gisa janzkeran gertatzen hasten den aldaketa orokorra ere aipatzen du, bere kasuan kartzelan harrapatu zuena. Oraingo honetan Xune, beste hainbat bezala, generoa emakume\* pinpirin gisa lekutze horrekin deseroso<sup>356</sup> sentituko da.

Beraz, gizonen egoteko modua performatzeak batzuetan zauriak eragin bazizkien ere, gozamina ere ekarri zien. Izan ere, feminitatea ulertzeko modu bakarrak (tradizionala modernoz mozorrotutako pinpirina) deseroso eta arrotz sentiarazten zituen, eta Ezker Abertzalean feminitate-eredu hori ez jarraitzeko lekua ere aurkitu zuten.

#### 12.4.5. Emakume\* militante florerora

Ai eta gero, erabili izanaren sentsazioa ere batzutan, batez ere, ez emakume izateagatik baina bai referente edo kopuruak ezta? nola argazkian emakume bat izatea polita dan ba florerora sentsazioa, tranpa modukoak ere. Eta bai erabilia sentitzearena ba “-ei ekitaldia bat dago eta ez dakit zer” eta azkenean ez zoaz ekarpen bat egitera ez ezer, zoaz numero bat izatera, emakume bat izatera tipo florerora. Baina momentu batzuetan sentitzea oso zaila dela ezetz esatea. Bakarrik dinosaurio, tipo horien kontra ba ez da erreza. **Ekiñe**

Garaiko euskal gizartean emakumeen presentzia eta parte-hartzea kuantitatiboki eta kualitatiboki areagotzeko premia zabaldu ahala, agerraldi publikoetan irudi parekideagoetara hurbiltzeko politika hedatu zen Ezker Abertzalean. Aldaketa aroan zeudela jakitun, beren presentzia beharrezkoa zela sentitzen zuten, alde batetik. Baina, bestetik, irudi bidez adierazten zena eta

355 Azpimarra neurea da.

356 Mari Luz Estebanek elkarrizketatu zuen Arrate Gardoki ere kartzelan bere itxura feminizatzeaz aritu zen, eta horrek hasiera batean eragin zion atzerakadaz ere: “Yo te digo la verdad, entré [en la cárcel] y todas super apañadas, y dije, «pero qué cuadrilla es esta, que están hablando todo el día de pelos y no hablan de lo que pone el Gara!». Pero empecé yo también a depilarme, a darme crema. Los hombres hacían más rollo gimnasio. Pero, sí, entonces empecé a utilizar faldas por primera vez, camisetas de tirantes [...] Me decían: «Si te has hecho femenina y la leche» [se ríe] [...] Yo aprendí allí” (2018: 357). Autoreak (2018), nik neuk Master Amaierako lanean bezala (2016), janzkera, itxura, elikadura eta osasuna zaintzea, erresistitzeko modutzat izateaz gain, poteretze prozesu bateko urrats gisa dakusa, nahiz eta partziala izan.

praktikan emakumeek mugimendu politiko horretan zuten erabaki ahalmenaren arteko distantziak ezinegonarekin eragiten ziren. Nolabait betebeharrak/mandatu feminista eta gizonen egitura politikoen bidez erabilia izatearen arteko sentimenduen erdibituta sentitzen ziren gure protagonistak. Gainera, emakumeen artean elkar babesteko eta bultzatzeko sareen ahultasuna azpimarratzen dute. Bakardade handian, batzuetan loreontzi izan ziren eta besteetan loreontzi izateari uko egin zioten.

#### 12.4.6. Emakume\* militantea; bikote leiala eta bide propioak ibiltzen

Militantzia politikoa bikote-harreman, familia, etorkizun profesional eta amatasunaren gaineratik<sup>357</sup> ipini zuten modu berean murgildu dira kartzelako bikotea —gehienetan gizona— eta seme-alabak zaintzeko eta materialki berregiteko zereginetan. Horretarako militantzia lehenesteari utzi behar izanda ere batzuetan. Beste batzuetan biak bateratzen dihardute, egunero, erdibituko direla sentitu arren. Batzuetan bere bikoteari noranahi jarraitu diete, beste batzuetan ez, bikoteak beraiei jarraitzea eragin dute. Eta bikoteak engaiamenduaren hegalak moztu nahi izan dizkienean, bikotearen ondoan geratzea ere erabaki dute batzuk. Besteetan, bide propioa egin dute, nahiz eta bikoteek geratzeko eskatu. Bikote-harreman heterosexualek moral bikoitzaren mugak ere ezagutu eta onartu dituzte, egun damutu arren. Tarteka horietaz ez baitziren ohartzen, eta errepresioaren aurka ari zirela sentitzen zuten.

Bikotea kartzelara sartu zutenean fidelitatearen arazoak indar gehiago hartu zuen, presio modukoa sentitzen nuen baina zintzoa banaiz, neuk ere onartu egin nuen, hori zen egin nahi nuena, horrela sentitzen nuen garai horretan. Igual borroka eta errepresioak gure harremanean egiten zuten interferentzia txikitzeko modua zela sentitzen nuen be bai. **Lili**

Era berean, dagoeneko aztertu dudanez, espetxeak eskaintzen duen «babeslekuaz» baliatu dira sexualki eta afektiboki esperimendatzeko eta gozatzeko, baita lehen harreman lesbikoak izateko ere, nahiz eta egun ez izan publikoak.

Harremanak ireki, edo batekin baino gehiagorekin egoteko geure bideak bilatu genituen. Gutun bidea, eta barrukoekin egotekoa, kanpokoentzat existituko ez balira bezala zan, baina existitzen ziren bai, ya lo creo. **Lili**

Beste preso komunitate batzuk ere, espetxeko pareta artean, haien komunitateko arau sozialen zaintza begiradatik salbu sentitu izan dira, eta horrek haien gorputza, generoa eta sexualitatea ezberdin bizitzen hasteko aukera eskaini die.

#### 12.4.7. Militante ama

Militantzia ama izateko gogoen gaineratik kokatzen genuen eta hori oso gaztea zaren

---

357 Bikote eta familia bizitza zein profesioa aipatzen ditut, 90eko hamarkadako genero-mandatu gisa. Horrek ez du esan nahi hori baino ez zutunik uzten alde batera, esate baterako laguntasunak leku handia zuela nabarmen geratu da ikerketan zehar.

tira, baina gero adinean gora gai hori konplikatzen joan zen niretzat, barne gatazka bezela sentitu nuen. Lehen filako militantzia la letxe zen, ez zen Erakundeko jendea bezalakoa baina oso exigentea zen e? **Lili**

Nik ikusi edo sentitu dudana da gizonetzakoak ez dutela inoiz erabaki behar izan aita izan «edo» X. Guk bai, ama izan «edo» lanera joan, ama izan «edo» militantea izan. Guretzako beti «edo» hori, gizon kideengan ez da egon eta gudan bai. **Ekiñe**

Porque esto de la maternidad era algo que en mi proyecto de vida lo tenía claro, estaba incluido, y siento que con mi militancia en ETA no lo hubiera podido encajar. **Alba**

Eta erabakitzen dut baietz, sasia bada ere ama izan nahi dudala. Nahasketa eta argitasun eza etorkizunari begira, baina erabaki nuen baietz, eta zan ere torturarekiko lotura, hau da torturaren aurkako borroka horrekin. Ze zan ba komisaldegian matxakatu ninduten ama ez nintzela izango horrekin, ez nuela haurrik edukiko. Baina bai torturaren aurkako nire borrokan garrantzitsua izan zen, ze badakit ez dudala inori ezer demostratu beharrik, baina zan «esan zenidaten sekula ez nuela edukiko ba tira hemen nago». **Ekiñe**

Nik etsaia, saiatu dira... niri gertatu zait espetxean etengabeen... Epailea bera, epaitegian bertan, atxilotu ninduten egunetik gertatu zitzaidan. O sea, epaileak esan zidan lehen gauza izan zen: ¿cómo has dejado a tu marido y a tu hijo? O sea, su primera pregunta era, a ver que alguien me explique la psicología de esta mujer. Y la segunda era ya cual era tu responsabilidad y esto y lo de la moto. **Irene**

Eta funtzionariak: —Vosotras tenéis la culpa. Si vosotras hacéis la limpieza, vuestros niños entran en la piscina. Ta gu: —Pues no, nuestros niños se bañan en un cubito en el patio. Baina txantaje hori egunerokoa izan da. **Lur**

Neretzako momentu gogorrenak berriro izan da bigarren atxiloketa, izan zela berriro bizi behar izatea, reu-traumatizazioa. Eta eskatzen didate biluzteko, nire zuloak ikusi behar dituela, ipurtzuloa eta alua. Eta gainera esaten didate: «Ez baduzu egiten zure alaba umezurtz utziko dugu», para kolmo, orduan erabaki behar dut, bera edo ni. **Ekiñe**

Ikusten dugun moduan Ezker Abertzaleko genero-erregimenak ez zuen amatasuna bultzatzen, are gutxiago militantzia armatuan. Arrazoiketa segurtasuna zela adierazi du batek baino gehiagok, baina gerora<sup>358</sup> errealitate hori aldatu izanak edota munduko beste talde armatu batzuen<sup>359</sup> politikek segurtasuna kudeatzeko beste moduak bazeudela uzten du agerian. Modu batera zein bestera, Ezker Abertzaleko militantzia eta amatasunaren arteko bateratze eza ez zen

358 2000. urtetik aurrera hori aldatzen hasi zela jakin dugu, izan ere, ETAkide ezberdinak haien hurrekin atxilotu izan dituzte, Marisol Iparragirre eta Iratxe Sorzabalaren kasuak, besteak beste. 80ko hamarraldira arte Iparraldean birsortu zen “etxean” ere haurrak zeuden. 1989. urtean estradizio masiboak hastearekin batera, iheslariak jazartzeaz gain, ETako kideen klandestinitate eta sakabanaketa areagotu ziren, eta horrek ETako kidezta eta familia bizimoduaren arteko bateragarritasun-baldintzak aldatu zituen.

359 Argentinako ERP eta Montoneros taldeak, zein Txileko MIR taldean, komandoak familiak osatzen ziren, haur eta guzti eta hori posible izan ez zenean, umeak modu kolektiboan eta seguruan hazteko Kuban komunitateak sortu zituzten. Ikus: 2010ko Macarena Aguilok zuzendari duen *El edificio de los chilenos*, eta Virginia Croattok 2015an zuzendutako *La guarderia* film dokumentalak. eta

arau idatzi eta ideologikoki garatua, behintzat aro honetan. Hori baino gehiago, emakumeei umeen zaintza eta gizonei politika esleitzen zien lan-banaketa sexualak zuen barnerapen-maila salatzen ari da. Ondorioz, amatasunak militantzia bidea oztopatzen zuela sentituko dute, beraz, horregatik bat ala bestearen artean hautatu behar hori. Aretxagak (1987) esate baterako, Dolores Katarain “Yoyesen” erailketa aztertzean dio<sup>360</sup>, emakume\* horrek bateragarriak ez zirenak bateratu nahi izan zituela, irudi heroikoa (Ezker Abertzaleak zein prentsa eta Espainiako Barne Ministerioak eraikitakoa) eta amatasuna.

Biolentzia politikoa eta matxistak bidean bat egin eta biolentzia bikarioaren forma ere hartzen zuela adierazten digute partaide askok esandakoek. Estatueto instituzio publikoen eskutik haurrak xantaia eta mehatxu gisa erabiltzea eta ama txarra direla aurpegiatzea, besteak beste. Kartzelako kontakizunak agerian uzten du hau behin eta berri.

Bi muturretako adibide horiek Ezker Abertzaleko emakumeek amatzeko zeuzkaten arazo eta oztopoen berri ematen digute eta amatasuna, genero-erregimen arteko dantza horren erakusgarri argiena dira. Horiek horrela, bateragarritzat jotzen ez zena, bateragarri eginarazi zuten askok, bai Ezker Abertzalean, bai Estatueto erakundeekiko. Ezker Abertzaleko kasuan haurrak ekartzen hasi zirelako; auzi hori eztabaida eta gogoeta-prozesu baten bidez baino gehiago, praktika hutsetik irekiz joan zen bidea izan zela dirudi. Horrela militantzia, kartzela eta klandestinitatea amatzeko traba izan dira, eta horiek gaitzen saiatu arren, ez zuten beti lortu. Errepresioaren kasuan beste horrenbeste, emetasuna amatasunari lotzean, emakume\* militanteak ez-amak ziren, putak, ama txarrak. Zentzu horretan haien amatasun material zein erlazonala oztopatzen zuten. Estatuaren aurrean ere amatu behar izan zuten. Bistan denez, eta adierazten dutenaren arabera, aitatasunen kasuan baino askoz zauri handiagoekin.

Beraz, ama egitea Ezker Abertzaleko zein errepresioaren genero-erregimenei aurre egiteko modutzat ere ulertu dezakegu. Laura Varak zenbait emakume\* preso politikoren amatasuna aztertu zuen eta espetxeak egiten duen amatasunaren ukapenak<sup>361</sup> eredu indartzen duela deritzo. Horrekin batera, emakume\* independentsita horiek, modu batera edo bestera, amatasun eredu intentsiboa berregiten dutela dio.

Pixkana-pixkanaka lekua hartzen, tokia egiten joan dira gizonek beraientzat egin duten mundu batean, eta pentsa genezake hor egoteak amatasuna ulertu eta praktikatzeko moduetan aldaketak ekar zitzakeela, eredu nagusia kolokan jarritz. Baina jasotako informazioaren arabera ez da horrela gertatu, izan ere eredu bere horretan mantentzen da, indartsu gainera (Vara, 2011: 137).

---

360 ETAk publiko egin zituen arrazoietatik harago Dolores Katarain hiltzeko izan zitzakeen arrazoitzat erabat jo gabe aipatzen du..

361 Ikerlan feminista ezberdinek zein emakume\* presoek beraiek, espetxeak amatasunari arreta gutxi eskaini eta eskubide franko urratzen dituela (Almeda 2002-2003, Ugarte 2003, Yague 2007, Igareda 2009).

Vararen ondorioak ukatzeko asmo gabe –ez baita amatasuna modu espezifikoko eta sakonean aztertu ikerketa honetan–, nago, bi genero-erregimenak eta horien arteko solasaldiak aintzat hartu behar direla espetxean garatutako amatasuna aztertzeko sasoian. Alegia, amatasunarekiko bizi zituzten alde aurretiko tentsio horiek kontuan hartu beharrekoak direla. Gainera, esan digutenagatik, eta lehen ikusi dugunagatik, Ezker Abertzaleko kideek, gizon zein emakume\* azken horien kasuan emakume\* belaunaldi ezberdinen artean bereziki–, ikuskera ezberdina zuten espetxean haurrak ekartzeari dagokionez, arrazoi ezberdinak tarteko<sup>362</sup>.

Baliteke gatazka politiko armatua konponduko zen epemuga atzeratzeak eta genero-ordenan amatasunaren ideologiaren gorakadak ere eragina izatea erabakian. Zernahi gisaz, 90eko emakume\* belaunaldiak aldaketa ekarriko du militantzia eta amatasunaren arteko harremanean.

Gauza batzuk apurtu ditugula begi bistan dago eta praktikan eraiki dugula zerbait berria ere. Hori bai, ez dakit oso teorizatua izan den. Baina ni ama sentitzen naiz eta amatasuna praktikatu dut, nahizta izan gutunez, nahizta izan distantziara. Eta hori asko borrokatu dut, es que azaldu behar izan dut, ze ez zidaten aitortzen, jendeak... Eta hor harreman ezberdinak sortzen ziren. Adibidez emakume migratzaileak hona etortzen direnean, eta uzten dituztenean han semelabak, ba antzeko egoera batean aurkituko dira, son el pilar fundamental de su familia pero no estan en el día a día. Horrek zer? Ez du desagertzen figura hori, nahizta ez egon egunerokoan eta rol batzuk ez bete. Orduan sortzen dira sare berriak eta triangulazio berriak, bai. Baina ez daude teorizatuak. **Irene**

Klandestinitatean eta espetxean ama egiteko hautuak, zeharka, garaiko familia ereduaren mugak aldatzea ekarri du hainbat kasutan. Honetan ere zaintzeko eta hezitzeko konpromisoak emakume\* izena hartu arren, beste eredu ireki, zabal eta anitzagoen erreferentziak sortzea, gizarte kapitalista patriarkaletan nagusiarazten den familia eredia urratzeko ekarpena da beti ere. Besteak beste ama bakarra gainditzen duten familiak, neba-arreba egiten diren lehengusuak, distantzian eraikitako amatasunak, ama diren izeba eta aiton-amonak, izebak diren lagun edo kideak eragin ditu.

#### 12.4.8. Emakume\* militantea generoa antzezten

Ba de todo neska, desde las estrategias femeninas de intervención, de poner un tono más meloso para decir lo mismo que dirías de otra manera, hasta subir tres veces el tono y todo el mundo piensa que siempre tienes el tono tres veces subido y de repente flipan zurekin daudenean pote bat hartzen. Hasta isildu, gero comértela eta gero pasatu. Edo eta gero ez kontrolatu eta galdu konpostura, que explotas y ya está. **Irene**

Ezker Abertzale barruan erabilitako estrategiez galdetuta hori kontatu digu Irenek. Ikusi dugun moduan, indibidualak diruditen hautu, erabaki eta praktika hauek, Ezker Abertzalearen aldetik eta Estatuaren aldetik baimendu eta bultzatzen zen emakume-ereduen berri emateaz gain, emakume\* militanteek horien aurrean nola kokatzen joan diren ere kontatzen digute. Batzuetan

362 Besteak beste, hirugarren pertsonak zaindu behar zituztelako, espetxea ez zelako haurrentzako tokia, espetxe sistemak presoaren aurka erabil zezakeelako “ahuldade” gisa.

oso modu kontzientean eta beste batzuetan ez horrenbeste, baina esleitu lekutik harago kokatzen saiatu dira. Generoa bere lana eta boterea mugatzeko edo bere aurka jotzeko bidea izan zen modu berean, beraiek ere generoa erabiliko dute egoerari aurre egiteko. Dela bakarka, dela beste batzuekin batera, baina generoari lotutako performantzean betiere. Deigarria da Ezker Abertzalean eta Espainiako estatuko funtzionarioekin estrategia antzekoak erabili izana. Marik, guardia zibilen eskuetan zela erabilitako estrategiaz, honakoa diosku:

Como estrategia, ba momentu batean nik entzun nien beraiei esaten “esta no se entera de nada”. Entonces ahí me subí más. Nik jokatu nuen paper hori guztiz. Hasta de pedir ayuda, a ver, ez nion laguntza eskatu guardia zibilari, baina yo creo que le convertí en bueno, ze hasieran era el malo eta bat batean cambio de papel y empezó a ser el bueno conmigo, eta beste batzuk gaiztoak. Yo creo que ellos juegan enseguida a eso, y yo empecé a hacer lo mismo, guztiz. De indefensa, de sumisa, de todo eso. De no me entero de nada, de soy tonta. **Mari**

Behin baino gehiagotan, Ezker Abertzaleko genero-erregimenak eta errepresioako gurutzatu egiten dira, eta bat egiten duten toki hori interesgarria da, ustez emakume\* militante horiek indargabetua egon beharko zukeen testuinguruetan, beraien aurka darabilten izendatzeko era eta identitatea, bere egin eta boteretzeko darabilte, aurreko kapituloan Alba eta etarra izendapenarekin oso argi agertu den moduan.

Baina beste askotan zaila da azterketan labana sartu eta hautu, jarrera eta estrategia bakoitzak izan ditzakeen efektu eta esanahiak modu garbian moztea, anbivalentziak gain hartzen baitigu. Agerikoa da, gure protagonistak leku propioa egin nahirik ibili direla, haiek izan guran, norbere bertsio berriak erditu, eraldatu, indartu eta txikitu dituztela behin eta berriro.

### **12.5. Azken ideiak**

Ikusi dugu emakumeon ibilbide militante eta errepresiboak nagusiki bi genero-erregimenetan garatu dituztela. Bata Ezker Abertzalekoa, eta bestea dispositibo errepresiboetako. Biak garaiko genero-ordenatik gertu zeuden, eta, beraz, haien artean bazeuden konpartitutako elementuak. Hala ere, ezin esan erabat berdinak zirenik; izan ere, batek hertsatzen zuen bitartean, besteak zigortzen eta txikitzen baitzuen. Beste modu batera esanda, emakume\* protagonistek gorpuztu dituzten espazio edo instituzioetako genero-mandatuak ez dira beti bertsuak izan. Ez dute beti norabide berean lan egin, edo bertsuak izan arren, graduak edo eskalak izugarritzko garrantzia izan du.

Ezker Abertzalekoa eta dispositibo errepresiboetako bi genero-erregimen ezberdintzat hartzea hautu analitikoak izan da funtsean. Hautu horrek arriskuak ditu. Besteak beste, gehiegizko zurruntasunez aritzea ekar dezake, eta jakin badakit ez dela erraza erregimen baten eta bestearen arteko marra argia ezartzea. Baina kasu honetan, baliagarria suertatu izan da, alde batetik, emakume\* horiek bizi izan dituzten testuinguru ezberdinak hobeto ezagutzeko eta bereizteko, eta, bestetik, testuinguruotan leku propioa hartzeko praktikan jarri dituzten modu anizkoitzak agerian uzteko. Osotasunari begiratu eta homogeneizatzeetik aldentzeko beharrak eraman nau hautu horretara.

### III. ATALA: Azken atala







# ONDORIOAK

Doktore tesi honen hasieran aipatu dudanez, hemen egiten dudan analisiak aztergai dugun emakumeen\* ibilbidearen ordena kronologikoari jarraitu dio, modu horretan 90eko hamarkadako Ezker Abertzaleko militante bati ezartzen zitzaion denbora lerroa eginez geuk ere. Atalez atal, askotariko gaiak jorratu ditut. Sozializazio eta parte hartze sozio-politikoarekin, subjektibitate eta kultura politikoarekin hasi gara. Ondoren, torturaren esperientzia eta irekita darraiten zaurietatik, bertako *biolentzia politiko sexuala* eta torturaren memoria feminista egiteko saiakera eta zailtasunak aztertu ditut. Jarraian, espetxe politikoa biolentzia eta deshumanizazioak ezaugarritu zuela ezagutu dugu; baita emakumeek\* hori bizitzeko moduak ere, nola erresistentzia eta frikzio artean, birhumanizatzeari ekin zioten bizitzaren aldeko apostu integrala eginez. Amaitzeko, bidai horretan errepresioaren eta militantziako genero erregimenak berdinak ez zirela ikusi dugu; Ezker Abertzaleak gure protagonistak hertsatu egiten zituen bitartean, errepresioak zigortu. Hala ere, genero erregimen artean biziraunez, tarteka horiek berreginez, eta tarteka horiek irauliz, aurrera egin zuten. Gaur egun, bide horiei kritikoki begira eta mina eraldatu guran ari dira, haien artean elkar lagunduz, formalak ez diren elkar laguntza sareen bidez. Zentzu horretan, zabalik dagoen prozesua den heinean, Mugimendu Feministaren arreta eta interpretazio markoak, administrazio publikoaren baliabideak eta unibertsitateko azterketak zeharo lagungarriak izan daitezkeela agerian geratu da.

Ibilbide horretako atal edo geltoki bakoitzean azken ideia edo ondorio modukoak gehitu ditut. Alde batetik, landutakoa gogoratzeko eta haria ez galtzeko. Doktore tesi honek askotariko arloak lantzen dituela dakidanez gero, horietako bakoitzean zer agertu den edo zer iradoki didan agertu dut. Bestaldetik, ondorioen atal honetan, geltoki bakoitzean ikusi duguna gogora ekartzearekin batera, bidaia osoaren ikuspegitik aritu ahal izateko. Atal ezberdinetan ikusi duguna harremanetan ipini eta elkarreraginei erreparatu ahal izateko, azken batean. Esate baterako, kultura politikoa tortura eta espetxearekin harremanetan ipintzeko, edo memoriaren sorkuntza prozesua genero erregimen eta sistemarekin. Horrekin batera, ikerketa honetako mugak eta agertu diren ikergai berriak, edo nire ustez sakontzea merezi duten ardatzak azpimarratuko ditut. Hori guztia 10 puntutan laburbildu dut.

## 1. Generoak euskal gatazkan eragin du eta euskal gatazkan generoan

Lan honetan, gutxienez ikusezintasun bikoitza (euskal gizartearena eta Ezker Abertzalearena) pairatzen duten emakume\* multzoetako bati leku eginez, 90eko hamarkadan

Ezker Abertzalean parte hartzen hasi ziren emakume\* batzuen genero-esperientziak aztertu ditut. Azterketa horrek generoak euskal gatazkan eta euskal gatazkak genero-harremanetan izandako eragina ezagutzera egin du posible. Euskal gatazka Ezker Abertzaletik bizi izan duten emakumeen militantziak eta errepresioaren genero-esperientziek zera adierazten digute: batetik, eragin garrantzitsua izan duela generoak euskal gatazkan (torturaren praktikan adibidez), eta, bestetik, baita gatazkak genero-harremanak gorpuzteko orduan ere (gatazkak indartu duen eredu militantean esaterako). Horrela antzematen da bederen emakume\* hauen biografietako poz eta zaurietan. Gainera, genero-harremanek maila mikro eta mesoa gurutzatu duten heinean, makroan eragina izan dutela pentsatzekoa da. Horrek ikerketa honen helburua eta gaitasuna gainditzen ditu, noski, baina etorkizuneko ikerketen premia erakusten du.

Horrez gain, 90eko hamarkadako eta egungo agentziari eta irakurketei leku egiteko ere balio izan du. Preseski, ikerlan honek euskal gatazkan ere genero-harremanek esku hartu dutela ikusaraztea, naturalizat jotzen dena problematizatzea eta botere-harremanez ari garela agertzea egin du posible. Horiek guztiak partaidetza eta errepresio politikoaren inguruko memoria androzentrikoa xahutzeko urratsak dira. Amaieran, norabide horretan jarraitzeko, zenbait ikerketa ildo azpimarratuko ditut.

## **2. Aldaketarako eta jarraipenerako sozializazioak ezbaian**

Del Valleren arabera (1993) sozializazioa sozialki eta kulturalki existitzeko moduaren ikaskuntza denez, bizitza osoa hartzen duen prozesua da. Horrenbestez, autore gipuzkoarrarentzat, sozializazioaren ikuskera hau aldarrikatzea beharrezkoa da emakumeen eta emakumeok eraldaketarekin dugun harremanaren mesedetan. Horrek esan nahi du, generoari dagokionez, ume edo gaztetan genero sozializazio zehatza jaso eta eraiki arren, bizitzako beste esperientziek sozializazio berriak ekar ditzaketela. Sozializazio berri horiek, boteretzeko ikaskuntzak eta praktikak biltzen dituzten heinean, eraldaketa bultzatuko dute. Zehazki, Del Vallek (2001) emakume-taldeetako partaidetzak (bere aniztasunean) honako ikaskuntzak dakarziela diosku: lehentasunezkoa den rola alde batera uztea (ama, emazteaz harago) eta rol berriak garatzea; hautu sexualen aldaketa; autoezagutzan aurrera egitea (intelektualki, sormen aldetik eta abar); jardun-eremuen zabaltzea (ibilbideak, hiriak eta abar); etxeko lanen berrantolaketa; irudiaren aldaketa; eta oro har, lehen egiten ez zituzten-genituen gauzak egitea. Kasu honetan militantzia-antolakuntza misto batean izan arren, eta emakume-taldeen ezaugarrietatik urrun egon daitekeen antolaketa izan arren, lekukotzak adituta partaidetza politikoak eta osteko errepresioak ikaskuntza horiek guztiak (Del Vallek aipatutakoak) eragin dizkie.

Are gehiago, nago haien esperientzian *aldaketarako sozializazioak* eta *jarraipenerako sozializazioak* (Diez Mintegi, 1992) bizi izan dituztela. Emakume protagonistek gorpuztu dituzten espazio edo instituzioetako genero-mandatuak ez dira beti bertsuak izan. Ez dute beti

norabide berean lan egin, edo bertsuak izan arren, graduak edo eskalak izugarrizko garrantzia izan du. Praktika militantea mugatzen zuen genero-erregimena egonik ere, emakumeontzat\* Ezker Abertzaleko engaiamendu politikoa genero-sozializazio berri gisa ulertzeko zantzuak egon badaudela erakutsi dut. Are gehiago, aldaketarako sozializazioa izan zela baieztatu dudalakoan nago. Bestalde, errepresioaren esperientziak eragindako sozializazioaz ulertuko da jarraitutasunerako sozializazioak direla (Diez Mintegi, 1992), ordura arteko kokapenean finkatu eta hori indartzera bideratuta dauden esperientziak direlako. Torturak ama-emazte rolari egindako ukoa zigortzeak ama-emazte rola indartzeko helburua du, eta espetxea ere generoa parametro tradizionaletan berregiteko egitura da (Almeda, 2002; De Miguel, 2014; Ruiz, 2016b). Zentzu horretan, estatu españolean diktadura ostean genero-ordenari begira jasotako aldaketak.

### 3. Identitate nazionala eta antolaketa politikoa, boteretze feministak hauspotuz

Ikerketa honetako ibilbideko gidari Ezker Abertzaleko emakume\* militante errepresaliatuak izan dira. Emakumeak eta kontzientzia feminista desberdinetakoak. Euskal herritarrak, ez denak euskaldunak baina bai independentistak eta abertzaleak. Langile klasekoak gehientsuenak, baina klase kontzientzia diferenteetakoak. Horiek izan ditugu bide-erakusleak.

Zapalkuntza sistema anizkoitzeko ardatzak gutxienean hiru eremuetan katramilatzen zitzaizkien gure protagonistei, euskal herritar euskaldunak<sup>362</sup>, emakumeak eta langileak<sup>363</sup>. Proiektu politiko anizkoitza besarkatuz, borroken interseksionalitatean saiatu zen mugimenduko kide egin ziren<sup>364</sup>; eta bide horretan identitate ardatz ezberdinen batura eta konbinazioetan mugituz aritu dira. Beti ez dutelako indar berbera, ezta atxikimendu maila berbera hartu, identitate feministak, sozialistak edo independentistak.

Bada, estatuko tresna errepresiboei dagokionez ere, ardatz guztiek ez dute beti pisu berdina izan, konbinazio ezberdinak ezagutu ditugu. Esate baterako, torturaren esperientzian, poliziek

362 Kontutan izan behar dugu identitate nazionala eta hizkuntza, biak zapalkuntza edo diskriminazio iturri bilakatu daitezkeela. Horregatik ere, zapalkuntza ardatzak aipatzean “gutxienez” hitza erabiliz ñabardura horiei eta gehiagoei leku egin nahi diet.

363 Langileak aipatzean, haien klase sozialaz gain, haien ideologiari ere erreferentzia egiten ari naiz, langile klasearen interesen aldeko proiektu politikoa defendatzen zutelako. Rodo-Zarateren ustez (2021:51) ”Ideologia posizionamendu politiko gisa, alderdi edo mugimendu zehatz batekiko pertenezia gisa ulertuta, diskriminazio iturri izan daiteke hegemonikoa ez denean. Gainera batzuetan estetika bati lottuta doanean, posizionamendu politiko hori esplizitua izatea eragiten du” ulertuta.

364 80ko hamarkadan (1981an Angela Davisek *women, race and class* liburuaren erreferentziapean) eta gerora 2000ko Ezker Abertzaleko prozesu feministan (jada 1989an Kimberlee Crenshawek mugimendu antirazista eta mugimendu feminista kritikatu, kontzeptua mahaigaineratu ostean) zapalkuntza hirukoitza hausnartu eta praktikatu saiatu ziren Ezker Abertzaleko feministak, emakume euskaldun langileen egoera zehatza aztertuz. Ezker Abertzaleak borrokak elkar-harremanetan ulertzeko zeukan joera indartuz eta Bell Hooks-ek (1984) esan bezala, ardatz baten aurka borrokatzeak besteen aurkako borroka elikatzen zuelakoan horrela ekinez. Beste gauza bat da, Ezker Abertzaleak horretan asmatu zuen ala ez, borroken arteko iherarkizazioa eragin zuen, edo ardatz bat gutxietsi zuen baieztatzea ikerketa honen helburuak gairatzen ditu. Interseksionalitatearen ulerkera ezberdinak, eta borroken interseksionalitatea eta zapalkuntzen interseksionalitateaz zein horiek identitatearekin duten harremanaz sakontzeko ikus: Maria Rodo-Zarate (2021) *Interseccionalidad*. Bellaterra.

genero ardatza politikoaren gainetik ezarri guran aritu ziren, emakume\* militanteen identitate politikoak gutxietsiz, baina funtsean identitate politiko txikitzeko, biolentzia politiko sexualari leku eginez.

Espetxe egoeran, berriz, emakume\* preso horien identitate politiko izan zen haien bizi-baldintzen nondik norakoaren ardatz; izan ere, isolamendu fisikoa eta politikoa inposatu zieten, gizonaezkoekin egin zuten bezala.

Horrek ez du esan nahi generoak ez zuenik eraginik izan haien kartzelaldian. Emakume\* talde hori, gizonak bezala, bahitu politiko gisa erabili zituzten, hau da, gobernuak euskal gatazkan eragiteko erabili zituen, eta horren arabera bizi erregimen bat ala beste ezarri zitzairen, eskubide batzuk aitortu ala ez. Bizi-modu hertsu baten barruan ireki(g)uneak eta itxiera(g)uneak ezarri. Generoak, kasu horretan, intentsifikatzaile gisa funtzionatu zuen, bi egoeretan. Itxiera uneetan isolamendu fisiko eta politikoa handiagoa posible egin zuen, eta irekiera guneeetan, irekiera leuntzea. Baina horrekin batera, irekiera (g)uneetan, beste gainontzeko emakume\* presoei ezartzen zitzairen espetxe diskriminatzailea bizi izan dute; emakume\* izateagatik baldintza kaxkarragoak pairatuz eta generoa bere bertsiorik menekoenean berreginez.

Horrekin batera, emakume\* multzo honen esperientzia aztertzeko funtsezkoa da haien espetxe barruko engaiamendu eta antolaketari erreparatzea. Izan ere, EPPKko kide egin ziren heinean, aro hartan kolektibo hark espetxeari aurre egiteko eta haien buruak politikoki eta gutxieneko duintasun ardatzen arabera berregiteko zerabilen estrategiak espetxe sistemak presoak diziplinatzeko eta mendean hartzeko dituen bi bitartekoetatik kanpo egotea ekarri zuen: enplegua eta graduen sailkapenean oinarritzen den sistema progresiboan sartzeari muzin egin ziotelako. Eta horrek genero ikuspegitik ere abantailak ekarri zituzkien EPPKko emakumeei. Azken finean, emakumezkoak subjektzio egoeran mantentzeko bitarteko ere badiren horietatik kanpo egotea ekarri zuelako. Hori dela eta, erresistentzia betean eta frikzioak eraginez aritu dira espetxe erakundeak generoa berregiteko dituen tresnekiko ere. Hortaz, frankismoko espetxe politikoak bezala zigortzea, makurtzea eta damutzea, eta genero ikuspegitik zuzentzea bilatzen zuen espetxe politikaren azken helburu hori kamuts utzi zuen antolaketak politikokoak eta desobedientzia ildoak. Beraz, preso politiko izatea eta EPPK antolatuta egoteak, generoa berregiteko helburuz espetxeari darion zirimirirako aterkia izan da, tarteka bederen.

Baina hori ez zen izan EPPKak zuzenean edo berariaz bilatutako helburu bat. Azken batean, ikusi dugunagatik aztergai diren urteetan, EPPKak ez zuen genero ikuspegitik jardun, eta are gutxiago ikuspegi feministatik (nahiz eta ordezkari parekidea izan eta martxoak 8ko eta azaroaren 25eko ekimenekin bat egin). EPPK antolatuta egoteak espetxearen genero karga modu ezberdinean pairatzeko sortu zuen efektuak interseksionalitatearekin lotura izan dezakeela hipotesi fidagarriagoa izan daiteke. Zapalkuntzen interseksioa, identitateen interseksioa eta borrokaren interseksioaren arteko harremanaren ondorio edo emaitza bezala ulertzen dut, hasiera batean aipatu dudana moduan.

#### 4. Ahalduntze anbibalentea emaitza gisa

Genero-erregimenak identifikatu eta deskribatzeaz gain, ikusi dugu ikerketako protagonistak militantzia- zein errepresio-testuinguruetan agente aktiboak izan direla. Haien egoera, baliabide eta aukeren arabera, eta horietan eraginez, ahultasuna omen zena botere bilakatu dute, generoa performatu dute, edota praktika ezberdinak negoziatu dituzte. Agentzia horrek eragin du azken kapituluan dantza bezala izendatu dudan hori. Dantza horretako mugimenduak askotarikoak eta aldi berekoak izan dira. Une batzuetan genero-erregimenak berregin dituzte, beste batzuetan erantzun, eta beste batzuetan desplazatu. Betiereko erresistentziaren idealizaziotik aldendu egin dira, eta agerian utzi dituzte sortutako etenak eta eraikitako erreferentziak. Hain zuzen ere, *ahalduntze anbibalentetzat* (Rajasingham-Senanayaken, 2001) jo dezakegu azaldutakoa. Izan ere, Nash-ek (1999) Estatu espanyoleko emakume\* errepublikanoekin ondorioztatu zuen moduan, aldaketa- eta jarraitutasun-dinamika bikoitza aldi berean gerta daiteke. Alde batetik, alde aurretik aldaketarako izandako ikaspen historikoez eragina dute emakumeek borrokan izandako protagonismoan, parte-hartzean eta erantzun kolektiboetan, eta eraldaketa hauspotzen du. Bestetik, gizarteko genero-adostasun tradizionalari jarraipena ematen dieten hautuekin batera gertatzen dira eraldaketak. Azken finean, biktima/heroia edo boteretsua/sumisoa moduko begirada bitarrak gainditzea beharrezkoa dela erakusten digute nire ustez.

Horri guztiari behatuz gero ohartzen gara konplexutasuna handia izateaz gain, nire emaitzek bat egiten dutela orain arteko azterketa apurrekin. Ikerketek azaleratutakoak ez datoz bat prentsaren, literaturaren eta bestelako diskurtsoen bidez eraikitako iruditegi sozialarekin. Alegia, egungo genero-ideologiak sortutako iruditegiak ezeztatzen ditu, zeinahi dela ere agentziadun emakumea subjektu politiko gisa ukatzeko erabilitako bertsioa: puta, nobia, txolina, biktima, terrorista gupidagabea, gizonen mendeko militantea.

#### 5. Kultura politikoa askabide bezain gordin.

Ezker Abertzaleak bere militantzia eredua, 90eko hamarraldiak mundu mailan eta Euskal Herrian ekarritako aldaketei egokitzeko saiakera egin bazuen ere, euskal gatazka armatuak bere inertzia propioak eragiten zituen, eta horrek, erabateko entregan oinarritutako militantzia eredu bakarra gailentzea ekarri zuen. Horrek erakusten digu, praktika eta joera asko, gatazkaren dinamikak eragindakoak direla; aurrez-aurre dauden bi subjektuek elkarrekiko eraikitzen dituzten irudi eta diskurtsoak, eta elkarrekikotasun horrek, agentzia propioa duela eta, kultura ere ekoizten duela. Modu batera edo bestera, ikerketa honetako emakumeak oso kritiko agertu dira horrekin. Eta erreferentziazko militante eredu horretara gerturatzea zailagoa izan zen haientzat eta, batez ere, zauri handiagoak eragin zizkien

Bestalde, polizia etxeetako eta espetxe politikaren ardatzak biolentzia eta deshumanizazioa izan ziren. Atxilo politikoak eta preso politikoak, agentzia handidun aktoreak izanik, are modu

garbiagoan erraztu dute tortura eta espetxe politikaren funtsa hautematea. Prozesu horiek bizi ostean eta bizi bitartean, haien arteko elkartasunari atxikitu eta haien bizitza eta borrokaren zentzuari lotuz iraun dute. Ukazioak, berretsi egin ditu egunero-egunero, eta; haien arteko antolaketa *etxe* bilakatu zaie, Bell Hook-ek beltzak eta arrazismoarekin proposatu bezala. Beraz, espetxe politikoa, espetxe militantea bilakatu zaie halaberrez. Eta haien kultura politikoko balio-sistema eta irizpideak bizirauteko bide egin zaie, horietan sendotu dira eta horiek sendotu dituzte.

Azken batean, haien arteko harreman eta proiektu politikoa elikatzeko lanak, Samayoak (1987) proposatu bezala, birhumanizazio prozesutzat jo ditzakegu, eta horrek eragin du itxaropenaren sua piztuta mantentzea. Humanitatearen aldeko borroka, ekintza politiko bihurtuz bere horretan. Birhumanizazio lan horiek, ezarri zitzairen erregimen deshumanizatzailea gainditzeko baliagarriak izan ziren, baina baita, haien jardun politiko eta armatuak eragindako deshumanizazioak lantzeko ere. Gutxi hitz egin badute ere, ez baitute ukatu, borroka molde bortitzek haiengan eragindako mina.

## 6. Biktimizazio prozesuen aurka ekiten

Ikusi dugu biktimizazio prozesuen aurka ari direla, gutxienez, modu hirukoitzean ari dira: gaur egungo giza eskubideen urraketan aurka daudelako, iraganean mindutako subjektu gisa dituzten eskubideen alde ari direlako, eta identitate bihurtutako biktima lekuan sartzeari uko egiten ari direlako.

Giza eskubide ugari urratu dizkiete, kasu askotan modu errepikatuan eta jarraituan, seigarren eta hamargarren kapituloen artean ikusi dugun moduan; dela espetxean, dela polizia etxeetan dela epaitegietan. Are larriagoa dena, gaur egun ere, berbiktimizazio prozesuak bizitzen ari dira, eta gehienetan isiltasunean eta gizarteak ikusi gabe gertatzen dira. Alta, biolentatutako pertsona gisa, minduak izan diren subjektutzat dute haien burua, baina biktima kategorian ez daude eroso. Katetoria horren jozkurak hiru lekuetatik apurtzen ari dira. Lehenak, haien burua giza eskubideen objektutzat ikusteko dituzten zailtasunekin du harremana. Bigarrenak, genero ikuspegitik biktima kontzeptua eraiki den moduarekin, eta hirugarrenak euskal gatazkan biktima eraiki den moduarekin.

Deshumanizatutako eta gizartearen etsai bilakatutako subjektu bezala, giza eskubideak dituztenen kategoriatik kanporatuak izan zirela eta direla sentitzen dute. Biktima hitza, haientzat beharrez, ETA zein Ezker Abertzalearen jardueraren ondorioz biktimizatuak izan diren pertsonentzat -eta haien senideentzat – dela dakusate. Katetoria hori, pasibotasunarekin hasi eta mendekuraino doazen errepresentazioek bete dute; bai eta emakumeek egin ere. Gure protagonistek, ez dute haien burua leku horretan ikusten; gatazkan subjektu aktibo izan zirela ez dutelako ukatzen, nekez bada ere genero erregimen ezberdinen aurka eginez haien partaidetza gauzatzea lortu baitzuten eta horrela aldarrikatu nahi dute, baina ezin dute. Halaber, ez dute mendekua bilatzen,

haien minetik urrundu eta estatuaren biolentzia politikoa posible egin zuen egituraketa desegitea da aldarrikatzen ari direna. Horrekin guztiarekin batera, giza eskubideen paradigman beharrean, iraultzaren paradigman hasi eta hezi diren heinean, zailtasunak dituzte berkokatzeko, nahiz eta gaur egun bete dezaketen edo eskaintzen zaien leku bakarra hori dela jakin.

Beraz, biktimizatutako subjektuaren lekua erabat ukatu gabe bada ere, haien agentzia eta izaera militante eta politikoa baztertu gabe aritu nahi dute. Preseski Diana Gomez Correalek (2022:186) adierazi bezala, biktimarenganako begirada esentzialista zabaldu da, errugabeak, apolitikoak, haien minean gotortuak eta mendeku gose direnak. Autoreak berriz, agentzia duten subjektu gisa aldarrikatu nahi ditu biktimak. Eta hori da lan honetan ikusi duguna.

## **7. Espetxea feministago egiteko eta egoteko (g)une**

Militantziako ibilbidea kontzientzia feminista oso desberdinekin hasi zuten, eta gehiengoa ez zen Ezker Abertzalearen borrokara lotu esplizituki herri feminista erditzeko. Hala ere, euskal nazioaren askapena eta bere borroka, generoen arteko botere harremanak eraldatzeko biderik egokientzat zuten. Partaidetza politikoa eta armatu horretan, beste gizarteko edozein instituzio formal eta ez formaletan bezala, boterea, lan banaketa eta emozio egitura aintzat hartuta, emakumeak bigarren mailako herritar bilakatzen zituen egituretan aritu ziren borrokan, horiek ere borrokatuz. Esperientzia horrek zein espetxe egoerako baldintzek feminismora gehiago gerturatu eta modu sakonagoan eusteko aukera eskaini die, edo hobe esanda, aukera bilakatu dute. Kartzela atzera begiratzeko eta hausnarketa kritikorako (g)une bilakatu zitzaizkien, emakume\* kideen arteko trukeak eta irakurketak lagun, zein preso sozialen bizi historiak tarteko. Baita lehen pertsonan bizitako genero zauriei so ere. Kide gizonetik, haien mugimendu politikoarekiko edo haien komunitate sozio-kulturalarekiko, genero parametroetan mina, frustrazioa eta desidealizazioa eragin zieten egoerak bizi izan zituzten eta. Azken batean, euskal gizarteko genero ordenean, emakume izatea oso lotuta zegoen-dago amatasunari, ahaideen zaintza lanei eta bikote heterosexualeen produkzio eta sostenguari. Eta justu hiru ardatz indartsu horiei lotuta bizitakoek genero gatazka eta zauriak ekarri dizkie. Etorkezunean, oso interesgarria izan daiteke feminista bilakatzeko prozesu horiek modu sakonagoan aztertzea. Lan honetan, espetxea begirada kritiko hori zorrozteko abagune izan zela baieztatzeke zantzuak daudela ikusi baitugu.

## **8. Zentzu eta esanahi feministen bila**

Ikerketa eta ikerketa-objektua bizirik eta mugimenduan daudela aipatu dut tesi honen hasieran. Horrek esan nahi du, besteak beste, ikerketa egiteko unean emakume partaideek zeuzkaten baldintza eta desioetatik eraiki dutela kontakizuna eta memoria. Zentzu horretan, uneko argazki bat baino ez da ikerlan hau, publikatu aurretik zahar geratu daitekeena, eta, hala ere, garrantzia galtzen ez duena. Azken batean, irekita egoteak lanean jarraitzeke aukera eskaintzen du; esanahi eta

begirada berriak eraikitzen eta bilatzen segitzeko. Are gehiago, aztertutako emakume\* multzo edo komunitatea haien bizipena hobeto eta modu sakonagoan ulertzeko saiakeran eta mina eraldatzeko gurarian sartuta daudela ikusi ostean. Bide horretan, teoria eta praktika feministak oso baliagarriak izan daitezke, adibide gisa, seigarren eta zazpigarren kapituluetan, eta torturari lotuta, ikusi dugun moduan. Hala ere, badirudi gaur egun feminismoa ez dagoela erabat asmatzen emakume\* horien bizipenei erantzunak emateko orduan, edo sortzen ari diren hurbilpen feministekin ez datoz guztiz bat.

Beste modu batera esanda, nabarmena da haien esperientzia kokatzeko leku propioaren eta esperientzia hori lantzeko interpretazio-markoaren bila ari direla, baita genero-sistemari dagokionez ere. Bizipenen lanketa feminista eta aldaketarako sozializazioak mamituko badira, ikerketa akademiko zein ez-akademikoen bitartez, Euskal Herriko feministek osatzen duten mugimenduak norabide horretan egin dezakeen ekarpena begi-bistan geratu da.

## **9. Ibilbide horiek aztertzeke funtsezko begiradak**

Hori dela eta, ikertutako emakumeen ibilbideak eta ekarpenak hobeto ulertzeko honako bi begiradak dira funtsezkoak: begirada interseksionala eta barruko begirada. Lehena garrantzitsua da nazio, genero eta ideologiazko subjektu-eraikuntzak ez direlako guztiz ulertuko bidegurutzeari erreparatu gabe. Ez dira ulertuko haien kontrako ibilbide errepresiboen zioak, ezta parte-hartze politikoaren asetasunaren eta pozaren zergatiak ere. Alegia, genero-ardatzaren arabera emakumeak gatazka garaian zein bake-garaian biolentatuak izan arren, biolentzia politikoa eragiten duten beste faktoreak ere kontuan hartu behar dira emakumeon bizipenak ulertzeko. Eta horrek ekarriko du emakumeak ikusezin ez bilakatzea.

Esate baterako, neurri errepresibo horiek ez zaizkio edozein euskal emakumeri aplikatu, proiektu politiko jakin batekoei baizik. Beste horrenbeste gertatzen da Ezker Abertzaleko emakumeen hautu eta errealizazioak ulertzeari dagokionez. Hau da, haien mugimenduan subordinazio-egoeran egon arren, makina bat asetasun-, botere- eta askatasun-sentipenen berri eman digute. Horiek ulertzeko beste dominazio ardatzei ez erreparatzeak ulertezin bihur ditzake emakume\* gisa egindako zenbait hautu. Ondorioz, begirada feministatik bada ere, emakume\* horien agentzia ukatzen egon gaitezke oharkabean, beraz gizon matxisten menpeko militante gajo gisa agertzeko joerarekin erne ibili behar dugula deritzot.

Bigarrenak zerikusia du barruko begiradak dakarren pribilegio epistemikoarekin. Zera proposatzen dut: ikerketa kanpo-begiradaz egiten denean, emakume\* horien ahots kolektiboari arreta eta aitortza gehiago eskaintzea, edo ikerlariaren kokapena esplizitatzea, Nicolas Buckley bere ETAREN inguruko lanean (2020) egin zuen bezala. Autorea Madrildarra da, español bezala eta ETAREKIKO herran sozializatu zuten, eta egun ere ez da Euskal Herrian bizi. Bada, hori guztia problematizatu zuen eta bere kanpo begirada arrotzetik aritzea zer zen erakutsi zigun.



## 10. Ikerketaren mugak eta ikerketa berrientzako ateak

Ugariak izan dira ikerlan honetan iradoki ditudan etorkizuneko ikergaiak eta sakondu beharreko eremuak. Nago hori dela lan honen ekarpenetako bat, gaur egun gaian lanean ari direnei (oraindik gutxi izan arren eta nahi baino beranduago aritu arren, bagabiltza eta baliteke piskanaka osotuz doan lerro bilakatzea), eta etorriko direnei aurrekariak eskaintzea; dela haien aurkikuntzak sostengatzeko, dela nireak eztabaidatzeko. Garrantzitsuena, ezagutza sortzen hastea eta eztabaida zientifikoa ertz ezberdinetatik arituz egitea baita, ikuspuntu, gai, protagonista eta metodologia zabalduz.

Hala ere, hurrengo lerroetara, ez ditut denak ekarriko, soilik nire ustez baldintza hauek betetzen dituztenak: a) euskal ikuspegitik beste joanez, interes zientifiko orokorra eta beste herrialde zein prozesuetarako baliagarriak suerta daitezkeenak. b) irekita dauden eztabaidagogoeta akademikoak elikatzeko aukera eskaintzen dutenak.

### a. Errepresioaren minetik haien buruak berregiteko prozesuak

Zein da, emakume\* errepresaliatuen zauriaren mina? Min hori hobeto ezagutzea, zein mina eraldatzeko eta erreparaziorako ematen ari diren urrats autogestionatuak modu sakonagoan aztertzea proposatzen dut. Mina zein den eta nolakoa den ez baitugu bere osotasunean ezagutzen, singularra ala plurala den, zein den haren ehundura, usaina eta, batez ere, eginarazten dituen ibilbideak. Zer da oinazeak eginarazi duena eta eginarazten ari dena, zeintzuk dira mina sentitzeko eta agertzeko moduak. Minek zein ekintza pizten dituzte eta zeintzuk itzaltzen. Non eta nola ari dira mina eraldatzeko lanetan.

Zentzu horretan, ikerketa honetan agertu diren lerro batzuk jarraitu daitezke: errepresaliatutako pertsonetikiko babes eta aitortza herritarren forma, garrantzia eta ondorioak (nik sinisten dizut isilak), familiaren-lagunen-enpleguaren-bikoteen eremuan bizipen horietaz egun dagoen isiltasuna apurtzen ari den ala ez aztertzea ( eta prozesu hori nola gertatzen ari den). Alegia, eguneroko bizimoduarekin eta maila mikroarekin zerikusia duten, eta ikusgarriak gertatzen ari ez diren prozesu horiek aztertzea.

### b. Ekarpen feministak: errepresioa eta ahaidetasunak

Engaiamendu politikoak eta errepresioak muturreko bizipenetara eramanez, eta testuinguru aldaketak, haien harremanen sarea eta harremanetan sartzeko moduak aldatu dituela ikusi dugu. Kidetasuna, laguntasuna, amatasunak ulertu eta batez ere praktikatzeko askotariko erak zabalduz. Ikuspegi feministatik, ahaidetasuna ulertzeko modu feministago batetara hurbildu daitezkeen esperientziak, eta bertako kontraesan, poz eta oztopoak aztertzea interesgarria izan daiteke. Ikerketa honetan, nahiz eta horretan ezin sakondu horretarako zantzuak daudela agerian geratu da: bi eta hiru amadun haurrak, urruntasunean eraikitako

amatasunak, errepresioak eta konpromezu politikoak eten-aktibatu-aldatu-ireki dituen bikote harremanak, ahaide bilakatu diren lagunak (Dañobeitia, 2019)

**c. Sare informalak partaidetza eta ekintza sozio-politiko kolektibo gisa.**

Euskal gatazka armatuan, konpromiso handiz aritu diren pertsonen artean, are gehiago horregatik errepresaliatuak izan badira, komunitate emozionala osatzen dutela antzeman dugu. Frankismoko emakume\* errepresaliatuak deserri politikora iltzatuarazi zituzten, eta haien arteko hartu-emanak, oinarrizko bizi-baldintza duinak bermatzeko zaintza eta elkartasunak ezaugarritu zituen. Zer gertatzen ari da, gaur egungo emakume\* errepresaliatu politikoekin? Haien arteko harremanak eta trukeak, dimentsio politikoa hartzen duela ikusi dugu, akaso une batzuetan egitura politikoak baino eraginkorragoak bilakatu daitezkeela esatea hipotesi sendoa ere bilakatu daiteke Partaidetza sozio-politikoaren eta ekintza kolektiboaren ulermena zabaltzen jarraitzeko eta irakurketa feministan sakontzeko, egungo prozesu horiek aztertzeari interesgarria deritzot, eta horretan ari diren ikerlari feministen ekarpena aberastu dezake, eremu hurbilenean Jone Martinezen (2015, 2016) eta Marina Sagastizabalen (2017, 2019) lana eta ekarpenari jarraituz.

**d. Testimonio osoagotarako behar diren baldintzak aztertu:**

Tortura-esperientzia kontatzeak ertz askorekin lotura duela ikusi dugu. Non, zertarako, nori, norekin eta nola kontatu horrek, zer kontatzen denarekin erlazioan dagoela nabarmena da. Torturaren aurreko kokapenak, entzuteko baldintzekin lotura duen bezala. Hori dela eta, testigantza edukia zabaltzeko eta entzuteko baldintzetan eragiteko (bi horiek harremanetan daudela ahaztu gabe), beharrezko baldintzak aztertzeak garrantzia pertsonal, politiko, sozial eta kultural handikoa izan daiteke. Hau da, testimonioaren ekintza berregite indibidual eta kolektiborako tresna eraginkor nola bihurtu horretan sakontzea proposatzen dut.

**e. Biolentzia politiko sexuala posible egin zuten baldintzak eta horien egungo egoeran aztertu, zehazki jarraipen eta hausturak.**

Esate baterako, zein beste prozesuekin lotu daitezken begiratu, eta modu horretan torturaren definizioaren eztabaida akademikoari ekarpena egin. Mendiolak dioen moduan (2020), zaila bezain beharrezkoa baita berau kontzeptualizatzea.

**f. Espetxeko feminista egiteko prozesuak sakonago aztertu.**

Ikusi dugu, kartzelak feminismoarako bidea hauspotu diela. Prozesu horien nolakotasunean eta ondorioetan sakontzea interesgarria izan daiteke. Alde batetik, hauspotze horren faktoreak zeintzuk dira eta nola elkar-eragin dute hobeto ezagutzeko: Euskal Herrian eta haien mugimendu politikoan feminismoak hartutako ikusgarritasuna, espetxeko baldintza

diskriminatzaileak, emakumeen arteko unibertsoan bizitzea, gogoetarako denbora-lekua izateak (bakardade egoeran introspektorako gela propioetan murgilduta egon izanagatik). Bestetik, horren ondorioak, adibidez feminismoa babes-leku bilakatzea beste identitate eta krisi batzuen erdian. Azken batean, ikusi dugunagatik ezker abertzaleko emakumeen jardun feministan eragin duten ardatzak asko izan dira: gatazka politiko armatuaren fasea, Euskal Herriko Mugimendu feministaren egoera eta ildoak, zein barne mailako indar koerlazioak adibidez.



## Bibliografía

- Abad, Irene; Heredia, Ivan eta Marías, Sescun (2012). Castigos de género y violencia política en la España de Posguerra. Hacia un concepto de Represión sexuada sobre las mujeres republicanas. In Alejandra Ibarra (koord). *No es país para jóvenes* (1-18. or.). UPV/EHU; Valentín de Foronda Gizarte Historia Institutua.
- Aboitiz, Uzuri (2022). *Prosperidad y desencanto: Luchas por una vida digna y un futuro mejor en una ciudad desindustrializada del País Vasco. El caso de Errenteria* [Doktorego tesia]. Universidad de Barcelona.
- Abu-Lughod, Lila (1990a). The romance of resistance: Tracing transformations of power through Bedouin women. *American ethnologist*, 17(1), 41-55.
- \_\_\_\_\_, (1990b). Can there be a feminist ethnography?. *Women and performance: a journal of feminist theory*, 5(1), 7-27. <https://doi.org/10.1080/07407709008571138>
- Adelantado, Jose. (1993). De la resocialización a la nueva custodia: Teoría y práctica del tratamiento en Cataluña. *Anuario de derecho penal y ciencias penales*, 46(1), 199-222.
- Agirre, Joxean; Asensio, Paul; Bustillo, Joxerra; Egaña, Iñaki eta Zubimendi, Mikel (2014). *La guerra no declarada. Terrorismo de estado en Euskal Herria*. Euskal Memoria Fundazioa
- Aguado, Ana (2013). La cárcel como espacio de resistencia y de supervivencia antifranquista. In Mary Nash (ed.). *Represión, resistencias, memoria: Las mujeres bajo la dictadura franquista* (37-52. or.). Comares.
- Aguado, Ana eta Verdugo, Vicenta (2011). Las cárceles franquistas de mujeres en Valencia: castigar, purificar y reeducar. *Studia historica. Historia contemporanea*, 29, 55-85.
- Aguilar-Conde, Araceli (2019). ¿Qué importa en primer grado? Evaluación de la calidad de vida en régimen cerrado. *Boletín criminológico*, 7, 188. artikulua. <https://doi.org/10.24310/Boletin-criminologico.2019.v25i2019.7441>
- \_\_\_\_\_, (2020). Análisis del clima social percibido por las mujeres en prisión desde una perspectiva feminista. *International e-journal of criminal sciences*, 15, 8. artikulua.
- Aguilera, Marga. (2011). Mujeres presas: la doble condena. *Políticas sociales para abolir la prisión, Vitoria: Ikusbide*, 111-120
- Ahmed, Sara (2014). *The Cultural Politics of Emotions* (New edition, 2). Edinburgh University Press.
- \_\_\_\_\_, (2015) Introduction: Sexism-A problem with a name. *new formations: a journal of culture/theory/politics*, 86(1), 5-13.
- Alberdi, Uxue. (2019). *Kontrako eztaarritik*. Susa. Lisipe
- Alcedo, Miren (1996). *Militar en ETA. Historias de Vida y Muerte*. Haranburu.
- Alfama, Eva (2009). Hacia la perspectiva de género en el estudio de los movimientos sociales. La participación de las mujeres en la Plataforma en Defensa de l'Ebre. *Reis: Revista española de investigaciones sociológicas*, 125, 117-130.
- Alford, Fred (2000). What Would It Matter if Everything Foucault Said about Prisons Was Wrong? *Theory and Society*, 29, 125-146.
- Alison, Miranda (2007). Wartime sexual violence: women's human rights and questions of hombres. *Review of International Studies*, 33(1), 75-90. <https://www.jstor.org/stable/20097951>

- \_\_\_\_\_, (2009). *Women and Political Violence: Female Combatans in Ethno-National Conflict*. Routledge.
- Alkaiza, Saioa (2015eko ekainak 3). Interdependentziak ezaugarritzen du existentzia [Adriana Cavarerori elkarrizketa]. *Berria*. [https://www.berria.eus/kultura/interdependentziak-ezaugarritzen-du-existentzia\\_1018092\\_102.html](https://www.berria.eus/kultura/interdependentziak-ezaugarritzen-du-existentzia_1018092_102.html)
- Almeda, Elisabet y Di Nella, Dino (2011). «Extranjeras encarceladas: Olvidos y desigualdades». *Revista Hachetetepé*, 2, 33-45
- Almeda, Elisabet eta Bodelón, Encarna (ed.) (2007). *Mujeres y castigo. Un enfoque socio-jurídico y de género*. Dykinson.
- Almeda, Elisabet (2002). *Corregir y castigar. El ayer y hoy de las cárceles de mujeres*. Bellaterra.
- \_\_\_\_\_, (2017). Criminologías feministas, investigación y cárceles de mujeres en España. *Papers. Revista de Sociología*, 102(2), 151-181.
- \_\_\_\_\_, (2003). *Mujeres encarceladas*. Ariel.
- \_\_\_\_\_, (2005). *La política penal/penitenciaria en relación con las mujeres: un enfoque de género*. In Iñaki Rivera (koor.), *Política Criminal y Sistema Penal. Viejas y nuevas racionalidades punitivas* (348-366. or.). Anthropos Editorial.
- Alonso, Jorge (1996). Cultura política y partidos en México. In Esteban Krotz (koor.), *El estudio de la cultura política en México (perspectivas disciplinarias y actores políticos)* (187-21. or.). CIESAS/CNA.
- Alonso, Oskar. F. (2005). Evolución reciente del fenómeno chabolista: El nuevo chabolismo madrileño. *La ciudad y el miedo, VII Coloquio de Geografía Urbana, Barcelona*.
- Altuna, Jaime (2023). *Hizkuntzaren funanbulistak. Hizkuntza-sozializazioa kirol eremuan adin eta generoan ardaztuta* [Doktorego tesia]. UPV/EHU. <https://addi.ehu.es/handle/10810/62640>
- Álvarez-Pérez, Sara (2016). La imagen del pueblo vasco en el plan Zona Especial Norte (España, 1983): un análisis desde la perspectiva de los estereotipos. *Iberic@l*, 10, 93-107.
- Amati Sas, Silvia (1991). Recuperar la vergüenza. In Janine Puget eta René Kaës (bil.), *Violencia de Estado y psicoanálisis* (92-103. or.). Centro Editor de América Latina.
- Améry, Jean (2002). La tortura. *Nombres. Revista de filosofía*, 17. <https://revistas.unc.edu.ar/index.php/NOMBRES/article/view/2305>
- Amurrio, Mila (2003). *Genero, nazio eta nazio hezkuntza: ikastoletako irakasleria*. UPV/EHU.
- \_\_\_\_\_, (2006). Las mujeres en el proceso generizado de construcción de la nación vasca. *Cuadernos de Historia Contemporánea*, 28, 119-134. <https://doi.org/10.5209/CHCO.7650>
- Anduaga, Uxo (2016). *Herri barrez: Umore bidezko euskal nazioaren eraketa prozesua* [Doktorego tesia]. UPV/EHU. <https://addi.ehu.es/handle/10810/22027>
- Anitua, Gabriel Ignacio (2016). Comentario «Habitar lo inhabitable. La práctica político-punitiva de la tortura». *Crítica Penal y Poder*, 10, 171-178.
- Anitua, Gabriel Ignacio eta Zysman Quirós, Diego (2013). *La tortura: una práctica estructural del sistema penal, el delito más grave*. Ediciones Didot.
- Anonimoa (2015). *Ametsen liburua*. Astero.
- Anonimoa. (2009). *Burdinen arteko herria. Euskal preso politikoaren kolektiboaren historia*. <https://archive.org/details/BurdinenArtekoHerriaEUSKALPRESOPOLITIKOENKOLEKTIBOARENHISTORIA>
- Aranguren, Juan Pablo (2016). *Cuerpos al límite: tortura, subjetividad y memoria en Colombia (1977-1982)*. Ediciones Uniandes-Universidad de los Andes.

- Arbaiza, Mercedes (2015). Cuerpo, emoción y política en los orígenes de la clase obrera en España (1884-1890). *Ayer*, 98, 45-70.
- Arbuete, Camila (2020). Esbozos para un feminismo antipunitivista. *Las Torres de Lucca: revista internacional de filosofía política*, 2020, 9(17), 103-137.
- Arendt, Hannah (1964). *Eichmann in Jerusalem*. Viking Press.
- Aresti, Nerea (2014). De heroínas viriles a madres de la patria. Las mujeres y el nacionalismo vasco (1893-1937). *Historia y política: Ideas, procesos y movimientos sociales*, 31, 281-308.
- Aretxaga, Begoña (1987). La muerte de yoyes: discursos culturales de género y política en el País vasco. In Dolores González Katarain, *Yoyes desde su ventana* (7-35. or.). Alberdania.
- \_\_\_\_\_, (1988). *Los funerales en el nacionalismo radical vasco. Ensayo antropológico*. La Primitiva Casa Baroja.
- \_\_\_\_\_, (1997a). Protesta sucia: sobredeterminación simbólica y género en la violencia étnica de Irlanda. *Bitarte. Revista cuatrimestral de humanidades*, 13, 45-67.
- \_\_\_\_\_, (1997b). *Shattering silence: women, nationalism and political subjectivity in Northern Ireland*. Princeton University Press.
- \_\_\_\_\_, (2013). *Memoria y autobiografía. Exploraciones en los límites*. Fondo de Cultura Económica.
- \_\_\_\_\_, (2014). el espacio biográfico. Dilemas de la subjetividad contemporánea. FCE
- \_\_\_\_\_, (2018). *La vida narrada: memoria, subjetividad y política*. Eduvim.
- Arfuch, Leonor (2002). *El espacio biográfico. Dilemas de la subjetividad contemporánea*. Fondo de Cultura Económica.
- Armentia, Jose Ignacio; Caminos, Jose Maria; Gonzalez Abrisketa, Maria Angeles; Palazio, Gorka Jagoba eta Ramirez de la Piscina, Txema (1997). *Ajuria Eneko Ituna mezubideetan: Bakerako bidea ala aztoramen iturria?* Arabera.
- Arnfred, Signe (1988). Women in Mozambique: Gender Struggle and Gender Politics. *Review of African Political Economy*, 15(41), 5-16.
- Arriaga, Mikel (1997). *...y nosotros que éramos de HB. Sociología de una heterodoxia abertzale*. Haranburu.
- Arzuaga, Julen (2010). *La maza y la cantera*. Txalaparta.
- Atutxa, Ibai (2011). Euskal terroristaren eraikuntza diskurtsiboa. *Literatura Teoriaren eta Literatura Konparatuaren Aldizkaria*, 5, 63-73. <https://revistes.ub.edu/index.php/452f/article/view/10821>
- \_\_\_\_\_, (2022). *Barbarizazioak*. Txalaparta.
- Atutxa, Ibai eta Retolaza, Iratxe (ed.) (2021). *Indarkeriak dantzatzera behartzen gaituzte*. UEU.
- Atxaerandio, Susana (2013ko martxoa). *Testimonios de tortura en democracia: reflexiones para el debate* (Txostena) [Argitaratu gabea]. *Ankulegi XVI. jardunaldia. Indarkeriaren eszenatokiak. Indarkeriaren inguruko eztabaida etnografiko eta teorikoak*, San Telmo Museoa, Donostia.
- Aucía, Analia; Barrera, Florencia; Berterame, Calina; Chiarotti, Susana eta Paolini, Alejandra (2011). *Grietas en el silencio. Una investigación sobre la violencia sexual*. Cladem.
- Azkarraga, Oier (2019). Arranoen arteko kurloiak. Maskulinitate-eredua(k) EPPK-ko kideen artean. In Maria Ruiz Torrado, Oihana Etxebarrieta Legrand eta Laura Vara Jimenez (koor.), *Argizpiak txarrantxen artean: 14 begirada kartzela feminismitik birpentsatzeko* (205-216. or.). UEU.
- Azpiazu, Jokin (2020). *Ur nahasien erraiak. LGTB\* esperientzia eta politizazioak Hego Euskal Herriko herri mugimenduetan* [Doktorego tesia]. EHU/UPV. <https://addi.ehu.es/handle/10810/48214>

- Azurmendi, Joxe (1997). *Demokratak eta biolentoak*. Elkar.
- Bacci, Claudia (2019). *Ahora que estamos juntas: memorias, políticas y emociones feministas*. *Revista Estudos Feministas Florianópolis*, 28(2). <https://doi.org/10.1590/1806-9584-2020v28n272446>
- Bacci, Claudia; Capurro Robles, María; Oberti, Alejandra eta Skura, Susana (2014). Entre lo público y lo privado: los testimonios sobre la violencia contra las mujeres en el terrorismo de Estado. *Clepsidra. Revista Interdisciplinaria de Estudios sobre Memoria*, 1(1), 122-139.
- Bajtín, Mijaíl. (1975-1989) *Teoría y estética de la novela*, Alfaguara. 137-166. [https://doi.org/10.1016/S0185-1918\(16\)30024-1](https://doi.org/10.1016/S0185-1918(16)30024-1)
- Baksh-Soodeen, Rawidda (1998). Issues of Difference in Contemporary Caribbean Feminism. *Feminist Review*, 59(1), 74-85.
- Ballesteros, Ana (2017). Redomesticidad y encarcelamiento femenino en el sistema penitenciario español: los Módulos de Respeto. *Papers: revista de sociología*, 102(2), 261-285.
- Ballesteros, Ana eta Almeda, Elisabet (2015). Políticas de igualdad en las cárceles del siglo XXI. Avances, retrocesos y retos en la práctica del encarcelamiento femenino. *Praxis Sociológica*, 19, 161-186.
- Balzerani, Barbara (2016). *Compañera Luna*. Txalaparta
- Barañi Equipo (2001). *Mujeres gitanas y Sistema Penal*. Ediciones Meytel.
- Barberena, Leire (2016). *Gizarte lanaren ekarpena preso politiko ohien kolektiboari* [Gradu Amaierako Lan argitaratu gabea]. UPNA.
- Bard, Gabriela (2016). Culturas políticas. (Re) significando la categoría desde una perspectiva de género. *Revista Mexicana de Ciencias Políticas y Sociales*, 61(227),
- Beck, Ulrich (2002). *La sociedad del riesgo global*. Siglo Veintiuno.
- Beck-Gernsheim, Elisabeth (2007). Transnational lives, transnational marriages: a review of the evidence from migrant communities in Europe. *Global networks*, 7(3), 271-288.
- Benedicto, Jorge eta Morán, Mari Luz (ed.) (1995). *Sociedad y política: temas de sociología política*. Alianza Editorial.
- Bennet, Olivia; Bexley, Jo; eta Warnok, Kitty (2001). *Arms to Fight, Arms to Protect: Women Speak Out about Conflict*. Panos Publications.
- Beorlegui, David (2016). *La experiencia del desencanto en el País Vasco (1976-1986): memoria, subjetividad y utopía* [Doktorego tesia]. UPV/EHU. <https://addi.ehu.es/handle/10810/21067>
- Berezin, Mabel (1997). Politics and Culture. A Less Fissured Terrain. *Annual review of sociology*, 23, 361-383. <http://www.jstor.org/stable/2952556>
- Berger, Peter L. eta Luckmann, Thomas (2006). *La construcción social de la realidad*. Amorrortu.
- Beristain, Carlos Martin eta Riera, Francesc (1992). *Afirmación y resitencia. La comunidad como apoyo*. Virus.
- Biglia, Barbara (2013). Transformando dinámicas generizadas: Propuestas de activistas de Movimientos Sociales mixtos. *Athenea Digital: revista de pensamiento e investigación social*, 4, 1-25.
- Biglia, Barbara; Curiel, Ochy eta Esteban, Mari Luz (2015). Ikerkuntza feministarako epistemologiari eta metodologiari buruzko gogoetak. *Cuadernos de trabajo Hegoa= Lan Koadernoak= Working papers*, 67, 1-55.
- Blair, Elsa eta Berrio, Ayder (2010). Gorputzaren zigor-politika: «zigorraren ekonomia» edo sufrimenduaren mekanika Kolonbian, *Azterlan politikoak*, 36, 39-66.



- Bonino, Luis (2002). Masculinidad hegemónica e identidad masculina. *Dossiers feministes*, 6(1), 7-35.
- Borda Bohigas, Juan Pablo; Carrillo, Juan O.; Garzón, Daniel F.; Ramírez, María P. eta Rodríguez, N. (2015). Trauma histórico. Revisión sistemática de un abordaje diferente al conflicto armado. *Revista colombiana de Psiquiatría*, 44(1), 41-49.
- Borudieu, Pierre, (1986). L'illusion biographique. *Actes de la Recherche en Sciences Sociales*, 62-63, 69-72.
- \_\_\_\_\_, (1993). *La miseria del mundo*. Akal.
- \_\_\_\_\_, (2001). *La dominación masculina*. Anagrama.
- \_\_\_\_\_, (2012a). *La distinción: criterios y bases sociales del estilo*. Taurus.
- \_\_\_\_\_, (2012b). Violencia simbólica. *Revista Latina de Sociología*, 2(1), 1-4.
- Borrat, Hector (1989). El periódico, actor del sistema político. *Anàlisi: Quaderns de comunicació i cultura*, 12, 67-80.
- Bosi, Lorenzo (2012). Explaining Pathways to Armed Activism in the Provisional Irish Republican Army, 1969–1972. *Social Science History*, 36(3), 347-390.
- Bottoms, Anthony E. (1999). Interpersonal Violence and Social Order in Prisons. *Crime and Justice: A Review of Research*, 26, 205–281.
- Bourgois, Philippe (2001). The continuum of Violence in War and Peace: Post-cold War Lessons from El Salvador. *Ethnography*, 2(1), 5-34
- Boutron, Camille (2019). Les femmes dans la lutte armée au Pérou. *20 & 21: Revue d'histoire*, 141, 11.
- Brown, Alyson (2003). *English society and the prison: time, culture, and politics in the development of the modern prison, 1850-1920*. Boydell Press.
- Bruni, Luigi (1987). *ETA. Historia política de una lucha armada*. Txalaparta.
- Buckley, Nicolas (2020). *Del sacrificio a la derrota: historia del conflicto vasco a través de las emociones de los militantes de ETA*. Siglo XXI de España Editores.
- Bullain, Iñigo (2011). *Revolucionarismo patriótico. El Movimiento de Liberación Nacional Vasco (MLNV). Origen, ideología, estrategia y organización*. Tecnos.
- \_\_\_\_\_, (2014). Aproximación a la Violencia Política en el País Vasco y Perspectivas de una Justicia Restaurativa para Euskadi (Approaching Political Violence in the Basque Country and Perspective of a Restorative Justice in Euskadi). *Oñati socio-legal series*, 4(3), 465-506.
- Bullen, Maggie (2000). Hombres, mujeres, ritos y mitos: los Alardes de Irún y Hondarribia. In Maria Teresa del Valle (koor.), *Perspectivas feministas desde la antropología social* (45-78. or.). Ariel.
- Butler, Judith (1993). *Bodies That Matter: On the Discursive Limits of Sex*. Routledge.
- Butler \_\_\_\_\_, (2006). *Vida precaria. El poder del duelo y la violencia*. Paidós.
- Butler \_\_\_\_\_, (1999). *Gender Trouble*. New York, Routledge. [Itzulpena: *El género en disputa*. Paidós, 2001].
- Caballero, Juan Jose (1986). El «mundo» de los presos. In Florencio Jiménez eta Miguel Clemente (bil.), *Psicología social y sistema penal* (269-302. or.). Alianza.
- Cacho, Lisa Marie (2012). *Social death*. New York University Press.
- Calveiro, Pilar (1998). Poder y desaparición: los campos de concentración en Argentina. Colihue SRL.
- \_\_\_\_\_, (2005). *Política y/o violencia. Una aproximación a la guerrilla de los años setenta*. Norma.

- \_\_\_\_\_, (2006). Los usos políticos de la memoria. In Gerardo Caetano (bil.), *Sujetos sociales y nuevas formas de protesta en la historia reciente de América Latina* (359-382. or.). Consejo Latinoamericano de Ciencias Sociales (CLACSO).
- \_\_\_\_\_, (2008). La «verdad» de la tortura en las democracias. *Revista Venezolana de Economía y Ciencias Sociales*, 14(2), 75-94.
- \_\_\_\_\_, (2010). Apuntes sobre la tensión entre violencia y ética en la construcción de las memorias políticas. In *Mujeres Intelectuales. Feminismos y liberación en América Latina y el Caribe* (333-343. or.). Consejo Latinoamericano de Ciencias Sociales (CLACSO).
- \_\_\_\_\_, (2012). La memoria en tanto espacio ético y político. In Anne Huffschild et al. Valeria Durán (ed.), *Topografías Conflictivas. Memorias, espacios y ciudades en disputa* (21-30. or.). Trilce.
- \_\_\_\_\_, (2014). Sentidos políticos del testimonio en tiempos de miedo. In Laura Scarabelli et al. Serena Cappellini (ed.), *Donde no habite el olvido. Herencia y transmisión del testimonio* (23-32. or.). Ledizioni.
- Camps, Clara et al. Verges, Nuria (2015). De la superación del miedo a protestar al miedo como estrategia represiva del 15M. *Athenea digital*, 15(4)
- Cardona, Irene (2015). *Aproximación al papel de las mujeres dentro de los grupos armados de la Transacción*. Deskontrol.
- Carlton, Bree. (2011) Sharon Shalev, Supermax: Controlling Risk Through Solitary Confinement. *Australian & New Zealand Journal of Criminology*, 44(2), 321–323.
- Carou-García, Sara. (2015). El régimen penitenciario cerrado: análisis de la regulación del régimen penitenciario cerrado en el ordenamiento jurídico español a la luz de los principios básicos que deben informar el Derecho Penitenciario, recogidos en la Constitución y en la Ley Orgánica General Penitenciaria.
- Carrasco, Cristina (2001). La sostenibilidad de la vida humana: ¿un asunto de mujeres? *Mientras tanto*, 82, 43-70.
- Casanova, Iker (2008). *ETA 1958-2008. Medio siglo de historia*. Txalaparta.
- Casaús, Marta Elena, et al. Ruiz-Trejo, Marisa (2017). Procesos de justicia y reparación: el caso «Sepur Zarco» por violencia sexual, violación y esclavitud doméstica en Guatemala y su sentencia paradigmática para la jurisprudencia internacional. *Pacarina del Sur*, 8(30).
- Cases, Adriana et al. Ortega López, María Teresa (2020). La investigación sobre la represión femenina y violencia sexual en el franquismo. Evolución historiográfica, *Ayer*, 118(2), 347-361.
- Casquete, Jesus (2005). Manifestaciones e identidad colectiva. *Revista internacional de sociología*, 63(42), 101-125.
- Castañeda, Marta Patricia (2019). Perspectivas y aportes de la investigación feminista a la emancipación. In Martha Patricia Castañeda Salgado et al., *Otras formas de (des)aprender* (19-40. or.). Hegoa – SIMREF.
- Castel, Robert (1999). *Las metamorfosis de la cuestión social. Una crónica del salariado*, Paidós.
- Castells, Manuel (1995). *La ciudad informacional. Tecnologías de la información, reestructuración económica y el proceso urbano regional*, Alianza.
- Castells, Manuel (2002). *La era de la información: economía, sociedad y cultura* (1. Bol.). Siglo XXI.
- Castillejo, Alejandro (2017). *La ilusión de la justicia transicional: perspectivas críticas desde el Sur Global*. Universidad de los Andes. <http://doi.org/10.7440/2017.25>
- Castillo, Joaquina y Ruiz, Marta (2006). «Mujer extranjera en la prisión española actual». In: Bosch, Esperança et al. (comp.). *Los feminismos como herramientas de cambio social* (I):

- Mujeres tejiendo redes históricas, desarrollos en el espacio público y estudios de las mujeres. Universidad de las Islas Baleares.
- Castro, Pablo (2011). Cultura política: una propuesta socio-antropológica de la construcción de sentido en la política. *Región y sociedad*, 23(50), 215-247.
- Cavarero, Adriana (2007). *Orrorismo, ovvero della violenza sull'inerme*. Feltrinelli.
- Celiberti, Liliana (2015). Desatar, desanudar... reanudar. *Revista Estudios de Sociología*, 20(39), 291-308.
- Celiberti, Liliana eta Garrido, Lucy. (1990). *Mi habitación, mi celda*. Arca.
- Chinkin, Christine (1988-1989). A Gendered Perspective to the International Use of Force. *Australian Yearbook of International Law*, 12, 279-293.
- Chuna, Manuela Ivone (2005). El tiempo que no cesa: la erosión de la frontera
- Clemente, Miguel (1997). La organización social informal en la prisión. In Miguel Clemente eta Jesus Núñez, *Psicología jurídica penitenciaria* (321-356. or.). Fundación Universidad Empresa.
- Cockburn, Cynthia (1998). *The space between us : negotiating gender and national identities in conflict*. Zed. London.
- \_\_\_\_\_, (2001). The Gendered Dynamics of Armed Conflict and Political Violence. In Caroline Moser eta Fiona Clark, *Victims, Perpetrators or Actors: Gender, Armed Conflict and Political Violence* (13-29. or.). Zed Books.
- \_\_\_\_\_, (2014b). A Continuum of Violence: Gender, War and Peace 1. In Ruth Jamieson (ed.), *The criminology of war* (357-375. or.). Routledge.
- \_\_\_\_\_, (2004a). The continuum of violence. In Wenona Giles eta Jennifer Hyndman (ed.), *Sites of violence: Gender and conflict zones* (24-44. or.). University of California Press.
- Cohn, Carol (ed.) (2013). *Women and wars: Contested histories, uncertain futures*. John Wiley & Sons.
- Conde, Francisco. (2003). El nuevo derecho penal autoritario: consideraciones sobre el llamado «derecho penal del enemigo». In *La influencia de la ciencia penal alemana en Iberoamérica: en homenaje a Claus Roxin* (117-126). Instituto Nacional de Ciencias Penales.
- Confinement”, en *Australian & New Zealand Journal of Criminology*, 44(2), 321–323.
- Connell, Robert W. (1985). Theorising gender. *Sociology*, 19(2), 260-272.
- \_\_\_\_\_, (1987): *Gender and Power. Society, the Person and Sexual Politics*. Cambridge, Polity Press.
- \_\_\_\_\_, (1998). Making Gendered People: Bodies, Identities, Sexualities. In Myra Marx Ferree, Judith Lorber eta Beth B. Hess (ed.), *Revisioning Gender*, Oaks, Sage (449-471. or.). Altamira Press.
- \_\_\_\_\_, (1997). La organización social de la masculinidad. In Teresa Valdés eta José Olavarria (ed.), *Masculinidades. Poder y crisis* (31-48. or.). Isis Internacional.
- \_\_\_\_\_, (2001). Educando a los muchachos: nuevas investigaciones sobre masculinidad y estrategias de género para las escuelas. *Nómadas (Col)*, 14, 156-171.
- \_\_\_\_\_, (2013). *Gender and power: Society, the person and sexual politics*. John Wiley & Sons, Polity Press.
- \_\_\_\_\_. (1995). *Masculinities*. Polity Press.
- Contamin, Gabriel (2007). Genre et modes d'entrée dans l'action collective. L'exemple du mouvement pétitionnaire contre la projet de Loi Debré. *Politix*, 78, 13-37. <https://doi.org/10.3917/pox.078.0013>
- Contreras, Paola (2016). Maternidad tras las rejas: Una aproximación a la realidad de las mujeres en las cárceles de Catalunya (España). *Revista Umbral*, 11, 39-58.

- , (2018). Maternidad encarcelada: análisis feminista de las consecuencias personales, familiares y sociales en mujeres privadas de libertad. *Temas sociológicos*, 22, 209-232.
- Corona, Yolanda eta Fernández, Ana María (2000). Infancia y Política. In Yolanda Corona Caraveo (koor.), *Infancia, legislación y política* (61-67. or.). Universidad Autónoma de México.
- Cortés Ibáñez, Erika Alejandra (2014). Feminización y subalternización del otro enemigo Construcción y destrucción de corporalidades en contextos de conflicto armado y violencia extrema. *Colombia Internacional*, 80, 57-82. <https://doi.org/10.7440/colombiaint80.2014.03>
- Coulter, Carol (1993). *The Hidden Tradition: Feminism, Women, and Nationalism in Ireland*. Cork University Press.
- Crenshaw, Kimberle (1989). Demarginalizing The Intersection Of Race And Sex: A Black Feminist Critique Of Antidiscrimination Doctrine, Feminist Theory, And Antiracist Politics. *University of Chicago Legal Forum*, 1, 8. artikulua.
- Croson, Rachel eta Gneezy, Uri (2009). Gender differences in preferences. *Journal of Economic Literature*, 47(2), 448-474.
- Croson, Rachel eta Gneezyk, Uri (2009): Gender differences in preferences. *Journal of Economic Literature*, 47(2), 448-474.
- Culbertson, Roberta (1995). Embodied Memory, Transcendence, and Telling: Recounting Trauma, Re-establishing the Self. *New Literary History*, 28, 169-195.
- Dañobeitia, Olatz (2016). *Biolentzia politikoa eta generoa Euskal Herrian, 90. hamarkadan. Ezker Abertzaleko emakumeen kasua* [Gradu Amaierako Lan argitaratu gabea]. UPV/EHU.
- Dañobeitia———, (2021). 90eko hamarkadako ezker Abertzaleko emakumeen bizipenak: genero erregimen ezberdinen arteko dantzan. In Ibai Atutxa eta Iratxe Retolaza (ed.), *Indarkeriak dantzatzera behartzen gaituzte* (45-102. or.). UEU.
- D'Antonio, Debora (2011). Políticas de desarticulación de la subjetividad sexual y de género practicadas en la cárcel de Villa Devoto durante la última dictadura militar argentina (1976-1983). *Estudios*, 25, 159-174.
- Davenport, Christian (2007). State Repression and Political Order. *Annual Review of Political Science*, 10, 1-23.
- Davis, Angela. (1983). *Women, race & class*. Vintage.
- De Graaf, Kaitlyn (2013). *Disciplining women/disciplining bodies: Exploring how women negotiate health and bodily aesthetic in the carceral context*. Doktorego-tesia. University of Ottawa (Canada).
- De la Calle, Luis eta Sánchez-Cuenca, Ignacio (2004). La selección de víctimas en ETA. *Revista Española de Ciencia Política*, 10, 53-79. <https://recyt.fecyt.es/index.php/recp/article/view/37351>
- De Lauretis, Teresa (1987). The female body and heterosexual presumption. *Semiotica*, 67(3-4), 259-79.
- , (1996). La tecnología del género. *Revista Mora*, 2, 6-34.
- De Lucas Martín, Javier (2017). Negar la política, negar sus sujetos y derechos (Las políticas migratorias y de asilo como emblemas de la necropolítica). *Cuadernos electrónicos de Filosofía del Derecho*, 36(4): 64-87. <https://doi.org/10.7203/CEFD.36.11217>
- De Miguel Calvo, Estibaliz (2014). Encarcelamiento de mujeres. El castigo penitenciario de la exclusión social y la desigualdad de género. *Gizarte zerbitzuetarako aldizkaria= Revista de servicios sociales*, 56, 75-86.
- De Volo, Lorraine Bayard (2004). Mobilizing Mothers for War: Cross-National Framing Strategies in Nicaragua's Contra War. *Gender & Society*, 18(6), 715-734

- , (2006). The Dynamics of Emotion and Activism: Grief, Gender, and Collective Identity in Revolutionary Nicaragua. *Mobilization: An International Quarterly*, 11(4), 461-474.
- Defensor del Pueblo Andaluz, (2009) Informe al Parlamento.
- Del Cura, Jorge (2009). La situación de los derechos y libertades en el Estado español. Democracia y tortura en el Estado español. In Iñaki Markez, Alberto Fernández eta Pàu Pérez (koor.), *Violencia y salud mental: salud mental y violencia institucional, estructural, social y colectiva* (237-248). Asociación Española de Neuropsiquiatría (AEN).
- Del Valle, Teresa (1985): *Mujer vasca: imagen y realidad*. Anthropos.
- , (1988). *Korrika. Rituales de la lengua en el espacio*. Anthropos.
- (1996). La memoria del cuerpo. *Arenal. Revista de historia de las mujeres*, 4(1), 59-74.
- , (1992): Mujer y nuevas socializaciones: su relación con el poder y el cambio. *Kobie. Antropología Cultural*, 6,5-16.
- , (1993). *Gendered Anthropology*. Routledge.
- , (1999). Procesos de la memoria: cronotopos genéricos. *Áreas. Revista Internacional de Ciencias Sociales*, (19), 211-225.
- , (2000). El género en la construcción de la identidad nacionalista. *Foru hispánico. Revista hispánica de Flandes y Holanda*, 16, 37-44.
- , (2001). Asociacionismo y redes de mujeres ¿Espacios puente para el cambio? *Anuario de hojas de Warmi*, 12, 131-151.
- , (2008). La cultura del poder desde y hacia las Mujeres. In Margaret Bullen eta Carmen Díaz Mintegui (koor.), *Retos teóricos y nuevas prácticas. Actas del XI Congreso de Antropología* (141-178. or.), Ankulegui, Donostia.
- (2012a). Un ensayo metodológico sobre la mirada en la Antropología Social. *Gazeta de antropología*, 28(3).
- , (2012b). El poder evocador como desencadenante de memoria y creatividad. *Pels camins de letnografía: un homenatge a Joan Prat*, 303-311.
- Diana, Marta (2006). *Mujeres guerrilleras. La militancia de los setenta en el testimonio de sus protagonistas femeninas*. Editorial Planeta.
- Díaz Egurbide, Jon (2021). *Hego Euskal Herriko eliteak. Boterearen azterketa*. Robles Arangiz Fundazioa.
- Díaz, Nibia (2010). *Maternidad en prisión política: Uruguay 1970-1980*. Ediciones Trilce.
- Díaz-Cotto, Juanita (2000). Race, Ethnicity, and Gender in Studies of Incarceration. In Joy James (ed.), *States of Confinement: Policing, Detention, and Prisons* (122-131. or.). St Martin's Press.
- Dietrich, Luisa Maria (2014). La «compañera política»: Mujeres militantes en espacios de «agencia» en insurgencias latinoamericanas. *Colombia internacional*, 80, 83-133.
- Diez Mintegi, Carmen (1992). *Estudio comparativo de las relaciones de género en la comarca Donostialdea y en la Ribera de Navarra partiendo de la forma diferente de participación de mujeres y hombres en las actividades laborales* [Doktorego tesia]. UPV/EHU.
- Domínguez Prats, Pilar eta García-Nieto París, María C. (1991). Franquismo: represión y letargo de la conciencia feminista, 1939-1977. In Bonnie S. Anderson eta Judith P. Zinsser (koor.), *Historia de las mujeres: una historia propia* (2. Bol., 640-648. or.). Crítica.
- Dorai, Jaione eta Prat, Ernesto (2022). *Bestaldean. Euskal iheslari politikoen bizipenak*. Txalaparta.

- Doty, Steven; Smith, Hayden Patrick, eta Rojek, Jeffrey (2012). Self-Injurious Behaviors in Corrections: Informal Social Control and Institutional Responses in a State Prison System. *Victims & Offenders*, 7(1), 30-52.
- Douglass, William eta Zulaika, Joseba (1990). On the Interpretation of Terrorist Violence: ETA and the Basque Political Comparative Studies. *Society and History*, 32(2), 238-257. <http://www.jstor.org/stable/178914>
- Eder, Klaus (1996-1997). La paradoja de la «cultura». Más allá de una teoría de la cultura como factor consensual. *Zona Abierta*, 77-78, 95-126.
- Egaña, Iñaki (1996). *Diccionario histórico-político de Euskal Herria* (2. ed.). Txalaparta.
- , (2015). *Nuevo diccionario histórico-político de Euskal Herria*. Txalaparta.
- , (2017). *Breve historia de ETA*. Txalaparta.
- , (2018). *El desarme: la vía vasca*. Txalaparta.
- Egaña, Iñaki, Joxe Erramun Bustillo eta Etxebeste, Antxon (2020). *Askatasun Haizea. Euskal Memoria Fundazioa*
- Egido, Ángeles (koor.) (2017). *Cárceles de mujeres: la prisión femenina en la posguerra*. Editorial Sanz y Torres.
- Egido, Ángeles eta Montes, Jorge (koor.) (2018). *Mujer, franquismo y represión: una deuda histórica*. Editorial Sanz y Torres.
- Eizagirre, Enara (2019). *Ética y antropología. Aproximación a las cuestiones éticas que los antropólogos noveles identifican en sus investigaciones y las estrategias utilizadas para su gestión* [Master Amaierako Lana]. UNED.
- Elias, Norbert (1994). Civilización y violencia. *Reis*, 65, 141-151.
- , (2001). *El proceso de la civilización*. Fondo de Cultura Económica.
- Elizondo, Aurora (2000). El discurso cívico en la escuela. *Perfiles Educativos*, 22(90), 115-129.
- Elzo, Javier eta Arrieta, Félix. (2005). Historia y sociología de los movimientos juveniles encuadrados en el MLNV. *Ayer*, 173-197.
- Emakunde. Emakumearen euskal erakundea. (1991). *Emakumeen egoerari buruzko txostena*. [https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_informes/eu\\_emakunde\\_adjuntos/informe.01.situaci%C3%B3n.mujeres.euskadi.eus.pdf](https://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_informes/eu_emakunde_adjuntos/informe.01.situaci%C3%B3n.mujeres.euskadi.eus.pdf)
- Enloe, Cynthia (2000). *Maneuvers: The International Politics of Women's Lives*. University of California Press.
- Epelde, Edurne; Aranguren, Miren eta Retolaza, Iratxe (2015). *Gure genealogia feministak. Euskal Herriko Mugimendu feministaren kronika bat*. Emagin.
- Escobar, Arturo (2018). *Otro posible es posible: Caminando hacia las transiciones desde Abya Yala/ Afro/Latino América*. Ediciones desde abajo.
- Esteban, Mari Luz (2004). *La antropología del cuerpo. Género, itinerarios corporales, identidad y cambio*. Bellaterra.
- , (2015). La reformulación de la política, el activismo y la etnografía. Esbozo de una antropología somática y vulnerable. *Ankulegi-Revista Vasca de Antropología*, 19, 75-93.
- , (2018). Herida de política y cárcel. El relato encarnado de una activista. *Disparidades. Revista de Antropología*, 77(2), 1-21.
- Esteban, Mari Luz (ed.) y Agirre Miguélez, Amaia eta al. (2020). *Tejiendo comunidades desde iniciativas populares*. UPV/EHU.

- Estévez, Ariadna (2018). El dispositivo necropolítico de producción y administración de la migración forzada en la frontera de Estados Unidos-México. *Estudios fronterizos*, 19, e010 artículua. <https://doi.org/10.21670/ref.1810010>
- Etxebarrieta, Oihana (2013). *Erlazio afektibo sexualak espetxe garaian, askatasun (g)une? Hainbat euskal emakumeren esperientziak* [Master Amaierako Lan argitaratu gabea]. UPV/EHU, Ikasketa Feministak eta Generokoak Unibertsitate Masterra.
- Etxebarrieta, Oihana eta Rodríguez, Zuriñe (2016). *Borroka armatua eta kartzelak*. Lisipe-Susa.
- Etxebarrieta, Francisco; Beristain, Carlos eta Pego, Laura (2017). *Informe de investigación de la tortura y malos tratos en el País Vasco entre 1960-2014*. Eusko Jaurlaritzako Giza eskubide, Elkarbizitza eta Lankidetzeta Idazkaritza Nagusia.
- Falquet, Jules (2005). Trois questions aux mouvements sociaux «progresistes» apports de la théorie féministe à l'analyse des mouvements sociaux. *Nouvelles Questions Féministes*, 24(3), 18-35.
- Fassin, Didier (2010). El irresistible ascenso del derecho a la vida. Razón humanitaria y justicia social. *Revista de Antropología Social*, 19, 191-204.
- Feito, Lidya (2007). Vulnerabilidad. *Anales del sistema sanitario de Navarra*, 30, 7-22.
- Feldman, Allen (1991). *Formations of Violence: The Narrative of the Body and Political Terror in Northern Ireland*. University of Chicago Press.
- Fernández Poncela, Anna María (2000). *Mujeres, revolución y cambio cultural*. Anthropos.
- , (2012). Huyendo del miedo, desterrando el enojo, escapando de la tristeza y cayendo en brazos de la risa: los chistes en México en tiempos de la Influenza 2009. *Revista Latinoamericana de Estudios sobre Cuerpos, Emociones y Sociedad*, 8, 7-16.
- Ferrajoli, Luigi (2006). *Il diritto penale del nemico e la dissoluzione del diritto penale*. Questione Giustizia.
- Ferrándiz, Francisco (2008). La etnografía como campo de minas: de las violencias cotidianas a los paisajes posbélicos. In Margaret Bullen Margaret eta Carmen Díez (koor.). *Retos teóricos y nuevas prácticas. XI Congreso de Antropología de la FAAEE*, Ankulegi Antropología Elkartea, Donostia.
- Ferrandiz, Francisco eta Feixa, Carles (2004). Una mirada antropológica sobre las violencias. *Alteridades*, 14(27), 159-174. <https://www.redalyc.org/pdf/747/74702710.pdf>
- Ferrari, German (2009). *Símbolos y fantasmas: Las víctimas de la guerrilla: de la amnistía a la «justicia para todos»*. Sudamericana.
- File, Judith (1997). *Entre el parentesco y la política. Familia y dictadura, 1976-1983*. Biblos.
- Flaquer et al., L., Ribas Mateos, N., Almeda, E., Bodelon, E., y Martínez, A. (2001). *Rastreado lo invisible. Mujeres inmigrantes en las cárceles españolas*. Barcelona, Instituto de la Mujer.
- Forest, Eva (2007). *Una extraña aventura*. Hiru editorial.
- Fornons, David; Barcelona, G. D. (2008). La práctica deportiva en la prisión: rehabilitación o evasión. *Actualidad en el deporte: investigación y aplicación*, 215-227.
- Foucault, Michel. (1975). *Vigilar y castigar: nacimiento de la prisión*. Siglo XXI
- (1977). *Historia de la sexualidad I. La voluntad de saber*. Editorial Siglo XXI.
- , (1992). *Microfísica del poder*. Ediciones La piqueta.
- , (2002). *Historia de la sexualidad: el uso de los placeres* (2. Bol.). Siglo XXI.
- Fraser, Ronald (1979). *Recuérdalo tú y recuérdalo a otros. Historia oral de la guerra civil española*. Crítica.
- Freixa, Gemma (2014). Análisis del régimen cerrado desde una perspectiva jurídica y criminológica. *InDret. Revista para el Análisis del Derecho*, 1.

- Friedman, Lawrence (1994). *Crime and Punishment in American History*. Basic Books.
- Fries, Lorena; Hurtado, Victoria eta Zabala, Ximena (2012). El proceso de justicia transición y el derecho a la recuperación por la violencia sexual como tortura en Chile. In María Sonderéguer (bil.). *Género y poder. Violencias de género en contextos de represión política y conflictos armados* (1-12 or.). UNQ.
- Fulchiron, Amandine (2016). La violencia sexual como genocidio. Memoria de las mujeres mayas sobrevivientes de violación sexual durante el conflicto armado en Guatemala. *Revista mexicana de ciencias políticas y sociales*, 61(228), 391-422.
- , (2018). *La ley de mujeres: amor, poder propio y autoridad: mujeres sobrevivientes de violación sexual en guerra reinventan la justicia desde el cuerpo, la vida y la comunidad* [Doktorego tesia]. UNAM.
- Fulchirón, Amandine (koor.) (2009). *Tejidos que lleva el alma. Memoria de las mujeres mayas sobrevivientes de la violencia sexual durante el conflicto armado*. Equipo de Estudios Comunitarios y Acción Psicosocial, Unión Nacional de Mujeres Guatemaltecas.
- Gallego, Manuel; Cabrera, Pedro José; Rios, Julián Carlos eta Segovia, Jose Luis (2010). *Andar 1 km en línea recta. La cárcel del siglo XXI que vive el preso*. Universidad Pontificia de Comillas.
- Gallego-Perez, José María (2011). «Nuevos controles sociales ante un caso de exclusión social extremo: el control de la población drogodependiente en prisión», *Documentación Social*, 161 (abril-junio). 115-132.
- Galtung, Johan (1969). Violence, Peace, and Peace Research. *Journal of Peace Research*, 6(3), 167-191.
- Gandarias, Itziar (2014). Habitar las incomodidades en investigaciones feministas y activistas desde una práctica reflexiva. *Athenea Digital*, 14(4), 289-304.
- Garaño, Santiago (2010). «Romper la vidriera, para que se vea la trastienda»: Sentidos, valores morales y prácticas de «resistencia» entre las presas políticas de la cárcel de Villa Devoto durante la última dictadura militar argentina (1976-1983). *Historia Crítica*, 40, 98-120.
- García Gonzalez, Andrea (2016). *Feminist Approaches to Peacebuilding and Reconciliation. Conference: Feminist Review Early Careers Workshop*. SOAS.
- , (2019). *Multiple Violences and Practices of Peace: a Feminist Approach to the Post-Ceasefire Process in the Basque Country* [Doktorego tesia]. University of Brighton.
- García, Andrea; Tejero, Laura; Dañobeitia, Olatz; Gomez, Diana; Lasala, Yira eta Hernandez, Aida (2022). Etnografiando el sufrimiento social en contextos de violencia(s): experiencias, tensiones y aprendizajes desde miradas feministas. *Revista de antropología social*, 31(2), 147-154.
- García, Carlos (1981). *Introducción a la penología*. Instituto de Criminología de la Universidad Complutense de Madrid.
- García, Victoria (2016). Testimonio y ficción en la Argentina de la postdictadura. Los relatos del sobreviviente-testigo. *Revista chilena de literatura*, 93, 73-100.
- Gardam, Judith (1998). La mujer, los derechos humanos y el derecho internacional humanitario. *Revista Internacional de la Cruz Roja*, 147, 453-467.
- Garibay, David (2006). Un partido de izquierda radical frente a las reivindicaciones de género: entre el estancamiento de los números y la afirmación de la radicalidad. El caso del FMLN en El Salvador. *Política*, 46, 141-171.
- Garland, David (1990). Frameworks of Inquiry in the Sociology of Punishment. *British Journal of Sociology*, 41(1), 1-15.
- , (2017). Theoretical Advances and Problems in the Sociology of Punishment. *Punishment & Society*. 20(1), 8-33.



- Gea, Mari José (2017). Maternidad en prisión. Situación de los hijos e hijas que acompañan a sus madres compartiendo condena. *Papers. Revista de Sociología*, 102(2), 287-310.
- Ginard, David (2013). Represión y especificidad de género: en torno a la violencia política contra las mujeres en la España del primer franquismo. In Mary Nash (ed.), *Represión y especificidad de género: en torno a la violencia política contra las mujeres en la España del primer franquismo* (23-36. or.). Comares
- Goecke, Ximena (2021). “Las Mujeres no olvidamos ningún golpe. Origen social del concepto de Violencia Política Sexual y su movilización desde el feminismo chileno contra la impunidad” (argitaratu gabeko artikulua).
- Goffman, Erving. (2001 [1972]). *Internados. Ensayos sobre la situación social de los enfermos mentales*. Amorrortu.
- Gomez, Diana (2022). Memoria profunda: expresiones y trayectorias del sufrimiento social en Colombia. *Revista de Antropología Social*, 31(2), 185-200.
- González Katarain, María Dolores (2009): *Yoyes, desde su ventana*, Alberdania.
- Gonzalez, Eduardo (2012). La represión estatal como proceso de violencia política. *Hispania Nova: Revista de historia contemporánea*, 10. zenbakia.
- González, Ignacio (2012). La cárcel en España: mediciones y condiciones del encarcelamiento en el siglo XXI. *Revista de derecho Penal y Criminología*, 8, 351-402.
- , (2015). Encarcelamiento y política neoliberal: incremento de presos y funciones de la prisión. In Débora Ávila Cantos eta Sergio García García (koor.), *Enclaves de riesgo: gobierno neoliberal, desigualdad y control social* (267-278. or.). Traficantes de Sueños.
- , (2019). Las influencias políticas y sociales en el ejercicio de la autoridad en la cárcel. *Papers: revista de sociología*, 104(3), 569-575.
- , (2021). *Neoliberalismo y castigo*. Bellaterra.
- González, Yolanda, (2012) Migración transnacional colombiana y estrategias políticas online. Reproducción de la comunidad a través de la vinculación transnacional. *Ánfora*, 19(32), 69-90.
- Gonzalo, Iñaki (2010). *¿Cómo no amarte Alba?* Txalaparta.
- Gorosarri, María eta Barinaga, Eduardo (2010): *No lloréis, lo que tenéis que hacer es no olvidarnos. La cárcel de Saturrarán y la represión franquista contra las mujeres, a partir de testimonios de supervivientes*. Ttartalo.
- Gorosarri, Maria. (2011). Durangoko emakumeen kartzela. *Astola: ikerketa eta historia*, (5), 26-39.
- Gramsci, Antonio (2018 [1971]). *Los intelectuales y la organización de la cultura*. Libros de la Araucaria.
- Green, Linda (1995). Living in a State of Fear. In Carolyn Nordstrom eta Antonius C.G.M. Robben (ed.), *Fieldwork Under Fire: Contemporary Studies of Violence and Survival* (105-127. or.). University of California Press.
- Grusec eta Hasting (2007). Introduction. In Joan E. Grusec eta Paul D. Hastings (ed.), *Handbook of socialization* (1–9. or.). Guildford Press.
- Guelle, Pauline (2023). *L’impunité de la torture dans la consolidation démocratique espagnole : le cas du Pays basque.* / Torturaren zigorgabetasuna Espainiako sendotze demokratikoan: Euskal Herriaren kasua”. Doktorego-tesia.
- Guglielmucci, Ana (2007). Visibilidad e invisibilidad de la prisión política en Argentina: La «cárcel vidriera» de Villa Devoto (1974-1983). *A Contracorriente: una revista de estudios latinoamericanos*, 4(3), 86-136.
- Guibet, Caroline (2020). Militantes clandestines dans le conflit armé basque. *Champ pénal/ Penal field*, 19. <https://doi.org/10.4000/champpenal.11572>

- , (2021). Victimes ou actions: itinéraires occultes d'ETA. *Papeles del CEIC*, 1. <http://doi.org/10.1387/pceic.22161>
- , (2023). Le PKK, vecteur d'émancipation des femmes kurdes de Turquie?. *Recherches sociologiques et anthropologiques*, (54-1), 95-123.
- Guibet, Caroline eta Brochard, Pierre (2020). Conséquences de choix méthodologiques sur l'analyse de l'évolution de l'organisation Clandestine ETA. *Studia Europaea*, 65(2), 219-263. <https://hal.archives-ouvertes.fr/hal-03086752>
- Guilló Arakistain, Miren (2020). *Hilekoaren politika eta kultura alternatiboen etnografia bat: genero-konfigurazioak, gorputz-ahalduntzea eta ezagutza kolektiboak* [Doktorego tesia]. UPV/EHU.
- Guiné, Anouk (2016). Encrucijada de guerra en mujeres peruanas: Augusta de la Torre y el Movimiento Femenino Popular. *Millars: Espai i Historia*, 55(2), 97-128.
- Gurpegi, Adriana (2022). La participación de mujeres nacionalistas en acciones políticas durante los Troubles. De la no violencia a la transgresión (1970-1981). *Hastapenak: Revista de Historia Contemporánea y Tiempo Presente-Gaurko Historiaren Aldizkari Kritikoa*, 3, 4-26.
- Guzmán, Gloria., Mendia, Irantzu., Mujika, Itziar., Zirion, Iker, Azpiazu, Jokin., Barba, Marta eta Luxán, Marta. (2019). *Otras formas de (des)aprender: investigación feminista en tiempos de violencia, resistencias y decolonialidad*. HEGO y SIMReF. Donostia y Bilbao.
- Guzmán Martínez, Grecia; Pujat i Lombart, Margot; Mora Malo, Enrico eta García Dauder, Dau (2021). Antecedentes feministas de los grupos de apoyo mutuo en el movimiento loco: un análisis histórico-crítico. *Salud colectiva*, 17, e3274 artikulua.
- Halbwachs, Maurice (2004 [1925]). *Los marcos sociales de la memoria* (39. Bol.). Anthropos editorial.
- Hamilton, Carrie (1998). Género y nacionalismo. Una nueva área de estudio. *Inguruak: Revista de Sociología*, 22, 163-174.
- , (2007a). *Women and ETA. The gender politics of radical Basque nationalism*. Manchester University Press.
- , (2007b). The Gender Politics of Political Violence: Women Armed Activists in ETA. *Feminist Review*, 86(1), 132-148.
- Haney, Craig. (2003). "Mental health issues in long-term solitary and 'supermax' confinement", en *Crime & Delinquency*, 49, 124-156
- Haraway, Donna (1995). *Ciencia, cyborgs y mujeres. La reinención de la naturaleza*. Cátedra.
- Harding, Sandra (1993). *Ciencia y feminismo*. Morata.
- Harvey, David (1998). *La condición de la posmodernidad* (228. Bol, 7. zk.). Amorrortu.
- Heidegger, Martin (2016). *Ser y Tiempo*. Trotta.
- Hernandez Holgado, Fernando (2013). Cárceles de mujeres del novecientos: Una rutina punitiva secular. *Segle XX: Revista Catalana d'Història*, 6, 85-112.
- Hernández Mariano (2011). «Enfermedad mental y delito. Una perspectiva europea», *Documentación Social*, 161. 133-152.
- Hernandez, Jone Miren (1999). Auto/biografía. Auto/etnografía. Auto/retrato. *Ankulegi: gizarte antropologia aldizkaria= revista de antropología social*, 0. zenbaki-extra, 53-62.
- , (2008). *Hacia una cartografía de la participación invisible. Proyectando mapas para la intervención local de las mujeres*. Diputación de Barcelona.
- Herrero, Yayo (2013). Miradas ecofeministas para transitar a un mundo justo y sostenible. *Revista de economía crítica*, 16, 278-307.
- , (2016). Ecologismo: una cuestión de límites. *Encrucijadas: Revista Crítica de Ciencias Sociales*, 11, 3.

- Herri Batasuna. (1991). *Urrats Berri ponentzia*.
- Herri Batasuna. (1995). *Oldartzen ponentzia*.
- Hiner, Hilary (2015). Fue bonita la solidaridad entre mujeres: género, resistencia y prisión política en Chile durante la dictadura. *Revista estudios feministas*, 23, 867-892.
- Hochschild, Arlie (1979). Emotion Work, Feeling Rules, and Social Structure. *American Journal of Sociology*, 85(3), 551-575.
- Holgado Fernandez, Hernando (2003). *Mujeres encarceladas: la prisión de Ventas, de la República al franquismo, 1931-1941*. Marcial Pons Historia.
- Hooks, Bell (1984). *Feminist Theory. From Margin To Center*. South End Press.
- , (1990). *Yearning: Race, Gender and Cultural politics*. South End Press.
- Hunt, Nancy Rose (2008). An Acoustic Register, Tenacious Images, and Congolese Scenes of Rape and Repetition. *Cultural Anthropology*, 23(2), 220-253.
- Ibarguren, Leire (2016). *Laura esaten zioten. Miren Odriozolaren borrokak*. Txalaparta
- Ibarra Melo, María Eugenia (2009). *Mujeres e insurrección en Colombia: reconfiguración de la identidad femenina en la guerrilla*. Pontificia Universidad Javeriana, Departamento de Ciencia Jurídica y Política, Facultad de Humanidades y Ciencias Sociales.
- Ibarra, Pedro eta Letamendia, Francisco (2006). Los movimientos sociales. In Miquel Caminal eta Xavier Torrens (ed.), *Manual de ciencia política*. Tecnos.
- Igareda, Noelia (2009). La maternidad de las mujeres presas. In Gemma Nicolás eta Encarna Bodelón (bil.), *Género y dominación. Críticas feministas del derecho y el poder* (159-194. or.). Anthropos.
- Iglesias. Margarita (2005). Trauma social y memoria colectiva. *Historia Actual Online*, (6), 13.
- Imaz, Elixabete (2007). Mujeres reclusas, mujeres invisibles. In Barbara Biglia Barbara eta Conchi San Martín (koor.), *Estado de wonderbra: Entretejiendo narraciones feministas sobre las violencias de género* (189-195. or.). Virus Editorial.
- Imhoff, Débora eta Brussino, Silvina (2016). Socialización política: la dialéctica relación entre individuo y sociedad. In Silvina Brussino (koor.), *Políticamente Contribuciones desde la Psicología Política en Argentina* (37-70. or.). CIECS.
- Ipar hegoa Fundazioa, Bilgune Feminista eta Ernai (2016). *Irla bat izan ez dadin*. Ikasmaterialak.
- IPES-Bilbo. 2010 Llegar a Euskal Herria. Gite-Ipes.
- Irwin, John eta Cressey, Donald. (1962). Thieves, Convicts and the Inmate Culture. *Social Problems*, 10(2), 142-155.
- Jaiki Hadi (2016). *Espetxearen eragin fisiko psikosoziala* [Txostena]. <http://www.etxerat.eus/index.php/es/informes/jaiki-hadi>
- Jaiki Hadi (2018). *Espetxea eta osasuna 2018* [Txostena]. <http://www.etxerat.eus>
- Jakobs, Günther eta Cancio-Melia, Manue (2003[1985]). Derecho penal del enemigo. *Cuadernos Civitas*,
- Jarraí (1992). *V. Biltzarreko ponentzia*
- Jarraí (1996). *VI. Biltzarreko Orreaga ponentzia*.
- Jayawardena, Kumari (1986). *Feminism and Nationalism in the Third World*. Zed Books.
- , (1994). Religious and cultural identity and the construction of Sinhala Buddhist womanhood. *Nivedini*, 2(1), 111-139.
- Jayawardena, Kumari eta de Alwis, Malathi (ed.) (1996). *Embodied Violence: Communalizing Female Sexuality in South Asia*. Zed Books.

- Jelin, Elizabeth (2002). *Los trabajos de la memoria*. Siglo XXI.
- , (2014). Las múltiples temporalidades del testimonio: el pasado vivido y sus legados presentes. *Clepsidra. Revista Interdisciplinaria de Estudios sobre Memoria*, 1, 140-163.
- , (2017). *La lucha por el pasado. Cómo construimos la memoria social*. Siglo XXI.
- Joly, Maud (2008). Las Violencias Sexuadas de La Guerra Civil Española: Paradigma Para Una Lectura Cultural Del Conflicto. *Historia Social*, 61, 89- 107.
- Jorge, Graciela (koor.) (1970). *Maternidad en prisión política*. Trilce.
- Jorquera-Álvarez, Tamara eta Piper, Isabel (2018). Revisión de estudios sobre violencias políticas realizados en la última década. *Psicoperspectivas*, 17(3), 186-198.
- Joseph, James (1998). Democracy's Social Capital: Civil Society in a New Era. *Adress*, urtarrilak 15.
- Joxemi Zumalabe Fundazioa. (2014). *Dabilen harriari goroldiorik ez. Militantzia eta horizontaltasunaz hausnartzen*. Zumalabe Fundazioa. <https://ia801004.us.archive.org/30/items/Dabilenharriarigoroldiorikez/Piedra-querueda-no-cria-musgo.pdf>
- Juan Garfia (1995) *Adios prisión*. Txalaparta
- Juárez, Sandra. M. A. (2016). Los silencios en la memoria. Narrativa de la violencia sexual en la Comisión de la Verdad y Reconciliación de Perú. *EntreDiversidades*, (6), 49-77.
- Juliano, Dolores (2002). *El espejo oscuro: La prostitución*. Icaria, 2002.
- , (2004). *Excluidas y marginales. Una aproximación antropológica*. Editorial Cátedra.
- , (2011). *Presunción de inocencia: Riesgo, delito y pecado en femenino*. Gakoa.
- , (2016). Feminismo y sectores marginales. Logros y retrocesos de un diálogo difícil. *cadernos pagu*, e16474.
- Kampwirth, Karen (2007). *Mujeres y movimientos guerrilleros: Nicaragua, El Salvador, Chiapas y Cuba*. Plaza y Valdés.
- Kilomba, Gramda (2008). *Plantation Memories: Episodes of Everyday Racism*. Unrast.
- Klandermans, Bert (1997a). *Identität und Protest: Ein sozialpsychologischer Ansatz* (41-51. or.). VS Verlag für Sozialwissenschaften.
- , (1997b). *The social psychology of protest*. Blackwell Publishers.
- Kleinman, Arthur; Das, Veena eta Lock, Margaret (1996). Introduction: Social Suffering. *Daedalus*, 125, xi-xx.
- Knepper, Paul eta Scicluna, Sandra (2010). Historical Criminology and the Imprisonment of Women in 19th Century Malta. *Theoretical Criminology*, 14(4), 407-424.
- Koselleck, Reinhart (1993). *Futuro pasado. Para una semántica de los tiempos históricos*. Paidós.
- Krotz, Esteban (1997). La dimensión utópica en la cultura política: perspectivas antropológicas. In Rosalía Winocur (koor.), *Cultura política a fin de siglo*. Facultad Latinoamericana de Ciencias Sociales (FLACSO).
- Kurki, Leena; Morris (2001). Norval. The purposes, practices, and problems of supermax prisons. *Crime and Justice*, vol. 28, p. 385-424.
- LAB sindikatua (1996). *IV. Biltzarreko ponentzia*.
- LAB sindikatua (2000). *V. Biltzarreko ponentzia*.
- Lagarde, Marcela (1990). *Los Cautiverios de Las Mujeres Madresposas, Monjas, Putas, Presas y Locas*. UNAM.
- Landaeta, Romane (2018). Historia y memoria: debates y tensiones en el siglo XXI. *Revista de la Academia/Volumen 25/55-85*.

- Laqueur, Thomas (1995). La construcción del sexo: cuerpo y género desde los griegos hasta Freud. *Dynamis: Acta Hispanica ad Medicinae Scientiarumque Historiam Illustrandam*, 15, 505-507.
- Lechner, Norbert (bil.) (1987). *Cultura política y democratización*. FLACSO.
- Letamendia, Arkaitz (2011). Represión legal y vínculos organizacionales. El caso del conflicto vasco. In Pedro Ibarra eta Mercè Cortina (bil), *Recuperando la radicalidad. Un encuentro en torno al análisis político crítico* (149-169. or.). Hacer.
- Letamendia, Francisco (1994). *Historia del nacionalismo vasco y de E.T.A. Introducción a la historia del País Vasco; ETA en el franquismo (1951-1976)*. R & B ediciones.
- Levi, Primo (1986). *Los hundidos y los salvados*. Muchnik.
- Licitra, Josefina (2020). *38 estrellas: la mayor fuga de una cárcel de mujeres de la historia. (No Title)*. Sex Barral.
- Ligero, Juan Andrés (2002). La identidad robada. Análisis del discurso de los usuarios de programas de atención a drogodependientes dentro de las prisiones. Fundación CREFAT.
- Lines, Margaret (2012). *Milicianas: Women in Combat in the Spanish Civil War*. Lexington Books.
- Llera, Francisco eta Leonisio, Rafael (2015). Los secuestros de ETA y sus organizaciones afines, 1970-1997: una base de datos. *Revista Española de Ciencia Política*, 37, 141-160. <https://recyt.fecyt.es/index.php/recp/article/view/37652/21170>
- Llona, Miren (2020). La memoria de las otras: feminismo y recuerdo. *Mélanges de la Casa de Velázquez*, 50(1), 291-294.
- Londoño, Luz María eta Nieto, Yoana Fernanda (2006). *Mujeres no contadas: procesos de desmovilización y retorno a la vida civil de mujeres excombatientes en Colombia, 1990-2003*. Carreta Editores EU.
- Longoni, Ana (2007). *Traiciones. La figura del traidore n los relatos acerca de los sobrevivientes de la represión*. Norma.
- Lopez Adan, Emilio (2021). *Borroka armatua Euskadin 1967-2011*. Editorial Maiatz.
- López de La Roche, Fabio (2000). Aproximaciones al concepto de cultura política. *Convergencia Revista de Ciencias Sociales*, 22, 93-123. <https://convergencia.uaemex.mx/article/view/1835>
- López, Idoia (2012). *El Umbral del Dolor*. Autodefentsa Taldea.
- Lorenzo, Cesar (2013). *Carceles en llamas*. Virus.
- Losada Varela, Denis (2022). *Cuerpos en prisión: tramas de sentido en torno al yo en la cotidianidad carcelaria* [Doktorego tesia]. Universidad Complutense de Madrid.
- Lovenduski, Joni (2002). *Feminizing politics. Women: a Cultural Review*, 13(2), 207-220.
- Luciak, Ilja. A. (2001). Igualdad de género y la izquierda revolucionaria: el caso de El Salvador. In María Luisa Tarrés Barraza (koor.), *Género y cultura en América Latina: Cultura y participación política* (134-174. or.). El Colegio de México.
- Lugo, Melissa (2016). Measuring Organizational Climate in Prisons. *Journal of Contemporary Criminal Justice*, 32(4), 357-382.
- Luna, María Teresa (2006). *La constitución del sujeto político en el marco de la democracia*. CINDE.
- Lyons, Tanya (2002). Guerrilla Girls and Women in the Zimbabwean National Liberation Struggle. In Jean Allman, Susan Geiger, Nakanyike Musisi (koor.), *Women in African Colonial Histories* (305-326. or.). Indiana University Press.
- Magallón, Carmen (2006). *Mujeres en pie de paz*. Siglo XXI.
- Majuelo, Emilio (2000). *LAB sindikatuaren historia. Langile Abertzaleen Batzordeak (1975-2000)*. Txalaparta.

- Makazaga, Xabier (2009). *Espainiako torturatzaillearen eskuliburua*. Txalaparta.
- Malafaia, Carla; Fernandes-Jesus, Maria; Ribeiro, Norberto; Neves, Tiago; Fonseca, Laura eta Menezes, Isabel (2012). Perspectivas e subjetividades sobre a participação política e cívica: jovens, família e escola. *Agência e participação cívica e política: jovens e imigrantes na construção da democracia*. (59-94). Livpsic.
- Mantilla, Julissa (2010). La experiencia de la comisión de la verdad y Reconciliación del Perú. In María Sonderéguer eta Violeta Correa (ed.), *Violencia de género en el terrorismo de Estado: políticas de memoria, justicia y recuperación* (16-25. or.). Quilmes Lanús, UNLAhem, Cedhem, Unqui.
- Manzanos Bilbao, Cesar (2005). La cárcel, ¿para qué y para quién?. In José Luis Segovia Bernabé, Elisabet Almeda Samaranch, Julián Carlos Ríos Martín eta Cesar Manzanos Bilbao, *Las cárceles de la democracia: del déficit de ciudadanía a la producción de control* (143-164. or.). Ediciones Bajo Cero.
- Maquieira, Virginia (2001). Género, diferencia y desigualdad. In Virginia Maquieira (koor), *Feminismos: Debates teóricos contemporáneos* (127-190. or.). Alianza editorial.
- Marcus, Sharon (1994). Cuerpos en lucha, palabras en lucha: una teoría y una política de prevención de la violación. *Revista Travesías*, 2(2), 59-85.
- Martin -Baró, Ignacio (2003). *Poder, ideología y violencia*. Trota.
- Martin, Itxaso (2015). *Eromena, azpimemoria eta isiltasuna (k) idazten: Hutsune bihurtutako emakumeak garaiko gizartearen eta moralaren ispilu* [Doktorego tesia]. UPV/EHU.
- Martín, Teresa; Miranda, Jesús y Vega, Cristina (eds.) (2005). *Delitos y fronteras: Mujeres extranjeras en prisión*. Universidad Complutense.
- Martinez, Leire (2016). Euskal emakume preso politikoaren egoera bistaratzen. In. Gite-Ipes Bilbo (koor), *Kartzela kalera. Emakumeak eta kartzela* (52-67.or.). Gite-Ipes.
- Martinez, Nagore; Martin, Nerian; Usabiaga, Oidui; Martos, Daniel. (2015). Jarduera fisikoaren rola emakume presoen bizi-kalitatean. Euskal Autonomia Erkidegoko bost preso ohien espeteratze- al diko ongizatearen inguruko bizipenak. *Uztaro*, (95), 99-115
- Martinez, Nagore. (2018). *Jarduera fisiko eta kirolaren esanahiak espetxean: emakume presoen ahotsak argitara*. [Doktorego tesia]. UPV/EHU.
- Martinez, Zesar (2002). *Giza egintza, gizartearen egiturak eta aldaketa sozialaren produkzioa eta gidaritza: globalizazioari buruzko diskurtso sozio-ideologikoak* [Doktorego tesia]. UPV/EHU.
- Martínez-Palacios, Jone (2014). *Berrikuntza Demokratiko Feministak*. Emakunde. [http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones\\_subvencionadas2/es\\_def/adjuntos/beca](http://www.emakunde.euskadi.eus/contenidos/informacion/publicaciones_subvencionadas2/es_def/adjuntos/beca).
- , (2018). ¿Qué significa participar? Reflexiones sobre la construcción de las imágenes de la participación. *Papers. Revista de Sociología*, 103(3), 367-393. <https://doi.org/10.5565/rev/papers.2319>
- Martini, Alice (2020). Sobre política y civilización: el terrorismo, lo político y los desafíos al orden internacional. *Política y sociedad*, 57(1) 175-195.
- Mazurana, Dyan (2013). Opposition Groups Women, Girls, and Non-State Armed. In Carol Cohn (ed.), *Women and wars* (146-168. or.). Polity Press.
- Mbembe, Achille (2001). As formas africanas de auto-inscricao. *Estudos Afro-Asiáticos*, 23(1), 171-209.
- McNay, Lois (1992). *Foucault and Feminism: Power, Gender and the Self*. Polity Press.
- Mendia Azkue, Irantzu; Luxán Serrano, Marta; Legarreta Iza, Matxalen; Guzmán Orellana, Gloria; Zirion Landaluze, Iker eta Azpiazu Carballo, Jokin (koor.) (2014). *Otras formas de (re)*

- conocer. Reflexiones, herramientas y aplicaciones desde la investigación feminista.* UPV/EHU.
- Mendia, Irantzu (2013). Trantsiziozko justizia: dilemak eta kritika feminista. *Cuadernos de Trabajo Hegoa*, 59. zk.
- , (2014). *La división sexual del trabajo por la paz: género y rehabilitación posbélica en El Salvador y Bosnia-Herzegovina.* Tecnos.
- , (2019). Justicia transicional en perspectiva feminista. Riesgos y contradicciones en el contexto neoliberal. In Karlos Pérez de Armiño eta Iker Zirion Landaluze (koor.), *Pax crítica. Aportes teóricos a las perspectivas de paz posliberal* (265-296. or.). Tecnos.
- , (2022). *Que salga todo a la luz Violaciones de derechos humanos de las mujeres en el Sáhara Occidental ocupado (1975-2021).* Euskal fondoa.
- Mendia, Irantzu; Guzmán, Gloria eta Landaluze, Iker (2017). Género y justicia transicional: movimientos de mujeres contra la impunidad. UPV/EHU–HEGOA. [http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/320/Genero\\_y\\_justicia\\_transicional.pdf](http://publicaciones.hegoa.ehu.es/uploads/pdfs/320/Genero_y_justicia_transicional.pdf), 1495105356.
- Mendiola, Ignacio. (2014). *Habitar lo inhabitable. La practica punitiva de la tortura.* Bellaterra.
- , (2017). De la biopolítica a la necropolítica: la vida eraginpean a la muerte. *Ikasia, filosofia-aldizkaria*, 75, 215-245.
- , (2019). La producción sociopolítica de la tortura. In Gabriel Ignacio Anitua eta Diego Zysman Quirós (ed.), *La tortura. Una práctica estructural del sistema penal, el delito más grave* (119-146. or.). Didot.
- Mingione, Enzo (1993). *Las sociedades fragmentadas. Una sociología de la vida económica más allá del paradigma del mercado.* Ministerio de Trabajo y Seguridad Social.
- Miranda Lopez, María Jesus (2002). Cárceles, ¿para qué? *Política y sociedad*, 39(2), 377-398.
- Moghadam V. M. (1993) *Modernizing Women. Gender and Social change in the Middle East.* London: Lynne Rienner Publishers.
- Mohanty, Chandra Talpade (1984). Under Western Eyes: Feminist Scholarship and Colonial Discourses. *Boundary*, 2, 333-358.
- Monárrez, Julia Estela (2017). La amnesia nacional de las víctimas de la tortura. *Estudios sociológicos*, 35(104), 239-265.
- Montagut, Muriel (2016). *El ser y la tortura.* Universidad de los Andes.
- Montalegre Iturra, Jorge (2009). Humor gráfico y evasiones imaginarias en la resistencia cultural de prisioneras y prisioneros políticos de Chile y Uruguay: acciones colectivas y condiciones para la resiliencia en la prisión política. *Diálogos de la comunicación*, (78), 9.
- Montoto, Marina (2020). «Nosotros también somos víctimas»: las luchas por la justicia y el reconocimiento de las víctimas del franquismo en la Querrela Argentina. *Revista de Antropología Social*, 29(2), 199-211.
- Morales, Maria Virginia (2011). *De la cocina a la plaza: La categoría «madre» en el discurso de las Madres de Plaza de Mayo y su repercusión en la esfera de lo político* (5. Bol). Eduvim.
- Morales, María Virginia (2017). Escisión y dos modos de ser «Madres de Plaza de Mayo»: tensión y complejidad en la socialización de la maternidad. *Revista interdisciplinaria de Estudios de género de El Colegio de México*, 3(6), 36-68.
- Morán, María Luz (1996). Sociedad, cultura y política: continuidad y novedad en el análisis cultural. *Zona Abierta*, 77-78, 1-31.
- , (1999). Los estudios de cultura política en España. *Reis*, 85/99, 97-129.

- Moreno Gómez, Francisco (2009) Guerrilleras y Enlaces: Las mujeres en la resistencia antifranquista. *Andalucía en la Historia*, 25, 26-29.
- Moreno, Monica (2013): «La dictadura franquista y la represión de las mujeres», in Mary Nahs (ed.), *Represión, resistencia y memoria. La dictadura franquista y la represión de las mujeres*. Comares. 1-21.
- Morgan, Robin. (1989). *The Demon Lover: The Roots of Terrorism*. Pitakus.
- Mostov, Julie (2000) “Sexing the Nation/Desexing the Body: Politics of National Identity in the Former Yugoslavia” in Tamar Mayer (ed.) *Gender Ironies and Nationalism: Sexing the Nation*, pp.89-112. New York: Routledge
- Moya, Carlos. (1984). *Señas de Leviatán: estado y sociedad industrial. España 1936-1980.*, Alianza.
- Münkler, Herfried (2005). *Viejas y nuevas guerras. Asimetría y privatización de la violencia*. Madrid, Siglo XXI.
- Munú, A., Cristina, A., Liliana, G., Miriam, L., eta Elisa, T. (2001). *Ese infierno: Conversaciones de cinco mujeres sobrevivientes de la ESMA*.
- Murias Morcillo, Celia (2020). Activismos feministas en África. Tendencias y estrategias de los nuevos movimientos. In Itxaso Domínguez de Olazábal eta Elsa Aimé (koo.). *Informe Africa, 2020. Transformaciones, movilización y continuidad* (63-74. or.). Fundación Alternativas.
- Murua Uria, Imanol (2016). *Un final para ETA. Crónica de un proceso inacabado*. Ttarttalo.
- Narayan, Uma (1997). *Dislocating Cultures: Identities, Traditions, and Third-World Feminism*. Routledge.
- , (2013). *Dislocating Cultures: Identities, Traditions, and Third World Feminism*. Routledge.
- , (2020). «Westernization», Respect for Cultures and Third-World Feminists. In Steven Seidman eta Jeffrey C. Alexander (ed.), *The new social theory reader* (376-388. or.). Routledge.
- Naredo, María (2004). «¿Qué nos enseñan las reclusas?: La criminalización de la pobreza desde la situación de reclusas extranjeras y gitanas». *Humanismo y Trabajo Social*, 3, 67-94.
- (2007). «Reclusas con hijos/as en la cárcel». In: AlmedA, Elisabet y Bodelón, Encarna (ed.). *Mujeres y Castigo: Un enfoque socio-jurídico y de género*. Dykinson.
- Nari, Marcela; Fabre, Andrea; Hauser, Silvia; Calandra, Nilda, Fraguas, Noemi eta Friedman, Jacqueline (2000). Me queda la palabra. In *Voces de mujeres encarcelada*. Nari eta Fabre (bil). Catalogós.
- Narotzky, Susana (2004). Una historia necesaria: ética, política y responsabilidad en la práctica antropológica. *Relaciones. Estudios de historia y sociedad*, 25(98), 107-145.
- Nash, Mary (1995). *Defying Male Civilization: Women in the Spanish Civil War*. Arden Press.
- , (2004). *Mujeres en el mundo: historia, retos y movimientos* (247. Bol.). Alianza editorial.
- , (ed.) (2013). *Represión, resistencias, memoria: Las mujeres bajo la dictadura franquista*. Comares.
- Nash, Mary eta Cifuentes, Irene (1999). *Rojas: las mujeres republicanas en la guerra civil*. Taurus.
- Navarro, Antonia eta Sanchez, Jorge Diego (2020). Representación de mujeres armadas en la posguerra de Sri Lanka (1983-2009). In Juan Manuel Martín Martín (ed.), *Memoria traumática: visiones femeninas de guerra y posguerra* (317-330. or.). Dykison.
- Navarro, Marysa (1989). The personal is political: Las Madres de Plaza de Mayo. In Susan Eva Eckstein (ed.), *Power and popular protest: Latin American social movements* (241-258. or.). Expanded Edition.
- Nesiah, Vasuki. (2006). Truth commissions and gender: Principles, policies, and procedures. *International Center for Transitional Justice*, 18, 7-8.



- Núñez-Díaz Balart, Mirta (2004). Tríptico de mujeres de posguerra: de la mujer comprometida a la marginal. *Historia del Presente*, 4, 47-60.
- Nusair, Isis (2008). Gendered, Racialized and Sexualized Torture at Abu Ghraib. In Robin L. Riley, Chandra Talpade Mohanty eta Minnie Bruce Pratt (ed.), *Feminism and War: U.S. alderatzea Imperialism (179-193. or.)*. Zed Books.
- Oberti, Alejandra (2006). La memoria y sus sombras. In Jelin Elizabeth eta Susana Kaufman (bil.), *Subjetividad y figuras de la memoria (73-110. or.)*. Siglo XXI.
- , (2015). *Las revolucionarias. Militancia, vida cotidiana y afectividad en los setenta*. Edhasa.
- Oberti, Alejandra., eta Bacci, Claudia. (2014). Sobre el testimonio: una introducción. *Clepsidra. Revista interdisciplinaria de estudios sobre memoria*, 1(1), 5-13.
- Odriozola, Onintza (2016). *Erakunde bat baino gehiago: ETA mugimendu gisa (1958-68)* [Doktorego tesia]. UPV/EHU.
- Olabarria, Zigor (2021) *Txori urdinak. Espetxearen erretratu bat*. Argia.
- Olariaga, Andoni (2020). *Euskal matxinada. Genealogia eta egungo eztabaidak*. Txalaparta.
- Oliver Olmo, Pedro eta Lorenzo Rubio, César (2019). La construcción histórica de los conceptos de «preso político» y «preso social» en la España contemporánea. *Millars. Espai i Història*, 46(1), 193-217.
- Ormazabal, Andere (2019). *Herri mugimenduen eta ezkerreko gobernuen arteko ezinak eta eginak: Gipuzkoako Foru Aldundiko gobernantza sareak aztergai (2011-2015)* [Doktorego tesia]. EHU/UPV.
- Ormazabal, Markel eta Sienna, Irati (2019). *Eta segi Aurrera. Ezker Abertzaleko gazte antolakundeen 40 urteko historia bat*. Txalaparta.
- Ortolani, Luis (1972). Moral y proletarización. *Políticas de la Memoria (2004-2005)*, (5), 93-102. [Jatorrizkoa Luis Parra goitizenez argitaratua, *La Gaviota Blindada*, 0. zk., Cárcel de Rawson]. <https://ojs.politicadela memoria.cedinci.org/index.php/PM/article/view/399/375>
- Osborne, Raquel (2009a). *Apuntes sobre violencia de género*. Bellaterra.
- , (2009b). «Entonces ellas se convertían en rojas»: desencuentros y amistades entre prostitutas y rojas en las cárceles franquistas. *Mora (Buenos Aires)*, 15(2), 0-0.
- Ott, Sandra (1993). «Indarra»: algunas reflexiones sobre un concepto vasco. In Julian Pitt-Rivers eta J. G. Peristiany (koor.), *Honor y gracia (252-279. or.)*. Alianza.
- Ozano, K. A. (2008). The role of physical education, sport and exercise in a female prison (Unpublished MSc dissertation). University of Chester, UK
- Pando, María Jesús eta Rodríguez, María Pilar (2020). Las mujeres de ETA: activismo y transgresión. *Arbor*, 196(796), a554.
- Panisello, Susana (2011). *Els deportats d'ETA: els oblidats del conflicte (1984-1998)* [Doktorego tesia]. Universitat Pompeu Fabra.
- Paredes, José Manuel (2012). La pasión de Juana de Arco/ Dies Irae. In Juan Antonio García Amado eta José Manuel Castañón (koor.), *Torturas en el cine (47-78. or.)*. Cine Derecho.
- Parra, Eduardo. (2015). La tortura en la Transición Española: Herrera de la Mancha un caso ejemplar. *Clío & Crimen: Revista del Centro de Historia del Crimen de Durango*, (12), 233-250.
- Parra, Eduardo. (2015). La tortura en la Transición Española: Herrera de la Mancha un caso ejemplar. *Clío & Crimen: Revista del Centro de Historia del Crimen de Durango*, (12), 233-250.

- Parry, John T. (2010). *Understanding Torture: Law, Culture and State Violence*. University of Michigan Press.
- Pascual, Jakue (2015). *Movimiento de resistencia I. Años 80 en Euskal Herria. Contexto, crisis y punk*. Txalaparta.
- , (2019). *Movimiento de resistencia II. Años 80 en Euskal Herria. Radios libres, fanzines y okupaciones*. Txalaparta.
- Passerini, Luisa (2003). Memories Between Silence and Oblivion. In Katharin Hodgkin eta Sussanah Radstone (ed.), *Memory. History. Nation. Contested pasts* (238-254. or.). Routledge.
- Peller, Mariella (2018). Las paradojas de la revolución. Figuraciones del cuerpo en la prensa del PRT-ERP en la Argentina de los años setenta. *Revista Izquierdas*, 41, 77-99. <https://dialnet.unirioja.es/servlet/articulo?codigo=7331176>
- Pereyra, Daniel (2004). Argentina: militar torturatzailleak. *Bien bitartean*, 90, 79-96.
- Pérez Orozco, Amaia (2004). Estrategias feministas de deconstrucción del objeto de estudio de la economía. *Foro Interno*, 4(1), 87-11.
- , (2014). *Subversión feminista de la economía: aportes para un debate sobre el conflicto capital-vida*. Traficantes de sueños
- Pérez, Moira (2021). Abolicionismo penal y utopías del presente. Más allá del castigo como respuesta a la violencia de género. In Victoria Fraga Utges eta Gisela Santangelo (bil), *Violencias sexuales, género y sistema penal. Miradas actuales sobre problemas estructurales*. Editores del Sur.
- Pérez, Natalia (2009). La tortura como inscripción del dolor en el cuerpo. *Tramas. Subjetividad y procesos sociales*, 32, 99-120.
- Perez, Pau (2014). *Incomunicacion y tortura. Analisis estructurado en base al protocolo de Estambul*. Ekimen editoriala eta Irredentos libros.
- Petras, James (1999). *El Informe Petras*. Hiru.
- Pfaff, Nicolle. (2009). Youth culture as a context of political learning. How young people politicize amongst each other. *Young*, 17(2), 167–189. <https://doi.org/10.1177/110330880901700204>
- Picornell, Mercé (2015): Autoría, autoridad y verdad. Apuntes para una nueva lectura «en frío» de la polémica Menchú-Stoll. *Kamchatka. Revista de análisis cultural*, 6, 349-378.
- Pizarro, Jesenia eta Narag, Raymund. (2008). “Supermax Prisons. What we know, What we do not know, and Where we are going”. *The Prison Journal*, 88 (1), 23-42.
- Pizarro, Jesenia., Zgoba, Kristen eta Haugerbrook, Sabrina. (2014). “Supermax and recidivism: An examination of the recidivism covariates among a sample of supermax ex-inmates”. *The Prison Journal*, 94 (2), 180-197.
- Platero, Raquel. Lucas (2015). La agencia de los jóvenes trans\* para enfrentarse a la transfobia. *Revista internacional de pensamiento político*, 9, 183-193.
- Pollak, Michael eta Heinich, Nathalie (2006). El testimonio. In Michael Pollak (ed.), *Memoria, olvido, silencio. La producción social de identidades frente a situaciones límite* (53-112. or.). Ediciones al Margen.
- Poma, Alice; Paredes, Juan Pablo eta Gravante, Tomasso (2019). Resistencias y emociones del activismo en contextos represivos, autoritarios o violentos. Una introducción. *Polis. Revista Latinoamericana*, 53(18).
- Portelli, Alessandro (1991). Lo que hace diferente a la historia oral. In Dora Schwarztein (ed.), *La historia Oral* (35-51. or.). Centro Editor de América Latina.

- Portelli, Serge (2011). *Pourquoi la torture?* Vrin.
- Porter, Elisabeth J. (2008). *Peacebuilding: Women in International Perspective*. Routledge.
- Preciado, Paul B. (2019). *Un apartamento en Urano. Crónicas del cruce*. Anagrama.
- Pujadas, Joan (1992) *El método biográfico. El uso de las historias de vida en ciencias sociales*. Centro de Investigaciones Sociológicas.
- Rabotnikof, Nora (2005). *En busca de un lugar común. El espacio público en la teoría política contemporánea*. Instituto de Investigaciones Filosóficas-UNAM.
- Rajasingham-Senanayake, D. (2000). Ambivalent Empowerment: Women in Displacement, War and Peace. *South Asian Refugee Watch*, 2(2), 1-27.
- , (2001): Ambivalent Empowerment: The Tragedy of Tamil Women in Conflict., In Rita Manchanda (ed.), *Women, War, and Peace in South Asia* (102-130. or.). Sage Publications.
- Ramírez de la Piscina Martínez, Txema; Murua, Iñaki eta Idoiaga, Patxo (2016). Prensa y conflicto vasco (1975-2016): Recopilatorio de actitudes y vicisitudes. *Revista Latina de comunicación social*, 71, 1007-1035.
- Reardon, Betty (1985). *Sexism and the war system*. Teachers College Press
- , (1993). *Women and peace: feminist visions of global security*. State University of New York Press.
- Reca, Maralia. (2007). Danza/movimiento terapia en la reconstrucción del mundo del sobreviviente de tortura por razones políticas. *Hologramática*, 6(4), 49-65.
- , (2021) *Tortura y trauma. Danza/movimiento terapia en la reconstrucción del mundo de sobrevivientes de tortura por causas políticas*. Biblos
- Reif, Linda (1986). Women in Latin American guerrilla movements: A comparative perspective. *Comparative Politics*, 18(2), 147-169.
- Reinhart Koselleck (1993). *Futuro pasado. Para una semántica de los tiempos históricos*. Paidós.
- Reiter, Keramet (2014). The Pelican Bay Hunger Strike: Resistance Within the Structural Constraints of a U.S. Supermax Prison. *South Atlantic Quarterly*, 113(3), 579-611.
- Rejali, Darius (2009). *Torture and democracia*. Princeton University Press.
- Rekarte, Izaskun (2019): *Gu ere torturatuak izan ginen* [Master Amaierako Lana]. EHU/UPV.
- Resina, Jorge eta Limon, Pedro (2014). Del consenso al tiki-taka: redefiniendo el nacionalismo español desde la prensa escrita a través del fútbol. *Política y sociedad*, 51(2), 297-336.
- Ribas, Natalia; Almeda, Elisabet; Bodelon, (2005), *Rastreado lo invisible. Mujeres extranjeras en las cárceles*. Anthropos.
- Ribas, Ricard; Vinyes, Higón, A. M. A., Verdugo, V., Rodríguez, M. V. M., San Francisco, M. E., Texeira, E. B., ... & Mariani, L. (2017). *Cárceles de mujeres: la prisión femenina en la posguerra* (Vol. 14). EDITORIAL SANZ Y TORRES SL
- Ribeiro, Djamila (2020). *El lugar de enunciación*. Ediciones ambulantes.
- Riches, David (1988). *El fenómeno de la violencia*. Pirámide.
- Ricoeur, Paul (1999). La marca del pasado. *Historia y grafía*, 13, 157-185.
- , (2007). Historia y memoria. *La escritura de la historia y la representación del pasado. Historizar el pasado vivo en América Latina*. 1-27.
- Ríos, Julian Carlos., eta Cabrera, Pedro. Jose. (2002). Mirando el abismo. Régimen cerrado. Universidad Pontificia Comillas. Fundación Santa María.

- Risso, Mariana (2012). Entre el nudo subjetivo y el nudo política. In Baica Gonzalez eta Mariana Risso (bil. ), *Las laurencias. Violencia sexual y de género en el terrorismo de Estado uruguayo* (39-52. or.). Trilce.
- Robben, Antonius eta Nordstrom, Carolyn (ed.) (1995). *Fieldwork Under Fire. Contemporary Studies of violence and survival*. University of California Press.
- Rodó-Zarate, Maria (2021). *Interseccionalidad*. Bellaterra.
- Rodrigo, Antonina (2002). *Mujeres para la historia*. Ediciones Carena.
- Rodríguez, Alba Nubia (2008). Entre el compromiso y la huida: mujeres militantes en los grupos insurgentes colombianos. @mnis. *Revue de Civilisation Contemporaine de l'Université de Bretagne Occidentale*, 8.
- , (2017). Motivaciones, ingreso y experiencias participativas de las mujeres en ETA. *Política y sociedad*, 54(2), 409-429. <http://doi.org/10.5209/POSO.52741>
- Rodríguez, Eider (2022). *Eraikuntzarako materiala*. Susa.
- Rodríguez, Natalia (2015). Cuerpo, sexualidad y violencia simbólica en la tortura sexual. *Revista de estudios sociales*, 54, 81-92.
- Rodríguez, Sofia (2023). Mujeres y violencia revolucionaria. Nuevas aportaciones sobre las milicianas en la guerra civil española. *Historia Contemporánea*, 72, 531-558.
- Rodríguez, Zuriñe (2013): Mujeres de ETA en la prensa escrita. *Mediatika. Cuadernos de Medios de Comunicación*, 14, 151-167.
- Rose, Clive; Ferracuti, Franco; Horchem, Hans; Janke, Peter eta Léauté, Jacques (1986). *Informe de la Comisión Internacional sobre la Violencia en el País Vasco*. Gasteiz. Eusko Jaurlaritzza.
- Rosenwein, Barbara H. (2006). *Emotional communities in the early middle ages*. Cornell University Press.
- , (2010). Problems and Methods in the History of Emotions. *Passions in context*, 1(1), 1-32.
- Ross, Fiona (2006). La elaboración de una Memoria Nacional: la Comisión de Verdad y Reconciliación de Sudáfrica. *Cuadernos de Antropología Social*, 24. <https://doi.org/10.34096/cas.i24.4408>
- Rothman, David (1980). *Social Control: The Uses and Abuses of the Concept in the History of Incarceration* [Txosten argitaratu gabea]. Department of History, Columbia University.
- Rubin, Ashley T. (2015). Resistance or Friction: Understanding the Significance of Prisoners' Secondary Adjustments. *Theoretical Criminology*, 19(1), 23-42.
- , (2017). Resistance as Agency? Incorporating the Structural Determinants of Prisoner Behaviour. *British journal of criminology*, 57(3), 644-663.
- Rubin, Gayle (1975). The traffic in women: Notes on the «political economy» of sex. In Rayna R. Reiter (ed.), *Toward an Anthropology of Women* (157-210. or.). Monthly Review Press.
- Rubin, Jeffrey W. (1995). Defining Resistance: Contested Interpretations of Everyday Acts. *Studies in Law, Politics & Society*, 15, 237-260.
- Ruddick, Sara (1989). *Maternal Thinking: Toward a Politics of Peace*. Beacon Press.
- Ruiz Torrado, Maria (2016a). Espetxekeo genero-diskriminazioa hizpide: Euskal Herriko presondegietak atxiloen, langileen eta elkarteetako kideen ikuspegiak. *Uztaro: giza eta gizarte-zientzien aldizkaria*, 98, 5-29.
- , (2016b): *Kartzela genero-erakunde bezala: genero-bereizkeriak, erresistentzia-praktikak eta agentzia Euskal Herrian espetxeratutako emakumeen artean*. UEU.
- Ruiz, Olga María (2015). El entramado cultural de la militancia revolucionaria. Una aproximación a la experiencia del Partido Revolucionario de los Trabajadores-Ejército Revolucionario del Pueblo y Montoneros de la Argentina en los setenta. *Revista Izquierdas*, 25, 29-53.

- Ruiz; Maria, Etxebarrieta. Oihana, Vara, Laura (2019). *Argi-izpiak txarrantxen artean*. UEU
- Ruzafa, Rafael (2017). Caras tristes de un proceso histórico. La desindustrialización de la Ría de Bilbao en el último cuarto del siglo XX. *Historia, trabajo y sociedad*, 8, 11-33.
- Sagastizabal, Marina (2014). Vivencias del tiempo social: compaginar la participación política, el cuidado y el empleo. In Emilia Araújo, Eduardo Duque, Mónica Franch eta José Durán (ed.), *Tempos sociais e o mundo contemporâneo. As crises, as fases e as ruturas* (220-231 or.). Centro de Estudos de Comunicação e Sociedade (CECS), Universidade do Minho.
- , (2017). *Estudio sobre el trabajo doméstico-familiar; el empleo y la participación sociopolítica* (Doktorego tesia).
- Sagot, Montserrat (2017). ¿Un mundo sin femicidios? Las propuestas del feminismo para erradicar la violencia contra las mujeres. In Montserrat Sagot (koor.). *Feminismos, pensamiento crítico y propuestas alternativas en América Latina* (61-78. or.). CLACSO, 61-78.
- Samayoa, Joaquin (1987). Guerra y deshumanización: una perspectiva psicosocial. *ECA: Estudios Centroamericanos*, 42(461), 213-225.
- Sánchez, Cristina (2019). Purificar y purgar. La guerra civil en las cinco villas desde una perspectiva feminista. *Filanderas*, 4, 7-25.
- Sanz, Alexia (2005). El método biográfico en investigación social: potencialidades y limitaciones de las fuentes orales y los documentos personales. *Asclepio*, 57(1), 99-116.
- Sarachild, Kathie (1978). Consciousness-Raising: A Radical Weapon. In Redstockings, *Feminist Revolution* (144-150. or.). Random House.
- Sastre Díaz, Camila F. (2021). Experiencia y subjetividad de mujeres sobrevivientes de violencia sexual durante el conflicto armado interno peruano. *Antipoda. Revista de Antropología y Arqueología*, 44, 71-93.
- Satruestegi Andrés, Imanol (2017). Ezkerraren ezkeraz: the left wing of the left. *Gerónimo de Uztariz*, 33, 73-91.
- Scheper-Hughes, Nancy (1995). The Primacy of the Ethical: Propositions for a Militant Anthropology. *Current anthropology*, 36(3), 409-440.
- Scheper-Hughes, Nancy eta Bourgois, Philippe I. (ed.) (2004). *Violence in war and peace: An Anthology* (5. Bol.). Blackwell.
- Schiller, Margrit (2009). *Una batalla por los recuerdos*. Letraeñe.
- Segato, Rita (2003). *Las estructuras elementales de la violencia: contrato y status en la etiología de la violencia* (334. Bol.). Universidade de Brasília, Departamento de Antropología.
- , (2010). La violencia sexual y el discurso del derecho. In María Sonderéguer eta Violeta Correa (ed.), *Violencia de género en el terrorismo de Estado: Políticas de memoria, justicia y reparación* (34-41. or.) Quilmes, Lanús, UNLA eta CEDHEM, UNQUI.
- , (2016). *La guerra contra las mujeres*. Traficantes de sueños.
- , (2018). *Contrapedagogías de la crueldad*. Prometeo Libros.
- Segovia, Olga (2007). Espacios públicos urbanos y construcción social: una relación de correspondencia. In Olga Segovia (ed.), *Espacios públicos urbanos y construcción social. Hacia un ejercicio de ciudadanía* (15–28. or.). Ediciones SUR.
- Segovia, Olga eta Dascal, Guillermo (ed.) (2000). *Espacio público, participación y ciudadanía* (51-69. or.). Ediciones Sur.
- Semprún, Jorge (1995). *La escritura o la vida*. Círculo de lectores
- , (2016). *Ejercicios de supervivencia*. Grupo Planeta Spain.

- Sennet, Richard (1998). *La Corrosión del Carácter: las consecuencias personales del trabajo en el nuevo capitalismo*. Anagrama 2000.
- Sewell, William H. (2006). Una teoría de estructura: dualidad, agencia y transformación. *Arxius*, 14, 145-176.
- Sharoni, Simona (1995). *Gender and the Israeli-Palestinian Conflict: The Politics of Women's Resistance*. Syracuse University Press.
- , (1998). Gendering Conflict and Peace in Israel/Palestine and the North of Ireland. *Millennium*, 27(4), 1061-1089.
- , (2001). Rethinking Women's Struggles in Israel-Palestine and in the North of Ireland. In Caroline Moser eta Fiona Clark (ed.), *Victims, Perpetrators or Actors? Gender, Armed Conflict and Political Violence* (85-98. or.). Zed Books.
- , (2010): Conflict Resolution: Feminist Perspectives. In Robert A. Denemark (ed.), *The International Studies Encyclopedia* (2. Bol.). Blackwell Publishers. <https://doi.org/10.1093/acrefore/9780190846626.013.130>
- Sigsworth, Erroma eta Valji, Nahia (2012). Continuities of Violence against Women and the Limitations of Transitional Justice: The Case of South Africa. In Susanne Buckley-Zistel eta Ruth Stanley (ed.), *Gender in Transitional Justice* (115-135. or.). Palgrave.
- Sironi, Farncoise (1999). *Bourreaux et victimes: psychologie de la torture*. Odile Jacob.
- Snow, David. A.; Rochford, E. Burke; Worden, Steven K. eta Benford, Robert D. (1986). Frame alignment processes, micromobilization, and movement participation. *American Sociological Review*, 51(4), 464-481.
- Sola, Adriana C. eta López, Teresa M. O. (2020). La investigación sobre la represión femenina y violencia sexuada en el franquismo. Evolución historiográfica. *Ayer. Revista de Historia Contemporánea*, 118(2), 347-361.
- Solé, Belen eta Díaz, Beatriz (2014). «Era más la miseria que el miedo». *Mujeres y franquismo en el Gran Bilbao: represión y resistencias..* Asociación Elkasko de Investigación Histórica.
- Sonderéguer, Maria (2012). Violencias de género en el terrorismo de Estado argentino. Baica Gonzalez eta Mariana Risso (bil. ), *Las laurencias. Violencia sexual y de género en el terrorismo de Estado uruguayo* (105-116. or.). Trilce.
- Soto, Iñaki (2018). *ETAren zuzendaritzarekin azken elkarrizketa. Gernikatik Arnagara*. Txalaparta.
- Sow, Fatou (1997). The social sciences in Africa and gender analysis. In Imam Ayesha M., Amina A. Mama eta Fatou Sow (ed.). *Engendering African Social Sciences*. Council for the Development of Economic and Social Research in Africa.
- SPACE (2010), Survey 2008, consultado en [http://www.coe.int/t/dghl/standardsetting/prisons/space\\_i\\_en.asp](http://www.coe.int/t/dghl/standardsetting/prisons/space_i_en.asp)
- Spivak, Gayatri (2011). *¿Puede hablar el subalterno? El cuenco de la plata*.
- Stolcke, Verena (2003). La mujer es puro cuento: la cultura del género. *Quaderns de l'Institut Català d'Antropologia*, 19, 69-95.
- Strejilevich, Nora (1997). *Una sola muerte numerosa*. North.
- Strobl, Ingrid (2015). *Partisanas. La mujer en la resistencia armada contra el fascismo y la ocupación alemana (1936-1945)*. Virus.
- Sutton, Barbara (2015). Terror, testimonio y transmisión: Voces de mujeres sobreviviente de centros clandestinos de detención en Argentina (1976-1983). *Mora*, 21, 5-23.
- , (2018). *Surviving State Terror: Women's Testimonies of Repression and Resistance in Argentina*. New York University Press.

- Sykes, Gresham M. eta Messinger, Sheldon (1960). The Inmate Social System. In Richard Cloward, Donald R. Cressey, George H. Grosser, Richard McCleery, Lloyd E. Ohlin, Gresham E. Sykes eta Sheldon L. Messinger (ed.), *Theoretical Studies in Social Organization of the Prison* (5-19. or.). Social Science Research Council.
- Sykes, Gresham. M. (1958). *The Society of Captives: A Study of a Maximum Security Prison*. Princeton University Press.
- Taussig, Michael (1987). *Colonialism, Shamanism and the Wild Man: A study in Terror and Healing*. The University of Chicago Press.
- Taylor, Diana (1997). *Disappearing Acts. Spectacles of Gender and Nationalism in Argentina's «Dirty War»*. Duke University Press.
- , (1999). Gender and Social Movements in Gender Processes in Women's Self-Help Movements. *Gender & Society*, 13(1), 8-33.
- Tello, Mariana (2012). Narrar lo inenarrable, imaginar lo imaginable, comprender lo incomprendible: las estrategias de representación en torno a las memorias sobre la experiencia concentracionaria. *V Seminário Internacional Políticas de la Memoria. Arte y Memoria: Miradas sobre el Pasado Reciente*. Centro Cultural de la Memoria Haroldo Conti.
- , (2013). Ética y antropología de la violencia. *Antropología e ética: desafíos para a regulamentação* (172-229. or.). ABA.
- Tezanos, Jose Felix (2001). *La sociedad dividida: estructuras de clases y desigualdades en las sociedades tecnológicas*. Biblioteca Nueva.
- Theidon, Kimberly (2006). Género en transición: sentido común, mujeres y guerra. *Cuadernos de Antropología Social*, 24, 6992. <https://doi.org/10.34096/cas.i24.4409>
- Tilly, Charles (2003). *The Politics of Collective Violence*. Cambridge University Press [gaztelera-zko edizioa: *Violencia colectiva*. Hacer. 2007].
- Toussaint, Mónica (1985). La participación organizada de la mujer nicaragüense en la revolución sandinista. *Secuencia. Revista de Historia y Ciencias Sociales*, 3, 144-157. <http://secuencia.mora.edu.mx/index.php/Secuencia/article/view/114>
- Trenor, Carlos 2019. *Prisión para la disidencia vasca. Presas y presos políticos vascos (1978-2011)*. Euskal Memoria Fundazioa
- Trolliet, Fabrice (2002). *Les gardes à vue dérogatoires* [Doktorego tesia]. Aix-Marseille 3.
- Troncoso, Leila eta Piper, Isabel (2015). Género y memoria: articulaciones críticas y feministas. *Athenea digital: revista de pensamiento e investigación social*, 15(1), 65-90.
- Tugrul, Baris (2021). *A Generational Analysis of the Social Reproduction and Legitimacy of Political Violence in the Basque and Kurdish Cases* [Doktorego tesia]. EHESS.
- Ugarte, Larraitz (2003). *Kanada eta Espainiar Estatuko Emakume Espetxeratuen Egoeraren gaineko Análisi Gonbaratiboa* [Master Amaierako Lan argitaratu gabea].
- Uharte, Luis Miguel (2020). La cultura política de la izquierda paraguaya. Rasgos, tensiones y redefiniciones. *Perfiles latinoamericanos*, 28(56). <https://doi.org/10.18504/pl2856-013-2020>
- Urrutia, Iñigo eta Irujo, Xabier (2023). *Historia Jurídica de la Lengua Vasca (1789-2023)*. IVAP.
- Urteaga, Eguzki (2022). El proceso de paz en el País Vasco: el rol desempeñado por la sociedad civil y los electos locales. *Revista Internacional de los Estudios Vascos*, 67(1).
- Vallejo-Nágera, Antonio (1938). *Divagaciones intrascendentes*. Talleres Tipográficos Cuesta.
- Valverde, Jesús (1991). La cárcel y sus consecuencias: la intervención sobre la conducta desadaptada. Editorial Popular, Madrid, 231

- Vara, Laura (2011). *Amatasuna eta espetxeak. Hainbat euskal emakumeren esperientziak* [Master Amaierako Lan argitaratu gabea]. UPV/EHU.
- Varela, Roberto (2005). *Cultura y poder: Una visión antropológica para el análisis de la cultura política*. Anthropos / Universidad Autónoma Metropolitana.
- Vázquez, Norma; Ibáñez, Cristina eta Murguialday, Clara (1996). *Mujeres–Montaña. Vivencias de guerrilleras y colaboradoras del FMLN*. Horas y Horas.
- Velho, Gilberto (1996). Violência, reciprocidade e desigualdade: uma perspectiva antropológica. *Cidadania e violência*, 2, 11-25.
- Verdugo, Viventa (2008). Franquismo y represión penitenciaria femenina: las presas de Franco en Valencia. *Arenal. Revista de historia de las mujeres*, 15(1), 151-176.
- Vidaurrázaga, Tamara (2005). *Mujeres en Rojo y Negro. Reconstrucción de la Memoria de tres mujeres miristas (1971-1990)* [Doktorego tesia]. Universidad de Chile.
- , (2007). *Mujeres en rojo y negro. Memoria de tres mujeres miristas (1971-1990)*. Ediciones America Libre.
- , (2012). La escisión entre lo individual y lo colectivo en la moral revolucionaria militante de la Nueva Izquierda. *Revista Sujeto, Subjetividad y Cultura*, (4), 37-45.
- , (2015). Subjetividades sexo genéricas en mujeres militantes de organizaciones político-militares de izquierda en el cono sur. *La ventana. Revista Estudios de Género*. 41, 7-34. <https://doi.org/10.32870/lv.v5i41.4311>
- Vidaurrázaga, Tamara; Ruiz, Olga Maria eta Ruiz, Marisa (2020). Compórtate como una mujer. La tortura genérico-sexual como dispositivo de control dictatorial en Chile y Uruguay. *Clepsidra*, 7(14), 28-47.
- Villa-Gómez, Juan David; Avendaño, Manuela eta Agudelo, María Camila (2018). La memoria como objeto de estudio en las ciencias sociales. *ECA: Estudios Centroamericanos*, 73(754), 301-326. <https://doi.org/10.51378/eca.v73i754.3171>
- Vinyes, Ricard (2011). Doblegar y transformar: la industria penitenciaria y sus encarceladas políticas. Tan sólo un examen. *Studia Historica. Historia Contemporánea*, 29, 35–54.
- , (2002). *Irredentas: Las presas políticas y sus hijos en las cárceles franquistas*. Temas de Hoy.
- Ward, David. A eta Werlich, Thomas. G. (2003). “Alcatraz and Marion: Evaluating super-maximum custody”. In *Punishment and Society*, 5, 53-75.
- Watts, Roderick; Abdul-Adil, Jaleel K. eta Pratt, Terrance (2002). Enhancing Critical Consciousness in Young African American Men: A Psychoeducational Approach. *Psychology of Men & Masculinity*, 3(1), 41.
- West, Lois. A. (1997). *Militant labor in the Philippines*. Temple University Press.
- Wickham-Crowley, Timothy (1992). *Guerrillas and Revolution in Latin America: A Comparative Study of Insurgents and Regimes Since 1956*. Princeton University Press.
- Wildavsky, Aaron (1997). La elección de preferencias a través de la construcción de instituciones. Una teoría cultural de la formación de preferencias. *Zona Abierta*. 77/78, 163-198.
- William, M. Reddy (2001). *The Navigation of Feeling: A Framework for the History of Emotions*. Cambridge University Press.
- Williams, Raymond (2009). *Marxismo y literatura*. Las Cuarenta.
- Wittgenstein, Ludwig (1988). *Las investigaciones filosóficas*. Crítica-Grijalbo.



- Wood, Elisabeth (2001). Peasant Political Mobilization. In El Salvador: The Contribution of Emotional In process Benefits. In Jeff Goodwin, James M. Jasper eta Francesca Polletta (ed.), *Passionate Politics: Emotions and Social Movements* (267-281. or.). University of Chicago Press.
- Yague, Concepción (2007). *Madres en prisión. Historia de las cárceles de Mujeres a través de su vertiente maternal*. Comares.
- Yesuron, Mariela R. (2021). Una lectura feminista y antipunitivista de la dicotomía víctima-victimario. *Polémicas Feministas*, 5, 1-21.
- Yusta, Mercedes (2004). Rebeldía individual, compromiso familiar, acción colectiva: las mujeres en la resistencia al franquismo durante los años cuarenta. *Historia del presente*, 4, 63-92.
- , (2015). Con armas frente a Franco. Mujeres guerrilleras en la España de posguerra. *Heterodoxas, guerrilleras y ciudadanas. Resistencias femeninas en la España moderna y contemporánea*, 175-195.
- Yuval-Davis, Nira (1997). *Gender & Nation*. Sage Publications.
- , (2004). Género y nación: articulaciones del origen, la cultura y la ciudadanía. *Arenal. Revista De Historia De Las Mujeres*, 3(2), 163–175.
- Zabala, Begoña (2008). *Movimiento de mujeres, mujeres en movimiento*. Txalaparta.
- Zapata, María. (2019). *La depresión y su recuperación. Una etnografía feminista y corporal* [Doktorego tesia]. EHU/UPV.
- Zizek, Slavoj (2001). *El espinoso sujeto. El centro ausente de la ontología política*. Paidós.
- Zurbriggen, Eileen L. (2008). Sexualized Torture and Abuse at Abu Ghraib Prison: Feminist Psychological Analyses. *Feminism & Psychology*, 18, 3, 301-320.
- Zurutuza, Cristina (2011). Crímenes sexuales en contextos concentracionarios: violencia, género, subjetividad. In Marta Vassallo (ed.), *Grietas en el silencio. Una investigación sobre la violencia sexual en el marco del terrorismo de Estado* (69-114. or.). Cladem.



## Irudien aurkibidea

1. irudia: Denbora-lerro hirukoitza.....	14
2. irudia: Etnografiaren hiru dimentsioak.....	30
3. irudia: Kartzelako koadernoak.....	41
4. irudia: Azterketarako eskemak.....	52
5. irudia: Gatazka armatuaren bilakaerako mugarriak.....	85
6. irudia: Espetxe-politika eta haren mugarriak.....	92
7. irudia: Ezker Abertzaleko feminismoaren bilakaera.....	97
8. irudia: Nafarroako tortura-datuak urtez urte (1979-2015).....	105
9. irudia: EAEko tortura-datuak urtez urte (1960-2015).....	106
10. irudia: Partaideen partaidetza denbora-lerroa.....	121
11. irudia: 1958-2009 bitartean izandako euskal perso politikoen kopurua, generoka banatuta.....	264
12. irudia: Komunikazioen interbentzioaren jakinarazpena eta argudiaketa.....	285
13. irudia: Espetxe Erakundearen bizi-erregimenen sistemaren progresioa eta graduaren politika.....	294
14. irudia: Hiru espetxe-erakundearen goitiko bistak (aire-argazkiak): a) ezkerreko irudia: Valladolideko Espetxea; b) eskuinean, goiko irudia: Soto del Realeko Espetxea; c) eskuinean, beheko irudia: Avilako Espetxea.....	299
15. irudia: Espetxe-arkitekturaren ereduak: panoptikoa (ezkerrean), erradiala (eskuinean).....	306
16. irudia: Espetxe-arkitekturaren ereduak: espina ereduak.....	307
17. irudia: Espetxe-arkitekturaren ereduak: eredu modularra.....	307
18. irudia: Segurtasun handiko espetxeetako kontrol-dorrea.....	307
19. irudia: Presoen nortasun-agiriak.....	309
20. irudia: Eskutitzak.....	338
21. irudia: Agentzia eta egitura.....	373
22. irudia: Dispersioaren mapak.....	377
23. irudia: Erresistentzia mapa.....	382
24. irudia: Frikzioen mapa.....	392

## Taulen aurkibidea

1. taula: Azterketa-unitateak.....	15
2. taula: Egindako behaketak.....	32
3. taula: Beste erreferentziak.....	33
4. taula: Elkarrizketa sakonak.....	34
5. taula: Partaideen profilen laburpena.....	35
6. taula: Beste elkarrizketak.....	39
7. taula: 1990 eta 2011 urteen arteko gatazka armatu eta gudak.....	67
8. taula: Berria egunkariko kronologia.....	90
9. taula: Bi estatuek eragindako hildakoak.....	101
10. taula: Preso kopuruak, 1958–2020 bitartean.....	102
11. taula: Preso politikoekiko neurri bereziak.....	102
12. taula: Euskal Autonomia Erkidegoan, Estatu Espainoleko poliziak (Polizia Nazionalak, Guardia Zibilak eta Ertzaintzak) torturatutako pertsona kopuruak, 1960tik 2014ra.....	104
13. taula: Nafarroan, Estatu Espainoleko poliziak (Polizia Nazionalak, Guardia Zibilak eta Ertzaintzak) torturatutako pertsona kopuruak, 1960tik 2015era.....	117
14. taula: Balio-sistema.....	398
15. taula: Emozioen unibertsoa.....	399
16. taula: Ezaugarri eta zereginen hierarkia.....	408

# Eraskinak

## 1. Eraskina: Lanketa bibliografikoa.

Iheslari eta deportatuei buruz	
Lanaren erreferentzia	Lan mota
- <i>Iheslariak. Exilio vasco.</i> 2015. Iñaki Egaña.	Datuen bilduma.
- <i>Los deportados vascos. Los olvidados del conflicto.</i> 2021. Susana Panisello.	Ikerketa baten -doktore tesiaren -txosten liburua.
- <i>Iheslariak.</i> 2022. Jaione Dorai, Ernesto Prat.	Datuak eta testigantzak.
- <i>Ikusezinak. Erbesteratuen haurrak.</i> 2022. Miren Azkarate badiola.	Testigantzen bilduma.
Espetxeari buruz	
Lanaren erreferentzia	Lan mota
- <i>Informes de prisiones e instituciones penitenciarias. Del 1995 hasta 2005.</i>	Administrazio publikoaren estatistikak.
- <i>Burdinen arteko herria. Euskal Preso Politikoen Historia.</i> 2009. Egiletza Kolektiboa.	Entsegu dokumentatua.
<i>Ametsen liburua.</i> 2015	Gutun bilduma
- <i>Amaren etxea. Presoen senideen historia bat.</i> 2018. Jokin Uriain.	Entsegu dokumentatua.
- <i>Euskal Disidentzia. Errepresioa eta espetxea.</i> 2019. Carlos Trenor.	Ikerketa baten ondorio txosten liburua.
- <i>Askatasun haizea.</i> 2020. Iñaki Egaña. Joxe Erramun Bustillo. Eugenio Etxebeste.	Datuen bilduma.
Ataramiñe lehen 10 aleak.	Literatura kuadernoak,
Torturari buruz	
Lanaren erreferentzia	Lan mota
-Torturaren Aurkako Taldearen, TATen informeak: 1992tik 2002ra.	Datu eta testigantzen bilduma.
-TATeko Genero azterketa informea.	Azterketa.
- <i>Manual del torturador español.</i> 2009. Xabier Makazaga.	Entsegu dokumentatua.
- <i>Oso latza izan da. La tortura en Euskal Herria.</i> 2012. Julen Arsuaga.	Datu, testigantza eta azterketa liburua.

- <i>Incomunicacion y tortura. Análisis estructurado en base al protocolo de Estambul.</i> 2015. Egiletza Kolektiboa.	Ikerketa baten txostena.
-Proyecto de investigación tortura y malos tratos en el País Vasco entre 1960 y 2014. Informe Final. 2018	Ikerketa baten txostena.
<b>Estatu indar militar edo paramilitarrek hildakoei buruz</b>	
<b>Lanaren erreferentzia</b>	<b>Lan Mota</b>
-Motibazio politikoko indarkeria emakumeen aurka euskal kasuan txostena. 2016. Argituz	Ikerketa baten ondorio txostena.
-Verdad para las víctimas herramienta para el reconocimiento, la reparación y la resolución de las consecuencias del conflicto Informe de conclusiones del debate. 2019. Egiari Zor.	Datu bilketa eta gogoeta barne txostena.
- <i>La guerra no declarada. Terrorismo de Estado en Euskal Herria.</i> 2014. Euskal Memoria Fundazioa.	Dokumentazio liburua.
<i>Agurra eta ohorea.</i> 2013. Jokin Urain.	Entsegua.
<b>Ezker Abertzaleko historiari buruz</b>	
<b>Lanaren erreferentzia</b>	<b>Lan mota</b>
- <i>Herri Batasuna 20 años de lucha por la libertad. 1978-1998.</i> Egiletza kolektiboa. 1999.	Entsegu historikoa
- <i>Historia del sindicato LAB.</i> 1975-2000. Emilio Majuelo. 2004.	Entsegu historikoa
- <i>Lan sindikatuaren historia. II. 2000-2005.</i> Joxe Erramun Bustillo. 2007.	Entsegu historikoa
- <i>ETA. 1958-2008. Medio Siglo de historia.</i> Iker Casanova. 2007	Entsegu historikoa.
- <i>ETAren historia laburra.</i> Iñaki Egaña. 2017	Entsegu historikoa.
- <i>40 urte eta segi aurrera.</i> 2019. Markel Ormazabal eta Irati Sienna.	Ikerketa baten ondorioen txosten liburua.
1990tik 2005 arteko Ezker Abertzaleko erakundeen Biltzarretako ponentziak	-Jarraiko V eta VI. Biltzarra. -Haika sortzeko Amaiur prozesuko ponentziak. -Herri Batasunako Urrats Berri eta Oldartzen ponentzia. -Batasuna prozesuko ponentzia. -Labeko IV, V. eta VI. Biltzarrak -Egizaneko ponentzia eratzailea.

<b>Gazte mugimenduaren historiari buruzkoak</b>	
<b>Lanaren erreferentzia</b>	<b>Lan Mota</b>
<i>La maza y la cantera. Juventud vasca, represion y solidaridad.</i> 2010. Julen Arzuaga	Entsegua.
<i>-Matxinada. Historia del movimiento juvenil radical vasco.</i> 2004. Eoin O'Broin.	Entsegu dokumentatua
<i>Gazte matxinada.</i> 2004. Garikoitz Mugika.	
<b>Emakumeak eta mugimendu feministaren historiari buruz</b>	
<b>Lanaren erreferentzia</b>	<b>Lan mota</b>
-Cifras: Mujeres y hombres en Euskadi. Informes. Emakunde.	Administrazio publikoko datu estatistikoak eta azterketak.
<i>-Movimiento de mujeres. Mujeres en movimiento.</i> 2008 Begoña Zabala.	Entsegu historikoa
<i>-Gure genealogia feministak.</i> 2015. Iratxe Retolaza, Miren Aranguren eta Edurne Epelde.	Ikerketa baten ondorioen txosten liburua.

*Iturria: norberak egina.*

## 2. Eraskina: behaketa gidoia

### Orokorra

<b>Izenburua</b>	
<b>Formatua</b>	
<b>Antolatzaileak/helburuak</b>	
<b>Gonbidatuak</b>	
<b>Jende kopuru eta ezaugarriak</b>	
<b>Data eta lekua</b>	
<b>Besterik</b>	

### Zehatza

<b>Arreta deitu didaten eduki edo gertaerak</b>	
<b>Nire osteko gogoeta eta sentimenduak</b>	
<b>Entzuleen aipuak</b>	
<b>Giroa</b>	

## Espezifikoa

Hizlarien interpretazio markuak	
Haustura une edo kontzientzia hartzei erreferentziak	
Proposamenak/kezkak/ilusioak	
Irekitako eztabaidei lotutakoak	
Diskurtso emergenteak eta izkutukoak	
Entzuleekiko interakzioa	
Emozioa/gorputza, mina, ahalegina	
Bizipen aniztasuna	

### 3. Eraskina: elkarrizketa gidoia

#### *Aurkezpena.*

Ikerketaren gaiaren azalpena.

Elkarrizketaren anonimotasuna.

Elkarrizketaren erabilera. Transkripzioaren gainean lan egingo dut, audioa alde batera utziz, horrela behar izanez gero.

Transkripzioa, bueltan pasatzeko aukera egongo da, zuzendu nahi izanez gero...bereziki zenbait atal kendu nahi izanez gero. Beste zerbait adosteko beharra ikusten duzu?

Elkarrizketaren iraupena, ordu eta erdi edo bi ordukoa izango da.

Baliteke bigarren elkarrizketa baten beharra egotea. Prest zeundeke?

Teknikaren azalpena: Elkarrizketa hitza, entrebistatik baino konbersaziotik ulertu.

Ez dago ondo edo txarto esandakorik, zure esperientzia jaso nahi dut, eta hor zeu zara jaun eta jabe. Zeuk duzu inork baino hobeto zeure berri.

Lasai aritu, ni ikertzen ari naiz eta ez epaitzen. Ahal duzun askatasun eta erosotasun handiengan aritzea nahiko nuke.

Itzulera: Landa lana behin amaituta analisi fasean behin sartuta, ataratzan ari naizen ondorioen berri emango dizut, horrela nahi izanez gero.

***Datu orokorrak*** Adina, jaiolekua, bizilekua, ogibidea, ikasketak (zeintzuk eta noiz ta non burutuak), parenteskoa, espetxe urteak eta baldintzak, beste errepresioak. Partaidetza erakundeak.



## **I. ATALA:**

### **Egitura orokorra:**

#### ***Hasiera***

Nire interesgunea zure militantzia politikoa da: Noiz, non eta nola hasi zinen militatzen?

Zein uste duzu izan zela zure motibazio nagusia militatzen hasteko? Gertakariren bat aipatu ahalko zenuke? Zer sentitu zenuen gertakari horren aurrean?

Nola deskribatuko zenituzke zure lehen militantzia esperientziak? Zer gogoratzen duzu, zer sentimendu sortzen dizute? Zeintzuk edo nortzuk ziren zure erreferentziak?

#### ***Ezaugarritzea***

Zein zen zure aportazioa militantzian? Zein lan mota egiten zenituen? Gustora aritzen zinen horietan?

Zelakoa zen zure egunerokoa?

Zelako harreman mota zeneukan beste kideekin?

Aintzat hartua sentitzen zinen? Hau da erabaki ahalmena zenuela sentitzen zenuen?

Gogoratzen duzu eztabaidaren bat, gatazkaren bat? Edo sinpleki ondoeza sortu zizun zerbait?

Nola deskribatuko zenuke garai horretako giroa? Eta bizimodua?

#### ***Mugarriak:***

Zeintzuk esango zenuke izan direla hitoak zure konpromezu politikoan (bereziki ostera izan dituen ondorioengatik)? Zergaitik? Deskribatu ahal didazu eszena zehatzen bat?

Nola deskribatuko edo azalduko zenuke zure historia errepresiboa?

Nola esango zenuke eragin dizula errepresioak? Eragin hori politikoa da ala personala?

Noiz ohartzen zara eragin horretaz?

Uste duzu Ezker Abertzaleko beste pertsonengan berdin eragin duela? Zure bizipena besteekiko berdintsua ala ezberdina dela esango zenuke?

Zein da zure militantzia faseetatik gogoratzen duzun ederrena? Zergaitik?

Eta gogorrena edo zailena? Zergaitik?

Ibilbide horretan bidegurutzeren bat oroitzen duzu? Nola deskribatuko zenuke?

### ***Euskarriak, heldulekuak eta estrategiak***

Zeintzuk uste duzu izan direla zure heldulekuak etapa bakoitzean? Zerk eman dizu arnasa, adorea edo poza?

Eta zerk kendu?

Zer ikasi duzu bizipen honetatik? Bizi lekziorik izan duzula esango zenuke? Eta ikaspen politikorik?

### ***Gaur egunetik iragana begiratz.***

Zertan uste duzu eragin dizula esperientzia honek? Zertan aldatu zaitu aldatu baldin bazaitu?

Aldaketa horrek une edo gune zehatzen bat du?

Noiz jabetu zara aldaketa horietaz? Haustura uneren bat identifikatuko zenuke?

Nola deskribatuko zenuke aldaketa hori?

Beste aldaketarik eragin dizu, zure harremanetan adibidez?

Zein da egiten duzun prozesuaren balantzea edo balorazioa?

Nola ikusten zenuen Ezker Abertzaleko jendea eta proiektua lehen?

Nola ikusten zenuen estatua? Eta Euskal Herriko beste jendeak?

Eta zure buruarekiko, Nola deskribatuko zenuke lehengo *zeu* hori?

Bizipen guzti hauek gizartean lekua dutela sentitzen duzu? Eta Ezker Abertzalean?

### ***Gaur egunetik etorkizuna begiratz.***

Nola deskribatuko zenuke zeure burua orain? Imajinatu aurkezpen bat egin behar duzula eta modu librean egiteko aukera duzula?

Preso ohi etiketarekin zelan sentitzen zara?

Torturatu etiketarekin zelan sentitzen zara?

Biktima sentitzen zara? Zergaitik? Zer da orduan biktima izatea?

Ze proiektu dituzu?

Ze leku du esperientzia horrek zure eguneroko bizitzan? Harreman, amets eta minetan?

Esperientzia horrek eragin politikorik izan du? Berdin pentsatzen darraizu? Berdin sentitzen darraizu? Zertan aldatu da? Eta zergaitik uste duzu aldatu dela?

Zeintzuk dira egungo abagunean egin beharreko ekarpenak zure ustez?

Gaur egun politikoki parte hartzen duzu? Nola, zertan eta zergaitik?

Gatazkaren ondorioen alorrean hitz egiten ari diren gauzen harira (egia, erreparazioa, memoria) nola sentitzen zara? Zein behar dituzu?

Nola ikusten duzu egun Ezker Abertzaleko proiektua?

### ***Amaitzeko:***

Ibilbide horretan lotsa zehatzen bat identifikatzen duzu? Zeintzuk ziren zure lotsak lehen eta zeintzuk orain?

Zeintzuk ziren zure beldurrak lehen eta zeintzuk orain?

Zeintzuk ziren zure minak lehen eta zeintzuk orain?

Zeintzuk zeure pozak eta esperantzak, eta zeintzuk orain?

Norekin hitz egiten duzu gauza hauetaz? (hitz egiten baldin baduzu). Zergaitik horiekin? Horren beharra duzu? Zergaitik (edo zergaitik ez?).

Galdetu ez dizudan zerbait esan nahi zenuke?

Baduzu gutun, ipuin, argazki, eguneroko edo holakorik? Konpartitzeko prest/gogotsu zeundeke?

## **II. ATALA:**

### **Sekuentziala edo/eta tematikoa:**

#### **-Militantzia:**

Nola erabaki zenuen X-n sartzea?

Zein zan antolakunde horren egitura eta funtzionamendua? Eta ritmoa?

Zer ikasi zenuen zure militantzian? Ezagutza zehatzak (gaitasunak, praktika zehatzak), balioak...Nola baloratzen duzu hori?

Militantziak eskatzen zizun, zein rol edo praktika egin zitzaizun zailena? Zein errezena? Zerk eragiten zizkizun kontraesanak?

Zein da Ezker Abertzaleko emakumeak nazio askapen borrokari egin diozuen ekarpena zure ustez?

Nola sentitzen zara EAko emakumeetaz proiektatu den irudiarekin?

Zelan deskribatuko zenuke zure orduko iruditegia? Nola ikusten zenuen zeure burua? Zein amtes, ilusio eta desio?

Zerk asetzen zintuen gehien? Eta zerk frustratu? Zerk inpotentzia sortu?

Oharra: Antolakunde baten baino gehiagotan egon bada, konparazioak egitea eskatu (kultura militantea, egunerokoa, giroa, generoarteko harremanak, jendeak edo gizarteak erakunde horrekiko zuen iruditegia eta abar).

### **-Espetxea:**

Nola azaldu edo deskribatuko zenioke espetxea, ezagutzen ez duen bati?

Nola gogoratzen duzu bertarako bide edo sarrera? Zein zan zenuekan iruditegia? Nola aldatu da eta zergaitik?

Zer egin zitzaizun errezena eta zer zailena?

Zer da oroitzen duzun ederrena?

Zertaz hitz egiten zenuten patioan? Eta zertaz irri egin?

Zein zan zure/zuen egunerokoa?

Nola deskribatuko zenuke giroa?

Etapia edo aroak egon dira? Zerk markatu ditu horiek?

Gogoratzen duzu estrategia edo bideren bat jazarpenen bati aurre egiteko?

Nola eramaten zenituen EPPK-ko borrokak?

Nola bizi zenuen zure sexualitatea kartzelan?

Zein zen espetxeak ematen zizun tratua? Zer egiten zitzaizun tratu horretatik mingarriena? Eta zerk sortzen zizun indar sentimendua?

### **-Ihesaldia eta klandestinitatea:**

Gogoratzen dituzu hasierako sentimenduak?

Agurtu zinen? Nortaz eta zergaitik?

Zergaitik ez zenuen agurtu nahi izan?

Zer izan da zailena? Gatazkak, ezinak, oztopoak....

Nola bizi zenuen identitate aldaketa? Nola sasia egindako lotura eta desloturak?

Zer izan zen politena? Indarra ematen zizuna, gogoratzen dituzun une goxoak...

Nola deskribatuko zenuke giroa?

Egoera horrek aldatu zizula esango zenuke?

Esperientzia horri sentazio fisiko bat jarri behar bazenioke, zein izango litzateke?

Nola bizi zenuen sexualitatea egoera horretan?

### **-Komisaldegia:**

Atxilotu aurretik zein zen zure torturarekiko iruditegia? Eta zein gero? Zein iraganean eta zein gaur egun? Gizarteak zeri deritzo tortura zure ustez? Eta zuk? eta zure mugimenduak?

Bat zatoz Tortura esperientzia kontaktzen ari den moduekin?

Nola deskribatuko/definituko zenuke esperientzia hau?

Esperientzia horri sentazio fisiko bat jarri behar bazenioke, zein izango litzateke?

Zein da esperientzia horrekiko bizi izan duzun prozesua gerora? Judiziala, psikologikoa, politikoa, fisikoa, komunitarioa..?

Deskribatu al didazu eszena bat?

Gogoratzen duzu egoerari aurre egiteko erabilitako estrategia edo bideren bat?

Nola kudeatu duzu aldez aurreko beldurra eta nola ostekoa?

Zerbaitetan zehazki eragin dizula uste duzu?

Osatu gaitzke? Nola uste duzu egin dezakegula?

Hitzegiten al duzu honetaz zure ingurune hurbilarekin? Eta urrunarekin? Zergaitik bai eta zergaitik ez?

Zer behar edo nahi duzu? Zer zor zaie tortura bizi izan dutenei?

Zer uste duzu dela tortura sexista? Noiz jabetu zinen honetaz eta zergaitik?

### **-Etixeratzea:**

Nola deskribatuko/definituko zenuke esperientzia hau?

Zer izan da zailena? Oztopoak (emozional eta materialak), zailtasunak eta ezinak.

Gatazkarik bizi al zenuen? Familiarekin, gizartearekin, lagunekin, zeure buruarekin?

Nortzuk eta/edo zer izan zen zure heldulekuak?

Zer izan zen politena?

Ez-ustekorik bizi al izan zenuen? Aurreikusten ez zenuen zerbait alegia.

Nola uste duzu ikusten zaituela jendeak? Gizarteak, zeure komunitateak?

Zure ustez, zer hartu beharko litzateke kontutan, beste kideen herriratzea errezteko?

### **- Ahaidetasunak:**

-Zein da zure familia egitura? Zein baldintzatan eratu zenuen “familia” hori? Zein beldurrekin? Zein esperantzekin? Zeintzuk izan ziren kontraesan edo dilema nagusiak? Nola bizi duzu “espezifidade” hori egun?

-Nola bizi zenuen haurrarekiko banaketa? Nola bizi izan duzu beste pertsonen kargutzea zure haurraren zaintzaz?

-Zein izan da zure familiaren erreakzioa baldintza horietan ama izatea erabaki zenuenean? Eta beraiei zegokien ardura eta paperaz, zer uste dute?

-Zein izan zen zure kideen erreakzioa eta jarrera?

-Nolakoa da egun zure hurrekin duzun harremana? Kasu guztietan horrela dela uste duzu? Aitek ere horrela bizi dute?

-Haurrik ez ekartzea hautua ala inposaketa izan da? Nola daramazu gai hori?

-Nola bizi zenituen, zeure guraso edo senitartekoen zaintza beharrak zituzten garaiak?

-Nolakoa da presoekiko duzun sentimendua? Eta zurekin egon zirenekiko? Eta zurekin militatu zutenekikoa?

-Kartzelako “familiatxo” horrekin zein da egun duzun harremana? Zenbatero “egoten” zarete? Zertarako?

- Nola daramazu bikotea kartzelan izatea? Nola daramazu “bikotea” izate hori?
- Zein da “senidearen” iruditegia? Identifikatuta sentitzen zara?
- Zein esango zenuke dela, zure militantzia edo errepresioak zure familia egituran izan duen eragin handiena? Zein baloratzen duzu modu baikorrean eta zein ezkorrean?

### - Pertenentziak:

- Zerk egiten zizun parte sentitzea? Zerk ez parte sentitzea? Zerekin identifikatzen zinen gehien?
- Nola definituko zenuke parte sentitzearen sentimendua?
- Zerren parte zinela esango zenuke? Proiektu politikoa bat, mugimendu bat, komunitatea bat, emakume multzo bat, aro historiko bat?
- Pertenentzia hori nola eraiki zen? Edo emana zetorren?
- Zeintzuk esango zenuke zirela zenituzten ritualak, baloreak/sinismenak eta sinboloak? Edota portaera jarraibideak (pautas de comportamiento)? Deskribatuko zenidake horietako bat edo bi? Agian bereziki sentimendu horren puntu gorena zirenak?
- Zer da parte sentitze horrek eman dizuna? (nor izatea, harrotasuna, seguritatea, harremanak, mutualitatea, interdependentzia, konfidantza.....).
- Zer da parte sentitze horrek kendu dizuna?
- Gaur egun zeren parte sentitzen zara? Pertenentzia sentimendu hori aldatu da? Intentsitatean edo definizioan...zerrekiko alegia?
- Zergaitik uste duzu hori gertatu zaizula?
- Zeintzuk dira orain parte sentitzen zaren horren ritual, balore/sinismen eta sinboloak?
- Edota ez bazara ezerren parte sentitzen, nola sentitzen zara egoera berri honetan?
- Zein eragin izan du pertenezia sentimenduan zurekiko/zuekiko Estatua edo euskal gizarteko beste jendeen uste/jarrerak? Identifikatuta sentitzen zinen zutaz/zueta agertzen zen iruditegiarekin? Eta gaur egun?

### Generoarteko harremanez eta EAko emakumeez:

- Parte hartu zenuen Usurbileko ekimenean? Zer sentitu zenuen?
- Osteko tailer eta prozesu feministan parte hartu duzu? Zergaitik (bai ala ez)?
- Nola ikusten duzu gai hau?
- Zeintzuk dira zure ustez emakumeek EA barruan bizi izan dugun egoera? Aldatu dela uste al duzu?
- Uste duzu gizon eta emakumeok ibilbide errepresibo berdina izan dugula? Berdin bizi izan dugu?
- Zeintzuk dira ezberdintasun nagusiak zure ustez?
- Oharra: Elkarrizketetan, beste emakume edo gizonen prentsan, bileraren batean edo elkarrizketaren batean egindako baieztapen batzuk erabiliko ditut, zenbait gaietan



